



# **OINARRIZKO HEZKUNTZAKO CURRÍCULUMA**

**(236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen  
curriculum orientatzailea)**

# AURKIBIDEA

SARRERA .....	13
Curriculum diseinuaren osagaiak .....	14
<b>LEHEN ZATIA: OINARRIZKO HEZKUNTZAKO CURRICULUMAREN IKUSPEGI OROKORRA .....</b>	<b>15</b>
<b>1. OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASLEEN IRTEERA-PROFIL OROKORRA.....</b>	<b>16</b>
<b>1.1. OINARRIZKO KONPETENTZIAK: OINARRIZKO HEZKUNTZAKO HELBURUAK.....</b>	<b>16</b>
1.1.1. OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK .....	19
1.1.2. OINARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK .....	22
1.1.3. OINARRIZKO KONPETENTZIAK, CURRICULUM-EDUKIAK ETA EUSKAL CURRICULUMAREN BERARIAZKO EDUKIAK .....	27
<b>1.2. OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK.....</b>	<b>29</b>
1.2.1. HITZEZKO ETA HITZIK GABEKO KOMUNIKAZIORAKO ETA KOMUNIKAZIO DIGITALERAKO KONPETENTZIA .....	30
1.2.1.1. Konpetentziaren definizioa eta ezaugarriak.....	30
1.2.1.2.- Konpetentziaren osagaiak.....	31
1.2.2. IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA.....	34
1.2.2.1. Konpetentziaren definizioa eta ezaugarriak.....	34
1.2.2.2.- Konpetentziaren osagaiak.....	35
1.2.3. ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA .....	40
1.2.3.1. Konpetentziaren definizioa eta ezaugarriak.....	40
1.2.3.2. Konpetentziaren osagaiak.....	40
1.2.4. EKIMENERAKO ETA ESPIRITU EKINTZAILERAKO KONPETENTZIA .....	45
1.2.4.1. Konpetentziaren definizioa eta ezaugarriak.....	45
1.2.4.2. Konpetentziaren osagaiak.....	46
1.2.5. NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA.....	48
1.2.5.1. Konpetentziaren definizioa eta ezaugarriak.....	48
1.2.5.2.- Konpetentziaren osagaiak.....	49
<b>1.3. OINARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK.....</b>	<b>57</b>
1.3.1. HIZKUNTZA- ETA LITERATURA- KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA.....	59
1.3.1.1. Definizioa eta osagaiak .....	59
1.3.1.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak .....	59
1.3.1.3. Arlo/ikasgaien ikuspegia .....	60
1.3.1.4. Integrazio-egoerak .....	62
1.3.1.5. Hizkuntza-arloek eta -ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko .....	63
1.3.2. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA .....	66
1.3.2.1. Definizioa eta osagaiak .....	66

1.3.2.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak .....	66
1.3.2.3. Arlo/ikasgaiaren ikuspegia .....	67
1.3.2.4. Integrazio-egoerak .....	68
1.3.2.5. Matematikaren arloak eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko .....	69
<b>1.3.3. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>73</b>
1.3.3.1. Definizioa eta ezaugarriak .....	73
1.3.3.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak .....	73
1.3.3.3. Arlo eta ikasgaiaren ikuspegia .....	75
1.3.3.4. Integrazio-egoerak .....	76
1.3.3.5. Zientziako arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko .....	77
<b>1.3.4. TEKNOLOGIARAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>81</b>
1.3.4.1. Teknologiarako konpetentziaren definizioa eta osagaiak .....	81
1.3.4.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak .....	81
1.3.4.3. Ikasgaiaren ikuspegia .....	83
1.3.4.4. Integrazio-egoerak .....	84
1.3.4.5. Teknologiaren ikasgaiak ematen duen laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko .....	86
<b>1.3.5. KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA .....</b>	<b>90</b>
1.3.5.1. Definizioa eta osagaiak .....	90
1.3.5.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen arloak eta ikasgaiak .....	90
1.3.5.3. Arloen eta ikasgaiaren ikuspegia .....	92
1.3.5.4. Integrazio-egoerak .....	92
1.3.5.5. Arlo eta ikasgai sozial eta zibikoek ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko .....	93
<b>1.3.6. ARTERAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>96</b>
1.3.6.1. Definizioa eta osagaiak .....	96
1.3.6.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen arloak eta ikasgaiak .....	96
1.3.6.3. Arloaren eta ikasgaiaren ikuspegia .....	97
1.3.6.4. Integrazio-egoerak .....	99
1.3.6.5. Artearen arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko .....	100
<b>1.3.7. KONPETENTZIA MOTORRA .....</b>	<b>103</b>
1.3.7.1. Definizioa eta osagaiak .....	103
1.3.7.2. Konpetentzia motorraren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak .....	103
1.3.7.3. Arloaren eta ikasgaiaren ikuspegia .....	105
1.3.7.4. Integrazio-egoerak .....	108
1.3.7.5. Konpetentzia motorrak ematen duen laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko .....	109
<b>2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK .....</b>	<b>112</b>
<b>2.1. METODOLOGIA KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK .....</b>	<b>112</b>
<b>2.2. EBALUAZIOA KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK .....</b>	<b>114</b>

<b>BIGARREN ZATIA: LEHEN HEZKUNTZAKO CURRICULUMAREN BERARIAZKO IKUSPEGIA.....</b>	<b>117</b>
<b>1. HIZKUNTZA- ETA LITERATURA- KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>118</b>
<b>1.1. EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA.....</b>	<b>118</b>
1.1.1. ETAPAKO HELBURUAK .....	118
1.1.2. EDUKIAK .....	119
1.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	119
1.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak.....	120
1.1.2.3. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak.....	124
1.1.2.4. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	128
1.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	132
1.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	132
1.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. Zikloa.....	136
<b>1.2.- ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA.....</b>	<b>142</b>
1.2.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	142
1.2.2.- EDUKIAK .....	142
1.2.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	142
1.2.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak.....	144
1.2.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak.....	148
1.2.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK .....	153
1.2.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	153
1.2.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa .....	157
<b>2. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>163</b>
<b>2.1. MATEMATIKA .....</b>	<b>163</b>
2.1.1. ETAPAKO HELBURUAK .....	163
2.1.2. EDUKIAK .....	164
2.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	164
2.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	166
2.1.2.3. Lehen Hezkuntzako 2. zikloa .....	171
2.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	178
2.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	178
2.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa .....	182
<b>3. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>190</b>
<b>3.1. NATURAREN ZIENTZIAK .....</b>	<b>190</b>
3.1.1. ETAPAKO HELBURUAK .....	190
3.1.2. EDUKIAK .....	191

3.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	191
3.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak.....	192
3.1.2.3. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak.....	195
3.1.2.4. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	198
<b>3.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK .....</b>	<b>199</b>
3.1.3.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	199
3.1.3.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa .....	203
<b>4.- KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA .....</b>	<b>208</b>
<b>4.1.- GIZARTE-ZIENTZIAK.....</b>	<b>208</b>
4.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	208
4.1.2.- EDUKIAK .....	209
4.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	209
4.1.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak.....	212
4.1.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak.....	215
4.1.2.4.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	219
4.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	220
4.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	220
4.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa .....	227
<b>4.2.- BALIO SOZIAL ETA ZIBIKOAK .....</b>	<b>237</b>
4.2.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	237
4.2.2.- EDUKIAK .....	237
4.2.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	237
4.2.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak.....	238
4.2.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak.....	240
4.2.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	243
4.2.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	243
4.2.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa .....	246
<b>5.- ARTERAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>251</b>
<b>5.1.- ARTE-HEZKUNTZA .....</b>	<b>251</b>
5.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	251
5.1.2.- EDUKIAK .....	252
5.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	252
5.1.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak.....	253
5.1.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak.....	256
5.1.2.4.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	260
5.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	261

5.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	261
5.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa .....	264
<b>6.- KOMPETENTZIA MOTORRA.....</b>	<b>268</b>
<b>6.1.- GORPUTZ-HEZKUNTZA .....</b>	<b>268</b>
6.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	268
6.1.2.- EDUKIAK .....	268
6.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	268
6.1.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak.....	270
6.1.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak.....	272
6.1.2.4.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	275
6.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	275
6.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa .....	275
6.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. Zikloa.....	278
<b>HIRUGARREN ZATIA: DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO CURRICULUMAREN BERARIAZKO IKUSPEGIA .....</b>	<b>281</b>
<b>1. HIZKUNTZA- ETA LITERATURA-KOMUNIKAZIORAKO KOMPETENTZIA .....</b>	<b>282</b>
<b>1.1. EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA.....</b>	<b>282</b>
1.1.1. ETAPAKO HELBURUAK .....	282
1.1.2.- EDUKIAK .....	283
1.1.2.1.- Multzoen ezaugarriak .....	283
1.1.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak .....	284
1.1.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak .....	289
1.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak .....	295
1.1.2.5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	300
1.1.2.6.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	307
1.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	312
1.1.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila .....	312
1.1.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila .....	317
1.1.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila .....	323
1.1.3.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	330
<b>1.2.- ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA.....</b>	<b>337</b>
1.2.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	337
1.2.2.- EDUKIAK .....	337
1.2.2.1.- Multzoen ezaugarriak .....	337
1.2.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak .....	338

1.2.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak .....	343
1.2.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak .....	347
1.2.2.5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	352
1.2.2.6.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	357
<b>1.2.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....</b>	<b>358</b>
1.2.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila .....	358
1.2.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila .....	363
1.2.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila .....	368
1.2.3.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila.....	373
<b>1.3.- ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA .....</b>	<b>379</b>
1.3.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	379
1.3.2.- EDUKIAK .....	379
1.3.2.1.- Multzoen ezaugarriak .....	379
1.3.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako edukiak .....	381
1.3.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	384
<b>1.4.- LATINA .....</b>	<b>390</b>
1.4.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	390
1.4.2.- EDUKIAK .....	390
1.4.2.1.- Multzoen ezaugarriak .....	390
1.4.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	391
1.4.2.3.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	394
1.4.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	395
<b>2.- MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>400</b>
<b>2.1.- MATEMATIKA .....</b>	<b>400</b>
2.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	400
2.1.2.- EDUKIAK .....	400
2.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	400
2.1.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak .....	404
2.1.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak .....	407
2.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak: Ikaskuntza akademikoak .....	410
2.1.2.5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak: Ikaskuntza aplikatuak.....	414
2.1.2.6.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak: Ikaskuntza akademikoak .....	418
2.1.2.7.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak: Ikaskuntza aplikatuak.....	421
2.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	424
2.1.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila .....	424
2.1.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila .....	428
2.1.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila: Ikaskuntza akademikoak .....	433

2.1.3.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila: Ikaskuntza aplikatuak .....	437
2.1.3.5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila: Ikaskuntza akademikoak .....	440
2.1.3.6.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila: Ikaskuntza aplikatuak .....	445
<b>3. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>449</b>
<b>3.1. BIOLOGIA ETA GEOLOGIA.....</b>	<b>449</b>
3.1.1. Etapako helburuak .....	449
3.1.2. EDUKIAK .....	450
3.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	450
3.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak: Aniztasuna Lur planetan .....	451
3.1.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. Mailako edukiak: Materiaren egitura-unitatea eta antolaketa .....	454
3.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak: Sintesi teoriko handiak.....	458
3.1.2.5.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	461
3.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	462
3.1.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila .....	462
3.1.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila .....	466
3.1.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	471
<b>3.2.- FISIKA ETA KIMIKA .....</b>	<b>477</b>
3.2.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	477
3.2.2.- EDUKIAK .....	477
3.2.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	477
3.2.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak: Aldaketak material eta energia.....	479
3.2.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak: Materiaren egitura-unitatea eta antolaketa .....	482
3.2.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. Mailako edukiak: Sintesi teoriko handiak .....	485
3.2.2.5.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	488
3.2.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	489
3.2.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila .....	489
3.2.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila .....	493
3.2.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	497
<b>3.3.- KULTURA ZIENTIFIKOA .....</b>	<b>505</b>
3.3.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	505
3.3.2.- EDUKIAK .....	505
3.3.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	505
3.3.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	507
3.3.2.3.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	509
3.3.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	510
<b>3.4.- LAN-JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK.....</b>	<b>515</b>
3.4.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	515



3.4.2.- EDUKIAK .....	515
3.4.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	515
3.4.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	517
3.4.2.3.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	520
3.4.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	520
<b>4.- TEKNOLOGIARAKO KONPETENTZIA.....</b>	<b>525</b>
<b>4.1.- TEKNOLOGIA.....</b>	<b>525</b>
4.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	525
4.1.2.- EDUKIAK.....	525
4.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	525
4.1.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik 3. mailara bitarteko edukiak.....	527
4.1.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	530
4.1.2.4.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	533
4.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	533
4.1.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik 3. mailara.....	533
4.1.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	537
<b>4.2.- INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK .....</b>	<b>540</b>
4.2.1.- HELBURUAK .....	540
4.2.2.- EDUKIAK .....	540
4.2.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	540
4.2.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	541
4.2.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	543
<b>5.- KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA.....</b>	<b>545</b>
<b>5.1.- GEOGRAFIA ETA HISTORIA .....</b>	<b>545</b>
5.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	545
5.1.2.- EDUKIAK.....	546
5.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	546
5.1.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak .....	548
5.1.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak .....	553
5.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak .....	557
5.1.2.5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	561
5.1.2.6.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	567
5.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	574
5.1.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila .....	574
5.1.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Maila .....	580
5.1.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila .....	585

5.1.3.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	592
<b>5.2. BALIO ETIKOAK .....</b>	<b>598</b>
5.2.1. ETAPAKO HELBURUAK .....	598
5.2.2. EDUKIAK .....	599
5.2.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	599
5.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak .....	599
5.2.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak .....	601
5.2.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak .....	603
5.2.2.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	604
5.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK .....	607
5.2.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila.....	607
5.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.....	612
5.2.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila.....	616
5.2.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila.....	620
<b>5.3. EKONOMIA .....</b>	<b>625</b>
5.3.1. HELBURUAK.....	625
5.3.2. EDUKIAK .....	625
5.3.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	625
5.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	626
5.3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK .....	628
<b>5.4. EKINTZAILETZA- ETA ENPRESA-JARDUERETARAKO HASTAPENA.....</b>	<b>632</b>
5.4.1. HELBURUAK.....	632
5.4.2. EDUKIAK .....	632
5.4.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	632
5.4.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	633
5.4.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK .....	635
<b>5.5.- KULTURA KLASIKOA .....</b>	<b>638</b>
5.5.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	638
5.5.2.- EDUKIAK .....	638
5.5.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	638
5.5.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	639
5.5.2.3. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	643
5.5.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	643
5.5.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila. ....	643
<b>5.6. FILOSOFIA .....</b>	<b>649</b>
5.6.1. HELBURUAK.....	649
5.6.2. EDUKIAK .....	649
5.6.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	649

5.6.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	650
5.6.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK .....	652
<b>6. ARTERAKO KONPETENTZIA .....</b>	<b>656</b>
<b>6.1. PLASTIKAKO, IKUSIZKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO HEZKUNTZA .....</b>	<b>656</b>
6.1.1. ETAPAKO HELBURUAK .....	656
6.1.2. EDUKIAK .....	657
6.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	657
6.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak .....	658
6.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak .....	661
6.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	665
6.1.2.5. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	669
6.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	671
6.1.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila .....	671
6.1.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila .....	674
6.1.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	677
<b>6.2.- MUSIKA.....</b>	<b>681</b>
6.2.1.- ETAPAKO HELBURUAK .....	681
6.2.2.- EDUKIAK.....	682
6.2.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak.....	682
6.2.2.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. edo 2. mailako edukiak .....	683
6.2.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak .....	685
6.2.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	688
6.2.2.5.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena.....	691
6.2.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	693
6.2.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila edo 2. maila .....	693
6.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila.....	695
6.2.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	697
<b>6.3. ARTE ESZENIKOAK ETA DANTZA .....</b>	<b>701</b>
6.3.1. HELBURUAK.....	701
6.3.2. EDUKIAK .....	701
6.3.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	701
6.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	702
6.3.2.3.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	704
6.3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK .....	704
<b>7. KONPETENTZIA MOTORRA.....</b>	<b>707</b>
<b>7.1. GORPUTZ-HEZKUNTZA .....</b>	<b>707</b>

7.1.1. ETAPAKO HELBURUAK .....	707
7.1.2. EDUKIAK .....	708
7.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak .....	708
7.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak .....	709
7.1.2.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak .....	711
7.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak .....	713
7.1.2.5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak .....	715
7.1.2.6.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena .....	717
7.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK.....	717
7.1.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila .....	717
7.1.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila .....	719
7.1.3.3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila .....	720
7.1.3.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila .....	722

# SARRERA

Curriculum honetan, Heziberri 2020 Planaren bigarren egitasmoaren baitan Eusko Jaurlaritzak onartutako *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen 236/2015 Dekretuaren* II. Eranskinean plazaratutako curriculumaren garapena egiten da. Batetik, arlo eta ikasgaien eduki multzoen edukiak garatzen dira eta euskararekin eta euskal kulturarekin lotzen diren berariazko edukiak zehazten dira, eta, bestetik, ebaluazio-irizpideen lorpen-adierazleak finkatzen dira. Curriculum honetan eranstean diren edukiak Dekretuarekin batera plazaratutako curriculumaren osagarriak dira, eta ikastetxeei eta irakasleei laguntzeko asmoz plazaratzen dira.

Curriculum hiru zatitan egituratzen da:


- Lehen zatia: Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren ikuspegi orokorra.
- Bigarren zatia: Lehen Hezkuntzako curriculumaren berariazko ikuspegia.
- Hirugarren zatia: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumaren berariazko ikuspegia.

Curriculumaren ikuspegi orokorra azaltzean, ikasleen irteera-profil orokorra adierazten da, hau da, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu behar dituzten helburuak zerrendatzen dira, eta metodologia- eta ebaluazio-ildo nagusiak adierazten dira. Curriculumaren ikuspegi orokorra, Heziberri 2020 Planaren lehenengo egitasmoko “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoan” egiten den kompetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegian oinarritzen da.

Curriculumak Oinarrizko Hezkuntzako etapa bakoitzerako egiten duen planteamendu berariazkoan hauek azaltzen dira: arlo nahiz ikasgaien helburuak, eduki multzoak eta adierazpenezko eduki zehatzak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak. Arloak eta ikasgaiak lagungarri dira oinarrizko zehar-kompetentziak eta diziplina barneko kompetentziak eskuratu eta, haren osagai diren aldetik, ikasleak etapa bakoitza amaitzean izan behar duen irteera-profila erdiesteko. Euskal curriculumaren berariazko edukiak era zehatzagoan aurkezten dira eta dagozkien ataletan ikus daitezke.

Ondoko orrialdeko irudian, Oinarrizko Hezkuntza osatzen duten Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapetarako komunak diren curriculum-diseinuaren osagaiak aurkezten dira.

## Curriculum diseinuaren osagaiak



**LEHEN ZATIA: OINARRIZKO  
HEZKUNTZAKO  
CURRICULUMAREN IKUSPEGI  
OROKORRA**

# 1. OINARRIZKO HEZKUNTZAKO IKASLEEN IRTEERA-PROFIL OROKORRA

Ikasleen irteera-profil orokorrak oro har zehazten du ikasleak zer oinarriko konpetentzia izan behar dituen Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, bai hezkuntzaren xedeak erdiesteko, bai bizitzako esparru eta egoera guztietan moldatzeko prestakuntza iristeko.

Ikasleen irteerako profil orokorra osatzen duten oinarrizko konpetentzien formulazioa ebaluazioaren ikuspegitik lantzen eta zehazten da irteerako profil espezifikoan; horretarako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako arlo eta ikasgaietan zehazten da profila, arlo eta ikasgai dagozkien helburuak eta haien edukiak azaltzen dira, eta, ondoren, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak zerrendatzen dira.

Ikasleen irteera-profil orokorra azaltzen da atal honetan. Lehenik eta behin, denak batera eta era sintetiko batez adierazten dira oinarrizko konpetentziak, bai zehar-konpetentziak, bai diziplina barnekoak, eta, ondoren, banan-banan azaltzen dira, zehaztasun handiagoz. Kontuan izan behar da ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako izan behar duten irteera-profil orokorra edo lortuta izan behar dituzten helburuak zehazten dituztela konpetentziek. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumetako berariazko planteamenduek azaltzen dute irteera-profil espezifikoaren egitura.

## 1.1. OINARRIZKO KONPETENTZIAK: OINARRIZKO HEZKUNTZAKO HELBURUAK

ELGE erakundeko DeSeCo txostenak (2005) hau adierazten du: *"Ezagutzen eta trebetasunen multzo bat baino zerbait gehiago da konpetentzia. Eskakizun konplexuei erantzuteko abilezia darabil, eta baliabide psikosozialak hartzen eta baliatzen ditu, trebetasun eta jarrerekin batera, testuinguru jakinetan"*.

Europako Erkidegoen Batzordeak 2006an egindako proposamenean, hauek dira konpetentzia giltzarri edo oinarrizkoak: *"persona guztiek behar dituztenak garapen eta errealizazio pertsonalerako, hiritar aktibo izateko, gizarteratzeko eta lana lortzeko. Hasierako hezkuntza eta prestakuntza amaitzean, helduarorako prestatzeko behar bezainbeste landuta izan behar dituzte gazteek konpetentzia giltzarriak, eta, aurrerantzean ere, horiek garatu, mantendu eta eguneratu behar dituzte, etengabeko ikaskuntzaren esparruan"*. Horrez gainera, DeSeCo txostenaren proposamenak (2002) adierazten du hiru baldintza hauek bete behar dituela konpetentzia batek giltzarria edo oinarrizkoa izateko: *"balio pertsonal edo sozial handiko emaitzak lortzen lagundu behar du, testuinguru eta esparru anitzetan erabiltzeko modukoa izan behar du, eta eskakizun konplexuak arrakastaz gainditzeko aukera eman behar die hura eskuratzen duten pertsoneri"*. Bestela esanda, konpetentzia bat giltzarria edo oinarrizkoa izango da, baldin eta baliagarria baldin bada herritar guztientzat, haien sexua, gizarte- eta kultura-egoera eta familia-ingurunea edozein dela ere. Guztiek batera, XXI. mendeko bizitza sozialean parte hartu eta bazterketa-arriskurik ez izateko ikaskuntza ezinbestekoak osatzen dituzte konpetentziek.

Oinarrizko konpetentziak era askotara azal edo adieraz daitezke.



## Oinarrizko kompetentziak formulatzeko hainbat proposamenen arteko erkaketa

UNESCO	EUOPAR BATASUNA	LOE	175/2007 DEKRETUA (EAE)	ED 126/2014 (LOMCE)	236/2015ko DEKRETUA (EAE)	
					Zehar-kompetentziak	Diziplina barneko kompetentziak
Ezagutzen ikastea	Ikasten ikastea	Ikasten ikastea	Ikasten ikasteko kompetentzia	Ikasten ikastea	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	
Egiten ikastea	Ekimena eta ekintzaile-espirtua	Autonomia eta gizarte-ekimena	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia	Ekimena eta ekintzaile-espirtua	Ekimenerako eta espirtu ekintzailerako kompetentzia	
Elkarrekin bizitzen ikastea	Kompetentzia interpersonala eta zibikoa	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Gizarterako kompetentziak eta kompetentzia zibikoak	Elkarbizitarako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia
Izaten ikastea		Autonomia eta gizarte-ekimena	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia		Izaten ikasteko kompetentzia	
	Ama hizkuntza	Hizkuntza-komunikazioa	Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Hizkuntza-komunikazioa	Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia	Hizkuntza- eta Literatura komunikaziorako kompetentzia
	Atzerriko hizkuntzak					
	Kompetentzia digitala	Informazioa tratatzeko kompetentzia eta kompetentzia digitala	Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko kompetentzia	Kompetentzia digitala		
	Matematika, Zientziak eta Teknologia	Matematika	Matematikarako kompetentzia	Konpetentzia matematikoa eta Zientziarako eta Teknologiarako kompetentziak		Matematikarako kompetentzia
		Ingurune fisikoaren ezaguera	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia			Zientziarako kompetentzia
Kultura-kontzientzia eta adierazpena	Giza- eta arte-kulturarako kompetentzia	Giza- eta arte-kulturarako kompetentzia	Kultura-kontzientzia eta adierazpena		Arterako kompetentzia	
						Kompetentzia motorra

Heziberri 2020ko planaren “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoan” egiten den oinarrizko konpetentzien formulazioak bi erreferentzia nagusi hauek ditu: a) Jacques Delors buru zela UNESCO erakundearentzat idatzitako txostena (1996), hezkuntzaren lau zutabe edo oinarri zehazten dituena: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea; b) Europako Erkidegoetako Batzordeak konpetentzia giltzarri edo oinarrizkoen gainean egindako gomendioa (2006), LOMCE legeak oinarritzat hartu duena haiek azaltzeko: 1.- Hizkuntza-komunikazioa; Matematikarako konpetentzia eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko konpetentziak; 3.- Konpetentzia digitala; 4.- Ikasten ikastea; 5.- Konpetentzia sozial eta zibikoak; 6.- Ekimena eta espiritu ekintzailea; 7.- Kultura-kontzientzia eta -adierazpenak.


UNESCO erakundeak proposatutako hezkuntzaren lau zutabeak zeharkakoak edo komunak dira diziplina-arlo guztietan, eta, oro har, beharrezkoak bizitzako esparru eta egoera guztietan. LOMCE legeak proposatzen dituen oinarrizko konpetentzietako batzuek zehar-izaera dute (konpetentzia digitala, ikasten ikastea, ekimena eta espiritu ekintzailea); beste batzuek nahastuta ageri dituzte zehar-izaera eta diziplina barneko izaera (hizkuntza-komunikazioa eta konpetentzia sozial eta zibikoak); eta beste batzuk, berriz, diziplina bateko edo batzuetako espezifikoak edo berariazkoak dira (matematikarako konpetentzia, zientziarako konpetentzia, teknologiarako konpetentzia, kultura-adierazpena).

Horiek guztiak oinarrizko konpetentziak dira, hau da, bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak, baina haiek bereiztea eta erlazionatzea komeni da. Bereizi egin behar dira, oinarrizko zehar-konpetentziak ikasi eta ebaluatzeko aukera bakarra baita haiek diziplina barneko oinarrizko konpetentziak lantzen dituzten arloen berezko edukiak ikasteko prozesuan barneratzea. Baina, aldi berean, erlazionatu edo lotu egin behar dira, oinarrizko zehar-konpetentzien bitartekaritza behar baita diziplina barneko oinarrizko konpetentziak eskuratzeko.

***Oinarrizko zehar-konpetentziak edo orokorrak:*** bizitzako esparru eta egoera guztietan –esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan– arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, bai diziplina-arlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Arlo edo ikasgai guztietan orotara egindako lanaren bidez sustatu eta indartu behar dira zehar-konpetentziak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratu edo barneratuz eskuratzen eta erabiltzen dira.

***Diziplina barneko/arteko oinarrizko konpetentziak edo konpetentzia espezifikoak:*** bizitzako esparru eta egoeretan –esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan– arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, eta, haietan, diziplina-arloren bateko berariazko baliabideak erabiltzen dira. Diziplina barneko konpetentziek diziplina-matrize bat dute oinarri, eta arloen berezko arazo-egoeren bitartez eskuratzen dira; halere, badute transferentzia-gaitasunik eta funtzio anitzekoak dira, diziplina-arlo batekin edo batzuekin lotutako arazo-egoerak konpontzeko balia baitaitezke.

Hurrengo irudian ikus daitekeen moduan, oinarrizko zehar-kompetentziak, diziplina-arloetan barneratzen diren neurrian, bitartekari edo eragile dira hezkuntza-helburuak lortzeko eta diziplina barneko oinarrizko kompetentziak eskuratzeko. Horrenbestez, Europako Parlamentuak eta Batzordeak (2006) gomendatu eta Espainiako azken bi lege organikoek (2006, 2013) arautu dituzten oinarrizko kompetentziak eskuratzeko eta hezkuntzaren xedek erdiesteko bidea zabaltzen da.



### 1.1.1. OINARRIZKO ZEHAR-KOMPETENTZIAK

Oinarrizko zehar-kompetentziak hezkuntzaren ardatz edo zutabeen arabera sailkatzea lagungarria da ardatz bakoitzaren berezitasunak zehazteko, baina kontuan izan behar da ardatz horiek moldatu eta elkartu egiten direla ekintzak gauzatzean. Ekintza kompetenteak egiteko, ezinbestekoa da pentsatzen, komunikatzen, elkarrekin bizitzen eta izaten jakitea. Kompetentzia horiek batera eta bereizketarik gabe baliatu behar dira. Adibidez, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia ez da gainerakoak baino lehenagokoa, ezta garrantzitsuagoa ere. Guztiak dira ezinbesteko ekintzarako. Izarraren irudiak modu plastiko batean adierazten du zehar-kompetentzia guztien berezitasuna eta bateratasuna; izan ere, kolorez bereizten dira, ertzetan, zehar-kompetentzia bakoitzaren berezitasunak, baina izarraren erdigunean urtzen eta bateratzen dira kolore guztiak.



## 1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentziak:

1. Hitzezko eta idatzizko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea.
2. Hitzik gabeko kodeak ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.
3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguruan erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.

## 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

**Osagaiak**

Honako osagai hauek ditu ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziak:

1. Informazioa bilatzea, aukeratzea, gordetzea eta berreskuratzea hainbat informazio-iturritatik (informazio-iturri inprimatu, ahozko, ikus-entzunezko, digital eta bestelakoetatik), eta iturri horien egokitasuna ebaluatzea.
2. Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoak).
3. Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa).
4. Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu sortzailea).
5. Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.

**3. Elkarbizitzarako konpetentzia**

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

**Osagaiak**

Honako osagai hauek ditu elkarbizitzarako konpetentziak:

1. Norberaren eta besteren nahiak asebate daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.
2. Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneke lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.
3. Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratorritzen diren arauak betetzea.
4. Gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

**4. Ekimenerako eta espirtu ekintzailerako konpetentzia**

Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

**Osagaiak**

Honako osagai hauek ditu ekimenerako eta espirtu ekintzailerako konpetentziak:

1. Ideiak edo proiektuak sortzea eta/edo nork bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea.
2. Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea.
3. Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.

## 5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Bizitzako hainbat egoera eta esparrutan norberari sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea eta norberak egiten dituen ekintzez gogoeta egitea, eta, horien gainean egiten den balioespenari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea; finean, pertsonaren autorrealizatorako bidea egitea bere dimentsio guztietan, etengabeko hobekuntzaren bidez.

### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu norbera izaten ikasteko kompetentziak:

1. Hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntza eta hizkuntza digitala autorregulatzea.
2. Ikaskuntza-prozesuak eta norberaren estilo kognitiboa autorregulatzea.
3. Portaera soziala eta morala autorregulatzea.
4. Motibazioa eta gogo-indarra autorregulatzea, erabakiak eta betebeharrak gauzatzeko.
5. Gorputzaren funtzioak, norberaren osasuna eta ongizatea eta gorputzaren irudia autorregulatzea.
6. Emozioak autorregulatzea.
7. Nork bere buruaren gaineko kontzeptu eta estimu on eta errealistak edukitzea.
8. Nork bere erabakiak modu autonomoan hartzea eta nork bere gain hartzea norberaren erabakien eta betebeharren ardura.

### 1.1.2. OINARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK

Diziplina barneko oinarrizko kompetentziak eskuratzea beharrezkoa eta ezinbestekoa da norberaren errerealizazioa eta garapena erdiesteko, herritar aktiboa izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko, eta, alde horretatik, oinarrizko zehar-kompetentzien parean daude. Biak dira kompetentzia giltzarri eta elkar elikatzen dute; izan ere, zehar-kompetentzia giltzarrien baliabideak izan behar ditu norberak diziplina barneko kompetentzia giltzarriak eskuratzeko, eta, aldi berean, diziplina barneko kompetentzia giltzarrien curriculum-arloetako egoeretan barneratuta soilik eskura daitezke zehar-kompetentzia giltzarriak.

Diziplina barneko oinarrizko kompetentziek diziplina-matrize bat dute oinarri, eta modu sistematizatuan ikasten dira kompetentzia horiek lortzeko behar diren baliabideak, arlo eta ikasgaietako adierazpenezko ezagutzen, prozeduren eta jarreraren bitartez. Baina, era berean, ikasleek, bizitzan izango dituzten arazo-egoerei aurre egingo badiete, gainditu egin behar dute ezagutza-diziplina eta -arloan antolamendu banakatua, eta, horregatik, diziplina guztietako baliabideen osagarritasuna, hau da, diziplinartekotasuna, landu behar dute arazoak konpontzeko.

#### 1. Hizkuntza- eta literatura-komunikatorako kompetentzia

Hitzeko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa literarioa lantzean datza, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko.

**Osagaiak**

Honako osagai hauek ditu hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentziak:

1. Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak, ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, xede edo helburu pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko.
2. Esparru pertsonal, sozial edo akademikoen berezko hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei.
3. Hizkuntzen erabilera-arauei eta hizkuntzen sistemari buruzko jakintza erabiltzea hitzezko eta idatzizko testuak sortu eta ulertzean, komunikazio egoki eta eraginkorrek egiteko.
4. Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatzeko modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitzea eta sentsibilitate estetikoak garatzea.
5. Gure gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko.

**2. Matematikarako konpetentzia**

Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrizanei dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen moduak eta tresnak erabilia.

**Osagaiak**

Honako osagai hauek ditu matematikarako konpetentziak:

1. Estrategia egokien bidez identifikatzea eta ebatzea eduki matematikoa duten zenbait egoera problematiko, eta, horrela jokatuta, ingurunea hobeto ulertzeko urratsak ematea.
2. Jakintza matematikoak erabiltzea eguneroko edota zientziaren esparruko egoerei aurre egiteko, egoera horiek "modelizatuta"; hau da, egoerak termino matematikoetan adieraztea, modelo edo ereduari jarraitzea eta emaitzak testuinguruaren barruan interpretatzea.
3. Bizitzaren hainbat esparrutako informazioak, argudioak eta emaitzak interpretatzea eta adieraztea, hizkuntza matematiko egokia erabilia.
4. Jakintza matematikoak ezagutzea, erlazionatzea, integratzea eta balioestea, egoera bakoitzaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta.
5. Arrazoitzeko modu askotarikoak erabiltzea nork bere ondorioak eta horietara iristeko prozesua justifikatzeko, bai eta gainerako pertsonak aurkeztutako emaitzak modu kritikoan aztertzeke ere.
6. Prozedura matematiko egokiak hautatzea eta erabiltzea errealitatea kalkulatzeko, irudikatzeke eta interpretatzeko, eta, horren harian, eraginkortasunaren mesedetan erabiltzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

### 3. Zientziarako konpetentzia

Zientiaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen batez erabiltzea testuinguru esanguratsuetan sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak erabiltzea askotariko testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren argitara ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.

#### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu zientziarako konpetentziak:

1. Zientzia-jakintzak egoki erabilia eta arduraz, autonomiaz eta ikuspegi kritikoz hartzea natura-ingurunearen gaineko erabakiak eta giza jarduerak ingurune horretan eragiten dituzten aldaketei buruzkoak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan jardutea gisa horretan, norberaren eta gizartearen bizitza hobetzeko eta ingurunea zaindu eta hobetzeko.
2. Arazo zientifikoak identifikatzea eta dokumentazioko eta esperimentazioko ikerketa txikiak egitea egoera problematikoak lantzeko, zientzia-jardueraren berezko trebetasunak eta jokabideak egoki baloratu, erabili eta erakutsita, egoera problematiko horiek konpontzeko eta ebidentziak lortzeko, erabaki arduratsuak hartu aurretik.
3. Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta iragartzea, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak aztertzea jakintza zientifiko modu koherente, egoki eta zuzen batean erabilia testuinguru pertsonal eta sozialetan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko.
4. Zientzien oinarrizko kontzeptuak mundu naturalaren sistemekin eta prozesuekin erlazionatzea, eta horiei zentzua dakarkieten lege, eredu eta teoriaren bidez antolatzea lotura horiek, errealitatearen interpretazio zientifikoak eta izaera zientifikorik ez dutenak bereiztea, eta onartzea zientziak enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egiten dituela, zientiaren izaera eta emaitzak ulertzeko.

### 4. Teknologiarako konpetentzia

Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz erabiltzea eta garatzea, jakintza teknikoak eta gainerako adarretako jakintzak era metodiko eta eraginkorrean aplikatuta, interesa duten egoerak ulertzeko eta konpontzeko edota produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko, eta lortutako emaitzen berri ematea, hobekuntza-prozesuekin eta erabakiak modu arduratsuan hartzeko prozesuekin jarraitzeko.

#### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu teknologiarako konpetentziak:

1. Arazo teknologikoak zehaztasunez hautematea eta mugatzea, eta horiek konpontzeko irtenbideak diseinatzea, jakintza teknologikoak eta gainerako jakintza-adarretakoak erabilia edota objektuak zein sistemak aztertzeko metodoaren bidez eskuratutako jakintzak baliatuta, irtenbide horien plangintza eta gauzapena eraginkorra, sortzailea eta lankidetzan gauzatutakoa izan dadin.



2. Ingurune teknologikoko baliabideak testuinguru anitzetan erabiltzea, informazioa egoki aukeratu eta interpretatuta, ingurune horren funtzionamendua ulertzeko eta egungo gizarte teknifikatuak dituen ohiko arazoak konpontzeko.
3. Irtenbide teknologikoak inplementatzea, eta, horretarako, agirien bidezko plangintza bat baliatzea, lan metodikoa egitea, segurtasuneko eta ergonomiako arauen bidez hurbiltzea egindako lana eta aurrez ezarritako baldintzak, eta emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa egitea, hobekuntza-zikloak betetzen jarraitzeko.

## 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa

Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzaren ohiko egoeretan, gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta askotarikoa lortzeko bidea urratzearen.

### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu konpetentzia sozial eta zibikoak:

1. Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan).
2. Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua; gizartea zer lurraldetan eta nola ezarrita dagoen jakitea, haren iraganaren kontzientzia hartzea eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoaren aurrean modu positiboan jarduteko gaitasuna lantzea.
3. Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita; aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, eta, bereziki, egungo euskal gizartekoa, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko.
4. Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko erreferente unibertsala eta norberak herritar gisa dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta parte-hartzeko, begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko.
5. Iraganean, edo gaur egun, bizikidetzaren tentsioak eta -gatazkak izan dituzten gizarte-taldeak, elkarri eragiten diotenak, historian zehar zer konfigurazio edo egitura izan duten jakitea; eta iraganaren gaineko kontzientzia kritikoa lantzea, etorkizunean egoera horiek konpontzeko prozedura baketsu eta demokratikoak erabiltzen jakin dezagun.
6. Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrera eskuratzea; hau da, munduaren alderdi fisikoak, sozialak eta kulturalak, iraganean izandako bizipen kolektiboak eta gaur egungo bizipenak, eta bizitza

sozialari dagokion espazio fisikoa ulertzeko behar direnak, munduan eragile aktibo izateko.

## 6. Arterako kompetentzia

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea, denbora- eta erabilera-testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu arterako kompetentziak:

1. Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte-ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturaletan identifikatzea.
2. Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi-esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko.
3. Dagozkien denboran eta kulturaren interpretatzea arte-adierazpenak eta -ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko.
4. Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kulturaleko elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu-emanaren, kulturen arteko elkarrizketaren eta esperientzia partekatuen harian.

## 7. Kompetentzia motorra

Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, gorputzaren eta norberaren alderdi fisiko eta emozionalen ongizatea lortzen laguntzeko.

### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu oinarrizko kompetentzia motorrak:

1. Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.
2. Jokabide motorra erabiltzea norberaren kultura-nortasuna sendotzeko, herriaren balioak indartzeko, eta kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartu eta balioesteko.
3. Gorputza naturaltasunez edo intentzior erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.
4. Eguneroko bizitzan modu kontzientean barneratzea jarduera fisikoaren adierazpen guztiak, osasuna osotasunean zaintzeko eta hobetzeko eta bizitza

orekatua izateko osagai ezinbestekoa den aldetik, eta hari lotutako alderdi intrintsekoak eta estrintsekoak identifikatzea.

### **1.1.3. OINARRIZKO KONPETENTZIAK, CURRICULUM-EDUKIAK ETA EUSKAL CURRICULUMAREN BERARIAZKO EDUKIAK**

Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera-profila eratzen duten hezkuntza-xedeak eta oinarrizko konpetentziak berdintsu formulatzen dira gure inguruko herrialdeetan. Era berean, curriculumeko edukien zati handiena unibertsala da, eta eduki horiek Europako eta mundu zabaleko beste herrialdeekin partekatzen ditugu. Baina haiek eskuratzeko eta garatzeko prozesua aldatu egiten da, ikasleen ingurune naturalaren eta soziokulturalaren arabera. Ikasleek testuinguru jakin batean bizi dira, beren nortasuna eta bizimodua eraikitzen dute, testuinguru fisiko-natural eta soziokultural horretan gertatzen diren premia indibidualekin eta sozialekin harremanetan, hizkuntzaren bidez.

Bistan da gizakien oinarrizko premiak berdintsuak direla eta, mundu gero eta globalizatuago honetan, non desegiten ari diren espazioaren eta denboraren mugak, premia horien aurreko erantzun kulturalak gero eta antzekoagoak direla. Horregatik, Euskal Herrian bizi diren ikasleek prestatu beharra daukate eta eskuetan eduki behar dituzte oinarrizko konpetentziak, gero eta globalizatuagoa eta lotuagoa den mundu honetan bizi ahal izateko. Hala ere, denonak diren oinarrizko premia horien aurreko erantzun kulturalak oso desberdinak izan dira eta orain ere hala dira. Euskal Herriak berezko eta berezkozat hartutako kultura-adierazpenak ditu. Historian eta gaur egun emandako erantzun horien artean daude, adibidez, elikaduraren eta gastronomiaren ezaugarriak, janzteko moduak, jendeztatze moduak, ekoizpen-sistemak, antolaketa soziala eta politikoa, bizikidetzaren arauak eta zuzenbidea, hizkuntza eta ahozko eta idatzizko literatura, jokoak eta kirolak, jaialdiak, musika eta dantza, erlijioa, mitoak eta sinboloak... Adierazpen horiek historikoak, dinamikoak eta askotarikoak dira Euskal Herriko lurraldeetan. Horretaz gainera, beste kultura batzuetatik etorri eta Euskal Herrian bizi diren pertsonen ere badituzte beren erantzun kultural bereziak, oinarrizko premia berdinen aurrean.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean adierazten den legez, pertsonen arteko berdintasuna, giza familiako kide guztien berezko duintasun eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen da, "eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako eta bestelako iritzia, sorterria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik" (2. atala). Pertsonak funtsean parekoak garela eta gizakion premiak antzekoak direla onartzea garrantzizkoa da pertsonen arteko berdintasunaz jabetzeko. Baina berdintasuna eta uniformetasuna ez dira gauza bera, izan ere pertsonak maila indibidualean, sozialean eta kulturean desberdinak baitira. Bide honetan, garrantzizkoa da, era berean, giza eskubide eta oinarrizko premia horiek, kultura bakoitzean jasotzen duten erantzun desberdinak ezagutzea.

Kulturartekotasunaren hezkuntzaren ikuspegia irizten da egokiena, aniztasuna eta kulturen arteko begirunea eta pertsonen arteko funtsezko berdintasuna uztartzeko. Era horretan, baztertzea ekiditen eta bizikidetzaren eragiten da.

Konpetentzien araberrako hezkuntzaren ikuspegitik, hautatutako edukien balioa neurtzeko erreferentzia nagusia izango da ea laguntzen duten ikasleak behar dituen hezkuntza-xedeak eta oinarrizko edo funtsezko konpetentziak eskuratzen, moldatzeko gai izan dadin bizitzaren eremu eta egoera guztietan, nahiz pertsonalak eta sozialak nahiz akademikoak eta laboralak.

Adierazpen-jakintza akademikoak eskuratzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa izaten jarraitzen du, baina ez da nahikoa. Konpetente izateko, beharrezkoa da, edozein arazori aurre egiteko jakintza egokia edukitzeaz gain, jakintza hori modu integratuan kudeatzea eta, zereginaren

ezaugarrien arabera, zeregin hori konpontzeko behar diren prozedurazko jarrerak eta trebetasunak erabiltzea.

Edukiak hautatzeko irizpide horrek zentzu berri bat ematen dio Oinarrizko Hezkuntzari eta erantzun egokia gizarteko aldaketek eragindako hezkuntza-premiei. Izan ere, aldaketa horien ondorioz, hezkuntzaren egoera eta testuingurua aldatu egin dira. Alde batetik, zabaldu egin dira Oinarrizko Hezkuntzari egotzi ohi zaizkion funtzioak. Eskolaren funtzio tradizionala izan da alfabetatzea eta oinarrizko jakintzak transmititzea, diziplina-arloetan antolatuz. Gaur egungo funtzioak zabalagoak, ugariagoak eta konplexuagoak dira; izan ere, aipatutakoez gain, eskolari eskatzen zaio pertsona osoki garatzen lagundu dezala maila guztietan (fisikoa, kognitiboa, estetikoa, komunikatiboa, soziala, afektiboa, espirituala...), eta enplegurako eta herritar arduratsuak prestatzen. Bestalde, jakintzen multzoa gero eta handiagoa da eta etengabe espezializatzen ari da, jakintzak zaharkituak geratzeraino, eta horrek zaildu egiten du eduki garrantzitsuak eta iraunkorrak hautatzea. Horretaz gainera, hezkuntza bizi osoko lana denez, jakintza akademikoak eskuratzea erlatibizatu behar da eta denbora-esparru zabalagoan sartu.

Nolanahi ere, hezkuntza konpetentzietan oinarritzeak ez du aitzakia izan behar bigarren maila batean uzteko oinarrizko hezkuntzaren garrantzizko funtzioa den kultura-edukien transmisioa. Berariazko hizkuntza eta kultura dituzten eta mantendu nahi dituzten herriak, kultura-ondarea belaunaldi batetik bestera ziurtatzen saiatu behar dira, sortzen dituzten instituzioen eta ekimenen bidez, eskolaren bidez bereziki, baina familiaren eta gizarteko beste eragile sozio-kulturalen eta komunikabideen bitartekotza eta eragina ahaztu gabe. Oinarrizko Hezkuntzako eskoletan, hain zuzen ere, berariazko hizkuntzaren eta kulturaren edukiak curriculumean sartu behar dira belaunaldi batetik bestera eskualdatu eta eraberritu ahal izateko. Era horretara bideragarria izango da, elkarrekin harmonian bizitzeko, partikularra eta unibertsala, aintzasuna eta gizaki guztion etorkizun komuna era orekatuan uztartzea.

Curriculum honetan, euskal curriculumaren berariazko edukiak, hau da, euskararen eta euskal kulturaren edukiak, agerian jartzen dira. Euskal curriculumaren berariazko adierazpenak, unibertsalak diren curriculumaren edukiekin batera, diziplina barneko oinarrizko konpetentziak garatzeko arlo eta ikasgaien edukietan eta ebaluazio-irizpideen lorpen-adierazleetan uztartu dira. Gainera, euskal curriculumaren berariazko eduki horiek zehaztapen-maila handiagorik garatzen dira, eta, hala dagokionean, arlo eta ikasgai bakoitzeko, "Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena" deritzan atal berezi batean agertzen dira.

## 1.2. OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK


Oinarrizko zehar-konpetentzien edo konpetentzia generikoen ekarpen edo balio handiena da erdira ekartzen dituztela eta zentzua ematen dietela oinarrizko hezkuntzaren eta bititza osorako heziketaren ardatz eta funtsei.

Oinarrizko zehar-konpetentziek ez dute beti berdin lan egiten, haien jardute modua aldatu egin baitaiteke hezkuntzaren xedeak ezarritako lehenetasunen arabera eta horren ondoriozko orientabide metodologikoaren arabera. Esate baterako, "elkarrekin bizitzen ikastea" hezkuntza-xedea lehenets daiteke. Xede hori lehenesten baldin bada, zehar-prozedura guztiak osagarri izango dira elkarrekin bizitzen ikasteko prozeduren ardatzaren inguruan; izan ere, elkarrekin ondo bizitzeko, ezinbestekoa da pentsatzen eta ikasten jakitea, komunikatzen jakitea, besterekin egiten eta ekiten jakitea eta norbera izatea. Adibide hori oinarrizko zehar-gaitasun guztiekin erabil daiteke.

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren alde egitea erabakitzen baldin bada –eta hori da, hain justu, Europar Batasunak gomendatzen eta LOE eta LOMCE legeek arautzen dutena–, "ekimena eta espirtu ekintzailea" izaten ikastea izango da hezkuntza-xedeen ardatza. Ikuspegi hori hartuta, ikasleak jakin egin behar du eta baliabideak izan behar ditu, baina, batez ere, baliabide horiek guztiak batera edo modu integratuan erabiltzen jakin behar du, ekimenez eta espirtu ekintzailez jarduteko, erabakiak hartzen jakiteko eta egoera problematikoak egoki konpontzeko. Konpetentzia oinarrizko edo giltzarri guztiak, zeharkakoak eta espezifikoak, xede edo helburu hau betetzeko elkartzen dira: erabakiak eta arazoak ekimenez eta espirtu ekintzailez hartu eta konpontzeko, bizitzako eremu guztietan, bai maila pertsonalean, sozialean, akademikoan zein lanekoan. Pentsatzen, komunikatzen, laguntzen, elkarrekin bizitzen eta autonomia izaten jakin behar da, aldi berean eta bereizi gabe, modu konpetentean jarduteko.

Oinarrizko zehar-konpetentzien harremana dinamikoa eta bereizezina da ekintzak gauzatzean, baina bereiz aurkezten dira hemen, hobeto bateratu edo integratzeko:

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta espirtu ekintzailerako konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia



Irudian ikus daitekeen moduan, oinarrizko zehar-kompetentzia bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina oinarrizko zehar-kompetentzia guztiek elkarrekiko harremana dute, eta batera erabili behar dira kompetentzia izateko eta ideiak ekintzara bihurtzeko. Modu kompetentean jarduteko, ezinbestekoa da, bateratasunez eta bereiz gabe, ikasten eta pentsatzen ikastea, gainerako pertsonekin bizitzea eta lankidetzan jardutea, autonomia izatea eta norberaren kontzeptu eta estimu egokiak izatea, ekimena eta espiritu ekintzailea izatea eta komunikatzen jakitea.

Azalduko diren kompetentzia oinarrizko edo giltzarri guztiek dute zehar-izaera, baina "komunikatzeko" kompetentzia oinarrizkoa, gainerakoetatik diferentea izanda, zehar-izaera du gainerako zehar-kompetentziekiko; izan ere, guztien berezko osagaia da eta ikasteko prozesu osoan esku hartzen du, bai informazioa jasotzean, bai ikasteko prozesuan egiten diren buru-eragiketetan, bai ikaste-prozesu horren emaitzak azaldu eta adieraztean. Hizkuntzaren sinbolo-sistema baliatzen da ikasteko prozesu osoan.

Ikasteko prozesua ez da ekintza kompetentean amaitzen; aitzitik, ekintza kompetenteez, autorregulazioaren ildotik gauzatzean, pertsonaren garapen osoa edo "norbera izatea" dakarte, autorrealizazioari begira. Akats egitea izango litzateke ekiten eta arazo praktiko zein funtzionalak konpontzen dakizkiten pertsonak heztera mugatzea kompetentzietan oinarritutako hezkuntza, eta, era berean, akatsa egitea izango litzateke pertsonak garapen osoa irits dezakeela pentsatzea, arazoak konpontzen jakin gabe. Oinarrizko zehar-kompetentzia eta kompetentzia espezifikoko guztietan esku hartzen du "norbera izaten ikasteak" eta autorregulazioko prozesuak dira esku-hartze horren bitartekari; hau da, kontzientziaren prozesuak eta oinarrizko kompetentzia bakoitzari dagozkion pentsamenduak, hitzak eta ekintzak erregulatzeko prozesuak. Txanpon beraren bi aldeak dira kompetentzia izatea – proposamen honetan adierazten den moduan ulertuta– eta, autorregulazioaren bidetik, norbera izatea.

Banan-banan azalduko ditugu orain oinarrizko zehar-kompetentziak, baina, haren izaera bereziari erreparatuta, bereizi egingo dugu komunikaziorako kompetentziaren azalpena; izan ere, oinarrizko zehar-kompetentzia guztietan ageri da komunikaziorako kompetentzia, oinarrizko zehar-kompetentzia eta diziplina barneko kompetentzia guztietan barneratu edo integratuta soilik gara baitaiteke hura. Amaitzeko, "norbera izaten ikasteko" kompetentzia azalduko dugu, berezita hori ere, baina, izatez, ez dago gainerako oinarrizko kompetentzietatik bereizterik, haren garapena kompetentzia guztietan behar den autorregulazioaren mende baitago.

## **1.2.1. HITZEZKO ETA HITZIK GABEKO KOMUNIKAZIORAKO ETA KOMUNIKAZIO DIGITALERAKO KOMPETENTZIA**

### **1.2.1.1. Kompetentziaren definizioa eta ezaugarriak**

#### **Kompetentziaren definizioa**

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

## Ezaugarriak

Komunikazioa funtsezkoa da giza garapenaren alderdi indibidual eta sozialean. Alderdi indibidualean, norberaren jakintza eraldatzeko, jarduteko modua egokitzeko eta adierazteko bitartekoa da komunikazioa. Pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboarekin lotura estua duen aldetik, sentimenduak erregulatzen laguntzen du komunikazioak, eta ikaskuntza ororen bitarteko nagusia da, bai bizitzan, bai esparru akademikoan. Komunikazio eraginkorrak egiten jakinez gero, pertsonak gai izan daitezke autonomiaz ikasteko, gainerako pertsonen artean lekua hartzeko, elkarbizitza erregulatzeko eta beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzeko.

Komunikazioa funtsezkoa da alderdi sozialean, giza taldeak komunikazioan oinarritutako jardueren inguruan sortzen eta garatzen direlako. Komunikazioa da kultura sortu, sendotu eta zabaltzeko bitartekoa. Beste pertsona batzuekin loturak sortzea da komunikatzen ikastea, kultura, errealitate eta mundu berrietara gerturatzea, eta, haiek ezagutu ahala, aintzat hartzea. Komunikazioak, beraz, gainerako pertsonetikiko eta ingurunearekiko harreman eraikitzaileak izatea sustatzen du.

Komunikaziorako konpetentzia, zenbait lengoiaia eta hizkuntzatan eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna izatea dakarren aldetik, zehar-konpetentzia giltzarria da, eta arlo guztien partaidetza behar da hura lantzeko. Era berean, zuzenean laguntzen du oinarrizko konpetentzia guztiak, zeharkakoak nahiz espezifikokoak, lantzen. Konpetentzia giltzarri guztiak, zeharkakoak eta espezifikokoak, komunikazioaren bidez lantzen dira, baina komunikazioa osoa izateko, eta ez kanal huts bat, ondo pentsatzen, elkarrekin bizitzen, izaten eta egiten jakin behar da, bizitzako esparru eta egoera konkretuetan.

Komunikazioak lotura estua izan du alfabetatze-konzeptuarekin eta alfabetatzeak, orain gutxi arte, irakurketa eta idazketa menderatzearekin. Gaur egun, ordea, gizarte multimedia batean bizi gara, eta, gizarte horretan, komunikazio modu berri eta oso indartsuak sortu ditu lengoaiaren integrazioak. Egungo gizartean eraginkortasunez parte hartzeko, modu konpetentean erabili behar dira hitzeko lengoaiaren adierazpide guztiak, ikus-entzunezko lengoaiak eta hitzik gabekoak.

Europako Kontseiluak emandako definizioa aintzat hartuta, komunikaziorako konpetentzia izateko, alfabetatze askotarikoa izan behar da, eta alfabetatze horrek *"...bere barnean hartu behar ditu irakurtzeko eta idazteko konpetentziak, askotariko informazio-moldeak –testuak eta irudiak, idazkiak, inprimakiak eta horien bertsio elektronikoak barne– ulertu, erabili eta ikuspegi kritikoz ebaluatzeko"*.

Bizitza osoan etengabe ikasi behar da konpetentzia hori lortze aldera. Hura egokitasunez lantzeko, ezinbestekoa da ikaskuntza-egoera aberats eta askotarikoak bultzatzea, hau da, komunikazio-truke orotarikoak sustatu behar dira hitzeko eta hitzik gabeko lengoiaia guztietan.

### 1.2.1.2. Konpetentziaren osagaiak

Honako hiru osagai hauek ditu konpetentziak: hitzeko komunikazioa, hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala.

**1. osagaia. Hitzeko komunikazioa: hainbat hizkuntzatarako askotariko testuak ahoz eta idatziz ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.**

Hizkuntzak erabiltzeko trebetasuna da hitzeko komunikaziorako konpetentzia; hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak hitzeko eta idatzizko diskurtsoen bitartez adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna, eta hizkuntzaren bidez

elkarri eragitekoa, esparru pertsonal, sozial, akademiko eta bestelako esparruen berezko egoera anitzetan.

Hitzezko komunikaziorako oinarrizko zehar-kompetentziak hainbat trebetasun eta jokabide barne hartzen ditu; trebetasun horiek elkarrekin erlazionatzen dira eta elkarri laguntzen diote komunikazio-jardunean, eta oinarrizko zehar-kompetentzien eta curriculum-arloen bidez garatzen dira.

Norberak hitz egiteko, besterekin hitz egiteko eta elkarri entzuteko, hizkuntzako eta hizkuntzatik kanpoko trebetasunak behar dira, gainerako pertsonekin eta ingurunearekin loturak ezartzeko. Komunikazioak dakarren hartu-emanaren berezko arauak testuinguru anitzetan erabiltzea dakar kompetentziak, baita hizkuntza mintzatuaren berezko ezaugarriak identifikatzea ere, komunikazio-egoera bakoitzaren arabera ahozko diskurtso egokiak interpretatzeko eta sortzeko. Kompetentzia horrekin lotutako trebetasunak edo prozedurak baliatu behar dira hainbat diskurtso entzuteko eta ulertzeko, nor bere ideiak ahozko hizkuntzaren bitartez azaltzeko, eta komunikazioaren hartu-ema erregulatzeko.

Irakurri eta idazteko ekintzak egiteko, ezinbestekoa da informazioa bilatzeko, biltzeko, hautatzeko eta prozesatzeko trebetasunak lantzea; trebetasun horiek eskuratu ondoren, gizabanakoa kompetentea izango da askotariko komunikazio-xedeak dituzten hainbat testu mota ulertzeko, balioesteko eta sormenez ekoizteko. Horrez gain, hainbat irakurketa-helburu dituzten testuak irakurtzeko eta ulertzeko trebetasunak ere hartzen ditu barnean, baita askotariko testu motak xede anitzez idaztekoak ere, idazteko prozesuaren fase guztiak kontrolatuta.

Kompetentzia horri dagozkion jarrerak dira entzutea, iritziak elkarrekin trukatzeko eta besteren iritziak errespetatzea, baita kulturen arteko komunikazioarekiko jakin-mina izatea ere. Kompetentziaren oinarrizko osagai bat da kulturen eta hizkuntzen aniztasunaren iritzi ona izatea, beste kultura eta herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitartekoak diren aldetik. Kompetentzia honen berezko ezaugarri dira, era berean, irakurketarekiko jarrera ona izatea, ikasteko bidea den aldetik, eta idazketarekiko jarrera ona izatea, gizarte-erregulaziorako eta jakintza transmititzeko tresna den aldetik.

Euskal Autonomia Erkidegoan hitzezko komunikaziorako kompetentziaren erakusle edo adierazgarri zehatza da bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, egoki erabiltzea komunikazio-egoera ugarian, hainbat testuingurutan, eta gero eta formaltasun- eta konplexutasun-maila handiagoarekin. Kompetentzia atzerriko hizkuntzetan lantzean, oinarrizko trebetasunak eskuratu behar dira, egunero bizitzako komunikazio-egoera mugatuagoetan erabiltzeko. Horrez gainera, kultura-aniztasuna ezagutzeko eta lantzeko bidea da hitzezko komunikaziorako kompetentzia, eta, horrenbestez, kulturarteko ikuspegia txertatu behar da irakaskuntzan.

## **2. osagaia. Hitzik gabeko komunikazioa: hitzik gabeko hainbat kodetako informazioa ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.**

Hitzik gabeko kodeak, hau da, keinuak, dantza, musika, ikonoak, irudiak eta antzeko kodeak erabiltzeko trebetasuna da hitzik gabeko komunikaziorako kompetentzia, eta bere xedea da kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adieraztea eta interpretatzea esparru pertsonal, sozial, akademikoko eta gainerako esparruetako berezko egoera ugarian.

Hitzezko hizkuntza da, ezbairik gabe, giza komunikazioaren baliabide funtsezkoa; hala ere, gizarte multimedia batean bizi gara, eta komunikatzeko modu berri eta oso indartsuak sortu ditu lengoia askotarikoen integrazioak. Gaur egun, bazterketak eragotzi eta gizartean eraginkortasunez parte hartzeko, modu kompetentean erabili behar dira hitzezko lengoaiaren



adierazpide guztiak, baina, horrez gainera, ikus-entzunezko lengoaiak eta hitzik gabekoak baliatu behar dira.

Lengoaia horiek guztiak banaka edo harremanean jarrita ulertu eta erabiliz gero, handitu egiten da gizakiaren komunikazio-ahalmena alderdi kognitiboan, sortzailean, afektiboan, estetikoan eta ludikoan.

Hainbat trebetasun eta jarrera izan behar ditu norberak hitzik gabeko komunikaziorako oinarrizko zehar-konpetentzia izateko. Trebetasun eta jarrera horiek harremanetan jartzen dira eta elkarri laguntzen diote komunikazio-ekintzan, eta curriculum-arloetan lantzen dira.

Konpetentzia horretako trebetasunak eta prozedurak erabili behar dira hainbat kodetan adierazitako mezuak ulertzeko, eta haiek erabili behar dira, era berean, norberaren ideiak azaltzeko.

Konpetentzia honen barneko jarrerak dira elkarriketaren eta komunikazioaren aldeko jarrerak izatea eta kode horien balioespen positiboa egitea, ikasteko baliabide eta jakintza transmititzeko bitartekoak diren aldetik. Konpetentzia honen oinarrizko osagai dira kultura-aniztasunaren balioespen ona egitea eta hitzik gabeko kodeek komunikazio-tresna moduan duten baliagarritasuna balioestea.

Horrez gainera, kultura-aniztasuna ezagutzeko eta lantzeko bidea da hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia, eta, horrenbestez, kulturarteko ikuspegia txertatu behar da irakaskuntzan.

### **3. osagaia. Konpetentzia digitala: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguru batez erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.**

Honako elementu hauek landu behar dira konpetentzia digitala egoki garatzeko:

- **Informazioa:** informazioa bilatzeko eta Interneten nabigatzeko estrategia ugari erabiltzeko gai izan behar du norberak, eta jasotako informazioa irazten eta kudeatzen jakin behar da. Horrez gainera, sarean informazioa partekatzeko guneetan nori jarraitu jakin behar da, kritikoa izan behar da aurkitutako informazioarekin, eta informazio horren baliozkotasuna eta sinesgarritasuna egiaztatu behar da.

Artxiiboak, edukiak eta informazioa gordetzen eta etiketatzen jakin behar da, zehaztuta izan behar ditu norberak haiek biltegitratzeko estrategiak, eta gordetako informazioa eta edukiak berreskuratzen eta kudeatzen jakin behar da.

- **Komunikazioa:** linean komunikatzeko tresna sorta zabala erabili behar da (mezu elektronikoak, txatak, SMSak, berehalako mezularitza, blogak, mikroblogak, foroak, wikiak); hau da, norberaren asmoari hobekien erantzuten dioten komunikazio digitaleko moduak eta modalitateak hautatzen jakin behar da. Finean, gai izan behar du norberak jasotako komunikazio motak kudeatzeko eta hartzailearen arabera egokitzeko komunikazioko erak eta modalitateak.

Horrez gainera, teknologia hainbat zerbitzurekin (esaterako, lineako komunitateekin, gobernuarekin, ospitaleekin eta osasun-etxeekin, banketxeekin eta beste askorekin) elkarreragiteko erabil daitekeela jakin behar da, eta sare sozialetan eta lineako komunitateetan nola parte hartzen den jakin behar da, ezagutzak, edukiak eta informazioa partekatzeko. Horiek guztiak egiteko, sareko etiketa-arauak ulertu behar dira, eta arau horiek norberaren testuingurura aplikatzeko gauza izan behar da, nork bere nortasun digitala sor dezan.

Era berean, hainbat tresna digital eta zenbait baliabide maiztasunez eta konfiantzaz erabiltzeko gai izan behar du norberak, beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzeko, baliabideak, ezagutzak eta edukiak ekoizten eta eskuragarri jartzen.

- **Edukiak sortzea:** askotariko formatu, plataforma eta inguruetan eduki digitalak sortzeko gai izan behar du norberak, eta tresna digitalak erabiltzen jakin behar da produktu multimedia orijinalak sortzeko eta lehendik dauden edukiak uztartu eta eduki berriak sortzeko; eta hori guztia egin behar da jakinda nola aplikatzen diren (zer erabilera eta erreferentzia duten) informazioei eta baliabideei dagozkien lizentziak.

Horrekin batera, programazioaren printzipioak ulertu behar dira eta programa baten oinarrian zer dagoen jakin behar da, programa informatikoetan, aplikazioetan eta gailuen konfigurazioetan aldaketak egiteko.

- **Segurtasuna:** sareko arriskuak eta mehatxuak ulertu behar dira, eta norberaren gailu digitalak babesten eta segurtasun-estrategiak eguneratzen jakin behar da.

Era berean, pribatutasunarekin lotutako gaiak aintzat hartuta eta datuak nola biltzen eta erabiltzen diren kontuan hartuta, jakin behar da nork bere burua mehatxuen, iruzurren eta jazarpen zibernetikoen aurrean babesten, norberaren datuak ganoraz gordeta eta besteen pribatutasuna errespetatuta.

Era berean, teknologien erabilerak dakartzan osasun-arriskuak ulertu behar dira; alde horretatik, ergonomiaren alderdiak landu behar dira, eta bereziki nabarmendu behar da informazioaren teknologien gehiegizko erabilerak asaldu egin ditzakeela banakoaren portaera eta bizikidetzak, eta mendekotasuna eragin dezakeela. Horrez gain, teknologiaren erabilerak ingurumenarekiko dituen alderdi onuragarriak eta kaltegarriak azpimarratu behar dira.

- **Arazoak** konpontzea: gerta daitezkeen arazo tekniko errazak hautematea eta horiek konpontzeko gauza izatea dakar dimentsio honek.

Era berean, gai izan behar da beharizan teknologikoak aztertu, ezarritako helburuari dagokion tresna egokia aukeratu eta atazak ebazteko, eta hori guztia balizko irtenbideak eta tresna digitalak modu kritikoa ebaluatuta egin behar da.

Teknologia digitalak erabiltzeko gauza izan behar du norberak, produktu berritzaile-sortzaileak egiteko eta arazo kontzeptualak konpontzeko, bai banaka, bai lankidetzan.

Azkenik, kompetentzia digitala hobetzeko eta eguneratzeko zer premia dituen jakin behar du norberak, bizi-esparruen erronka berriei aurre egite aldera.

## 1.2.2. IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA

### 1.2.2.1. Konpetenziaren definizioa eta ezaugarriak

#### Definizioa

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatuz.

## Ezaugarriak

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia funtsezkoa da konpetentzia giltzarri guztiak erdiesteko eta bizitza osoko etengabeko prestakuntza lantzeko. Testuinguru formaletan, ez-formaletan eta informaletan gauzatzen da etengabeko prestakuntza.

Europako Batzordeak (2006) honela definitu du "ikasten ikasteko" konpetentzia:

*"Ikaskuntzari ekiteko eta ikasten saiatzeko trebetasuna da, nor bere ikaskuntza antolatzekoa eta denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzekoa, bai bakarka, bai taldeka. Konpetentzia hau izateko, nor bere ikaskuntza-prozesuaz jabetu behar du, ezinbestekoa da ikasle bakoitzaren ikaste-beharrizanez jabetzea, eskura dauden aukerak zehatu behar dira eta oztopoak gainditzeko gai izan behar da, ikaskuntza arrakastaz amaitzeko."*

175/2007 Errege Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoak, honela azaltzen du "ikasten eta pentsatzen ikasteko" konpetentzia 6.2. artikuluan:

*"Ikasten eta pentsatzen ikastea, informazioa interpretatzen, sortzen eta ebaluatzen ikasiz, erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasketa- eta lan-ohiturak eta ikasketa-estrategiak barneratuz, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, ezagutzaren eta esperientziaren eremu ezberdinetan arazoak identifikatzeko eta konpontzeko"*

Errealiterako lehenengo hurbilketa holistikoa da, eta intuizioz egiten da, orokorki, emozioaren partaidetza handiarekin. Oinarri horren ganean pentsamendu arrazional analitiko eta kritikoa erabiltzen da (pentsamendu konbergentea), pentsamendu intuitiboa onartzeko edo baztertzeko. Sormenezko pentsamendua (pentsamendu dibergentea), era berean, ez da ezerezetik sortzen, pentsamendu intuitiboa eta arrazionala nahastuz baizik. Orain, banan-banan aztertuko ditugu errealiterara hurbiltzeko moduak, baina praktikan, pentsamendu intuitiboa, analitikoa, kritikoa eta sormenezkoa lotuta daude eta sekuentzia bat osatzen dute. Hala ere, trebetasun horiek banaka eta sistematikoki landu daitezke, berariazko prozeduren eta tekniken bitartez.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko xede handi hori ez da bat-batean lortuko, esku-hartze kontziente, programatu, etengabe eta ebaluagarri baten bitartez baizik.

"Ikasten eta pentsatzen ikasteko" konpetentziak, orain azalduko ditugun osagaien gain, osagai horiei guztiei zeharka eragiten dien beste osagai bat barne hartzen du, norberaren ikaskuntza-prozesu propioak kudeatzearen eta erregulatzearen kontzientziaren osagai metakognitiboa, eta osagai hori norbera izaten ikasteko konpetentzian adierazten da argiro. Azkenik, konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, funtsezkoa da erabakiak hartzeko prozesura transferitzea ikasitakoa eta arazo-egoerak konpontzeko erabiltzea. Hori horrela izanda, ikasitakoa askotariko egoeratarara transferitzeko eta hainbat inguruetan aplikatzeko adibideak proposatu behar dira.

### 1.2.2.2.- Konpetentziaren osagaiak

Konpetentzia honen osagaien artean, honako trebetasun edo abilezia hauek nabarmentzen dira:

**1. osagaia: hainbat iturritan (inprimatuak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...) informazioa bilatzea, aukeratzea eta erregistratzea, eta iturrien egokitasuna ebaluatzea.**

Datuen edo elementuen multzo bat da "informazioa", errealitateari esanahia emateko baliaigarri izan daitekeena, hura hautematen edo interpretatzen den neurrian. Informazio-iturriak bizitza bera bezain askotarikoak dira, eta zentzumen guztiak dira haien kanalak.

Honako hauek dira informazio lortzeko ohiko urratsak:

1. Informazioaren **beharrizana eta helburuak zehaztea**: Zertarako behar dut informazioa? Zer informazio behar dut? Zer informazio dut eta zein dut baliaigarri? Zer zehaztasun izan behar du informazioak?
2. Bilaketaren **baldintzak zehaztea**: gaia, lotutako gaiak, hitz giltzarriak, argitaratze-data, hizkuntza, egileak eta gainerakoak.
3. **Iturria eta bilaketa-modalitatea hautatzea**: aurretiko ezagutzak, behaketa, ahozko euskarriak (inkestak, elkarrizketak...), euskarri idatziak (hiztegiak, entziklopediak, liburutegietako katalogoak, bibliografia-fitxak...), euskarri elektronikokoak eta hipertestualak...
4. **Lortutako informazioa balioestea eta hautatzea**: betetzen al ditu lortutako informazioak aurrez ezarritako beharrizanak eta helburuak?
5. **Lortutako informazioa gordetzea eta, horrela behar badu, zabaltzea**: bilaketa-modalitate eta euskarri bakoitzari dagozkion prozedurak erabili behar dira.

Gaur egun, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei esker, era esponentzian handitu da eskuragarri dugun informazio multzoa, eta bizkortu egin dira informazioa aurkitzeko moduak. Informazioa eskuratzea errazten dute euskarri berriek, baina prozedura egokiak erabili behar dira birtualtasun hori errealitate bihurtzeko, informazio baliaigarria eta fidagarria eskuratzeko eta informazio-metan ez galtzeko.

Osagai honen balio eta jarrera nabarmenak dira jakintzarekiko jakin-mina izatea eta, behaketaren bidez, ezagutza bilatzea, informazioa gordetzeko antolamendu egokia izatea eta ikastea errazteko ingurunea sortzea, hainbat iturritan ulermenezko bilaketak egitea eta, horren bidez, ikaskuntzaz gozatzea, norberak gogoko duelako ikastea eta informatuta izatea.

## **2. osagaia: informazioa ulertzea, buruz ikastea, eta ulertutakoa adieraztea (pentsamendu analitikoa)**

Irakasteko eta ikasteko prozesuaren funtsezko fasea da informazioa ulertzea, ulertu beharra baitago jakiteko. Jakina da ikasleek, maiz, ez dutela ikasten, ulertzeko zailtasunak dituztelako eta ulertze-erroreak izaten dituztelako. Zerbait ulertu den jakiteko irizpiderik fidagarriena da ikusteak norbait gai dela ikasi duen hori erabiltzeko eta aplikatzeko. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia lantzean, curriculum-edukiak (adierazpen, prozedura eta jarrerazkoak) menderatu eta barneratuko ditu ikasleak, ekintzak, gertaerak eta teoriak aztertuko ditu, eta ulertu duela erakutsiko du esaten eta egiten duen guztian.

Informazio argia eman behar zaie ikasleei, hori baita ulertzea errazteko bidea, eta, orobat, haien garapen-mailara eta aurrez dituzten ezagutzetara egokitutako informazioa eman behar zaie.

Informazioa modu adierazgarrian interpretatzeko konpetentzia eskuratzen da norberak argi eta garbi ulertzen dituen era guztietako ezagutzak (berriak edo norberak ikasgai jakin bati buruz aurretik dituen ezagutzen osagarriak), haiek modu pertsonal eta ulergarrian azaltzen dituen, eta beste egoera batzuetara estrapola ditzakeenean. Konpetentzia horren barnean, prozesatu egin behar da informazioa –hau da, informazioa eskuratzeko, irudikatzeko, eraldatzeko, gordetzeko eta nahierara berreskuratzeko gai izan behar du norberak–; eta horrez gain, oinarriko prozesu mentalak gauzatu behar dira, hau da, norberak gai izan behar du argudioen elementuak identifikatzeko, antzekotasunak eta ezberdintasunak alderatzeko,

ezaugarri komun en araberako sailkapenak egiteko, zatiak eta osotasuna erlazioatzeko, zatiak berrantolatu eta ikuspegi berri bat emateko, informazioa irizpide jakinen arabera sekuentziatzeko, eta, azkenik, ideien eta jokabidearen oinarrian zer arrazoi eta ondorio dauden aztertze. Ikasten ikasteko, eragiketa mental horien prozedurak erabili behar dituzte ikasleek, eta, horrekin batera, ikasteko hainbat teknika baliatu behar dituzte; hala nola azpimarratzea, oharak hartzea, kontzeptuzko eskemak eta mapak egitea, denbora-lineak eta mnemoteknia.

Ulertutakoa adieraziz edo jakinaraziz baino ezin da behatu eta ebaluatu eragiketa mentalen bidez osatutako irudikapenen emaitza. Ikasleek zer neurritan ulertu duten jakingo dugu beren hitzez adierazten dutenean ulertu beharrekoa, ulertu beharreko hori deskribatzen, definitzen, laburbiltzen eta aurkezten dutenean, ikasitakoa erabiltzen dutenean eta ikasitako hori beste egoera batzuetara transferitzen dutenean. Edonola ere, informazioaren ulermen-maila mailakatua izango da beti. Errealitatearen ulermena mugatua da beti, eta hura ulertzetik gertuago edo urrunago gera daitezke ikasleak.

Osagai honekin lotutako balioen eta jarreraren artean, honako hauek nabarmen daitezke: ezagutza bilatzea ikerketa sistematikoaren eta intuizioaren bitartez, errealitatea hobeto ulertzeko; ulermen-akatsak naturaltasunez onartzea; eta ideiak eta datuak jakinarazi eta trukatu nahi izatea.

### **3. osagaia: informazioa ebaluatzea eta nola ebaluatu den adieraztea (pentsamendu kritikoa)**

Informazioa ebaluatzeke parametroak askotarikoak dira oso: iturrien fidagarritasuna, objektibotasuna, argitasuna, sormena, balio estetikoak, balio etikoak eta beste hainbat alderdi balora daitezke. Informazioa ebaluatzeke hartutako irizpidea, kasu honetan, argudioen eta arrazoibidearen logika erabiltzea da, baita horren pertsuasio-indarra ere.

Egunero izaten dira eztabaidatzeko eta iritziak kontrastatzeko egoerak, bai kaleko eguneroko bizitzan –elkarriketa, bilera eta hedabideetan–, bai bizitza akademikoan, zalantzak eta interpretazio kontrajarriak argitzeko. Argudioak erabili eta ebaluatzeke prozedurek garrantzi handia dute eguneroko bizitzan, bizitza akademikoan eta lan-esparruan. Ondorio faltsuak ateratzen dira maiz, premisak faltsuak direlako edo arrazoibideak zuzenak ez direlako. Pentsamendu kritikoa gaitasun behar-beharrezko hori garatzeko, jakintza zorrotzaren arauak ezagutu behar dira eta ilusioaren zein falaziaren engainuak hauteman behar dira.

Informazioa ebaluatzeke konpetentzia izango du ikasleak, baldin eta gai baldin bada ideien sendotasuna eta ekintzen baliozkotasuna arretaz aztertzeke, ondoren horiek onartu edo baztertzeke. Ebaluazioak hauek behar ditu funtsean: a) pensamendu kritikoa hainbat trebetasun gauzatzea; hala nola informazio-iturri bat fidagarria ote den ikertzea, gertatzen dena zerk eragiten duen interpretatzea, izan litezkeen ondorioak aurreikustea, emaitzak orokortzea, arrazoiei buruz analogikoki arrazoitzea eta ondorioak ateratzea alde aurretik formulatutako premisak oinarri hartuta; b) kanpoko irizpide objektiboak eta adituen ikuspuntuak baliatzea, batez ere gaiari buruzko ezagutzarik ez badago; c) argudio baten alde onen eta txarren gaineko azterketaren aurrean jarrera mental irekia, malgua, zintzoa eta gogoetatsua ezaugarri duen bizi-estiloa izatea, eta, horrez gain, aldatzeke jarrera ona izatea, baldin eta egindako balorazioaren gaineko ebidentzia berriak agertzen baldin badira. Trebetasun horiek guztiek printzipio komun bat dute; izan ere, judizio bat onartu aurretik, arrazoi sendoetan oinarrituta dagoela egiaztatu behar da, eta horrela izan ezean, ez da onartu behar. Konpetentzia hori funtsezkoa da informazio berria ondorioztatzeko, norberaren eta lanbidearen eginkizunak egoki gauzatzeko, eta xedeak eraginkortasun handiz lortzeko.

Gaur egun, azaldutako ikuspegia indarrean den arren, aberastu egin da argudiatzearen esparrua, komunikazioaren ikuspegi pragmatiko eta soziokulturalaren haritik. Ikuspegi horrek, argudioen arrazoizkotasuna ez ezik, haien eraginkortasuna eta pertsuasio-indarra zein

diskurtoaren dimentsio afektiboa ere balioesten ditu. Kasu guztietan, solaskidea behar duen gizarte-ekintza bat da argudiatzea, eta komunikazio dialogikoko egoera batean gauzatzen da, hizkuntza diskurtsiboaren bitartez. Osagai pragmatiko-diskurtsiboak hiru dimentsio ditu, soziolinguistikoa (mezuak hainbat gizarte-testuingurutan egoki sortu eta jasotzeari dagokion dimentsioa da), pragmatikoa (mikrofuntzio komunikatiboak eta interakzio-eskemak hartzen ditu), eta diskurtsiboa (makrofuntzio testualak eta genero diskurtsiboekin lotutako gaiak hartzen ditu).

Osagai pragmatiko-diskurtsiboaren balio eta jarreraren artean, nabarmentzekoa da pentsamendu logikoaren arrazoizkotasunaren balioa, emozioak arrazoiaren zein komunikazio zorrotzaren ikuspegitik kontrastatzen dituen aldetik.

#### 4. osagaia: ideiak sortzea, aukeratzea eta adieraztea (pentsamendu sortzailea)

Informazioa sortzeko konpetentzia izango du ikasleak, baldin eta prozesu kognitiboak, aurretiko ezagutzak, nortasun-ezaugarriak eta motibazioa konbinatu, egokitu eta aplikatzen baldin baditu, ideia ugari, askotarikoak, baliagarriak, kualifikatuak eta garrantzitsuak sortzeko. Ideia horien adierazpen dira, besteak beste, arazoaren askotariko proposamenak egitea, erabakiak hartzeko unean hainbat aukera formulatzea, gertatzen ari dena zerk eragiten duen azaltzeko hipotesiak egitea eta norberaren ekintzen edo inguruan izandako gertakarien ondorioak aurreikustea. Ekintza sortzailearen funtsezko eragilea da irudimen aktiboa, aparte dauden elementuen artean egin daitezkeen asoziazio mental guztiak egiten baititu; asoziazio horiek, zenbaitetan, metafora bilaka daitezke. Lotura horien bidez, informazio semantikoen, episodikoaren, numerikoaren, prozedurazkoaren eta espazialaren buru-irudikapen bereizgarriak sortzen dira. Gertatu direnak ulertzen laguntzen dute norberak sortutako ideiek, planteatutako egoerari erantzuna ematen, nor bere jokabidearen ardura hartzen eta autokontzeptu positiboa eta autoestimu baliotsua garatzen.

Askotarikoak dira ideiak sortzeko prozesuak eta haien emaitzak, baita dituzten konplexutasun-mailak ere, eta ezin dira, hortaz, eskema bakar batean azaldu. Hala eta guztiz ere, sorkuntzaren fenomeno oro har azaltzeko eta ulertzeko, baliagarria da 4Pak aipatzea (produktua, prozesua, pertsona eta presioa):

- **Produktua:** ideia sortzaileen ezaugarri dira berritasuna, originaltasuna, balioa eta funtzionaltasuna.
- **Prozesua:** sortzeko prozesuan honako fase edo urrats hauek bereizten dira:
  - Prestatzeko fasea: helburuak ezartzen dira eta informazioa lortzen da.
  - Ideia berriak sortzeko fasea: ideiak sortzeko teknikak erabiliz (ideia-jasa, mapa mentalak, sinektika, diagramak, AMIA, pentsatzeko sei kapelen teknika...) eta irudimena aske utziz, ideiak eta ideien arteko asoziazioak sortzen dira inolako mugarik gabe (pentsamendu dibergentea, alboko pentsamendua).
  - Ideia berriak lantzeko fasea: ideia berriak multzo edo familiatan sailkatzen dira pentsamendu ulerkorren prozedurak eta teknikak erabiliz; ideia horiek erlazionatzen, konparatzen, aztertzen eta laburbiltzen dira, ideia-unibertsoa modu antolatuan osatuta (pentsamendu konbergentea).
  - Argialdi- edo deskubrimendu-fasea: ideia inkubatu eta lantzeko aldi labur edo luze baten ondoren, elkartu egiten dira ideia sakabanatuak, eta zentzu berria hartzen dute.
  - Ebaluatzeko fasea: pentsamendu kritikoaren prozedurak erabiltzen dira, ideia berria ezarritako helburua lortzeko egokia den baloratzeko (pentsamendu konbergentea).

- **Pertsona:** pertsona sortzaileen ezaugarri dira pentsamendu-malgutasuna eta ideien arteko loturak eta analogiak egiteko erraztasuna; nortasunaren ikuspegitik, nork bere buruaren kontzientzia, independentzia, ausardia, umorea, nork bere buruaren kontrola eta zehaztugabetasuna onartzea; eta ezagutzaren ikuspegitik, unean-unean landutako gaiari eta ideiak sortzeko teknika eta prozedurei buruzko informazio deklaratihoa edukitzea.
- **Presioa:** ideiak sortzeko giroa errazten duten baldintzak eta egoerak adierazten ditu. Ikuspegi pedagogikotik, giro sortzailea laguntzen dute ikasteko egoera ireki eta malguk. Antolamenduaren ikuspegitik, espazioa eta denbora malgutasunez antolatzen laguntzen dute. Ikuspuntu sozialetik, berriz, ikastetxeek eta familiek sormenaren balioespen ona egitea.

Prozesu sortzaileak lotura estua du egiteko eta ekiteko erabakiak hartzeko prozesuarekin, eta ezin da bereizi aurretik aipatu ditugun pentsamendu analitikoarekin (deskribapena, azalpena...) eta kritikoarekin (argudiatzea, justifikatzea) lotutako komunikazio-prozesuetatik. Komunikazio sortzailerako konpetentzia dugu aztergai atal honetan.

Pentsamendu sortzailea kanal ugariaren bidez adierazten da, gorputzaren, musikaren, plastikaren, hizkuntzaren eta bestelako adierazpen-kanalen bidez, bai horietako bakar baten bidez, bai horietako batzuen bidez. Hizkuntza-komunikazioaren barruan, adierazpen modu guztiek dute sormenaren arrastoa neurri handiagoan edo txikiagoan: norberaren komunikazioak (egunerokoak, agendak...), komunikazio funtzionalak (eskutitzak, eskabideak, elkarrizketak, jarraibideak...) eta pertsuasiorako komunikazioak (iritzia, publizitatea, iragarkia, eslogana...). Hala ere, irudimena eta fantasia bitarteko dituela, pentsamendu dibergentearen edo albokoaren bidez adierazten da sormenaren arrastoa, sorkuntza poetikoaren, ipuinen, txisteen, hitz-jokoen eta antzeko formulazioen bidez, besteak beste. Euskal Herriko kultura-eremuan, pentsamendu sortzailearen adierazpen pribilegiatua da bertsolaritza.

Osagaiarekin lotutako balioen eta jarreraren artean, nabarmentzekoak dira ideia berriak garatzeko eta adierazteko sormena eta ideia horiek naturaltasunez adierazteko askatasuna, hitzeko eta hitzik gabeko adierazpen moduak erabiliz.

### **5. osagaia: baliabide kognitiboaren erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.**

Konpetentziaren definizio-osagaiak dira jakintza eta baliabideak modu estrategikoan mobilizatu eta baliatzea, erabakiak hartu eta arazoak konpontzeko. Eremu jakin batean ikasten jakiteko, ezagutza berriak eskuratzeko eta bereganatzeko gauza izan behar du pertsonak, eta eremu horren berezko gaitasunak eta trebetasunak menderatu behar ditu. Ikasten ikasteko konpetentzian ezagutza-transferentziak izan daitezke eremu batetik bestera, baina eremu batean ikasten jakiteak ez du esan nahi, ezinbestean, beste batean ikasten dakigunik. Horrenbestez, eremu formalaren arloen eta ikasgaien irakaskuntza-esparruan eta eremu ez-formal eta informalekoen irakaskuntzaren barnean eskuratu behar da konpetentzia hau.

Ikasleak jokabide estrategikoa izango du, baldin eta ikasteko modurik egokiena hautatzen badu informazioa barneratzeko, sortzeko eta balioesteko prozesuetan, eta hura bat baldin badator ezarritako helburuarekin. Eta, azkenik, ikasitakoaren transferentzia iristen da –ikaskuntzaren funtsezko elementua da hori–, ikasitakoa askotariko egoeratarako transferitzeko adibideak emanez eta ikasitako hori hainbat inguruetan erabiliz. Lau dimentsio horiek baliagarri dira gizakien ahalmen kognitiboaren garapena bermatzeko, ikaskuntza-prozesua errazteko eta ikasleak gero eta pertsona arduratsuagoak izateko beren judizioen eta jokabideen gainean.

Osagai honi lotutako balioen eta jarreraren artean, nabarmentzekoak dira ikasitako baliabideak egoera eta zeregin berrietan erabiltzeko ekimena, baldintza eta egoera aldakorretara bizkor egokitzeak moldagarritasuna eta malgutasuna, eta kanpotik ezarritako xedek eta

aurreikuspenak betetzen dituzten zereginak, jarduerak eta proiektuak gauzatzeko produktibitatea.

### 1.2.3. ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA

#### 1.2.3.1. Konpetentziaren definizioa eta ezaugarriak

##### Definizioa

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

##### Ezaugarriak

Agerikoa da modu asko daudela "elkarbizitza" zer den interpretatzeko, eta elkarbizitzaren esparruak tokikotik unibertsalerako eta pertsonaletik instituzionalerako dimentsioak har ditzakeela. Atal honetan, ikasleek egunero pertsonen artean izaten dituzten harremanen ingurune hurbilenera mugatzen da elkarbizitzaren esparrua. Ikasleek pertsonekin dituzten harreman egiazko eta birtualak hainbat erreferentzia taldetan gauzatzen dira, askotariko egoeratan: familian, ikastetxean, lagun taldean, jolasean, kirolean, auzoan eta beste hainbatetan. Ikastetxea da, batik bat, atal honetan aurkeztuko ditugun elkarbizitzarako konpetentziaren osagaien aplikazio-eremua, baina izan daitezke, transferentziak eginez, bizitzako beste eremu batzuk ere. Konpetentzia hau pertsonarteko adimenarekin edo gizarte-adimen deritzonarekin dago lotuta.

Konpetentzia honen osagaiak azalduko ditugu orain, eta kontuan izan behar da osagai horiek osagarriak direla, pertsonarteko komunikazio ona landu behar baita taldean lan egiteko, gizarte-harmonian bizitzeko eta gatazkak kudeatzeko. Horrez gainera, osagaietako bakoitzari dagozkion prozesuekin batera landu behar da metakognizioa.

#### 1.2.3.2. Konpetentziaren osagaiak

Honako osagai nabarmen hauek ditu "elkarbizitzarako" konpetentziak:

**1. osagaia: norberaren eta besteren nahiak asebeste daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.**

Asertibitatea eta enpatia modu orekatuan uztartu behar dira pertsonen arteko komunikazioa egiazkoa eta guztiontzat aberasgarria izan dadin.

Nork bere sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak egiaz eta, aldi berean, solaskidea errespetatuz adieraztea da **asertibitatea**. Zer eta nola esaten duen hartzen du kontuan pertsona asertiboak; hau da, komunikazioaren alderdi linguistikoez zein ez-linguistikoez (begiradaz, keinuez, ahots-doinuaz...) ohartzen da eta erregulatu egiten ditu. Asertibitateak lotura handia du konfiantza eta autokontzeptuarekin. Pertsona asertiboa aske sentitzen da, eta ahaleginak egiten ditu beste inor ez manipulatzeko eta manipulatu ez izateko.

Egiatzko komunikaziorako eta gatazkak konpontzeko abiapuntu sendoa da jokabide asertiboa, auziak era argian eta eraikitzailean planteatzen laguntzen baitu. Maila pertsonalean, nor bere buruarekin eta gainerakoekin ongi sentitzeko barne-poza eragiten du.



Beste pertsona baten tokian jartzea eta hark esaten duena entzutea da **enpatia**, eta barnetik interpretatzea esaten duena eta esan nahi duena. Pertsonarteko adimena duen pertsonak jakin badaki norbait ulertzea prozesu aktiboa dela, erabateko arretaz bete behar dena, onartzeko eta entzuteko prestasunetik abiatuta. Hitzak entzuten ditu eta mezuaren edukiaren eta keinu, begirada eta doinuaren arteko lotura egiten du. Entzundako mezuaren edukiari erreparatzeaz gain, haren mami emozionala ulertzen ahalegintzen da. Galdera garbiak egiten ditu, eta erreakzionatu egiten du solaskidearen sentimenduen, emozioen eta iritzien aurrean.

Norberaren emozioez ohartu eta haiek erregulatzen dituen pertsonak oinarri ona du gainerako pertsonen tokian jarri eta haien emozioak ulertzeko. Horren ifrentzuan, besteren emozioak ulertzeko ahaleginak lagundu egiten du norberaren emozioak ulertzen.

Elkarbizitzarako kompetentziaren osagai hau kompetentziaren gainerako osagaien oinarria da. Asertibitatea eta enpatia izan behar dira taldean lan egiteko, printzipio etikoen eta gizarte-arauen arabera jokatzeko eta gatazkak konpontzeko. Baina, modu errekursiboan, garatu egiten da osagai hori eta adierazitako eremu horietan egindako esperientzien emaitza da.

Asertibitateak eta enpatiak lotura dute ezberdintasunak onartzeko jarrerekin eta gainerako pertsonen balioak, sinesmenak, kulturak eta historia pertsonala onartzeko eta errespetatzeko jarrerekin. Lotura dute, halaber, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta ekintzak adierazteko zintzotasuneko balio eta jarrerekin; gainerako pertsonen zintzotasunarekiko konfiantzarekin; pertsonak gizalegez eta begirunez hartzeko kortesiarekin; sentimenduak eta ideiak modu irekian eta naturaltasunez jakinarazteko adierazkortasunarekin; eta pertsonen beharrianak eta mugak onartzeko eta horiei erantzuteko eskuzabaltasunarekin.

## **2. osagaia: taldean ikastea eta lan egitea, nor bere ardurak onartuz eta helburu komuneke lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.**

Betidanik pentsatu izan da ikaskuntza-prozesua banakako prozesua dela, ikaslea baita ikasten duena. Gaur egun, ordea, banaka ikastearen garrantzia baztertu gabe, ikaskuntzaren paradigma soziokulturalak adierazten du ikaskuntza testuinguru sozial baten barruan kokatzen dela eta prozesu sozialetan garatzen dela. Testuinguru batean (ikasgelan, familian, adiskideen artean...) kokatua ulertzen da ikaskuntza, eta nabarmendu egiten da ikaslearen eta bideratzailearen arteko elkarreaginaren (bideratzaile hori ez da beti irakaslea izaten) eta berdinen arteko ikaskuntzaren garrantzia.

Taldean ikasteko bi modalitate daude funtsean: elkarri lagunduz egindakoa eta elkarlanean egindakoa. Bi modalitate horiek baliagarriak izan daitezke ikasteko, baina lankidetzan, ikasten ikasteko gaitasuna garatzeko egokia ez ezik, lagungarria ere bada elkarrekin bizitzen ikasteko kompetentzia garatzeko.

Lankidetzako ikaskuntzaren honako ezaugarri hauek nabarmen daitezke: talde txiki heterogeneoetan lan egiten da; helburua da guztiek ahalik eta gehien ikastea; taldeko kide guztien ikaskuntza eta errendimendua ditu erreferentzia; berdinen arteko ikaskuntza nabarmentzen da, elkarri laguntzeko konpromisoa hartuta; guztiek parte hartzen dute eta lidergoa partekatzen da; berariaz ikasten dira trebetasun sozialak; eta irakaslearen eginkizun nagusia da tutoretza-lanak egitea eta ikasteko prozesuen egitura eraikitzea.

Lankidetzako lanak, ikaskuntza-emaitzak lortzeko balio izateaz gain, honako balio hauek garatzen ere laguntzen du: lankidetzan eta elkartasuna, beste pertsona batzuekin elkarlanean arituz eta erantzukizunak partekatuz; osagarritasuna, taldean lan eginez trebetasun guztiak elkarren osagarri izateko eta elkar laguntzeko eta aberasteko; interdependentzia, lankidetzan banako erabakiak hartzea baino hobea dela gogoan hartuta arituz; erantzukizun partekatua, zeregin eta eginkizunetan elkarrekiko oreka edukita gainerako pertsonekin, nor bere ardurapeko arloaren erantzule izan dadin; sinergia, talde baten emaitzak bere kideek banaka

lortutakoak baino handiagoak izateak ematen duen energia baliatzea; eta elkarri obeditzea, funtzionamendurako arauak ezarri eta taldearen barruan bete behar baitira.

### **3. osagaia: norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratorzen diren arauak betetzea.**

Bi jokabide mota bereiz daitezke: giza eskubideetan oinarritzen direnak, eta konbentzio edo arau sozialetan oinarritutakoak. Biak ala biak beharrezkoak dira bizikidetzarako, baina garrantzi eta oinarri ezberdinak dituzte. Giza eskubideetan oinarritutako jokabideek printzipio etiko unibertsalak dituzte oinarri (hala ere, kontuan izan behar da printzipio horien aplikazioa historikoa eta aldakorra dela). Printzipio etiko horien oinarri dira giza duintasuna, justizia, berdintasuna eta gizakien ongizatea. Printzipio horiei erreparatuta, jokabide "zintzoak" eta "gaiztoak" bereizten dira. Konbentzio sozialekin zerikusia duten jokabideak, aitzitik, neurri handiagoan edo txikiagoan arbitrarioak diren arauetan oinarritzen dira. Konbentzio eta ohitura kulturalak aldatu egiten dira denboraren poderioz. Konbentzio horiei erreparatuta, balorazio-irizpidea ez da jokabidearen "ontasuna" edo "gaiztotasuna", jokabidearen "egokitasunari" edo "desegokitasunari" begiratzen baitzaio.

Bi jokabide mota horiek garrantzitsuak dira elkarbizitzarako, eta, elkarlanean sustatu behar dituzte familiek, gizarteak eta eskolak.

#### **Giza eskubideen printzipio etikoetan oinarritutako jokabideak**

Pertsona guztiek eskubide berberak dituzte, haien sexua, arraza, etnia, jatorria, hizkuntza eta kultura edozein dela ere. Giza eskubideak pertsona guztien duintasun eta berdintasunean daude oinarrituta. Pertsona izateagatik aitortutako eskubideak dira. Honela dio Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak: "gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean sende legez jokatu behar dute" (1. artikulua).

Giza Eskubideen Aldarrikapeneko artikuluen artean, batzuek garrantzi berezia dute eguneroko bizitzan eta, zehazki, eskolako bizitzan, jokabide altruistak eta elkarbizitza oinarritzeko. Adibidez:

- "Ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste inolako egoerarengatik" (2. artikulua). Atal horretan sar daitezke desberdinak direnen aurkako jokabide diskriminatzaile guztiak.
- "Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere" (5. artikulua). Atal horretan sar daitezke indarkeriazko jokabideak, tratu txarrak, isekak, mehatxuak, bullyinga eta antzekoak.
- "Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere" (12. artikulua). Atal horretan sar daitezke intimitate eta bizitza pribaturako eskubidearen aurkako jokabideak edo kalumniak eta gezurrak.
- "Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko" (17. artikulua). Atal horretan, besterenak errespetatzen ez dituzten jokabideak sar daitezke; hala nola lapurtzea eta besterenak diren ondasunak edo ondasun partekatuak haustea edo zabar erabiltzea.

#### **Gizarte-konbentzioen arauetan oinarritutako jokabideak**

Gizarte-arauek arautzen dute, neurri handi batean, gizarteko bizimodua. Gizarte guztiek eraikitzen dituzte beren jardun-konbentzio eta -arauak. Gizarte-konbentzioek edo -azturek,

batetik, bizikidetza errazten dute; izan ere, jokamolde batzuk ezartzen dituzte, eta horiek onartutakoan, jokabideak aurreikusgarriak dira, eta ez dira arauak ezarri eta negoziatu behar egoera bakoitzerako. Baina arau edo konbentzio horiek mugak ere ezartzen dizkiote pertsonen jokabideari.

Gizarte-konbentzio edo -arauen zerrenda amaiezina da ia: konbentzioak daude jateko, edateko, janzteko eta etxeak eraikitzeo, eta konbentzioak dira dirua, sistema metrikoa, sistema aritmetikoa, ordutegiak eta egutegia, zirkulazio-arauak, hizkuntza, musika, dantza, jolasak, erlijio-arauak eta beste hainbat. Konbentzio horiek guztiek osatzen dute gure hazkuntzaren substratu kulturala, eta elkarbizitzarako arau horiek oharkabean barneratuz sozializatzen gara, harik eta usadio, ohitura eta jokabide-eredu bihurtzen diren arte.

Jokabide soziokultural horiei "konbentzio" esaten zaie. "Konbentzio" hitzak gogorarazten digu komenentziaz adostutako erabilerek, ohiturek edo hitzarmenek eraginda daudela jokabideak. Konbentzioen artean, batzuk ezinbestekoak dira bizikidetza eta gizarte-bizitzarako, eta arau-edo lege-indarra ematen zaie. Konbentzio horiek bete ezean, gizarteak jokabide horiek baztertu eta neurri hertsatzaileak hartzen ditu haien aurka.

Arau-indarreko zer gizarte-konbentzio bultzatu behar dira eskolaren barruko bizikidetzari begira? Galdera garrantzitsua da hori, baina erantzun bat baino gehiago izan ditzakeenez, Hezkuntza Proiektuak eta, zehazki, ikastetxe bakoitzeko elkarbizitza arautzen duen erregelamenduak landu behar du gaia. Esaterako, taldeetan koordinaturik lan egiteko, puntualtasun-arau batzuk behar dira. Beste pertsona batzuekin elkarbizitza atsegina izateko, kortesiako, gizabideko arauak behar dira. Taldean giro atseginean lan egiteko, garbitasun- eta txukuntasun-arau batzuk behar dira. Gizarte-konbentzioak garrantzitsuak dira, era berean, jantokiko jarduerak egin eta joko-arauak errespetatzeko, besteak beste.

Gizarte-konbentzioak adostu behar dira elkarbizitzarako, baina, era berean, konbentzio horiek "arbitrarioak" eta aldagarriak direla jakin behar dugu. Helburua ez da obedientziaren legeak hala agintzen duelako irakastea gizarte-konbentzioak eta haiek modu akritikoan onartzea, eta bai metakognizioko prozesuak baliatzea, ezarritako arauen arabera jokatzeko aukera ematen duten aldetik; hala ere, gogoz bultzatu behar da konbentzioak aldatzeko prozesuen irakaskuntza eta ikaskuntza, eta lan horren barnean, elkarrizketa eta negoziazio-prozesuak bultzatu behar dira, guztion onerako.

Osagai honekin lotutako balioen eta jarreraren artean, nabarmentzekoak dira, batetik, berdintasuna, norberak gainerako pertsonen dituzten eskubide eta betebeharrak berberak dituela aitortzen duen aldetik; eta bestetik, justizia eta ekitatea, desberdintasun- eta opresio-baldintzak zuzentzeko eta funtsezko balioak defendatzeko konpromisoa dakarten aldetik.

#### **4. osagaia: gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.**

Pertsonen eta taldeen artean gertatzen diren gatazkak landuko dira atal honetan. Pertsonen gatazkak izaten dituzte eguneroko bizitzan, eta gatazka horiek familian, eskolan, jolasetan, kirol-eremuan eta beste esparru askotan gertatzen dira.

Gatazka-egoera batek honako ezaugarri hauek ditu, besteak beste:

- Desadostasun- edo liskar-egoera bat gertatzen da bi pertsonaren edo talderen - edo gehiagoren - artean.
- Pertsona edo taldeen interesak, beharrianak, nahiak edo balioak bateraezinak direnean edo hala direla uste denean gertatzen da gatazka.
- Emozioek eta sentimenduek eragina izaten dute gertaeren interpretazioan.

Sarri askotan, konnotazio negatiboa izaten du "gatazka" hitzak, eta saihestu beharreko egoera gogaikarriak direla uste izaten da. Egia da gatazka batzuek ondorio negatiboak dituztela, baina egia da, era berean, gatazkarik gabe ez dagoela hazi eta hobetzerik.

- Gatazkek ondorio negatiboak izan ditzakete eta kalte egin diezaioke bizikidetzari. Gatazkek izan ditzaketen ondorio kaltegarrietako batzuk dira, esaterako, komunikazioa etetea, mesfidantza-giroa, negatibotasuna, oldarkortasuna, errudunen bila aritzea, motibazioa galtzea, erabaki kaltegarriak hartzea eta helbururik ez erdiestea.
- Gatazkek izan dezakete ondorio positiborik, eta onura ekar diezaioke bizikidetzari. Ondorio positiboen artean hauek aipa daitezke: oztopoei aurre egiten ikastea; pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzen ikastea; asertibitatearen eta enpatia garrantzia baloratzen ikastea; aniztasunaren kontzientzia hartzen eta berau errespetatzen ikastea; ezberdintasunen artean irabazi komunerako elkarguneak bilatzen ikastea; eta, gure ustez onenak izan ez arren, hartzen diren erabaki onak onartzen eta geureganatzen ikastea.

Elkarrekin bizitzen ikasteko, garrantzitsua da gatazka-egoeretan elkarrekin bizitzen ikastea eta egoera horiek indarkeria erabili gabe kudeatzen ikastea, elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez. Gatazka-egoerak hezkuntza-aukera bilakatzea da erronka. Bilakatzeko edo eraldatzeko lan hori egiteko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan sartu behar dira gatazkek konpontzeko negoziatio-prozedurak eta -teknikak, bai simulazio-egoerak eta irakaskuntza formaleko kasuak aztertuz, bai ikastetxean eta familian eguneroko bizitzaren egoera informaletan sortzen diren gatazkek kudeatuz.

Sarritan, diziplina-neurrien bitartez konpontzen dira ikastetxean edo familian gertatzen diren bizikidetzak. Gatazka horietan egindako jokabideek urratu egiten dituzte ikastetxeko edo etxeko arauak, eta jokabide horietarako aurreikusitako diziplina-neurriak hartzen dira. Bizikidetzak arauak urratzen direnean, beharrezkoa izaten da maiz, baina ez nahikoa, arauak betearaztea eta erreakzio-erantzunak izatea. Neurri horiek baliagarriak dira, unean-unean, jokabide suntsitzailen ondorioak geldiarazteko, baina, bizitzarako prestatuz eraikitzeko, epe luzean erabil daitezkeen estrategia proaktiboak baliatu behar dira. Oro har, gatazkek ez dira, epe ertain edo luzean, beren horretan utziz edo azaleko konponbideen bidez konpontzen; beraz, haien mamiari heldu behar zaio eta elkarrizketa zein negoziatiorako prozedurak eta jokabideak erabiltzen ikasi behar da.

Asko eta askotarikoak dira osagai honekin lotutako balioak eta jarrerak. Horien artean, nabarmentzekoak dira empatia eta asertibitatea erakusten duten jarrerak, norberaren eta gainerako pertsonen nahiak asebetez komunikatzeko bidea irekitzen dutenak, jarrera egokiak baitira norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazteko, eta aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak era aktiboan entzun eta kontuan hartzeko; arrazionaltasuna, argudio logikoak landu eta emozioak kontrolatzeko; adierazkortasuna eta askatasuna, norberaren sentimenduak eta ideiak modu irekian eta naturaltasunez azaltzeko eta gainerako pertsonak ere horrela jokatzeko aske senti daitezen; moldagarritasuna eta malgutasuna, baldintza eta egoera aldakorretara bizkor egokitzeko; pazientzia eta iraunkortasuna, esperientzia eta egoera zail eta etsigarriak lasaitasunez jasateko; eta eskuzabaltasuna, besteren beharrianak eta mugak gogoan hartuta, norberaren dohainak eta trebetasunak partekatu eta gainerako pertsonen laguntzeko, ordainetan ezer itxaron gabe.

## 1.2.4. EKIMENERAKO ETA ESPIRITU EKINTZAILERAKO KONPETENTZIA

### 1.2.4.1. Konpetenziaren definizioa eta ezaugarriak

#### Definizioa

Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezzen.

#### Ezaugarriak

Ideiak ekintza bihurtzeko gai izatean datza ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia. Honako hau adierazten du Europako Parlamentuaren Gomendioak (2006):

*"Zerikusia du sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuak hartzearekin, bai eta, helburuak betetze aldera, proiektuen plangintza eta kudeaketa egiteko abileziarekin ere. Pertsona guztiek erabiltzen dute konpetentzia hau eguneroko bizitzan, etxean eta gizartean, eta baita lantokian ere, beren lanaren testuinguruaz jabetu eta aukerak baliatzeko ahalmena izatean; horrez gainera, zimendua da gizarte- edo merkataritza-jarduerak sortzen edo sorrera horretan laguntzen duten pertsonen behar dituzten beste gaitasun eta ezagutza espezifikoko batzuk garatzeko".*

Argi eta garbi bereizi behar dira espiritu ekintzailerako konpetentzia eta enpresa-espirtua. Askotariko ekintzak erabakimenez eta eraginkortasunez abiatzeko edo ekiteko ekimena duen pertsona da "ekintzailea". Oinarrizko Hezkuntzan, espiritu ekintzailea zentzu zabalean garatzea izan behar du lehentasuna, pertsonak bizitzaren dimentsio guztietan jarduteko prestatzea baita haren eginkizuna; horrenbestez, pertsonak bere bizitza osoan gizabanako moduan garatzeko bizi ditzakeen egoera guztietan baliatu behar du ekimena eta espiritu ekintzailea, gizarteko kide aktiboa izanik eta garapen sozial, kultural eta ekonomikoaren eta naturaren garapen iraunkorraren erantzule izanda. Enpresa da ekimenerako esparruetako bat; izan ere, esparru horretan balia daiteke ekimena eta espiritu ekintzailea, aukerak hauteman eta aukera horien alde borrokatzeko, balio berria sortu edo arrakasta ekonomikoa erdiesteko.

Ekintzaile izateko, ekintzailera-prozesu osoa kudeatzeko trebetasunak eta abileziak izan behar dira. Ekintzailera-prozesua hiru fase hauetan antolatzea komeni da - batez ere, ideiak berritzaileak eta gauzatzen zailak baldin badira - : a) hasierako fasea: ideia edo proiektua aukeratu, plangintza egin eta haren bideragarritasuna aztertuko da; b) garapeneko fasea: plangintza ezarri eta doituko da, horretarako premiarik baldin badago; c) amaierako fasea: ekintzak ebaluatu, emaitzak jakinarazi eta hobetzeko proposamenak egingo dira. Halaber, prozesu osoa autorregulatu behar da, aldagai guztiez jabetuta eta haiek erregulatu ahaleginduz.

Laburbilduz, Oinarrizko Hezkuntzan, ekimena eta espiritu ekintzailea sustatzeko "jardunbide egoki" dira ideiak ekintza bihurtzeko behar diren dohain pertsonalak sustatzekoak; hau da, hezkuntza integral bat sustatzen dutenak, honako osagai hauek barne hartuta: a) jarduerak landu egin behar dituzte hezkuntzako zehar-konpetentzia edo orokor kognitiboak, komunikatiboak, sozialak, afektiboak eta ekintza planifikatu eta kudeatzekoak; b) metodologia aktiboen bidez gauzatu behar dira, egoera esanguratsu eta egokien inguruan; c) arazo-testuinguru errealean kokatu behar dira; d) ikasteko gogoia eta ikasitako baliabideak modu integratuan erabiltzeko motibazioa piztu behar dute testuinguru horiek; e) eta arazoak konpontzeko beharrezkoa izan behar du, bai ekimena eta espiritu ekintzailea izatea, bai ekintzailera-prozesua erabiltzea. Beste hitz batzuekin esanda, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza da ekimena eta espiritu ekintzailea garatzeko dela ziurtatzeko aukerarik onena, baita, modu osagarrian, enpresa-espirtua garatzeko dela ziurtatzeko ere.

Ideiak ekintza bilakatzeko estrategia eta prozedurak diziplina-arlo guztietan eta eguneroko bizitzako egoeretan barneratzen dituen neurrian eskuratuko du ikasleak "ekimenerako eta ekiteko espíriturako" konpetentzia. Hots, ekimena eta espíritu ekintzailea duten pertsonen ezaugarri diren dohainak (ideiak izatea, komunikatzea, elkarlanean aritzea, norbera izatea, planifikatzea eta kudeatzea) lantzeko modu koherenteena da dohain pertsonal horiek diziplina-arlo guztietan lantzea.

### 1.2.4.2. Konpetentziaren osagaiak

Prozesu ekintzailearen faseei erreparatuta, honako osagai hauek ditu "ekimenerako eta espíritu ekintzailerako" konpetentziak:

#### 1. osagaia: ideiak edo proiektuak sortzea eta/edo nork bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea.

Gauzatu nahi den ideia edo proiektuaren gaineko erabakia hartzea da ekintzailatza-prozesuaren lehen urratsa. Ideia edo proiektua norberarena edo besterena izan daiteke. Beti egin behar da plangintza bat arazo konplexuak konpontzeko. Plangintzaren ezaugarriak aldatu egiten dira arazotik arazora, baina plangintza egiteko, honako urrats edo prozedura hauek hartu behar dira kontuan:

- Zer lortu nahi dugu? Zer emaitza aurreikusten da?
- Zer zeregin/ekintza egin behar da aurreikusitako emaitzak lortzeko?
- Zer lotura daude egin beharreko zereginen/ekintzen artean?
- Nork eta noiz egingo ditu ekintza/zeregin bakoitza? Eginkizunen eta arduren banaketa eta kronograma.
- Zer bitarteko material, tekniko, ekonomiko edo bestelako erabili behar dira?
- Nola bilduko dira emaitzen ebidentziak eta nola komunikatuko dira?
- Nola ebaluatuko dira emaitzak? Zer irizpideak eta adierazle erabiliko dira emaitzen lorpena ebaluatzeko?
- Bideragarria al da egindako plangintza?
- Ba al dago proiektua egiteko motibaziorik?

Urrats horietako batzuetan teknika eta tresna lagungarriak erabiltzea komeni da; hala nola ideometroak, lehenetsunak ezartzeko diagrama logikoak, Gantt diagramak, erantzukizunak banatzeko taulak, aurrekontua, kontrol-zerrendak eta ebaluazio-taulak.

Ikasleek beren bizitzako jardun-eremuetan izaten dituzten arazo-egoeren gaineko plangintzak planifikatzeko erabil daiteke azaldu berri den gidoia; alabaina, honako ezaugarri propio hauek dituzte eskolaren esparruan konpetentziak eskuratzeko xedez planteatzen diren arazo-egoerak konpontzeko proiektuek:

- Hasierako egoera bat da ekintzaren abiaburua, hari buruzko aurretiazko ezagutzak ematen dira, eta ikasleen egitekoa da egoerari irtenbidea ematea, ezagutza berriak eskuratuta. Ezagutza horien erabilera integratua lagungarri izango zaie hasierako arazo-egoerari irtenbidea emateko.
- Erronka egingarria da, baina modu bat baino gehiagotan gauza daiteke.
- Erronkari aurre egiteko, jarduerak planifikatu, garatu eta ebaluatu behar dira.
- Banaka eta taldeka lan egin behar da.

- Denbora mugatua ematen da arazoa konpontzeko.
- Arazoaren irtenbideak erabilpen praktikoa izan behar du, baina irteera-profilean adierazten diren oinarrizko konpetentzia guztiak garatzea da azken helburua.

## **2. osagaia: planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea.**

Beharrezkoa eta oso garrantzitsua da ideia berriak sortzea eta egungo errealitateko aukera egokienak diseinatzea, baina errealitate horrek ez du aldaketarik (hobekuntzarik) izango, baldin eta ideia eta aukera horiek gauzatzeko ekintzarik egiten ez baldin bada. Egungo errealitatean bestelako aukerak gauzatzeari ekin nahi bazaio, beharrezkoa da, aukerak gauzatzeko gogoia izateaz gain, haien gauzapenean parte hartzeko konpromiso pertsonala hartzea.

Jarduera-plana finkatu ondoren, bete egin behar da; orduan, planaren gauzapenak zer bilakaera duen begiratu behar da, eta ingurunearen bilakaerari erreparatu behar zaio. Horrez gainera, bilakaeraren jarraipena egin behar da, eta, desbideratzeak gertatuz gero, haiek zuzentzeko neurri egokiak hartu behar dira.

Planifikatua gauzatzen, kontrolatzen eta hobetzen laguntzen dute honako urrats edo prozedura hauek:

- Aurreikusitako eta egindako jardueren kalitate-mailaren jarraipena eta kontrola.
- Jarduerak egiteko aurreikusitako denboraren jarraipena eta kontrola.
- Eginkizunen, erantzukizunen eta kronogramaren betetze-mailaren jarraipena eta kontrola.
- Lanak egitean dagoen motibazio-mailaren jarraipena.
- Plangintza aldatzea eta doitzea, premiazkoa baldin bada.

Hainbat teknika eta tresna (esaterako, kontrol-zerrendak, Gantt diagrama, eginkizunak eta erantzukizunak banatzeko taula) lagungarri izan daitezke plangintzaren jarraipena, kontrola eta doikuntzak egiteko. Plangintzaren garapenaren kontzientzia hartzen eta prozesua erregulatzen lagun dezakete tresna horiek. Alde horretatik, portfolioa da prozesuen autorregulaziorako tresnarik eraginkorrenetakoa bat.

## **3. osagaia: egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.**

Egungo errealitatearen bestelako aukerak gauzatzeko ekintzek ondorioak dituzte errealitatean, eragin egiten diote errealitateari. Funtsezkoa da prozesu ekintzaile orok, berrikuntzaren hasierako faseaz gain, ebaluazio-fase bat ere jasotzea, garatzeko fasean egindako ekintzen bitartez errealitatean eragin den inpaktua ebaluatzeko.

Era berean, jarduera-planean finkatu diren helburuak eta errealitatean erdietsitakoak alderatu behar dira, eta bete direnen eta bete ez direnen arteko diferentzia kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztu. Horrez gain, planean aurreikusi ez, baina egiaz izan diren bestelako ondorioak zehaztu behar dira. Ebaluazio hori egiteko, ebaluazio-taulak lagungarri izan daitezke alderdi positiboak eta negatiboak ikusteko, baita hobetzeko proposamenak egiteko ere; hala, hurrengo esperientzietarako baliagarriak izan daitezkeen ezaugarriak jaso behar dira, eta hobetu beharrekoak zehaztu.

Emaitzak eta hobetzeko proposamenak jakinarazteak garrantzi handia du prozesu ekintzailearen amaierako fase honetan, hala ahozko aurkezpenen bidez (diapositiben eta ikus-

entzunezko bitartekoekin batera, egokia baldin bada), nola txosten idatziak eginez (irudiak, grafikoak eta antzeko euskarriak erantsita, behar izanez gero).

Azkenik, prozesu ekintzaile osoan, *jarrera* eta *balio* hauek landu behar dira: proiektuak eta jarduerak kanpoko presioen eraginik gabe abiarazteko ekimena; sormenez eta irudimenez jarduteko joera; erresilientzia, norbera saiatua eta aldi berean malgua izateko, eta bizkortasunez egokitze baldintza eta egoera aldakorretara; helburuak betetzeko motibazioa, erabakitasuna eta borondatea, norberarenak edo beste batzuekin batera ezarritako helburuak diren begiratu gabe.

## 1.2.5. NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA

### 1.2.5.1. Konpetentziaren definizioa eta ezaugarriak

#### Definizioa

Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

#### Ezaugarriak

Autorrealizaziora bideratuta dago “ikasten ikasteko” konpetentzia, eta autorregulatzen ikastea da izaten ikasteko bidea.

Pertsonak duen potentzialtasun guztia ahalik eta gehien garatzea da **autorrealizazioa**, harik eta erabateko betetasuna iritsi arte. Autorrealizazioaren definizio formala onargarria izan daiteke, baina “pertsonaren potentzialtasuna” zer den zehazterakoan arazoa sortzen da, eta batez ere, bere potentzialtasuna erabat garatu duen pertsonaren eredu ideala zertan datzan zehazten saiatzerakoan.

Autorrealizazioaren ideia zehaztapena aldatu egin da historian eta kultura guztiek adierazi dute errealizazioaren inguruko ideia bat. Pertsonak gizartean garatzen dira, kultura-esparru zehatzetan, eta norberaren nortasuna komunitatearen barruan eraikitzen da, etengabeko elkarrekintzan; hala, tentsioak ere izaten dira norberaren berezitasunaren eta inguruneak norberari egindako presioen artean.

Gaur egungo kulturantzatasun-testuinguruan, pertsona errealizatuen inguruko eredu bat baino gehiago dago, baina ziurgabetasunaren aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa da gizabanakoei baliabideak ematea beren nortasuna eraikitzen laguntzeko. Horrela egiten ez baldin bada, pertsona alienatuak garatzea bultzatuko da, erabakiak hartzeko irizpide pertsonalik gabekoak, gainerako pertsonen egiten dutena egitera mugatzen direnak.

Atal honetan, autorrealizazioa pertsonen arteko hartu-emanen ondorioz eguneratu eta doitzen joaten den prozesu dinamikotzat joko dugu, eta ez alde aurretik zehaztuta dagoen amaierako egoeratzat. Izaten jakiteko eta modu malguan eta aldagarrian hazten joateko prozesuaren motorra eta gakoa **autorregulazioa** da.

Honako bi prozesu osagarri hauek ditu **autorregulazioak**:

#### a) Metakognizioa:

Modu, gutxi-asko, espontaneoan eta oharkabean sortzen diren pertzepzio, sentimendu, pentsamendu, hitz eta ekintzetatik aldentzean datza, eta prozesuei buruzko gogoeta



egitean, haiek ulertu eta balioesteko, kontzientziara ekarri ostean. Metakognizioa deitzen zaio, norbere kognizioaren gaineko kognizio-prozesua delako.

#### b) Erregulazioa:

Metakognizioan oinarrituz, beste urrats bat ematean datza. Kontzientzia hartu ostean, eta egindako balioespenari erreparatuta, unean uneko gaia erregulatzen da; hori horrela, balioespen positiboa egin baldin bada, jokabidea indartzeko erabakia hartuko da, edo, hala ez baldin bada, hura egokitzekoa edo aldatu eta hobetzekoa. Erregulazioaren eraginkortasuna handituko da hobetzeko modua planifikatzen, prozesuan behar diren doikuntzak egiten eta emaitzak ebaluatzen diren heinean.

Autorregulazio-prozesua ezin konta ahala esparru eta egoeratan aplika daiteke. Orain, pertsona erabat garatzeko alderdi edo osagai esanguratsuak zehaztuko ditugu, beste batzuk baztertzeko asmorik gabe. Autorrealizazio-prozesuan dauden pertsonen harmoniaz barneratzen dituzte hainbat dimentsio edo osagai: gorputzaren dimentsioa, kognitiboa, afektiboa, soziala, estetikoa, moralak eta konatiboa.

Autorrealizaziora bideratuta dagoen hazkuntza-prozesu mugagabe horren emaitza dira:

- Autokontzeptua garatzea, eta, horren barnean, gero eta errealitate-oinarri handiagoz identifikatzea norberaren alderdi positiboak eta negatiboak (dimentsio kognitiboa).
- Autoestimua garatzea, hau da, norbere buruaren gaineko balioespen positiboa eta errealista (dimentsio afektiboa).
- Autonomia edo ahalduntzea garatzea, erabaki pertsonalak hartu eta gauatzeko ahalmen gisa ulertuta, eta norberaren ekintzen eta bizitzaren erantzule izanda (dimentsio konatiboa).

Bere buruaren jabe da norberaren prozesu kognitibo, afektibo eta motorrez jabetzen den pertsona eta bere ekintzen arrakastaz edo porrotaz eta balio moralaz jabetzen dena. Pertsona horrek eskuratuak ditu, horrenbestez, bere pentsamendua eta ekintzak erregulatu ahal izateko oinarriak. Nork bere burua erregulatzeko konpetentzia da, aditu batzuen ustez, arrakasta akademikoa eta gizarte-jokabide egokia aurreikusteko adierazle onena, eta konpetentzia kognitiboak baino egokiagoa da aurreikuspen-lan hori egiteko. Bere pentsamendua eta jokabidea erregulatzen dakien pertsona etengabeko hobekuntzaren dinamikaren barruan sartzen da.

Konpetentzia guztiak lantzeko prozesu guztiekin batera dator eta haiekiko banaezina da autorregulazioa. Ikuspuntu horretatik, elkarrekotasun-harremana ezar daiteke oinarriko konpetentzien garapenaren eta autorregulazioaren artean. Autorregulazioaren osagai batzuek beste batzuek baino lotura zuzenagoa dute oinarriko zehar-konpetentziaren batekin, eta haren beste osagai batzuek, berriz, oinarriko zehar-konpetentzia guztietan duten eragina.

### 1.2.5.2.- Konpetentziaren osagaiak

#### 1. osagaia: hitzeko komunikazioa, hitzik gabekoa eta komunikazio digitala autorregulatzea

**Hitzekeo komunikazioa** autorregulatzeak esan nahi du, alde batetik, kontzientzia hartzea komunikazio-funtzioetan eta bizitzaren komunikazio-egoeretan sortzen diren ahozko nahiz idatzizko diskurtsoak ulertzeko eta adierazteko prozesuen kalitateaz. Eta, horrekin batera, ahozko komunikazioa egindako balioespenaren arabera erregulatzea eta doitzea esan nahi du.

**Hitzik gabeko komunikazioa** autorregulatzeko, hitzik gabeko adierazpideen kontzientzia hartu behar da, eta erregulatu egin behar dira adierazpide horiek; hau da, keinuak eta ahozko

adierazpidearekin batera erabiltzen diren gorputz-jarrerak, idatzizko adierazpidearekin eta adierazpide plastikoarekin batera maiz erabiltzen diren ikono-kodeak eta grafikoak, musika eta dantzaren bidez egiten den komunikazioa eta hitzik gabeko gainerako adierazpideak. Keinuak eta gorputz-jarrerak egoki eta zuzen interpretatzea lagungarria da ahozko komunikazioan ageri diren norberaren eta besteren sentimendu eta emozioen gaineko kontzientzia hartzeko.

**Komunikazio digitala** autorregulatzen, konpetentzia digitala osatzen duten alderdien kontzientzia hartu behar da eta erregulatu egin behar dira alderdi horiek; hala nola informazioaren kudeaketa eta komunikazio eraginkorra, teknologia digital egokiak erabiliz multimedia-edukiak sortzea, eta informazio- eta komunikazio-teknologiak modu seguru, etikoan eta **gehiegikeriarik gabe (abusatu gabe)** erabiltzea.

Ezbairik gabe, mailaz maila hartzen da hitzeko komunikazioaren, hitzik gabekoaren eta komunikazio digitalaren kalitatearen gaineko kontzientzia, eta lorpen hori benetan gauzatuko bada, heldutasun kognitiboa eta adierazpenezko eta prozedurazko ezagutzak behar dira. Autoebaluazioarekiko edo metakognizioarekiko jarrera izango da, beti eta adin guztietan, erregulazioaren eta etengabeko hobekuntzaren eragile.

## 2. osagaia: ikasteko prozesu eta estilo kognitiboa autorregulatzea

Ikasten ikasteko konpetentziaren osagai dira ikaskuntzan esku hartzen duten prozesu mentalen gaineko *ezagutzak*, ikasteko moduari dagozkionak. Konpetentzia horrek, gainera, ikasleak bere ikasteko prozesuari buruz duen ezagutza jasotzen du, hiru dimentsio hauetan landuta: a) dakienari eta ez dakienari buruz duen ezagutza eta ikasteko gauza denari, interesatzen zaionari eta gainerako alderdiei buruzkoa; b) ikasteko zereginari dagokion diziplinaren gaineko ezagutza eta zereginaren beraren eduki zehatzari eta eskakizunei buruzkoa; eta c) zeregina betetzeko estrategien gaineko ezagutza.

Metakognizioa edo norberaren pentsamenduaren ezagutza kontzientea handitzeko bidea da zer prozesu mota gauzatu den zehaztea, prozesu hori nola egin zen aztertzea, egindako urratsak bereiztea, lan egokia egin den ebaluatzea eta hurrengo saioan egin daitezkeen hobekuntzak kontuan hartzea. Ikaskuntzan parte hartzen duten jokabideak erregulatzen bidea da jarduerak egin aurretik planifikatzea, egindako planaren gauzapena monitorizatzea, eta lorpenak, erroreak, transferentziak eta aldaketa-proposamenak ebaluatzea.

Norberaren ikasteko estiloaren kontzientzia eta erregulazioa da metakognizioaren alderdietako bat. Ikasteko hainbat estilo bereizten dira: estilo aktiboa, gogoetatsua, teorikoa eta pragmatikoa. Ikasle bakoitzak bere izaera du, baita, joeraz, ikasteko berezko estiloa ere. Ikerketen emaitzen arabera, zenbat eta gehiago egokitu irakaskuntza norberaren ikaskuntza-estilora, orduan eta hobeto ikasten da. Kontuan hartu beharreko alderdia da hori, baina ez, ezinbestean eta soil-soilik, ikasleen berezko joera sendotzeko; izan ere, ikasleen ohituretatik abiatuta, aberastu egin daitezke haien joerak, estilo guztiak osagarriak diren aldetik. Ikasteko zikloa esperientziatik eta ekintzatik abiatuta hasi ohi da (estilo aktiboa); esperientziari buruz hausnartu ahala, estilo gogoetatsua garatzen da; gogoetan oinarrituta, ondorioak, hipotesiak eta teoriak egin daitezke (estilo teorikoa); ondorioak eta hipotesiak berresteko edo garatzeko, ekintza planifikatu behar da (estilo pragmatikoa). Ikasteko ziklo osoa amaitzeko, estilo guztiak modu osagarri eta orekatuan erabili behar dira. Hezitzailearen eginkizuna izango da ikasteko estilo guztiak erabiltzen irakastea, horretarako, ordea, ikaslearen joerez jabetu behar du, baita horiek onartu ere.

Konpetentzia-osagai honekin lotzen diren honako balio eta jokabide hauek nabarmendu behar dira: baldintza eta egoera aldakorretara bizkor egokitzea; esperientzia eta egoera zailak edo aldaketak jasateko erresistentzia eta pertseberantzia izatea, erraz ez etsitzeko; norik bere burua ebaluatzea eta gainerako pertsonak ebaluatzea irekita egotea, norik bere burua

ezagutzeko eta hazkunde pertsonalerako beharrezkoa den aldetik; eta norberaren mugak eta ahalmenak onartzea eta aitortzea, autokritikarako gaitasuna erabiliz.

### 3. osagaia: portaera soziala eta morala autorregulatzea

“Elkarbizitzarako” konpetentziak, agiri honetan ulertzen den moduan, osagai hauek ditu:

- Pertsonen arteko komunikazioa
- Talde kooperatiboan ikasten eta elkarlanean aritzen ikastea
- Portaera soziala
- Gatazkak kudeatzea

Autorregulazioko prozedurak ezin dira bereizi osagai horietako bakoitzaren prozedurak eta teknikak aplikatzeko prozesuetatik. Autorregulazioko prozedurak eta teknikak oso ezberdin aplikatuko dira, zalantzarik gabe, ikasleen garapen kognitibo eta afektiboko mailaren arabera.

#### Pertsonen arteko komunikazioa: asertibitatea eta enpatia

##### *Kontzientzia hartzen da:*

- Asertibitatearena, nork bere buruan jokabide oldarkorrak, pasiboak eta asertiboak ezagutzeko prozedurak erabiliz.
- Enpatiarena, norberak entzute aktiborako eta enpatiarako duen gaitasunaren diagnostikoa egiteko prozeduren eta tekniken bidez.

##### *Erregulatzan da:*

- Asertibitatea, jokabide oldarkor edo pasiborik ez izateko eta modu asertiboan jokatze tekniken bidez: norberaren pentsamenduak eta sentimenduak modu asertiboan adierazteko; “ez” modu asertiboan esaten ikasteko; kritikak modu asertiboan onartzeko edo baztertze; mesedeak eskatzeko edo ukatzeko; eta laudorioak egiteko edo besteren merezimenduak onartzeko.
- Enpatia, modu aktiboan eta enpatiaz entzuteko tekniken bitartez: solaskideari arretaz entzuteko, interesa erakusteko, gorputz-adierazpena behatzeko, galdera irekiak egiteko, parafrasiak erabiltzeko eta emozioak adierazteko.

#### Talde kooperatiboan ikasten eta elkarlanean aritzen ikastea

***Kontzientzia hartzen da:*** taldeko lana ebaluatuz, hau da, helburuen lorpena ebaluatuz; taldearen barruan zereginen eta eginkizunen banaketa bete den ebaluatuz; eta nork bere erantzukizunak, prestasuna, ahalegina eta gainerako alderdiak bete dituen ebaluatuz.

***Erregulatzan da:*** taldeko lanaren antolaketa eta berau garatzeko teknikak planifikatzen ikasteko hainbat teknika erabiliz.

#### Portaera sozialak

***Kontzientzia hartzen da:*** giza eskubideei eta gizarte-konbentzioei eragiten dieten jokabideekin zerikusia duten kasuak eta egoerak aztertuz eta dramatizatuz.

***Erregulatzan da:*** jokabide egokiari buruzko erabakiak hartzeko planifikazio-tekniken bidez erregulatzan dira, giza eskubideen eta gizarte-konbentzioen balioen esparru teorikoa oinarri hartuta, eta jokabide egokiaren arabera jokatze tekniken bidez, harik eta jarrera bihurtu arte.

**Gatazkak konpontzea**

**Kontzientzia hartzen da:** gatazka aztertzeke eta argitzeke tekniken bidez (gatazkaren mapa), bai eta gatazkak haien ezaugarrien arabera kudeatzeko tekniken bidez (aurre egitea, egokitzea, ihes egitea, negoziazioa, lankidetzeta).

**Erregulatzen da:** negoziazioa kudeatzeko tekniken bidez eta, berariaz, bitartekaritzaren bidez, eta baita hartutako erabakia gauzatzeko tekniken bidez ere, hau da, aplikazioaren, jarraipenaren eta doikuntzaren planifikazioa eginez.

**4. osagaia: motibazioa eta borondatea autorregulatzea erabakiak eta betebeharrak gauzatzeko**

**Motibazioak** ekintza bultzatzen eta zuzentzen du, eta modu jakin batean zergatik jokatzeko dugun azaltzen du. Honako hauek pizten dute motibazioa:

- Desio bat bete nahi izateak.
- Beharizan bat ase nahi izateak.
- Helburu bat bete nahi izateak.

Motibazioa faktore sorta batek eraginda sortzen dela esan daiteke:

- Intrinsicak; hala nola norberaren nahiak eta lehentasuneko balioak.
- Estrinsicak; hala nola testuingurua bideratzeko baldintzak eta kanpo-pizgarriak.

Motibazioaren indarra areagotzen dute adierazitako faktore bakoitzaren intentsitateak eta esku hartzen duten faktoreen multzoak. Hortaz, motibazioa bultzatzeko estrategian, estimulu intrinsicak zein estrinsicak erabili behar dira, egoera bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Nahi den hori lortu arte ekiteko gauza izatea da **gogo-indarra** edukitzea, horretarako motibaziorik izan ala ez. Motibazioak nahia bultzatzen du, eta motibazioa handia baldin bada, gogo edo desio horrek luze iraun dezake. Baina bizitzan bada norberak egin nahi ez duen lanik edo lan nekezik, ezinbestean egin behar direnak. Gogo-indarra behar da lan horiek egiteko, eta indar hori ez da bat-batean sortzen, bulkadak kontrolatuz ikasten baita. Egiteko eta ekiteko kompetentziaren eskakizunetako bat da gogo-indarra.

Osagai honekin lotutako balioen eta jarreraren artean, nabarmentzekoak dira nork bere burua hobetzeko eta onena emateko grina; kanpoko presiorik gabe, ekimenez jokatzeko; betebeharraren zentzua izatea, kanpotik ezarritako helburuak eta aurreikuspenak beteko dituzten zereginak, jarduerak eta proiektuak gauzatzeko behar dena; eta pertseberantzia izatea, bizipen eta egoera zailak eta mingarriak edo bat-bateko aldaketa etsigarriak jasateko behar dena.

**5. osagaia: gorputzaren funtzioak eta norberaren osasuna, ongizatea, gorputz-irudia eta sexu-nortasuna autorregulatzea**

Gorputz-dimentsioaren autorregulazioaren honako alderdi hauek bereiz daitezke:

- Funtzio fisiologikoaren, biologikoaren, motorren eta sentsorialaren kontzientzia eta erregulazioa.
- Norberaren osasunaren zaintzaren eta ongizatearen kontzientzia eta erregulazioa.
- Gorputz-irudiaren kontzientzia eta erregulazioa.
- Sexu-nortasunaren kontzientzia eta erregulazioa.
- Gorputz-adierazpenaren bidez adierazitako sentimenduen eta emozioen hitzik gabeko komunikazioaren kontzientzia eta erregulazioa.

Adierazitako bost alderdi horiek osagarriak dira. Lehen lau alderdiak azaltzen dira atal honetan, eta 3. osagaian (emozioen autorregulazioa) azaltzen da bosgarren alderdia.

#### **Funtzio fisiologikoaren autorregulazioa:**

Giza espeziaren gorputzak gizarte- eta natura-ingurunearekiko harremana ahalbidetzen du, eta elkarreragin-prozesu horretan, pertsona-izaera, pertsonaren kontzientzia eta nortasun pertsonala eraikitzen dira. Gorputzaren eta zentzumenen bitartekaritza mugatua baldin bada, mugatu egingo dira garatzeko aukerak.

Gorputzaren funtzio gehienak automatikoki gauzatzen dira, eta bitzta izugarri errazten du horrek. Baina funtzio horiek erregulatzeko, funtsezkoa da nola egiten diren ezagutzea eta haien baliagarritasunaren kontzientzia hartzea.

Gorputzaren funtzio hauek nabarmen daitezke, diziplinako arlo eta ikasgai guztietan ikaskuntzaren bitartekari diren aldetik:

- Ikasteko garaian, gorputzaren jarrera autorregulatzeko, bai zutik, eta bai, bereziki, eserita.
- Arnasteko eta erlaxatzeko tekniken bidez autorregulatzeko arnasketa.
- Zentzumenek errealitatea behar bezala hautemateko duten garrantziaren kontzientzia izatea eta, zehazki, norberak ikusi edo entzuteko duen profil nagusiaren kontzientzia izatea eta hura erregulatzeko.
- Ahotsaren, tonuaren eta erritmoaren potentzia autorregulatzeko.

#### **Norberaren osasunaren eta ongizatearen zaintza autorregulatzeko**

Funtsezko ondasunen multzo bat da osasuna, eta pertsonak ezinbestekoak du hura, izateko eta egiteko potentzialtasunak garatuko baditu. Osasunak ematen digu gure bizi-asmo eta -helburuak indar guztiekin lantzeko eta gure arrakasta-potentzialtasunak garatzeko aukera.

Osasun-kontzeptu horrek gaintu egiten du osasuna-gaixotasuna prozesu dikotomikoaren ikuspegia, osasuna eta gaixotasuna aurkatzen dituena. Pertsonak, bere ingurunean hartu-emanak izatean, zer-nolako adaptazio-maila duen adierazten dute osasunak eta gaixotasunak. Hori horrela, osasunaren kontzeptuak bere barnean hartzen ditu pertsonaren potentzialtasunen garapen osoa baldintzatzen dituzten ingurune-baldintza fisikoak eta sozialak.

Ikuspegi hori hartuta, osasunaren honako dimentsio hauek, elkarren osagarriak, bereiz daitezke:

- Osasunaren dimentsio fisikoa: organismoaren funtzionamendu fisiologiko guztiz ona da.
- Osasunaren dimentsio psikologikoa edo osasun mentala: gizabanakoaren ongizate-egoera da, bere gaitasunen kontzientzia duenean, bizitzako tentsio normalei aurre egiten dienean, lan emankorra eta onuragarria egiten duenean eta komunitateari ekarpenak egiteko gai denean.
- Osasunaren dimentsio emozionala: sentimenduak, pentsamendua eta portaera arduraz zuzentzea da, eta horretarako bitarteko dira haiei izena jartzea, haiek onartzea, integratzea eta sortzen duten bizi-indarra baliatzea. Dimentsio emozional osasuntsua duten pertsonak modu asertiboan kontrolatzen dituzte sentimenduak eta ongi sentitzen dira beren buruarekin. Harreman pertsonal onak dituzte eta estresari eta eguneroko bizitzako arazoei aurre egiten ikasten dute. Adimen emozionala landu behar da dimentsio honetan.

Gizartean antolatzen diren giza taldeen osasun pertsonala zaintzeko, hainbat alderdi zaindu behar dira, bai ikuspegi indibidualean, bai ikuspegi kolektiboan. Gizakien eboluzioa ulertzen

laguntzen digute alderdi horiek. Gizabanakoek babesa bilatzen dute estalpeetan edo arropak jantzita, hotzetik eta gaixotasunetatik ihesi. Gizartean, gaixotasunei aurre egiteko eskubidea bermatuko baldin bada, pertsona guztiak babesteko behar diren baliabideak jarri behar dira. Babesteko ekintzetan, ezinbestean uztartu behar dira erabaki indibidualak eta sozialak.

Gizabanakoren batek bizi-ohitura osasungarriak nola eskuratu ikasi baldin badu, ezinbestean uztartu behar da jakintza hori ongizate kolektibo solidarioarekin eta osasun publikoaren ikuspegi globalarekin. Jakintza hori, era berean, pertsonen garapen osoari lotzen zaio. Elementu funtsezkoak dira guztiak osasuna erregulatzeko.

Bizi-ohitura osasungarriak eskuratu eta drogen kontsumoa prebenitzeko jokabideak barnera daitezke, baldin eta erregulazio-oinarri bat eskuratzen baldin bada, pertsonaren garapen osoa ongizate kolektiboaren parte dela ikasi ondoren:

- Bizi-ohitura osasungarriak eta pertsonen ongizate fisiko eta emozionala.
- Drogen kontsumoaren (batik bat, alkoholarena, tabakoarena eta kanabisarena) eta substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa.
- Norberaren osasunaren eta ongizatearen zaintza autorregulatzea.

#### **Gorputz-irudiaren autorregulazioa:**

Nork bere gorputzaren gainean duen kontzientzia edo irudipena da gorputz-irudia; irudi hori positiboa izango da, baldin eta bere irudia onartzen badu norbanakoak, eta negatiboa, hura gaitzetsiz gero. Gorputz-irudiari buruzko arauak ezartzen dituzte modak eta edertasun-kanonei buruzko gizarte-estereotipoek, eta arau horietara egokitu ezean, gizarte-presio handia egiten dute, batez ere nerabezaroan eta gaztaroan, norberaren nortasunaren oinarriak finkatzen diren garaian. Autoestimua txikiagotu dezake gorputzaren irudi edo autokontzeptu negatiboa izateak, eta horrek segurtasunik ezaren arriskua dakarkio pertsonari. Segurtasunik ezak ondorio kaltegarriak izaten ditu, bai ekimen pertsonalean, bai ikastean, bai gainerako pertsonetikiko harremanetan.

#### **Sexu-nortasunaren autorregulazioa:**

Sexu-nortasuna zehazten dute emakumea, gizona edo sexuartekoa izatea dakarten ezaugarri biologikoen kontzientziak eta norberak sexualki gehien identifikatzen dituen ezaugarri psikologikoen kontzientziak. Sarri askotan gertatzen da ezaugarri biologikoak eta psikologikoak bat ez etortzea edo, bat etorrira ere, negatiboki balioestea. Pertsonak ez dute beti izaten sexualtasuna sentitzeko eta erabiltzeko joera edo orientazio berbera.

Eskola inklusiboak kalitatezko hezkuntza eta hezkuntza-aukera berberak eman nahi dizkie ikasle guztiei; horrenbestez, eskola inklusiboaren planteamenduan sartzen da aniztasun horren errekonozimendu-faltaz kontzientzia hartzea, genero-arrazoiengatik gizarte-presioez eta bazterketez jabetzea, eta diskriminazio-egoerak erregulatzeko.

Osagai honekin lotutako balio eta jarrera nabarmen dira nork bere burua zaintzea kalte fisikotik babesteko, gorputzaren zentzumen guztien bitartez esperimintatzeko plazera bilatzea, gorputzaren mugak eta ahalmenak ezagutzea eta onartzea, eta norberaren gorputzaren irudiarekin eta sexu-nortasunarekin pozik egotea.

#### **6. osagaia: Emozioen autorregulazioa**

Sentimenduek eta emozioek desio edo nahiak dituzte sorburu eta desioak sortzen dituzte, bizitza mentala berrantolatzen dute eta ekitera bultzatzen. Askotariko sentimenduak eta emozioak daude, eta hainbat modutara sailka daitezke. Esate baterako:

- Sentimendu edo emozio positiboak izan ditzake norberak; hala nola poza, umorea, atsegina, jakin-mina, esker ona, maitasuna, errukia, zoriona eta baretasuna.

- Baita sentimendu edo emozio negatiboak ere; hala nola beldurra, tristezia, frustrazioa, interesik eza, asperdura, etsipena, amorrua, lotsa, bekaitza, gorrotoa eta esker txarra.

Emozioak modu askotara adieraz daitezke. Adibidez, gizakiak, beste animalia-espezie batzuek bezalaxe, gorputzaren eta soinuen bitartez adierazten ditu emozioak. Giza espezieak, gainera, hitza zein musikaren, dantzaren, plastikaren eta literaturaren arte-adierazpenak ditu aberasgarri.

Autorregulazio emozionala izatea da norberaren sentimendu positibo eta negatiboen eta emozioen kontzientzia hartzea eta horiek kudeatzea, lagungarri izan daitezten norberaren oreka emozionalerako, gainerako pertsonen sentimenduak ulertzeko, eta modu eraikitzailean jokatzeko prestutasuna izateko.

Emozioak autorregulatzen dituen pertsonak:

- Zehaztasunez eta haien izenekin identifikatzen ditu sentimenduak eta emozioak.
- Bere emozio eta sentimendu positiboak eta negatiboak hitzeko eta gorputzeko hizkuntzaren bidez adierazten ditu, era koordinatuan.
- Pentsamenduaren eta portaeraren arteko harremanaz ohartzen da. Emozioek jokabidean eragiten dute eta jokabideak, berriz, emozioetan.
- Emozio positiboak indartzeko eta negatiboei aurre egiteko gauza da.

Emozioak autorregulatzen dituen pertsonak ez ditu emozioak erreprimitzen; aitzitik, berarentzat edo gainerako pertsonentzat kaltegarriak izan daitezkeenak kontrolatzen ditu. Horretan datza, hain justu, bulkaden kontrola, frustrazioaren onarpena, atseginarenera gerorapena.

Emozioen kontzientzia hartzea eta haien erregulazioa uztartzen dituen autorregulazioak oreka emozionala izatera garamatza, eta oreka emozionala izan behar du norberak, bizitzako egoera guztietan eroso, seguru eta antsietaterik gabe sentitzeko.

Osagai honekin lotutako balio eta jarrera nabarmen dira autoebaluazioa eta gainerako pertsonak ebaluatzeko prest izatea, beharrezko diren aldetik nork bere burua ezagutzeko, hazkunde pertsonalerako eta besteri emandako zerbitzua hobetzeko; nork bere buruarengan konfiantza eta segurtasuna izatea; nork bere mugak eta ahalmenak onartzea; nork bere buruarekin eta gainerako pertsonekin zintzo jokatzeko; eta esperientzia zailak eta etsigarriak jasateko lasaitasuna eta pertseberantzia izatea.

### **Autorrealizatorantz**

Pertsonen garapenaren dimentsioen autorregulazio-prozesuaren emaitza da autorrealizazioa. Autorrealizazioko prozesua dinamikoa da, eta pertsonen arteko hartu-emanen bitartez eguneratzen eta doitzen da. Autorrealizazioa ez da, ondorioz, alde aurretik zehaztuta dagoen amaierako egoera bat.

Heziketaren ikuspegitik, hezkuntzaren azken xedea da pertsonaren autorrealizazioa lortzea, bere gaitasun potentzialak ahalik eta gehien eta osoen garatuz. Maslow psikologoaren teoriak adierazten du hierarkia bat dagoela giza beharren asebetetzean. Piramidearen oinarrian, lehen mailako beharrian fisiologikoak eta segurtasunekoak daude; hurrengo mailan, maitatua eta onartua izateko beharrian sozialak; hurrengoan, errekonozimendu eta estimu pertsonalaren beharrianak, eta gailurrean, autorrealizatzeko beharrianak. Beharrian horiek guztiak hartu behar dira kontuan hezkuntza-prozesuan, autorrealizatorantz aurrera egiteko.

Honako hauek barne hartzen ditu autorrealizatorantz bideratuta dagoen hazkuntza-prozesu mugagabe horren emaitzak:

- Autokontzeptua garatzea, eta, horren barruan, gero eta errealitate-oinarri handiagoz identifikatzea norberaren alderdi positiboak eta negatiboak (dimentsio kognitiboa).
- Autoestimua garatzea, nork bere buruari buruzko balioespen positibo eta errealista landuta (dimentsio afektiboa).
- Autonomia edo ahalduntzea garatzea, erabaki pertsonalak hartu eta gauzatzeko ahalmen gisa ulertuta, eta norberaren ekintzen eta bizitzaren erantzule izanda (dimentsio konatiboa).



### 1.3. OINARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK

Arazo-egoera adierazgarri eta egiazkoak ebazteko, modu bateratuan edo integratuan erabili behar dira diziplina barneko oinarrizko konpetentzia espezifikoetako arloen eta ikasgaien ezagutzak. Bizitzako arazoak konpontzeko, batera erabili behar izaten dira hizkuntzarekin, matematikarekin, zientziarekin, teknologiarekin, gizartearekin, artearekin eta mugimenduarekin lotutako adierazpen, prozedura eta jarrerazko ezagutzak. Baina erabili ahal izateko, ezagutza eta baliabide horiek izan behar ditu norberak. Arazoak konpontzeko behar diren ezagutzak modu sistematizatuan eskuratzen dira, eta eskurapen hori, funtsean, berariazko konpetentzia bakoitzeko diziplina-arloak eta -ikasgaiak landuz egiten da.

Ikuspegi horretatik, haiei dagozkien arlo eta ikasgaiekin lotu edo erlazionatu behar dira diziplinen barneko konpetentzia espezifiko giltzarriak. Arlo eta ikasgai horietan, modu sistematizatuan ikasi behar dira adierazpen, prozedura eta jarrerazko edukiak, eta, era berean, eduki horiek integrazio-egoeretan erabiltzen ikasi behar da.

Diziplinekin lotutako oinarrizko konpetentzia espezifikoen eta arlo eta ikasgaien arteko lotura ez da beti argia eta adierabakarrekoa izaten, baina garrantzitsua da lotura hori zehaztea, oinarrizko konpetentzia espezifikoen ikaskuntza eta ebaluazioa bideratzeko.

#### Diziplina barneko oinarrizko konpetentzia espezifikoen erlazioa Haur Hezkuntzako eremuekin eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako arloekin

DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	HAUR-HEZKUNTZAKO EREMUAK	LEHEN HEZKUNTZAKO ARLOAK	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASGAIK
<b>Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia</b>	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Euskara eta Literatura Gaztelania eta Literatura Atzerriko Lehen Hizkuntza	Euskara eta Literatura Gaztelania eta Literatura Atzerriko Lehen Hizkuntza Atzerriko Bigarren Hizkuntza Latina 4
<b>Matematikarako konpetentzia</b>	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Matematika	Matematika Matematika (ikaskuntza akademikoak edo aplikatuak aukera)
<b>Zientziarako konpetentzia</b>	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Naturaren Zientziak	Biologia eta Geologia Fisika eta Kimika Kultura Zientifikoa Lan Jarduerari Aplikatutako Zientziak

<b>Teknologiarako kompetentzia</b>	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Naturaren Zientziak	Teknologia Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
<b>Kompetentzia sozial eta zibikoa</b>	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Gizarte Zientziak Balio sozial eta zibikoak/Erljioa	Geografia eta Historia Balio etikoak/Erljioa Ekonomia Ekintzaitza eta Enpresa Jardueretarako Hastapena Kultura Klasikoa Filosofia
<b>Arterako kompetentzia</b>	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Arte Hezkuntza	Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza Musika Arte Eszenikoak eta Dantza
<b>Kompetentzia motorra</b>	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza

Banan-banan azalduko ditugu diziplinen barruko oinarrizko kompetentzia espezifikoak.

### 1.3.1. HIZKUNTZA- ETA LITERATURA- KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

#### 1.3.1.1. Definizioa eta osagaiak

##### Konpetenziaren definizioa

Hitzeko eta idatziko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa literarioa lantzean datza, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko.

##### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentziak:

1. Hainbat esparrutako hitzeko, idatziko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak, ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, helburu pertsonalak, sozialak eta akademikoak erdiesteko.
2. Esparru pertsonal, sozial edo akademikoaren berezko hitzeko, idatziko eta ikus-entzunezko testuak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei.
3. Hizkuntzen erabilera-arauei eta hizkuntzen sistemari buruzko jakintza erabiltzea hitzeko eta idatziko testuak sortu eta ulertzean, komunikazio egoki eta eraginkorrak egiteko.
4. Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatze modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitzea eta sentsibilitate estetikoa garatzea.
5. Gure gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko.

#### 1.3.1.2. Konpetenziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburuetako bat da pertsonak beren dimentsio guztietan osoki eta modu harmonikoan garatzea eta helduaroan sartzeko prestatzea. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako oinarrizko konpetentzia espezifikoaren lantzea, hizkuntza komunikaziorako eta ezagutza transmititzeko funtsezko tresna den aldetik. Hezkuntza-sistemak konpetentzia hau ondo garatzeko laguntza eman behar die XXI. mendeko haur eta gazteei, gaur egungo gizarteko kide izan daitezen eta bizitza duina izan dezaten.

Konpetentzia honen osagaiak haren ezaugarriak zehazten laguntzen dute. Hori horrela, konpetentzia honen osagai nagusi dira gizarte-jarduerako esparru garrantzitsuetan hitz egiteko, elkarrizketan aritzeko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunak eta trebetasun horiek lantzeko estrategiak.

Horrez gainera, hitz egin eta komunikatzeko trebetasunak hobetzeko, ezinbesteko dira hizkuntzen sistema-funtzionamendua eta erabilera-arauek, hizkuntzen arteko harremanak eta hizkuntzek hiztunekin dituzten harremanak behatzeko edukiak.

Era berean, konpetentzia honen barnean sartzen dira literatura-hezkuntza landu eta irakurtzeko ohitura sendotzeko edukiak. Literatura-komunikazioak ezaugarri bereziak dituzenez, berriazko ikasketak behar dira hura ondo ulertu eta balioesteko.

Gaur egungo errealitate eleaniztunen testuinguruan, elebiduntasun desorekatutik eleaniztasunerako bidea egiten ari da euskal gizartea; hori horrela, askotariko egoera soziolinguistikoei buruzko gogoeta egitea lagungarri da, oro har, hizkuntza-aniztasunari buruzko jarrera positiboak lantzeko, eta zehazki, euskararen normalizazio-prozesuari buruzko jarrera positiboak sustatzeko. Horrez gainera, hizkuntzen erabilera egokitasunez kudeatzeko ahalmena garatu behar da, eta egoera eleaniztunetan modu proaktiboan eta ekitatez parte hartzen jakin behar da.

Azkenik, konpetentzia hau behar bezala lantzeko, ezinbestekoa da, gaur egun, teknologia digitalek bideratutako egoera komunikatibo berrietan parte hartzea eta egoera horietan eraginkortasunez komunikatzeko trebetasun espezifikoak garatzea.

Honako arlo eta ikasgai hauek barne hartzen ditu oinarrizko konpetentziak:

#### **Lehen Hezkuntza**

- Euskara eta Literatura
- Gaztelania eta Literatura
- Atzerriko Lehen Hizkuntza

#### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

- Euskara eta Literatura
- Gaztelania eta Literatura
- Atzerriko Lehen Hizkuntza
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza
- Latina

### **1.3.1.3. Arlo/ikasgaien ikuspegia**

Giza garapenaren funtsezko faktorea da hizkuntza, bere funtzio indibidual eta sozialean. Indibidualean, pertsona bakoitzari ahalbidetzen diolako pentsatzea, jakintza egokitzea, jarduteko modua erregulatzea eta adierazpenak egitea. Sozialean, gizarteak zabaldu eta iraunarazten duelako hizkuntza, eta hura delako giza taldeak eratu eta garatzeko ardatz eta euskarri. Hizkuntzari esker sortzen, sendotzen eta zabaltzen da kultura.

Pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboarekin lotura estua duen aldetik, hizkuntzak erregulatzen ditu sentimenduak, eta hura da bizi-ikaskuntzaren eta ikaskuntza akademikoaren bitarteko nagusia; izan ere, esperientzia hitzez adierazten denean, eraldatu eta beste maila batera igarotzen da. Horregatik, hizkuntza menderatzen duenak tresna egokia du bere burua ezagutzeko, beste pertsona batzuekin harremanak izateko, bizikidetzara-arauek finkatzeko, taldean lan egiteko, eta ikuspegi kritiko eta autonomiaz ikasteko.

Hizkuntzaren kontzepzio edo buruera horretan, hizkuntza-ikasgaien ikuspegiaren oinarria da gizarte-esparruetan elkarreragin eraginkorrek izateko behar diren erabilera-prozedurak, jarrerak eta kontzeptuak lantzea. Hain zuzen ere, jakintza hauek eskuratu behar dira: komunikazioaren printzipioak, estrategiak eta arauak; testuen forma konbentzionalak; testuak antolatze modu diskurtsiboak; testuaren zatiak multzo kohesionatuan artikulatzeko baliabideak; esaldi zentzuzkoak eta gramatikalak eraikitze arau lexiko-sintaktikoak; arau ortografikoak eta prosodikoak; eta hizkuntzekiko eta hitzunikiko jarrerak.

Literatura-hezkuntzak, aurreko ikaskuntza guztiez gain, berariazko beste ikaskuntza batzuk behar ditu literatura behar bezala ulertu, balioetsi eta gozatzeko; betiere, literaturaren berezko konbentzioei erreparatuta eta literatura-testuaren eta testuinguruaren arteko erlazioak aintzat hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskolaren lehentasunezko helburua da ikasleek bi hizkuntza ofizialak ongi jakin ditzaten bermatzea. Horrek esan nahi du ikasleek egoki, eraginkortasunez eta gero eta formaltasun- eta konplexutasun-maila handiagoan erabili behar dituztela bi hizkuntzok haien erabilera-esparru guztien komunikazio-egoera ugarietan. Helburu hori betetzeko, euskara erabiltzen eta ikasten lagundu behar du ikastetxeak, eta, era berean, haren normalizazioa bultzatu behar du, gizartean duen presentzia txikiagoa konpentsatzeko.

Gaur egun, mundu gero eta elkarlotuago batean bizi gara eta garrantzi handia dute ezagutzaren gizarteak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta pertsonen mugikortasunak; hori horrela izanda, hizkuntza ofizialak menderatzeaz gain, atzerriko hizkuntzak jakin behar dira, pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta kulturen elkar ulertzea errazteko. Elebitasuna bermatzea da hezkuntza-sistemaren erronketako bat, baina, horrez gain, pertsona eleaniztunak hezi behar ditu, gutxienez atzerriko hizkuntza bat taxuz dakitenak.

Halaber, kontuan izan behar da ikasle alofonoen ehunekoa gero eta handiagoa dela gure ikasgeletan; gainera, pertsona horien hizkuntzek ez dute, orain gutxi arte, presentziarik izan gure eskola-sisteman eta gizartean. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako oinarrizko kompetentzia espezifikoak egokitasunez lantzen lagundu behar die eskolak ikasle horiei, baina, era berean, beren hizkuntza-ondareari eusten eta ondare horri balioa ematen lagundu behar die, altxor kulturala baita haien artean eta gizarte osoarentzat.

Hezkuntza elebidunetik hezkuntza eleaniztunera aldatzen ari da gure erkidegoko irakaskuntza; ondorioz, gutxienez hiru hizkuntza irakasten eta ikasten dira, eta ohikoa da horietako batzuk komunikazio-bitarteko moduan erabiltzea ikasgaiak irakastean. Egoera horri erreparatuta, irakasteko moduak hausnartu eta egokitu behar dituzte hizkuntzen irakasleek, hizkuntza batean ikasitakoa gainerako hizkuntzak ikasteko erabil dezaten ikasleek. Orobat, hizkuntzen tratamendu integratua sustatu behar dute irakasleek.

Agerikoa da hizkuntzen irakaskuntza integratuaren premia. Izan ere, bi hizkuntza edo gehiago dakizkiten ikasleen egitura kognitibo eta emozionaleko elementu dira, bai dakizkiten hizkuntzak, bai hizkuntza horien bidez ikasi dituzten ezagutzak. Horrez gainera, hizkuntzak ikasteko prozesuaren elementu ugari komunak dira hizkuntza guztietan, eta hizkuntza batetik bestera erabil ditzakete bi hizkuntza edo gehiago dakizkiten pertsonak. Azkenik, kontuan izan behar da hiztunen jardun-esparru guztietan erabiltzen direla hizkuntzak, eta hiztunek erabaki behar dutela beren hizkuntza-errepertorioko zer hizkuntza erabiliko duten komunikazio-egoera bakoitzean.

Arrazoi horiengatik ezarri behar da hizkuntzen ikuspegi integratua; eta, ildo horri jarraituta, hizkuntzen ezaugarri bereizgarriak eta hizkuntza guztien alderdi komunak landu eta partekatu behar dira, hizkuntza guztiak behar bezala erabiltzeko.

Eskola-garaitik harago doa hizkuntzen ikaskuntza, bizitza osoan zehar ikasten baitira hizkuntzak; nolana ere, hizkuntza-ikasgaien helburuak mailaz maila ezartzen dira Derrigorrezko Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzako helburuetatik hasi eta Bigarren Hezkuntzako berezko helburuekin jarraituta, ikasleen irteera-profilaren harian.

Horrenbestez, mailen progresio horretan, ikasleek gero eta komunikazio-egoera gehiagotan parte hartuko dute, eta handitu egingo dute, orobat, praktika diskurtsiboaren kopurua. Eskolatzeko-urteetan aurrera egin ahala, hortaz, gero eta egoera konplexuagoak aukeratu behar dira, egoera formalen kopurua handitu behar da, gero eta leku handiagoa eman behar zaio

hizkuntzaren funtzionamenduaren eta erabilera-arauen gaineko gogoetari, eta, azkenik, hizkuntza- eta literatura-ezagutzak sistematizatzeari ekin behar zaio.

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia lantzeko, honako printzipio hauek baliatu behar dira irakaskuntza eta ikaskuntzako jardueren plangintza egitean:

- Planteamendu inklusibo baten ikuspegitik, ikasle guztiek garatu behar dute, osotasunean, eleaniztasunerako konpetentzia, haien jatorrizko hizkuntza edozein dela ere.
- Hizkuntzen elementuei buruzko gogoetaren gainetik, hizkuntzak erabiltzea lehenetsi behar da, hizkuntzaren kodea menderatzeko prozesuaren laguntzaile eta orientatzaile baitira komunikatzeko beharizan pragmatikoak.
- Ikasgelak komunikaziorako esparru pribilegiatu bihurtu behar dira, ikasleek askotariko komunikazio-egoeretan eraginkortasunez parte har dezaten. Horren bidez, hezkuntza-komunitatearen eta gizartearen bizitza sozial eta demokratikoan parte hartzen lagunduko zaie.
- Hizkuntza eta hitzunikiko jarrera positiboak landu behar dira; hala, hizkuntzek gizarte-harremanetan eta gizabanakoen garapen emozionalean duten garrantzia balioetsi behar da, baita hizkuntza-aniztasunak dakarren kultura-aberastasuna ere.

Printzipio horiek betetzeko, ekintza oinarri duen ikuspegi metodologikoa hautatu behar da, eta ikaskuntza aktiboa bultzatu. Hau da, komunikazio-proiektu adierazkorrek planifikatu behar dira hizkuntzen ikasgaietan, eta komunikazio-zeregin zehatz bat lortzera bideratutako jarduerasekuentzien inguruan antolatu behar da ikaskuntza; horrez gain, prozedurazko edukiak lehenetsi behar dira –"egiten jakitea", alegia–, eta ez, soil soilik, adierazpenezko jakintza.

Ikuspegi horretatik, ikaskuntzak ebaluatzeko, ikasleen komunikaziorako konpetentziaren hainbat maila hartu behar dira kontuan, ikasleen aniztasunari erreparatuta, eta, horrez gainera, proposamen egokiak eta askotarikoak egin eta ebaluazio-irizpideak ezarri behar dira, ikasle guzti-guztiek ahalik eta gehien ikas dezaten.

Ikuspegi metodologiko hori ezarri denez, ikasleen aurrerapenen ebaluazioak hezigarria izan behar du funtsean, eta ikaskuntzaren autorregulazioa bultzatzeko balio behar du. Horrez gain, ebaluazioak erakutsi behar du ikasleek zer-nolako gaitasuna duten landutako konpetentziak komunikazio-egoera berrietan erabiltzeko.

### 1.3.1.4. Integrazio-egoerak

Konpetentzia izateko, modu integratuan erabili behar dira norberak eskuratu dituen baliabideak, erronka edo arazo diren egoerak ebazteko. Gainditzeko moduko zailtasun-maila izan behar dute arazo eta egoerek, baina, era berean, ikasleentzat erronka izan behar dute. Askotariko "familia" edo multzotan aurkeztu arren, antzeko konplexutasun-maila dute arazoek, eta, ondorioz, parametro paretsuko baliabideak erabili behar dira haiek konpontzeko.

Ikasleen interesguneak hartu behar dituzte kontuan ikaskuntza eta ebaluazioko egoera horiek, eta aintzat hartu behar dute nola ikusten eta interpretatzen duten mundua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gazteek. Ikasleek ez dute mundua berdin ulertzen eta interpretatzen Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; beraz, interesguneek eta ikaskuntza- eta ebaluazio-egoerek ere desberdinak izan behar dute batean zein bestean.

Argibide gisa, hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia eskuratzeko garrantzitsutzat jotzen diren egoeren adibide batzuk aurkeztuko ditugu.

Arlo pertsonalari lotuta, hainbat egoera eta egoeren familia proposa daitezke; hala nola berdinen arteko elkarrekikotasuna, elkarrizketa-kontakizunak, ikasgelako bizikidetza arautzeari buruzko elkarrizketak, familia barnean ematen diren argudioak, nor bere iritzia defendatzea, sentimenak adieraztea, eta beste ama-hizkuntza bat duten hiztunekiko harremanak eta elkartrukeak.

Arlo sozialari lotuta, komunikabideen erabileratik eratorritako egoerak eta egoeren familiak proposa daitezke - egunkari digital bat edo eskolako irratia sortzea, esaterako - ; edo erakundeei loturikoak ere proposa daitezke; hala nola bizikidetza-arauak edo herritarren parte-hartzea arautzeko agiriak osatzea. Era berean, komunitatearen kultura-bizitzari loturiko egoerak proposa daitezke; bereziki, literaturarekin zerikusia dutenak.

Arlo akademikoan, hizkuntzen eta literaturaren ikaskuntzari loturiko egoerak proposa daitezke; esaterako, literatura-testuak sortzea, alderdi linguistikoen gaineko txostenak osatzea eta testu-iruzkinak egitea. Horrez gainera, hainbat diziplinako testuak menderatzen direla adierazten duten egoerak proposa daitezke, hala nola txosten zientifikoak egitea, gizarte-gaien gaineko ahozko azalpenak ematea eta gai kultural, sozial edota artistikoei buruzko mahai-inguruetan parte hartzea.

Lan-arloari dagokionez, oinarrizko hezkuntza amaitu duen ikaslearengandik urrun izan arren, posible da lan-harremanak arautzen dituzten testuei eta diskurtsoei buruzko egoerak eta egoeren familiak proposatzea; adibidez, lan-kontratu bat ulertzea edo curriculum vitae egitea.

Konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegitik, eskolaren rola ezin da mugatu edukiak irakatsi eta ikasazterea, egoera konplexuak ebazteko ezagutza eskuragarriak erabiltzen eta transferitzen ere irakatsi behar baitu, ikasleak bizitza pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta lanerako prestatzeko.

### **1.3.1.5. Hizkuntza-arloek eta -ikasgaiek ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko**

Curriculumaren oinarrizko konpetentzia guztiak, zehar-konpetentziak eta diziplina barnekoak, lantzen laguntzen dute hizkuntzek; izan ere, bitarteko apartak dira komunikatzeko, mundua irudikatzeke, gizarteratzeko, sentimenduak adierazteke eta sormena sustatzeko. Izaera pribilegiatu hori handitu egiten da, baldin eta, curriculum honek proposatzen duen moduan, hizkuntzak ikuspegi instrumentaletik irakasten baldin badira.

**Arloek eta ikasgaiek ematen duten laguntza oinarrizko zehar-konpetentziak eskuratzeko**

***Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.***

Hizkuntza-ikasgaien helburua da gizarteko jarduera-esparruetan hizkuntzaren bidez hartu-eman konpetenteak izateko gaitasuna lantzea, eta ondorioz, laguntza erabakigarria ematen dute hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako oinarrizko zehar-konpetentziaren osagai guztiak lantzeko.

Izan ere, hizkuntzak ikastearen helburu nagusia da denetarikoa testuak, etapa bakoitzaren komunikazio-egoera berezkoie dagozkienak, ulertu eta sortzeko gaitasuna garatzea, eta testu horiek koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak izatea. Halaber, besteri transferitzeko moduko ikasketak dira bai hizkuntza jakinak erabiltzeko trebetasunak eta estrategiak, bai hizkuntzari buruzko gogoeta-prozesuak, eta, ondorioz, konpetentzia hau garatzen laguntzen dute.

Hizkuntza-ikasgaiek, gainera, konpetentzia digitala lantzen laguntzen dute. Batetik, testuak ulertu eta sortzearekin lotuta dago informazioaren tratamendua, bilaketa, hautapena, biltegitratzea eta berreskuratzea. Hori guztia, gaur egun, euskarri digitalak erabiliz egiten da gehienbat, eta ondorioz, berriazko trebetasunak behar dira lan horiek egiteko. Ere

horretan, gero eta garrantzi handiagoa du testuen irakurketa kritikoa egiteak eta haiek balioetsi eta testuinguruan jartzeak, informazio-euskarriek asko handitu baitute informazio-eskaintza.

Testuak osatzeko eta aurkezteko tresna digitalak erabiltzen baldin badira, beste tresna batzuekin baino eraginkortasun handiagoz hel dakizkieke idazteko prozesuan esku hartzen duten eragiketegi.

Teknologia digitalaren bilakaerari esker, komunikatzeko era berriak agertu dira, eta, haiekin batera, baita testu-genero berriak ere, ikasgelan landu beharrekoak. Era berean, ugaldu egin dira beste hizkuntza eta kultura batzuekin benetan komunikatzeko, haiekin harreman zuzena izateko eta haiengana hurbiltzeko aukerak; hori horrela, gero eta errazagoa da irakurketak eta idazketa-lanak partekatzea eta jakintza lankidetzan eraikitzea.

### ***Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia***

Komunikatzeko ez ezik, hizkuntza tresna ezin hobea da mundua irudikatzeko, eta hura dago pentsamenduaren eta jakintzaren oinarrian. Funtsean, hizkuntzaren bidez jotzen dugu jakintzara zein ezagutza-erakuntzara; eta horregatik, ikasten eta pentsatzen ikasteko oinarrizko zehar-konpetentzia garatzen laguntzen dute hizkuntza-ikasgaiek. Hizkuntzak, jakintza finkatzeaz eta iraunarazteaz gain, ahalbidetzen du jakintzara era sistematikoan eta errepikatuan iristea, hura gabe ezinezko liratekeen loturak egitea, eta, era berean, bide ematen du bestelako munduak ezagutzeko, gogoeta egiteko, eta nork bere kabuz ikasteko. Errealitatearen alderdi guztiak menderatu ahal izateko, diziplina bakoitzak alderdi horiek nola lantzen dituen jakin behar da. Hizkuntza-trebetasunek –hots, hitz egiteak, irakurtzeak, idazteak, entzuteak eta elkarri eragiteak– ezagutzaren eskemak etengabe eraikitzen eta aldatzen laguntzen dute.

### ***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia***

Hizkuntza erabiltzen ikastean, halaber, arazo-egoerak aztertzen eta ebazten, planak egiten, erabakitzeko prozesuei ekiten eta komunikazio-egoeretan estrategia egokiak erabiltzen ikasten da; izan ere, geure jarduna bideratzea eta orientatzea da hizkuntzaren funtzioetako bat. Horregatik, hizkuntzan trebatuz, ekimen pertsonala lantzen da, eta norberaren jarduteko modua erregulatzen, gero eta autonomia handiagoz; era berean, ekimenerako eta espiritu ekintzailerako oinarrizko zehar-konpetentzia finkatzen da trebetasun horien bidez.

### ***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia***

Sozializazio-prozesuen oinarrizko elementua da hizkuntza, eta zeregin giltzarria du, ondorioz, elkarrekin bizitzen ikasteko oinarrizko zehar-konpetentzia lantzeko. Pertsonen arteko harremanen bidez eskuratu eta eskuratzen da konpetentzia hori, eta komunikazio-trukean eta gizarteko jardueretan erabiltzen, hainbat helburu lortzeko. Hizkuntza-trebetasunak landu behar dira esanahiak negoziatzeko, ikuspuntuak hurbiltzeko eta, besteak beste, gatazkak konpontzeko. Giza harremanen oinarri dira jarduera horiek guztiak, eta eskola-eremuan ageri dira.

### ***Norbera izaten ikasteko konpetentzia***

Hizkuntzak bide ezin hobea dira barne-prozesu emozionalak eta arrazionalak erregulatzeko, bai eta norberaren nortasuna eraikitzeko ere. Hizkuntza eraginkortasunez erabiltzen baldin bada askotariko helburuak lortzeko, ikasleak garatu egingo ditu oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta ikaskuntzaren autorregulazioa; eta kontuan izan behar da horiek guztiak autonomian, autorregulazioan eta ekimen pertsonalean esku hartzen dutela. Horregatik guztiagatik, norbera izaten ikasteko oinarrizko zehar-konpetentzia garatzen laguntzen dute hizkuntza-ikasgaiek.



**Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko zehar-kompetentziak eskuratzeko**

Oinarrizko zehar-kompetentzia guztiak garatzen laguntzen dute hizkuntzek, eta, gutxi-asko, oinarrizko kompetentzia espezifikoak lantzen laguntzen dute, hizkuntzak jakitea kompetentzia horiek eskuratzeko tresna eta bitarteko den aldetik.

Agerikoa da hizkuntza-ikasgaiak **arterako oinarrizko kompetentziarekin** eta **oinarrizko kompetentzia sozial eta zibikoarekin** duten harremana.

Literatura-lanak irakurri, interpretatu eta balioetsiz gero, hurbildu egiten gara literatura-ondarera zein gizakiaren funtsezko kezken adierazpen gisa behin eta berriz agertzen diren gaietara, eta jarduera horiek nabarmen laguntzen dute, horrenbestez, arterako kompetentzia garatzen. Hizkuntza-ikasgaien ekarpena are eraginkorragoa izango da literatura-adierazpenak bestelako arte-adierazpen batzuekin (musika, pintura edo zinemarekin) uztartuz gero; betiere, lotura hori ikaskuntzaren ikuspegi globalizatzaile batetik egiten baldin bada.

Hizkuntza jakin bat erabiltzea lagungarri da norberaren nortasuna eraikitzeke, eta erabilera horrek bide ematen du nortasun linguistiko eta kultural kolektiboan parte hartzeko. Hizkuntza-eta literatura-komunikaziorako kompetentzia egoki garatu behar da arduraz parte hartzeko gaur egungo euskal gizartean eta mundu globalizatuan. Ingurune eleaniztunetan aritzea lagungarri da ekitate eta enpatiako jarrera asertiboak garatzeko.

Halaber, hizkuntzaren erabilerek agerian uzten dituzte hizkuntzekiko eta horiek erabiltzen dituzten talde sozialekiko jarrerak; horregatik, hizkuntza-ikasgai horien helburua da aniztasun horrekiko jarrera positiboa izan dezaten lortzea. Gainera, kompetentzia hori lantzeko lagungarri da aztertzea nola zabaltzen eta epaitzen diren hizkuntzaren bidez munduari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak. Egokia da aztertze-lan hori egitea hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak ezabatzen laguntzeko.

## 1.3.2. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

### 1.3.2.1. Definizioa eta osagaiak

#### Konpetenziaren definizioa

Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrezkoen dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen moduak eta tresnak erabilia.

#### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu matematikarako konpetentziak:

1. **Estrategia egokien bidez identifikatzea eta ebaztea eduki matematikoa duten zenbait arazo-egoera, eta, horrela jokatuta, ingurunea hobeto ulertzeko urratsak ematea.**
2. **Jakintza matematikoak erabiltzea eguneroko edota zientziaren esparruko egoerei aurre egiteko, egoera horiek "modelizatuta"; hau da, egoerak termino matematikoetan adieraztea, modelo edo ereduari jarraitzea eta emaitzak testuinguruaren barruan interpretatzea.**
3. **Bizitzaren hainbat esparrutako informazioak, argudioak eta emaitzak interpretatzea eta adieraztea, hizkuntza matematiko egokia erabilia.**
4. **Jakintza matematikoak ezagutzea, erlazionatzea, integratzea eta balioestea, egoera bakoitzaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta.**
5. **Arrazoitzeko modu askotarikoak erabiltzea nork bere ondorioak eta horietara iristeko prozesua justifikatzeko, bai eta gainerako pertsonen aurkeztutako emaitzak modu kritikoa aztertzeko ere.**
6. **Prozedura matematiko egokiak hautatzea eta erabiltzea errealitatea kalkulatzeko, irudikatze eta interpretatzeko, eta, horren harian, eraginkortasunaren mesedetan erabiltzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.**

### 1.3.2.2. Konpetenziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak

Xede praktikoa hau du matematikarako konpetentziak: *"egoerak ebazteko erabiltzea norberak dakiena"*. Matematikan konpetentzia izateko, matematika-ezagutzak ataza edo zeregin askotarikoak betetzeko erabiltzen jakin behar da, eta, horrez gainera, kontzeptu eta prozesu batzuk zergatik erabil daitezkeen ulertu eta arrazoitu behar da. Azken finean, jakintza matematikoa problemak ebazteko eta egoera berrietara egokitze erabiltzen jakin behar da. Hori horrela, matematika-jardueraren barnean batera ageri diren hainbat alderdi landu behar dira matematikarako konpetentzia eskuratzeko. Matematikarako konpetentzia erabiltzen da askotariko testuingurutan ezagutza matematiko berriak eraikitze; mota askotako zenbakiak eta haiekin egiten diren eragiketak ulertzeko; arrazoibideak garatu eta, horren bidez, kontzeptuak eraikitze eta adierazitako ideien egiazkotasuna ebaluatze; problema baten atzean dauden elementu matematikoak identifikatzeko eta matematika-jardueraren emaitzak jakinarazteko. Horrez gain, matematikarako konpetentzia erabiltzen dugu ezagutza eta trebetasun matematikoak erabiltzen ditugunean jakintza horien premia duten egoeretan, bai ondorioak ateratzeko, bai erabakiak ziurtasunez hartzeko. Konpetentzia honen barnean, terminologia, datu eta prozedura matematikoak jakin behar dira, eragiketa zehatz batzuk egin

behar dira eta zenbait metodo baliatzeko trebetasuna izan behar da. Hala ere, ez da nahikoa jakintza eta trebetasun horiek izatea matematikan konpetentea izateko. Matematikan konpetentea izateko, modu sortzailean konbinatu behar dira elementu horiek, kanpo-egoerek ezarritako eskakizunei erantzuteko. Horrenbestez, konpetentzia honen xedea da matematika-jakintza erabiltzea eguneroko bizitzako hainbat egoeratan sortzen diren arazoak ebazteko.

Matematika erakusteko modu guztiek ez dute berdin laguntzen matematikarako konpetentzia eskuratzen; izan ere, matematika askotariko jakintza-alorretan eta eguneroko bizitzako hainbat egoeratan aplikatzeko aukera errealak izango baldin baditu ikasleak, funtsezkoa da ikasleei nabarmentzea zertarako erabil dezaketen ikasitakoa, matematika gure mundua ulertzeko erabil dezaketela adieraztea edota problemak ebazteko estrategiak aukeratzen irakastea.

Matematikarako konpetentzia osatzen duten alderdiak zehazki aztertuz gero, zer matematika mota bultzatu nahi dugun jakin dezakegu. Izan ere, hainbat motatako informazioak interpretatzeko eta informazio sortzeko, ezinbestekoa da, besteak beste, adierazpen argiak eta zehatzak egitea, logikaz arrazoitzea argudioen eta informazioen baliagarritasuna, eta argudio matematikoak ulertzea. Eguneroko bizitzako arazo-egoerak ebazteko, oinarrizko elementu matematikoak erabili behar dira, estrategiak zer egoeratan erabili behar diren identifikatu behar da, eta errealitatea kalkulatzeko, irudikatze eta interpretatzeko teknika egokiak aukeratu behar dira; hau da, bestelako ezagutza batzuekin osatu behar da ezagutza matematikoa.

Matematikarako konpetentziaren alderdi dira honako hauek:

- Askotariko informazio matematikoak interpretatu, aztertu eta argi eta zehatz adierazteko abilezia. Bizitzan zehar ikasteko aukerak indartzen ditu abilezia horrek.
- Hizkuntza edo adierazpen matematikoaren oinarrizko elementu matematikoak ezagutzea (zenbakiak, neurriak, ikurrak, elementu geometrikoak eta bestelakoak) eta askotariko egoeratan erabiltzea.
- Argudiatze- eta arrazoitze-prozesuak erabiltzea arazo-egoerak ebazteko eta askotariko informazioak lortzeko.
- Elementu eta euskarri matematikoak dituzten informazioen eta egoeren aurrean, jarrera positiboa eta gero eta segurtasun eta konfiantza handiagoa izatea, eta jarrera eta segurtasun hori izatea haiek erabili behar diren egoeretan. Errespetuz zaindu eta bilatu behar da ziurtasuna egoera horietan, arrazoiketaren bidez.

Honako arlo eta ikasgai hauek barne hartzen ditu matematikarako konpetentziak:

**Lehen Hezkuntza:**

- Matematika

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:**

- Matematika

### 1.3.2.3. Arlo/ikasgaiaren ikuspegia

Matematikak, bereziki, matematikarako konpetentzia lantzen laguntzen du; hau da, jakintza eta arrazoibide matematikoa garatzeko eta aplikatzeko trebetasuna lantzen laguntzen du, gure bizitzako askotariko egoeratan azaltzen zaizkigun arazoak konpontzeko. Matematikan konpetentea izateko, norberak gai izan behar du askotariko informazio matematikoa kudeatzeko, iritzi justifikatuak emateko, baieztapen baten koherentzia eta zehaztasuna epaitzeko, datuak hautatzeko, aztertzeko eta komunikatzeko; eta, azken batean, ezagutza

matematikoak hainbat egoeretan erabiltzeko gauza izan behar du, bizitzako beharrezanekin lotutako arazoak konpontze aldera.

Mundua ikusteko eta interpretatzeko modu bat da matematika. Kopuruak, espazioa eta formak deskribatzen eta aztertzen ditu matematikaren zientziak, baita aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna ere. Ingurura begiratzen baldin badugu, ikusiko dugu elementu horiek, era batera edo bestera, gure bizitzaren alderdi gehienetan agertzen direla.

Agerikoa da matematikak erabiltzeko premia gero eta handiagoa dagoela gure gizarteko lanbide-esparru guztietan. Herritarrok gero eta egoera gehiagotan jakin eta erabili behar ditugu matematikaren eduki kuantitatiboak, espazialak, probabilitatea eta bestelako edukiak. Bizitzan behar bezala moldatzeko behar ditugun eduki matematikoak ere aldatzen ari dira; eduki batzuk erabiltzeari utzi diogu edota arinkeriaz erabiltzen ditugu IKTen bitartez; beste batzuk, aldiz, indartu egin behar ditugu iristen zaigun informazio-andana aztertzeko eta erabakiak arduraz hartzeko.

Jarduera matematikoak eragindako prozesuen bidez, gaitasun oso orokorrak lantzen dira (argudiatzea, ondorioztatzea, esploratzea, sailkatzea, aztertzea, orokortzea, zenbatespenak egitea, abstrakzioak egitea...); pentsamendu logikoa eta arrazoitzeko gaitasun deduktiboa, inductiboa eta analogikoa garatzen dira, pertzepzio eta bistaratze espaziala hezten dira, jarrera kritikoa estimulatzen da, intuizioa zorrotzen da, sormena sustatzen da, pertseberantzia indartzen da lanean, eta norik bere aukeretan konfiantza izatea bultzatzen da. Funtsezko jarduerak da ikasteko estrategia orokorrak eskuratzeko eta garatzeko. Bizitza osoko ikaskuntza ziurtatzen dute ikasteko estrategiek, eta horiek erabiliko ditu norberak lanbidez aldatu behar duenean edota gauza berriak ikasi behar dituztenean. Bizitza osorako estrategia horien barruan, arazo-egoerak ebazteari buruzkoak nabarmendu behar ditugu bereziki.

Agerikoa da matematikak eginkizun instrumentala duela, beste diziplinekin duen loturarengatik; izan ere, matematikaren beharra dute hainbat diziplinek, aztertzen dituzten fenomenoak azalpen-ereduak sortzeko, interpretatzeko edota analizatzeko. Ezinbesteko tresna da, horrenbestez, askotariko informazioak (zenbakizko informazioa, grafikoa, estatistikakoa, geometrikoa, zoriari buruzko informazioa eta bestelako informazioak) eskuratzeko bilakaera- eta teknifikazio-prozesu etengabeak bizi dituen mundu honetan. Era berean, eginkizun hezigarria du, ikasleen adimena garatzen laguntzen baitu eta, besteak beste, gaitasun hauek indartzen baititu: abstrakzioa, orokortzea, pentsamendu gogoetatsua eta arrazoibide logikoa. Ildo hori jorratuz gero, buru-egiturak eta lan-ohiturak sortzen lagunduko da, eta kontuan izan behar da horiek baliagarriak eta garrantzitsuak direla matematikaz kanpoko esparruan ere. Azkenik, nabarmendu nahi dugu matematika irakasteko ikuspegi hau hertsiki lotuta dagoela matematikaren ikuspegi funtzionalarekin. Ikuspegi horretan, "egiteko modua" da matematika, eta bereziki azpimarratzen da askotariko tresna matematikoen erabilera. Matematikaren alderdi funtzionalaren helburua, finean, eguneroko bizitzaren egoera guztietan eraginkortasunez moldatzeko tresna bat ematea da.

#### 1.3.2.4. Integrazio-egoerak

Konpetentzia izateko, modu integratuan erabili behar dira norberak eskuratu dituen baliabideak, erronka edo arazo diren egoerak ebazteko. Gainditzeko moduko zailtasun-maila izan behar dute arazo eta egoerak, baina, era berean, ikasleentzat erronka izan behar dute. Askotariko "familia" edo multzotan aurkeztu arren, antzeko konplexutasun-maila dute arazoek, eta, ondorioz, parametro paretsuko baliabideak erabili behar dira haiek konpontzeko.

Ikasleen interesguneak hartu behar dituzte kontuan ikaskuntza eta ebaluazioko egoera horiek, eta aintzat hartu behar dute nola ikusten eta interpretatzen duten mundua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gazteek. Ikasleek ez dute mundua berdin ulertzen eta interpretatzen Lehen

Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; beraz, interesguneek eta ikaskuntza- eta ebaluazio-egoerek ere desberdinak izan behar dute batean zein bestean.

Argibide gisa, matematikarako konpetentzia eskuratzeko garrantzitsutzat jotzen diren egoeren adibide batzuk aurkeztuko ditugu:

Maila **pertsonalean**, ikaslearentzat garrantzi handikoak diren hainbat egoera landu daitezke; hala nola familia, osasuna, kontsumoa, hazkuntza eta garapen pertsonala, ingurumena, norberaren ekonomia-egoera, denbora librea, jolasa, bidaiak, sukaldaritza, eta baliabide analogikoen eta digitalen erabilera.

Maila **sozialean**, matematikarako konpetentziak bultzada nabaria ematen dio kultura-garapenari eta gizarte-integrazioari. Komunikabideei loturiko egoerak aztertuko dira; hala, modu kritikoan behatu behar dute haietan jasotako informazioa (estatistikak, inkestak, zenbakizko datuak eta bestelako informazioa), eta argitaratzen diren akatsak hautemateko gai izan behar dute. Halaber, baliabide naturalen eta giza baliabideen banaketa azter daiteke, ekitatea eta justizia lantzeko.

Maila **akademikoan**, ikaslearen eskola-inguruneko zein ikastetxearen jarduerari loturiko egoerak aurkeztuko dira, eta ikasleek ikaskuntzaren esparruko rol edo egiteko bat baino gehiago izango dute egoera horietan. Egoera horiek bide emango diote ikasleari matematikarako konpetentziaren alderdi teorikoetan sakontzeko, egokiak izaten baitira, zenbaitetan, konpetentzia horretan eta diziplinaren garapen historikoan aurrera egiteko.

**Lan-eremuan**, ezagutza matematikoak lanbideetan nola erabiltzen diren aztertuko dute planteatutako egoerek. Oro har, ikasleei aurkeztutako egoerek bide eman behar dute matematikarako konpetentzia lan-arloan aplikatzeko –ekonomian, medikuntzan, energia-sektorean, garraioan, kulturean eta gainerako lan-esparruetan–. Aztertu beharreko alderdiak dira, era berean, baliabideen banaketa, ekoizpen-kostua eta garapen teknologikoa.

Konpetentzien arabeko hezkuntzaren ikuspegitik, eskolaren rola ezin da mugatu edukiak irakatsi eta ikasgaraztera, egoera konplexuak ebazteko ezagutza eskuragarriak erabiltzen eta transferitzen ere irakatsi behar baitu, ikasleak bizitza pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta lanerako prestatzeko.

### 1.3.2.5. Matematikaren arloak eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko

Matematikak, oinarrizko zehar-konpetentzia guztiak garatzen laguntzeaz gain, oinarrizko konpetentzia espezifikoak garatzen laguntzen du, gutxi-asko. Konpetentzia espezifikoak zuzenean daude lotuta curriculumaren arlo jakin batzuekin, baina, ikaskuntzaren planteamendu globalizatzailea oinarri hartuta, haren garapenean arlo guztiek eragiten dutela ulertzen da.

Matematikaren arloan, matematika ikasgaiko edukien lehen xedea da, adierazi dugun moduan, ikasleek matematikarako konpetentziaren alderdi guztiak garatuko dituztela bermatzea eta bultzatzea.

#### **Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko zehar-konpetentziak eskuratzeko**

##### ***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia***

Arazo-egoerak ebaztearekin lotutako edukiak dira matematikak ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentziari egindako ekarpenik adierazgarriena. Arazo-egoerak ebazteko, honako hiru alderdi osagarri hauek baliatu behar dira gutxienez, konpetentzia horren garapenari atxikita: planifikatzea, planifikatutako ekintzak gauzatzea eta emaitzak balioestea.

Planifikazioa egitean, zehatz-mehatz ulertu behar da planteatutako egoera, plan bat osatzeko, estrategiak bilatzeko eta, azken batean, erabakiak hartzeko. Egindako plangintza gauzatzeko, ebazpen-prozesuak optimizatu behar dira. Eta, hirugarrenik, prozesuaren aldizkako ebaluazioa eta emaitzen balioespena egin ondoren, beste arazo edo egoera batzuei aurre egin dakieke, arrakasta izateko aukera handiagoekin. Matematikaren irakaskuntzak prozesuotan zenbat eta eragin handiagoa izan, orduan eta ekarpen handiagoa egingo dio ikasgaiak hain konpetentzia garrantzitsuari, eta horixe bera gertatuko da egoera irekiak eta benetako arazoak planteatzen diren heinean.

Matematikarako konpetentzia garatu eta indartzeko, jarrera hauek landu behar dira: ekimena, nor bere ahalmenean konfiantza izatea, zalantzazko egoerei arrakastaz aurre egiteko baikortasuna, jarduteko ahalmena, ikasi nahi izatea eta nahi den helburua lortzeko pazientzia. Alde horretatik, konpetentzia garatuko baldin badugu, berariaz landu behar dugu pentsamenduaren autorregulazioa haren alderdi guztietan (alderdi emozionalean, kognitiboan eta gainerakoetan). Ikaskuntza ororen oinarri da pentsamenduak, sentimenduak eta jarduketak sortu eta erregulatzeko gaitasuna, eta horregatik da hain garrantzitsua. Arazo-egoerak ebaztea da, berriro ere, ideiak sortu, bestelako aukerak proposatu, egin, gauzatu eta ebaluatzeko jarduerak indartzeko bitartekoa. Benetako testuinguru problematikoetan kokatutako egoerak landu behar dira jarduera horiek guztiak egiteko. Testuinguru horiek adierazgarriak eta egokiak izan behar dute, eta ikaslearen ahalmen potentzialak modu integratuan mobilizatu eta transferitzeko beharrezana sorrarazi behar dute. Matematikatik landutako arazo-egoera horiei esker, ikasleek arazoen inguruko helburuak proposatzen dituzte, eta ikerketa txikiak pentsatzen eta egiten dituzte, beren kabuz.

### ***Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia***

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia eskuratzen laguntzen du matematikak. Ondo pentsatzeko, ezinbestekoa zaigu informazioa ulertzeko, argudioak emateko, informazioa balioesteko eta hura adierazteko prozedurak eta jarrerak izatea, bai eta aurrera egin ahal izateko oinarrizko ezagutzak izatea ere. Matematikak ematen dizkigu, hain justu, pentsatzeko modua hobetzeko ezagutza horiek. Ikasten ikasteko prozesua ez da diziplina bakar batera mugatzen, pentsamenduaren garapenari eta ikasteko prozesuari berari lotzen baita. Prozesu horrek eragina du ikaslearen alderdi pertsonalean eta gizarte-harremanetan, norberak gauza izan behar baitu gabeziak konpentsatzeko eta norberak duen jakintzari etekin onena ateratzeko. Heldutasun pertsonal gero eta handiagoa erdiesten da prozesu horretan. Matematikak bereziki eta nabarmen laguntzen du ikasten ikasteko konpetentzia eskuratzen, arazo-egoerak ebazteko tresna matematiko eta estrategia jakin batzuk ematen dizkigulako, ondoren egoera anitzetan erabil ditzakegunak. Ez dugu ahaztu behar lotura bat dagoela, gaur egun frogatu denez, arazoak konpontzeko prozesu heuristikoen eta adimen-kontzeptuaren beraren artean.

Matematikaren arloak, orobat, bestelako ikaskuntza-teknika batzuetan ere parte hartzen du; hala nola taldeen dinamikan eta ikasteko informazioa antolatzeke teknika jakin batzuetan – kontzeptuzko mapen erabileran, esaterako–.

### ***Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia***

Bistan da komunikazioa pertsonaren funtsezko konpetentzietako bat dela; konpetentzia horrek, izan ere, hamaika trebetasun hartzen ditu barnean; besteak beste, hitz egiteko trebetasuna, abilezia gramatikala, ongi osatutako esaldiak sortzeko trebetasuna eta hiztun-entzuleak edo beste inork sortutako esaldiei buruzko judizioak egiten eta interpretatzen jakitekoa. Eta horiez gain, arlo zehatzetako bestelako kodeak eta hizkuntzak ere sartzen ditugu komunikazioan. Horiek horrela, matematikak nabarmen laguntzen du hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia garatzen. Matematika-arloari lotutako prozesuak lagungarri ditugu ondo antolatzeke, gure pentsamendua

sendotzeko eta ideiak koherentziaz eta argitasunez adierazteko. Arloak, era berean, gainerako pertsonen estrategiak eta pentsamendua aztertzeko eta ebaluatzeko aukera ematen digu. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezinbesteko bitarteko dira gaur egungo komunikazioan. Ikasleek gero eta eskurago dituzte teknologia horiek; ondorioz, horien erabilera eraginkorra egin daiteke, eta hala egitea komeni da. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eraginkorra egiteko, lankidetzaren sareak sortu behar dira, informazioa bilatu, hautatu, bildu eta prozesatzeko trebetasunak erakutsi behar dira, informazio-iturri berriak hautatu behar dira, eta arazo berberei buruzko informazioa aurkeztu eta trukatu behar da, besteak beste.

### ***Norbera izaten ikasteko konpetentzia***

Ezbairik gabe, norbera izaten ikasteko konpetentzia garatzen laguntzen du matematikak, sarri askotan konfiantzaz eta pertseberantziaz jardun behar baitugu; esaterako, arazo-egoerak ebazteko, eta, ebazte-prozesu horretan, helburu eta jarduera eraginkorrenak eta erraztenak diseinatzeko. Gure mugak eta ahalmenak ezagutzen eta onartzen laguntzen digu matematikak, eta, horren bidez, autokritikarako ahalmena garatzen dugu. Alderdi horiek guztiek gure nortasuna garatzen eta itxuratzen dute, eta gero eta zentzu, autonomia eta ardura handiagoz jokatzera garamatzate. Matematikak ezagutza matematikoaren aplikazio praktikorako jarrera positiboak garatu behar ditu, bai nork bere burua aberasteko, bai gizadiaren aurrerapenean izan duen eginkizuna balioesteko.

### ***Elkarrekin bizitzen ikasteko konpetentzia***

Mundua ulertzeko eta munduan ondo moldatzeko tresna oinarrizkoa da matematika, beste diziplina askoren moduan. Elkarrekin bizitzen ikasteko, eta, finean, bizikidetzarako baliabide funtsezkoa izan daiteke. Izan ere, arazo-egoerak taldean ebazten badira eta ebazte-prozesuan izandako aurrerapenen berri ematen baldin bada, indartu egiten da lankidetzaren eta talde-lanak dakartzen arduren onarpena. Taldean lantzen dira errespetua, bizikidetzaren, tolerantzia eta elkartzasuna, eta taldean balioesten eta onartzen dira arazo-egoeren aurreko erantzun edo irtenbideak. Matematikaren bidez eskuratutako ezagutzak baliagarri izango ditugu, ziur asko, askotariko gatazken irtenbidea topatzeko, elkarriketaren eta negoziazioaren bidez.

### **Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko**

#### ***Zientziarako konpetentzia eta teknologiarako konpetentzia***

Agerikoa da pentsamendu matematikoa lotuta dagoela zientziarako zein teknologiarako konpetentziekin eta konpetentzia horiek garatzen laguntzen duela, naturak alderdi zientifikoa eta teknologikoa duen jokabidea hobeto ulertzeko, deskribatzeko eta modelizatzeko tresnak ematen dizkigun aldetik. Bistaratzea (kontzepzio espaziala) da matematikaren bidez landu daitezkeen alderdietako bat, eta alderdi horren bidez, elementuak eta formak kokatzeko eta identifikatzeko ahalmena hobetzen dute ikasleek, bai eta ezaugarriak behatu, ondorioztatu eta ereduak eraikitzeko ere, eta hori guztia oso baliagarria izango zaie, besteak beste, mapak irakurtzeko, ibilbideak planifikatzeko, planoak diseinatzeko eta marrazkiak egiteko. Era berean, neurriarekin lotutako edukiak baliatuta, errealitatearen ezagutza handituko dute, eta ondorioz, gero eta aukera gehiago izango dituzte harekin hartu-emanak izateko, eta ingurunearen alderdi kuantifikagarriari buruzko informazio gero eta zehatzagoak emateko. Horrez gainera, irudikapen grafikoak erabiltzeko trebetasuna baliatuta, hainbat eredu funtzional zehaztu eta erabil daitezke errealitatea hobeto aztertzeko eta ulertzeko; azkenik, eduki matematikoen bitartez, gertaera edo lege zientifikoei erantzuten dieten eredu matematikoak sortzeko ahalmena garatzeko badugu, egoera erreal baten ezaugarri adierazgarriak identifikatu eta hautatu behar ditugu, egoera hori sinbolikoki irudikatu behar dugu, eta jokabideak, erregulartasunak eta inbariantek zehaztu behar ditugu, ondoren ereduaren bilakaerari, zehaztasunari eta mugei buruzko aurrerapenak egiteko.

***Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia***

Kontuan izan behar da matematikak berezko ezaugarriak dituen hizkuntza bat dela, eta, alde horretatik, hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia garatzen laguntzen duela, hizkuntza matematikoak berezko dituen zehaztasuna eta doitasuna eranstean baituzten ohiko adierazpenari; hau da, hizkuntzaren erabilera zehatzari laguntzen dio. Horrez gainera, matematika-arrazoibideak hitzez azaltzeko edukiak lantzen direnean, norberaren azalpenak adieraztea eta besteren azalpenak entzutea bultzatzen dugu, eta garatu egiten ditugu edukien ulermena bera, espiritu kritikoa eta komunikazio-trebetasunak. Azken batean, matematikak hizkuntza-konpetentziari laguntzen dio, etengabe erabiltzen baititu ahozko eta idatzizko komunikazioa ideiak landu eta adierazteko.

***Arterako konpetentzia***

Arterako konpetentzia garatzen laguntzen du matematikak; hala ere, ikuspegi arrazionala lehenesten du matematikak, eta artean, berriz, indar handia du osagai subjektibo eta emozionalak. Ez dugu ahaztu behar irudimena eta espiritu sortzailea behar ditugula maiz, eduki matematikoko egoerak interpretatzeko eta ebazteko. Alderantziz, maiz oinarri arrazionalen gainean egindako lanaren ondorioz sortzen da artea, eta oinarriok eduki matematiko argiko alderdiekin daude lotuta. Hala, arte-prestakuntzaren barruan dago geometria, inguruan dugun mundua ulertzeko eta interpretatzeko bitartekoak ematen baititu, baita haren edertasuna aintzat hartzeko ere. Era berean, erlazio eta forma geometrikoak ezagutzeak zenbait ekoizpen eta adierazpen artistiko aztertzen eta ulertzen laguntzen du. Matematikaren historian, bestalde, ez dira beti aurkitu problemak soluzioak azterketa arrazionalak eginez edo ereduak bila arituta soilik, behin baino gehiagotan erabakigarria izan baita, matematikaren ohiko jardun modu horiek baliatzeaz gain, irizpide estetikoak erabiltzea, hau da, simetria, osotasuna, soiltasuna eta perfekzioa iristeko grina izatea.

***Konpetentzia sozial eta zibikoa***

Matematikak konpetentzia sozial eta zibikoari egindako ekarpena, beste arlo batzuetan gertatzen den moduan, taldeko lanarekin lotzen da. Hori horrela, dimentsio berezia hartzen du talde-lanak matematikan, baldin eta, norberak, problemak ebazteko estrategia pertsonalak soilik erabili beharrean, besteren ikuspegiak onartzen ikasten baldin badu. Matematika-lanak era horretan ulertzen baldin baditugu, hobeto ulertuko dugu bizi garen munduko gizarte-errealitatea, eta ondorioz, herritartasunaren erabilera demokratikoa eta arduratsua egingo dugu; eta, horrez gain, lan horren bidez barneratuko ditugun jokabide indibidualek gero eta gizarte pluralagoan elkarrekin bizitzeko, elkarlanean aritzeko, konprometitzeko eta gatazkei aurre egiteko ahalmena emango digute. Konpetentzia sozial eta zibikoan ez da berariaz agertzen alderdi kulturala, baina kulturaren adierazpen unibertsalak dira beste kultura batzuen jardun matematikoak (zenbakikuntza eta neurketa, esaterako) eta historiako matematikari (gizonezko eta emakumezko) nagusien lanak, eta, ondorioz, konpetentzia hori garatzen laguntzen du adierazpen horiek aztertzeak eta ikasteak.

***Konpetentzia motorra***

Matematikak funts kognitibo nabarmena du, agerikoa da hori. Hala ere, jardun motor trebez jardun behar da matematika-lan ugari egiteko; hala nola neurketak eta errepresentazioak egiteko. Era berean, teknologia berriak –kalkulagailuak, ordenagailuak eta antzeko tresnak– erabiltzeko, psikomotritate egokia izan behar da, eta, horretarako, estrategia kognitiboak erabili behar dira.



### 1.3.3. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA

#### 1.3.3.1. Definizioa eta ezaugarriak

##### Konpetenziaren definizioa

Zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen batez erabiltzea testuinguru esanguratsuetan sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak erabiltzea askotariko testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren argitara ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.

##### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu zientziarako konpetentziak:

1. Zientzia-jakintzak egoki erabilia eta arduraz, autonomiaz eta ikuspegi kritikoz hartzea natura-ingurunearen gaineko erabakiak eta giza jarduerak ingurune horretan eragiten dituzten aldaketei buruzkoak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan jardutea gisa horretan, norberaren eta gizartearen bizitza hobetzeko eta ingurunea zaindu eta hobetzeko.
2. Arazo zientifikoak identifikatzea eta dokumentazioko eta esperimendazioko ikerketa txikiak egitea egoera problematikoak lantzeko, zientzia-jardueraren berezko trebetasunak eta jokabideak egoki baloratu, erabili eta erakutsita, egoera problematiko horiek konpontzeko eta ebidentziak lortzeko, erabaki arduratsuak hartu aurretik.
3. Sistema eta fenomeno naturalak deskribatu, azaldu eta iragartzea, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak aztertzea jakintza zientifikoa modu koherente, egoki eta zuzen batean erabilia testuinguru pertsonal eta sozialetan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko.
4. Zientzien oinarrizko kontzeptuak mundu naturalaren sistemekin eta prozesuekin erlazionatzea, eta horiei zentzua dakarkieten lege, eredu eta teoriaren bidez antolatzea lotura horiek, errealitatearen interpretazio zientifikoak eta izaera zientifikorik ez dutenak bereiztea, eta onartzea zientziak enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egiten dituela, zientziaren izaera eta emaitzak ulertzeko.

#### 1.3.3.2. Konpetenziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak

Zientziaren ezagutza eta zientziaren gaineko ezagutza biltzen ditu jakintza zientifikoak.

Zientzia-diziplina nagusien bidez natura ezagutzea da zientziaren ezagutza izatea. Zientziaren ezagutza izateko, funtsezko kontzeptu eta teoria zientifikoak ulertu behar dira.

Bestetik, zientziaren gaineko ezagutza izateko, zientziaren metodoak (ikerketa zientifikoa) eta helmuga edo xedeak (azalpen zientifikoak) ezagutu behar dira; hau da, zientziaren izaera bereizgarria –gizakien ezagutzarako eta azterketarako metodoa den aldetik– eta zientziaren oinarri diren saiakuntza eta sormeneko jardun-moldeak ulertu behar dira; era berean, ikasleak ulertu behar du pertsonen zientziekiko dituzten jarrerak eta auzi edo gai zientifikoetan inplikatzeko duten prestasunak baldintzatzen dutela zientziaren gaineko ezagutza.

Zientziarako konpetentzia izateko, mundu fisikoarekin elkarrekintzan aritzeko trebetasuna izan behar du ikasleak, mundu fisiko horren alderdi naturalekin eta gizakien sorkari direnekin hartu-emanen aritzeko. Hartu-eman horren bidez, gertaerak ulertu behar ditu ikasleak, gertaera horien ondorioak aurreikusi behar ditu, eta lan egin behar du ingurumena ondu eta zaintzeko

eta bere bizi-baldintzak eta gainerako pertsona eta izaki bizidunena hobetzeko. Finean, bizitzaren eta ezagutzaren esparru askotan –osasunarenean, ekoizpen-jardueretan, kontsumoan, zientzian eta gainerako esparruetan– egokitasunez, autonomiaz eta ekimen pertsonalak bultzatuta moldatzeko eta mundua interpretatzeko abileziak barne hartzen ditu zientziarako konpetentziak. Interpretazio-lan hori egiteko, fenomenoak ezagutza zientifikoaren arloen ikuspegitik aztertzeke kontzeptu eta printzipio oinarritzeko erabili behar dira.

Horrenbestez, zientziarako konpetentzia izateke, behar bezala hauteman behar da bizitzaren eta gizakien jardueren espazio fisikoa –bai eskala handiko espazioa, bai gertuko inguruneko–, eta inguruko espazioarekin elkarrekintzan aritzeko abilezia izan behar da, hau da, espazioan mugitzeke eta objektuekin eta objektu horien kokapenarekin lotutako arazo-egoerak ebazteke abilezia.

Horrekin batera, ingurune fisikorekin hartu-emanak izateke konpetentziaren osagai inplizitua da ikaslea jabetzea gizakiek espazioan duten presentzia, gizakien asentamendu eta jarduerak, gizakiek espazio horretan egiten dituzten aldaketek eta aldaketa horiek sortzen dituzten paisaiez. Ikasleak jakin behar du garrantzitsua dela gizaki guztiek garapenaren onurak jasotzea eta garapen horrek naturaren baliabideak eta dibertsitatea mantentzearen alde egitea, mundu osoko eta belaunaldi arteko solidaritateari eusteko. Era berean, errealitatea behatzean eta informazio- eta publizitate-mezuak aztertzean, espiritu kritikoa duela erakutsi behar du ikasleak, eta kontsumo arduratsuko ohiturak izan behar ditu.

Zientziarako konpetentziak giza gorputzaren, naturaren eta emakumeek eta gizonen naturarekin duten hartu-emanaren gaineko jakintza du oinarri, eta bizitzeko modu askotarikoek dituzten ondorioei buruzko argudio arrazionalak emateke bide ematen du, bai eta bizitza fisiko eta psikiko osasungarria izateke ere, ingurune natural eta sozial osasungarrian. Osasunaren dimentsio indibiduala eta kolektiboa hartzen ditu kontuan konpetentziak, eta gainerako pertsonetikiko eta norberarekiko jarrera zentzudunak eta arduratsuek adierazten ditu.

Galderak eta arazo-egoerak identifikatu eta frogetan oinarrituriko ondorioak ateratzeko bide ematen du zientziarako konpetentziak. Jarduera horien bidez, mundu fisikoa uler daitezke, eta giza jarduerak ingurumenean, pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean eragiten dituen aldaketak ulertu eta haien gaineko erabakiak har daitezke.

Zientziaren oinarritzeko nozioak, kontzeptuak eta teoriak ulertu eta aplikatu behar ditu zientziarako konpetentzia duenak. Konpetentzia horren barruan, gero eta abilezia handiagoa izan behar du ikasleak analisi sistematikoaren eta azterketa zientifikoaren jarrerak eta prozesuak gauzatzeko; arazo edo problema garrantzitsuak identifikatu eta planteatzeko; zuzeneko eta zeharkako iritziak emateke, iritzia zer esparru teoriko edo interpretazio-esparruan oinarritzen den jakinda; galderak egiteke; informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa topatu, eskuratu, aztertu eta irudikatzeke; saiakuntzako konponbideak eta hipotesiak planteatu eta egiaztatzeke; hainbat konplexutasun-mailako aurreikuspenak eta inferentziak egiteke; eta jakiteke zer jakintza teoriko eta enpiriko eskuragarri behar den galdera zientifikoari erantzuteke eta hainbat testuingurutan (akademikoan, pertsonalean eta sozialean) ondorioak ateratzeko eta ondorio horiek interpretatu, ebaluatu eta adierazteke. Era berean, ikerketa-jarduerak zer izaera, indargune eta muga dituen jakin behar du, jakintzaren eraikuntza sozialerako bitartekoa den aldetik.

Finean, zientziarako konpetentzia eskuratzeko, pentsamolde zientifikoa landu eta erabili behar da, bai norberak jasotzen duen informazioa interpretatzeko, bai aurreikuspenak egiteke, bai erabakiak ekimen eta autonomia pertsonalez hartzeke. Horrela jokatzeko, kontuan izan behar da eremu zientifiko eta teknologikoan egiten diren aurrerapenek eragin erabakigarria dutela pertsonen, gizartearen eta planetaren bizitzan. Horrez gainera, ezagutza zientifikoa eta

bestelako ezagutza moduak bereizi eta balioetsi behar dira, eta zientziari eta zientziaren garapen teknologikoari dagozkien balio eta irizpide etikoak erabili behar dira.

Lehen Hezkuntzan, ikasleek mundua behaketaren eta esplorazioaren bidez ulertzeko duten jakin-minaz baliatzen da Naturaren Zientzien arloa. Ikerketa ugarik erakutsi dute neska-mutilek Haur Hezkuntzatik izaten dituztela munduaren hainbat alderdiri buruzko ideiak, baita ideia zientifikoak ere, eta behatze-jardunaren ondorioz sortuak direla ideia horiek. Motibazio-elementu garrantzitsua da behatze librea, eta lehendabiziko urteetan, jakin-mina eta aztertze gogo sortzen ditu. Askatasunez behatzean, neska-mutilek, begiratu ez ezik, manipulazioak, zenbatespenak, konparazioak eta kontrolak ere egiten dituzte, eta propietateak eta aldaketak identifikatzen dituzte; hau da, behatzen dituzten prozesuetako aldagaiak kontrolatzen dituzte.

Funtsezkoa da esperientziaren arlo hori, pixkanaka eta metodologia zientifikoaren estrategia nagusiak ezarritik garatzea; beraz, ildo horri jarraituta, garrantzi handikoa da argitu beharreko galderak egitea, formulatutako hipotesiak frogatzeko esperientziak planifikatzea eta gauzatzea, eta planteatutako arazo-egoerei erantzun posible bat emateko erabiltzea esperientzia horien emaitzak. Hori guztia elkarlanean arituz eta ikasteko ahalmen, erritmo eta estilo askotarikoak kontuan hartuz egin behar da. Hitz batez, ikasleek goi-mailako pentsamendua gara dezaten bultzatzea da kontua, ezagutzak beren bizi-ingurune hurbileko testuinguruetan erabiltzean oinarrituta, datuak gogoratze hutsean baino gehiago. Horrela jokaturik, erabakiak modu arrazoituan hartzea, metakognizioa eta herritar gisa gaintitu beharko dituzten erronka handiez jabetzea bultzatzen da. Garapen zientifiko eta teknologikoen aplikazioek ingurumenean duten eragina da erronka horietako bat, bai sortzen dituzten arazoek ikuspegitik, bai garapen iraunkorrerako ematen dituzten aukeren ikuspegitik.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasgai zientifikoaren irakaskuntzak aurreko etaparen jarraipena izan behar du, eta jarraipen horretan, mailaz mailako hurbilketen bitartez ikasiko dute ikasleek, gero eta sakontasun, objektibotasun eta zientzia-zorroztasun handiagoz.

### **Barnean hartutako ikasgaiak**

Honako arlo eta ikasgai hauek barne hartzen ditu oinarrizko konpetentziak:

#### **Lehen Hezkuntza**

- Naturaren Zientziak

#### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

- Biologia eta Geologia
- Fisika eta Kimika
- Kultura Zientifikoa
- Lan Jarduerari Aplikatutako Zientziak

### **1.3.3.3. Arlo eta ikasgaiaren ikuspegia**

Ikasgai horien edukien ezaugarri nagusia da enpirikoki aztertzen dutela mundu naturala; hori horrela, kontzeptuak eraikitzen dituzte eta haien arteko erlazioak bilatzen, eta horri esker, ereduak sor daitezke mundu naturala hobeto ulertzen laguntzeko. Eredu horien bidez, fenomeno naturalen portaera aurrean daiteke eta haien gainean esku hartu, baldin eta beharrezkoa baldin bada bizi-baldintzak hobetzeko.

Azalpenak eman eta aurreko eredu horiek bilaketaren, zuzeneko behaketaren eta esperimentazioaren bidez eraikitzen dira, bai eta gerora egiaztatzea beharreko hipotesiak

formulatuz ere. Hortaz, zientzia eraikitzeke jarduera horretan, funtsezko egitekoa dute errealitatearekiko kontraste-prozedurek eta ikerketa zuzentzen duten erreferentzia kontzeptualerako esparruek –ikerketak berak kontrastatzen ditu marko edo esparru horiek –. Horrez gainera, aintzat hartzekoak dira, gizakien jarduera eta jardun orotan gertatzen den moduan, eraikuntza-lan hori baldintzatzen duten jarrerak eta balioak.

Zientziak, natura ezagutzen eta haren eraldaketak ulertzen laguntzeaz gain, giza espezieko eta planetako kide garen izaki bizidunon baldintza fisiko-kimikoak ulertzen laguntzen du. Gainera, pentsamendu zientifikoak laguntza handia ematen die ikasleei beren eguneroko bizitzako arazoei aurre egiteko, euskal gizartean moldatzeko –kontuan izan behar da garapen zientifikoek eta teknologikoek nabarmen baldintzatzen dutela euskal gizartea–, eta jarrera arduratsuak lantzeko bizitza eta osasunarekiko, baliabideekiko eta ingurumenarekiko.

Horregatik guztiagatik, pertsona guztien oinarrizko kulturaren barruan izan beharreko jakintza humanistikoaren osagai dira gaur egun ezagutza zientifikoak. Derrigorrezko Hezkuntzak zientzian alfabetatzeko aukera eman behar die pertsona guztiei, zientziaren eta jardun zientifikoaren izaera uler dezaten eta teknologiarekin zein gizartearekin dituen harreman konplexuez ohar daitezten. Hori guztia, lagungarri izan behar zaie, orobat, erabaki pertsonalak hartzeko eta tokiko arazoei zein arazo globalei buruzko erabakiak arduraz hartzeko; betiere, ebidentzia zientifikoak oinarri hartuta.

Hortaz, dogmatismoa eta transmisio hutsa baztertuta, zientziaren emaitzak ikasteaz gain, zientziaren beraren gaineko ezagutzak ikasi behar dituzte ikasleek; hori horrela, zientzia giza produktu kulturala, mugatua eta behin-behinekoa dela ikasi behar dute, eta berriro interpretatu eta gara daitekeela jakin. Horrez gainera, zientzia egin behar dute, eguneroko bizitzan erabiliz ezagutza zientifikoak eta teknologikoak, norberaren ezagutza eta bizi-baldintzak hobetu, arazo-egoera ohikoak ebatzi eta ikerketa txikiak egiteko.

#### 1.3.3.4. Integrazio-egoerak

Konpetentzia izateko, modu integratuan erabili behar dira norberak eskuratu dituen baliabideak, erronka edo arazo diren egoerak ebatzeko. Gainditzeko moduko zailtasun-maila izan behar dute arazo eta egoerek, baina, era berean, ikasleentzat erronka izan behar dute.

Konpetentziaren osagai diren eduki eta gaitasunekin batera, *egiteko* edo *egoera* horiek dira integrazio-lanaren oinarrizko elementuak.

Argibide gisa, egoeren adibide batzuk emango ditugu, zientziarako konpetentzia eskuratzeko egokiak:

**Eremu pertsonalean**, osasunarekin lotutako egoeren familiak aurkeztu behar dira: egunero ariketa fisikoa egitea; elikadura osasungarriaren osagaiak eta maiztasuna; substantziaren batekiko edo substantziarik gabeko mendetasunek eta mendetasuna sorraraz dezaketen jokabideek pertsonen garapenean dituzten ondorioak; sexualitate osasungarria, gozagarria eta berdintasunezkoa bizitzea; osasun mentalaren eta emozionalaren elementuak; faktore genetikoaren analisia eta ulermena; baliabide materialen eta energia-baliabideen kontsumo pertsonala; eta ingurumen-arazoekiko portaera.

**Eremu sozialean**, ingurumen-eraginekin eta baliabideen kudeaketarekin lotutako arazoak landuko dira, baita biodibertsitatea eta haren babesa eta material berriak ere. Horrez gainera, osasun-publikoaren alorreko gaiak aztertuko dira, hala nola mendetasunen prebentzioa eta osasunaren baldintzatzaile sozialak, botiken eta patenteen erabilera egokia, sasi-zientziak eta informazioaren teknologien erabilera neurritsua. Gogoan izan behar dira beti zientzia- eta ikerketa-jardueren gaineko ezagutza dakartzaten egoerak eta zientziaren alorreko berri edo albiste orokorrak.

**Eremu akademikoan**, ikasleen eskola-egoerak aurkeztuko dira, ikastetxeko jarduerak eta bizikidetzaharremanak, bai eta ikasleek ikaskuntzarekin lotutako rolak edo eginkizunak betetzea dakartzaten egoerak (birziklatzea, gaixotasunen eta mendetasunen prebentzioa, hondakinen kudeaketa, auditoria ekologikoak, energia-kontsumoa, laborategiko segurtasuna eta antzekoak) eta haien etorkizunaren gaineko erabakien ingurukoak ere (enpresak bisitatzeko, berrikuntza-alorreko parkeak, foro zientifikoak, zientzia-feriak, zientzia-dibulgazioa, adituekin topaketak egitea, etab.).

**Lan- edo lanbide-eremuan**, gai zientifikoekin lotutako egoerak landuko dira (laneko gaixotasunak, epidemiak, energia-hornidura, ingurumen-baliabideen kudeaketa, ikerketa eta ikaskuntzak, etab.), baita ikasleen lan-etorkizunarekin eta lantokiekin lotutakoak ere. Berrikuntzak eta arazo-egoerentarako ebazpen-proposamenak landuko dira, ezarritako metodoetan oinarrituta.

Kompetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegitik, eskolaren rola ezin da mugatu edukiak irakatsi eta ikasgaraztera, egoera konplexuak ebazteko ezagutza eskuragarriak erabiltzen eta transferitzen ere irakatsi behar baitu, ikasleak bizitza pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta lanerako prestatzeko.

### 1.3.3.5. Zientziako arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarritzko kompetentziak lortzeko

Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarritzko zehar-kompetentziak eskuratzeko ikasgai horiek funtsezkoak dira oinarritzko zehar-kompetentziak eskuratu eta lantzeko eta honela eragiten dute kompetentzia horietan:

#### ***Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia***

Komunikaziorako kompetentzia funtsezkoa da, bai kultura sortzeko, bai ikasleak kultura hori bereganatzeko, irakasteko eta ikasteko prozesuaren bidez. Zientziak mundua ulertzeko eta azaltzeko modu bat erakusten die ikasleei, baina ikasleek, ikuskera horrekin batera, munduaren gaineko bestelako errepresentazio batzuk izaten dituzte, maiz, eta modu inplizituan, jakintza arruntari edo zentzu komunari dagozkionak. Zientziak ikastean, errepresentazioak zehazteko prozesuetan murgiltzen dira ikasleak; izan ere, ikasgelako elkarrizketetan eta beren buruarekin kontrastatzen dituzte errepresentazio horiek, eta pentsamendu koherente eta argiakoak izateko aldaketa kontzeptualak lantzen dituzte.

Komunikazioa lan zientifikoaren oso atal garrantzitsua da. Hala, komunitate zientifikoan aurkikuntzak ez dira guztion ezagutza-ondasunaren parte bilakatzen, harik eta komunikatzen diren arte. Ondorioz, ikasgai horiek zientziari buruz irakurtzen, entzuten, hitz egiten eta idazten lagunduko diete ikasleei, baita diskurtsoa eraikitzeke berariazko modu bat erabiltzen ere. Argudioak ematea edota erlazioak argi eta garbi azaltzea izango da diskurtso horren xedea, eta ikasgai horiek ikasiz baino ez dute barneratuko diskurtso hori.

Zientzia-ikerketak askotariko testuak erabiltzen ditu; hala, testu deskribatzaile hutsak balia ditzake, edo argudiatzeko testuez baliatu daiteke, besteak beste.

Zientziak irakasteko eta ikasteko prozesuan eta zientzia-lan orori ekitean, ezinbestekoa da, aztergaia hautatu ondoren, ahalik eta informazio gehien biltzea, informazio hori ikuspegi kritiko, sistematiko eta gogoetatsuan balioestea –kontuan izan behar baita informazio kopuru handia dugula eskura gaur egun–, eta xedeko informazioa aukeratzea, antolatzea, aztertzea eta interpretatzea. Ikasleek gero eta eskuragarriago dituzte informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eta horrek diziplina anitzeko talde elkarri lotuetan lan egiteko eta lankidetzaharremanak sortzeko aukera ematen du. Lan egiteko modu hori balia dezakete ikasleek, arazo bereberri buruzko informazioa informazio horren adierazpeneko testuinguru

eta hizkuntza askotarikoetan aurkeztu eta trukatzeko. Zientziarako konpetentzia behar bezala garatzeko, ezinbesteko dira, besteak beste, honako funtsezko trebetasun hauek lantzea: iturrien fidagarritasuna balioestea, gakoak zein zientziaren barneko sare-komunikazioen hartu-emanak baliatzen jakitea, iturri fidagarrietara jotzen jakitea eta adituengandik ezagutzak eskuratzea.

Ikaskuntza, aurki, IET deritzon (Ikaskuntzaren eta Ezagutzaren Teknologia) ingurunean garatuko da. Teknologia horien esparruan ikasteko, ikaskuntzak zuzentzera/orientatzera zein sarean ikastera bideratutako metodologiak behar dira, bai eta haurtzarotik landu beharreko trebetasun nagusiak ere. Ikasleek ingurune hori menderatu behar dute eta hura eraldatzen eta aberasten jakin.

Era guztietako tresna digitalak normaltasunez erabiltzeko aukera izan behar dute ikasleek, eta horiei lehenetsia eman behar diete zenbait baliabide tradizionalagoen gainetik, desberdintasunak berdintzea baita derrigorrezko hezkuntzaren zereginetako bat. Horrenbestez, zientzia arloan esperimintatzeko, elkarlanean aritzeko eta ikertzeko egitura birtualak proposatu behar dituzte ikastetxeek. Ingurune digitalek, halaber, sorkuntza, asmakuntza eta irudimena errazten dituzte, eta trebetasun nagusiak garatzeko funtsezko elementuak dira horiek.

Ezin dugu ahaztu batzuetan berriazko programak eta zientzia-konzeptuak eta -prozesuak ilustratzeko simulazio-programak aplikatu behar direla zientzia-ikasgaiak irakasteko, baita bistaratzeko programak ere, ikusizko informazioa aztertzeak funtsezko eginkizuna baitu zientzian.

### ***Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia***

Zientziak oso rol edo egiteko garrantzitsua dute Ikasleen pentsamendu logikoa lantzeko prozesuan eta natura interpretatu eta ulertzeko esparru teorikoaren eraikuntzan. Gaur egun, alfabetizazioak ezinbestean barneratu behar du osagai zientifiko-teknologikoa; izan ere, osagai hori kultura garaikidearen oinarritzko elementu bilakatu da, eta hura baliatu behar da zientziak eta zientziaren aplikazio teknologikoen baldintzaturiko errealitate konplexutasunari aurre egiteko. Oinarritzko jakintza zientifikoak erabat ezinbestekoak dira garrantzi sozial handia duten gai askori buruzko informazioa interpretatzeko eta ebaluatzeko, baita arrazoitutako erabaki pertsonalak hartu ahal izateko ere.

Zientzien jakintza ezinbestekoa izanda, kontuan izan behar da, era berean, pentsamendu zientifikoa, hau da, zientziak arazo-egoerak aztertu eta lantzeko duen metodoa, giza arrazionaltasunaren funtsezko osagaia dela. Zientziaren metodoak ageriko loturak ditu ikaskuntza autorregulatzeko ahalmenarekin, zentzu kritikoaren garapenarekin, sormenarekin, erresilientziarekin eta autokontrolarekin. Ikasgai zientifikoek, hortaz, ikasleengan behaketaren, analisiaren eta arrazoitzearen konpetentziak garatzea lehenetsiko dute, baita adimen-malgutasuna eta zorrotasun metodikoa ere. Horrela jokaturik, ikasleek gero eta autonomia handiagoa izango dute pentsatu eta pentsamendua eratzeko.

### ***Elkarbizitzarako konpetentzia***

Ikaskuntza errazten da jarduerak elkarlanean eginez, ikasleek aukera baitute, elkarlanaren bidez, beren iritziak gainerako ikasleekin konparatzeko eta aberasteko, norberaren nahiz besteren ekarpenak ebaluatzen eta horiekin kritiko izaten ikasteko –eztabaida bera onuragarria dela jakin behar dute, komunikazioa bultzatu eta konponbideak aurkitzen laguntzen duen aldetik–, eta elkarrekin bizitzen ikasteko, kultura, sexu edo bestelako arrazoiengatik inor bereizi eta baztertu gabe. Zientzien edukiek eta metodoek hainbat ebidentzia ematen dituzte, eta lankidetzara, zorrotasuna, malgutasuna, koherentzia eta zentzu kritikoa bultzatzen dute. Horiek guztiek ikaslea prestatzen dute etengabe aldatzen ari den gizartearen erronkei aurre egiteko, erabaki arduratsuak eta oinarrituak hartu beharrean

izango baitira. Hori horrela, garrantzi pertsonal eta sozialeko gai zientifikoak landu ahala, kompetentzia zibikoa garatzen lagunduko dute zientzia-ikasgaiek, eta ikasleek aukera izango dute, ondorioz, gure gizarteak gai horien inguruan eztabaidatzen dituen tokiko eta munduko arazoan aurrean hartu beharreko erabaki arduratsuak hartzeko, zuhertasunaren printzipioa kontuan harturik.

### ***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia***

Zientziek lantzen dituzten arazo-egoerak egokiak dira ikasleentzat, haien bidez helburuak proposa ditzaketelako, zientziaren ikuspegitik bidera daitezkeen proiektuak planifikatu eta gauza ditzaketelako, eta proposatutako zereginak eta planak betetzeko ekintzak egin ditzaketelako. Lan horiek guztiak egiteko, erabaki oinarrituak hartu behar dituzte, irizpide propioak baliatuta. Alde horretatik, hipotesia formulatu eta ondorioak atera bitarteko lanak dira: baliabideak aukeratzea, diseinu eta prozesu esperimentalak zein gauzatu beharreko ekintzak planifikatzea, arazoak konpontzea, baliabideak kudeatzea, emaitzak etengabe berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea.

### ***Norbera izaten ikasteko kompetentzia***

Arazo-egoerak lantzean, ikasleek errealitateari buruzko gogoeta kritikoa egiten dute, beren pentsamendua autorregulatzen dute, eta ikasteko estiloak optimizatzen dituzte. Egoera horien bidez, elkarrekin loturiko jarrerak barneratzen dituzte; hala nola zorroztasuna, pertseberantzia, jarrera autokritikoa, erabakiak hartzeko jarrera eta berrikuntzen aldeko jarrera. Norberaren autonomia garatzen laguntzen dute horiek guztiak. Irakaskuntza zientifikoek, era berean, ekarpen hauek egiten dizkiote ikasleen garapen oso edo integralari: nor bere burua eta gorputzaren nolakotasuna estimatzen laguntzen dute, gorputzaren ezaugarriak, aukerak eta mugak ezagutzeko aukera ematen duten aldetik; zaintza- eta osasun-ohiturak bultzatzen dituzte, norberaren ongizatea laguntzen dutenak; eta bestelako baliabide eta ohitura batzuk eskuratzen laguntzen dute, baliagarriak direnak substantzietatik mendetasunak, substantziarik gabeko mendetasunak eta mendetasuna sorraraz dezaketen jokabideak prebenitzeko. Alde horretatik, ez da ahaztu behar ikasleen autoestimua handitzen lagunduko duela zientzia funtzional bat aurkezteak, eta gozatzeko eta lorpen akademikoak erdiesteko aukerak emango dizkiela erakustek.

Oinarrizko zehar-kompetentzia guztiak eta zientziarako kompetentzia bera lantzen laguntzen dute zientzia-ikasgaiek, eta, gutxi-asko, gainerako oinarrizko kompetentzia espezifiko guztiak garatzen laguntzen dute. Kompetentzia espezifikoak zuzenean daude lotuta curriculumaren arlo jakin batzuekin, baina, ikaskuntzaren planteamendu globalizatzailea oinarri hartuta, haren garapenean arlo guztiak eragiten dutela ulertzen da. Hauetan eragiten dute bereziki zientzia-ikasgaiek:

### **Ikasgaiek ematen duten laguntza diziplina barneko oinarrizko kompetentziak eskuratzeko**

#### ***Teknologiarako kompetentzia***

Ikasgai zientifikoek teknologiarako kompetentzia eskuratzen laguntzen dute, objektuak, prozesuak, sistemak eta ingurune teknologikoak ezagutzen eta ulertzen laguntzen dutelako eta objektuak zehaztasunez eta segurtasunez erabiltzeko trebetasun teknikoak eta abileziak lantzen dituztelako. Teknologia funtsezko elementua da ingurunean, eta, alde horretatik, ingurune horrekin hartu-emanak izateko, arazoak konpontzeko prozesuak ezagutu eta erabili behar dira, beharizanak identifikatzeko eta asetzeko. Bide horretan, prozesua bera eta haren emaitzak ebaluatu behar dira. Era berean, ingurune osasungarria lortzen eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute zientzia-ikasgaiek; izan ere, jarduera teknologikoak ingurumenean duen eragina ezagutzen eta kritikoki aztertzen dute eta kontsumo-jarrera arduratsuak sustatzen dituzte.

**Matematikarako konpetentzia**

Ikasgai zientifikoek zuzenean laguntzen dute matematikarako konpetentzia eskuratzen. Inguruan dugun errealitatea hobeto ulertzeko tresna lagungarria da hizkuntza matematikoa, baldin eta hizkuntza hori erabiltzen baldin bada fenomeno naturalak azaltzeko, hipotesiak egiteko, emaitzak deskribatu, azaldu eta auresateko, informazioa erregistratzeko, datuak modu adierazgarrian antolatzeko, datuak eta ideiak interpretatzeko, eta naturaren legeak formalizatzen. Algoritmo eta kalkulu matematikoak erabiltzea ezinbestekoa da zientziarako konpetentzia garatzeko, baita funtzio eta eredu matematikoak erabiltzea ere. Ikerketa zientifikoak, sarri askotan, arazo-egoera irekietan du abiapuntua, eta egoera horietan, esparru erreferentziala edo teorikoa ezarri ondoren, matematikarako konpetentziari dagozkion konponbide-estrategiak erabili behar dira.

**Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia**

Hizkuntza funtsezkoa da zientzian, ideia zientifikoak eraikitzen ezinbesteko tresna den aldetik. Ezaugarri bereziko hizkuntza-erabilera guztiekin gertatzen den moduan, hainbat aldaera izaten ditu arlo zientifikoko sintaxiak, berezko ezaugarri morfologikoak eta sintaktikoak izaten baititu; hala ere, hizkuntza zientifikoak, oro har, hizkuntza arruntaren arau gramatikal berberak erabiltzen ditu. Dena den, hizkuntzaren hiztegi orokorraren aldean, bestelako izaera du hiztegi zientifikoak. Komunikazio zientifikoa hiztegi zientifiko unibertsalaren bitartez baino ez da gauzatzen. Zientziaren berariazko terminologia ikasiz gero, egokitasunez komunika daitezke giza esperientziaren alderdi nagusiak eta askitasunez uler daitezke gainerako pertsonen esperientzia horri buruz adierazten dituztenak.

**Arterako konpetentzia**

Zientziak, oro har, ikuspegi arrazional, objektibo eta emozionala lantzeko joera du eta arteak, berriz, ikuspegi subjektiboa eta emozionala lantzekoa; hala ere, irudimena, inspirazioa eta sormena behar dira zientzia egiteko. Eta artea, maiz, lan sistematikoaren ondorioz sortzen da, teknika jakinak oinarri arrazionalen gainean landu ondoren. Lan zientifikoa ez da arrazionaltasun modu bat eta bakarraren adierazpena; izan ere, irudimenak, sormenak eta ausazko alderdiek zeregin handia duten lan horretan. Zenbaitetan, gainera, alderdi erabakigarriak izaten dira. Zientziaren historian, teoria zientifikoak ez dira beti eratu datu esperimentalen eta haien azterketaren oinarri hutsarekin, behin baino gehiagotan erabakigarria izan baita, zientziaren ohiko jarduteko modu horiek baliatzeaz gain, irizpide estetikoak erabiltzea, hau da, simetria, osotasuna, soiltasuna eta perfekzioa iristeko grina izatea; hala ere, jakina da esperimenteren bidez balioztatu behar direla teoria zientifikoak. Bestalde, historian, zientzia eta aurrerapen zientifikoak baliatu izan dira arte-teknikak eskuratzeko (objektuen egituren konposizioa, optika, argia, soinua...).

**Konpetentzia motorra**

Giza gorputzaren funtzionamendua eta ingurunearekin dituen interakzioak azaltzen ditu jakintza zientifikoak, eta hori da, hain justu, konpetentzia motorrari egiten dion ekarpena. Jakintza hori izatea lagungarria da mendetasunak eta mendetasuna sorraraz ditzaketen jokabideak prebenitzeko eta gorputza zaintzeko ohiturak hartzeko, bizitza osasuntsua izate aldera. Lagungarria da, era berean, ingurunearekin eta pertsonekin harreman seguru eta osasungarriak izateko.

Gorputza zaindu beharra duela erakutsiko dio zientziak ikasleari, hori baita bizimodu indibidual eta kolektibo seguru eta osasungarria izateko bidea.



### 1.3.4. TEKNOLOGIARAKO KONPETENTZIA

#### 1.3.4.1. Teknologistarako konpetentziaren definizioa eta osagaiak

##### Konpetentziaren definizioa

Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz erabiltzea eta garatzea, jakintza teknikoak eta gainerako adarretako jakintzak era metodiko eta eraginkorrean aplikatuta, interesa duten egoerak ulertzeko eta konpontzeko edota produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko, eta lortutako emaitzen berri ematea, hobekuntza-prozesuekin eta erabakiak modu arduratsuan hartzeko prozesuekin jarraitzeko.

##### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu teknologistarako konpetentziak:

1. Arazo teknologikoak zehaztasunez hautematea eta mugatzea, eta horiek konpontzeko irtenbideak diseinatzea, jakintza teknologikoak eta gainerako jakintza-adarretakoak erabilia edota objektuak zein sistemak aztertzeko metodoaren bidez eskuratutako jakintzak baliatuta, irtenbide horien plangintza eta gauzapena eraginkorra, sortzailea eta lankidetzan gauzatutakoa izan dadin.
2. Ingurune teknologikoko baliabideak testuinguru anitzetan erabiltzea, informazioa egoki aukeratu eta interpretatuta, ingurune horren funtzionamendua ulertzeko eta egungo gizarte teknifikatuak dituen ohiko arazoak konpontzeko.
3. Irtenbide teknologikoak inplementatzea, eta, horretarako, agirien bidezko plangintza bat baliatzea, lan metodikoa egitea, segurtasuneko eta ergonomiako arauen bidez hurbiltzea egindako lana eta aurrez ezarritako baldintzak, eta emaitzen eta prozesuaren ebaluazioa egitea, hobekuntza-zikloak betetzen jarraitzeko.

#### 1.3.4.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak

Teknologistarako konpetentziak lotura du gizakiak bere desioak eta beharrezan asetzeko sortzen eta egiten duen ororekin, bai eta, gizakien bizitzan gero eta garrantzi handiago duen aldetik, ingurune artifizial, fisiko eta birtualean zerbitzu berriak eskaintzeko egiten edo sortzen duen guztiarekin ere. Gaur egun, teknologia-konpetentziak maila izugarria iritsi du, eta eragin handia izan dezake ingurumenean eta gizartean. Horregatik, prozesu teknologikoekin lotutako erabakiak printzipio etikoak eta zentzu kritikoa aplikatuz hartzeko trebatu behar dira herritarrak, eta prozesu horiekin lotutako arazoak konpontzeko gaitu behar dira.

Teknologistarako konpetentziaren bi maila orokor zehaztu daitezke. Lan arlo gehienetan eta eguneroko bizitzan, ezinbestekoa da, gaur egun, teknologistarako gutxieneko konpetentzia bat izatea, gailu edo sistema teknikoak behar bezala erabiltzeko adinakoa. Teknologistarako konpetentziaren berezitasunetako bat da asmakuntza, balioztatzea eta ezarpena bateratzen dituela; hau da, sentimendua, pentsamendua eta ekintza. Maila orokor horretan, teknologistarako konpetentziarik ez duten pertsonak moldatu egiten dira, baina ez dute ingurunea eraldatzeko, aurrera egiteko bultzadarik sentitzen. Agian, asko jota, arazoak eta zergatiak ezagutuz beren jakin-mina aseko dute, baina teknologistarako konpetentzia izateko, urrats bat besterik ez da horiek jakitea.

Era berean, egiten jakitearekin dago lotuta teknologistarako konpetentzia. Teknologistarako konpetentziak erro sendoak izan ditu Euskal Herriaren historian. Ingurune testuinguru askotarikoei atxikita eta natura-baliabideekin lotuta izan da beti –batez ere, burdinarekin eta harengandik eratorritako siderurgia-industriarekin–, eta, haren bidez, sistema eta objektu

ugari egin dira –itsasontziak, armak, ekipamendu-ondasunak eta beste asko– . Egiten jakitea herri batek baztertu ezin dezakeen aktibo bat da, maila handiko jakintza da, ez da usteetara mugatzen, ezta fenomeno jakin batzuk azaltzera ere; aitzitik, ezagutza multzo bat eta beste hainbat faktore bateratu behar dira, produktuak egingarriak izan daitezen.

Emaitzen eta prozesu teknikoaren interpretazioarekin eta adierazpenarekin lotuta dago teknologiarako kompetentzia. Horiek normalizatuz gero, posible da ideiak elkartrukatzea, askotariko garapenetan elkarlanean aritzea, irtenbideak leialtasunez transmititzea eta gizartearekin batera aurrera egitea. Teknologiarekin batera, etengabe ari dira aurrera egiten irtenbide edo soluzioak adierazteko moduak; gaur egun, 3D inprimaketa erabil daiteke objektuen prototipoak eta haien behin betiko gauzapenak eraikitzen laguntzeko.

Zenbat eta handiagoa izan teknologiaren konplexutasuna, orduan eta txikiagoak dira teknologiak zientziarekiko dituen aldeak; izan ere, elkarren beharra dute zientziak eta teknologiak. Zientziaren jakintza baliatzen du teknologiak irtenbideak sortzeko, eta teknologiak instrumentazioa eta bere metodoaren emaitzak eskaintzen dizkio zientziari, bere garapenean sakontzeko.

Kontrola da gaur egungo sistema teknologikoen ezaugarri implizitu bat, kontrolaren aroan gaude, eta kontrola gauzatzeko, prozesadore bat integratzen da gainerako elementu teknologikoekin batera. Sistemak aurretik bilatutako jokabideak programa ditzake prozesadore horrek. Kontrolak informazioa eskuratzea, prozesatzea eta erantzutea esan nahi du; hau da, informazioa kudeatzea. Gaur egun, teknologiarako kompetentziaren osagai ezinbesteko dira kontrol-sistemak, prozesadoreekin "hitz egin" behar da; hau da, bilatzen ditugun emaitzak lortzeko programatu behar da sistema.

Horrekin guztiarekin batera, planeta osora zabalduta da Internet sarea, hiperkonektatuta bizi gara. Laster, gauzen Internet deritzona, IoT delakoa, ohiko jardun-esparrua izango da herritar gehienentzat, eta horrenbestez, teknologiarako kompetentziaren alderdi oso zabalduta izango da eguneroko bizitzako objektu ohikoen kontrol telematikoaren egitea.

Kultura teknologiko ona eskuratuz gero, teknologiarekiko interesa eta jakin-mina pizten dira, baina, batez ere, baldintza erabakigarria da kultura hori eskuratzea, esparru teknologikoa lantzeko bokazioak sor daitezen. Aurrera egingo badu, prestakuntza teknologikoa sakontzen duten gazteen masa kritikoa handitu behar du gizarteak.

Esfortzuari eta kontzentrazioari erreparatu gabe egin behar dute gazteek bide hori. Aintzat hartu beharrekoa da zer testuingurutan baliatzen den teknologiarako kompetentzia. Garapen teknologikoen bideragarritasunaren baldintza dira kompetentzia honekin lotutako aldagaiak. Aldagai horietako batzuk dira, esaterako, irtenbidearen egokitasuna eta merkatu-interesa. Herritar arruntentzat erabiltzeko zaila den App bat garatzen duenak jakin, badaki, nekez erabiliko dela. Teknologiarako kompetentziaren osagai dira, era berean, gizartearen unean uneko egoeraren berri izatea, zer beharizan dauden jakitea, irtenbideen hartzailak zer maila teknologiko duten ezagutzea, eskainitakoaren aurretik zer irtenbide zeuden jakitea, produktuaren kostu ekonomikoa ezagutzea, eta, besteak beste, kostuak neurritsuak diren ala ez jakitea.

### **Barnean hartutako ikasgaiak**

Honako ikasgai hauek barne hartzen ditu teknologiarako oinarrizko kompetentziak:

- Teknologia 1 - 3
- Teknologia 4
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia 4

### 1.3.4.3. Ikasgaien ikuspegia

Mundu artifizialarekiko hartu-emanen esku hartzen duten hainbat eduki biltzen dituzte ikasgai horiek, eta, beharrezkoak dira, horrenbestez, teknologiarako konpetentzia eskuratzeko. Izaera teknologikoa duten arazo konplexuak konpontzeko baliabide funtsezkoak emango dizkiote ikasleari eduki horiek lantzen dituzten ikaskuntzek; hori horrela, ikaskuntza horien bidez, arazo praktikoak konpontzeko zer ardatz metodologiko baliatu behar dituen iragarri dezake ikasleak.

Izan ere, teknologiaren arloko ikasgaien eduki eta ardatz metodologikoa da proiektuen metodoa, bizitza errealean erabiltzen dena irtenbide teknologikoak lantzeko. Banakako edo taldeko zereginak beteko dira haren faseetan. Taldeko lanaren bereizgarria da produktua eraikitzeko, gauzatzeko eta fintzeko fasea. Hala ere, diseinuaren erronka indibidualari eutsi behar zaionez, ikasle bakoitzak "bere" irtenbide edo soluzioa sortu behar du, eta justifikatu eta dokumentatu egin behar du soluzio hori. Prozesu osoaren banako ebaluazioa egingo zaie amaieran.

Proiektuak egitean, ikasgai horietako hainbat eduki multzotako edukiak integratzeko premia izango dute ikasleek; beraz, proiektuek ez dituzte landuko unitate didaktikoetan era monografikoan azaldutako edukiak. Esate baterako, fase batzuetan, esplorazioa eta komunikazio teknikoa erabiltzeko premia izan daiteke, eta beste batzuetan, berriz, baliabide zientifikoak eta teknikoak eduki multzoko edota fabrikatzeko teknikak eduki multzoko ikaskuntzak erabiltzeko premia izan daiteke. Segurtasunaren eduki multzoa Interneten edo sistema eragileen eduki multzoarekin batera baliatu behar da, informazioaren eta komunikazioaren teknologien esparruko proiekturen bat gauzatzean.

Gure zibilizazioak aspaldi sartu zituen psikomotrizitate fina eta tresnen zein eskuen erabilera pentsatzearen prozesuan. Era berean, ikaskuntzarako aberasgarri diren arazo-egoerak ebazteko prozesuan, adimen espaziala baliatzen da objektuei eta elementuei neurriak ezartzeko edo sistemen erantzuna aurreikusteko. Ikasgai horien osagai dira elementu horiek guztiak ere.

Ikasleak nabarmen aldatzen dira DBHn zehar. Esperientzia eta sentsazio propiozeptiboak oinarri hartuta, ikasleak indartu egiten du pentsamendu zehatza, lehen mailatan berezkoa dena. Adin horretan, ohikoa da ikusten duena errepikatzea, imitatzea eta, batez ere, modu oldarkorrean jokatzeko, aurre egin behar dion arazoa berehala konpondu nahian. Pentsamendu abstraktua eskuratzeko prozesura egokitzen da teknologiarako konpetentziaren eskurapena. Pentsamendu zehatza baino formalagoa da abstraktua, eta aurreikusi egiten du jardun baino lehen, eta ez ditu, horrenbestez, aldatu eta aztertzeko elementuak baliatzen. Une kritiko bat iristen da ikasleak pizgarri zaizkion arazoei heldu eta berehalako irtenbidea ematen saiatzen denean. Kontu handiz bideratu behar da energia osasuntsu hori, bere burua mugatuta senti ez dezan, irtenbideak aurkitzeko ezaxola sortzea izan baitaiteke egoera horren ondorioetako bat. Ikasteko prozesuaren kontzientzia hartzen du ikasleak denboraren poderioz, eta prozesu hori erregulatzen saiatzen da; hala, aurkikuntzak egingo ditu bere kasa, eta sortutako sentimenduek bere buruaren ezagutza egituratzen lagunduko dute, haien errealizazioaren bidez.

Irakasleak berak erabakiko du noiz eta nola egingo duen ekarpenik egokiena arazo teknologikoa konpontzeko fase bakoitzean. Batzuetan, eredu izango da, eta bere jokabidea imitatzen utziko die ikasleei, berariazko egoeraren baten irtenbidea bilatzeko. Esaterako, lantegiko tresna bat erabiltzen utziko die, edo kode moduko bat egiteko aginduko die, azaldutako egoerari erantzuteko. Beste batzuetan, berriz, egoera konplexuak ebazteko hainbat irtenbide eskaini ditzake irakasleak, prozeduren gaineko azalpenak eman ditzake edo ildo horretako ekarpenak jorratu. Kalitatezko proposamenak egitea da irakasleen egiteko nabarmenetako bat. Ikasleen interesa piztu behar dute proposamen horiek, proposatutako

erronka haien gain hartu eta prozesuaren eragile izan daitezten. Hori lortzen baldin bada, ikasleek berek egingo dituzte aukerak aztertzeko, erabakiak hartzeko eta gainerako alderdiak zehazteko lanak.

Hori guztia aintzat hartuta, ikasleen heldutasun-mailarekin bat datozen erronkak planteatu behar dira. Hasieratik saiatu behar dugu ikasleak inspiratzen; beraz, antzeko arazoetarako ereduak, materialak eta bestelako irtenbideak eman behar dizkiegu. Haien bidez, ikasleen imitazioerako joera piztuko da hasiera batean, eta, hausnarketa- eta azterketa-prozesuen bitartez, gainditu eta hobetuko egingo dituzte.

Bigarren maila amaituta, irtenbideek ezagutza gehiago eta abstrakzio handiagoa behar dute, kontrol-arazo zailagoak proposatu behar dira. Hori ez da eragozpen, halere, programazioa arian-arian lantzeko, baita Lehen Hezkuntzatik ere. Robotika, esaterako, kontrol-sistema baten gauzape oso erakargarria da eta, gainera, mekanikako edukiak ere baditu; horra, beraz, sormenerako esparru egokia.

Planteatu edo azaldutako arazoen konponbideetan jarritako fokua orekatzen laguntzen du laburbiltzeko faseak. Fase horretan, ikasitakoa balioesten du ikasleak, eta esperientzia - hausnarketa bitariko jarduerarekin ohitzen da, ikasitako hori barneratzeko eta berriro erabili eta erlazionatzeko ingurune zabal eta konplexuagoetan. Laburbiltzeko fasean, ikasitakoa finkatzen eta balioesten dute ikasleek, eta testuinguru osoarekiko loturak egiten dituzte.

"Nola" da teknologiaren arloko galdera nagusia, eta galdera horrek berak adierazten du ikasgai horien dinamismoa. Era berean, hura da ebaluazioaren erdigunea. Ikasleak egitekoa nola bete duen eta zer prozesu jarraitu duen jakitea ezinbestekoa da abiarazitako estrategiak eta eginiko aurrerapenak zehazteko; irakaslearen esku-hartzeak doitzeko abiapuntua da. Kalifikazioak ezartzeko prozesuan, emaitzek, ikasitakoaren adierazpenak eta, oroz gain, prozesuak berak izan behar dute informazio-iturri. Balioesten denaren erreferentzia da hura ikasleentzat. Ebaluazio-tresna horiek erabiltzeko errazak izan behar dute, irakaskuntzaren eta ikasketaren prozesuekin batera erabiltzen baitira.

Lehen mailetatik balioetsi behar da egindakoaren transmisioa edo adierazpena; lehenik eta behin, ikasleak motibatzen laguntzen duelako eta ikasgai horiekiko berezko zaletasunari eutsi behar zaiolako. Erakusketek, web orriari eginiko argitalpenek eta ildo horretako jarduerak garrantzia ematen diote emaitzari, egindakoari. Bigarrenik, kontuan izan behar da irtenbide edo soluzioen transmisioa teknologien osagaietako bat dela. Transmisioa baliagarria izan daiteke, testuinguru jakin batzuetan, norberaren ideia lantalde beretik atera litezkeen gainerako ideien aurrean defendatzeko; beste batzuetan, berriz, informazioa adierazi edo transmititu beharko zaie diseinua egin behar dutenei, eta, alderantziz, informazioa eskatu beharko dute horiek, programak, planoak eta eskema batzuk interpretatzeko.

#### 1.3.4.4. Integrazio-egoerak

Konpetentzia izateko, modu integratuan erabili behar dira norberak eskuratu dituen baliabideak, erronka edo arazo diren egoerak ebazteko. Gainditzeko moduko zailtasun-maila izan behar dute arazo eta egoerak, baina, era berean, ikasleentzat erronka izan behar dute. Askotariko "familia" edo multzotan aurkeztu arren, antzeko konplexutasun-maila dute arazoek, eta, ondorioz, parametro paretsuko baliabideak erabili behar dira haiek konpontzeko.

Ikasleen interesguneak hartu behar dituzte kontuan ikaskuntza eta ebaluazioko egoera horiek, eta aintzat hartu behar dute nola ikusten eta interpretatzen duten mundua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gazteek. Ikasleek ez dute mundua berdin ulertzen eta interpretatzen Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; beraz, interesguneek eta ikaskuntza- eta ebaluazio-egoerak ere desberdinak izan behar dute batean zein bestean.

Orain, argibide eta adibide gisa, zenbait egoera aurkeztuko dira, konpetentzia teknologiko-digitala eskuratzeko egokiak. Egoera horiek aintzat hartuko dituzte ikasleen interesak, esperientzia eta haiek eskuratutako baliabide didaktikoak, hau da, dakitena hartuko dute kontuan. Irtenbide edo soluzio egingarriak izango dituzte, baina, aldi berean, ez diote erronka izateari utziko.

Teknologia ikasgairako:

**Eremu pertsonalean**, norberak erabiltzeko objektu bat diseinatzea proposa daiteke, tamainatik ekoizpen-prozesura bitarteko alderdiak eskatuta, edota ohiko jarduera bat automatizatzeko eska daiteke, kontrol-txartelen bat erabilita. Nerabearen komunikazio-beharrizanei erreparatuta, aplikazioen bat egiteko proposa daiteke, sorrera lokalekoa izan arren, Interneten igo daitekeena.

**Eremu sozialean**, lagunartean gerta dakiekeen arazo-egoerak ebazteko proposa daiteke: energia berriztagarriek elikatutako tresnaren bat sortzeko, herriko jaietan otorduren bat prestatzeko erabil daitekeena, kasu; argi psikodelikoen kontrol-sistema egiteko, lagun taldearen lokalean jartzen duten musika girotzeko; edota, lagun taldearen logotipoa, txapelketaren bateko garaikurra edo bizipenen baten oroigarria diseinatzeko, 3D izaerako inprimaketaren bitartez.

**Eremu akademikoan**, ebatzi beharreko integrazio-egoera bat osatzeko proposa dakieke ikasleei, eskuratu dituzten azken baliabide didaktikoak eta ematen zaizkien beste datu batzuk uztar ditzaten hura osatzeko prozesuan. Egoera errealean bat ere erabili daiteke; esaterako, ikastetxeko sarbidearen lekuren batean egunero sortzen diren ikasle-pilaketak, kiroldegitik jolas-ordura datozenen motxilak uzteko izaten duten leku txikiak, edo urrian eta ekainean eta urtarotik urtarora izaten diren ordutegi-aldaketek eskolako txirrinean eragiten duten desfasea. Egoera horietatik abiatuta, eskuliburuak, katalogoak eta bestelako agiriak aurkez dakieke ikasleei –gezurrezkoak edo hutsalak izan daitezke horietako batzuk–, eta arazo-egoera ebazteko eskatu.

**Lan-eremuan**, produktuak, profil profesionalak, merkatuak eta antzeko alderdiak lantzeko jarduerak proposa daitezke. Esaterako, ikasleei produktu jakin baten ezaugarriak eta bestelako aldagaiak eman ondoren, produktu horren promozio-kanpaina egiteko eska dakieke, garrantzia dutenak eta ez dutenak bereizi eta integrazio-ildoak lantzeko.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasgairako:

**Eremu pertsonalean**, ikasleen eguneroko bizitzako egoeren familiak aurkeztuko dira: ingurune birtualen erabilera seguruarekin lotutakoak (hala nola lineako zerbitzuak eta sare sozialak); sarean partekatzen diren edukien eta baliabideen gaineko etikarekin eta legezketasunarekin lotutako egoerak; nortasun eta hatz-marka digitalarekin lotutakoak; eta teknologiaren erabilerak izan ditzakeen osasun-arriskuekin lotutakoak (mendetasunak, distrakzioak eta oreka emozionala, besteak beste). Era berean, gailu pertsonalen konfigurazioaren eta babesaren inguruko arazo tekniko errazen konponbidea landuko da.

**Eremu sozialean**, ikasleen ingurune hurbileko elkarte eta erakundeek –kultura, kirola, aisia eta beste hainbat alorretakoek– web orriak eta eduki digitalak sortzeko eta argitaratzeko izan ditzaketen premiak landuko dira. Horrez gainera, sare sozialetan edukiak modu kritiko, seguru eta proaktiboan hedatzeari loturiko arazoak aztertuko dira.

**Eremu akademikoan**, ikaslearen eskola-ingurune egoerak aurkeztuko dira, eta, curriculum arloetan izan daitezkeen beharrizanei (trebatze- eta sistematizatzeko jarduerak egiteko beharrizanei) erreparatuta, horien inguruko aplikazioak diseinatzeko eta programatzeko aukerak aztertuko dira, gerora gailu mugikorretan erabiltzeko. Era berean, eskolan egindako lanak argitaratzeko proposamenak aurkeztuko dira (ikasgelako bloga, e-portfolioa, ikaslearen PLEa, etab.).

**Lan- edo lanbide-eremuan**, erabilera profesionaleko aplikazioak eguneratzeko eta optimizatzeko arazo tekniko errazei buruzko egoerak landuko dira, bai eta babes-sistemak eta segurtasun-neurri aktibo eta pasiboak ere (postaren zaintza, pasahitzen kudeaketa eta antzekoak). Era berean, nortasun digital profesionala garatzea eta etengabeko prestakuntzarako e-learning plataformetan parte-hartze aktiboa izatea landuko da.

Konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegitik, eskolaren rola ezin da mugatu edukiak irakatsi eta ikasaztera, egoera konplexuak ebazteko ezagutza eskuragarriak erabiltzen eta transferitzen ere irakatsi behar baitu, ikasleak bizitza pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta lanerako prestatzeko.

### **1.3.4.5. Teknologiaren ikasgaiak ematen duen laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko**

Aurkeztutako ereduak etapa honetarako hautatutako oinarrizko konpetentziak lortzen laguntzen du.

#### **Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia**

Hizkuntza teknikoaren oinarrizko kodeak erabili behar dira teknologiarako konpetentzia izateko. Dokumentazioa behar bezala interpretatzeko terminoak, sinboloak, arauak eta gainerako elementuak, alegia.

Arazo teknologiko bat ebazteko pentsatutako irtenbideak adierazten jakin behar da. Faseren batean, ikasle batek bere diseinua defendatu behar du taldeko gainerako kideen aurrean, egokiena aukeratzeko. Beste faseren batean, norberak sortutakoa dokumentatu beharko da, beste norbaitek gauzatu dezan eta, alderantziz, dokumentazio teknikoa interpretatzeko premia sortuko da beste noizbait.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliabide eraginkorrak dira, eta lagungarriak izan daitezke prozesu teknologikoan, bai ikaskuntzak sendotzeko, bai norberak iritsitako irtenbideak besteri adierazteko. Ikasleen autonomia eta Internet bidezko lankidetzeta-aukerak sustatzen dituzte teknologia horiek.

Ikasgai horietako proiektuetan modu sortzailean erabiltzen baldin badira teknologia digitalak, nabarmen indartzen da konpetentzia digitala, eta balio erantsia ematen zaio IKTek norberaren ikaskuntzari egiten dioten ekarpenari.

#### **Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia**

Irtenbide teknologikoak garatzeko, ondo antolatu behar da pentsamendua eta jokabide estrategikoak eta zorrotzak izan behar dira. Era berean, irizpide onak erabili behar dira informazio-iturriak hautatzeko, eta, horrez gainera, errealitatea berariaz, modu sortzailean, planifikatuan eta arduraz eraldatzeko ahalmena, teknologiarako konpetentziaren berezkoa, garatuko baldin bada, ezinbestekoa da ezagutzak mobilizatzea, ikaskuntzako beste egoera batzuetan ikasitakoa transferitzea.

Arazo teknologikoak konpontzeko lehen fasean –aukerak hautematen dira fase horretan–, zer arazo konpondu behar diren zehazteko, ikasleek pentsamendu ulerkorra eta kritikoa erabili behar dute. Objektuak eta sistemak alderatu, sailkatu edo sekuentziatu eta aztertu behar ditu. Ondoren, ebaluatu egin behar du lortutako informazioa, egokia den eta norberaren xedeak betetzeko balia dezakeen balioesteko.

Irtenbideak diseinatzean, bereziki, ideia asko sortzen dira, eta horiek pentsamendu kritikoz aztertu eta bahetu behar dira. Fase horretan, ondorioak aurreratu dira arrazoibide logikoaren, deduktiboaren bidez, baina arrazoibide analogikoa ere erabiltzen da, informazio

askotarikoa interpretatu behar izaten den aldetik. Informazio hori gero eta normalizatuagoa izango da, proposamen zorrotzagoak egin ahala.

Ebaluazio-fasean, mapa kognitiboa zehaztu eta berregituratzeko mekanismoak abiarazten dira, alderdi teknikoan, pertsonalean eta gainerako alderdietan. Alderdi teknikoan, arazoaren irtenbide osoaren egiturazko mikroprozesuetan hartu diren erabakien multzoa zehazten da, eta alderdi pertsonalean, berriz, gainerako kideekiko harremana eta lan-planaren ezarpena aztertzen dira, besteak beste. Azken emaitza guztiz kontrastagarria da.

### **Elkarbizitzarako konpetentzia**

Gizarteen antolamendua eta funtzionamendua ulertzeko, bide egokia da garapen teknologikoaren eta historian izan diren eredu sozial eta ekonomikoen arteko korrelazioa alderatzea. Konpondu beharreko arazoak antzekoak dira gizarte guztietan, baina gizarte bakoitzak baliatuko dituen irtenbideak bat etorriko dira haien garapen sozial eta teknologikoarekin. Ingurune hurbila eta eraikitze-prozesu betean den mundu globalizatua ezagutzeko aukera ematen diote ikasgaiak ikasleari.

Gainerako pertsonak ezagutzeko zailtasunak murrizten eta elkarbizitzarako konpetentzia eskuratzen laguntzen dute talde-lanaren barneko lankidetzak eta erantzukizunak. Ekarpene hori bera egiten dute ikuspegi-aniztasunak, baldin eta arazo teknologiko partekatuei irtenbide irudimentsuak aurkitzeko erabiltzen baldin bada, eta teknologiarako konpetentziarekin lotutako ikasgaien beste osagai batzuek.

### **Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia**

Konpetentzia teknologikoaren barruan sartzen da ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia. Izan ere, teknologiarako konpetentziaren oinarrizko osagaia da ideiak, modu antolatu batean, ekintza bihurtzeko ekimena. Ekintzaitza-faseak barne hartzen ditu proiektuen metodoak, eta, metodo horien barnean, ikasleak errealitateari atxikita egin behar du lan, arreta jarri behar du eta galderak egin behar ditu. Horrela jokatu behar da, hain zuzen, kontsumitzaileen gizarte baten balizko pasibotasunari aurre egiteko.

Pentsamendu dibergentea erabili behar izaten da irtenbideak sortzeko fasean, eta pentsamendu hori premiazkoa da gizarte hiperkomunikatuan. Gizakiari poz bete ematen dio inoiz ikusi gabeko irtenbide edo soluzioren bat sortzeak edota produktu bati "nortasun propioa" ematen dion elementu bereizgarria asmatzeak. Jarduera horiek ikasgelan egiten baldin badira, ikasleen autoestimua handituko da, eta ekimen berriak abiatzeko eta lanean jarraitzeko gogoari eutsiko diote.

Dimentsio mentaletik irten behar da gauzatzeko fasean. Urrats hori ematean, autokontrola eta oreka emozionala baliatu behar dira, eta ezinbestean onartu behar dira muga guztiak, bai norberaren ahalmenen mugak, bai lanerako baliabideak dituzten mugak. Mundu fisikoaren erresistentziari aurre egiteko unea da. Jarrera proaktiboa landu behar da, zailtasunik txikienaren aurrean amore ez emateko. Era berean, akatsak gizakion ikasketa-iturri onenetako bat direla bizitzeko aukera izango du ikasleak.

Azken fasean, ebaluatu eta laburbiltzeko fasean, berriro antolatu behar da norberaren mapa kognitiboa, eta lan hori egiteko, nor bere baitan bildu beharra dauka, neurri batean. Berrikuntza-ziklo berri baterako abiapuntua dira ondorioak. Ikasleek, prozesuaz jabetzean, gero eta erabaki konplexuagoak hartuko dituzte, eta horrek indartu egingo du beren autonomia.

### **Norbera izaten ikasteko konpetentzia**

Erresistentzia edo oztopo ugari egin behar zaio aurre arazo teknologikoak konpontzeko; eta ikasleek, zehazki, mundu fisiko eta birtualak jarritako oztopoak gainditu behar dituzte haiek landutako egiturak, sistemak eta programak egiteko. Ikasleari bere pentsamenduen,

sentimenduen eta ekintzen gainean hausnartzeko aukera ematen dio hartu-eman horrek, eta denboraren poderioz, etengabeko hobekuntzaren antzeko bide bat eginez, jarduera erregulatzen du arian-arian eta bere buruaren irudia egokitzen, bide horretan sortutako desorekak gaindituz. Bere burua egoki balioestea, azkenik, baliagarri zaio orientatzeko eta autorrealizaziora gerturatzeko.

### **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia**

Teknologia-ondarearen transmisioa terminologia zabal bati esker gauzatu da, besteak beste. Terminologia hori aldatu egiten da jardueratik jarduerara. Teknologiaren historiaren aldi berrienetan, kontzeptu berri ugari sortu dira, eta egoera horrek bultzatuta, ingelesezko jatorrizko forman onartu dira termino asko. Ikasleek adieren multzo handi horretara jotzen dute arazo teknologikoak konpontzeko prozesuan, testuinguru bakoitzera egokituta. Prozesu horretan, askotariko testuak irakurri eta ulertu behar ditu, eta haien informazio baliagarria bereizi behar du. Testu horietako asko azalpenak emateko testuak izango dira, eta batzuk atzerriko hizkuntzaren batean idatziak. Informazioa eskuratzeko ohiko iturri dira, besteak beste, web inguruneak, hipertextuak, fabrikatzaileen katalogoak, testu-liburuak eta entziklopedia espezializatuak.

Lantaldeetan, ideiarik onena, inplementatuko den ideia hori aukeratzeko, prozesu jakinak baliatzen dira, kide guztien ideiak modu ulerkorrean entzun eta norberaren argudioak adierazteko. Elkarrizketarako jarrera lantzen da prozesu horietan, lagungarri baita taldearen helburuak betetzeko erabaki onena hartzeko. Landutako irtenbide edo soluzioaren berri emateko, ezinbestekoa dute testuak (maila jasokoak, gutxi-asko) edota diskurtsoak egiteko trebetasunak erabiltzea, eta, behin edo behin, terminoak sortu beharko dituzte oraindik ezagun ez dituzten operadoreak edo funtzioak izendatzeko. Proiektuek berezko duten dokumentazio horrek zehatza izan behar du, lortutako emaitzak ondorengo faseetan berregin edo hobetzeko adina. Emaitzen berri emateko unea, proiektuaren amaierako fasean, oso egokia da ahozko adierazpena modu formalean lantzeko.

### **Zientziarako kompetentzia**

Gizakien bizi-baldintzak hobetzea da teknologiaren helburu nagusia, eta gizakien beharrianak eta nahiak asetzeko modua ematen du jarduera horrek. Horrenbestez, ezinbestekoa da teknologiak eraginkortasunez eta ekonomia-irizpidez esku hartzea ingurunean. Esku-hartze horrek berariaz zaindu behar ditu arazoizko kontsumoa, iraunkortasunaren bermea, eta beti izatea jarrera etiko eta kritikoa ingurune artifizial eta naturalen eraldaketan gainean. Teknologoaren jardun moduak aintzat hartzen ditu osasun-irizpideak, segurtasun eta higienerari buruzko arauak, ergonomia eta beste hainbat alderdi.

Elkarren osagarri dira zientziarako eta teknologiarako kompetentziak. Teknologiak ikerketarako bitarteko sofistikuak eskaintzen dizkio zientziari, eta horien bitartez, bestela ezinezko lituzkeen emaitzak lortzen ditu. Era berean, garapenak lantzen jarraitzeko informazio berria ematen dio zientziak teknologiarari. Bien ezaugarri da erabakiak arduraz hartzea, gizakiak ingurunean egiten dituen esku-hartzeen garrantziaren jakitun.

### **Matematikarako kompetentzia**

Mundu fisikoan eta birtualean esku hartzean, zenbatespenaz edo balioespenaz baliatzen dira hasieran ikasleak, lanean erabiltzen dituzten magnitudeen balioetara gerturatzeko. Lehen gerturatze hori egin ondoren, zehaztasuna ezinbestekoa da arazo teknologikoak konpontzeko. Une horretatik aurrera, zenbakizko oharren, sinboloen eta adierazpenen erabilera sistematizatzen dute ikasleak, errealitatearen alderdi kuantitatiboak lantzeko, hura eraldatzea baitagokie teknologia-ikasgaietan. Objektu eta sistema teknologikoak aztertzean eta problemak ebaztean, arazo-egoerak sortzen dira, eta haiei aurre egiteko, kalkulu-metodo egokiak erabakitzen eta haiei dagozkien eragiketak egiten jakin behar dute ikasleak.



Horrenbestez, batzuetan, neurtzea, interpretatzea, ebatzea eta aplikatzea izango da egitekoa, eta beste batzuetan, berriz, algoritmoak, taulak, eskalak, grafikoak eta eskemak sortzea; hau da, adierazpen matematikoa erabili behar dute, teknologiaren zereginen sortutako arazo-egoeretan kalkuluak egin eta arazoitze logiko eta espaziala baliatzeko.

### **Konpetentzia sozial eta zibikoa**

Hartu-eman agerikoak dituzte teknologiak eta gizarteak. Gizakien beharrianak eta haien bizitzan hobetu daitezkeen alderdiak planteatzen ditu gizarteak, eta teknologiak landu egiten ditu, eraldatzeko. Konponbide teknologiko sofistikatuek ez dute funtzionatzen, baldin eta gizartea ez baldin badago haiek bereganatzeko prestatuta, eta, alderantziz, konponbide zaharkituek ez dute inolako eraginik izaten, gizarteak beste premia batzuk baldin baditu.

Gaur egun, teknologiak eragin itzela du gizartean eta pertsonen bizimoduan, nabarmen baldintzatzen du ekonomia eta, ondorioz, faktore erabakigarri bihurtzen ari da, haren inguruan egituratzen baitira gizarte-harremanak, pertsonen eta taldeen elkarreraginak eta beste jarduera asko.

Historian baliatu diren soluzio edo irtenbide teknologikoak ezagutu behar dituzte ikasleek, eta horiei erreparatuta, gizarteari ekarritako onurak eta eragindako kalteak neurtzeko moduan izango dira. Horrela jokaturik, konpromiso eta elkartasuneko balioak landu ditzakete, eta hobekuntzarako eta iraunkortasunerako soluzioak balia ditzakete etorkizunean.

### **Arterako konpetentzia**

Araza teknologikoak ebatzeko moduei erreparatuta, komunitateen kultura-oinordetza eta ondarea azter daitezke. Ideiak nola adierazi diren ikusarazten dute soluzio teknologikoek, bai ideia artistikoak, bai ideia erabilgarriak, historian unean-unean izan diren beharrianak asetzekoak. Izan ere, agerikoa da unean uneko teknologia mailaren eta historiako faseen arteko lotura, arazoak konpontzeko modu berariazko bat izan baitu historiako fase bakoitzak.

Araza berberei emandako konponbide askotarikoak alderatzen baldin baditugu, arbasoek bizikaltatea hobetzeko lan saiatua egin zutela ikus dezakegu, eta gaur egun, lan hori aitortzeko eta baliatzeko moduan gaude. Bestalde, ikasleek egiten dituzten produktuen gaineko oharpenak egin ditzake irakasleak haien diseinuko eta akaberako faseetan, produktuen balio erantsia eta lehiakortasuna handitzeko. Oharren bidez adierazitako nabardurek irudimenaren eta sormenaren bidea adierazi behar dute, lehentasuneko gaitasunak baitira mundu globalizatuan.

### **Konpetentzia motorra**

Jardun motorra baliatu behar da tresna teknologikoak –ordenagailuak eta beste asko– erabili eta, haien bidez, soluzio teknologikoak aurkitzeko. Psikomotrizitate fina eta eskuen erabilera trebea landu behar dira konpetentzia motorra iristeko. Horrez gainera, ekipoak eta tresnak erabiltzean, ergonomia-alderdiak zaindu behar dira, eta norberak jabetu behar du ohitura onak izatea ezinbesteko dela osasuna zaindu eta ongizate fisikoa iristeko.

### 1.3.5. KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA

#### 1.3.5.1. Definizioa eta osagaiak

##### Konpetentziaren definizioa

Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzaren ohiko egoeretan, gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta plurala lortzeko bidea urratzearen.

##### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu konpetentzia sozial eta zibikoak:

1. Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan).
2. Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua; gizartea zer lurraldetan eta nola ezarrita dagoen jakitea, haren iraganaren kontzientzia hartzea eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoan aurrean modu positiboan jarduteko gaitasuna lantzea.
3. Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita; aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, eta, bereziki, egungo euskal gizartekoa, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko.
4. Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritzia osatzeko erreferente unibertsala eta norberak herritar gisa dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta parte-hartzeko, begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko.
5. Iraganean, edo gaur egun, bizikidetzat-tentsioak eta -gatazkak izan dituzten gizarte-taldeak, elkarri eragiten diotenak, historian zehar zer konfigurazio edo egitura izan duten jakitea; eta iraganaren gaineko kontzientzia kritikoa lantzea, etorkizunean egoera horiek konpontzeko prozedura baketsu eta demokratikoak erabiltzen jakin dezagun.
6. Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrera eskuratzea; hau da, munduaren alderdi fisikoak, sozialak eta kulturalak, iraganean izandako bizipen kolektiboak eta gaur egungo bizipenak, eta bizitza sozialari dagokion espazio fisikoa ulertzeko behar direnak, munduan eragile aktibo izateko.

#### 1.3.5.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen arloak eta ikasgaiak

Konpetentzia sozial eta zibikoa izango du ikasleak, baldin eta gizarteari buruz ikasi dituen ezagutzak erabiltzeko trebetasuna baldin badu, bai egoera eta arazo sozialak testuinguru eta espazio-eskala askotarikoetan interpretatzeko, bai erantzunak eman eta erabakiak hartzeko, bai beste pertsona eta talde sozial batzuekin arauak betez elkarrekintzan aritzeko.

Konpetentzia sozial eta zibikoaren alderdi nabarmenak dira, besteak beste, informazioa aztertzea, beste pertsona batzuekin hitz egitea, egoerak ebaluatzea, arazo sozialetarako irtenbideak proposatzea, protagonistak eta interesak identifikatzea, eta fenomeno sozialen zergatiak eta ondorioak lotzea.

Konpetentziaren xedea da, alde horretatik, ikasleek garaiko gizartearen, sistema demokratikoen eta haien oinarri diren balioen antolaketa, funtzionamendu eta bilakaera zehatzari buruzko jakintza egokia izatea.

Ezagutza, trebetasun eta balio sozialak, zibikoak eta herritartasuna lantzen ditu konpetentzia sozial eta zibikoak. Alde horretatik, entzuteko, hitz egiteko, komunikatzeko eta irtenbide bideragarriak proposatzeko ahalmena izango du konpetentzia hori eskuratzen duenak, baita jardura-plan pertsonalak osatzekoa ere, norberarentzat eta ingurukoentzat koherenteak eta arduratsuak izango direnak.

Gero eta ardura eta autonomia handiagoz jokatzeko aukera ematen du konpetentzia sozial eta zibikoak, eta gizarte-egoerekiko ikuspegi kritikoa zorrotzen du, egoera horietan alderdi hauek aintzat hartzean: elkarrizketa, elkartasuna, partaidetza aktiboa, enpatia, balio demokratiko eta zibikoak, justizia soziala eta dibertsitatearekiko begirunea. Horrela jokatuta, bere nortasunaren gaineko kontzientzia eta garaiko gizarteetako bidegabekeria eta desberdintasunekiko kontzientzia hartzen ditu ikasleak, arian-arian.

Gizarte-gertakariak aztertzen eta ikuspegi sinplistik gainditzen laguntzen du konpetentzia honek, eta horrek guztiak gizakiek osatutako gizartearen konplexutasuna ulertzen laguntzen du. Balio eta jarrera pertsonalak lantzen ditu; hala nola asertibitatea, ardura, autonomia, autokritika, pertseberantzia, norbere aukerez jabetzea, eta aukerak eta zailtasunak neurtzea arriskuak hartu baino lehen.

Era berean, gero eta pluralagoa den gizartearen adierazpen ugariak balioesten eta gozatzen laguntzen du.

Konpetentzia sozial eta zibikoaren bidez, ikastetxea ingurunera irekitzen da, eta gizartearen eta herritarren bizitza eraldatzen parte hartzen eta laguntzen du. Hala, eraldatze-prozesu horren protagonista bilakatzen da ikaslea, egunez eguneko bizi-esperientziaren bidez.

### **Barne hartzen dituen arloak eta ikasgaiak**

Honako arlo eta ikasgai hauek barne hartzen ditu konpetentzia sozial eta zibikoak:

#### **Lehen Hezkuntza:**

- Gizarte Zientziak
- Balio Sozial eta Zibikoak

#### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:**

- Geografia eta Historia
- Balio Etikoak
- Ekonomia
- Ekintzailtza eta Enpresa Ekimena
- Kultura Klasikoa
- Filosofia

### 1.3.5.3. Arloen eta ikasgaien ikuspegia

Curriculumeke arlo eta ikasgai guztietan lantzen da konpetentzia sozial eta zibikoa, eta bereziki:

Lehen Hezkuntzan, pertsonak gizabanako sozialtzat hartzen dituzte Gizarte Zientzietako zientzia-diziplinek, eta alderdi geografiko, soziologiko, ekonomiko eta historikoetatik aztertzen dute haien errealitatea.

Eta horretan, ikasleen ahalmenak lantzea da Gizarte Zientzien helburua, inguruan duten errealitatea interpretatzeko, errealitate horretan esku hartzeko, eta gizartean bizitzen ikasteko, demokraziaren funtsezko erakundeak eta mekanismoak ezagututa eta bititza kolektiboaren arauak errespetatuta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Geografia eta Historia ikasgaia irakasten da; hala, gizarteek denboran izandako bilakaera ulertzeko ezagutzak eta metodoak ematen dizkie Historiak ikasleei; Geografiak, berriz, dimentsio espaziala eta gizakiek ingurune naturalean egindako ekintzak eta ekintza horien ondorioak aztertzen ditu. Gaur egun, ordea, gizakiaren eta gizartearen errealitatea ulertzeko, nahitaezkoa da, era berean, Gizarte Zientziaren arloko beste ikasgai batzuk kontuan hartzea, errealitate hori aztertzeko ikuspegi bestelakoak eta osagarriak ematen dituzten aldetik. Hori horrela, mundu gero eta globalizatuago honen ezaugarri ekonomikoei eta munduan parte hartzeko aukerei buruzko ezagutzak ematen dituzte Ekonomia eta Ekintzaitza eta Enpresa Jardueretarako Hastapena ikasgaiek. Kultura Klasikoa eta Filosofia ikasgaiek, berriz, mendebaldeko zibilizazioaren kultura- eta pentsamendu-oinarrien berri ematen digute.

Kultura Klasikoa ikasgaiaren xedea da antzinako greziarren eta erromatarren historia-, geografia-, gizarte-, politika- eta kultura-errealitatea behatzea eta aztertzea, eta, ikasgai hori ikasiz, ikasleek hobeto ulertuko dute mundua eta indartu egingo dute beren kontzientzia kritikoa.

Ikasgai horrek konpetentzia sozial eta zibikoa garatzen laguntzen du, antzinako greziarren eta erromatarren erakundeak eta bizimodua irakasten dituen aldetik. Izan ere, gizarte-antolaketaren, herritarren partaidetza publikoaren eta gizabanakoen eta kolektiboaren eskubideen eta betebeharren mugaketaren erreferentzia historiko dira. Horrez gain, balio demokratikoak barneratzen laguntzen du; hala nola gatazkak elkarriketaren bidez konpontzen, norberarenak ez diren iritziak errespetatzen, ez diskriminatzen, eta elkartasuna izaten.

Aurrera egingo badute, beren historia ezagutu behar dute gizarteek. Zibilizazio greziar eta latindarrak eragin handia izan dute Europaren historian; beraz, ezinbestean ikasi eta ezagutu behar dira.

### 1.3.5.4. Integrazio-egoerak

Konpetentzia izateko, modu integratuan erabili behar dira norberak eskuratu dituen baliabideak, erronka edo arazo diren egoerak ebazteko. Gainditzeko moduko zailtasun-maila izan behar dute arazo eta egoerek, baina, era berean, ikasleentzat erronka izan behar dute. Askotariko "familia" edo multzotan aurkeztu arren, antzeko konplexutasun-maila dute arazoek, eta, ondorioz, parametro paretsuko baliabideak erabili behar dira haiek konpontzeko.

Ikasleen interesguneak hartu behar dituzte kontuan ikaskuntza eta ebaluazioko egoera horiek, eta aintzat hartu behar dute nola ikusten eta interpretatzen duten mundua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gazteek. Ikasleek ez dute mundua berdin ulertzen eta interpretatzen Lehen

Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; beraz, interesguneek eta ikaskuntza- eta ebaluazio-egoerek ere desberdinak izan behar dute batean zein bestean.

Argibide gisa, egoera batzuk azalduko ditugu, konpetentzia sozial eta zibikoa eskuratzeko egokiak:

**Eremu pertsonala:** garapen pertsonaleko egoerak, ingurune gertukoan (etxean, familian, adiskideen eta inguruko pertsonen artean) izaten diren pertsonarteko garapenerako egoerak, eta pertsonen maila indibidualean eragiten dizkieten egoerak. Hainbat esparrutako egoera gatazkatsu askotarikoak, eta, bereziki, eguneroko bizitzako gatazka-egoerak; esaterako, ikastetxeko ordezkartza, ikastetxeko elkarbizitza eta familia-bizikidetzak.

**Eremu soziala:** tokian tokiko komunitateetan eta erakundeetan gertatzen diren egoerak, eta gizarte globalek, gainerako kulturak errespetatzen dituztenek, izaten dituzten arazo-egoerak. Pertsonaren nortasuna eta balioak eraikitzeke prozesuan, diferentzien edo ezberdintasunen izaera aberasgarria agertzen duten egoerak; esaterako, udal-mailako gaietan parte-hartzea; hirigintza alorreko aldaketak, ingurumeneko ekintzak, gainerako kulturekiko hartu-emanak, elkartegintza eta ongizate-estatuko zerbitzu publikoak.

**Eremu akademikoa:** ikaskuntza-egoerak eta ikasle diren aldetik bizi behar izaten dituzten egoerak, arazoak sorrarazten dituztenak; hala nola lankidetzak- eta kooperazio-taldeetan parte hartzea, berdinen arteko ikaskuntza eta akatsa ikasbide gisa hartzea.

**Lan-eremua:** lan-arloko egoerak eta lan-munduari loturikoak; esaterako, laneratze osoa edo partziala, lana bilatzea, enplegu-politika aktiboak dituzten erakundeek buruzko ezagutza, laneko eskubideak eta betebeharrak, jarduera ekonomikoa, eta lanerako etengabeko prestakuntza.

Konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegitik, eskolaren rola ezin da mugatu edukiak irakatsi eta ikasgarritasun, egoera konplexuak ebazteko ezagutza eskuragarriak erabiltzen eta transferitzen ere irakatsi behar baitu, ikasleak bizitza pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta lanerako prestatzeko.

### 1.3.5.5. Arlo eta ikasgai sozial eta zibikoek ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko

#### Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko zehar-konpetentziak eskuratzeko

Konpetentzia sozial eta zibikoak hainbat ikaskuntza-esparrutatik laguntzen du oinarrizko zehar-konpetentziak lantzen.

#### *Elkarbizitzarako konpetentzia*

Konpetentzia sozial eta zibikoko ikasgaien bitartez, gizarte-taldeek ezaugarriak ikasten dituzte ikasleek, eta talde horietan gogoz eta arduraz parte hartzeko trebetasun giltzarriak eskuratzen dituzte. Aintzat hartu behar da gizarte-taldeek elkarri eragiten diotela, denboraren poderioz antolatzen direla, eta askotariko bizikidetzak-gatazkak eta tentsioak izan dituztela eta izaten ari direla. Prozedura baketsu eta demokratikoen bidez esku hartu behar da gatazka horietan.

#### *Norbera izaten ikasteko konpetentzia*

Beren burua hobeto ulertzen laguntzen die konpetentzia sozial eta zibikoko ikasgaiak ikasleei, pertsona errepikaezinak diren aldetik. Ikasgai horien bidez, gizartean beste pertsona batzuekin bizi garela ulertuko dute, eta taldeetan antolatzen garela, helburu askotarikoak izanda maila bakoitzean (familian, eskolan, auzoan, udalerrian, estatuan eta gainerako mailatan).

***Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia***

Kompetentzia sozial eta zibikoko ikasgaiek komunikatzen eta besterekin hitz egiten laguntzen dute; izan ere, ekintza horiek egiteko, gainerako pertsonekin eta ingurunearekin lotura eta harreman eraikitzaileak sortzeko trebetasunak izan behar dira. Horrez gain, beste kultura batzuetara gerturatu eta, ezagutu ahala, haiek errespetatzeko eta aintzat hartzeko aukera ematen dute. Elkarrekin bizitzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmen eraginkorraren osagaia da komunikazioa, eta bitarteko egokia izan daiteke berdintasuna landu eta estereotipoak, adierazpen sexistak, etnizistak, arrazistak eta bestelakoak gainditzeko.

Informazioak berebiziko garrantzia du kompetentzia sozial eta zibikoan. Informazioa lortu eta komunikatzeko ekintzak baliatu behar dira informazio hori bilatu, bildu eta prozesatzeko, eta ekintza horien bidez izango da norbera kompetentea askotariko testuak sortu eta erabiltzeko, komunikazio-xedearen arabera.

***Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia***

Kompetentzia sozial eta zibikoko ikasgaiek hainbat tresna ematen dituzte gero eta autonomia handiagoz lantzeko gizarte-errealitatearen gaineko azterketa kritiko eta zorrotza. Ikasgai horiek lagungarri dira, era berean, arazoen ikuspegi estrategikoa izateko eta gizarte gero eta globalago honen aldaketak iragarri eta aldaketa horietara egokitzeko. Datuen azterketa landuta, arrazoibide inductiboa sustatzen dute, gizarte-egoera eta -gertaeren interpretazioak osatzeko; eta, era berean, arrazoibide hipotetiko deductiboa sustatzen dute, haien azalpenak, arrazoi edo kausa anitzekoak, eraiki ahal izateko.

***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia***

Pentsatzeko, antolatzeko, buruz ikasteko eta informazioa berreskuratzeko estrategiak lantzen laguntzen dute kompetentzia sozial eta zibikoko ikasgaiek. Planifikatzeko eta gauatzeko ekimenak eta erabakitze prozesuak osatzen laguntzen dute. Gizartearen antolaketa eta funtzionamendua ezagutzen eta haren azterketa kritikoa egiten laguntzen duten aldetik, kompetentziari lotutako ikasketek tresna egokia izan behar dute gizartea hobetzeko ekintzak eta ekimenak pentsatzeko.

***Arloek eta ikasgaiek ematen duten laguntza oinarrizko zehar-kompetentziak eskuratzeko***

Kompetentzia giltzarri espezifiko batzuk lantzen laguntzen du kompetentzia sozial eta zibikoak, zenbait ikaskuntza-esparrutatik.

***Arterako kompetentzia***

Kompetentzia sozial eta zibikoak artearen adierazpenak ezagutzen eta balioesten laguntzen du haren barruko arloen bidez, eta haren helburuetako bat da arte-egitatea bera ulertzeko eta hura aztertze ezinbestekoak diren elementu tekniko, estetiko eta adierazgarriak ematea ikasleei. Kompetentzia honen bidez, halaber, arte-egitatea balioesten da, pertzepzio- eta sensibilizazio-trebetasunak eskuratzen dira, artelanekin hunkitzeko gaitasuna garatzen da eta kultura-ondarea balioetsi, errespetatu eta zaintzeko interesa pizten da.

***Zientziarako kompetentzia***

Kompetentzia sozial eta zibikoak giza jardueraren espazio fisikoari, eta, besteak beste, eremu geografiko handiei eta ikaslearen inguruneari erreparatzen die, eta haren elementuak hauteman eta ezagutzeko arloen bidez. Espazio eta paisaia naturalen –benetakoaren nahiz irudien bidez adierazitakoaren– orientazioa, kokapena, behaketa eta interpretazioa lantzen ditu. Horrez gain, gizakiek ingurunean gauzatutako ekintzak eta ekintza horien ondorioak aztertzea sustatzen du. Ingurunea norberaren nahiz komunitatearen esparruan zaindu eta babestu beharraz kontzientziatzen ditu ikasleak.

***Matematikarako konpetentzia***

Konpetentzia sozial eta zibikoko ikasgaiak datu kuantitatiboak ulertzen laguntzen dute. Izan ere, ikasgai horien osagai dira eragiketa errazak; magnitudeak, ehunekoak eta proportzioak; oinarrizko estatistika-nozioak; zenbaki- eta grafiko-eskalak; forma geometrikoen erreferentzia-edo ezagutze-sistemak; eta, halaber, neurri-irizpideak, informazioen kodifikazio numerikoa eta horien irudikapen edo errepresentazio grafikoa. Horrez gainera, ingurune fisikoaren ezaugarri espazialak, mapak, profil topografikoak eta beste alderdi asko ezagutzeko bide ematen dute. Gizarte-errealitatea deskribatzeko eta aztertzeko erabiltzen baldin badituzte tresna horiek guztiak, gero eta nabarmenago ikusiko dute ikasleek, hainbat egoeratan, haren aplikagarritasuna eta funtzionaltasuna.

### 1.3.6. ARTERAKO KONPETENTZIA

#### 1.3.6.1. Definizioa eta osagaiak

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea, denbora- eta erabilera-testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

#### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu arterako konpetentziak:

1. **Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte-ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturaletan identifikatzea.**
2. **Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi-esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeo eta komunikatzeko.**
3. **Dagozkien denboran eta kulturen interpretatzea arte-adierazpenak eta -ekoizpenak, eta horietan dauden funtzioak eta erabilerak aztertzea eta bereiztea, pertsonen bizitzan duten esanahia eta eragina ulertzeko.**
4. **Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kulturalako elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu-emanaren, kulturen arteko elkarrizketaren eta esperientzia partekatuen harian.**

#### 1.3.6.2. Konpetentziaren ezaugarriak eta barne hartzen dituen arloak eta ikasgaiak

Arterako konpetentziaren ezaugarri dira adierazpen kultural eta artistiko askotarikoak ezagutzea, ulertzea, balioestea eta ikuspegi kritikoz ebaluatzea, haiek aberastasun- eta gozamen-iturri gisa erabiltzea eta herrien ondare direla ulertzea. Halaber, konpetentzia hori izateko, lengoaia artistikoen teknika, baliabide eta konbentzio nagusien oinarriak ezagutu behar dira, eta haien kodeak erabili behar dira, adierazpen ekintzaile, irudimentsu eta sortzaileak egiteko.

Kultura-adierazpenak ezagutu, ulertu, estimatu eta kritikoki balioesteko, adierazpen horien eta gizartearen –adierazpenaren garaiko pentsamoldearen eta aukera teknikoan– arteko harremanak identifikatu behar dira, edo bestela, adierazpenaren eta hura sortu duen pertsonaren edo taldearen artekoak. Arterako konpetentzia duenak kultura-bizitzan parte hartzeko interesa adierazi behar du, ahalmen estetikoak landu behar du, eta norberaren komunitatearen eta beste komunitate batzuen kultura- eta arte-ondarea zaintzen lagundu.

Kultura-adierazpenak era horretan ulertuta, ikasleak pentsamoldeen, korrante estetikoan, moden eta gustuen bilakaeraz jabetu behar du, eta aintzat hartu behar du zer-nolako garrantzia duten faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen eguneroko bizitzan –batez ere, gaur egunekoan–, eta zehazki, irudikapenaren, adierazpenaren eta komunikazioaren esparruetan.

Arterako konpetentzia izateko, pentsaera dibergenteko eta konbergenteko trebetasunak baliatu behar dira, norberaren eta gainerako pertsonen ideiak eta sentimenduak lantzeko; era



berean, ulertzeko eta adierazteko sorburuak, moldeak eta bideak topatu, eta emaitzak lortzeko prozesuak planifikatu, ebaluatu eta doitu behar dira. Horrela, bada, arterako kompetentzia izatea baliagarri zaio norberari, adierazpenak egin eta komunikatzeko, arteen munduko askotariko errealitate eta ekoizpenak hauteman eta ulertzeko, eta gero eta pertsona jantziagoa izateko.

Halaber, eta jarduera kultural eta artistikoak, maiz, talde-lanean egin behar direla kontuan izanda, elkarlanerako trebetasunak izan behar ditu ikasleak, azken emaitza jakin bat lortzeko eta gainerako pertsonen ekimen eta ekarpenak bultzatu eta estimatzearen garrantziaz jabetzeko.

Azkenik, arterako kompetentziak errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalaren bidea urratzen laguntzen die ikasleei, kompetentzia horren barnean sartzen baita sentsibiltatea, esperientzia estetikoa eta pentsamendu sortzailea lantzea, eta proiektuetan beste diziplina batzuekin elkarrekintzan aritzea, gainerako oinarrizko kompetentziak lantzen diren bitartean.

Honako arlo eta ikasgai hauek barne hartzen ditu arterako kompetentziak:

**Lehen Hezkuntza:**

- Arte Hezkuntza

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:**

- Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza
- Musika
- Arte Eszenikoak eta Dantza

### 1.3.6.3. Arloaren eta ikasgaien ikuspegia

Arterako kompetentziak barne hartzen dituen arloak eta ikasgaiak lantzeari ekitean, kontuan izan behar da arte-adierazpenak etengabe ageri direla pertsonen bizitzan eta ingurunean. Gero eta gehiago zaintzen da alderdi estetikoak ikusizko arteen, arte eszenikoen, musikaren edo dantzaren goi-mailako arte-produktuetan, eta irizpide estetiko horri berari jarraitzen diote kontsumitzen ditugun soinu, objektu eta irudi ia gehienek.

Gizartean ugari dira erreferentzia estetikoak, eta agerikoa da haien presentzia sozializatzeko eta nortasuna eraikitzeke prozesuetan eta bizi dugun munduari buruz ditugun ideiak osatzeko prozesuetan. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenaren ondorioz, nabarmen aldatu da erreferentzia estetiko horiek hartzen dituen kultura-testuingurua; izan ere, teknologia horien bidez, masiboki kontsumitzen dira musika eta irudiak, eta gero eta estuagoak eta aberatsagoak dira arte-adierazpen askotarikoen (musika, dantza, ikusizko arte eta masa-medioetako bestelako produktuen) arteko elkarketak.

Gaur egun, berebiziko garrantzia du ikasleak arte-esparruetan hezteka, artean behar direnen pareko pentsamendu-gaitasunak behar eta sortzen baitira, helburu artistikoak izan edo ez, eguneroko bizitzan irudien eta musikaren bidez ematen informazioa erabiltzeko. Arte-jarduerak lagungarri dira sormena, irudimena, autonomia, pertzepzioa eta alderdi motorra, sentsibiltate estetikoak, adierazpen pertsonala, pentsamendu kualitatiboa, adimen emozionala, komunikatzeko eta sozializatzeko ahalmena eta beste ahalmen asko lantzeko, eta ahalmen horiek iragazki gisa erabili behar ditugu ikusizko, musikako, antzerkigintzako eta bestelako produktuekiko harremanetan.

Arte-hezkuntza, gaur egun ulertzen den moduan, ekoizpen hutsetik harago doa, hau da, hezkuntza horrek ez du mugatu behar teknika- eta hizkuntza-tresnak irakastera, gerora arte-egitateen kultura- eta gizarte-dimentsioan murgiltzeko. Ikono-elementuek –bai tradizionalak, bai teknologiaren bidez sortutakoek– garrantzi, dimentsio eta potentzialtasun itzela dute gure gizartean, eta kontsumorako elementu bilakatu direnez, haiek interpretatzen eta ikuspegi kritikoz aztertzen erakutsi behar zaie ikasleei. Ikasleei erakutsi behar zaie pertsonen ideien, sentimenduen, sinesmenen eta jarreraren adierazpen direla arte modu guztiak, gizabanakoan eta taldeen nortasunaren berri ematen dutela eta, era berean, nortasun horiek osatzeko tresna ere badirela.

Ikasgelan landu behar dira artearen erabilerak, eta arteak, gizakien kultura-produkzioan txertatzen den aldetik, bizitzaren esperientziarekin duen lotura zuzena erakutsi behar da, mitifikazioetatik eta esentzialismoetatik harago. Horrela jokatu behar da gure kulturaren artearen eta pertsonen bizitzaren artean sortu den distantzia handia apurtzeko.

### **Lehen Hezkuntza**

Ikasleak, Lehen Hezkuntzan, irudien, marrazkien, musikaren eta beste adierazpen ugariaren sortzaile, erabiltzaile eta hartzaile izaten dira, eta aldaketa asko eta handiak izaten dituzte jarduera horietan. Sortzaile diren aldetik, haiek jolas moduan sortzetik ia batere ez sortzera igarotzen dira, eta erabiltzaile diren aldetik, nabarmen handitzen dute haien erabilera, irizpide kritikorik baliatu gabe sarri askotan. Ikasleen gizarte-ingurunean eragin erabakigarria duten zenbait faktoreren ondorioz gertatzen dira aldaketa horietako asko; hala nola modaren eta gizarteko hedabideen eta arte helduaren ikusizko eta musikako irizpide estetikoaren ondorioz. Beste ikasgai batzuetan ez bezala, irudiak eta musika beti ageri dira, artistikoak izan edo ez, ikasleen bizitzako alderdi funtsezko askotan; esaterako, emozioetan, nortasunean eta sozializazioan.

Arretaz zaindu behar dira aldaketa-prozesu horiek haurtzarotik preadoleszentziara igarotzerakoan, distortsiorik eta etenik sor ez dadin ikaslearen erreferente estetiko bisualen eta musikalen eta eskola-kulturako erreferenteen artean. Kontuan izan behar da ikaslearentzat gero eta garrantzi handiagoa izango dutela bere erreferente estetiko bisual eta musikal propioek. Ondorioz, bizi duten kultura ulertzen lagundu behar die eskolak ikasleei; horretarako, kulturarekiko harremanak landu behar dira, ikasleek irizpide baliagarriak lan ditzaten eta zentzu kritikoa gara dezaten.

Adierazi behar dugu, era berean, dimentsio gogoetatsu hori ez dela inola ere ulertzen sorkuntza-lanetik isolatuta edo horren ordeko gisa, bereziki Lehen Hezkuntzan; izan ere, neska-mutilak prozesu aldakor eta oso delikatu batzuetatik igarotzen dira ekoizle gisa, eta arretaz gainbegiratu behar dira prozesu horiek, behar adina laguntza eta bitartekaritza-prozesu bideratuz, urte horietan goizegi utz ez diezaioten sorkuntza lantzeari.

### **Bigarren Hezkuntza**

Bigarren Hezkuntzan, funtsezkoa da, ikasleen ikuspegitik, bizi duten kultura hausnartu eta aztertzekeo tresnak jasotzea curriculumean, erreferente estetiko ugari baliatzen baitituzte eguneroko bizitzan; maiz, haien erabilera akritikoa eginda. Kontuan izan behar da erreferente horiek, adin horretan, eragin nabarmena izaten dutela sozializatzeko eta nortasuna zein balioak eraikitzekeo prozesuetan.

Bigarren Hezkuntzako ikasleak aurreko etapan baino gogoeta helduagoa egitekeo moduan dira, eta ondorioz, hobeto uler ditzakete arte-egitateak, artearen ikuspegia beren bizitzatik eta interesetatik urrun izan baita ordura arte. Artearen ideia edo ikuspegi hori sistema baten barnean sartzeko modukoa izan behar du ikasleentzat, eta sistema horrek, gizartearen adierazpen estetikoak eta erabilera, funtzio eta esanahi kulturalak lotzeaz gain, barne hartu behar ditu ikasleen beren bizipen eta kezka estetikoak. Bizipen eta kezka estetiko horiek

harremanetan jartzeko espazioak bideratu behar ditu eskolak, distortsiorik sortu ez eta eskolako kulturaren eta ikasleek ikasgelatik kanpo bizi duten arte-esperientziaren arteko tartea murriztu dadin.

Horrenbestez, arte-produktu askotarikoak landu behar dira, bai goi-mailako arte-kulturako produktuak, gaur egun ageri duten aberastasun eta bizitasun handia erakutsita, bai bizitzan ageri diren arte-produktuak.

#### 1.3.6.4. Integrazio-egoerak

Konpetentea izateko, modu integratuan erabili behar dira norberak eskuratu dituen baliabideak, erronka edo arazo diren egoerak ebazteko. Gainditzeko moduko zailtasun-maila izan behar dute arazo eta egoerek, baina, era berean, ikasleentzat erronka izan behar dute. Askotariko "familia" edo multzotan aurkeztu arren, antzeko konplexutasun-maila dute arazoek, eta, ondorioz, parametro paretsuko baliabideak erabili behar dira haiek konpontzeko.

Ikasleen interesguneak hartu behar dituzte kontuan ikaskuntza eta ebaluazioko egoera horiek, eta aintzat hartu behar dute nola ikusten eta interpretatzen duten mundua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gazteek. Ikasleek ez dute mundua berdin ulertzen eta interpretatzen Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; beraz, interesguneek eta ikaskuntza- eta ebaluazio-egoerek ere desberdinak izan behar dute batean zein bestean.

Argibide gisa, egoera batzuk azalduko ditugu, arterako konpetentzia eskuratzeko egokiak:

**Eremu pertsonalean**, kontuan hartu behar dugu ikasleak sentikor direla beren objektuen eta entzuten duten musikaren bidez eta haien aisian eta eguneroko bizitzako hainbat esparrutan adierazten diren kezka eta esperientzia estetikoekiko, eta horiek guztiek lotura handia dutela beren nortasuna egituratzeko prozesuarekin. Horrenbestez, proposatuko ditugun egoerek sortzaile izatera bultzatu behar dute ikaslea, eta horien barruan, subjektu autonomoen kontzientzia izan behar dute, irizpide propioak baliatu dituzten mundua interpretatzeko, erabakiak hartzeko eta irtenbideak lantzeko, irudiak, musika, mugimendua eta bestelako adierazpenak ekoizten dituztenean. Norberaren ekoizpen horiek, sarritan, ikasleak musika entzun eta ikusizko produktuak kontsumitu ondoren edo horiekiko hartu-emanean sortzen dira.

**Eremu sozialean**, kontuan izan behar dugu ikasleek irudi- eta soinu-euskarriko produktu ugari kontsumitzen dituztela. Horietako batzuk goi-mailako kultura artistikoaren eremukoak dira, baina ugari dira, era berean, eguneroko bizitzaren eremukoak; hala nola jantzeko modak, musikako azken joerak, gazteentzako aldizkariak, ikuskizunak, publizitatea eta komunikabideak. Baliabide artistiko horien erabilera lehenetsi behar dute proposatutako egoerek, eta adierazpen askatasuna, kultura-aniztasuna eta esperientzia partekatutako balioesteko bide eman behar dute.

**Eremu akademikoan**, Lehen Hezkuntzako ikasleak arte-produktuen ekoizle eta haien erabiltzaile edo hartzaile izaten dira, eta etapa horretan, aldaketa handiak izaten dituzte ikuspegi batetik zein bestetik. Ekoizle edo sortzaile diren aldetik, jolasean arte-ekoizpenak sortu eta gozatzetik ia bat bera ere ez ekoiztera igarotzen dira, eta erabiltzaile diren aldetik, berriz, nabarmen handitzen dute haien erabilera, modu akritikoan askotan. Ekoizpenaren alderdiari erreparatuta, arte-produktuak sortzen jarraitzeko behar dituzten egiturak eta bitartekaritza-prozesuak helarazi behar dizkie eskolak ikasleei; eta erabileraren alderdiari begiratuta, berriz, bizi duten kultura ulertzen eta harekin hartu-emanean izaten lagundu behar die, irizpide baliagarriak osatu eta behar duten zentzu kritikoa gara dezaten. Bigarren Hezkuntzan, normala izaten da arte-hezkuntzaren dimentsio sortzailea ahultzea eta gogoetaren dimentsioa handitzea. Horrenbestez, lehentasunez bultzatuko da, besteak beste,

interpretazio kritikoak egitea, balio kulturalak balioestea, ekintza artistikoen eta estetikoaren artean erlazio konplexuak ezartzeko gauza izatea, norberaren esperientzia estetikoari buruzko gogoeta egiteko gai izatea, eta arteek nortasuna egituratzeko duten potentzialtasunaren gainean hausnartzeko gaitasuna izatea.

Jakina da arteak pertsonen bizitza eta haien ingurune hurbilak eraldatzeko ahalmena duela; beraz, arterako konpetentzia egokitasunez lantzen baldin bada, hobetu egingo dira gure ikasleen bizitza pertsonala eta haien bizi-inguruneak –eskola izango da, horrenbestez, hobera egingo duen inguruneetako bat–. Arterako konpetentzia egokitasunez lantzen baldin bada, hobetu egingo dira ingurune fisikoaren soinua eta irudiak, ingurune osasungarriak eta atseginak sortuko baitira, eguneroko jardura akademikoak egiteko egokiak.

**Lan-eremua** jorrazteko, ikasgelan landutako egoerek baliagarri izan behar dute ikasleek modu kontzientean atxiki daitezten musikarekin, ikusizko esparruarekin eta gero eta gehiago lantzen dituzten arte-adierazpenekin. Ikasleek ikasgelan eta ikasgelatik kanpo baliabide ugariarekin konektatzeko duten ahalmena handitzen baldin badugu, handitu egingo dugu, era berean, ideia berriak sortzeko ahalmena, eta zabaldu egingo dugu haien hazkunde pertsonalerako bidea.

Konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegitik, eskolaren rola ezin da mugatu edukiak irakatsi eta ikasazterara, egoera konplexuak ebazteko ezagutza eskuragarriak erabiltzen eta transferitzen ere irakatsi behar baitu, ikasleak bizitza pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta lanerako prestatzeko.

### 1.3.6.5. Artearen arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko

Arterako konpetentziaren barneko **arloek** eta ikasgaiak curriculumaren oinarrizko zehar-konpetentziak eta konpetentzia espezifikokoak lantzen laguntzen dute, ezinbestekoak baitira komunikazioak gauzatzeko, mundua irudikatze, gizartean moldatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko.

#### **Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko zehar-konpetentziak eskuratzeko**

##### ***Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia***

Arlo eta ikasgai guztietan gertatzen den moduan, arterako konpetentzia eskuratzeko bitarteko dira komunikazio-truke askotarikoak baliatzea, komunikaziorako arauak erabiltzea, komunikazio-prozesuak azaltzea eta ikasgaiaren hiztegi espezifikoa lantzea. Era berean, konpetentzia lantzeko bitarteko dira lan-prozedurak transkribatzea, emandako irtenbideei buruz argudiatzea eta artelana balioestea. Berariaz adierazi behar da abestiak oso tresna egokiak direla hiztegi berria barnerratzeko, gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialak sendotzeko, eta bigarren eta/edo hirugarren hizkuntzen ikasketa indartzeko.

Gogoan izan behar dugu, halaber, irudiak eta soinua direla informazio- eta komunikazio-euskarri berrien egitura-ardatz ia bakarra, eta euskarri horiek esperientzia estetikoak biziari nahi dizkietela erabiltzaileari. Irudiak eta musika ia ezinbestean erabili behar dira aurkezpenak egiteko, argazkiak ordenagailuan gordetzeko edota mezuak bidali eta jasotzeko. Egile edo autore askoren iritzian, alfabetatze berri eta ezinbesteko dira, gaur egun, irudiak eta soinua erabiltzeko eta ulertzeko ahalmen horiek, eta arterako konpetentziaren arloak eta ikasgaiak landu behar dira esparru horretan konpetentzia izateko. Helburua da, azken buruan, balio estetikoak duten mezuak sortzeko erabiltzea hizkuntza teknologiko-digitala eguneroko bizitzan, eta teknologiaren erabilera horiek baliatzea soinua eta ikusizko informazioaren lotutako pentsamendu-prozesuetan. Gaur egun, arte-ekoizpenak berak ere gero eta gehiago baliatzen ditu euskarri teknologikoak, eta arterako konpetentzia ezinbestekoa da alor horretan.

***Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia***

Norberaren gaitasunaren eta jakintzaren kontzientzia, kudeaketa eta kontrola eskuratzen laguntzen dute arterako konpetentziaren arloek eta ikasgaiak; horrenbestez, proiektuen bidezko lana sustatu behar da, ikasleek, proiektu horien barnean, erabakiak har ditzaten, baliabide egokiak bila ditzaten, eman beharreko urratsei buruzko gogoeta egin dezaten, erabakiak hartzeko arrazoiak zehaztu eta argudia ditzaten, eta, besteak beste, ikasitakoaren balantzea egin dezaten.

Bide bera urratzen dute arte-proiektuak eta ikerketa gogoetatsuak. Estrategia metodologiko horrek zalantzan jartzen du artea bat-bateko ekoizpena edo "inspirazio hutsa" denik, ez du artearen lan modua gainerako lan moduetatik bereizten; horrenbestez, ikasketa-esperientzien eta ezagutza-esparruen arteko zubiak egiteko aukera ematen du estrategia horrek, eta prozesu esperimentalak eta intuitiboak errazten ditu. Estrategia horrek, era berean, honako hauek ikasteko aukera ematen die ikasleei: baliabide egokiak bilatu behar direla, gainerako pertsonengandik ikasi behar dela eta, aurrera egiteko, lankidetzan aritu behar dela.

***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia***

Proiektuak eta, besteak beste, artelanak egiteko prozesuek ekarpen baliagarriak egiten dituzte, haien hasierako esplorazio-lanari ekiten diotenetik azken produktua ekoizten duten arte, originaltasuna eta forma berritzaileak bilatzeko, baina, horrez gainera, malgutasunez jokatzeko laguntzen dute, modu bat baino gehiago izan baitaitezke egoera jakin bati aurre egiteko.

Arlo eta ikasgai horietan, musika eta irudiak baliatzen ditu ikasleak munduan jarduerak egiteko, eta elementu horiek aztertzean, beste subjektu batekin jartzen da hartu-emanen, musika eta irudi horien sortzailearekin. Ondorioz, pertsonak iritziak eta pentsamendu propioak osatu behar dituzte hartu-emanaren xedeko dokumentu plastikoa, soinuduna, bisuala edo ikus-entzunezkoa deszifratzean.

Jarduera horien bidez, erabakiak hartzeko, nor bere irizpidea osatzeko eta ideiak eta prozesuak lantzeko prestakuntza eskuratzen da eta ekimenerako konpetentzia eskuratzeko bidea urratzen.

***Elkarbizitzarako konpetentzia***

Haien sorrerako gizartearen isla dira arte eta produktu bisual eta musikalak, eta beren ekoizpen-testuinguruei loturik daude. Konpetentzia sozial eta zibikoa lantzen laguntzen dute arte-diziplinek, eta iraganeko eta garaiko kezka sozialei buruzko gogoeta egiten laguntzen dute.

Praktika artistikoak, gainera, bitarteko dira, besteak beste, diskurtsoak antolatzeke, erantzunak eraikitzeke eta egoerak problema moduan adierazteke, eta emozio-indar handia eta eraginkortasun sozial itzela eranstean diote alderdi estetikoari. Garrantzi handia du ikasleei adieraztea erantzun, begiratu eta sentitzeke modu propioak landu behar dituztela, baina horren pareko garrantzia du ikasleei artearen gizarte-erabilerak ikusarazteak.

Historiak artearen ikuspegi indibiduala nabarmentzen duen arren, artea egitate soziala da maila guztietan. Alde horretatik, talde-lanerako esparrua izan daiteke arte-ekoizpena, egokia begirunea, elkarbizitza, tolerantzia eta elkertasuna lantzeko. Era berean, beste hainbat balio landuko ditugu arterako konpetentziaren barneko arlo eta irakasgaietan; hala nola errespetua, gainerako pertsonen ekoizpenak onartzea, eta pertsonak eta kulturek munduan moldatzeko eta mundua arteen bidez ulertzeko dituzten molde askotarikoak balioestea.

***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia***

Proiektu sortzaile bati ekiteke, ezinbestekoa da autonomiaz jokatzeko, ekimenak abian jartzea eta hainbat aukera eta konponbide kontuan hartzea. Erantzun irekiak emateke modua den

aldetik, norberaren eta taldearen aukera ugari onartzen ditu arte-adierazpenak, autoestimua eta nortasuna indartzen ditu, emozioak eta afektibitatea lantzen ditu, eta erantzun ireki horiek kudeatzen laguntzen du.

### ***Norbera izaten ikasteko konpetentzia***

Lan artistikoaren bidez, gure eta gainerako pertsonen sentimenduak araka ditzakegu, era berean, sentimendu horiek berrirakurri eta berrosatu ditzakegu, eta gure esperientzia propiora egokitu. Lan artistikoek begirada berriak eskaintzen dituzte, errealitatea berrikusteko eta kezkak eta sentimenduak askatasunez adierazteko aukera ematen dute. Alde horretatik, garrantzitsua da, haurtzaroan eta nerabezaroan bereziki, emozioak kudeatzeko eta nortasuna adierazteko bideak izatea.

### **Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko**

Oinarrizko zehar-konpetentzia guztiak garatzen laguntzeaz gain, oinarrizko konpetentzia espezifikoak garatzen laguntzen dute, gutxi-asko. Konpetentzia espezifikoak zuzenean daude lotuta curriculumaren arlo jakin batzuekin, baina, ikaskuntzaren planteamendu globalizatzailea oinarri hartuta, haren garapenean arlo guztiek eragiten dutela ulertzen da.

### ***Konpetentzia sozial eta zibikoa***

Arte-egitateak ulertzeko, ezinbestean hartu behar dira kontuan haien sorburuko kultura eta produkzio-testuingurua, hau da, balioak eta, besteak beste, alderdi ekonomikoak, ideologikoak, teknikoak, erlijiosoak eta zientifikoak. Gizartea aztertzeo bitartekoa izan behar dute arteak eta garaiko musikaren eta produktu bisualen ekoizpenak. Gizartera gerturatu eta haren irakurketa kritikoa egiteko aukera eman behar dute. Konpetentziaren barneko arlo eta ikasgaiak, hortaz, ikuspegi horretatik landu behar dituzte arte-egitateak, eta, balio formal eta estetikoak lantzerantz mugatu gabe, konpetentzia sozial eta zibikoa garatzen lagundu behar dute.

### ***Matematikarako konpetentzia***

Matematikaren baliabideak eta pentsatzeko modua baliatu behar izaten dira proiektu artistiko askoren arazo teknikoak konpontzeko. Konpetentzia honen barruko arlo eta ikasgaiak matematikarako konpetentzia lantzen laguntzen dute, espazioa irudikatzeko sistema jakin batzuk sortuta –hala nola forma geometrikoak marraztekoak, era guztietako objektuak diseinatzeoak, neurriak eta posizioak baliatzekoak formen arteko erlazioak ulertzeko, eta, pertsonen eta objektuen kokapen espaziala zehaztekoak–, musika-diskurtsoen denbora-irudikapena eginda, eta musikaren funtsezko elementuetan proportzioak, bitarteak eta simetriak erabilia.

### ***Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia***

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia lantzen laguntzen da arlo eta ikasgai horietan sortzen den arte-ekoizpen gehienaren bitartez. Arte-ekoizpen hori osatzen dute soinuen, koloreen, formen eta mugimenduaren erregistroek eta arte-ekoizpen horretan guztiz integraturiko ahozko eta idatzizko lengoaiak. Hizkuntza landu behar da musika-ekoizpen ugarian, garaiko artearen adar ugarian eta produktu estetiko askotan (publizitatean, bideojokoetan, komikietan eta beste produktu askotan).

Hizkuntzaren alderdi denotatiboa lantzeaz gain, haren alderdi poetikoa, erretorikoa, sinbolikoa eta beste zenbait alderdi lantzen dira musikari hitzak jartzean eta produktu estetikoetan testuak txertatzean. Jarduera horiek eginda, bereziki landu eta garatzen dira, hizkuntzaren bidez, pentsamendu emozionala, adimen kualitatiboa eta sentsibilitatea.

### 1.3.7. KONPETENTZIA MOTORRA

#### 1.3.7.1. Definizioa eta osagaiak

##### Konpetentziaren definizioa

Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

##### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu oinarrizko konpetentzia motorrak:

1. **Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirolak, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.**
2. **Jokabide motorra erabiltzea norberaren kultura-nortasuna sendotzeko, herriaren balioak indartzeko, eta kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartu eta balioesteko.**
3. **Gorputza naturaltasunez edo intentzior erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.**
4. **Eguneroko bizitzan modu kontzientean barneratzea jarduera fisikoaren adierazpen guztiak, osasuna osotasunean zaintzeko eta hobetzeko eta bizitza orekatua izateko osagai ezinbestekoa den aldetik, eta hari lotutako alderdi intrintsekoak eta estrintsekoak identifikatzea.**

#### 1.3.7.2. Konpetentzia motorraren ezaugarriak eta barne hartzen dituen ikasgaiak

Oinarrizko konpetentzien araberako ikuspegi pedagogikoan, pertsona da hezkuntza-ekintzaren objektua; beraz, Gorputz Hezkuntzak ere lekua izan behar du ikuspegi horretan, pertsona baita, bere osotasunean, egiaz hezi daitekeena.

Oinarrizko konpetentzia guztiak lantzen laguntzen du konpetentzia motorrak; izan ere, ahalmen eta trebetasun fisikoak lantzen ditu, jokabide motorraz baliatzen da pertsonen nortasun kulturala eta herriko balioak indartzeko, komunikatu eta adierazteko erabiltzen du gorputza, eta ariketa fisikoa txertatzen du eguneroko bizitzan, osasunaren mesedetan.

Konpetentzia motorra lantzeko ardatz oinarrizkoak dira gorputza, bere dimentsio guztietan, eta jokabide motor autonomo eta zehatza. Hezkuntza-edukien bitartez, oinarrizko hainbat ezagutza, prozedura eta jarrera eskuratu, erabili eta landu behar dituzte ikasleek; mugimenduaren kulturen parte-hartze emantzipatua eta gogobetegarria izateko, estereotipo eta bereizkerietatik aldentutako bizitza aktiboa eta osasungarria izateko, ongizate psikosoziala iristeko, eta pertsonetikiko eta ingurunearekiko hartu-emanak eta elkarreragina hobetzeko bizitzaren esparru guztietan.

Inguruneko informazioa hauteman behar du jarduera fisiko bat egiten duen pertsona orok, subjektibotasuna eta esperientzia baliatu behar ditu informazio hori aztertzeko, egoera eta testuinguru sozialari egoki zaizkion erabakiak hartu behar ditu, eta erabaki horiek betetzen

saiatu behar du. Era berean, etengabe egokitu behar du ekintza egitean gertatzen diren aldaketetara.

Kontuan izan behar da jarduera fisikoak, berez, adierazpen kulturalak direla, kultura jakinetan sortu eta garatutakoak, eta kultura horien balioak eta ideiak barneratzen dituztenak. Alde horretatik, gizartearen kultura fisikoaren osagai dira jarduera fisikoak, eta kultura horren jokabide-ereduak adierazten dituzte.

Gizarte guztietan egiten dira jardun edo ariketa fisikoak, eta jardun horien esparru dira, besteak beste, osasuna, aisia eta jolasa, kultura-errituak, ikuskizunak, komunikabideak eta hezkuntza formala eta informala. Gure gizartearen ondare motorraren eta kulturalaren osagai dira jarduera horiek guztiak, eta garrantzi handikoa da, beraz, haien aniztasuna eta aberastasuna zaintzea. Izan ere, ugari dira jarduera fisikoen egoera eta testuinguru askotarikoak, eta ugari dira, era berean, jarduera horien ezaugarri sozialak. Alde horretatik, jarduera fisikoak aztertzean, kontuan hartzekoak dira, besteak beste, jarduera horiek egiten dituztenen ezaugarriak, jarduerak egiteko lekuak eta uneak, jardueretan erabiltzen diren produktuak eta produktu horien kontsumoa.

Gorputz Hezkuntza bide oso egokia da konpetentzia motorraren alderdi sozioemozionala lantzeko eta garatzeko; batetik, jolas- eta bizipen-izaera duelako, eta bestetik, talde heterogeneo baten barruan sortzen diren giro, testuinguru eta ingurune askotariko eta aldakorretako etengabeko ikaskuntza-egoerak baliatzen dituelako.

Adierazpen korporal eta dramatikoek alderdi ludikotik lantzen dute jarduera fisikoaren dimentsio sozioemozional hori. Nork bere burua eta norberaren emozioak ezagutzea eta ulertzea da gainerako pertsonen sentimenduak ezagutu eta ulertzeko bidea, eta bide hori urratu behar da, era berean, harremanak izan eta elkar ulertzeko, helburu komunak lortu eta gatazkak konpontzeko bitartekoak diren aldetik.

Dimentsio sozioemozionalaren alderdi dira egoera emozionalak ezagutzea, hautematea eta erregulatzea, nork bere burua motibatzeke gai izatea, besteren emozioak onartzea eta harremanak kontrolatzea. Bestela esanda, zerikusia dute nork bere buruaren kontzientzia izatearekin eta nork bere burua erregulatzearekin, motibazioarekin, enpatiarekin eta trebetasun sozialarekin. Konpetentzia motorra lantzeak eragin nabarmena du eguneroko bizitzaren alderdi askotan; izan ere, lagungarri da norberaren gatazkak eta lan-gatazkak gainditzeko eta konpontzeko, jokabide antisozialak eta kaltegarriak prebenitzeko, pertsonetik harremanak hobetzeko familian eta eremu afektibo, sozial eta profesionalean, osasun fisiko ona izateko eta geure buruarekin eta ingurunearekin harmonian bizitzeko behar den ongizate psikosoziala erdiesteko.

Jarduera fisiko guztiek dute eraginen bat, handiagoa edo txikiagoa, pertsonaren osasun-dimentsio guztietan, baina berariaz dira nabarmentzekoak ariketa fisikoan oinarritzen diren jarduerak –hau da, luzaketak, gimnastika-ariketak, karrera-entrenamenduak, muskulazio-ariketak, erlaxazioa eta ildo horretako ariketak–, oso egokiak baitira bizimodu osasungarria eta aktiboa izateko. Jarduera horiek ugari eta askotarikoak dira gure gizartean, eta pertsonaren hainbat alderdi lantzea da haien xedea. Alde horretatik, jarduera fisiko askotarikoak egin eta gozatu behar dituzte ikasleek, horiek izango baitira gerora izango dituzten ohitura aktiboen eta egingo dituzten jardueren oinarriak. Konpetentzia motorrak ageriko eragina du osasun-politika arrakastatsua eta iraunkorra egituratzeko, eta horrek eragin zuzena izango du herriaren "osasunean".

Hortaz, ikasleak bizitza aktibo aberasgarri eta osasungarria izateko hezteka da eskolak ikasgai honetan egingo duen lan hezitzailearen oinarritzko helburua, eta lan horren oinarritzko ardatzak gorputza eta jokabide motorra izango dira, haien alderdi eta esanahi guztiak aintzat hartuta.



Konpetentzia motorraren osagaiak aztertu ondoren, agerikoa da erreferentzia funtsezko hau baliatu behar dela ikasgaiaren curriculum osatu eta garatzeko: gizartean mugimenduaren kultura inklusiboa ezarriko dela bermatzea. Kultura horrek jardura fisikoa txertatu eta egonkortu behar du gizartean, eta xede hori lortu behar da bizimodu aktibo eta osasungarriak duen balioaz jabetu ondoren, pertsona guztien ongizatea bermatu eta herriaren nortasuna eta balioak adieraziko dituen aldetik.

Honako arlo eta ikasgai hauek barne hartzen ditu matematikarako konpetentziak:

**Lehen Hezkuntza:**

- Gorputz Hezkuntza.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:**

- Gorputz Hezkuntza.

### 1.3.7.3. Arloaren eta ikasgaiaren ikuspegia

Eduki espezifikoa, irakasteko eta ikasteko metodologia eta ebaluazio-ikuspegia baliatzen ditu Gorputz Hezkuntzaren arloak eta ikasgaiak konpetentzia motorra lortzeko.

Konpetentzia motorraren maila gorena iristeko, batera eta koordinatuta baliatu behar dira jakintzak, prozedurak eta jarrerak. Arloa prozeduretan oinarritzen denez, ikasleak gogotsu eta modu aktiboan parte hartu behar du, ekintzaren bidez landuko baititu konpetentziak. Jokabide motorrak hobetzeko, ezinbestekoa da ezagutzak baliatzea eta egoera bakoitzean jarrera egokia izatea, hau da, adierazpenezko edukiak eta jarrera-edukiak lantzea. Ekintzak eginez hartzen dute horiek guztiek zentzu betea.

Konpetentzia motorra lantzeko behar dituzten ezagutzak eskuratzeko, ikasgaiaren curriculum-edukiak eta curriculumeko gainerako ikasgaietako edukiak garatuko dituzte ikasleek, eta informazioa bilatzeko, hautatzeko, aztertze eta ebaluatzeko prozesu kontzienteak landuko dituzte; hortaz, ikasleek eginkizun aktiboa izango dute beren ezagutzak eraikitze eta eguneratzeko prozesuan. Ezagutza bilatzeko prozesu horren bidez, gure kultura-testuinguru ezagutzeko urratsak emango ditu ikasleak, eta herriaren kulturen eta nortasunean barneratzeko aukera izango du.

Edukiak modu sistematikoan eta orekatuan antolatu behar dira mailaz maila, eta, haien bidez, esperientzia motor ugari eta askotarikoak biziko ditu ikasleak. Esperientzia horiek izango dira, ikaslearentzat, jardura fisikoak egin eta bizimodu aktiboa izateko gaitasunaren oinarria. Edukiak era horretan antolatzeko, hainbat faktore hartu behar dira kontuan; hala nola ikasleen ezaugarriak, interesak eta motibazioak, ikastetxeen eta haien testuinguruaren aukerak, eduki multzoetan jaso behar diren jarduerak –egoera eta eginkizun motor askotarikoak landu behar dira–, jardura motorren balio kulturala, zehar-konpetentziak - komunak eta ikasgaiaren berariazkoak - lantzeko aukerak, eta ikasitakoa bizitzeko hainbat egoeratar transferitzeko aukerak.

Lehen Hezkuntzan eta, batik bat, etapa horretako lehen mailetan, ekintza hezitzaileak bereziki nabarmenduko ditu ingurune fisiko egonkorretan egiten diren jardura fisikoak eta, batik bat, psikomotrizitate-egoerak edo egoera indibidualak lantzen dituztenak. Etapa horretako azken urteetan, arian-arian, beste jardura mota batzuk landuko dira. Ildo horretatik, gero eta gehiago landuko dira egoera soziomotorrak nabarmentzen dituzten jardura fisikoak eta ingurune fisiko ezegonkorretan egiten direnak, ingurune fisikora egokitze premia dakartenak. Ikasleen beharrezkoak, interesak eta bizipenak hartu behar dituzte kontuan proposatzen diren jarduerak. Ikasleen lan-erritmora egokituko dira jarduerak, eta haien esperientziak eta jakintzak integratzeko ahalegina egingo da. Ikasleen garapen-faseari

egokitutako zailtasuna izan behar dute Lehen Hezkuntzan planteatutako egoera motorrek, eta pixkanaka handitu behar da egoera horien zailtasuna, haien eboluzioaren arabera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aurreko etaparen jarraipena egin behar du Gorputz Hezkuntzak. Etengabeko ikaskuntza horretan, gero eta zailtasun-maila handiagoko ikaskuntzak landuko dira. Arian-arian, helduarorako prestakuntza ematen duten egoerak txertatu behar dira, modu adierazkor eta erakargarrian. Era berean, jarduera fisikoen azterketa kritikoa egiteko gaitasuna landu behar da, pixkanaka-pixkanaka.

Saioen metodologiak egokia izan behar du lortu nahi diren hezkuntza-xedeak betetzeko. Ikasteko giro egokia sortzea izango da irakaskuntza-ekintzaren xedea, eta hartu-emanak izateko aukera eman behar die ikasleek, egoera eta testuinguru askotan. Xede hori lortzeko, jarduera hezitzaileekin lortu nahi diren helburuen berri emango zaie ikasleei, eta prozesura bideratuko dira proposamen didaktikoak, ezarritako helburuak lortzeko bitartekoa izan dadin.

Jarduerak eta egitekoak proposatzen direnean, argitasunez eta ondo antolatuta eman behar zaie informazioa ikasleei, erraz uler dezaten. Beharrezko irizten baldin bada, eginkizuna betetzeko informazio funtsezkoari erreparatzen lagunduko zaio ikasleari, esku-hartze hezitzailearen bidez. Irakasleek arreta bereziz landuko dituzte arrakastaren eta porrotaren alderdi afektibo eta emozionalak, eta, praktikaren bidez, lan egingo dute ikasleekin, bidean aurrera egiteko eta ikasteko baliabide berriak deskubritu ditzaten. Alde horretatik, helburu lorgarriak jarri behar dira ikasle guztientzat, eta indargarri positiboak ezarri behar zaizkie iritsitako lorpenei. Lorpen horien bidez, portaerak gero eta eraginkorragoak izango dira eta aurrerapenak egingo dira ikaskuntza-prozesuan. Bizitakoa disfrutatzen laguntzen dute lorpenek, eta pertsona guztien inklusiorako bidea zabaltzen dute.

Hezitzaileak, proposatutako jardueren ezaugarriak aintzat hartuta, ikasleen jokabideak orientatu ditzake; era berean, egoeraren edo egitekoaren ezaugarriak alda ditzake, jardueretan adierazten diren jokabideak aldatzen saiatzeko.

Bizitzan jarduera fisikoak eta kirola garrantzizkoak dituztela jakin behar dute ikasleek. Hori ikasteko, indarrean den mugimenduaren kultura berri eta eraldatzeko proiektu baten moduan planteatu behar da ikasgaia. Proiektu horren helburua izango da jarduera fisikoaren beharrian hori dutela barneratzeko aukera bat ematea genero eta ezaugarri orotako ikasleei, bizitza aktiboa, autonomia eta gogobetea lortzeko bitartekoa den aldetik, eta proiektuaren xede izango da, era berean, ikasleek helburu hori lortzeko behar dituzten kompetentziak eskuratzea eta lantzea. Horrekin batera, ikasteko gogoia piztu eta sustatuko da ikasleengan, eguneroko bizitzan modu kontzientean txerta dezaten jarduera fisikoa.

Beharrianaren eta balioaren kontzientzia hori sortzeko, eta, ondorioz, hari atxikitako kompetentziak eskuratzeko eta lantzeko, ezinbestekoa izango da pertsonak eta taldeak ezagutzeko, bizitzeko eta aritzeko jarduerak egitea, behaketak egitea, hartu-emanak izatea, esperimintatzea, arakatzea, ikertzea eta berritzea; eta hori guztia hezkuntza-giro inklusibo, gogobetegarri eta egoki batean egin behar da, ikaslea erdigunean jarrita.

Ikasteko, esperimintatzeko eta hartu-emanak izateko aukerak izan behar dituzte ikasleek, eta, alde horretatik, irakasleen egitekoa da egoera ugari planteatzea eta testuinguru askotarikoetan integratzea irakasteko eta ikasteko prozesua, bai hezkuntza formalaren esparruan, bai hezkuntza ez formalaren esparruan. Egoera horiek egokiak izan behar dute egiazko ikaskuntza lantzeko, eta ikasleen bizimoduan eragin behar dute, bizitzaren hainbat esparrutan.

Jolasak eta kirolak dira ikasleentzat giro hezitzaile inklusiboa eta gogobetegarria lortzeko tresna nagusia. Horretarako, ikuspegi ludikotik landu behar dira haien adierazpen eta testuinguru askotarikoak. Biak tresna egokiak dira ikasleak egoera fisiko onean izan behar

dutela jabe daitezen eta portaera motor autonomoa izateko behar dituzten ahalmen eta trebetasun fisikoak landu ditzaten.

Gure herriko joko tradizionalak herriaren ondare eta nortasun kulturala adierazten dute, eta kontzientzia kulturala garatzen laguntzen digute. Beste kultura batzuetako jokoek eta gorputz-adierazpenek eta nazioarteko jokoek kulturarteko hezkuntza indartzen dute, eta ondorioz, aberastu egiten dute ikasleen kultura.

Ikasleen konpetentzia sozioemotionala lantzen dute adierazpen dramatiko eta korporaleko jolasek. Norberaren ezagutza eta ulermena zein norberaren emozioak oinarri hartuta, gainerako pertsonen sentimenduak ezagutzen eta ulertzen ditugu jolasaren bidez, eta, finean, pertsonekin harremanetan jartzea eta elkar-ulertzea lortzen dugu, helburu komunak erdietsi eta sortzen diren gatazkak gainditzeko.

Ikasleei ariketa fisikoak eta kirolak proposatu aurretik, kontuan izan behar da Euskal Herriko ingurune naturalak aukera handiak ematen dituela bizi-estilo aktiboak bizitzeko eta lantzeko, eta kontuan izan behar da, era berean, ingurune horretan jarduera fisikoak eta kirolak egiteko tradizio errotu eta zabaldua duela herri honek.

Gorputzaren jardueraren adierazpen horiek guztiek baliagarri izan behar dute eguneroko bizitzan jarduera fisikoak egiteko, osasunaren alderdi guztiak hobetzeko eta bizitza orekatua izateko.

Irakasleak gidari eta baliabide izango dira, eta ikasleekin izaten dituzten hartu-emanetan, ikaslearen rol aktiboa indartuko dute, eta laguntza emango diote ikasleari bere kabuz deskubritu dezan bizi-estilo aktiboak duen balioa. Era berean, bere gorputza eta bere jokabide motorrak ebaluatzen eta kudeatzen lagunduko diote, autonomiaz eta sormenez elkarreragin dezan ingurunearekin, eta osasun eta ongizate emozionalako parametroetan kudea ditzan egiten dituen jarduera fisikoak eta kirolak. Kontzeptuen eta praktikaren arteko loturak egiten lagunduko du irakasleak, ikaskuntza esanguratsuak sustatuko ditu, ikasten nola ikasi behar den irakatsiko du, eta askotariko metodologia osagarriak erabiliko ditu, ikasleen partaidetza indartze aldera.

Ikasteko prozesua erraztea eta ikasleek jarduera fisikoak egin ditzaten sustatzea dira Gorputz Hezkuntzako hezitzailearen egiteko nagusiak. Irakasleak, ikasgai honetan, jarduera fisikoaren praktikak ezagutaraziko ditu, proposatutako jarduerak egiten lagunduko du eta ikasleek konpetentzia motorra gara dezaten sustatuko du.

Ikasleei zer jarduera fisiko proposatuko zaien erabakitzea da irakaslearen egiteko nabarmen bat. Erabaki hori hartzeko, aintzat hartu behar ditu, batetik, jardueraren beraren ezaugarriak eta funtzionamendua –kokapena, egitekoa, materiala, espazioa, denbora eta hartu-emanen nolakotasuna, besteak beste–, eta bestetik, jarduera fisikoaren alderdi sozialak, eta batik bat, ikasleen, ikastetxearen eta jarduera hartuko duen herriaren alderdi sozialak; hau da, irakasleak kontuan izan behar du jarduera zer errealitate konkretuan egingo den.

Ebaluazio-prozesuan, ebaluatu behar da ea ikaslea jabetu den bere eguneroko bizitzan jarduera fisikoak eta kirolak egiteko premiaz, eta ebaluatu behar da, era berean, hori egiteko konpetentziak ote dituen. Alde horretatik, ebaluazio-prozedura hezigarriak eta etengabeak erabili behar ditugu, irakasteko eta ikasteko jarduerekin batera. Ebaluazio modu hori erabilia, ikasleek beren gabeziak eta mugak ezagutu eta zuzenduko dituzte. Hori horrela, informazio egokia eman behar die irakasleak ikasleei hezkuntza-prozesuan zehar, ikasleei kalifikazio bat jartzera mugatu gabe.

Ikasleak ebaluatzeko, planteatzen diren jardueretan ezinbestekoa izan behar du arrazoitzea eta ikaskuntza esanguratsuak egitea, eta jarduera horiek aukera eman behar dute zenbait testuingurutan ebaluatzeko ikasleak zer ezagutza, prozedura eta jarrera eskuratu behar dituen, bizi-estilo aktibo bat egin ahal izateko. Era berean, ikasleen lan pertsonala ezagutu eta

balioesteko ebaluazio-estrategiak diseinatu behar dira. Ikaskuntza-emaitez ez ezik, ikasleak emaitza horiek lortzera eraman dituzten prozesuak ere ebaluatu behar ditugu.

Ikasleek modu kontzientean parte hartu behar dute ebaluazio-prozesuan, nekez izan baitaitezke, parte hartu ezean, ebaluazioaren hobekuntza-eragile. Ikasleak ebaluatzen ditugu ikaskuntza-prozesuaren zer lekutan dauden, non egon beharko luketen eta oraindik zer bide egin behar duten jakiteko.

Jarduera fisikoek eta kirolak eragin zuzena dute, egiaz, ikasleen portaera aktiboko ereduen sorreran. Alde horretatik, ikastetxeak eta bere inguruneak ematen dituen aukerak balia ditzakete Gorputz Hezkuntzako irakasleek eta gainerako irakasleek bizitza aktibo eta osasungarriaren aldeko lan hezitzailea indartzeko. Helburua da ikasleek bizitza sedentariorik ez izatea, Gorputz Hezkuntzako eskoletatik harago.

Irakasleen arteko elkarlanarekin batera, familien laguntza bilatu behar da jarduera fisikoak eta kirolak sustatzeko irakastorduetatik kanpo. Jarduerak ikuspegi hezitzailea izan behar dute eta ekintza hezitzailearen jarraipena izan behar dute; beraz, xede hori lortzeko, jarduera fisikoek lotura egokia izan behar dute irakaskuntza-jarduerekin.

#### 1.3.7.4. Integrazio-egoerak

Konpetentzia izateko, modu integratuan erabili behar dira norberak eskuratu dituen baliabideak, erronka edo arazo diren egoerak ebazteko. Gainditzeko moduko zailtasun-maila izan behar dute arazo eta egoerek, baina, era berean, ikasleentzat erronka izan behar dute. Askotariko "familia" edo multzotan aurkeztu arren, antzeko konplexutasun-maila dute arazoek, eta, ondorioz, parametro paretsuko baliabideak erabili behar dira haiek konpontzeko.

Ikasleen interesguneak hartu behar dituzte kontuan ikaskuntza eta ebaluazioko egoerek, eta aintzat hartu behar dute nola ulertzen eta interpretatzen duten mundua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gazteek. Ikasleek ez dute mundua berdin ulertzen eta interpretatzen Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; beraz, interesguneek eta ikaskuntza- eta ebaluazio-egoerek ere desberdinak izan behar dute batean zein bestean.

Argibide gisa, egoera batzuk azalduko ditugu, konpetentzia motorra lantzeko egokiak:

Maila **personalean**, proposatutako egoerek egokiak izan behar dute ikasleek ahalmen eta trebetasun fisikoak gara ditzaten, emozioak erregulatzeko gaitasuna landu dezaten, beren buruak motibatze gaitasuna gara dezaten, gainerako pertsonen emozioak aitortu ditzaten eta harremanak kontrola ditzaten. Horrez gainera, ikasleek komunikazioa, adierazpena eta sormena naturaltasunez edo intentzioz lantzeko egoerak proposatuko dira. Proposatutako egoerek, era berean, aintzat hartuko dituzte osasuna eta elikadura osasungarria, drogen kontsumoak organismoan eta pertsonen portaeran eragiten dituzten ondorio toxikoak, bizimodu aktibo eta osasungarriak, jarduera fisikoaren alderdi hedonista, eta autokontzeptu fisikoari eta ongizate psikologikoari loturiko arazo-egoerak.

Maila **sozialean**, bizimodu sedentario eta ez-osasungarrien eraginak aztertuko dira, jarduera fisikoaren eta kirolaren indar inklusiboa nabarmentzeko. Horrez gainera, kulturen arteko harremanak, kulturen barne-ikuspegia eta horien balioa nabarmenduko dira, jarduera berritzaileak eta ikerketa ezagutzeko egoerak proposatuko dira, eta munduan gaurkotasan handikoak diren jarduera fisikoak eta kirolak aztertuko dira.

Maila **akademikoan**, ikastetxearen eskolako eta eskolatik kanpo testuinguruetan egiten diren jarduera fisikoak eta kirolak proposatuko dira, eguneroko bizitzan ohitura osasungarriak izaten laguntzen dituzten egoerak landuko dira –besteak beste, gorputzaren jarrera hezteak,

erlaxatzea, arnasa kontrolatzea, eta garbitasun arauak betetzea, eta bizimodu aktiboak eraikitzekeo prozesuan eman beharreko urratsak erakutsiko dira.

**Lan-eremuan**, proposatutako egoerek agerian utzi behar dute zer-nolako eragina duten bizimodu aktibo eta osasungarriek jarduera profesionalean eta laneko istripuen sorreran eta estresean; horrez gainera, enpatia, asertibitatea, errespetua eta gizarte-trebetasunak lantzeko egoerak proposatu behar dira, gatazkak konpontzen eta helburu komunak garatzeko lankidetzak indartzen dutenak.

Kompetentzien arabeko hezkuntzaren ikuspegitik, eskolaren rola ezin da mugatu edukiak irakatsi eta ikaslarazterea, egoera konplexuak ebazteko ezagutza eskuragarriak erabiltzen eta transferitzen ere irakatsi behar baitu, ikasleak bizitza pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta lanerako prestatzeko.

### **1.3.7.5. Konpetentzia motorrak ematen duen laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko**

Ikasgai honek izaera ludikoa du, bizipenetan oinarritzen da eta testuinguru eta egoera askotarikoak lantzen ditu; horrenbestez, egokia da etapa honetan zehaztu diren oinarrizko zehar-kompetentziak eta diziplina barneko konpetentziak eskuratu eta lantzeko.

**Arloek eta ikasgaiak ematen duten laguntza oinarrizko zehar-kompetentziak eskuratzeko**

***Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia***

Kompetentzia motor eta sozioemozionalaren funtsezko elementua da komunikazioa. Ikasleek emozioak adierazteko, ingurunean harremanak izateko eta ingurunea bera ulertzeko premia dute.

Gorputz Hezkuntzak komunikazio-harreman ugari lantzen ditu ikuspegi ludiko batetik, eta hori oso egokia da banaka eta taldean garatzeko lengoia anitzeko komunikazio-trebetasunak.

Jolasteko, kirolean aritzeko eta adierazpen dramatiko eta korporalak lantzeko, ezinbestekoa da gorputza jokabide motor baten arabera mugitzea, eta ikasleak, jarduera horiek egiten dituenean, zer emozio bizi dituen identifikatu eta ulertu behar du, eta hitzeko eta hitzik gabeko baliabideez komunikatu behar ditu. Ikasleak, era berean, komunikazioak lantzean eta besteri entzutean, gainerako pertsonen emozioak hauteman behar ditu. Alde horretatik, pertsonetik harreman emozionalak ezarri behar ditu, egoerak beste ikuspuntu batetik hautemateko eta gatazketan erabakiak hartzen lagunduko duten helburu komunak garatzeko.

Gorputz Hezkuntzaren ikasgaiak informatikako eta ikus-entzunezko teknologia berriak baliatzeko aukera ematen du, haiek proiektu sortzaileetan erabilia, baliabideak eta informazioa eskuratzeko eta irakasteko eta ikasteko prozesuetan sakontzeko. Orobat, haien bidez, jarduera fisiko eta kirolen proposamen berriak ezagutu daitezke, bizimodu aktibo eta osasungarriagoak iristeko.

Ikasgaiak, azkenik, aukera ematen du ikuspegi kritiko batetik aztertzekeo komunikabideek gorputzaren, jarduera fisikoaren eta kirolaren gainean zabaltzen dituzten mezuak eta estereotipoak.

***Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia***

Gorputz Hezkuntzako ikasgaiak lantzen dituen egoeren bidez, helburu lorgarriak ezarri eta ikaskuntzaren gaineko erantzukizuna hartzekeo aukera du ikasleak. Helburu horiek ezarrita, testuinguru eta egoera aldakorretan erabiliko ditu bere ezagutzak eta trebetasunak. Horrenbestez, informazioa bilatu eta ulertu behar du, hausnartu eta arrazoitu egin behar du eta sormenez jokatu behar du, eta horrek guztiak erabakiak hartzen lagunduko dio.

***Elkarbizitzarako konpetentzia***

Balioetan hezten laguntzen du Gorputz Hezkuntzak, harremanak kontrolatzeko gizarte-trebetasunak eskuratzen irakasten baitigu; era berean, elkarlanerako, lankidetzarako eta bizikidetzarako jarraibideak ematen dizkigu, eta horiek guztiak egokiak dira, bai hezkidetzara eta genero-berdintasuna lantzeko, bai gatazkak arrazoiaren bidez eta bide baketsuetatik konpontzen trebatzeko.

Bertako joko tradizionalak eta gorputz-adierazpenak, eta beste kultura batzuetakoek, kultura-aniztasuna errespetatzeko jarrera sustatzen dute, herriaren kultura-nortasuna eta kultura horren balioa ezagutzen eta ulertzen laguntzen dute, eta gure kultura aberasten dute.

***Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia***

Ikasgaiak jolas, konfiantza eta lankidetzako inguruneetan lantzen ditu irakasteko eta ikasteko egoerak, eta, haien bitartez, ekimenaren eta ekintzailtzaren alderdiak hezi daitezke.

Konpetentzia motorra lortzen laguntzen da proiektu sortzaile eta berritzaileak landu eta inplementatuta, baldin eta horien helburua baldin bada eskola-ingurunean eta eskolatik kanpo kudeatzea ikasleen gorputz- eta kirol-jarduerak, eta haien ahalmenak eta trebetasunak hobetzea.

***Norbera izaten ikasteko konpetentzia***

Adimen emozionala garatzeko aukera handiak ematen ditu ikaskuntza arlo honek. Eguneroko bizitzako egoerak antzetzeko aukera ematen digu jolasaren testuinguruak, eta antzetzeko bizi dituen egoera askotarikoen bidez, emozioak eta portaera motorra autorregulatzeko aukera izango du ikasleak, baita errealitate-oinarri doitua izango duen autokontzeptua eta autoestimua lantzeko ere. Era berean, autokontzientzia, autokontrola, motibazioa, enpatia eta harremanen kontrola landuko ditu, funtsezko direnak gure nortasuna modu harmonikoan eta orekatuan garatzeko.

**Konpetentzia motorrak ematen duen laguntza oinarrizko diziplina barneko konpetentziak eskuratzeko*****Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia***

Gorputz Hezkuntzaren bitarteko funtsezkoa da hizkuntza, giro integratzaile eta inklusiboak eraikitze baliabide den aldetik. Giro horietan, ezabatu egin behar da hizkuntza sexista, androzentriko eta diskriminatzailea, maiz erabiltzen dena kirol-kutsu handiko jardueraren fisikoetan.

Ikasgaiaren berariazko hiztegiak hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia aberasten du, eta kirolean eta gorputz-jardueretan euskara normaltasunez erabiltzen laguntzen du.

***Matematikarako konpetentzia***

Ezaugarri askotarikoak dituzten espazio ugarian egiten dira jolasak eta kirolak; beraz, ondo ezagutu eta menderatu behar dira espazio horiek. Berariaz, adierazpen dramatikoak eta korporalak lantzeko, funtsezkoa da espazioa eta denbora kontrolatzea.

Matematika-kalkuluak egiten eta estatistika erabiltzen jakin behar da egoera fisikoa hobetu eta indartzeko programak diseinatzeko eta elikadura-ohiturak hartzeko.

***Zientziarako konpetentzia***

Pentsamendu zientifikoa landu eta erabili behar da konpetentzia motorra lortu eta lantzeko xedez egiten den irakasteko eta ikasteko prozesuan; izan ere, prozesu horretan, eredu teorikoak erabili behar dira egoerak ulertzeko. Horrez gainera, jarduerak proposatzen dira

prozesu horretan, eta haien eraginkortasuna ebaluatzeko, emaitzari eta ikaskuntza-prozesuari berari erreparatzen zaie. Hori egin ondoren, egindako proposamena baliozkotzen da edo aldaketak egiten zaizkio egindako proposamen horri.

### ***Teknologiarako konpetentzia***

Gorputz Hezkuntza eta Teknologia uztartuta, bi konpetentzia horiek eskuratzen eta lantzen dira. Elementu teknologikoak erabiltzeko aukera ematen du Gorputz Hezkuntzak, halakoak erabiltzen baitira esperientziak eta ezagutzak trukatzeko, jokabide motorrak aztertzeko, jarduera fisikoa kontrolatzeko, gorputzaren ahalmenak eta trebetasunak lantzeko, eta norberaren gorputz- eta kirol-jarduerak kudeatzeko eta antolatzeko.

### ***Konpetentzia sozial eta zibikoa***

Jarduera fisikoek, kirolek eta adierazpen dramatiko eta korporal anitz eta askotarikoek berezko dituzte komunikazioa, partaidetza eta lankidetzak, eta agerikoa da, hortaz, abilezia eta trebetasun sozialak barne hartzen dituztela. Horrenbestez, konpetentzia sozial eta zibikoa lantzeko bitarteko eraginkorra da ikasgaia.

Arduraren balioa indartu behar du ikasleei proposatutako egoera motorren ikuspegi hezitzaileak, eta, era berean, kiroltasunaren kontrako ekintzen eta osasunarentzat kaltegarri diren jokabideen gaitzespen soziala sustatu behar du.

### ***Arterako konpetentzia***

Arterako konpetentzia lantzen laguntzen du Gorputz Hezkuntzak jolas dramatikoaren, inprobisazioen, pantomima edo mimoaren, dantza sortzailearen eta antzerki-jokoaren bidez; izan ere, kultura- eta arte-adierazpenak ulertzen laguntzen dute jarduera horiek guztiek, eta balioa ematen diete adierazpen kultural eta artistikoei. Horrez gainera, kulturen arteko harremanak lantzen eta adierazteko eta komunikatzeko bestelako baliabideak eskuratzen laguntzen dute.

## 2. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK

Metodologiari eta ebaluazioari buruzko orientabide orokor batzuk adierazten dira atal honetan. Orientabide horiek xehetasun handiagoz azaltzen dira Heziberri 2020 planaren "Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa" agirian.

### 2.1. METODOLOGIA KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK

Ikaskuntza-prozesua kudeatzeko hautatzen den bidea edo estrategia da metodologia, prozesu horretan parte hartzen duten elementu guztiak kontuan hartuta. Nola irakasteari buruzko galderari erantzuten dio. Irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten aldagaien aurrean egindako hautaketek emaitza eta sintesia da.

#### **Ezagutzari buruzko hainbat teoriaren bateragarritasuna**

Hezkuntzak ezagutzen transmisio hutsetik harago joan eta bizitzarako hezi behar duela aldarrikatu dute eragile sozioekonomiko eta pedagogikoek, eta eskaera horri erantzuteko, konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegia sortu da, hainbat diziplinaren ekarpenak baliatuta.

Ikuspegi hori ez da jakintzaren edo ikaskuntzen teoria bakar batean oinarritzen, teoria guztiak izan baitezakete aplikazio-eremuren bat, sustatu nahi dugun ikaskuntza motaren arabera. Esate baterako, inspirazio konduktista eta kognitibista baliagarria izango da errepikapenen bidez eskuratzen diren edukiak irakasteko eta ikasteko (datuak, gertaerak, prozedura algoritmiko eta instrumentalak, jokabide jakinak). Inspirazio konstruktibistak eta soziokonstruktibistak lagungarriagoak izango dira, ordea, kontzeptuak eta printzipioak irakasteko eta ikasteko, eta, oro har, prozedurak asimilatze eta egokitzeko, metakognizio- eta autorregulazio-prozesuen bidez, testuinguru baten barruan.

Konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegian batera aplika daitezke ezagutzari buruzko hainbat teoria, baina konstruktibismoa eta soziokonstruktibismoa dira ikuspegi horri hobekien egokitzen zaizkien teoriak; izan ere; kultura- eta gizarte-egoera guztietan moldatzeko prestakuntza eskuratuko baldin badu, bere bizitzaren eta ikaste-prozesuaren protagonista izan behar du ikasleak.

Konstruktibismoak adierazten du ezagutza ez dela kanpoko objektuen harrera pasiboaren emaitza, eta bai subjektuaren jardunaren fruitua. Lehendik dituen ezagutzak eta eskuratzen dituen ezagutza berriak kontrastatuz eta egokituz eraikitzen du subjektuak bere jakintza. Konstruktibismoa ulertzeko modu bat da soziokonstruktibismoa, eta, haren ustez, eskolan ikasteko, hiru dimentsio hauek parte hartu behar dute, batera eta bereizi gabe:

1. *Dimentsio soziala (S)*. Gainerako ikasleekiko eta irakasleekiko harreman sozialak antolatze alderdiek eta irakaslearen kontrolpean egiten diren irakaskuntza-jarduerek osatzen dute dimentsio hau.



2. *Dimentsio konstruktibista (K)*. Ikaskuntza antolatzearekin lotutako alderdiak dira. Horien bidez, ikasleak, lehendik dakienetik abiatuta, bere ezagutzak eraikitzen ditu, lehendik dituen ezagutzen eta eskuratzen dituen ezagutza berrien arteko harreman dialektikoan.
3. *Dimentsio interaktiboa (I)*. Eskolan ikasten dena antolatzeko alderdiak dira. Horien bidez, ingurune fisiko eta sozialarekiko interakzio-egoerak moldatzen dira, ikasi beharrekoaren ezaugarriak erreparatuta. Bestela esanda, ikaskuntza ez dute diziplina barneko edukiek erabakitzen, eta bai ikasleak zer egoeratan erabiltzen dituen zereginak ebazteko jakintzak.

Ikasgelako esperientziak eta bizipenek eraikitzen dituzte norberaren ezaguerak. Azken hamarkadetan landu eta atxiki diren zenbait ikuspegi kultural eta sozialek nabartu egin dute ikuspegi konstruktibisten zenbait hastapen edo printzipioren izaera indibidualista. Era berean, *testuinguruan errotoetako ikaskuntza* oinarri duen ikuspuntuan, egoerak, testuinguruak eta kultura ezinbestekoak dira ezagutzan eta ikaskuntzan aurrera egiteko. Ikuspegi horretan, lotura estua dute ikasitakoak eta ikaste-testuinguruak, hau da, garrantzitsua da ikasitakoa zer egoeratan ikasi den. Horrek, jakina, eragin zuzena du konpetentzien ikaskuntzan; izan ere, zereginak eta egoerak eskolan bakarrik gauzatzen baldin badira, hau da, "praktika suzedaneak" soilik egiten baldin badira, ezingo dira haiek eguneroko bizitzako beste egoera batzuetara transferitu eta mobilizatu.

Azkenik, ezagutzak eta ikaskuntzak dimentsio sozial eta kulturala dute. Gizartean parte hartzeko modu jakin batekin lotuta dago ikaskuntza, eta horrek ikasitakoa bera ere baldintzatzen du. Alde horretatik, kulturaren ohiko praktikak dira, finean, jarduera egiazko edo autentikoak. Ikastea, beraz, enkulturazio-prozesu bat den aldetik, ez da norbanakoon buruan modu isolatuan gertatzen den zerbait, *komunitate sozial baten praktiketan* parte hartzea da. Interakzio edo hartu-eman soziala, hortaz, osagai ezinbestekoa dugu testuinguruan errotoetako ikaskuntzan.

### **Ikuspegi metodologikoen ezaugarri komunak**

Aniztasun horren barruan, aukera guztiak ezin dira sartu konpetentzien araberako pedagogiaren ikuspuntuan. Irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten aldagaien artean, konpetentziaren araberako ikuspegiaren alderdi bereizgarri hauek nabarmentzen ditugu, metodologiaren gaineko erabakietan eragiten duten aldetik:

- Ekintza konpetenteak egiteko, modu integratuan erabili behar dira eskura dauden baliabideak, arazo-egoerak ebazteko.
- Eskolaren asmo nagusia ez da informazioak eta jakintzak transmititzea, eta bai oinarriko konpetentzien garapena eragitea.
- Baliabideak dira adierazpen, prozedura eta jarrerazko edukiak, baina ezinbesteko dira arazo-egoerak konpontzeko.
- Oinarriko konpetentziak garatu ahal izateko, egoera errealak hartu behar dira aintzat, eta benetako jarduerak proposatu; hala, eguneroko bizitzako arazo nagusiekin lotu behar da ezagutza.
- Oinarriko konpetentzien ikaskuntza esanguratsua izango baldin bada, ikasleak gogoz parte hartu behar du ezagutzak bilatu, ikasi, probatu, haien gainean hausnartu, aplikatu eta komunikatzeko prozesuetan.
- Konpetentziak lantzeko prozesu horretan, ikaskuntza tutorizatzea da irakaslearen egitekoa; hau da, ikasteko prozesuak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea, estimulatzea, laguntzea, ebaluatzea eta bideratzea.

Konpetentzien araberako ikuspegia ikasgelara eramateko, aldaketa metodologiko bat egin behar da; izan ere, ezinbestekoa da, besteak beste, aldian-aldian zereginen arabera lan egitea, jakintzak mobilizatu beharreko baliabidetzat hartzea, ikaskuntza problemetan edo proiektutan oinarritzea, eta ebaluatzeko forma berriak ezartzea. Irakaskuntza-jardunean, halaber, ezagutzak irakasteaz gain, ikasleen testuinguruei lotutako zereginak planteatu behar dira, adierazpen, prozedura eta jarrerazko edukiak mobiliza ditzaten. Konpetentzien araberako ikuspegiak irakasleen rol eta zeregin jakin batzuk aldatzen ditu, eta eginkizun aktiboagoa ematen die ikasleei. Horrek aberastu egiten du irakasleen lana, konpetentziak garatzea izango baita haien lanaren oinarria, eta ez ezaguerak transmititzea eta buruz ikaslaraztea. Irakaslearen lana, batik bat, bideratzailea, bitartekaria, gidaria edo laguntzailea izatea da, eta eginkizun hori betetzeko, "zereginak" edo ikaskuntza-egoerak prestatu behar ditu, arazo-egoerak ebazteko, ezagutzak aplikatzeko edota ikasleen jarduera sustatzeko egokiak.

## 2.2. EBALUAZIOA KONPETENTZIEN ARABERAKO HEZKUNTZAREN IKUSPEGITIK

Proposatzen ari garen hezkuntza-eredu pedagogikoa konpetentzien araberako hezkuntza-ikuspegiari atxikitzen zaio, eta irteera-profila betetzeko, oinarrizko konpetentzia giltzarriak eskuratu behar dituzte ikasleek; horrenbestez, ikaskuntzaren ebaluazioak koherentea izan behar du, ezinbestean, premisa horiekin.

### Ebaluazioaren eginkizunak

Ikasleak ebaluatzearen eginkizuna da haien ikaste-prozesuari eta prozesu horren emaitzei buruzko informazio adierazgarria eskuratzea, zer baliabide eta konpetentzia lortu dituzten jakiteko. Hori horrela, ebaluazio motak bereizi eta modu osagarrian planteatu behar dira:

- Hasierako ebaluazioaren edo diagnostikoaren helburu nagusia da jakitea ikaslea zer egoeratan dagoen irakasteko eta ikasteko prozesua abiatu aurretik, horrela, hezkuntzako esku-hartzea ahalik eta egokien diseinatu ahal izateko. Horrenbestez, une edo fase jakin horretarako aurreikusita dagoen konpetentzia maila da ebaluazio mota horren erreferentzia. Alde horretatik, ekintza konpetenteak egiteko baliabide moduan behar diren adierazpen, prozedura eta jarrerazko edukien gaineko diagnostikoa egingo da.
- Prozesuaren ebaluazioaren edo ebaluazio hezigarriaren helburua da ikaslearen ikasteko prozesu osoak duen garapenari eta bilakaerari buruzko informazioa eskuratzea, edukiak eskuratu dituen eta haiek egoera jakinetan erabiltzen dakien jakiteko. Informazio hori eskuratuta, ikaslearengan hautematen diren indarguneen eta ahulguneen arabera doituko da ikasteko prozesua, eta oztopoak gainditzen lagunduko zaio oztopo horiek hautematek laster, autorregulazioko prozesuak indartzeko. Ebaluazio mota honek du eraginik handiena ikaslearen ikaskuntza-emaitzetan, haren xedea baita prozesu horretan behar diren zuzenketak egitea, azken ebaluazioa gogobetegarria izan dadin laguntzeko, hura egin baino lehen.
- Amaierako ebaluazioa edo ebaluazio batutzaila egitean, kalifikazio bat jartzen zaio ikasleari; hala, estandarizatutako eta arauz ezarritako eskalaren arabera kodetuta adierazten da kalifikazio hori. Hortaz, egiaztatzeko eta, batzuetan, ziurtatzeko izaera du, eta objektiboa izan behar du. Ez da amaierako ebaluazioa ikaslearen ikasteko prozesutik aparte edo isolatuta ulertu behar; aitzitik, prozesu horrek une jakin batean

adierazten duen emaitza dela ulertu behar da. Ikastetxeak berak edo, noizbait ere, kanpoko erakunderen batek egin dezake amaierako ebaluazio hori. Amaierako ebaluazioari erreparatuta hartzen dira zenbait erabaki administratibo, hala nola mailak edo etapak gainditzearen, promozioaren eta titulazioaren gainekoak. Ikasleei egindako ebaluazio batutzaileen emaitza guztiak bildu behar dira, eta beste elementu batzuekin batera kontuan hartu, ikastetxearen beraren ebaluazioa egiteko, bete beharreko prozesua baita hori ere. Era berean, hurrengo ikastaldiaren plangintza orientatzeko diagnostiko-elementua da amaierako ebaluazioa.

Ikastetxeak berak erabaki behar du, ikaskuntza-prozesua nola diseinatu duen kontuan hartuta, zer ebaluazio mota erabiliko duen eta ebaluazio-prozesuak zer fase izango dituen, eta beti beteko ditu, erabaki horiek hartzean, gutxieneko izaeraz ezartzen diren arau orokorrak.

Konpetentzien arabeko hezkuntzaren ikuspegian, barne-koherentziako elementu giltzarria da ebaluazio-egitura osoak koherentzia izatea; horrenbestez, espiritu eta modalitate berberak izan behar dituzte ebaluazio diagnostikoak, hezigarriak eta egiaztatzaile edo ziurtatzaileak.

### **Ebaluazioaren edukiak**

Oinarrizko konpetentzia guztiak, zehar-konpetentziak eta diziplina barnekoak, ebaluatu behar dira konpetentzien arabeko hezkuntzaren ikuspegian, guztiak baitira beharrezko hezkuntza-xedeak erdiesteko. Diziplina barneko oinarrizko konpetentzia baten edo batzuen integrazio-egoera espezifikoa nola betetzen diren ikusita ebalua daitezke diziplina barneko oinarrizko konpetentziak. Bestalde, ezin dira zuzenean ebaluatu oinarrizko zehar-konpetentziak. Konpetentzia horiek ebaluatzeko, ikasleak diziplina barneko oinarrizko konpetentzien integrazio-egoeretan nola integratzen dituen ikusi behar da. Horrenbestez, oinarrizko konpetentziak ebaluatzeko, ikasleari agindutako zereginetan ezinbestekoa izan behar du zehar-izaerako prozedurak eta jarrerak baliatzea, eta berariaz jaso behar dira horiek guztiak lorpen-adierazleetan.

Bizitzarako oinarrizko konpetentzien arabeko ebaluazioa "*ebaluazio autentikoa*" deritzon ikuspegiarekin lotzen da –bizitzako egoera konplexuak simulatzen dituen zereginak planteatzen ditu ebaluazioaren ikuspegi horrek–, eta ikuspegi hori bat dator "*testuinguruan errotutako ikaskuntza*" deritzon ikuspegiarekin –ikasitakoak lotzeko eta bizitza errealean aplikatzeko aukerak eman nahi dizkie ikasleei ebaluazio modu horrek–. Nornahik eguneroko bizitzan aurre egin behar izaten dituen ohiko egoerekin lotuta planteatzen da ebaluazioa, beraz.

Konpetentziak ebaluatzeko, ikasleak askotariko jakintzak erabiltzen dakien egiaztatu behar da, hau da, jakintzak ikasgelan landutakoez besteko testuinguruetan kokatutako egoerak interpretatu eta ebazteko erabiltzen dakien ikusi behar da. Horrenbestez, ebaluaziorako integrazio-egoera espezifikoa sortu behar dira, errealitatekoak simulatuta. Egoera horietan, jakintzak koherentziaz eta eraginkortasunez mobilizatzeko gauza direla erakusteko aukera izan behar dute ikasleak.

Ebaluazioak, era berean, ekintza konpetenteak egiteko behar diren baliabide ugari eta askotarikoak eskuratu diren ebaluatu behar du. Alde horretatik, garrantzi handikoa da ikasleak adierazpenezko ezagueren edukiak barneratu dituen ebaluatzea, baina horien pareko garrantzia dutenez, ebaluatu beharrekoak dira, era berean, prozedurazko eta jarrerazko edukiak ere.

Konpetentzien arabeko ikuspegia hartzen duen hezkuntza-sistemak beti hartu behar du kontuan, ikasleen kalifikazioak zehaztean, baliabideen eskurapenaren ebaluazioari baino garrantzi edo pisu erlatibo handiagoa eman behar zaiola integrazio-egoera konplexuen ebazpenaren ebaluazioari.

## Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak

Ikasleak zer ikasi duen balioesteko irizpideak edo erreferenteak dira ebaluazio-irizpideak. Lorpen-adierazleek jokabide behagarri bihurtzen dituzte ebaluazio-irizpideak, eta, ondorioz, haiek dira ebaluazioaren erreferentzia gailena. Izenak berak adierazten duen moduan, ebaluazio-irizpideek finkatutako lorpena zer probabilitaterekin iritsi den balioesteko zantzu edo seinaleak adierazten dituzte lorpen-adierazleek. Ebaluazio-irizpidea erdietsi izanaren probabilitate maila zehazteko, lortutzat emandako adierazleen kopuruari eta haien egokitasunari erreparatuko zaio.

Bi eginkizun hauek dituzte eranskin honetan azaldutako ebaluazio-irizpideek eta lorpen-adierazleek:

- ***Edukiak ebaluatzeko eginkizuna***

Baliabideak zenbateraino eskuratu diren ebaluatzeko erreferentzia dira ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak, hau da, konpetentziaz jarduteko behar diren adierazpen, prozedura eta jarrerazko edukiak zenbateraino eskuratu diren ebaluatzeko erreferentzia.

Eranskin honetan azalduta dauden moduan, konpetentziaz jarduteko izan behar diren edukiak ebaluatzeko xede zuzena dute ebaluazio-irizpideek eta lorpen-adierazleek.

- ***Konpetentziak ebaluatzeko eginkizuna***

Konpetentziak ebaluatzeko, ezinbesteko da integrazio-egoera konplexuak baliatzea, eta egoera horietan, ez dira ikasitako baliabide guztiak mobilizatu behar, eta bai, soil-soilik, ebaluaziorako sortu den arazo-egoera ebazteko behar direnak. Ikasgaien ebaluazio-irizpideei eta lorpen-adierazleei erreparatu behar zaie, berariaz, egoeren familiekin lotzen diren integrazio-egoera konplexuak ebaluatzeko behar den parametro multzoa hautatzeko.

Atal honetan, diziplina barneko konpetentziak deskribatzean, argibide moduan azaltzen dira egoeren familien adibide batzuk, oinarrizko konpetentziak eskuratzen laguntzeko egokiak. Lorpen-adierazleak testuinguruan kokatu behar dira, baina egoeren familietan egoera ugari bildu daitezke; beraz, ez da jardun konpetenteak ebaluatzeko integrazio-egoerarik proposatuko eranskinetan, eta ez dira lorpen-adierazleak zehaztuko.

Horrenbestez, landutako egoeren familietako parametroekiko koherentziari eutsita, hirugarren konkrezio mailan zehaztuko da, ezinbestean, konpetentzien ebaluazioa, eta, horretarako, oinarrizko konpetentziekin lotutako integrazio egoerak sortuko dira, erreferentzia izan daitezen, bai irakasteko eta ikasteko prozesuan, bai konpetentzia horiek ebaluatzeko prozesuan.

Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak ezinbestean lotzen dira irteerako profileen finkatutako konpetentziekin eta konpetentzia horiek baliatzeko egoeren familiekin, eta alde aurretik zehaztu eta ikasleek ondo ezagutu beharrekoak dira. Lorpen mailak neurtzeko elementu giltzarri eta erreferente ezinbestekoak dira biak ala biak, ebaluazio-prozesu osoa orientatzen dute, eta emaitzak objektiboak eta justiziazkoak izango direla bermatzen dute. Hori horrela, integrazio-egoerak zuzentzeko erduek laburtuta adierazten dituzte konpetentzien zehaztapen edo konkrezio mailak, eta, alde horretatik, tresna eragile giltzarriak dira ikasleak oinarrizko konpetentziak eskuratu dituen neurtzeko.

Kasu bakoitzean zer komeni den ikusita, neurketa kuantitatiboak edo kualitatiboak egin daitezke, baita mistoak ere, biak proportzioen batean edo bestean uztartu nahi izanez gero. Ebaluazio kualitatiboak izaera global, intuitibo eta subjektiboa du, eta kuantitatiboak, berriz, dedukzioa baliatzen du, irizpideetan oinarrituta eta kuantifikaziorako tresnak baliatuta. Bi ikuspegi horien bidez egindako balioespenak aldera daitezke ebaluazio mistoaren bidez.

**BIGARREN ZATIA: LEHEN  
HEZKUNTZAKO  
CURRICULUMAREN  
BERARIAZKO IKUSPEGIA**

# 1. HIZKUNTZA- ETA LITERATURA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

## 1.1. EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

### 1.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura arloetako etapako helburuak:

1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.
2. Norberaren esperientziatik gertueneko esparruetan eraginkortasunez, errespetuz eta elkarrekin lan egiteko gogoz bai ahoz eta bai idatziz komunikatzeko gai izatea, unean uneko komunikazio-premiei behar bezala erantzuteko.
3. Hizkuntzen erabileraren oinarriko konbentzio eta arauetara buruz gogoeta egitea, eta konbentzio zein arauok behar bezala aplikatzea, testuak ulertzeko eta sortzeko prozedura nagusiak aintzat hartuta.
4. Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzea eta entzutea, eta, hala, literaturaz gozatzen ikastea, horrek sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko, norberaren hizkuntza-ondarea aberasteko eta identitate kulturala eraikitzeke aukera ematen duen aldetik.
5. Eskolako eta norbera bizi den inguruneko hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzea, aniztasun horrekiko jarrera positiboa barneratzeko, eta hizkuntzak komunikaziorako baliabide eraginkortzat eta kultura-ondaretzat hartzea, portaera linguistiko enpatikoak garatzeko eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzeko.
6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.
7. Norbaiten laguntzarekin norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, komunikaziorako konpetentzia hobetzeko.

## 1.1.2. EDUKIAK

### 1.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den 1. eduki multzoak oinarriko zehar-kompetentziak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak jasotzen ditu. Arlo eta ziklo guzti-guztietan landu eta ebaluatu behar dira edukiok.

Gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egiteko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak lantzea, horixe da curriculumaren muin eta ardatza. Trebetasun horiekin lotuta ikasi beharrezkoak hiru eduki multzotan biltzen dira: 2. eduki multzoan ("Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea"), 3. eduki multzoan ("Idatzizko komunikazioa, irakurtzea eta idaztea") eta 4. eduki multzoan ("Literatura-hezkuntza"). Ikaskuntza horiekin estu lotuta, bai 5. eduki multzoan ("Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta") eta bai 6. eduki multzoan ("Hizkuntzaren alderdi soziala"), biltzen dira hizkuntza-sistemarekin, hizkuntzaren erabilera-arauekin eta hizkuntzen eta hiztunen arteko erlazioekin lotutako edukiak.

Eduki multzook modu analitikoan aztertzen dituzte hizkuntza- eta literatura-hezkuntzaren osagaiak, eta ziklo bakoitzean irits daitezkeen lorpen-mailak ere adierazten dituzte, baina ez dute ezertxo ere esaten ikasgelan egitekoak diren ikaskuntza-jardueren ordenaz nahiz antolaeraz. Hori dela eta, programazioak egitean eta jardueren sekuentzia ikasgelara eramatean, beharrezkoa izango da bloke guztietako edukiak elkarrekin ondo uztartzea. Gogoratu beharra dago prozedurazko edukiak hartzen dituztela oinarri arlo hauetan egitekoak diren lanek, eta eduki horien zerbitzura daudela adierazpeneko edukiak.

Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako kompetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko; gainera, ezinbestekoak dira trebetasun kognitibo-linguistikoak garatzeko eta arlo guztietako ezagutzak eraikitzen laguntzen dute. Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, beharrezkoa da eskolak euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu.

Era berean, garbi esan behar dugu hitz egitea eta entzutea, bai eta irakurtzea eta idaztea ere, elkarrekin estu lotuta daudela, eta, beraz, komeni dela ikaskuntza-jardueren sekuentzian hizkuntza-erabileraren bi alderdiak, ulerkuntza eta ekoizpena, integratzea.

Literatura-hezkuntzarekin lotutako edukiak 4. eduki multzoan jasotzen dira, eta hauxe dute helburu nagusia: lehen zikloan, gure ikasleak irakurtzen ohitu daitezten saiatzea; eta bigarren zikloan, beren irakurzaletasuna sendotu dezaten ahalegintzea, horrela literaturaz gozatzen ikas dezaten. Etapa honetan, beste edozeinetan baino gehiago, literatura gozamen-iturritzat hartzen da: hizkuntzaz eta hizkuntza-baliabideez gozatzeko bidetzat, alegia.

Hizkuntza-sistemaren osagai diren elementuei eta hizkuntza-arauei buruzko gogoetarekin lotutako edukiak uztartzea eta integratzea hartzen du helburu 5. eduki multzoak ("Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta"). Trebetasun linguistiko-komunikatiboak barneratzea eta lantzeak hizkuntzen alderdi kontestual, diskurtsibo eta gramatikalez gogoeta egin beharra dakar, eta hain zuzen horrexegatik landuko dugu hemen 5. eduki multzo hori. Etapa honetan, gure haurrak irakurtzen eta idazten hasten direneko lehen urratsei arreta berezia jarriko zaie, ikasleek prozesu horretan behar bezala aurrera egin dezaten.

6. eduki multzoan ("Hizkuntzaren alderdi soziala") eduki ugari lantzen dira: hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen arteko erlazioak, besteak beste. Eleaniztasuna ezaugarri duen gaur

egungo gizarte konplexu honetan, euskal gizartea elebitasun gorabeheratsu batetik testuinguru eleaniztun batera igarotzeko urratsak egiten ari da. Hori dela tarteko, behar-beharrezkotzat jotzen dugu ikasleek beren inguruneko egoera soziolinguistikoaz gogoeta egitea, horrela hizkuntza-aniztasunaren eta euskararen normalizazio-prozesuaren aldeko jarrera hartuz joan daitezten.

Ikasleen komunikaziorako konpetentzia lantzea, horixe da hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren helburu nagusia, eta hori dela eta, hain zuzen, ezinbestekoa da hizkuntza-erabilerekin lotutako trebetasunak hobetzearen mende jartzea 5. eta 6. eduki multzoetako edukiekin lotutako jardueren programazioa.

Etapako bi zikloetan zehar ikasi beharrekoen mailaketa egiteko, irizpide hauek hartuko ditugu oinarri: batetik, praktika diskurtsiboen eta ikasleen esperientzia linguistiko eta kulturalaren arteko hurbiltasuna; bestetik, testuen barne-antolaearen konplexutasun-maila; eta, azkenik, testuak ulertzeko eta ekoizteko abiaburu izan litezkeen helburu askotarikoak.

### 1.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak

Eduki multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.



- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako ahozko testuak ulertzea: narrazioak, norberarengandik gertueneko bizipenen, gertaeren nahiz pasadizoen kontakizunak, poemak, abestiak, emozio eta iritzien adierazpenak, jarraibideak, azalpenak, deskribapenak...
- Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko ahozko testuak sortzea: narrazioak, norberarengandik gertueneko bizipenen, gertaeren nahiz pasadizoen kontakizunak, emozio eta iritzien adierazpenak, jarraibideak, azalpenak, deskribapenak...
- Informazioa modu gidatuan antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, ahozko testuak ekoiztea helburu hartuta.
- Harreman interpertsonaletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan eta egoera interaktiboetan parte hartzea eta kooperatzea.
- Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren oinarrizko arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen jardunari arreta jartzea, besteen iritziekiko errespetua...
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarriak eta espresio-elementu espezifiko garrantzitsuenak.
- Ikasgelan landutako ahozko generoen funtsezko ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, oinarrizko hizkuntza-elementuak...
- Komunikazio-egoeretan modu proaktiboan eta konfiantza osoz aktiboki parte hartzearen aldeko interesa izatea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

## 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako idatzizko testuak ulertzea: oharra, jakinarazpenak, gonbidapenak, albisteak, ipuinak, poemak, jarraibideak, deskribapenak.
- Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako idatzizko testuak sortzea: eguneroko bizitzako bizipenen eta gertaeren kontakizunak, ipuinak, oharra, jakinarazpenak, deskribapenak, azalpenak, eskema soil-soilak...
- Informazioa modu gidatuan antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, idatzizko testuak ekoiztea helburu hartuta.
- Idatzizko testuen ulermen-prozesuan zenbait estrategia modu gidatuan erabiltzea eta transferitzea.

- Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia modu gidatuan erabiltzea eta transferitzea.
- Ikasgelan landutako idatzizko generoen funtsezko ezaugarriak: helburua, egitura, hizkuntza-elementu espezifikoak...
- Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko interesa izatea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.
- Idatzizko kodearen arauak barneratzea.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Zenbait euskarritan emandako literatura klasikoko eta haur-literaturako lanak (ipuin, poema, kontakizun, antzerki-lan...) modu gidatuan irakurtzea, eta, gero, norberaren esperientziak besteenekin kontrastatzea.
- Ipuin, kontakizun, poema eta bertso laburrak denen artean irakurtzea eta entzutea.
- Literatura-testuak modu dramatizatuan irakurtzea eta abesti, poema eta bertsoak errezitatzea.
- Ipuinak, poemak, kontakizunak eta bertsoak ahoz nahiz idatziz modu gidatuan eta zenbait eredutan oinarrituta birsortzea eta ekoiztea.
- Ikasgelako eta eskolako liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzea.
- Ikasgelako nahiz eskolako literatura-jardueretan parte hartzea.
- Ahozko nahiz idatzizko literatura-generoak: genero narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.
- Bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk.
- Beste literatura-adierazpen batzuk: komikia, zinema...
- Literatura-testuak irakurtzearen aldeko interesa izatea.

#### 5. MULTZOA. Hizkuntza eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko oinarrizko desberdintasun formalei modu gidatuan igartzea.
- Zikloan zehar landutako genero testualen oinarrizko zenbait ezaugarri identifikatzea: ipuinak, kontakizunak, poemak eta abestiak, albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, jarraibideak, aurkezpenak, debateak, iruzkinak, kritikak, eztabaidak, deskribapenak...
- Ikasgelan landutako zenbait hizkuntza-baliabide identifikatzea: lokailuak, puntuazio-markak...
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan aditz-formak identifikatzea; hauek, nagusiki: iraganaldikoak, narrazioen kasuan; eta orainaldikoak, deskribapenen kasuan.
- Zikloan zehar landutako ahozko nahiz idatzizko testuetan agertzen diren hitz-familiak identifikatzea.
- Komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) alderatzea eta transformatzea, eta horretan, zenbait irizpide aintzat hartzea, hizkuntzak nola funtzionatzen duen aztertzea.

- Euskararen oinarrizko hizkuntza-elementuak modu progresiboan ezagutzea eta erabiltzea, perpausaren osagaiak elkarrekin lotzeko, eta horretan, batez ere deklinabidean jartzea arreta.
- Oinarrizko gramatika-kategoriak identifikatzea: izenak, izenondoak, aditza.
- Testu-prozesadoreetako zuzentzaile ortografikoak erabiltzen hastea.
- Kalkoak eta hizkuntzen arteko transferentziak identifikatzea.
- Zenbait euskarritan argitaratutako eskola-hiztegiak modu gidatuan erabiltzea, hitz ikasi berriek zer esan nahi duten jakiteko eta barneratzeko.
- Idazketaren oinarrizko arauak behar bezala erabiltzea.
- Soinu eta grafiek hizkuntzaren sisteman zer-nolako lotura duten jakitea.
- Oinarrizko ortografia- eta fonetika-arauak.
- Huts egitea hizkuntzak ikasteko prozesuaren ezinbesteko partetzat hartzea.
- Idazketa-arauak:
  - Hitza, idazketa segmentatzeko oinarrizko baliabidea.
  - Letrak: izenak eta fonemekiko duten egokitasuna.
  - Idazketaren norabidea eta zentzua, linealtasuna, paper gaineko banaketa, hitz-banaketa.
  - Letra larri eta xeheak.
- Idazketaren arauak errespetatzearen aldeko jarrera izatea.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Norberak inguruan (ikasgelan, etxean...) dituen pertsonen zer hizkuntza dakizkiten eta erabiltzen dituzten identifikatzea.
- Norberaren biografia linguistikoa identifikatzea.
- Eskolan euskara erabiltzearekin lotutako egoeretan parte hartzea.
- Norberak hurbilen dituen euskararen aldaera dialektalak identifikatzea eta aztertzea.
- EAEko hizkuntzak.
- Norberaren inguruko hizkuntzak.
- Elebidun eta eleaniztun izateak norberari dakarkion aberastasuna balioestea.
- Norberaren hizkuntza-errepertorioa zabaltzearen aldeko interesa izatea.
- Inguruko hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren aldeko jarrera balioestea.
- Euskara eskolako esparru guztietan erabiltzearen aldeko jarrera proaktiboa izatea.
- Nesken eta emakumeen ekarpenak agerian jartzeko eta ezein bazterketa mota dakarten hizkuntza-adierazpenak ez erabiltzearen aldeko interesa izatea.

### 1.1.2.3. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak

Eduki multzo honetako prozedura eta jarrerren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Harreman interpersoneletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako ahozko testuak ulertzea: kontakizunak, poemak, abestiak, albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, jarraibideak, aurkezpenak, debategiak, iruzkinak, kritikak, eztabaidak, deskribapenak...
- Harreman interpersoneletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako ahozko testuak ekoiztea: kontakizunak, poemak, abestiak, albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, jarraibideak, aurkezpenak, debategiak, iruzkinak, kritikak, eztabaidak, deskribapenak...

- Informazioa antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, ahozko testuak ekoiztea helburu hartuta.
- Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea.
- Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen iritziekiko errespetua, kortesia-arauak...
- Ahozko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.
- Ahozko testuen ulermen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.
- Hizkuntza batean eskuratutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea beste hizkuntzan dauden testuak hobeto ulertzeko eta ekoizteko.
- Ahozko komunikazioaren oinarriko ezaugarriak eta espresio-elementu espezifikoak.
- Ikasgelan landutako ahozko generoen funtsezko ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu espezifikoak...
- Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Harreman interpersoneletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako idatzizko testuak ulertzea: kontakizunak, ipuinak, albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, jarraibideak, aurkezpenak, iruzkinak, kritikak, egunkarietako gutunak, eskaera-orriak...
- Harreman interpersoneletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako idatzizko testuak ekoiztea: kontakizunak, ipuinak, albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, jarraibideak, aurkezpenak, iruzkinak, kritikak, egunkarietako gutunak, eskaera-orriak...
- Informazioa antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, idatzizko testuak ekoiztea helburu hartuta.
- Idatzizko testuen ulermen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.
- Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.
- Hizkuntza batean eskuratutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea beste hizkuntzan dauden testuak hobeto ulertzeko eta ekoizteko.
- Ikasgelan landutako idatzizko generoen funtsezko ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu espezifikoak...
- Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko interesa izatea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Zenbait euskarritan emandako literatura klasikoko eta haur-literaturako lanak (ipuin, poema, kontakizun, antzerki-lan...) modu autonomo eta gidatuan irakurtzea, eta, gero, norberaren esperientziak besteenekin kontrastatzea.
- Ipuin, kontakizun, poema eta bertso laburrak denen artean irakurtzea eta entzutea.
- Literatura-testuen irakurketa dramatizatua egitea eta abestiak, poemak eta bertsoak errezitatzea, eta horretan, tonua, erritmoa, ahoskera eta abiadura zaintzea.
- Aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz eta zenbait eredutan oinarrituz, ipuinak, poemak, kontakizunak eta bertsoak ahoz nahiz idatziz birsortzea eta ekoiztea.
- Aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz, ikasleen adinarekin bat datozen literatura-testuen erreseinak eta laburpenak egitea.
- Ikasgelako eta eskolako liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzea, eta testuak ondo aukeratzea, gero eta modu autonomoagoan nor bere lehentasunen berri emanez.
- Ikasgelako nahiz eskolako literatura-jardueretan parte hartzea.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri batzuk identifikatzea.
- Ahozko nahiz idatzizko literatura-generoak: genero narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.
- Bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk.
- Beste literatura-adierazpen batzuk: komikia, zinema...
- Literatura-testuak irakurtzearen aldeko interesa izatea.

#### 5. MULTZOA. Hizkuntza eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko oinarritzko desberdintasun formalei modu gidatuan igartzea.
- Hizkuntzaren lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun nagusiei igartzea.
- Zikloan zehar landutako genero testualen oinarritzko ezaugarriak identifikatzea: kontakizunak, poemak eta abestiak, albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, jarraibideak, aurkezpenak, debateak, iruzkinak, kritikak, eztabaidak, deskribapenak...
- Oinarritzko hizkuntza-baliabideak identifikatzea, ahozko nahiz idatzizko testuak kasuan kasuko komunikazio-egoeretara moldatzeko: erregistroa eta oinarritzko esplikazio-prozedurak.
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan oinarritzko kohesio-mekanismoak identifikatzea: denborazko lokailuak, izen-ordezkapenak eta puntuazio-markak.
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan aditz-formak identifikatzea; hauek, nagusiki: iraganaldikoak, narrazioen kasuan; eta orainaldikoak, deskribapenen kasuan.
- Zikloan zehar landutako ahozko nahiz idatzizko testuetan agertzen diren eremu lexiko-semanticokoak eta hitz-familiak identifikatzea.
- Hitzen oinarritzko osaera-mekanismoak identifikatzea: elkarketa eta eratorpena.

- Komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) alderatzea eta transformatzea, eta horretan, aurrez emandako zenbait irizpide aintzat hartzea, hizkuntzak nola funtzionatzen duen aztertzeke.
- Zikloan zehar landutako testuetan oinarritzko egitura sintaktikoak identifikatzea: subjektua eta predikatua.
- Euskararen oinarritzko hizkuntza-elementuak modu progresiboan ezagutzea eta erabiltzea, perpausaren osagaiak elkarrekin lotzeko, eta horretan, batez ere deklinabidean jartzea arreta.
- Oinarritzko gramatika-kategoriak identifikatzea: izenak, izenondoak, determinatzaileak, pertsona-izenordainak, aditza.
- Testu-prozesadoreetako zuzentzaile ortografikoak erabiltzen hastea.
- Hizkuntzaren erabilera sexista ekiditeko, zuzentzaile ortografikoak erabiltzen hastea.
- Bi hizkuntzetan berdina den oinarritzko hizkuntza-terminologia ulertzea.
- Ikaskuntza-hizkuntza nagusian eskuratutako ezaguerak erabiltzea, gainerako hizkuntzetan alderdi linguistikoez gogoeta egiteko.
- Kalkoak eta hizkuntzen arteko transferentziak identifikatzea.
- Zenbait euskarritan argitaratutako eskola-hiztegiak modu autonomoan erabiltzen hastea, hitz ikasi berriek zer esan nahi duten jakiteko eta barneratzeko.
- Zikloan zehar landutako generoen egitura testualak: kontakizuna, albistea, erreportajea, elkarrizketa, jarraibideak, aurkezpena, debatea, iruzkina, kritika, eztabaida, deskribapena...
- Kohesio-elementuak: denborazko lokailuak, ordezkapen lexiko eta pronominala, oinarritzko puntuazio-markak.
- Perpaus bakuna: osagaiak.
- Aditz-jokoa: denbora eta pertsona.
- Hitza: kategoriak, osagaiak, oinarritzko osaera-mekanismoak.
- Hitzen arteko erlazio semantikoak eta zikloan zehar erabilitako oinarritzko lexikoa.
- Oinarritzko ortografia- eta fonetika-arauek.
- Huts egitea hizkuntzak ikasteko prozesuaren ezinbesteko partetzat hartzea.
- Alderdi linguistikoez gogoeta egitearen garrantzia balioestea, horrek norberaren ekoizpenak erregulatzeko eta modu autonomoan ikasteko aukera ematen duen aldetik.
- Hizkuntzaren erabilera-arauek zer-nolako garrantzia eta balio soziala duten aintzat hartzea, horrek hiztunon arteko komunikazioa errazten duen aldetik.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Mundu osoan hizkuntza-aniztasuna nagusi dela aintzat hartzea.
- Norberarengandik hurbileneko eskola- eta gizarte-testuinguruan nagusi den hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzea.

- Norberaren biografia linguistikoa eta norberak dakizkien hizkuntzak erabiltzeko gaitasuna zabaltzeak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Euskararen erabilera zabaltzearen eta normalizatzearen alde eskolan eta norberaren inguruan egiten diren ekimenetan parte hartzea.
- Euskararen aldaera dialektal adierazgarrienak identifikatzea eta aztertzea, ahozko nahiz idatzizko testuen bitartez.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko estereotipo eta aurreiritzi ohikoenak identifikatzea.
- Hizkuntzak munduan: eleaniztasuna.
- Hizkuntzak estatuan eta EAEn: ezaugarri nagusiak.
- Hizkuntzak EAEn: elebitasuna, hizkuntza-normalizazioa.
- Hizkuntza estandarra. Norberaren inguruan nagusi diren euskararen aldaera dialektalak.
- Elebidun eta eleaniztun izateak norberari dakarkion aberastasuna balioestea.
- Norberaren hizkuntza-errepertorioa zabaltzearen aldeko interesa izatea.
- Inguruko hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren aldeko jarrera balioestea.
- Euskara bai eskolan eta bai gainerako gizarte-esparruetan erabiltzearen aldeko jarrera proaktiboa izatea.
- Nesken eta emakumeen ekarpenak agerian jartzen eta ezein bazterketa mota dakarten hizkuntza-adierazpenak ez erabiltzearen aldeko interesa izatea.

#### 1.1.2.4. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkeztu diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

#### 1. Literatura idatzia (zerrenda orientagarria)

- **Pello Añorga** (*Ipuin kontalariaren lapikoa; Ni ez naiz txerria, 2003; Gure hiztegi magikoa; Haur zero lurterra; Gerlari handia; Txinpartaren izakiak, 2002; Zuni...*)
- **J. K. Igerabide** (*Gauetz zoo batean, 1994; Begi-niniaren poemak, 1992; Egun osorako poemak eta beste, 1993; Egizu lo; Lotarako ipuinak; Tanta baten istorioa; Printsesa begi-zulo; Paularen zazpi gauak; Mintzo naiz isilik...*)
- **P. Zubizarreta** (*Matias Ploff-en erabakia; Eztia eta ospina, 1995; Urrezko giltza; Marrastuidazu ipuin bat; Paularen zazpi gauak; Xia Tenzinen bidaia miresgarria; Gizon izandako mutila, 1997...*)
- **A. Lertxundi** (*Tristeak kontsolatzeko makina; Gizon kabalen piurak, 1984; Begira, begira; Musubero mon amour, 2000; Tradizioaren leihotik; Aizak eta aizan elkarrekin dantzan; Ezkutuko maitea; Letrak kalekantoitik, 1996 ...*)
- **M. Murua** (*Maripuzker, 2002; Hiritik mendira, 2008; Mari Domingi eta Olentzero, 2008; Martin Txiki eta Basajaunak, 2008; Zapatillak eta galtzak, 2008; Jon Zikinen anaia, 2008...*)



- **X. Olaso** (*Auskalo! Igarkizun eta aho-korapiloak, 200; Pupun trapua, 2004; Hotsateko basoa, 2005...*)
- **M. A. Landa** (*Amona, zure lholdi, 2000; Alex, 1990; Izeba txikia, 1998; Elefante txori-bihotza, 2001; lholdi, 1988; Galtzerdi suizida, 2001; Marlene taxizapata, 2002; Maitagarria eta desioa, 2012; Errusika, 1988; Julieta, Romeo eta saguak; Nire eskua zurean, 1995; Krokodiloa ohe azpian, 2002...*)
- **B. Atxaga**, (*Chuck Aranberri dentista baten etxean, 1982; Xola ehitzan, 2000; Jimmy Potxolo, 1984; Bambulo. Lehen Urratsak, 1998; Flannery eta bere astakiloak, 1987; Txitoen istorioa; Nikolasaren abenturak eta desabenturak, 1980; Ramuntxo detektibea, 1980; Antonino Apretaren istorioa, 1982; Asto bat hypodromoan, 1984...*)
- **M. A. Meabe** (*Mila magnolia lore, 2010; Uneka... Gaba, 1986; Bisita, 2001; Itsaslabarreko etxea, 2001; Joanes eta Bioletaren bihotza, 2002; Etxe bitan bizi naiz, eta zer?, 2003; Nola zuzendu andereño gaizto bat, 2003; Urtebete itsasargian, 2006...*)
- **Kirmen Uribe** (*Garmendia eta zaldun beltza, 2003...*)
- **J. M. Iturralde** (*Zikoinen kabian sartuko naiz, 1986; Londresen nago aitonarekin, 1987; Ijitoak dauzkat nire etxean, 1988...*)
- **F. Juaristi** (*Tristuraren teoria, 1993; Ilargi-lapurra, 1994; Eguzkiren etxea, 1998; Laura eta itxasoa, 1998; Animalien inauteria, 1999...*)
- **Txiliku** (*Zozoa eta biok, 1982; Muxi eta Puxi, 1987; Zazpi egun ditu asteak, 1986; Zenbakiak ikasi ditut; 1986; Arreba txiki bat dut, eta zer?, 2002; Amona Blasi eta Herensuge kumea, 2002; Osaba Bin Floren; 2003; Jokin Galtxagorri, 2004; Alfonbra berria, 2006; Mixi marrau, 2007; Zaldun beltzak, 2008; Euskal mitologia haurrentzat, 2010; Oihaneko epailea, 2013...*)
- **J. Ormazabal** (*Maripertxenta, 1993; Esaera zaharrak eta txiste berriak, 1994; Hitzak jostailu, 1994; Fernando Amezketarra, 1994; Kittano, 1995; Lazkao Txiki, 1995; Zipritin, 1996; Azenario erraldoia, 1998; Haizemari, 1998; Nola ibili munduan, ohetik jaiki gabe, 1998; Olentzeroren oparia, 1998; Patxibusa, 1998...*)
- **M. J. Minaberry** (*Marijane konta zan, 1998; Itchulingo anderea, 1963; Xoria kantair, 1965...*)
- **Imanol Urbietta** (*Artea ikastolan, 1972; Haur kantarien birlarak, 1974; Lau katu eta danbor bat, 1987; Alavatik Arabara, 1988; Txin eta Txan...*)
- **Xabier Etxaniz** (*Nire belarriak, 1984; Patxiki, 1985; Haur Folklorearen bilduma, 1986; Igarkizunak, 1986; Ilun, 1987; Gola katu trabezista, 1990; Zer dela eta zer dela, 1993; Musu lapurra 2001...*)
- **Bitoriano Gandiaga, X Lete, J. Artze, J. M. Lekuona, J. M. Irigoien, B. Atxaga...ren poemak**
- **Abestiak** (poematan oinarritutako kantak...)
- ...

## 2. Ahozko Euskal Literatura

- **Koplak:** Santa Agedako koplak, dantza koplak...
- **Genero epiko-lirikoa:** alegiak, ipuinak eta ele zaharrak. Baladak.
- **Heziketa generoa:** haur jolasak, sehaska kantak eta igarkizunak.
- **Egunerokoak:** atsotitzak, zirtoak, txisteak...
- **Bertsolaritzaren historia:**
  - Ahozko inprobisazio kantatua kultura errealitate unibertsal gisa.
  - Gaur egungo bertsolaritza: emakumearen parte-hartzea, gazteengan duen arrakasta...
  - Bertsolaritzaren historia: (zerrenda orientagarria)
    - XVIII -XX (erdia) mendek: Fernando Amezketarra, Bilintx, Xenpelar, Txirrita... Milia Lasturkoa, Josepa Aranberri "Xenpelar"...
    - 1940z gerozkoak: Xalbador, Lazkao Txiki...
    - Bertsolari txapeldunak: Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.
    - Gaur egungoak: tokian tokiko bertsolariak.
- **Bat-batekoa:**
  - Ezaugarriak: atzekoz aurrerako teknika, betelana...
  - Metrika eta baliabideak: doinua, neurria eta errima.
  - Bertso moldeak: koplak txikia eta handia; zortziko txikia eta zortziko handia.
  - Doinu eredugarriak: Errota zahar maitea, Ama Begira zazu, Itsasoa laino dago, Amak ezkondu ninduen, Uxo zuria, Furra furra, Ikusi nuenean, Xarmangarria zira, Maritxu nora zoaz, Antton eta Maria, Pello Josepe...
  - Bat-bateko jarduera nagusiak: gaia jarrita elkarrizketa osatzea eta ariketak (puntutan aritzea hainbaten artean, lau oinak emanda bertsoa osatzea...).
- **Bertso-paperak:**
  - Ezaugarriak eta testuingurua.
  - Bertso paper eta sorta eredugarriak: (zerrenda orientagarria): "Pasaiaiko plazatik": Xenpelar; "Triste bizi naiz eta" Bilintx; "Ume eder bat": Joxemari Iparragirre; "Markesaren alaba": Iturrino; "Orioko balearenak": Anonimoa; "Nire sentimentua": Antonio Urbietak; "Egun da Santi Mamiña": Gabriel Aresti; "Bizkaiko txerriarena": Uztarri; "O baseritxo": Lazkao Txiki; "Batetikan korrozka": A. Egaña eta A.M. Peñagarikano; "Mendian gora haritza": X. Amuriza; "Gizon arruntaren koplak" Xabier Lete; "Amaren alabak" Miren Amuriza eta Maialen Arzallus; "Ai Zapotxin" Andoni Egaña eta Jon Sarasua

## 5. MULTZOA. Hizkuntza eta haren erabilerei buruzko gogoeta

### 1. Testuingurua

- Adierazpen-markak

- Deixi pertsonala: pertsona-izenordainak, edutezko izenordainak (*nire, zure, haren,..*) eta aditz-hondarkiak<sup>1</sup>.
- Denbora- eta espazio-deixiak: adberbioak eta adberbio-lokuzioak, adberbiozko mendeko perpausak, aditz-aldiak (*orainaldia, iraganaldia, geroaldia*), aspektua (*puntuakaria, burutua, burutugabea*)...
- Modalizazio-markak:
  - Ziurtasuna, zalantza eta probabilitatea adierazteko esamoldeak: moduzko aditzak, aditz-modua, adberbioak eta adberbio-lokuzioak, perpaus-modalitatea...
  - Baloraziozko esamoldea: izena, adjektiboa, aditza, adberbioa...; hitzik gabeko baliabideak: tipografikoak, ikonografikoak...
- Erregistroa: erregistro-lexikoa, hizkuntzaren aldaera sozial nahiz geografikoak.
- Forma ez-murrizgarriak eta birformulatzekoak
  - Aposizioa, definizioa, adibidez adieraztea, bukatu gabeko esaldiak, elipsia...

## 2. Testua

- Gaien progresioa ziurtatzeko baliabideak: anaforikoak edo erreferentziatzeko mekanismoak
  - Sinonimoak, hiperonimoak, izenordainak (pertsonalak, erakusleak), erlatibozko esaldiak, nominalizazioa, elipsia...
- Testu-mailako loturak: lokailuak eta testu-antolatzaileak (denbora, espazioa, ordena, gehikuntza, hierarkizazioa, kausa-ondorioa, kontrastea...)
- Sintaxi-mailako loturak: juntagailuak, menderagailuak, adberbioak, aditz-denbora, baliabide prosodikoak, puntuazio-markak, osagai tipografikoak...
- Testu motak (*narrazio-testua, deskribapen-testua, instrukzio-testua*) eta haien ezaugarriak

## 3. Perpausak

- Perpausa
  - Perpaus motak: bakunak eta elkartuak (juntadura eta menderakuntza: denborazkoa, kausazkoa, ondoriozkoa, aurkaritzakoa...).
  - Perpausen egitura: subjektua eta predikatua.
  - Unitate sintaktikoak eta haien osagaiak: izen-sintagma, aditz-sintagma, adjektibo-sintagma...
  - Perpausaren osagaien arteko lotura: deklinabidea, ordena, komunztadura...
- Hitza
  - Maila gramatikalak: izena, adjektiboa, aditza, mugatzailea, izenordaina, adberbioa...
  - Oinarritzko lexikoa.

<sup>1</sup> Aditz-erro bati eransten zaion elementu gramatikala, numeroa, kasua, pertsona, generoa, etab. azaltzen duena, eta deklinagaiari nahiz aditz horren paradigmatari dagokion forma bakoitza egiteko erabiltzen dena.

- Hitzen arteko harreman semantikoa: sinonimoak, antonimoak eta hiperonimoak, eremu semantikoak...
- Hitzen osaketa: osagaiak, eratorpena, hitz-elkarketa...
- Mailegutza eta zabalkuntza semantikoa

#### 4. Ahoskera, prosodia, hitzik gabeko baliabideak eta ortotipografia

- Euskararen berezko fonemak, aldaketa fonetikoak hitzaren baitan eta ahozko katearen baitan, diptongoa, intonazioa...
- Esaldien erritmoa, esaldien intonazioa eta azentua
- Hitzik gabeko komunikazioa: keinuak, aurpegia, gorputza, proxemia...
- Arau ortografikoak: hitzaren ortografia, puntuazio-markak, letra larriak, laburdurak, siglak...

#### 5. Kalko okerrak eta desegokitasunak

- Perpaus barneko elementuak (*bat* ala *-a*, *desberdin*, kopurua/kantitatea/neurria, aspektuari lotuak...)
- Perpausetik gorakoak (*bezala*, anafora/katafora, gerundio narratiboa...)
- Ahoskerari lotuak (diptongoak, yeismoa, hitz-katea...)

#### 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Europako hizkuntzak. Amarauna Languages: Unescoaren lana.
- Hizkuntzak Estatuan eta EAEn.
- Hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak. Eleaniztasuna. Elebitasuna. Diglosia.
- Euskararen ofizialtasuna EAEn. Hizkuntzaren normalizazio prozesua: trantsiziotik gaur arte. Herri ekimenak eta erakundeak. Komunikabideak. Interneteko baliabideak.
- Euskararen erabilera sexista ekiditeko gomendioak eta baliabide digital erabilgarriak.
- Euskara zaintzeko eta babesteko erakundeak: Euskaltzaindia, Euskal Kultur Erakundea-Institute Culturelle Basque (EKE-ICB),...
- Euskara batuaren garrantzia, euskararen berreskurapenean.
- Gertuen dituen euskalkiak. Euskalkiak hizkuntza estandarra aberasteko bide (Labayru).
- Euskara bultzatzeko ekimenak eta programak eskolan, herrian,...(Ulibarri programa,...).
- Hizkuntza-eskubideak defendatzeko erakundeak. Elebide –Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua -, Hizkuntza-eskubideen Behatokia,...

### 1.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

1. Harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi diren moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen

**bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, informazio garrantzitsuena ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.**

- Badaki ikasgelan erabili ohi diren ahozko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.
  - Entzuketan lanetarako beharrezkoa den informazioa bereizten du.
  - Testuko gaia eta ideia nagusiak ulertzen ditu.
  - Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako baliabideak modu gidatuan erabiltzeko: fitxak, taulak...
  - Oso nabarmenak diren bazterketa-adierazpenei igertzen die.
  - Gai da ahozko testuak ulertzean sortzen zaizkion zalantzak argitzeko eskura dituen estrategia sinpleak modu gidatuan erabiltzeko.
  - Badaki adi-adi entzuten eta solasaldietan parte hartzen.
  - Badaki besteei errespetu osoz entzuten.
- 2. Harreman interpersoneletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako idatzizko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatzea.**
- Badaki ikasgelan landu ohi diren idatzizko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.
  - Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
  - Gai da irakurgaiaren helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.
  - Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako baliabideak modu gidatuan erabiltzeko: taulak, kontzeptuzko mapak...
  - Gai da androzentrikoak, sexistak eta bazterketazko zenbait adierazpeni igartzeko.
  - Gai da idatzizko testuak ulertzen saiatzean sortzen zaizkion arazoak konpontzeko eskura dituen estrategia egokiak modu gidatuan erabiltzeko.
  - Idatzizko testuak ulertu nahian ari dela, elementu grafiko eta ikonikoak uztartzen ditu.
- 3. Harreman interpersoneletan, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testu soil-soilak sortzea norbaiten laguntzarekin.**
- Gai da komunikazio-egoeraren oinarriko ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko: hartzailea, testuaren helburua...
  - Badaki egoeraren arabera erabaki pertinentek hartzen: informazio pertinentearen erregistroa...
  - Badaki ahozko testuetako edukia modu gidatuan antolatzen, eta, horretarako, oharrak hartzen ditu, eskemak eta gidoiak egiten, eta abar.
  - Gai da proposatzen zaizkion iturrietan informazioa bilatzeko, eta badaki informazio pertinentea aukeratzen, kasuan kasuko helburua zein den kontuan hartuta.

- Ahozko testua txukun-txukun aurkezten du.
  - Gai da, bere ahozko ekoizpenetan, euskarri digitalen bat eta/edo IKT baliabideren bat irakasleen laguntzarekin erabiltzeko.
  - Era onargarrian ahoskatzen eta intonatzen du.
  - Gai da bere gorputz-jarrera eta keinuak alde edo moldez kontrolatzeko.
  - Badaki oso ohikoak diren bazterketazko adierazpenak erabiltzeari uko egiten.
- 4. Bai ikasgelako eta bai eskolako eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, eta horretan, komunikazio-trukearen oinarritzko arauak errespetatzea.**
- Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan.
  - Gai da solasaldiak behar bezala hasi, jarraitu eta amaitzeko.
  - Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.
  - Solaskideari entzuten dio, eta gai da entzundakoa aintzat hartuta erantzuteko.
  - Gai da galdera bat edo beste egin eta/edo azalpen egoki eta garrantzitsuak emateko.
  - Badaki testuinguruarekin bat datozen hitz eta adierazpenak erabiltzen.
  - Gai da bere intonazioa, gorputz-jarrera eta keinuak alde edo moldez kontrolatzeko.
- 5. Harreman interpersonean, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko idatzizko testu soil-soilak paperean nahiz euskarri digitalean sortzea norbaiten laguntzarekin eta eredu argiak oinarri hartuta.**
- Gai da ekoizpen-prozesuko urratsei modu gidatuan jarraitzeko: plangintza egitea, testua idaztea eta testua berrikustea.
  - Gero eta modu eraginkorragoan darabil idazketa-sistema, eta, horretan, gai da oinarritzko konbentzioak behar bezala erabiltzeko: fonema-grafia egokitasuna, hitzen segmentazioa eta puntuazio-marka bat edo beste.
  - Txukun-txukun sortzen ditu idatzizko testuak.
  - Bere ekoizpenetan idazketa-kodearen arauak errespetatzen ditu.
  - Oinarritzko arau morfosintaktiko eta ortografikoak errespetatzen ditu.
  - Testua txukun-txukun aurkezten du: marjinak errespetatzen ditu...
  - Gai da modu gidatuan idatzizko testuak berrikusteko, horiek hobetu eta berridazteko.
  - Gai da modu gidatu eta kolaboratzailean idatzizko testuak berrikusteko.
- 6. Testu, enuntziatu eta hitzak elkarrekin alderatu eta transformatu, eta hizkuntza-sistemari eta hizkuntzaren erabilera-arauei buruz gogoeta egitea, ezaguera horiek ulermen-arazoak konpontzeko eta testualizazio- eta berrikusketa-prozesuak hobetzeko erabiltzea, eta, aldi berean, idazketa-sistemaren erabilera finkatzen hastea.**
- Ikasgelan landutako testuetan identifikatzen ditu enuntziatuak, hitzak eta silabak.
  - Identifikatzen ditu bai gramatika-kategoriak (izena, aditza) eta bai oinarritzko gramatika-arauak.
  - Bere ekoizpenetan oinarritzko arau morfosintaktikoak errespetatzen ditu: deklinabidea, komunztadura...

- Testuak ulertzen eta sortzen ari dela, gai da landutako ezaguera linguistikoak modu gidatuan aplikatzeko.
  - Gai da, proposatutako irizpideetan oinarrituta, testu soil-soilak zuzen eta egoki osatzeko eta transformatzeko.
  - Gai da, proposatutako irizpideetan oinarrituta, bai bere eta bai besteen testuetan oinarritzko hutsegite linguistikoak identifikatzeko eta zuzentzeko.
  - Bere ekoizpenetan hizkuntza-arauak errespetatzearen aldeko interesa du.
  - Gai da bai bere eta bai besteen testuetan dakizkien hizkuntzen arteko zenbait kalko identifikatzeko eta zuzentzeko.
  - Eskolako hizkuntzan landutako ezaguera linguistikoak darabiltza gainerako hizkuntzetan egin beharreko ulermen- eta ekoizpen-lanak hobetzeko.
- 7. Zikloan zehar landutako oinarritzko terminologia linguistikoaren berri jakitea, eta terminologia hori testuak ulertzearekin eta sortzearekin lotutako hizkuntzaren erabilerari buruzko jardueretan erabiltzea.**
- Zikloan zehar landutako oinarritzko terminologia ulertzen du, eta gai da hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretako azalpenei eta jarraibideei jarraitzeko.
  - Zikloan zehar landutako oinarritzko terminologia darabil hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretan.
- 8. Irakurzaletasuna lantzea, eta proposatutako testuak modu autonomoan irakurtzeko gai izatea.**
- Proposatutako literatura-testuak irakurtzen ditu.
  - Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du.
  - Aktiboki parte hartzen du irakurritako literatura-testuei buruzko solasaldietan, eta bere esperientzien eta ikuskeren berri ematen du.
  - Ikasgelako nahiz eskolako literatura-jardueretan parte hartzen du.
  - Irakurketaren aldeko interesa du.
- 9. Gai izatea bai haur-literatura klasikoko eta bai gaur egungo haur-literaturako testuak ulertzeko eta erreproduzitzeko, eta horretan, ahozko nahiz idatzizko literaturari buruzko bere ezaguerak erabiltzea.**
- Bere interesekin bat datozen literatura-generoetako testuak arreta handiz irakurtzen eta entzuten ditu.
  - Aktiboki parte hartzen du denen artean adostutako esanahiak eraikitzeke negoziazio-prozesuetan.
  - Gai da ahozko eta idatzizko literatura-testuen zentzu orokorra ulertzeko.
  - Gai da bai ahozko eta bai idatzizko literatura-testuen oinarritzko ezaugarriak identifikatzeko.
  - Aktiboki parte hartzen du poemen, bertsoen eta narrazioen dramatizatzeko, birsortze- eta errezeitze-jardueretan, eta horretan, ahoskera, azentua, erritmoa eta intonazioa zaintzen ditu, batetik, eta eszenaratze-lanak errazteko estrategiak erabiltzen ditu, bestetik.

- Gai da baten baten laguntzarekin ahozko eta idatzizko literatura-testuak zenbait euskarritan sortzeko, eta horretan, ikasgelan landutako literatura-testuren bat hartzen du eredu, eta bere ideia eta bizipenak erabiltzen ditu.
- 10. Norberaren ikasgelako eta etxe inguruko errealitate linguistikoa zein den jakitea, eta errealitate linguistiko hori balioestea.**
- Badaki zer hizkuntzak osatzen duten bere hizkuntza-errepertorioa, eta gai da ikaskide eta ezagunena identifikatzeko.
  - Badaki zein diren bere inguruan hitz egiten diren hizkuntzak.
  - Gai da bere inguruko hizkuntzen erabilera-eremu eta -egoerak identifikatzeko.
  - Badaki zein diren inguruan dituen euskararen aldaera dialektalak.
  - Hitzun eta hizkuntzen aldeko interesa eta errespetua du, eta haiekiko aurreiritziak baztertzen ditu.
  - Bere inguruko hizkuntza-aniztasuna balioesten du.
- 11. Ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak hartuz joatea, eta eskolan euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera izatea.**
- Eskolako komunikazio-trukeetan euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera du.
  - Eskolan euskaraz antolatutako jardueretan parte hartzen du.
  - Euskara erabiltzearen aldeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.
- 12. Informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko prozesuan, norbaiten laguntzarekin informazioaren teknologiak erabiltzeko gai izatea, eskolan egunero sortzen zaizkion premiei aurre egiteko.**
- Gai da baten baten laguntzarekin irakasleak ordenagailu bidez nahiz online emandako informazioa aurkitzeko eta berreskuratzen.
  - Ahozko nahiz idatzizko testuak ekoizteko beharrezkoak diren baliabide eta aplikazio batzuk modu gidatuan erabiltzen ditu, bai bakarka eta bai taldean.
- 13. Gai izatea baten baten laguntzarekin norberaren ikaskuntza linguistikoaz gogoeta egiteko, eta horretan, nork bere ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea.**
- Ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesuan kontrol-zerrendak erabiltzen ditu modu gidatuan.
  - Bai bere eta bai besteen sormen-lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan parte hartzen du modu gidatuan.
  - Huts egitea hizkuntzak ikasteko prozesuaren ezinbesteko partetzat hartzen du, eta bere burua hobetzearen aldeko jarrera du.
  - Ikaskuntzan aurrera egitearen aldeko jarrera du.

### 1.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. Zikloa

1. Harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.



- Badaki ahozko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.
  - Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
  - Igartzen dio gaiari eta igorlearen asmoari.
  - Gai da ideia nagusiak bereizteko.
  - Gai da entzuketa-lanen helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.
  - Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako zenbait baliabide modu eraginkorrean erabiltzeko: fitxak, taulak, kontzeptuzko mapak...
  - Badaki gertaerak eta iritziak bereizten.
  - Igartzen die oso nabarmenak diren sexista eta bazterketa-adierazpenei.
  - Gai da ahozko testuak ulertzean sortzen zaizkion zalantzak argitzeko eskura dituen estrategia egokienak erabiltzeko.
  - Badaki besteei aktiboki entzuten.
  - Badaki besteei errespetu osoz entzuten.
- 2. Harreman interpersoneletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako idatzizko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.**
- Badaki ikasgelan landu ohi diren idatzizko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.
  - Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
  - Erraz igartzen dio gaiari eta igorlearen asmoari.
  - Gai da ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko.
  - Gai da irakurgaiaren helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.
  - Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako zenbait baliabide erabiltzeko: fitxak, taulak, kontzeptuzko mapak...
  - Badaki gertaerak eta iritziak bereizten.
  - Gai da testutik abiatuta oso nabarmenak diren inferentziak egiteko.
  - Erraz igartzen die bazterketa-adierazpenei.
  - Gai da idatzizko testuak ulertzen saiatzean sortzen zaizkion arazoak konpontzeko eskura dituen estrategia egokiak erabiltzeko.
  - Ondo uztartzen ditu, idatzizko testuak ulertu nahian ari dela, elementu grafiko eta ikonikoak.
  - Ondo erabiltzen du, testu digitalak ulertu nahian ari dela, elementu multimodalen esanahia.
- 3. Harreman interpersoneletan, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testu soil-soilak**

**sortzea norbaiten laguntzarekin, eta horretan, bai ikus-entzunezko teknologia berriak, bai IKTak eta bai hitzeko zein hitzik gabeko baliabideak txukun eta egoki erabiltzea.**

- Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko: hartzailea, testuaren helburua...
- Komunikazio-egoera zein den kontuan hartuta, erabaki pertinenteak hartzen ditu: erregistro nahiz euskarri egokiak hautatzen ditu...
- Badaki ahozko testuetako edukia antolatzen, eta, horretarako, oharrak hartzen ditu, eskemak eta gidoiak egiten, eta abar.
- Badaki hainbat iturri erabiliz informazioa bilatzen, eta gai da, bere helburua zein den kontuan hartuta, informazio garrantzitsuena hautatzeko.
- Ahozko testua txukun-txukun aurkezten du.
- Bere ahozko ekoizpenetan euskarri bisual eta IKT baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen ditu.
- Ahoskera garbia dauka.
- Gai da bere gorputz-jarrera eta keinuak behar beste kontrolatzeko.
- Badaki androzentrikoak, sexistak eta bazterketazko adierazpenak erabiltzeari uko egiten.

**4. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, eta horretan, komunikazio-trukearen oinarriko arauak errespetatzea.**

- Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan.
- Badaki egoerarekin bat datorren hizkuntza-erregistroa erabiltzen.
- Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.
- Oso adi entzuten die solaskideei, eta haiek esandakoari estu lotuta hitz egiten du.
- Garrantzi handiko galdera eta ohartarazpenak egiten ditu.
- Badaki testuinguruarekin bat datozen hitz eta adierazpenak erabiltzen.
- Intonazio, gorputz-jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.

**5. Harreman interpersonean, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko idatzizko testu soil-soilak paperean nahiz euskarri digitalean sortzea norbaiten laguntzarekin.**

- Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko: hartzailea, testuaren helburua...
- Komunikazio-egoera zein den kontuan hartuta, erabaki pertinenteak hartzen ditu: erregistro nahiz euskarri egokiak hautatzen ditu...
- Badaki idatzizko testuetako edukia antolatzen, eta, horretarako, oharrak hartzen ditu, eskemak eta gidoiak egiten, eta abar.
- Badaki hainbat iturri erabiliz informazioa bilatzen, eta gai da, bere helburua zein den kontuan hartuta, informazio garrantzitsuena hautatzeko.
- Txukun-txukun sortzen ditu idatzizko testuak.
- Testuko informazioa paragrafotan banatzen du.

- Oinarrizko kohesio-elementuak erabiltzen ditu: oinarrizko lokailuak, sinonimoak...
  - Oinarrizko arau morfosintaktiko eta ortografikoak errespetatzen ditu.
  - IKT baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen ditu, bere idazlanak sortu eta zabaltzeko.
  - Testua txukun-txukun aurkezten du: marjinak errespetatzen ditu...
  - Gai da idatzizko testuak berrikusteko, horiek hobetu eta berridazteko.
  - Gai da modu gidatu eta kolaboratzailean idatzizko testuak berrikusteko.
- 6. Testu, enuntziatu eta hitzak elkarrekin alderatu eta transformatu, eta hizkuntza-sistemari eta hizkuntzaren erabilera-arauei buruz gogoeta egiteko gai izatea, eta ezaguera horiek ulermen-arazoak konpontzeko eta testualizazio- eta berrikusketa-prozesuak hobetzeko erabiltzea.**
- Gai da, zikloan zehar landutako testuetatik abiatuta, testuinguruarekin eta testuarekin lotutako hizkuntza-adierazle batzuk identifikatzeko.
  - Gai da bere ekoizpenetan oinarrizko sintaxi-egiturak identifikatzeko eta erabiltzeko.
  - Ondo identifikatzen ditu bai gramatika-kategoriak (izena, izenondoa, aditza) eta bai oinarrizko gramatika-arauek.
  - Bere ekoizpenetan oinarrizko arau morfosintaktikoak errespetatzen ditu: deklinabidea, komunztadura...
  - Testuak ulertzen eta sortzen ari dela, gai da landutako ezaguera linguistikoak modu gidatuan aplikatzeko.
  - Gai da, proposatutako irizpideetan oinarrituta, testu soil-soilak zuzen eta egoki osatzeko eta transformatzeko.
  - Gai da, proposatutako irizpideetan oinarrituta, bai bere eta bai besteen testuetan oinarrizko hutsegite linguistikoak identifikatzeko eta zuzentzeko.
  - Bere ekoizpenetan hizkuntza-arauek errespetatzearen aldeko interesa du.
  - Gai da bai bere eta bai besteen testuetan dakizkien hizkuntzen arteko zenbait kalko identifikatzeko eta zuzentzeko.
  - Eskolako hizkuntzan landutako ezaguera linguistikoak darabiltza gainerako hizkuntzetan egin beharreko ulermen- eta ekoizpen-lanak hobetzeko.
- 7. Zikloan zehar landutako oinarrizko terminologia linguistikoaren berri jakitea, eta terminologia hori testuak ulertzearekin eta sortzearekin lotutako hizkuntzaren erabilerari buruzko jardueretan erabiltzea.**
- Zikloan zehar landutako oinarrizko terminologia ulertzen du, eta gai da hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretako azalpenei eta jarraibideei jarraitzeko.
  - Zikloan zehar landutako oinarrizko terminologia darabil hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretan.
- 8. Irakurtzeko ohitura izatea, eta literatura gozamen-iturritzat eta mundua ezagutzeko bidetzat hartzea.**
- Proposatzen zaizkion literatura-testuak irakurri eta gozamen-iturritzat hartzen ditu.
  - Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du.

- Aktiboki parte hartzen du irakurritako literatura-testuei buruzko solasaldietan, eta bere esperientzien eta ikuskeren berri ematen du.
  - Ikasgelako nahiz eskolako literatura-jardueretan parte hartzen du.
  - Irakurketaren aldeko interesa du.
- 9. Gai izatea bai haur-literatura klasikoko eta bai gaur egungo haur-literaturako testuak ulertzeko eta erreproduzitzeko, eta horretan, ahozko nahiz idatzizko literaturari eta konbentzio literario espezifikoiei buruzko norberaren ezaguerak erabiltzea.**
- Bere interesekin bat datozen literatura-generoetako testuak arreta handiz irakurtzen eta entzuten ditu.
  - Aktiboki parte hartzen du denen artean adostutako esanahiak eraikitzeke negoziazio-prozesuetan.
  - Gai da ahozko eta idatzizko literatura-testuen zentzu orokorra ulertzeko.
  - Gai da bai ahozko eta bai idatzizko literatura-testuen zenbait ezaugarri identifikatzeko.
  - Aktiboki parte hartzen du poemen, bertsoen eta narrazioen dramatizatzeko, birsortze- eta errezitatzeko-jardueretan, eta horretan, ahoskera, erritmoa, azentua eta intonazioa zaintzen ditu, batetik, eta eszenaratze-lanak errazteko estrategiak erabiltzen ditu, bestetik.
  - Gai da, aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz, ahozko eta idatzizko literatura-testuak zenbait euskarritan sortzeko, eta horretan, ikasgelan landutako literatura-testuren bat hartzen du eredu, eta bere ideia eta bizipenak erabiltzen ditu.
- 10. Norberaren inguruan hitz egiten diren hizkuntzak identifikatzea eta balioestea.**
- Gai da inguruan dituen pertsonen hizkuntza-errepertorioaren parte diren munduko hizkuntzak identifikatzeko.
  - Badaki zein diren estatuko hizkuntza ofizialak.
  - Hizkuntzen aldeko interesa eta errespetua du, eta haiekiko eta hiztunekiko aurreiritziak baztertzen ditu.
- 11. Norberaren ikasgelako, eskolako eta etxe inguruko errealitate linguistikoa zein den jakitea, eta errealitate linguistiko hori balioestea.**
- Badaki zein den bere inguruan hitz egiten diren hizkuntzen egoera: estatusa eta ezaguera- eta erabilera-maila.
  - Gai da ikasgelan nahiz eskolan hitz egiten diren hizkuntzen erabilera-ohiturak aztertzeke, balioesteko eta ohitura eraikitzaileak proposatzeko.
  - Gai da bere inguruan kontaktuan dauden hizkuntzen arteko interakzio-egoerak identifikatzeko.
  - Gai da bai gaztelaniaren eta bai euskararen (euskara batua eta euskalkiak) aldaera nagusiak identifikatzeko, eta beren komunikazio-balioa aitortzen du.
  - Bere inguruko hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasuntzat hartzen du.
- 12. Ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak hartuz joatea, eta eskolan euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera izatea.**
- Eskolako komunikazio-trukeetan modu proaktiboan erabiltzen du euskara.
  - Eskolan euskaraz eta euskararen alde antolatutako jardueretan parte hartzen du.

- Euskara erabiltzearen aldeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.
- 13. Informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko prozesuan, norbaiten laguntzarekin informazioaren teknologiak erabiltzeko gai izatea, eskolan egunero sortzen zaizkion premiei aurre egiteko.**
- Gai da informazioa bilatzaileetan eta beste iturri batzuetan modu gidatuan bilatzeko eta aurkitzeko.
  - Gai da baten baten laguntzarekin informazioa ordenagailu bidez nahiz online gordetzeko eta berreskuratzeke.
  - Ahozko nahiz idatzizko testuak eta testu multimodalak ekoizteko beharrezkoak diren baliabide eta aplikazioak erabiltzen ditu, bai bakarka eta bai taldean.
  - Gai da, irizpide batzuei jarraituz eta elkarlanean arituz, iturrien fidagarritasunaz gogoeta egiteko.
- 14. Gai izatea norberaren ikaskuntza linguistikoaz gogoeta egiteko, eta horretan, norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, horrela nork bere burua erregulatzen ikasteko.**
- Modu gidatuan erabiltzen ditu eskolako hizkuntza nagusia ikasteen landutako erregulazio-estrategiak, gainerako hizkuntzen ikaskuntza hobetzeko.
  - Ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesua gidatzen duten kontrol-zerrendak erabiltzen ditu, eta haiek egiteko lanetan parte hartzen du.
  - Bai bere eta bai besteen sormen-lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan parte hartzen du modu gidatuan, eta besteen ekarpenak balioesten ditu.
  - Gai da hizkuntzarako konpetentzian aurrera egiteko aukera ematen dioten egoerak eta jarduerak modu gidatuan identifikatzeko.
  - Huts egitea hizkuntzak ikasteko prozesuaren ezinbesteko partetzat hartzen du, eta bere burua hobetzearen aldeko jarrera du.
  - Hizkuntzen ikaskuntzan aurrera egitearen aldeko jarrera du.

## 1.2.- ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA

### 1.2.1.- ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira Atzerriko Lehen Hizkuntza arloko etapako helburuak:

1. Eskola-eremuko komunikazio-egoeretan norberaren esperientziekin eta interesekin estu lotuta sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.
2. Norberaren esperientziatik gertueneko esparruetan eraginkortasunez, errespetuz eta elkarrekin lan egiteko gogoz bai ahoz eta bai idatziz komunikatzeko gai izatea, aldez aurretik ikasgelan bertan landutako gaiekin lotutako komunikazio-premiei zenbait eredu oinarri hartuta txukun eta modu koherentean erantzuteko.
3. Atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoaz gogoeta egitea, eta norbaiten laguntzarekin haren erabilera-arauak aplikatzea testuak sortzeko eta ulertzeko, eta hizkuntza txukun erabiltzeko, hizkuntzen artean transferigarriak diren ezaguerak erabiliz.
4. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko literatura-testu soilez gozatzea (ahozko literatura-tradizioarekin lotutakoez, batik bat), eta, hala, mundu zabaleko kultura-aniztasunaz jabetzea eta giza kondizioa zertan den ulertzea, norberaren hizkuntza-ondarea aberastea eta sentsibilitate estetikoa lantzea.
5. Atzerriko hizkuntza norberarenaz bestelako errealitate eta kulturak ulertzeko erabiltzea, eta errealitate horiek ulertzearen, errespetatzearen eta haiekin kolaboratzearen aldeko jarrera izatea.
6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, atzerriko hizkuntzan informazioa lortzeko, komunikatzeko eta kooperatzeko.
7. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, norberarenaz bestelako hizkuntzak ikasteen landutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko eta autorregulazioa sustatzeko.

### 1.2.2.- EDUKIAK

#### 1.2.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan berdina den 1. eduki multzoak oinarriko zehar-kompetentziak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak jasotzen ditu. Arlo eta ziklo guzti-guztietan landu eta ebaluatu behar dira edukiok.

Gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egiteko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak lantzea, horixe da curriculumaren muin eta ardatza. Trebetasun horiekin lotutako ikaskuntzak hiru eduki multzotan jasotzen dira: 2. eduki multzoan ("Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea"); 3. eduki multzoan ("Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea"); eta 4. eduki multzoan ("Literatura-hezkuntza"). Ikaskuntza horiekin estu lotuta, bai 5. eduki multzoan ("Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta") eta bai 6. eduki multzoan ("Hizkuntzaren alderdi

soziala"), biltzen dira hizkuntza-sistemarekin, hizkuntzaren erabilera-arauekin eta hizkuntzen eta hiztunen arteko erlazioekin lotutako edukiak.

Eduki multzook modu analitikoan aztertzen dituzte hizkuntza- eta literatura-hezkuntzaren osagaiak, eta ziklo bakoitzean irits daitezkeen lorpen-mailak ere adierazten dituzte, baina ez dute ezertxo ere esaten ikasgelan egitekoak diren ikaskuntza-jardueren ordenaz nahiz antolaeraz. Hori dela eta, programazioak egitean eta jardueren sekuentzia ikasgelara eramatean, beharrezkoa izango da bloke guztietako edukiak elkarrekin ondo uztartzea. Gogoratu beharra dago prozedurazko edukiak hartzen dituztela oinarri arlo hauetan egitekoak diren lanek, eta eduki horien zerbitzura daudela adierazpenezko edukiak.

Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko.

Era berean, garbi esan behar dugu hitz egitea eta entzutea, bai eta irakurtzea eta idaztea ere, elkarrekin estu lotuta daudela, eta, beraz, komeni dela ikaskuntza-jardueren sekuentzian hizkuntza-erabilerekin bi alderdiak, ulerkuntza eta ekoizpena, integratzea.

Literatura-hezkuntzarekin lotutako edukiak 4. eduki multzoan jasotzen dira, eta hauxe dute helburu nagusia: lehen zikloan, gure ikasleak irakurtzen ohitu daitezzen saiatzea; eta bigarren zikloan, beren irakurzaletasuna sendotu dezaten ahalegintzea, horrela literaturaz gozatzen ikas dezaten. Etapa honetan, beste edozeinetan baino gehiago, literatura gozamen-iturritzat hartzen da: hizkuntzaz eta hizkuntza-baliabideez gozatzeko bidetzat, alegia.

Hizkuntza-sistemaren osagai diren elementuei eta hizkuntza-arauei buruzko gogoetarekin lotutako edukiak uztartzea eta integratzea hartzen du helburu 5. eduki multzoak ("Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta"). Trebetasun linguistiko-komunikatiboak barneratzeak eta lantzeak hizkuntzen alderdi kontestual, diskurtsibo eta gramatikalez gogoeta egin beharra dakar, eta hain zuzen horrexegatik landuko dugu hemen 5. eduki multzo hori.

6. eduki multzoan ("Hizkuntzaren alderdi soziala") eduki ugari lantzen dira: hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen arteko erlazioak, besteak beste. Eleaniztasuna ezaugarri duen gaur egungo gizarte konplexu honetan, euskal gizartea elebitasun gorabeheratsu batetik testuinguru eleaniztun batera igartzeko urratsak egiten ari da. Ikasleengandik gertuen dauden inguruetako egoera soziolinguistikoari buruz gogoeta egitera garamatza ezinbestez eleaniztasun-testuinguru horrek. Helburua argia da, oso: ikasleek hizkuntza-aniztasunaren aldeko jarrerak barnera ditzaten, ikasgai hartuko duten atzerriko hizkuntza balioets dezaten eta, oro har, hizkuntzak komunikazio-bide, kultura desberdinetako pertsonen arteko zubi eta ezin motatako edukiak ikasteko baliabide direla aitortu dezaten saiatzea.

Ikasleen komunikaziorako konpetentzia lantzea, horixe da hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren helburu nagusia, eta hori dela eta, hain zuzen, ezinbestekoa da hizkuntza-erabilerekin lotutako trebetasunak hobetzearen mende jartzea 5. eta 6. eduki multzoetako edukiekin lotutako jardueren programazioa.

Etapako bi zikloetan zehar ikasi beharrekoen mailaketa egiteko, irizpide hauek hartuko ditugu oinarri: batetik, praktika diskurtsiboen eta ikasleen esperientzia linguistiko eta kulturalaren arteko hurbiltasuna; bestetik, testuen barne-antolaeraren konplexutasun-maila; eta, azkenik, testuak ulertzeko eta ekoizteko abiaburu izan litezkeen helburu askotarikoak.

### 1.2.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Eduki multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak garatzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzekoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Ikasgelako harreman interpersoneletan, eguneroko egoeretan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako ahozko testu soil-soiletako informazio espezifikoa esplizitua ulertzea: informazioa, azalpenak, deskribapenak, jarraibideak, norberaren esperientzien eta bizipenen kontakizunak, filmak...
- Ahozko testuak ulertzeko eta ekoizteko oinarriko estrategiak modu gidatuan aplikatzea.
- Eguneroko komunikazio-egoera erreal nahiz alegiazkoetan parte hartzea, hitzeko erantzunen bitartez (buruz ikasitako formulak baliatuz, nagusiki) zein hitzik gabeko formulen bitartez, eta hori guztia testuinguru gidatuetan lantzea: parekoen arteko solasaldiak, jolasean aritzea helburu duten interakzioak...



- Harreman interpersoneletan eta ikasgelako ikaskuntza-egoeretan erabili ohi direnen moduko ahozko testu labur, soil eta kontestualizatuak modu gidatuan sortzea eta haiekin interaktuatzea: eguneroko bizitzako gertaerei buruzko albisteak, iritziak, jarraibideak, norberaren esperientzien eta bizipenen kontakizunak, deskribapenak...
- Ahozko testuen ekoizpen-prozesua modu gidatuan lantzen hastea eta transferitzea (zenbait ereduren erreproduktzioa eta transformazioa abiapuntutzat hartuta): informazioa antolatzea eta bilatzea, testua sortzea eta berrikustea.
- Ahozko interakzioan nagusi diren arauak erabiltzea eta transferitzea: arreta, hitz egiteko txandak, kortesia-arauak.
- Atzerriko hizkuntzaren berariazko soinua, intonazioa eta ahoskera imitatzea, eta atzerriko hizkuntza horrek eskolan eta etxean hitz egin ohi diren hizkuntzekin dituen desberdintasun fonetikoak direla-eta komunikazioa eragotz ditzaketen alderdiak kontuan hartzea.
- Ikasgelan ohikoak diren oinarrizko komunikazio-funtzioak gero eta modu autonomoagoan ekoiztea ahoz:
  - diosalak, aurkezpenak, eskerrak ematea...
  - norberaren gustuen, gaitasunen, existentziaren eta abarren berri ematea.
  - laguntza, informazioa, objektuak, baimena eta abar eskatzea.
- Ikasgelan landutako ahozko generoen oinarrizko ezaugarriak: solaskideak, helburua, hizkuntza-elementu espezifikoak...
- Elkarrekin ikastea helburu duten jardueretan aktiboki parte hartzea, eta elkar errespetatuz elkarrekin lanean jardutea.
- Atzerriko hizkuntzan ahoz hitz egitearen eta komunikatzearen aldeko interesa izatea.
- Intonazioa eta ahoskera zainduz txukun-txukun hitz egitearen aldeko interesa izatea.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Ikasgelan aldeztu aurretik ahoz landutako gaiak hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarrirako idatzizko testu soil-soiletako informazio espezifiko esplizitua ulertzea: ipuin eta poema egokituak nahiz jatorrizkoak, gonbidapenak, zorion-txartelak, oharra, arautegiak, menuak, albiste sinpleak, horma-irudiak, web orri didaktikoak...
- Idatzizko testuak ulertzeko eta ekoizteko prozesuan zenbait estrategia erabiltzen eta transferitzen hastea.
- Harreman interpersoneletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarrirako idatzizko testu labur eta soilak modu gidatuan birstortzea eta ekoiztea: gonbidapenak, zorion-txartelak, oharra, goiburua, argazki-oinak, albiste laburrak, horma-irudiak, deskribapenak, oinarrizko azalpenak...
- Idatzizko testuen ekoizpen-prozesua eta atzerriko hainbat hizkuntzatan aintzat hartua lantzen hastea eta transferitzea (zenbait ereduren azterketa, erreproduktzioa eta transformazioa abiapuntutzat hartuta): informazioa antolatzea eta bilatzea, testua sortzea eta berrikustea.
- Ikasgelako liburutegia plazer- eta informazio-iturri gisa erabiltzea.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (oinarrizko hezkuntza-programa informatikoak, Internet...) erabiltzea, mezu soil-soilak irakurtzeko eta idazteko.
- Ikasgelan nagusi diren oinarrizko komunikazio-funtzioen testuinguruan idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea:
  - diosalak, aurkezpenak, gonbidapenak eta zorion-txartelak.
  - norberaren gustuen, existentziaren, jabetzen, gaitasunen, sentimenduen eta abarren berri ematea.
- Ikasgelan landutako idatzizko generoen oinarrizko ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu espezifikoak...
- Ikaslearen gertueneko esperientziekin eta ikasgelako lan-martxarekin lotutako eremuetan erabili ohi den oinarrizko lexikoa.
- Idazketa-sistemaren oinarrizko arauak: alfabetoa, landutako hitzen ortografia, puntuazio-marka batzuk eta letra larriaren erabilera espezifikoak.
- Idatzizko testuak txukun aurkeztearen aldeko interesa izatea.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Baliabide bisualak eta keinuak erabiliz, ikasleen adinarekin eta interesekin bat datozen literatura-testu egokituak aktiboki entzutea eta ulertzea: ipuinak, ahozko literatura-tradizioko abesti eta poemak.
- Ahozko literatura-tradizioko eta haur-literaturako hainbat euskarrirako testu egokituak bakarka nahiz taldean irakurtzea eta ulertzea.
- Ikasgelako liburutegia erabiltzea eta testuak gero eta modu autonomoagoan hautatzea, irakurzaletasuna lantzea helburu hartuta.
- Ikasgelan entzundako eta irakurritako literatura-testuei buruzko iritziak ahoz ematea.
- Literatura-testu soil-soilak buruz ikastea, dramatizatzea eta errezitatzea, eta horretan, proposatutako ereduaren erritmoa, intonazioa eta ahoskera imitatzea: kontakizun labur egokituak, poemak, abestiak, aho-korapiloak eta igarkizunak.
- Eszenaratzearekin lotuta beste hizkuntzetan eskuratutako estrategiak aplikatzea: ozen eta argi hitz egitea, audientzia gogoan izatea, eta aurpegi- eta gorputz-keinuak erabiltzea espresio-baliabide gisa.
- Eredu bat aintzat hartuta modu gidatuan literatura-testu soil-soilak idatziz birsortzea eta ekoiztea: komikiak, dramatizazioak eta kontakizun laburrak.
- Landutako literatura-generoen (narrazioa, antzerkia...) oinarrizko ezaugarriak.
- Literatura-testuak plazer-iturri diren aldetik balioestea.
- Ikasgelako nahiz eskolako literatura-jardueretan parte hartzea.

#### 5. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta

- Beste hizkuntza batzuetan eskuratutako ezaguera linguistikoak aktibatzea eta transferitzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertzeko eta ekoizteko.

- Ikasgelako komunikazio-egoeretan landu ohi diren eguneroko gaiekin, esapideekin, esaerekin eta oinarrizko egiturekin lotutako oinarrizko lexikoa identifikatzea eta erabiltzea.
- Oinarrizko ortografia-arauetako batzuk ezagutzea eta norberaren testuetan modu gidatuan erabiltzea.
- Oinarrizko lexikoa eta funtsezko hizkuntza-egiturak ikasteko beharrezkoak diren estrategiak erabiltzen hastea: errepikapena, memorizazioa, hitz eta esapideak keinuekin eta elementu bisualekin lotzea, ereduak aztertzea...
- Grafiaren eta ahoskeraren arteko egokitasunik eza dela eta, atzerriko hizkuntzaren berariazko ezaugarriak zein diren jakitea.
- Landutako ahozko testuekin lotutako oinarrizko ahoskera-, erritmo- eta azentuazio-ereduak zein diren jakitea eta erreproduzitzea.
- Komunikazioa eragotz ditzaketen atzerriko hizkuntzaren soinu espezifikoak zein diren jakitea eta erreproduzitzea.
- Norberaren ikaskuntza-prozesuaz gogoeta egiten hastea, lana antolatzea, huts egitea ikaskuntza-prozesu horren parte dela onartzea, nor bere akatsak zuzentzea eta norberak egindakoa ebaluatzea.
- Norberaren nahiz besteen ekoizpenak berrikustean eta hobetzean identifikatutako akatsak modu gidatuan eta elkarlanean zuzentzea.
- Ikaskuntzarako baliabideak erabiltzen hastea: hiztegi bisual eta elebidunak, glosarioak...
- Ikasgelan oso ohikoak diren komunikazio-egoerekin (errutinekin) lotutako funtzioen berri ematea hizkuntzaren bitartez: formulak, esapideak eta esaerak.
- Testuaren kohesio-elementuak: lokailuak (and); deiktikoak: pertsona-izenordainak, izenordain posesiboak (mine, yours) eta izenordain demostratiboak; izenondo posesiboak; leku-adizlagunak (here, there...).
- Zenbait alderdiren berri emateko hizkuntza-formulak: kantitatea (singularra/plurala, gehien erabiltzen diren kardinalak eta ordinalak...), existentzia (there is / there are), espazioa (in, on, under eta lekuzko zenbait esapide), denbora (today, this morning, now, in June, on Sunday...), modua (well, slowly, quickly, fast...).
- Denbora adieraztea [orainaldia, aspektua (sinplea/jarraitua) eta modalitatea (can, can't...)].
- Baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura.
- Idazketa-sistemaren arauak: alfabetoa, landutako hitzen ortografia, puntuazio-marka batzuk eta letra larriaren erabilera espezifikoak.
- Atzerriko hizkuntza askotariko egoeretan erabiltzearen aldeko interesa izatea.
- Atzerriko hizkuntza ikastean izandako zailtasunez eta lorpenez kontzientzia hartzen hastea.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Komunikazio-trukeetan atzerriko hizkuntzarekin lotutako oinarrizko zenbait gizarte-arau identifikatzea eta erabiltzea, eta horretan, parte-hartze aktiboa, elkarlana eta errespetua hartzea ardaztat.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten duten gutxienez herrialde bateko eguneroko ohiturak eta oinarrizko gizarte-konbentzioak aintzat hartzea, eta horiek norberaren herrialdeko ohitura eta konbentzioekin lotzea.
- Norberaren inguruko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna balioestea, aintzat hartzea eta errespetatzea, eta aniztasun hori eta inklusioa errazten duten baliabideak aberastasun-iturritzat hartzea.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten duten herrialdeetako pertsoneri eta kulturari buruzko informazioa lortzearen aldeko interesa izatea.
- Atzerriko hizkuntza eta, oro har, hizkuntzak besteekin komunikatzeko eta IKTen bitartez informazioa lortzeko bide diren aldetik balioestea.

### 1.2.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Eduki multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak garatzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).

- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Harreman interperersonaletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako ahozko testu soil-soiletako informazio espezifikoko edo orokor esplizitua edo inplizitua ulertzea: kontakizunak, albisteak, dokumentalak, elkarrizketak, jarraibideak, azalpenak, deskribapenak, definizioak, elkarrizketak...
- Ahozko testuen ulermen- eta ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia modu gidatuan erabiltzea eta transferitzea.
- Euskarri linguistiko bat erabilia, norberaren esperientziekin, interesekin eta ikaskuntzarekin lotutako komunikazio-egoera erreal nahiz alegiazkoetan parte hartzea.
- Gai akademiko nahiz pertsonalei buruzko hainbat euskarritako ahozko testu labur eta soilak modu gidatuan ekoiztea eta haiekin interaktuatzea: kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, jarraibideak, aurkezpenak, definizioak, deskribapenak...
- Ahozko testuen ekoizpen-prozesurako beharrezkoak diren oinarritzko estrategiak erabiltzea eta transferitzea: informazioa antolatzea eta bilatzea, testua sortzea eta berrikustea.
- Ahozko hizkuntza-trukean nagusi diren arauak erabiltzea: kortesia-arauak, hitz egiteko txandak, gaiari loturik hitz egiteko formulak, gorputz-jarrera eta keinu egokiak, solaskideak esandakoarekin bat etorritik jarduteko moduak...
- Ikasgelako komunikazio-egoera ohikoenetan gero eta modu autonomoagoan parte hartzea ahoz:
  - diosala eta aurkezpenak, barkamena eskatzea, eskerrak ematea, gonbidapenak.
  - norberaren gaitasunen, gustuen, lehentasunen, iritzien, adostasun nahiz desadostasunen, sentimenduen, asmoen eta abarren berri ematea.
  - laguntza, informazioa, jarraibideak, objektuak, iritzia, baimena eta abar eskatzea eta eskaintzea.
- Ikasgelan landutako ahozko generoen oinarritzko ezaugarriak: solaskideak, helburua, hizkuntza-elementu espezifikokoak...
- Elkarrekin ikastea helburu duten jardueretan aktiboki parte hartzea, eta elkar errespetatuz elkarrekin lanean jardutea.
- Atzerriko hizkuntzan ahoz hitz egitearen eta komunikatzearen aldeko interesa izatea.
- Ahoskera zaintzearen aldeko interesa izatea.
- Atzerriko hizkuntzaren berariazko soinuak, intonazioa eta ahoskera imitatzea, eta atzerriko hizkuntza horrek eskolan eta etxean hitz egin ohi diren hizkuntzekin dituen desberdintasun fonetikoak direla-eta komunikazioa eragotz ditzaketen alderdiak kontuan hartzea.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi diren moduko hainbat euskarritako idatzizko testuetako informazio espezifiko edo orokor esplizitua edo inplizitua ulertzea: gutunak, gonbidapenak, jarraibide eta errezetak, ipuin eta kontakizun laburrak, jarduera-programak, albisteak, elkarrizketak, erreseinak, definizioak, deskribapenak, laburpenak, eskemak, azalpenak, jakinarazpenak, menuak, esku-orriak, ikasgelako arauak, informazio-artikuluak, web orri didaktikoak, iragarkiak...
- Norberak idatzizko testuen ulermena erregulatzeko dituen estrategiak transferitzea eta modu gidatuan erabiltzea: aurrea hartzea, egiaztatzea, deduzitzea, zalantzak argitzea, norberak testuak ulertzeko dituen zailtasunak identifikatzea...
- Harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi diren moduko hainbat euskarritako idatzizko testu soil-soilak sortzea: gutunak, gonbidapenak, errezetak, ipuin eta kontakizun laburrak, jarduera-programak, albisteak, elkarrizketak, erreseinak, definizioak, deskribapenak, laburpenak, eskemak, azalpenak, jakinarazpenak, esku-orriak, ikasgelako arauak, arautegiak...
- Idatzizko testuak ereduetan oinarrituta modu gidatuan ekoiztea: informazioa antolatzea eta bilatzea, testua sortzea, berrikustea eta norberak zuzentzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren iturri eta teknologiak (liburutegia, mediateka, Internet...) erabiltzea informazioa bilatzeko, idazlanak idazteko, informazioa transmititzeko, komunikatzeko eta elkarlanean aritzeko.
- Idatzizko testuak ekoiztean eskuratutako ezaguera linguistikoak aplikatzea egokitasun-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila egokia lortzeko.
- Ikasgelako komunikazio-egoera ohikoenekin lotutako idatzizko testuak gero eta modu autonomoagoan ekoiztea:
  - diosak eta aurkezpenak, eskerrak ematea, gonbidapenak.
  - norberaren gaitasunen, jabetzen, existentziaren, gustuen, lehentasunen, iritzien, sentimenduen, asmoen eta abarren berri ematea.
- Ikasgelan landutako idatzizko generoen oinarritzko ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu espezifikoak...
- Ikaslearen esperientziekin, hedabideekin eta hezkuntzarekin lotuta sarri-sarri erabili ohi den lexikoa ikastea eta erabiltzea.
- Eredu grafikoak eta konbentzio ortografikoak.
- Idatzizko testuen bidez informazioa lortzearen, komunikatzearen eta ikastearen aldeko interesa izatea.
- Norberaren ekoizpenak hobetze aldera testuak berrikustek duen garrantzia balioestea.
- Ikaskuntza-prozesuan huts egiteak duen garrantzia balioestea.
- Idatzizko testuak txukun aurkeztearen aldeko interesa izatea.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Ikasleen adinarekin eta interesekin bat datozen ahozko eta ikus-entzunezko literatura-testuak aktiboki entzutea eta ulertzea.
- Ahozko literatura-tradizioko eta haur-literaturako hainbat euskarritako testu egokituak bakarka nahiz taldean irakurtzea eta ulertzea.
- Ikasgelako liburutegia, mediateka eta Internet erabiltzea eta testuak gero eta modu autonomoagoan hautatzea, irakurzaletasuna lantzea helburu hartuta.
- Literatura-testu soil-soilak dramatizatzea eta errezzitatzea (poemak, ipuinak, abestiak, aho-korapiloak eta igarkizunak), eta horretan, ahoskera eta intonazioa zaintzea.
- Eszenaratzearekin lotuta beste hizkuntzetan eskuratutako estrategiak aplikatzea: ozen eta argi hitz egitea, audientzia gogoan izatea, eta aurpegi- eta gorputz-keinuak erabiltzea espresio-baliabide gisa.
- Literatura-testu soil-soilak idatziz birsortzea eta ekoiztea: komikiak, poematxoak, dramatizazioak eta kontakizun laburrak.
- Aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz, zenbait euskarritan aurkeztutako literatura-testuei buruzko iritziak eta erreseinak idaztea.
- Norberaren literatura-testuak sortzean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea.
- Landutako literatura-generoen (narrazioa, antzerkia eta poesia) oinarrizko ezaugarriak.
- Literatura gozamen-iturritzat, kulturara hurbiltzeko bidetzat eta norberaren hizkuntza-ondarea eta mundu pertsonala aberasteko zubitzat hartzea.
- Ikasgelako, eskolako eta norberaren inguruko literatura-jardueretan parte hartzea.

#### 5. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta

- Beste hizkuntza batzuetan eskuratutako ezaguera linguistikoak aktibatzea eta transferitzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertzeko eta ekoizteko.
- Landutako testuen oinarrizko elementu linguistikoetako batzuk modu gidatuan aztertzea eta aplikatzea: horietan gehien erabiltzen diren egiturak, lexikoa eta esaerak...
- Lexikoa ikasteko beharrezkoak diren estrategiak erabiltzea: errepikapena, memorizazioa, hitz eta esapideak keinuekin eta elementu bisualekin lotzea...
- Multimedia-euskarriak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea landutako lexikoa eta egiturak finkatzeko eta lexiko eta egitura berriak ikasteko.
- Idazketa-sistemaren konbentzioak ezagutzea eta modu gidatuan aplikatzea: landutako lexikoaren ortografia, puntuazio-markak...
- Grafiaren eta ahoskeraren arteko egokitasunik eza dela eta, atzerriko hizkuntzaren berariazko ezaugarriak zein diren jakitea.
- Landutako ahozko testuetako hitz eta esaldien oinarrizko ahoskera-, erritmo- eta azentuazio-ereduak zein diren jakitea eta erreproduzitzea.

- Norberaren ikaskuntza-prozesuaz gogoeta egitea, lana antolatzea, huts egitea ikaskuntza-prozesu horren parte dela onartzea, nork bere akatsak zuzentzea eta norberak egindakoa ebaluatzea.
- Norberaren nahiz besteen ekoizpenak berrikusteko eta hobetzeko talde-lanetan aktiboki parte hartzea.
- Norberaren nahiz besteen testuetan egon litezkeen oinarrizko akatsak identifikatzea eta zuzentzea.
- Ikaskuntzarako baliabideak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea: hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, glosarioak...
- Eguneroko gaiekin eta gai akademikoekin lotutako oinarrizko lexikoa.
- Zenbait komunikazio-egoerarekin lotutako formulak, esapideak eta esaerak.
- Testuaren kohesio-elementuak: lokailuak (and, but, or, because, to...), deiktikoak (pertsona-izenordainak, izenordain posesiboak eta demostratiboak, izenondo posesiboak, leku- eta denbora-adizlagunak), sinonimoak...
- Zenbait alderdiren berri emateko hizkuntza-formulak: kantitatea (singularra/plurala, kardinalak eta ordinalak, all, many, a lot, some...), existentzia (there is / there are), espazioa (preposizioak, leku-adizlagunak...), denbora (denbora-adizlagun eta -lokuzioak, orduak...), modua (modu-adizlagun eta -lokuzioak) eta konparaketa.
- Denbora (orainaldia, iraganaldia eta geroaldia), aspektua (sinplea/jarraitua) eta modalitatea (can, may, have to, going to...) adieraztea.
- Baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura.
- Atzerriko hizkuntza gero eta luzera handiagoko egoeretan txukun-txukun erabiltzeko interesa izatea, eta horretan, norberak darabiltzan esapideak zuzen erabiltzea eta norberak esaten dituenak unean uneko komunikazio-egoerara egokitzea.
- Atzerriko hizkuntza ikasteen izandako zailtasunez eta lorpenez kontzientzia hartzea.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Atzerriko hizkuntzaren bitartez gure eta beste hizkuntza eta kultura batzuetako hiztunen arteko komunikazio-trukeetan parte hartzea, eta horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
- Komunikazio-trukeetan atzerriko hizkuntzarekin lotutako oinarrizko zenbait gizarte-arau erabiltzea (gizarte-konbentzioak, kortesia-arauak...), eta horretan, parte-hartze aktiboa, elkarlana eta errespetua hartzea ardaztat.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten duten herrialdeetako bateko kultura eta ohiturak aintzat hartzea, eta horiek norberaren kulturarekin eta ohiturekin lotzea.
- Norberaren inguruko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna balioestea, aintzat hartzea eta errespetatzea, eta hizkuntza- eta kultura-aniztasun hori aberastasun-iturrizat hartzea.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten duten herrialdeetako kultura eta ohiturak ezagutzearen aldeko interesa izatea.
- Atzerriko hizkuntza komunikatzeko eta ikasteko bidetzat hartzea, bai eta teknologia berriak erabiliz informazio-iturri ugarityara iristeko baliabidetzat ere.
- Eleaniztun izateak norberari dakarkion aberastasuna balioestea.



### 1.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1.2.3.1. Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

1. **Ikaslearen eguneroko gaiekin eta ikasgelako jarduerekin lotutako hainbat euskarritako ahozko testu soil eta kontestualizatuak ulertzea eta interpretatzea, eta horretan, testuen zentzu orokorrari eta informazio garrantzitsuenari igartzea, baldin eta testuok argi eta mantso-mantso artikulatuta badaude eta ikasgelan landutako oinarrizko lexikoa eta egitura sinpleak erabiltzen badituzte.**
  - Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Badaki ikasgelan landu ohi diren ahozko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.
  - Gai da, komunikazio-egoera jakin batekin lotutako elementu linguistikoen (lexikoa, lokuzioak...) eta elementu ez-linguistikoen bitartez, ahozko testuen zentzu orokorra ulertzeko.
  - Gaia identifikatu eta garrantzi handiko zenbait informazio bereizten ditu, ikaskuntza indibidual nahiz kolektiboko egoeretan landu beharreko zenbait jarduera egiteko.
  - Badaki hipotesiak modu gidatuan formulatzen, eta horretan, baliabide bisualak eta hitzik gabeko baliabideak erabiltzen ditu, batetik, eta gaiari edo egoerari buruzko bere ezaguerak, bestetik.
  - Aurrez entzundako testuaren oinarrizko ideiak gogoratzen ditu, eta hari buruzko galdera zuzenei erantzuten die.
  - Ematen zaizkion agindu edo jarraibideei erantzuten die, zenbait jarduera egin ahal izateko.
  - Ikasgelan erabilitako oinarrizko esapideak eta lexikoa identifikatzen ditu.
  - Estrategia sinpleak erabiltzen ditu, zalantzak argitzeko.
  - Besteei aktiboki entzutearen aldeko jarrera du.
2. **Ikasgelako jarduerekin lotutako ahozko testu labur eta soilak sortzea, zenbait eredu imitatuz.**
  - Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Gai da, zenbait eredu imitatuz, ahozko testu labur eta soilak erreproduzitzeko.
  - Modu ulergarrian ematen du bere ideien eta esperientzien berri, eta horretan, alde zuzenetik buruz ikasitako ereduaren oinarrizko elementuak erabiltzen ditu.
  - Aintzat hartzen ditu (baina, hori bai: baten baten laguntzarekin) igorlearen ezaugarriak eta genero testualaren oinarrizko ezaugarrietako batzuk.
  - Gai da, zenbait irizpideri jarraituz, bere ahozko jarduneko edukiak planifikatzeko (oso modu soilean, hala ere).
  - Proposatutako helburua lortzeko garrantzizkoa den informazioa lortzen eta hautatzen du, baina, horretarako, laguntza handia behar du, eta iturri bibliografiko eta digital soil-soilak erabiltzen ditu.
  - Gai da, eredu bat eta zenbait irizpide oinarri hartuta, informazioa txukun aurkezteko.
  - Bere ahozko ekoizpenetan euskarri bisual eta IKT baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen ditu, baina, horretarako, laguntza handia behar du.

- Ikasgelan erabilitako egiturak, esapideak eta lexikoa identifikatzen ditu.
  - Era onargarrian ahoskatzen eta intonatzen du.
  - Gai da ahotsa eta gorputz-jarrera gutxi-asko kontrolatzeko.
  - Ebaluazio- eta zuzenketa-jarduera sinpleetan (taldean egiten direnetan, gehienbat) parte hartzen du, bere nahiz besteen ahozko ekoizpenak hobetzea helburu hartuta.
- 3. Irakasleak zuzendutako ahozko solasaldietan oso modu soil eta ulergarrian parte hartzea, eta horretan, komunikazio-trukearen oinarriko arauak errespetatzea.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Modu ulergarrian (hitzez nahiz hitzik gabe) erantzuten die eskaera eta jarraibideei.
  - Modu ulergarrian (hitzez nahiz hitzik gabe) ematen du laguntzarekin bat-bateko komunikazio-premien berri: eskaerak egin, taldean lan egin, argibideak eskatu...
  - Modu ulergarrian ematen du bere buruari buruzko informazio pertsonala, eta horretan, gai da baten baten laguntzarekin hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak erabiltzeko.
  - Gai da (baten batek asko lagunduta, hala ere) ezagunak zaizkion komunikazio-egoeretan interaktuatzeko: errutinetan, ikasgelako solasaldietan, simulazio-jardueretan...
  - Solasaldietan parte hartzen du, galderei erantzuten die eta zer edo zer esaten du, baina lotura handirik gabeko hitzak eta esaera arrunt samarrak baino ez darabiltza.
  - Gai da, baina ez sistematikoki, arau soziokomunikatibo batzuk aplikatzeko: hitz egiteko txandak, errespetuan oinarritutako parte-hartzea, kortesia-arau batzuk...
  - Aktiboki parte hartzen du elkarlana eta talde-lana oinarri duten jardueretan.
  - Atzerriko hizkuntzan hitz egiten eta komunikatzen saiatzen da, eta gogor ahalegintzen da esaten diotena ulertzen eta besteei esan nahi duena ulertarazten.
- 4. Ikaslearen eguneroko gaiekin eta ikasgelako jarduerekin lotutako hainbat euskarritako ahozko testu soil eta kontestualizatuak baten baten laguntzarekin ulertzea eta interpretatzea, eta horretan, testuen zentzu orokorrari eta ideia nagusi bati edo besteri igartzea, baldin eta testuok oso kontestualizatuta badaude eta euskarri bisualen bat badute.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Aldez aurretik ikasgelan ahoz landutako gaiei buruzko idatzizko testu soil-soilak ulertzen ditu.
  - Badaki ikasgelan landutako generoak identifikatzen.
  - Aldez aurretik ikasgelan ahoz landutako gaiei buruzko idatzizko testu soil-soiletako gai nagusia eta zentzu orokorra identifikatzen ditu.
  - Gai da, laguntzarekin, testuko ideia nagusietako batzuk identifikatzeko.
  - Laguntzarekin, badaki gaiari, testuinguruari nahiz esanahiei buruzko hipotesiak formulatzen, eta horretan, baliabide bisualak eta hitzik gabeko baliabideak erabiltzen ditu, batetik, eta gaiari edo egoerari buruzko bere ezaguerak, bestetik.
  - Gai da, laguntzarekin, eduki ikasi berriak bere ideiekin lotzeko.
  - Gai da ikasgelako eguneroko egoera eta gaiekin lotutako oinarriko lexikoa identifikatzeko.

**5. Proposatutako lanerako beharrezkoa den informazio esplizitu pertinentea aurkitzea eta hautatzea.**

- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
- Elementu linguistiko eta ez-linguistikoak darabiltza informazioa aurkitzeko: irudiak, testuaren banaketa-elementuak, letra-tipoak...
- Gai da, zenbait irizpideri jarraituz, eskola-eremuko testuak irakurtzeko beharrezkoa den informazio esplizitua lortu, hautatu eta fitxetan antolatzeko, baina ez du bere lana bukatzen.

**6. Gai izatea zenbait eredu erabiliz ikasgelako jarduerekin lotutako idatzizko testu labur eta soilak sortzeko, eta horretan, dela modu gidatuan edo dela besteekin elkarlanean, ekoizpen-prozesuko lehen urratsak ematen hastea.**

- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
- Gai da laguntzarekin ikasgelako jarduerekin lotutako idatzizko testu soil-soilak paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean sortzeko, eta horretan, aldez aurretik eman zaion ereduaren oinarritzko elementuak erabiltzen ditu.
- Aktiboki parte hartzen du idatzizko testu labur eta soilak modu gidatuan nahiz besteekin elkarlanean arituz sortzeko prozesuan: ereduak aztertzea, plangintzak egitea, informazioa bilatzea eta hautatzea, testualizazioa, eta testua berrikustea, zenbait kontrol-baliabide erabiliz.
- Ikasgelan landutako oinarritzko komunikazio-funtzioekin lotutako lexikoa eta esapide bat edo beste erabiltzen ditu.
- Gai da, laguntzarekin, ekoizpen-prozesuan zehar beste hizkuntza batzuetako lexikoaren elementuak konparatzeko.
- Hasia da ikasgelan landutako oinarritzko ortografia-arauetako batzuk aplikatzen.
- Gai da, laguntzarekin, zenbait hutsegite identifikatzeko.
- Bere idazlanak txukun-txukun aurkezten ditu.

**7. Literatura-testua gozamen-iturritzat, kulturara hurbiltzeko bidetzat eta norberaren hizkuntza-ondarea eta mundu pertsonala aberasteko zubitzat hartzea.**

- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
- Bere adinarekin eta interesekin bat datozen literatura-lan egokituak (testu narratibo eta poetikoak) irakurtzen edo entzuten ditu, eta hasia da irakurgaiak hautatzean bere irizpide pertsonalak adierazten.
- Ikasgelako liburutegiaren erabilera-arauak errespetatzen ditu, liburutegiak ongi funtzionatzeko eta zaintzeko lanetan laguntzen du, eta hura gero eta modu autonomoagoan erabiltzen du.
- Gai da, laguntzarekin, testuari buruzko bere iritzia ahoz emateko, eta horretan, ikasgelan landutako esapide soilak erabiltzen ditu.
- Aktiboki parte hartzen du ikasgelan landutako literatura-testuak (ahozko literatura-tradizioko lanak, batik bat) dramatizatze, birsortzeko, buruz ikasteko eta errezitatze lanetan.
- Saiatzen da erritmoa, ahoskera eta intonazioa modu egokian erreproduzitzen.
- Zenbait estrategia soil darabiltza eszenaratze-lanetan.

- 8. Gai izatea, laguntza handia emango dion baten bat gidari duela, atzerriko hizkuntzaren erabileraz eta hizkuntza horrek gainerako hizkuntza guztiekin duen erlazioaz egindako behaketen eta gogoeten bitartez ikasitako oinarrizko alderdiak erabiltzeko, horrela ulermen-arazoak konpontzeko, batetik, eta ahozko nahiz idatzizko testuak osatzeko eta berrikusteko, bestetik.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Gai da, laguntzarekin, beste hizkuntzetan testuen ezaugarriei buruz ikasitakoa bere ahozko nahiz idatzizko ekoizpenetan erabiltzeko.
  - Badaki ikasgelan landutako oinarrizko lexikoaren berri, eta erabili egiten du.
  - Landutako hizkuntza-formulak darabiltza komunikazio-egoera jakinetan: kortesiazko arauak, eskaerak, zorionak ematea...
  - Testuak ulertzeko eta ekoizteko prozesuan, hasia da aurrez landutako ezaguera linguistikoak eta ortografia-arauak modu gidatuan aplikatzen.
  - Gai da, laguntzarekin, ikasgelako komunikazio-trukeetan ohikoak diren oinarrizko ahoskera-, erritmo, azentuazio- eta intonazio-ereduak identifikatzeko eta erreproduzitzeko.
  - Zenbait baliabide (adibideak, ereduak, hiztegiak...) erabiltzen ditu ekoizpen-prozesuan sortu ohi zaizkion zalantzak argitzeko.
  - Hasia da, zenbait irizpideri jarraituz, bere testuetan agertu ohi diren hutsegiteak identifikatzen eta zuzentzen.
  - Bere urratsak oso modu elementalean ebaluatzen ditu.
- 9. Norberarenaz bestelako hizkuntzak ikasteko interesa izatea, eta atzerriko hizkuntza besteekin komunikatzeko eta gauza berriak ikasteko bidetzat hartzea.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Aktiboki parte hartzen du ikasgelan atzerriko hizkuntzan egin ohi diren komunikazio-truke soiletan.
  - Gai da, oso bideratuta, atzerriko hizkuntza ikasteko baliabide gisa erabiltzeko.
  - Atzerriko hizkuntza ikastearen aldeko interesa du.
  - Atzerriko edo bereaz bestelako hizkuntzaren bat hitz egiten dutenekiko jakin-mina du.
  - Bere inguruko hizkuntza-aniztasuna aberastasun-iturritzat hartzen du.
- 10. Atzerriko hizkuntza erabiltzea norberarenaz bestelako errealitateak deskubritzeko eta beste kultura batzuetako jendearen ezaugarri, ohitura eta tradizioak identifikatzeko, eta horretan, kultura horiek ulertzearen eta errespetatzearen aldeko jarrera izatea.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Gai da, laguntzarekin, atzerriko hizkuntza hitz egiten duten herrialdeetako bateko ohituren eta tradizioen ezaugarri batzuk identifikatzeko.
  - Gai da atzerriko zenbait elementu soziokultural bere herrialdekoekin lotzeko.
  - Desberdintasunak aberastasun-iturritzat hartzen ditu, eta haiek errespetatzearen eta balioestearen aldeko jarrera du.

### 1.2.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

1. Eguneroko gaiekin lotuta hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarri eta generotako eta egitura eta lexiko errazeko ahozko testu soil eta laburrak ulertzea eta interpretatzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari eta ideia nagusiei igartzea, baldin eta kondizio akustikoak onak badira eta mezua distorsionatzen ez badute, esandakoa behin eta berriz entzun badaiteke edo hura berresteko eska badaiteke, eta mezuak euskarri bisuala edo erreferentzia kontestual argia baldin badu.
  - Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Badaki ahozko testu ohikoenak zer generotakoak diren identifikatzen.
  - Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
  - Erraz igartzen dio gaiari eta igorlearen asmoari.
  - Gai da, euskarri bisual baten laguntzaz, ideia nagusia identifikatzeko.
  - Gai da entzuketa-lanen helburuarekin bat datorren informazioa lortzeko eta informazio garrantzitsuena bereizteko.
  - Gai da informazioa erregistratzeko zenbait baliabide modu eraginkorren erabiltzeko: fitxak, taulak, kontzeptuzko mapak...
  - Badaki hipotesiak modu gidatuan formulatzen, bai eta gaiari, testuinguruari eta esanahiei buruzko inferentziak egiten ere, eta horretan, baliabide bisualak eta hitzik gabeko baliabideak erabiltzen ditu, batetik, eta gaiari edo egoerari buruzko bere ezaguerak, bestetik.
  - Gai da eguneroko egoera eta gaiekin lotutako oinarritzko esapide eta hitzak identifikatzeko.
  - Gai da ahozko testuak ulertzean sortzen zaizkion zalantzak argitzeko eskura dituen estrategia egokienak erabiltzeko.
  - Aktiboki eta errespetu osoz entzuten die besteei, eta galdera pertinenteak egiten ditu.
2. **Gai akademiko nahiz pertsonalei buruzko ahozko testu soil eta laburrak zenbait euskarritan sortzea norbaiten laguntzarekin, hitzezko zein hitzik gabeko baliabideak behar bezala erabiliz.**
  - Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Gai da, zenbait eredu eta alde zuzenetik prestatutako gidoi bat oinarri hartuta, behin eta berriz entseatutako ahozko testu labur eta soilak birstortzeko: aurkezpen laburrak, gertaeren deskribapen eta kontakizunak, narrazioak...
  - Gai da bere ekoizpenak komunikazio-egoeraren oinarritzko ezaugarriekin bateratzeko: igorlea, testuaren helburua, genero testual egokia, euskarria...
  - Diskurtsoaren edukia modu gidatuan antolatzen du, eta horretan, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzen ditu.
  - Badaki hainbat iturri erabiliz informazioa bilatzen, eta gai da, bere helburua zein den kontuan hartuta, informazio garrantzitsuena hautatzeko.
  - Informazioa eta testua modu logikoan antolatzen eta egituratzen ditu, ematen zaizkion irizpideak kontuan hartzen ditu eta testu-antolatzaile oinarritzkoenak erabiltzen ditu.

- Bere ahozko ekoizpenetan euskarri bisual eta IKT baliabideak modu eraginkorren erabiltzen ditu.
  - Ikasgelan erabilitako egiturak, esapideak eta lexikoa identifikatzen ditu.
  - Ahoskera garbia dauka, eta erritmo eta intonazio egokiak erabiliz hitz egiten du.
  - Gai da bere intonazioa, gorputz-jarrera eta keinuak kontrolatzeko.
  - Ebaluazio- eta zuzenketa-jardueretan parte hartzen du, bere nahiz besteen ahozko ekoizpenak hobetzea helburu hartuta.
- 3. Norberak esan nahi duena ulertarazteko moduan parte hartzea informazio-truke zuzena oinarri duten eta eguneroko bizitzan sortu ohi diren egoera interaktiboetan, eta horretan, komunikazio-trukearen arauak errespetatzea.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - gai da galdera labur eta errazak formulatzeko eta erantzunak emateko.
  - Gai da, nolabaiteko laguntzarekin, bat-bateko komunikazio-premien berri emateko: eskaerak egin, taldean lan egin, argibideak eskatu...
  - Bere buruari buruzko informazio pertsonala ematen du.
  - Gai da, oso modu elementalean bada ere, ezagunak zaizkion komunikazio-egoeretan interaktuatzeke: errutinetan, ikasgelako solasaldietan...
  - Modu gidatuan eta elkarrizketaren nahiz negoziazioaren bitartez parte hartzen du taldeko zereginetan.
  - Estrategia sinpleak darabiltza solasean hasteko, solasean jarraitzeko eta solasa bukatzeko (keinu-baliabideak, beste hizkuntza batzuk ikasteen eskuratutako ezaguerak, laguntza eskatu...).
  - Besteen hitz egiteko txanda eta kortesia-arauak errespetatzen ditu.
  - Oso adi entzuten die solaskideei, eta haiek esandakoari estu lotuta hitz egiten du.
  - Gai da oso ohikoak diren hitz, esapide eta esaldi sinpleak erabiltzeko, eta horretan, oso oinarritzko lokailuak erabiltzen ditu, baina, hala ere, bere ahoskera ez da oso garbia, etenak egiten ditu eta duda-mudatan ibiltzen da, eta solaskidearen laguntza behar izaten du, bien arteko solasa erabat eten ez dadin.
  - Gogor ahalegintzen da komunikazio-egoeretan esaten diotena ulertzen eta besteei esan nahi duena ulertarazten.
- 4. Ikasgelan bertan landutako gaiekin lotuta hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarri eta generotako idatzizko testu soil eta laburrak ulertzea eta interpretatzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, zentzu orokorrari eta ideia nagusietako batzuei igartzea, baldin eta ulertu ez dena berriro irakur badaiteke, hiztegian kontsultak egin badaitezke eta baliabide bisual eta kontestualen bat laguntza gisa eskura badaiteke.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Gero eta modu autonomoagoan irakurtzen ditu bere ezaguera-mailarekin bat datozen hainbat euskarri eta helburutako testuak.
  - Badaki testua zein generotakoa den identifikatzen.

- Badaki igorlearen asmoa eta hizpide hartutako gaia identifikatzen, eta gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
  - Gai da testuko ideia nagusiak identifikatzeko.
  - Badaki gaiari, testuinguruari nahiz esanahiei buruzko hipotesiak formulatzen, eta horretan, baliabide bisualak eta hitzik gabeko baliabideak erabiltzen ditu, batetik, eta gaiari edo egoerari buruzko bere ezaguerak, bestetik.
  - Gai da inferentziak egiteko, bai eta eduki ikasi berria bere ideiekin lotzeko ere, eta bere iritzien berri ematen du.
  - Gai da ikasgelako eguneroko egoera eta gaiekin lotutako oinarrizko esapide eta hitzak identifikatzeko.
  - Gai da bere ulermen-arazoak identifikatzeko, eta zenbait estrategia erabiltzen ditu, arazo horiek konpondu eta hipotesiak berresteko: testuak eta testuinguruak ematen dioten informazioa erabiltzea, aurrez ez zekizkien hitz eta esapideen esanahia deduzitzeko; hiztegiak eta paperezko baliabideak nahiz baliabide digitalak erabiltzea; eskemak eta kontzeptuzko mapak erabiltzea...
  - Beste hizkuntzetan eskuratutako ezaguerak darabiltza bere ulermen-arazoak konpontzeko.
- 5. Proposatutako lanerako beharrezkoa den informazio pertinentea aurkitzea eta hautatzea.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Badaki zein den irakurketaren helburua, eta helburuokin bat datozen estrategiak erabiltzen ditu: skimminga, scanninga...
  - Gai da, laguntzarekin, informazio-iturri analogiko eta digital egokienak erabiltzeko, irakurri beharrekoaren helburua zein den kontuan hartuta.
  - Elementu linguistiko eta ez-linguistikoak darabiltza informazioa aurkitzeko: irudiak, testuaren banaketa, letra-tipoak, indizeak...
  - Eskola-eremuko testuak irakurri eta informazio garrantzitsuena hautatzen du, eta zenbait erregistro-baliabidetan (taulak, eskemak, galdetegiak...) gordetzen du.
- 6. Ikasgelan egin ohi dituzten jarduerekin lotuta gai akademiko nahiz pertsonalei buruzko idatzizko testu soil eta laburrak zenbait euskarritan sortzea, eta horretan, gai izatea norbaiten laguntzarekin ekoizpen-prozesuko urratsak modu txukun eta kohesionatuan egiteko.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Gai da, zenbait eredu eta alde aurretik prestatutako gidoi bat oinarri hartuta, eta ikasiak dituen ezaguerak erabiliz (buruz ikasitako esapideak, gaiak...), ezagunak zaizkion gaiei buruzko idatzizko testu soilak paperean nahiz euskarri digitalean sortzeko.
  - Gai da bere ekoizpenak komunikazio-egoeraren oinarrizko ezaugarriekin bateratzeko: igorlea, testuaren helburua, genero testual egokia, euskarria...
  - Testua modu gidatu eta sistematikoan planifikatzen, idazten eta berrikusten du.
  - Zenbait iturritara jo eta bertan modu gidatuan bilatzen, hautatzen eta prozesatzen du bere helburuekin bat datorren informazio pertinentea.

- Gai da, zenbait eredutan oinarrituta, ikasgelan landutako generoen oinarritzko ezaugarriak aplikatzeko.
  - Ikasgelan landutako oinarritzko komunikazio-funtzioekin lotutako lexikoa, egiturak eta esapideak erabiltzen ditu.
  - Oinarritzko zenbait gramatika- eta ortografia-arau erabiltzen ditu.
  - Testuko ideiak eta zatiak elkarrekin lotzeko oinarritzko kohesio-prozedura batzuk erabiltzen ditu (halako testuetan erabili ohi diren erreferente eta lokailuak, nagusiki).
  - Bere eta besteen idazlanak hobetzeko ebaluazio- eta zuzenketa-jardueretan parte hartzen du, eta horretan, modu gidatuan erabiltzen ditu testua berrikusten laguntzen dioten baliabideak (kontrol-zerrendak...).
  - Modu gidatuan erabiltzen ditu informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, bai informazioa lortzeko eta ordenatzeko, eta bai testua idazteko eta zuzentzeko.
  - Ahozko testua txukun-txukun aurkezten du.
  - Uko egiten dio bere ekoizpenetan sexistak eta bazterketazko irudiak erabiltzeari.
- 7. Literatura-testua gozamen-iturritzat, kulturara hurbiltzeko bidetzat eta norberaren hizkuntza-ondarea eta mundu pertsonala aberasteko zubitzat hartzea.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Bere adinarekin eta intereseekin bat datozen literatura-lan egokituak irakurtzen eta entzuten ditu, edo ahozko literatura-tradizioko lanak erreproduzitzen, eta horretan guztian, bere irizpideei jarraituz hautatzen ditu irakurgaiak.
  - Gero eta modu autonomoagoan erabiltzen ditu liburutegia, mediateka eta Internet.
  - Ikasgelako liburutegiaren erabilera-arauak errespetatzen ditu, eta liburutegiak ongi funtzionatzeko eta zaintzeko lanetan laguntzen du.
  - Testuari buruzko bere iritzia ematen du ahoz nahiz idatziz, era erraz batean.
  - Aktiboki parte hartzen du poemen, bertsoen eta narrazioen dramatizatzeko, birsortze- eta errezitatzeko-jardueretan, eta horretan, ahoskera eta intonazioa zaintzen ditu, batetik, eta eszenaratzeko estrategia errazak erabiltzen ditu, bestetik.
  - Gai da, eredu bati jarraituz, literatura-testu soil-soilak birsortzeko eta ekoizteko (komikiak, poematxoak, dramatizazioak eta kontakizun laburrak...), eta horretan, aintzat hartzen ditu testu mota horien oinarritzko ezaugarriak eta hizkuntza-elementu espezifikokoak.
- 8. Gai izatea, baten bat laguntzaile duela, atzerriko hizkuntzaren erabileraz eta hizkuntza horrek gainerako hizkuntza guztiekin duen erlazioaz egindako behaketen eta gogoeten bitartez ikasitakoa erabiltzeko, horrela ulermen-arazoak konpontzeko, batetik, eta ahozko nahiz idatzizko testuak osatzeko eta berrikusteko, bestetik.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Gai da beste hizkuntza batzuetan alderdi linguistikoez eta testu-tipologiaz eskuratutako ezaguerak erabiltzeko bere ahozko nahiz idatzizko ekoizpenak hobetzeko.
  - Gai da eguneroko gaiekin eta gai akademikoekin lotutako hitz-errepertorio mugatu bat identifikatzeko eta erabiltzeko.



- Landutako hizkuntza-formulak darabiltza komunikazio-egoera jakinetan: kortesiazko arauak, adostasun-formulak, eskaerak, ukazio-formulak...
  - Ikasgelan landutako elementu linguistikoak modu gidatuan erabiltzen ditu, bere ahozko nahiz idatzizko ekoizpenak zuzenak, koherenteak eta kohesionatuak izan daitezten: ortografia-arauak, puntuazio-markak, lokailuak, deiktikoak, denbora, modua, aspektua, kantitatea...
  - Gai da dakizkien hizkuntzetako gramatika-kategoriak, esapideak eta hitzak elkarrekin konparatzeko.
  - Modu ulergarrian erreproduzitzen ditu ikasgelako komunikazio-trukeetan erabili ohi diren ereduak lotutako ahoskera-, erritmo-, intonazio- eta azentuazio-elementuak.
  - Zenbait baliabide (adibideak, ereduak, hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak...) erabiltzen ditu ekoizpen-prozesuan sortu ohi zaizkion zalantzak argitzeko.
  - Bere nahiz besteen testuetan egon litezkeen oinarritzko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, zenbait irizpide oinarri hartuta.
  - Besteen ekarpenak balioesten eta aintzat hartzen ditu.
  - Bere lan pertsonala antolatzen du, eta haren gaineko ardura bere gain hartzen du.
  - Bere urratsak ebaluatzen ditu, eta hobeto ikasten laguntzen dioten zenbait baliabide eta estrategia identifikatzen ditu.
- 9. Atzerriko hizkuntza erabiltzea jatorri desberdinetako pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat eta ikaskuntza-baliabidetzat.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
  - Aktiboki eta errespetu osoz parte hartzen du atzerriko hizkuntzan egiten dituzten komunikazio-trukeetan.
  - Bere komunikazio-trukeetan behar bezala erabiltzen ditu oinarritzko kortesia-arauak.
  - Atzerriko hizkuntza harreman pertsonalak egiteko eta proiektuetan parte hartzeko erabiltzen du, eta horretan, teknologia berriak erabiltzen ditu bere ahozko nahiz idatzizko ekoizpenetan.
  - Atzerriko hizkuntza ikasteko eta hainbat informazio-iturritara iristeko bidetzat erabiltzen du.
  - Atzerriko hizkuntza besteekin komunikatzeko baliabide dela eta, hura ikastearen eta erabiltzearen aldeko interesa du.
  - Eleaniztun izateak duen garrantziaz jabetzen da, horrek bereaz bestelako jatorri eta kulturetako pertsonekin komunikatzeko aukera ematen dion aldetik.
  - Bere inguruko hizkuntza-aniztasuna aberastasun-iturritzat hartzen du.
  - Ikasgela barruan nahiz kanpoan sortutako ikaskuntza-aukerak aprobetxatzearen aldeko interesa du.
- 10. Atzerriko hizkuntza erabiltzea norberarenaz bestelako errealitateak deskubritzeko eta beste kultura batzuetako jendearen ezaugarri, ohitura eta tradizioak identifikatzeko, eta horretan, kultura horiek ulertzearen eta errespetatzearen aldeko jarrera izatea.**
- Badaki zein diren ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten duten herrialdeen ezaugarri, ohitura eta tradizio adierazgarrietako batzuk identifikatzen ditu.
- Gai da atzerriko zenbait elementu soziokultural bere herrialdekoekin lotu eta, horrela, kulturen arteko harremanen garrantziaz jabetzea.
- Bereaz bestelako kultura-tradizioen berri jakitearen aldeko interesa du.
- Desberdintasunak aberastasun-iturritzat hartzen ditu, eta haiek errespetatzearen eta balioestearen aldeko jarrera du.

## 2. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

### 2.1. MATEMATIKA

#### 2.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Matematika arloko etapako helburuak hauek dira:

1. Banaka edo taldean, eguneroko bizitzatik ateratako problemak, beste zientzia batzuetakoak edo Matematikakoak planteatzea eta ebaztea, eta zenbait estrategia aukeratzea eta erabiltzea, ebazpen-prozesua justifikatzea, emaitzak interpretatzea eta egoera berrietan aplikatzea, gizarte-ingurunean modu eraginkorragoan jardun ahal izateko.
2. Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza-arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.
3. Natura- eta kultura-inguruneke forma geometrikoak identifikatzea, elementuen, erlazioen eta propietateen ezagutza erabiliz, errealitatea deskribatzeko, eta ezagutza geometrikoak aplikatzea inguruan dugun mundu fisikoa ulertzeko eta analizatzeko, eta hari buruzko problemak ebazteko.
4. Kalkuluak eta iritzirako kalkuluak (zenbakizkoak, metrikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzean prozedura egokienak (buruzko kalkulua, idatzia, kalkulagailua...) erabiliz, bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko, eta emaitzak sistematikoki berrikustea.
5. Beren adinerako egokiak diren eta emaitzak eta ondorioak argi eta garbi eta koherentziaz justifikatzeko eta aurkezteko norberaren pentsamendua adierazteko errazten duten hizkuntza arrunteko eta hizkuntza matematikoko elementuak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak) erabiliz, arrazoitzea eta argudiatzea.
6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) behar bezala erabiltzea kalkuluak egiteko, denetariko informazioak bilatzeko, tratatzeko eta adierazteko, bai eta Matematika ikasten laguntzeko ere.
7. Matematikak eguneroko bizitzan duen zeregina balioestea, hura erabiliz gozatzea, eta Matematikako jardueraren moduen eta jarreraren balioa bereiztea; esate baterako, alternatibak aztertzea, hizkuntzaren zehaztasuna edo malgutasuna eta soluzioak bilatzen iraunkorra izatea.
8. Matematika kulturaren parte dela balioestea, bai ikuspegi historikotik bai gaur egungo gizartean duen zereginagatik, eta eskuratutako Matematikako konpetentziak aplikatzea, zenbait fenomeno sozial analizatzeko eta balioesteko; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna edo bizikidetzaren baketsua.

## 2.1.2. EDUKIAK

### 2.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Matematika zenbakiekin eta formekin lotutako ezagutzen multzoa da. Lehen Hezkuntzako Matematika arloko funtsa esperientziazkoa da bereziki, eta ikasketa-edukiei denetariko ideia matematikoak (kontzeptuak, prozedurak, propietateak, erlazioak, egiturak...) sortzeko gai diren zenbait material didaktiko manipulatu ekin behar zaie. Matematikako erronkek elementu motibataileak izan behar dute ezagutza matematikoa eskuratzeko eta pentsamendu logikoa garatzeko, eta, horrela, ikasleengan ikerketa eta arrazoiketen ahozko adierazpena errazteko, Matematikako hizkuntza zuzena erabiliz, zeina ohiko hizkuntzaren desberdina den zorrotzasunari eta terminologiari dagokionez. Talde-lanak eta berdin taldearekiko interakzioan trebetasun sozialak ongi jakiteak entzute aktiboa garatzeko, ideiak trukatzeko eta alderatzeko eta ezagutza berriak sortzeko balio dute.

Lehen Hezkuntzako Matematikaren garapenari dagokionez, komeni da ezaugarri interesgarri batzuen berri ematea:

- Osagai intuitiboaren nagusitasuna abstrakzioarekiko eta formalizazioarekiko, eta estrategia pertsonalak erabiltzea "akademikoen" ordez.
- Ikasleen esperientzien zenbait eremu erabiltzea Matematikako jardueren iturritzat.
- Eskuz lantzeko material didaktikoak eta neurketa-tresnak erabiltzea.
- Kalkulagailua eta bitarteko teknologikoak arrazoiz erabiltzea (uneari eta adinari egokituta).
- Talde-lanaren garrantzia, ikasketaren oinarria den aldetik.
- Eduki guztien garapen globala, Problemen ebazpena eta eduki geometrikoak azpimarratuz, zentzumenen garapenarekin bat etorritzat.
- Ideiak, arrazoiketa, argudioak, etab. jakinarazteko, hizkuntza argia eta egokia izateko nahia eta beharra bultzatzea.

Matematika ikasgaia adierazitako ezaugarriak aintzat hartuta garatu ahal izateko, eduki batzuk aukeratu dira, eta modu jakin batean bildu dira. Horrela, eduki-multzoak sortu dira. Bi ikasturteetan, **Eduki Komunen** multzo bat sartu da. Multzo hori Lehen Hezkuntzan lantzen diren matematika-ezagutzen zeharkako ardatza eta ardatz egituratzailea da.

Multzo horretan curriculumeko oinarrizko gai bat aipatzen da berariaz: hizkuntza matematikoa. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari buruzko alderdiak eta jarrerarekin lotutakoak ere agertzen dira. Gainera, prozedurazko eta jarrerazko edukiak ere sartu dira, arlo eta ikasgai guztiei dagozkienak, zehar-kompetentziekin estuki lotuta daudenak.

Edukiak zikloka ere banatu dira, sei multzotan bilduta. Aipatutako **Eduki Komunen** multzoari hauek gehitu behar zaizkio: **Zenbakiak eta eragiketak; Neurria; Geometria; Informazioaren trataera, Zoria eta probabilitatea; Problema ebaztea**. Adierazi beharra dago antolatze modu bat baino ez dela. Kontua ez da konpartimentu estanko bat sortzea: multzo guztietan zenbakizko eta geometriko teknikak erabili behar dira, eta edozeinetan erabilgarria izan daiteke taula bat sortzea, grafiko bat egitea edo ziurgabetasun-egoera bat piztea. Matematikaren irakaskuntzan edukien konfigurazio zikliko hori aintzat hartuko da, eta, hartara, edukiak elkarrekin lotuta egongo dira beti eta batzuen ganean beste batzuk eraiki ahal izango dira. Problemen ebazpena ardatz nagusia da, eta multzo guztiak aztertzen ditu zeharka. Horregatik, arreta berezia jarri behar zaio.

**Zenbakiak eta eragiketak** izeneko multzoan, zenbakizko alfabetatze eraginkorra lortzea da helburua, zenbakiak eta erlazioak ageri diren egoerei arrakastaz aurre egiteko ahalmen gisa ulertuta. Azpimarratu beharrekoa da konpetentzia hori lortzeko ez delako nahikoa idatzizko kalkuluko algoritmoak erabiltzen jakitea; buruzko kalkuluko estrategiak (zehatzak nahiz gutxi gorabeherakoak, magnitude-ordenaren arabera), eta zenbakiekin eta kantitateekin lan egitean konfiantzaz aritzea; bidezkoa den aldiro erabiltzea eta haien arteko oinarritzko erlazioak identifikatzea. Zenbakiak zenbait testuingurutan erabili behar dira, garatutako prozesuen ulermena eta emaitzen esanahia aurretiko edukiak eta lehentasunezkoak direla jakinda; kalkuluko abilezia hutsa baino harago doana. Zenbait prozedura edo estrategia erabiliz kalkulatzeko abilezia da interesgarria, eta kasu bakoitzean erabaki behar da zein den egokiena. Etapa honetan, ikasleek jariakortasunez kalkulatzeko eta iritzirako kalkulak arrazoiz egitea da helburua, kontzeptuak ulertzearen eta kalkuluko konpetentziaren arteko oreka lortzeko.

**Neurriari** buruzko multzoa behar bezala garatu ahal izateko, mota guztietako zenbakiak eta eragiketak behar bezala ezagutu eta erabili behar dira, bai eta hurbilketak eta iritzirako kalkulak egiteko estrategiak ere. Egoera errealetan neurketak egitea lortu beharreko lehentasunezko helburu bat izango da, eta, horretarako, mota guztietako unitateak erabiliko dira: gorputzekoak (oina, arra, besoa, etab.), arbitrarioak (sokak, lauzak, etab.) eta normalizatuenak, hots, Sistema Metriko Hamartarra.

**Geometriak** espazioko orientazioarekin eta adierazpenarekin, kokapenarekin, espazioko objektuen deskribapenarekin eta ezagutzarekin lotutako edukiak biltzen ditu; bai eta forma lauen eta hiru dimentsioko formen azterketa ere. Jolas-jarduerek objektuen espazioko egoera eta kokapena deskribatzen lagundu dezakete, erreferentzia-sistemak eta adierazpen-modeloak ezarriz. Eguneroko bizitzako ingurunea kontzeptu geometriko askoren abstrakzio-maila saihesten duten askotariko egoera fisiko errealek aztertzeko iturri bat da, elementuak, propietateak eta abar lantzen dituenak. Geometriak bide ematen du gainerako multzoekin eta beste esparru batzuekin (artearekin edo zientziarekin, esate baterako) erlazio konstanteak ezarriz, baina eskuz lantzeko alderdiei zeregin garrantzitsua esleituz, denetariko materialak (geoplanoak eta mekanoak, puntu-bilbeak, ispiluen liburuak, poliedroak eratzeko materialak, etab.) eta norberaren jarduera baliatuz, tolestuz, eraikiz, etab. kontzeptura modelo errealean bidez iristeko. Geometriako programa informatikoak ere erabil daitezke helburu hori lortzeko.

**Informazioaren trataera eta zoriari** buruzko multzoaren edukiek benetako esanahia hartzen dute beste ezagutza-arlo batzuekin lotutako jardueretan aurkezten direnean. Multzo honen hasieran, informazioa biltzeko, matematikoki tratatzeko eta gainerakoei komunikatzeko edukiak ageri dira, adierazpen grafikoa bereziki azpimarratzen da, eta, gainera, ausazko fenomenoetarako lehenengo hurbilketa da. Gainera, eduki horiek etapa honetako beste arlo batzuetan aplikazioa eta jarraitutasuna dute; hain zuzen ere, datu estatistikoak (populazioak, inkestak, herrialdeen azalerak, etab.) eguneroko bizitzan ageri diren informazioak maiz erabiltzen dituzten arloetan. Eduki horiek oso egokiak dira talde-lana eta zentzu kritikoaren garapena bultzatzeko. Ikasleek dakizkiten zorizko jokoak (partxisa, aurkia eta ifrentzua...) tresna egokiak izan daitezke ausazko fenomenoetara hurbiltzeko.

**Problemak ebaztea** izeneko multzoa funtsezkoa da, Matematikako konpetentziaren definizioan argi eta garbi adierazi den moduan. Eguneroko bizitzako problemak identifikatzea, datuak eta erlazio garrantzitsuak bereiztea, aieruak egitea, ebazpen zehatz edo hurbilduko estrategiak garatzea, aieruak eta emaitzak aztertzea, eta emaitzak antolatzea eta jakinaraztea Matematikako eremu guztietan aplika daitezkeen prozesu eta eduki komunak dira. Problemen ebazpena izeneko berariazko multzoa sortzeko erabakiak bi helburu ditu. Lehenik, ikasgelako lanean merezi duen arreta eta denbora eskaintzea: eragiketek, neurriek, kalkuluek... problemak ebazteko erabiltzen direnean hartzen dute beren benetako zentzua. Baina eduki bat izateaz gain problemak ebaztea metodo bat ere bada, eguneroko Matematikako lana ulertzeko modu bat. Ikasgelan giro gogoetatsua, sortzailea eta elementu garrantzitsutzat

Informazioaren trataera, eta Matematikako eduki berrien aplikazioa eta ikasketa dituzten ikerketak (zenbakizkoak, neurriei buruzkoak, geometrikoak, funtzionalak, probabilitistikoak, etab.) eta proiektuak sortzeko gaitasuna duen giroa lortzea.

### 2.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

a.- Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak

#### Eduki multzo honetako prozeduren eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea)..
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak

##### Hizkuntza matematikoa

- Zehaztasuna eta argitasuna, kantitateak, zenbakizko erlazioak, ordinal sinpleak, alderaketak, sailkapenak, neurri-unitate errazak, espazioko orientazioa, denbora-orientazioa... adierazteko.
- Hizkuntza egokia erabiltzea batuketa- eta biderketa-egoera errazak adierazteko.

- Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketaren sinbolo eta adierazpen matematikoak.

### **Informazioaren eta komunikazioaren baliabide didaktikoak eta teknologiak**

- Kalkulagailua. Erabilera-jarraibideak. Segidak sortzeko, zenbakiak konposatzeko eta deskonposatzeko, kalkuluak egiteko, buruzko estrategiak ikasteko eta problemak ebazteko erabiltzea.
- Informatikako eta Interneteko baliabideak erabiltzea, jarduerak egiteko eta Matematikako edukiak ulertzeko.

### **Jarrerak**

- Matematikako edukiak ezagutzeko eta erabiltzeko jarrera positiboa izatea, informazioa interpretatzeko eta jakinarazteko, eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko.
- Kalkuluak, emaitzak eta ebazpen-prozesuak txukun eta ordenan aurkezteko interesa izatea.
- Lankidetzan lanean ekimenez, partaidetzan eta elkarlanean jardutea, problemak ikertzeko, ebazteko eta asmatzeko, gainerakoen lana errespetatuz.
- Konfiantza izatea norberaren aukeretan, konstantzia, eta Matematikaren ikaskuntzako erronkak eta akatsak gainditzeko jarrera izatea. Ikaskuntza autonomoa garatzeko ekimena eta gogoia izatea.

## **2. MULTZOA. Zenbakiak eta eragiketak**

### **Zenbaki arruntak eta zenbakizko alfabetatzea**

- Zenbakien esanahia eta erabilgarritasuna eguneroko bizitzan (zenbatu, neurtu, ordenatu, kantitateak adierazi, erosi, jolastu... komunikatu).
- Komunikazioa eta zenbakiak. Zenbakizko testuak eta zenbakiekin lotutako eguneroko bizitzako adierazpenak interpretatzea (publizitate-liburuxkak, prezioen katalogoak, bidaia-katalogoak).
- Zenbakikuntza-sistema hamartarra. Zenbakien eraketa-arauak eta bost zifrara arteko zenbakien posizio-balioen arauak jakitea.
- Zenbakiak benetako egoeretan erabiltzea: irakurtzea eta idaztea, ordenatzea eta alderatzea (idazkera), zenbakizko zuzenean adieraztea, deskonposatzea, biribiltzea, jolasetan erabiltzea.
- Zenbaki ordinalak. Benetako testuinguruetan erabiltzea.
- Zatiketa erabiltzen hastea: erdia eta laurdena.

### **Eragiketak**

- Batuketa (biltzeko edo gehitzeko egoerak) eta kenketa (bereizteko edo kentzeko egoerak) egiteko eragiketen esanahia, eta eguneroko bizitzan erabiltzea, problemak ebazteko.
- Biderketa (batugai berdinen arteko batuketa laburtua, aldi kopurua kalkulatzeko) eta zatiketa (banatzea eta biltzea; biderketaren alderantzizko eragiketa gisa) egiteko eragiketen esanahia, eta eguneroko bizitzan erabiltzea, problemak ebazteko.
- Eragiketen ahozko eta idatzizko adierazpena, eta batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egitea.

**Kalkulu-estrategiak**

- **Batuketak eta kenketak:**
  - Batuketak eta kenketak ulertzeko eta egiteko hasierako estrategiak: eskuz erabiltzea eta zenbatzea, hatzak, zenbakizko zuzena, jolasak... erabiltzea.
  - Buruzko kalkulu automatikoa: 10era arteko zenbakien arteko batuketak eta kenketak egiteko taulak egitea eta buruz ikastea.
- **Biderketak eta zatiketak:**
  - Biderketa eta zatiketa errazak ulertzeko eta egiteko hasierako estrategiak: adierazpen grafikoak, neurrien errepikapenak, diru-banaketak, jolasak...
  - Buruzko kalkulu automatikoa: biderkatzeko taulak egitea eta buruz ikastea.

**Zenbakizko zentzua:**

- **Buruzko kalkuluko estrategiak:**
  - Biderkatzeko taulak egitea eta buruz ikastea.
  - Buruzko kalkuluko norberaren estrategiak eta estrategia akademikoak egitea eta erabiltzea: deskonposizioa eta konposizioa, edozein zenbakiri 1, 10 eta 100 batzea edo/eta kentzea, zenbaki errazen bikoitza eta erdia, 1ez, 10ez, 100ez... biderkatzea, eta zenbakiak batuketatan eta biderketatan deskonposatzea.
  - Kalkulu hurbildua. Zenbait estrategia erabiltzea, kalkulu baten emaitza iritzira kalkulatzeko eta biribiltzeko, eta kalkulua baliagarria den balioestea.
  - Buruzko kalkuluak egiteko erabilitako prozesua ahoz edo/eta idatziz azaltzea.
- **Idatzizko kalkuluko estrategiak:**
  - Batuketen, kenketen, biderketen eta zatiketen algoritmo ez-akademikoak egitea, zenbakiak deskonposatuz, banaketak eginez eta beste estrategia batzuk erabiliz.
  - Batuketak, kenketa eta biderketak egitea, algoritmo akademikoak erabiliz.
  - Zenbaki arruntak batuketatan deskonposatzea, zifren posizio-balioei erreparatuz.
  - Segida gorakorrek eta beherakorrek egitea.
  - Idatzizko kalkuluak egiteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

**3. MULTZOA. Neurria: magnitudeak kalkulatzeko eta iritzira kalkulatzeko****Neurketaren esanahia eta erabilgarritasuna eguneroko bizitzan**

- Neurriekin eta magnitudeekin lotutako eguneroko bizitzako zenbakizko testu errazak bereiztea eta interpretatzea.
- Lexiko egokia erabiltzea neurketei buruzko informazioak interpretatzeko eta transmititzeko.

**Luzera, pisua/masa eta edukiera**

- Objektuak zuzenean edo zeharka alderatzea, luzerari, pisuari/masari edo edukierari erreparatuz.
- Tresna eta estrategia ez-konbentzionalak (urratsak, oinak, sokak, harriak, potoak...) erabiliz neurtzea, eguneroko bizitzako testuinguruetan.



- Ohiko unitateak eta tresna konbentzionalak (erregela, metroa, balantzak, ontziak) erabiltzea, inguruko objektuak eta distantziak neurtzeko.
- Unitate egokiena aukeratzea, neurri bat magnitude-ordenaren mende adierazteko.
- Magnitude baten unitateak eta kantitateak alderatzea eta ordenatzea.
- Neurketen emaitzak (distantziak, tamainak, pisuak, edukierak...) iritzira kalkulatzeko, eguneroko bizitzako egoeretan.
- Norberaren estrategiak egitea eta erabiltzea, neurketak eta iritzirako kalkuluak egiteko.
- Neurketak egiteko erabilitako prozesua eta estrategia ahoz edo/eta idatziz azaltzea.

#### **Denbora neurtzea**

- Denbora neurtzeko unitateak: denbora ziklikoa eta denbora-tarteak (segundoak, minutuak, orduak, egunak, asteak, hilak, urtaroak, urteak).
- Denbora-tarte baten iraupena adierazteko egokia den unitatea hautatzea eta erabiltzea.
- Denbora neurtzeko unitateak.
- Erloju analogikoan eta digitalean orduak idaztea, puntuan (---:00), eta laurdenak (--:15), eta erdiak (--:30), eta laurden gutxiak (--:45). Ahozko informazio bat oinarri hartuta, ordu esanguratsuak idaztea.

#### **Diru-sistema**

- Txanponen eta billeteen balioa identifikatzea, eguneroko bizitzako salgaien prezioetan.
- Legezko txanponak eta billeteak bereiztea eta erabiltzea, eta baliokidetasunak ezartzea.

## **4. MULTZOA. Geometria**

### **Kokapena espazioan**

- Kokapenak eta higidurak deskribatzea, bai norberarekiko, bai beste erreferentzia-puntu batzuekiko, geometriako lexikoa erabiliz.
- Koordinatu-ardatzetako kokapenak eta higidurak deskribatzea, ikasleentzat hurbilekoak diren egoeretan.
- Espazio ezagunen oinarritzko adierazpena: maketak.
- Ibilbideen krokisak, eta mapa eta plano errazak interpretatzea eta ahoz deskribatzea.
- Bideen krokisak prestatzea eta haiek egitea (ibilbideak, distantziak, biraketak).
- Ibilbideak lerro gisa: irekiak eta itxiak, zuzenak eta kurbatuak, zuzenen ebaketa, eta zuzen paraleloak eta elkarzutak.
- Espazioko erlazioei buruzko informazioak dituzten mezuak interpretatzea.

### **Forma lauak eta espazialak**

- Objektu ezagunetan oinarritzko gorputz geometrikoak identifikatzea: kuboak, esferak, prisma, piramideak, zilindroak eta konoak.

- Objektuak eta gorputz geometrikoak deskribatzea, geometriako oinarrizko lexikoa erabiliz. Erpinak, ertzak eta aurpegiak.
- Objektuak eta gorputz geometrikoak alderatzea eta sailkatzea, zenbait irizpide erabiliz.
- Eguneroko bizitzako objektuetan eta espazioetan irudi lauak identifikatzea: triangeluak, laukiak, pentagonoak, hexagonoak, zirkuluak eta zirkunferentziak.
- Irudi lauak alderatzea eta sailkatzea, oinarrizko irizpideak erabiliz.
- Poligonoak irizpide geometrikoen arabera sailkatzen hastea: aldeak eta erpinak.
- Irudi batzuetatik beste batzuk eratzea, konposizioz eta deskonposizioz.
- Datuetatik abiatuta, irudiak eraikitzea.

#### **Erregularitasunak eta simetriak.**

- Irudietan eta gorputzetan erregularitasunak bilatzea, objektuak eskuetan erabiliz.
- Gorputz-simetriak eta ispiluak.

### **5. MULTZOA. Informazioaren trataera, zoria eta probabilitatea**

#### **Grafikoak eta taulak**

- Objektu, fenomeno eta egoera ezagunei buruzko datuak biltzea eta erregistratzea, oinarrizko teknika hauek erabiliz: inkesta, behaketa eta neurketa.
- Objektu, fenomeno eta egoera ezagunetatik ateratako datuei buruzko sarrera bikoitzeko taulak egitea.
- Inguruko objektu, fenomeno eta egoerei buruzko datuen barra-grafikoak egitea.
- Sarrera bikoitzeko taula errazetan eta eguneroko bizitzan ohiz erabiltzen direnetan adierazitako zenbakizko testuak irakurtzea eta idaztea.
- Fenomeno ezagunei buruzko barra-grafiko errazak irakurtzea eta interpretatzea.

#### **Esperimentu batzuen zorizko izaera**

- Zorizko fenomeno errazetara intuitiboki hurbiltzea.
- Ezinezkoa, ziurra eta posiblea baina ziurra ez dena bereiztea, eta zoriarekin lotutako adierazpen batzuetan erabiltzea.

### **6. MULTZOA. Problemak ebaztea**

- Zenbaki arrunten arteko batuketak, kenketak, biderketak edo/eta zatiketak eginez ebatz daitezkeen **egoerak eta problemak**.
- **Problema ebazteko elementuak eta prozesuak:** (enuntziatua, datuak, galdera, soluzioa), eta gainditu beharreko zailtasunak (hizkuntza-ulermena, zenbakizko datuak, matematika-kodetzea eta -adierazpena, soluzioa egiaztatzea, eta jarraitutako prozesuaren ahozko komunikazioa).
- **Problema ulertzeko eta ebazteko estrategiak planteatzea eta garatzea:**
  - Problema irakurtzea eta iruzkinak egitea.

- Batuketa-egoerak (aldaketa, konbinazioa, alderaketa eta berdintzea) eta biderketa-egoerak (neurrien errepikapena).
- Ahozko problemak, problema grafikoak eta idatziak.
- Taldean, binaka eta banaka ebaztea.
- Buruz, kalkulagailuz eta eragiketaren algoritmoa erabiliz ebaztea.
- Datuak sobera dituzten, falta dituzten, zenbait soluzio dituzten, sistematikoki zenbatu beharreko... problemak.
- Problema asmatzea eta ikaskideei jakinaraztea.
- Beste estrategia batzuk: saiakuntza- eta errore-metodoa, marrazki bat egitea...
- Problema ebaztean jarraitutako prozesua ahoz azaltzea eta justifikatzea.
- **Problema irekiak ebaztea:**
  - Zenbakiei, kalkuluei, neurriei, geometriari eta informazioaren trataerari buruzko ikerketa matematiko errazak.
  - Lanen proiektu txikiak planteatzea eta ikertzea. Matematikako ezagutzak aplikatzea eta elkarrekin lotzea. Problema elkarlanean lantzea.

### 2.1.2.3. Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak

##### Eduki multzo honetako prozeduren eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea)..
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.

- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

### **Hizkuntza matematikoa**

- Zehaztasuna eta argitasuna, kantitateak, zenbakizko erlazioak, ordinal sinpleak, alderaketak, sailkapenak, neurri-unitate errazak, espazioko orientazioa, denbora-orientazioa... adierazteko.
- Hizkuntza egokia erabiltzea batuketa- eta biderketa-egoera errazak adierazteko.
- Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketaren sinbolo eta adierazpen matematikoak.

### **Informazioaren eta komunikazioaren baliabide didaktikoak eta teknologiak**

- Kalkulagailua. Erabilera-jarraibideak. Segidak sortzeko, zenbakiak konposatzeko eta deskonposatzeko, kalkuluak egiteko, buruzko estrategiak ikasteko eta problemak ebazteko erabiltzea.
- Informatikako eta Interneteko baliabideak erabiltzea, jarduerak egiteko eta Matematikako edukiak ulertzeko.

### **Jarrerak**

- Matematikako edukiak ezagutzeko eta erabiltzeko jarrera positiboa izatea, informazioa interpretatzeko eta jakinarazteko, eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko.
- Kalkuluak, emaitzak eta ebazpen-prozesuak txukun eta ordenan aurkezteko interesa izatea.
- Lankidetzan lanean ekimenez, partaidetzan eta elkarlanean jardutea, problemak ikertzeko, ebazteko eta asmatzeko, eta gainerakoien lana errespetatzea.
- Konfiantza izatea norberaren aukeretan, konstantzia, eta Matematikaren ikaskuntzako erronkak eta akatsak gainditzeko jarrera izatea. Ikaskuntza autonomoa garatzeko ekimena eta gogoia izatea.

## **2. MULTZOA. Zenbakiak eta eragiketak**

### **1. Zenbaki arruntak, osoak, hamartarrak eta zatikiak. Zenbakizko alfabetatzea**

- Zenbaki arruntak, osoak, hamartarrak, zatikiak eta ehunekoen esanahia eta erabilgarritasuna eguneroko bizitzan.
- Zenbakizko testuak eta zenbaki motekin lotutako eguneroko bizitzako adierazpenak interpretatzea.
- **Zenbaki arruntak:**
  - Zenbaki arruntak eraketa-arauak eta zifren posizio-balioa.

- Baliokidetasunak (batekoen, hamarrekoen, ehunekoen eta abarren artean) eta eremua.
- Irakurketa eta idazketa, ordenazioa eta alderaketa (idazkera)...
- Zenbaki ordinalak erabiltzea.
- Zenbaki arruntak hamarrekotara, ehunekoetara eta milakoetara biribiltzea.
- Sei zifratik gorako zenbakiak erabiltzea benetako zenbait testuingurutan.
- **Zatigarritasuna:**
  - Multiploak eta zatitzaileak.
  - Zenbaki lehenak eta zenbaki konposatuak.
  - Zatigarritasun-irizpideak.
- **Zenbaki hamartarrak:**
  - Hamarrenak, ehunenak eta milarenak.
  - Eratze-arauak eta posizio-balioa.
  - Zenbaki hamartarrak hurbileneko hamarrenera, ehunenera edo milarenara biribiltzea.
  - Benetako testuinguruetan zenbaki hamartarrak erabiltzea.
- **Zatikiak:**
  - Zatiki kontzeptua zatien eta guztizkoaren arteko erlazio gisa.
  - Zatiki propioak eta inpropioak. Zenbaki mistoak. Adierazpen grafikoa.
  - Zatiki baliokideak, bi zatiki edo gehiago izendatzaile beraz adieraztea.
  - Zatikien eta zenbaki hamartarren arteko erlazioa, eta zatikien ordenazioan aplikatzea.
  - Benetako testuinguruetan erabiltzea.
- **Zenbaki positiboak eta negatiboak.** Benetako testuinguruetan erabiltzea.
- Zenbaki arruntak, osoak, hamartarrak, zatikiak eta ehunekoak alderatuz **ordenatzea**, zenbakizko zuzenean adieraztea, eta modu batean adierazitako zenbaki bat beste moduetan adierazten jakitea. Zenbait motatako zenbakien multzo bat ordenatzea.
- Aurretiko kulturetako **zenbakikuntza-sistemak** eta gaur egun duten eragina. Zenbakikuntza-sistema erromatarra.
- Zatiak adieraztea, ehunekoak erabiliz. Zatiki errazen, hamartarren eta ehunekoen arteko korrespondentzia (oinarrizko zenbaki-sareak).

## 2. Eragiketak

- Zenbaki arrunten arteko eragiketak: batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa.
- Berreketa, biderkagai berdinen arteko biderketa gisa. Berbidurak eta kuboak. 10 berrekizuneko berreketak.
- Zatiketaren gaiak identifikatzea eta erabiltzea.
- Eragiketen propietateak eta haien arteko erlazioak, zenbaki arruntak erabiliz.
- Zatikien arteko eragiketak.

- Zenbaki hamartarren arteko eragiketak.
- Eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera.
- Ehunekoak eta proportzionaltasuna:
  - Zatiak adieraztea, ehunekoak erabiliz.
  - Zatikien errazen, hamartarren eta ehunekoaren arteko korrespondentzia (zenbaki-sareak).
  - Handitzeak eta txikitzeak, ehunekotan.
  - Proportzionaltasun zuzena.
  - Hiruko erregela proportzionaltasun zuzeneko egoeretan: bikoitza, hirukoitza eta erdia.
  - Eguneroko bizitzako problemak ebaztea.

### 3. Kalkulu-estrategiak

- Zenbaki arrunten, zatikien eta ehunekoaren arteko kalkulu errazak ulertzeko eta egiteko **hasierako estrategiak**: zenbakizko zuzena, adierazpen grafikoak...
- **Zenbakizko zentzua eta buruzko kalkuluko estrategiak**:
  - Zenbaki arruntekin, hamartarrekin, zatikiekin eta ehunekoekin (zenbaki-sareak) lotutako buruzko kalkuluko norberaren estrategiak eta estrategia akademikoak egitea eta erabiltzea. Zenbakizko segidak.
  - Biderkatzeko taula erabiltzea multiploak eta zatitzaileak identifikatzeko.
  - Zenbaki moten kalkulu hurbilduak egiteko zenbait estrategia egitea eta erabiltzea.
  - Emaitzak iritzira kalkulatzeko, arrazoizko zenbakizko erantzunak balioestea eta emaitzak estrategia aritmetikoen bidez egiaztatzea.
  - Buruzko kalkuluak egiteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea.
- **Idatzizko kalkuluko estrategiak**:
  - Zenbaki moten arteko batuketak, kenketak, biderketak eta zifra bat baino gehiagoko zatitzailea duten zatiketak egiteko algoritmo akademikoak erabiltzea, eguneroko bizitzako egoeretan eta problemak ebazteko testuinguruetan. Algoritmoak automatizatzea.
  - Zenbaki arruntak eta hamartarrak batuketatan eta batuketa eta biderketatan deskonposatzea, zifren posizio-balioei erreparatuz.
  - Zenbakizko segidak (gorakorrek eta beherakorrek) eta segida alfanumerikoak egitea.
  - Zenbaki baten lehen multiploak kalkulatzeko.
  - 100 baino txikiagoa den edozein zenbakiren zatitzaile guztiak kalkulatzeko.

### 3. MULTZOA. Neurria: magnitudeak kalkulatzeko eta iritzira kalkulatzeko

**1. Neurketaren esanahia eta erabilgarritasuna.** Zenbakizko testuak bereiztea eta interpretatzea, eta neurketa eta neurriak erabiltzea, problemak ebazteko eta informazioak ulertzeko nahiz transmititzeko. Lexiko egokia erabiltzea.

**2. Luzera, pisua/masa, edukiera, azalera eta bolumena:**

- Edukiera- eta bolumen-neurrien arteko baliokidetasunak.
- Luzera-, edukiera- edo masa-neurri bat modu sinplean eta konplexuan adieraztea.
- Magnitude baten neurriak alderatzea eta ordenatzea.
- Norberaren estrategiak garatzea, irudien neurketa zehatzak eta hurbilduak egiteko.
- Neurketa bat egiteko eta neurria adierazteko unitate egokia aukeratzea.
- Neurketak egitea.
- Irudi lauen azalera alderatzea, bat bestearen gainean jarriz, deskonposatuz eta neurtuz.
- Luzera-, edukiera-, masa-, azalera- eta bolumen-neurrien arteko batuketak eta kenketak egitea, eguneroko bizitzako benetako egoeretan.
- Objektu eta espazio ezagunen luzerak, azalera, pisuak eta edukierak iritzira kalkulatzeko; neurketa bat egiteko eta neurria adierazteko unitate eta tresna egokienak aukeratzea.
- Erabilitako edozein prozeduratan baliatutako prozesua eta estrategia ahoz eta idatziz azaltzea.

### 3. Denbora neurtzea:

- Denbora neurtzeko unitateak eta haien arteko erlazioak.
- Ordu, minutu eta segundoen arteko baliokidetasunak eta unitate-aldaketak, benetako testuinguruetan.
- Erloju analogikoetan eta digitaletan orduak irakurtzea. Ahozko informazioak abiapuntu hartuta, denbora-neurriak idaztea.
- Denbora-neurriekin kalkuluak egitea.

### 4. Angeluak neurtzea:

- Sistema hirurogeitarra.
- Angelua, biraketa baten edo irekidura baten neurri gisa.
- Angeluak neurtzea eta angeluak neurtzeko tresnak erabiltzea.

### 5. Diru-sistemak:

- Europar Batasuneko diru-sistema. Unitate nagusia: euroa. Txanponen eta billeteen balioak.
- Euroaren multiploak eta azpimultiploak.
- Txanponen eta billeteen arteko baliokidetasunak.
- Neurri-problema ebaztea.

**6. Informazio-unitateak:** bytea, kilobyte (Kb), megabyte (Mb), gigabyte (Gb), terabyte (Tb). Benetako testuinguruetan erabiltzea.

## 4. MULTZOA. Geometria

### 1. Kokapena planoan eta espazioan, distantziak, angeluak eta biraketak:

- Oinarrizko adierazpena espazioan, eskalak eta grafiko errazak.

- Koordinatu kartesiarren sistema. Puntuak adieraztea eta irakurtzea.
- Kokapenak eta higidurak koordinatuen, puntu kardinalen, distantzien, angeluen, biraketen eta abarren bidez deskribatzea.
- Planoak, maketak eta mapak irakurtzea, interpretatzea, egitea eta berregitea, eskalak erabiliz.
- Marrazketa-tresnak eta programa informatikoak erabiltzea, forma geometrikoak egiteko eta aztertzeko.

## 2. Forma lauak eta espazialak:

- **Irudi lauak.** Elementuak: alde kopurua eta haien arteko erlazioak; angeluek eta erlazioak; ahurtasuna eta ganbeltasuna; sailkapena.
- Angeluak zenbait kokapenetan: ondoz ondokoak, auzokideak, erpinez aurkakoak...
- Poligonoak identifikatzea eta izendatzea, alde kopuruaren arabera.
- Triangeluak sailkatzea, aldeen eta angeluen arabera.
- Triangelu baten aldeen eta angeluen arteko erlazioak.
- Laukiak aldeen paralelotasunaren arabera sailkatzea.
- Perimetroa eta azalera.
- Zirkunferentzia eta zirkulua. Oinarrizko elementuak: zentroa, erradioa, diametroa, korda, arku, ukitzaila eta sektore zirkularra.
- Zuzenen eta zirkunferentzien kokapen erlatiboak.
- Gorputz geometrikoak: elementuak eta erlazioak.
- Poliedroak. Oinarrizko elementuak: erpinak, aurpegiak eta ertzak. Poliedro motak.
- Gorputz biribilak: konoa, zilindroa eta esfera.
- Irudi batzuetatik abiatuta irudi lauak eta gorputz geometrikoak eratzea, konposizioz eta deskonposizioz.
- Irudi lauen eta espazialen modeloak egitea, denetariko material erabiliz.

## 3. Erregulartasunak eta simetriak.

- Irudietan eta objektuetan simetriak identifikatzea.
- Irudi lau baten irudi simetrikoa marraztea emandako elementu batekiko.
- Antzekotasunaren sarrera: handitzeak eta txikitzeak.

## 5. MULTZOA. Informazioaren trataera, zoria eta probabilitatea

### 1. Grafikoak eta taulak.

- Inguruko objektuei, fenomenoari eta egoerei buruzko informazioak eta datu kualitatiboak eta kuantitatiboak biltzea eta sailkatzea, oinarrizko teknikak erabiliz: inkesta, behaketa eta neurketa.
- Maiztasun absolutuen eta erlatiboen taulak interpretatzea eta egitea.
- Grafiko errazak egitea eta interpretatzea, informazioa adierazteko: barra-diagramak, piktograma poligonalak eta sektorialak.



- Zentralizazio-neurrien sarrera intuitiboa: batez besteko aritmetikoa, moda eta heina.
- Grafiko estatistikoaren bidez aurkeztutako informazioen azterketa kritikoa.

## 2. Esperimentu batzuen zorizko izaera.

- Zoria eguneroko bizitzan. Gertakari baten probabilitatea iritzira kalkulatzeko.
- Aukeren eta probabilitatearen arteko desberdintasuna.
- Zorizko fenomeno errazen portaerari buruzko gertakari baten aieruak maila intuitiboan egitea eta egiaztatzea (probabilitateen kalkulua).

## 6. MULTZOA. Problema ebaztea

1. Lau eragiketarako bat, zenbait magnitude eta neurri-unitate (luzerak, pisuak, edukierak, denborak, dirua...), eta zenbaki arruntak, hamartarrak, zatikiak eta ehunekoak dituzten eguneroko bizitzako egoerak eta problema.

### 2. Problema ebazteko prozesuak:

- Planteatutako enuntziatua/egoera aztertzea eta ulertzea: datuak eta erlazioak.
- Norberaren estrategiak eta estrategia heuristikoak erabiltzea: marrazki bat egitea, taula bat egitea, eskema bat egitea, eragiketak egitea eta saiakuntza- eta errore-metodoa erabiltzea, emaitza iritzira kalkulatzeko, problema birformulatzea, antzeko problemekin erlazionatzea, eta amaieratik hastea.
- Lan zientifikoko metodora hurbiltzea, haren ezaugarri batzuk ikasiz eta egoera errazetan praktikatu.
- Zenbait egoeratan kalkulu zehatzak edo hurbilduak egitearen egokitasunari buruzko erabakia hartzea, eta errore-maila onargarria den balioestea.
- Lortutako soluzioaren edo errorearen emaitzak eta balioestena.
- Ikaskideei jakinaraztea eta jarraitutako prozesua ahoz azaltzea.

### 3. Problema ulertzeko eta ebazteko strategiak planteatzea eta garatzea:

- Problema irakurtzea eta iruzkinak egitea.
- Batuketa-egoerak (aldaketa, alderaketa eta berdintzea) eta biderketa-egoerak (neurrien errepikapena, eskalarrak, biderketa kartesiarra...).
- Ahozko problema, problema grafikoak eta idatziak.
- Datuak sobera dituzten problema eta datuak falta dituztenak.
- Zenbait soluzioko edo soluziorik gabeko problema.
- Zenbaketa sistematikoko problema.
- Osatzeko problema eta eraldatzeko problema.
- Problema asmatzea.

### 4. Problema irekiak:

- Zenbakiei, kalkuluei eta geometriari buruzko ikerketa matematiko soilak.
- Aldaketa-egoerak eta patroiak, erregularitasunak eta Matematikako legeak bilatzeko egoerak, zenbakizko, geometriako eta funtzionalitatezko testuinguruetan.

- Informazioaren trataerarekin lotutako zenbakizko lanen proiektuak planteatzea. Matematikako ezagutzak aplikatzea eta elkarrekin lotzea. Problemak elkarlanean lantzea.

### 2.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 2.1.3.1. Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

- 1. Matematikako lanerako jarrera positiboa izatea, kalkuluaren aurkezpen txukuna eta ordenatua balioestea, eta konfiantza izatea norberaren aukeretan eta ikaskuntzako erronkak eta erroreak gainditzeko.**
  - Matematikako jarduerak egiteko interesa agertzen du.
  - Irmo jarduten du problemen soluzioa bilatzen.
  - Gainerakoek azalpenak errespetatzen ditu.
  - Matematikako lanak txukun eta ordenan aurkezten ditu.
  - Matematikako jarduerak egitean, konfiantza du bere buruarengan.
  - Matematikako zailtasunen eta erronken aurrean, ekimena eta gainditzeko gogoia erakusten du.
  - Matematikako jarduerak egitean, autonomia erakusten du.
- 2. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuak interpretatzea, 5 zifra arteko zenbaki arruntak irakurtzea eta idaztea, eta zifra bakoitzaren posizio-balioa interpretatzea, zenbakiak posizio-balioaren arabera eta zenbakizko zuzenean alderatzea eta ordenatzea.**
  - Erakuslehoetako prezioetan agertzen diren zenbakien balioak eta eguneroko bizitzako zenbakizko beste testu batzuk interpretatzen ditu, eta zentzua duten zenbakizko informazioak igortzen ditu.
  - Zenbakien zenbaketa selektiboa erabiltzen du, eta gai da zenbaki jakin bati 1, 10, 100 eta 1.000 batzeko edo kentzeko.
  - Bost zifrarainoko zenbaki arruntak irakurtzen eta idazten ditu, eta idazketa zifratua eta ahozko izendapena lotzen ditu.
  - Bost zifrarainoko zenbaki arruntak alderatzen eta ordenatzen ditu, posizio-balioaren arabera eta zenbakizko zuzenean adieraziz.
  - Zenbakiak batuketatan deskonposatzen ditu, konposatu egiten ditu eta hamarreko, ehuneko, milako... hurbilenera biribiltzen ditu.
  - Zenbakiak zenbatuz, irakurriz, idatziz eta alderatuz ebatzen diren eguneroko bizitzako egoerei buruzko galderak eta problemak sortzen ditu.
- 3. Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa errazak buruz egitea, buruzko kalkulu zehatzak eta hurbilduak egiteko zenbait estrategia erabiliz.**
  - Oinarriko eragiketen buruzko kalkulu automatikoak erraz egiten ditu.
  - Zenbaki sinpleen arteko batuketak eta kenketak egiteko buruzko estrategiak, norberarenak edo akademikoak erabiltzen ditu: hamarreko, ehuneko eta milako zehatzekin eragiketak egiten ditu; zenbakiak biribiltzen ditu; emaitza iritzira

kalkulatzen du, biribilduz; batugaiak aldatzen ditu, horrek lana errazten badio; batuketak eta kenketak unitateka egiten ditu; bikoitzak eta erdiak kalkulatzen ditu...

- Zenbaki sinpleen arteko biderketak eta zatiketak egiteko buruzko estrategiak, norberarenak edo akademikoak erabiltzen ditu: 2z biderkatzen eta zatitzen du; 10ez eta 100ez biderkatzen du; deskonposizio eta elkartze bidez biderkatzen eta zatitzen du, eragiketen propietateak erabiliz.
  - Buruzko kalkuluak egiteko, norberaren beste estrategia batzuk erabiltzen ditu, eta estrategia aplikatzean jarraitutako prozesua azaltzen du.
- 4. Problema ebazteko egoeretan zenbaki arrunten kalkulu zehatzak egitea, batuketak eta kenketak egiteko eta bi zifrako zenbakiez biderkatzeko algoritmoak erabiliz, edo kalkulagailua erabiliz, kalkulu konplexuagoetarako.**
- Eguneroko bizitzako egoeretan, batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak identifikatzen ditu.
  - Zenbaki arrunten segida gorakor eta beherakor sinpleak egiten ditu.
  - Batuketak eta kenketak bururakoekin egiteko algoritmo akademikoak zuzen erabiltzen ditu.
  - Zifra bateko zenbakiez biderkatzeko algoritmo akademikoa zuzen erabiltzen du.
  - Kalkulagailua zentzu onez eta autonomiaz erabiltzen du, kalkulu konplexuak egiteko.
  - Kalkuluak egitean jarraitutako prozesua argi eta garbi azaltzen du.
- 5. Neurriekin lotutako eguneroko bizitzako zenbakizko testu errazak interpretatzea, eta objektu, espazio eta denbora ezagunen iritzirako kalkuluak eta neurketak egitea, neurtu beharreko objektuaren neurriari eta izaerari ondoen egokitzen zaizkion unitateak eta tresnak (konbentzionalak eta ez-konbentzionalak) erabiliz.**
- Neurriekin lotutako eguneroko bizitzako zenbakizko testu errazak interpretatzen ditu, eta unitate ohikoenak eta haien esanahia bereizten ditu.
  - Neurketak egiten ditu tresna eta neurri ez-konbentzionalak erabiliz (arrak, urratsak, pisuen alderaketa, graduatu gabeko ontziak...).
  - Neurketak egiten ditu tresna sinpleekin (erregelak, metroak, balantzak, erlojuak, ontzi graduatuak...), tresna eta unitate egokiena aukeratuta, eta prozesua ahoz azaltzen du.
  - Luzera-neurri (cm, m), pisu-/masa-neurri (g, kg), edukiera-neurri (litro, litro erdi, cl), denbora-neurri (urte, hilabete, aste, egun, ordu, minutu eta segundo) ohikoenak, txanponak eta billeteak erabiltzen ditu benetako testuinguruetan, eta egoera bakoitzean egokiena aukeratzen du.
  - Magnitude baten zenbait unitateren erabilera bereizten du, eta eguneroko bizitzarekin lotutako zenbait unitate-aldaketa egiten ditu.
  - Eguneroko bizitzako egoerei, objektuei, animaliei eta abarrei buruzko zenbakizko datuak neurri-unitateekin lotzen ditu.
  - Objektuen neurketak edo neurketen emaitzak (distantziak, tamainak, pisuak, edukierak, denborak) iritzira kalkulatzen ditu, eguneroko bizitzako egoeretan.
- 6. Gertuko benetako espazio batean dagoen objektu baten kokapena, eta berarekiko eta beste erreferentzia-puntu batzuekiko lekualdatze bat edo ibilbide bat deskribatzea, eta erlazio espazialei buruzko informazioa duten mezu errazak interpretatzea, geometriako**

**lexiko sinplea erabiliz (ezkerra-eskuina, aurrean-atzean, goian-behean, hurbil-urrun eta hurbilekoa-urrunekoa, zuzena, kurbatua...).**

- Badaki eguneroko bizitzako zer egoeratan erabili behar diren espazioko orientazioko eta adierazpeneko nozioak, hizkuntza egokituta (ezkerra-eskuina, hurbil, urrun, zuzen, zuzen paraleloak eta elkarzutak, biraketak, higidurak).
- Ezkerra-eskuina, aurrean-atzean, goian-behean, hurbil-urrun eta hurbilekoa-urrunekoa... kontzeptuak erabiltzen ditu, objektu baten kokapena deskribatzeko.
- Oinarrizko kontzeptu geometrikoak erabiltzen ditu lekualdatze bat edo ibilbide bat deskribatzeko (eskuinera, ezkerrera, gora...), eta elementu kuantitatiboak gehitzen ditu (bost urrats aurrera...).
- Objektu baten kokapena identifikatzen du, ahozko edo idatzizko azalpen batetik abiatuta.
- Simetriak dituzten kokapenak, higidurak eta arte-adierazpenak identifikatzen eta erreproduzitzen ditu, ispilua ikertzeko eta ikasteko tresnatzat hartuta.
- Ahozko azalpen bat oinarri hartuta, kokapen bat edo ibilbide bat interpretatzen du, puntu batean kokatzen da edo ibilbide bat egiten du.

**7. Adierazpen espazial sinpleetan agertzen diren informazioak interpretatzea eta sortzea (koordinatu-ardatzak eta hiriko planoak, krokisak, mapa eta plano sinpleak), eta haietan kokapenak eta ibilbideak deskribatzea, geometriako oinarrizko nozioak erabiliz (kokapena, lerrokatzea, higidurak).**

- Objektu baten (kalea, pertsona...) kokapena interpretatzen eta deskribatzen du, koordinatu-ardatzetan, krokisetan, hiriko planoetan eta plano sinpleetan, geometriako propietateak erreferentzia-elementutzat hartuta.
- Egindako higidurak eta ibilbideak interpretatzen eta deskribatzen ditu koordinatu-ardatzetan, krokisetan, hiriko planoetan eta plano sinpleetan, geometriako propietateak erreferentzia-elementutzat hartuta.
- Kokapenak, higidurak eta ibilbideak benetako espazio batean edo testu geometriko sinplea batean (krokisa, plano, mapa) identifikatzen eta adierazten ditu, ahozko edo idatzizko azalpenetatik abiatuta.
- Ibilbideen krokisak eta espazio ezagunen adierazpenak (maketa sinpleak) egiten ditu.
- Ibilbideak lerro gisa erabiltzen ditu, eta irekiak eta itxiak, zuzenak eta kurbatuak, zuzenen ebaketa, eta zuzen paraleloak eta elkarzutak bereizten ditu.

**8. Espazioko forma eta gorputz geometrikoak (poligonoak, zirkuluak, kuboak, prismak, zilindroak, esferak) bereiztea, eskuetan erabiliz eta behatuz, eta zenbait irizpideren arabera sailkatzea.**

- Objektu ezagunetan oinarrizko gorputz geometrikoak identifikatzen ditu: kuboak, esferak, prismak, piramideak, zilindroak eta konoak.
- Objektuak eta gorputz geometrikoak bereizten eta deskribatzen ditu, bere lexikoa erabiliz eta geometriako lexikoa erabiltzen hasita. Ertzak eta aurpegiak.
- Gorputz geometrikoak bereizten ditu, ahozko deskribapen batetik abiatuta edo objektua ukituz, ikusi gabe.
- Eguneroko bizitzako objektuak alderatzen eta sailkatzen ditu, denetariko irizpideak erabiliz.

- Eguneroko bizitzako objektuetan eta espazioetan irudi lauak identifikatzen ditu: triangeluak, karratuak, pentagonoak, hexagonoak, zirkuluak eta zirkunferentziak.
  - Laukizuzen-formak, triangeluarrak eta zirkularrak bereizten eta deskribatzen ditu, oinarrizko lexikoa erabiliz (lerro kurbatuak eta zuzenak, aldeak).
  - Ahozko deskribapen batetik abiatuta edo antzeko irudiren bat ukituz, laukizuzenak, triangeluak eta zirkuluak bereizten eta marrazten ditu.
  - Forma kubikoak eta esferikoak deskribatzen ditu, lexiko informala erabiliz (biraka ibiltzen den edo ez, forma kurbatuak edo zuzenak).
  - Irudi batzuk eta zenbait datu simple abiapuntu hartuta beste batzuk osatzen, marrazten edo/eta egiten ditu, konposizioz eta deskonposizioz.
- 9. Eguneroko bizitzako gertaerei eta objektuei buruzko datuak biltzea, emaitza taula erraz batean eta barra-grafiko batean adieraztea, eta barra-grafikoetan eta sarrera bikoitzeko tauletan aurkeztutako datuen oinarrizko interpretazioak egitea, galderak eginez eta problema errazak ebartziz.**
- Objektu, fenomeno eta egoera ezagunei buruzko datuak biltzen eta erregistratzen ditu, oinarrizko teknika hauek erabiliz: inkesta, behaketa eta neurketa.
  - Sarrera bikoitzeko taulak eta barra-grafikoak egiten ditu, lortutako datuak antolatzeke eta hobeto komunikatzeko.
  - Informazioa gainerakoei jakinarazten die, barra-grafikoak eta taulak erabiliz.
  - Grafikoetan eta sarrera bikoitzeko tauletan adierazitako eguneroko bizitzako zenbakizko testuak identifikatzen ditu.
  - Sarrera bikoitzeko taula errazetan eta eguneroko bizitzan ohiz erabiltzen direnetan adierazitako zenbakizko testuak irakurtzen eta interpretatzen ditu.
  - Fenomeno ezagunei buruzko barra-grafiko errazak irakurtzen eta interpretatzen ditu.
  - Galderak egiten ditu eta planteatutako problemak ebazten ditu, sarrera bikoitzeko taula bat edo grafiko erraz-erraz bat irakurriz.
- 10. Matematikako zenbait eduki erabiliz ebaz daitezkeen eguneroko bizitzako problema errazak identifikatzea eta planteatzea.**
- Zenbakiak eta +, -, x, : eragiketak erabiliz ebazten diren eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen ditu, zenbakizko ezagutzak eta eragiketei buruzkoak errealitatearekin lotuz.
  - Neurtuz, iritzira kalkulatu eta neurrien arteko eragiketak eginez ebazten diren eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen ditu, neurriei eta magnitudeei buruzko ezagutzak errealitatearekin lotuz.
  - Orientazioarekin, adierazpen espazialarekin eta irudiekin lotutako ezagutzak erabiliz ebazten diren eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen ditu, geometriako ezagutzak errealitatearekin lotuz.
  - Informazioa jaso, antolatu, interpretatu eta komunikatzearekin lotutako ezagutzak erabiliz ebazten diren eguneroko bizitzako problema errazak identifikatzen eta planteatzen ditu, estatistikari eta zoriari buruzko ezagutzak errealitatearekin lotuz.
- 11. Eguneroko bizitzako objektuekin, gertaerekin eta egoerekin lotutako problema errazak ebaztea eta formulatzea, eragiketak aukeratuz eta dagozkien oinarrizko algoritmoak edo**

**ebazteko beste prozedura batzuk erabiliz, kalkulagailua barne, eta jarraitutako prozesua ahoz azaltzea.**

- Batuketa bat edo bi eginez ebazten diren problemak identifikatzen, ebazten eta asmatzen ditu, eguneroko bizitzako aldaketa-, konbinazio-, alderaketa- eta berdintze-egoera sinpleetakoak.
- Neurrien errepikapena eta eskalar sinpleak dituzten biderketa bateko eguneroko bizitzako problemak identifikatzen, ebazten eta asmatzen ditu.
- Problema bateko zenbakizko datuak eta oinarriko elementuak identifikatzen ditu, norberaren ebazpen-estrategiak erabiliz.
- Problemari dagokion eragiketa bereizten du eta problemarekin uztartzen du, eta buruz ongi ebazten du, eragiketaren algoritmoa edo kalkulagailua erabiliz.
- Egin beharreko kalkuluak matematikoki adierazten ditu.
- Emaidza egiaztatzen du eta jarraitutako ebazpen-prozesua argi eta garbi azaltzen du, Matematikako lexikoa erabiliz.

**12. Problema irekiak ebaztea eta Matematikako ikerketa sinpleak eta zenbakiei, neurriei eta geometriari buruzko lan-proiektu txikiak egitea, gainerakoekin elkarlanean, eta jarraitutako ebazpen-prozesua eta lortutako ondorioak ahoz azaltzea.**

- Denetariko problemak ebazten ditu: datuak sobera dituzten problemak, falta dituztenak, aukerak egin beharreko problemak, enuntziatu bat, eragiketa bat, adierazpen matematiko bat, soluzio bat... emanda galdera bat asmatu beharrekoak, eta abar.
- Zenbakikuntzarekin eta kalkuluekin lotutako ikerketa sinpleak egiten ditu, zenbakien eta eragiketen propietateak erabiliz.
- Neurketarekin eta geometriarekin lotutako ikerketa errazak egiten ditu.
- IKT programa batzuk erabiltzen ditu ikerketa-prozesuetan, erlazioen ikaskuntzan (zenbakizkoak, eragiketei buruzkoak, geometrikoak...) eta Matematikako problemen ebazpenean.
- Gainerakoekin elkarlanean aritzen da problema irekiak ebazteko eta ikerketak egiteko.
- Erabilitako estrategiak eta lortutako ondorioak ahoz adierazten ditu.

### 2.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

**1. Ikerketen eta problemen soluzioak bilatzeko Matematikako zereginak berezkoak dituen norberaren jarrera egokiak garatzea eta lantzea.**

- Soluzioak bilatzen saiatzen da eta ez du etsitzen.
- Bere buruan konfiantza du eta sormena erakusten du.
- Segurua eta malgua da, eta ez du huts egin eta berriro hasteko beldurrik.
- Bere iritziak eta Matematikako aieruak erraz adierazten dizkie gainerakoei.
- Kritika arrazoitua onartzen du eta gainerakoen azalpenak errespetatzen ditu.
- Jarrera positiboa erakusten du, arduratsua da eta talde-lanean elkarlanean aritzen da.
- Egoeren interpretazioekiko, argudiatzeekiko eta problemen soluzioekiko kritikoa da.

- Ebatzitako problemei eta garatutako prozesuei buruz hausnartzen du, eta ideia nagusiak balioesten ditu, etorkizuneko antzeko egoeretarako ikasten du, etab.
  - Matematikako edukiak eguneroko bizitzan aplikatzean eta harekin lotzean autonomiaz jarduten du.
- 2. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuak (zenbaki arruntenak, zenbaki osoenak, zatikienak, hamartarrenak eta erromatarrenak) interpretatzea eta balioestea, arrazoiketa egokiak erabiliz eta esanahia interpretatuz, informazioa trukatzeko.**
- Zenbakiak zenbakizko testuetan eta eguneroko bizitzan duten esanahia interpretatzen du (fakturak, publizitate-liburuxkak, beherapenak, banaketak...).
  - Zenbaki arrunten eta hamartarren zenbaketa selektiboa erabiltzen du, eta gai da zenbaki jakin bati 1, 10..., 0,1 eta 0,01 batzeko edo kentzeko.
  - Zenbaki arruntak, osoak, zatiki errazak eta milarenak arteko hamartarrak irakurtzen eta idazten ditu.
  - Zenbaki osoak, hamartarrak eta oinarrizko zatikiak konparazioz ordenatzen ditu, zenbakizko zuzenean adierazten ditu eta mota bateko zenbakiak beste mota batzuetako zenbaki gisa adierazten ditu.
  - Zenbakiak deskonposatzen (batuketatan eta batuketa eta biderketatan) eta konposatzen ditu, milioia baino zenbaki arrunt txikiagoak (hamarrekoetara, ehunekoetara edo milakoetara) eta zenbaki hamartarrak (hamarrenetara, ehunenetara edo milarenetara) biribiltzen ditu, eta zifra bakoitzaren posizio-balioa interpretatzen du.
  - Zenbaki erromatarrak identifikatzen ditu, eta ezagutza hori datazioak ulertzeko erabiltzen du.
  - Zenbait zenbaki mota erabiltzen ditu benetako testuinguruetan (arruntak, negatiboak, hamartarrak, zatikiak, ordinalak), problemak interpretatzeko eta ebazteko.
- 3. Eragiketak eta buruzko kalkulu zehatzak eta hurbilduak egitea zenbaki arruntekin eta hamartarrekin, zenbait prozedura eta buru-estrategia (kalkulu automatikoak, buruzko kalkuluko estrategiak, haztatzea, iritzira kalkulatzeko) erabiliz, problemak ebazteko egoeretan.**
- Oinarrizko lau eragiketen buruzko kalkuluko taulak menderatzen ditu.
  - Oinarrizko eragiketekin, eta zenbaki arruntekin eta hamartarrekin lotutako buruzko kalkuluko norberaren zenbait estrategia eta zenbait estrategia akademiko erabiltzen ditu:  $2z$ ,  $5ez$ ,  $10ez$ ,  $100ez$ ,  $1.000z$ ,  $0,1ez$ ,  $0,01ez$  biderkatzea;  $2z$ ,  $5ez$ ,  $10ez$ ,  $100ez$ ,  $1.000z$ ,  $0,1ez$ ,  $0,01ez$  zatitzea...
  - Zenbait estrategia erabiltzen ditu kalkulu hurbilduak egiteko eta eragiketa erraz baten emaitza iritzira kalkulatzeko, eta erantzunaren errore-maila balioesten du.
  - Eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera kontuan hartzen ditu buruzko kalkuluak egitean.
- 4. Eragiketak eta kalkulu zehatzak egitea zenbaki arruntekin eta hamartarrekin, batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketaren algoritmoak erabiliz zenbait zenbaki motarekin, problemak ebazteko testuinguruetan eta eguneroko bizitzako egoeretan.**
- Zenbaki arrunten eta hamartarren arteko batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egiten ditu, algoritmo akademikoak erabiliz.

- Zenbakizko segida gorakorrek eta beherakorrek egiten ditu: 2, 5, 10, 25, 100en... multiploak eta beste hamartar baliokide batzuenak.
  - Biderkatzeko taula erabiltzen du multiploak eta zatitzaileak identifikatzeko.
  - Zenbaki baten lehen multiploak kalkulatzeko.
  - 100 baino txikiagoa den edozein zenbakiren zatitzaile guztiak kalkulatzeko.
  - Badakizki 2z, 3z, 5ez eta 10ez zatitzeko irizpideak eta aplikatzen ditu.
  - Berbidurak, kuboak eta 10 berrekizuneko berreketak kalkulatzeko.
  - Eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera kontuan hartzen ditu buruzko kalkuluak egitean.
  - Kalkulagailuaren oinarriko funtzioak menderatzen ditu eta autonomiaz erabiltzen ditu eragiketarako, saiakuntzak egiteko, ikertzeko eta problemak ebazteko.
- 5. Zenbaki hamartarrak, zatikiak eta ehuneko errazak erabiltzea eguneroko bizitzako testuinguruetan informazioa interpretatzeko eta trukatzeko, eta haien baliokidetasunak erabiltzea kalkulu errazak egiteko, zuzeneko proportzionaltasunari ekiteko eta problemak ebazteko.**
- Oinarriko zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko zenbakizko baliokidetasunak aplikatzen ditu ( $1/2$ , 0,5, %50;  $1/4$ , 0,25, %25; ...), mezuak ulertzeko eta eguneroko bizitzako problema errazak ebazteko.
  - Izendatzaile bereko zatikien arteko batuketak eta kenketak egiten ditu.
  - Zatiki baliokide errazak kalkulatzeko.
  - Ehunekoak erabiltzen ditu zatiak adierazteko.
  - Zenbaki baten ehunekoa kalkulatzeko.
  - Ehunekotan adierazitako handitzeak eta txikitzeak kalkulatzeko.
  - Zenbaki baten zatikia kalkulatzeko.
  - Hiruko erregela erabiltzen du proportzionaltasun zuzeneko egoeretan (bikoitza, hirukoitza, erdia...), eguneroko bizitzako problemak ebazteko, eta jarraitutako prozesua eta lortutako soluzioak ahoz azaltzen ditu.
  - Programa digitalak erabiltzen ditu (aplet-ak, Internet, ODEak), ikertzen ikasteko.
- 6. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuak interpretatzea, tresnekin neurtzea eta neurri-unitate erabilienekin eragiketarako egitea, eta aurrez iritzirako kalkuluak egitea eta luzera-, azalera-, pisu- edo masa-, edukiera-, denbora-, angelu-neurriak eta diru-sistemako neurriak zehaztasunez adieraztea, benetako testuinguruetan eta problemak ebazteko testuinguruetan.**
- Neurriekin eta magnitudeekin lotutako eguneroko bizitzako zenbakizko testuak interpretatzen ditu.
  - Tresnekin neurtzen du, estrategia eta unitate konbentzionalak eta ez-konbentzionalak erabiliz, eta neurria adierazteko unitate egokiena aukeratuz.
  - Angeluak neurtzen ditu tresna konbentzionalekin eta angelu-neurriekin kalkuluak egiten ditu problemak ebazteko testuinguru batean.
  - Modu konplexuan adierazitako luzera-, edukiera- edo masa-neurri bat modu sinplean adierazten du, eta alderantziz.



- Objektu eta espazio ezagunen luzerak, azalerak, bolumenak, edukierak eta masak iritzira kalkulatzeko dituzten neurriaren unitate egokia aukeratu, eta erabilgaitako estrategia ahoz azaltzen du.
  - Sistema Metriko Hamartarreko unitateak identifikatu (luzera, edukiera, masa, azalera eta bolumena).
  - Magnitude baten neurriak alderatzen eta ordenatu dituzten, eta eguneroko bizitzan ohikoak diren unitate-aldaketak egiten dituzten.
  - Ordu, minutu eta segundoen arteko baliokidetasunak eta unitate-aldaketak egiten dituzten.
  - Erloju analogikoetan eta digitaletan orduak irakurtzen dituzten.
  - Edukiera- eta bolumen-neurrien arteko ohiko baliokidetasunak erabiltzen dituzten benetako egoeretan.
  - Irudi lauen azalerak alderatzen dituzten, bat bestearen gainean jarri, deskonposatu eta neurtuz.
  - Modu sinplean adierazitako luzera-, edukiera-, masa-, azalera- eta bolumen-neurrien arteko batuketak eta kenketak egiten dituzten, eta emaitza aurrez erabakitako unitatean ematen du.
  - Europar Batasuneko txanponen eta billeteen arteko baliokidetasunak eta kalkuluak zuzentasunez erabiltzen dituzten, problemak ebazteko testuinguruetan.
  - Problema ebazten dituzten neurri-unitate ohikoak erabiliz, unitate batean adierazitako neurri bat beste unitate batean adieraziz, eta emaitzak unitate egokienean adierazten dituzten.
  - Egindako prozedura guztietan jarraitutako prozesuak eta erabilgaitako estrategiak ahoz eta idatziz azaltzen dituzten.
  - Programa digitalak erabiltzen dituzten (aplet-ak, Internet, ODEak), ikertzen ikasteko.
- 7. Espazioko orientazioarekin lotutako eguneroko bizitzako egoerak deskribatzea eta ulertzea, geometriako oinarriko nozioak erabiliz (kokapena, higidura, paralelotasuna, elkarzutasuna eta simetria).**
- Orientazioa eta adierazpen espaziala erabili eta aplikatu beharreko eguneroko bizitzako egoerak identifikatu dituzten.
  - Kokapenak eta higidurak koordenatuen, distantzien, angeluen, biraketan eta abarren bidez deskribatu dituzten.
  - Ardatz-simetria eta ispilu-simetria identifikatu dituzten egoera oso sinpleetan.
  - Irudi lau baten irudi simetrikoa marrazten du ardatz batekiko.
  - Handitzeak eta txikitzeak egiten dituzten.
  - Zuzenen eta zirkunferentzien kokapen erlatiboak identifikatu eta adierazten dituzten.
  - Angeluak zenbait kokapenetan identifikatu eta adierazten dituzten: ondoz ondokoak, auzokideak, erpinez aurkakoak...
- 8. Erreferentzia-sistemak eta ohiko objektuak edo egoerak oinarri hartuta espazioko adierazpenak interpretatzea eta egitea (koordinatu-ardatzak, planoak, ibilbideen krokisak, maketak...).**

- Eguneroko bizitzako egoerak ulertzen eta deskribatzen ditu, planoak, ibilbideen krokisak, maketak eta abar interpretatuz, eta geometriako oinarrizko nozioak erabiliz.
  - Planoak, maketak eta mapak irakurtzen eta interpretatzen ditu, eskalak erabiliz.
  - Eskala sinpleak (grafikoak eta zenbakizkoak) erabiltzen ditu, espazioan oinarrizko adierazpenak egiteko (krokisak, planoak, maketak...).
  - Eguneroko bizitzako egoerak, mezuak eta gertaerak interpretatzen eta deskribatzen ditu, geometriako lexiko egokia erabiliz: norabide bat adierazten du, ibilbide bat azaltzen du, espazioan orientatzen da.
  - Programa digitalak erabiltzen ditu (applet-ak, Internet, ODEak), ikertzen ikasteko.
- 9. Irudi lauen (triangeluak eta laukiak) eta gorputz geometrikoen (poliedroak, prismak, piramideak, konoa, zilindroa eta esfera) elementuak eta oinarrizko propietateak bereiztea, erreproduzitzea eta deskribatzea, eta zenbait irizpideren arabera (aldeak, angeluak, aurpegiak, erregulartasunak) sailkatzea, propietateak erabiliz perimetroa eta azalera kalkulatzeko, problemak ebazteko eta eguneroko bizitzako gertaerak ulertzeko zein erabilgarriak diren balioesteko.**
- Gorputz geometrikoak eta irudi lauak bereizten ditu eguneroko bizitzako forma, objektu eta espazioetan.
  - Poligonoen oinarrizko elementuak (aldeak, angeluak, erpinak eta diagonalak), poliedroenak, prismetan eta piramideenak (erpinak, aurpegiak eta ertzak) bereizten eta identifikatzen ditu.
  - Zirkunferentziaren eta zirkuluaren oinarrizko elementuak identifikatzen eta bereizten ditu: zentroa, erradioa, diametroa, korda, arkuak, ukitzaila eta sektore zirkularra.
  - Gorputz biribilak (konoa, zilindroa eta esfera) eta haien oinarrizko elementuak bereizten eta identifikatzen ditu.
  - Poligonoak eta irudiak identifikatzen eta izendatzen ditu, alde eta aurpegi kopuruaren arabera.
  - Irudien ezaugarrien deskribapena abiapuntu hartuta, eta zenbait prozedura eta geometria lantzeko materialak (marrakiazkiak, geoplanoak, hagatxoak, IKT baliabideak...) erabiliz, irudiak berregiten ditu.
  - Triangeluak eta laukiak sailkatzen ditu, aldeen, angeluen, aldeen paralelotasunaren eta beste irizpide batzuen arabera.
  - Irudien perimetro eta azalera kontzeptuak erabiltzen ditu, geoplanoetan, planoetan eta benetako espazioetan kalkuluak egiteko, eta eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko.
  - Konposizioa eta deskonposizioa erabiltzen ditu, irudi batzuetatik abiatuta beste batzuk osatzeko eta kalkuluak egiteko.
  - Laukizuzenaren, karratuaren eta triangeluaren perimetroa eta azalera kalkulatzeko.
  - Zirkunferentziaren eta zirkuluaren perimetroa eta azalera kalkulatzeko.
  - Irudi eta gorputz geometrikoen buruzko ezagutzak erabiltzen ditu, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko (lurra lauzatu, mosaiko bat egin, gela bat margotu, objektuak eraiki, etxe bat konpondu).
  - Programa digitalak erabiltzen ditu (applet-ak, Internet, ODEak), ikertzen ikasteko.

**10. Informazio zenbakarria biltzea eta erregistratzea, taulak, barra-diagramak, piktogramak... erabiliz, eta informazioak interpretatzea, jakinaraztea eta balioestea, inguruneke datu-etaulak eta -grafikoak oinarri hartuta, problemak ebazteko testuinguruan.**

- Inguruko egoeretan datu kualitatiboak eta kuantitatiboak identifikatzen, biltzen eta sailkatzen ditu, eta sarrera bikoitzeko taulak eta maiztasun absolutuen eta erlatiboen taulak egiteko erabiltzen ditu.
- Egoera batetik edo sarrera bikoitzeko taula batetik ateratako datuetatik abiatuta, grafikoki adierazitako zenbakizko testuak egiten ditu (barra-diagramak, piktogramak, maiztasun-poligonoak, sektore-diagramak).
- Kalkulagailua edo software egokia erabiliz, kalkuluak egiten ditu, eta parametro estatistiko simple batzuk (batez besteko aritmetikoa, moda eta heina) aplikatzen ditu, informazio antolatua komunikatzeko.
- Zenbait grafiko motatan (barra-diagrama, piktograma, maiztasun-poligonoa, sektore-diagrama) eta sarrera bikoitzeko tauletan eta maiztasun-tauletan agertzen diren datuak identifikatzen ditu eta mezuak interpretatzen ditu.
- Estatistikako ezagutzak erabiltzen ditu komunikabideetatik jasotako mota horretako informazioak behar bezala interpretatzeko.
- Grafiko estatistikoen bidez aurkeztutako informazioen azterketa kritikoa egiten du.

**11. Esperientzian oinarritutako iritzirako kalkuluak egitea zorizko jokoetan eta zoria ageri den egoera sinpleen emaitzetan (posiblea, ezinezkoa, ziurra, aukera gehiago edo gutxiago), eta emaitza aztertzea.**

- Zorizko egoerak identifikatzen ditu.
- Zenbait jokoren (dadoak, txanponak, karta-jokoak, erruleta, loteria...) emaitzei buruzko aieruak eta iritzirako kalkuluak egiten ditu.
- Zorizko gertakari batzuei buruzko aieruak eta iritzirako kalkuluak egiten ditu.
- Zoriarekin lotutako lexikoa nolabaiteko zehaztasunez erabiltzen du, duen adinerako.

**12. Matematikako zenbait eduki erabiliz ebatz daitezkeen eguneroko bizitzako problemak identifikatzea eta planteatzea.**

- Oinarrizko eragiketak, propietateak eta zenbait zenbaki mota (arruntak, osoak, hamartarrak, zatikiak eta ehunekoak) erabiliz ebazten diren eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen ditu, eta ezagutza horien erabilgarritasunari eta errealitatearekiko konexioari buruz hausnartzen du.
- Tresnekin neurketak eginez, neurriak iritzira kalkulatu, zenbait magnituderen unitateekin eragiketak eginez ebazten diren eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen ditu, eta ezagutza horien erabilgarritasunari eta errealitatearekiko konexioari buruz hausnartzen du.
- Orientazioarekin, adierazpenarekin, eta irudi eta forma espazialekin lotutako ezagutzak elkartuz eta erabiliz ebazten diren eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen ditu, eta ezagutza horien erabilgarritasunari eta errealitatearekiko konexioari buruz hausnartzen du.
- Estatistikako eta zoriari buruzko ezagutzak erabiliz ebazten diren eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen ditu, eta horien erabilgarritasunari eta errealitatearekiko konexioari buruz hausnartzen du.

**13. Zenbaki arrunten, hamartarren, ehunekoen eta oinarrizko zatikien eguneroko bizitzako problema errazak formulatzea eta ebaztea, Matematikako ezagutza eta prozedura egokienak erabiliz, eta problemak ebazteko zer prozesuri jarraitu zaion ordenan eta argi adieraztea, ahoz eta idatziz.**

- Eragiketa bateko edo biko batuketa- eta biderketa-problema identifikatzen ditu eguneroko bizitzako egoeretan.
- Zenbaki arrunten, hamartarren, ehunekoen eta oinarrizko zatikien (eta haien baliokidetasunen) arteko eragiketa bateko edo biko zenbait motatako batuketa- eta biderketa-problema ebazten eta asmatzen ditu.
- Problema ebazten eta asmatzen ditu: datuak sobera dituztenak, datuak falta dituztenak, zenbait soluzio dituztenak, osatu beharrekoak, eraldatu beharrekoak...
- Problema ebatzi bat oinarri hartuta, problema berriak planteatzen ditu datuak aldatuz, galdera berriak proposatuz, errealitatearekin lotuz, beste testuinguru batzuk bilatuz, etab.
- Eguneroko bizitzako zenbakizko testu errazak oinarri hartuta (fakturak, publizitate-liburuxkak, beherapenak...), problema interpretatzen eta ebazten ditu.
- Egingako kalkuluak matematikoki adierazten ditu, emaitza egiaztatzen du eta jarraitutako ebazpen-prozesua argi eta garbi azaltzen du, Matematikako lexikoa eta sinbolo egokiak erabiliz.

**14. Zenbakiei, kalkuluei, neurriei, geometriari eta informazioaren tratamenduari buruzko problema irekiak, ikerketa matematikoak eta lanen proiektuak formulatzea eta ebaztea, zenbait estrategia erabiliz, talde-lanean aktiboki jardunez, eta ebazpen-prozesua eta ondorioak ahoz nahiz idatziz komunikatzea.**

- Denetariko problema ebazten ditu: problema bat asmatzen du galdera bat eta soluzio bat abiapuntu hartuta, edo datu batzuk eta soluzio bat... zenbaketa sistematikoko problema, eraldaketa-problema, osatzeko problema...
- Zenbaki motekin eta kalkuluekin lotutako ikerketak egiten ditu, zenbakien eta eragiketen propietateak eta baliokidetasunak, kalkulagailua eta norberaren beste estrategia batzuk erabiliz.
- Neurriarekin, geometriarekin eta informazioaren trataerarekin lotutako ikerketak egiten ditu, dakizkien edukiak eta prozedura egokienak aplikatuz.
- Patroiak, erregularitasunak eta lege matematikoak identifikatzen ditu aldaketa-egoeretan, zenbakizko testuinguruetan, testuinguru geometrikoetan eta funtzionaletan.
- Esperotako emaitzei buruzko iragarpenak egiten ditu, aurkitutako patroiak eta legeak erabiliz, eta haien egokitasuna eta sortzen diren erroreak aztertuz.
- IKT programak ohiz erabiltzen ditu ikerketa-prozesuetan, erlazioen ikaskuntzan (zenbakizkoak, eragiketei buruzkoak, geometrikoak...) eta Matematikako problemen ebazpenean.
- Egingako ikerketa-prozesuari buruzko txostenak sortzen ditu, haren faseak azalduz, eta lortutako emaitzak eta ondorioak balioesten ditu.

**15. Arrazoiketa-prozesuak eta problema ebazteko strategiak erabiltzea, lan zientifikoko metodoaren faseak erabiliz eta kontrolatuz norberaren mailara egokitutako egoeretan**

**(galderak, ebazpenen planteamendua eta saiakera, kalkuluak, soluzioak egiaztatzea eta jakinaraztea).**

- Problemen enuntziatua aztertzen eta ulertzen du (datuak, datuen arteko erlazioak, problemaren testuingurua), problemak eta ariketak bereizten ditu, eta estrategia egokiak aplikatzen ditu kasu bakoitzean.
- Metodo zientifikoa erabiltzen du, eta ordenatua, antolatua eta sistematikoa da.
- Galdera egokiak egiten ditu, lan-prozesua planifikatzeko: Zer nahi dut jakin? Zer daukat? Zeren bila nabil? Nola egin dezaket? Ez al dut huts egin? Soluzioa egokia al da? Absurdoa al da? Kontraadibide bat aurkitu al dezaket?
- Norberaren estrategiak, estrategia heuristikoak (saiakuntza-errorea, eskema bat egitea, marrazki bat egitea, alderantziz hastea...) eta arrazoitzekoak (sailkapena, erlazioak bereiztea, kontraadibideak erabiltzea) garatzen eta aplikatzen ditu, aieruak sortzeko eta ikertzeko eta argudioak eraikitzeko eta defendatzeko.
- Badaki problema batean zer eragiketa erabili behar den edo diren, eta ebazteko modua erabakitzen du (buruz, algoritmo bidez edo kalkulagailua erabiliz).
- Problema ebazteko prozesuari buruz hausnartzen du: egindako eragiketak eta emaitzen unitateak berrikusten ditu, soluzioak egoeraren testuinguruan egiaztatzen eta interpretatzen ditu, soluzioaren koherentzia aztertzen du eta ebazteko beste modu batzuk bilatzen ditu.
- Ebatzi beharreko problemei buruzko iritzirako kalkuluak eta aieruak egiten ditu, balio duten kontrastatzen du, eta haien erabilgarritasuna eta efikazia balioesten ditu, zenbakizko testuinguruetan, geometriakoetan eta testuinguru funtzionaletan.
- Matematikako problema baten ebazpenean edo errealitateko testuinguruetan jarraitutako prozesua modu arrazoituan jakinarazten die ikaskideei.
- Internet erabiltzen du dagokion informazio matematikoa aukeratzeko, zenbakiei eta eragiketei, geometriari, estatistikari... buruzko lan bat egiteko, eta bere dokumentu digitalak sortzen ditu.

## 3. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA

### 3.1. NATURAREN ZIENTZIAK

#### 3.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira Naturaren Zientziak arloko etapako helburuak:

1. Nork bere burua eta osasuna zaintzeko eta bizimodu osasungarria izateko jarrerak eta ohiturak garatzea, giza gorputzaren ezagutza zientifikoa oinarri hartuta, eta banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea, bizi-ohitura osasungarriak sustatuz eta banakoei nahiz taldeei eragin diezaieketen arriskuak saihestuz.
2. Gizakiak ingurumenean izandako esku-hartzeen eragin batzuk aztertzea, eta iraunkortasunaren eta bizi-kalitatearen parametroak oinarri hartuta ikuspegi kritikoz balioestea, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa babesteko eta berreskuratzeko jarrera hartze aldera.
3. Norberaren ezagutzan sakontzea, lorpenak erdiesteko motibazioa sustatzen duten estrategien bidez, eta nork bere pentsamena eta ikaskuntza-estiloak erregulatzea, natura-inguruneko arazoei eta pertsonen bizitzarekin duten erlazioari buruzko erabakiak modu arduratsuan, autonomoan eta kritikoa hartu ahal izateko.
4. Natura-inguruneko elementu esanguratsuekin lotutako galderak eta problemak identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, banaka nahiz elkarlanean metodologia zientifikoaren estrategiak erabiliz; hala nola problemaren identifikazioa, informazioaren bilaketa eta trataera, eta hipotesiak formulatzea eta probatzea, benetako esperimendazioaren edo esperimendazio birtualaren bidez, irtenbideak bilatzeko bestelako hautabide batzuk aztertzeko bide gisa.
5. Zientziaren eta teknologiaren berezko prozedurak aplikatzea, material, substantzia eta objektu batzuen propietateen ezagutza baliatuta, aurrez zehaztutako problema edo behar bati erantzuteko proiektuak, gailuak eta tresna soilak planifikatzeko, diseinatze eta egiteko.
6. Mezu, produktu, gertaera edo fenomeno zientifikoak interpretatzea, modu aktiboan eta kritikoa, zenbait hizkuntza eta ingurune erabiliz, bai digitalak bai analogikoak, ondorioak argi eta zehaztasunez azaltzeko, argudiatzeko eta jakitera emateko.
7. Zientziaren saiaketa-izaerari eta izaera sortzaileari buruzko ezagutza baliatzea, eta gizadiaren historian zehar egindako aurrerapen handiak balioestea, zientziaren ezagutzak gizakiaren beharrak asetzeko eta bizi-baldintzak hobetzeko duen garrantzia ulertzeko eta balioesteko.
8. Natura-ingurunean agerian jartzen diren ezaugarriak eta erlazioak erreparatzea, haiei buruzko galderak egitea, identifikatzea, sailkatzea eta azaltzea, horretarako askotariko ikerketa-materiala erabiliz, natura-ingurunea ulertzeko eta Lur planeta babesteak eta errespetatzeak gure bizitzarako nahiz etorkizuneko belaunaldientzat duen garrantzia jabetzeko.

### 3.1.2. EDUKIAK

#### 3.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Naturaren Zientziak arloa lagungarria da pentsamendu zientifikoaren garapenerako, eta haren ardatz nagusia behaketa eta esperimendua da, kontzeptuzko edukiak nahiz adierazpenekoak modu linealean transmititzearen gaitetik. Helburu hori lortze aldera, jakintzak erlazionatzen dira eta gainerako arloekin lotzen dira.

Kontuan hartuta etengabe aldatzen ari den mundu honetan egia zientifikoek zenbaitetan gutxi irauten dutela, datuak ezagutzeaz gain beharrezkoa da trebetasun zientifikoak, arrazoitzekoak, pentsamendu kritikorakoak eta abar garatzea. Hortaz, arlo honetan, izaera esperimentalaren ardatz hartzeaz gain, pentsamen- eta metakognizio-errutinen garapena landuko da.

Naturaren Zientziak arloaren bitartez, haurrak mundu zientifikora eta haren metodologiara hurbiltzea lortu nahi da, bai eta zientziaren eta teknologiaren esparruan historian zehar emakumeek nahiz gizonek egindako ekarpenen berri jakitea ere, eta pertsonen garapenerako eta bizi-kalitatea hobetzeko zeinen garrantzitsuak izan diren balioestea.

Eta honetan, ikasleak metodo zientifikoan trebatzen hasiko dira, zenbait alderdi jorratuz: problemak edo iker daitezkeen egoerak identifikatzea; ikertu beharreko fenomenoari behatzea eta haiek aztertzea; informazio esanguratsua hautatzea; hipotesiak egitea; zeregina planifikatzea; hipotesiak balioztatzea, benetako esperimendua edo esperimendua

birtualaren bidez, egiaztatutako ebidentziak oinarri hartuta; problema horien soluzioak edo erantzun egiaztagarriak aurkitzea; ondorioak ateratzea; eta jakitera ematea, baliabide edo euskarri analogikoak nahiz digitalak erabiliz.

Arlo honetan landuko diren kontzeptuen, prozeduren eta jarreraren bitartez, ikasleek zenbait alderdi garatu ahal izango dituzte: zientziaren esparruko ezagutza eta alfabetizazioa, lagungarria izango zaiena inguruko mundua ulertzeko eta interpretatzeko; eta gertakariak, fenomenoak eta informazioak aztertze, aurreikusteko eta azaltzeko gaitasuna, bide emango diona erabakiak funtsatuta eta erantzukizunez hartzeko norberaren nahiz gizartearen intereseko gaitetan, hala nola ingurumena, osasuna eta teknologien erabilera egokia.

Naturaren Zientziak arloko edukiak bi ziklotan banatuta daude: lehen zikloa 1., 2. eta 3. mailek osatzen dute, eta bigarren zikloa, 4., 5. eta 6. mailek.

Eduki horiek jorratuz, ikasleen konpetentzia-garapena sustatu behar da, eta horretarako, funtsezkoa da, irakaskuntza- eta ikaskuntza-proposamenak diseinatzean, ezagutzaren gehiegizko zatikatzea saihestea eta beste arloetako edukiekin erlazioak ezartzea.

Curriculum honetan, ikasleek garapen kognitiboa eta emozionala lortze aldera esanguratsuak diren edukiak hautatu dira. Hala, zentzumenen bidezko munduaren ezagutza abiapuntu hartuta, esperimendua edo gogoetaren bidez aurrera egingo da, abstrakzio-, arrazoiketa- eta argudiatze-maila handiagoetara, eta aldi berean norberaren ezagutzan eta emozioen kudeaketan sakonduko da.

Halaber, kontuan hartu dira jakin-mina eta ikasteko interesa pizten duten edukiak, banakako lanaz gain —ezinbestekoa dena pertsonaren konpetentzia-garapenerako— lankidetzazko lana ere sustatuz, ikaskuntza hori beharrezkoa baita ikerketa zientifikorako; eta eduki horiek jorratzean, aldi berean nabarmenduko da zeinen garrantzitsua den nor bere buruarekiko, bestearekiko, naturarekiko, lan zientifikoarekiko eta gizartearen duen garrantziarekiko begirunez, zaintzeko jarreraz eta erantzukizunez jokatzeko.

Hautatutako eduki horiek lagungarriak dira, era berean, genero-arrazoiak direla-eta zientziaren esparruan ezarri den estereotipotik urruntzen den pentsamolde bat sustatzeko, haurrengan.

Arlo guztietarako komuna den eduki multzo bat aurkeztu da, eta eduki horiek lotuta daude zenbait alderdirekin: informazioa bilatzea eta kudeatzea; sormena eta pentsamendu ideia-sortzailea; lankidetzarako jarrera positiboak; nor bere ikaskuntzak erregulatzea; ikerketalangerako interesa eta motibazioa, zereginak planifikatzean, aztertzean eta egitean; giza eskubideekiko begirunea; eta harremanetarako eta komunikaziorako gaitasunen garapena.

Era berean, Naturaren Zientziak arloan etapako bi zikloetarako komuna den lehen eduki multzo bat aurkeztu da, izenburu honekin: "Jarduera zientifikoan hastea". Lehen eduki multzo horretako edukiak zehar-edukiak dira, gainerako multzoekin lotuak, eta modu integratuan landuko dira haietan. Ikasleek, metodologia zientifikora hurbilduz, zientziaren berezko estrategien eta prozeduren berri jakingo dute, esperimenterako eta ikerketarako tresnak eta materialak ezagutuko eta erabiliko dituzte, bai eta tresna digitalak eta Internet erabiltzekoak ere, eta esperimenduak eta proiektuak egiteko irizpideei jarraituko diete; eta hori guztia, gainerako edukiarekin batera, lagungarria izango da konpetentzia espezifikoa eta oinarrizko zehar-konpetentziak eraginkortasunez garatzeko. Lehen eduki multzo komun horretan jaso dira, halaber, historiako aurkikuntza eta asmakizun garrantzitsuei eta haiek lortu dituzten zientzialariei buruzko edukiak, gizadiaren garapenerako eta ongizaterako zer-nolako eragina izan duten nabarmenduz.

2. eduki multzoan (Gizakia eta osasuna), zenbait gairi buruzko ezagutzak landuko dira: norberaren gorputza, organoak eta haien funtzioak; gorputzaren zaintza; jarrera positiboak eta arriskuen prebentzioa; osasuna eta gaixotasuna; eta erabakiak hartzea.

3. eduki multzoan (Izaki bizidunak), izaki bizidunen, ekosistemen, haien ezaugarrien eta haien arteko erlazioen ezagutza jorratuko da, ingurunea babesteko eta zaintzeko jarrerak sustatuz.

4. eduki multzoan (Materia eta energia), zenbait alderdiri buruzko edukiak jaso dira: fenomeno fisikoak, substantziak, aldaketa fisikoak eta kimikoak, energia-iturriak, eta baliabideen erabilera zentzuzkoa eta jasangarria.

5. eduki multzoan (Teknologia, objektuak eta makinak), proiektuak egitea proposatu da, aurrez zehaztutako behar edo problema bati erantzuteko makina soilak eraikitzeke, alfabetizazio digitala landuz eta teknologiak erabiliz.

### 3.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egingako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.



- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### **B. Arlo honetako eduki multzo guztietako eduki komunak.**

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeke, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimentazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrotasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera arduratsua eta aktiboa lanean, izan banakako lana, izan talde-lana.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Laborategiko material sinpleak erabiltzeko prozedurak eta jarraibideak.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.
- Estrategiak, jarraibideak eta irizpideak proiektuak planifikatu eta egiteko eta txostenak aurkezteko.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak.
- Tresna digitalak eta internet erabiltzeko irizpideak eta jarraibideak, informazioa bilatzeko eta aukeratzeko, lanak egiteko, prozesuen simulazioa egiteko eta ondorioak ateratzeko.
- Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak eta bizi-baldintzak hobetzearekin duten lotura.

## **2. MULTZOA. Gizakia eta osasuna**

- Giza gorputzaren atalak. Nork bere gorputzaren kanpoko/barneko morfologiaren berri izatea. Aldaketak bizitzaren etapetan.

- Nutrizioarekin lotutako bizi-prozesuak: digestioa eta arnasketa.
- Zentzumen-organoak: funtzioa, eginkizunaren deskribapena eta zentzumen-organoak zaintzearen garrantzia.
- Osasuna eta erabakiak hartzea: irizpideak eta ondorioak.
- Higiene-ohitura eta atsedeen-ohitura egokiak zein diren jakitea eta ohitura horiek hartzea, osasun-arriskuak prebenitzeko eta hautemateko.
- Elikadura osansutsua eta orekatua nolakoa den jakitea, Euskal Herriko gastronomia oinarri hartuta
- Lehen laguntzako oinarriko jarduerak.
- Nork bere gorputza eta gainerakoena onartzea, mugak eta aukerak aintzat hartuta.
- Ohitura osasungarriak, gaixotasunak prebenitu eta bizi-kalitatea hobetzeko.
- Drogen kontsumoaren prebentzioa eta substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa.

### 3. MULTZOA. Izaki bizidunak

- Izaki bizidunak eta materia bizigabea.
- Izaki bizidunen arteko erlazioak: gizakiak, landareak eta animaliak. Ondorioak oreka ekologikoan.
- Animalien eta landareen behaketa zuzena eta zeharkakoa egiteko jarraibideak.
- Ezaugarri hautemangarrien araberrako sailkapen-irizpideak, tresna eta bitarteko teknologiko egokien bidez.
- Euskal Herriko ekosistemaren batean taldean azterketak eta landa-lanak egiteko jarraibideak.
- Izaki bizidunekin lotutako esperientziak eta prozesuak behatzeko, jasotzeko eta ahoz adierazteko irizpideak.
- Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak.
- Izaki bizidunak zorrotz behatzeko eta aztertzeke interesa.

### 4. MULTZOA. Materia eta energia

- Energia. Energia-iturria. Erabilera eta kontsumoa Euskal Herrian.
- Zenbait objektu eta material alderatzeko, sailkatzeko eta ordenatzeko irizpideak, propietate fisiko hautemangarriei erreparatuz (esate baterako: pisua, egoera fisikoa, bolumena, kolorea, testura, usaina, plastikotasuna, forma, erakarpen magnetikoa), eta erabilera-aukerari erreparatuz.
- Ikasleak bere ingurunean materialen erabilera murrizteko, materialak berrerabiltzeko eta birziklatzeko ekintzak egiteko jarraibideak.
- Erabilera arrunteko materialen propietateak eta argiaren, soinuaren eta beroaren aurrean duten portaera aztertzen dituzten esperimenduak planifikatu eta egiteko irizpideak eta jarraibideak.

- Dentsitate-aldeak agerikoak diren fenomenoen esperimentuak egiteko irizpideak. Flotagarritasuna ingurune likido batean.
- Indar bat edo indar bat baino gehiago aplikatzeak dituen eraginak hautemateko eta horrelako esperimentuak egiteko jarraibideak.

## 5. MULTZOA. Teknologia, objektuak eta makinak

- Objektu eta makina soilak: palanka, balantza, polea. Erabilerak eta funtzionamendua.
- Arriskuak sor ditzaketen objektuen, makinaren eta elementuen erabilgarritasuna.
- Teknologien eta produktu teknologikoen onurak eta arriskuak.
- Ordenagailu baten osagaiak. Ordenagailuaren teklatura erabiltzen hastea, esperimentuak, lanak eta ikerketak egiten ikasteko eta komunikatzeko tresna digitalak.
- Elementu soilak dituzten makinak muntatu eta desmuntatzea.
- Makina soilen bat duen objektu bat eraikitzekeko prozesu teknologikoaren etapak.
- Baliabide informatikoak egoki erabiltzea.

### 3.1.2.3. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.

- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### **B. Arlo honetako eduki multzo guztietako eduki komunak.**

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeke, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimenezioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrotasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera arduratsua eta aktiboa lanean, izan banakako lana, izan talde-lana.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Laborategiko material sinpleak erabiltzeko prozedurak eta jarraibideak.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.
- Estrategiak, jarraibideak eta irizpideak proiektuak planifikatu eta egiteko eta txostenak aurkezteko.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak.
- Tresna digitalak eta internet erabiltzeko irizpideak eta jarraibideak, informazioa bilatzeko eta aukeratzeko, lanak egiteko, prozesuen simulazioa egiteko eta ondorioak ateratzeko.
- Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak eta bizi-baldintzak hobetzearekin duten lotura.

## **2. MULTZOA. Gizakia eta osasuna**

- Gizakiaren bizi-funtzioak. Aparatuak eta sistemak.
- Nutrizioa: arnas aparatua, digestio-aparatua, zirkulazio-aparatua eta iraitz-aparatua.
- Ugalketa: sexu bakoitzeko ugalketa-aparatua.
- Erlazioa: nerbio-sistema eta lokomozio-aparatua.
- Giza organismoko aparatuei eta sistemei eragiten dieten gaixotasun ohikoenak.
- Kontsumitzaileen osasunean eragiten duten produktuei buruzko informazioak aztertzeke eta jasotzeko jarraibideak: egite-data, iraungitze-data, kontsumorako kontuan hartu beharrekoak.
- Lehen laguntzako oinarriko jarduerak, nork bere buruari eta besteei laguntzen jakiteko.
- Gizakiaren ongizaterako eta gaixotasunen prebentziorako ohitura osasungarriak. Adikzioek pertsonen garapenean dituzten ondorio kaltegarriak eta tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren prebentzioa, bai eta teknologia digitalen eta jokoaren erabilera kontrolgabearena ere.

- Nork bere gorputza arduraz zaintzea. Erabakiak hartzea.
- Nork bere gorputza eta gainerakoena onartzea, mugak eta aukerak aintzat hartuta.
- Pertsonen zainketak eta osasunak dimentsio soziala ere baduela eta pertsonak bizi diren inguruneko baldintza sozialek eta ekonomikoek hartan eragiten dutela ulertzea.
- Munduan osasun publikoko maila desberdina duten zenbait errealitate alderatzea.

### 3. MULTZOA. Izaki bizidunak

- Animalia ornodunak eta ornogabeak. Hegaztiak, ugaztunak, narrastiak, arrainak, anfibioak, intsektuak. Oinarrizko ezaugarriak, identifikazioa eta sailkapena.
- Landareak: egitura eta fisiologia. Fotosintesia eta haren garrantzia Lurrean bizia egoteko.
- Izaki bizidunen arteko erlazioa. Elikakateak. Euskal Herriko eta Espainiako populazioak, komunitateak eta ekosistemak: larrea, urmaela, basoa, itsasertza, hiria.
- Biosfera. Izaki bizidunen habitatak.
- Izaki bizidunen egitura: zelulak, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak bereiztea.
- Izaki bizidunekin lotutako esperientziak eta prozesuak behatzeko, jasotzeko eta ahoz adierazteko jarraibideak eta irizpideak.
- Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak.

### 4. MULTZOA. Materia eta energia

- Gorputz baten masa eta bolumena.
- Energia-iturriak eta lehengaiak: jatorria. Energia-iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak. Energia-garapen iraunkorra eta ekitatiboa, Espainian eta Euskal Herrian
- Energia motak: energia-mekanikoa, argi-energia, soinu-energia, energia elektrikoa, energia termikoa eta energia kimikoa.
- Elektrizitatea: korrante elektrikoa. Zirkuitu elektrikoa.
- Magnetismoa: lurraren magnetismoa. Imana: ipar-orratza.
- Erabilera arrunteko materialen propietateak eta argiaren, soinuaren, beroaren, hezetetasunaren eta elektrizitatearen aurrean duten portaera aztertzen dituzten esperimenduak planifikatu eta egiteko irizpideak eta jarraibideak. Datuen iragarpena eta azterketa.
- Nahaste baten osagaiak banatzeko esperimendu-teknikak: distilazioa, iragazketa eta lurrunketa.
- Erreakzio kimikoak (besteak beste, errekuntza, oxidazioa eta hartxidura) gertatzen diren esperimenduak egiteko irizpideak eta jarraibideak.
- Fenomeno elektriko batzuk eta haren ondorioak (argia eta beroa) aztertzeko jarraibideak. Karga elektrikoaren arteko erakarpena eta aldarapena.

## 5. MULTZOA. Teknologia, objektuak eta makinak

- Makinak eta aparatuak. Eragile mekanikoak: ardatza, gurpila, polea, plano inklinatua, engranajea, balazta... Haien funtzioak.
- Elektrizitatea makinaren garapenean. Elektrizitatearen ondorioak. Material eroaleak eta material isolatzaileak.
- Elektrizitatearen eta magnetismoaren arteko lotura eta haren aplikazioa.
- Prozesu teknologikoaren etapak. Irizpideak problema bat ebazteko eginkizuna duten edo horretarako baldintzak betetzen dituzten egitura soilak eraikitzeo, pieza modulatueta eta/edo eragile mekanikoetan oinarrituta.
- Zirkuitu elektriko soilak edo hezkuntza-helburuko robotikako elementuak dituzten egitura soilak diseinatu, planifikatu eta eraikitzea.
- Egiturak ekintza errazak egiteko erabiltzen diren diseinu-programak eta ikusizko programaziokoak erabiltzeko jarraibideak.
- Ordenagailua/gailua edo terminala, tresna digitalak eta Internet lanak egiteko eta jakinarazteko erabiltzen jakitea eta erabiltzea.
- Baliabide informatikoen erabilera arduratsua eta kontrolatua.

### 3.1.2.4. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

## 2. MULTZOA. Gizakia eta osasuna

- Elikadura osasuntsua eta orekatua. Euskal Herriko elikatzeko ohiturak eta gastronomiaren garrantzia.
- Ohitura osasungarriak: drogen kontsumoaren prebentzioa. Haien herrian eta Euskal Herrian, orokorrean, drogen arriskuaz prebenitzeko egiten diren ekimenak, eta horretaz arduratzen diren taldeak eta erakundeak.
- Euskal Herriko biztanleriaren osasunari buruzko datuak eta haien dimentsio soziala. Munduan osasun publiko maila desberdina duten beste errealitate batzuk.

## 3. MULTZOA. Izaki bizidunak

- Ekosistemak : lehorretako sistemak eta uretakoak. Euskal Herriko ekosistemak: goimendikoa, basoa(pagadiak, hariztiak), artadia, pinudia, itsasertzeoak, ...
- Lurreko ekosistemak: basoak (Iratiko basoa,..), larrak, mendialdea( Urkiola, Gorbea, Aralar), basamortua (Bardeak), ...
- Itsasoko ur-ekosistemak: itsasadarrak, padurak. Euskal Herriko bereizgarrienak: Urdaibai, Txingudi, Oria, Plentzia, Bilbokoa, Barbadun
- Ur gezako ekosistemak: ur gezaren erreserbak Euskal Herrian: Ordunte, Ulibarri-Ganboa, Eugi, Senpere, Urkulu, Itoitz,...
- Inguruko ekosistemak eta haietan dagoen fauna eta flora. Euskal Herriko animalia eta landarerik bereizgarrienak historian eta haien gaur egungo egoera: pagadia, artadia,

haritzia, perretxikoak, onddoak ...; kukua, txantxangorria, otsoa, hartza, ...; bisigua, antxoa, legatza, atuna, algak, ...

- Inguru hurbilenean dagoen espezie inbaditzaileak ezagutu.
- Euskal Herriko ingurune babestu nagusienak: Urdaibai, Urkiola, Valderejo, Gorbeia, Aralar, Aiako Harria, Bertiz, Urbasa-Andia, ...
- Ingurumena zaintzeko ekimenak eta horretaz arduratzen diren taldeak inguru hurbilenean.
- Eskolatik bultzatzen diren ekimenak. EAEko eskoletako Agenda21.

#### 4. MULTZOA. Materia eta energia

- Euskal Herriko energia-iturriak historian zehar: ikatza (ikazkintza), energia hidraulikoa (burdinolak, errotak, olak), ...
- Energiaren garrantzia Euskal Herriko industrian.
- Gaur egungo energia-iturriak. Energia berriztagarriak: eguzki-energia, energia eolikoa (Elgea, Oiz), marea-energia (Mutriku), ...
- Energiaren erabilera gaur egun eta aurrezteko egiten diren ekimenak. Euskal Herriko datuak. Gaindegia eta EUSTAT erabili.
- Energiak eragindako kutsadura inguru hurbilenean.
- Erreakzio kimikoak. Elikadura arloan ematen diren zenbait prozesuen oinarri kimikoa: txakolina, sagardoa, ardoa, gaztaren fabrikazioa.
- Donostiako Zientzia museoa ezagutu.

#### 5. MULTZOA. Teknologia, objektuak eta makinak

- Makinak eta aparatuak: ardatza, gurpila, polea, ... Makinak historian zehar: burdinolak, olak, errotak, ... (El Pobal, Pagoeta, Plazaola)

### 3.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 3.1.3.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

1. **Gidoi bat oinarri hartuta ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, metodologia zientifikoa aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.**
  - Naturako fenomenoak edo problemak bereizten ditu.
  - Problemak ebazteko hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
  - Eragindako egoera edo fenomenoak aztertzeko jardueraren bat proposatzen du.
  - Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, kontzeptuzko mapak eta abar.

- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
  - Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu eta txostenak egiten ditu, zenbait bitarteko eta euskarri analogiko eta/edo digital erabiliz.
- 2. Lan zientifikoaren berezko estrategiak aplikatzea zereginak eta proiektuak egitean.**
- Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
  - Sormena erabiltzen du eta pentsamendu kritikoa aplikatzen du egindako galderei erantzuna bilatzerakoan.
  - Lan zientifikoa ordenaz eta argi antolatzen du.
  - Banaka, taldean eta lankidetzan jarduten du kanal digitaletan, eta gatazkak ebazteko trebetasuna erakusten du.
- 3. Laborategiko oinarrizko materiala ezagutzea eta hautatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Laborategiko oinarrizko materialaren zerrenda egiten du eta zertarako erabil daitezkeen adierazten.
  - Aukeratutako materiala zuzen erabiltzen eta maneiatzen du.
  - Mikroskopia estereoskopikoa eta mikroskopia optikoa eta digitala erabiltzen ditu.
  - Esperimentuetan oinarrizko zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
  - Esperimentuetan sortutako hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak betetzen ditu.
- 4. Tresna digitalak eta Internet erabiltzea, informazioa kudeatzeko eta esperimendu birtualak egiteko, programa eta aplikazio digital egokiak erabiliz eta behaketatik lortutako datuak integratuz, eta emaitzak jakitera emateko.**
- Informazio-iturrien fidagarritasuna jakiteko irizpideak erabiltzen ditu.
  - Badaki zein diren benetako elementuak eta fenomenoak eta zein haien adierazpenak eta simulazioak, eta ongi bereizten ditu.
  - Informazioa zenbait formatutan (idatzia, irudiak, grafikoak, bideoak, infografiak, audioak eta abar) bilatu, kontsultatu eta erabiltzen du.
  - Informazioaren trataera osoa egiten du: informazio zehatza eta garrantzitsua aukeratzen eta antolatzen du, aztertzen du, ondorioak ateratzen ditu, prozesuari buruzko hausnarketa egiten du eta jakinarazi egiten ditu.
  - Hiztegi zientifikoa egoki erabiltzen du.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoaren aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
  - Modu kontrolatuan erabiltzen ditu tresna digitalak.
- 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta bizikalitatearen hobekuntza dakartela ohartzea.**
- Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak norbanakoaren eta gizartearen aurrerapenean duen eragina deskribatzen eta azaltzen du.



- Zenbait aurrerapen, produktu eta material bizitzako hainbat arlotan zertarako erabiltzen diren azaltzen du: osasunean, kulturaren, artean, aisian, musikan, kirolean...
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.
  - Asmakuntza handien eta haien asmatzaileen buruzko aurkezpen bat egiten du, eta ideia zientifikoekin lotzen du.
- 6. Giza gorputzaren atal eta funtzio nagusiak identifikatzea eta kokatzea, haien arteko erlazioak ezartzea eta naturaltasunez onartzea hazkondeak eta sexu-bereizketak eragindako aldaketak.**
- Giza gorputzaren atalak zuzenean behatu, adierazi eta deskribatu egiten ditu, eta haien funtzioa eta pertsonen arteko aldeak eta antzekotasunak azaltzen ditu.
  - Euskarriren batean azaltzen ditu zentzumenen organoak eta funtzioak eta higie-ne-ohitura egokiak.
  - Ahoz adierazten ditu arnasketa- eta digestio-prozesuak.
  - Arnasketa egoki egiteko ariketak egiten ditu.
  - Gorputzean gertatzen diren aldaketez ohartu eta ahoz adierazten ditu.
  - Hazkondearen eta pertsonen arteko sexu-bereizketaren ondoriozko desberdintasunak onartu eta errespetatzen ditu.
- 7. Aztertzea zein garrantzitsuak diren dieta, higie-ne-a eta ariketa fisikoa, osasuntsu eusteko, gaixotasunak eta istripuak prebenitzeko eta norberaren ongizaterako.**
- Badaki zein diren norberaren higie-ne-erako, zaintzarako eta atsedenerako oinarrizko ohiturak eta jarraitu egiten ditu.
  - Badaki zein diren dieta orekatuarekin eta gaixotasunen prebentzioarekin lotutako ohiturak eta jarraitu egiten ditu.
  - Ariketa fisikoa egiteko eta aisialdiaz gozatzeko jardueren plangintza egiten du.
  - Badaki zer den dieta orekatua eta Euskal Herriko errezeta baten bidez adierazten du.
  - Bere emozioak eta sentimenduak eta ikaskideenak eta helduenak nabaritzen ditu, eta gero eta hobeto kontrolatzen ditu.
  - Badaki zer gauza, material, substantzia eta espazio arriskutsu dauden etxean eta ikastetxean, eta zenbait neurri proposatzen ditu arriskuen mapa batean.
  - Badaki zein diren bere buruari eta besteei laguntzeko lehen laguntzako oinarrizko prozedurak eta erabili egiten ditu.
  - Irizpide egokiak erabiltzen ditu gorputzarekin eta osasunarekin lotutako erabakietan eta badaki zer ondorio dituzten.
  - Badaki zein garrantzitsua den osasun-egoera ona edukitzea, eta drogak eta substantziarik gabeko mendekotasunak txarrak direla, osasunerako eta pertsonaren garapen osorako.
- 8. Izaki bizidunak eta materia bizigabea bereiztea eta sailkatzea irizpide zientifiko-erri jarraituz, eta haien arteko erlazioak aztertzea.**
- Zuzenean eta zeharka behatzen eta erregistratzen ditu, zorrotasunez eta tresna egokiak erabiliz (lupa, landa-laneko koadernoak, kamera digitala, mikroskopioa eta abar) ingurune-ko animaliak eta landareak.

- Badaki Euskal Herrian ohikoak diren habitatetako (basoa, ibaia, parkea, urmaela...) animalien eta landareen ezaugarriak.
  - Izaki bizidunak eta materia bizigabea bereizteko eta sailkatzeko gidak eta irizpide zientifiko errazak erabiltzen ditu: elikadura mota, ugaltzeko modua, morfologia, gogortasuna...
  - Izaki bizidunekiko interesa azaltzen du eta errespetatu eta zaindu egiten ditu.
  - Taldean, Euskal Herriko ekosistema bati buruzko landa-lan bat egiten du, haren ezaugarri eta osagai nagusiak adierazten ditu, eta ekosistemako elementuren batean izandako aldaketek zer ondorio dituzten aurreikusten du.
  - Izaki bizidunekin lotutako esperientziaren edo prozesuren bat ahoz adierazten du eta zenbait euskarri erabiltzen ditu, digitalak barne.
  - Gertuko inguruan gizakiak ingurumenean eragindako inpakturen bat deskribatzen du eta alternatibak proposatzen ditu.
- 9. Indarrek objektuetan ikusteko moduko zer eragin duten jakitea, eta materialen funtsezko propietateak identifikatu, aztertu eta azaltzea, eta haien ohiko erabilerarekin lotzea.**
- Badaki zer propietate dituzten maiz erabiltzen ditugun materialek eta substantziek; esate baterako, kolorea, usaina, testura, pisua/masa, gogortasuna, beste elementu batzuekin konbinatzeko ahalmena, disolbagarritasuna, eta eroankortasun termikoa.
  - Propietate horiek erabilerarekin lotzen ditu, eta ingurunekeo adibideak jartzen ditu.
  - Zenbait prozedura erabiltzen ditu gorputz baten masa eta bolumena neurtzeko.
  - Esperimentu errazak planifikatu eta egiten ditu, gorputzen higiduran, forman edo egoeran indarren eraginez izango diren aldaketak aurreikusten ditu, eta prozesua eta lortutako emaitza jakinarazten ditu.
- 10. Energia-iturriak bereiztea, erabileren adibideak jartzea, energia arduraz erabili behar dela aintzat hartzea eta energia-aurrezteko neurriak proposatzea.**
- Energia-iturri ohikoenak bereizten ditu (haizea, Eguzkia, erregaiak...) eta badaki nola erabiltzen den energia gure bizitzan.
  - Ikusizko euskarriren baten bidez azaltzen ditu Euskal Herriko energia mota eta energia-iturri ohikoenak.
  - Energia-iturrien arteko loturei buruzko eskema-diagrama bat egiten du.
  - Maketa bat edo hiru dimentsioko adierazpenen bat egiten du (muntatu eta desmuntatu).
  - Badaki energiak arduraz erabili behar direla.
  - Gelan, ikastetxean, etxean eta komunitatean energia aurrezteko neurriak proposatzen ditu, praktikan jartzen ditu eta zer ondorio dituzten aztertzen du.
- 11. Objektuen eta makinaren atal nagusiak aztertzea, horietako bakoitza zertarako den jakitea, objekturen bat eraikitzekeo prozesu erraz bat planifikatu eta eraikitzea, talde-lanean lankidetzan jarduteko gogoia erakutsiz, tresnak egoki erabiliz eta mantenduz eta segurtasun-arauak betez.**
- Makina soil bat osatzen duten elementuak maneiatzten ditu.
  - Makina soil bat muntatu eta desmuntatzen du.

- Makina soil bat eraikitzeke urratsak azaltzen ditu.
  - Matematika- eta teknologia-ezagutzak erabiltzen ditu eragile mekanikoren bat erabiltzen duen eta baldintzaren bat edo eginkizunen bat betetzen duen egitura soil bat eraikitzeke.
  - Teknologien eta produktu teknologikoen onurei eta arriskuei buruzko ebidentzia zientifikoetan oinarritutako ondorioak atera eta txosten batean adierazten ditu.
  - Makinen eta tresnen aplikazioen bat ikusi eta bereizten du, eta giza jarduerak zertan errazten duen esaten du.
  - Ordenagailuaren teklatura egoki erabiltzen du, bai eta tresna digitalak ere, esperimenduak, lanak eta ikerketak egiten ikasteko eta komunikatzeko.
  - Taldean emandako rola onartu eta bete egiten du.
  - Ideiak, sentimenduak eta proposamenak beste jakinarazten dizkie.
  - Elkarlanean jarduten du taldeko kideekin eta ez du diskriminaziorik egiten sexua, arraza, erlijioa eta abar dela eta.
- 12. Eguneroko bizitzako adibideetan oinarrituz, argudiatzea pertsonen natura-baliabideak zertarako erabiltzen dituzten nagusiki, haien abantailak eta desabantailak adieraziz eta haien kontserbaziorako neurriak proposatuz.**
- Ikertzen du eta bereizten du ondasun edo zerbitzu batek jatorritik kontsumitu arte egiten dituen prozesuetako bakoitzean zer natura-baliabide erabiltzen diren.
  - Inguruneke natura-baliabideei eta haien erabilerari buruzko txostenak egiten ditu.
  - Badaki natura-baliabideak agortu egin daitezkeela, eta modu arrazionalen erabili beharra arrazoitzen du.
  - Natura-baliabideak tokian-tokian eta munduan kontserbatzeko ideiak eta proposamenak eztabaidatzen eta adierazten ditu.
  - Euskal Herrian ingurumena babesteko jarduten duen erakunde edo talde baten jarduera kritikoki aztertzen du.
  - Materialen erabilera murrizteko, materialak berrerabiltzeko eta birziklatzeko ekintzak egiten ditu.

### 3.1.3.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

- 1. Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea metodologia zientifikoa aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.**
- Naturako fenomenoak edo problemak bereizten ditu.
  - Problema ebazteko hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
  - Eragindako egoera edo fenomeno aztertzeke jardueraren bat proposatzen du.
  - Esperimenduetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, kontzeptuzko mapak eta abar.

- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
  - Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu eta txostenak egiten ditu, zenbait bitarteko eta euskarri analogiko eta/edo digital idatziak edo ahozkoak erabiliz.
- 2. Lan zientifikoaren berezko estrategiak aplikatzea zereginak eta proiektuak egitean.**
- Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
  - Sormena erabiltzen du eta pentsamendu kritikoa aplikatzen du egindako galderei erantzuna bilatzerakoan.
  - Lan zientifikoa ordenaz eta argi antolatzen du.
  - Banaka, taldean eta lankidetzan jarduten du kanal digitaletan, eta gatazkak ebazteko trebetasuna erakusten du.
- 3. Laborategiko oinarrizko materiala ezagutu eta hautatzea, eta ea behar bezala erabiltzea.**
- Laborategiko oinarrizko materialaren zerrenda egiten du eta zertarako erabil daitezkeen adierazten.
  - Aukeratutako materiala zuzen erabiltzen eta maneiatzen du.
  - Mikroskopia estereoskopikoa eta mikroskopia optikoa eta digitala erabiltzen ditu.
  - Esperimentuetan oinarrizko zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
  - Esperimentuetan sortutako hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak betetzen ditu.
- 4. Tresna digitalak eta Internet erabiltzea, informazioa kudeatzeko eta esperimendu birtualak egiteko, programa eta aplikazio digital egokiak erabiliz eta behaketatik lortutako datuak integratuz, eta emaitzak jakitera emateko.**
- Informazio-iturrien fidagarritasuna jakiteko irizpideak erabiltzen ditu.
  - Badaki zein diren benetako elementuak eta fenomenoak eta zein haien adierazpenak eta simulazioak, eta ongi bereizten ditu.
  - Informazioa zenbait formatutan (idatzia, irudiak, grafikoak, bideoak, infografiak, audioak eta abar) bilatu, kontsultatu eta erabiltzen du.
  - Informazioaren trataera osoa egiten du: informazio zehatza eta garrantzitsua aukeratzen eta antolatzen du, aztertu egiten du, ondorioak ateratzen ditu, prozesuari buruzko hausnarketa egiten du eta jakinarazi egiten ditu.
  - Hiztegi zientifikoa egoki erabiltzen du.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoaren aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
  - Modu kontrolatuan erabiltzen ditu tresna digitalak.
- 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta ohartzea bizi-kalitatearen hobekuntza dakartela.**
- Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak norbanakoaren eta gizartearen aurrerapenean duen eragina deskribatzen eta azaltzen du.

- Zenbait aurrerapen, produktu eta material bizitzako hainbat arlotan zertarako erabiltzen diren azaltzen du: osasunean, kulturaren, artean, aisian, musikan, kirolean.
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.
  - Asmakuntza handien eta haien asmatzaileen buruzko aurkezpen bat egiten du, eta ideia zientifikoekin lotzen du.
- 6. Gizakiaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo, aparatu eta sistema nagusiak identifikatzea eta kokatzea, jakitea zer lotura duten elkarren artean, eta haien funtzionamendua osasun-ohitura jakin batzuekin lotzea.**
- Gizakiaren bizi-funtzioen ezaugarri nagusiak bereizi eta deskribatzen ditu.
  - Grafiko, eredu edo eskemetan gizakiaren bizi-funtzioak egiten parte hartzen duten organo nagusiak bereizi eta kokatzen ditu.
  - Aurkezpen batean azaltzen du giza gorputzeko organoen, aparatuen eta sistemen arteko lotura.
  - Aintzat hartzen ditu elikagai osasungarriek organismoan eragiten dituzten onurak.
  - Askotariko jakiak jaten ditu eta elikadura aberatsa du, eta, besteak beste, fruta eta barazkia bere ohiko dietan ditu.
  - Badaki zein diren gizakiaren ongizaterako eta gaixotasunen prebentziorako ohitura osasungarriak.
  - Elikagaien ontzietako informazioa aztertzen du eta erabakiak hartzen ditu produktuen aukeraketan.
  - Badaki zer eginkizun duten txertoek gaixotasunen prebentziorako, eta txertoak erabiltzea egokia den ala ez adierazten du, argudioak emanaz.
  - Bere gorputza eta identitate sexuala onartzen ditu. Desberdintasunak errespetatzen ditu.
  - Badaki zer egin behar den larrialdi-egoeretan (sorospen-telefonoak, ebakuazio-arauak) eta lehen laguntzako maniobra errazak egiten ditu.
  - Mirarizko dieten, botiken eta abarren publizitatearen aurrean modu kritiko arrazoituan jarduten du eta erabakiak hartzen ditu.
- 7. Barneratzea zer-nolako arriskua dakarten eguneroko bizitzan norberaren ongizatea edo osasuna kaltetu dezaketen jokabideek, hala nola drogen kontsumoak edo portaera-mendetasunak sor ditzaketen jokabideek, eta horrelako jokabideak saihestea.**
- Drogak eta substantziarik gabeko mendekotasunak arbuiatzen ditu, pertsonen garapenerako kaltegarriak direlako.
  - Badaki zer ondorio kaltegarri dituen zenbait substantzia kontsumitzeak (alkohola eta tabakoa eta beste batzuk), bai eta substantziarik gabeko mendekotasunak, barne hartuta informazioaren teknologien gehiegizko erabilera eta jokoan gehiegi aritzea. Eta horri buruzko erabaki arduratsuak hartzen ditu.
- 8. Izaki bizidunen arteko erlazioak azaltzea, haien egiturak, oinarrizko ezaugarriak, funtzioak eta habitatak aztertuz.**
- Izaki bizidunen antolakuntza-mailak bereizten ditu: zelula, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak.
  - Izaki bizidunen funtzioak deskribatzen ditu.

- Animalia ornodunak eta ornogabeak behatzen ditu zuzenean eta zeharka, haien ezaugarriak identifikatu eta sailkatu egiten ditu.
  - Gidak erabiltzen ditu animaliak eta landareak sailkatzeko.
  - Badaki zer garrantzia duen fotosintesiak Lurrean bizia izateko.
  - Izaki bizidunen habitatak aztertzen eta bereizten ditu.
  - Euskal Herriko ekosistema batean sortzen diren erlazioak eta elikakateak bereizten ditu.
  - Espezie inbaditzailearen batek Euskal Herriko habitat autoktonoetan egiten duen inpaktua aztertu eta aurkezpen batean azaltzen du.
  - Espezieak desagertzearen arrazoiak bat identifikatu eta azaltzen du.
- 9. Gorputzek argiaren, elektrizitatearen, magnetismoaren, beroaren eta soinuaren eraginpean zer portaera duten identifikatzea eta deskribatzea, materialen fenomeno fisikoak eta kimikoak azaltzea, esperimendu edo ikerketa soilak eginez, eta emaitzak jakitera emateko tresna egokiena aukeratzea.**
- Badaki zer propietate dituzten erabilera arrunteko material batzuek eta zer portaera duten argiaren, elektrizitatearen, magnetismoaren, beroaren edo soinuaren aurrean.
  - Zenbait prozedura erabiltzen ditu gorputz baten masa eta bolumena neurtzeko.
  - Islapenaren fenomenoaz aztertzen du esperimendu erraz batean.
  - Ikerketa batean, nahaste baten osagaiak banatzeko prozedurak erabiltzen ditu: distilazioa, iragazketa, lurrunketa, etab.
  - Benetako egoera batean, errekuntzan, oxidazioan eta hartiduran gertatzen diren erreakzio kimikoak deskribatzen eta aztertzen ditu.
  - Esperimenduen eta ikerketen emaitzak jakinarazten ditu eta ingurunean gertatzen diren fenomenoekin duen lotura adierazten du.
  - Badaki zein diren Lurraren magnetismoaren eraginak, ipar-orratzaren funtzionamendua adierazten du eta orientatzeko erabiltzen du.
  - Esperimendu erraz batean, elektrizitatearen eta magnetismoaren arteko erlazioa aztertzen, identifikatzen eta azaltzen du.
  - Zenbait egoera-aldaketa eta haien itzulgarritasuna identifikatzen, esperimendatzen eta argudiatzen ditu.
- 10. Gorputzen higiduran, forman edo egoeran indarren edo energia-ekarpenen eraginez zer aldaketa gertatzen diren bereiztea eta aurreikustea, esperimendu edo ikerketa soilen bidez, eta prozesua eta emaitzak modu egokian jakitera ematea.**
- Gorputzen higiduran edo egoeran izan daitezkeen aldaketak aurreikusten ditu.
  - Ingurunekeo adibideak erabiliz, zenbait energia mota bereizten ditu: energia mekanikoa, argi-energia, soinu-energia, energia elektrikoa, energia termikoa eta energia kimikoa.
  - Pertsonak ohiko bizitzan erabiltzen dituzten lehengaiak eta energia-iturriak zein diren adierazi eta ikusizko euskarri batean azaltzen ditu.
  - Maketa bat edo hiru dimentsioko adierazpen bat egiten du.
  - Energiaren erabilerak dakartzan onurak eta arriskuak azaltzen ditu.

- Arrazoituz azaltzen du zergatik den garrantzitsua Euskal Herrian eta Espainian energia berriztagarria erabiltzea.
- 11. Proiektu teknologiko bat egitea, aurrez planifikatuta, objektuak eta tresnak eraikitzeke, energia-iturriak erabiliz eta eragile nahiz material egokiak aukeratuz, eta baliatutako estrategiei buruzko informazioa ematea.**
- Prozesu teknologikoaren urratsak ematen ditu pieza modulatueta eta/edo eragile mekanikoetan (ardatza, gurpila, polea, plano inklinatua, engranajea eta balazta, esaterako) oinarrituta makina bat edo gailu bat eraikitzeke.
  - Elektrizitateak inguruneke zenbait objektutan eta aparatutan dituen eragin batzuk aztertu, ikusi eta azaltzen ditu.
  - Zenbait materialek, eroalek zein isolatzailek, zirkuitu elektriko batean izango duten portaeraren hipotesiak egin eta portaera aurreratu du, eta zirkuitua eraikitzen du.
  - Zirkuitu elektriko soilak edo hezkuntza-helburuko robotikako elementuak dituzten egitura soilak diseinatu, planifikatu eta eraikitzen ditu.
  - Proiektu errazetan ingurune grafikoek bidez egindako programak diseinatzen ditu.
  - Prozesu teknologiko bat garatzean, tresna eta aplikazio digitalak egoki erabiltzen ditu.
- 12. Gizakiaren jarduerak natura-ingurunean duen eragina adibideen bidez argudiatzea, haren efektuetako batzuk deskribatuz, eta ondorioak ateraz.**
- Natura-baliabideen erabilera edo kontsumo ez-iraunkorreko kasuak ikusten ditu, bai eta haien ondorioetako batzuk ere.
  - Euskal Herrian ohiko kutsadura modu batzuen eraginak deskribatzen ditu eta prebentzioko edo kutsadura murrizteko neurriak proposatzen ditu.
  - Gizakiak ingurumenean sortzen duen inpaktua azaltzen du eta alternatibak bilatzen ditu kasu errealean.
  - Eguneroko bizitzan, energia-erabilerarekin eta -kontsumoarekin lotutako erabakiak hartzen ditu.

## 4.- KOMPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA

### 4.1.- GIZARTE-ZIENTZIAK

#### 4.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira Gizarte Zientziak arloko etapako helburuak:

1. Ezaugarri bereizgarriak dituzten gizarte- eta kultura-taldeetako kide direla ohartzea eta balioestea, norberaren kultura-ezaugarri bereizgarriak eta beste talde batzuekiko desberdintasunak aintzat hartzea, eta gainerako identitate, kultura eta herriekiko errespetua izatea eta giza eskubideak errespetatzea ezinbestekoa dela ohartzea.
2. Talde-lanean jardutea, arduraz, elkarlanean, elkartasunez eta modu konstruktiboan. Lan horretan, funtzionamendu demokratikoaren oinarritzko printzipioak aplikatu, lan komunarekiko ardura garatzen joan, eta norberaren eta besteen ekarpenak adostutako helburuaren arabera balioetsiko dira, komunitateari elkartasunez ekarpenak egiteko, inolako bazterkeriarik gabe (generoa, arraza, kultura, erlijioa...).
3. Historiako etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak zein diren jakitea, etapa bakoitzeko gertaera garrantzitsuenak aztertzea eta ohartzea batzuk aldiberekoak direla eta beste batzuk elkarren segidakoak. Horren guztiaren helburua da historian zehar gertatu diren aldaketei buruzko iritzi pertsonal eta kritikoa eratzea eta ezagutza horiek une historikoak ongi ulertzeko erabiltzea.
4. Gizakiak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean dituen esku-hartzeen zenbait adibide ikusi eta kritikoki aztertzea, iraunkortasunaren ikuspegitik, eguneroko bizitzan ingurumena eta ondare historikoa eta kulturala babesteko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko jarrera izateko.
5. Ingurune fisiko, sozial eta kulturalako gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak zenbakizko kode bidez, kode grafiko bidez, kode kartografiko bidez eta errealitate geografikoak, ekonomikoak eta historikoak adierazten dituzten beste kode batzuen bidez adieraztea, zer gizarte-errealitatetan bizi garen ongi jakiteko.
6. Inguruko testuinguru geografiko, sozial eta historikoko elementu garrantzitsuei lotutako zalantzak eta problemak zein diren jakin, planteatu eta ebatzea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira informazioa bilatzeko eta informazioa eta ezagutzak trukatzeko, eta hipotesiak egingo dira konponbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruzko hausnarketa egiteko.
7. Gatazkak izan badirela jakitea, eta eztabaidetan eta mahai-inguruetan jarrera konstruktibo, kritiko eta tolerantzez parte hartzea, eta ikustea elkarriketa eta desadostasunak izatea ezinbesteko baliabideak direla gizakien eta gizartearen arazoetarako konponbidea emateko, elkarbizitza ona lortzeko eta intolerantziarik eta tratu txarrik egon ez dadin lortzeko.
8. Nork bere nortasuna eratzea, eta norberaren ahalegina eta hobetzeko nahia sustatzen duten estrategiak bultzatzea, gizaki autonomo eta sozial moduan



garatzeko, gainerakoekin elkarrekintzan, sormena, ekintzaile-sena eta lankidetzaz sustatuz.

9. Unibertsoaren jatorria jakitea, eguzki-sistema irudikatzea, eta sistemaren osagaietako batzuk, higidura batzuk eta ondorio batzuk identifikatzea, urtaroen segida ulertzeko eta gure planeta zaintzeko konpromisoa hartzeko.
10. Lur planetaren egitura, itsasoaren eta kontinenteen banaketa, erliebea eta hidrografia identifikatu eta irudikatzea, eta elementu geografiko nagusiak bereiztea, jakiteko zer nolako elkarreragina eta ondorioak dituzten Euskal Herriko eta Espainiako kliman eta paisaietan.
11. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolaketa nolakoa den eta zer erakundeek osatzen dituzten jakitea, baita Europar Batasunaren eginkizuna ere. Biztanleriaren ezaugarriak, migrazio-mugimenduak, eta kultura-, gizarte- eta hizkuntza-aniztasuna aztertuko dira, aintzat hartzeko eta desberdintasunak errespetatzeko.

## 4.1.2.- EDUKIAK

### 4.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak

Pertsonak izaki sozialtzat hartzen dituzte Gizarte Zientzietako zientzia-diziplinek, eta alderdi geografiko, soziologiko, ekonomiko eta historikoetatik aztertzen dute haien errealitatea.

Etaparen horretan, ikasleek ahalmenak lantzea da Gizarte Zientzien helburua, inguruan duten errealitatea interpretatzeko, errealitate horretan esku hartzeko, eta gizartean bizitzen ikasteko, demokraziaren funtsezko erakundeak eta mekanismoak ezagutu eta bizitza kolektiboaren arauak errespetatuta.

Gizarte Zientzien arloak jakintzaren zenbait adar biltzen ditu, baina horietako bakoitzaren koherentziari eusten dio, haien ikaskuntza-prozesu espezifikoak erregulatu eta jakintza guztiak helburu baterantz bideratzen ditu: ingurunea hobeto ulertu eta azaldu ahal izatea. Ingurunea ulertzeak esan nahi du ingurunea aztertu eta hura osatzen duten elementuak bereizi edo sailkatu eta haien artean sortzen diren harremanak jakitea, baita iritziak autonomiaz eratu ahal izatea ere. Ikaslearen inguruan gertatzen den orok espazio-, denbora-, ekonomia- eta gizarte-alderdi bat du. Horregatik, arloko curriculumak diziplinartekoa da funtsean, eta erlazioak ezartzen ditu ikaskuntzak elkarren lagungarri izan daitezen eta ikaskuntza esanguratsua izan dadin.

Proposatzen diren ikaskuntzek, esanguratsuak izateko, ikaslearen esperientzia eta hark bizitako izaten dute oinarri, eta, pixkanaka, jakintza-zirkuluak zabaltzen joaten dira gero eta gizarte-errealitatearen gero eta alderdi zabalago, konplexuago eta espazioan eta denboran urrunagoetan murgiltzeko. Jakintza gero eta objektiboagoa eta arrazionalagoa izango da, eta gero eta partekatuago egongo da gizarte-talde bateko kideen artean.

Edukiak multzotan antolatuta daude, eta horrek Gizarte Zientzien arloa osatzen duten eremu nagusiak ongi bereizteko aukera ematen du. Antolaketa ez dio inolako ordena eta hierarkiari jarraitzen, eta edukien arabera ere ez dago antolatuta. Horrenbestez, ez da antolaketa didaktikorako proposamen bat.

Globaltasunak etapa honetako ardatz izan behar du, eta, beraz, baita arlo honetako ere, eta edukiak txertatzen jakin behar dugu esperimenduetan, landa-lanetan, irteeretan, bisitaldietan, zeharkako behaketan eta abarretan, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera. Teknologia horiek curriculumeko ikasgaiak ikasteko tresna gisa erabili

behar dira, informazioa lortzeko, eta Gizarte Zientziei buruz irakurri, idatzi eta mintzatzeko behar diren gako-hitzak eta kontzeptuak aurkitu, ezagutu eta erabiltzeko tresna gisa.

Banakako lana garrantzitsua da eta ez da baztertu behar, baina, hala ere, azpimarratu behar da garrantzitsua dela gela lan-taldetan antolatzea eta taldeak lankidetzaz eta elkartasunez jardutea. Izan bakarkako lana, izan taldekoa, lana eta ahalegina egiteko ohiturak sustatuko dira, funtsezko elementuak baitira ikaskuntza-prozesuan, eta ikasteko ardura hartu behar dela ere azpimarratuko da. Horrez gain, nork bere buruan konfiantza izatea eta zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, jakin-mina, sormena eta ekintzaile-sena agertzea ere sustatuko da.

Orobat, ikaslearentzat funtsezkoa da arloko lexiko espezifikoa ikasi eta zehaztasunez eta zorroztasunez erabiltzea, eta informazioa hautatzea, Geografiako eta Historiako berezko metodoak eta teknikak erabiliz, arazoen kausak eta ondorioak azaltzeko eta iragan historikoa eta espazio geografikoa ulertzeko.

Testuinguru horretan, irakaslearen lana ikasleen aurretiko ideiak eta eskemak gararazten dituzten ikaskuntza-egoerak aurkeztea izango da.

Ebaluazioa ikaskuntza-estandar ebaluagarrien bidez egingo da. Bitarteko bat izango da ikasleen eta taldearen aurrerapenak balioesteko eta hezkuntza-prozesuan egoki eragiteko informazio baliagarria lortzeko. Horretarako, arloko konpetentzia giltzarri edo oinarrizkoak izango dira gure erreferentziak, eta ebaluazio-irizpideen eta haiei lotutako adierazleen bidez balioetsiko da konpetentzia horiek lortu diren ala ez. Adierazleek irizpideak zehazten eta argitzen laguntzen diote irakasleari.

Edukiak multzotan banatu dira, eta Gizarte Zientzien eremu nagusiak bereizten laguntzen dute.

Lehenik eta behin, 1. eduki multzoan arlo osoarentzat komuna den curriculumaren ezaugarriak, arloari heltzeko lan-teknikak eta ikastean ardura, ahalegina eta jarraitutasuna banakako zein taldeko ikuspegitik garatzeko estrategiak ezartzen dira.

2. multzoan (Gure mundua eta haren kontserbazioa), geografia aztertzen da, bai hurbilekoa, ikaslea bere errealitatera hurbiltzeko, bai urrunagokoa ere, ikasleak ikuspegi globalagoa izan dezan. Gaiari heltzeko, espazio geografikoa zerbait dinamikotzat hartzen da, eta, horregatik, zenbait eraldaketa-prozesu ulertu beharko dituzte ikasleek.

Eduki multzo honetan, hainbat testu, taula eta grafiko mota, eskemak, adierazpen kartografikoak, argazkiak eta irudi sintetikoak erabiltzen dira, objektu eta gertaera geografikoak identifikatu eta kokatzeko eta haien banaketa zenbait eskalatan azaltzeko, Euskal Herriko eta Espainiako lurraldean, batez ere. Aurrekoek gain, informazio-iturri geografikoak erabiliko dira (testu idatziak, segida estatistikoak, grafikoak eta irudiak), krokis eta grafiko egokiak egiteko. Paisaiako elementuak (erliebea, klima, hidrografia...) identifikatuko dira eta ingurune natural nagusiak deskribatu eta haien ezaugarriak adieraziko dira. Azkenik, gizakiak ingurunean duen eraginak eta ingurumen-ondorioak aztertuko dira.

2. multzoan, horrenbestez, honako eduki hauek sartzen dira: unibertsoa, Lurraren irudikapena, orientazioa espazioan, ura eta kontsumo arduratsua, klima eta klima-aldaketa, paisaia eta gizakiaren esku-hartzea ingurunean.

3. multzoan (Gizartean bizitzea), aukera izango da gizarte-taldeen ezaugarriak aintzat hartzeko moduei buruzko ulertze-prozesu bat abian jartzeko: desberdintasunak errespetatu eta aintzat hartzea, nork osatzen duten, nola banatzen diren espazio fisikoan, nola banatzen den lana kideen artean, nola produzitzen diren eta banatzen dituzten kontsumo-ondasunak, herritarren bizitza ekonomikoa, gizarteko kideen ekintzailetza-ahalmena, enpresaren azterketa (enpresa-jarduerak gizartean duen funtzio dinamizatzailea ere aztertuko da), gizarte-antolaketa,

antolaketa politikoa eta lurralde antolaketa, Europako erakundeen ezagutza, biztanleria, ekoizpen-sektoreak eta oinarrizko finantza-hezkuntza.

4. multzoan (Denboraren arrastoa), denbora historikoaren eta haren neurketaren ulermena eta gertaera historiko batzuk eta beste gertaera garrantzitsu batzuk denboran antolatzeko gaitasuna landuko dira, segidaren, iraupenaren eta aldiberekotasunaren oinarrizko nozioak erabiliz. Gizateriaren etapa historiko handiak ikasiko dira, Historiaren aroak zer diren jakiteko eta Historiaren bost aroei data jartzeko, haien hasiera eta amaiera eragin zuten gertaerei lotuta. Horretarako, zenbait alditako egoera historikoak, gertaerak eta pertsonaia garrantzitsuak zein ziren jakin behar da.

Garrantzitsua da ikasleek erreferentzia historikoak lortzea munduaren interpretazio pertsonala egiteko. Horretarako, historiari buruzko oinarrizko jakintza batzuk behar dira –historia partikularretik hasi eta historia unibertsalean amaituta–, eta alderdi komunak eta alderdi desberdinak errespetatuz eta balioetsiz.

Multzo honetan, mapez gain, prozesu historikoak identifikatu eta aztertzeke irudikapen grafiko oro erabiliko da, iturri horiei buruzko iruzkina egiteko oinarrizko prozedurak jakitera emateko.

Garrantzitsua da ikasleak gizakiaren iraganeko bizimoduaren berri izateko jakin-mina izatea, eta ulertzea oso garrantzitsua dela azarnak edukitzea historia ezagutzeko eta ikasteko, eta zaindu eta ondorengoei helarazi behar zaien kultura-ondareak direla.

Multzo honetan, halaber, ondare naturala, historikoa, kulturala eta artistikoa balioetsi eta errespetatzeko gaitasuna garatzen da, baita hura kontserbatu eta hobetzeak dakartzan erantzukizunak bere gain hartzeko gaitasuna ere.

Edukien sekuentziazioa ikaslearen bilakaerari lotuta dago, ikasleak bere ikaskuntza eta denbora historikoaren inguruko kontzeptua bere garapenarekin lotuta eraikitzen baitu, garapen kognitiboarekin zein heldutasun-garapenarekin lotuta, denboran eta espazioan identifikatu eta kokatzeko prozesu eta gertaera garrantzitsuak, eta, historiaren bilakaeraren barnean, aldatzea eta irautea nozioak bereizteko, eta Historia gertaera historikoen kausak eta ondorioak aztertuz etorkizuna ulertzea errazten duen bide moduan ikusteko.

Gizarte Zientziak irakastea eta ikastea giza eskubideak guztiz errespetatzea da, berdintasuna barne, demokraziaren oinarri baitira, ulertzea zer desberdintasun dauden erlijio edo talde etnikoen balio-sistemetan, eta oinarrizko giza eskubideak balioestea. Jarrera horrek, halaber, arduraz jokatzeko eta komunitatearen kohesioa bermatzeko beharrezkoak diren balio partekatutako (hala nola printzipio demokratikoen errespetua) ulertu eta errespetatzea dakar.

Arloaren azken helburua da norberaren askatasuna, erantzukizuna, herritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna eta justizia errazten duten balioak helarazi eta praktikan jar daitezen lortzea, baita diskriminazio oro gainditzen laguntzen dutenak ere. Hori ikastetxean egingo da, eskola-komunitate osoak parte hartzen duela, eta gatazkak konponduz, bizikidetzaren egokia sustatuz eta, beraz, konpartitzen eta elkarrizketa erabiltzen dakiten herritarrak sortuz. Beste helburu bat da (eta hori da, azken finean, gure hezkuntza-sistemaren helburua) ikasleak herritarrak izateko eta ekonomian, gizartean eta kulturaren parte-hartze aktiboa izateko prestatzea, jarrera kritikoz eta erantzukizunez, eta ezagutzaren gizarteak dakartzan egoera aldakorretara egokitzeko ahalmena izanda.

Azken finean, arloko curriculumaren bidez, gaitasunak, jakintzak, trebetasunak eta jarrerak irakatsi nahi zaizkie etapa honetako ikasleei, hain zuzen ere beren ingurunean eta bizi diren gizartean ulertzeko eta arduraz jokatzeko, beste garai historiko batzuetako gizarteak nolakoak ziren jakiteko, eta herritar direnez, eta parte-hartze demokratikoaren bidez, ingurumena zaintzeko eta eskubide indibidual zein kolektiboak babesteko dituzten erantzukizunen berri izateko.

### 4.1.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak

##### Eduki multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

##### B. Arlo honetako multzo guztietan komunak diren edukiak

- Jakintza zientifikoa ikasten hastea eta Gizarte Zientzietan aplikatzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak iturri geografiko, historiko eta sozialetan informazioa bilatzeko erabiltzea.
- Lortutako informazioa aztertu, antolatu eta buruz ikasteko trebetasunak garatzea, eta ikertzeko eta jakintzak eskuratzeko interesa sustatzea.
- Pentsamendu-trebetasunak garatzea: antolatzaile grafikoak eta mapa mentalak.
- Hainbat hizkuntza testual eta grafiko erabili eta irakurtzea.
- Ikasgelako lana garatzeko estrategiak: erantzukizuna eta ahalegin-gaitasuna.

- Hainbat metodo eta iturriren bidez lortutako informazioa antolatu eta azaltzeko estrategiak garatzea.
- Talde-lana eta lankidetzalana bultzatzeko estrategiak sustatzea.
- Ikasteko erantzukizuna, ahalegin-ahalmena eta jarraitutasuna garatzeko estrategiak.
- Gatazkak konpontzeko, elkarrizketa erabiltzeko eta bizikidetzara arauak erabiltzeko trebetasunak.
- Bizikidetzako egoeren eta bizikidetzako gatazken simulazioak: gatazkaren aurretik, gatazkaren garaian eta gatazkaren ondoren: konpontzeko modu demokratikoak.
- Ingurune elementu naturalen kontserbazioarekiko sentsibilitatea eta errespetua.
- Lan egiteko erabiltzen diren materialak behar bezala eta errespetuz erabiltzea.
- Ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko geografia fisikoaren elementu garrantzitsuak non dauden jakitea eta hainbat irudikapenen bidez interpretatzea (mapak, planoak, aireko argazkiak eta abar).
- Gizonek eta emakumeek historian subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea.
- Ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko ekosistemen eta paisaien aniztasuna eta bertako ondare naturala, historiko-artistikoa, linguistikoa eta kulturala ezagutu eta balioestea, eta horiek errespetatu eta kontserbatzeko konpromisoa hartzea.

## 2. MULTZOA. Gure mundua eta haren kontserbazioa

- Biraketa-higidura, egunen eta gauen segida eta ilargiaren faseak.
- Translazio-higidura, urtea, urtarokak eta egutegia.
- Espazio-orientazioa: puntu kardinalak. Iparrorratza eta GPSak.
- Elementu eta fenomeno natural batzuk hautematea eta deskribatzea: izarrak, ilargia, eguzkia, eguna eta gaua.
- Planoak, lur-globoak eta mapak. Poloak, ardatza eta hemisferioak identifikatzea.
- Airea: konposizioa.
- Atmosfera. Atmosferaren kutsadura saihesteko jardunak.
- Eguraldia. Fenomeno atmosferikoak. Neurtzeko tresnak.
- Lurraren geruzak.
- Herriko klima. Euskal Herriko klima motak.
- Klima-aldaketa. Arrazoiak eta ondorioak.
- Ura: egoerak. Uraren erabilera arduratsua eguneroko bizitzan.
- Uraren zikloa.
- Uren banaketa planetan. Ur gezak eta ur gaziak. Azaleko eta lur azpiko urak.
- Baliabide hidrikoak eta haien aprobetxamendua. Kontsumo arduratsua eta kutsadura-arazoak.
- Paisaia. Paisaia osatzen duten elementuak.

- Paisaia motak: paisaia naturala eta paisaia humanizatua; barnealdeko paisaia eta kostaldeko paisaia; lautadako paisaia eta mendiko paisaia. Ezaugarriak eta desberdintasunak. Herriko, eskualdeko eta Euskal Herriko paisaia osatzen duten elementu nagusiak (erliebea, urak, klima, biztanle-taldekatzeak, komunikazio-bide nagusiak).
- Euskal Herriko paisaien aniztasun geografikoa: erliebea eta hidrografia.
- Gizakiaren esku-hartzea herriko, eskualdeko eta Euskal Herriko paisaian. Ingurune elementu naturalak errespetatu, babestu, hobetu eta kontserbatzea.
- Kontsumo arduratsua
- Osasunean eragina duten faktore sozialak eta ekonomikoak.
- Giza ekintzak pertsonen osasunean dituen ondorioak.

### 3. MULTZOA. Gizartean bizitzea

- Herriak eta hiriak. Auzoak eta auzo motak.
- Gizarte-erakundeak: koadrila, taldeak, auzoa. Kideen arteko harremanak eta parte-hartzea.
- Ingurune hurbilean antolatze moduak: eskola eta udalerria.
- Tokiko erakundeen erantzukizun eta zereginen jakintzaren hastapenak.
- Herriko antolamendua: Udala eta udal-zerbitzuak.
- Herritarren arauak. Bizikidetzara-arauak eta horiek betetzeko erantzukizuna.
- Ingurune kulturen adierazpenetik hurbilketa, errekonozimendua eta errespetua, aniztasun eta aberastasunaren adierazgarri. Herriko eta Euskal Herriko kultura-adierazpen herrikoiak.
- Pertsonen herritartasuna baliatzean dituzten eskubide eta betebeharrakiko sentsibilitatea eta errespetua.
- Auzoko eta herriko biztanleria.
- Herriko produkzio-jarduerak.
- Produktu naturalak eta haien jatorria.
- Produktu landuak. Artisautzak eta industriak: Ofizioak, lanbideak eta haien produktuak.
- Zerbitzuak eta haien produktuak.
- Elkarrizketa, gatazkak konpontzeko baliabidea.
- Diruaren erabilera zuzenaren hastapenak. Dirua erabiltzean agertu beharreko erantzukizuna.
- Desplazamenduak eta garraio-bideak. Oinezko eta erabiltzaileei dagozkien oinarrizko arauak betetzeko erantzukizuna.
- Bide-hezkuntza. Trafiko-seinaleak.

#### 4. MULTZOA. Denboraren arrastoa

- Oinarrizko denbora-kontzeptuak: oraina, iragana eta etorkizuna.
- Denbora historikoa herrian eta Euskal Herrian, eta haren neurketa.
- Euskal Herriko iraganeko gertaera historiko garrantzitsuak.
- Iturri historikoak eta haien sailkapena.
- Iraganeko eta oraingo gertaerak, eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden alderdi historikoekin duten lotura. Denboraren lerroa.
- Eguneroko bizitzako oinarrizko alderdiren baten historiaren aldaketa eta bilakaera: etxebizitza, arropa, elikadura, familia-antolamendua, gizarte-antolamendua, komunikatzeko bideak, lan motak eta abar.
- Euskal ondare historiko eta kulturalaren zaintzari lotutako erantzukizuna: museoak.

#### 4.1.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak

##### Eduki multzo honetako prozedura eta jarrearen xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitate).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.

- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### **B. Arlo honetako multzo guztietan komunak diren edukiak**

- Jakintza zientifikoa ikasten hastea eta Gizarte Zientzietan aplikatzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak iturri geografiko, historiko eta sozialetan informazioa bilatzeko erabiltzea.
- Lortutako informazioa aztertu, antolatu eta buruz ikasteko trebetasunak garatzea, eta ikertzeko eta jakintzak eskuratzeko interesa sustatzea.
- Pentsamendu-trebetasunak garatzea: antolatzaile grafikoak eta mapa mentalak.
- Hainbat hizkuntza testual eta grafiko erabili eta irakurtzea.
- Ikasgelako lana garatzeko estrategiak: erantzukizuna eta ahalegin-gaitasuna.
- Hainbat metodo eta iturriren bidez lortutako informazioa antolatu eta azaltzeko estrategiak garatzea.
- Talde-lana eta lankidetzak-lana bultzatzeko estrategiak sustatzea.
- Ikasteko erantzukizuna, ahalegin-ahalmena eta jarraitutasuna garatzeko estrategiak.
- Gatazkak konpontzeko, elkarrizketa erabiltzeko eta bizikidetzak-arauak erabiltzeko trebetasunak.
- Bizikidetzak-egoeren eta bizikidetzak-gatazken simulazioak: gatazkaren aurretik, gatazkaren garaian eta gatazkaren ondoren: konpontzeko modu demokratikoak.
- Ingurunekeko elementu naturalen kontserbazioarekiko sentsibilitatea eta errespetua.
- Lan egiteko erabiltzen diren materialak behar bezala eta errespetuz erabiltzea.
- Herriko eta eskualdeko geografia fisikoaren elementu garrantzitsuak non dauden jakitea eta hainbat irudikapenen bidez interpretatzea (mapak, planoak, aireko argazkiak eta abar).
- Gizonek eta emakumeek historian subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea.
- Herriko eta eskualdeko ekosistemen eta paisaien aniztasuna eta bertako ondare naturala, historiko-artistikoa, linguistikoa eta kulturala ezagutu eta balioestea, eta horiek errespetatu eta kontserbatzeko konpromisoa hartzea.

#### **2. MULTZOA. Gure mundua eta haren kontserbazioa**

- Unibertsoa eta eguzki-sistema: eguzkia eta planetak.
- Lur planeta eta ilargia (haren satelitea). Ezaugarriak. Higidurak eta haien ondorioak. Urtaroak.
- Lurraren irudikapena. Orientazioa espazioan. Puntu kardinalak.
- Lur-globoak. Poloak, ardatza eta hemisferioak identifikatzea.
- Kartografia. Euskal Herriko eta Espainako planoak eta mapak. Eskalak.
- Lurreko puntuak: paraleloak eta meridianoak.



- Koordinatu geografikoak. Latitudea eta longitudea.
- Planisferioa: fisikoa eta politikoa.
- Atmosfera. Fenomeno atmosferikoak. Atmosferaren kutsadura saihesteko jardunak.
- Eguraldia. Neurketa eta iragarpena.
- Eguraldi-mapak. Espainako eta Euskal Herriko eguraldi-mapak. Sinbolo konbentzionalak.
- Klima eta klima-faktoreak.
- Planetako klima-eremu handiak.
- Euskal Herriko eta Espainiako klima motak, eta haien eragin-eremuak.
- Hidrosfera. Uren banaketa planetan. Ozeanoak, itsasoak eta kontinenteak. Uraren zikloa. Euskal Herriko eta Espainako ibaiak.
- Litosfera: ezaugarriak eta harri motak.
- Harriak eta mineralak: Propietateak, erabilerak eta erabilgarritasunak.
- Euskal Herriko eta Espainiako paisaien aniztasun geografikoa: erliebea eta hidrografia.
- Europako paisaien aniztasun geografikoa: erliebea, klimak eta hidrografia.
- Gizakiaren esku-hartzea herrian, eskualdean eta Euskal Herrian : urbanizazioa, industrializazioa, komunikazio-bideak, mineralen erauzketa eta abar.
- Garapen jasangarria.
- Kutsaduraren arazoak.
- Klima-aldaketa. Arrazoiak eta ondorioak.
- Kontsumo arduratsua
- Osasunean eragina duten faktore sozialak eta ekonomikoak.
- Gizarteko sektoreen esku-hartzeek osasunaren eta ongizatearen hobekuntzan duten eragina.

### 3. MULTZOA. Gizartean bizitzea

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatu espainiarreko gizarte-, politika- eta lurralde-antolamendua.
- Herritarren eskubideak eta betebeharrak.
- 1978ko Konstituzioa. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.
- Gobernu motak. Monarkia parlamentarioa.
- Lurralde-erakundeak eta gobernu-organoak.
- Euskal Herriko eta Espainiako kultura- eta hizkuntza-adierazpenak.
- Europar Batasuna: lurralde-antolamendua eta antolamendu politikoa.
- Biztanleria. Lurralde bateko biztanleria aldatzen duten faktoreak. Biztanleria absolutua eta biztanleria-dentsitatea.

- Biztanleriaren espazio-banaketa, hazkunde naturala eta hazkunde erreala. Irudikapen grafikoa.
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria: banaketa, bilakaera eta migrazio-mugimenduak: emigrazioa eta immigrazioa.
- Landa- eta hiri-inguruneen ezaugarri demografiko eta ekonomikoak.
- Europako biztanleria: banaketa eta bilakaera.
- Sektore ekonomikoak eta produkzio-jarduerak: baliabide naturalak, lehengaiak. Produktu landuak. Artisautza eta industria. Produkzio motak.
- Zerbitzu-sektorea.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako jarduera ekonomikoak eta produkzio-sektoreak.
- Ondasun eta zerbitzuen produkzioa. Kontsumoa eta publizitatea.
- Finantza-hezkuntza. Dirua. Aurrezpena. Aberastasunaren banaketa munduan, eta haren ondorioak.
- Enplegarritasuna eta ekintzaile-sena inguruko enpresetan. Jarduera eta funtzioak.
- Gizarte-tirabirak: familia barnekoak, lan-arlokoak, politikoak, ekonomikoak eta abar. Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzeko era demokratikoak.
- Bide-hezkuntza. Bide-arloko jarrera eta ohitura zuzenak finkatzen lagunduko duten jakintzak eskuratzea.

#### 4. MULTZOA. Denboraren arrastoa

- Denbora historikoa eta haren neurketa. Datazio- eta periodizazio-konbentzioak (K.a., K.o., data).
- Iturri historikoak eta haien sailkapena.
- Historiako aroak: aroak mugatzen dituzten gertaera historiko esanguratsuen iraupena eta datazioa. Denboraren lerroak.
- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Historiaurrean.
- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Antzinaroan.
- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Erdi Aroan . Penintsulako erresumak. Euskal lurraldeen elkartzeko eta konkista.
- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Aro Modernoan. Erresuma hispanikoa.
- Espainia eta Euskal Herria Aro Garaikidean (I): XIX. mendea.
- Espainia eta Euskal Herria Aro Garaikidean (I): XX. eta XXI. mendeak.
- Bilakaera historikoa euskal lurraldeetan.
- Euskal eta espainiar gizartearen bilakaera denboran: historiaurrekoa, antzinakoa, Erdi Arokoa, aurkikuntzen arokoa, industria-garapenekoak eta XX. mendeko mundukoak, gizon-emakumeen bizimodu, gertaera eta pertsonaia garrantzitsuak aztertzearen bitartez.

- Gure ondare historiko eta kulturala: Euskal Herriko eta Espainiako ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak.

#### 4.1.2.4. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

### 2. MULTZOA. Gure mundua eta haren kontserbazioa

- Herriko klimaren ezaugarriak
- Euskal Herriko eskualdeen sailkapena klima motaren arabera.
- Lautadako pasaia duen herri euskaldun baten eta mendiko pasaia duen herri euskaldun baten ezaugarriak konparatu eta haien klimogramak egin.
- Euskal hiri bateko paisaia humanizatua identifikatu.
- Euskal Herriko parke naturalak identifikatu.
- Ebroko lautada.
- Euskal mendikateak.
- Isurialde Kantauriarreko ibaiak eta isurialde mediterraneanarreko ibaiak.
- Herriko planoak eta eskualdeko mapan puntu jakinen identifikazioa.
- Lurraldeko hiriburuko planoan auzo nagusien eta leku enblematikoen identifikazioa.
- Euskal Herriko lurra azaleratzearen bilakaera.
- Zumaiaiko "Flysch" a.
- Euskal herriko komunikazio-bide nagusiak.
- Inguruko kutsadura arazoen identifikazioa.

### 3. MULTZOA. Gizartean bizitzea

- Herriak eta hiriak. Auzoak eta auzo motak.
- Ikaslearen herria eta eskualdea
- Eskualdeko herri nagusiak
- Lurraldeko hiriburuko auzo motak eta herri nagusiak
- Herriko biztanleriaren banaketa eta bilakaera
- Euskal Herriko eskualdeetako jarduera ekonomiko nagusien identifikazioa
- Herriko jarduera ekonomiko nagusien identifikazioa

### 4. MULTZOA. Denboraren arrastoa

- Euskal Herriko lehen biztanleak non eta nola bizi ziren.
- Historiaurreko labar-pinturak eta monumentu megalitikoak

- Antzinaroko euskal tribuak: akitaniarrak, baskoiak, barduliarrak, karistiarrak, autrigoiak.
- Erromanizazioa Euskal Herrian
- Erdi Aroan bisigodoak, frankoak eta arabiarrek Euskal Herrian
- Orreagako gudua
- Nafarroako erresuma
- Leinuen gerrak
- Aro Modernoko aurkikuntza geografikoak: Juan Sebastian Elkano, Legazpi, Urdaneta, Lope Agirre...
- Ternuarako bidaiak balearen atzetik
- Nafarroaren konkista.
- Euskal Foru Erregimena: ezaugarri nagusiak
- Aro modernoak euskal gizartean sortu zituen aldaketa nagusiak: artoa ekartzea, alturako arrantza, burdinolak, armagintza, untziolak, Caracasko Gipuzkoar Konpainia, euskal ilustrazioa, matxinadak...
- Frantziako iraultzak eragindako aldaketak euskal lurretan
- Gerra karlistak eta foruen indargabetzea
- Industrializazioa Ibaizabalko itsasadarrean
- Nazionalismoaren sorrera
- Euskal langileriaren bizimoldeak, aldarrikapenak eta erakundeak
- Emakumeen bizimoldeak, lan-baldintzak eta aldarrikapenak, eta eskubideen galera/irabazien bilakaera.
- Errepublika, Lehen Eusko Jaurlaritza eta Agirre Lehendakaria
- Gerra zibila Euskal herrian. Gernikako bonbardaketa. Erbesteratzeak: gerrako umeak
- Frankoren diktadura, errepresioa eta bigarren industrializazioa
- Trantsizioa eta lurralde-erakundetze berria
- Euskal museo nagusiak eta ikaslearen eskualdekoak

### 4.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 4.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

1. Aldez aurretik mugatutako gertaera edo fenomenoei buruzko informazio garrantzitsua eta zehatza lortzea, eta horretarako hainbat iturri erabiltzea, zuzenekoak zein zeharkakoak.
  - Egoera jakin batean, informazio zehatza eta garrantzitsua bilatu, hautatu eta antolatzen du, irakasleen laguntzarekin.

- Txosten bat egiten du eta emaitzak jakinarazten ditu hainbat euskarri erabilita: ahoz, idatziz, euskarri digitalean eta abar.
- 2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea Gizarte Zientziei buruzko informazioa lortzeko eta edukiak ikasi eta adierazteko.**
- Irakaslearen laguntzarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu arloari buruzko oinarrizko informazioa bilatu, aztertu eta antolatzeko.
  - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu (Internet, blogak, bideoak, aurkezpenak eta abar) lanak ikasgelan landutako gaietarako oinarrizko terminologiarekin landu, jakinarazi eta partekatzeko.
- 3. Erantzukizuna, ahaleginerako gaitasuna, ikasteko jarraitutasuna eta ikasteko prozesuari berari buruzko hausnarketa garatzea.**
- Agindutako zereginak gogo handiz, jarraitutasunez eta arduraz egiten ditu, eta lanak txukun, argi eta garbi aurkezten ditu.
  - Ahozko zein idatzizko produkzioetan, landutako gaietarako terminologia egokia zehaztasunez erabiltzen saiatzen da.
  - Ikasteko prozesuan dituen zailtasunak detektatzen ditu, eta gai da laguntza eskatzeko.
- 4. Informazio geografiko, historiko edo sozialak bilatu, hautatu eta antolatzea dakarten lan eta aurkezpen indibidualak eta taldekoak egitea.**
- Gizarte Zientzien oinarrizko kontzeptuak ulertzen ditu testu eta bestelako iturri geografiko, historiko eta sozialak bilatu, hautatu eta kontsultatzearen bidez.
  - Lortutako informazioa proposatutako gaiari buruzko lanak eta aurkezpenak bakarka edo taldean egiteko antolatzen du.
  - Arloarekin zerikusia duten eta landutako oinarrizko kontzeptuak ulertu direla erakusten duten edukiak argi eta txukun azaltzen ditu, ahoz eta idatziz.
- 5. Talde-lana balioestea, lankidetzeta eta parte-hartze arduratsuko jarrerak agertzea, eta elkarrizketa eta eztabaidetan gainerakoekoen ideia eta ekarpenekiko desadostasunak errespetuz eta tolerantziaz onartzea.**
- Talde-lanetan bere erantzukizun indibiduala onartzen eta bere gain hartzen du, eta gatazkak era baketsuan konpontzeko trebetasunak agertzen ditu.
  - Portaera konstruktiboa eta solidarioa agertzen du, taldeko erabakiak hartzean aktiboki parte hartzen du, eta iritzia eta ideiak asertibitatez adierazten ditu.
  - Iritzi, ekarpen eta ideia guztiak errespetatzen ditu.
- 6. Giza taldeen aniztasuna errespetatzea, eta talde guztien arteko bizikidetzeta baketsu eta toleranteak duen garrantzia balioestea, balio demokratikoak eta giza eskubideak aintzat hartuta.**
- Beste giza talde batzuen ohiturak eta bizimoduak ezagutzeko interesa eta haiek errespetatzeko jarrera agertzen du.
  - Pertsonen arteko bizikidetzeta baketsuaren garrantzia balioesten du, balio demokratikoetan eta giza eskubideetan oinarrituta eta jatorria, arraza, sexua eta abar edozein izanik ere.
  - Sentsibilitate-jarrerak agertzen ditu beste pertsona batzuen bazterkeria- eta diskriminazio-egoeren aurrean.

- Bizitza sozialean eraginkortasunez eta konstruktiboki parte hartzen du, eta gatazkak konpontzen laguntzen duten estrategiak aplikatzen ditu.
  - Bizikidetzaren hobetzeko elkarrizketa erabiltzen du, bere ideiak era konstruktiboan azaltzen ditu, eta ikaskideen ekarpenak errespetatzen ditu, guztion artean adostasuna lortzeko.
- 7. Sormena eta ekintzaile-sena lantzea, eta informazioa eta ideiak baliatzeko eta hainbat egoeratan ondorio berritzaileak aurkezteko gaitasunak eta konpetentziak handiagotzea.**
- Hainbat egoeratan aktibo izatera eta parte hartzera bultzatzen duten bere buruarenganako konfiantza, ekimen pertsonala, jakin-mina, interesa eta sormena agertzen ditu ikaskuntzan.
  - Ekintzak eta zereginak planifikatu eta egiteko autonomia du, eta gai da erabaki pertsonalak hartzeko.
- 8. Bakarka, taldean eta elkarlanean lan egitea, norberaren eta ikaskideen segurtasunaren zaintza kontuan hartzea, eta materialak behar bezala erabiltzea.**
- Elkarlanean parte hartzen du talde-lanean.
  - Norberaren eta ikaskideen segurtasuna eta eskolako material eta instalazioen erabilera egokia zaintzen laguntzen duten arauak eta portaerak bere gain hartu eta agertzen ditu.

## 2. MULTZOA. Gure mundua eta haren kontserbazioa

- 9. Eguzki-sistemako astroak, Lurraren eta Ilargiaren kokapena, translazio- eta biraketa-higidurak eta haien ondorioak identifikatzea.**
- Eguzki-sistema osatzen duten astro motak bereizten ditu.
  - Planetak eguzkiarekiko hurbiltasuna edo urruntasuna kontuan hartuta identifikatzen eta ordenatzen ditu, eta irudikapen grafiko batean izendatzen ditu.
  - Ilargiaren translazioa deskribatzen du, eta haren faseak ezagutzen eta grafikoki irudikatzen ditu.
  - Lurraren biraketa-higidura eta hark egunaren eta gauaren segidan dituen ondorioak identifikatu eta deskribatzen ditu.
  - Lurraren translazio-higidura identifikatu eta deskribatzen du, eta urtaroekin lotzen du.
- 10. Irudikapen grafiko batean Lurraren kanpoko geruzak identifikatzea.**
- Lurraren geruza nagusiak identifikatu eta izendatzen ditu.
  - Lurra grafikoki irudikatzen du, eta lurra, ura eta atmosfera bereizten ditu.
- 11. Puntu kardinalak identifikatzea eta ezagutzea, orientazio-ohiturak eta oinarrizko espazio-nozioak garatzea eta Lurra irudikatzeko moduak azaltzea.**
- Lur-globo, mapa eta planisferioetan puntu kardinalak, poloak, ekuatorea, ipar-hemisferioa eta hego-hemisferioa identifikatzea.
  - Eguzkiaren ibilbidea deskribatzen du eta orientatzeko oinarrizko estrategiak lantzen ditu.

- Iparrorratza eta GPSa lurraren gainazalean kokapena finkatzeko eta orientatzeko tresna gisa identifikatzen ditu.
- 12. Planoaren, maparen eta haiek biltzen dituzten elementuen oinarrizko ideia eskuratzea, orientatzeko duten garrantzia balioestea eta "kartografia" kontzeptua eta kartografiak adierazten duena azaltzea.**
- Kartografia zer den eta zer adierazten duen era sinplean azaltzea, eta jakintza zientifikorako funtsezko tresna gisa duen garrantzia balioestea.
  - Mapa eta plano sinpleak interpretatu eta lantzen ditu, eta haietan agertzen diren legendak eta zeinu konbentzionalak eta irudikatzen dituzten objektu errealeak identifikatzen ditu.
- 13. Atmosfera identifikatzea, haren ezaugarri nagusiak eta egitura azaltzea, eta Planetako bizitza babesteko betetzen duen funtsezko funtzioa balioestea.**
- Atmosfera definitzen du, eta haren ezaugarri nagusiak eta egitura identifikatu eta azaltzen ditu.
  - Atmosferak Lurra babesten duela ulertzen eta balioesten du, eta kutsadura atmosferiko mota nagusiei buruzko ikerketa sinple bat egiten du.
- 14. Klimaren eta eguraldiaren arteko desberdintasuna eta horiek neurtzeko erabiltzen diren tresnak azaltzea.**
- Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna zein den azaltzen du, eta haiei lotutako fenomenoak adierazten ditu.
  - Datu atmosferikoak biltzeko erabiltzen diren tresna meteorologiko batzuen irudia identifikatzen du, ematen duten informazioaren arabera sailkatzen ditu (plubiometroa, anemometroa, barometroa, haize-orratza eta abar) eta erabilerak jakin batekin lotzen ditu.
- 15. Urak naturan izaten dituen formak eta egoerak azaltzea, eta urak bizitzarako duen garrantziari buruzko gogoeta egitea.**
- Urak naturan izaten dituen egoerak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
  - Beroa eta hotza uraren egoera-aldaketan kausa gisa identifikatzen ditu, eta uraren egoera aldatzen duten egoera natural eta artifizialak deskribatzen ditu.
  - Urak paisaian duen eragina eta gizakiarentzat duen garrantzia azaltzen du era gidatuan, eta uraren erabilerak adierazten ditu.
  - Ura era egoki eta arduratsuan eta ingurumena errespetatuz kontsumitzeko beharra balioesten du.
- 16. Paisaia zer den azaltzea, paisaia osatzen duten elementu nagusiak identifikatzea eta paisaia babestu, zaindu eta errespetatzeak etorkizuneko belaunaldientzat duen garrantzia balioestea.**
- Paisaia definitzen du, ikasleak bizi diren herriko eta eskualdeko paisaiak identifikatzen ditu eta paisaia osatzen duten elementuak eta haren ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.
  - Paisaia mota desberdinak identifikatzen eta bereizten ditu, eta arrazoi naturalen zein gizakien ekintzaren ondorioz izaten dituzten aldaketak adierazten ditu.
  - Paisaiek dituzten arrisku eta mehatxu nagusiez jabetzen da, eta horiei aurrea hartzeko ekintzak egiten ditu.

**17. Euskal Herriko erliebearen eta sare hidrografikoaren elementu nagusiak identifikatzea eta mapa batean edo beste baliabide interaktibo batzuetan non dauden adieraztea.**

- Mapa batean, Euskal Herriko erliebearen elementu nagusiak non dauden adierazten du.
- Mapa batean, Euskal Herriko ibaiak non dauden adierazten du, eta haien garrantzia balioesten du.
- Ibai baten tarteak grafikoki irudikatzen ditu.

**18. Gizakiak eguneroko bizitzan naturako baliabideak erabiltzen dituela eta horretarako Euskal Herriko paisaia eta erliebea eraldatzen dituela eta bere premietara egokitzen dituela jakitea eta balioestea.**

- Paisaia ideal baten ezaugarri batzuk adierazten ditu, eta bere herrian, eskualdean edo Euskal Herrian giza ekintzak eraldatu duen paisaiaren ezaugarriekin alderatzen ditu.
- Herriko, eskualdeko eta Euskal Herriko paisaia osatzen duten elementu eraldatu nagusiak identifikatu eta deskribatzen ditu (erliebea, urak, klima, biztanle-taldekatzeak, komunikazio-bide nagusiak eta abar), eta gizakiak egindako eraldaketak balioesten ditu.
- Baliabide naturalen erabilera arrazionala kritikoki balioesten du, eta ingurumenaren kontserbazio eta berreskuratzearekiko sentsibilitatea agertzen du.

### **3. MULTZOA. Gizartean bizitzea**

**19. Udalerria deskribatzea, ingurune hurbileko (auzo, herri edo udalerriko) gizarte-antolamendua ulertzea, eta udalen oinarritzko egitura ezagutzea: udal-zerbitzuak, haien antolamendua eta osatzen dituzten pertsonen funtzioak.**

- Udalerria definitzen du eta bertako ohiturak, bizimodua eta gizarte-antolamendua deskribatzen ditu.
- Udalaren egitura, funtzioak eta betetzen dituen zereginak oinarritzko moduan ezagutzen eta deskribatzen ditu.
- Erakundeek herritarrentzat egiten dituzten funtzio eta zerbitzuak balioesten ditu.
- Auzoko eta herriko elementuak zaintzeko (denek erabiltzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten) jarrerak agertzen ditu.

**20. Inguruneko kultura-adierazpen herrikoiak eta eraikinik esanguratsuenak identifikatzea eta denboran izan duten bilakaera ezagutzea.**

- Herriko monumentu nagusiak ezagutzen eta deskribatzen ditu, eta horiekiko errespetu-jarrerak agertzen ditu.
- Herriko eraikin, artelan edo kultura-adierazpen esanguratsu batzuk ikertzen ditu, horretarako hainbat iturri kontsultatzen ditu, eta haien ezaugarri bereizgarriak eta denborak haietan eragindako aldaketak ikuspegi kritikoan oinarrituz ezagutzen ditu.

**21. Bere burua herriko, probintziako, autonomia-erkidegoko eta herrialdeko biztanletzat eta Europako herritartzat hartzea, eta lurralde-errealitate bakoitza lurralde mugakideak kontuan hartuta kokatzea.**



- Mapa eta grafikoen bidez, aldi berean espazio geografiko desberdin batzuetakoa dela irudikatzen du: herrikoa, eskualdekoa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko banaketa politiko-administratiboa deskribatzen du, eta zer autonomia-erkidegorekin egiten duen muga adierazten du.
- Europako mapa batean Espainia non dagoen zehazten du, eta Espainia zer herrialderekin egiten duen muga adierazten du.

**22. Kontzeptu demografiko nagusiak ulertzea: emigrazioa, immigrazioa eta horiek eragiten dituzten arrazoiak.**

- "Emigrazio" eta "immigrazio" kontzeptuak ulertzen ditu, eta horiek eragiten dituzten arrazoiak eta integrazteko era desberdinak aztertzen ditu.
- Bere erkidegoa osatzen duten pertsona guztien ohitura eta bizimoduekiko errespetua balioetsi eta agertzen du.

**23. Produktu naturalak eta landuak bereiztea, gizakiak haiek lortzeko egiten dituen jarduerak ezagutzea, eta jarduerak, ofizioak eta produktuak lotzea.**

- Hainbat produktu landuren jatorriari buruzko ikerketak egiten ditu, jatorrizko produktu naturaletik (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edo meatzaritzako produktutik) egindako urratsak aztertzen ditu, eta hainbat iturri erabiltzen ditu: Internet, liburuak, aldizkariak eta abar.
- Produktu naturalak lortzearekin lotutako lanbideak identifikatzen eta aipatzen ditu.
- Artisautza eta industria bereizten ditu, hainbat mota aipatzen ditu, eta biek lantzen dituzten produktuekin eta produzitzeko moduarekin lotzen ditu.

**24. Eguneroko bizitzako adibideetatik abiatuta pertsonen baliabide naturalei ematen dizkieten erabilera nagusietako batzuk identifikatzea, abantailak eta eragozpenak adieraztea eta ondasun edo zerbitzuren batek jatorritik kontsumitu edo erabili arte izan duen prozesua aztertzea.**

- Produkzio, manipulazio, banaketa eta salmentaren inguruko prozesuei lotutako ekintzak sailkatzen ditu, eta, horretarako, antolatzaile grafikoak erabiltzen ditu.
- Baliabide naturalak agor daitezkeela onartzen du, eta garapen jasagarria bermatzeko baliabide horiek zentzuz erabili behar direla balioesten du.

**25. Publizitatearen helburua produktu jakin bat erostera gonbidatzea dela jakitea, eta komunikabideak eta masa-komunikabideak ezagutzea.**

- Komunikabideak ezagutzen eta aipatzen ditu, eta komunikabideek iritzi eta kontsumo-ohituren sorreran duten eraginaz jabetzen da.
- Publizitate-iragarkiak begirada kritikoarekin aztertzen ditu, eta iragarki horietan estereotipo sexista posibleak identifikatzen ditu.
- Irudizko produktu baten publizitatea estereotipo sexista eta diskriminatzaile gabe egiteko iragarki bat lantzen du taldean, eta, horretarako, tresna digitalak edo bestelako tresnak erabiltzen ditu.

**26. Dirua kontsumo arduratsuaren bidez erabiltzeko aukera eta aurreztearen garrantzia ezagutzea eta balioestea.**

- Produktu beraren prezioak alderatzen ditu, eta merkeena eta garestiena identifikatzen ditu.
  - Diruaren erabilera arduratsua balioesten du, eta gastuak aurrekontu txiki batera moldatzen ditu.
- 27. Herrian edo Euskal Herrian zerbitzuen sektorean diharduen enpresaren bat identifikatzea, eta zer sektoretakoa den, zer produktu lantzen eta merkaturatzen duen, zer tamaina duen eta bertan zer pertsonak esku hartzen duten adieraztea.**
- Inguruneko zerbitzuen sektoreko lanbideak aipatzen ditu, eta dagokien sektorearekin eta egiten duten jarduerarekin lotzen ditu.
  - Produktu jakin bat manipulatu, banatu eta saltzeko prozesuak ikertzen ditu, haiei buruzko txosten txiki bat egiten du taldean, eta, horretarako, hainbat baliabide erabiltzen ditu: Internet, herriko langileei egindako elkarrizketak eta abar; halaber, dagokion sektorea, produktua, tamaina, erabilgarritasuna eta oinarrizko beste ezaugarri batzuk deskribatzen ditu.
- 28. Oinarrizko arauak betetzea oinez dabilen pertsona eta garraiobideen eta beste zerbitzu batzuen erabiltzaile den aldetik, eta zirkulazioaren gaineko kontzientzia-ohiturak hartzea.**
- Trafiko-seinalerik ohikoenak eta oinarrizko zirkulazio-arauak ezagutu eta errespetatzen ditu oinezko eta bizikletaren eta beste garraiobide batzuen erabiltzaile gisa, eta haiek ez betetzearen ondorioez jabetzen da.
  - Garraiobide publikoen erabilera balioesten eta errespetatzen du.

#### 4. MULTZOA. Denboraren arrastoa

- 29. Oinarrizko denbora-nozioak eta denbora-unitateak (iragana, oraina eta etorkizuna) erabiltzea, norberaren, familiaren eta herriaren historian aldaketak eragin dituzten gertaerak denboran kokatzea eta haien ezaugarriak garrantzitsuenak azaltzea.**
- Denbora historikoaren oinarrizko nozioak sailkatzen ditu: oraina-iragana-etorkizuna, aurreko-ondorengo, iraupena eta aldiberekotasuna (aurretik, ondoren, aldi berean, bitartean eta abar).
  - "Orain", "iragan" eta "etorkizun" kontzeptuak ulertzen dituela erakusten du, eta ahoz zein idatziz erabiltzen ditu.
  - "Historiaren adinaren" ideia identifikatzen du, eta Historiako aroei data jartzen die eta hasiera eta amaiera ematen dieten gertaerekin lotzen ditu.
  - Bizi den herriko edota bere historia pertsonaleko edo familiaren historiako irudiak edo beste elementu batzuk kronologikoki deskribatzen eta antolatzen ditu, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu.
- 30. Denbora historikoa neurtzeko unitateak identifikatzea (urtea, hamarkada, mendea eta milurtekoa), gertaera historikoak denboran kokatzen eta antolatzen hasteko.**
- Denbora neurtzeko unitateak ezagutzen eta behar bezala erabiltzen ditu: eguna, astea, hilabetea, urtea, hamarkada, mendea.
  - Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko iturriak erabiltzen ditu denboraren lerro baten bitartez norberaren eta familiaren historia hurbila eta herriko historia berregiteko.

**31. Herri batean denboran gertatzen diren aldaketa sinpleak identifikatzea eta aldaketa horiek elikaduraren, jantzien, teknologiaren, arkitekturaren eta merkataritzaren bilakaerarekin lotzea.**

- Jakin badaki aztarna arkeologiko, usadio, ohitura, jarduera eta tresna jakin batzuk garai historiko jakin bateko gizartearen berezko bizimoduaren adierazleak direla.
- Herriko eta Euskal Herriko historiaren hainbat alditan elikaduran, jantzetan, tresnetan, arkitekturaren eta merkataritzan izandako aldaketen bilakaera alderatzen eta kontrastatzen du.

**32. Euskal Herriko museoek eta leku eta monumentu historikoek irakasteko eta ikasteko gune gisa duten garrantzia balioestea, bertako ingurunea eta kultura errespetatzeko jarrera agertzea eta kultura-herentzia aintzat hartzea.**

- Museoen eta monumentuen edota balio historiko, artistiko edo kulturaleko beste eraikin batzuen garrantzia balioesten du, eta horietarako bisitaldietan errespetu-jarrera agertzen du.
- Tokiko, Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako kultura-herentzia ezagutu, babestu eta zaindu beharreko aberastasun partekatu gisa estimatzen du.

**33. Gertaera historiko garrantzitsuekin lotuta dagoen eguneroko bizitzako alderdiren baten bilakaera azaltzea eta iraupenaren, segidaren eta aldiberekotasunaren nozioak identifikatzea.**

- Norberaren, familiaren eta herriaren historiatik abiatuta, hainbat teknika erabiltzen ditu iraganeko gertaerak denboran eta espazioan kokatzeko, eta iraupena, aldiberekotasuna eta gertaeren arteko loturak hautematen ditu.
- Ikaslearen eta haren familiaren bizitzako gertaerei eta gertakari historiko esanguratsu batzuei lotutako lekuak aurkitzen ditu mapetan.
- Herrian plazak, kaleak, monumentuak eta abar dituzten pertsonen alderdi biografiko esanguratsu batzuk ezagutzen ditu, kronologikoki kokatzen ditu, eta pertsona horiei ospea eman zieten gertaerak deskribatzen ditu.
- Herrian ekarpen esanguratsuak egin arren, plaza, kale eta monumentuetan aipamenik egin gabeko pertsonen biografiak ikertzen ditu.
- Gure arbasoen ohiturak eta bizimoduak eta herriko eta Euskal Herriko kultura-ondarea balioesten ditu, eta haiekiko errespetua agertzen du.

#### 4.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

##### 1. MULTZOA: Eduki komunak

**1. Banaka eta taldean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, testu sozial, geografiko edo historikoak bilatu, aukeratu eta antolatzea dakarten lanak eta aurkezpenak egitea, eta talde baten barruan bakarka zein elkarlanean lan egiteko trebetasuna erakustea.**

- Arloarekin zerikusia duten eta ahozko eta/edo idatzizko testu errazak ulertu direla erakusten duten edukiak argi eta txukun azaltzen ditu ahoz.
- Testu geografiko, sozial eta historikoak bilatu, hautatu eta antolatzea dakarten hainbat iturritatik (zuzenekoak, liburuak, komunikabideak, Internet eta abar) ateratako datuak planifikatu, jaso eta hautatzen ditu, banaka eta taldean.

- Helburu jakin batekin jasotako informazioak antolatzen eta aztertzen ditu (laburpenak, inkestak, izaera geografiko eta historikokoak...), eta lortutako ondorioak metodorik egokienarekin (grafiko baten bidez, ahoz, idatziz, IKTak erabiliz eta abar), erarik komenigarrienean (horma-irudia, laburpena, koadroa...), ahal bezain laster eta paper euskarrian edo euskarri digitalean jakinarazten ditu.
- 2. Erantzukizuna, ahaleginerako gaitasuna, ikasteko jarraitutasuna eta ikasteko prozesuari berari buruzko hausnarketa garatzea.**
- Arloarekin zerikusia duten eta ahozko eta/edo idatzizko testuak ulertu direla erakusten duten edukiak argi eta txukun azaltzen ditu ahoz.
  - Agindutako zereginak zorrottasun eta ahalegin handiz egiten ditu, eta lanak txukun, argi eta garbi aurkezten ditu, paper-euskarrian eta/edo euskarri digitalean.
  - Eskuratutako hiztegia zorrotz eta zehatz erabiltzen du lanak aztertutako gaietarako terminologia egokiarekin egiteko, jarraibide jakin batzuei jarraitzen die, eta ikasteko prozesuari buruzko hausnarketa egiten du ondoren.
- 3. Giza taldeak askotarikoak direla onartzea eta errespetatzea, lankidetzaren eta parte-hartze arduratsua lantzea, eta elkarrizketetan eta eztabaidetan, gainerako pertsonen ideiak eta ekarpenak desberdinak direnean, errespetuz eta tolerantziaz onartzea haiek, balio demokratikoak eta guztiok onartutako giza eskubideak oinarri hartuta.**
- Bakarka eta taldean lanak egiteko estrategiak erabiltzen ditu, ikasgelan gatazkak era baketsuan konpontzeko trebetasunak agertzen ditu, taldeari bere oharrak eta ondorioak azaltzen dizkio ahoz zein idatziz, eta besteen ekarpenak onartzen ditu.
  - Taldeko jardueretan parte hartzen duenean portaera arduratsua, konstruktiboa eta solidarioa agertzen du, eta funtzionamendu demokratikoaren oinarriko printzipioak errespetatzen ditu.
  - Giza taldeen arteko bizikidetzaren baketsuaren garrantzia balioesten du (ikasgelan, ikastetxean, familian), balio demokratikoak eta guztiok onartutako giza eskubideak oinarri hartuta.
  - Berarekin bizi diren giza taldeekiko errespetu-jarrerak agertzen ditu (eskolan, auzoan, udalerrian eta abar).
- 4. Gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta modu konstruktiboan parte hartzea, eta lankidetzaren eta elkarrizketetan gatazkarik ez gertatzeko eta gatazkak konpontzeko bidea direla jakitea, balio demokratikoak errespetatuz.**
- Eraginkortasunez eta modu konstruktiboan parte hartzen du familia- eta eskola-bizitzan, eta gatazkak konpontzeko estrategiak garatzen ditu.
  - Gizartean eta hainbat inguruetan (eskolan, familian, auzoan eta abar) onartu ohi diren jokabide-kodeak eta usadioak egokienak eta erabilgarrienak era kritikoa identifikatzen eta erabiltzen ditu.
  - Gatazka-desberdintasunak onartzeko mekanismo demokratikotzat hartzen du, bizikidetzaren hobetzeko aldaketa-faktore gisa erabiltzen du, eta elkarrizketa erabiltzen du taldeko erabakiak hartu behar diren egoeretan.
  - Egoera eta gatazken simulazioak egiten ditu ikastetxean, soluzio-bide posibleak aztertzen ditu, eta ikasitakoa hurbileko ingurunean bizi dituen gatazka errealak era positiboan konpontzeko erabiltzen du.

- 5. Sormenez eta ekintzaile-senaz jardutea, eta informazioa eta ideiak hobeto baliatzeko eta ondorio berritzaileak aurkezteko erabiltzea.**
- Ikasgelako, familiako eta ikastetxeko zirkunstantzien aurrean aktibo izatera bultzatzen duten eta konfiantza pertsonala, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa, sormena eta ekintzaile-sena agerian uzten duten jarrerak agertzen ditu.
  - Autonomia agertzen du ekintzak eta zereginak planifikatu eta egikaritzean, eta ekimenez jokatzen du erabakiak hartzean.
- 6. Planoak eta mapak egitea, interpretatzea eta erabiltzea, konbentziozko ikurrak eta eskala grafikoa kontuan izanda.**
- Irudikapenen erabileraren helburua deskribatzen du.
  - Jakintza matematikoak egokiro erabiltzen ditu, eta espazioaren irudikapen grafikoak egiten eta interpretatzen ditu.
  - Irudikapen espazialeatik (argazkia, planoak, mapa eta abar) informazioa ateratzen du, xehetasunen interpretaziotik abiatuta.
  - Taldeari plano eta mapen inguruko oharra eta interpretazioak ahoz eta idatziz azaltzen ditu argi eta garbi, eta, horretarako, kasu bakoitzean egokiena den estrategia eta tresna teknologikoa erabiltzen du.

## **2. MULTZOA: Gure mundua eta haren kontserbazioa**

- 7. Unibertsoa zer den eta nola sortu zen azaltzea, Lurra eta Ilargia eguzki-sisteman non kokatuta dauden adieraztea, eta haien ezaugarriak, higidura eta ondorioak azaltzea.**
- Unibertsoa zer den eta nola sortu zen deskribatzen du, haren osagai nagusiak azaltzen ditu, eta galaxia, izarra, planeta, satelitea, asteroidea eta kometa identifikatzen ditu.
  - Lurraren translazio-higidura, biraketa-ardatza eta polo geografikoak definitzen eta irudikatzen ditu, eta urtaroak haien guztien efektu konbinatuarekin lotzen ditu.
  - Eguna eta gaua lurraren errotazioaren ondorio gisa eta denbora neurtzeko unitate gisa lotzen eta azaltzen ditu, eta hainbat iturri, baliabide eta euskarri informatiko erabiltzen ditu egindako lanaren berri emateko.
  - Eguzki-sistemaren ezaugarriak, osagaiak eta higidurak deskribatzen ditu, eguzkia eguzki-sistemaren erdian identifikatzen du, eta planetak hurbiltasunaren arabera ezagutzen ditu.
  - Hainbat iturri, baliabide eta euskarri erabiltzen ditu egindako lanaren berri emateko.
- 8. Lurra irudikatzeko moduak alderatzea, erkatzea, aztertzea eta azaltzea.**
- Lurraren irudikapen motak alderatzen, erkatzen, aztertzen eta azaltzen ditu: planoak, mapak, planisferioak, sateliteen irudiak, mapa topografikoak eta lur-globoak.
  - Lurraren gainazala irudikatzeko dauden moduen arteko desberdintasunak ezartzen ditu.
- 9. Planoak eta mapak zuzen interpretatzea, eta eskalak, konbentziozko ikurrak eta hizkuntza ikonikoa eta sinbolikoa egoki interpretatzea eta erabiltzea.**

- Mapa motak identifikatzen eta sailkatzen ditu (planisferioak barne), mapa bateko eskala zer den zehazten du, eta mapan ager daitezkeen ikur konbentzionalak erabiltzen eta interpretatzen ditu.
  - Badaki ozeanoak, itsasoak, kontinenteak eta klima-eremu handiak munduko mapan, hainbat eskalatan eta lur-globoan kokatzen.
  - Paraleloak, meridioak eta koordenatu geografikoak identifikatzen eta erabiltzen ditu.
- 10. Fenomeno meteorologikoak atmosferan gertatzen direla jakitea, eta atmosfera babestearen garrantzia eta atmosfera ez zaintzearen ondorioak ezagutzea.**
- Fenomeno atmosferikoak identifikatzen ditu, haien izena esaten du, eta hodeiak eta prezipitazioak eragiten dituzten kausak deskribatzen ditu.
  - Atmosfera, baliabide naturalak eta energia zaintzearen garrantzia eta ez zaintzearen ondorioak arrazoitzen eta azaltzen ditu.
- 11. Klima zer elementuk eragiten duten jakitea, klima eta eguraldia bereiztea, eta Euskal Herriko eta Espainiako eguraldiaren mapak interpretatzea.**
- Klima definitzen du, klimaren elementuen izena esaten du, eta klima eragiten duten faktoreak identifikatzen ditu.
  - Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna zein den azaltzen du.
  - Datu atmosferikoak biltzeko erabiltzen diren neurketa-aparatuak identifikatzen ditu, eta ematen duten informazioaren arabera sailkatzen ditu.
  - Euskal Herriko eta Espainiako mapa meteorologiko sinpleak interpretatzen ditu, eta haien elementu nagusiak bereizten ditu.
- 12. Litosfera zer den jakitea, zenbait harri mota eta haien osaera ezagutzea, eta mineral batzuk eta haien propietateetako batzuk bereiztea.**
- Harrien osaera behatu, identifikatu eta azaltzen du, eta harri mota batzuen izena esaten du.
  - Harrien eta mineralen arteko desberdintasunak identifikatzen eta azaltzen ditu, haien erabilerak eta erabilgarritasunak deskribatzen ditu, eta mineral batzuk propietateen arabera sailkatzen ditu.
- 13. Munduko eremu klimatikoak eta Euskal Herriko eta Espainiako klimak ezagutzea, eta haien oinarritzko ezaugarri batzuk adieraztea eta aztertzea.**
- Eremu klimatiko bat zer den azaltzen du, planetako hiru eremu klimatikoen izena esaten du, eta haien ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.
  - Mapa batean Euskal Herriko eta Espainiako klima motak eta bakoitzak eraginpean hartzen dituen eremuak deskribatzen eta adierazten ditu, Espainiako hainbat lurraldetako klimogramak interpretatzen eta aztertzen ditu, eta dagokien klimarekin lotzen ditu.
- 14. Hidrosfera zer den azaltzea, ur-masak eta ur-ibilbideak identifikatzea eta haien izena jakitea, azaleko urak eta lurpeko urak bereiztea, Euskal Herriko, Espainiako eta Europako arro eta isurialde hidrografikoak ezagutzea, uraren zikloa deskribatzea, eta arduraz kontsumitu behar dela jakitea.**

- Hidrosfera definitzen du, ur-masak eta ur-ibilbideak identifikatzen eta adierazten ditu, eta lur azpiko urak nola sortzen diren, nola azaleratzen diren eta horietara nola irits daitekeen azaltzen du.
- Uraren zikloaren faseak ordenan deskribatzen ditu.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako arro eta isurialde hidrografikoak bereizten ditu mapa batean.
- Ibai bateko tartekak eta bakoitzaren ezaugarriak identifikatzen eta adierazten ditu.

**15. Lurra irudikatzeko dauden moduak alderatzea, erkatzea, aztertzea eta azaltzea, Euskal Herriko eta Espainiako erliebearen ezaugarriak eta sare hidrografikoak deskribatzea, haiek mapa batean edo bestelako baliabide interaktiboren batean kokatzea eta adieraztea, eta gizakiaren jarduera batzuek ingurumenean duten eragina azaltzea.**

- Lurraren irudikapen motak alderatzen, erkatzen, aztertzen eta azaltzen ditu: planoak, mapak, planisferioak, bideoak, sateliteen irudiak, mapa topografikoak eta lur-globoak.
- Euskal Herriko eta Espainiako erliebe-unitate nagusiak eta isurialde hidrografikoak non dauden adierazten eta azaltzen du mapa batean.
- Espainiako itsasoak, ozeanoak, ibai handiak, haien ibaiadarrak eta Euskal Herriko ibaiak non dauden adierazten du mapa batean.

**16. Europako erliebe-unitate nagusiak, Europako klimak eta sare hidrografikoa adieraztea, eta mapa batean kokatzea.**

- Europako erliebe-unitate nagusiak, kostaldeko erliebea, isurialde hidrografikoak eta klimak kokatzen ditu mapa batean, eta ezaugarriak azaltzen ditu.
- Europako klimak sailkatzen ditu, eta Europako klimei lotutako landaredia deskribatzen du.
- Europako eta Espainiako ibaien ezaugarriak deskribatzen ditu, eta haien arteko alderaketa egiten du.

**17. Gizakiak natura-ingurunean duen portaeraren eragina azaltzea, baliabide naturalak irauteko moduan erabili behar direla adieraztea, eta gizarteek lurralde-garapen jasangarria bultzatzeko ezinbestekoan bete behar dituzten neurri batzuk proposatzea eta haien eragin onuragarria azaltzea.**

- Baliabide naturalen erabilera jasangarria eta kontsumo ez-jasangarria bereizten ditu, eta gizakiaren ekintzak ingurune naturalaren kontserbazioan eta eraldaketan duen eragina deskribatzen eta aztertzen du.
- Deforestazioa, gehiegizko ustiapena eta kutsadura bereizten ditu, ingurune naturala narriatzen duten giza ekintza gisa identifikatzen ditu, eta ingurune naturala kontserbatu eta babesteko eta hondamendi naturalak prebenitu eta txikiagotzeko neurriak proposatzen eta hartzen ditu.
- Euskal Herriko espazio babestu nagusiak eta Espainiako parke nazionalak kokatzen ditu mapa batean.
- Etxeko hondakin motak bereizten ditu, badaki non utzi behar diren,
- zaborra birziklatzeko dauden edukiontzi motak identifikatzen ditu, eta materialen birziklatzea eta berrerabilera balioesten ditu.

### 3. MULTZOA: Gizartean bizitzea

#### 18. Konstituzioak Estatu espainiarraren funtzionamendurako duen garrantzia azaltzea, eta Konstituzioan zer eskubide, betebeharrak eta askatasun jasotzen diren adieraztea.

- Konstituzioan ezarritako printzipio demokratikorik garrantzitsuenak identifikatzen, errespetatzen eta balioesten ditu, eta Konstituzioak Estatu espainolaren funtzionamendurako duen garrantzia azaltzen du.
- Taldeen bizikidetzara-arauek identifikatzen eta errespetatzen ditu, eta pertsonen oinarrizko eskubide eta betebeharrak errespetatzen ditu.

#### 19. Estatu espainiarreko lurralde-antolamendua eta erakunde politikoak deskribatzea eta udaleko, probintziako eta autonomia-erkidegoko administrazioak eta haien administrazio-eskumenak bereiztea.

- Espainiako lurralde-antolamendua azaltzen du, oinarrizko gobernu-egituren izena esaten du, eta Espainia osatzen duten erkidegoak, hiri autonomoak, probintziak eta lurralde historikoak kokatzen ditu mapa politikoetan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatu espainiarreko erakunde nagusiak identifikatzen ditu eta haien funtzioak eta antolamendua deskribatzen du.
- Administrazioen arteko erlazio hierarkikoa deskribatzen du: udalerrria, lurralde historikoak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatuak...

#### 20. Estatu espainiarreko kultura-, gizarte-, politika- eta hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzea, lurralde eta erkidego bakoitzeko desberdintasunak errespetatzea, eta Euskal Herriko kultura-adierazpen herrikoiak identifikatzea.

- Estatu espainiarreko errealitatek abiatuta, lurralde bateko eta, bereziki, Euskal Herriko kultura-, gizarte-, politika- eta hizkuntza-aniztasuna kultura-berastetasunaren iturri gisa balioesten du.
- Estatu espainiara osatzen duten autonomia-erkidegoetako kultura-, gizarte-, politika- eta hizkuntza-ezaugarriak bereizgarrienak ezagutzeko interesa agertzen du.

#### 21. Europar Batasunak zer egitura eta helburu dituen jakitea, eta EBko kide izateak dakartzan abantaila batzuk adieraztea.

- Europar Batasuna zer den eta haren helburu politikoak eta ekonomikoak zein diren azaltzen du, eta herrialde kideak eta bertako hiriburuak kokatzen ditu mapa batean.
- Europar Batasuneko erakunde nagusiak eta gobernu-organak identifikatzen ditu, sinboloak ezagutzen ditu, eta merkatu bakarra eta eurogunea zertan dautzan azaltzen du.

#### 22. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriaren ezaugarri nagusiak ezagutzea eta ezaugarri horiek faktore geografiko, sozial, ekonomiko edo kulturalekin duten lotura jakitea, biztanleriaren bilakaera eta banaketa azaltzea, eta horiek grafikoki adieraztea biztanleria-piramideen, barra-grafikoen eta grafiko zirkularren bidez.

- Demografia definitzen du, kontzeptu demografiko nagusiak ulertzen ditu, eta biztanleriari buruzko datuetan oinarrituta kalkulatuak ditu: jaiotza-tasa, heriotza-tasa, emigrazioa eta immigrazioa.
- Biztanleria-piramide bat eta biztanleria aztertzeko erabilgarriak beste grafiko batzuk interpretatzen eta lantzen ditu.



**23. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriaren ezaugarri nagusiak (biztanleria aktiboa, ez-aktiboa, biztanleria-dentsitatea...) deskribatzea eta alderatzea.**

- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriak izan duen bilakaeraren prozesua azaltzen du, eta zenbait faktorek (hala nola bizi-itxaropenak edo jaiotzasak) bilakaera horretan izan duten eragina deskribatzen du.
- Espainiako eta Europako biztanleriaren banaketa baldintzatzen duten faktoreak deskribatzen ditu.
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanlegunerik handienak eta biztanleria-dentsitatearik handieneko eremuak kokatzen ditu mapa batean.

**24. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriek sektore ekonomiko bakoitzean duten banaketa aztertzea eta alderatzea, eta haien arteko antzekotasunak eta aldeak azaltzea.**

- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriak sektore ekonomikoen arabera duen banaketari buruzko grafiko motak aztertzen eta interpretatzen ditu.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako sektore ekonomiko bakoitzean biztanleria nola banatuta dagoen eta sexuen arabera lan-baldintzak nola bereizten diren azaltzen du.

**25. Euskal Herriko eta Espainiako migrazio-mugimenduak eta haien ondorioak azaltzea.**

- Landa-exodoa, Europarako emigrazioa eta Euskal Herrira eta Estatura iritsi diren etorkinen etorrera azaltzen ditu.
- Biztanleriaren egungo arazo nagusiak identifikatzen eta deskribatzen ditu: gainpopulazioa, zahartzea, immigrazioa eta abar.

**26. Lehengaien eta produktu landuen arteko aldeak azaltzea, eta azken horiek lortzeko egiten diren jarduerak deskribatzea.**

- Lehengaiak eta produktu landuak identifikatzen eta definitzen ditu, eta lortzeko egiten diren jarduerekin lotzen ditu.
- Produktu bat lortzeko prozesua saltzen den arte deskribatzen du ordenan, eta produktuari dagokion sektorea identifikatzen du.

**27. Sektore ekonomikoen jarduerak ezagutzea, sektoreen ezaugarriak deskribatzea, eta Euskal Herriko, Espainiako eta Europako jarduera ekonomiko nagusiak ezagutzea.**

- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako lehen, bigarren eta hirugarren sektoreen jarduerarik garrantzitsuenak azaltzen ditu.
- Espainiako jarduera ekonomiko nagusiak azaltzen ditu, produkzio-sektoreak eta ingurune naturalaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- Europako industria nagusiak eta fabrikatzen dituzten produktuak identifikatzen ditu, eta zein herrialdetan kokatuta dauden zehazten du.

**28. Publizitatearen funtzionamendua eta teknikak deskribatzea, eta publizitate hezitzailea eta publizitate kontsumista bereiztea.**

- Publizitatearen funtzioa espiritu kritikoarekin balioesten du, publizitate-teknikarik ohikoenak azaltzen ditu, adibide zehatzak aztertzen ditu eta estereotipo sexistak posibleak identifikatzen ditu adibide horietan.

- Publizitate-irudien edo publizitate-iragarkien inguruko iruzkinak egiten ditu, eta badaki zer alde dagoen produktuen errealitatearen eta horiek iragartzeko moduaren artean.
- Irudizko produktu baten publizitatea egiteko iragarki bat lantzen du taldean, eta, horretarako, estereotipo sexistak eta diskriminatzaileak saihesten ditu eta tresna digitalak edo beste mota batekoak erabiltzen ditu.

**29. Diruaren balioa eta erabilerak ezagutzea, aurreztu eta arduraz kontsumitu behar dela jakitea, eta nahitaez egin beharreko gastu finakoak eta premiazko ez direnak bereiztea.**

- Gastu motak bereizten ditu, eta bere aurrekontua gastu mota bakoitzera egokitzen du.
- Etorkizuneko gastuetarako aurrezpena planifikatzen du, eta, horretarako, aurrekontu pertsonal txiki bat egiten du, diru-kopuru batekin eta proposatutako fikziozko hainbat gasturekin.
- Erosteke dauden estrategiak ikertzen ditu, prezioak alderatzen ditu eta informazioa biltzen du.

**30. Ekintzaile-sena izateak zer onura dakartzan jakitea.**

- Inguruko lantegien martxan pertsona ekintzaileek duten eragina balioesten du.
- Ekintzailetza-ereduak proposatzen ditu, eta, horretarako, gizarte-premia hurbilak hartzen ditu erreferentzia gisa.

**31. Enpresen funtsezko ezaugarriak azaltzea, enpresek izan ditzaketen jarduerak eta antolaketa moduak zehaztea, eta enpresa motak bereiztea.**

- Enpresa motak identifikatzen ditu, tamainaren eta egiten dituzten jardueren dagokien sektore ekonomikoaren arabera.
- Enpresak antolatzeko hainbat modu deskribatzen ditu.

**32. Zirkulazio-arauak jakitea eta betetzea, eta bide-segurtasunaren alderdi guztiak sustatzea.**

- Oinarrizko zirkulazio-arauak eta horiek ez ezagutzearen edo ez betetzearen ondorioak azaltzen ditu.
- Trafiko-seinale batzuen esanahia ezagutzen du, badaki zein garrantzitsua den horiek errespetatzea, eta oinezko nahiz garraiobideen erabiltzaile gisa erabiltzen ditu (gerrikoa lotzea, gidaria ez molestatzea, eta beste batzuk).

**4. MULTZOA: Denboraren arrastoa**

**33. Aro historikoen ezaugarri nagusiak eta historiaren bidea aldatzea ekarri duten zenbait gertaera azaltzea, eta iturri historikoak erabiltzea eduki historikoa duten laburpenak eta txostenak egiteko, ondorioak ateratzeko eta bestelako lanak egiteko.**

- "Historiaurre" eta "historia" kontzeptuak definitzen eta erlazionatzen ditu, historiako aroaren ideia ezagutzen du, historiako aroei data jartzen die haien hasiera eta amaiera eragin zuten gertaerei lotuta, eta aro bakoitzari lotutako iturri bereizgarri batzuk aipatzen ditu.
- Idazketak, nekazaritzak eta abeltzaintzak Historian gizarteak sakonean aldatu zituzten aurkikuntza gisa duten garrantzia azaltzen eta balioesten du.

**34. Segidaren, iraupenaren eta aldiberekotasunaren nozioak erabiltzea zenbait gertaera historiko eta beste gertaera garrantzitsu batzuk denboran antolatzeko.**

- Badaki mendea denbora historikoa neurtzeko unitate bat dela, eta gertaera batzuk K.a. eta K.o. kokatzen ditu.
- Iraganeko gertaerak denboran eta espazioan kokatzeko hainbat teknika erabiltzen ditu, eta, grafikoen eta/edo eskemen bidez, iraupena, aldiberekotasuna eta gertaeren arteko erlazioak hautematen ditu.
- Etapa historiko bakoitzeko gertaerarik esanguratsuenen friso historikoa egiten du.

**35. Denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea Euskal Herriko eta Espainiako historiako prozesu eta gertaera historiko nagusiak, haien bilakaeraren ikuspegi orokorra izateko.**

- Euskal Herriko eta Espainiako historiako aroek (Historiaurreak, Antzinaroak, Erdi Aroak, Aro Modernoak eta Aro Garaikideak) izan dituzten etapa historikorik garrantzitsuenak denboraren lerro batean kokatzen ditu.
- Espainiako historiako funtsezko gertaerak identifikatzen eta denboran eta espazioan kokatzen ditu, eta gertaera bakoitzaren ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu, ahoz eta/edo idatziz.
- Aztertutako garai historikoetan Euskal Herriak eta Espainiak zuten bizimoduari eta gizarte-antolamenduari lotutako alderdiak aztertzen, alderatzen eta azaltzen ditu.
- Euskal Herriko eta Espainiako historiako etapetan (Historiaurrean, Antzinaroan, Erdi Aroan, Aro Modernoan eta Aro Garaikidean) izan ziren arte- eta kultura-mugimendu nagusiak deskribatzen ditu ordena kronologikoan, etapa horietako ordezkariak esanguratsuenak aipatzen ditu, eta denboran eta egoera jakin batean kokatzen ditu.
- Espainiako egungo gizartearen ezaugarri bereizgarriak deskribatzen ditu emandako testu baten bidez, eta haren izaera demokratikoa eta plurala eta Europar Batasuneko izatea balioesten du.

**36. Jakin-mina izatea iraganean gizakia nola bizi zen jakiteko, Euskal Herriko eta Espainiako aztarna arkeologikoek historia ezagutu eta aztertzeko duten garrantzia aintzat hartzea, eta horiek guztiak zaindu beharreko eta pertsona orori helarazi beharreko kultura-ondareak direnaren jakitun izatea.**

- Euskal Herriko ondare naturala, historikoa, kulturala eta artistikoa identifikatzen, balioesten eta errespetatzen du, eta ondare hori gorde eta hobetzeak dakartzan erantzukizunak bere gain hartzen ditu.
- Aztarna historikoak errespetatzen ditu, besteei helarazi beharreko ondare gisa balioesten ditu, eta badaki ondare arkeologiko monumentalak nolako balioa duen iraganaren berri izateko.
- Bere inguruneako aztarna historiko eta arkeologikoak ezagutzeko interesa agertzen du, eta dagokien garai historikoarekin lotzen ditu.

**37. Euskal Herriko eta Espainiako gizarteek iraganean (Historiaurrean, Erdi Aroan, aurkikuntzen garaian, industria-garapenaren garaian eta XX. mendean) izan duten bizimoduaren ezaugarri nagusiak ezagutzea eta gertaera garrantzitsuak denbora-lerroetan kokatzea.**

- Euskal Herriko eta Espainiako gizartearen eguneroko bizitzako elementuek (etxebizitzak, arropak, familia-antolamenduak, gizarte-antolamenduak, lan

motek...) historian izan duten bilakaeraren adibideak ematen ditu: gizarte primitiboak, Antzinaro klasikoa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea.

- Euskal Herriko eta Espainiako iraganeko tradizioak, narrazioak, istorioak, sinesmenak, esaerak eta bizimoduak aurkitzen ditu Interneten.
- Euskal Herriko eta Espainiako iraganeko eta egungo ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak ezagutzen eta errespetatzen ditu, eta haiekiko interesa agertzen du.

**38. Euskal Herriko eta Espainiako museoek eta leku eta monumentu historikoek zer garrantzi duten jakitea, irakasteko eta ikasteko espazioak diren aldetik, ingurumena eta kultura errespetatzea eta kultura-ondarea balioestea.**

- Tokian tokiko, autonomia-erkidegoetako eta Europako kultura-herentzia ezagutu beharreko eta etorkizuneko belaunaldientzat babestu eta zaindu beharreko aberastasun partekatu gisa estimatzen du.
- Balio historiko, artistiko edo kulturala duen museo edo eraikin bat bisitatzen denean agertu beharreko portaera errespetatzen eta bere gain hartzen du.

## 4.2.- BALIO SOZIAL ETA ZIBIKOAK

### 4.2.1.- ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira Balio Sozial eta Zibikoak arloko etapako helburuak:

1. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutu eta finkatzea bere pribatutasun-espazioan, besteen nortasuna errespetatzea eta autoestimua garatzea, nork bere bizitza eta talde-bizitza baikortasunez bizitzeko.
2. Nork bere balio-sistema eratzea, oinarri-oinarrizkoa bada ere, bizitza-proiektua hartan oinarritzeko. Horretarako, arrazionaltasuna, autorregulazio emozionala eta enpatia erabiliko dira, egoerei buruzko iritzi morala autonomia eta objektibotasun nahikoaz emateko.
3. Autonomiaz eta arduraz jokatzeko eguneroko bizitzan, talde-harremanetan, ikasgelan, ikastetxean eta ingurune hurbilean, eta komunikazio- eta gizarte-trebetasunak erabiltzea gizartearen erlazionatzeko, haren parte izanik.
4. Herritarrak antolatzeke eta gizartearen parte hartzeke zer modu dauden jakitea, batez ere Euskal Herrian, erreferentziazko talde hurbilenetan parte hartzea (familian, eskolan, auzoan, herrian), eta norberaren ekarpenak eta besteenak aintzat hartzea, besteekin konpartitu eta elkarlanean aritzeko.
5. Bizikidetzara-arauek proposatu, egin eta errespetatzea, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkak eraldatzeko, guztien artean ingurune atsegin iraunkor bat sortzeko.
6. Generoa, jatorria, etnia, sinesmenak, desberdintasun sozial eta pertsonalak, orientazio afektibo-sexualak edo beste edozein motatakoak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuiaitzeko.
7. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, Haurren eskubideen Konbentzioak eta Estatuko eta EAEko legeriak jasotako eskubideak eta betebeharrak zein diren jakin, bere gain hartu eta babestea, haien oinarri diren balioak identifikatzea, berdintasunezko jarrera sustatzea, diskriminazioa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak arbuiaitzeko, eta, bereziki, emakumeei eragiten dietenak, jendearen eta taldeen portaeren balioespen etikoa egiteko irizpidetzat hartzeko.
8. Ingurumenaren egoeraz jabetzea, kontsumo osasuntsua eta arduratsua egiteko jarrera izatea eta ingurune hurbila errespetatu eta zaintzea (gainerakoak zaindu eta errespetatzea barne, bide-hezkuntzaren bidez), hura kudeatzen arduraz parte hartzeko.

### 4.2.2.- EDUKIAK

#### 4.2.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak

Edukiak harremanen gunean biltzen dira lehen zikloan ("Pertsonaren nortasuna eta duintasuna" eta "Elkar ulertzea eta errespetua pertsonen arteko harremanetan") eta gune sozialean bigarren zikloan ("Bizikidetzara eta gizarte-balioak"). Horrez gain, curriculumaren gainerakoan bezala, oinarritzekoak diren zehar konpetentziekin lotutako multzo bat dago, zehar-

kompetentziak lortzeko baliabideak, alegia.

Planteamenduaren oinarria haurren eboluzio-logikoa da. Norberaren errealitatea bestearen aurkikuntzaren harreman dinamikoan garatzen dela onartuta ere, niari erreparatzen zaio batez ere, eta niak pisu handiagoa du garapen-fase horretan. Horregatik, dimentsio pertsonala eta soziala didaktikoki bereizten dira zikloen arabera, nahiz eta, ikus daitekeenez, etengabeko elkarrekintzan heltzen zaien, eta ez bakarka. Eta edukiak irekiak izateko, mugak ez adierazteko arazoietako bat ere bada, besteak beste. Horren helburua da zenbait egoerataraz egokitu ahal izatea. Adierazpenezkoek erreferentzia irekiak dituzte, oro har, irakasleak berak zehatz ditzan. Prozedurazkoek eta jarrerazkoek, hurrenez hurren, erreferente operatiboak eta balioespenezkoak dituzte, irekiak, bide batetik baino gehiagotatik lortu ahal izateko. Badira beste arazoi batzuk ere: ikuspegi inklusiboa eta kompetentzien ikuspegiak nagusitasuna izatea, hau da, edukiak baliabide malguak izatea ikasleek kompetentziak eskuratu ahal izateko.

Asko daude, izan, baina kontuan eduki behar da elkarrekin lotuta daudela eta atazetan guztiak batera landuko direla.

Gainerakoan, agerikoa da ikasgai honen oinarria jarrerekin eta prozedurekin lotutako edukiak direla, ikasleek jarrera zibiko-sozialak izan ditzaten. Eta askoz ere gehiago zehatz daitekeenez, hots, norbanakoen ezaugarriei eta testuinguruari erraz egoki dakizkiekeenez, lorpenari buruzko interpretazio-tarte zabala ere badago. Baina horrek ez du ahultasuna adierazten, aniztasunari ikuspegi inklusibo batetik heltzeko aukera paregabea baizik.

#### 4.2.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

##### 1. MULTZOA: Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak.

Eduki multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arazoak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.

- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA: Pertsonaren nortasuna eta duintasuna

- Nortasun pertsonala: ezaugarri fisikoak, kulturalak eta sozialak.
- Duintasun pertsonala. Norberaren kontzeptua eta norberaren balioespena.
- Bizi-proiektua ulertzeko moduak. Muga eta eragozpen pertsonalak, familiakoak, sozialak eta lanekoak.
- Asertibitatea eta pertsonen arteko harremanetan duen ahalmen positiboa.
- Erabaki asertiboak hartzeko estrategiak.
- Sorkuntza-estrategiak. Alboko pentsamendua.
- Sentimenduak eta emozioak. Identifikazio eta adierazpen positiboa.
- Enpatia.
- Teknika kognitiboak. Aplikazioa.
- Inplikazioa gure bizi-ingurunean. Alderdi praktikoa eta etikoak.
- Ekimen pribatua eta ekimen publikoa.
- Taldean lan egiteko arauak.
- Talde-lanaren bidezko garapena.
- Lanaren inguruko konpromiso argudiatuak adostea.
- Ikasketa- eta familia-eremuko konpromiso pertsonalari lotutako arazoak taldean konpontzea.
- Norberaren eta besteen dohainak eta mugak onartzea.
- Besteen bizi-proiektuak errespetatzea.
- Pertsona gisa duen duintasunarekiko errespetua eskatzeko prestasuna.
- Asertibitatea positiboki balioestea.
- Teknika kognitiboen balioespen positiboa.
- Erantzukizun-sena eta ahalegin pertsonala eskolako lanak egitean.
- Autonomia arduratsua agindutako zereginak egitean, arauak betetzean eta erabakiak hartzean, eta norberaren ekintzen ondorioak bere gain hartzea.
- Ekimen pertsonalaren (ekintzaitzaren) balioespen positiboa.
- Hobetzeko grina hainbat motatako eskolako lanak egitean.

**3. MULTZOA: Elkar ulertzea eta errespetua pertsonen arteko harremanetan.**

- Komunikazioa. Faktore indartzaileak eta distortsioa eragiten dutenak.
- Aurreiritzia.
- Komunikazio-trebetasunak eta generoen arteko desberdintasunak.
- Asertibitatea lortzeko modua.
- Oreka pertsonen arteko harremanetan (harreman arinak eta hainbat interes eta ikuspegi uztartuko dituztenak), eta kultura desberdinen bizikidetzeta eta integrazioa.
- Besteen mezuak (hezitzaile, guraso, ikaskide eta adiskideenak) interes eta errespetuarekin entzuteko prestasuna.
- Pertsona, balio eta kultura desberdinak esanbidez estimatzea.
- Inguruneko pertsona hurbilekin elkarrizketarako harreman irekia izatea.
- Talde-lana norberaren lan gisa bere gain hartzea.
- Bidezko eta berdintasunezko harremanak.
- Erantzukizuna eta elkartasuna taldean lan egitean edo beste zeregin kolektibo batzuetan.
- Duintasuna eta desberdintasunerako eskubidea babesteko konpromisoa.

**4.2.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak****1. MULTZOA: Eduki komunak****A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak.**

Eduki multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.



- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA: Bizikidetzeta eta gizarte-balioak

- **Giza Eskubideak elkar bizitzarako markoa**
  - Balio unibertsalak: Giza Eskubideak. Hurren eskubideak. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia.
  - Giza Eskubideen zuzendaritza Euskal Autonomia Erkidegoan.
  - Giza Eskubideen urraketa Euskal Autonomia Erkidegoan.
  - Arartekoa. Guztion eskubideak bermatzeko.
  - Berdintasuna eragiteko eta genero-indarkeriari aurre egiteko erakundeak: Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Sailak, foru diputazioak, udaletxeak, emakumeen era askotariko elkarteak.
  - Lekuan-lekuko berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako ekimenak.
  - Eskubideen urraketa: zergatik ez diren betetzen eskubide unibertsalak.
  - Giza eskubideak esanbidez onartzea.
  - Adierazpen eta iritzi aserako eskubideak eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna esanbidez onartzea.
  - Eskola-jazarpena ikaslearen inguruan eta EAEn. Datuak eta aurre egiteko protokoloak.
  - Diskriminazio eta bidegabekeria soziala esanbidez baztertzea.
  - Hurren eskubideak positiboki onartzea.
  - Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna esanbidez onartzea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak.
  - Egoerarik ahulenean dauden herriekiko eta, bereziki, barne-askatasunen zapalkuntzaren edo nazioarteko bidegabeko harreman ekonomikoen biktima direnekiko elkartasuna.
  - Gizarteko kiderik ahulenekiko elkartasuna: gaixoak, adinekoak, langabeak, tratu txarrak jasaten dituztenak eta abar.
- **Pribatasunerako eskubidea**
  - Datuen pribatasunerako eskubidea.
  - Segurtasun-protokoloa Internet erabiltzean.
  - Sarearen bidezko jardunbide iraingarriak eta jazarpen-jardunbideak esanbidez baztertzea.
  - Informazioaren eta publizitatearen manipulazio-kasuen azterketa kritikoa.

- **Elkarbizitzarakio balio sozialak**
  - Gizarte-balio aitortuak, balio nagusiak eta giza eskubideak.
  - Erantzukizun pertsonala eta soziala.
  - Altruismoa/Elkartasuna versus indibidualismoa.
  - Demokrazia. EAeko antolaketa: udalak, foru aldundiak, parlamentua. Autonomia Estatutua.
  - Demokrazia. Euskal Herriko herritarren parte-hartzea. Horretarako dauden bideak.
  - Alderdi publikoa eta alderdi pribatua. Lankidetzakomuna gastu komunetan.
  - Ikastetxeko bizitza demokratikoan parte hartzea.
  - Zerbitzu publikoen balioespen positiboa.
  - Zergen bidezko kontribuzioa betebeharr demokratiko gisa bere gain hartzea.
  - Lankidetzaren garrantzia euskal gizartean.
  - Lankidetzakomuna gastu komunetan. Zerga-sistema. Kontzertu ekonomikoa.
- **Garapen jasangarria elkarbizitzara baldintza**
  - Garapen jasangarria. Agenda 21 programa EAEn.
  - Bizi den ingurunean eta irteera eta txangoetan natura eta ingurumena zaintzea, eta herritarren kanpainetan laguntzea.
  - Hainbat motatako baliabide naturalak erabiltzean ohitura kontserbazionistak hartzea.
  - Baliabide naturalak gizakien egungo eta etorkizuneko ondare komun gisa balioestea.
- **Elkarbizitzarako prozedurak eta jarrerak**
  - Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA): ikastetxea, eskubide eta betebeharrak bermatzen dituen ingurunea.
  - Hainbat egoerari (egoera pertsonala, akademikoa, lanekoa, soziala) lotutako kasu errealen bilaketa eta azterketa kritikoa, taldean.
  - Dilema moralen kasu praktikoak. Taldean ebaztea.
  - Gizarte-balioen azterketa kritikoa.
  - Egoera polemiko eta eztabaidatuetan hainbat ikuspegi eta perspektiba kontuan hartzeko prestasuna.
  - Gatazkei elkarrizketan oinarritutako prozedura demokratikoekin aurre egiteko prestasuna agertzea, ekimen konstruktiboekitea eta beste batzuen ekimenak eztabaidarako onartzea.
  - Harreman pertsonal eta politikoetan gatazkek ebazteko indarraren erabilera esanbidez baztertzea.
  - Erresilientzia agertzea.

### 4.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 4.2.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

1. **Bere nortasuna bereiztea, duintasunean eta bere buruarekiko eta ikaskideekiko errespetuan oinarritutako estilo bat finkatuz.**
  - Duintasunaren eta errespetuaren balioa azaltzen du.
  - Bere buruarekiko eta gainerakoekiko errespetuaren zentzua arrazoitzen du.
  - Duintasunez eta errespetuz dihardu.
  - Bere nortasunaren ezaugarri bereizgarriak ezagutzen eta bere gain hartzen ditu, eta asertibitatez agertzen ditu.
  - Bere estilo pertsonalaren ikuspegi positiboa adierazten du, eta bere buruaz egiten duen irudikapena eta gainerakoek adierazten duten irudia integratzen ditu.
  - Hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntza orekatu eta errespetuzkoa erabiltzen du komunikatzeko.
2. **Bere ahalmena garatzea, banakako eta taldeko arrakasta lortzen ahaleginduta, interakzio positiboan bidez eta bere buruaren irudi errealista eta onargarria izanik.**
  - Taldean lan egiten du, eta ahalegin indibiduala eta kolektiboa balioesten du helburuak lortzeko.
  - Lankidetzan dituen erantzukizunak bere gain hartzeko arrazoiak azaltzen ditu.
  - Konfiantza sortzen du besteengan, eta zereginen betetzearen autoebaluazio arduratsua egiten du.
  - Bere dohainen eta mugen ikuspegi positiboa adierazten du hitzez.
  - Bakarkako eta taldeko zereginak egiten saiatzen da, eta saiatzera animatzen du.
3. **Erabakiak autonomiaz, sormenez, hausnartuta eta arduraz hartzea, zailtasunei aurre egin eta frustrazioak eta arazoekiko sentimendu negatiboak gainditzeko.**
  - Sorkuntza-teknikak erabiltzen ditu arazoak aztertzean eta jarduteko proposamenak planteatzean.
  - Ekintza positiboko proposamen integratzaileak eta orekatuak planteatzen ditu.
  - Bere erabakien ondorioak neurtzen ditu.
  - Erabakiak hartzen ditu egoera konplexu eta/edo gatazkatsuetan.
  - Errespetuzko eta elkertasunezko portaerak agertzen ditu erabakiak hartzeko beste batzuekin elkarreragiten duenean.
  - Neurritasuna eta oreka agertzen du taldeko eztabaidetan.
4. **Emozioak eta jarrerak erregulatzea eta bizitzan aukeratutako helburuetara bideratzea.**
  - Autokontrola aplikatzen du erabakiak hartzean, negoziatzean eta gatazkak konpontzean.
  - Bere emozioak behar bezala ezagutzen eta identifikatzen ditu.
  - Bere sentimenduak, premiak eta eskubideak adierazten ditu, eta, aldi berean, besteenak errespetatzen ditu lankidetzajardueretan.
  - Bere sentimenduei erantzuten dieten helburu batzuk identifikatzen ditu, funtsean

bederen.

**5. Pentsamendu eraginkorra eta autonomoa egituratzea, eta informazioa biltzea eta ulertzea, inguraten duen errealitateaz zenbait ikuspegitatik hausnartzeko, eta informazioa abiapuntu hartuta, errealitatea hobetzeko.**

- Bere pentsamenduei buruzko gogoeta egiten du eta haiek laburbiltzen eta egituratzen ditu bere adinari dagokion mailan.
- Informazioa garrantziaren arabera sailkatu eta balioesteko irizpideak erabiltzen ditu.
- Berregituratze kognitiboko estrategiak erabiltzen ditu.
- Berregituratze kognitiboaren eta erresilientziaren balioa deskribatzen du.
- Nolabaiteko erresilientzia-maila agertzen du zailtasunen aurrean.

**6. Autonomia eta ekiteko gaitasuna lantzea, lorpen pertsonala lortzeko eta guztien ongiar arduratzeko.**

- Segurtasunez eta motibazioz hartzen du parte eskolako problemak ebaztean.
- Sormenezko proposamenak egiten ditu, eta bere konpetentziak erabiltzen ditu gizarte-balioei lotutako proiektuei ekiteko.
- Arazo sozialak eta zibikoak identifikatzen eta zehazten ditu, eta eraginkorrak izan daitezkeen konponbideak ezartzen ditu.
- Bere erabakien eta ekintzen eraginkortasun-maila ebaluatzen du.
- Zeregin kolektiboak bere gain hartzen ditu, eta arrakasta lortzera bideratzen ditu.

**7. Autonomiaz, arduraz eta enpatiaz jokatzeko, komunikazioa galarazten duten faktoreak gaindituz, eguneroko bizitzan eta taldeko harremanetan komunikatu, adierazi eta jarduteko.**

- Iritziak, sentimenduak eta emozioak garbi eta koherentziaz adierazten ditu.
- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioaren elementuak egokiro eta sentimenduekin bat etorri erabiltzen ditu.
- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioaren trebetasunak erabiltzen ditu (aktiboki entzutea, bestearen lekuan jartzea, beste ikuspuntu batzuk errespetatzea), eta sentimenduak eta ideiak errespetuz komunikatzen ditu.
- Eguneroko egoeretan (bere buruarekin, familiarekin, ikastetxean edota lagunekin) dituen sentimendu positiboak eta negatiboak identifikatzen ditu.
- Entzuten duena interpretatuz eta hari zentzua emanez hitz egiten du.
- Taldeko proiektuetan laguntzen du aktiboki entzunez, beste pertsonetikiko interesa erakutsiz eta gauzak adierazteko motibatuta jarraitzen lagunduz.
- Hainbat egoeratan komunikazioa blokeatzen duten elementuak ezagutzen ditu.
- Enpatiaz elkarreragiten du.
- Hainbat gizarte-trebetasun erabiltzen ditu.

**8. Asertibitatea baliatzea.**

- Modu irekian adierazten ditu bere ideiak eta iritziak.
- Jarrera pertsonalak neurri eta errespetuz defendatzen ditu.

- Hizkuntza positiboa erabiltzen du.
  - Errespetuz berresten du bere burua.
- 9. Beste pertsona batzuekin elkarrizketak izatea eta beroiekin pentsamendu partekatuak sortzea, argudio sendoak eraikitzeko.**
- Gainerakoen adierazpenak ondorioztatzen ditu, eta zentzu egokia ematen die.
  - Entzute aktiboko estrategiak behar bezala erabiltzen ditu: argitzea, parafraseatzea, laburbiltzea, berregituratzea, sentimenduak islatzea.
  - Hainbat ideia eta iritzi erlazionatzen ditu haien alderdi komunak aurkitzeko.
  - Ikaskideen argudioak onartzen ditu, eta bere diskurtsoan txertatzen ditu.
  - Akordioak lortzen ditu elkarrizketaren bidez eta bere iritziarekin bat ez datozen elementuak onartzuz.
- 10. Errespetuz eta malgutasunez jokatzeko eta bestelako iritziak ulertzea eta onartzea.**
- Izateko eta jarduteko era desberdinak identifikatzen ditu.
  - Izateko eta jarduteko era desberdinen oinarritzko elementuak identifikatzen ditu.
  - Desberdintasun indibidualak errespetatzen eta onartzen ditu, eta aurreiritzirik gabe jartzen da harremanetan ikaskideekin.
  - Beste pertsona batzuen dohainak balioesten ditu.
  - Kultura-desberdintasunak positiboki estimatzen ditu.
- 11. Irizpide kritikoz aztertzea gizarte-aurreiritzien ondorioak, eta aurreiritziek sorrarazten dituzten arazoez eta aurreiritziak jasaten dituzten pertsonengan dituzten ondorioen gainean hausnartzea.**
- Gizarte-aurreiritziek sorrarazten dituzten arazoak aztertzen ditu.
  - Gizarte-ingurune hurbileko pertsonentzako gizarte-aurreiritzien ondorioak azaltzen ditu, behar bezala arrazoituta.
  - Ingurune hurbilean detektatutako gizarte-aurreiritziak kritikoki epaitzen ditu, eta ondorioak sormenez adierazten ditu.
  - Kasu jakin batetik abiatuta, aurreiritziak gainditzearen aldeko mintzaldi labur bat lantzen du.
- 12. Talde-giroa hobetzen laguntzea, lankidetzan jardutea eta errespetuzko harremanak lantzea.**
- Aktiboki parte hartzen du talde-dinamiketan.
  - Ikaskideen onarpena lortzen du.
  - Afektu-trukean eta elkarrekiko konfiantzan oinarritutako harreman emozional adiskidetsuak ezartzen eta mantentzen ditu.
  - Adiskidetasunaren ezaugarriak azaltzen ditu sormenezko istorioen bidez.
  - Ikasteko laguntza eskaini eta jasotzeko prestasuna agertzen du.
  - Talde-lanean arauak errespetatzen ditu.

### 4.2.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

1. **Arazoak lankidetzaren bidez konpontzea, jarrera irekia izanda eta ikuspegiak eta sentimenduak partekatuta.**
  - Konfiantza-harremanak ezartzen ditu berdinekin eta helduekin.
  - Proiektuak garatzen eta arazoak konpontzen ditu lankidetzan.
  - Proiektu baten arrakasta-maila ebaluatzen du.
  - Ikasgelako interakzio sozialean gainerakoekiko jarrera irekia agertzen du eta ikuspuntuak eta sentimenduak partekatzen ditu.
  - Bakarka egindako informazioa eta zereginak ikaskideekin partekatzen ditu.
2. **Bizikidetzara-eratuak proposatzea, eratzea eta betetzea, eta elkarrizketa eta bitartekotza baliatzea gatazkak eraldatzeko.**
  - Bizikidetzara-eratuak errespetatzen ditu, eta taldean giro ona lortzen laguntzen du.
  - Bere ingurune hurbileko gatazka-egoera deskribatzen du, eta estrategia konstruktiboak erabiltzen ditu konponbideak edo alternatibak bilatzeko.
  - "Arau" kontzeptua azaltzen du.
  - Elkarreragin sozialeko guneetan bizikidetzara-eratuak ezartzeko beharra argudiatzen du.
  - Ikastetxeko arauak lantzen parte hartzen du.
  - Bitartekotzaren faseei jarraitzen die egoera errealean eta simulazioetan.
  - Hizkera positiboa erabiltzen du pertsonen arteko harremanetan pentsamenduak, asmoak eta iritziak komunikatzeko.
  - Gatazkan dauden aldeen emozioak, sentimenduak, pentsamendu posibleak eta ikuspuntuak aztertzen ditu.
3. **Diskurtsoan eta jarreran gizarte-erantzukizuna eta -elkartasuna eta justizia soziala barneratzea, hausnartzeko, laburbiltzeko eta egituratzeko gaitasunak erabiliz.**
  - Elkartasuna agertzen du bere ingurune hurbilean.
  - Gizarte-erantzukizunaren eta justizia sozialaren zentzua arrazoitzen du.
  - Desoreka-egoerak eta bidegabekeriak hobetzeko ekintzak proposatzen ditu bere ingurunean.
  - Gizarte-desberdintasunak identifikatzen eta kritikoki aztertzen ditu.
  - Bere ingurune bidegabekeriei buruzko katalogo labur bat eta haiei aurre egiteko hainbat proposamen lantzen ditu taldean.
4. **Dilema moralak ebaztea, kultura-desberdintasunak eta bestelako desberdintasunak hautemateko.**
  - Dilema moral bat zer den adierazten du.
  - Eguneroko jarreraren kasu zehatzei buruzko judizio moralak egiten ditu.
  - Dilema moralak aztertzen eta ebazten ditu egoera erreal eta simulatuetan.
  - Kultura-desberdintasunen inguruko aurreiritziei lotutako dilema moralak ebazten ditu.
  - Kultura-, etnia- eta arraza-desberdintasunak onartzeko jarrerak sustatzen ditu

publikoki.

- Desgaitasuna duten ikaskideen onarpena adierazten du, eta beharrezkoa den laguntza ematen die.
- 5. Balio-sistema propioa eratzea, ikaslearen eskubideak eta betebeharrak bere eginez, judizio moralak eginez, eta dilema moralak ebaziz, kasu praktikoen bidez.**
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezagutzen eta errespetatzen ditu.
  - Inguruneko eskola-egoeren judizio moralak egiten ditu.
  - Hainbat balio pertsonaletan oinarrituta justifikatzen ditu bere jardunak (duintasuna, askatasuna, autoestimua, norberarenganako konfiantza eta arazoei aurre egiteko gaitasuna).
  - Eskolako eta ingurune hurbileko gertaeretan oinarritutako dilema moralak aztertzen eta lantzen ditu.
  - Bere jokabidearekin bat datorren diskurtso moral bat eraikitzen du.
- 6. Eskubide-berdintasunaren aldarrikapena errespetatzea, inor ez diskriminatzea bere jaiotzarengatik, arrazarengatik, generoarengatik, orientazio afektibo-sexualarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik edo beste edozein ezaugarri pertsonal edo sozialengatik, eta ikuspegi horrekin jokatzeko gaitasuna.**
- Giza eskubideen izaera unibertsala argudiatzen du.
  - Diskriminazio-gertakariak aztertzen ditu: tratatu txarrak, gutxiengo etikoen bazterkeria, kontzentrazio-esparruak, holokaustoa, gaixotasunagatiko segregazioa eta abar.
  - Ikuspegi kritikoz epaitzen ditu hurbileko bereizkeria- eta diskriminazio-kasuak; bereziki, LGBT kolektiboak lotuta, generoarekin eta orientazio afektibo-sexualarekin zerikusia dutenak.
  - Eskubide-berdintasunari buruzko EAEko araudi orokorra (Arartekoa, indarkeria matxistaren aurkakoa, etab.) eta Hezkuntza Sailarena (hezkidetza, bizikidetza, inklusibitatea, etab.) laburbiltzen ditu.
  - Aurreiritziak identifikatzen ditu, eta estereotipoen erabileraren ondoriozko gatazkak aztertzen ditu eskola-testuinguruan.
  - Ikastetxeko zein adiskideen inguruneko diskriminazio-egoeren aurrean jarduteko neurriak aztertzen eta proposatzen ditu.
  - Ikastetxean, udalerrian eta EAEn bidegabekeria-egoerak salatzen dauden bideak deskribatzen ditu.
- 7. Adierazpen- eta iritzi-askatasunerako eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubideak babestea ezinbestekoa dela adieraztea, eta horien gaineko azterketa- eta laburpen-lanak egitea.**
- Adierazpen askea balioesten eta errespetatzen du.
  - Norberarenaz bestelako iritziak interpretatzen eta onartzen ditu.
  - Kultura eta erlijio batzuk kultura eta erlijio horietako pertsonen pentsamendu motekin erlazionatzen ditu.
  - Pertsona horien onarpena adierazten du.
  - Adierazpen- eta iritzi-askatasunerako eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-

askatasunerako eskubideei buruzko ondorioak aztertzen, hausnartzen eta adierazten ditu.

**8. Haurren eskubideak zer garrantzitsuak diren jakitea, egoera errealak aztertzea, eta gizartean nesken eta mutilen arteko eskubide-berdintasuna errespetatzea.**

- Haurren oinarriko eskubideak azaltzen ditu.
- Haur orok laguntza jasotzearen garrantzia justifikatzen du.
- Haurren esplotazioaren eta trafikoaren ondorioak arrazoitzen ditu.
- Eskubideen eta betebeharren arteko erlazioa azaltzen du hitzez.
- Kritikoki balioesten ditu haurren eskubideen urraketei buruz Interneten agertzen diren egoera errealak.
- Sorkuntza libreko lanen bidez azaltzen ditu familian zein eskola-komunitatean zereginak eta ardurak esleitzean sexuaren arabera egiten diren desberdintasunen inguruko azterketa kritikoaren ondorioak.

**9. Gogoz parte hartzea gizartean eta gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasuna eta ardura partekatuak balioestea.**

- Ikuspegi kritikoz epaitzen ditu gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna bortxatzen duten jarrerak.
- Beste sexuko pertsonekin lankidetzan jarduten du hainbat eskola-egoeratan.
- Hainbat jardura mota egiten ditu, generoa kontuan hartu gabe.
- Euskal gizarteko emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasunari buruzko ikerketa bat egiten du.
- Genero-diskriminazioa esanbidez baztertzen du.

**10. Gizonek eta emakumeek eskubide berberak dituztela eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan ardura bera dutela balioestea, eskubide eta ardura horiek betetzea, eta horiek guztiak hausnarketa eginez, laburtuz eta egituratuz arrazoitzea.**

- Argudioak emanez azaltzen du gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasuna eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan duten erantzunkidetasuna balioestean garrantzia.
- Gizonek beste pertsonak zaintzen eta etxeko zereginetan izaten duten parte-hartzeari buruzko datuak biltzen ditu, eta ondorioak ateratzen ditu.
- Genero-desberdintasunak harreman afektiboetan dituen ondorioei buruz eztabaidatzen du.
- Elkarrizketa erabiltzeko eta zereginak berdintasunean oinarrituta bere gain hartzeko aukera balioesten du harreman afektiboetan sortzen diren gatazkak konpontzeko.
- Errespetua eta genero-berdintasuna islatzen ditu bere jokabidean.

**11. Balio-sistema propioa eratzea, besteren aukerak errespetatzen dituen, eta eskubide unibertsialetan oinarritutako judizio moralak egitea.**

- Kritikoki epaitzen ditu hainbat egoeratako balio implizituak, gizarte demokratiko bateko bitzta osatzen duten balioei jarraiki.
- Oinarriko eskubide horien zehaztapen errealari buruzko judizio moral sinpleak egiten ditu.



- Hurbileko inguruneko ongizatean parte hartzen du, oinarrizko eskubide eta betebeharren erabileran oinarrituta.
  - Besteen eskubideekiko errespetua bere jokabidearen funtsezko elementutzat hartzea.
  - Beretzat funtsezkoak diren balioak azpimarratzeko saiakera labur egiten du, eta egindako aukera argudiatzen du.
- 12. Demokraziaren ezaugarri bereizgarriak ezagutzea eta adieraztea, eta balio zibikoek euskal gizarte demokratikoan zer-nolako garrantzia duten jakitea.**
- Euskal bizikidetzaren demokratikoaren ezaugarri bereizgarriak adierazten ditu.
  - Balio zibikoek gizarte demokratiko batean duten garrantzia argudiatzen du.
  - Euskal erakundeetan parte hartzeko mekanismoak aipatzen ditu.
  - Ikastetxean parte hartzeko moduak proposatzen eta praktikan jartzen ditu.
  - Herritarren balioei buruzko Eusko Jaurlaritzaren eta Arartekoaren dokumentuak aztertzen ditu, eta balio demokratikoetan oinarrituta balioesten ditu.
  - Herritarrek gizartearen onurarako egin beharreko ekarpena ulertzen, balioesten eta idatziz azaltzen du.
  - Zergek herritarren bizi-kalitatea hobetzen duten gizarte-baliabideak emateko betetzen duten funtzioa azaltzen du.
  - Zergak ez ordaintzearen ondorioei buruzko sormenezko produkzioak egiten ditu.
- 13. Natura-ondasunak arduraz erabiltzea eta ingurumenaren kontserbazioan laguntzea, gertaerak ulertuz eta interpretatuz, arrazoiak aztertuz eta ondorioak aurreikusiz.**
- Inguruan duen naturarekiko interesa agertzen du.
  - Ondasun naturalak kontserbatzeko arrazoiak azaltzen ditu.
  - Ondasun naturalen erabilera egokian parte hartzeko ekimenak proposatzen ditu, eta arrazoiak azaltzen ditu.
  - Gizakiak ingurunean duen esku-hartzearen arrazoiak eta ondorioak aztertzen eta azaltzen ditu.
  - Oreka ekologikoa babestu eta berreskuratzeko eta ingurumena kontserbatzeko portaerak argudiatzen ditu.
  - EAEko Agenda 21 programari buruzko informazioa biltzen du.
  - Energia-baliabideen mugaz jabetzen da, eta energia-iturriak agortzearen ondorioak azaltzen ditu.
  - Energia-iturri jakin batzuen neurritz kanpoko erabileraren ondorioak ikertzen ditu.
  - Osasunerako eta bizi-kalitateko kutsatu gabeko airea behar dela azaltzeko sormenezko lanak egiten ditu.
  - Giza jarduera kutsatzaileak baztertzeko argudioak azaltzen ditu grafikoki.
- 14. Teknologia berriak eta haiek informaziorako eta jakintzarako duten ahalmena erabiltzea, ingurune seguruetan balio sozial eta zibikoak garatzeko.**
- Teknologia berriak etikoki erabiltzen ditu.
  - Badaki teknologia berriak segurtasunez erabiltzen.

- Ingurune digitaleko edukiak kritikoki aztertzen eta epaitzen ditu.
- Datuak babesteko protokoloak betetzen ditu.
- Ciberbullyngaren ezaugarriak aipatzen ditu.
- Ciberbullyng-kasu errealean bat aztertzen du.
- Esplizituki baztertzen du ciberbullyng-prozesuen inguruko ekintza mota oro, baita pasibotasuna ere.

## 5.- ARTERAKO KOMPETENTZIA

### 5.1.- ARTE-HEZKUNTZA

#### 5.1.1.- ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira Arte Hezkuntza arloko etapako helburuak:

1. **Arteak eta kultura bisual eta musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta espresatzeko ematen duten aukera ugari ezagutzeko, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza aurrera egitea.**
2. **Arte-hizkuntzen oinarriko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzeko eta erabiltzeko jakitea, eta teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzeko.**
3. **Arte-adierazpenetan erabili ohi diren teknikak, baliabideak eta konbentzioak kultura bisual eta musikalean duten presentzia aitortzeko eta balioesteko, horrela arte-adierazpenok hobeto ulertu, haietaz are gehiago gozatu, eta erreferente estetiko berriak izateko.**
4. **Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, norberaren nahiz besteen sentimenduetan edo artelanetan oinarritutako ideiak birsortzeko, norberaren sormen-lanak aberasteko.**
5. **Sormen-lan eta -proiektuak lantzean zenbait emaitza lortzeko beharrezkoak diren prozedurak planifikatzeko, ebaluatzeko eta egokitzeko, eta horrek guztiak dakartzen eronkez jabetzeko.**
6. **Arte-adierazpenen eta kultura bisual eta musikalaren funtzio sozial ugarien berri jakitea, eta adierazpenok guztiok norberaren eta besteen bizitzan duten presentzia ezagutzeko, arteak gaur egun eta historian zehar gurean eta beste kultura batzuetan zer-nolako garrantzia duen eta izan duen ulertzeko.**
7. **Soinu eta irudietatik abiatuta sortutako ekoizpenek ingurune fisiko eta sozialarekin zer-nolako loturak dituzten azaltzeko eta kritikoki aztertzeko, ekoizpenok gizon-emakumeon bizitzan zer-nolako eragina duten ulertzeko.**
8. **Arte-jarduera kolektiboetan parte hartzea, jarduera horietan norberak arduraz jokatzeko, eta denek ekimen eta ekarpenak balioesteko, taldean arte-lanen bat egitea helburu duten ekimenetan hain garrantzitsuak diren kooperazio-trebetasunak lantzeko.**
9. **Norberak egindako artelanetan konfiantza izatea, lanean emandako denboran norberak egindakoaz gozatzeko, eta horrek guztiak norberaren eta talde osoaren hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpen itzelaz jabetzeko, autoestimuan aurrera egiteko eta norberaren ideien eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko.**
10. **Euskal Herriko nahiz beste herrialdeetako kultura-ondareko arte-adierazpenak ezagutzeko eta balioesteko, eta adierazpenok zaintzeko, babesteko eta etengabe**

**berritzeko lanetan besteekin batera kolaboratzea, eta horretan, norberarenaz bestelako kulturetako pertsonekin lan egiteak eta esperientzia artistikoak trukatzeko denok aberasten gaituela ohartzea.**

## 5.1.2.- EDUKIAK

### 5.1.2.1.- Eduki multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den "*Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak*" izeneko atariko eduki multzoak oinarritzko zehar-konpetentziak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak jasotzen ditu. Arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu behar dira edukiok.

Beste lau eduki multzoek bat egiten dute konpetentzien gaineko ikuskera azaltzean egindako proposamen eta oharrekin, eta alde horretatik, proposamen eta ideioek xehatuta ageri dira eduki multzootan. Musikan eta arte plastiko eta bisualetan ohikoak diren ezaugarri espresibo, komunikatibo eta narratiboak lantzen dira eduki multzo hauetan, eta hainbat eduki hartzen dituzte hizpide: hizkuntza musikal, plastiko eta bisualen baliabide eta konbentzioak; artean erabili ohi diren sormen-prozedurak eta -teknikak; musikak eta arte plastiko eta bisualek gizarte barruan eratzen dituzten artikulazioak eta betetzen dituzten funtzioak; eta artelan plastiko, bisual eta musikalek gugandik gertueneko ingurunearekin eta arte-adierazpenok sortu direneko ekoizpen-testuinguruekin dituzten loturak.

Dena dela, kontuan izan behar dira musikaren eta arte plastiko eta bisualen arteko desberdintasunak, eta, beraz, bien ala bien arteko antzekotasunak eta aldeak zertan diren jakiteko, jarduera bakoitzarekin lotutako edukiak modu operatiboan antolatu behar dira. Horretarako, beharrezkoa da artearen alderdi produktiboa eta erreflexiboa aintzakotzat hartzea, eta bi alderdi horiek eduki multzoak kohesionatzeko ardaztat hartzea, horien bitartez hurbiltzen baikara gizon-emakumeok artearen mundura, bai erabiltzaile eta bai ekoizle garen aldetik.

Horrenbestez, hona hemen Arte Hezkuntzarako ezarritako eduki multzoak:

- Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak.
- Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala.
- Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena.
- Erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea.
- Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.

Eduki multzo hauek elkarrekin estu lotuta daude, eta, unean-unean diseinatutako curriculum-proiektuak eta ikasgelako programazioak nolakoak diren, mota askotako konbinazioak egin daitezke haietan oinarrituta.

Zer dira, baina, eduki multzoak? Hauxe: irakasleei zikloan zehar landu beharreko buruzko informazioa ematen dieten blokeak. Aurrez ezarritako konpetentziak lortzeko egokientzat jotzen diren edukien berri ematen dute blokeok. Lehen Hezkuntzan, haurrekin batera egin beharreko lanek helburu garbia dute, oso: batetik, ikasleek beren arte-adierazpenak, musikalanak, irudi eta marrazkiak sortzea; eta, bestetik, beren bizitza erabat blaitzen duten arte-adierazpenekiko eta ekoizpen bisualekiko espiritu kritikoa izatea, horiek guztiek beren emozioetan, identitatean eta sozializazio-prozesuan berebiziko eragina dutenez gero.

Erne ibili beharra dago, blokeok ez baitute, zehatz esateko, gai-zerrendarik osatzen; ez dira konpartimenduetan banatutako unitateak, eta ez dira, beraz, bereiz landu behar.

Azkenik, esan dezagun edukiotako bakar batek ere, hurrenkerak hurrenkerara, ez duela besteen aldean inolako lehentasunik.

### 5.1.2.2.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarrerren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideien, zereginen eta proiektuen plangintza eta analisiak egitea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### 2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Soinu-iturriak ikertzea eta naturako eta gizarteko soinuak bereiztea.
- Soinuaren eta hura sortzen duten iturrien aukerak arakatzea eta haien izaera hautematea.
- Soinuaren altuera eta iraupena bereiztea eta grafia konbentzional eta ez konbentzionalen bidez adieraztea.

- Adi entzutea musika-konposizio laburrak, estilo eta kultura askotarikoak, Euskal Herrikoak zein beste herrialdeetakoak.
- Eskolako musika-tresnak, musika tradizionalakoak, pop eta rock musikakoak eta orkestrakoak ikusiz eta entzunez ezagutzea eta ahots motak bereiztea.
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Euskal kultura-inguruneko musika motak eta musika-ekitaldiak deskribatzea eta komentatzea.
- Estilo eta kultura askotariko musika-lanak, Euskal Herrikoak zein beste herrialdeetakoak, entzuteko interesa izatea.

### 3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta naturako soinuen soinu-aukerak arakatzea.
- Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien eta dantzen erreperitorio bat ikastea.
- Ahotsa zaintzearen garrantzia, gainerako pertsonekin komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik.
- Partitura errazak idaztea eta irakurtzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia.
- Ahots batez kantatzen diren abestiak, kanonak eta pieza instrumental errazak interpretatzea eta buruz ikastea.
- Perkusio txikiarekin interpretatzeko trebetasun oinarrizkoak eskuratzea.
- Banako eta taldeko koordinazioa eta sinkronizazioa ahozko, tresnen bidezko eta gorputzeko interpretazioan.
- Mugimendu-teknika oinarrizkoak praktikatzea soinu-zuko estimuluei erantzuteko eta dantza errazak dantzatzea.
- Erritmo eta melodien eskemak inprobisatzea, aurrez emandako musika-oinarrien gainean.
- Akonpainamendu erritmiko eta harmoniko errazak sortzea abesti eta pieza instrumentalentzat.
- Konfiantza izatea norberaren musika-sorkuntzarako gaitasunean.
- Ahotsaren, tresnen eta gorputzaren adierazpenarekin disfrutatzea.

### 4. MULTZOA. Erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea

- Ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko irudiak eta bestelako arte-adierazpen batzuk erabiltzearen premia hautematea.
- Zentzumenen bidez behatzea eta ikertzea ingurune natural, artifizial eta artistikoko elementuak.

- Marrazte-esperientziatik abiatuta, zenbait egoeraren gaineko hausnarketa egitea, hala nola gizakien figuraren, espazioaren, denboraren eta mugimenduaren irudikapenarena.
- Kultura bisualeko inguruko artelanen eta produktuen intentzioak, egitekoak eta erabilerak ezagutzea eta lantzea.
- Ordena edo ildo bat ezartzea behatze-prozedura eta haren ahozko zein idatzizko komunikazioa gauzatzeko.
- Inguruan edo museoren batean ikusitako obrek dakarkiguten bizipenaren adierazpen hitzezkoa edo plastikoa.
- Norberaren obren esanahiak hitzez adieraztea eta haien gaineko iruzkinak egitea.
- Egiturak eta tonalitateak sailkatzea eta forma natural eta artifizialak balioestea.
- Inguruko elementuak behatzea, objektuen proportzioak, harremanak, kokapen-egoerak eta haien bestelako alderdiak ulertzeko.
- Objektuek eta pertsonak espazioarekiko dituzten distantziak, ibilbideak eta egoerak arakatzea.
- Ingurunea, euskal kultura-ondareko obrak eta beste kulturetakoak norberaren eta besteren ekoizpenak errespetatu eta zaintzea.
- Euskal kulturaren gertuko arte-ekoizpenetara hurbiltzeko interesa izatea, ekoizpenen eta haien egileen gaineko informazioa eta xehetasunak izateko.
- Norberaren gustukoak ez diren ekoizpenak interesez, tolerantziaz eta errespetuz behatzea.

## 5. MULTZOA. Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea

- Marrazkiak, margolanak, collageak, bolumenak eta antzeko lanak egitea, ideiak eta sentimenduak adierazi edo narrazioak oinarritzeko.
- Trazu espontaneoaren eta intentziodkoaren adierazpen-aukerak esperimentatzea.
- Kolore-nahasteak eta -orbanak esperimentatzea, askotariko materialak eta euskarriak erabilia.
- Zentzumenen bidez, egitura natural eta artifizialak eta material organiko eta inorganikoen ezaugarriak eta aukerak bilatzea.
- Egiturek, koloreek eta formek ikaslearen lan plastikoetan betetzen dituzten funtzioak eta ematen dituzten aukerak behatzea eta komentatzea.
- Objektuak eskuz erabiltzea eta eraldatzea, haien beste erabilera batzuk aztertu eta beste testuinguru batzuetan ematen dituzten aukerak arakatzeko, eta birziklatzeko aukerak kontuan hartzea.
- Sorkari plastikoak eta bolumen-egitura sinpleak eraikitzea xede konkretuak betetzeko; hala nola dramatizazioetan erabiltzeko eta jolaserako elementuak egiteko.
- Irudiak sortzea eta manipulatzeko, argazkigintza, collagea, komikiak, kartelak eta antzeko baliabideak erabilia.
- Artelanetan behatu dituen xehetasunak erabiltzea bere ekoizpen propioetan.
- Iturri askotan, eta horien artean, Interneten, bilatzea eguneroko bizitzako, arteko eta bestelako esparruetako irudiak eta erreferenteak, bere lanetan erabiltzeko.

- Baliabide digitalak ikertzea bere ekoizpen pertsonalak egiteko.
- Norberak artea landu eta egiteko duen ahalmenean konfiantza izatea eta norberaren eta besteren ekoizpenak balioestea.
- Arretatsua eta saiatua izatea lan-prozesuan.
- Askotariko tresnak –digitalak barne–, materialak eta espazioak arduraz erabiltzeko jarrera izatea.
- Zereginak bere gain hartzeko jarrera izatea eta talde-lanerako ezarri diren arauak betetzea.
- Norberaren adierazpen-ahalmenak balioestea, desinhibizioko jarrera naturalak izanda, eta zailtasunak gainditzeko prest izatea.

### 5.1.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.



## 2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Inguruneko soinuak ikertzea eta zaratak eta kontaminazio akustikoa hautematea.
- Eraso akustikoez jarrera kritikoa izatea eta gogoz lan egitea eraso horiek murrizteko eta norberaren eta taldearen ongizatea handitzeko.
- Adierazpen musikaleko kode konbentzionala ulertzea eta haren oinarritzko erabilera egitea.
- Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeko.
- Adi entzutea estilo eta kultura askotako musika-konposizioak, Euskal Herrikoak eta beste herrialdeetakoak, eta haien ezaugarri bereizgarri batzuk ezagutzea.
- Tresnen eta ahotsen sonoritateak hautematea eta horiek guztiak tresnen eta/edo ahotsen taldekatze askotarikoetan lotzea.
- Iturri askotan bilatzea musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, musika-ekitaldiei eta musikaren funtzioen eta erabilerei buruzko informazioa.
- Entzunaldietan eta bestelako musika-emanaldietan izan behar diren portaera-arauak ezagutzea eta betetzea.
- Kontzertuetara eta musika-emanaldietara joatea eta haiek komentatu eta balioestea.
- Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta haiek entzunez gozatzea.

## 3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsa, gorputzaren perkusioa eta musika-tresnak akonpainamendu moduan erabiltzea testu errezitatu, abesti eta dantzetan.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abesti-errepertorio zabala, mota eta estilo askotarikoa, eskuratzea.
- Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzeko ohiturak hartzea.
- Musika konbentzio-zeinuen bidez adieraztea: pentagrama, notak, figura eta isiluneak, sol klabea, konpasa, etab.
- Grafia askotarikoak (konbentzionalak eta ez konbentzionalak) erabiltzea asmatutako musika erregistratu eta gordetzeko.
- Abesti eta pieza instrumental gero eta zailagoak irakurri eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilita.
- Orff instrumentariumerako instrumentazio xumeak interpretatzea.
- Euskal Herriko eta beste kultura eta garai askotako ahotsezko piezak eta pieza instrumentalak interpretatzea, akonpainamendurekin eta akonpainamendurik gabe.
- Taldeko dantzak eta koreografiak asmatzea eta interpretatzea, Euskal Herriko eta beste tokitako estilo askotako musika-piezetatik abiatuta.
- Inprobisazioa baliatzea ahotsarekin, musika-tresnekin eta gorputzarekin, musika-estimuluei eta bestelako estimuluei erantzuteko.
- Sarrerak, interludioak, kodak eta akonpainamenduak sortzea abesti eta pieza instrumentalez.

- Ikus-entzunezko bitartekoak eta baliabide informatikoak erabiltzea musika-piezak sortzeko, irudiei eta errepresentazio dramatikoiei soinua jartzeko eta ikasgelan interpretatutako musika grabatzeko.
- Musika eta dantza balioestea, herrien kultura-ondarearen osagai diren aldetik.
- Musika sortzean, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea.
- Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan.

#### 4. MULTZOA. Erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea

- Euskal kulturak eta beste kultura batzuek topatutako soluzioak ikertzea eta behatzea, irudikapen- edo adierazpen-arazoak konpontzeko (hirugarren dimentsioa, mugimendua, denbora, etab.).
- Arteko eta artisautzako adierazpen moduak, kultura-adierazpenen adierazgarri direnak, bilatzea, erregistratzea eta balioestea, bai norberaren inguruan, bai beste testuinguru batzuetan.
- Kulturen arteko harremanak, arte-adierazpenetan, historian eta gaur egun nabarmentzen direnak, ikertzea eta eztabaidatzea.
- Publizitatean, interneten, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen bestelako produktuetan erabiltzen diren irudien azterketa formala egitea eta horiekiko jarrera kritikoa izatea.
- Artelanek izan eta iradokitzen dituzten ezaugarri formalak, teknikoak eta materialak ikertzea, haiek berregiteko edo artelan berriak sortzeko.
- Objektuen eta natura-elementuen ahalmen plastiko eta adierazpenezkoak arakatzea.
- Protokolo hitzeko eta ahozkoak egitea elementu naturalen eta artifizialen alderdi, balio eta ezaugarri ageriko eta ezkutukoak behatzeko.
- Bolumenak planoan irudikatu edo adierazteko moduak aztertzea, ikuspuntuaren edo espazioan duten kokapenaren arabera.
- Espazioa adierazi edo irudikatzeko moduak konparatzea hainbat eremu eta esparrutan, betetzeko duten eginkizunari (teknikoa, informatzekoa, etab.) erreparatuta.
- Arteari eta kultura bisualari buruzko albisteak irakurtzea eta eztabaidatzea.
- Arte-adierazpenak gero eta hobeago ulertzeko erabiltzea euskal kulturaren museo, erakusketa, ekitaldi dramatiko, musika-emanaldi eta bestelako ekitaldietara joatean ikasitakoa.
- Irudiei eta arte-produkzioei buruzko informazioa bilatzeko interesa izatea.
- Jarrera ireki eta malgua izatea irudiak eta arte-adierazpenak aztertu eta balioestean.
- Publizitatean, interneten, bideoetan, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen bestelako produktuetan erabiltzen diren irudien balioespen kritikoa egitea.
- Artelanak pertsonen komunikazio-bitartekoak eta kultura-nortasuneko balioak transmititzeko tresnak direla ulertzea eta balioestea.
- Artea eta adierazpen plastikoa balioestea, ingurumenaren kaltetzearen, indarkeriaren eta bestelako arazoaren gainean hausnartzeko espazioa den aldetik.

- Sentikortasuna eta errespetua adieraztea norberaren eta besteren bizipen estetikoaren adierazpenekiko.

## 5. MULTZOA. Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea

- Teknika mistoak erabiltzea obrak sortu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko.
- Askotariko dokumentazioa (testu idatzietako informazioa, irudiak, artisten obrak, ingurune iturriak, etab.) bilatzea eta erabiltzea, ikerketa-lanak egiteko banako edo taldeko proiektuetan.
- Proposatutako edukiak lantzeko erabiltzea materialak eta teknikak, eta egindako aurkikuntzak adierazpen plastikoetan erabiltzeko interesa izatea.
- Irudiak eta objektuak berregitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eraldatze grafikoen eta plastikoen bidez, eta birziklatzearen dimentsioa aintzat hartuta.
- Koloreen ezaugarri eta erlazioen gaineko jakintza oinarritukoak erabiltzea.
- Bolumenek eta espazioek argiaren eraginez izaten dituzten aldaketak ikertzea.
- Testurak erabiltzea objektuen eta irudien ezaugarriak zehazteko.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irudiak bilatzeko, irudien gaineko dokumentazioa biltzeko eta egindako lanak zabaltzeko.
- Teknologia-euskarriak erabiltzea arte-sorkuntzan.
- Hizkuntza askotarikoak (hitzak, hizkuntza bisuala, soinuak, etab.) darabiltzaten proiektuak planifikatu eta egitea.
- Metrika eta perspektibako kontzeptuak erabiltzea egiturak eraiki eta espazioak eraldatzeko.
- Esku-hartzeak egitea eremu errealetan: giro berriak sortzea, lehendik daudenak aldatzea, etab.
- Espazio plastikoa antolatzea eta espazio horretan dauden formen arteko harremanak arakatzea.
- Proiektu banakoak eta taldekoak planteatzea, askotariko gaiak ikertu eta horien gaineko soluzio plastikoak bilatzeko.
- Hizkuntza plastiko eta bisualaren elementuak antolatu eta haiek erabiltzeko modu berriak ikertzeko gogoia izatea.
- Gainerako pertsonen iritziekiko eta lanekiko errespetua eta interesa adieraztea, norberaren ezagutze-prozesuaren parte diren aldetik.
- Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta, artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak.
- Gero eta konstantzia eta exijentzia handiagoa izatea egiteko prozesuan, ardurak hartzea lankidetzalanean, berrikuspenarako uneak ezartzea, gainerako pertsonen ekarpenak errespetatzea eta desadostasunak argudioen bidez erabakitzea.
- Norberak artea landu eta egiteko duen ahalmenean konfiantza izatea eta norberaren eta besteren ekoizpenak balioestea.
- Ikasgelan ordena eta garbitasuna balioestea.

### 5.1.2.4.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- **Euskal erritmo motak:** Zortzikoa, Ezpata-dantza
- **Euskal kantutegiko abesti batzuk:** *Agur, jaunak (eta andreak)!; Agur, Xiberua!; Ai, zer plazera!; Aita Jainkoak (Salamanca); Aitormena; Aitorren hizkuntza zaharra; Aldapeko (almute-dantza); Ama eta alaba; Ameriketara joan nintzan; Andre novia; Araban bagare; Armen hartzera (Solferinoko itsua); Astoa ikusi nuen; Bakearen urzoa; Begiztatua nuen (euskaldun makila); Behin edo behin; Bizkaia maite; Boga-boga; Donostiako hiru damatxo; Egun da Santi Mamiñe; Eperra; Erreginetan; Erribera; Esaten dute (Nere senarra); Euskal Herriko mendiak; Ez, ez dut nahi; Furra furra; Gazte gaztetatikan; Gaztedi berria (Gu gira Euskadiko); Gernikako Arbola; Goizean argia hastean; Goizean goizik; Guk euskaraz; Guretzat; Haltzak ez du bihotzik; Hara non diran!; Hator, hator; Haurrak ikas zazue; Haurtxo txikia negarrez dago; la gureak egin du; Ikusi mendizaleak; Ikusten duzu goizean; Iruten ari nuzu; Isil isilik; Itsasoa laino dago; Itsatsontzi baten; Iturengo arotza; Itziarren semea; Izotz ondoko eguzki; Jaun baruak; Kakagalez nator; Kontrapas; Lau teilatu; Lo, lo, txuntxulun verde; Loreak udan; Maite bat (Kontxesiri); Maitea, non zira?; Maiteak galdegin zautan; Maria Solt eta Kastero; Maritxu, nora zoaz?; Mendian gora; Mendizaleak; Mutil koskor bat; Nafarroa arragoa; Nagusi jauna (Juana Bixenta Olabe); Negua joan da; Nere andrea; Nere herriko neskaxa maite; Neri deritzait Galtzaundi; Nik baditut bortuetan (Oinaz); Oi, Betleem!; Olentzero buru haundia; Olentzero; Ozaze Jaurgainean; Paristik natorren; Pasaiaiko herritik; Pello Joxepe; Pintto Pintto; Pipa hartuta; Prima eijerra; San Simon eta San Juda; Santa Ageda; Sarri sarri; Triste bizi naiz eta; Txantxibirin; Txarmangarria; Txori erresiñola udan da kantari; Txoria txori; Txorietan buruzagi; Txoriñoa kaiolan; Txoriñoa, norat hoa?; Ume eder bat; Uso zuria; Xalbadorren heriotzan; Xoxoak galdu mokoak; Zazpi Euskal Herriek (Agur Euskal Herriari); Zeruak eta lurrak (Markesaren alaba); Zezenak dira; Zibilak esan naute (Nere amak baleki); Zugana Manuela...*
- **XIX. eta XX. mendeko euskal musikari batzuk:** Juan Crisóstomo Arriaga, Joan Ignazio Iztueta, Pablo Sarasate, Julián Gayarre, Maurice Ravel, Jesús Gurid, Mikel Laboa, Juan Mari Beltran, Maddi Oihenaar, Ainhoa Arteta...

**Musika-tresna tradizional batzuk:** Txalaparta, tobera, atabala, danbolina, panderoa, txistua, txirula, trikitia, alboka, dultzaina...

#### 3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- **Abeslarien kantak:** Mikel Laboa, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Amaia Zubiria, Pantxo eta Pello, Etxamendi eta Larralde, Imanol, Beaxular
- nito Lertxundi, Maite Idirin, Txomin Artola, Gontzal Mendibil, Anje Duhalde, Niko Etxart, Ruper Ordorika, Mikel Markez, Fermin Muguruza...
- **Musika-taldeen lanak:** Haizea, Errobi, Oskorri, Itoiz, Zarama, Negu Gorriak, Ken Zazpi, Zea Mays, Esne Beltza...
- Abesbatza, otxote eta ahots-taldeetako musika, bertsolarien doinuak...

- **Dantzak:** Biribilketa; Jolas-dantzak: Zapatain, Xan Petrike (Ipurdi-dantza), Esku-dantza, Mahai-gaineko, Katadera-dantza, Almute-dantza...; Txulalai; Zazpi jauzi; Arku-dantza, Makila-dantza, Sagar-dantza, Zinta-dantza, Zahagi-dantza; Dantza askatuak: fandango, arin-arina, jota (trikitrixa),...; Lantzeko inauteria (Baztango zortzikoa); Muxikoak: Hegi, Ostalerrak...; Baltsa, habanera, kontradantza, polka (herri-dantzak diren heinean); Pasodoblea (herri-dantza den heinean); Soka-dantza (Ingurutxoak, Giza dantza, Larrain-dantza, nahi diren aldaerak).

#### 4. MULTZOA. Erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea

- **Arkitektura-lan batzuk:** Hendaiako Abadia jauregia, Bizkaiko Zubia, Butroeko gaztelua, Gasteizko Ajuria-enea, Biarritzeko Udal Kasinoa eta Acuariuma, Erriberriko Errege Jauregia, Donostiako Klub Nautikoa, Arantzazuko basilika, Guggenheim Museoa, Donostiako Iesu eliza, Osakidetza Bilboko eraikina...
- **Artista batzuk:** Francisco Durrio, Valentín eta Ramón Zubiaurre, Ignacio Zuloaga, José Arrue, *Txiki* eta *Nornai*, Aurelio Arteta, Nicolás Lekuona, Mentxu Gal, Eduardo Txillida. Néstor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi, Amable Arias, Agustín Ibarrola, Vicente Ameztoy, Andrés Nagel, Zumeta, Esther Ferrer, Jesús Mari Lazkano, Cristina Iglesias...
- **Artelan interesgarri batzuk:** Bilboko Arte Eder Museoaren *Arriagaren monumentua*; Jon eta Ignazia Zabaloren publizitatea eta ilustrazioak; Jorge Oteizaren *Pietatea*, *Kutxa Metafisikoak*, *Klarionen Laborategiak*...; Ibarrolaren Omako basoa; Bixente Ameztoyren Erremelluriko lanak; Txillidaren *Haizearen Orrazia*; Nestor Basterretxearen *Kosmogonia*; Elena Odriozolaren ilustrazioak...
- **Museoak:** Bilboko Arte Ederretako Museoa eta Guggenheim Museoa; Gasteizko Artium Museoa; Donostiako San Telmo Museoa; Nafarroako Museoa; Altuzako Oteizaren Museoa; Baionako Euskal Museoa; Beste zenbait museo eta arte-zentro (Fournier Museoa, Arabako Arkeologia Museoa, Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoa, Baionako Bonnat Museoa, Bilboko Euskal Museoa, Durangoko Museoa, Gernikako Bakearen Museoa, Getariako Cristóbal Balenziaga Museoa, Ekainberri, Untzi Museoa, Topic Txotxongiloen Zentroa, Oiasso Irungo Erromatar Museoa, Txillida-leku...)

### 5.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 5.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

1. **Ikasleak bere baitan bizitza abesteko, marrazteko eta antzeko jarduerak egiteko beharrezana, adierazteko eta komunikatzeko dituen premietarako egokiak diren arte-produkzioen bidez.**
  - Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du ikasgelako musika-jarduerak, marrazkiak eta plastikako lanak egitean.
  - Bere sentimenduak azaltzen ditu, eta hainbat ideia adierazten ditu museoetan ikusitako edo entzunaldietan proposatutako obren eta inguruan dituen produktu musikal eta bisualen gainean.

- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-sorkari bisual eta musikalek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.
  - Arte-produkzio edo musika-interpretazio bihurtzen ditu gai zehatzen gainean dituen ideiak, oharpenak eta bizipenak.
  - Memoria bisual eta musikala baliatzen du bere produkzioetara eramateko inguruan ikusten duena.
- 2. Arte-hizkuntzen teknika eta baliabide oinarrizkoak baliatzea adierazteko eta komunikatzeko asmoak lantzeko.**
- Oinarrizko teknika, baliabide eta konbentzioak lantzen ditu, eta bere ekoizpenetan erabiltzen.
  - Loturak egiten ditu inguruan dituen arte-formen eta geometriaren artean.
  - Geometria-trazadura oinarrizkoak egiten ditu, prozedura eta metodo arrazoituak erabilia.
  - Espazioa eta denbora irudikatu edo adierazteko moduak ikertzen ditu eguneroko bizitzako egoeretan.
  - Oinarrizko musika-trebetasunak baliatzen ditu musika interpretatzeko eta sortzeko.
  - Musika-mintzairako elementu oinarrizkoak baliatzen ditu adierazpenerako eta sorkuntzarako.
  - Kalitatezko arte-ekoizpenak egiten saiatzen da.
  - Teknika askotarikoak erabiltzen ditu eta teknologiek ematen dituzten aukerak ikertzen ditu.
- 3. Produkzio edo ekoizpen bisual eta musikalak ikertzea, haien hizkuntzetako teknika errazak, materialak eta elementu oinarrizkoak baliatuta.**
- Musika-piezaren batean edo irudiren batean erabilitako prozedurak eta teknikak ezagutzeko interesa ageri du.
  - Natura-ingurunearen ezaugarri formalak, interes estetikoa dutenak, ikertzen ditu, eta hitzen bidez adierazten.
  - Hitzen bidez deskribatzen ditu irudietan eta musika-ereduetan identifikatzen dituen xehetasun teknikoak eta formalak.
  - Obren teknika xumeak, koloreak eta formak bereizten ditu.
  - Proposatzen diren musika-obren edo -piezen funtsezko elementuak bereizten ditu.
- 4. Materialekin, naturako elementuekin, tresnekin, euskarriekin, ahotsarekin, gorputzarekin eta bestelako elementuekin ikertzea, adierazpenak eta komunikazioak lantzeko.**
- Eskuez erabiltzen ditu materialak eta tresnak, eta ahotsa eta gorputza ikertzen ditu bere sormen-lanak egiteko.
  - Ekimenez erabiltzen ditu materialak eta teknikak.
  - Gozatu egiten du ikasgelako musika- eta plastika-jardueretan ikertzen eta sortzen.
  - Ekarpen pertsonalak egiten ditu adierazpen-prozesu jakinetan.
- 5. Lanaren plangintza egitean, proposamen zehatz batean oinarrituta eta arrazoituta ezartzea haren faseak.**

- Ondo pentsatutako proiektu baten barnean egiten ditu lanak.
  - Egiten dituen akatsak onartzen ditu eta haiek zuzentzen saiatzen da.
  - Ordena bati jarraitzen dio garapen artistikoan.
  - Ikasteko karpeta antolatzen ditu osatzen dituen prozesuak.
- 6. Arte-ekoizpen xumeak egitea talde-lanean.**
- Egoki egiten du lan taldean.
  - Jardueretan sortzen diren egoeretara egokitzen da.
  - Errespetatu egiten ditu lanak eta bere zein besteren ekarpenak.
  - Bere ikuspegia ematen du arazoak konpontzeko prozesuetan.
  - Norberak eta taldeak erabili behar dituen material, lanabes eta tresnak zaintzen ditu, haien mantentze-lanak egiten ditu eta garbitu egiten ditu.
  - Musika-emanaldietan, koreografiatan eta bestelako jardueretan duen egitekoa balioesten du.
- 7. Jarduera artistikoen bidezko adierazpen- eta komunikazio-aukerak balioestea, haiek ongizaterako eta hazkuntza pertsonalerako bitartekotzat hartuta.**
- Jarduera artistikoak egitean, konfiantza erakusten du bere ahalmenean.
  - Lan gero eta hobeto egiten saiatzen da.
  - Modu kontzientean eta intentzios erabiltzen ditu baliabide plastiko, bisual eta musikalak, mezu propioak osatzeko.
  - Badaki zer-nolako garrantzia duten konstantziak eta prozesuen errepikapenak, kalitatezko lan artistikoak egiteko.
- 8. Irudiek eta musikak eguneroko bizitzan dituzten esanahi eta erabilerak identifikatzea eta bereiztea.**
- Eguneroko bizitzan erabiltzen diren sinboloak, soinuak, irudiak, musikak eta bestelako elementuak identifikatzen ditu.
  - Artearen, irudien eta musikaren funtzioekin lotutako arazoak planteatzen ditu eta haien gaineko galderak egiten ditu, sorburuko testuinguruei erreparatuta.
  - Obra bisual eta musikalen esanahia identifikatzen du, haien sorburuko testuinguruan.
  - Soinuen eta irudien adierazpen- eta komunikazio-elementuak hautematen ditu.
  - Ohiko erabileraren arabera bilatzen eta ordenatzen ditu dokumentu irudidun eta musikalak.
- 9. Ekoizpen bisual eta musikalen alderdi agerikoak, sozialak, kulturalak eta bestelakoak identifikatzea eta horiek kultura-talde edo une historiko jakinetako adierazpen moduan ulertzea.**
- Testuinguru askotako obren ezaugarri bereizgarriak hautematen eta deskribatzen ditu.
  - Obra bisual eta musikalen sorrera-baldintzen gaineko galderak egiten ditu.
  - Arte eta musika gaietan emakumeen ekoizpena urria izatearen arrazoiak ematen ditu.
  - Beste testuinguru historiko eta kultural batzuetan nola sortzen den eta nola lan egiten den jakin nahi izaten du.
  - Harrera ona egiten die beste kultura batzuetako ekoizpen bisual eta musikalei.

- Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruen gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
- Planteamendu artistikoei buruzko iritziak adierazten eta trukutzen ditu.

**10. Kultura askotako arte-adierazpenen diferentziak eta alderdi komunak identifikatzea eta aniztasun eta aberastasun kulturalako faktore gisa balioestea.**

- Euskal kulturako eta beste jatorri askotako arte-produkzioen sorburuaren berri izateko interesa adierazten du.
- Begirunez begiratzen ditu gainerako pertsonen arte-adierazpenak.
- Hurbileko Euskal Herriko euskal artisten obren gaineko komentarioak egiten ditu.
- Ikastetxeko eta inguruko festa eta kultura-jardueretan parte hartzen du.
- Euskal kulturaren arte-adierazpenek dituzten ezaugarriak identifikatzen eta balioesten ditu.
- Arte-produkzioen arteko diferentziak hautematen ditu, eta elementu kultural, sozial eta historikoekin erlazionatzen ditu.
- Beste herri batzuetako kultura-ondareko arte-adierazpenak ezagutzen eta balioesten ditu.

### 5.1.3.2. Lehen Hezkuntzako 2. zikloa

**1. Hizkuntza artistikoak komunikazio-bide eta espresibide unibertsaltzat hartzeko gai izatea, eta hizkuntza horiek modu arrazoituan erabiliz egitea bere arte-ekoizpenak.**

- Modu kontzientean ikertzen eta konparatzen ditu irudien, musikaren, mugimenduaren eta bestelako elementuen ahalmenak, adierazteko eta komunikatzeko premia asetzeko.
- Hitzez eta idatziz adierazten ditu arte-ekoizpen bisual eta musikal askotarikoek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.
- Teknologia-oinarria duten bitarteko askotarikoak erabiltzen ditu adierazpenerako eta komunikaziorako.
- Arte-ekoizpenen eta adierazpenerako eta komunikaziorako xedeen arteko loturak egiten ditu.

**2. Bere ekoizpen bisual eta musikaletan unean-unean dituen premia espresibo eta komunikatiboetarako egokiak diren teknikak, baliabideak eta konbentzioak erabiltzen jakitea eta txukun-txukun argudiatzea bere hautuak.**

- Proposatutako komunikazio- edo adierazpen-xederako egokiak diren euskarri, prozedura eta teknikak erabiltzen ditu.
- Egiten ari den proiektuaren xedeari lotuta erabiltzen ditu hizkuntza plastiko, bisual eta musikalen baliabideak.
- Musika sortu eta interpretatzean, musika-notazioaren oinarrizko elementuak erabiltzen ditu erritmo- eta melodia-eskema xumeak irakurtzeko.
- Lantzen ari den proiektuari erreparatuta, ikus-entzunezko bitartekoak eta bitarteko teknologikoak erabiltzen ditu.
- Kalitatezko interpretazioak egiten saiatzen da musika egin, ahotsa eta musika-tresnak erabili eta gorputz-adierazpena lantzean.



- Geometriaren baliabideak erabiltzen ditu espazioaren, objektuen eta bestelako elementuen irudikatze-premiekin dakartzaten arazoei irtenbidea emateko.
- 3. Musikan eta arte bisualetan baliabide teknikoekin eta hizkuntza artistikoarekin lotutako arazo eta auziei zer konponbide eman zaien jakitea eta konponbideok erreferente estetikoetat hartzeko gai izatea.**
- Arte-ekoizpenetan erabilitako teknikak, prozesuak eta emaitzak aztertzen eta konparatzen ditu.
  - Kultura musikal eta bisualeko obren barne-antolamenduaren berri izateko interesa sentitzen du.
  - Musika-konposizio eta obra bisual eta plastikoetan erabili diren teknikak aztertzen ditu, eta moldatu egiten ditu bere sortze-lanean.
  - Arte-proposamenen gaineko iritzia azaltzen du, aurrez eskuratu duen jakintzaren gainean eraikitako irizpideekin arrazoituta.
  - Uneko eta beste garai batzuetako arte-adierazpenak aztertzeko eta balioesteko interesa ageri du.
- 4. Bere arte-ekoizpenetan irudimenez eta ekimenez jokatzeari bere ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko.**
- Aldaketak egiten ditu elementu eta baliabideetan, bestelako esanahiak lortzeko.
  - Irudimena du bere bizipenak eta egin dituen aurkikuntzak adierazteko.
  - Beste pertsona batzuen ideiak bilatzen eta berrerabiltzen ditu, bere sormen-premietara egokituta.
  - Pieza laburrak inprobisatzen ditu irudien, soinuen, ideien, kontakizunen eta bestelako estimuluen bultzadaz.
  - Material, tresna eta sonoritateen adierazpen-aukerak ikertzen ditu, teknologien esparrukoak lehenetsita.
  - Adierazteko eta komunikatzeko asmoekin bat datozkion erreferenteak eta ideiak bilatzen ditu ingurunean eta Euskal Herriko eta beste tokietako arte-ekoizpenetan.
- 5. Landu beharreko proiektuaz gogoeta egiteko gai izatea eta beraren eta talde osoaren interesak kontuan hartzea zereginak antolatzean.**
- Gogoan du zer lan egin behar duen eta lan hori nola egin hausnartzen du.
  - Akatsak hautemanen gero, prozesuak berrabiarazi edo berrantolatzen ditu.
  - Hainbat iturritan bilatzen ditu lan egiteko behar dituen baliabideak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.
  - Egoki antolatzen eta justifikatzen ditu bere proiektuen emaitzak.
- 6. Taldeko arte-ekoizpenetan parte hartzea, eta horietan, arauak betetzea, proposamenak egitea, eta konponbideak iradokitzea.**
- Bere gain hartzen du taldean dagokion lana eta lan horretaz arduratzen da.
  - Onartu eta balioetsi egiten ditu gainerako pertsonen iritzia.
  - Arrazoitu egiten ditu taldeko lanari egiten dizkion ekarpenak.
  - Materialak, tresnak eta ikasgela garbi eta ordenan uzteko arduraren hartzen du.
  - Taldeko pertsona guztiekin lan egitea onartzen du.

- Arte-jardueretan lankidetzak eta ekarpen indibidualek duten garrantziaz ohartzen da eta haien beharrezana balioesten du.
- 7. Arte-adierazpenen bidez zenbait ideia, gertaera, esperientzia eta bizipen sormenez adieraztea, eta horretan, aintzat hartzea egiten dituen ekarpenek bere buruaren eta talde osoaren hazkunde pertsonala dakartela.**
- Arteen bidez desinhibizioz adierazteko jarrera erakusten du.
  - Ideiak berregiten ditu, askotariko baliabide teknikoak eta espresiboak erabilia.
  - Ideia pertsonalen ekarpena egiten du, konfiantzaz, auzi artistikoak erabakitzeko.
  - Eginaren ekinez sortutako produktuek dakarten satisfazioa bizi du.
- 8. Hurbileko esperientziak oinarri hartuta, historian zehar eta gurean nahiz kanpoko kulturetan sortutako kultura bisual eta musikalek izandako funtzio ugariak identifikatzea.**
- Garai askotako eta euskal ondareko eta beste kultura askotako artelan bisual eta musikalen erlazioak egiten ditu, haien funtzio sozialari erreparatuta.
  - Erabileraren arabera sailkatzen ditu dokumentu bisualak eta musikalak.
  - Baliabide formal, bisual eta musikalen erabilera aztertzen eta arrazoitzen du, produktu artistiko edo mediatikoen zentzua osatzen laguntzen duten aldetik.
  - Komunikabideek erabilitako irudiek eta musikak igorritako mezuen helburuak identifikatzen ditu.
- 9. Ikuspegi kritikoz ulertzea artelanen ekoizpenean zer-nolako garrantzi eta eragin itzela duten faktore sozialek (botere- eta genero-harremanek, ideologiek...).**
- Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruaren gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
  - Obrak zer gizarte motatan sortu diren jakiteko eta obrek gizarte horietan duten egitekoaren berri izateko jakin-mina du.
  - Arte eta musika gaietan emakumeen ekoizpena urria izatearen arrazoiak ematen ditu.
  - Obretan ageri diren gizarte-arazoei buruzko galdera edo itaunak egiten ditu.
  - Ikuspegi kritikoz balioesten ditu zenbait irudi- eta soinu-produkzioek pertsonengan duten eragina.
- 10. Jatorri eta kultura askotariko arte-adierazpenen arteko lotura estuak ezagutzea, eta hori elementu aberasgarritzat eta behin eta berriz errepikatzen den prozesu historikotzat hartzea.**
- Ikuskizunen eta haien kontsumoaren gaineko iritzia du.
  - Ikastetxeko eta inguruko festa eta kultura-jardueretan laguntzen du.
  - Musika-errepertorio propio bat izateko interesa erakusten du.
  - Kulturen eta gizartearen arteko erlazioak identifikatzen ditu zenbait arte-adierazpenetan.
  - Arte-produkzioen arteko diferentziak interpretatzen ditu, eta Euskal Herriko elementu kultural, sozial eta historikoekin erlazionatzen ditu.
  - Kulturen arteko hartu-emanak identifikatzen ditu eguneroko bizitzako produktu estetikoetan.

- Euskal Herriko artearen eta tradizioen gaineko interesa ageri du eta kulturen dibertsitatea balioesten eta errespetatzen du.

## 6. KOMPETENTZIA MOTORRA

### 6.1. GORPUTZ-HEZKUNTZA

#### 6.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Gorputz Hezkuntza arloko irakaskuntzak konpetentzia hauek lortzea du helburu etapa honetan:

1. Hautemate-gaitasunak eta ahalmen motorrak aztertzea, nork bere buruarenganako konfiantza eta norberaren ongizatea sustatuz, osasunerako onuragarria izan dadin.
2. Trebetasun eta ahalmen fisikoak garatzea, haurren eboluzio-prozesuarekin bat, jolasa erabiliz, oinarrizko baliabide den aldetik.
3. Problema motorrak ebazteko printzipioak eta arauak ezagutzea, hautatzea eta aplikatzea, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta arte- eta adierazpen-jarduerak praktikatzean eraginkortasunez eta autonomiaz aritzea, ahalegina erregulatuz, dosifikatuz eta balioetsiz, eta norberaren aukeren eta zereginaren nolakotasunaren arabera maila jakin batera iristea nork bere buruari ezartzen dion eskakizunean.
4. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatu.
5. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.
6. Jarduera fisikoa neurritz eta maiz egitearen garrantzia balioestea, norberarekiko nahiz besteekiko erantzukizuneko jarrera erakusteko, eta ariketa fisikoak, higieenak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean dituzten eraginak aintzat hartzea.
7. Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatuz, eta aisia-kultura aberasgarri baten oinarriak eraikiz.

#### 6.1.2. EDUKIAK

##### 6.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Gorputza eta mugimendua dira eskolak ikasgai honetan egingo duen lan hezitzailearen oinarrizko ardatzak. Alde batetik, gorputz-hezkuntza eta mugimendua landuko dira, dohain fisikoak eta motorrak hobetzeko, eta aldi berean, ohitura osasungarrien garrantzia finkatuko da. Eta bestetik, gorputz-hezkuntza eta mugimendua landuz, konpetentzia afektiboak eta harremanekin lotuak ere, gizartean bizitzeko beharrezkoak direnak, bereganatuko dituzte ikasleek.

Edukien antolaketa lotuta dago Lehen Hezkuntzan Gorputz Hezkuntzaren oinarri diren ardatzekin: motrizitatearekin lotutako gaitasun kognitiboak, fisikoak, emozionalak, eta harreman-gaitasunak; motrizitatearen forma sozialak eta kulturalak bereganatzea; eta balioetan hezte eta osasunerako hezkuntza.

Planteamendu hori abiapuntu hartuta, arlo hau bost multzotan egituratu da. Motrizitatearekin lotutako gaitasun edo ahalmenak batik bat bigarren eta hirugarren multzoetan landuko dira; hirugarren eta laugarren multzoak lotuta daude batez ere motrizitatearen forma kulturalak bereganatzearekin; eta osasunerako hezkuntzak eta balioetan hezteak, hurrenez hurren, laugarren eta bosgarren multzoekin dute zerikusia.

1. multzoan, diziplina-arlo guztietan komunak diren prozedurazko eta jarrerazko edukiak bildu dira. Oinarrizko zehar-kompetentziak gara daitezke haiekin lotutako prozedurak eta jarrerak diziplina-arloetako irakaskuntza- eta ikaskuntza-egoeretan aplikatzen diren heinean soilik.

2. multzoan (Norberaren ezagutza eta kontrola), hautemate-gaitasuna eta ahalmen nahiz trebetasun motorrak garatzeko edukiak adierazi dira. Aipatutako gaitasun horiek landuz, norberaren gorputza ezagutzea lortu nahi da, funtsezkoa baita norberaren gorputz-irudia garatzeko zein aurrera begira ikaskuntza motorrak bereganatzeko, eta trebetasun motorra garatuz, norberaren gorputzaren kontrola izatea lortu nahi da, aldi berean ikasleak eraginkortasunez mugitu ahal izateko edukiak landuz. Hortaz, mugimendua menderatzearekin eta kontrol motorrarekin lotutako gaitasunak landuko dira. Bereziki nabarmenduko dira mugimendua egoera berrietara egokitzeko erabakiak hartzearekin lotutako edukiak.

3. multzoan (Gorputz-adierazpena eta komunikazioa), gorputzaren bidez adierazi eta komunikatuko dira emozioak, sentimenduak eta ideiak, zenbait teknika baliatuz. Multzo horretako edukiak jolas moduan eta alderdi emozionala landuz bideratuko direnez, lagungarriak izango dira norberak gozatzeko, bai eta aberasgarriak ere.

4. multzoan (Jarduera fisikoa eta osasuna), osasun fisikoari eta dohain fisiko-motorrei buruzko edukiak landuko dira, kirol-jarduerarekin lotuz, eragina baitute banakoaren garapenean eta haren bizi-kalitatearen hobekuntzan. Osasuna hezkuntza fisikoaren barnean esparru garrantzitsua dela ulertuta, hainbat alderdi landuko dira, lotuta daudenak hautemate- eta koordinazio- baldintzatzaileekin eta baldintzatzaile fisikoekin, eta bide ematen dutenak gorputza ezagutzeko nahiz oinarrizko trebetasunak eta trebetasun espezifikoak gauzatzeko, bai eta jarduera fisikoarekin lotutako ohiturak hartzeko ere, norberaren ongizatea nahiz ongizate soziala lortze aldera.

Azkenik, 5. multzoan (Kultura motorra: Aisia eta denbora librerako hezkuntza), jolasarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako edukiak landuko dira, giza motrizitatearen kultura-adierazpen gisa ulertuta. Jolasa baliagarria den arren estrategia metodologiko gisa, aintzat hartu behar da edukien artean ere, balio antropologiko eta kultural garrantzitsua baitu. Gorputz Hezkuntzan jolasak eta kirolak irakastea hezigarria da, eta kompetentzia motorra hobetzeko bitartekoa ere bai; eta gainera, jarduera horien bidez, aldi berean lankidetzeta eta parte-hartzea bultzatzen dira, eta elkartasuna, elkarlana eta diskriminazio eza sustatzeko jarrerak garatzen dira.

Ikasgai honetako edukiak egituratzeko bereizi diren multzo horietan, modu integratuan aurkeztu dira kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak. Proposatutako sekuentziazioaren helburua da ikasleak gero eta autonomia handiagoa izatea jarduera fisikoa egitean. Bestalde, adin horretan gaitasun kognitiboak handiagoak direnez, jarduerak praktikan jartzeko moduak ezagutzera bidera daiteke heziketa, horrela ikasle bakoitzak hauta ditzan, bere gaitasunen, interesen eta beharren arabera.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua zenbait sekuentzian antolatu da, globaletik espezifikora, eta dibertsitatearen irizpidea lehenetsi da espezializazioaren gainera. Prozesu horretan, edozein motatako diskriminazioak eragotzi behar dira, hala nola sexuagatikoak, gizarte-klaseagatikoak, arrazagatikoak, pertsona arteko desberdintasunengatikoak edo gaitasun-desberdintasunagatikoak, eta horretarako, ezarrita dauden gizarte-estereotipoak eta jarrera xenofoboak baztertu behar dira.

Etap honetako ikuspegi metodologikoak jolas-izaera du, eta hortaz, jolasaren testuingurua baliatuko da bat-bateko ikaskuntzaren esparru gisa. Oso garrantzitsuak dira jarrerazko edukiak eta eduki kulturalak, baina kontuan hartu behar da, aldi berean, prozedurazko edukiak ere oso garrantzitsuak direla etapa honetan. Bestalde, beharrezkoa da garapen motorra eta kognitiboa lotzea; izan ere, espazioari, denborari eta gorputzari buruzko lehen nozioak finkatzean mugimenduaren hainbat egoeratan dauden erlazio logikoak hartzen dira oinarri.

Etap honen hedadura eta dibertsitatea direla-eta, desberdintasunak daude haurren eboluzioan, eta beharrezkoa da aldiak bereiztea; lehenengoa sei urtetik zortzira artekoa izango litzateke. Adin horretako haurrak jada aurrera egiten ari dira pixkanaka "niaren" deszentrazio-faserantz eta baieztapenerantz. Gorputz Hezkuntzan ikasleei lagundu egin behar zaie, beren izan globala errespetatuz eta beren mugimendu-beharrak asez, askotariko proposamenen bidez, horrela arreta denbora luzez jartzeko duten gaitasun urriari aurre egiteko.

Adin horretatik aurrera, hamabi urteetara arte, haurrek aurrera egiten jarraitzen dute eboluzio horretan, globaltasunetik dibertsifikaziora. Gorputz Hezkuntzak modu aktiboan lagundu behar du niaren pixkanakako baieztapen-prozesu horretan. Era berean, esparru egokia eskaini behar du deszentrazioa norberaren ikuspegitik burutzeko, eta horrela bestea eta taldea ulertzeko gaitasunean aurrera egin ahal izateko, batez ere jolasen eta kirolen bitartez.

### 6.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideien, lanen eta proiektuen bideragarritasuna planifikatzea eta aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.

- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Norberaren ezagutza eta kontrola

- Barne- eta kanpo-estimuluekiko pertzepzio-ahalmenak. Norberaren pertzepzio- edo hautemate-ahalmenak ikertzea eta mugimenduarekin duten erlazioa arakatzea.
- Sentsazioak bizitzea eta bereiztea.
- Gorputzaren eskema orokorra eta atalkakoa arakatzea eta egituratzea.
- Norberaren gorputzaren kontzientzia hartzea, tentsioarekiko, erlaxazioarekiko eta arnasarekiko harremanean.
- Gorputzaren jarrerak ikertzea.
- Lateralitatea eta haren espazio-proiekzioa finkatzea.
- Oreka eta desorekako egoerak lantzea. Oreka estatikoa eta dinamikoa.
- Espazio eta denboraren pertzepzioa.
- Norberaren gorputza eta gainerakoena den bezala onartzea.
- Mugitzeko moduak eta mugimendu-aukerak. Oinarrizko trebetasun motorrak erabiltzeko moduak lantzea eta kontrolatzea.
- Arazo motor xumeak ebaztea, gorputza kontrolatu eta menderatuta.

## 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-aukerak ikertzea eta erabiltzea. Gorputza eta mugimendua, adierazteko eta komunikatzeko bitartekoak diren aldetik.
- Euskal dantzen oinarrizko urratsak eta jauziak sinkronizatzea.
- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez kanporatzea emozioak eta sentimenduak.
- Pertsonaia errealak eta fikziozkoak eta haien testuinguru dramatikoak antzetztea. Objektuak, materialak eta haien adierazpen-aukerak baliatzea. Gorputzaren bidezko adierazpenaren eta komunikazioaren bidez gozatzea.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea.
- Adierazteko moduen arteko diferentziak onartzea eta errespetatzea.
- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoak ikertzea eta horiez jabetzea.

## 4. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Ariketa fisikoaren alorrean, gorputza garbitzeko, jateko eta jarrera jakinak lantzeko ohitura oinarrizkoak eskuratzea.
- Ariketa fisikoak osasunarekin eta ongizatearekin duen harremana. Ariketa fisikoak osasunari dakartzkion onurak aitortzea. Egoera fisiko orokorra hobetzea, osasunari begira.

- Seguru jokatzeko ariketa fisikoa egitean. Beroketak egitea, esfortzuak neurtzea eta erlaxatzea.

## 5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- Jolasa, dantza eta kirola, kultura guztien, eta berariaz, euskal kulturaren, jarduera komunak diren aldetik.
- Jolasetan parte hartzea eta kirolak egiten hastea.
- Jolasaren oinarritzko estrategiak deskubritzea; hau da, lankidetzak, aurkaritza eta lankidetzak/aurkaritza.
- Jolasean ari diren pertsonak errespetatzea eta jokabide antisozialak baztertzea.
- Jolas-arauak ulertzea, onartzea eta betetzea eta jarrera arduratsua izatea ezarritako estrategiekin.
- Jolasa balioestea, gozatzeko, harremanak izateko eta aisiako denbora eta esfortzua jolasetan eta kirolan erabiltzeko modua ematen duen aldetik.
- Teknologia berriak erabiltzea Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako herri-izaerako jolas eta tradizioei buruzko informazioa bilatzeko.

### 6.1.2.3.- Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.



- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Nork bere burua ezagutzea eta kontrolatzea

- Mugimenduari lotzen zaizkion elementu organiko eta funtzionalak deskubritzea. Norberaren gorputzaren kontzientzia hartzea, tentsioarekiko, erlaxazioarekiko eta arnasarekiko harremanean. Norberaren gorputzaren eta gainerako pertsonen gorputzaren errepresentazioa.
- Adierazteko eta mugitzeko beharizanetara egokitzea gorputzaren jarrera, era erraz eta orekatuan.
- Norberaren eta gainerako pertsonen gorputzaren egoera balioestea eta onartzea, eta jarrera kritikoa izatea gizartean gorputzarekiko dagoen eredu estetikoarekiko.
- Egoki erabiltzea estimuluen bereizketa selektiboa eta pertzepzioaren aurrerapena.
- Nolabaiteko zailtasuna duten mugimenduak egitea nagusiak ez diren gorputz-atalekin.
- Oreka estatiko eta dinamikoa egoera konplexuetan.
- Espazio-denbora antolatzea ekintza eta egoera motor konplexuetan.
- Efizientzia eta sormenez egokitzea trebetasun motorren erabilera, gero eta zailtasun handiagoko jardun-testuinguruetara.
- Gorputza eta mugimendua menderatzea, ekintza-aurreko ikuspegitik.
- Ahalmen fisiko eta motorrak, mugitzeko ekintzaren oinarritzko osagai diren aldetik.
- Mugimenduaren ikuspegitik ondo egindako lana balioestea.

## 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Gorputza eta mugimendua. Gorputzaren mintzaiararen aukerak eta baliabideak ikertzea eta horien kontzientzia izatea.
- Espazio-denborako egituretara egokitzea mugimendua eta euskal kulturako nahiz beste kultura batzuetako dantzak eta koreografiak egitea.
- Mugimenduak osatzea, erritmoaren eta musikaren harian. Dantza eta koreografia xumeak prestatzea.
- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak.
- Objektu eta materialez lagunduta, errepresentazio eta inprobisazio artistikoak egitea gorputz-mintzairarekin.
- Gorputzaren adierazpen- eta komunikazio-erabilerak balioestea.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea.

- Generoen desberdintasunen arteko estereotipoek, gorputzaren eta mugimenduen adierazpen-ahalmenen murrizketan duten eragina ikertzea eta horiez jabetzea.
- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoak ikertzea eta horien gaineko ezagutzan sakontzea.

#### 4. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Postura eta elikadura osasungarriak izan eta gorputza autonomiaz garbitzeko ohiturak hartzea.
- Ariketa fisikoak osasunari dakartzkion onurak aitortu eta osasungarriak ez diren jokabideak identifikatzea.
- Egoera fisikoa hobetzea, osasunari begira.
- Lesioak prebenitzea ariketa fisikoa egitean. Beroketak egitea, esfortzuak neurtzea eta errekupeazioa zaintzea.
- Segurtasun-neurriak hartzea ariketa fisikoa egitean, ingurunearekiko harremanean.
- Ariketa fisikoa balioestea egoera fisikoari eusteko eta osasuna hobetzeko jarduera den aldetik.

#### 5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- Jolasa eta kirola, jardun sozial eta kulturalak diren aldetik.
- Jolas eta kirol motak. Jolasak eta kirolak egitea, euskal herri-kirolak barne, modalitate askotarikoak eta gero eta zailtasun handiagokoak.
- Jolasaren oinarriko estrategien erabilera egokia: lankidetzak, aurkaritzak eta lankidetzak/aurkaritzak.
- Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako herri-izaerako kirol, dantza eta jolas tradizionalak egitea eta ikertzea.
- Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea.
- Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, preferentziak eta aurreiritziak alde batera utzita.
- Jolasari eta kirolari balioa ematea, gozatzeko, harremanak izateko eta aisia-denbora gogobetez erabiltzeko modua diren aldetik.
- Norberaren nortasunaren eta kulturaren ezaugarriak errespetatu eta eskolan izandako bizipenak balioestea.
- Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, ingurumen-inpaktu arina eginez eta ingurumena zaintzen lagunduz.
- Teknologia berriak erabiltzea kirolei, kirol-ekitaldiei, bibliografiari eta antzeko alderdiei buruzko informazioa bilatzeko.

### 6.1.2.4.- Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- **Euskal dantzak:** Euskal tradizioko dantza ezagunenak: biribilketa, txulalai, esku dantza, San Petrike, zazpi jauzi, Zuberoako makil dantza, Axuri beltza...

#### 5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- **Berezko euskal jolasak:** Ez da bakoitzak nahi duena egitea; proposamen batetik edo gehiagotik sortzen da, harremanak eta giroa egokiak diren lekuan. Arauarenganako errespetuak orekatzen du harreman hori; hori ez baldin bada horrela gertatzen, jolasa erasokorra, pultsionala bilakatuko da. Ezagutu eta burutzekoak, esaterako: Kooperatiboak: eltzea, sagar jalea,..; Ezkutaketakoak: ezkutaketan, kukua, altxor bila,..; Erritmikoak: soka-saltoak...; Harrapaketakoak: zaldia eta zalduna, marron...; Eskuzkoak: hatzak, esku kolpeak, txalopintxalo; Apunteriakoak: plotten, makila botatzea, kanikak, tiragoma...; Orekazkoak: txingotan, oilar borroka...; Jolas libreak: xiba, tortoloxetan...
- **Berezko euskal jokoak:** Aberastasun psikomotorra, zein sozomotorra eta kulturala duten jokoak dira eta gizarteratze prozesuak bideratzeko aproposak dira: Espazioaren antolaketa inguruan: ikurrinaren defentsa jokoak, orientazio lasterketa, artzain jokoa...; Dimentsio kognitiboa: musa...
- **Lanbide batean sorleku duten euskal jolas-joko arautuak:** Nekazal-itsas giroan sortutakoak dira gehienak, eraikuntza lanetatik datozenak ere egon arren (palankariak); Euskal nortasunezko kirolak berrindartu eta batzuk berpiztu, gure herriaren berezko ohitura eta gizarte eredu baten bila abiatzeko; Garapena zein hedapena honako ezaugarri hauek dituztenen artean egingo da bereiziki: Tira: sokatira, arrauna..; Korrika: zaku proba, orientazio lasterketa, lokotxak...; Jauzi: zaku lasterketa, saltari makila...; Altxa: txingak...; Jaurti: palanka, boloak, toka...
- **Euskal pilota:** Euskal pilotaren barne sartzen diren joko motak ugariak izanik ere, bi multzotan sailka daitezke: Joko zuzenak (aurrez aurrekoak): bote luzea, laxoa eta errebotea; Zeharkako jokoak (horma bitarteko dela jokatzeko direnak): frontoi motzeko, luzeko eta trinketeko modalitateak. Multzo bakoitzeko joko mota bakoitzak erabiltzen dituen tresnen izenak, espazioa antolatzeko erak eta jokatzeko arauak.

### 6.1.3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 6.1.3.1.- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

1. **Ikusi, entzun eta ukitzeko estimuluak identifikatzea eta gorputzak horiekiko erreakzioak izatea, estimulu horien ezaugarrietara egokitutako erantzun motorrak emateko.**
  - Ukimenaren bidez ezagutzen ditu objektuak eta egiturak, eta gorputzak erantzun egiten du estimulu horiekin.
  - Eguneroko bizitzako soinuen jatorria identifikatzen du eta horiekin erreakzionatzen du.
  - Ikusi eta entzundakoa errepikatzen du haiek desagertu ondoren.

2. **Askotariko mugimendu eta jauziak egitea, berme-puntuak, zabalerak eta maiztasunak aldatuta, koordinazio egokiz eta espazioan orientazio ona izanda, eta bi trebetasun horiek koordinazioz eta orekaz konbinatzea, ariketaren baldintzen arabera doituta gorputzaren mugimenduak.**
  - Eguneroko bizitzako egitekoen ezaugarriei egoki zaizkien jarrerak hartzen ditu.
  - Oinarrizko trebetasun eta abileziak erabiltzea dakarten jokoetan aritzen da, herri-izaerako euskal jokoak barne.
  - Espazioaren eta denboraren baldintzetara (iraupenera, erritmora, mugimendu-segidara, noranzkora, jarraibideetara eta gainerako baldintzetara) egokitzen ditu gorputzaren mugimenduak.
  - Mugimendu eta jauzi askotarikoak egiten ditu: norabide-aldaketak, noranzko-aldaketak, etab.
3. **Jaurtiketak, harrerak eta objektuen eskuzko erabilpena dakarten bestelako ariketak egitea, gorputz-atalak koordinatuta eta gorputza egoki kokatuta.**
  - Espazioaren baldintzei, direkzioari eta orientazioari egokitzen ditu objektuen jaurtiketak eta harrerak.
  - Gorputz-atalak koordinatzen ditu jaurtiketak eta harrerak egitean.
  - Hartzen dituen gorputz-jarrerak deskribatzen ditu.
  - Norberaren eta besteren mugak aintzat hartzen eta errespetatzen ditu.
  - Objektuak jaurti edo hartzeko mugimenduak dituzten jolasetan aritzen da, herri-izaerako euskal jolasetan barne.
4. **Gorputza zenbait jarreratan jartzea eta orekatzea, tentsioa, erlaxazioa eta arnasketa kontrolatuz.**
  - Eguneroko bizitzako egitekoen ezaugarriei egoki zaizkien jarrerak hartzen ditu.
  - Badaki nola aldatzen den arnasketa, ariketa motaren arabera.
  - Arnasaldi sakonak egiten ditu eta denbora batez eusten dio aireari, hura kanporatu gabe.
  - Egoerari dagozkion jarrera egokiak hartzen ditu: eserita, zutik...
  - Gorputzaren ataletako gihar-tonua kontrolatzen du, orekari eusteko.
5. **Bira egitea luzetarako eta zeharkako ardatzen inguruan, noizean behin gorputz-atalen jarrerak aldatuta, eta erantzun motorrak hobetzea, baldin eta hala egin behar baldin bada unean uneko gorputz-jardueran.**
  - Gorputzaren ardatzaz eta haren atalez jabetzen da gorputzaren jarrera askotarikoetan.
  - Birak egiten ditu, arriskurik gabe, luzerako eta zeharkako ardatzen inguruan.
6. **Jolasetan parte hartzea eta gozatzea, bai alderdi motorretan, bai ikaskideekiko harremanetan, eta arauak ezagutzea eta gainerako pertsonak onartzeko jarrera izatea.**
  - Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako jolasetan jolasten da, eta horietan, egoki erabiltzen ditu oinarrizko trebetasunak eta abileziak (mugimenduak, jauziak, biratzeak, jaurtiketak eta harrerak), bere bilakaera-prozesuaren ildoan.
  - Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako herri-izaerako jolas eta tradizioei buruzko informazioa bilatzen eta kudeatzen du.

- Gogoz eta inplikaturata parte hartzen du proposatzen diren ariketa fisikoetan.
  - Jolasen oinarrian dauden balioak identifikatzen ditu.
  - Joko-arauak ezagutzen eta betetzen ditu, eta garaipenak eta porrotak onartzen ditu.
  - Bere gaitasunen garapen maila errespetatzen du.
  - Jolasetako rolak onartzen ditu.
  - Jolaskideak errespetatzen ditu, ez ditu diskriminatzen.
  - Gozatzeko, harremanak izateko eta denbora libre erabiltzeko bitarteko gisa bizi du jolasa.
- 7. Erritmo-egitura xumeak proposatzez eta jotzea eta horiek gorputzaren bidez adieraztea, tresnekin eta tresnarik gabe.**
- Erritmo askotarikoak adierazten ditu mugimenduaren bidez.
  - Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako dantzak dantzatzen ditu.
  - Erritmoak jotzen ditu tresnekin eta tresnarik gabe, ikaskideek sortutako mugimendu-sekuentzietatik abiatuta.
  - Erritmoak asmatzen ditu tresnekin eta tresnarik gabe, eta gorputzaren mugimenduaren bidez adierazten ditu (lekuz aldatuz, jauzi eginez, txaloak joz, kolpeak emanez, balantza eginez edo biraka).
- 8. Gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzea eta taldean inplikatzea ideiak eta sentimenduak adierazteko eta pertsonaia eta istorio egiazko eta asmatuak antzezteko.**
- Hizkuntzaren eta/edo mugimenduaren bidez adierazten du sentitzen duena.
  - Pertsonaiak antzezten ditu, gorputz-adierazpenaren oinarriko teknikak baliatuta.
  - Interesa, berezotasuna eta sormena adierazten ditu gorputz-adierazpeneko jardueretan.
  - Mugimendu berezkoak eta sortzaileak lantzen ditu.
  - Adierazpen modu berriak sortzen ditu gorputzaren adierazpenaz baliatuta.
  - Gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu sentimenduak eta ideiak komunikatzeko.
  - Hitzen bidez adierazten ditu ikaskideek gorputzaren eta mugimenduaren bidez adierazten dituzten mezuak.
  - Lankidetzako harremanak ditu ikaskideekin eta erregulatu egiten ditu bere emozioak.
  - Istorio egiazko eta asmatu laburrak kontatzen ditu, eta pertsonaiak antzezten ditu gorputzaren adierazpenari dagozkion oinarriko teknikak erabilia, eta horretarako, espazioa, denbora eta intentsitatea konbinatzen ditu besteak beste, haiei adierazpen-nabardura bat emanez.
  - Euskal tradizio ludikoetan (dantzetan, inauterietan, kiroleetan) parte hartzen du, eta horien guztien ezaugarriak ezagutzen ditu, gogotsu parte hartzeko.
- 9. Jokabide aktiboak izatea, ariketa fisikoak osasunerako duen balioa aintzat hartuta, gorputza eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak zaintzeko interesa izatea, eta drogen kontsumoa eta portaera-mendetasunak sor ditzaketen jokabideak saihestea.**
- Janari osasungarriek organismoari egiten dioten onura balioesten du.

- Askotariko jakiak jaten ditu, elikadura aberatsa du, eta bere ohiko dietan ditu, besteak beste, frutak eta barazkiak.
- Badaki zer-nolako garrantzia duen zerbait jateak ariketa fisikoa egin aurretik.
- Ariketa fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak janzen ditu.
- Osasun eta garbitasuneko ohiturak ditu ariketa fisikoa egitean.
- Ohitura osasungarriak eta osasungarri ez direnak bereizten ditu.
- Drogak eta substantziarik gabeko mendekotasunak arbuiatzen ditu, pertsonen garapenerako kaltegarriak direlako.
- Onuragarri deritza ariketa fisikoa egiteari.
- Gozatu egiten du kirola egiten.
- Ariketa fisiko jakinek dakartzaten balizko arrisku indibidualak eta kolektiboak identifikatzen ditu.

### 6.1.3.2.- Lehen Hezkuntzako 2. Zikloa

#### 1. Ezezagunak eta zalantzarriak diren ingurune askotarikoetan egokitzea lekualdatzeak eta jauziak.

- Arazo motorrak konpontzeko, egokitu egiten ditu trebetasunak ingurune baldintza gero eta konplexuagoetara.
- Espazioan orientatzen du bere burua, erreferentzia-puntuak hartuta.

#### 2. Jolasetan eta jarduera motorretan pilotak edo beste higikari batzuk jaurtitzea, pasatzea eta jasotzea, kontrola galdu gabe eta behar bezala egokituz joko-zelaiko egoerari, distantziei eta ibilbideei.

- Objektuak koordinazio egokiz erabiltzen ditu jolasetan, eta besteak beste, herri-izaerako euskal jokoetan (pilotan, etab.).
- Joko-egoeretan, objektuak pasatu, jaurti eta eramatean, egokitu egiten du haien ibilbidea.
- Gorputza egoki zuzentzen du harrerak eta geldialdiak egiteko, objektuaren direkzioari erreparatuta.
- Hartzen dituen gorputz-jarrerak deskribatzen ditu.
- Objektuen erabilera menderatzen du jolas-egoeretan.
- Badu ibilbideetara eta abiaduretara aurreratzeko gaitasunik.
- Trebetasun motorrak erabiltzen ditu ohiko inguruneetan sortzen zaizkion arazoak konpontzeko.
- Kirola egiten hasteko oinarriko trebetasun motorrak eskuratzen ditu.
- Norberaren eta besteren mugak aintzat hartzen eta errespetatzen ditu.

#### 3. Gorputza zenbait jarreratan jartzea eta orekatzea, tentsioa, erlaxazioa eta arnasketa kontrolatuz.

- Eguneroko bizitzako egitekoen ezaugarriei egoki zaizkien jarrerak hartzen ditu.
- Arnasketaren kontzientzia du eta hura kontrolatzen du jarduerak egitean.

- Egoera motorrari dagozkion jarrera egokiak hartzen ditu.
  - Gorputz-ataletako gihar-tonua kontrolatzen du, proposatutako jarduera motari erreparatuta.
  - Nolabaiteko zailtasuna duten mugimenduak egiten ditu nagusiak ez diren gorputz-atalekin.
- 4. Jarrera aktiboak izatea, egoera fisikoa oro har hobetzeko, eta jarduerak egitean kontuan hartzea norberaren gorputzaren eta mugimendu-gaitasunaren aukerak eta mugak.**
- Bere egoera fisikoaren gaineko interesa erakusten du.
  - Esfortzuak neurtzen ditu ariketa fisikoa egitean.
  - Bere trebetasun eta mugetara egokitzen du ariketa fisikoa.
- 5. Modu koordinatuan eta lankidetzan jardutea, erronkak ebazteko edo taldeko jolasetan aurkari bati edo batzuei aurre egiteko, bai erasotzaile gisa, bai defendatzaile gisa.**
- Lagunduz eta elkarlanean aritzen da jolasean ikaskideekin.
  - Talde-jokoetan, egoki geldiarazten du objektu mugigarria.
  - Aurkarien aurrerapena oztopatzen du talde-jokoetan.
  - Egoki okupatzen ditu espazioak, bai lankidetzarako, bai aurkaritzarako.
  - Jakintzaren eta estrategien bidez ebazten ditu arazo motorrak.
  - Jolas-egoerak sortzen parte hartzen du.
- 6. Norberaren ahalegina eta taldearekin ezartzen diren harremanak identifikatzea jolasen eta kirol-jardueren oinarrizko balio diren aldetik, eta haiekin bat jotzea.**
- Ezberdintasun fisiko indibidualak onartzen ditu kirolean.
  - Generoen arteko desberdintasunek kirol-jardueretan duten eragina gainditzeko erak ezagutzen eta erabiltzen ditu. Joko-arauak ezagutzen eta onartzen ditu.
  - Bere tradizioan sustraitutako jolas, dantza eta kirolen gaineko informazioa biltzen du, Euskal Herrikoak barne.
  - Badaki euskal kulturako eta beste kultura batzuetako jolas eta kirol fisikoen tradizioak betetzen.
  - Harreman integratzaileak ditu ikaskideekin.
  - Bere garapen fisikoaren egoerara egokitzen du esfortzu indibiduala.
  - Joko garbia lantzen du jardueretan.
  - Ariketa fisikoa eta kirola egitean sortzen zaizkion egoera gatazkatsuak konpontzen ditu.
- 7. Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.**
- Musika-koreografia xumeak egiten ditu taldean.
  - Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako dantza errazak dantzatzen ditu.
  - Istorio laburrak, egiazkoak eta asmatuak, azaltzen ditu, gorputz-adierazpeneko oinarrizko teknikak baliatuz.
  - Lasaitasunez, desinhibizioz eta berezko estilo batez transmititzen ditu adierazpen-elementuak.

- 8. Jokabide aktiboak izatea, ariketa fisikoak osasunerako duen balioa aintzat hartuta, gorputza eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak zaintzeko interesa izatea, eta drogen kontsumoa eta portaera-mendetasunak sor ditzaketen jokabideak saihestea.**
- Badaki elikadura osasungarria eta ariketa lagungarri direla pertsonen ongizate fisikoa eta psikikoa izateko.
  - Badaki janari osasungarriek zer nutrizio-balio duten eta zer onura dakarkioten gizakien organismoari.
  - Ariketa fisikoa egiteko ohitura osasungarriez eta horiek kontsumo-ohiturekin duten loturaz jabetzen da.
  - Badaki zer ondorio kaltegarri dakartzkieten drogek eta substantziarik gabeko mendetasunek organismoari eta gizakien portaerari, eta baztertu egiten ditu.
  - Badaki zer arrisku dakartzaten tabakoak eta alkoholak.
  - Informazioaren teknologien erabilera gehiegizkoaren arriskuez jabetzen da.
  - Badaki zer onura dakarkion ariketa fisikoak gorputzari eta osasunari.
  - Ariketa fisikoa egiteko prest izaten da eta gozatu egiten du ariketa egiten.
  - Arriskuak saihesten ditu ariketa fisikoa egitean.



**HIRUGARREN ZATIA:  
DERRIGORREZKO BIGARREN  
HEZKUNTZAKO  
CURRICULUMAREN  
BERARIAZKO IKUSPEGIA**

# 1. HIZKUNTZA- ETA LITERATURA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

## 1.1. EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

### 1.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira etapako helburuak Euskara eta Literatura, eta Gaztelania eta Literatura ikasgaietarako:

1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, bai eta haien edukia nahiz forma modu kritikoan interpretatzea ere, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.
2. Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.
3. Modu autonomoan gogoeta egitea hizkuntzen sistemei buruz, eta haien erabilera-arauak aplikatzea testuinguruan, testuan, perpausean eta hitzean, bai eta testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan ere, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta transferentziak positiboak izan daitezen.
4. Norberak hautatutako idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziaz gogatzeko, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentzibilitate estetikoan aurrera egiteko.
5. Literaturako generoen, etapen eta obra nagusien oinarrizko konbentzioen ezagueraz baliatzea, era horretan literatura-testuak modu partekatuan ulertzeko, literatura-ondarearen bidez esperientzia indibiduala eta kolektiboa sinbolizatzeke, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeke.
6. Gure errealitate elebiduna eta eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu, interpretatu eta balioestea, soziolinguistikaren oinarrizko ezagueren bidez, era horretan jarrera positiboa izateko hizkuntzen eta kulturen aniztasunarekiko, hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko.
7. IKTak modu kritiko eta autonomoan erabiltzea, informazioa eskuratu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
8. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberak konfiantzaz erregulatu ahal izateko hizkuntza-ikasketak.

## 1.1.2.- EDUKIAK

### 1.1.2.1.- Multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den 1. multzoan datoz oinarrizko zehar-konpetentziak garatzeko behar diren eduki guztiak, arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu beharrekoak.

Gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egin, idatzi, entzun eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak dira curriculumaren ardatza. Trebetasun horiekin lotutako ikasketak biltzen dira hiru multzotan: 2. multzoan –"Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea"–, 3. multzoan –"Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea"–, eta 4. multzoan –"Literatura-hezkuntza"–. Horiekin loturik, "Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta" izeneko 5. multzoan eta "Hizkuntzaren alderdi soziala" izeneko 6. multzoan hizkuntza sistematizat hartu, eta aztertzen dira haren erabilera-arauak, hizkuntzen arteko harremanak, eta hizkuntzek hiztunekin dituzten harremanak.

Multzo horiek modu analitikoan aztertzen dituzte hizkuntza- eta literatura-hezkuntzaren osagaiak, baina ez dituzte finkatzen ikasgelako jardueren ordena nahiz antolaera. Hori dela eta, programazioak egitean eta jardueren sekuentziak ikasgelara eramatean, ondo uztartu behar dira multzo guztietako edukiak. Ezin da ahaztu ikasgai hauen oinarrian prozedurazko edukiak daudela, eta horien zerbitzura daudela adierazpenezko edukiak.

Eskola-sistemak ahaztu egin ohi ditu ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak. Baina garrantzi handia dute, bai komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, bai gelako harremanak indartzeko eta esanahia negoziatzeko, eta horiek oinarrizkoak dira ikasgai guztietan jakintza eraikitze behar diren gaitasun kognitibo-linguistikokoak garatzeko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera soziolinguistikoa dela eta, euskaraz ahoz komunikatzea bultzatu behar du eskolak, gizartean duen erabilera areagotzeko eta normalizazio-prozesua bultzatzeko.

Era berean, elkarri estu loturik daude hitz egitea eta entzutea, bai eta irakurtzea eta idaztea ere; beraz, hobe da ikaskuntza-jardueren sekuentzietan uztartzea hizkuntza-erabilerearen bi alderdiak, hau da, ulertzea eta sortzea.

Literatura-hezkuntzarekin lotutako edukiak 4. multzoan jaso dira, eta aurreko etaparen ildotik doaz: irakurtzeko ohiturak bermatzea, testuak irakurtzeko eta birsortzeko esperientziak aberastea, irakurgai horiek esperientzia sinbolizatu behar berrietara eta sentimenduak espresatu behar berrietara egokitzea, literatura-konbentzioei buruzko behaketak sistematizatzea, eta modu sistematikoan ezartzea literatura-lanen eta haiek sortu eta jaso diren testuinguruen arteko lotura.

"Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta" izeneko 5. multzoan gogoeta egiten da sistema linguistikokoaren osagaiei buruz eta haren erabilera-arauei buruz. Izan ere, trebetasun linguistiko-komunikatiboak barneratu eta garatuko badira, gogoeta egin behar da hizkuntzen alderdi kontestual, diskurtsibo eta gramatikalaz.

"Hizkuntzaren alderdi soziala" izeneko 6. multzoan datoz hizkuntza-aniztasuna, hizkuntzen arteko harremanak... Gaur egungo gizarte eleaniztun konplexu honetan, elebitasun desorekatu batetik testuinguru eleaniztun baterantz doa euskal gizartea. Horrek beharrezkoa egiten du ingurune bakoitzeko egoera soziolinguistikoz gogoeta egitea, era horretan jarrera positiboa izateko hizkuntza-aniztasunarekiko eta euskararen normalizazio-prozesuarekiko.

Komunikaziorako kompetentzia lantzea da hizkuntzak irakastearen eta ikastearen helburu nagusia, eta, beraz, ezinbestekoa da 5. eta 6. multzoetako jardueren bidez hizkuntza trebeago erabiltzea.

Etapako lau ikasturteetan zehar ikasi beharrekoen mailaketa egiteko, irizpide hauek dira oinarri: praktika diskurtsiboen eta ikasleen esperientzia linguistiko nahiz kulturalaren arteko hurbiltasuna; testuen barne-antolakeraren konplexutasun-maila; eta, azkenik, testuak ulertzearen eta sortzearen helburu askotarikoak.

### 1.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztien oinarritzko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak sortzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, hizkuntzaren eta komunikaziorako osagaien sexista ez den erabilpena ziurtatuz.
- Planifikatu ondoren informazioa bilatu, testu bihurtu eta berrikustea, ahozko testuak sortze aldera, lagunduta.
- Ahozko nahiz ikus-entzunezko harremanetan parte hartzea, ikasgelan eta ikastetxean loturak sendotzeko, eta ikaskuntza-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko.
- Ahozko harremanen arauak erabiltzea, lagunduta: hitz egiteko txandak, gaiari eustea, inoren iritzia aintzat hartzea, kortesiazko arauak...
- Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzea, lagunduta, haien bidez ahozko testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Oinarrizko komunikazio-estrategiak erabiltzea, haien bidez harremanak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko.
- Ahozko erabilerak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Aurrez landutako ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguerak erabiltzea, lagunduta, beste hizkuntzetako ahozko diskurtsoak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Ahozko komunikazioaren ezaugarri nagusiak eta elementu adierazkor bereziak.
- Aurrez landutako ahozko generoen ezaugarri nagusiak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Harremanen bidez ikaskuntza-prozesuak erregulatzen direla balioestea.
- Elkarlaneko egoeretan lankidetzeta eta errespetua erakustea.
- Hitz egiteko interesa, jarrera proaktiboarekin eta konfiantzarekin.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea.

## 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak ulertzea eta interpretatzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak.
- Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak sortzea, aldeztatik egindako plangintza bati jarraituz: pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, hizkuntzaren eta komunikaziorako osagaien sexista ez den erabilpena ziurtatuz.

- Planifikatu ondoren informazioa bilatu, testu bihurtu eta berrikustea, hainbat euskarritan idatzitako testuak sortzeko, lagunduta, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta.
- Teknika eta tresna digitalak erabiltzea, lagunduta, idatzizko testuak ulertu eta sortzeko.
- Hainbat helburu dituzten idatzizko harremanetan parte hartzea, sareko baliabideak erabiliz, errespetuz eta lankidetzan.
- Ikastetxeko liburutegia eta mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, lagunduta.
- Idatzizko testuak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguera erabiltzea, lagunduta, beste hizkuntzetan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusiak.
- Aurrez landutako idatzizko generoen ezaugarri nagusiak: helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Ikasturtean zehar landutako idatzizko genero digital berrien ezaugarriak.
- Idatzizko testua menderatzeak duen garrantzi pertsonalaz eta sozialaz ohartzea.
- Idazketa informazio- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezaguera komunikatzeko modutzat.
- Idatzizko testuen edukiari buruzko gogoeta egitea.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Gazte-literaturako, literatura tradizionalako eta herri-literaturako euskal kulturako eta beste kulturetako obrak irakurtzea, modu autonomoan edo lagunduta, ikasleen adinaren eta interesen arabera, eta, ondoren, norberaren eta inoren esperientziak kontrastatzea.
- Ipuin eta kontakizun laburrak elkarrekin irakurtzea eta entzutea –besteak beste euskal kulturako eta beste kulturetako mitoak eta elezaharrak–, haien elementu nagusiak eta funtzioa ezagutzuz.
- Poemak, bertsoak eta koplak zaharrak irakurri, entzun eta errezipitatzeko, irakurgaiaren iruzkinak eginez eta ikus-entzunezkoak erabiliz, erritmoaren eta bertsoaren elementu nagusi batzuk ezagutzuz.
- Antzerkiko lanak edo pasarteak irakurtzea –iruzkinak eginez eta dramatizatuz–, antzerkiaren alderdi formal nagusiak ezagutzuz.
- Literatura-testua interpretatzeko estrategiak eta teknikak erabiltzea, irakurri aurretik, bitartean eta ondoren.
- Literatura asmoko ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko testuak sortzea, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz, ereduak aztertuz eta haiei buruzko gogoeta eginez.

- Literatura-testuei buruzko balioespen pertsonalak egitea, aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz.
- Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, literatura asmoa duten idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak sortu eta zabaltzeko.
- Ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, lagunduta.
- Denetariko informazio-iturriak kontsultatzea, lagunduta, literatura-testuetara iristeko eta informazioa bilatzeko, emakumezkoen obrak eta ekarpenak agerian jarritz.
- . Ikasgelako eta ikastetxeko literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurgaiak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Literatura-kontakizunaren ezaugarri nagusiak.
- Poesiaren, bertsolaritzaren eta koplak zaharren ezaugarri nagusiak, batik bat erritmoa eta bertsogintza.
- Antzerkiaren elementu nagusiak.
- Literatura kultura transmititzeko bidetzat hartzea, bai eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko bidetzat ere, bide horretan emakumezkoen ekarpenak balioetsiz.
- Literatura gozamen-iturritzat hartzea, bai eta kultura eta hizkuntza aberasteko bidetzat ere.
- Literatura-lanekiko sentsibilitate estetikoa garatzea.

## 5. MULTZOA. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Ahozko nahiz idatzizko komunikazioaren arteko, bai eta erabilera arrunten eta formalen arteko diferentzia kontestualak eta formalak aztertzea.
- Narrazio-, azalpen- eta instrukzio-diskurtsoen ezaugarri kontestualak eta testualak ezagutzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuak komunikazio-egoerara moldatzeko baliabideak identifikatzea eta erabiltzea: erregistroa, deixi pertsonala eta azalpen-prozedura nagusiak.
- Testu moten egiturak aztertzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan zenbait kohesio-tresna identifikatzea eta gogoeta eginez erabiltzea: lokailuak –batez ere denborazkoak, azalpenezkoak eta ordenazkoak–, eta barne-erreferentziak –batez ere lexikoak–.
- Idatzizko testua puntuazio-marken bidez antolatzen dela ohartzea, bai eta haiek erabiltzea ere.
- Paragrafoak esanahi-batasuna duela ohartzea eta hura erabiltzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuen aditz-formez ohartzea eta haiek koherentziaz erabiltzea, batez ere kontakizuneko lehenaldiak.
- Testuen egitura sintaktiko nagusiak identifikatzea: subjektua, predikatua eta aditzaren osagarriak.

- Perpausen arteko erlazio nagusiak identifikatzea.
- Euskarak perpauseko osagaiak lotzeko dauzkan elementuak ezagutzeko joatea, batik bat deklinabidea eta aditz-komunztadura.
- Kategoria gramatikal nagusiak ezagutzea.
- Hitzak eratzeko mekanismo nagusiak identifikatzea.
- Arau ortografikoak ezagutzea, haien erregulartasunei erreparatuz.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko, hizkuntzaren erabilpen sexista ekiditeko eta gramatika berrikusteko estrategiak erabiltzea, lagunduta, hiztegien eta ortografia-zuzentzaileen bidez.
- Euskararen nahiz gaztelaniaren fonemak identifikatzea.
- Sistema linguistikoari buruzko ondorioak ateratzea, lagunduta, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatuz, sailkatuz eta eraldatuz hainbat irizpideren arabera.
- Bi hizkuntzetan berdina den hizkuntza-terminologia ulertzea eta erabiltzea.
- Hainbat hizkuntzatan helburu berarekin erabilitako hizkuntza-prozedurak konparatzea, eta haietako edozeinetan hizkuntzari buruz ikasitakoa erabiltzea besteei buruzko gogoeta egiteko.
- Hizkuntzen arteko zenbait kalko eta transferentzia oker identifikatzea eta zuzentzea.
- Eskola-hiztegiek eta kontsultarako obrek hizkuntzaz emandako informazioak interpretatzea, batik bat hitz motei buruzkoak eta haien arteko harreman semantikoei buruzkoak.
- Erregistroa.
- Deixi pertsonala.
- Azalpen-prozedurak.
- Narrazio- eta azalpen-testuen egiturak.
- Kohesio-elementuak: lokailuak, barne-erreferentziako tresnak, puntuazioa.
- Hitz multzoak: izen- eta aditz-sintagma.
- Perpaus bakuna: osagaiak, motak eta elementuen arteko harremanak (deklinabidea eta komunztadura euskarari).
- Aditz-jokoa: denbora eta aspektua.
- Hitza: kategoriak, osagaiak, eraketa-tresnak.
- Hitzen arteko harreman semantikoak.
- Arau ortografiko nagusiak eta arau fonetikoak.
- Hizkuntzak akatsak eginez ikasten direla onartzea, eta hobetuz joateko jarrera.
- Hizkuntzari buruz gogoeta eginda norberaren lanak erregulatzen direla ohartzea, bai eta autonomia handiagoz ikasten dela ere.
- Hizkuntza erabiltzeko arauen garrantzia eta balio soziala aintzat hartzea, erabiltzaileen arteko komunikazioa eraginkorragoa izateko.



## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Ikasgelako, ikastetxeko, inguruneko eta EAEko hizkuntza-aniztasuna behatzea eta identifikatzea.
- Hizkuntza estandarra, gaztelaniaren dialektoak eta euskalki nagusiak bereiztea eskolan landutako ahozko nahiz idatzizko testuetan.
- Eleaniztasuna sustatzen duten hizkuntza-ohiturak behatzea.
- Euskararen erabilera eta normalkuntza sustatze aldera ikastetxean nahiz ingurunean egiten diren ekimenetan parte hartzea.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak behatzea.
- Hizkuntza-aniztasuna: munduko hizkuntzak.
- Hizkuntza-aldaerak: hizkuntza estandarra, aldaera geografikoak, euskalki nagusiak.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistiko nagusiak.
- Hizkuntza estandarraren bidez aldaera desberdinetako hiztunak elkarrekin komunikatzen direla ohartzea.
- Norberaren euskalkia eta gainerako euskalkiak hizkuntza aberasteko bidetzat hartzea.
- Eskolako eta gizarteko hainbat esparrutan euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa.
- Esamolde baztertzailerok saihesteko interesa.
- Hizkuntza-aniztasuna kultura-balio positibotzat hartzea.

### 1.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztien oinarritzko zehar-konpetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.

- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzeko, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide moralak erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak sortzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, hizkuntzaren eta komunikaziorako osagaien sexista ez den erabilpena ziurtatuz.
- Planifikatu ondoren informazioa bilatu, testu bihurtu eta berrikustea, ahozko testuak sortzeko, lagunduta, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta.
- Ahozko nahiz ikus-entzunezko harremanetan parte hartzea, ikasgelan eta ikastetxean loturak sendotzeko, eta ikaskuntza-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko.
- Ahozko harremanen arauak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: hizketako txandak, gaiari eustea, inoren iritzia aintzat hartzea, kortesia-arauak...
- Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz, ahozko testuak ulertzen eta sortzen laguntzeko.
- Oinarrizko komunikazio-estrategiak erabiltzea, haien bidez harremanak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko.
- Ahozko erabilerak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguerak erabiltzea, lagunduta, beste hizkuntzetako ahozko diskurtsoak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Ahozko komunikazioaren ezaugarri nagusiak eta elementu adierazkor bereziak.
- Aurrez landutako ahozko generoen ezaugarri nagusiak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Harremanen bidez ikaskuntza-prozesuak eta norberaren jokabidea erregulatzen direla ohartzea.
- Elkarlaneko egoeretan lankidetzaren eta errespetua erakustea.
- Hitz egiteko interesa, jarrera proaktiboarekin eta konfiantzarekin.

- Solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak ulertzea eta interpretatzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak
- Planifikatu ondoren, hainbat euskarritan dauden testuak sortzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, hizkuntzaren eta komunikaziorako osagaien sexista ez den erabilpena ziurtatuz.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren, hainbat euskarritako idatzizko testuak sortzeko informazioa bilatu, egituratu, testu bihurtu eta berrikustea, lagunduta.
- Idatzizko testuak ulertzeko, sortzeko eta zuzentzeko teknika eta tresna digitalak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Hainbat helburu dituzten idatzizko harremanetan parte hartzea, sareko baliabideak erabiliz, errespetuz eta lankidetzan.
- Ikastetxeko liburutegia eta mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, lagunduta.
- Idatzizko testuak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezagerak erabiltzea, lagunduta, beste hizkuntzetan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusiak.
- Aurrez landutako idatzizko generoen ezaugarri nagusiak: helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Ikasturtean zehar landutako idatzizko genero digital berrien ezaugarriak.
- Idatzizko testua menderatzearen garrantzi pertsonalaz eta sozialaz ohartzea, batez ere ikastetxeko bizitzan.
- Idazketa informazio- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagerak komunikatzeko modutzat.
- Idatzizko testuen edukiari buruzko gogoeta egitea.

### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Gazte-literaturako, literatura tradizionalako eta herri-literaturako euskal kulturako eta beste kulturetako obrak irakurtzea, modu autonomoan edo lagunduta, ikasleen adinaren eta interesen arabera, eta, ondoren, norberaren eta inoren esperientziak kontrastatzea.

- Ipuin eta kontakizun laburrak elkarrekin irakurtzea eta entzutea –besteak beste euskal kulturako eta beste kulturetako mitoak eta elezaharrak, batez ere XX. eta XXI. mendekoak–, haien elementuak, hasteko moduak, garapen kronologikoa eta amaiera konparatuz eta kontrastatuz.
- XX. eta XXI. mendeko poemak eta bertsoak irakurri, entzun eta errezitatzea, erritmoaren eta bertsogintzaren elementu nagusiak ezagutzuz, bai eta hizkuntzaren balio sinbolikoa eta baliabide erretoriko nagusiak ere.
- Antzerkiko lanak edo pasarteak irakurtzea iruzkinak eginez eta dramatizatuz, bai Euskal Literaturakoak bai Espainiar Literaturakoak, batez ere XX. eta XXI. mendekoak, antzerki-testuaren alderdi formalak ezagutzuz.
- Bestelako hizkuntza estetikoak irakurri, aztertu eta erabiltzea: komikia eta zinema.
- Literatura-testua aztertzeko eta interpretatzeko estrategiak eta teknikak erabiltzea, irakurri aurretik, bitartean eta ondoren.
- Ahozko euskal literatura tradizionalen generoen (lirikoa, narratiboa eta dramatikoa) ezaugarri nagusiak ezagutzea, bai eta haiek buruz ikasteko eta transmititzeko literatura-baliabideak ere.
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko testuak sortzea, ereduak aztertuz eta haiei buruzko gogoeta eginez, generoaren konbentzio formalak erabilita.
- Planifikatu ondoren, balioespen pertsonalak egitea literatura-testuek eragindako bizipenei buruz.
- Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, literatura asmoa duten idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak sortu eta zabaltzeko.
- Ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, lagunduta.
- Denetariko informazio-iturriak kontsultatzea, lagunduta, literatura-testuetara iristeko eta informazioa bilatzeko, emakumezkoen obrak eta ekarpenak agerian jarritz.
- Ikasgelako eta ikastetxeko literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurgaiak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Literatura-kontakizuna: hasteko moduak, garapen kronologikoa eta amaiera.
- Ahozko literaturaren ezaugarriak eta generoak: genero lirikoa, narratiboa, dramatikoa... batez ere koplak zaharrak, baladak, pastoralak eta maskaradak azpimarratuz.
- Bertsolaritza. Ezaugarriak. Bertsolariak (XX. eta XXI. mendeak).
- Poesiaren eta bertsolaritzaren ezaugarri nagusiak, batik bat baliabide erretorikoak.
- Antzerki-testua: alderdi formalak.
- Literatura kultura transmititzeko bidetzat hartzea, bai eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko bidetzat ere, bide horretan emakumezkoen ekarpenak balioetsiz.
- Literatura gozamen-iturritzat hartzea, bai eta kultura eta hizkuntza aberasteko bidetzat ere.
- Literatura-lanekiko sentsibilitate estetikoa garatzea.

- Literatura-testuen balio esplizituekiko jarrera kritikoa.

## 5. MULTZOA. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Ahozko nahiz idatzizko komunikazioaren arteko, bai eta erabilera arrunten eta formalen arteko diferentzia kontestualak eta formalak aztertzea.
- Narrazio-, azalpen- eta instrukzio-diskurtsoen ezaugarri kontestualak eta testualak ezagutzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuak komunikazio-egoerara moldatzeko baliabideak identifikatzea eta erabiltzea: erregistroa, deixi pertsonala, denborazkoa eta lekuzkoa, eta ziurtasuna, probabilitatea eta abar adierazteko hizkuntza-formak.
- Mezua hartzailearentzat ulergarri egiteko prozedurak identifikatzea eta erabiltzea, batik bat azalpen-adierazpenak: aposizioa, adibideak eta birformulazioa.
- Testu moten egiturak aztertzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan kohesio-tresnak identifikatzea eta gogoeta eginez erabiltzea: lokailuak –batez ere leku, denbora, ordena, kausa eta ondoriozkoak–, bai eta barne-erreferentziako tresnak ere –batez ere ordezkapen lexikoa (sinonimoak, hiperonimoak, hiponimoak...) eta pronominala–.
- Idatzizko testua puntuazio-marken bidez antolatzen dela ohartzea, bai eta haiek erabiltzea ere.
- Paragrafoak esanahi-batasuna duela ohartzea eta hura erabiltzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan aditz-formak ezagutzea eta modu koherentean erabiltzea, batik bat kontakizuneko lehenaldia eta azalpen-testuetako orainaldia.
- Aditza identifikatzea (eta haren osagarriak eta harremanak), bai eta subjektua, predikatua eta sintagmak ere.
- Perpausen arteko erlazio nagusiak identifikatzea.
- Perpauseko osagaiak lotzeko euskarak dituen hizkuntza-elementuak ezagutzuz joatea, batik bat deklinabidea eta aditz-komunztadura.
- Kategoria gramatikal nagusiak eta haien funtzioa ezagutzea.
- Hitzak eratzeko tresnarik ohikoenak identifikatzea.
- Arau ortografikoak ezagutzea, haien erregulartasunei erreparatuz.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko, hizkuntzaren erabilpen sexista ekiditeko eta gramatika berrikusteko estrategiak erabiltzea, lagunduta, hiztegien eta ortografia-zuzentzaileen bidez.
- Euskararen nahiz gaztelaniaren fonemak identifikatzea.
- Sistema linguistikoari buruzko ondorioak ateratzea, lagunduta, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak) konparatuz, sailkatuz eta eraldatuz, emandako irizpideei jarraituta.
- Bi hizkuntzetan berdina den hizkuntza-terminologia ulertzea eta erabiltzea.
- Hainbat hizkuntzatan helburu berarekin erabilitako hizkuntza-prozedurak konparatzea, eta haietako edozeinetan hizkuntzari buruz ikasitakoa erabiltzea besteei buruzko gogoeta egiteko.

- Hizkuntzen arteko zenbait kalko eta transferentzia oker identifikatzea eta zuzentzea.
- Hainbat euskarritako eskola-hiztegiak eta kontsultarako obrek ematen dituzten hizkuntza-informazioak interpretatzea, batez ere hitz motei, haien arteko harreman semantikoei eta araei buruzkoak.
- Erregistroa.
- Deixi pertsonala, denborazkoa eta lekuzkoa. Azalpen- eta modalizazio-prozedurak.
- Narrazio- eta azalpen-testuen egiturak.
- Kohesio-elementuak: lokailuak, barne-erreferentziako tresnak, puntuazioa.
- Hitz multzoak: izen- eta aditz-sintagma.
- Perpausa: osagaiak, motak eta elementuen arteko harremanak (deklinabidea eta komunztadura euskaran).
- Aditz-jokoa: denbora, modua eta aspektua.
- Hitza: kategoriak, osagaiak, eratze-mekanismoak.
- Hitzen arteko harreman semantikoak: sinonimia, antonimia, eremu semantikoa.
- Ortografia- eta fonetika-arau nagusiak.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren parte direla onartzea, eta haiek gainditzeko jarrera positiboa.
- Hizkuntzari buruz gogoeta eginda norberaren lanak erregulatzen direla ohartzea, bai eta autonomia handiagoz ikasten dela ere.
- Hizkuntza erabiltzeko arauen garrantzia eta balio soziala aintzat hartzea, erabiltzaileen arteko komunikazioa eraginkorragoa izateko.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Ikasgelako, ikastetxeko, inguruneko eta EAeko hizkuntza-aniztasuna behatzea eta identifikatzea.
- Hizkuntza estandarra, gaztelaniaren dialektoak eta euskalki nagusiak bereiztea ahozko nahiz idatzizko testuetan.
- Eleaniztasunari laguntzen dioten ohitura pertsonalak eta kolektiboak behatzea.
- Euskararen erabilera eta normalkuntza sustatze aldera ikastetxean nahiz ingurunean egiten diren ekimenetan parte hartzea.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak behatzea eta ezagutzea.
- Hizkuntza-aniztasuna: munduko hizkuntzak. EAeko hizkuntzak.
- Hizkuntza-aldaerak: hizkuntza estandarra, aldaera geografikoak, euskalki nagusiak.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistiko nagusiak.
- Hizkuntza estandarraren bidez aldaera desberdinetako hiztunak elkarrekin komunikatzen direla ohartzea.
- Norberaren euskalkia eta gainerako euskalkiak hizkuntza aberasteko bidetzat hartzea.
- Ikastetxeko eta gizarteko hainbat esparrutan euskara erabiltzeko jokaera proaktiboa.

- Esamolde baztertzaile oro saihesteko interesa.

### 1.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztien oinarritzko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Hainbat euskarritan dauden ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak ulertzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batez ere azalpen-testuak eta argudio-testuak.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu koherenteak eta eraginkorrak sortzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batez ere azalpen-testuak eta argudio-testuak, ikasleentzat interesgarriak diren egungo gai sozial, politiko edo kulturaleri buruzkoak.

- Ahozko testuak planifikatzea, hainbat iturritan haiei buruzko informazioa bilatu, testu bihurtu eta berrikustea, gero eta autonomia handiagoz, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta.
- Ahozko nahiz ikus-entzunezko harremanetan parte hartzea, ikasgelan eta ikastetxean loturak sendotzeko, testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuez gogoeta egiteko, eta ikaskuntza-jarduerak kudeatzeko.
- Ahozko harremanen arauak modu autonomoan erabiltzea: hitz egiteko txandak, gaiari eustea, inoren iritzia aintzat hartzea, kortesiazko arauak...
- Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzea modu autonomoan, haien bidez ahozko testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Denetariko komunikazio-estrategiak erabiltzea, haien bidez harremanak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko.
- Ahozko erabilerak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguerak modu kontzientean erabiltzea, beste hizkuntzetako ahozko diskurtsoak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Ahozko komunikazioaren ezaugarri nagusiak eta elementu adierazkor bereziak: hitzezko eta ez-hitzezko elementuak.
- Ahozko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, norberaren iritzia adierazteko baliabideak...
- Harremanen bidez norberaren ikaskuntza-prozesuak eta hizkuntza-jokabideak erregulatzen direla balioestea.
- Elkarlaneko egoeretan lankidetzeta eta beste iritziekiko errespetua erakustea.
- Hitz egiteko interesa, jarrera proaktiboarekin, besteak errespetatuz eta konfiantzarekin.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak eta iritzia errespetatzea.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak ulertzea eta interpretatzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat azalpen-testuak eta argudio-testuak.
- Planifikatu ondoren, hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak sortzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, hizkuntzaren eta komunikaziorako osagaien sexista ez den erabilpena ziurtatuz.
- Hainbat euskarritan idatzitako testuak sortzeko planifikatu, informazioa bilatu, egituratu, testu bihurtu eta berrikustea, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta, modu gutxi-asko autonomoan.
- Teknika eta tresna digitalak modu autonomoan erabiltzea, idatzizko testuak ulertu, sortu, zuzendu eta zabaltzeko.
- Hainbat helburu dituzten idatzizko harremanetan parte-hartze eraginkorra izatea, sareko baliabideak erabiliz, errespetuz eta lankidetzan.



- Modu autonomoan erabiltzea ikastetxeko liburutegia eta mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak.
- Idatzizko testuak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, modu autonomoan.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, modu autonomoan.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguerak erabiltzea beste hizkuntzetan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko, modu kontzientean.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarriak.
- Aurrez landutako idatzizko generoen ezaugarri nagusiak: helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu bereziak, aurkibide grafikoak...
- Idatzizko genero digitalen ezaugarriak.
- Idatzizko testua menderatzeak eskolako bizitzan parte hartzeko eta gizartean txertatzeko duen garrantziaz ohartzea.
- Idazketa informazio- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, norberaren esperientziak, ideiak eta ezaguerak komunikatzeko modutzat, iritziak emateko eta eztabaidatzeko bidetzat, eta jokabidea erregulatzeko eratzat.
- Idatzizko testuen edukiari buruzko gero eta jarrera kritiko eta gogoetatsuagoa.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Euskal Literaturako, Espainiar Literaturako eta Literatura Unibertsaleko lan edo pasarte esanguratsuak irakurtzea, modu autonomoan, irakurleak lehendik dakienetik abiatuz, eta, ondoren, norberaren eta inoren esperientziak kontrastatzea.
- Kontakizunak eta eleberriak iruzkinak eginez irakurtzea, batez ere XX. eta XXI. mendekoak, pertsonaiak, ahotsa eta ikuspegi narratiboa aintzat hartuz.
- Poemak eta bertsoak iruzkinak eginez irakurri, entzun eta errezipitatzeko, egileen artean errepikatzen diren gaiak konparatzea, erritmoa eta bertsogintza aintzat hartzea, bai eta elementu sinbolikoak eta baliabide erretoriko nahiz metriko nagusiak ere.
- Antzerkiko lanak edo pasarteak irakurtzea –iruzkinak eginez eta dramatizatuz–, gaiak eta alderdi formal nagusiak ezagutzeko.
- Euskal Literaturaren XX. Mendeko obra eta egile nagusiak irakurtzea, iruzkinak eginez.
- Espainiar Literaturaren Erdi Arotik Urrezko Mendera arteko obra eta egile nagusiak irakurtzea, iruzkinak eginez.
- Literatura Unibertsaleko obra eta egile nagusiak irakurtzea, iruzkinak eginez.
- Literatura-testua aztertzeke eta interpretatzeko estrategiak eta teknikak erabiltzea, irakurri aurretik, bitartean eta ondoren.
- Euskal Literaturaren eta Espainiar Literaturaren aldi nagusiak identifikatzea, bai eta arte- eta kultura-mugimenduak ere.
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko testuak sortzea, sormena sustatzeko teknikak erabiliz, gogoeta eginez eta ereduak aztertuz.
- Planifikatu ondoren, lan soilak egitea; besteak beste, literatura-testuei buruzko balioespen pertsonalak.

- Informazio-teknologiak modu autonomoan erabiltzea, literatura asmoko ahozko, idatziko nahiz ikus-entzunezko testuak sortu eta zabaltzeko.
- Ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, modu autonomoan.
- Denetariko informazio-iturriak modu autonomoan kontsultatzea lanak egiteko, eta iturri horiek egoki aipatzea, emakumezkoen obrak eta ekarpenak agerian jarritz.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta komunitateko literatura-jardueretan parte hartzea.
- Literatura-irakurgaiak norberaren irizpideen arabera hautatzea.
- Literatura-kontakizuna: pertsonaiak, ahotsa eta ikuspegi narratiboa.
- Testu poetikoa: baliabide metrikoak, gaiak, topikoak, sinboloak...
- Bertsolaritza eta bertsolariak (XX. mendera arte). Bertso-paperak.
- Antzerki-testua. Alderdi tematikoak eta formalak.
- Espainiar Literaturaren XVIII. mendera arteko idazle eta obra nagusiak.
- Euskal Literaturaren XX. mende hasieratik honako idazle eta obra nagusiak.
- Literaturaren bilakaerako aldirik esanguratsuenak.
- Literatura kultura transmititzeko bidetzat hartzea, bai eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeke bidetzat ere, bide horretan emakumezkoen ekarpenak balioetsiz.
- Literatura gozamen-iturritzat hartzea, bai eta kultura eta hizkuntza aberasteko bidetzat ere.
- Literatura-lanekiko sentsibilitate estetikoak garatzea.
- Literatura-testuen balio esplizitu eta implizituekiko jarrera kritikoa.

## 5. MULTZOA. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Ahozko nahiz idatziko komunikazioko elementu garrantzitsuak identifikatzea eta erabiltzea, batez ere erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza, ortotipografia...
- Azalpen- eta argudio-diskurtsoen ezaugarri kontestualak eta testualak erabiltzea testuak ulertu eta sortzeko.
- Ahozko nahiz idatziko testuak komunikazio-egoerara moldatzeko baliabideak identifikatzea eta gogoeta eginez erabiltzea: deixi pertsonala, denborazkoa, lekuzkoa eta soziala; ziurtasuna, probabilitatea, obligazioa eta balioespena adierazteko hizkuntza-formak.
- Mezua hartzailearentzat ulergarri egiteko prozedurak identifikatzea eta erabiltzea, batik bat azalpen-adierazpenak: definizioa eta erlatiboetako perpausa.
- Testu motak antolatzeke egiturak ezagutzea.
- Zenbait kohesio-tresna identifikatzea, haien ezaugarriak ematea eta gogoeta eginez erabiltzea, batik bat ordezkapen lexikoak, pronominalak eta adberbialak, eremu semantikoak eta lokailuak (ordenazkoak, azalpenezkoak, kausazkoak, ondoriozkoak eta adbertsatiboak).

- Idatzizko testua puntuazio-marken bidez antolatzen dela ohartzea, bai eta haiek erabiltzea ere.
- Paragrafoak esanahi-batasuna duela ohartzea eta hura erabiltzea.
- Testuetako aditz-formak ezagutu, haien ezaugarriak eman eta modu koherentean erabiltzea, batik bat aspektua, modua eta aditz-perifrafiak.
- Subjektua eta predikatua ezagutzea eta haien ezaugarriak ematea, bai eta osagarrienak eta sintagmenak ere.
- Perpausen arteko harremanak ezagutzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Perpauseko osagaiak lotzeko euskarak dituen elementuak ezagutzea, batik bat deklinabidea eta aditz-komuntadura.
- Kategoria gramatikalen, haien akzidenteen eta haien funtzioen ezaugarriak ematea.
- Hitzak eratzeko tresnak identifikatzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Arau ortografikoak ezagutzea eta norberaren lanetan aplikatzea, batik bat azentuazioa eta puntuazio-markak.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko, hizkuntzaren erabilpen sexista ekiditeko eta gramatika berrikusteko estrategiak erabiltzea, hiztegi eta ortografia-zuzentzaile analogiko nahiz digitalen bidez.
- Euskararen nahiz gaztelaniaren fonemak identifikatzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Sistema linguistikoari buruzko ondorioak ateratzea, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak) konparatuz, sailkatuz eta eraldatuz, emandako irizpideei jarraituta.
- Bi hizkuntzetan berdina den hizkuntza-terminologia zuzen erabiltzea.
- Hainbat hizkuntzatan helburu berarekin erabilitako hizkuntza-prozedurak konparatzea, eta haietako edozeinetan hizkuntzari buruz ikasitakoa erabiltzea besteei buruzko gogoeta egiteko.
- Hizkuntzen arteko kalko eta transferentzia okerrak identifikatzea eta zuzentzea.
- Hainbat euskarritako eskola-hiztegiak eta kontsultarako obrek ematen dituzten hizkuntza-informazioak interpretatzea eta zuzen erabiltzea, batez ere arauak.
- Erregistroa.
- Deixi pertsonala, denborazkoa, soziala eta lekuzkoa.
- Azalpen-prozedurak. Modalizazioa.
- Azalpen- eta argudio-egiturak.
- Kohesio-elementuak: lokailuak, erreferentzia lexikalak eta gramatikalak, puntuazioa.
- Hitz multzoak: izen-, preposizio-, adjektibo- eta aditz-sintagma.
- Perpaus konposatua. Koordinazioa eta menderakuntza.
- Aditz-jokoa: denbora, modua eta aspektua.
- Hitzak: kategoriak, funtzioa eta osagaiak.
- Lexikoa: jatorria eta eratze-tresna nagusiak.
- Hitzen arteko harreman semantikoak. Konnotazioa eta denotazioa.

- Ortografia- eta fonetika-arauak.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren parte direla onartzea, eta haiak gainditzeko jarrera positiboa.
- Hizkuntzari buruz gogoeta eginda norberaren lanak erregulatzen direla ohartzea, bai eta autonomia handiagoz ikasten dela ere.
- Ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta balio soziala aintzat hartzea, erabiltzaileen arteko komunikazioa eraginkorragoa izateko.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Munduko eta EAEko eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna behatzea eta identifikatzea.
- EAEko hizkuntzen egoera soziolinguistikoa aztertzea, soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak erabiliz.
- Euskararen nahiz gaztelaniaren bilakaerako oinarrizko faseak identifikatzea.
- Hizkuntza estandarra, gaztelaniaren dialektoak eta euskalkiak bereiztea eskolan landutako ahozko nahiz idatzizko testuetan.
- Eleaniztasunari laguntzen dioten ohitura pertsonalak eta kolektiboak behatzea eta aztertzea.
- Euskararen erabilera eta normalkuntza sustatze aldera ikastetxean nahiz ingurunean egiten diren ekimenetan parte hartzea.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak behatzea eta ezagutzea.
- Esamolde baztertzaille oro behatzea eta ezagutzea.
- Hizkuntza-aldaera: munduko hizkuntzak, hizkuntza-familiak.
- Hizkuntza-aldaera: hizkuntza estandarra, aldaera geografikoak, gaztelaniaren dialektoak, euskalkiak.
- Euskararen nahiz gaztelaniaren jatorri eta bilakaera orokorra.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistikoak.
- Hizkuntza estandarraren bidez aldaera desberdinetako hiztunak elkarrekin komunikatzen direla balioestea.
- Norberaren euskalkia eta gainerako euskalkiak hizkuntza aberasteko bidetzat hartzea.
- Ikastetxeko eta gizarteko hainbat esparrutan euskara erabiltzeko jokaera proaktiboa.
- Esamolde baztertzaille oro saihesteko interesa.
- Hizkuntza-aniztasuna kultura-balio positibotzat hartzea.

### 1.1.2.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztien oinarrizko zehar-konpetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea**

- Hainbat euskarritan dauden ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak ulertzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batez ere azalpen-testuak eta argudio-testuak.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu koherenteak eta eraginkorrak sortzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batez ere azalpen-testuak eta argudio-testuak, ikasleentzat interesgarriak diren egungo gai sozial, politiko edo kulturei buruzkoak, eta denetariko ikuspuntuak erakusten dituztenak.
- Ahozko testuak planifikatzea, hainbat iturritan haiei buruzko informazioa bilatu, testu bihurtu eta berrikustea, modu autonomoan, batik bat denetariko ikuspuntuak erakusten dituzten testuak, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta.
- Ahozko nahiz ikus-entzunezko harremanetan parte hartzea, ikasgelan eta ikastetxean loturak sendotzeko, testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuez gogoeta egiteko, iritzia trukatzeko eta ondorioak aurkezteko.

- Ahozko harremanen arauak modu autonomo eta eraginkorren erabiltzea: hitz egiteko txandak, gaiari eustea, inoren iritzia aintzat hartzea, kortesiazko arauak...
- Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzea modu autonomo eta kritikoan, haien bidez ahozko testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Denetariko komunikazio-estrategiak erabiltzea, haien bidez harremanak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, bai eta haiek eraginkorrago egiteko ere.
- Ahozko erabilerak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, modu autonomoan.
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, modu autonomoan.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguerak modu kontzientean erabiltzea, beste hizkuntzetako ahozko diskurtsoak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Ahozko komunikazioaren ezaugarriak eta elementu adierazkor bereziak, hitzeko eta ez-hitzeko elementuak.
- Ahozko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, norberaren iritzia adierazteko eta inorenei aurre egiteko baliabideak...
- Harremanen bidez norberaren ikaskuntza-prozesuak eta hizkuntza-jokabideak erregulatzen direla balioestea.
- Lankidetzeta eta beste iritziekiko errespetua erakustea ikaskuntza-egoeretan eta pertsona arteko edozein egoeratan.
- Hitz egiteko interesa, jarrera proaktiboarekin, besteak errespetatuz eta konfiantzarekin.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak eta iritzia errespetatzea.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak ulertzea eta interpretatzea, hedabideen, lan-munduaren eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat azalpen-testuak eta argudio-testuak.
- Planifikatu ondoren, hainbat euskarritan dauden idatzizko testuak sortzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, hizkuntzaren eta komunikaziorako osagaien sexista ez den erabilpena ziurtatuz.
- Hainbat euskarritan idatzitako testuak sortzeko planifikatu, informazioa bilatu, egituratu, testu bihurtu eta berrikustea, lehenbizi komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta, autonomiarekin eta espiritu kritikoarekin.
- Teknika eta tresna digitalak modu autonomoan erabiltzea, idatzizko testuak ulertu, sortu, zuzendu eta zabaltzeko.
- Hainbat helburu dituzten idatzizko harremanetan parte-hartze eraginkorra izatea, sareko baliabideak erabiliz, errespetuz eta lankidetzan.
- Ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, modu autonomoan.
- Idatzizko testuak hobetze aldera, autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzea, modu autonomo eta eraginkorren.

- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, modu autonomo eta eraginkorrean.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezaguerak erabiltzea beste hizkuntzetan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko, modu kontzientean.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarriak.
- Aurrez landutako idatzizko generoen ezaugarri nagusiak: helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu bereziak, aurkibide grafikoak... batik bat argudio-estrategiak eta -baliabideak.
- Idatzizko genero digitalen ezaugarriak.
- Idatzizko testua menderatzeak eskolako bizitzan parte hartzeko, gizartean txertatzeko, eta iritziak emateko duen garrantziaz ohartzea.
- Idazketa informazio- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, norberaren esperientziak, ideiak eta ezaguerak komunikatzeko modutzat, iritziak emateko eta eztabaidatzeko bidetzat, eta jokabidea erregulatzeko eratzat.
- Idatzizko testuen edukiari buruzko jarrera kritikoa eta gogoetatsua.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Euskal Literaturako, Espainiar Literaturako eta Literatura Unibertsaleko literatura-lanak edo pasarteak irakurtzea, modu autonomoan, irakurleak lehendik dakienetik abiatuz, eta, ondoren, norberaren eta inoren esperientziak kontrastatzea.
- Denetariko egitura eta ahots narratiboak dituzten kontakizunak eta eleberriak irakurtzea, iruzkinak eginez.
- Testu poetikoak eta bertsoak iruzkinak eginez irakurri, entzun eta errezitatzea, egileen artean eta literatura-aldien artean errepikatzen diren gaiak konparatzea, eta elementu sinbolikoak eta baliabide erretoriko nahiz metrikoak balioestea.
- Antzerkiko lanak edo pasarteak irakurtzea –iruzkinak eginez eta dramatizatuz–, testuaren eta antzezpenaren ezaugarriak ezagutzuz.
- Euskal Literaturaren XX. mendera arteko obra eta egile nagusiak irakurtzea, iruzkinak eginez.
- Espainiar Literaturaren XVIII. mendetik honako obra eta egile nagusiak irakurtzea, iruzkinak eginez.
- Literatura Unibertsaleko obra eta egile nagusiak irakurtzea, iruzkinak eginez.
- Literatura-testua aztertzeko eta interpretatzeko estrategiak eta teknikak erabiltzea, irakurri aurretik, bitartean eta ondoren.
- Ikasturtean zehar landutako Euskal Literaturaren eta Espainiar Literaturaren obra, idazle eta mugimendu nagusiak identifikatzea.
- Literatura-testuak modu kritikoan konparatzea hainbat ikuspuntutatik: testuingurua, mugimenduak, generoak, gaien trataera...
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko testuak sortzea, sormena sustatzeko teknikak erabiliz, gogoeta eginez eta ereduak aztertuz.

- Lagunduta aztertu eta planifikatu ondoren, ahozko nahiz idatzizko literatura-testuen iruzkin kritikoak eta argudiatuak egitea.
- Informazio-teknologiak ganoraz erabiltzea, literatura asmoko ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko testuak sortu eta zabaltzeko.
- Ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea, modu autonomoan.
- Denetarik informazio-iturriak modu autonomoan kontsultatzea eta kritikoki hautatzea lanak egiteko, eta iturri horiek egoki aipatzea, emakumezkoen obrak eta ekarpenak agerian jarritz.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta komunitateko literatura-jardueretan parte hartzea.
- Literatura-irakurgaiak norberaren irizpideen arabera hautatzea.
- Literatura-generoak.
- Bertsolaritza. Bertsolariak (1940tik aurrerakoak).
- Espainiar Literaturaren XVIII. mendetik aurrerako idazle eta obra nagusiak.
- Euskal Literaturaren XX. mendera arteko idazle eta obra nagusiak.
- Euskal Literatura, Espainiar Literatura eta Literatura Unibertsal garaikidearen bilakaerako aldirik esanguratsuenak.
- Gero eta autonomia handiagoz irakurtzea, literatura gozamen-iturritzat hartzea, eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko bidetzat.
- Literatura kultura transmititzeko bidetzat hartzea, bai eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko bidetzat ere, bide horretan emakumezkoen ekarpenak balioetsiz.
- Literatura gozamen-iturritzat hartzea, bai eta kultura eta hizkuntza aberasteko bidetzat ere.
- Literatura-lanekiko sentsibilitate estetikoak garatzea.
- Literatura-testuen balio esplizitu eta inplizituekiko jarrera kritikoak.

## 5. MULTZOA. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Ahozko nahiz idatzizko komunikazioko elementu garrantzitsuak identifikatzea eta ganoraz erabiltzea, batez ere erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza, ortotipografia...
- Azalpen- eta argudio-diskurtsoen ezaugarri kontestualak eta testualak ezagutzea eta erabiltzea testuak ulertu eta sortzeko.
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan igorlearen inplikazioa erakusteko baliabideak identifikatzea, haien ezaugarriak ematea eta gogoeta eginez erabiltzea: deixi pertsonala eta soziala, modalizazio-prozedurak.
- Mezua hartzailearentzat ulergarri egiteko azalpen-prozedurak identifikatzea, haien ezaugarriak ematea eta gogoeta eginez erabiltzea.
- Testu motak antolatzeke egiturak ezagutzea eta ganoraz erabiltzea.



- Zenbait kohesio-tresna identifikatzea, haien ezaugarriak ematea eta gogoeta eginez erabiltzea, batik bat argudio-testuetako korreferentzia-tresnak, eta ordenazko lokailuak eta lokailu logikoak.
- Idatzizko testua puntuazio-marken bidez antolatzen dela ohartzea, bai eta haiek erabiltzea ere.
- Paragrafoak esanahi-batasuna duela ohartzea eta hura erabiltzea.
- Testuetako aditz-formak ezagutu, haien ezaugarriak eman eta modu koherentean erabiltzea, batik bat aspektua, modua eta aditz-perifrafiak.
- Perpauseko elementuak ezagutzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Perpausen arteko harremanak ezagutzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Perpauseko osagaiak lotzeko euskarak dituen elementuak ezagutzea, batik bat deklinabidea eta aditz-komuntadura.
- Katategoria gramatikalen eta haien funtzioen ezaugarriak ematea.
- Hitzak eratzeko tresnak identifikatzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Arau ortografikoak ezagutzea eta norberaren lanetan aplikatzea, batik bat azentuazioa eta puntuazio-markak.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko, hizkuntzaren erabilpen sexista ekiditeko eta gramatika berrikusteko estrategiak erabiltzea, hiztegi eta ortografia-zuzentzaile analogiko nahiz digitalen bidez.
- Euskararen nahiz gaztelaniaren fonemak identifikatzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Sistema linguistikoari buruzko ondorioak ateratzea, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak) konparatuz, sailkatuz eta eraldatuz, emandako irizpideei jarraituta.
- Bi hizkuntzetan berdina den hizkuntza-terminologia zuzen erabiltzea.
- Hainbat hizkuntzatan helburu berarekin erabilitako hizkuntza-prozedurak konparatzea, eta haietako edozeinetan hizkuntzari buruz ikasitakoa erabiltzea besteei buruzko gogoeta egiteko.
- Hizkuntzen arteko kalko eta transferentzia okerrak identifikatzea eta zuzentzea.
- Hainbat euskarritako eskola-hiztegiak eta kontsultarako obrek ematen dituzten hizkuntza-informazioak interpretatzea eta zuzen erabiltzea, batez ere arauak.
- Erregistroa.
- Komunikazio-egoerarekin lotutako hizkuntza-markak: deixia, azalpen-prozedurak eta modalizazio-prozedurak.
- Azalpen- eta argudio-testuen egiturak.
- Kohesio-elementuak: lokailuak, korreferentzia-tresnak eta puntuazioa.
- Hitz multzoak: izen-, preposizio-, adjektibo- eta aditz-sintagma.
- Perpaus konposatua. Koordinazioa eta menderakuntza.
- Aditz-jokoa.
- Hitzak: kategoriak, funtzioa eta osagaiak.
- Lexikoa: jatorria eta eratze-tresnak.

- Hitzen arteko harreman semantikoak. Aldaketa semantikoa.
- Ortografia- eta fonetika-arauak.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren parte direla onartzea, eta haiek gainditzeko jarrera positiboa.
- Hizkuntzari buruz gogoeta eginda norberaren lanak erregulatzen direla ohartzea, bai eta autonomia handiagoz ikasten dela ere.
- Ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta balio soziala aintzat hartzea, erabiltzaileen arteko komunikazioa eraginkorragoa izateko.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Munduko eta EAeko eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna behatzea eta identifikatzea.
- EAeko hizkuntzen egoera soziolinguistikoa aztertzea, soziolinguistikaren oinarriko kontzeptuak erabiliz.
- Inguruko hizkuntzen arteko antzekotasunak identifikatzea, ahozko nahiz idatzizko testuak konparatuz.
- Euskararen nahiz gaztelaniaren bilakaerako faseak identifikatzea.
- Hizkuntza estandarra, gaztelaniaren dialektoak eta euskalkiak bereiztea ahozko nahiz idatzizko testuetan.
- Eleaniztasunari laguntzen dioten ohitura pertsonalak eta kolektiboak behatzea eta aztertzea.
- Euskararen erabilera eta normalkuntza sustatze aldera ikastetxean nahiz ingurunean egiten diren ekimenetan parte hartzea.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak behatzea eta ezagutzea.
- Esamolde baztertzaille oro behatzea eta ezagutzea.
- Hizkuntza-aldaera: munduko hizkuntzak, hizkuntza-familiak.
- Hizkuntza-aldaera: hizkuntza estandarra, gaztelaniaren aldaera geografikoak, euskalkiak.
- Euskarak nahiz gaztelaniak izandako jatorri eta bilakaera orokorraren alderdirik aipagarrienak.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistikoak.
- Hizkuntza estandarraren bidez aldaera desberdinetako hiztunak elkarrekin komunikatzen direla balioestea.
- Norberaren euskalkia eta gainerako euskalkiak hizkuntza aberasteko bidetzat hartzea.
- Ikastetxeko eta gizarteko hainbat esparrutan euskara erabiltzeko jokaera proaktiboa.
- Esamolde baztertzaille oro saihesteko interesa.
- Hizkuntza-aniztasuna kultura-altxor positibotzat hartzea.

### 1.1.2.6. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

## 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

### 1. Euskal literatura idatzia

Egile eta lan esanguratsuenak, garaiaren, mugimenduaren edo literatur generoaren arabera :

- **XVI. mendea:** B. Etxepare (*Linguae Vasconum Primitiae*); Joan P. Lazarragakoa (*Eskuizkribua*); Prosa didaktikoa: J. Leizarraga.
- **XVII. Mendea:** Axular (*Gero*); A. Oihenart (*O. ten gastaroa neurthizetan*).
- **XVIII-XX. mendeak (XX. mendeko erdira arte):** Prosa didaktikoa: J. A. Mogel (*Peru Abarka*), J. Etxeberri...; Eleberriak: D. Agirre (*Kresala; Garaa*)...; Antzerkia: P.I. Barrutia+...; Olerkia: Elizanburu, Lauaxeta, Lizardi (Biotz begietan), Orixe ...
- **1940. urteaz geroztik gaur egun arte:**
  - Eleberriak: Txillardegi (*Leturiaren egunkari ezkutua*), J. Mirande (*Haur besoetakoa*), R. Saizarbitoria, (*Ehun metro*), B. Atxaga (*Obabakoak*), A. Lertxundi, J. M. Irigoien, A. Urretabizkaia, J. A. Arrieta, X. Montoia, K. Uribe, U. Elorriaga, Itxaro Borda, H. Cano, P. Aristi, G. Garate, P. Lizarralde, A. Iturbe, J. M. Iturralde, A. Epaltza, J. Alonso, L. Oñederra, J. Osoro, K. Jaio...
  - Olerkia: G. Aresti (Harri eta herri), J. Artze, J. Sarrionandia, B. Gandiaga, X. Lete, K. Izagirre, M. A. Meabe, I. Aranberri, F. Juaristi, G. Markuleta, Luigi Anselmi, T Irastorza, R. Arregi...
  - Antzerkia: Piarres Lartzabal, Antton Luku...
  - Saiakera: Jakin, Joxe Azurmendi, K. Mitxelena...
  - Haur eta gazte Literatura: A. Lertxundi, M. A. Landa, J. C. Igerabide, P. Zubizarreta, B. Atxaga, M. A. Meabe, J. Ormazabal, Txiliku...

### 2. Euskal Herrian erdaraz egindako literatura idatzia

- **Erdi Aroa:** Benjamin Tuterakoa, Jehuda ha Levi, Aiala Kantzilerra...
- **Aro Modernoa:** Apologistak, Fabulistak...: E. Garibai, M. Larramendi, F. Samaniego
- **Aro Garaikidea, XIX. Mendea:** A. Xaho, A. Trueba, F. Navarro Villoslada, P. Loti...
- **Aro Garaikidea, XX. Mendea:** Olerkia: B. De Otero, G. Celaya...; Prosa: M. Unamuno, P. Baroja, I. Aldecoa...
- **Gaur egungo literatura:** Gaztelaniaz: A. Sastre, R. Pinilla, R. Guerra Garrido, T Martinez de Lezea...; Frantsezez: M. Légasse, M Darrieussecq...

### 3. Ahozko Euskal Literatura

- **Koplak:** kopla zaharrak, dantza koplak eta errondako koplak.
- **Genero epiko-lirikoa:** herri lirika, kantu epikoak eta baladak; alegiak, ipuinak eta ele zaharrak.
- **Heziketa generoa:** haur jolasak, sehaska kanta eta igarkizunak.
- **Egunerokoak:** atsotitzak, zirtoak, txisteak...
- **Herri antzerkia:** pastoralak, maskaradak eta irri antzerkia.

- **Bertsolaritza:**
  - **Historia:** Ahozko inprobisazio kantatuta kultura errealitate unibertsal gisa; jatorria, hastapenak, aro nagusiak eta haien testuingurua. Gaur egungo egoera: euskal gizartean duen harrera, emakumearen parte-hartzea, gazteengan duen arrakasta...
  - **Aro bakoitzeko bertsolari garrantzitsuenak:** (zerrenda orientagarria)
    - **XVIII -XX (erdia) mendeak:** Fernando Amezketarra, Etxahun, Iparragirre, Bilintx, Xenpelar, Txirrita, Urretxindorra, Pello Errota eta Otaño. Milia Lasturkoa, Santxa Ozaetako, Bixenta Mogel, Josepa Aranberri “Xenpelar”, Plazida Otaño, Mikaela Elizegi...
    - **1940z gerozkoak:** Xalbador, Lazkao Txiki, Balendin Enbeita, Inaxi Etxabe, Kristina Mardaraz... Bertsolari txapeldunak: Basarri, Uztapide, Amuriza, Lizaso, Lopategi, Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.
    - **Gaur egungoak:** Iturriaga, Elortza, Maia, Estiballes, Gaztelumendi, Mendiluze, Soto, Colina, Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Fredi Paya, Alaia Martin...
  - **Bat-batekoa:**
    - Ezaugarriak: atzekoz aurrerako teknika, betelana...
    - Ditzolariak, koplariak eta bertsolariak.
    - Saio motak: jaialdia, bertso-afaria, bertso-trama, triki-poteoa, bertso-jazza...
    - Metrika eta baliabideak: doinua, neurria eta errima.
    - Bertso moldeak: koplak txikia eta handia; 8ko txikia eta 8ko handia; 10eko txikia eta 10eko handia. Bereziak: Iparragirre, 9ko txikia...
    - Neurri mota guztietako doinu eredugarriak: Errota zahar maitea, Ama Begira zazu, Xarmangarria zira, Maritxu nora zoaz, Ai gure antzinako, Antton eta Maria, Pello Josepe, Mutil koxkor bat, Iparragirre abila dela, Zaldi baten bizitza...
    - Komunikazioaren eraginkortasuna bertsolaritzan: testuingurua, xedea, rolak, estrategiak...
    - Baliabide poetiko eta erretorikoak: antitesia, konparaketa, metafora, hiperbolea, ironia...
    - Hitzekoak ez diren baliabideak: kantaera, etenaldiak, intonazioa, doinuaren balio espresiboa, gorputz adierazpideak...
    - Bat-bateko jarduera nagusiak: gaia jarrita elkarrizketa osatzea edo bakarka aritzea, librean jardutea; ariketak (puntuari erantzutea, puntutan aritzea hainbaten artean eta lau oinak emanda bertsoa osatzea).
  - **Bertso-paperak:** (zerrenda orientagarria)
    - Ezaugarriak: testuingurua, funtzioa, gaiak eta egileak.
    - Bertso paper eredugarriak: “Maria Solt ta Kastero”: Pierres Topet “Etxahun”; “Ikusten duzu goizean”; “Solferinoko itsua” (Armen hartzera): Jean Batiste Elizanburu; “Kontxesiri”: Juan Inazio Iztueta;

“Pasaiako plazatik”: Xenpelar; “Iparragirre abila dela”: Xenpelar; “Loreak udan ihintza bezela”, “Joana Bixenta Olabe”, “Triste bizi naiz eta” Bilintx; “Gitarra zahartxo bat det”: Joxemari Iparragirre; “Ara non diran”: Joxemari Iparragirre; “Mutil koxkor bat”: Pedro Mari Otaño; “Norteko tren”: Txirrita; “Viva España” Kepa Enbeita “Urretxindorra”; “Markesaren alaba”: Iturrino; “Nire gorputza dardarka daukat” Balendin Enbeita; “Egun da Santi Mamiña”: Gabriel Aresti; “Bizkaiko txerriarena”: Uztarri; “Herria eta Hizkuntza” Xalbador; “Mendian gora haritza”: X. Amuriza; “Zeru altuan zegoen jaunak”: Xabier Lete; “Euskaldun baratzean”: Jon Enbeita; “Errota zahar maitea”: Juan Mari Lekuona; “Konplize ditut eta” Uxue Alberdi; “Amaren alabak” Miren Amuriza eta Maialen Arzallus,...

## 5. MULTZOA. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta

### 1. Testuingurua

- **Adierazpen-markak**
  - Deixi pertsonala: pertsona-izenordainak, edutezko izenordainak eta aditz-hondarkiak<sup>2</sup>.
  - Denbora- eta espazio-deixiak: adberbioak eta adberbio-lokuzioak, adberbiozko mendeko perpausak, aditz-aldiak...
  - Modalizazio-markak:
    - Ziurtasuna, zalantza eta probabilitatea adierazteko esamoldeak: moduzko aditzak, aditz-modua, adberbioak eta adberbio-lokuzioak, perpaus-modalitatea...
    - Baloraziozko esamoldea: izena, adjektiboa, aditza, adberbioa...; hitzik gabeko baliabideak: tipografikoak, ikonografikoak...
  - Erregistroa: erregistro-lexikoa, hizkuntzaren aldaera sozial nahiz geografikoak...
- **Forma ez-murrizgarriak eta birformulatzekoak**
  - Aposizioa, definizioa, adibidez adieraztea, bukatu gabeko esaldiak, elipsia...

### 2. Testua

- Gaien progresioa ziurtatzeko baliabideak: anaforikoak edo erreferentziako mekanismoak
  - Sinonimoak, hiperonimoak, izenordainak (pertsonalak, erakusleak), erlatibozko esaldiak, nominalizazioa, elipsia...
- Testu-mailako loturak: lokailuak eta testu-antolatzaileak (denbora, espazioa, ordena, gehikuntza, hierarkizazioa, kausa-ondorioa, kontrastea...)
- Sintaxi-mailako loturak: juntagailuak, menderagailuak, adberbioak, aditz-denbora, baliabide prosodikoak, puntuazio-markak, osagai tipografikoak...
- Testu motak (azalpen-testua eta argudio-testua) eta haien ezaugarriak

<sup>2</sup> Aditz-erro bati eransten zaion elementu gramatikala, numeroa, kasua, pertsona, generoa, etab. azaltzen duena, eta deklinagaiari nahiz aditz horren paradigmatari dagokion forma bakoitza egiteko erabiltzen dena.

### 3. Perpausak

- **Perpaua:**
  - Perpau motak: bakunak eta elkartuak (juntadura eta menderakuntza: denborazkoa, kausazkoa, ondoriozkoa, aurkaritzakoa...).
  - Perpauen egitura: subjektua eta predikatua.
  - Unitate sintaktikoak eta haien osagaiak: izen-sintagma, aditz-sintagma, adjektibo-sintagma...
  - Perpauaren osagaien arteko lotura: deklinabidea, ordena, komunztadura...
- **Hitza :**
  - Maila gramatikalak: izena, adjektiboa, aditza, mugatzailea, izenordaina, adberbioa...
  - Oinarrizko lexikoa.
  - Hitzen arteko harreman semantikoa: sinonimoak, antonimoak eta hiperonimoak, eremu semantikoak...
  - Hitzen osaketa: osagaiak, eratorpena, hitz-elkarketa...
  - Mailegutza eta zabalkuntza semantikoa.

### 4. Ahoskera, prosodia, hitzik gabeko baliabideak eta ortotipografia

- Euskararen berezko fonemak, aldaketa fonetikoak hitzaren baitan eta ahozko katearen baitan, diptongoa, intonazioa ...
- Esaldien erritmoa, esaldien intonazioa eta azentua
- Hitzik gabeko komunikazioa: keinuak, aurpegia, gorputza, proxemia...
- Arau ortografikoak: hitzaren ortografia, puntuazio-markak, letra larriak, laburdurak, siglak...

### 5. Kalko okerrak eta desegokitasunak

- Perpau barneko elementuak (*bat* ala *-a*, *desberdin*, kopurua/kantitatea/neurria, aspektuari lotuak...)
- Perpauetik gorakoak (bezala, anafora/katafora, gerundio narratiboa...)
- Ahoskerari lotuak (diptongoak, yeismoa, hitz-katea...)

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

### 1. Euskararen historia soziala

- **Historiaurretik erromatar inperioa desagertu arte.**
  - Europako jatorrizko herriak eta hizkuntzak.
  - Hizkuntza indoeuroparrak.
- **Euskara Erdi Aroan: (V–XV. mendeak)**
  - Kristautasuna eta euskara.
  - Euskal Herriko eta bere inguruneko hizkuntza erromanikoak.
- **Aro Modernoa. (XVI-XVIII. mendeak)**

- Euskaraz lehen idazkiak.
- Euskal Literaturaren sorrera Iparraldean.
- Euskara erakundeetan.
- **XVIII. mendea**
  - Euskal Literaturaren loraldia. .
  - Hizkuntza-politika: erresuma bat, hizkuntza bat; euskararen kontrako jazarpena.
  - Hizkuntzaren lurralde-galera.
- **Aro Garaikidea. ( 1789tik gaur arte)**
  - 1789-1876: Foruen galeraren ondorioak. Euskal Lehen Pizkundera.
  - Hizkuntza=Kultura. Resurrección Maria de Azkue.
  - Hizkuntza= Proiektu politikoa. Sabino Arana.
  - Hizkuntza-normalizatzeko lehen saiakera: Hendaia Biltzarra(1901)
  - Euskarazko lehen eskolak.
  - Emakumeak euskalgintzan: hezkuntza, literatura, kazetaritza, politika,...
  - Euskal Bigarren Pizkundera. *Euskaltzaleak* taldea
  - Gerra ondorengo etsipena: hizkuntzaren errepresioa.
  - 60ko hamarkada: Euskal kulturaren aldeko mugimendua.
  - Hezkuntza-eredu berria. Elvira Zipitriaren berrikuntza pedagogikoaren garrantzia. Ikastolen sorrera
  - 1975-gaur egun: Euskararen berreskurapen-prozesua. Euskararen ofizialtasuna eta hizkuntzaren legedia. Euskararen aldeko herri ekimenak. Euskarazko komunikabideak.

## 2. Hizkuntzaren aniztasuna

- Hizkuntzen sailkapena: Hizkuntza-familiak, gure inguruko hizkuntzak, ...
- Europako hizkuntzak. Amarauna Languages: Unescoaren proiektua.
- Hizkuntza estandarra: batua.
- Euskara batuaren historia eta garapena: lehenengo saiakeretatik XX. mendera; Euskaltzaindia, Baionako Biltzarra(1964), Arantzazuko Biltzarra(1968)
- Euskalkiak eta euskararen aldaerak.

## 3. Hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa

- Euskal Herriko hizkuntzen egoera soziolinguistikoa: eleaniztasuna, elebitasuna, diglosia.
- Hizkuntzen estatusa: hizkuntza-ofizialak eta ez-ofizialak; gehiengoaren hizkuntza eta gutxiengoaren hizkuntza.
- Hizkuntzen garapenerako eta normalizaziorako erakundeak eta elkarteak: Euskaltzaindia, Eusko Jaurlearitzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Euskal Kultur Erakundeak-Institute Culturelle Basque (EKE-ICB), HABE, EITB, elkarteak, tokian tokiko telebistak, aldizkariak, irratiak, interneteko baliabideak...

- Hizkuntzen normalizaziorako herri-ekimenak.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak eta betebeharrak. Euskararen legea, Estatuko eta Europako legedia.
- Hiztunen eskubideak defendatzeko erakundeak: Hizkuntza-Eskubideen Behatokia, Elebidide.

### 1.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1.1.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

1. **Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen ea ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak bereiziz eta informazio egokia hautatuz, proposatutako helburuari begira.**
  - Aurrez landutako ahozko generoak identifikatu eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Ahozko testuen gaiari igartzen dio.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuinguruko elementu esplizituen bidez.
  - Entzungaiko informazioak identifikatu eta erauzten ditu.
  - Ahozko testuen zentzu orokorra eraikitzen du.
  - Ideia nagusiak bereizten ditu.
  - Gertaerak eta iritziak bereizten ditu.
  - Testuko elementu ez-esplizitu batzuk ondorioztatzen ditu.
  - Informazioa erregistratzeko baliabideak erabiltzen ditu: fitxak, taulak, kontzeptu-mapak...
  - Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Modu aktiboan entzuten du.
  - Errespetuz entzuten du.
  - Adierazpen baztertzailuez, androzentrikoez eta sexistez ohartzen da.
2. **Hainbat euskarritan idatzitako testuak ulertzea eta interpretatzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, testuaren atalak identifikatuz, ideia nagusiak bereiziz eta informazio egokia hautatuz, proposatutako helburuari begira.**
  - Idatzizko generoak identifikatu, eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Testuaren gai orokorrari igartzen dio.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da, idatzizko testuetako elementu esplizituen arabera.
  - Irakurgaiako informazioak identifikatu eta erauzten ditu.
  - Testuaren zentzu orokorra laburtzen du.
  - Ideia nagusiak identifikatzen ditu.
  - Gertaerak eta iritziak bereizten ditu.



- Testuko elementu ez-esplizitu batzuk ondorioztatzen ditu.
  - Ideiak antolatzeke teknikak erabiltzen ditu, lagunduta, idatzizko testuak antolatzeke: eskemak, grafikoak, kontzeptu-mapak...
  - Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du, lagunduta.
  - Ulermen-arazoak konpontzeke estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Hizkuntzak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonoak, ortotipografia, etab.
  - Elementu multimodalen esanahia txertatzen du testu digitaletan.
  - Adierazpen baztertzailerez ohartzen da.
  - Irakurketarekiko interesa dauka, informazio- eta jakintza-iturri den heinean.
- 3. Planifikatu ondoren, ahozko testu soilak, argiak eta egituratuak sortzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, jarduera akademikoari buruzkoak edo gai interesgarriari buruzkoak, ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen laguntzaz, hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiliz.**
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien araberrako erabaki egokiak hartzen ditu.
  - Iturri analogiko, ikus-entzunezko nahiz digitaletan informazio garrantzitsua bilatu eta hautatzen du, lagunduta.
  - Modu logikoan antolatzen du informazioa, emandako jarraibideak aintzat hartuz.
  - Ahozko testua egituratzen du, eskema egoki bati jarraituz.
  - Hartzaileak testua ulertzeko estrategiak erabiltzen ditu: ideiak birformulatzea...
  - Kontuan hartzen ditu hitzezkoak ez diren doinua, keinua, gorputzaren jarrera...
  - Ahozko testuak sortzen ditu, argi eta txukun, gidoi bati jarraituz.
  - Ikus-entzunezko baliabideak eta IKTak erabiltzen ditu, lagunduta, ahozko lanak sortzeke.
  - Autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta, ahozko erabilerak hobetzeko.
  - Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan.
  - Hizkuntzaren erabilera baztertzaille oro eta sexistak saihesten ditu.
- 4. Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozkarremanetan, elkarlanerako jarrera positiboarekin.**
- Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, ideiak, gertaerak, bizipenak eta sentimenduak adieraziz, iritziak kontrastatuz eta erabakiak hartuz.
  - Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.
  - Modu espontaneoan parte hartu, eta ikuspuntu pertsonala ematen du.
  - Bere hizketa-saioari buruzko galderari erantzuten die.
    - Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen du bere hizketa-saioa.
  - Galdera eta iruzkin egokiak egiten ditu inoren hitzen aurrean.

- Inoren hizketaldiak errespetatzen ditu.
    - Hizketako txanda errespetatu eta arau soziokomunikatiboak erabiltzen ditu.
    - Intonazio, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.
- 5. Planifikatu ondoren, idatzizko testuak sortzea, paperean nahiz digitalean, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, komunikazio-egoera kontuan hartuz, eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien arabera erabaki egokiak hartzen ditu.
  - Iturri analogiko nahiz digitaletan informazioa bilatu eta hautatzen du, lagunduta.
  - Testuaren edukia planifikatzen du, lagunduta, eskemak, oharra, kontzeptu-mapak eta abar erabiliz.
  - Testu-generoaren egitura kontuan hartu eta berregiten du.
  - Informazioa paragrafotan antolatzen du.
  - Ikasturtean zehar landutako kohesio-elementu nagusiak erabiltzen ditu.
  - Hartzaileari informazioa ulergarri egiteko estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta; adibidez, ideiak birformulatzea.
  - Egoki islatzen du aurrez definitutako asmoa edo helburua.
  - Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.
  - Arau gramatikalak eta tipografikoak errespetatzen ditu, bai eta arau ortografiko nagusiak ere.
  - Autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta, idatzizko testuak berrikusteko nahiz hobetzeko.
  - Teknika eta tresna digitalak erabiltzen ditu, lagunduta, idatzizko testuak sortu eta zabaltzeko.
  - Egoki eta zuzen aurkezten du testua: marjinak, goiburua, irakurgarritasuna...
  - Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan eta hobetzeko gaitasunean.
  - Hizkuntzaren erabilera baztertzailer oro saihesten du bere idazlanetan.
  - Idazketa komunikazio-bidetzat hartzen du.
- 6. Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauez gogoeta egitea, testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz, eta jakintza horiek erabiltzea, lagunduta, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testu eta berrikuspen hobeak egiteko.**
- Ikasturtean zehar landutako testuetan oinarrituta, testuinguruko eta diskurtsoko hizkuntza-markak identifikatzen ditu.
  - Oinarrizko egitura sintaktikoak ezagutzen ditu.
  - Oinarrizko kategoria gramatikalak ezagutzen ditu.
  - Hitzak eratzeko oinarrizko tresna batzuk ezagutzen ditu.
  - Arau morfosintaktiko, ortografiko eta fonetiko nagusiak ezagutzen eta betetzen ditu bere lanetan.

- Aurrez landutako hizkuntza-ezaguerak aplikatzen ditu, lagunduta, testuak ulertu eta sortzeko.
  - Sistema linguistikoaren erregularitasunak ondorioztatzen ditu, testuak edo esaldiak osatuz, konparatuz eta eraldatuz, emandako irizpideen arabera.
  - Oinarrizko hizkuntza-akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, lagunduta, norberaren eta inoren testuetan, emandako ildoetara jarraituz.
  - Dakizkien hizkuntzen arteko kalko oker batzuk identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Bere lanetan hizkuntza-arauak betetzeko interesa dauka.
- 7. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruzko gogoeta egitean, testuak ulertu eta sortzeko.**
- Ikasturtean zehar landutako oinarrizko terminologia ulertzen du, testuak ulertzeko eta sortzeko orduan emandako azalpenak eta argibideak jarraitzeko.
  - Oinarrizko terminologia erabiltzen du testuak ulertu eta sortzeko gogoetetan.
  - Informazio gramatikal orokorra eskuratu eta erabiltzen du hainbat euskarritako eskola-hiztegietan eta bestelako kontsulta-liburuetan.
- 8. Literaturako testu laburrak edo pasarteak ulertzea, ahozkoak nahiz idatzizkoak, denen artean irakurrita eta entzunda, eta testuari buruzko iritzi pertsonala ematea, oinarrizko literatura-ezaguerak erabiliz.**
- Hainbat generotako literatura-testuak irakurri eta entzuten ditu, lagunduta.
  - Literatura-testuen esanahia elkarrekin eraikitzeke jardueretan parte hartzen du.
  - Literatura-testuak irakurtzen edo dramatizatzen ditu, ozen eta adierazkortasunez.
  - Testuaren oinarrizko elementuak edo ezaugarriak identifikatzeko jarraibideak erabiltzen ditu.
  - Literatura-generoa ezagutzen du.
  - Literatura-testuen zentzu orokorra identifikatzen du.
  - Ideia nagusiak identifikatzen ditu.
  - Testuaren egitura ezagutzen du.
  - Ulermen-estrategiak erabiltzen ditu.
  - Literatura-lanari buruzko balioespen pertsonal bat aurkezten du, emandako irizpideen arabera.
  - ICTak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, informazioa bilatzeko.
- 9. Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, literatura-testu bat eredutzat hartu eta testuak parametro jakin batzuen arabera eraldatuz.**
- Hautatutako generoaren egitura eta prozedura erretoriko eta estilistikoren bat erabiltzen du.
  - Bere ideiak islatzen ditu literatura asmoko bere testuetan.
  - Adierazkortasun-baliabideak erabiltzen ditu, zabaldu nahi duen edukiaren eta literatura-generoaren arabera.

- Planifikatzeko, testua idazteko eta berrikusteko prozedura nagusiak aplikatzen ditu, lagunduta, literatura asmoko testuak sortzeko.
  - ITak erabiltzen ditu, lagunduta, literatura asmoko testuei buruzko informazioa bilatu, sortu eta zabaltzeko.
  - Testu argia eta zuzena sortzen du, eta ortografia-, ahoskera- eta aurkezpen-arau nagusiak betetzen ditu.
- 10. Ahozko nahiz idatzizko literaturaren hainbat lagin ezagutzea, bai eta haien konbentzio berezi batzuk ere, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren kultura aberasteko.**
- Literatura-kontakizunaren ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu.
  - Poesiaren eta bertsolaritzaren ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu: erritmoa eta bertsogintza.
  - Antzerkiaren elementu nagusiak ezagutzen ditu.
  - Literatura-testuen zenbait ezaugarri identifikatzen ditu literaturatik hurbil dauden beste kultura-esparru batzuetan: zineman, komikian...
- 11. Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura hartzea gozamen-iturritzat eta mundua ezagutzeko bidetzat.**
- Literatura-irakurgaiak hautatzen ditu, lagunduta, gozamen pertsonalerako.
  - Ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzen ditu, lagunduta, literatura-testuak hautatzeko.
  - Gero eta interes eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu gazte-literaturako obrak, bere gustu, zaletasun nahiz interesetatik hurbil daudenak.
  - Literaturari buruzko elkarrizketetan parte hartzen du, bere bizipenak eta ikuspegi pertsonala adieraziz.
  - Literatura-lanen edukiari buruzko iritzia ematen du, ahoz nahiz idatziz, hainbat euskarri erabiliz.
  - Literaturarekiko interesa dauka, gozamen-iturria eta mundua ezagutzeko bidea den heinean.
- 12. Hizkuntza-aniztasunaz ohartzea eta hori balioestea, hizkuntzak nahiz hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, eta oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak erabiliz.**
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko hizkuntzak identifikatzen ditu.
  - Inguruneko euskalki nagusiak identifikatzen ditu.
  - Hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak saihesten ditu.
  - Errespetua eta jarrera positiboa du EAEko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean.
- 13. Hizkuntza-ohitura nahiz -jokaera asertiboak eta enpatikoak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa, kooperatiboa, bidezkoa eta arduratsua ere testuinguru eleaniztunetan.**
- Euskararen erabilera lehenesten du denetarikozko komunikazio-esparruetan.

- Euskara normaltzeko eta euskal kultura zabaldu eta sortzeko eskola-jardueretan parte hartzen du.
  - Bere euskalkia erabiltzen du hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.
  - Euskara erabiltzeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.
- 14. Gero eta autonomia handiagoz erabiltzea informazio-teknologiak, eskolako jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko.**
- Informazioa bilatu eta aurkitzen du, bilaketa aurreratuko tresnaren bat erabiliz.
  - Informazioa biltegitatu eta berreskuratzen du, lagunduta, lokalean nahiz on-line.
  - Informazioa modu egokian etiketatzen du, lagunduta.
  - Komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko tresnarik eta aplikaziorik ohikoenak erabiltzen ditu.
  - Iturrien fidagarritasuna balioesten du, lagunduta, emandako ildoei jarraituz.
  - Iturrien egiletza aipatzen du bere lan digitaletan, lagunduta.
  - Komunikazio digitalen kortesia-arauak zaindu eta errespetatzen ditu, lagunduta.
- 15. Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean konfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko.**
- Hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilera hobetzeko autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta.
  - Norberaren eta inoren lanak berrikusteko nahiz hobetzeko lanetan parte hartzen du, lagunduta.
  - Kontrol-zerrendak egiten ditu, elkarlanean eta lagunduta, eta autoebaluazio- nahiz koebaluazio-jardueretan erabiltzen ditu.
  - Edozein hizkuntzatan garatutako autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta, beste hizkuntzak hobeto ikasteko.
  - Ikaskuntzaren helburuak ezagutzeko interesa du.
  - Akatsak egitea ikaskuntzaren parte dela onartzen du.
  - Hizkuntza ikasteak berez dituen zailtasunak gainditzeko jarrera proaktiboa du.
  - Gero eta kontzientzia handiagoa du bere ikaskuntza-prozesuko gaitasunei eta zailtasunei buruz.
  - Ikasitakoaz ohartzen da eta ikaskuntza-helburu berriak markatzeko gai da, bi hizkuntza ofizialetan.

### 1.1.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

- 1. Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informazio egokia hautatuz, proposatutako helburuari begira.**
- Aurrez landutako ahozko generoak identifikatu eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Ahozko testuen gaiari igartzen dio.

- Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuinguruko elementu esplizituen bidez.
  - Entzungaiko informazioak identifikatu eta erazten ditu.
  - Ahozko testuen zentzu orokorra eraikitzen du.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.
  - Gertaerak eta iritziak bereizten ditu.
  - Testuko elementu ez-esplizitu batzuk ondorioztatzen ditu.
  - Informazioa erregistratzeko baliabideak erabiltzen ditu: fitxak, taulak, kontzeptu-mapak...
  - Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Modu aktiboan entzuten du.
  - Errespetuz entzuten du.
  - Adierazpen baztertzaillez ohartzen da.
- 2. Hainbat euskarritan idatzitako testuak ulertzea eta interpretatzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, testuko zatiak identifikatuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informazio egokia hautatuz, proposatutako helburuari begira.**
- Idatzizko generoak identifikatu, eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Testuaren gai orokorrari eta bigarren mailakoei igartzen die.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da, idatzizko testuetako elementu esplizituen arabera.
  - Irakurgaiko informazioak identifikatu eta erazten ditu.
  - Testuaren zentzu orokorra laburtzen du.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzen ditu.
  - Gertaerak eta iritziak bereizten ditu.
  - Testuko elementu ez-esplizitu batzuk ondorioztatzen ditu.
  - Ideiak antolatzeke teknikak erabiltzen ditu, lagunduta, idatzizko testuak antolatzeke: eskemak, grafikoak, kontzeptu-mapak...
  - Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du, modu gutxi-asko autonomoan.
  - Ulermen-arazoak konpontzeke estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Hizkuntzakoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonoak, ortotipografia, irudiak, etab.
  - Elementu multimodalen esanahia txertatzen du testu digitaletan.
  - Adierazpen baztertzaillez, androzentrikoez eta sexistez ohartzen da.
  - Irakurketarekiko interesa dauka, informazio- eta jakintza-iturri den heinean.
- 3. Planifikatu ondoren, ahozko testu soilak sortzea, argiak eta egituratuak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, jarduera**

**akademikoari buruzkoak edo gai interesgarriei buruzkoak, ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen laguntzaz, hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiliz.**

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien arabera erabaki egokiak hartzen ditu.
- Iturri analogiko, ikus-entzunezko nahiz digitaletan informazio esanguratsua bilatu eta hautatzen du, lagunduta.
- Modu logikoan antolatzen du informazioa, emandako jarraibideak aintzat hartuz.
- Ahozko testua egituratzen du, eskema egoki bati jarraituz.
- Testua hartzailearentzat ulergarri egiteko estrategiak erabiltzen ditu; adibidez, ideiak birformulatzea.
- Kontuan hartzen ditu hitzezkoak ez diren doinua, keinuak, gorputzaren jarrera...
- Ahozko testuak sortzen ditu, argi eta txukun, gidoi bati jarraituz.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKTak erabiltzen ditu, lagunduta, ahozko lanak sortzeko.
- Autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta, ahozko erabilerak hobetzeko.
- Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan.
- Hizkuntzaren erabilera baztertzailer oro eta sexistak saihesten ditu.

**4. Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, elkarlanerako jarrera positiboarekin.**

- Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, ideiak, gertaerak, bizipenak eta sentimenduak adieraziz, iritzia kontrastatuz eta erabakiak hartuz.
- Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.
- Modu espontaneoan parte hartu, eta ikuspuntu pertsonala ematen du.
- Bere hizketa-saioari buruzko galderi erantzuten die.
- Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen du bere hizketa-saioa.
- Galdera eta iruzkin egokiak egiten ditu inoren hitzen aurrean.
- Inoren hizketaldiak errespetatzen ditu.
- Hizketako txanda errespetatu eta arau soziokomunikatiboak erabiltzen ditu.
- Intonazio, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.

**5. Planifikatu ondoren, idatzizko testuak sortzea, paperean nahiz digitalean, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, kontuan hartuz komunikazio-egoera, eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien arabera erabaki egokiak hartzen ditu.
- Iturri analogiko nahiz digitaletan bilatu eta hautatzen du informazioa, lagunduta.
- Testuaren edukia planifikatzen du, lagunduta, eskemak, oharra, kontzeptu-mapak eta abar erabiliz.

- Testu-generoaren egitura kontuan hartu eta berregiten du.
  - Informazioa paragrafotan antolatzen du.
  - Ikasturtean zehar landutako kohesio-elementu nagusiak erabiltzen ditu.
  - Gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu hartzaileari informazioa ulergarri egiteko estrategiak; adibidez, ideiak birformulatzea eta adibideak ematea.
  - Egoki islatzen du aurrez definitutako asmoa edo helburua.
  - Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.
  - Arau gramatikalak eta tipografikoak errespetatzen ditu, bai eta arau ortografiko nagusiak ere.
  - Gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak, idatzizko testuak berrikusteko nahiz hobetzeko.
  - Gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu teknika eta tresna digitalak, idatzizko testuak sortu eta zabaltzeko.
  - Egoki eta zuzen aurkezten du testua: marjinak, goiburuak, irakurgarritasuna...
  - Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan eta hobetzeko gaitasunean.
  - Hizkuntzaren erabilera baztertzailer oro saihesten du bere idazlanetan.
  - Idazketa komunikazio-bidetzat hartzen du.
- 6. Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauez gogoeta egitea, testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz, eta jakintza horiek erabiltzea, lagunduta, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testu eta berrikuspen hobeak egiteko.**
- Ikasturtean zehar landutako testuetan oinarrituta, testuinguruko eta diskurtsoko hizkuntza-markak identifikatzen ditu.
  - Oinarrizko egitura sintaktikoak ezagutzen ditu.
  - Oinarrizko kategoria gramatikalak ezagutzen ditu.
  - Hitzak eratzeko oinarrizko tresnak ezagutzen ditu.
  - Hitzen arteko harreman semantiko nagusiak ezagutzen ditu.
  - Arau morfosintaktiko, ortografiko eta fonetiko nagusiak ezagutzen eta betetzen ditu bere lanetan.
  - Aurrez landutako hizkuntza-ezaguerak aplikatzen ditu, lagunduta, testuak ulertu eta sortzeko.
  - Sistema linguistikoaren erregularitasunak ondorioztatzen ditu, testuak edo esaldiak osatuz, konparatuz eta eraldatuz, emandako irizpideen arabera.
  - Oinarrizko hizkuntza-akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, lagunduta, norberaren eta inoren testuetan, emandako ildoei jarraituz.
  - Dakizkien hizkuntzen arteko kalko oker batzuk identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Bere lanetan hizkuntza-arauek betetzeko interesa dauka.
- 7. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruzko gogoeta egitean, testuak ulertu eta sortzeko.**



- Oinarrizko terminologia ulertzen du, testuak ulertzeko eta sortzeko orduan emandako azalpenak eta argibideak jarraitzeko.
  - Oinarrizko terminologia erabiltzen du testuak ulertu eta sortzeko gogoetetan.
  - Informazio gramatikal orokorra eskuratu eta erabiltzen du hainbat euskarritako eskola-hiztegietan eta bestelako kontsulta-liburuetan, gero eta autonomia handiagoz.
- 8. Literaturako testu laburrak edo pasarteak ulertzea, ahozkoak nahiz idatzizkoak, denen artean irakurrita eta entzunda, literatura-ezaguera erabiliz, eta testuari buruzko iritzi pertsonala ematea.**
- Hainbat generotako literatura-testuak irakurri eta entzuten ditu, lagunduta.
  - Literatura-testuen esanahia elkarrekin eraikitzeko jardueretan parte hartzen du.
  - Literatura-testuak irakurtzen edo dramatizatzen ditu, ozen eta adierazkortasunez.
  - Testuaren elementuak edo ezaugarriak identifikatzeko jarraibideak erabiltzen ditu.
  - Literatura-generoak ezagutzen ditu.
  - Gaia identifikatu eta haren edukia laburtzen du.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzen ditu.
  - Testuetako hizkuntzaren balio sinbolikoa ezagutzen du.
  - Ulermen-estrategiak erabiltzen ditu.
  - Literatura-lanari buruzko balioespen pertsonal bat aurkeztu, emandako irizpide batzuen arabera justifikatu, eta atentzioa eman dioten alderdiak azpimarratzen ditu.
  - Euskal eta Espainiar literaturan landutako garai eta mugimenduetan, emakumezkoek egindako obrak eta ekarpenak ezagutzeko interesa erakusten du.
  - IKTak erabiltzen ditu informazioa bilatzeko, gero eta autonomia handiagoz.
- 9. Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, literatura-testu bat eredutzat hartu eta testuak parametro jakin batzuen arabera eraldatuz.**
- Hautatutako generoaren egitura erabiltzen du, bai eta haren prozedura erretorikoak nahiz estilistikoak ere.
  - Bere ideiak eta bizipenak islatzen ditu literatura asmoko testuak sortzeko.
  - Adierazkortasun-baliabideak erabiltzen ditu, zabaldu nahi duen edukiaren eta literatura-generoaren arabera.
  - Sormena eta originaltasuna erakusten du.
  - Gero eta autonomia handiagoz aplikatzen ditu planifikatzeko, testua idazteko eta berrikusteko prozedura nagusiak, literatura asmoko testuak sortzeko.
  - Gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu IKTak, literatura asmoko testuei buruzko informazioa bilatu, sortu eta zabaltzeko.
  - Testu argia eta zuzena sortzen du, eta ortografia-, ahoskera- eta aurkezpen-arauak betetzen ditu.
- 10. Ahozko nahiz idatzizko literaturaren hainbat lagin ezagutzea, bai eta haien konbentzio bereziak ere, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren kultura aberasteko.**

- Literatura-generoaren ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu.
  - Ahozko euskal literatura tradizionalako generoen ezaugarri nagusiak ezagutzen ditu, bai eta baliabide erretoriko eta sinboliko batzuk ere.
  - Baliabide erretoriko nagusiak identifikatzen ditu.
  - Antzerki-testuaren alderdi formalak ezagutzen ditu.
  - Literatura-testuen zenbait ezaugarri identifikatzen ditu literaturatik hurbil dauden beste kultura-esparru batzuetan: zineman, komikian...
- 11. Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura gozamen-iturritzat hartzea, mundua ezagutzeko bidetzat, eta nortasun pertsonala, kulturala nahiz soziala eraikitzeke eratzat.**
- Gero eta autonomia handiagoz hautatzen ditu literatura-irakurgaiak, gozamen pertsonalerako.
  - Gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak, literatura-testuak hautatzeko.
  - Gero eta interes eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu gazte-literaturako obrak, bere gustu, zaletasun nahiz interesetatik hurbil daudenak.
  - Literaturari buruzko elkarrizketetan parte hartzen du, bere bizipenak eta ikuspegi pertsonala adieraziz.
  - Literatura-lanen edukiari buruzko iritzia ematen du, ahoz nahiz idatziz, hainbat euskarri erabiliz.
  - Literaturarekiko interesa dauka, gozamen-iturria eta mundua ezagutzeko bidea den heinean.
- 12. Hizkuntza-aniztasunaz ohartzea eta hori balioestea, hizkuntzak nahiz hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, eta oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak erabiliz.**
- Ikastetxeko eta inguruneko egoera soziolinguistikoa deskribatzen du, oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak aplikatuz.
  - Hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskara transmititzeko nahiz mantentzeko orduan duten funtzioa aztertu eta balioesten du.
  - Hizkuntza baten egoera erabakitzen duen faktoreren bat ezagutzen du.
  - Euskararen nahiz gaztelaniaren arteko kontaktuaren ondorio batzuk identifikatzen ditu, egoera jakinak aztertuz.
  - Hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak saihesten ditu.
  - Errespetua eta jarrera positiboa du EAEko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean.
- 13. Hizkuntza-ohitura nahiz -jokaera asertiboak eta enpatikoak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa, kooperatiboa, bidezkoa eta arduratsua ere testuinguru eleaniztunetan.**
- Euskararen erabilera lehenesten du denetariko komunikazio-esparruetan.
  - Euskara normaltzeko eta euskal kultura zabaldu eta sortzeko eskola-jardueretan parte hartzen du.
  - Bere euskalkia erabiltzen du hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.

- Euskara erabiltzeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.
- 14. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskolako jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko.**
- Informazioa bilatu eta aurkitzen du, bilaketa aurreratuko tresnak erabiliz.
  - Informazioa biltegiratu eta berreskuratzen du, lagunduta, lokalean eta on-line.
  - Informazioa modu egokian etiketatzen du, lagunduta.
  - Komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko tresnarik eta aplikaziorik ohikoenak erabiltzen ditu.
  - Iturrien fidagarritasuna balioesten du, emandako ildoetara jarraituz.
  - Iturrien egiletza aipatzen du bere lan digitaletan, lagunduta.
  - Komunikazio digitalen kortesia-arauak zaindu eta errespetatzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
- 15. Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean konfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko.**
- Autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta, hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilera hobetzeko.
  - Norberaren eta inoren lanak berrikusteko nahiz hobetzeko lanetan parte hartzen du, lagunduta.
  - Kontrol-zerrendak egiten ditu, elkarlanean eta lagunduta, eta autoebaluazio- nahiz koebaluazio-jardueretan erabiltzen ditu.
  - Edozein hizkuntzatan garatutako autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta, beste hizkuntzak hobeto ikasteko.
  - Ikaskuntzaren helburuak ezagutzeko interesa du.
  - Akatsak egitea ikaskuntzaren parte dela onartzen du.
  - Hizkuntza ikasteak berez dituen zailtasunak gainditzeko jarrera proaktiboa du.
  - Gero eta kontzientzia handiagoa du bere ikaskuntza-prozesuko gaitasunei eta zailtasunei buruz.
  - Ikasitakoaz ohartzen da eta ikaskuntza-helburu berriak markatzeko gai da, bi hizkuntza ofizialetan.

### 1.1.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

- 1. Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz, proposatutako helburuari begira.**
- Aurrez landutako ahozko generoak identifikatu eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Ahozko testuen gaiari igartzen dio.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuinguruko elementu esplizituen nahiz implizituen bidez.

- Entzungaiko informazioak identifikatu eta erauzten ditu, bai eta testuko daturik garrantzitsuenak ere.
  - Ahozko testuen zentzu orokorra eraikitzen du.
  - Atalen arteko harreman logikoak ezartzen ditu.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.
  - Gertaerak eta iritziak bereizten ditu.
  - Testuko elementu ez-esplizituak ondorioztatzen ditu: zentzu doblea, ironia...
  - Autonomiaz erabiltzen ditu informazioa erregistratzeko baliabideak.
  - Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Modu aktiboan entzuten du.
  - Errespetuz entzuten du.
  - Adierazpen baztertzaileez ohartzen da.
  - Modu kritikoan interpretatzen ditu pertsuasio-mezuak, batik bat hedabideetakoak.
- 2. Hainbat euskarritan idatzitako testuak ulertzea eta interpretatzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz, proposatutako helburuari begira.**
- Idatzizko generoak identifikatu, eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Testuaren zentzu orokorra eta bigarren mailako gaiak ondorioztatzen ditu.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da, idatzizko testuetako elementu esplizituen nahiz implizituen arabera.
  - Irakurgaiako informazioak identifikatu eta erauzten ditu.
  - Testuaren zentzu orokorra laburtzen du.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzen ditu.
  - Informazioak, iritziak, gertaerak eta falaziak bereizten ditu.
  - Testuko elementu ez-esplizituak ondorioztatzen ditu.
  - Autonomiaz erabiltzen ditu ideiak antolatzekeo teknikak, idatzizko testuak antolatzekeo: eskemak, grafikoak, kontzeptu-mapak...
  - Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du, modu gutxi-asko autonomoan.
  - Ulermen-arazoak konpontzekeo estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Hizkuntzakoak ez diren elementuen esanahia interpretatu eta balioesten du: ikonoak, ortotipografia...
  - Elementu multimodalen esanahia txertatzen du testu digitaletan.
  - Adierazpen baztertzaileez, androzentrikoez eta sexistez ohartzen da.
  - Irakurketarekiko interesa dauka, informazio- eta jakintza-iturri den heinean.
- 3. Planifikatu ondoren, azalpen- eta argudio-testu eraginkorrak egitea, argiak eta egituratuak, gizarteari, politikari edo kulturari buruzkoak, ikasleentzat interesgarriak,**

**ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen laguntzaz, hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiliz.**

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien arabera erabaki egokiak hartzen ditu.
- Informazio esanguratsua bilatu eta hautatzen du, analogikoa, ikus-entzunezkoa nahiz digitala, gero eta autonomia handiagoz.
- Modu logikoan antolatzen du informazioa, komunikatu asmo denaren arabera.
- Ahozko testua egituratzen du, testu-antolatzaile egokiak erabiliz.
- Testua ulergarri egiteko eta hartzailea inplikatzeko estrategiak erabiltzen ditu: ideiak birformulatzea, galdera erretorikoak, erregistro-aldaketak.
- Hitzekoak ez diren alderdiak kontrolatzen ditu: doinua, keinuak, gorputzaren jarrera...
- Ahozko testuak sortzen ditu, batik bat azalpen- eta argudio-estuak, argi eta txukun, gidoi bati jarraituz.
- Zuzentasun, jario eta ahoskera egokiz hitz egiten du.
- Modu autonomoan erabiltzen ditu IKTak, bere ahozko aurkezpenak egiteko eta zabaltzeko.
- Bere ahozko erabilerak hobetzeko autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.
- Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan.
- Hizkuntzaren erabilera baztertzailerok eta sexistak saihesten ditu.

**4. Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, bai eta interes sozial, politiko edo kultureko eztabaidetan ere, elkarlanerako jarrera positiboarekin.**

- Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, ideiak, gertaerak, bizipenak eta sentimenduak adieraziz, iritzia kontrastatuz eta erabakiak hartuz.
- Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.
- Modu espontaneoan parte hartu, eta ikuspuntu pertsonala ematen du.
- Galderei erantzun eta bere hitzak argudiatzen ditu.
- Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen ditu bere jarduna eta argudioak.
- Galdera eta iruzkin egokiak eta zuzenak egiten ditu inoren hitzen aurrean.
- Inoren hizketaldiak errespetatzen ditu.
- Hizketako txanda errespetatu eta arau soziokomunikatiboak erabiltzen ditu.
- Intonazio, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.

**5. Planifikatu ondoren, idatzizko testuak sortzea, paperean nahiz digitalean, gai sozial, politiko edo kultureko buruzkoak, ikasleen interesekoak, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, kontuan hartuz komunikazio-egoera, eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien arabera erabaki egokiak hartzen ditu.

- Gero eta autonomia handiagoz bilatu eta hautatzen du informazioa, iturri analogikotan nahiz digitaletan.
  - Gero eta autonomia handiagoz planifikatzen du testuaren edukia, eskemak, oharrek, kontzeptu-mapak eta abar erabiliz.
  - Idatzizko testua egituratzen du, testu-antolatzaile egokiak erabiliz.
  - Esanahi-batasuna duten paragrafotan antolatzen du informazioa.
  - Ohiko kohesio-elementuak erabiltzen ditu azalpen- eta argudio-testuetan.
  - Gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu testua ulergarri egiteko eta hartzailea inplikatzekeo estrategiak: ideiak birformulatzea, adibideak ematea, grafikoak...
  - Egoki islatzen du aurrez definitutako asmoa edo helburua.
  - Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.
  - Arau gramatikalak eta tipografikoak errespetatzen ditu, bai eta arau ortografikoak ere.
  - Modu autonomoan erabiltzen ditu autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak, idatzizko testuak berrikusteko nahiz hobetzeko.
  - Modu autonomoan erabiltzen ditu teknika eta tresna digitalak, idatzizko testuak sortu eta zabaltzeko.
  - Egoki eta zuzen aurkezten du testua: marjinak, goiburuak, irakurgarritasuna...
  - Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan eta hobetzeko gaitasunean.
  - Hizkuntzaren erabilera baztertzaille oro saihesten du bere idazlanetan.
  - Idazketa komunikazio-bidetzat hartzen du.
- 6. Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauez gogoeta egitea, eta jakintza horiek erabiltzea, lagunduta, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testu eta berrikuspen hobeak egiteko.**
- Ikasturtean zehar landutako testuetan oinarrituta, hizkuntza-egoerarekin lotutako hizkuntza-markak identifikatu, eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Ikasturtean zehar landutako testuetan oinarrituta, diskurtsoarekin lotutako hizkuntza-markak identifikatu, eta haien ezaugarriak ematen ditu.
  - Perpausen arteko harremanak ezagutzen ditu.
  - Kategoria gramatikalak, haien forma eta funtzioa ezagutzen du.
  - Hitzak eratzeko tresnak ezagutzen ditu.
  - Hitzaren arteko harreman semantikoak ezagutzen ditu.
  - Oinarritzko arau fonetiko, ortografiko eta morfosintaktikoak ezagutu eta errespetatzen ditu bere lanetan.
  - Aurrez landutako hizkuntza-ezaguerak aplikatzen ditu testuak ulertu eta sortzeko, gero eta autonomia handiagoz.
  - Norberaren eta inoren testuetako akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - Dakizkien hizkuntzen arteko kalko oker batzuk identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Bere lanetan hizkuntza-arauak betetzeko interesa dauka.

**7. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruz gogoeta egiteko.**

- Beharrezko terminologia ulertzen du, hizkuntzari buruzko gogoeta egitean emandako azalpenak eta argibideak jarraitzeko.
- Hizkuntzari buruzko gogoeta egitean zehatz erabiltzen du hizkuntza-terminologia.
- Modu autonomoan eskuratzen du informazio gramatikal orokorra eta espezifikoa hainbat euskarritako eskola-hiztegietan eta bestelako kontsulta-liburuetan, eta zuzen eta zehatz erabiltzen du.

**8. Euskal Literatura garaikideko eta Espainiar Literaturaren Erdi Arotik XVIII. mendera arteko testu osoak edo pasarteak ulertzea, denen artean irakurrita eta entzunda, eta iritzi pertsonala ematea, oinarrizko literatura-ezaguerak erabiliz.**

- Hizkuntza bakoitzaren literatura-aldietako testuak irakurri eta entzuten ditu, hainbat generotakoak.
- Esanahia elkarrekin eraikitzeke jardueretan parte hartzen du.
- Literatura-testuak ozen irakurriz edo modulatu dramatisatzen ditu, ahotsa egokituz, hitzezkoak ez diren elementuak erabiliz eta adierazkortasuna nabarmenduz.
- Testuaren oinarrizko elementuak edo ezaugarriak identifikatzeko jarraibideak erabiltzen ditu.
- Gaia identifikatzen du, bai eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ere.
- Obraren edukiak egilearen asmoarekin duen harremana ulertzen du.
- Obra baten testuinguru historiko-kulturalari buruzko informazioa erabiltzen du haren esanahia berreraikitzeke.
- Literatura-hizkuntzaren balio sinbolikoa interpretatzen du, bai eta baliabide erretorikoen funtzionaltasuna ere.
- Literatura-lanari eta bere ezaugarriei buruzko iritzi pertsonala aurkezten du, deigarrienak egin zaizkion alderdiei buruzko argudioak emanez.
- Modu autonomoan erabiltzen ditu IKTak, informazioa bilatzeko.

**9. Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, sormena sustatzeko teknikak erabiliz, eredu gogoetan eta azterketan oinarrituta.**

- Hautatutako generoaren egitura erabiltzen du.
- Hautatutako generoaren baliabide erretorikoak nahiz estilistikoak erabiltzen ditu, zabaldu nahi den edukiaren arabera.
- Bere estiloarekin espresatzen da, eta malgutasunez eta sormenez erabiltzen ditu baliabide erretorikoak nahiz estilistikoak.
- Sormenez eta originaltasunez espresatzen ditu bere bizipenak, sentimenduak eta gogoetak.
- Testuak sortzeko prozedura orokorrak aplikatzen ditu, nahiko modu autonomo eta eraginkorrean.
- Modu autonomoan erabiltzen ditu IKTak, literatura asmoko testuei buruzko informazioa bilatu, sortu, berrikusi eta zabaltzeko.

- Testu egokia, koherentea eta zuzena sortzen du.
- 10. Euskal Literatura garaikideko eta Espainiar Literaturaren Erdi Arotik XVIII. mendera arteko laginik garrantzitsuenak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren kultura aberasteko.**
- Ikasturtean zehar landutako Euskal Literaturako eta Espainiar Literaturako aldien ezaugarriak ematen ditu.
  - Literatura-genero tradizional handiak bereizten ditu, eta haien ezaugarri nagusiak ezagutzen ditu.
  - Euskal Literaturako eta Espainiar Literaturako egile eta obra nagusiak identifikatzen ditu, bai eta haien aldiak nahiz mugimenduak ere.
  - Literatura-testuetako gaien eta formen jarraipenaz nahiz bilakaeraz ohartzen da.
  - Gaiak, topikoak eta formak identifikatzen ditu literatura-testuetan, behaketaren nahiz konparazioaren bidez, eta ondorioak ateratzen ditu.
  - Oinarrizko baliabide erretorikoak nahiz estilistikoak ezagutzen ditu.
  - Literatura-testuen zenbait ezaugarri identifikatzen ditu kulturaren beste agerraldi batzuetan.
  - Euskal eta Espainiar literaturan landutako garai eta mugimenduetan, emakumezkoek egindako obrak eta ekarpenak ezagutzeko interesa erakusten du.
- 11. Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura gozamen-iturritzat hartzea, mundua ezagutzeko bidetzat, kultura eta hizkuntza aberasteko modutzat, eta nortasun pertsonala, kulturala nahiz soziala eraikitzeko eratzat.**
- Bere irizpideen arabera hautatzen ditu literatura-lanak, gozamen pertsonalerako.
  - Modu autonomoan erabiltzen ditu ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak, literatura-testuak hautatzeko.
  - Gero eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu Euskal Literaturaren, Espainiar Literaturaren eta Literatura Unibertsalaren garai guztietako eta gazte-literaturako obrak, bere gustu, zaletasun nahiz interesetatik hurbil daudenak.
  - Literaturari buruzko elkarrizketetan parte hartzen du modu aktiboan, bere bizipenak eta ikuspegi pertsonala adieraziz.
  - Literatura-testua balioetsi, haren edukia laburtu, deigarrienak egin zaizkion alderdiak azaldu, eta irakurketak esperientzia pertsonal moduan eman diona azaltzen du.
  - Literaturarekiko interesa dauka, gozamen-iturria eta mundua ezagutzeko bidea den heinean.
  - Literaturarekiko interesa dauka, kultura eta hizkuntza aberasteko bidea den heinean.
- 12. Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea eta balioestea, hizkuntzak nahiz hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, eta oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak erabiliz.**
- EAEko egoera soziolinguistikoa aztertu eta ebaluatzen du, oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak aplikatuz.
  - Hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskara transmititzeko nahiz mantentzeko orduan duten funtzioa aztertu eta balioesten du.
  - Euskararen nahiz gaztelaniaren jatorriko eta bilakaerako fase nagusiak ezagutzen ditu.



- Euskarak eta gaztelaniak gaur egun munduan duten egoera deskribatzen du, oro har.
  - Hizkuntza baten egoera erabakitzen duten faktore nagusiak deskribatu eta adibideak ematen ditu.
  - Hizkuntzen arteko kontaktuaren ondorioak aztertzen ditu.
  - Hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak saihesten ditu.
  - Errespetua eta jarrera positiboa du EAEko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean.
- 13. Hizkuntza-ohitura nahiz -jokaera asertiboak eta enpatikoak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa, kooperatiboa, bidezkoa eta arduratsua ere testuinguru eleaniztunetan.**
- Euskararen erabilera lehenesten du denetariko komunikazio-esparruetan.
  - Euskara normaltzeko eta euskal kultura zabaldu eta sortzeko eskola-jardueretan parte hartzen du.
  - Bere euskalkia erabiltzen du hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.
  - Hizkuntzak erabiltzeko banakako eta taldeko ohiturak aztertzen ditu.
  - Euskara erabiltzeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.
- 14. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eskolako jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko.**
- Informazioa bilatu eta aurkitzen du, bilaketa aurreratuko tresnak eta gaikako bilatzailearen bat erabiliz.
  - Hautatutako informazioa biltegiratu eta berreskuratzen du hainbat euskarritan, lokalak eta on-line.
  - Informazioa modu egokian etiketatzen du, autonomiaz.
  - Komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko tresnak eta aplikazioak erabiltzen ditu.
  - Informazio-iturrien fidagarritasuna balioesten du, modu autonomoan eta emandako ildoei jarraituz.
  - Iturrien egiletzari buruzko arauak errespetatzen ditu bere lan digitaletan.
  - Komunikazio digitalen kortesia-arauak zaindu eta errespetatzen ditu.
- 15. Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean konfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko.**
- Hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilera hobetzeko autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - Norberaren eta inoren lanak berrikusteko nahiz hobetzeko lanetan parte hartzen du, gero eta autonomia handiagoz.
  - Kontrol-zerrendak egiten ditu elkarlanean, eta autoebaluazio- nahiz koebaluazio-jardueretan erabiltzen ditu.
  - Edozein hizkuntzatan garatutako autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, beste hizkuntzak hobeto ikasteko.
  - Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzeko interesa du.

- Akatsak egitea ikaskuntzaren parte dela onartzen du.
- Hizkuntza ikasteak berez dituen zailtasunak gainditzeko jarrera proaktiboa eta asertiboa du.
- Gero eta kontzientzia handiagoa du bere ikaskuntza-prozesuko gaitasunei eta zailtasunei buruz.
- Ikasitakoaz ohartzen da eta ikaskuntza-helburu berriak markatzeko gai da, bi hizkuntza ofizialetan.

#### 1.1.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

**1. Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, hedabideetakoak, ikaskuntzakoak eta lanekoak, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz, proposatutako helburuari begira eta tesia eta argudioak identifikatuz.**

- Aurrez landutako ahozko generoak identifikatu eta haien ezaugarriak ematen ditu.
- Ahozko testuen gaiari igartzen dio.
- Igorlearen asmoaz ohartzen da, testuinguruko elementu esplizituen nahiz implizituen bidez.
- Entzungaiko informazioak identifikatu eta erauzten ditu, bai eta testuko daturik garrantzitsuenak ere.
- Ahozko testuen zentzu orokorra eraikitzen du.
- Atalen arteko harreman logikoak ezartzen ditu.
- Hedabideetako pertsuasio-testuen asmoak, tesiak eta argudioak ondorioztatzen ditu.
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.
- Testuko elementu ez-esplizituak ondorioztatzen ditu: zentzu doblea, ironia...
- Autonomiaz hautatzen eta erabiltzen ditu informazioa erregistratzeko baliabideak.
- Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
- Modu aktiboan entzuten du.
- Errespetuz entzuten du.
- Adierazpen baztertzaillez ohartzen da.
- Modu kritikoan interpretatzen ditu pertsuasio-mezuak, batik bat hedabideetakoak.

**2. Hainbat euskarritan idatzitako azalpen- eta argudio-testuak ulertzea eta interpretatzea, hedabideetakoak, ikaskuntzakoak eta lanekoak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz, edukia eta testuaren forma modu kritikoan balioetsiz, eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz, proposatutako helburuari begira.**

- Idatzizko generoak identifikatzen eta karakterizatzen ditu.
- Testuaren zentzu orokorra eta bigarren mailako gaiak antzematen ditu.

- Igorlearen asmoaz ohartzen da, idatzizko testuetako eta testuinguruko elementu esplizituen nahiz inplizituen arabera.
  - Irakurgaiako informazioak identifikatu eta erauzten ditu.
  - Testuaren zentzu orokorra laburtzen du.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzen ditu.
  - Igorlearen tesia eta argudioak identifikatzen ditu argudio-testuetan.
  - Informazioak, iritziak, gertaerak eta falaziak bereizten ditu.
  - Testuko elementu ez-esplizituak eta testuinguruko inplizituak ondorioztatzen ditu.
  - Autonomiaz hautatzen eta erabiltzen ditu ideiak antolatzeke teknikak, idatzizko testuak antolatzeke: eskemak, grafikoak, kontzeptu-mapak...
  - Testuaren egitura orokorra berreraikitzen du, modu autonomoan.
  - Ulermen-arazoak konpontzeke estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Hizkuntzakoak ez diren elementuen esanahia interpretatu eta balioesten du: ikonoak, ortotipografia...
  - Elementu multimodalen esanahia txertatzen du testu digitaletan, eta testuaren esanahiari egiten dioten ekarpena balioesten du.
  - Informazioaren garrantzia balioesten du, bere ezagutzen arabera.
  - Irakurritakoari buruzko bere iritzia ematen du, testuko elementu esplizituetan oinarrituta.
  - Adierazpen baztertzaileez, androzentrikoez eta sexistez ohartzen da.
  - Modu kritikoan interpretatzen ditu pertsuasio-mezuak, batik bat hedabideetakoak.
  - Irakurketarekiko interesa dauka, informazio- eta jakintza-iturri den heinean.
- 3. Planifikatu ondoren, azalpen- eta argudio-testu eraginkorrak egitea, argiak eta egituratuak, gizarteari, politikari edo kulturari buruzkoak, ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen laguntzaz, hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiliz.**
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien araberako erabaki egokiak hartzen ditu.
  - Informazio esanguratsua bilatu eta hautatzen du, hainbat ikuspuntu eta iturritakoa: analogikoa, ikus-entzunezkoa eta digitala.
  - Modu logikoan antolatzen du informazioa, komunikatu asmo denaren arabera.
  - Ahozko testua egituratzen du, testu-antolatzaile egokiak erabiliz.
  - Testua ulergarri egiteko eta hartzailea inplikatzeko estrategiak erabiltzen ditu: ideiak birformulatzea, galdera erretorikoak, erregistro-aldaketak, umorea.
  - Hitzezkoak ez diren alderdiak kontrolatzen ditu: doinua, keinuak, gorputzaren jarrera...
  - Ahozko azalpen-testuak sortzen ditu, argi eta txukun, gidoi bati jarraituz.
  - Ahozko argudio-testuak sortzen ditu, eta argudio egokiak erabiltzen ditu.
  - Zuzentasun, jario eta ahoskera argiz hitz egiten du.
  - Ganoraz erabiltzen ditu IKTak, bere ahozko aurkezpenak egiteko eta zabaltzeko.

- Bere ahozko erabilerak hobetzeko autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.
  - Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan.
  - Hizkuntzaren bidez inor baztertzea eta hartzaileak gutxiatea saihesten du.
- 4. Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, bai eta interes sozial, politiko edo kultureko eztabaidetan ere, elkarlanerako jarrera positiboarekin.**
- Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, ideiak, gertaerak, bizipenak eta sentimenduak adieraziz, iritziak kontrastatuz eta erabakiak hartuz.
  - Egoera bakoitzaren arabera erregistroak erabiltzen ditu.
  - Modu espontaneoan parte hartu, eta ikuspuntu pertsonala eta kritikoa ematen du.
  - Galderei erantzun eta bere hitzak argudiatzen ditu.
  - Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen ditu bere jarduna eta argudioak eta kontrargudioak.
  - Galdera eta iruzkin egokiak, zuzenak eta kritikoak egiten ditu inoren hitzen aurrean.
  - Inoren hizketaldiak errespetatzen ditu eta, aldi berean, bere planteamenduak defendatzen ditu.
  - Hizketako txanda errespetatzen du, arau soziokomunikatiboak erabiltzen ditu, eta solaskideek ere errespetatzen dituzaten laguntzen du.
  - Intonazio, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.
- 5. Planifikatu ondoren, idatzizko testu egokiak sortzea, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, paperean nahiz digitalean, koherenteak, ongi kohesionatuak eta zuzenak, gai sozial, politiko edo kulturekoak, kontuan hartuz komunikazio-egoera.**
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien arabera erabaki egokiak hartzen ditu.
  - Modu autonomoan bilatu eta hautatzen du informazio egokia eta hainbat ikuspuntutakoa, iturri analogikotan nahiz digitaletan.
  - Modu autonomoan planifikatzen du testuaren edukia, eskemak, oharra, kontzeptu-mapak eta abar erabiliz.
  - Idatzizko testua egituratzen du, denetariko testu-antolatzaile egokiak erabiliz.
  - Esanahi-batasuna duten paragrafoetan antolatzen du informazioa.
  - Denetariko kohesio-elementu egokiak erabiltzen ditu.
  - Autonomiaz erabiltzen ditu informazioa ulergarri egiteko eta hartzailea inplikatzeko estrategiak: ideiak birformulatzea, adibideak ematea, grafikoak, galdera erretorikoak...
  - Egoki islatzen du aurrez definitutako asmoa edo helburua.
  - Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du, eta hainbat erregistro erabil ditzake testu berean.
  - Arau gramatikalak eta tipografikoak errespetatzen ditu, bai eta arau ortografikoak ere.
  - Modu autonomoan erabiltzen ditu autoebaluazio- nahiz koebaluazio-estrategiak, idatzizko testuak berrikusteko nahiz hobetzeko.

- Ganoraz erabiltzen ditu teknika eta tresna digitalak, idatzizko testuak sortu eta zabaltzeko.
  - Egoki eta zuzen aurkezten du testua: marjinak, goiburuak, irakurgarritasuna...
  - Konfiantza du bere komunikazio-gaitasunetan eta hobetzeko gaitasunean.
  - Hizkuntzaren erabilera baztertzailerok saihesten du bere idazlanetan.
  - Idazketa komunikazio-bidetzat hartzen du.
- 6. Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauez gogoeta egitea, eta jakintza horiek erabiltzea, lagunduta, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testu eta berrikuspen hobeak egiteko.**
- Ikasturtean zehar landutako testuetan oinarrituta, hizkuntza-egoerarekin lotutako hizkuntza-markak identifikatzen eta karakterizatzen ditu.
  - Ikasturtean zehar landutako testuetan oinarrituta, diskurtsoarekin lotutako hizkuntza-markak identifikatzen eta karakterizatzen ditu.
  - Perpauseko elementuak ezagutzen eta karakterizatzen ditu, bai eta perpausen arteko harremanak ere.
  - Kategoría gramatikalak, haien forma eta funtzioa ezagutzen du eta karakterizatzen du.
  - Hitzak eratzekeo tresnak ezagutzen eta karakterizatzen ditu.
  - Hitzen arteko harreman semantikoak ezagutzen eta azaltzen ditu.
  - Arau fonetiko, ortografiko eta morfosintaktikoak ezagutu eta errespetatzen ditu bere lanetan.
  - Aurrez landutako hizkuntza-ezaguerak aplikatzen ditu testuak ulertu eta sortzeko, modu autonomoan.
  - Norberaren eta inoren testuetako akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, modu autonomoan.
  - Dakizkien hizkuntzen arteko kalko oker batzuk identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Bere lanetan hizkuntza-arauak betetzeko interesa dauka.
- 7. Oinarritzko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruz gogoeta egiteko.**
- Hizkuntzari buruzko gogoeta egitean emandako azalpenak eta argibideak jarraitzeko terminologia ulertzen du.
  - Hizkuntzari buruzko gogoeta egitean zehatz erabiltzen du hizkuntza-terminologia.
  - Modu autonomoan eskuratzen du informazio gramatikal orokorra eta espezifikoa hainbat euskarritako eskola-hiztegiatan eta bestelako kontsulta-liburuetan, eta zuzen eta zehatz erabiltzen du.
- 8. Euskal Literaturaren XX. mendera arteko eta Espainiar Literaturaren XVIII. mendetik gaur egunera arteko testu osoak edo pasarteak ulertzea, denen artean irakurrita eta entzunda, eta iritzi pertsonala ematea, oinarritzko literatura-ezaguerak erabiliz.**
- Hizkuntza bakoitzaren literatura-aldietako testuak irakurri eta entzuten ditu, hainbat generotakoak.
  - Esanahia elkarrekin eraikitzekeo jardueretan parte hartzen du.

- Literatura-testuak ozen irakurriz edo modulatu dramatisatzen ditu, ahotsa egokituz, hitzezkotik ez diren elementuak erabiliz eta adierazkortasuna nabarmenduz.
  - Testuaren oinarriko elementuak edo ezaugarriak identifikatzeko jarraibideak erabiltzen ditu.
  - Gaia identifikatzen du, bai eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ere.
  - Literaturako gaien eta formen jarraipena edo bilakaera ezagutzen eta iruzkintzen du literatura-testuetan.
  - Literatura-testuak modu kritikoan konparatzen ditu hainbat ikuspuntutatik: testuingurua, mugimenduak, generoak, gaien trataera...
  - Literatura-lanari eta bere ezaugarriei buruzko iritzi pertsonala aurkezten du, deigarrienak egin zaizkion alderdiei buruzko argudioak emanez.
  - Obraren esanahia interpretatzen du, kontuan hartuz testuinguru historiko kulturala eta norberaren esperientzia.
  - Euskal eta Espainiar literaturan landutako garai eta mugimenduetan, emakumezkoek egindako obrak eta ekarpenak ezagutzeko interesa erakusten du.
  - Ganoraz eta kritikoan erabiltzen ditu IKTak, informazioa bilatzeko eta hautatzeko.
- 9. Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, sormena sustatzeko teknikak erabiliz, eredu gogoetan eta azterketan oinarrituta.**
- Hautatutako generoaren egitura erabiltzen du.
  - Literatura-ereduak txertatzen ditu bere lanetan, modu sortzailean.
  - Hautatutako generoaren baliabide erretorikoak nahiz estilistikoak erabiltzen ditu, zabaldu nahi den edukiaren arabera.
  - Bere estiloarekin espresatzen da, eta malgutasunez eta sormenez erabiltzen ditu baliabide erretorikoak nahiz estilistikoak.
  - Sormenez eta originaltasunez espresatzen ditu bere bizipenak, sentimenduak eta gogoetak.
  - Testuak sortzeko prozedura orokorrak aplikatzen ditu, autonomiaz eta ganoraz.
  - Modu autonomo eta kritikoan erabiltzen ditu IKTak, literatura asmoko testuei buruzko informazioa bilatu, sortu, berrikusi eta zabaltzeko.
  - Testu egokia, koherentea eta zuzena sortzen du.
- 10. Euskal Literaturaren XX. mendera arteko eta Espainiar Literaturaren XVIII. mendetik XX.era arteko laginik garrantzitsuenak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren kultura aberasteko.**
- Ikasturtean zehar landutako Euskal Literaturaren eta Espainiar Literaturaren aldiak karakterizatzen ditu.
  - Literatura-genero tradizional handiak bereizten ditu, eta haien ezaugarri nagusiak ezagutzen ditu.
  - Euskal Literaturako eta Espainiar Literaturako egile eta obra nagusiak karakterizatzen ditu, bai eta haien aldi eta mugimenduak ere.
  - Literatura-testuetako gaien eta formen jarraipenaz nahiz bilakaeraz ohartzen da.

- Gaiak, topikoak eta formak identifikatzen ditu literatura-testuetan, ikuspuntuak behatu, aztertu eta azaltzen ditu, kontuan hartuz ingurunea, aldia edo kultura, eta kritikoki balioesten du literatura-testua.
  - Baliabide erretorikoak nahiz estilistikoak ezagutzen eta sailkatzen ditu.
  - Literatura-testuen zenbait ezaugarri identifikatzen ditu kulturaren beste agerraldi batzuetan.
- 11. Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura gozamen-iturritzat hartzea, mundua ezagutzeko bidetzat, kultura eta hizkuntza aberasteko modutzat, eta nortasun pertsonala, kulturala nahiz soziala eraikitzeke eratzat.**
- Bere irizpideen arabera hautatzen ditu literatura-lanak, gozamen pertsonalerako.
  - Modu autonomo eta eraginkorrean erabiltzen ditu ikastetxeko mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak, literatura-testuak hautatzeko.
  - Modu autonomoan irakurtzen ditu Euskal Literaturaren, Espainiar Literaturaren eta Literatura Unibertsalaren obrak.
  - Literaturari buruzko elkarrizketetan parte hartzen du modu aktiboan, bere bizipenak eta ikuspegi pertsonala adieraziz.
  - Literatura-testua balioetsi, haren edukia laburtu, deigarrienak egin zaizkion alderdiak azaldu, eta irakurketak esperientzia pertsonal moduan eman diona azaltzen du.
  - Literaturarekiko interesa dauka, gozamen-iturria eta mundua ezagutzeko bidea den heinean.
  - Literaturarekiko interesa dauka, kultura eta hizkuntza aberasteko bidea den heinean.
- 12. Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea eta balioestea, hizkuntzak nahiz hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, eta oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak erabiliz.**
- Egoera soziolinguistikoak aztertu eta ebaluatzen ditu, oinarrizko ezaguera soziolinguistikoak aplikatuz.
  - Hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskara transmititzeko nahiz mantentzeko orduan duten funtzioa aztertu eta balioesten du.
  - Euskararen nahiz gaztelaniaren jatorriko eta bilakaerako fase nagusiak deskribatzen ditu, bai eta egungo egoera ere.
  - Hizkuntza baten egoera erabakitzen duten faktoreak deskribatu eta adibideak ematen ditu.
  - Hizkuntzen arteko kontaktuaren ondorioak aztertzen ditu.
  - Hizkuntza mantentzearen nahiz garatzearen aldeko erakundeak ezagutzen eta balioesten ditu.
  - Hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak saihesten ditu.
  - Errespetua eta jarrera positiboa du EAEko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean.
- 13. Hizkuntza-ohitura nahiz -jokaera asertiboak eta enpatikoak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa, kooperatiboa, bidezkoa eta arduratsua ere testuinguru eleaniztunetan.**
- Euskararen erabilera lehenesten du denetarikozko komunikazio-esparruetan.

- Euskara normaltzeko eta euskal kultura zabaldu eta sortzeko eskola-jardueretan parte hartzen du.
- Bere euskalkia erabiltzen du hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.
- Hizkuntzak erabiltzeko banakako eta taldeko ohiturak aztertzen ditu.
- Euskara erabiltzeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.

**14. Informazio-teknologiak modu autonomo eta kritikoan erabiltzea, eskolako jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko.**

- Informazioa bilatu eta aurkitzen du, bilaketa aurreratuko tresnak eta gaikako bilatzaileak erabiliz.
- Hautatutako informazioa biltegitratzen du hainbat euskarritan, lokalak eta on-line, ganoraz eta irizpide koherenteak erabiliz.
- Informazioa modu egokian etiketatzen du, autonomiaz.
- Komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko tresnak eta aplikazioak erabiltzen ditu.
- Informazio-iturrien fidagarritasuna balioesten du, modu autonomo eta kritikoan.
- Iturrien egiletzari buruzko arauak errespetatzen ditu bere lan digitaletan.
- Komunikazio digitalen kortesia-arauak zaindu eta errespetatzen ditu.

**15. Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean konfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko.**

- Hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilera hobetzeko autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, modu autonomoan.
- Norberaren eta inoren lanak berrikusteko nahiz hobetzeko lanetan parte hartzen du, modu autonomoan.
- Kontrol-zerrendak egiten ditu elkarlanean, eta autoebaluazio- nahiz koebaluazio-jardueretan erabiltzen ditu.
- Edozein hizkuntzatan garatutako autorregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, modu autonomoan, beste hizkuntzak hobeto ikasteko.
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzeko interesa du.
- Akatsak egitea ikaskuntzaren parte dela onartzen du.
- Hizkuntza ikasteak berez dituen zailtasunak gainditzeko jarrera proaktiboa eta asertiboa du.
- Gero eta kontzientzia handiagoa du bere ikaskuntza-prozesuko gaitasunei eta zailtasunei buruz.
- Ikasitakoaz ohartzen da eta ikaskuntza-helburu berriak markatzeko gai da, bi hizkuntza ofizialetan.



## 1.2. ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA

### 1.2.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira etapako helburuak Atzerriko Lehen Hizkuntzarako:

1. Ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, ikasleen gaitasunekin eta interesekin bat datozenak, bai eta haiek interpretatzea ere, erantzun egokia eman ahal izateko hainbat komunikazio-egoerari.
2. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta interaktuatzea, modu gutxi-asko autonomoan eta errespetu- eta lankidetzajarrerarekin, modu egoki, koherente eta zuzenean erantzun ahal izateko ohiko komunikazio-beharrei.
3. Hizkuntzaren sistemari buruz gogoeta egitea eta, modu gutxi-asko autonomoan, hizkuntzari buruzko ezaguerak eta erabilera-arauak aplikatzea testuak ulertu eta sortzeko, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta hizkuntzen artean transferitu ahal diren ezaguerak erabiliz.
4. Literatura-testu xume laburrez gozatzea, batik bat ahozko literaturakoak, era horretan munduaren kultura-aniztasuna eta gizakia ulertzeko, hizkuntza aberasteko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko.
5. Eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu eta interpretatzea, soziolinguistikaren oinarriko ezagueren bidez, era horretan eleaniztasuna aberastasuntzat hartzeko, atzerriko hizkuntzak eta hizkuntzak oro har komunikazio-eta ulermen-bideak direlakoan denetariako jatorri, hizkuntza nahiz kulturako pertsonen artean, eta balio-judizio eta aurreiritzi diren hizkuntza-estereotipoak saihestuz.
6. IKTak erabiltzea gero eta modu autonomo eta kritikoagoan, informazioa eskuratu, komunikatu eta atzerriko hizkuntzan lankidetzan jarduteko.
7. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko.

### 1.2.2. EDUKIAK

#### 1.2.2.1. Multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den 1. multzoan datoz oinarriko zehar-kompetentziak garatzeko behar diren eduki guztiak, arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu beharrekoak.

Gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egin, idatzi, entzun eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak dira curriculumaren ardatza. Trebetasun horiekin lotutako ikasketak biltzen dira hiru multzotan: 2. "Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea". 3. "Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea". 4. "Literatura-hezkuntza". Horiekin loturik, "Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta" izeneko 5. multzoan eta "Hizkuntzaren alderdi soziala" izeneko 6. multzoan hizkuntza sistematzat hartu, eta aztertzen dira haren erabilera-arauak, hizkuntzen arteko harremanak, eta hizkuntzek hitzunekin dituzten harremanak.

Multzo horiek modu analitikoan aztertzen dituzte hizkuntza- eta literatura-hezkuntzaren osagaiak, eta ziklo bakoitzean irits daitezkeen lorpen-mailak ere adierazten dituzte, baina ez dute ezertxo ere esaten ikasgelako ikaskuntza-jardueren ordenaz nahiz antolaeraz. Hori dela eta, programazioak egitean eta jardueren sekuentzia ikasgelara eramatean, ondo uztartu behar dira multzo guztietako edukiak. Ezin da ahaztu ikasgai hauen oinarrian prozedurazko edukiak daudela, eta horien zerbitzura daudela adierazpenezko edukiak.

Eskola-sistemak ahaztu egin ohi ditu ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak. Garrantzi handia dute, baina, bai komunikaziorako kompetentzia guztiz garatzeko, bai gelako harremanak indartzeko eta esanahia negoziatzeko, eta horiek funtsezkoak dira ikasgai guztietako jakintza eraiki ahal izateko.

Era berean, elkarri estu loturik daude hitz egitea eta entzutea, bai eta irakurtzea eta idaztea ere; beraz, hobe da ikaskuntza-jardueren sekuentzietan uztartzea hizkuntza-erabileraren bi alderdiak, hau da, ulertzea eta sortzea.

Literatura-hezkuntzarekin lotutako edukiak 4. multzoan jaso dira, eta aurreko etaparen ildotik doaz: irakurtzeko ohiturak bermatzea, idatzizko ulermena eta adierazpena garatzea, hizkuntzari buruzko gogoeta eta komunikaziorako gaitasuna garatzea, eta testuak irakurtzeko eta birsortzeko esperientziak aberastea. Hala, bigarren hizkuntza eta haren kultura ikasteari ez ezik helduko zaio literatura-testuez gozatzeari.

"Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta" izeneko 5. multzoan gogoeta egiten da sistema linguistikoaren osagaiei buruz eta haren erabilera-arauei buruz. Izan ere, trebetasun linguistiko-komunikatiboak barneratu eta garatuko badira, gogoeta egin behar da hizkuntzen alderdi kontestual, diskurtsibo eta gramatikalaz.

"Hizkuntzaren alderdi soziala" izeneko 6. multzoan datoz hizkuntza-aniztasuna, hizkuntzen arteko harremanak... Gaur egungo gizarte eleaniztun konplexu honetan, elebitasun desorekatu batetik testuinguru eleaniztun baterantz doa euskal gizartea. Horrek beharrezkoa egiten du ingurune bakoitzeko egoera soziolinguistikoaz gogoeta egitea, era horretan jarrera positiboa izateko eleaniztasunarekiko, eta atzerriko hizkuntza eta hizkuntza guztiak komunikatzeko eta ulertzeko bide izan daitezen jatorri eta kultura desberdineko pertsonentzat, bai eta denetariko edukiak ikasteko tresna ere.

Komunikaziorako kompetentzia lantzea da hizkuntzak irakastearen eta ikastearen helburu nagusia, eta, beraz, ezinbestekoa da 5. eta 6. multzoetako jardueren bidez hizkuntza trebeago erabiltzea.

Etapako lau ikasturteetan zehar ikasi beharrekoen mailaketa egiteko, irizpide hauek dira oinarri: praktika diskurtsiboen eta ikasleen esperientzia linguistiko nahiz kulturalaren arteko hurbiltasuna; testuen barne-antolaeraren konplexutasun-maila; eta, azkenik, testuak ulertzearen eta sortzearen helburu askotarikoak.

### 1.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztien oinarrizko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.

- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea**

- Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: kontakizunak, albisteak, dokumentalak, erreportajeak, elkarrizketak, argibideak, definizioak, deskribapenak, aurkezpenak...
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategia nagusiak erabiltzea, lagunduta.
- Esperientzia eta interes pertsonalei buruzko eta ikaskuntzari buruzko komunikazio-egoera errealean edo simulatuetan parte hartzea, lagunduta.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu laburrak eta soilak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, gai akademiko nahiz interes pertsonalei buruzkoak, denetariko helburuekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz: kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, argibideak, aurkezpenak, definizioak, deskribapenak...
- Prozesu gidatu baten bidez, ahozko testuak sortzea: planifikatu eta informazioa bilatu, testua idatzi eta berrikustea.
- Ahozko harremanen arauak erabiltzea eta sendotzea: kortesia-arauak, hizketako txandak, gaiari eustea, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak, erantzuna solaskidearen hitzen ildotik joatea...
- Ikasgelako oinarrizko komunikazio-funtzio ohikoenak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz:

- Agurrak eta aurkezpenak, barkamen-eskaerak, esker-emateak, gonbidapenak.
- Gaitasuna, zaletasuna, iritzia, adostasuna edo desadostasuna, sentipena, asmoa, betebeharra adieraztea.
- Laguntza, informazioa, oharrak, argibideak, iritzia eta baimena eskatzea eta ematea.
- Landutako ahozko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Modu aktiboan, errespetuz eta lankidetzan parte hartzea komunikazio-trukeetan, batez ere elkarrekin ikasteko egoeretan.
- Atzerriko hizkuntzan hitz egiteko eta komunikatzeko interesa.
- Egoki ahoskatzeko interesa, horretarako erritmoa eta intonazioa zainduz.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta joera.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Idatzizko testu soilak, laburrak, ongi egituratuak eta lexiko arruntekoak ulertzea, gai ezagunei buruzkoak, benetakoak edo moldatuak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak.
- Beste hizkuntzetan garatutako hizkuntza-ezaguera aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: aurreratzea, egiaztatzea, ondorioztatzea, zalantzak argitzea, norberaren ulermen-arazoak identifikatzea.
- Idatzizko testu soilak, laburrak eta egitura argikoak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, hainbat euskarritan, gai ezagunei buruzkoak, benetakoak edo moldatuak, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: posta-mezuak, gonbidapenak, jarraibideak, kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, iruzkinak, definizioak, deskribapenak, laburpenak, eskemak, azalpenak...
- Prozesu gidatu baten bidez, idatzizko testuak sortzea: planifikatu eta informazioa bilatu, testua idatzi, berrikusi eta norberak zuzentzea.
- Informazioa bilatzeko eta testuak hautatzeko iturriak erabiltzea, bideratuta: liburutegia, mediateka, Internet...
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa transmititu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
- Idazlanetan landutako hizkuntza-ezaguera aplikatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun bat lortzeko.
- Ikasgelako komunikazio-funtzio nagusiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz:
  - Agurrak eta aurkezpenak, barkamen-eskaerak, esker-emateak, gonbidapenak.
  - Gaitasuna, zaletasuna, iritzia, adostasuna edo desadostasuna, sentipena, asmoa, betebeharra adieraztea.

- Laguntza, informazioa, oharra, argibideak, iritzia eta baimena eskatzea eta ematea.
- Idatziko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Maiztasun handiko lexikoa eta ohiko esaldiak, ikaslearen esperientziatik hurbil daudenak, hedabideetakoak eta ikastetxeak.
- Eredu grafikoak eta konbentzio ortografikoak.
- Adinaren, interesen eta konpetentzia-mailaren arabera testuak irakurtzeko joera, modu gutxi-asko autonomoan.
- Idatziko testuen bidez informatu, komunikatu eta ikasteko interesa.
- Norberaren testuak berrikusteari garrantzitsu iriztea, idazlanak hobetzeko.
- Idatziko testuak ondo zaintzeko eta aurkezteko interesa.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Modu aktiboan entzutea eta ulertzea ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu moldatuak, bat datozenak ikaslearen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Iruzkina eginez eta modu adierazkorrean irakurtzea literatura-testu moldatuak, hainbat euskarritan, bat datozenak ikaslearen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Biblioteka, mediateka eta Internet erabiltzea, eta irakurtzeko autonomia garatzea.
- Literatura-testuak dramatizatu, birstatu eta errezitatzea, eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko testu laburrak eta soilak sortzea, sormena sustatzeko teknikak eta eraldatze- edo idazte-teknikak erabiliz, eredu bidez: komikiak, poemak, dramatizazioak, gidoiak eta kontakizun laburrak.
- ICTak gero eta gehiago erabiltzea, literatura asmoko testuak sortzeko.
- Landutako genero narratiboaren, lirikoaren eta dramatikoaren ezaugarriak.
- Literaturaren beste zenbait adierazpen: komikia, musika, zinema...
- Literatura-testua gozamen-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bide gisa, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko bide gisa.
- Literatura-jardueretan parte-hartze aktiboa izatea, ikastetxean nahiz ingurunean.

#### 5. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta

- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea eta transferitzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Azterketa eta gogoeta gidatua egitea testuen hizkuntza-elementu nagusien erabilera eta esanahiaz: maiztasun handiko lexikoa, ohiko egiturak eta esamoldeak...
- Landutako testuen hizkuntza-elementu nagusiak erabiltzea eta sendotzea.
- Testuetan lexikoa antolatzea, eskuratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko estrategia nagusiak aplikatzea.

- Multimedia-euskarriak eta ICTak erabiltzea lexiko nahiz egitura berriak eskuratzeko.
- Ahoskeraren, erritmoaren, intonazioaren eta azentuazioaren eredu nagusiak ezagutzea eta erabiltzea.
- Norberaren ikaskuntzaz gogoeta egin, lana antolatu, eta akatsa ikaskuntzaren partetzat hartzea.
- Parte-hartze aktiboa izatea norberaren eta inoren lanak ebaluatzen, eta ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko lanak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, bideratuta.
- Akatsak identifikatzea eta zuzentzea norberaren eta inoren testuetan.
- Ikaskuntzako baliabideak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo ICTak.
- Oinarrizko lexikoa, oso ohikoa, eguneroko gaiei eta ikasketei buruzkoa.
- Hainbat komunikazio-egoeratako formulak, esamoldeak eta esaerak.
- Testuaren kohesio-elementuak: lokailuak (and, but, or, because, to...), deiktikoak (izenorde pertsonal, posesibo eta erakusleak, adjektibo posesiboak, lekuzko eta denborazko adberbioak), sinonimoak...
- Kantitatea (singularra/plurala, kardinalak eta ordinalak, all, many, a lot, some...), existentzia (there is/are), espazioa (lekuzko preposizioak eta adberbioak...), denbora (denborazko adberbioak eta esamoldeak, orduak), modua (moduzko adberbioak eta esamoldeak) eta konparazioa.
- Denbora (orainaldia, iragana eta etorkizuna), aspektua (sinplea/burutugabea) eta modalitatea (can, may, have to, going to...).
- 16- Baiezkoa, ezezkoa, galdera eta harridura.
- Idazketa-sistemaren konbentzioak: aurrez landutako lexikoaren ortografia, puntuazio-markak.
- Norberaren lanak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko interesa.
- Hizkuntza- eta komunikazio-ikaskuntzako lorpenen eta zailtasunen kontzientzia.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazio-trukeetan parte hartzea beste hizkuntzetako eta kulturetako hiztunekin, ICTak erabiliz.
- Atzerriko hizkuntzaren harreman sozialetarako arau nagusiak erabiltzea (konbentzio sozialak, kortesia-arauak, erregistroak, hitzik gabeko hizkuntza...), esku-hartze aktiboan, elkarlanean eta errespetuz.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- ICTak erabiltzea beste herrialdeei eta kulturei buruzko informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko.
- Atzerriko hizkuntza egiten den herrialdeetako elementu soziokultural eta geografiko nagusiak.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoera (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Eleaniztasunak ematen duen aberastasun pertsonala ezagutzea eta balioestea.

- Atzerriko hizkuntza nazioarteko komunikazio-tresnatzat hartzea, informazio berriak eskuratzeko bidetzat, eta bestelako kulturak eta bizimoduak ezagutzeko zubitzat.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko hizkuntza guztiak hartzea komunikatzeko eta ikasteko bidetzat.
- Bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonetikiko tratua norbera aberasteko bidetzat hartzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea, bai eta norberarenak ez bezalako kultura-ereduak ere.
- Mezu baztertzaila orekiko jarrera kritikoa.

### 1.2.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztien oinarrizko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu laburrak eta testuinguruan jarriak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: kontakizunak, albisteak, dokumentalak, erreportajeak, elkarrizketak, argibideak, definizioak, deskribapenak, solasaldiak, aurkezpenak...
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea, bideratuta.
- Esperientzia eta interes pertsonalei buruzko eta ikaskuntzari buruzko komunikazio-egoera errealean edo simulatuetan parte hartzea, hizkuntza-euskarriarekin.
- Ahozko testu laburrak eta soilak sortzea, lagunduta, hainbat euskarritan, gai akademikoei nahiz interes pertsonalei buruzkoak: kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, argibideak, aurkezpenak, definizioak, solasaldiak, deskribapenak...
- Ahozko testuak sortzea, prozesu gidatu baten bidez: planifikatu eta informazioa bilatu, testua egin eta berrikustea.
- Ahozko harremanen arauak erabiltzea: kortesia-arauak, hizketako txandak, gaiari eustea, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak, erantzuna solaskidearen hitzen ildotik joatea...
- Komunikazio-funtzio ohikoenak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz, ikaslearen inguruneetan:
  - Agurrak eta aurkezpenak, barkamen-eskaerak, esker-emateak, gonbidapenak...
  - Gaitasuna, zaletasuna, iritzia, adostasuna edo desadostasuna, sentipena, asmoa, baldintza, betebeharra eta ezustekoa adieraztea.
  - Laguntza, informazioa, oharrak, argibideak, iritzia eta baimena eskatzea eta ematea.
- Ahozko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Modu aktiboan, errespetuz eta lankidetzan parte hartzea komunikazio-trukeetan, batez ere elkarrekin ikasteko egoeretan.
- Atzerriko hizkuntzan hitz egiteko eta komunikatzeko interesa.
- Egoki ahoskatzeko interesa, horretarako erritmoa eta intonazioa zainduz.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta joera.

## 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Idatzizko testu soilak, laburrak edo ez oso luzeak, ongi egituratuak eta lexiko arruntekoak ulertzea, gai ezagunei buruzkoak, benetakoak edo moldatuak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak.
- Beste hizkuntzetan garatutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.



- Idatzizko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: aurreratzea, egiaztatzea, ondorioztatzea, zalantzak argitzea, norberaren ulermen-arazoak identifikatzea.
- Idatzizko testu soilak sortzea, laburrak edo ez oso luzeak eta egitura argikoak, ezarritako irizpideei jarraituz, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: argibideak, kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, iruzkinak, definizioak, deskribapenak, laburpenak, eskemak, azalpenak...
- Idatzizko testuak sortzea, modu gutxi-asko autonomoan: planifikatu eta informazioa bilatu, testua idatzi, berrikusi eta norberak zuzentzea.
- Modu gutxi-asko autonomoan erabiltzea informazioa bilatzeko eta testuak hautatzeko iturriak: liburutegia, mediateka, Internet...
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa transmititu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
- Idazlanetan hizkuntza-ezaguerak aplikatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun bat lortzeko.
- Ikasgelako oinarrizko komunikazio-funtzio ohikoenak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz:
  - Agurrak eta aurkezpenak, barkamen-eskaerak, esker-emateak, gonbidapenak...
  - Gaitasuna, zaletasuna, iritzia, adostasuna edo desadostasuna, sentipena, asmoa, baldintza, betebeharra eta ezustekoa adieraztea.
  - Laguntza, informazioa, oharrak, argibideak, iritzia eta baimena eskatzea eta ematea.
- Idatzizko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Maiztasun handiko lexikoa eta ohiko esaldiak, ikaslearen esperientziatik hurbil daudenak, hedabideetakoak eta ikastetxeakoak.
- Eredu grafikoak eta konbentzio ortografikoak.
- Adinaren, interesen eta konpetentzia-mailaren araberako testuak irakurtzeko joera, modu gutxi-asko autonomoan.
- Idatzizko testuen bidez informatu, komunikatu eta ikasteko interesa.
- Norberaren testuak berrikusteari garrantzitsu iriztea, idazlanak hobetzeko.
- Idatzizko testuak ondo zaintzeko eta aurkezteko interesa.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Modu aktiboan entzutea eta ulertzea ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu moldatuak, bat datozenak ikasleen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Iruzkinak eginez eta modu adierazkorrean irakurtzea literatura-testu moldatuak, hainbat euskarritan, bat datozenak ikasleen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Biblioteka, mediateka eta Internet erabiltzea, eta irakurtzeko autonomia garatuz joatea.

- Literatura-testuak dramatizatu, birsortu eta errezipitazioa, eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko testu soilak sortzea, sormena sustatzeko teknikak eta eraldatze- edo idazte-teknikak erabiliz, eredu bidez: komikiak, poemak, dramatizazioak, gidoiak eta kontakizun laburrak.
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, literatura asmoko testuak sortzeko.
- Landutako genero narratiboaren, lirikoaren eta dramatikoaren ezaugarriak.
- Literaturaren beste zenbait adierazpen: komikia, musika, zinema...
- Literatura-testua gozamen-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.
- Literatura-jardueretan parte-hartze aktiboa izatea, ikastetxean nahiz ingurunean.

## 5. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta

- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea eta transferitzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Azterketa eta gogoeta gidatua egitea testuen hizkuntza-elementu nagusien erabileraz eta esanahiaz: maiztasun handiko lexikoa, ohiko egiturak eta esamoldeak...
- Landutako testuen hizkuntza-elementu nagusiak erabiltzea eta sendotzea.
- Testuetan lexikoa antolatzeke, eskuratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko estrategia nagusiak aplikatzea.
- Multimedia-euskarriak eta IKTak erabiltzea lexiko nahiz egitura berriak eskuratzeko.
- Ahozkoaren, erritmoaren, intonazioaren eta azentuazioaren eredu nagusiak ezagutzea eta erabiltzea.
- Norberaren ikaskuntzaz gogoeta egin, lana antolatu, eta akatsa ikaskuntzaren partetzat hartzea.
- Parte-hartze aktiboa izatea norberaren eta inoren lanak ebaluatzen, eta ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko lanak norberak ebaluatzeke eta zuzentzeke estrategiak erabiltzea, bideratuta.
- Akatsak identifikatzea eta zuzentzea norberaren eta inoren testuetan.
- Ikaskuntzako baliabideak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo IKTak.
- Eguneroko gaiei buruzko eta ikaskuntzari buruzko ohiko lexikoa.
- Hainbat komunikazio-egoeratako formulak, esamoldeak eta esaerak.
- Testuaren kohesio-elementuak: lokailuak (and, but, or, because, to, then, so, also, too...), deiktikoak (izenorde pertsonal, posesibo eta erakusleak, adjektibo posesiboak, lekuzko eta denborazko adberbioak), sinonimoak...
- Kantitatea (singularra/plurala, kardinalak eta ordinalak, all, much, many, a lot, some, any, how much/many...), existentzia (there is/are/was/were), espazioa (lekuzko preposizioak eta adberbioak...), denbora (denborazko adberbioak eta esamoldeak: ago, last week, when, while; orduak...), modua (moduzko adberbioak eta esamoldeak), konparazioa eta baldintza (first conditional).

- Denbora (orainaldia, iragana eta etorkizuna), aspektua (sinplea, burutugabea, burutua) eta modalitatea (can, could, must, should, may, have to, going to...).
- Baiezkoa, ezezkoa, galdera eta harridura.
- Idazketa-sistemaren konbentzioak: aurrez landutako lexikoaren ortografia, puntuazio-markak.
- Norberaren lanak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko interesa.
- Hizkuntza- eta komunikazio-ikaskuntzako lorpenen eta zailtasunen kontzientzia.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazio-trukeetan parte hartzea beste hizkuntzetako eta kulturetako hitzuneekin, ICTak erabiliz.
- Atzerriko hizkuntzaren harreman sozialetarako arau nagusiak erabiltzea (konbentzio sozialak, kortesia-arauak, erregistroak, hitzik gabeko hizkuntza...), esku-hartze aktiboan, elkarlanean eta errespetuz.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- ICTak erabiltzea beste herrialdeei eta kulturei buruzko informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko.
- Atzerriko hizkuntza egiten den herrialdeetako elementu soziokultural eta geografiko nagusiak.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoera (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Eleaniztasunak ematen duen aberastasun pertsonala ezagutzea eta balioestea.
- Atzerriko hizkuntza nazioarteko komunikazio-tresnatzat hartzea, informazio berriak eskuratzeko bidetzat, eta bestelako kulturak eta bizimoduak ezagutzeko zubitzat.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko hizkuntza guztiak hartzea komunikatzeko eta ikasteko bidetzat.
- Bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonetikiko tratua norbera aberasteko bidetzat hartzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea, bai eta norberarenak ez bezalako kultura-ereduak ere.
- Mezu baztertzaille ororekiko jarrera kritikoa.

### 1.2.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztien oinarrizko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).

- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea**

- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu laburrak edo ez oso luzeak eta testuinguruan jarriak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: kontakizunak, albisteak, dokumentalak, erreportajeak, elkarrizketak, argibideak, definizioak, deskribapenak, solasaldiak, aurkezpenak...
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategia nagusiak erabiltzea.
- Esperientzia eta interes pertsonalei buruzko eta ikaskuntzari buruzko komunikazio-egoera errealetan edo simulatuetan parte hartzea, bideratuta.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu laburrak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, gai akademikoei buruzkoak edo interes pertsonalekoak, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz: kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, argibideak, aurkezpenak, definizioak, deskribapenak, solasaldiak, eztabaidak...
- Ahozko testuak sortzea, lagunduta: planifikatu eta informazioa bilatu, testua egin eta berrikustea.
- Ahozko harremanen arauak erabiltzea: kortesia-arauak, hizketako txandak, gaiari eustea, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak, erantzuna solaskidearen hitzen ildotik joatea...
- Komunikazio-funtziorik ohikoenak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz, ikaslearen inguruneetan:

- Informazioa, oharrak, iritziak nahiz ikuspuntuak, aholkuak, ohartarazpenak eta abisuak eskatzea eta ematea.
- Jakintza, ziurtasuna, zalantza eta aierua adieraztea.
- Borondatea, asmoa, erabakia, promesa, betebeharra, baimena eta debekua adieraztea.
- Interesa, zaletasuna, iritzia, akordioa, onarpena, ustekabea eta haien kontrakoak adieraztea.
- Iradokizunak, desirak, probabilitateak, baldintzak eta hipotesiak formulatzea.
- Ahozko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Modu aktiboan, errespetuz eta lankidetzan parte hartzea komunikazio-trukeetan, batez ere elkarrekin ikasteko egoeretan.
- Atzerriko hizkuntzan hitz egiteko interesa.
- Egoki ahoskatzeko interesa.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta joera.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Idatzizko testu gero eta zabalagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak ulertzea, gai ezagunei buruzkoak, benetakoak edo moldatuak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak.
- Beste hizkuntzetan garatutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: aurreratzea, egiaztatzea, ondorioztatzea, zalantzak argitzea, norberaren ulermen-arazoak identifikatzea.
- Idatzizko testu xume gero eta zabalagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: posta-mezuak, gonbidapenak, argibideak, kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, iruzkinak, definizioak, deskribapenak, laburpenak, eskemak, azalpenak, solasaldiak...
- Idatzizko testuak sortzea, gero eta autonomia handiagoz: planifikatu eta informazioa bilatu, testua idatzi, berrikusi eta norberak zuzentzea.
- Informazioa bilatzeko eta testuak hautatzeko hainbat iturri erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: liburutegia, mediateka, Internet...
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa transmititu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
- Aurrez ikasitako hizkuntza-ezaguerak aplikatzea idazlanetan, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun bat lortzeko.
- Ikasgelako komunikazio-funtzio nagusiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz:

- Informazioa, oharrak, iritziak nahiz ikuspuntuak, aholkuak, ohartarazpenak eta abisuak eskatzea eta ematea.
- Jakintza, ziurtasuna, zalantza eta aierua adieraztea.
- Borondatea, asmoa, erabakia, promesa, betebeharra, baimena eta debekua adieraztea.
- Interesa, zaletasuna, iritzia, akordioa, onarpena, ustekabea eta haien kontrakoak adieraztea.
- Iradokizunak, desirak, probabilitateak, baldintzak eta hipotesiak formulatzea.
- Idatzizko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Ikaslearen esperientziaren, hedabideen eta ikaskuntzaren arloko lexikoa eta esamoldeak.
- Eredu grafikoak eta konbentzio ortografikoak.
- Adinaren, interesen eta konpetentzia-mailaren arabera testu egokiak irakurtzeko joera, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko testuen bidez informatu, komunikatu eta ikasteko interesa.
- Norberaren testuak berrikusteari garrantzitsu iriztea, idazlanak hobetzeko.
- Idatzizko testuak ondo zaintzeko eta aurkezteko interesa.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Modu aktiboan entzutea eta ulertzea ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu moldatuak, bat datozenak ikaslearen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Iruzkina eginez eta modu adierazkorrean irakurtzea literatura-testu moldatuak, hainbat euskarritan, bat datozenak ikaslearen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Biblioteka, mediateka eta Internet erabiltzea, eta irakurtzeko autonomia progresiboki garatzea.
- Literatura-testuak dramatizatu, birsortu eta errezitatzea, eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko testuak sortzea, gero eta zabalagoak, sormena sustatzeko teknikak eta eraldatze- edo idazte-teknikak erabiliz, eredu bidez: komikiak, poemak, dramatizazioak, gidoiak eta kontakizun laburrak.
- ITak gero eta gehiago erabiltzea, norberaren literatura asmoko testuak sortzeko.
- Genero narratiboaren, lirikoaren eta dramatikoaren ezaugarriak.
- Literaturaren beste zenbait agerraldi: musika, zinema, fanfiction, blognobelak...
- Literatura-testua gozamen-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.
- Literatura-jardueretan parte-hartze aktiboa izatea, ikastetxean nahiz ingurunean.

## 5. MULTZOA. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea eta transferitzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Azterketa eta gogoeta gidatua egitea hainbat komunikazio-egoeratan landutako testuen hizkuntza-elementu nagusien erabileraz eta esanahiaz: maiztasun handiko lexikoa, ohiko egiturak eta esamoldeak...
- Oinarrizko testuen hizkuntza-elementu ohikoenak erabiltzea eta sendotzea.
- Testuetan lexikoa antolatzeke, eskuratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko estrategia nagusiak aplikatzea.
- Multimedia-euskarriak eta IKTak erabiltzea lexiko nahiz egitura berriak eskuratzeko.
- Ahoskeraren, erritmoaren, intonazioaren eta azentuazioaren eredu nagusiak ezagutzea eta erabiltzea.
- Norberaren ikaskuntzaz gogoeta egin, lana antolatu, eta akatsa ikaskuntzaren partetzat hartzea.
- Parte-hartze aktiboa izatea norberaren eta inoren lanak ebaluatzen, eta ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko lanak norberak ebaluatzeke eta zuzentzeke estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Akatsak identifikatzea eta zuzentzea norberaren eta inoren testuetan.
- Ikaskuntzako baliabideak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo IKTak.
- Eguneroko gaiei eta ikasketei buruzko lexikoa.
- Hainbat komunikazio-egoeratako formulak, esamoldeak eta esaerak.
- Testuaren kohesio-elementuak: lokailuak (and, but, because, to, then, so, also, too, first of all, after, before, finally, later, next, due to...), deiktikoak (determinatzaileak, izenorde pertsonalak, posesiboak, erlatiboak, enfatikoak, bihurkariak eta erakusleak, adjektibo posesiboak, lekuzko eta denborazko adberbioak), sinonimoak...
- Kantitatea (singularra/plurala, all (the), most, both, none), mailaketa (really, quite, so, a little), kardinalak eta ordinalak, all, much, many, a lot, some, any, how much/many...), existentzia, entitatea (substantibo zenbakarriak eta zenbakaitzak, kolektiboak, konposatuak); kualitatea (good at ...; rather ...), helburua (to- infinitive; for), espazioa (prepositions and adverbs of location, position, distance, motion, direction, origin and arrangement...), denbora (aurretiakotasun-, gerokotasun-, aldiberekotasun-, iraupen- eta maiztasun-adberbioak eta denbora-esamoldeak: ago, last week, when, while; orduak...), modua (moduzko adberbioak eta esamoldeak) eta konparazioa (as/not so, ...-er / more than; the ...-est/ most), baldintza (first and second conditional, if, unless) eta zehar-estiloa (reported information, offers, suggestions and commands).
- Denbora (orainaldia, iragana eta etorkizuna), aspektua (sinplea, jarraitua, amaitua) puntuala (simple tenses); iraunkorra (present and past simple/perfect; and future continuous); ohitura (simple tenses (+ Adv., e. g. usually); used to); inkoatiboa (start –ing); amaiera (stop –ing) eta modalitatea: faktualtasuna (declarative sentences); ahalmena (can; be able); posibilitatea/probabilitatea (may; might; perhaps); beharra (must; need; have (got) to); betebeharra (have (got) to; must; imperative); baimena (could; allow); asmoa (present continuous) eta modalitatea (can, could, must, should, may, have to, going to...).

- Baieztapena (tags), ezeztapena (not, never, no, nobody, nothing; negative tags), galdera (Wh- questions; Aux. Questions; What is this for?, tags) eta harridura.
- Idazketa-sistemaren konbentzioak: aurrez landutako lexikoaren ortografia, puntuazio-markak.
- Norberaren lanak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko interesa.
- Hizkuntza- eta komunikazio-ikaskuntzako lorpenen eta zailtasunen kontzientzia.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazio-trukeetan parte hartzea beste hizkuntzetako eta kulturetako hitzuneekin, ICTak erabiliz.
- Atzerriko hizkuntzaren harreman sozialetarako arau nagusiak erabiltzea (konbentzio sozialak, kortesia-arauak, erregistroak, hitzik gabeko hizkuntza...), modu aktiboan, elkarlanean eta errespetuz.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- ICTak erabiltzea beste herrialdeei eta kulturei buruzko informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko.
- Atzerriko hizkuntza egiten den herrialdeetako elementu soziokultural eta geografiko nagusiak.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoera (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Eleaniztasunak ematen duen aberastasun pertsonala ezagutzea eta balioestea.
- Atzerriko hizkuntza nazioarteko komunikazio-tresnatzat hartzea, informazio berriak eskuratzeko bidetzat, eta bestelako kulturak eta bizimoduak ezagutzeko zubitzat.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko hizkuntza guztiak hartzea komunikatzeko eta ikasteko bidetzat.
- Bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonetikiko tratua norbera aberasteko bidetzat hartzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea, bai eta norberarenak ez bezalako kultura-ereduak ere.
- Mezu baztertzailere ororekiko jarrera kritikoa.

### 1.2.2.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztien oinarrizko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).



- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Hainbat euskarritan dauden luzera ertaineko eta testuinguruan jarritako ahozko testu laburrak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: kontakizunak, albisteak, dokumentalak, erreportajeak, elkarrizketak, argibideak, definizioak, deskribapenak, solasaldiak, aurkezpenak...
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategia nagusiak erabiltzea.
- Esperientzia eta interes pertsonalei buruzko eta ikaskuntzari buruzko komunikazio-egoera errealean edo simulatuetan parte hartzea, bideratuta.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu laburrak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, gai akademikoei buruzkoak edo interes pertsonalekoak, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz: kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, argibideak, aurkezpenak, definizioak, deskribapenak, solasaldiak, eztabaidak...
- Ahozko testuak sortzea, lagunduta: planifikatu eta informazioa bilatu, testua egin eta berrikustea.
- Ahozko harremanen arauak erabiltzea: kortesia-arauak, hizketako txandak, gaiari eustea, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak, erantzuna solaskidearen hitzen ildotik joatea...
- Komunikazio-funtziorik ohikoenak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz, ikaslearen inguruneetan.
- Informazioa, oharrak, iritziak nahiz ikuspuntuak, aholkuak, ohartarazpenak eta abisuak eskatzea eta ematea.

- Jakintza, ziurtasuna, zalantza eta aierua adieraztea.
- Borondatea, asmoa, erabakia, promesa, betebeharra, baimena eta debekua adieraztea.
- Interesa, zaletasuna, iritzia, akordioa, onarpena, ustekabea eta haien kontrakoak adieraztea.
- Iradokizunak, desirak, probabilitateak, baldintzak eta hipotesiak formulatzea.
- Ahozko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak.
- Modu aktiboan, errespetuz eta lankidetzan parte hartzea komunikazio-trukeetan, batez ere elkarrekin ikasteko egoeretan.
- Atzerriko hizkuntzan hitz egiteko interesa.
- Egoki ahoskatzeko interesa.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta joera.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Idatzizko testu gero eta zabalagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak ulertzea, gai ezagunei buruzkoak, benetakoak edo moldatuak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak.
- Beste hizkuntzetan garatutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: aurreratzea, egiaztatzea, ondorioztatzea, zalantzak argitzea, norberaren ulermena arazoak identifikatzea.
- Idatzizko testu gero eta zabalagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: posta-mezuak, gonbidapenak, argibideak, kontakizunak, albisteak, elkarrizketak, iruzkinak, txostenak, definizioak, deskribapenak, laburpenak, eskemak, azalpenak, solasaldiak...
- Idatzizko testuak sortzea, gero eta autonomia handiagoz: planifikatu eta informazioa bilatu, testua idatzi, berrikusi eta norberak zuzentzea.
- Informazioa bilatzeko eta testuak hautatzeko iturriak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: liburutegia, mediateka, Internet...
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa transmititu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
- Aurrez ikasitako hizkuntza-ezaguerak aplikatzea idazlanetan, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun bat lortzeko.
- Oinarriko ikasgelako komunikazio-funtzio ohikoenak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz:
  - Informazioa, oharra, iritzia nahiz ikuspuntuak, aholkuak, ohartarazpenak eta abisuak eskatzea eta ematea.

- Jakintza, ziurtasuna, zalantza eta aierua adieraztea.
- Borondatea, asmoa, erabakia, promesa, betebeharra, baimena eta debekua adieraztea.
- Interesa, zaletasuna, iritzia, akordioa, onarpena, ustekabea eta haien kontrakoak adieraztea.
- Iradokizunak, desirak, probabilitateak, baldintzak eta hipotesiak formulatzea.
- Idatzizko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Ikaslearen esperientziaren, hedabideen eta ikaskuntzaren arloko lexikoa eta esamoldeak.
- Eredu grafikoak eta konbentzio ortografikoak.
- Adinaren, interesen eta konpetentzia-mailaren araberako testuak irakurtzeko joera, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko testuen bidez informatu, komunikatu eta ikasteko interesa.
- Norberaren testuak berrikusteari garrantzitsu iriztea, idazlanak hobetzeko.
- Idatzizko testuak ondo zaintzeko eta aurkezteko interesa.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Modu aktiboan entzutea eta ulertzea ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu moldatuak, bat datozenak ikasleen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Iruzkinak eginez eta modu adierazkorrean irakurtzea literatura-testu moldatuak, hainbat euskarritan, bat datozenak ikasleen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Biblioteka, mediateka eta Internet erabiltzea, eta irakurtzeko autonomia garatuz joatea.
- Literatura-testuak dramatizatu, birsortu eta errezeitzea, eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko testuak sortzea, sormena sustatzeko teknikak eta eraldatze- edo idazte-teknikak erabiliz, eredu bidez: komikiak, poemak, dramatizazioak, gidioak eta kontakizun laburrak.
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, literatura asmoko testuak sortzeko.
- Genero narratiboaren, lirikoaren eta dramatikoaren ezaugarriak.
- Literaturaren beste zenbait agerraldi: musika, zinema, fanfiction, blognobelak...
- Literatura-testua gozamen-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.
- Literatura-jardueretan parte-hartze aktiboa izatea, ikastetxean nahiz ingurunean.

#### 5. MULTZOA. Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta

- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea eta transferitzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.

- Azterketa eta gogoeta gidatua egitea hainbat komunikazio-egoeratako testuen hizkuntza-elementu nagusien erabileraz eta esanahiaz: maiztasun handiko lexikoa, egiturak eta ohiko esamoldeak.
- Oinarrizko testuen hizkuntza-elementu ohikoenak erabiltzea eta sendotzea.
- Testuetan lexikoa antolatzeke, eskuratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko estrategia nagusiak aplikatzea.
- Multimedia-euskarriak eta IKTak erabiltzea lexiko nahiz egitura berriak eskuratzeko.
- Ahoskeraren, erritmoaren, intonazioaren eta azentuazioaren eredu nagusiak ezagutzea eta erabiltzea.
- Norberaren ikaskuntzaz gogoeta egin, lana antolatu, eta akatsa ikaskuntzaren partetzat hartzea.
- Parte-hartze aktiboa izatea norberaren eta inoren lanak ebaluatzen, eta ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko lanak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, bideratuta.
- Akatsak identifikatzea eta zuzentzea norberaren eta inoren testuetan.
- Ikaskuntzako baliabideak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo IKTak.
- Eguneroko gaiei eta ikasketei buruzko lexikoa.
- Hainbat komunikazio-egoeratako formulak, esamoldeak eta esaerak.
- Testuaren kohesio-elementuak: lokailuak (and, but, or, because, to, then, so, also, too, first of all, after, before, finally, later, next, due to, both...and, though, not only... but also...), deiktikoak (determinatzaileak, izenorde pertsonalak, posesiboak, erlatiboak, enfatikoak, bihurkariak eta erakusleak, adjektibo posesiboak, lekuzko eta denborazko adberbioak), sinonimoak...
- Kantitatea (singularra/plurala, plenty of, all (the), most, both, none), mailaketa (really, quite, so, a little, pretty...; much too, absolutely; a (little) bit...), all, much, many, a lot, some, any, how much/many...), existentzia (there could be), entitatea (substantibo zenbakarriak eta zenbakaitzak, kolektiboak, konposatuak, izenorde erlatiboak, bihurkariak eta enfatikoak, determinatzaileak); kualitatea (good at ...; rather ..., pretty ...; much too), helburua (to- infinitive; for), espazioa (prepositions and adverbs of location, position, motion, direction...), denbora (aurretiakotasun-, gerokotasun-, aldiberekotasun-, iraupen- eta maiztasun-adberbioak eta denbora-esamoldeak: ago, last week, when, while, from... to, during, until, since, already, (not) yet...), modua (moduzko adberbioak eta esamoldeak) eta konparazioa (as/not so, ...-er / more than; the ...-est/ most, less/more), emaitza (so; so that), baldintza (first and second conditional, if, unless) eta zehar-estiloa (reported information, offers, suggestions and commands).
- Denbora (orainaldia, iragana eta etorkizuna), aspektu puntuala (simple tenses); iraunkorra (present and past simple/perfect; and future continuous); ohitura (simple tenses (+ Adv., e. g. usually); used to); inkoatiboa (start -ing); amaiera (stop -ing) eta modalitatea: faktualtasuna (declarative sentences); ahalmena (can; be able); posibilitatea/probabilitatea (may; might; perhaps); beharra (must; need; have (got) to); betebeharra (have (got) to; must; imperative); baimena (may, could; allow); asmoa (present continuous) eta modalitatea (can, could, must, should, may, have to, going to...).

- Baieztapena (tags), ezeztapena (not, never, no, nobody, nothing; negative tags, neither), galdera (Wh- questions; Aux. Questions; What is this for?; tags) eta harridura-esaldiak.
- Idazketa-sistemaren konbentzioak: aurrez landutako lexikoaren ortografia, puntuazio-markak.
- Norberaren lanak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko interesa.
- Hizkuntza- eta komunikazio-ikaskuntzako lorpenen eta zailtasunen kontzientzia.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazio-trukeetan parte hartzea beste hizkuntzetako eta kulturetako hitzuneekin, ICTak erabiliz.
- Atzerriko hizkuntzaren harreman sozialetarako arau nagusiak erabiltzea (konbentzio sozialak, kortesia-arauak, erregistroak, hitzik gabeko hizkuntza...), modu aktiboan, elkarlanean eta errespetuz.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- ICTak erabiltzea beste herrialdeei eta kulturei buruzko informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko.
- Atzerriko hizkuntza egiten den herrialdeetako elementu soziokultural eta geografiko nagusiak.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoera (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Eleaniztasunak ematen duen aberastasun pertsonala ezagutzea eta balioestea.
- Atzerriko hizkuntza nazioarteko komunikazio-tresnatzat hartzea, informazio berriak eskuratzeko bidetzat, eta bestelako kulturak eta bizimoduak ezagutzeko zubitzat.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko hizkuntza guztiak hartzea komunikatzeko eta ikasteko bidetzat.
- Bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonetikiko tratua norbera aberasteko bidetzat hartzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea, bai eta norberarenak ez bezalako kultura-ereduak ere.
- Mezu baztertzaile ororekiko jarrera kritikoa.

### 1.2.2.6. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 4. MULTZOA. Literatura Hezkuntza

- Euskal diasporaren ekarpena ingeleseko literaturari: Robert Laxalt, *Sweet Promise Land*.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoera eta Euskal Herrian duena.

- Europako gaur egun dagoen hizkuntza-errealitatea ezagutzea. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, nagusiak, gutxiuak. Hizkuntzen Europako Karta. Unescoren proiektua: Amarauna languages.
- Estatu Batuetako euskal diasporan ingelesa eta euskararen arteko harremanen ondorioz sortutako hizkuntza-erregistro berriak (pilotariak, artzainak,...).
- Bale-arrantzaleak Kanadan egon zireneko arrasto linguistikoak eta soziologikoak.

### 1.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1.2.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**1. Ahozko testu laburrak eta testuinguru zehatzetan jarriak ulertzea eta interpretatzea, hainbat generotakoak eta hainbat euskarritan, egitura sinplekoak eta lexiko arruntekoak, argi eta astiro ahoskatuak, ikasleen esperientziatik hurbil dauden eguneroko gai zehatzei buruzkoak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, zentzu orokorra eta ideia nagusiak jasoz, eta proposatutako lanerako informazioa hautatuz, betiere baldintza akustikoak onak badira, esandakoa berriro entzun edo baieztapena eska badaiteke, eta irudien edo testuinguruaren babesa badago.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Ahozko testuen generoak identifikatzen ditu.
- Testuaren ideia orokorra ulertu, eta bere hitzez adierazten du.
- Gaia eta igorlearen asmoa ondorioztatzen du.
- Ideia nagusi batzuk identifikatzen ditu, euskarri bisualaren laguntzaz.
- Entzungaiari buruzko informazio zehatza eta garrantzitsua erauzten du.
- Ganoraz erabiltzen ditu informazioa erregistratzeko baliabideak: fitxak, eskemak, taulak, informazio-hutsuneak, kontzeptu-mapak...
- Hipotesiak formulatu eta ondorioak ateratzen ditu gaiari, testuinguruari edo esanahiei buruz, eta horretarako erabiltzen du irudien laguntza, hitzezkoa ez den laguntza, eta gaiaz edo egoeraz lehendik dakiena.
- Eguneroko egoerei buruzko eta gai arruntei nahiz zehatzei buruzko esamoldeak eta lexikoa ezagutzen ditu.
- Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
- Modu aktiboan eta errespetuz entzun, eta galdera egokiak egiten ditu.

**2. Ahozko testu soil eta laburrak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, gai akademiko nahiz interes pertsonalei buruzkoak, hainbat euskarritan, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz, hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Gai ezagunei buruzko ahozko testu laburrak, soilak eta aurrez landuak sortzen ditu, eredu laguntzaz.
- Ahozko testuaren edukia planifikatzen du, bideratuta, komunikazio-egoeraren arabera: hartzailea, testuaren helburua, genero egokia, euskarria...

- Ohar, eskema, gidoi eta abarren bidez planifikatzen du sortuko dituen ahozko testuen edukia.
  - Emandako irizpideei jarraituz bilatu eta hautatzen du informazioa, iturri analogiko, ikus-entzunezko nahiz digitaletan.
  - Modu logikoan antolatzen du informazioa eta egituratzen du testua, ezarritako irizpideei jarraituz, eta testu-antolatzailerik ohikoenak eta soilenak erabiliz.
  - Zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren, zeregina edo mezua egokitzen du.
  - Ikus-entzunezkoak eta IKTak eraginkortasunez erabiltzen ditu bere ahozko lanetan.
  - Ikasgelan landutako esamoldeak, egiturak eta lexikoa erabiltzen ditu.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain zuzen, arin eta ahoskera egokiz hitz egiten du (nahiz eta batzuetan etenaldiak edo zalantzak egon, eta solaskideak eskatu esandakoa errepikatzeko), eta kontuan hartzen ditu egokitasuna, kortesia-arauak, doinua, keinuak eta gorputzaren jarrera.
  - Aurrez landutako konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu bere diskurtsoa ulergarriago egiteko: sinonimoak, laguntza eskatzea, gorputz-hizkuntza egokia...
  - Ebaluazio- eta zuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, lagunduta, norberaren eta inoren ahozko lanak hobetzeko.
- 3. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, lagunduta, komunikazio-trukearen arauak errespetatuz.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Modu espontaneoan parte hartu, bere ikuspuntu bat modu xumean aurkeztu, eta ideiak nahiz informazioa trukatzeko.
  - Planifikatutako elkarreraginetan parte hartzen du: elkarrizketak, role-plays...
  - Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, lagunduta eta eztabaida nahiz negoziazioa erabiliz, bere burua espresatzeko, taldea eta zeregina kudeatzeko, iritziak kontrastatzeko eta erabakiak hartzeko.
  - Elkarrizketa hasi, mantendu nahiz amaitzeko oinarrizko estrategia erabiltzen ditu.
  - Hizketako txanda eta kortesia-arauak errespetatzen ditu.
  - Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen du bere jarduna, galdera soilak eginez eta erantzunez, eta iruzkin egokiak eginez.
  - Lexiko, esamolde nahiz esaldi soilak eta oso ohikoak erabiltzen ditu, oinarrizko lokailuak dituztenak, komunikazio-truke laburretan moldatu ahal izateko.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain argi hitz egiten du.
  - Ulertzen saiatzen da, bai eta bere burua ulertzera ematen ere.
  - Estereotipo baztertzailerik oro saihesten du.
- 4. Modu kritikoan ulertzea eta interpretatzea idatzizko testu soilak, laburrak, ongi egituratuak eta lexiko arruntekoak, aurrez landutako generoetakoak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, eta zentzu orokorrari, ideia nagusiei eta bigarren mailako ideiare bati igartzea.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.

- Bere mailaren arabera duten testuak irakurtzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, hainbat euskarritan eta hainbat helbururekin.
  - Testuaren generoa ondorioztatzen du.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da idatzizko testuen elementu esplizituengatik, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusia bereizten du/ditu.
  - Gai nagusia identifikatu, zentzu orokorrari igarri, eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoren bat bereizten du.
  - Ondorioak ateratzeko eta hipotesiak formulatzeko erabiltzen ditu testuinguruko irudiak (ikonoak, ortotipografia...) eta gaiak edo egoeraz lehendik dakiena, eta egiaztatu egiten ditu.
  - Denetariko antolatzaile grafikoak erabiltzen ditu ideiak antolatzeko, bai eta informazioaren erlazioa eta hierarkia erakusteko ere.
  - Eguneroko gaiei buruz, gai orokorreari buruz edo intereseko gaiei buruz aurrez landutako esamoldeak eta lexikoa ezagutzen ditu.
  - Norberaren ulermen-arazoak identifikatu, eta haiek konpontzeko eta hipotesiak berresteko estrategiak erabiltzen ditu: hitz eta esamolde ezezagunen esanahia ondorioztatzea, paperean nahiz digitalean dauden kontsulta-iturriak erabiltzea...
  - Informazioa eta iritzia bereizten ditu, laguntzarekin.
  - Beste hizkuntzei buruz dakiena erabiltzen du ulermena hobetzeko.
  - Iritzia eman eta modu soilean justifikatzen du, lehendik dakiena eta testuko informazioa erabiliz.
  - Gizarte-, arraza-, sexu- edo kultura-bazterketa adierazten duten irudiak nahiz edukiak identifikatu, eta ez erabiltzen saiatzen da.
- 5. Garrantzizko informazio espezifikoaren aurkitzea eta hautatzea, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Badaki zein den irakurketaren helburua, eta haren arabera estrategiak erabiltzen ditu: skimming, scanning...
  - Informazio-iturri analogiko nahiz digitalik egokienak erabiltzen ditu, bideratuta, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.
  - Hitzeko eta ez-hitzeko elementuak erabiltzen ditu, bideratuta, informazioa aurkitzeko; adibidez, irudiak, testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...
  - Irakurgaiaren helburuari dagokion informazio adierazgarria hautatu, eta emandako baliabideak erabiliz jasotzen du: taulak, galdera-sortak, antolatzaile grafikoak...
- 6. Idatzizko testuak sortzea, soilak, laburrak eta ongi egituratuak, lexiko arruntekoak, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz eta modu gutxi-asko autonomoan, hainbat euskarri eta generotakoak, ikasgelako ohiko jarduerekin lotuak, gai akademiko nahiz pertsonalei buruzkoak, lagunduta, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Idatzizko testu soil eta laburrak sortzen ditu, bideratuta, paperean nahiz digitalean.



- Bere idazlanak egokitu egiten ditu komunikazio-egoeraren ezaugarri nagusietara: hartzaila, testuaren helburua, euskarria, generoa...
  - Testua planifikatu, idatzi eta berrikusten du, modu sistematikoan.
  - Helburuaren arabera informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzen du hainbat iturritan, bideratuta.
  - Aurrez landutako generoen oinarritzko ezaugarriak aplikatzen ditu, bideratuta.
  - Zeregina edo mezua egokitzen du, lagunduta, zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren.
  - Ikasgelan aurrez landutako ortografia, puntuazioa, sintaxia, esamoldeak eta lexikoa egoki erabiltzen ditu, informazioa, iritziak nahiz ikuspuntuak jakinarazteko.
  - Hizkuntza-elementurik ohikoenak erabiltzen ditu ideien barne-koehesiorako: erreferentzia mantentzea, lokailuak eta puntuazio-markak.
  - Norberaren eta inoren testuak berrikusteko nahiz hobetzeko ebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - IKTak erabiltzen ditu informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa zabaltzeko, komunikatu eta lankidetzan jarduteko, gero eta autonomia handiagoz.
  - Testuak argi, garbi eta txukun aurkezten ditu.
  - Esamolde eta irudi baztertzaila oro saihesten du bere idazlanetan.
- 7. Literatura gozamen- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Ahozko, idatzizko edo ikus-entzunezko testu moldatuak irakurri edo entzuten ditu, hainbat generotakoak, eta haiek hautatzeko irizpide pertsonalak adierazten ditu.
  - Liburutegia, mediateka eta Internet erabiltzen ditu.
  - Testuari buruzko bere iritzia ematen du, ahoz nahiz idatziz, modu soilean, hainbat euskarri erabiliz.
  - Literatura-testuari buruzko gogoeta partekatu eta lagunduetan parte hartzen du, sentipenak, pentsamenduak eta balio kolektiboak transmititzeko.
  - Parte-hartze aktiboa du testuak dramatizatzen, birstortzen eta errezitatzen, erritmoa, ahoskera nahiz intonazioa zainduz, eta eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
  - Literatura asmoko testu soil eta laburrak sortzen ditu, aldezturik egindako plangintza bati jarraituz, gogoeta eginez, ereduak aztertuz, eta irakurketetan ikasitakoa erabiliz.
- 8. Atzerriko hizkuntzan eta beste hizkuntzetan eskuratutako ezaguerak eta estrategiak erabiltzea, modu gutxi-asko autonomoan, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testuak idazteko eta berrikusteko, lagunduta.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Hizkuntza-alderdiei buruz eta testu-tipologiari buruz beste hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzen du atzerriko hizkuntzaren ulermena eta ekoizpena hobetzeko.
  - Gai akademikoei eta egunerokoei buruzko lexiko oso arrunta identifikatu eta erabiltzen du.

- Hainbat komunikazio-egoeratako esamoldeak erabiltzen ditu: kortesia, akordioa, eskaera, betebeharra...
  - Ahozko nahiz idatzizko bere lanei zuzentasuna, koherentzia eta kohesioa emate aldera, aurrez landutako hizkuntza-elementuak egoki erabiltzen ditu: ortografia- eta puntuazio-arauak, lokailuak, deiktikoak, denbora, modua, aspektua, kantitatea...
  - Dakizkien hizkuntzetako kategoria gramatikalak, esamoldeak eta hitzak konparatzen ditu haien artean.
  - Emandako eredu batzuen antzeko ahoskera, erritmoa, intonazioa eta azentuazioa erabiltzen du, modu argi eta ulergarrian.
  - Idazlan bat egiteko orduan, zalantzak argitzeko tresnak erabiltzen ditu (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), modu gutxi-asko autonomoan.
  - Hizkuntzaren plano bateko eta besteko akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen ditu, jarraibideak emanda, norberaren eta inoren testuetan.
  - Bere errepertorioko hizkuntzen arteko transferentzia negatiborik ohikoenak identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Inoren ekarpenak balioetsi, eta kontuan hartzen ditu.
  - Norberaren lan pertsonalaz arduratu, eta antolatu egiten du.
  - Norberaren aurrerapenak balioetsi, eta hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.
- 9. Atzerriko hizkuntza erabiltzea hizkuntza nahiz kultura desberdineko pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat, bai eta ikaskuntza-baliabidetzat ere.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Atzerriko hizkuntzako komunikazio-trukeetan parte hartzen du, modu aktiboan eta errespetuz.
  - Egoki erabiltzen ditu gizarte-harremanetako arau nagusiak: kortesia-arauak, erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza...
  - Atzerriko hizkuntza erabiltzen du harreman pertsonalak finkatzeko eta proiektutan laguntzeko, ahozko nahiz idatzizko harremanetan teknologia berriak erabiliz.
  - Atzerriko hizkuntza erabiltzen du ikasteko tresnatzat, eta denetariko informazio-iturriak eskuratzeko bidetzat.
  - Atzerriko hizkuntza ikasi, eta hartan komunikatzeko interesa dauka.
  - Jatorri eta kultura desberdineko pertsonekin komunikatzeko orduan, eleaniztun izatearen garrantziaz ohartzen da.
  - Inguruko eleaniztasunaz ohartu, eta modu positiboan balioesten du.
  - Estereotipo baztertzailerik saihesten du.
  - Ikasgelan eta kanpoan sortutako ikaskuntza-aukerez baliatzeko interesa dauka.
- 10. Beste kultura batzuetako elementu sozial, linguistiko nahiz kulturalak identifikatu, errespetatu eta ezagutzeko interesa izatea, eta bere kulturarekin erlazionatzea.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.

- Atzerriko hizkuntza egiten den testuinguru soziokultural eta geografikoaren ezaugarri batzuk ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoerari buruzko datu orokor batzuk aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Norberaren kulturakoak bezalakoak ez diren balioen nahiz ohituren aurrean interesa eta errespetua dauka.
- Inguruko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean interesa eta jarrera ona dauka.

### 1.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

1. **Ahozko testu laburrak eta testuinguruan jarriak ulertzea eta interpretatzea, hainbat generotakoak eta hainbat euskarritan, egitura gero eta konplexuagoa eta lexiko arrunta dutenak, argi eta astiro ahoskatuak, ikasleen esperientziatik hurbil dauden eguneroko gai zehatzei buruzkoak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, zentzu orokorra eta ideia nagusiak jasoz, eta proposatutako lanerako informazioa hautatuz, betiere baldintza akustikoak onak badira, esandakoa berriro entzun edo baieztapena eska badaiteke, eta irudien edo testuinguruaren babesa badago.**
  - Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Landutako ahozko testuen generoak identifikatzen ditu.
  - Testuaren ideia orokorra ulertu, eta bere hitzez adierazten du.
  - Gaia eta igorlearen asmoa ondorioztatu, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia bereizten du.
  - Ideia nagusi batzuk identifikatzen ditu, euskarri bisualaren laguntzaz.
  - Entzungaiari buruzko informazio zehatza eta garrantzitsua erauzten du.
  - Ganoraz erabiltzen ditu informazioa erregistratzeko baliabideak: fitxak, eskemak, taulak, informazio-hutsuneak, kontzeptu-mapak...
  - Hipotesiak formulatu eta ondorioak ateratzen ditu gaiari, testuinguruari edo esanahiei buruz, eta horretarako erabiltzen du irudien laguntza, hitzekoa ez den laguntza, hizkuntza-elementu esanguratsuak, eta gaiaz edo egoeraz lehendik dakiena.
  - Eguneroko egoerei buruzko eta gai arruntei buruzko esamoldeak eta lexikoa ezagutzen ditu.
  - Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Modu aktiboan eta errespetuz entzun, eta galdera egokiak egiten ditu.
2. **Gai akademiko nahiz pertsonalei buruzko ahozko testu laburrak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, hainbat euskarritan, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz.**
  - Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Gai ezagunei buruzko ahozko testu laburrak, soilak eta aurrez landuak sortzen ditu, gidoi bati jarraituz eta ereduen laguntzaz.

- Ahozko testuaren edukia planifikatzen du, modu gutxi-asko autonomoan, komunikazio-egoeraren arabera: hartzailea, testuaren helburua, genero egokia, euskarria...
  - Ohar, eskema, gidoi eta abarren bidez planifikatzen du ahozko testuen edukia.
  - Modu gutxi-asko autonomoan bilatu eta hautatzen du informazioa, iturri analogiko, ikus-entzunezko nahiz digitaletan.
  - Modu logikoan antolatzen du informazioa eta egituratzen du testua, ezarritako irizpideei jarraituz, eta testu-antolatzailek ohikoenak eta soilenak erabiliz.
  - Zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren, zeregina edo mezua egokitzen du.
  - Ikus-entzunezkoak eta IKTak eraginkortasunez erabiltzen ditu bere ahozko lanetan.
  - Ikasgelan aurrez landutako esamoldeak, egiturak eta lexikoa erabiltzen ditu.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain zuzen, arin eta ahoskera egokiz hitz egiten du (nahiz eta batzuetan etenaldiak edo zalantzak egon, eta solaskideak batzuetan eskatu esandakoa errepikatzeke), eta kontuan hartzen ditu egokitasuna, kortesia-arauak, doinua, keinuak eta gorputzaren jarrera.
  - Aurrez landutako konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu bere diskurtsoa ulergarriago egiteko: sinonimoak, laguntza eskatzea, gorputz-hizkuntza egokia...
  - Ebaluazio- eta zuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu norberaren eta inoren ahozko lanak hobetzeko, modu gutxi-asko autonomoan.
- 3. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, komunikazio-trukearen arauak errespetatuz, modu gutxi-asko autonomoan.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Modu espontaneoan parte hartu, bere ikuspuntu bat modu xumean aurkeztu, eta ideiak nahiz informazioa trukatzeko.
  - Planifikatutako elkarreraginetan parte hartzen du: elkarrizketak, role-plays...
  - Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, modu gutxi-asko autonomoan eta eztabaida nahiz negoziazioa erabiliz, bere burua espresatzeko, taldea eta zeregina kudeatzeko, iritzia kontrastatzeko eta erabakiak hartzeko.
  - Elkarrizketa hasi, mantendu nahiz amaitzeko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu.
  - Hizketako txandak eta kortesia-arauak errespetatzen ditu.
  - Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen du bere jarduna, galdera soilak eginez eta erantzunez, eta iruzkin egokiak eginez.
  - Lexiko, esamolde nahiz esaldi soilak eta ohikoak erabiltzen ditu, oinarrizko lokailuak dituztenak, komunikazio-truke laburretan moldatu ahal izateko.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain argi hitz egiten du.
  - Ulertzen saiatzen da, bai eta bere burua ulertzera ematen ere.
  - Estereotipo baztertzailerik saihesten du.
- 4. Modu kritikoan ulertzea eta interpretatzea idatzizko testu soilak, laburrak edo ez oso luzeak, ongi egituratuak eta lexiko arruntekoak, aurrez landutako generoetakoak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren**

**arlokoak, eta zentzu orokorrari, ideia nagusiei eta bigarren mailako ideia batzuei igartzea.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Bere mailaren araberako luzera duten testuak irakurtzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, hainbat euskarritan eta hainbat helbururekin.
- Testuaren generoa ondorioztatzen du.
- Igorlearen asmoaz ohartzen da idatzizko testuen elementu esplizituengatik, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusiak bereizten du/ditu.
- Gai nagusia identifikatu, zentzu orokorrari igarri, eta ideia nagusiak eta bigarren mailako batzuk bereizten ditu.
- Denetariko antolatzaile grafikoak erabiltzen ditu ideiak antolatzeko, bai eta informazioaren erlazioa eta hierarkia erakusteko ere.
- Ondorioak ateratzeko eta hipotesiak formulatzeko erabiltzen ditu testuinguruko irudiak (ikonoak, ortotipografia...), hizkuntza-elementu esanguratsuak eta gaiak edo egoeraz lehenik dakiena, eta egiaztatu egiten ditu.
- Eguneroko gaiei buruz, gai orokorreari buruz edo intereseko gaiei buruz aurrez landutako esamoldeak eta lexikoa ezagutzen ditu.
- Norberaren ulermen-arazoak identifikatu, eta haiek konpontzeko eta hipotesiak berresteko estrategiak erabiltzen ditu: hitz eta esamolde ezezagunen esanahia ondorioztatzea, paperean nahiz digitalean dauden kontsulta-iturriak erabiltzea...
- Informazioa eta iritzia bereizten ditu, modu gutxi-asko autonomoan.
- Informazioaren balioa eta sinesgarritasuna aztertzen du, lagunduta, lehenik dakienean oinarrituta.
- Beste hizkuntzei buruz dakiena erabiltzen du ulermena hobetzeko.
- Iritzia eman eta modu soilean justifikatzen du, lehenik dakiena eta testuko informazioa erabiliz.
- Gizarte-, arraza-, sexu- edo kultura-bazterketa adierazten duten irudiak nahiz edukiak identifikatu, eta ez erabiltzen saiatzen da.

**5. Garrantziko informazio espezifikoak aurkitzea eta hautatzea, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Badaki zein den irakurketaren helburua, eta haren araberako estrategiak erabiltzen ditu: skimming, scanning...
- Informazio-iturri analogiko nahiz digitalik egokienak erabiltzen ditu, modu gutxi-asko autonomoan, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.
- Hitzeko eta ez-hitzeko elementuak erabiltzen ditu, modu gutxi-asko autonomoan, informazioa aurkitzeko; adibidez, irudiak, testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...
- Irakurgaiaren araberako informazioa hautatu, eta emandako baliabideak erabiliz jasotzen du: taulak, galdera-sortak, antolatzaile grafikoak...

**6. Idatzizko testuak sortzea, soilak, laburrak edo ez oso luzeak eta ongi egituratuak, alde zurretik egindako plangintza bati jarraituz eta modu gutxi-asko autonomoan, hainbat euskarri eta generotakoak, ikasgelako ohiko jarduerekin lotuak, gai akademiko nahiz pertsonalei buruzkoak, lagunduta, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Idatzizko testu soilak, laburrak edo ez oso luzeak sortzen ditu, modu gutxi-asko autonomoan, paperean nahiz digitalean.
- Bere idazlanak egokitu egiten ditu komunikazio-egoeraren ezaugarri nagusietara: hartzaila, testuaren helburua, euskarria, generoa...
- Testua planifikatu, idatzi eta berrikusten du, modu sistematikoan.
- Zeregina edo mezua egokitzen du, modu gutxi-asko autonomoan, zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren.
- Ikasgelan landutako lexikoa, esamoldeak eta hizkuntza-egiturak egoki erabiltzen ditu.
- Hizkuntza-elementurik ohikoenak erabiltzen ditu ideien barne-kohesiorako: erreferentzia mantentzea, lokailuak eta puntuazio-markak.
- Norberaren eta inoren testuak berrikusteko nahiz hobetzeko ebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
- IKTak erabiltzen ditu informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa zabaltzeko, komunikatu eta lankidetzan jarduteko, gero eta autonomia handiagoz.
- Testuak argi, garbi eta txukun aurkezten ditu.
- Esamolde eta irudi baztertzaila oro saihesten du bere idazlanetan.

**7. Literatura gozamen- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitatzat.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Ahozko, idatzizko edo ikus-entzunezko testu moldatuak irakurri edo entzuten ditu, hainbat generotakoak, eta haiek hautatzeko irizpide pertsonalak adierazten ditu.
- Liburutegia, mediateka eta Internet erabiltzen ditu.
- Testuari buruzko bere iritzia ematen du, ahoz nahiz idatziz, modu soilean, hainbat euskarri erabiliz.
- Literatura-testuari buruzko gogoeta partekatu eta lagunduetan parte hartzen du, sentipenak, pentsamenduak eta balio kolektiboak transmititzeko.
- Parte-hartze aktiboa du testuak dramatizatzen, birsortzen eta errezitatzen, erritmoa, ahoskera nahiz intonazioa zainduz, eta eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
- Literatura asmoko testu laburrak edo ez oso luzeak sortzen ditu, alde zurretik egindako plangintza bati jarraituz, gogoeta eginez, ereduak aztertuz, eta irakurketetan ikasitakoa erabiliz.

**8. Atzerriko hizkuntzan eta beste hizkuntzetan eskuratutako ezaguerak eta estrategiak erabiltzea, modu gutxi-asko autonomoan, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testuak idazteko eta berrikusteko, lagunduta.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.

- Hizkuntza-alderdiei buruz eta testu-tipologiari buruz beste hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzen du atzerriko hizkuntzaren ulermena eta idazmena hobetzeko.
  - Gai akademikoei eta egunerokoei buruzko lexiko oso arrunta identifikatu eta erabiltzen du.
  - Hainbat komunikazio-egoeratako esamoldeak erabiltzen ditu: kortesia, akordioa, eskaera, betebeharra...
  - Ahozko nahiz idatzizko bere lanei zuzentasuna, koherentzia eta kohesioa emate aldera, aurrez landutako hizkuntza-elementuak egoki erabiltzen ditu: ortografia- eta puntuazio-arauak, lokailuak, deiktikoak, denbora, modua, aspektua, kantitatea...
  - Dakizkien hizkuntzetako kategoria gramatikalak, esamoldeak eta hitzak konparatzen ditu haien artean.
  - Emandako eredu batzuen antzeko ahoskera, erritmoa, intonazioa eta azentuazioa erabiltzen du, modu argi eta ulergarrian.
  - Idazlan bat egiteko orduan, zalantzak argitzeko tresnak erabiltzen ditu (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), modu gutxi-asko autonomoan.
  - Hizkuntzaren plano bateko eta besteko akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen ditu, jarraibideak emanda, norberaren eta inoren testuetan.
  - Bere errepertorioko hizkuntzen arteko transferentzia negatiborik ohikoenak identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Inoren ekarpenak balioetsi, eta kontuan hartzen ditu.
  - Norberaren lan pertsonalaz arduratu, eta antolatu egiten du.
  - Norberaren aurrerapenak balioetsi, eta hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.
- 9. Atzerriko hizkuntza erabiltzea hizkuntza nahiz kultura desberdineko pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat, bai eta ikaskuntza-baliabidetzat ere.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Atzerriko hizkuntzako komunikazio-trukeetan parte hartzen du, modu aktiboan eta errespetuz.
  - Egoki erabiltzen ditu gizarte-harremanetako arau nagusiak: kortesia-arauak, erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza...
  - Atzerriko hizkuntza erabiltzen du harreman pertsonalak finkatzeko eta proiektutan laguntzeko, ahozko nahiz idatzizko harremanetan teknologia berriak erabiliz.
  - Atzerriko hizkuntza erabiltzen du ikasteko tresnatzat, eta denetariko informazio-iturriak eskuratzeko bidetzat.
  - Atzerriko hizkuntza ikasi, eta hartan komunikatzeko interesa dauka.
  - Jatorri eta kultura desberdineko pertsonekin komunikatzeko orduan, eleaniztun izatearen garrantziaz ohartzen da.
  - Inguruko eleaniztasunaz ohartu, eta modu positiboan balioesten du.
  - Estereotipo baztertzailerik saihesten du.
  - Ikasgelan eta kanpoan sortutako ikaskuntza-aukerez baliatzeko interesa dauka.

**10. Beste kultura batzuetako elementu sozial, linguistiko nahiz kulturalak identifikatu, errespetatu eta ezagutzeko interesa izatea, eta bere kulturarekin erlazionatzea.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntza egiten den testuinguru soziokultural eta geografikoaren ezaugarri batzuk ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoerari buruzko datu orokor batzuk aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Norberaren kulturakoak bezalakoak ez diren balioen nahiz ohituren aurrean interesa eta errespetua dauka.
- Inguruko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean interesa eta jarrera ona dauka.

### 1.2.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

**1. Ahozko testu laburrak edo ez oso luzeak ulertzea eta interpretatzea, testuinguruan jarriak eta ongi egituratuak, hainbat generotakoak eta hainbat euskarritan, argi eta astiro edo ez oso bizkor ahoskatuak, ikasleen esperientziatik hurbil dauden eguneroko gai zehatzei buruzkoak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, zentzu orokorra eta ideia nagusiak jasoz, eta proposatutako lanerako informazioa hautatuz, betiere baldintza akustikoek mezua distorsionatzen ez badute eta esandakoa berriro entzun badaiteke.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Ahozko testuen ohiko generoak identifikatzen ditu.
- Testuaren ideia orokorra ulertu, eta bere hitzez adierazten du.
- Gaia eta igorlearen asmoa ondorioztatu, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusiak bereizten du/ditu.
- Ideia nagusi batzuk eta informazio garrantzitsua identifikatzen ditu, irudiaren laguntzaz.
- Entzungaiari buruzko informazio zehatza eta garrantzitsua erauzten du.
- Ganoraz erabiltzen ditu informazioa erregistratzeko baliabideak: fitxak, eskemak, taulak, informazio-hutsuneak, kontzeptu-mapak...
- Hipotesiak formulatu eta ondorioak ateratzen ditu, hizkuntzako eta hizkuntzaz gaineko elementu esanguratsuak erabiliz, bai eta gai azaldu edo egoeraz lehendik dakiena ere.
- Eguneroko egoerei eta gai orokorrei buruzko edo norberaren intereseko ahozko lexiko arrunta ezagutzen du, hitz eta esamolde bakanago edo zehatzagoen zentzua testuingurutik edo kotestutik ondorioztatzen du, ikusitakoaren laguntzaz.
- Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
- Modu aktiboan eta errespetuz entzun, eta galdera egokiak egiten ditu.

**2. Ahozko testu laburrak eta hizkuntza soilekoak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, eguneroko gaiei buruzkoak, interes pertsonalekoak eta akademikoak, hainbat**



**euskarritan, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Gai ezagunei buruzko ahozko testu argiak eta ongi egituratuak sortzen ditu, aurrez landuak, ereduaren laguntzaz.
- Ahozko testuaren edukia planifikatzen du, gero eta autonomia handiagoz, komunikazio-egoeraren arabera: hartzailea, testuaren helburua, genero egokia, euskarria...
- Ohar, eskema, gidoi eta abarren bidez planifikatzen du ahozko testuen edukia.
- Gero eta autonomia handiagoz bilatu eta hautatzen du informazioa, iturri analogiko, ikus-entzunezko nahiz digitaletan.
- Modu logikoan antolatzen du informazioa eta egituratzen du testua, komunikazio asmoaren arabera eta testu-antolatzaile ohikoenak erabiliz.
- Zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren, zeregina edo mezua egokitzen du.
- Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzen ditu bere ahozko lanetan, ganoraz.
- Gai orokorrei eta akademikoei buruzko edo ohiko egitura sintaktikoak eta lexikoa erabiltzen ditu, eraginkortasunez komunikatzeko.
- Komunikazioa bermatzeko bezain zuzen, arin eta ahoskera nahiz intonazio ulergarri hitz egiten du (nahiz eta komunikazioa eteten ez duten okerrak egin ahoskeran batzuetan, eta solaskideek noizean behin eskatu esandakoa errepikatze), eta kontuan hartzen ditu egokitasuna, kortesia-arauak, doinua, keinuak eta gorputzaren jarrera.
- Hizkuntza-gabeziak konpentsatzen ditu hizkuntza-prozeduren bidez (sinonimoak erabiltzea, definitzea edo parafraseatzea), hizkuntzaz gaineko edo testuaz gaineko prozeduren bidez (laguntza eskatzea, deiktikoak erabiltzea, ekintzak egitea, gorputz-hizkuntza egokia erabiltzea...).
- Ebaluazio- eta zuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu norberaren eta inoren ahozko lanak hobetzeko, gero eta autonomia handiagoz.

### **3. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, komunikazio-trukearen arauak errespetatuz, gero eta autonomia handiagoz.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Modu espontaneoan parte hartu, bere ikuspuntu bat aurkeztu, gehiago edo gutxiago argudiatuz, eta ideiak nahiz informazioa trukatzeko.
- Gai orokorrei edo akademikoei buruzko harreman planifikatuetan parte hartzen du eta, zuzenean galdetzen zaionean, behar adina informazio trukatu, eta bere ideiak eta iritziak adierazten ditu.
- Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, gero eta autonomia handiagoz eta eztabaida nahiz negoziazioa erabiliz, bere burua espresatzeko, taldea eta zeregina kudeatzeko, iritziak kontrastatzeko eta erabakiak hartzeko.
- Komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, norberaren ulermena erregulatzeko, norberaren diskurtsoa ulergarriago egiteko, eta komunikazio-etenaldiak gainditzeko.

- Hizketako txanda eta kortesia-arauak errespetatzen ditu.
  - Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen du bere jarduna, galderak eginez eta erantzunez, eta iruzkin egokiak eginez.
  - Lexiko eta esamolde egokiak erabiltzen ditu, komunikazio-truke laburretan moldatu ahal izateko adina.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain argi eta arin espresatzen da.
  - Ulertzen saiatzen da, bai eta bere burua ulertzea ematen ere.
  - Estereotipo baztertzailer oro saihesten du.
- 4. Modu kritikoa ulertzea eta interpretatzea idatzizko testuak, gero eta luzeagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak, aurrez landutako generoetakoak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, eta zentzu orokorrari, ideia nagusiei eta bigarren mailako ideia batzuei igartzea.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Bere mailaren arabera luzera duten testuak irakurtzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, hainbat euskarritan eta hainbat helbururekin.
  - Testuaren generoa ondorioztatzen du.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da idatzizko testuen elementu esplizitu eta implizituengatik, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusiak bereizten du/ditu.
  - Gai nagusia identifikatu, zentzu orokorrari igarri, eta ideia nagusiak eta bigarren mailako batzuk bereizten ditu.
  - Denetariko antolatzaile grafikoak erabiltzen ditu ideiak antolatzeko, bai eta informazioaren erlazioa eta hierarkia erakusteko ere.
  - Ondorioak ateratzeko eta hipotesiak formulatzeko erabiltzen ditu testuinguruko irudiak (ikonoak, ortotipografia...), hizkuntza-elementu esanguratsuak eta gaiak edo egoeraz lehendik dakiena, eta egiaztatu egiten ditu.
  - Eguneroko gaiak buruzko, gai orokorrei buruzko edo intereseko gaiak buruzko lexikoa eta esamolde arrunt batzuk ezagutzen ditu, eta testuingurutik edo kotestutik ondorioztatzen du hitz eta esamolde bakanago edo zehatzagoen zentzua, ikusitakoaren laguntzaz.
  - Norberaren ulermen-arazoak identifikatu, eta haiek konpontzeko eta hipotesiak berresteko estrategiak erabiltzen ditu: hitz eta esamolde ezezagunen esanahia ondorioztatzea, paperean nahiz digitalean dauden kontsulta-iturriak erabiltzea...
  - Informazioa eta iritzia bereizten ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - Informazioaren balioa eta sinesgarritasuna aztertzen du, lagunduta, lehendik dakienean oinarrituta.
  - Beste hizkuntzei buruz dakiena erabiltzen du ulermena hobetzeko.
  - Iritzia eman eta justifikatu egiten du, lehendik dakiena eta testuko informazioa erabiliz.
  - Gizarte-, arraza-, sexu- edo kultura-bazterketa adierazten duten irudiak nahiz edukiak identifikatu, eta ez erabiltzen saiatzen da.
- 5. Garrantzizko informazio espezifikoa aurkitzea eta hautatzea, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.

- Badaki zein den irakurketaren helburua, eta haren araberako estrategiak erabiltzen ditu.
  - Informazio-iturri analogiko nahiz digitalik egokienak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.
  - Hizkuntzako eta hizkuntzaz gaineko elementuak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, informazioa aurkitzeko: irudiak, tipografia...
  - Irakurgaiaren araberako informazioa hautatu, eta emandako baliabideak erabiliz jasotzen du: taulak, galdera-sortak, antolatzaile grafikoak...
- 6. Idatzizko testuak sortzea, aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz eta modu gutxi-asko autonomoan, gero eta luzeagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak, hainbat generotakoak, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Idatzizko testuak sortzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, paperean nahiz digitalean.
  - Bere idazlanak egokitu egiten ditu komunikazio-egoeraren ezaugarri nagusietara: hartzailea, testuaren helburua, euskarria, generoa...
  - Testua planifikatu, idatzi eta berrikusten du, modu sistematikoan.
  - Helburuaren araberako informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzen du, gero eta autonomia handiagoz eta hainbat iturritan.
  - Aurrez landutako generoen ezaugarri nagusiak aplikatzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - Zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren, zeregina edo mezua egokitzen du.
  - Ikasgelan landutako ortografia, puntuazioa, sintaxia, esamoldeak eta lexikoa egoki erabiltzen ditu, informazioa, iritziak nahiz ikuspuntuak komunikatzeko.
  - Hizkuntza-elementurik ohikoenak erabiltzen ditu, ganoraz, ideien barne-kohesiorako: erreferentzia mantentzea, lokailuak eta puntuazio-markak.
  - Norberaren eta inoren testuak berrikusteko nahiz hobetzeko autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - IKTak erabiltzen ditu informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa zabaltzeko, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
  - Testuak argi, garbi eta txukun aurkezten ditu.
  - Esamolde eta irudi baztertzailak oro saihesten du bere idazlanetan.
- 7. Literatura gozamen- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Ahozko, idatzizko edo ikus-entzunezko testu moldatuak irakurri edo entzuten ditu, hainbat generotakoak, eta haiek hautatzeko irizpide pertsonalak adierazten ditu.
  - Liburutegia, mediateka eta Internet erabiltzen ditu.
  - Testuari buruzko bere iritzia ematen du, ahoz nahiz idatziz, modu soilean, hainbat euskarri erabiliz.

- Literatura-testuari buruzko gogoeta partekatu eta lagunduetan parte hartzen du, sentipenak, pentsamenduak eta balio kolektiboak transmititzeko.
  - Parte-hartze aktiboa du testuak dramatizatzen, birsortzen eta errezitatzen, erritmoa, ahoskera nahiz intonazioa zainduz, eta eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
  - Literatura asmoko testu gero eta luzeagoak sortzen ditu, alde zuzenetik egindako plangintza bati jarraituz, gogoeta eginez, ereduak aztertuz, eta irakurketetan ikasitakoa erabiliz.
- 8. Atzerriko hizkuntzan eta beste hizkuntzetan eskuratutako ezaguerak eta estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testuak idazteko eta berrikusteko, lagunduta.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Hizkuntza-alderdiei buruz eta testu-tipologiari buruz beste hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzen du atzerriko hizkuntzaren ulermena eta idazmena hobetzeko.
  - Gai akademikoei eta egunerokoei buruzko lexikoa identifikatu eta erabiltzen du.
  - Hainbat komunikazio-egoeratako esamoldeak erabiltzen ditu: kortesia, akordioa, eskaera, betebeharra, posibilitatea, asmoa...
  - Ahozko nahiz idatzizko bere lanei zuzentasuna, koherentzia eta kohesioa emate aldera, aurrez landutako hizkuntza-elementuak egoki erabiltzen ditu: ortografia- eta puntuazio-arauak, lokailuak, deiktikoak, denbora, modua, aspektua, kantitatea...
  - Dakizkien hizkuntzetako kategoria gramatikalak, esamoldeak eta hitzak konparatzen ditu haien artean.
  - Emandako eredu batzuen antzeko ahoskera, erritmoa, intonazioa eta azentuazioa erabiltzen du, modu argi eta ulergarrian.
  - Idazlan bat egiteko orduan, zalantzak argitzeko tresnak erabiltzen ditu: hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...
  - Hizkuntzaren plano bateko eta besteko akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, modu sistematikoan, norberaren eta inoren testuetan.
  - Bere errepertorioko hizkuntzen arteko transferentzia negatiborik ohikoenak identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Inoren ekarpenak balioetsi, eta kontuan hartzen ditu.
  - Norberaren lan pertsonalaz arduratu, eta antolatu egiten du.
  - Norberaren aurrerapenak balioetsi, eta hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.
- 9. Atzerriko hizkuntza erabiltzea hizkuntza nahiz kultura desberdineko pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat, bai eta ikaskuntza-baliabidetzat ere.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Atzerriko hizkuntzako komunikazio-trukeetan parte hartzen du, modu aktiboan eta errespetuz.
  - Egoki erabiltzen ditu gizarte-harremanetako arau nagusiak: kortesia-arauak, erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza...
  - Atzerriko hizkuntza erabiltzen du harreman pertsonalak finkatzeko eta proiektutan laguntzeko, ahozko nahiz idatzizko harremanetan teknologia berriak erabiliz.

- Atzerriko hizkuntza erabiltzen du ikasteko tresnatzat, eta denetariko informazio-iturriak eskuratzeko bidetzat.
- Atzerriko hizkuntza ikasi, eta hartan komunikatzeko interesa dauka.
- Jatorri eta kultura desberdineko pertsonekin komunikatzeko orduan, eleaniztun izatearen garrantziaz ohartzen da.
- Inguruko eleaniztasunaz ohartu, eta modu positiboan balioesten du.
- Estereotipo baztertzaila oro saihesten du.
- Ikasgelan eta kanpoan sortutako ikaskuntza-aukerez baliatzeko interesa dauka.

**10. Beste kultura batzuetako elementu sozial, linguistiko nahiz kulturalak identifikatu, errespetatu eta ezagutzeko interesa izatea, eta bere kulturarekin erlazionatzea.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntza egiten den testuinguru soziokultural eta geografikoaren ezaugarri batzuk ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoerari buruzko datu orokor batzuk aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Norberaren kulturakoak bezalakoak ez diren balioen nahiz ohituren aurrean interesa eta errespetua dauka.
- Inguruko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean interesa eta jarrera ona dauka.

#### 1.2.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

**1. Ahozko testu ez oso luzeak ulertzea eta interpretatzea, testuinguruan jarriak eta ongi egituratuak, hainbat generotakoak eta hainbat euskarritan, argi eta astiro edo ez oso bizkor ahoskatuak, ikasleen esperientziatik hurbil dauden eguneroko gaien buruzkoak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, zentzu orokorra eta ideia nagusiak jasoz, eta proposatutako lanerako informazioa hautatuz, betiere baldintza akustikoek mezua distorsionatzen ez badute eta esandakoa berriro entzun badaiteke.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Ahozko testuen ohiko generoak identifikatzen ditu.
- Testuaren ideia orokorra ulertu, eta bere hitzez adierazten du.
- Gaia eta igorlearen asmoa ondorioztatu, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusiak bereizten du/ditu.
- Ideia nagusi batzuk eta informazio garrantzitsua identifikatzen ditu, euskarri bisual eta idatziaren laguntzaz.
- Entzungaiari buruzko informazio zehatza eta garrantzitsua erauzten du.
- Ganoraz erabiltzen ditu informazioa erregistratzeko baliabideak: fitxak, eskemak, taulak, informazio-hutsuneak, kontzeptu-mapak...
- Hipotesiak formulatu eta ondorioak ateratzen ditu, hizkuntzako eta hizkuntzaz gaineko elementu esanguratsuak erabiliz, bai eta gaiaz edo egoeraz lehendik dakiena ere.

- Eguneroko egoerei eta gai orokorrei buruzko edo norberaren intereseko ahazko lexiko arrunta eta zenbait esamolde ezagutzen ditu, baldin eta testuinguruak eta ikusitakoak ulermena errazten badute, eta testuingurutik edo kotestutik ondorioztatzen du hitz eta esamolde bakanago edo zehatzagoen zentzua.
  - Ahazko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Modu aktiboan eta errespetuz entzun, eta galdera egokiak egiten ditu.
- 2. Ahazko testu laburrak edo ez oso luzeak eta hizkuntza soilekoak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, eguneroko gaiei buruzkoak, interes pertsonalekoak eta akademikoak, hainbat euskarritan, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Gai ezagunei buruzko ahazko testu argiak eta ongi egituratuak sortzen ditu, aurrez landuak.
  - Ahazko testuaren edukia planifikatzen du, gero eta autonomia handiagoz, komunikazio-egoeraren arabera: hartzailea, testuaren helburua, genero egokia, euskarria...
  - Ohar, eskema, gidoi eta abarren bidez planifikatzen du ahazko testuen edukia.
  - Gero eta autonomia handiagoz bilatu eta hautatzen du informazioa, iturri analogiko, ikus-entzunezko nahiz digitaletan.
  - Modu logikoan antolatzen du informazioa eta egituratzen du testua, komunikazio asmoaren arabera eta testu-antolatzaile egokienak erabiliz.
  - Zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren, zeregina edo mezua egokitzen du.
  - Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzen ditu bere ahazko lanetan, ganoraz.
  - Gai orokorrei eta akademikoei buruzko edo ohiko egitura sintaktikoak, esamoldeak eta lexikoa erabiltzen ditu, ganoraz komunikatzeko.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain zuzen, arin eta ahoskera nahiz intonazio ulergarri hitz egiten du (nahiz eta komunikazioa eteten ez duten ahoskera-akatsak egin batzuetan, eta solaskideek eskatu esandakoa errepikatzeko, ezohiko hitzak eta egiturak badira), eta kontuan hartzen ditu egokitasuna, kortesia-arauak, doinua, keinuak eta gorputzaren jarrera.
  - Hizkuntza-gabeziak konpentsatzen ditu hizkuntza-prozeduren bidez (sinonimoak erabiltzea, definitzea edo parafraseatzea), hizkuntzaz gaineko edo testuaz gaineko prozeduren bidez (laguntza eskatzea, deiktikoak erabiltzea, ekintzak egitea, gorputz-hizkuntza egokia erabiltzea...).
  - Ebaluazio- eta zuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu norberaren eta inoren ahazko lanak hobetzeko.
- 3. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, komunikazio-trukearen arauak errespetatuz.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Modu espontaneoan parte hartu, bere ikuspuntu bat aurkeztu, gehiago edo gutxiago argudiatuz, eta ideiak nahiz informazioa trukatzeko.

- Gai orokorrei edo akademikoei buruzko harreman planifikatuetan parte hartzen du, modu gutxi-asko autonomoan, beharrezko informazioa trukatzeko, eta bere ekintzak, iritziak eta planak arrazoitu eta azaltzen ditu, labur.
  - Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, gero eta autonomia handiagoz eta eztabaida nahiz negoziazioa erabiliz, bere burua espresatzeko, taldea eta zeregina kudeatzeko, iritziak kontrastatzeko eta erabakiak hartzeko.
  - Komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, norberaren ulermena erregulatzeko, norberaren diskurtsoa ulergarriago egiteko, eta komunikazio-etenaldiak gainditzeko.
  - Hizketako txanda eta kortesia-arauak errespetatzen ditu.
  - Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen du bere jarduna, galderak eginez eta erantzunez, eta iruzkin egokiak eginez.
  - Lexiko eta esamolde egokiak erabiltzen ditu, komunikazio-truke laburretan moldatu ahal izateko adina.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain argi eta arin espresatzen da.
  - Ulertzen saiatzen da, bai eta bere burua ulertzera ematen ere.
  - Estereotipo baztertzailerik orokorrenak saihesten ditu.
- 4. Modu kritikoan ulertzea eta interpretatzea idatzizko testuak, gero eta luzeagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak, aurrez landutako generoetakoak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, eta zentzu orokorrari, ideia nagusiei eta bigarren mailako ideiei igartzea.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Bere mailaren arabera luzera duten testuak irakurtzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, hainbat euskarritan eta hainbat helbururekin.
  - Testuaren generoa ondorioztatzen du.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da idatzizko testuen elementu esplizitu eta inplizituengatik, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusia bereizten du/ditu.
  - Gai nagusia identifikatu, zentzu orokorrari igarri, eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.
  - Denetariko antolatzaile grafikoak erabiltzen ditu ideiak antolatzeko, bai eta informazioaren erlazioa eta hierarkia erakusteko ere.
  - Ondorioak ateratzeko eta hipotesiak formulatzeko erabiltzen ditu testuinguruko irudiak (ikonoak, ortotipografia...), hizkuntza-elementu esanguratsuak eta gaiak edo egoeraz lehenik dakiena, eta egiaztatzen egiten ditu.
  - Eguneroko gaiei buruzko, gai orokorrei buruzko edo intereseko gaiei buruzko lexikoa eta esamolde arruntak ezagutzen ditu, eta testuingurutik eta kotestutik ondorioztatzen du hitz eta esamolde bakanago edo zehatzagoen zentzua, euskarri bisualaren laguntzaz.
  - Norberaren ulermen-arazoak identifikatu, eta haiek konpontzeko eta hipotesiak berresteko estrategiak erabiltzen ditu: hitz eta esamolde ezezagunen esanahia ondorioztatzea, eta paperean nahiz digitalean dauden kontsulta-iturriak erabiltzea.
  - Informazioa eta iritzia bereizten ditu.

- Informazioaren balioa eta sinesgarritasuna aztertzen du, lagunduta, lehendik dakienean oinarrituta.
  - Beste hizkuntzei buruz dakiena erabiltzen du ulermena hobetzeko.
  - Iritzia eman eta justifikatu egiten du, lehendik dakiena eta testuko informazioa erabiliz.
  - Gizarte-, arraza-, sexu- edo kultura-bazterketa adierazten duten irudiak nahiz edukiak identifikatu, eta ez erabiltzen saiatzen da.
- 5. Garrantziko informazio espezifikoak aurkitzea eta hautatzea, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Badaki zein den irakurketaren helburua, eta haren arabera estrategiak erabiltzen ditu.
  - Informazio-iturri analogiko nahiz digitalik egokienak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.
  - Hizkuntzako eta hizkuntzaz gaineko elementuak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, informazioa aurkitzeko: irudiak, tipografia...
  - Irakurgaiaren arabera informazioa hautatu, eta emandako baliabideak erabiliz jasotzen du: taulak, galdera-sortak, antolatzaile grafikoak...
- 6. Idatzizko testuak sortzea, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz eta modu gutxi-asko autonomoan, gero eta luzeagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak, hainbat generotakoak, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Idatzizko testuak sortzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, paperean nahiz digitalean.
  - Bere idazlanak egokitu egiten ditu komunikazio-egoeraren ezaugarri nagusietara: hartzailea, testuaren helburua, euskarria, generoa...
  - Testua planifikatu, idatzi eta berrikusten du, modu sistematikoan.
  - Helburuaren arabera informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzen du, gero eta autonomia handiagoz eta hainbat iturritan.
  - Aurrez landutako generoen ezaugarri nagusiak aplikatzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - Zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren, zeregina edo mezua egokitzen du.
  - Ortografia, puntuazioa, sintaxia, esamoldeak eta lexikoa egoki erabiltzen ditu.
  - Hizkuntza-elementurik ohikoenak erabiltzen ditu, ganoraz, ideien barne-kohesiorako: erreferentzia mantentzea, lokailuak eta puntuazio-markak.
  - Norberaren eta inoren testuak berrikusteko nahiz hobetzeko autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - ITak erabiltzen ditu informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa zabaltzeko, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
  - Testuak argi, garbi eta txukun aurkezten ditu.



- Esamolde eta irudi baztertzaila oro saihesten du bere idazlanetan.
- 7. Literatura gozamen- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Ahozko, idatzizko edo ikus-entzunezko testu moldatuak irakurri edo entzuten ditu, hainbat generotakoak, eta haiek hautatzeko irizpide pertsonalak adierazten ditu.
  - Liburutegia, mediateka eta Internet erabiltzen ditu.
  - Testuari buruzko bere iritzia ematen du, ahoz nahiz idatziz, modu soilean, hainbat euskarri erabiliz.
  - Literatura-testuari buruzko gogoeta partekatu eta lagunduetan parte hartzen du, sentipenak, pentsamenduak eta balio kolektiboak transmititzeko.
  - Parte-hartze aktiboa du testuak dramatizatzen, birsortzen eta errezitatzen, erritmoa, ahoskera nahiz intonazioa zainduz, eta eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
  - Literatura asmoko testu gero eta luzeagoak sortzen ditu, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz, gogoeta eginez, ereduak aztertuz, eta irakurketetan ikasitakoa erabiliz.
- 8. Atzerriko hizkuntzan eta beste hizkuntzetan eskuratutako ezaguerak eta estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testuak idazteko eta berrikusteko, lagunduta.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Hizkuntza-alderdiei buruz eta testu-tipologiari buruz beste hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzen du atzerriko hizkuntzaren ulermena eta idazmena hobetzeko.
  - Gai akademikoei eta egunerokoei buruzko lexikoa identifikatu eta erabiltzen du.
  - Hainbat komunikazio-egoeratako esamoldeak erabiltzen ditu: kortesia, akordioa, eskaera, betebeharra, baldintza, posibilitatea eta probabilitatea.
  - Ahozko nahiz idatzizko bere lanei zuzentasuna, koherentzia eta kohesioa emate aldera, aurrez landutako hizkuntza-elementuak egoki erabiltzen ditu: ortografia- eta puntuazio-arauak, lokailuak, deiktikoak, denbora, modua, aspektua, kantitatea.
  - Dakizkien hizkuntzetako kategoria gramatikalak, esamoldeak eta hitzak konparatzen ditu haien artean.
  - Emandako eredu batzuen antzeko ahoskera, erritmoa, intonazioa eta azentuazioa erabiltzen du, modu argi eta ulergarrian.
  - Idazlan bat egiteko orduan, zalantzak argitzeko tresnak erabiltzen ditu: hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...
  - Hizkuntzaren plano bateko eta besteko akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, modu sistematikoan, norberaren eta inoren testuetan.
  - Bere errepertorioko hizkuntzen arteko transferentzia negatiborik ohikoena identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Inoren ekarpenak balioetsi, eta kontuan hartzen ditu.
  - Norberaren lan pertsonalaz arduratu, eta antolatu egiten du.
  - Norberaren aurrerapenak balioetsi, eta hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.

**9. Atzerriko hizkuntza erabiltzea hizkuntza nahiz kultura desberdineko pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat, bai eta ikaskuntza-baliabidetzat ere.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntzako komunikazio-trukeetan parte hartzen du, modu aktiboan eta errespetuz.
- Egoki erabiltzen ditu gizarte-harremanetako arau nagusiak: kortesia-arauak, erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza...
- Atzerriko hizkuntza erabiltzen du harreman pertsonalak finkatzeko eta proiektutan laguntzeko, ahozko nahiz idatzizko harremanetan teknologia berriak erabiliz.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzen du ikasteko tresnatzat, eta denetariko informazio-iturriak eskuratzeko bidetzat.
- Atzerriko hizkuntza ikasi, eta hartan komunikatzeko interesa dauka.
- Jatorri eta kultura desberdineko pertsonekin komunikatzeko orduan, eleaniztun izatearen garrantziaz ohartzen da.
- Inguruko eleaniztasunaz ohartu, eta modu positiboan balioesten du.
- Estereotipo baztertzailerik saihesten du.
- Ikasgelan eta kanpoan sortutako ikaskuntza-aukerez baliatzeko interesa dauka.

**10. Beste kultura batzuetako elementu sozial, linguistiko nahiz kulturalak identifikatu, errespetatu eta ezagutzeko interesa izatea, eta bere kulturarekin erlazionatzea.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntza egiten den testuinguru soziokultural eta geografikoaren ezaugarri batzuk ezagutzen ditu.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoerari buruzko datu orokor batzuk aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo lingua franca).
- Norberaren kulturakoak bezalakoak ez diren balioen nahiz ohituren aurrean interesa eta errespetua dauka.
- Inguruko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean interesa eta jarrera ona dauka.

## 1.3. ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA

### 1.3.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira etapako helburuak Atzerriko Bigarren Hizkuntzarako:

1. Ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, ikasleen gaitasunekin eta interesekin bat datozenak, bai eta haiek interpretatzea ere, erantzun egokia eman ahal izateko hainbat komunikazio-egoerari.
2. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta interaktuatzea, modu gutxi-asko autonomoan eta errespetu- eta lankidetzajarrerarekin, modu egoki, koherente eta zuzenean erantzun ahal izateko ohiko komunikazio-beharrei.
3. Atzerriko hizkuntzaren sistemari buruz gogoeta egitea eta, modu gutxi-asko autonomoan, hizkuntzari buruzko ezaguerak eta erabilera-arauak aplikatzea testuak ulertu eta sortzeko, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta hizkuntzen artean transferitu ahal diren ezaguerak erabiliz.
4. Idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testuez gozatzea, era horretan mundua eta gizakia ulertzeko, hizkuntza aberasteko eta sentsibiltate estetikoa garatzeko.
5. Eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu eta interpretatzea, soziolinguistikaren oinarritzko ezagueren bidez, kultura-aberastasuntzat jotzen den eleaniztasunarekiko jarrera positiboa garatzeko.
6. IKTak erabiltzea gero eta modu autonomo eta kritikoagoan, informazioa eskuratu, komunikatu eta atzerriko hizkuntzan lankidetzan jarduteko.
7. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko.

### 1.3.2. EDUKIAK

#### 1.3.2.1. Multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den 1. multzoan datoz oinarritzko zehar-kompetentziak garatzeko behar diren eduki guztiak, arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu beharrekoak.

Gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egin, idatzi, entzun eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak dira curriculumaren ardatza. Trebetasun horiekin lotutako ikasketak biltzen dira hiru multzotan: 2. "Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea". 3. "Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea". 4. "Literatura-hezkuntza". Horiekin loturik, "Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta" izeneko 5. multzoan eta "Hizkuntzaren alderdi soziala" izeneko 6. multzoan hizkuntza sistematizat hartu, eta aztertzen dira haren erabilera-arauak, hizkuntzen arteko harremanak, eta hizkuntzek hitzuneekin dituzten harremanak.

Multzo horiek modu analitikoan aztertzen dituzte hizkuntza- eta literatura-hezkuntzaren osagaiak, eta ziklo bakoitzean irits daitezkeen lorpen-mailak ere adierazten dituzte, baina ez dute ezertxo ere esaten ikasgelako ikaskuntza-jardueren ordenaz nahiz antolaeraz. Hori dela eta, programazioak egitean eta jardueren sekuentzia ikasgelara eramatean, ondo uztartu behar dira multzo guztietako edukiak. Ezin da ahaztu ikasgai hauen oinarrian prozedurazko edukiak daudela, eta horien zerbitzura daudela adierazpenezko edukiak.

Eskola-sistemak ahaztu egin ohi ditu ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak. Garrantzi handia dute, baina, bai komunikaziorako kompetentzia guztiz garatzeko, bai gelako harremanak indartzeko eta esanahia negoziatzeko, eta horiek funtsezkoak dira ikasgai guztietako jakintza eraiki ahal izateko.

Era berean, elkarri estu loturik daude hitz egitea eta entzutea, bai eta irakurtzea eta idaztea ere; beraz, hobe da ikaskuntza-jardueren sekuentzietan uztartzea hizkuntza-erabileraren bi alderdiak, hau da, ulertzea eta sortzea.

Literatura-hezkuntzarekin lotutako edukiak 4. multzoan jaso dira, eta aurreko etaparen ildotik doaz: irakurtzeko ohiturak bermatzea, idatzizko ulermena eta adierazpena garatzea, hizkuntzari buruzko gogoeta eta komunikaziorako gaitasuna garatzea, eta testuak irakurtzeko eta birsortzeko esperientziak aberastea. Hala, bigarren hizkuntza eta haren kultura ikasteari ez ezik helduko zaio literatura-testuaz gozatzeari.

"Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta" izeneko 5. multzoan gogoeta egiten da sistema linguistikoaren osagaiei buruz eta haren erabilera-arauei buruz. Ikasgai honetako ikasleek aukera izan dute hizkuntzaz gogoeta egiteko, bai beren hizkuntzaren eta bai atzerriko lehen hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuan. Horren ondorioz, gure neska-mutilek estu lotu ahal izango dituzte multzo honetako edukiak etapa honetan bertan egitura linguistikoei buruz ikasi dutenarekin, eta, hala, besteekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko gaitasunarekin lotutako alderdi eta elementu bereizgarrietan jarri ahal izango dute arreta.

"Hizkuntzaren alderdi soziala" izeneko 6. multzoan datoz hizkuntza-aniztasuna, hizkuntzen arteko harremanak... Gaur egungo gizarte eleaniztun konplexu honetan, elebitasun desorekatu batetik testuinguru eleaniztun baterantz doa euskal gizarteak. Horrek beharrezkoa egiten du ingurune bakoitzeko egoera soziolinguistikoz gogoeta egitea, era horretan jarrera positiboa izateko eleaniztasunarekiko, eta atzerriko hizkuntza eta hizkuntza guztiak komunikatzeko eta ulertzeko bide izan daitezen jatorri eta kultura desberdineko pertsonentzat, bai eta denetarikoko edukiak ikasteko tresna ere.

Komunikaziorako kompetentzia lantzea da hizkuntzak irakastearen eta ikastearen helburu nagusia, eta, beraz, ezinbestekoa da 5. eta 6. multzoetako jardueren bidez hizkuntza trebeago erabiltzea.

DBHko Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren curriculumak malgua izan behar du, edozein ikasturtetan hasi edo bukatzen duten ikasleen mailara egokitzeko. Beraz, curriculum honek oinarriko mailak lantzen ditu, atzerriko hizkuntzen curriculum orokorra oinarri hartuta, eta ikasleen ezaugarrietara egokitu behar da.

Atzerriko Lehen Hizkuntzarako ezarritako helburuak erdiestea da Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren xedea, ikasleen abiapuntura egokituta. Edukiei dagokienez, atzerriko bigarren hizkuntzako komunikazio-trebetasunak garatuko dira atzerriko lehen hizkuntzarekin bezala, ikasleen abiapuntua aintzat hartuta. Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren curriculumeko multzo bakoitzak eduki hauek ditu.

### 1.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztien oinarrizko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### 2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea

- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu laburrak eta testuinguruan jarriak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: elkarriketak, aurkezpenak, kontakizunak, albisteak, dokumentalak...
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategia nagusiak erabiltzea.
- Esperientzia eta interes pertsonalei buruzko eta ikaskuntzari buruzko komunikazio-egoera errealetan edo simulatuetan parte hartzea, lagunduta.
- Hainbat euskarritan dauden ahozko testu laburrak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, gai akademikoari buruzkoak edo interes pertsonalekoak, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz: elkarriketak, aurkezpenak, kontakizunak, albisteak, dokumentalak...

- Ahozko testuak sortzea, lagunduta: planifikatu eta informazioa bilatu, testua egin eta berrikustea.
- Ahozko harremanen arauak erabiltzea: kortesia-arauak, hizketako txandak, gaiari eustea, gorputzaren jarrera eta keinu egokiak, erantzuna solaskidearen hitzen ildotik joatea...
- Komunikazio-funtziorik ohikoenak erabiltzea ikasgelan, gero eta autonomia handiagoz.
- Ahozko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Modu aktiboan, errespetuz eta lankidetzan parte hartzea komunikazio-trukeetan, batez ere elkarrekin ikasteko egoeretan.
- Atzerriko hizkuntzan hitz egiteko interesa.
- Egoki ahoskatzeko interesa.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta joera.

### 3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Idatzizko testu laburrak, ongi egituratuak eta lexiko arruntekoak ulertzea, gai ezagunei buruzkoak, benetakoak edo moldatuak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak.
- Beste hizkuntzetan garatutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: aurreratzea, egiaztatzea, ondorioztatzea, zalantzak argitzea, norberaren ulermen-arazoak identifikatzea.
- Idatzizko testu laburrak eta egitura argikoak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak: posta-mezuak, argibideak, kontakizunak, elkarrizketak, definizioak, deskribapenak, laburpenak, eskemak, azalpenak...
- Idatzizko testuak sortzea, lagunduta: planifikatu eta informazioa bilatu, testua idatzi, berrikusi eta norberak zuzentzea.
- Informazioa bilatzeko eta testuak hautatzeko iturriak erabiltzea, lagunduta: liburutegia, mediateka, Internet...
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa transmititu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
- Idazlanetan landutako hizkuntza-ezaguerak aplikatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun bat lortzeko.
- Komunikazio-funtziorik ohikoenak erabiltzea ikasgelan, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko generoen ezaugarriak: solaskideak, helburua, egitura, hizkuntza-elementu bereziak...
- Ikaslearen esperientziaren, hedabideen eta ikaskuntzaren arloko lexiko eta esamolde arruntak.
- Euskarri grafikoak eta konbentzio ortografikoak.

- Idatziz espresatzeko konfiantza eta joera.
- Adinaren, interesen eta konpetentzia-mailaren arabera testuak irakurtzeko joera, modu gutxi-asko autonomoan.
- Idatzizko testuen bidez informatu, komunikatu eta ikasteko interesa.
- Norberaren testuak berrikusteari garrantzitsu iriztea, idazlanak hobetzeko.
- Idatzizko testuak ondo zaintzeko eta aurkezteko interesa.

#### 4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

- Modu aktiboan entzutea eta ulertzea ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu moldatuak, bat datozenak ikasleen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Iruzkinak eginez eta modu adierazkorrean irakurtzea literatura-testu moldatuak, hainbat euskarritan, bat datozenak ikasleen adinarekin, zaletasunekin eta interesekin.
- Biblioteka, mediateka eta Internet erabiltzea, eta irakurtzeko autonomia garatuz joatea.
- Literatura-testuak dramatizatu, birsortu eta errezipitazioa, eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
- Planifikatu ondoren, literatura asmoko testu laburrak sortzea, sormena sustatzeko teknikak eta eraldatze- edo idazte-teknikak erabiliz, eredu bidez: komikiak, poemak, dramatizazioak, gidoiak eta kontakizun laburrak.
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea, literatura asmoko testuak sortzeko.
- Landutako genero narratiboaren, lirikoaren eta dramatikoaren ezaugarriak.
- Literaturaren beste zenbait adierazpen: komikia, musika, zinema...
- Literatura-testua gozamen-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.
- Literatura-jardueretan parte-hartze aktiboa izatea, ikastetxean nahiz ingurunean.

#### 5. MULTZOA. Hizkuntzari buruzko gogoeta

- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezaguerak aktibatzea eta transferitzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak hobeto ulertu eta sortzeko.
- Azterketa eta gogoeta gidatua egitea hainbat komunikazio-egoeratako testuen hizkuntza-elementu nagusien erabileraz eta esanahiaz: maiztasun handiko lexikoa, ohiko egiturak eta esamoldeak...
- Landutako testuen hizkuntza-elementu nagusiak erabiltzea eta sendotzea.
- Testuetan lexikoa antolatzeke, eskuratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko estrategia nagusiak aplikatzea.
- Multimedia-euskarriak eta IKTak erabiltzea lexiko eta egitura berriak eskuratzeko.
- Ahoskeraren, erritmoaren, intonazioaren eta azentuazioaren eredu nagusiak ezagutzea eta erabiltzea.
- Norberaren ikaskuntzaz gogoeta egin, lana antolatu, eta akatsa ikaskuntzaren partetzat hartzea.
- Parte-hartze aktiboa izatea norberaren eta inoren lanak ebaluatzen, eta ahozko, idatzizko nahiz ikus-entzunezko lanak norberak ebaluatzeke eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, bideratuta.

- Akatsak identifikatzea eta zuzentzea norberaren eta inoren testuetan.
- Ikaskuntzako baliabideak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz: hiztegiak, zuzentzaile ortografikoak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo ICTak.
- Oinarrizko lexikoa, oso ohikoa, eguneroko gaiei eta ikasketei buruzkoa.
- Hainbat komunikazio-egoeratako formulak, esamoldeak eta esaerak.
- Idazketa-sistemaren konbentzioak: aurrez landutako lexikoaren ortografia, puntuazio-markak.
- Norberaren lanak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko interesa.
- Hizkuntza- eta komunikazio-ikaskuntzako lorpenen eta zailtasunen kontzientzia.

## 6. MULTZOA. Hizkuntzaren alderdi soziala

- Atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazio-trukeetan parte hartzea beste hizkuntzetako eta kulturetako hitzuneekin, ICTak erabiliz.
- Atzerriko hizkuntzaren harreman sozialetarako arau nagusiak erabiltzea (konbentzio sozialak, kortesia-arauak, erregistroak, hitzik gabeko hizkuntza...), esku-hartze aktiboan, elkarlanean eta errespetuz.
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- ICTak erabiltzea beste herrialdeei eta kulturei buruzko informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko.
- Atzerriko hizkuntza egiten den herrialdeetako elementu soziokultural eta geografiko nagusiak.
- Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoera.
- Europan gaur egun dagoen hizkuntza-errealitatea ezagutzea, bai eta atzerriko hizkuntzak munduan duena ere.
- Eleaniztasunak ematen duen aberastasun pertsonala aitortzea eta balioestea.
- Atzerriko hizkuntza nazioarteko komunikazio-tresnatzat hartzea, informazio berriak eskuratzeko bidetzat, eta bestelako kulturak eta bizimoduak ezagutzeko zubitatzat.
- Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko hizkuntza guztiak balioestea komunikatzeko eta ikasteko bideak diren neurrian.
- Bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonekin harremana izatea norbera aberasteko bidea dela balioestea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea, bai eta norberarenak ez bezalako kultura-ereduak ere.
- Mezu baztertzaile ororekiko jarrera kritikoa.

### 1.3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

1. Ahozko testu laburrak eta testuinguruan jarriak ulertzea eta interpretatzea, hainbat generotakoak eta hainbat euskarritan, egitura gero eta konplexuagoa eta lexiko arrunta dutenak, argi eta astiro ahoskatuak, ikasleen esperientziatik hurbil dauden eguneroko gai zehatzei buruzkoak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, zentzu orokorra eta ideia nagusiak jasoz, eta proposatutako lanerako informazioa hautatuz, betiere baldintza



**akustikoak onak badira, esandakoa berriro entzun edo baieztapena eska badaiteke, eta irudien edo testuinguruaren babesa badago.**

- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Ahozko testuen ohiko generoak identifikatzen ditu.
  - Testuaren ideia orokorra ulertu, eta bere hitzez adierazten du.
  - Gaia eta igorlearen asmoa ondorioztatu, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusiak bereizten du/ditu.
  - Ideia nagusi batzuk eta garrantziko informazioa identifikatzen du, ikusitakoaren edo entzundakoaren laguntzaz.
  - Entzungaiari buruzko informazio zehatza eta garrantzitsua erauzten du.
  - Ganoraz erabiltzen ditu informazioa erregistratzeko baliabideak: fitxak, eskemak, taulak, informazio-hutsuneak, kontzeptu-mapak...
  - Hipotesiak formulatu eta ondorioak ateratzen ditu gaiari, testuinguruari edo esanahiei buruz, eta horretarako erabiltzen du irudien laguntza, hitzekoa ez den laguntza, hizkuntza-elementu esanguratsuak, eta gaiaz edo egoeraz lehendik dakiena.
  - Eguneroko egoerei buruzko eta gai arruntei buruzko esamoldeak eta lexikoa ezagutzen ditu.
  - Ahozko testuak ulertzeko orduan agertzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.
  - Modu aktiboan eta errespetuz entzun, eta galdera egokiak egiten ditu.
- 2. Ahozko testu laburrak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, gai akademiko nahiz interes pertsonalei buruzkoak, hainbat euskarritan, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Gai ezagunei buruzko ahozko testu laburrak, argiak eta aurrez landuak sortzen ditu, gidoi bati jarraituz eta ereduaren laguntzaz.
  - Ahozko testuaren edukia planifikatzen du, gero eta autonomia handiagoz, komunikazio-egoeraren arabera: hartzailea, testuaren helburua, genero egokia, euskarria...
  - Ohar, eskema, gidoi eta abarren bidez planifikatzen du ahozko testuen edukia.
  - Gero eta autonomia handiagoz bilatu eta hautatzen du informazioa, iturri analogiko, ikus-entzunezko nahiz digitaletan.
  - Modu logikoan antolatzen du informazioa eta egituratzen du testua, komunikazio asmoa aintzat hartuz, eta testu-antolatzaile egokienak erabiliz.
  - Zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren, zeregina edo mezua egokitzen du.
  - Ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiltzen ditu bere ahozko lanetan, ganoraz.
  - Ikasgelan aurrez landutako esamoldeak, egiturak eta lexikoa erabiltzen ditu.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain zuzen, arin eta ahoskera egokiz hitz egiten du (nahiz eta batzuetan etenaldiak edo zalantzak egon, eta solaskideak eskatu esandakoa errepikatzeke), eta kontuan hartzen ditu egokitasuna, kortesia-arauak, doinua, keinuak eta gorputzaren jarrera.

- Aurrez landutako konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu bere diskurtsoa ulergarriago egiteko: sinonimoak, laguntza eskatzea, gorputz-hizkuntza egokia...
  - Ebaluazio- eta zuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu norberaren eta inoren ahozko lanak hobetzeko.
- 3. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, komunikazio-trukearen arauak errespetatuz, modu gutxi-asko autonomoan.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Modu espontaneoan parte hartu, bere ikuspuntu bat modu xumean aurkeztu, eta ideiak nahiz informazioa trukatzeko.
  - Planifikatutako harremanetan parte hartzen du: elkarrizketak, role-plays...
  - Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, modu gutxi-asko autonomoan eta eztabaida nahiz negoziazioa erabiliz, bere burua espresatzeko, taldea eta zeregina kudeatzeko, iritziak kontrastatzeko eta erabakiak hartzeko.
  - Elkarrizketa hasi, mantendu nahiz amaitzeko estrategia nagusiak erabiltzen ditu.
  - Hizketako txandak eta kortesia-arauak errespetatzen ditu.
  - Arretaz entzun eta solaskidearen hitzetara egokitzen du bere jarduna, galdera soilak eginez eta erantzunez, eta iruzkin egokiak eginez.
  - Lexiko, esamolde nahiz esaldi soilak eta arruntak erabiltzen ditu, oinarriko lokailuak dituztenak, komunikazio-truke laburretan moldatu ahal izateko.
  - Komunikazioa bermatzeko bezain argi hitz egiten du.
  - Ulertzen saiatzen da, bai eta bere burua ulertzera ematen ere.
  - Estereotipo baztertzailerik oro saihesten du.
- 4. Modu kritikoan ulertzea eta interpretatzea idatzizko testu soilak, laburrak edo ez oso luzeak, ongi egituratuak eta lexiko arruntekoak, aurrez landutako generoetakoak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, eta zentzu orokorrari, ideia nagusiei eta bigarren mailako ideia batzuei igartzea.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Bere mailaren arabera luzera duten testuak irakurtzen ditu, gero eta autonomia handiagoz, hainbat euskarritan eta hainbat helbururekin.
  - Testuaren generoa ezagutzen du.
  - Igorlearen asmoaz ohartzen da testuinguruko elementu esplizituengatik, eta testuko komunikazio-funtzio nagusia/nagusiak bereizten du/ditu.
  - Gai nagusia identifikatu, zentzu orokorrari igarri, eta ideia nagusiak eta bigarren mailako batzuk bereizten ditu.
  - Denetariko antolatzaile grafikoak erabiltzen ditu ideiak antolatzeko, bai eta informazioaren erlazioa eta hierarkia erakusteko ere.
  - Ondorioak ateratzeko eta hipotesiak formulatzeko erabiltzen ditu testuinguruko irudiak (ikonoak, ortotipografia...), hizkuntza-elementu esanguratsuak eta gaiak edo egoeraz lehenik dakiena, eta egiaztatzen ditu.
  - Eguneroko gaiei buruz, gai orokorreari buruz edo intereseko gaiei buruz aurrez landutako esamoldeak eta lexikoa ezagutzen ditu.

- Norberaren ulermen-arazoak identifikatu, eta haiek konpontzeko eta hipotesiak berresteko estrategiak erabiltzen ditu: hitz eta esamolde ezezagunen esanahia ondorioztatzea, eta paperean nahiz digitalean dauden kontsulta-iturriak erabiltzea.
  - Informazioa eta iritzia bereizten ditu.
  - Informazioaren balioa eta sinesgarritasuna aztertzen du, gero eta autonomia handiagoz, lehendik dakienean oinarrituta.
  - Beste hizkuntzetandakiena erabiltzen du ulermena hobetzeko.
  - Iritzia eman eta modu soilean justifikatzen du, lehendik dakiena eta testuko informazioa erabiliz.
  - Gizarte-, arraza-, sexu- edo kultura-bazterketa adierazten duten irudiak nahiz edukiak identifikatu, eta ez erabiltzen saiatzen da.
- 5. Garrantziko informazio espezifikoak aurkitzea eta hautatzea, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Badaki zein den irakurketaren helburua, eta haren araberrako estrategiak erabiltzen ditu: skimming, scanning...
  - Informazio-iturri analogiko nahiz digitalik egokienak erabiltzen ditu, modu gutxi-asko autonomoan, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.
  - Hitzeko eta ez-hitzeko elementuak erabiltzen ditu, modu gutxi-asko autonomoan, informazioa aurkitzeko; adibidez, irudiak, testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...
  - Irakurgaiaren araberrako informazioa hautatu, eta emandako baliabideak erabiliz jasotzen du: taulak, galdera-sortak, antolatzaile grafikoak...
- 6. Idatzizko testuak sortzea, soilak, laburrak edo ez oso luzeak eta ongi egituratuak, alde zurretik egindako plangintza bati jarraituz eta modu gutxi-asko autonomoan, hainbat euskarri eta generotakoak, ikasgelako ohiko jarduerekin lotuak, gai akademiko nahiz pertsonalei buruzkoak, lagunduta, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Bere adinaren, interesen eta konpetentzia-mailaren araberrako testuak idatzen saiatzen da.
  - Idatzizko testu soil eta laburrak sortzen ditu, modu gutxi-asko autonomoan eta lagunduta, paperean nahiz digitalean.
  - Bere idazlanak egokitu egiten ditu komunikazio-egoeraren ezaugarri nagusietara: hartzaila, testuaren helburua, euskarria, generoa...
  - Testua planifikatu, idatzi eta berrikusten du, modu sistematikoan.
  - Helburuaren araberrako informazioa bilatu, hautatu eta prozesatzen du, modu gutxi-asko autonomoan eta hainbat iturritan.
  - Aurrez landutako generoen ezaugarri nagusiak aplikatzen ditu, modu gutxi-asko autonomoan.
  - Zeregina edo mezua egokitzen du, modu gutxi-asko autonomoan, zailtasunak eta eskura dauden baliabideak neurtu ondoren.

- Ikasgelan landutako lexikoa, esamoldeak eta hizkuntza-egiturak egoki erabiltzen ditu.
  - Hizkuntza-elementurik ohikoenak erabiltzen ditu ideien barne-kohesiorako: erreferentzia mantentzea, lokailuak eta puntuazio-markak.
  - Norberaren eta inoren testuak berrikusteko nahiz hobetzeko ebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
  - IKTak erabiltzen ditu informazioa bilatu, idazlanak egin, informazioa zabaldu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.
  - Testuak argi, garbi eta txukun aurkezten ditu.
  - Esamolde eta irudi baztertzaila oro saihesten du bere idazlanetan.
- 7. Literatura gozamen- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidetzat, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitzat.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Ahozko, idatzizko edo ikus-entzunezko testu moldatuak irakurri edo entzuten ditu, hainbat generotakoak, eta haiek hautatzeko irizpide pertsonalak adierazten ditu.
  - Liburutegia, mediateka eta Internet erabiltzen ditu.
  - Testuari buruzko bere iritzia ematen du, ahoz nahiz idatziz, modu soilean, hainbat euskarri erabiliz.
  - Literatura-testuari buruzko gogoeta partekatu eta lagunduetan parte hartzen du, sentipenak, pentsamenduak eta balio kolektiboak transmititzeko.
  - Parte-hartze aktiboa du testuak dramatizatzen, birsortzen eta errezitatzen, erritmoa, ahoskera nahiz intonazioa zainduz, eta eszenaratzeko estrategia soilak erabiliz.
  - Literatura asmoko testu laburrak edo ez oso luzeak sortzen ditu, alde zuzenetik egindako plangintza bati jarraituz, gogoeta eginez, ereduak aztertuz, eta irakurketetan ikasitakoa erabiliz.
- 8. Atzerriko lehen hizkuntzan eta beste hizkuntzetan eskuratutako ezaguerak eta estrategiak erabiltzea, modu gutxi-asko autonomoan, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik, bai eta testuak idazteko eta, lagunduta, berrikusteko ere.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Hizkuntza-alderdiei buruz eta testu-tipologiari buruz beste hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzen du atzerriko hizkuntzaren ulermena eta idazmena hobetzeko.
  - Gai akademikoei eta egunerokoei buruzko lexiko oso arrunta identifikatu eta erabiltzen du.
  - Hainbat komunikazio-egoeratako esamoldeak erabiltzen ditu: kortesia, akordioa, eskaera, betebeharra...
  - Ahozko nahiz idatzizko bere lanei zuzentasuna, koherentzia eta kohesioa emate aldera, aurrez landutako hizkuntza-elementuak egoki erabiltzen ditu: ortografia- eta puntuazio-arauak, lokailuak...
  - Dakizkien hizkuntzetako kategoria gramatikalak, esamoldeak eta hitzak konparatzen ditu haien artean.
  - Emandako eredu batzuen antzeko ahoskera, erritmoa, intonazioa eta azentuazioa erabiltzen du, modu argi eta ulergarrian.

- Idazlan bat egiteko orduan, zalantzak argitzeko tresnak erabiltzen ditu (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), modu gutxi-asko autonomoan.
  - Hizkuntzaren plano bateko eta besteko akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen ditu, jarraibideak emanda, norberaren eta inoren testuetan.
  - Bere erreperatorioko hizkuntzen arteko transferentzia negatiborik ohikoenak identifikatu eta zuzentzen ditu.
  - Inoren ekarpenak balioetsi, eta kontuan hartzen ditu.
  - Norberaren lan pertsonalaz arduratu, eta antolatu egiten du.
  - Norberaren aurrerapenak balioetsi, eta hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.
- 9. Atzerriko hizkuntza erabiltzea hizkuntza nahiz kultura desberdineko pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat, bai eta ikaskuntza-baliabidetzat ere.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu.
  - Atzerriko hizkuntzako komunikazio-trukeetan parte hartzen du, modu aktiboan eta errespetuz.
  - Egoki erabiltzen ditu gizarte-harremanetako arau nagusiak: kortesia-arauak, erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza...
  - Atzerriko hizkuntza erabiltzen du harreman pertsonalak finkatzeko eta proiektutan laguntzeko, ahozko nahiz idatzizko harremanetan teknologia berriak erabiliz.
  - Atzerriko hizkuntza erabiltzen du ikasteko tresnatzat, eta denetariko informazio-iturriak eskuratzeko bidetzat.
  - Atzerriko hizkuntza ikasi, eta hartan komunikatzeko interesa dauka.
  - Jatorri eta kultura desberdineko pertsonekin komunikatzeko orduan, eleaniztun izatearen garrantziaz ohartzen da.
  - Inguruko hizkuntza aniztasunaz ohartu, eta modu positiboan balioesten du.
  - Estereotipo baztertzailerik saihesten du.
  - Ikasgelan eta kanpoan sortutako ikaskuntza-aukerez baliatzeko interesa dauka.
- 10. Beste kultura batzuetako elementu sozial, linguistiko nahiz kulturalak identifikatu, errespetatu eta ezagutzeko interesa izatea, eta bere kulturarekin erlazionatzea.**
- Ikaskuntzaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu
  - Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.
  - European gaur egun dagoen hizkuntza-errealitatea ezagutzen du.
  - Atzerriko hizkuntza egiten den testuinguru soziokultural eta geografikoaren ezaugarri batzuk ezagutzen ditu.
  - Atzerriko hizkuntzak munduan duen egoerari buruzko datu orokor batzuk aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo lingua franca).
  - Norberaren kulturakoak bezalakoak ez diren balioen nahiz ohituren aurrean interesa eta errespetua dauka.
  - Inguruko eleaniztasunaren nahiz kultura-aniztasunaren aurrean interesa eta jarrera ona dauka.

## 1.4. LATINA

### 1.4.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira Latina ikasgaiko etapako helburuak:

1. Latinez idatzitako esaldi eta testu soilak ulertzea eta itzultzea, Erroma klasikoko errealtate soziokulturalaren berri jakin eta interpretatzeko.
2. Latindar jatorriko lexiko arrunt eta landua jakitea balioestea, hitzen etimologia identifikatuz eta haien esanahia antzemanaz, irakurmena, mintzamina eta idazmina hobetzeko.
3. Latinaren elementu fonetiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoez gogoeta egitea, eta elementu horiek guztiak ikasleek dakizkiten hizkuntzekin lotzea, hizkuntzaren mekanismoak hobeto ezagutzeko eta ondo erabiltzeko.
4. Norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza kondizioa nolakoak diren ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko, latinezko testuak irakurriz, iruzkinduz eta interpretatuz literatura-ondareaz gozatzea, eta ondare horrek informazio-iturri gisa duen garrantzia balioestea.
5. Hizkuntza erromanikoen jatorria eta bilakaera zein den jakitea, eta hizkuntza horien ezaugarri komun eta bereizgarriez gogoeta egitea, hizkuntza-aniztasunak den-denon kultura-ondarea aberasten duela aintzat hartuz.
6. Latindar zibilizazioak utzi digun kultura-, hizkuntza-, literatura-, historia- eta gizarte-ondarea balioestea eta errespetatzea, ondare hori gozamen-iturritzat hartzea, eta garapen individual nahiz kolektiboaren aldeko baliabide gisa erabiltzea, geure burua eta bizi garen gizarte plurala hobeto ulertzeko.
7. Informazio- eta komunikazio-teknologiak modu autonomo eta kritikoa erabiltzea, informazioa lortu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko.

### 1.4.2. EDUKIAK

#### 1.4.2.1. Multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den 1. multzoan datoz oinarrizko zehar-konpetentziak garatzeko behar diren eduki guztiak, arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu beharrekoak.

Ikasgai honen garapenean, 2. multzoko ("Latinaren historia eta bilakaera"), 3. multzoko ("Latinaren sistema linguistikoa") eta 4. multzoko ("Hitzen osaera. Lexikoaren sistema") eduki linguistikoak dira muin eta ardatz nagusiak, latina izan baita mundu klasikoak Mendebaldeko zibilizazioari egindako ekarpenik garrantzitsuena.

2. multzoko ("Latinaren historia eta bilakaera") edukiek gako ugari emango dizkiete ikasleei, eta, hala, latina sortu zenetik gaztelania eta gainerako hizkuntza erromanikoak sortu arteko historian zehar latinak izandako bilakaera linguistikoaz eta aldaketa fonetiko eta semantikoez jabetuko dira ikasleak.

3. multzoak ("Latinaren sistema linguistikoa") oinarrizko gramatika-egiturekin lotutako edukiak uztartzen ditu. Latina hizkuntza flexiboa da, eta horrek aukera emango digu, hura gure

inguruko hizkuntzekin alderatuta, gaztelaniaren eta euskararen (hizkuntza flexiboa hori ere) elementu formalei eta mekanismo sintaktikoei buruz sakon hausnartzeko. Hala, latina baliabide aparta da bai gaztelania, bai euskara eta bai beste hizkuntza moderno batzuk hobeto ezagutu eta erabiltzeko.

Horretarako, latinezko testua –originala nahiz moldatua– funtsezkoa da alderdi linguistikoa aztertzeko; eta, hain zuzen, horrexek emango digu aukera antzinako Erromaren ondare historiko, literario eta kultural oparoaren berri sakon eta zabal jakiteko.

4. multzoak ("Hitzen osaera. Lexikoaren sistema") latindar jatorriko hitz arrunt nahiz landuen etimologietan eta hitzak osatzeko prozeduretan sakontzeko aukera emango digu. Era horretan, ikasleek beren lexikoa aberastu, eta ahozko nahiz idatzizko ulermena hobetuko dute.

5. multzoak ("Erroma: historia, kultura eta zibilizazioa") antzinako Erromaren historia, gizartea eta kultura lantzen ditu, batez ere gaurdaino bizirik iraun duten eta Europaren osaerarako ardatz gertatu diren gertaerak, instituzioak, artelanak, bizimoduak eta abar, horietan oinarritzen baita Europaren eraketa eta aurrerabidea. Gaur egungo mundua mundu klasikoarekin alderatu, eta modu kritikoan aztertzen dira gurean bizirik dirauten elementu klasikoak.

Izan ere, Erroma Klasikoa sakon aztertzea nahitaezkoa da Euskal Herriko eta Europako errealtate historiko, sozial eta kulturala zertan den ulertuko badugu.

Ikasgai honetako eduki guztiak, nola linguistikoak hala kulturalak, elkarren osagarri dira, eta "ondare klasiko" deritzon horren parte. Lau multzo hauetako edukiak modu espezifikoan landu behar dira eta, gainera, testuinguru orokorrako batean jarri behar dira, elementu guzti-guztiak elkarri loturik eta modu koherentean esplikatu ahal izateko.

### 1.4.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztien oinarritzko zehar-kompetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.

- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Latinaren historia eta bilakaera

- Latinaren jatorria azaltzea.
- Hizkuntza indoeuroparrak sailkatzea.
- Latin arrunta eta latin landua bereiztea, bai eta ahozko hizkuntza eta idatzizko hizkuntza ere.
- Hizkuntza erromantzeen sorrera- eta bilakaera-prozesuak aztertzea.
- Latinak euskararen bilakaeran izan duen eragina identifikatzeko jarraibideak.
- Latinetik gaztelaniarako bilakaera fonetikoaren arau nagusiak erabiltzea.
- Ondare-hitzak eta kultismoak bereiztea.
- Latindar erro bera eta bilakaera fonetiko desberdina izan duten hitzen arteko harreman semantikoa bilatzea.
- Latinezko testuak irakurtzea eta hitz gardenak ezagutzea.
- Bilakaera fonetikoaren arauak.
- Europako hizkuntza nagusiak latinetik datozela ohartzea.
- Hizkuntza guztiak errespetatzea, eta hizkuntza bakoitzeko hiztunen kultura desberdinak onartzea.

## 3. MULTZOA. Latinaren sistema

- Historian zehar egondako idazketa-sistemak identifikatzea.
- Aztertutako hizkuntzetan eta Europako beste zenbait hizkuntzatan latindar alfabetoa erabiltzen dela ohartzea.
- Latinaren eta euskararen zenbait hizkuntza-prozedura berdinak direla ohartzea; adibidez, deklinabidea.
- Latinean hizkuntzari buruz ikasitakoa erabiltzea ikasleak dakizkien hizkuntza erromantzeei buruz gogoeta egoteko.
- Kategoria gramatikal nagusiak ezagutzea (substantiboak, adjektiboak, aditzak), bai eta haien akzidenteak eta funtzioa ere.
- Latindar izen-formak ezagutzea esaldi edo testuetan, eta haien kasuez ohartzea.



- Latindar izen-formak ezagutzea esaldi edo testuetan, eta haien akzidente gramatikalez ohartzea.
- Latindar esaldi edo testuen egitura sintaktiko nagusiak identifikatzea (subjektua, predikatua, aditz-osagarriak).
- Latinaren kasuak ezagutzea, eta haien balio sintaktiko nagusiak identifikatzea.
- Latinezko esaldi soilak sortzea, aurrez ikasitako egitura morfologikoak eta sintaktikoak zuzen erabiliz.
- Aurrez ikasitako egitura morfologikoak eta sintaktikoak aplikatzea esaldi edo testu soilak itzultzeko.
- Itzulitako esaldiak edo testuak ulertzea eta interpretatzea.
- Latinaren ahoskera- eta azentuazio-arauak.
- Hitz motak.
- Izen-flexioa: substantiboen eta adjektiboen deklinabidea.
- Aditz-flexioa: aditz erregularren jokoak, boz aktiboan nahiz pasiboan.
- Aditzaren izen-formak: orainaldiko infinitibo aktiboa eta partizipio burutua.
- Komunztadura.
- Perpaus bakuna: motak.
- Perpaus konposatua: koordinazioa. Juntagailurik ohikoenak.
- Latina ikasteko interesa, beste hizkuntzetako ezaguera gramatikalak sendotzeko.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren parte direla onartzea, eta haiek gainditzeko jarrera positiboa.
- Hizkuntzari buruz gogoeta eginda norberaren lanak erregulatzen direla ohartzea, bai eta autonomia handiagoz ikasten dela ere.

#### 4. MULTZOA. Hitzen osaera. Lexikoaren sistema

- Latindar jatorriko lexemak, atzizkiak eta aurrizkiak identifikatzea gaztelaniaz idatzitako testuetan.
- Latindar jatorriko lexemak identifikatzea euskaraz idatzitako testuetan.
- Zenbait hitzen esanahia identifikatzea, haien etimoetan oinarrituta.
- Latinaren osatze- eta eratortze-prozedurak aplikatzea hitz-familiak sortzeko.
- Latinismoak eta latindar lokuzioak ulertzea eta zuzen erabiltzea norberaren hizkuntzan.
- Latinezko esamoldeak ezagutzea ahozko nahiz idatzizko testuetan, gaztelaniaz nahiz euskaraz.
- Ohiko latinismoak eta latindar lokuzioak zuzen erabiltzea ahozko nahiz idatzizko komunikazioan.
- Ikasgelan hainbat hiztegi erabiltzea (gaztelaniazkoa, euskarazkoa, latinezkoa, etimologikoa, etab.), lagunduta.

- Latinezko oinarrizko hiztegi bat egitea.
- Euskarazko eta hizkuntza ez-erromantzeetako testuak irakurtzea, eta haietan latindar jatorriko hitzak identifikatzea.
- Sarri erabilitako latindar lexemak, aurrizkiak eta atzizkiak.
- Sarri erabilitako latindar lokuzioak.
- Hitzen esanahi etimologikoa jakiteko interesa, eta hiztegia egoki erabiltzearen garrantziaz ohartzea, komunikazioaren oinarrizko tresna den heinean.
- Latinak hizkuntza erromantzei nahiz ez-erromantzei egindako ekarpen lexikoa balioestea, bai eta hark duen garrantzia ere hizkuntza egoki erabiltzeko (ortografia, semantika. etab.).

## 5. MULTZOA. Erroma: historia, kultura eta zibilizazioa

- Erromaren historiari eta kulturari buruzko informazioa eskuratzea, IKTen bidez.
- Koadro, ardatz eta friso kronologikoak egiteko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Erromako antolaketa politikoaren eta sozialaren ezaugarriak identifikatzea, gaur egungo gure gizartearen ezaugarriekin konparatzea eta haien erreferenteak interpretatzea, gure ikuspuntu soziokulturaletik.
- Latindar jainko, mito eta heroi nagusiak sailkatzea eta haien ezaugarriak ematea.
- Mitologia klasikoaren elementuak ezagutzea literaturaren eta artearen agerraldietan.
- Itzulitako testu klasikoak ulertuz irakurtzea eta, haietan, erromatar zibilizazioaren kulturari igartzea.
- Erromako historiaren aldiak: monarkia, errepublika, inperioa.
- Erakunde politiko nagusiak.
- Klase sozialak.
- Erromatar familia.
- Latindar mitologia: jainko, heroi eta mito nagusiak.
- Erromako historia eta antolaketa politiko eta soziala ezagutzeko interesa, egungo gizarteko historiaren eta kulturaren funtsa den heinean.
- Kultura klasikoko erakunde, sinesmen eta bizimoduen balioespen kritikoa, gaur egungo ikuspuntu soziokulturaletik begiratuta.
- Bazterketa mota oro baztertzea.

### 1.4.2.3. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

## 2. MULTZOA. Latinaren historia eta bilakaera

- Hizkuntzen sailkapena: indoeuroparrak eta ez-indoeuroparrak.
- Erromatarrek Euskal Herrian: latina eta euskara (toponimia eta maileguak).

- Arditurriko meategia, Oiasso erromatar museoa eta Iruña Veleia.
- Euskal Herria eta inguruneko hizkuntza erromanikoak.
- Donemiliaga Kukullako glosak.

### 3. MULTZOA. Latinaren sistema

- Latina eta euskararen arteko berdintasunak hizkuntzan: deklinabidea.
- Latinak euskararen bilakaeran izan duen eragina.

### 4. MULTZOA. Hitzen osaera. Lexikoaren sistema

- Latindar sistemaren hitzak euskaraz idatzitako testuetan.
- Latinak euskarari egindako ekarpena lexikoan.

## 1.4.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

### 1. Esaldi nahiz testu labur eta mailakatuak aztertu, itzuli eta iruzkintzea, eta esaldi soilak sortzea erretrobertsioaren bitartez, latinaren egiturak erabiliz.

- Latinaren egitura morfologiko eta sintaktiko nagusiak identifikatuz aztertzen ditu esaldiak edo testuak.
- Esaldi eta testu labur eta soilen azterketa morfosintaktikoak egiten ditu, haiek ulertzeko eta zuzen itzultzeko.
- Itzulitako testua iruzkintzen du: gaiari igarri, ideia nagusia identifikatu, etab.
- Testu soilak oro har ulertzeko ondorioztatze-tresnak erabiltzen ditu.
- Esaldi eta testu laburrak itzultzen ditu, eta azterketaren eta bertsioaren arteko parekotasuna azaltzen du.
- Itzultzeko orduan, hitz eta hizkera zuzena erabiltzen du.
- Latinera itzultzen ditu perpau soilak.
- Esaldi labur eta soilak idazten ditu latinez, latinaren egiturak eta esaldiaren ordena zuzen erabiliz.

### 2. Hitz garden, latinismo eta latindar lokuzio arruntak bereiztea ikasleek dakizkiten hizkuntzetan, eta haien esanahia azaltzea.

- Latinezko testuak irakurri eta hitz gardenak itzultzen ditu, dakizkien hizkuntzetako lexikoa erabiliz.
- Latindar jatorriko hitzak identifikatzen ditu, euskaraz eta beste hizkuntza ez-erromantze batzuetan idatzitako testu prestatuetan.
- Latinezko hitz arruntak identifikatu eta azaltzen ditu.
- Egunero erabiltzen ditugun hitzak definitzen ditu etimologiaren ikuspuntutik.
- Latindar jatorriko aurrizki eta atzizki nagusiak identifikatzen ditu bere hizkuntzako lexikoan, haien esanahia ezagutu eta bere hizkuntzara itzultzen ditu.
- Hizkuntza modernoetan txertatutako latinezko esaera arruntak ezagutu eta ulertzen ditu.

- Hizkuntza modernoetan txertatutako latinezko esaeren esanahia azaltzen du, testuinguruaren arabera edo ez.
  - Ahozko nahiz idatzizko lanak egiteko orduan, zuzen erabiltzen ditu latinismoak eta latinezko lokuzioak.
  - Latinezko hiztegi arrunt bat egiten du, bere hiztegia aberasteko eta mintzamina eta idazmina hobetzeko.
  - Hitzen esanahi zehatza ezagutzeko interesa dauka.
- 3. Bilakaera fonetikoaren mekanismoak aplikatzea latindar etimoei, eta lotura semantikoa ezartzea ondare-hitz baten eta kultismo baten artean.**
- Bilakaera fonetikoaren arau nagusiak ezagutu eta aplikatzen ditu.
  - Latinezko hitzek gaztelaniazko formara arte izan duten bilakaera fonetikoaz azaltzen du.
  - Latinezko hitz batzuek euskarazko formara arte izan duten bilakaera fonetikoaz azaltzen du.
  - Ondare-hitzak eta kultismoak bereizten ditu.
  - Latindar etimoetatik sortutako ondare-hitzak eta kultismoak azaltzen ditu.
  - Jatorri etimologiko bera duten hitzen esanahi desberdinak aztertu eta azaltzen ditu.
  - Aurrez ikasitako ondare-hitzak eta kultismoak zuzen erabilia dauden esaldiak egiten ditu.
- 4. Idazketa-sistemen artean alfabetoa bereiztea, eta hizkuntza modernoan alfabetoaren jatorria ezagutzeta.**
- Historian zehar egondako idazketa motak identifikatzen ditu.
  - Haien izaeraren eta funtzioaren arabera sailkatzen ditu.
  - Haien bereizgarriak azaltzen ditu.
  - Latindar alfabetoak hizkuntza moderno askoren alfabetoan izandako eragina azaltzen du, eta haietako bakoitzean gertatutako moldaera nagusiak adierazten ditu.
- 5. Latinezko ahoskeraren arau nagusiak ezagutu eta aplikatzea.**
- Ozen eta ahoskera egokiz irakurtzen ditu latinezko testuak.
- 6. Gaztelaniazko hitzen osagaiak ezagutzeta, identifikatzea eta bereiztea.**
- Emandako hitzen latindar erro, aurrizki eta atzizki nagusiak identifikatu, eta badaki haien esanahia.
  - Hitzen osagaiak banatzen ditu, lexemak eta afixuak bereiziz.
  - Osagai berdinak dituzten hitzen adibideak ematen ditu.
- 7. Latinezko hitz motak bereiztea, eta latinezko hitzen osagaiak identifikatzea.**
- Hitzak aldagarriak ala aldaezinak diren bereizten du.
  - Haien ezaugarriak azaltzen ditu.
  - Erroa nahiz hondarkiak identifikatu eta bereizten ditu latinezko hitzetan.
  - *Flexio*, *deklinabide* eta *joko* kontzeptuak bereizi eta azaltzen ditu.

**8. Deklinabide kontzeptua ulertzea, latinezko deklinabideak bereiztea, eta hitzak behar bezala deklinatzea.**

- Substantziak eta adjektiboak enuntziatzen ditu.
- Substantiboak eta adjektiboak bereizten ditu, haien enuntziatuaren arabera.
- Substantiboak eta adjektiboak sailkatzen ditu, haien deklinabidearen arabera.
- Deklinabideak ezagutu, eta haien hondarkiak identifikatzen ditu.
- Behar bezala deklinatzen ditu substantiboak, adjektiboak eta izen-sintagmak, komunztadura kontuan hartuz.

**9. Aditz-flexio kontzeptua ulertzea, aditz-jokoak bereiztea, eta aditzak behar bezala jokatzea.**

- Aditz erregularren enuntziatuko osagaiak identifikatzen ditu.
- Latindar aditz-jokoak ezagutzen ditu, aditzen enuntziatuan oinarrituta.
- Jokoaren arabera sailkatzen ditu aditzak, haien enuntziatuaren bidez.
- Aditz-jokorik arruntenak jokatu, boz aktiboan nahiz pasiboan, eta itzuli egiten ditu.
- Aditz-formak bozez aldatzen ditu.
- Latinezko aditz-formak gaztelaniara itzultzen ditu.

**10. Latinezko hitzen eta deklinabide-kasuen funtzioak ezagutzea.**

- Esaldi edo testu batean hitzen kategoria gramatikala ezagutu, eta haren funtzioa azaltzen du.
- Latinezko izen-flexioaren kasuak bereizi, eta haien funtzioak azaltzen ditu.
- Deklinabide-kasuak gaztelaniara itzultzen ditu.

**11. Perpaus motak ezagutzea: bakunak eta konposatuak.**

- Perpaus bakunak eta konposatuak bereizten ditu.
- Perpaus bakunak identifikatu, eta haien ezaugarrien arabera bereizten ditu.
- Perpaus konposatuak identifikatu, eta haien ezaugarrien arabera bereizten ditu.

**12. Infinitibo kontzertatuzko perpausak eta partizipio burutu kontzertatuzko perpausak identifikatzea.**

- Infinitibo kontzertatuak ezagutzen ditu esaldi edo testu soiletan.
- Aztertu eta zuzen itzultzen ditu.
- Partizipio burutu kontzertatuak ezagutzen ditu esaldi edo testu soiletan.
- Aztertu eta zuzen itzultzen ditu.

**13. Latindar idazle klasikoen testu itzuliak ulertzea, eta testuotan ageri diren alderdi historiko eta kulturei buruzko iruzkinak egitea.**

- Testuaren zentzu orokorra ulertu eta ahoz edo idatziz laburtzen du, hiztegi eta esamolde egokien bidez.
- Ideia nagusia eta bigarren mailakoak bereizten ditu, kontzeptu-mapa, eskema eta abarren laguntzaz.

- Aztertu eta iruzkindu egiten ditu, modu kritikoan, testuko erreferentzia historikoak, sozialak, politikoak edo erlijiosoak.
- Aurrez ikasitako pertsonaiak eta gertakariak ezagutzen ditu.
- Gure gizartekoekin konparatzen ditu erromatar gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak, eta haien balioespen kritikoa egiten du.
- Irakurtzeko jarrera positiboa dauka.

#### **14. Espainian hitz egiten diren hizkuntzen jatorria ezagutzea.**

- Jatorriaren arabera identifikatu eta sailkatzen ditu Espainian hitz egiten diren hizkuntzak.
- Espainiaren mapa batean kokatu eta mugatzen ditu hizkuntza erromantze eta ez-erromantze nagusien eremuak.
- Latindar jatorriko hitzak konparatzen ditu Espainiako hizkuntza erromantzeetan, eta antzekotasunez eta desberdintasunez ohartzen da.
- Espainiako hizkuntzetako hitzen esanahia ondorioztatzen du, latindar etimoen bidez.
- Latinak euskaran izandako eragina frogatzen du, adibideen bidez.
- Hizkuntza erromantzeen beren arteko ahaidetasuna frogatzen duten hizkuntza-elementuak aurkitu eta aztertzen ditu, jatorri beraren seinale argi moduan.

#### **15. IKTen bidez informazioa bilatzea eta tratatzea, modu autonomo eta kritikoan, eskolako jardueri erantzuteko.**

- Zibilizazio klasikoak gure kulturari izandako jarraipenari buruzko ikerlanak egiteko informazioa eskuratzen du, besteak beste IKTak erabiliz. Lortutako informazioa kontrastatu, hautatu eta antolatzen du.
- Informazioa laburtu eta birlantzen du.
- Ondorioak ateratzen ditu.
- Modu ordenatuan eta koherentean aurkezten du informazioa, ahoz nahiz idatziz, batez ere IKTak erabiliz.

#### **16. Latindar mitologiako jainko, mito eta heroi nagusiak ezagutzea, eta antzinako mito nahiz heroiaren eta gaur egungoen arteko antzekotasun eta desberdintasunei igartzea.**

- Erromatar panteoiko jainko nagusiak ezagutzen ditu.
- Latindar mitologiako jainko eta heroi nagusien izen grekoa eta latindarra ezagutzen du.
- Latindar jainko eta heroi nagusien ezaugarriak, atributuak eta eragin-eremua identifikatzen du.
- Jainko nagusien koadro genealogikoa egin, eta haien arteko ahaidetasuna edo harremanak ezartzen ditu.
- Zenbait mitoren elementu nagusiak identifikatu, haien esanahia interpretatu, eta haiek artean, literaturan eta zineman izandako eragina ezagutzen du.
- Heroi klasikoaren eta egungoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak finkatzen ditu.
- Mitoak eta heroi klasikoaren irudiak gure kulturari izandako jarraipena eta eragina ezagutu, eta adibideak ematen ditu.

- Desberdintasunak eta antzekotasunak finkatzen ditu mito eta heroi klasikoek jasotzen zuten trataeraren eta gaur egungoek jasotzen dutenaren artean.

#### **17. Erromako sorreraren eta bilakaeraren marko historikoa identifikatzea eta deskribatzea.**

- Zehatz bereizten ditu Erromaren aldi historikoak.
- Aldi historiko bakoitzaren ezaugarriak azaltzen ditu, bai eta batetik bestera igarotzeko gorabeherak ere.
- Latindar zibilizazioaren mugarri historikoak beren aldian kokatu, testuinguruan ipini, eta gorabehera garaikideekin lotzen ditu.
- Haiak deskribatu, eta haien arrazoiak eta ondorioak identifikatzen ditu.
- Zenbait mugarri historiko garrantzitsu irudikatzen dituzten ardatz kronologikoak egiten ditu, denetarikoinformazio-iturriak kontsultatuz.

#### **18. Erromaren oinarrizko antolaera politiko eta soziala ezagutzea.**

- Erroman egondako gobernu-sistema nagusiak adierazten ditu.
- Deskribatu eta konparatu egiten du boterea nola banatzen zen haietako bakoitzean, erakunde politiko nagusiak zein ziren eta zer zeregin zuten, eta zein ziren politikan parte hartzeko mekanismoak.
- Antzinako Erromako eta egungo gobernu moduak konparatzen ditu.
- Greziako eta Erromako klase sozialak identifikatzen ditu.
- Haietako bakoitzaren ezaugarriak eta zeregin nagusiak azaltzen ditu.
- Klase sozialak garai hartako balio sozialekin lotu, eta egungoekin konparatzen ditu.
- Modu kritikoan aztertzen ditu jaiotza, arraza, sexu eta abarren arabera egungo gizartean dauden desberdintasun sozialak eta aurreiritzi klasistak.

#### **19. Erromatar familien osaera ezagutzea, bai eta kide bakoitzak zuen rola ere.**

- Erromatar familiaren kideak zein ziren adierazten ditu.
- Kide bakoitzak familian zuen zeregina identifikatu eta azaltzen ditu.
- Familia-estereotipo klasikoak azaldu, eta egungoekin konparatzen ditu.
- Antzinako Erromako eta egungo bizimodu eta familia-jarrera arruntak konparatzen ditu.
- Kritikoki balioesten ditu gizonek eta emakumeek latindar zibilizazioan zituzten familia- eta sexu-rol desberdinak.

#### **20. Zenbait ikerketa-lan egitea taldean, latindar zibilizazioak gaur egun duen jarraipenaz.**

- Informazioa bilatzeko ekimen pertsonala erakusten du.
- Iritzi pertsonalak eman, eta argudiatu egiten ditu.
- Inoren iritziak entzun eta errespetatzen ditu.
- Jarrera kritikoa eta gogoetatsua erakusten du bere hizketaldietan.
- Hizketako txandak errespetatzen ditu.
- Arduratsua da, eta laneko bere parte egiten du.
- Akatsak identifikatu eta zuzendu, eta hobetzeko jarrera positiboa erakusten du.
- Egindako lanak berrikusteko nahiz hobetzeko zereginetan parte hartzen du.

## 2. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

### 2.1. MATEMATIKA

#### 2.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Matematikako etapako helburuak hauek dira:

1. Banaka edo taldean, eguneroko bizitzatik ateratako problemak, beste zientzia batzuetakoak edo Matematikakoak planteatzea eta ebaztea, eta zenbait estrategia aukeratzea eta erabiltzea, ebazpen-prozesua justifikatzea, emaitzak interpretatzea eta egoera berrietan aplikatzea, gizarte-ingurunean modu eraginkorragoan jardun ahal izateko.
2. Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza-arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.
3. Natura- eta kultura-inguruneke forma geometrikoak identifikatzea, elementuen, erlazioen eta propietateen ezagutza erabiliz, errealitatea deskribatzeko, eta ezagutza geometrikoak aplikatzea inguruan dugun mundu fisikoa ulertzeko eta analizatzeko, eta hari buruzko problemak ebazteko.
4. Kalkuluak eta iritzirako kalkuluak (zenbakizkoak, metrikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzean prozedura egokienak (buruzko kalkulia, idatzia, kalkulagailua...) erabiliz, bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko, eta emaitzak sistematikoki berrikustea.
5. Beren adinerako egokiak diren eta emaitzak eta ondorioak argi eta garbi eta koherentziaz justifikatzeko eta aurkezteko norberaren pentsamendua adieraztea errazten duten hizkuntza arrunteko eta hizkuntza matematikoko elementuak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak) erabiliz, arrazoitzea eta argudiatzea.
6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (kukulagailuak, ordenagailuak, etab.) behar bezala erabiltzea kalkuluak egiteko, denetariko informazioak bilatzeko, tratatzeko eta adierazteko, bai eta Matematika ikasten laguntzeko ere.
7. Matematika kulturaren parte dela balioestea, hura erabiliz gozatzea, Matematikako jardueraren moduen eta jarreraren balioa bereiztea, eta eskuratutako Matematikako konpetentziak aplikatzea, zenbait fenomeno sozial analizatzeko eta balioesteko; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna edo bizikidetzak baketsua.

#### 2.1.2. EDUKIAK

##### 2.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Gizarte-errealitateak, naturalak edo abstraktuak, zenbakien, grafikoan, adierazpen aljebraikoan, erlazio estatistikoan, ausazko fenomenoan eta abarren bidez deskribatzen dituen hizkuntzatzat har dezakegu Matematika.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Matematikaren garapenari dagokionez, komeni da ezaugarri interesgarri batzuen berri ematea:

- Osagai intuitiboa izaten jarraitu arren, hori baita lehen urratsa Matematikako jardueran eduki berri bat dugunean, abstrakzio- eta formalizazio-prozesuei ekin behar zaie, zorrotasun matematikoaren mailalara iritsi gabe.
- Ikasleen esperientzien zenbait eremu erabiltzea Matematikako jardueren iturritzat.
- Ikasleei jakin-mina piztu eta problemak ebazteko konfiantza emango dieten esperientziak eskaintzea.
- Modelo matematikoekin lan egitea, denetariko egoerak ebazteko.
- Kalkulagailu zientifikoa, berariazko softwarea (Matematikako morroiak) eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietako beste baliabide batzuk arrazoiz erabiltzea, zenbait egoera ebazteko. Talde-lanarekin jarraitzea, ikasketaren oinarria delako.
- Problemen ebazpena areagotzea, hizkuntza aljebraikoa erabiliz.
- Ideiak, arrazoiketa, argudioak, etab. jakinarazteko, hizkuntza argia eta egokia izateko beharra bultzatzea.
- Geometriari eta neurriari buruzko kontzeptuak eta prozedurak hobeto ikasten dira esperimendatzeko aukera ematen duten esperientzien bidez eta material jakin batzuen erlazioak aurkituz.
- Informazioaren trataeratik eratorritako edukiak (estatistikoak, datuak, zoria eta probabilitatea) ulertzea mundu errealeko aplikazioetatik etortzen da.
- Matematika ez da topiko isolatuen multzo bat, osotasun integratu bat baizik; horrek esan nahi du eduki multzo guztiak garatu behar ditugula lehen mailatik.

Matematika ikasgaia adierazitako ezaugarriak aintzat hartuta garatu ahal izateko, eduki batzuk aukeratu dira, eta modu jakin batean bildu dira. Horrela, eduki multzoak sortu dira. Bi ikasturteetan, **Eduki Komunen** multzo bat sartu da, bere gain hartzen dituen matematika-ezagutzen zeharkako ardatza eta ardatz egituratzailea dena.

Multzo horretan curriculumeko oinarrizko gai bat aipatzen da berariaz: Problema ebaztea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari buruzko alderdiak eta jarrerazkoak ere agertzen dira. Gainera, arlo eta ikasgai guztiei dagozkien prozedurazko eta jarrerazko edukiak ere sartu dira, zehar-kompetentziekin estuki lotuta daudenak.

**Problema ebaztea** funtsezkoa da, begi bistan dagoenez. Eguneroko bizitzako problemak identifikatzea, datuak eta erlazio garrantzitsuak bereiztea, aieruak egitea, ebazpen zehatz edo hurbilduko estrategiak garatzea, planteatutako aieruak eta lortutako emaitzak aztertzea, eta emaitzak antolatzea eta jakinaraztea Matematikako eremu guztietan aplika daitezkeen prozesu eta eduki komunak dira. Problemen ebazpena aztertzeke erabakiak bi helburu ditu. Lehenik, ikasgelako lanean merezi duen arreta eta denbora eskaintzea: eragiketek, neurriek, kalkuluek, arrazoiketek... problemak ebazteko erabiltzen direnean hartzen dute beren benetako zentzua. Baina eduki bat izateaz gain, problemak ebaztea metodo bat ere bada, eguneroko Matematikako lana ulertzeko modu bat. Ikasgelan giro sortzailea lortzea, elementu garrantzitsutzat informazioaren trataera eta Matematikako eduki berrien aplikazioa eta ikasketa dituzten ikerketak (zenbakizkoak, neurriei buruzkoak, geometrikoak, funtzionalak, probabilitistikoak, etab.) eta proiektuak egitea; lehen mailako matematika-jarduerak, hain zuzen ere.

Gainerako edukiak lau multzo handitan banatu dira: **Zenbakiak eta aljebra; Geometria eta neurria; Funtzioak eta grafikoak; Estatistika eta probabilitatea**. Adierazi beharra dago antolatzeko modu bat baino ez dela. Kontua ez da konpartimentu estanko bat sortzea: multzo guztietan zenbakizko teknikak eta teknika aljebraikoak erabiltzen dira, eta edozeinetan erabilgarria izan daiteke taula bat sortzea, grafiko bat egitea edo ziurgabetasun-egoera probabilitistiko bat piztea. Matematikaren irakaskuntzan edukiak elkarrekin lotzen dituen konfigurazio zikliko hori aintzat hartuko da, eta, hartara, edukiak elkarrekin erlazionatuta egongo dira beti eta batzuen gainean beste batzuk eraiki ahal izango dira. Adierazi beharra dago, beste behin ere, problemak ebaztea multzo guztiak zeharka hartzen dituen ardatz nagusia dela, eta, horregatik, edozein eduki multzotan arreta berezia jarri behar dela eta orduak eman behar direla horretan.

**Zenbakiak eta aljebra** izeneko multzoan, zenbakizko alfabetatze eraginkorra lortzea da helburua, zenbakiak eta erlazioak ageri diren egoerei arrakastaz aurre egiteko ahalmen gisa ulertuta. Konpetentzia eskuratzeko, ez da nahikoa kalkulu idatzizko algoritmoak gainditzea; buruzko kalkuluko eta kalkulu hurbilduko estrategiak ere garatu behar dira, eta zenbakiekin eta kantitateekin konfiantzaz lan egin. Zenbakiak zenbait testuingurutan erabili behar dira, garatutako prozesuen ulermena eta emaitzen esanahia aurretiko edukiak eta lehenetsunekoak direla jakinda; kalkuluko abilezia hutsa baino harago doana. Lehen Hezkuntzan hasitako zenbakizko zentzu horrek jarraipena izan behar du Bigarren Hezkuntzan. Horretarako, zenbakien multzoak zabaltzea behar dira, eta lehenetik ikasitakoak finkatu, zenbakizko adierazpen moduen arteko erlazioak ezarri; zatikien, hamartarren eta ehunekoen artekoak, esate baterako. Zenbait prozedura erabiliz kalkulatzeko abilezia da interesgarria, eta kasu bakoitzean erabaki behar da zein den egokiena. Ikasleek jarrakortasunez kalkulatzeko eta iritzirako kalkuluko arrazoiz egitea da helburua, kontzeptuak ulertzearen eta kalkuluko konpetentziaren arteko oreka lortzeko. Bestalde, prozedura aljebraikoak erabiltzearekin lotutako abilezia eta hizkuntza aljebraikoa garatzean, gero eta sinbolo eta adierazpen gehiago erabili behar dira, pixkanaka, Bigarren Hezkuntzako lehen urtetik azkenera bitartean, eta arreta berezia jarri behar zaio problema bakoitzaren enuntziatuaren irakurketari, sinbolizazioari eta planteamenduari. Edukien ardatz nagusi bat da eta gainerako multzoekin lotura estua du.

**Geometria eta neurriari** buruzko multzoan, geometriarekin eta neurriekin lotutako edukiak aurkezten dira. Geometriak espazioko orientazioarekin eta adierazpenarekin, kokapenarekin, eta espazioko objektuen deskribapenarekin eta ezagutzarekin lotutako edukiak biltzen ditu; bai eta forma lauak eta hiru dimentsioko formen azterketa, eta haien propietate garrantzitsuenak ere. Geometriaren ikasketak aukerak eman behar ditu, behin eta berriz, eraikitzeko, marrazteko, neurtzeko edo sailkatzeko. Horren azterketak aukerak ematen ditu beste eremu batzuekiko erlazioak ezartzeko; esate baterako, naturarekiko edo artearekiko. Geometriako programa informatikoak erabiltzea bereziki interesgarria da, ikasleei irudiekin eta haien elementu bereizgarriekin elkarreragiteko aukera, propietateak analizatzeko aukera, erlazioak aztertzekoa, aieruak egitekoa eta, kasu bakoitzean, gezurtatzeko edo baliozkotzat jotzeko aukera ematen dielako. Jolas-jarduerek objektuen espazioko egoera eta kokapena deskribatzen lagundu diezagukete, erreferentzia-sistemak eta adierazpen-modeloak ezarri. Eguneroko ingurunea kontzeptu geometriko ugariren abstrakzio-maila saihesten duten askotariko egoera fisiko errealak aztertzeko iturri bat da, haien elementuak, propietateak eta abar landuz. Neurriari dagozkion edukiak behar bezala garatu ahal izateko, zenbaki motak, haien arteko eragiketak, hurbilketa-estategiak eta iritzirako kalkulukoak behar bezala jakin eta erabili behar dira. Egoera errealean neurketak egitea lortu beharreko lehenetsuneko helburu bat izango da, eta, horretarako, mota guztietako unitateak erabiliko dira: gorputzekoak (oina, arra, besoa, etab.), arbitrarioak (sokak, lauzak, etab.) eta normalizatuenak, hots, Sistema Metriko Hamartarra eta hartan ezartzen diren erlazioak. Neurriaren eta geometriaren arteko erlazioak zentzua ematen dio multzoari. Zenbakizko edukiarekin eta eduki aljebraikoekin duen

erlazioa oso estua da, eta zeharkako neurketak egiteko aukera ematen du, formulen bidez; distantzien, gainazalen edo bolumenen kalkuluaz ari gara. Neurketa-jarduerek ikasleen eta haien ingurunearen arteko interakzio dinamikoa eska dezakete eta eskatu behar dute. Neurketak mundu errearen miaketa aktiboa izan behar du.

**Funtzioen eta grafikoaren hizkuntza** multzoak erabateko zentzua hartzen du etapa honetan; aldagaien arteko erlazioak eta taulen eta grafikoaren bidezko adierazpena dira ardatz nagusiak. Multzoak modelo matematikoen ikasketan sakontzeko balio digu eta oso erabilgarria da fenomeno ekonomikoak, sozialak edo naturalak deskribatzeko, interpretatzeko, iragartzeko eta azaltzeko. Multzo honetan, erlazio funtzionalen identifikazioa eta analisisa garatuko dugu, haien adierazpen moduetan: ahozkoa, grafikoa, zenbakizkoa (taula formakoa) eta aljebraikoa. Informazioa bereganatzeko eta adierazpen modu batzuetatik beste batzuetara pasatzeko ahalmena garatzea da helburua.

Azterketa egiteko, grafiko mota identifikatzeko aukera ematen duen analisi kuantitatiboa hartu behar da abiapuntu, eta ezaugarri globalak aztertu; ondoren, azterketa kuantitatiboa egin behar da, balio-taulak erabiliz, eta adierazpen aljebraikoak erabili, soilik haren sinpletasunak horretarako aukera ematen badu eta hori erabiltzea oso garrantzitsua bada. Mailaren arabera, gehiago edo gutxiago sakonduko da funtzio mota jakin batean.

**Estatistika eta probabilitatea** oso garrantzitsuak dira gaur egun, komunikabideetan agerpen handia dutelako eta ikasgaietan asko erabiltzen direlako. Horren azterketak gaitasuna emango die ikasleei informazio estatistikoa batzuetan agertzen diren gezurrezko aurkezpenak, interpretazio okerrak eta gehiegikeriak kritikoki aztertzeko. Multzo honetako edukiek benetako esanahia hartzen dute beste ezagutza-arlo batzuekin lotutako jardueretan aurkezten direnean. Mota horretako edukiekin egin beharreko lana pixkanakakoa da. Lehen Hezkuntzan, informazio bildu eta matematikoki lantzeko edukiekin hasi da, eta adierazpen grafikoa bereziki azpimarratzen da; gainera, emaitzak ausazko fenomenoaren lehen hurbilketa egiteko balia daitezke. Ikasleek ezagutzen dituzten zorizko jokoak (partxisa, aurkia eta ifrentzua, dadoak, koloretako bolak, etab.) tresna egokiak izan daitezke ausazko fenomenoetara hurbiltzeko eta haietan sakontzeko. Multzoko edukiak oso egokiak dira talde-lana bultzatzeko eta zentzu kritikoa garatzeko. Bigarren Hezkuntzan, eduki estatistikoa izenekoak landu behar dira, parametroen esanahiak ulertzeko. Kalkulagailuak, ordenagailuak eta kalkulu-orria erabiltzea funtsezkoa da, informazioa antolatze eta lortzeko prozesua errazten duelako. Gainera, datu kantitate handiak erabil daitezke, eta kalkuluko denbora eta ahalegin handiak aurrezten dira, eta ahalegin horiek galderak egiteko, ideiak ulertzeko eta txostenak idazteko erabil daitezke.

Probabilitatearen eremuan, bereziki interesgarria da ikasleek zorizko gertaerei buruzko eta gertaera horiei probabilitate-balioak esleitzeari buruzko intuizio sendoak izatea. Helburu hori lortzeko, Lehen Hezkuntzako lehen urteetan, ausazko fenomeno sinpleen azterketaren hurbilketa natural bat egin nahi da, esperimentazioaren eta tratamenduaren bidez. Ondoren, ausazko gertaeren probabilitate-balioak lortzera bideratuko da lana, zenbait diagrama erabiliz, berariazko ezagutzak (Laplaceren legea) eskuratuz edo zenbaki handien legea aplikatuz.

Etapak izan behar duen izaera orientatzailea kontuan hartuta, ikasleen ikasketaren motibazioen, interesen eta erritmoen aniztasunari arreta jartzeko, Matematika ikasgaiak bi aukera ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetan. Bi aukeretan, partzialki bereizitako edukiak ageri dira, Matematika akademikoari edo Matematika aplikatuari dagokion. Bi aukerak ezartzea gomendatzen duten aldeak ez dagozkio soilik edukien aukeraketari, baizik - eta batik bat - edukiak lantzeko moduari. Matematika aplikatuan, ikasitakoak zertarako balio duen izango da ardatz nagusia, eta benetako testuinguruetakoa aplikazio praktikoan jarriko da arreta, sinbolismo abstraktuen eskakizun handiagoaren orde; hain zuzen, hori Matematika akademikoan aztertuko da. Gainera, aukera honetan, pentsamendu matematikoko abilezien garapenean sakonduko da; bereziki,

pentasamendu matematikoaren beraren zenbait alderdi teoriko analizatu, ikertu, interpretatu eta horietan sakontzeko gaitasunetan.

Bi aukeretan, Matematika ikasleentzat hurbilekoak diren ezagutza eta prozedura integratuen multzo gisa aurkeztu behar da, denboran zehar bilakatuz joan dena eta etorkizunean ere bilakatuz joango dena.

### 2.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A.- Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak: Eduki multzo honetako prozeduren eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziaztea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

**B.- Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

***Problema teknologikoak ebaztea.***

- Problema ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problema ebazteko heuristiko erabilienak: saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, problema birformulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa exhaustiboa, diagramak edo marrazkiak.

- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin lotutako problemak ebaztea.
- Problemak ebaztean jarraitutako prozedura ahoz adieraztea.
- Prozesua justifikatzea eta soluzioak egiaztatzea.
- Datuak hipotetikoki aldatu ondoren, aieruak egitea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarrei buruzko ikerketa matematiko errazak egitea.
- Modelizazio matematikoa benetako testuinguruetan eta testuinguru matematiko sinpleetan.

### ***Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak***

Bitarteko teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, helburu hauetarako:

- Zenbakizko kalkuluak, kalkulu eta grafiko estatistikoak, irudi geometrikoa marraztea eta grafiko errazak erabiltzea eskatzen duten problemak ebaztea (Matematikako morroiak).
- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.
- Matematikako informazioa eta ideiak ingurune egokietan jakinaraztea eta elkarbanatzea.

### ***Jarrerak***

- Aieruak egiteko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko interesa eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lana problemen ebazpenean ideiak ekartzeko eta alderatzeko oinarrizko elementutzat balioestea.
- Pertseberantzia eta malgutasuna problemen ebazpena bilatzeko, bai eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argitasunez aurkezteko interesa izatea ere.
- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, Matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte-arazo batzuk aztertzea, Matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

## **2. MULTZOA. Zenbakiak eta aljebra**

- Zenbaki arruntak. Zatigarritasuna, multiploak eta zatitzaileak. Zenbaki lehenak eta zenbaki konposatuak. Biderkagai lehenetan deskonposatzea. Zatitzaile komunetan handiena eta multiplo komunetan txikiena.
- Zatikiak eta hamartarrak eguneroko bizitzako testuinguruetan. Zatikien esanahiak eta erabilerak. Zatikien arteko eragiketak: batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa.
- Zenbaki hamartarrak. Zatikien eta hamartarren arteko erlazioak.
- Zenbaki negatiboak. Sarreraren beharra. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki osoen arteko eragiketak. Zeinuen irizpideak. Eragiketen hierarkia eta parentesien erabileraren arauak kalkulu errazetan.
- Berretzaile arrunteko berreketak. Oinarrizko propietateak.

- Erro karratua. Erroaren eta berreketaren arteko erlazioa.
- Ikasitako zenbakiak buruzko kalkuluak egiteko estrategiak. Kalkulu zehatza eta hurbildua.
- Magnitude proportzionalak. Magnitude zuzenki proportzionalen benetako egoerak identifikatzea. Proportzionaltasunarekin lotutako problemak.
- Osaketak edo aldakuntzak adierazteko ehunekoak. Ohiko ehunekoaren buruzko kalkuluak eta idatzizkoa.
- Hizkuntza aljebraikoa: Letren esanahia eta erabilera, magnitude ezezagunak adierazteko.
- Ezezagun bateko lehen mailako ekuazioak.
- Jarraibideak ohiko hizkuntzako adierazpenak hizkuntza aljebraikoan adierazteko eta alderantziz.
- Zenbakizko sekuentzietan propietateak, erlazioak eta erregulartasunak bilatzea eta adieraztea.
- Formula errazetan zenbakizko balioak kalkulatzeko.

### 3. MULTZOA. Geometria eta neurria

- Planoan eta espazioan irudiak deskribatzeko oinarrizko elementuak: puntuak, zuzenak, zuzenkiak, angeluak, aurpegiak, etab.
- Zuzenkien eta angeluen elementuak: erdibitzailea, erdikaria.
- Irudiak espazioan: Poliedroak eta biraketa-gorputzak. Elementu bereizgarriak.
- Irudiak planoan: triangeluak, laukiak eta beste poligono batzuk. Elementuak eta ezaugarriak. Erlazioen eta propietateen analisia: paralelotasuna eta elkarzutasuna. Saillapena zenbait irizpideren arabera.
- Poligono erregularrak. Eraikuntza eta propietateak.
- Irudi lauen angeluen neurriak eta kalkulua.
- Zirkunferentzia eta zirkulua. Propietateak.
- Irudi lauen simetriak. Aplikazioak eta erabilerak. Mosaikoak eta haien propietateak.
- Irudi sinpleen perimetroak eta azalerak kalkulatzeko eta iritzira kalkulatzeko, zenbait prozedura erabiliz.
- Irudi lauak eta espazialak marrazteko eta neurtzeko zenbait tresna eta formatu (digitalak barne) erabiltzeko teknikak.

### 4. MULTZOA. Funtzioak eta grafikoak

- Bi magnituderen arteko korrespondentzia. Eguneroko bizitzako mendekotasun-erlazioak identifikatzea eta ahoz azaltzea.
- Funtzio kontzeptua.
- Datuak balio-taulatan antolatzea.

- Koordinatu kartesiarrak. Enuntziatu bat eta balio-taula bat oinarri hartuta, grafiko sinpleak adieraztea.
- Proporzionaltasun zuzeneko erlazioak. Balio-taula aztertuz, identifikatzea.
- Taula batean aurkeztutako edo grafiko batean adierazitako informazioaren interpretazio puntuala eta globala. Grafikoaren interpretazioari eragin diezaioketen distortsioak.
- Software informatikoa erabiltzea (kalkulagailu grafikoak edo ordenagailua), grafikoak egiteko eta interpretatzeko.

## 5. MULTZOA. Estatistika eta probabilitatea

- Informazioa antolatzea. Esperimentu batean jasotako datuen taulak.
- Maiztasun absolutuak eta erlatiboak.
- Barra-, lerro- eta sektore-diagramak. Interpretazioa eta alderdi nabarmenen analisia.
- Fenomeno deterministak eta ausazko fenomenoak. Ausazko fenomeno sinpleen esperimentuak. Ausazko fenomenoaren portaera. Aieruak egitea.
- Ausazko gertaeren maiztasun erlatiboa. Probabilitate kontzeptuaren nozio intuitiboa.

### 2.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A.- Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozeduren eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziaztea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.

- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzekoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **B.- Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

### ***Problema teknologikoak ebaztea.***

- Problema ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problema ebazteko heuristiko erabilienak: saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, problema birformulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa exhaustiboa, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin lotutako problema ebaztea.
- Problema ebaztean jarraitutako prozedura ahoz adieraztea.
- Prozesua justifikatzea eta soluzioak egiaztatzea.
- Datuak hipotetikoki aldatu ondoren, aieruak egitea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarrei buruzko ikerketa matematiko errazak egitea.
- Modelizazio matematikoa benetako testuinguruetan eta testuinguru matematiko sinpleetan.

### ***Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak***

Bitarteko teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, helburu hauetarako:

- Zenbakizko kalkuluak, kalkulu eta grafiko estatistikoak, irudi geometrikoa marraztea eta grafiko errazak erabiltzea eskatzen duten problema ebaztea (Matematikako morroiak).
- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.
- Matematikako informazioa eta ideiak ingurune egokietan jakinaraztea eta elkarbanatzea.

### ***Jarrerak***

- Aieruak planteatzeko, galderei erantzuteko eta problema ebazteko interesa eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lana problemaren ebazpenean ideiak ekartzeko eta alderatzeko oinarrizko elementutzat balioestea.
- Pertseberantzia eta malgutasuna problemaren ebazpena bilatzeko, bai eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argitasunez aurkezteko interesa izatea ere.



- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, Matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte-arazo batzuk aztertzea, Matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

## 2. MULTZOA. Zenbakiak eta aljebra

- Zenbaki osoak. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki osoen arteko eragiketak. Zeinuen irizpidea. Eragiketen hierarkia eta parentesien erabileraren arauak kalkulu errazetan.
- Berretzaile arrunta duten zenbaki osoen berreketak. Berreketen arteko eragiketak. Idazkera zientifikoa, zenbaki handiak eta eragiketak adierazteko.
- Erro karratuak. Erro hurbilduak iritzira kalkulatzea eta kalkulatzea.
- Zatikiak, hamartarren eta ehunekoak arteko erlazioak. Kalkulu-estrategiak egiteko aplikatzea (buruzkoa, idatzizkoa edo kalkulagailu bidezkoa).
- Kalkuluak ehunekoekin. Handitzeak eta txikitzeak, ehunekotan. Eguneroko bizitzako problemetan aplikatzea.
- Magnitude zuzenki eta alderantziz proportzionalak. Proportzionaltasun-konstantea.
- Banaketa zuzenki eta alderantziz proportzionalak. Problema ebaztea.
- Hizkuntza aljebraikoa, propietateak orokortzeko eta erlazioak sinbolizatzeke. Formulak eta gai orokorrak kalkulatzea, jarraibideei eta erregulartasunei erreparatuz.
- Aldagai bat ordeztzea eta adierazpen aljebraiko baten zenbakizko balioa kalkulatzea.
- Adierazpen aljebraiko sinpleen arteko eragiketak.
- Ezezagun bateko bigarren mailako ekuazioak (metodo aljebraikoa).
- Bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak. Ebazteko metodo aljebraikoak eta metodo grafikoa.
- Problema ekuazioen bidez ebaztea.
- Software informatikoa erabiltzea, kalkuluak egiteko, ekuazioak ebazteko, sistemak ebazteko, etab.

## 3. MULTZOA. Geometria eta neurria

- Irudiak planoan: triangeluak, laukiak eta beste poligono batzuk. Elementuak eta ezaugarriak. Propietateak deskribatzea eta haien kalkulu metriko zuzenak eta zeharkakoak.
- Triangelu angeluzuzenak: Pitagorasen teorema. Justifikazio geometrikoa eta aplikazioak.
- Irudien antzekotasuna. Zuzenkien arteko proportzionaltasuna. Antzekotasun-arrazoia eta eskala. Antzeko irudien luzeren, azalaren eta bolumenen arteko arazoak.
- Talesen teorema. Triangeluen antzekotasuna. Antzekotasun-irizpideak.
- Eskalan adieraztea. Mapak.
- Poliedro eta biraketa-gorputz ohikoenak: kuboak, prisma, piramideak, zilindroak, konoak eta esfera. Garapen lauak eta elementu bereizgarriak. Sailkapena.

- Irudien eta gorputzen perimetroak, azalerak eta bolumenak kalkulatzeko eta iritzira kalkulatzeko, zenbait prozedura erabiliz.
- Zenbait tresna erabiltzeko teknikak, tresna informatikoak barne, irudi lauak eta espazialak marrazteko eta erlazio geometrikoak aztertzeko.

#### 4. MULTZOA. Funtzioak eta grafikoak

- Magnitudeen arteko erlazioa. Mendekotasun funtzionala. Funtzio kontzeptua. Mendeko aldagaia eta aldagai askea.
- Funtzio bat adierazteko moduak: ahozko deskribapena, taula bidezkoa, grafikoa eta aljebraikoa.
- Grafikoen ezaugarri orokorrak: gorakortasuna eta beherakortasuna; jarraitutasuna eta etenuneak; muturrak eta ardatzekiko ebakidura-puntuak. Interpretazioa aztertutako fenomenoarekin lotuta.
- Funtzio linealak eta afinak. Adierazpen aljebraikoa eta grafiko bidez adieraztea. Zuzenaren malda interpretatzea eta kalkulatzeko.
- Grafikoak egitea eta interpretatzea, software egokia erabiliz (kalkulagailu grafikoa edo ordenagailua).

#### 5. MULTZOA. Estatistika eta probabilitatea

- Estatistika deskribatzailearen oinarrizko elementuak: Populazioa, lagina. Aldagai kualitatiboak, kuantitatiboak.
- Taula estatistikoak. Maiztasun absolutuak, erlatiboak eta metatuak.
- Grafiko estatistikoak. Grafikoetako alderdi nabarmenenak aztertzea, interpretatzea eta egitea.
- Zentralizazio-neurriak: batez bestekoa, mediana eta moda. Sakabanatze-neurriak: ibiltartea edo heina. Esanahia, iritzira kalkulatzeko eta kalkulatzeko.
- Kalkulu-orria datuak antolatzeko, kalkuluak egiteko, grafiko estatistiko egokienak sortzeko eta egoera berriak simulatzeko tresna gisa.
- Estatistikako ekoizpenak genero ikuspegiaren ezaugarriak babesteko egokitzea.
- Ausazko fenomenoak. Ausazko gertaerak. Ausazko gertaera baten maiztasuna. Maiztasun erlatiboa. Probabilitate kontzeptua.
- Esperimentu errazetako lagin-espazioa. Oinarrizko gertaera ekuipableak eta ez-ekupableak. Taula eta zuhaitz-diagrama sinpleak. Probabilitateak kalkulatzeko esperimentu sinpleetan, Laplaceren erregela erabiliz.

### 2.1.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak: Ikaskuntza akademikoak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozeduren eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

### ***Problema teknologikoak ebaztea.***

- Problema ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problema ebazteko heuristiko erabilienak: saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, problema birformulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa exhaustiboa, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin lotutako problema ebaztea.
- Problema ebaztean jarraitutako prozedura ahoz adieraztea.
- Prozesua justifikatzea eta soluzioak egiaztatzea.
- Datuak hipotetikoki aldatu ondoren, aieruak egitea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarrei buruzko ikerketa matematiko errazak egitea.

- Modelizazio matematikoa benetako testuinguruetan eta testuinguru matematiko sinpleetan.

### **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**

Bitarteko teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, helburu hauetarako:

- Zenbakizko kalkuluak, kalkulu eta grafiko estatistikoak, irudi geometrikoa marraztea eta grafiko errazak erabiltzea eskatzen duten problemak ebaztea (Matematikako morroiak).
- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.
- Matematikako informazioa eta ideiak ingurune egokietan jakinaraztea eta elkarbanatzea.

### **Jarrerak**

- Aieruak planteatzeko, galderari erantzuteko eta problemak ebazteko interesa eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lana problemen ebazpenean ideiak ekartzeko eta alderatzeko oinarrizko elementutzat balioestea.
- Pertseberantzia eta malgutasuna problemen ebazpena bilatzeko, bai eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argitasunez aurkezteko interesa izatea ere.
- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, Matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte-arazo batzuk aztertzea, matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

## **2. MULTZOA. Zenbakiak eta aljebra**

- Zenbaki hamartarrak eta arrazionalak. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki arrazionalen arteko eragiketak. Zatikiak hamartar gisa adieraztea eta alderantziz. Zenbaki hamartar zehatzak eta periodikoak. Zatiki sortaileak.
- Kantitateak iritzira kalkulatzeko: Kalkulu hurbildua eta biribilketa. Zifra esanguratsuak. Errore absolutua eta erlatiboa. Eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzea.
- Berretzaile osoa duten berreketak. Esanahia eta erabilera. 10 berrekizuneko berreketak. Zenbaki oso handiak eta oso txikiak adierazteko erabiltzea. Idazkera zientifikoan adierazitako zenbakien arteko eragiketak.
- Zenbaki irrazionalak. Adierazpen hamartarra.
- Erro karratuak. Erro ez-zehatzak. Adierazpen hamartarra. Erroketa bidezko adierazpenak: aldaketak eta eragiketak.
- Eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera.
- Zenbakien multzoetan agertzen diren erregulartasunak, erlazioak eta propietateak ikertzea. Hizkuntza aljebraikoan adieraztea.
- Zenbakizko segidak. Segida errepikariak.
- Progresio aritmetikoen eta geometrikoen sarrera. Progresioak segida errepikari gisa.
- Ezezagun bateko bigarren mailako ekuazioak ebaztea (metodo aljebraikoa eta grafikoa).

- Polinomioak. Polinomioen arteko eragiketak.
- Adierazpen aljebraiko sinpleak. Oinarrizko eragiketak eta laburbidezko formulak.
- Problema ebazteko metodoak, ekuazioak (lehen eta bigarren mailakoak), sistemak (bi ezezaguneko bi ekuazio linealenak) eta norberaren beste metodo batzuk erabiliz.
- Adierazpen aljebraikoak erabiltzeko, eta ekuazioak eta ekuazio-sistemak ebazteko softwarea erabiltzeko jarraibideak.

### 3. MULTZOA. Geometria eta neurria

- Planoko geometria. Irudi edo konfigurazio geometrikoak zehaztea, zenbait propietate oinarri hartuta. Leku geometrikoa.
- Talesen teorema eta Pitagorasen teorema. Problema geometrikoak eta ingurune fisikoko problemak ebazteko aplikatzea.
- Eskalak. Antzekotasun-arrazoia.
- Higidurak planoan: Translazioak, biraketak eta simetriak. Higidura bakoitzaren elementu inbariantek. Konfigurazio geometrikoak aztertzeke eta adierazteke erabiltzea.
- Planoko geometria: Poliedroak. Poliedro erregularrak. Biraketa-gorputzak. Elementu bereizgarriak eta propietateak. Azalera eta bolumenak.
- Esfera. Planoen eta esferen arteko ebaketak.
- Lur-globoa. Koordinatu geografikoak eta ordu-eremuak. Puntu baten longitudea eta latitudea.
- Mapak interpretatzeko jarraibideak eta errore azterketa.
- Tresna teknologikoak erabiltzeko teknikak, forma, higidura, konfigurazio eta erlazio geometrikoak aztertzeke.

### 4. MULTZOA. Funtzioak eta grafikoak

- Magnitudeen arteko mendekotasun funtzionala. Eguneroko bizitzako fenomenoak eta beste gai batzuk adierazten dituzten grafikoaren analisia eta deskribapen kualitatiboa.
- Funtzioa. Funtzio bat adierazteke moduak: ahozko deskribapena, taula bidezkoa, grafikoa eta aljebraikoa.
- Egoera bat aztertzea eta interpretatzea, dagokion grafikoaren ezaugarri lokalak eta globalak aztertuz: eremua, jarraitutasuna, monotonia, muturrak eta ardatzekiko ebakidura-puntuak.
- Funtzioen eta grafikoaren propietateen kontzeptu-azterketa eta bereizketa, bitarteko teknologikoak erabiliz.
- Grafiko batek eta haren adierazpen aljebraikoak adierazten duten fenomenoari buruzko aieruak egitea.
- Funtzio linealak. Proporzionaltasunarekiko erlazioa. Adierazpen aljebraikoa eta grafiko bidez adieraztea.

- Eguneroko bizitzako egoerak eta zenbait ezagutza-eremu aztertze modelo linealak, taula eginez, grafikoki adieraziz eta zenbait kasutan adierazpen aljebraikoa kalkulatu.
- Zuzenaren ekuazioa. Adierazteko moduak: bi puntuk zehaztutako ekuazioa, puntu-malda ekuazioa, ekuazio orokorra eta ekuazio esplizitua. Maldaren interpretazioa. Koefizienteen interpretazio geometrikoa, tresna teknologikoak erabiliz.
- Funtzio koadratikoak. Adierazpen grafikoa. Eguneroko bizitzako egoerak adierazteko erabiltzea. 2. mailako ekuazioekin zer erlazio duen. Koefizienteen interpretazio geometrikoa, tresna teknologikoak erabiliz.

## 5. MULTZOA. Estatistika eta probabilitatea

- Azterketa estatistiko baten faseak eta lanak.
- Populazioa eta lagina. Lagin baten adierazgarritasuna. Ausazko lagin bat hautatzeko metodoak eta benetako egoeretan aplikatzea.
- Aldagai estatistikoak: kuantitatiboak, kualitatiboak, diskretuak eta jarraituak.-
- Maiztasun absolutuak, erlatiboak eta metatuak. Datuak tartetan biltzea.
- Grafiko estatistikoak (histogramak, barra-grafikoak, maiztasun-poligonoak, sektore-diagramak, kaxa eta biboteen diagrama).
- Estatistikako ekoizpenak genero ikuspegiaren ezaugarriak babesteko egokitzea.
- Zentralizazio- eta posizio-parametroak: Batez bestekoa, moda, mediana eta kuartilak. Esanahia, kalkulua, interpretazioa, propietateak eta aplikazioak.
- Sakabanatze-parametroak: heina, kuartilarteko ibiltartea, desbideratze tipikoa eta bariantza. Kalkulatzea eta interpretatzea. Eguneroko bizitzako kasuetan aplikatzea.
- Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa batera interpretatzea.
- Tresna teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, datuak antolatzeko, kalkuluak egiteko eta grafiko estatistiko egokienak sortzeko.
- Zoriarekin lotutako egoerak deskribatzeko eta kuantifikatzeko lexiko egokia.
- Ausazko esperimenduak. Lagin-espazioa. Gertaerak. Gertaera baten maiztasuna.
- Gertaera baten probabilitatea. Probabilitatea kalkulatzeko, simulazioaren edo esperimenduzkoaren bidez.
- Zenbatzeko oinarrizko teknikak. Zuhaitz-diagrama sinpleak. Permutazioak. Zenbaki baten faktoriala. Probabilitateak kalkulatzeko, Laplaceren legea erabiliz.
- Probabilitatea erabiltzea, erabakiak hartzeko zenbait testuingurutan.

### 2.1.2.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak: Ikaskuntza aplikatuak.

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

A.- Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozeduren eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.

- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **B.- Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

### ***Problema teknologikoak ebaztea***

- Problema ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problema ebazteko heuristiko erabilienak: saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, problema birformulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa exhaustiboa, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin lotutako problemak ebaztea.
- Problema ebaztean jarraitutako prozedura ahoz adieraztea.
- Prozesua justifikatzea eta soluzioak egiaztatzea.
- Datuak hipotetikoki aldatu ondoren, aieruak egitea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarrei buruzko ikerketa matematiko errazak egitea.
- Modelizazio matematikoa benetako testuinguruetan eta testuinguru matematiko sinpleetan.

**Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**

Bitarteko teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, helburu hauetarako:

- Zenbakizko kalkuluak, kalkulu eta grafiko estatistikoak, irudi geometrikoa marraztea eta grafiko errazak erabiltzea eskatzen duten problemak ebaztea (Matematikako morroiak).
- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.
- Matematikako informazioa eta ideiak ingurune egokietan jakinaraztea eta elkarbanatzea.

**Jarrerak**

- Aieruak planteatzeko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko interesa eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lana problemen ebazpenean ideiak ekartzeko eta alderatzeko oinarrizko elementutzat balioestea.
- Pertseberantzia eta malgutasuna problemen ebazpena bilatzeko, bai eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argitasunez aurkezteko interesa izatea ere.
- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte-arazo batzuk aztertzea, matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

**2. MULTZOA. Zenbakiak eta aljebra**

- Zenbaki hamartarrak eta arrazionalak. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki arrazionalen arteko eragiketak. Zatikiak hamartar gisa adieraztea eta alderantziz. Zenbaki hamartar zehatzak eta periodikoak.
- Kantitateak iritzira kalkulatzeko: Kalkulu hurbildua eta biribilketa. Zifra esanguratsuak. Errore absolutua eta erlatiboa. Eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzea.
- Berretzaile osoa duten zenbaki arrunten berreketak. Esanahia eta erabilera. 10 berrekizuneko berreketak. Zenbaki oso handiak eta oso txikiak adierazteko erabiltzea. Idazkera zientifikoan adierazitako zenbakien arteko eragiketak.
- Eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera.
- Zenbakien multzoetan agertzen diren erregulartasunak, erlazioak eta propietateak ikertzea. Hizkuntza aljebraikoan adieraztea.
- Zenbakizko segidak. Segida errepikariak.
- Progresio aritmetikoak eta geometrikoak.
- Ezezagun bateko bigarren mailako ekuazioak ebaztea (metodo aljebraikoa eta grafikoa).
- Adierazpen aljebraiko sinpleak. Oinarrizko eragiketak eta laburbidezko formulak.
- Problema ebazteko metodoak, ekuazioak (lehen eta bigarren mailakoak), sistemak (bi ezezaguneko bi ekuazio linealenak) eta norberaren beste metodo batzuk erabiliz.
- Adierazpen aljebraikoak erabiltzeko, eta ekuazioak eta ekuazio-sistemak ebazteko softwarea erabiltzeko jarraibideak.



### 3. MULTZOA. Geometria eta neurria

- Planoko geometria. Irudi edo konfigurazio geometrikoak zehaztea, zenbait propietate oinarri hartuta. Leku geometrikoa.
- Talesen teorema eta Pitagorasen teorema.
- Eskalak. Antzekotasun-arrazoia.
- Problema geometrikoak eta ingurune fisikoko problemak ebazteko aplikatzea.
- Higidurak planoan: Translazioak, biraketak eta simetriak. Konfigurazio geometrikoak aztertzeke eta adierazteke erabiltzea.
- Planoko geometria: Poliedroak eta biraketa-gorputzak. Azalera eta bolumenak.
- Lur-globoa. Koordinatu geografikoak. Puntu baten longitudea eta latitudea.
- Mapak interpretatzeko jarraibideak eta erroreaz azterketa.
- Tresna teknologikoak erabiltzeko teknikak, forma, higidura, konfigurazio eta erlazio geometrikoak aztertzeke.

### 4. MULTZOA. Funtzioak eta grafikoak

- Magnitudeen arteko mendekotasun funtzionala. Eguneroko bizitzako fenomenoak eta beste gai batzuk adierazten dituzten grafikoaren analisia eta deskribapen kualitatiboa.
- Funtzioa. Funtzio bat adierazteke moduak: ahozko deskribapena, taula bidezkoa, grafikoa eta aljebraikoa.
- Egoera bat aztertzea eta interpretatzea, dagokion grafikoaren ezaugarri lokalak eta globalak aztertuz: eremua, jarraitutasuna, monotonia, muturrak eta ardatzekiko ebakidura-puntuak.
- Funtzioen eta grafikoaren propietateen kontzeptu-azterketa eta bereizketa, bitarteko teknologikoak erabiliz.
- Grafiko batek eta haren adierazpen aljebraikoa adierazten duten fenomenoari buruzko aieruak egitea.
- Funtzio linealak eta afinak. Proporzionaltasunarekiko erlazioa. Adierazpen aljebraikoa eta grafiko bidez adieraztea.
- Eguneroko bizitzako egoerak eta zenbait ezagutza-eremu aztertzeke modelo linealak, taula eginez, grafikoki adieraziz eta adierazpen aljebraikoa kalkulatu.
- Zuzenaren ekuazioa. Adierazteke moduak: bi puntuk zehaztutako ekuazioa, puntu-malda ekuazioa, ekuazio orokorra eta ekuazio esplizitua. Maldaren interpretazioa. Koefizienteen interpretazio geometrikoa, tresna teknologikoak erabiliz.
- Funtzio koadratikoak. Adierazpen grafikoa. Eguneroko bizitzako egoerak adierazteke erabiltzea. 2. mailako ekuazioekin zer erlazio duen. Koefizienteen interpretazio geometrikoa, tresna teknologikoak erabiliz.

## 5. MULTZOA. Estatistika eta probabilitatea

- Azterketa estatistiko baten faseak eta lanak.
- Populazioa eta lagina. Lagin baten adierazgarritasuna. Ausazko lagin bat hautatzeko metodoak eta benetako egoeretan aplikatzea.
- Aldagai estatistikoak: kuantitatiboak, kualitatiboak, diskretuak eta jarraituak.
- Estatistikako ekoizpenak genero ikuspegiaren ezaugarriak babesteko egokitzea.
- Maiztasun absolutuak, erlatiboak eta metatuak. Datuak tartetan biltzea.
- Grafiko estatistikoak (histogramak, barra-grafikoak, maiztasun-poligonoak, sektore-diagramak, kaxa eta biboteen diagrama).
- Zentralizazio- eta posizio-parametroak: Batez bestekoa, moda, mediana eta kuartilak. Esanahia, kalkulua, interpretazioa, propietateak eta aplikazioak.
- Sakabanatze-parametroak: heina, kuartilarteko ibiltartea eta desbideratze tipikoa. Kalkulatzea eta interpretatzea. Eguneroko bizitzako kasuetan aplikatzea.
- Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa batera interpretatzea.
- Tresna teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, datuak antolatuzeko, kalkuluak egiteko eta grafiko estatistiko egokienak sortzeko.

### 2.1.2.6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak: Ikaskuntza akademikoak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozeduren eta jarrerren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.

- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

### ***Problema teknologikoak ebaztea***

- Problema ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problema ebazteko heuristiko erabilienak: saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, problema birformulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa exhaustiboa, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin lotutako problema ebaztea.
- Problema ebaztean jarraitutako prozedura ahoz adieraztea.
- Prozesua justifikatzea eta soluzioak egiaztatzea.
- Datuak hipotetikoki aldatu ondoren, aieruak egitea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarrei buruzko ikerketa matematiko errazak egitea.
- Modelizazio matematikoa benetako testuinguruetan eta testuinguru matematiko sinpleetan.

### ***Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak***

Bitarteko teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, helburu hauetarako:

- Zenbakizko kalkuluak, kalkulu eta grafiko estatistikoak, irudi geometrikoa marraztea eta grafiko errazak erabiltzea eskatzen duten problema ebaztea (Matematikako morroiak).
- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.
- Matematikako informazioa eta ideiak ingurune egokietan jakinaraztea eta elkarbanatzea.

### ***Jarrerak***

- Aieruak planteatzeko, galderari erantzuteko eta problema ebazteko interesa eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lana problemen ebazpenean ideiak ekartzeko eta alderatzeko oinarrizko elementutzat balioestea.
- Pertseberantzia eta malgutasuna problemen ebazpena bilatzeko, bai eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argitasunez aurkezteko interesa izatea ere.
- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, Matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte-arazo batzuk aztertzea, Matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

## 2. MULTZOA. Zenbakiak eta aljebra

- Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak. Zenbaki erreala. Zenbakiak eta eragiketak denetariko testuinguruetan erabiltzea, kasu bakoitzean dagokion doitasuna aukeratuz.
- Zenbaki errealen zuzena. Zuzenean zenbaki errealak adieraztea. Tarteak.
- Zenbaki baten adierazpen zientifikoa. Eragiketak.
- Berretzaile arrazionala duten berreketak. Erroketarekiko erlazioa. Eragiketak eta propietateak. Arrazionalizatzea.
- Eragiketen hierarkia eta propietateak, berretzaile osoa eta zatikizkoa duten berreketekin eta erroketara sinpleekin kalkuluak egiteko.
- Logaritmoak: Logaritmoen arteko eragiketak.
- Zenbakizko adierazpenak kalkulatzeko. Laburbidezko formulak erabiltzea.
- Polinomioak. Polinomioen arteko eragiketak. Erroak eta faktORIZAZIOA. Ruffiniren erregela.
- Zatiki aljebraikoak. Adierazpen aljebraiko sinpleen arteko eragiketak. Sinplifikatzea.
- Bi ezezaguneko bi ekuazioko sistema linealak grafikoki eta aljebraikoki ebaztea.
- Zenbakizko segidak. Progresio aritmetikoak. Progresio geometrikoak. Progresioetako gaien baturak.
- Lehen eta bigarren mailako inekuazioak. Inekuazioak ebaztea. Interpretazio grafikoa. Problema ekuazioen bidez planteatzea.
- Software informatikoa erabiltzea, kalkuluak egiteko eta egoera aljebraikoak ebazteko.

## 3. MULTZOA. Geometria eta neurria

- Neurri-problema eta luzerak, azalerak, bolumenak eta abar kalkulatu beharrekoak ebazteko metodoak.
- Antzekotasuna. Antzeko irudiak. Antzeko gorputzen luzeren, azalaren eta bolumenaren arteko arazoak. Antzekotasun-arrazoia.
- Neurri hirurogeitarra. Radiana. Haien arteko erlazioak.
- Oinarritzko trigonometria: funtsezko erlazioak. Triangeluetako erlazio metrikoak.
- Planoko geometria analitikoaren sarrera: Erreferentzia-sistema. Koordinatuak. Bektoreak. Zuzenaren ekuazioak. Paralelotasuna, elkarzutasuna. Zirkunferentziaren ekuazio laburtua.
- Problema geometrikoak software egokia erabiliz ebaztea.
- Kalkulu trigonometrikoak egiteko, kalkulagailua erabiltzea.

## 4. MULTZOA. Funtzioak eta grafikoa

- Mendekotasun funtzionaleko fenomenoak. Interpretazioa eta grafikoa: grafikotik fenomenora, fenomenotik grafikora.
- Batez besteko aldakuntza-tasa funtzio baten tarte bateko aldakuntzaren neurri gisa. Zenbait hazkuntza formaren analisia, tauletan, grafikotan eta ahozko enuntziatuetan.

- Zatika definitutako funtzioak. Benetako egoerak bilatzea eta interpretatzea.
- Modelo funtzional ez-linealak: funtzio koadratikoa, alderantzizko proportzionaltasunekoa, esponentziala eta logaritmikoa. Benetako testuinguruetan eta egoeretan aplikatzea.
- Aplikazio informatikoak erabiltzea, funtzioen grafikoak simulatzeko eta aztertzeko.

## 5. MULTZOA. Estatistika eta probabilitatea

- Populazioa eta lagina. Lagin estatistikoaren adierazgarritasuna.
- Ikaslearen hurbileko egoera jakinen azterketa estatistiko bat egiteko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Grafiko estatistikoak: Grafiko motak. Taula eta grafiko estatistikoaren analisi kritikoa, komunikabideetan. Falaziak hautematea.
- Estatistikako ekoizpenak genero ikuspegiaren ezaugarriak babesteko egokitzea.
- Kalkulu-orria behar bezala erabiltzeko jarraibideak, datuak antolatzeko, kalkuluak egiteko eta grafikoak sortzeko.
- Zentralizazio-, sakabanatze- eta posizio-neurriak: interpretazioa eta analisisa.
- Sakabanatze-diagramen sarrera. Korrelazioaren sarrera.
- Estatistikarekin eta zoriarekin lotutako egoerak deskribatzeko eta kuantifikatzeko lexiko egokia erabiltzea.
- Berariazko zenbaketa-teknikak. Oinarrizko konbinatoria (aldakuntzak, permutazioak eta konbinazioak). Laplaceren erregela.
- Ausazko esperimendu konposatuak. Zuhaitz diagramak, kasuak zenbatzeko eta probabilitateak esleitzeko.
- Probabilitate baldintzatua. Kontingentzia-taulak.
- Kalkulu-orria erabiltzea datu estatistikoak antolatzeko, kalkulatzeko eta adierazteko.

### 2.1.2.7. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak: Ikaskuntza aplikatuak.

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozeduren eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.

- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## **B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

### ***Problema teknologikoak ebaztea***

- Problema ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problema ebazteko heuristiko erabilienak: saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, problema birformulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa exhaustiboa, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin lotutako problemak ebaztea.
- Problema ebaztean jarraitutako prozedura ahoz adieraztea.
- Prozesua justifikatzea eta soluzioak egiaztatzea.
- Datuak hipotetikoki aldatu ondoren, aieruak egitea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarrei buruzko ikerketa matematiko errazak egitea.
- Modelizazio matematikoa benetako testuinguruetan eta testuinguru matematiko sinpleetan.

### ***Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak***

Bitarteko teknologikoak erabiltzeko jarraibideak, helburu hauetarako:

- Zenbakizko kalkuluak, kalkulu eta grafiko estatistikoak, irudi geometrikoa marraztea eta grafiko errazak erabiltzea eskatzen duten problemak ebaztea (Matematikako morroiak).
- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.
- Matematikako informazioa eta ideiak ingurune egokietan jakinaraztea eta elkarbanatzea.

**Jarrerak**

- Aieruak planteatzeko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko interesa eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lana problemen ebazpenean ideiak ekartzeko eta alderatzeko oinarrizko elementutzat balioestea.
- Pertseberantzia eta malgutasuna problemen ebazpena bilatzeko, bai eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argitasunez aurkezteko interesa izatea ere.
- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte-arazo batzuk aztertzea, matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

**2. MULTZOA. Zenbakiak eta aljebra**

- Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak. Zenbakiak eta eragiketak denetariko testuinguruetan erabiltzea, kasu bakoitzean dagokion doitasuna aukeratuz.
- Zenbaki errealen zuzena. Zenbakiak zuzenean adieraztea. Tarteak.
- Kalkulagailu erabiltzea edozein motatako zenbakizko adierazpenen arteko eragiketak egiteko. Kalkulu hurbilduak.
- Proporzionaltasun zuzena eta alderantzizkoa. Proporzionaltasun-arrazoia. Taulak aztertzea.
- Proporzionaltasunarekin lotutako eguneroko bizitzako problemak ebaztea.
- Ehunekoak ekonomian. Ondoz ondoko ehunekoak. Interes sinplea eta konposatua.
- Lehen eta bigarren mailako ekuazioak. Lehen eta bigarren mailako ekuazioak ebaztea.
- Ekuazioen sistema linealak. Ekuazio-sistemen ebazpen grafikoa eta aljebraikoa.
- Beste ekuazio mota batzuk saiakuntza-errore bidez edo metodo grafikoaren bidez ebaztea, bitarteko teknologikoen laguntzarekin.
- Eguneroko bizitzako problemak ekuazioen eta sistemen bidez ebaztea.

**3. MULTZOA. Geometria eta neurria**

- Zeharkako neurriak kalkulatzeko, Talesen eta Pitagorasen teorema erabiliz.
- Neurri-problema eta luzerak, azalerak, bolumenak eta abar kalkulatu beharrekoak ebazteko metodoak.
- Antzeko gorputzen luzeren, azalaren eta bolumenen arteko arazoak.
- Planoko geometria analitikoaren sarrera: Erreferentzia-sistema. Koordinatuak. Bektoreak. Zuzenaren ekuazioa.
- Trigonometriaren sarrera: Sinu, kosinu eta tangente kontzeptuak. Triangelu angeluzuzenen ebazpena.
- Problema geometrikoak software egokia erabiliz ebaztea.

#### 4. MULTZOA. Funtzioak eta grafikoak

- Mendekotasun funtzionaleko fenomenoak. Interpretazioa eta grafikoak: grafikotik fenomenora, fenomenotik grafikora.
- Batez besteko aldakuntza-tasa funtzio baten tarte bateko aldakuntzaren neurri gisa. Zenbait hazkuntza formaren analisia, tauletan, grafikoetan eta ahozko enuntziatuetan.
- Modelo funtzional ez-linealak: alderantzizko proportzionaltasuna, funtzio koadratikoa eta funtzio esponentziala. Benetako testuinguruetan eta egoeretan aplikatzea.
- Aplikazio informatikoak erabiltzea, funtzioen grafikoak simulatzeko eta aztertzeko.

#### 5. MULTZOA. Estatistika eta probabilitatea

- Populazioa eta lagina. Lagin estatistikoaren adierazgarritasuna.
- Ikaslearen hurbileko egoera jakinen azterketa estatistiko bat egiteko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Grafiko estatistikoak: grafiko motak. Taula eta grafiko estatistikoaren analisi kritikoa, komunikabideetan. Falaziak hautematea.
- Estatistikako ekoizpenak genero ikuspegiaren ezaugarriak babesteko egokitzea.
- Kalkulu-orria behar bezala erabiltzeko jarraibideak, datuak antolatzeko, kalkuluak egiteko eta grafikoak sortzeko.
- Zentralizazio-, sakabanatze- eta posizio-neurriak: interpretazioa eta analisia.
- Sakabanatze-diagramen sarrera. Korrelazioaren sarrera.
- Zoriarekin eta estatistikarekin lotutako egoerak deskribatzeko eta kuantifikatzeko lexiko egokia erabiltzea.
- Zenbatzeko oinarrizko teknikak. Probabilitateak kalkulatzeko, Laplaceren legea erabiliz.
- Ausazko esperimentu konposatuak. Mendeko gertaerak eta gertaera askeak. Zuhaitz diagramak, kasuak zenbatzeko eta probabilitateak esleitzeko.
- Probabilitate baldintzatua. Kontingentzia-taulak.

### 2.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 2.1.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

1. **Zenbaki arrunt, oso, zatikizko eta hamartar errazen kalkuluak egitea, propietate garrantzitsuenak erabiliz, eta erantzun zehatza edo hurbildua behar den erabakitzea, eta kalkulatzeko modurik egokiena (buruzkoa, arkatza eta papera, kalkulagailua) segurtasunez aplikatzea.**
  - Zenbaki motak bereizten eta erabiltzen ditu (arruntak, osoak eta zatikiak), informazio kuantitatiboa behar bezala adierazteko eta interpretatzeko.
  - Zenbaki motak zenbaki errealean zuzenean ordenatzen, interpretatzen eta adierazten ditu.
  - Kalkuluak efikaziaz egiten ditu zenbaki horiekin, buruzko kalkulua, arkatza eta papera, kalkulagailua edo dagokion softwarea erabiliz.



- Zatikia zenbaki hamartarrekin lotzen ditu, eta alderantziz.
  - Zatikia jakin baten zatiki baliokideak kalkulatu ditu.
  - Iritzirako kalkuluak behar bezala egiten ditu eta lortutako emaitzak arrazoizkoak diren aztertzen du.
  - Propietateak, eragiketen hierarkia eta parentesien erabileraren arauak behar bezala erabiltzen ditu kalkulu errazetan.
  - 2z, 3z, 5ez, 9z, 10ez eta 11z zatitzeko irizpideak aplikatu ditu, biderkagai lehenetan deskonposatzeko.
  - Zatitzaile komunetan handiena eta multiplo komunetan txikiena kalkulatu ditu, algoritmo egokia erabiliz.
  - Berretzaile arrunta duten zenbakien berreketak kalkulatu ditu. 10eko berreketak dituzten kalkuluak egiten ditu eta berreketen arteko eragiketen oinarriko arauak aplikatu ditu.
  - Zenbakien erro karratuak kalkulatu ditu, hurbilketa bidez edo kalkulagailua erabiliz.
  - Buruzko kalkuluko estrategiak garatu ditu eta eskatutako doitasuna balioesten du.
- 2. Zenbaki osoen, hamartarren eta zatikizkoen arteko eragiketak egin beharreko problemak ebaztea, kalkuluak egiteko baliabide egokienak erabiliz, eta emaitza testuinguruari nola egokitzen zaion balioestea.**
- Proposatutako problemen enuntziatua irakurtzen eta ulertzen du.
  - Problemaren enuntziatuan datuak eta ezezagunak identifikatu ditu.
  - Problemaren ebazpenean jarraitu beharreko urratsak planifikatu ditu.
  - Problema ebazteko egin beharreko kalkuluak efikaziaz eta segurtasunez egiten ditu, baliabide egokiena erabiliz.
  - Lortutako emaitzak interpretatu ditu eta lortutako soluzioa egiaztatzen du.
  - Problema ebazteko jarraitutako prozesua argi eta garbi jakinarazten eta azaltzen du.
  - Jarraitutako prozesuari buruzko gogoeta egin eta ezagutza hori beste problema batzuk ebazteko erabiltzen du.
- 3. Magnitude zuzenki proportzionalekin lotutako problemak ebaztea, kalkuluak egiteko baliabiderik egokienak erabiliz, eta lortutako emaitzak interpretatzea eta balioestea.**
- Proportzionaltasun-egoerak denetariko testuinguruetan identifikatu ditu.
  - Magnitude zuzenki proportzionalen arteko proportzionaltasun-arrazoia kalkulatu du.
  - Proportzionaltasuna eta ehunekoak lotzen ditu.
  - Kantitate bat ehunekotan adierazita zenbat handitu edo txikitu den kalkulatu du.
  - Proportzionaltasun-problema ebazten ditu, hiruko erregela erabiliz.
  - Zenbakizko proportzionaltasuneko ohiko problema ebaztea, baliabide egokiena erabiliz.
  - Finantza-matematikako problema ebazten ditu (interesa, kapitala).
  - Proportzionaltasunari buruzko ezagutza balioesten du, denetariko problema ebazteko.

- 4. Zenbakizko multzoen erregularitasunak, jarraibideak eta erlazioak deskribatzea, letrak erabiliz kantitateak adierazteko, eta, hartara, zenbakizko sekuentziak adierazpenen bidez laburtzeko, eta formula errazen zenbakizko balioa lortzeko.**
- Erregularitasunak modu informalean identifikatzen ditu, zenbakizko sekuentziak abiapuntu hartuta.
  - Formula baten zenbakizko balioa lortzen du.
  - Argudio logiko zuzenak erabiltzen ditu, ondorioak ateratzeko.
  - Lortutako emaitzak antolatzen eta ordenatzen ditu.
  - Zenbaki multzo batean egon daitezkeen erregularitasunak aurkitzen ditu.
  - Hautemandako erregularitasuna ahozko formula baten edo formula aljebraiko erraz baten bidez adierazten du.
- 5. Irudi lauak eta espazioko irudiak bereiztea eta deskribatzea, haien propietateak erabiliz sailkatzea, eta eskuratutako ezagutza geometrikoak aplikatuz mundu fisikoa interpretatzea eta deskribatzea, terminologia egokia erabiliz.**
- Oinarrizko irudi lauak identifikatzen, deskribatzen eta definitzen ditu, lexiko egokia erabiliz: paralelotasuna, elkarzutasuna, simetria, etab.
  - Poligono erregularren propietate bereizgarriak bereizten eta deskribatzen ditu: zentroko angeluak, barne-angeluak, aldeak, apotemak, diagonalak, etab.
  - Triangeluak aldean arabera eta angeluen arabera sailkatzen ditu.
  - Laukiak eta paralelogramoak hartutako irizpideen arabera sailkatzen ditu.
  - Zirkunferentziaren eta zirkuluaren propietate geometriko nagusiak identifikatzen eta erabiltzen ditu.
  - Irudiak identifikatzen ditu espazioan; bereziki, ortoedroa, piramidea eta zenbait biraketa-gorputz (zilindroa, konoa, esfera).
  - Planoan zenbait irudi espazial garatzen ditu (ortoedroa eta piramideak).
  - Irudi lauak eta espazialak marrazten ditu denetariko tresnak erabiliz, tresna digitalak barne.
  - Geometriako ezagutza aplikatzen du ingurune hurbileko problemak deskribatzeko eta ebazteko.
- 6. Irudi lauen luzerak, azalerak eta angeluak planteatutako egoerarako egokia den zehaztasunez iritzira kalkulatzeko eta kalkulatzeko, iritzirako kalkuluaren edo kalkuluaren emaitza unitaterik egokienean adieraztea, eta neurketa-prozesuak ulertzea eta inguruko problemak ebazpenetan aplikatzea.**
- Egin beharreko neurketen iritzirako kalkulu doituak egiten ditu, hurbileko erreferentziak erabiliz.
  - Tresna edo software egokiak erabiltzen ditu, irudi geometrikoen angeluak eta luzerak neurtzeko.
  - Badaki edozein triangeluren angeluen batura  $180^\circ$  dela eta hori erabiltzen du geometriako problemak ebazteko.
  - Dagozkion formulak aplikatzen ditu irudi garrantzitsuenen perimetroak eta azalerak kalkulatzeko (triangelua, laukizuzena, zirkunferentzia, zirkulua).

- Poligono erregularren propietate bereizgarriak bereizten eta deskribatzen ditu: barne-angeluak, zentroko angeluak, diagonalak, apotema, simetriak, etab.
  - Irudi lauen azalerak kalkulatu eta irudiak oinarriko iruditan deskonposatu.
  - Neurketarekin lotutako problemak ebazten ditu, prozedura informalek eta prozedura akademikoak erabiliz.
- 7. Denetariako informazioak taulen eta grafikoaren bidez antolatzea eta interpretatzea, mendekotasun-erlazioak identifikatuz –proportzionaltasun zuzenekoak, bereziki– , eta ezagutza hori eguneroko bizitzako problemak ebazpenean aplikatzea.**
- Egoera bakoitzean agertzen diren aldagaiak identifikatu eta deskribatu.
  - Aldagaien arteko mendekotasuna aztertu eta erlazio posibleak bilatu.
  - Proporzionaltasun zuzenarekin lotutako problemak identifikatu eta ebazten ditu.
  - Taulen eta grafikoaren irakurketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egiten du, estatistikoak barne.
  - Grafikoak marrazten ditu koordinatu-ardatzetan, taulak edo erlazioak oinarri hartuta.
  - Software egokia erabiltzen du grafikoak egiteko eta interpretatzeko.
- 8. Datuak antolatzeko eta grafiko estatistikoak sortzeko denetariako prozedurak erabiltzea, eta lortutako emaitzak abiapuntu hartuta arrazoizko ondorioak ateratzea.**
- Aztertu beharreko aldagai mota kuantitatiboa edo kualitatiboa den bereizten du.
  - Datuak balio-taulatan antolatzen ditu.
  - Grafiko estatistikoak egiten ditu (barra-diagrama, sektore-diagrama...), software egokia erabiliz.
  - Komunikabideetatik ateratako grafiko estatistiko errazak interpretatu.
  - Taula eta grafiko estatistikoak dituzten problemak ebazten ditu.
- 9. Zorizko gertaeren probabilitate nozioa esleitzea, enpirikoki lortutako maiztasun erlatibo kontzeptua abiapuntu hartuta, eta terminologia egokia erabiltzea.**
- Ausazko fenomenoak eta fenomeno deterministak identifikatu eta bereizten ditu.
  - Lexiko egokia erabiltzen du ausazko fenomeno jakin batzuk gertatzeko aukerak deskribatzeko.
  - Maiztasun erlatibo kontzeptua erabiltzen du eta maiztasun hori kalkulatu eta simulatu daitezkeen esperimendu errazekin lotutako gertaeretan.
  - Esperimendu errazetan ausazko gertaera baten aukerei buruzko arrazoizko iragarpenak egiten ditu.
  - Gertaera bati probabilitate bat esleitzen dio, haren maiztasun erlatiboa oinarri hartuta.
- 10. Problema ebaztea modelo heuristikoa bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, eskema bat marraztea, etab.) beharrezko kalkulak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.**
- Problema irakurtzen eta ulertzen du, eta proposatutako problemak datuak eta ezezagunak identifikatu.

- Problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematiko sinpleak erabiltzen eta egiten ditu.
- Zenbait estrategia heuristiko dakizki eta aplikatzen ditu, problema ebazteko.
- Problema ebazteko zenbait alternatiba aztertzen ditu, eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten du.
- Soluzioa egiaztatzen du, jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak diren ondorioak ateratzen ditu.
- Lortutako emaitzak jakinarazten ditu, garatutako ideiak eta prozesuak hizkuntza argi batez azaltzen ditu, eta txosten edo dokumentu digitalak egiten ditu, beharrezkoa bada.

**11. Jarduera matematikoarekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, pertseberantzia eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritzia ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.**

- Badaki Matematikako eragiketak eta prozedurak menderatzea garrantzitsua dela, eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duen tresna delako.
- Lanean interesa agertzen du eta etengabe saiatzen da.
- Emaitzak ordenan, argi eta garbi, eta txukun aurkezten ditu.
- Prozesuak eta emaitzak bere mailari dagokion zorrotasunez arrazoitzen eta azaltzen ditu.
- Talde-lanerako zereginak banatzen laguntzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu.
- Alternatibak planteatzen ditu eta taldeko eztabaida-prozesua eta iritzi-trukea balioesten du, hobetzeko aukera bat den aldetik.
- Benetako munduko eta matematikako munduko problemen artean loturak ezartzen ditu.

### 2.1.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

**1. Zenbaki oso, zatiki, zenbaki hamartar eta ehuneko errazen kalkuluak egitea, propietate garrantzitsuenak erabiliz, eta erantzun zehatza edo hurbildua behar den erabakitzea, eta kalkulatzeko modurik egokiena (buruzkoa, arkatza eta papera, kalkulagailua) segurtasunez aplikatzea.**

- Zenbait zenbaki mota bereizten ditu: osoak, zatikiak eta hamartarrak.
- Kalkuluak efikaziaz egiten ditu zenbaki horiekin, buruzko kalkulua, arkatza eta papera edo kalkulagailua erabiliz, berretzaile arrunta duten berreketak barne.
- Zatikiak dagozkien zenbaki hamartarrekin eta ehunekoekin lotzen ditu, eta adierazpen mota horien arteko zenbakizko sare bat osatzen du.
- Idazkera zientifikoa erabiltzen du zenbaki handiak adierazteko eta biderketak eta zatiketak egiteko.
- Zenbakien erro karratuak kalkulatzeko, hurbilketa bidez edo kalkulagailua erabiliz.

- Egin beharreko eragiketak iritzira kalkulatzen ditu eta lortutako emaitzak arrazoizkoak diren aztertzen du.
  - Zenbaki hamartarrak biribiltzen ditu eta hurbilketaren maila adierazten du.
  - Propietateak, eragiketen hierarkia eta parentesien erabileraren arauak behar bezala erabiltzen ditu kalkulu errazetan.
  - Zenbaki motak identifikatzen eta erabiltzen ditu, informazio kuantitatiboa behar bezala adierazteko eta interpretatzeko.
  - Buruzko kalkuluko estrategiak garatzen ditu eta eskatutako doitasuna balioesten du.
- 2. Zenbaki osoen, hamartarren eta zatikien arteko oinarrizko eragiketak (berreketak eta erro karratua barne) egin beharreko problemak ebaztea, kalkuluak egiteko baliabide egokienak erabiliz, eta emaitza testuinguruari nola egokitzen zaion balioestea.**
- Proposatutako problemen enuntziatua irakurtzen eta ulertzen du.
  - Problemaren enuntziatuan datuak eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Problemaren ebazpenean jarraitu beharreko urratsak planifikatzen ditu.
  - Problema ebazteko egin beharreko kalkuluak efikaziaz eta segurtasunez egiten ditu, baliabide egokiena erabiliz.
  - Lortutako emaitzak interpretatzen ditu eta lortutako soluzioa egiaztatzen du.
  - Problema ebazteko prozesua argi eta garbi azaltzen du, eta egindako urratsak eta hartutako erabakiak arrazoibide zuzenen bidez azaltzen ditu.
  - Jarraitutako prozesua jakinarazi, hari buruzko gogoeta egin eta ezagutza hori beste problema batzuk ebazteko erabiltzen du.
- 3. Zenbakizko proportzionaltasuneko eta proportzionaltasun geometrikoko erlazioak identifikatzea, eta proportzionaltasunarekin lotutako eguneroko bizitzako egoerak ebazteko erabiltzea.**
- Bi magnitudeen arteko zenbakizko proportzionaltasuneko erlazioak (zuzenak nahiz alderantzizkoak) identifikatzen ditu, zenbait testuingurutan.
  - Proportzionaltasun-arrazoia kalkulatzen du.
  - Magnitude zuzenki eta alderantziz proportzionalen (banaketak...) problemak ebazten ditu.
  - Zenbait estrategia aplikatzen ditu (taulak erabiltzea, proportzionaltasun-arrazoia kalkulatzea, batekotan adieraztea, etab.) proportzionaltasunarekin lotutako problemak ebazteko.
  - Proportzionaltasun geometrikoari buruzko alderdiak identifikatzen ditu zenbait testuingurutan.
  - Antzeko irudiak identifikatzen ditu eta haien arteko antzekotasun-arrazoia kalkulatzen du.
  - Talesen teorema aplikatzen du eta triangeluen antzekotasuna erabiltzen du geometriako problemak ebazteko.
  - Eskalei buruzko problemak ebazten ditu, arrazoiak eta proportzioak erabiliz.
  - Antzeko irudien azalerak eta bolumenak kalkulatzen ditu, antzekotasun-arrazoia oinarri hartuta.

**4. Hizkuntza aljebraikoa erabiltzea eguneroko bizitzako problemak ebazteko, bigarren mailako ekuazioak eta bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak planteatuz eta ebartziz.**

- Adierazpen aljebraiko sinpleen kalkuluak egiten ditu.
- Formulak eta gai orokorrak kalkulatzeko jarraibideei eta erregulartasunei erreparatuz.
- Adierazpen aljebraiko baten zenbakizko balioa kalkulatzeko.
- Ekuazioen bidez adieraz daitezkeen egoerak hizkuntza aljebraikoan adierazten ditu, eta ezezagunak identifikatzen ditu.
- Lehen eta bigarren mailako ekuazioak ebazten ditu.
- Bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak ebazten ditu.
- Emaizak problemaren testuinguruan interpretatzen ditu, jarraitutako prozesua azaltzen du, arrazoibide zuzenen bidez, eta koherentzia balioesten du.
- Software egokia erabiltzen du kalkulu aljebraikoak egiteko eta ekuazioak eta sistemak ebazteko.

**5. Espazioen eta objektuen luzerak, azalerak eta bolumenak planteatutako egoerarako egokia den zehaztasunez iritzira kalkulatzeko eta kalkulatzeko, iritzirako kalkuluaren edo kalkuluaren emaitza unitaterik egokienean adieraztea, eta neurketa-prozesuak ulertzea eta inguruko problemen ebazpenetan aplikatzea.**

- Egin beharreko neurketen iritzirako kalkulu doituak egiten ditu, hurbileko erreferentziak erabiliz.
- Irudi eta gorputz geometriko garrantzitsuenen (triangelua, laukizuzena, zirkunferentzia, zirkulua, prisma, piramidea, zilindroa, konoa eta esfera) perimetroak, azalerak eta bolumenak kalkulatzeko formula egokiak aplikatzen ditu.
- Irudien eta gorputzen azalerak eta bolumenak kalkulatzeko, zenbait metodo erabiliz; bereziki, oinarrizko irudi eta gorputzetan deskonposatuz.
- Gorputz geometrikoen (prisma, piramidea, zilindroa, konoa) garapen lauak bereizten eta egiten ditu.
- Neurketarekin lotutako problemak ebazten ditu, prozedura informalek eta prozedura akademikoak erabiliz.
- Pitagorasen teorema aplikatzen du elementu geometrikoen neurketarekin lotutako problemak ebazteko.

**6. Taula baten, grafiko baten, adierazpen aljebraiko baten edo enuntziatu baten bidez adierazitako erlazio funtzional sinpleak interpretatzea, haietatik balioak lortzea eta aztertutako fenomenoaren ondorioak ateratzea.**

- Egoera bakoitzean agertzen diren aldagaiak identifikatzen ditu.
- Aldagaien arteko mendekotasuna aztertu eta erlazio posibleak bilatzen ditu.
- Bi aldagaien arteko proportzionaltasun zuzena eta alderantzizkoa adierazteko moduak (grafiko bidezkoa, taula bidezkoa, ahozkoa eta aljebraikoa) lotzen ditu.
- Aztertu beharreko taulen eta grafikoaren irakurketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egiten du.

- Funtzio baten zenbakizko balioak kalkulatzeko eta gai da, balio horiek oinarri hartuta, taula esanguratsu bat egiteko.
  - Funtzio errazen grafikoak koordinatu-ardatzetan marrazten ditu, taulak edo erlazioak oinarri hartuta, edo bitarteko teknologikoak erabiliz.
  - Grafiko bat aztertzen du eta azterketaren emaitza adierazitako aldagaien esanahiarekin lotzen du, eta tarte konstanteak, gorakorrek eta beherakorrek bereizten ditu.
- 7. Funtzio linealak eta afinak denetarikotestuinguruetan bereiztea, adieraztea eta aztertzea, eta ezagutza hori problemak ebazteko erabiltzea.**
- Egoerari buruzko aldagaiak (mendekoa eta askea) identifikatzen ditu.
  - Aldagaien arteko erlazio lineala edo afina adierazteko zenbait modu bereizten eta elkarrekin lotzen ditu (grafiko bidezkoa, taula bidezkoa, ahozkoa eta aljebraikoa).
  - Ekuaziotik abiatuta grafikoak lortzen du eta alderantziz.
  - Zuzen baten malda behar bezala interpretatzen eta kalkulatzeko.
  - Benetako egoerak funtzio linealen edo afinen bidez modelizatzen ditu, kasu partikularrak aztertzen eta fenomenoaren bilakaera iragartzen du.
  - Bitarteko teknologikoak erabiltzen ditu grafikoak eta ekuazioak lotzeko.
- 8. Populazio estatistikotati buruzko datuak biltzea, antolatzea eta adieraztea, metodo estatistikoteta tresna teknologikotegokiak erabiliz, eta alderdi nabarmenenak analizatzea.**
- Populazio batetik ateratako datuak biltzen eta antolatzen ditu, eta taula estatistikotetan adierazten ditu.
  - Maiztasun absolutuak eta erlatiboak kalkulatzeko.
  - Aztertutakotagoerarako egokiena den grafiko estatistikotaa egiten du.
  - Datu-banaketa baten batez bestekoa, mediana eta moda behar bezala kalkulatzeko eta interpretatzeko.
  - Kalkulagailua edo software egokia erabiltzen du, parametroak kalkulatzeko eta grafiko estatistikotak sortzeko.
  - Aztertutakotadatuak eta grafikoak oinarri hartuta, arrazoizko ondorioak ateratzeko eta txostenak egiten ditu, informazio garrantzitsua jakitera emateko.
- 9. Gertaera baten probabilitateari buruzko iragarpenak egitea, aurrez enpirikotiki edo kasu errazak aztertuz lortutakotinformazioa abiapuntu hartuta.**
- Lexiko egokia erabiltzen du ausazko fenomeno jakin batzuk gertatzeko probabilitatea deskribatzeko.
  - Ausazko gertaera baten kasu posibleak zenbatzen ditu, taulak edo zuhaitz-diagrama sinpleak erabiliz.
  - Maiztasun erlatibo kontzeptua erabiltzen du, maiztasun hori esperimentu errazekin lotutakotogertaeretan kalkulatzeko eta ehuneko gisa adierazten du.
  - Oinarriko gertaera ekiprobableak eta ez-ekiprobableak bereizten ditu.
  - Esperimentu errazetan ausazko gertaera baten probabilitatearen balioari buruzko arrazoizko iragarpenak egiten ditu.

- Gertaera baten probabilitatea esleitzen du, Laplaceren erregela aplikatuz.
  - Software egokia (analogikoa edo digitala) erabiltzen du, ausazko egoeren simulazioak egiteko.
- 10. Problema ebaztea modelo heuristikoa bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema problema txikiagotan banatzea, eskema bat marraztea, etab.) beharrezko kalkuluak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.**
- Problema irakurtzen eta ulertzen du, eta proposatutako problemen datuak eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematiko sinpleak erabiltzen eta egiten ditu, eta espero daitezkeen emaitzei buruzko iragarpenak egin eta haien egokitasuna balioesten du.
  - Zenbait estrategia heuristikoa dakizki eta aplikatzen ditu, problema ebazteko.
  - Problema ebazteko zenbait alternatiba aztertzen ditu, arrazoibide zuzenen bidez balioesten ditu eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten du.
  - Soluzioa egiaztatzen du, testuinguruan interpretatzen du, jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak diren ondorioak ateratzen ditu.
  - Lortutako emaitzak jakinarazten ditu, garatutako ideiak eta arrazoiketarako hizkuntza argi batez azaltzen ditu, eta txosten edo dokumentu digitalak egiten ditu, beharrezkoa bada.
  - Ikerketa txikiak egiten ditu, zenbakizkoak nahiz geometrikoak.
- 11. Jarduera matematikoaekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, pertseberantzia eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritziak ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.**
- Badaki Matematikako eragiketarako eta prozedurak menderatzea garrantzitsua dela, eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duen tresna delako.
  - Lanean interesa agertzen du eta etengabe saiatzen da, galderak egiten ditu eta erantzun egokiak bilatzen ditu.
  - Emaitzak ordenan, argi eta garbi, eta txukun aurkezten ditu.
  - Prozesuak eta emaitzak bere mailari dagokion zorroztasunez arrazoitzen eta azaltzen ditu.
  - Talde-lanerako zereginak banatzen laguntzen du.
  - Alternatibak planteatzen ditu eta taldeko eztabaida-prozesua eta iritzi-trukea balioesten du, hobetzeko aukera bat den aldetik.
  - Benetako munduko eta Matematikako munduko problemen artean loturak ezartzen ditu.



### 2.1.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila: Ikaskuntza akademikoak

1. **Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea problemak ebazteko, kalkulatzeko modu egokiena (buruzkoa, arkatza eta papera, kalkulagailua) aplikatuz, eta testuinguruari egokituta adieraztea.**
  - Zenbaki motak -arruntak, osoak, arrazionalak eta irrazionalak- bereizten ditu eta informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko erabiltzen ditu.
  - Kalkuluak efikaziaz egiten ditu zenbaki horiekin, buruzko kalkuluak, arkatza eta papera edo kalkulagailua erabiliz, bai eta berreketak eta erroketak ere.
  - Zatikiak adierazpen hamartar finituekin edo periodikoekin lotzen ditu, eta alderantziz.
  - Erroketak kalkulatzeko erabiltzen ditu eta berreketekin lotzen ditu.
  - Idazkera zientifikoa erabiltzen du zenbaki handiak edo txikiak adierazteko, eta haien arteko eragiketak egiten ditu.
  - Iritzirako kalkuluak behar bezala egiten ditu eta emaitzak baliagarriak diren erabakitzen du.
  - Eteteko eta biribiltzeko teknikak aplikatzen ditu, zenbakiak doitasun egokiz adierazten ditu eta egindako errorea bornatzen du.
  - Zenbaki arrazionalen eta irrazionalen problemak ebazten ditu.
2. **Enuntziatu baten bidez adierazitako propietate bat edo erlazio bat hizkuntza aljebraikoan adieraztea, eta zenbakizko sekuentzien eratze-legeak adierazten dituzten formulak lortzea, kasu errazetan.**
  - Ahozko informazioa hizkuntza aljebraikoan adierazten du, eta alderantziz.
  - Zenbakizko erlazioak eta jarraibideak deskribatzen ditu.
  - Errepikapen-lege baten bidez edo  $n$ -ren mende adierazitako funtzio baten bidez zenbakizko jarraibideak deskribatzen eta orokortzen dituzten adierazpen aljebraikoei buruzko aieruak egiten ditu.
  - Progresio aritmetikoak eta geometrikoak identifikatzen ditu, eta gai orokorra adierazten du.
  - Egindako aieruak baliozkoak diren aztertzen eta egiaztatzen du.
  - Progresio aritmetikoen eta geometrikoen problema sinpleak ebazten ditu, gai orokorra lortzen du, eta progresioekin lotutako formulak eta teknikak aplikatzen ditu.
  - Jarraitutako prozesua arrazoitzeko eta adierazteko gai da, frogapen sinpleak egiteko, ezagutza aljebraikoa baliatuz.
3. **Adierazpen aljebraiko sinpleak lortzea eta erabiltzea, hizkuntza aljebraikoa erabiltzea eguneroko bizitzako problemak ebazteko, lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak planteatuz eta ebaziz, eta lortutako emaitzak interpretatzea.**
  - Adierazpen aljebraiko baten zenbakizko balioa kalkulatzeko erabiltzen du.
  - Polinomioen arteko eragiketak egiten ditu.
  - Adierazpen polinomiko sinpleak faktORIZATZEN ditu.

- Laburbidezko formulak (binomioaren berbidura, batuketa bider kenketa) erabiltzen ditu hizkuntza aljebraikoari buruzko denetariko testuinguruetan.
  - Lehen eta bigarren mailako ekuazioak ebazten ditu, grafikoki eta aljebraikoki.
  - Bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak ebazten ditu, grafikoki eta aljebraikoki.
  - Ekuazioen bidez adieraz daitezkeen egoerak hizkuntza aljebraikoan adierazten ditu, eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen ditu, jarraitutako prozesua azaltzen du, arrazoibide zuzenen bidez, eta koherentzia balioesten du.
  - Software egokia erabiltzen du kalkulu aljebraikoak egiteko, grafikoki adierazteko, eta ekuazioak eta sistemak ebazteko.
- 4. Irudi geometriko batetik beste irudi geometriko bat lortzeko planoko higidurak bereiztea, eta ohiko diseinuak, artelanak edo naturan ageri diren konfigurazio geometrikoak geometriaren ikuspegitik aztertzeo eta norberaren konposizioak egiteko erabiltzea.**
- Translazioen, biraketen eta simetrien eraginak bereizten ditu.
  - Translazioen, biraketen eta simetrien elementu bereizgarriak identifikatzen ditu.
  - Norberaren konposizio geometrikoak sormenez egiten ditu eta ongi egindako lanak atsegin ditu.
  - Mosaikoetan eta konfigurazio geometrikoetan agertzen diren higidurak aztertzen ditu.
  - Software egokia erabiltzen du, irudien planoko higidurak aztertzeo eta ikertzeo.
- 5. Proporzionaltasun geometrikoko erlazioak identifikatzea eta neurri zuzenak edo zeharkakoak kalkulatzeko egoera errealean, tresna, teknika edo formula egokiak erabiliz.**
- Antzeko irudiak identifikatzen ditu, elementu baliokideen arteko proporzionaltasun-erlazioak ezartzen ditu eta antzekotasun-arrazoia kalkulatzeko.
  - Talesen teorema aplikatzen du eta triangeluen antzekotasuna erabiltzen du geometriko problemak ebazteko.
  - Pitagorasen teorema aplikatzen du neurri-problemak ebazteko.
  - Benetako luzera- eta azalera-neurriak kalkulatzeko, planoak, mapak, airetik argazkiak eta abar oinarri hartuta.
  - Leku geometrikoak identifikatzen eta deskribatzen ditu, haien propietateetatik abiatuta.
- 6. Oinarrizko gorputz geometrikoen elementuak eta propietate bereizgarriak bereiztea, deskribatzea eta kalkulatzeko, eta lur-esferan koordenatu geografikoak identifikatzea.**
- Poliedro eta biraketa-gorputz nagusiak bereizten eta deskribatzen ditu.
  - Poliedroen eta biraketa-gorputzen elementu nagusiak (ardatzak, simetria-planoak) identifikatzen ditu.
  - Poliedroen, piramideen, konoen eta esferen azalera eta bolumenak kalkulatzeko.
  - Poloak, meridioak, paraleloak eta ekuatorea identifikatzen ditu lur-globoan.
  - Puntu bat lur-esferan kokatzen du, latitudeari eta longitudeari erreparatuz.

**7. Erlazio linealak eta koadratikoak erabiltzea zenbait modutan -ahoz, taula bidez, grafiko bidez edo aljebraikoki- adierazitako egoera errealak aztertzeko, eta haien artean dagokion transferentzia egitea.**

- Magnitudeen arteko mendekotasun lineal eta koadratikoak identifikatzen ditu.
- Aztertu beharreko funtzioarekin lotutako balio-taula egiten du.
- Dagokion grafikoa marrazten du, eskala egokia erabiliz.
- Erlazioaren adierazpen aljebraikoa lortu eta grafikoarekin lotzen du, eta alderantziz.
- Benetako egoerak modelizatzen ditu, funtzio linealak, afinak edo koadratikoak erabiliz.
- Zuzen baten ekuazioak zehazten ditu, zuzena marraztu eta malda behar bezala interpretatzen du.
- Parabola 2. mailako funtzio polinomikoarekin lotzen du eta elementu bereizgarriak lortzen ditu.
- Modelotik ondorioak ateratzen ditu eta aztertutako fenomenoaren testuinguruan kokatzen ditu.
- Tresna teknologiko egokiak erabiltzen ditu, funtzioak adierazteko eta grafikoekin lotzeko.

**8. Informazio estatistikoak sortzea eta interpretatzea, taulak, grafikoak eta zentralizazio-nahiz sakabanatze-parametro estatistikoaren kalkulak oinarri hartuta.**

- Populazioa eta lagina bereizten ditu, eta aukeratutako laginaren adierazgarritasuna balioesten du.
- Aldagai kualitatiboak eta kuantitatiboak bereizten ditu.
- Informazioa taulatan eta grafikotan antolatzen du.
- Datu multzo baten maiztasun absolutuak eta erlatiboak kalkulatzeko.
- Banaketa baten batez bestekoa, mediana, moda eta desbideratze tipikoa kalkulatzeko eta interpretatzeko.
- Taula bidez, grafiko bidez edo parametro estatistikoaren bidez adierazitako informazioa kritikoki interpretatzen du, eta populazioari buruzko ondorioak ateratzen ditu.
- Bitarteko teknologiko egokiak erabiltzen ditu grafiko estatistikoak lortzeko, parametro estatistikoak kalkulatzeko, eta gizarteko edo eguneroko bizitzako informazioa jakinarazteko.

**9. Iragarpenak egitea gertaera bat betetzeko aukerei buruz, aurrez enpirikoki lortutako informazioa edo aukeren zenbaketaren bidez lortutakoa abiapuntu hartuta.**

- Ausazko esperimentu simple bateko oinarritzko gertaerak identifikatzen ditu.
- Lexiko egokia erabiltzen du gertaera jakin batzuk gertatzeko aukerak deskribatzeko.
- Gertaera bati probabilitate bat esleitzen dio, haren maiztasun erlatiboa oinarri hartuta eta simulazioa edo esperimentazioa baliatuz.
- Datuak zenbatzeko oinarritzko teknikak (zuhaitz-diagramak, taulak, etab.) erabiltzen ditu.
- Laplaceren legea behar bezala aplikatzen du, gertaera baten probabilitatea kalkulatzeko.

- Erabaki arrazoituak hartzen ditu, ausazko gertaera baten probabilitatea kalkulatzeko.
  - Software egokia (analogikoak edo digitala) erabiltzen du, ausazko egoeren simulazioak egiteko.
- 10. Problema ebaztea modelo heuristikoko bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (zenbaketa exhaustiboa, indukzioa, antzeko problemak bilatzea, amaieratik hastea, etab.) beharrezko kalkuluak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.**
- Problema irakurtzen eta ulertzen du, eta proposatutako problemen datuak eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematiko sinpleak erabiltzen eta egiten ditu, eta espero daitezkeen emaitzei buruzko iragarpenak egin eta haien egokitasuna balioesten du.
  - Zenbait estrategia heuristikokoak dakizki eta aplikatzen ditu, problema ebazteko.
  - Problema ebazteko zenbait alternatiba aztertzen ditu, arrazoibide zuzenen bidez balioesten ditu eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten du.
  - Soluzioa egiaztatzen du, testuinguruan interpretatzen du, jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak diren ondorioak ateratzen ditu.
  - Lortutako emaitzak jakinarazten ditu, garatutako ideiak eta arrazoiketarako hizkuntza argi batez azaltzen ditu, eta txosten edo dokumentu digitalak egiten ditu, beharrezkoa bada.
  - Denetariko problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematikokoak erabiltzen eta egiten ditu.
  - Ikerketa txikiak egiten ditu, zenbakizkoak nahiz geometrikoak.
- 11. Jarduera matematikorekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, pertseberantzia eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritziak ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.**
- Badaki Matematikako eragiketarako eta prozedurak menderatzea garrantzitsua dela, eguneroko bizitzako eta eskolako problema ebazten laguntzen duen tresna delako.
  - Lanean interesa agertzen du eta etengabe saiatzen da.
  - Emaitzak ordenan, argi eta garbi, eta txukun aurkezten ditu.
  - Prozesuak eta emaitzak bere mailari dagokion zorroztasunez arrazoitzen eta azaltzen ditu.
  - Talde-lanerako zereginak banatzen laguntzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu.
  - Alternatibak planteatzen ditu eta taldeko eztabaida-prozesua eta iritzi-trukea balioesten du, hobetzeko aukera bat den aldetik.

### 2.1.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila: Ikaskuntza aplikatuak

1. **Zenbaki arrazionalak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea problemak ebazteko, kalkulatzeko modu egokiena (buruzkoa, arkatza eta papera, kalkulagailua) aplikatuz, eta testuinguruari egokituta adieraztea.**
  - Zenbaki motak -arruntak, osoak eta arrazionalak- bereizten ditu eta informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko erabiltzen ditu.
  - Kalkuluak efikaziaz egiten ditu zenbaki horiekin, buruzko kalkulua, arkatza eta papera edo kalkulagailua erabiliz, bai eta berreketak eta erroketak ere.
  - Zatikiak adierazpen hamartar finituekin edo periodikoekin lotzen ditu, eta alderantziz.
  - Idazkera zientifikoa erabiltzen du zenbaki handiak edo txikiak adierazteko, eta haien arteko eragiketak egiten ditu.
  - Iritzirako kalkuluak behar bezala egiten ditu eta emaitzak baliagarriak diren erabakitzen du.
  - Eteteko eta biribiltzeko teknikak aplikatzen ditu, zenbakiak doitasun egokiz adierazten ditu eta egindako errorea bornatzen du.
  - Zenbaki arrazionalen problemak ebazten ditu.
2. **Enuntziatu baten bidez adierazitako propietate bat edo erlazio bat hizkuntza aljebraikoan adieraztea, eta zenbakizko sekuentzien eratze-legeak adierazten dituzten formulak lortzea, kasu errazetan.**
  - Ahozko informazioa hizkuntza aljebraikoan adierazten du, eta alderantziz.
  - Zenbakizko erlazioak eta jarraibideak deskribatzen ditu.
  - Errepikapen-lege baten bidez edo  $n$ -ren mende adierazitako funtzio baten bidez zenbakizko jarraibideak deskribatzen eta orokortzen dituzten adierazpen aljebraikoei buruzko aieruak egiten ditu, kasu errazetan.
  - Egindako aieruak baliozkoak diren aztertzen eta egiaztatzen du.
  - Progresio aritmetikoen eta geometrikoen problema sinpleak ebazten ditu, gai orokorra lortzen du, eta progresioekin lotutako formulak eta teknikak aplikatzen ditu.
3. **Hizkuntza aljebraikoa eta adierazpen aljebraiko errazak erabiltzea eguneroko bizitzako problemak ebazteko, bigarren mailako ekuazioak eta bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak planteatuz eta ebartziz.**
  - Adierazpen aljebraiko baten zenbakizko balioa kalkulatu du.
  - Laburbidezko formulak (binomioaren berbidura, batuketa bider kenketa) erabiltzen ditu.
  - Lehen eta bigarren mailako ekuazioak ebazten ditu, grafikoki eta aljebraikoki.
  - Bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak ebazten ditu, grafikoki eta aljebraikoki.
  - Ekuazioen bidez adieraz daitezkeen egoerak hizkuntza aljebraikoan adierazten ditu, eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen ditu, jarraitutako prozesua azaltzen du, arrazoibide zuzenen bidez, eta koherentzia balioesten du.

- Software egokia erabiltzen du kalkulu aljebraikoak egiteko, grafikoki adierazteko, eta ekuazioak eta sistemak ebazteko.
- 4. Irudi geometriko batetik beste irudi geometriko bat lortzeko planoko higidurak bereiztea, eta ohiko diseinuak, artelanak edo naturan ageri diren konfigurazio geometrikoak geometriaren ikuspegitik aztertzeo eta norberaren konposizioak egiteko erabiltzea.**
- Translazioen, biraketen eta simetrien eraginak bereizten ditu.
  - Translazioen, biraketen eta simetrien elementu bereizgarriak identifikatzen ditu.
  - Norberaren konposizio geometrikoak sormenez egiten ditu eta ongi egindako lanak atsegin ditu.
  - Mosaikoetan eta konfigurazio geometrikoetan agertzen diren higidurak aztertzen ditu.
  - Software egokia erabiltzen du, irudien planoko higidurak aztertzeo eta ikertzeo.
- 5. Proporzionaltasun geometrikoko erlazioak identifikatzea eta neurri zuzenak edo zeharkakoak kalkulatzea egoera errealean, tresna, teknika edo formula egokiak erabiliz.**
- Antzeko irudiak identifikatzen ditu, elementu baliokideen arteko proporzionaltasun-erlazioak ezartzen ditu eta antzekotasun-arrazoia kalkulatzeko.
  - Talesen teorema aplikatzen du eta triangeluen antzekotasuna erabiltzen du geometriako problemak ebazteko.
  - Eskalei buruzko problemak ebazten ditu.
  - Pitagorasen teorema aplikatzen du neurri-problemak ebazteko.
  - Benetako luzera- eta azalera-neurriak kalkulatzeko, planoak, mapak, airetik argazkiak eta abar oinarri hartuta.
  - Leku geometrikoak identifikatzen eta deskribatzen ditu, haien propietateetatik abiatuta.
- 6. Oinarrizko gorputz geometrikoen elementuak eta propietate bereizgarriak bereiztea, deskribatzea eta kalkulatzea, eta lur-esferan koordenatu-geografikoak identifikatzea.**
- Poliedro eta biraketa-gorputz nagusiak bereizten eta deskribatzen ditu.
  - Poliedroen eta biraketa-gorputzen elementu nagusiak (ardatzak, simetria-planoak) identifikatzen ditu.
  - Poliedroen, piramideen, konoen eta esferen azalera eta bolumenak kalkulatzeko.
  - Poloak, meridioak, paraleloak eta ekuatorea identifikatzen ditu lur-globoan.
  - Puntu bat lur-esferan kokatzen du, latitudeari eta longitudeari erreparatuz.
- 7. Erlazio linealak eta koadratikoak erabiltzea zenbait modutan -ahoz, taula bidez, grafiko bidez edo aljebraikoki- adierazitako egoera errealeak aztertzeo, eta haien artean dagokion transferentzia egitea.**
- Magnitudeen arteko mendekotasun lineal eta koadratikoak identifikatzen ditu.
  - Aztertu beharreko funtzioarekin lotutako balio-etaula egiten du.
  - Dagokion grafikoa marrazten du, eskala egokia erabiliz.
  - Erlazio funtzionalaren adierazpen aljebraikoa lortu eta grafikoarekin lotzen du, eta alderantziz.

- Benetako egoerak modelizatzen ditu, funtzio linealak, afinak edo koadratikoak erabiliz.
  - Zuzen baten ekuazioak zehazten ditu, zuzena marraztu eta malda behar bezala interpretatzen du.
  - Parabola 2. mailako funtzio polinomikoarekin lotzen du eta elementu bereizgarriak lortzen ditu.
  - Modelotik ondorioak ateratzen ditu eta aztertutako fenomenoaren testuinguruan kokatzen ditu.
  - Tresna teknologiko egokiak erabiltzen ditu, funtzioak adierazteko eta grafikoekin lotzeko.
- 8. Informazio estatistikoak sortzea eta interpretatzea, taulak, grafikoak eta zenbait egoeratik ateratako zentralizazio- eta sakabanatze-parametro estatistikoaren kalkulua oinarri hartuta, eta kritikoki interpretatzea.**
- Populazioa eta lagina bereizten ditu, eta aukeratutako laginaren adierazgarritasuna balioesten du.
  - Aldagai kualitatiboak, kuantitatiboak, diskretuak eta jarraituak.
  - Informazioa taulatan eta grafikotan antolatzen du.
  - Datu multzo baten maiztasun absolutuak eta erlatiboak kalkulatzen ditu.
  - Banaketa baten batez bestekoa, mediana, moda eta desbideratze tipikoa kalkulatzen eta interpretatzen ditu.
  - Taula bidez, grafiko bidez edo parametro estatistikoaren bidez adierazitako informazioa kritikoki interpretatzen du, eta populazioari buruzko ondorioak ateratzen ditu.
  - Bitarteko teknologikoak erabiltzen ditu grafiko estatistikoak lortzeko, parametro estatistikoak kalkulatzeko, eta gizarteko edo eguneroko bizitzako informazioa jakinarazteko.
- 9. Problema ebaztea modelo heuristikoko bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (zenbaketa exhaustiboa, indukzioa, antzeko problema bilatzea, amaieratik hastea, etab.) beharrezko kalkulua eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.**
- Problema irakurtzen eta ulertzen du, eta proposatutako problemen datuak eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematiko sinpleak erabiltzen eta egiten ditu, eta espero daitezkeen emaitzei buruzko iragarpenak egin eta haien egokitasuna balioesten du.
  - Zenbait estrategia heuristikoko dakizki eta aplikatzen ditu, problema ebazteko.
  - Problema ebazteko zenbait alternatiba aztertzen ditu, arrazoibide zuzenen bidez balioesten ditu eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten du.
  - Soluzioa egiaztatzen du, testuinguruan interpretatzen du, jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak diren ondorioak ateratzen ditu.

- Lortutako emaitzak jakinarazten ditu, garatutako ideiak eta arrazoiketak hizkuntza argi batez azaltzen ditu, eta txosten edo dokumentu digitalak egiten ditu, beharrezkoa bada.
- 10. Jarduera matematikoarekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, pertseberantzia eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritziak ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.**
- Badaki Matematikako eragiketak eta prozedurak menderatzea garrantzitsua dela, eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duen tresna delako.
  - Lanean interesa agertzen du eta etengabe saiatzen da.
  - Emaitzak ordenan, argi eta garbi, eta txukun aurkezten ditu.
  - Prozesuak eta emaitzak bere mailari dagokion zorrotasunez arrazoitzen eta azaltzen ditu.
  - Talde-lanerako zereginak banatzen laguntzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu.
  - Alternatibak planteatzen ditu eta taldeko eztabaida-prozesua eta iritzi-trukea balioesten du, hobetzeko aukera bat den aldetik.

### 2.1.3.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila: Ikaskuntza akademikoak

- 1. Zenbaki motak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea informazioa bildu, eraldatu eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzarekin nahiz arlo zientifikoarekin lotutako problemak ebazteko.**
- Zenbaki motak (arruntak, osoak, arrazionalak eta irrazionalak) bereizten ditu, zer irizpideri jarraitu dion adierazten du, eta informazio kuantitatiboa behar bezala adierazteko eta interpretatzeko erabiltzen ditu.
  - Kalkuluak efikaziaz egiten ditu, buruzko kalkuluak, arkatza eta papera edo kalkulagailua baliatuz, idazkera egokiena erabiliz, eta berreketak, erroketak eta kalkulu logaritmikoak eginez.
  - Iritzirako kalkuluak behar bezala egiten ditu, eta lortutako emaitzak arrazoizkoak diren edo ez aztertzen du, magnitude-ordenari, dimentsioen koherentziari eta abarri erreparatuz.
  - Zenbaki motak identifikatzen eta erabiltzen ditu, informazio kuantitatiboa behar bezala adierazteko eta interpretatzeko.
  - Erroketen eta berreketen arteko erlazioak adierazten ditu.
  - Kalkuluak egiten ditu mota guztietako berreketekin eta erroketekin, dagozkien propietateak aplikatuz.
  - Zenbaki motak alderatzen, ordenatzen, sailkatzen eta zenbakizko zuzenean adierazten ditu, zenbait eskala erabiliz.
  - Idazkera zientifikoak erabiltzen du dagokien testuinguruetan.
  - Logaritmo errazak kalkulatzeko definizioa edo propietateak aplikatuz.



- Arloko eremuan (zenbaki lehenak, segida bereziak, etab.) zenbakien berariazko kontzeptuak eta propietateak erabiltzea eskatzen duten problema errazak ebazten ditu.
- 2. Hainbat motatako ekuazioak, inekuazioak eta sistema aljebraikoak planteatu eta ebatzi beharreko eguneroko bizitzako eta zientzien beren esparruko problemak ebaztea, ebazpen-algoritmoak trebetasunez aplikatuz.**
- Problemen enuntziatuak hizkuntza aljebraikoan adierazten ditu.
  - Lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta lehen mailako inekuazioak planteatzen eta ebazten ditu, aljebra sinbolikoa eta algoritmo egokienak erabiliz.
  - Ekuazio linealen sistemak planteatzen eta ebazten ditu, eta lortutako emaitzak interpretatzen ditu.
  - Ekuazio linealen sistemak eta inekuazioak grafikoki ebazten ditu.
  - Lortutako emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen ditu eta haien egokitasuna balioesten du.
- 3. Hizkuntza aljebraikoa, eta haren eragiketak eta propietateak trebetasunez erabiltzea, eta horien bidez zenbakizko erlazio matematikoak, alfanumerikoak, geometrikoak, etab. Bai eta problemen ebazpenean ere.**
- Berdintza aljebraikoekin eragiketak egiten ditu, haien propietateak erabiliz.
  - Polinomioekin eta laburbidezko formulekin eragiketak egiten ditu.
  - Polinomio baten erroak kalkulatu eta metodo egokiena erabiliz faktORIZATZEN DU. Ruffiniren metodoa aplikatzen du.
  - Adierazpen aljebraikoekin eragiketak egiten ditu, eta ahal bada sinplifikatu egiten ditu.
  - Zenbaki multzo batean egon daitezkeen erregulartasunak aurkitzen ditu, eta hautemandako erregulartasuna ahozko formula baten edo formula aljebraiko baten bidez adierazten du.
  - Progresio aritmetikoak eta geometrikoak identifikatzen ditu, eta gai orokorra adierazten du.
  - Progresio aritmetikoetako eta geometrikoetako lehen  $n$  gaien batura kalkulatu eta ezagutza hori problemak ebazteko erabiltzen du.
  - Jarraitutako prozesua arrazoitzeko eta adierazteko gai da, frogapen sinpleak egiteko, ezagutza aljebraikoa baliatuz.
  - Hizkuntza aljebraikoa erabiltzen du denetariko problemak ebazteko (aritmetikoak, geometrikoak, etab.).
  - Hizkuntza aljebraikoa erabiltzen du planoko elementu geometrikoak aztertzeko (puntuak, zuzenak, propietateak, distantziak...).
- 4. Magnitudeak kalkulatzeko, neurketa zuzenak eta zeharkakoak eginez, benetako egoerak oinarri hartuta, tresna, teknika edo formula (trigonometrikoak barne) egokienak erabiliz, eta deskribatutako egoerarako egokiena den neurri-unitatea erabiliz.**
- Tresna egokiak erabiltzen ditu gorputz eta irudi geometrikoen angeluak, luzerak, azalerak eta bolumenak neurtzeko, neurri-eskalak interpretatuz.

- Irudien eta gorputzen propietateak kalkulu-estrategia gisa erabiltzen ditu (simetriak, irudi ezagunetan deskonposatzea, etab.), zeharkako neurriak iritzira kalkulatzeko edo kalkulatzeko.
  - Irudi eta gorputz garrantzitsuenen (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak, prismak, piramideak, zilindroak, konoak eta esferak) azalerak eta bolumenak kalkulatzeko, dagozkion formulak erabiltzen ditu eta dagozkien unitateak esleitzen dizkie.
  - Pitagorasen teorema aplikatzen du neurri-testuinguruetan.
  - Neurri-problemak ebazten ditu oinarriko trigonometriako kontzeptuak eta erlazioak erabiliz.
  - Kalkulagailua erabiltzen du arrazoi trigonometrikoak kalkulatzeko.
- 5. Geometria analitiko lauko kontzeptuak eta prozedurak erabiltzea, funtzioak adierazteko eta irudiak, formak eta konfigurazio geometrikoak deskribatzeko eta analizatzeko.**
- Puntuen eta bektoreen koordenatuen artean korrespondentzia analitikoak ezartzen ditu.
  - Bektoreak adierazten ditu planoan.
  - Bektore baten modulua eta planoko bi punturen arteko distantzia kalkulatzeko erabiltzen ditu.
  - Badaki zer esanahi duen zuzen baten maldak eta nola kalkula daitekeen.
  - Zuzen baten ekuazioaren zenbait adierazpen dakizki eta azterketa analitikoan erabiltzen ditu. Paralelotasuna, elkarzutasuna eta intzidentzia.
  - Baliabide teknologiko interaktiboak erabiltzen ditu, irudi geometrikoak sortzeko eta haien propietate bereizgarriei erreparatzeko.
- 6. Erlazio kuantitatiboak identifikatzea egoera batean, zer funtzio motaren bidez adieraz daitezkeen zehaztea, eta grafiko bat edo zenbakizko datuak oinarri hartuta, edo adierazpen aljebraikoaren koefizienteak aztertuz, batez besteko aldakuntza-tasa hurbiltzea eta interpretatzea.**
- Erlazio funtzional baten bidez deskriba daitezkeen magnitudeen arteko erlazioak identifikatzen eta azaltzen ditu, eta grafikoak dagozkien adierazpen aljebraikoekin lotzen ditu.
  - Bi magnitudeen erlazioaren modeloa azaltzen du eta grafikoki adierazten du, erlazio linealaren, koadratikoaren, alderantzizko proportzionaltasunekoaren, esponenzialaren eta logaritmikoaren kasuetarako, informazioaren teknologiak erabilita lortutako zenbait adibide erabiliz.
  - Funtzio horien parametro bereizgarriak identifikatzen, iritzira kalkulatzeko edo kalkulatzeko erabiltzen ditu.
  - Grafiko baten edo taula bateko balioen portaera abiapuntu hartuta, aztertutako fenomenoari buruzko ondorioak arrazoituz azaltzen ditu.
  - Funtzio baten gorakortasuna edo beherakortasuna aztertzen du, batez besteko desbideratze-tasa erabiliz.

**7. Informazio jakin bat analizatzea, benetako egoerekin lotutako erlazio funtzionalak adierazten dituzten taulak eta grafikoak oinarri hartuta, eta haien portaerari, bilakaerari eta izan ditzaketen azken emaitzei buruzko informazioa lortzea.**

- Benetako zenbait egoerari buruzko tauletako eta grafikoetako datuak kritikoki interpretatzen ditu.
- Datuak taulen eta grafikoen bidez adierazten ditu, ardatz eta unitate egokiak erabiliz.
- Grafiko batetik ateratzen diren ezaugarri garrantzitsuenak deskribatzen ditu, aldagaiaren puntu-balioak edo tarteak adieraziz, arkatza, papera eta elementu teknologikoak erabiliz.
- Zenbait balio-aula eta haiei dagozkien grafikoak erlazionatzen ditu, kasu errazetan, eta zergatia azaltzen du.
- Kalkulagailu grafikoa edo ordenagailua abileziaz erabiltzen du, grafikoak marrazteko eta zenbakizko balio bereizgarriak behar den doitasunez adierazteko.

**8. Taula eta grafiko estatistikoak egitea eta interpretatzea, parametro estatistiko ohikoenak kalkulatzeko, bitarteko egokienak erabiliz (arkatza eta papera, kalkulagailua edo ordenagailua, kalkulu-orria), eta erabilitako laginen adierazgarritasuna kualitatiboki balioestea.**

- Terminologia eta lexiko egokiak erabiltzen ditu, egoerak estatistikaren bidez deskribatzeko.
- Taula eta grafiko estatistikoetako datuak kritikoki interpretatzen ditu.
- Maiztasun-aulak egiten ditu, azterketa estatistiko baten lortutako datuak abiapuntu hartuta.
- Datuak taula eta grafiko estatistikoen bidez adierazten ditu, bitarteko teknologiko egokienak (kalkulu-orria edo antzeko zerbait) erabiliz.
- Parametro estatistiko garrantzitsuenak (datu-banaketa baten batez bestekoa eta desbideratze tipikoa) kalkulatzeko eta interpretatzeko, kalkulagailua edo software egokia erabiliz.
- Ausazko lagin bat aukeratzen du eta haren adierazgarritasuna balioesten du.
- Sakabanatze-diagramak interpretatzen eta adierazten ditu, eta aldagaien arteko erlazioa interpretatzen du.

**9. Zoriarekin eta probabilitatearekin lotutako egoerak eta fenomenoak bereiztea, kalkulu kombinatorioko kontzeptuak eta teknikak edo beste teknika eta estrategia batzuk erabiltzea, eguneroko bizitzako denetariako problemak ebazteko.**

- Ausazko egoerak eta fenomenoak identifikatzen eta deskribatzen ditu, gertaerak deskribatzeko terminologia egokia erabiliz.
- Ausazko gertaerei probabilitateak esleitzen dizkie, esperimendu sinpleetan.
- Laplaceren erregela aplikatzen du, zenbaketa-estrategia sinpleak eta teknika kombinatorio egokiak erabiliz.
- Gertaera konposatu errazen probabilitatea kalkulatzeko, zuhaitz-diagramak eta kontingentzia-aulak erabiliz batik bat.
- Ausazko esperimendu eta simulazioen emaitzei buruzko aieruak egiten eta egiaztatzen ditu.

- Probabilitate baldintzatuarekin lotutako problema errazak ebazten ditu.
  - Software egokia (analogikoa edo digitala) erabiltzen du, ausazko egoeren simulazioak egiteko.
- 10. Problema ebaztea modelo heuristikoa bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (zenbaketa exhaustiboa, indukzioa, antzeko problemak bilatzea, amaieratik hastea, absurdora eramatea, problema ebazita imajinatzea, kontraadibideak, etab.) beharrezko kalkuluak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.**
- Problema irakurtzen eta ulertzen du, eta proposatutako problemen datuak eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Zenbait estrategia heuristikoa dakizki eta aplikatzen ditu, problema ebazteko.
  - Problema ebazteko zenbait alternatiba aztertzen ditu, eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten du.
  - Soluzioa egiaztatzen du, jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak izan daitezkeen ondorioak ateratzen ditu.
  - Lortutako emaitzak jakinarazten ditu, garatutako ideiak eta arrazoiketak hizkuntza argi batez azaltzen ditu, eta txosten edo dokumentu digitalak egiten ditu, beharrezkoa bada.
  - Arrazoibide induktiboak eta deduktiboak aplikatzen ditu, problema ebazteko, teorema matematikoen frogapen errazak barne.
  - Problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematikoa erabiltzen eta egiten ditu.
  - Ikerketa txikiak egiten ditu, zenbakizkoak nahiz geometrikoak.
- 11. Jarduera matematikoaekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, pertseberantzia eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritzia ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.**
- Badaki Matematikako eragiketak eta prozedurak menderatzea garrantzitsua dela, eguneroko bizitzako eta eskolako problema ebazten laguntzen duen tresna delako.
  - Lanean interesa agertzen du eta etengabe saiatzen da.
  - Emaitzak ordenan, argi eta garbi, eta txukun aurkezten ditu.
  - Prozesuak eta emaitzak bere mailari dagokion zorrotasunez arrazoitzen eta azaltzen ditu.
  - Talde-lanerako zereginak banatzen laguntzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu.
  - Alternatibak planteatzen ditu eta taldeko eztabaida-prozesua eta iritzi-trukea balioesten du, hobetzeko aukera bat den aldetik.

### 2.1.3.6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila: Ikaskuntza aplikatuak

1. **Zenbaki motak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea informazioa bildu, eraldatu eta trukatzeko, eguneroko bizitzarekin lotutako problemak ebazteko.**
  - Zenbaki motak (arruntak, osoak, arrazionalak eta irrazionalak) bereizten ditu, zer irizpideri jarraitu dion adierazten du, eta informazio kuantitatiboa behar bezala adierazteko eta interpretatzeko erabiltzen ditu.
  - Kalkuluak efikaziaz egiten ditu, buruzko kalkuluak, arkatza eta papera edo kalkulagailua baliatuz, idazkera egokiena erabiliz, eta berreketak eta erroketak eginez.
  - Iritzirako kalkuluak behar bezala egiten ditu, eta lortutako emaitzak arrazoizkoak diren edo ez aztertzen du, magnitude-ordenari, dimentsioen koherentziari eta abarri erreparatuz.
  - Idazkera zientifikoa erabiltzen du zenbaki oso handiak edo oso txikiak adierazteko eta haiekin eragiketak egiteko.
  - Zenbaki motak alderatzen, ordenatzen, sailkatzen eta zenbakizko zuzenean adierazten ditu, zenbait eskala erabiliz. Idazkera zientifikoa erabiltzen du dagokien testuinguruetan.
  - Zenbait zenbaki mota dituzten denetariko problemak ebazten ditu.
2. **Magnitude zuzenki eta alderantziz proportzionalen problemak ebaztea, ehunekoetatik eratorritako problemak zehaztasun handiagoz aztertuz, eta erabilitako datuen kopuruaren edo konplexutasunaren arabera kalkulu-orria erabiltzeko aukera balioestea.**
  - Bi magnitude zuzenki edo alderantziz proportzionalak diren bereizten du.
  - Magnitude erlatibo baten balioa nabarmenki ulertzen du.
  - Zenbait erlazioren bidez adierazitako ehuneko baliokideak lotzen ditu; batekoak, ehunekoak, milakoak, etab.
  - Problema ebazteko egin beharreko kalkuluak efikaziaz eta segurtasunez egiten ditu, baliabide teknologiko egokiena erabiliz (adibidez, kalkulu-orria).
  - Lortutako emaitzak interpretatu, soluzioa egiaztatu, eta egin ahal izan diren kalkulu-erroreak edo interpretazio okerrak hautematen ditu.
  - Eguneroko bizitzako ehuneko erabilienak ezagutzen eta erabiltzen ditu: BEZa, euriborra, KPIa, etab.
  - Proportzionaltasun zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasuneko problemak ebazten ditu eguneroko bizitzako egoeratan.
3. **Lehen eta bigarren mailako ekuazioak edo bi ezezaguneko ekuazio linealen sistemak planteatu eta ebatzi beharreko eguneroko bizitzako problemak ebaztea, ebazpen-algoritmoak trebetasunez aplikatuz.**
  - Problemaren enuntziaturako egokiak diren ekuazioak planteatzen ditu, eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Lehen eta bigarren mailako ekuazioak segurtasunez eta abileziaz sinplifikatzen eta ebazten ditu, algoritmo egokienak aplikatuz, bai eta bi ezezaguneko bi ekuazioren sistemak ere.

- Lortutako emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen ditu eta egokitasuna balioesten du.
  - Zenbaki multzo batean egon daitezkeen erregulartasunak aurkitzen ditu.
  - Hautemandako erregulartasuna ahozko formula baten edo formula aljebraiko baten bidez adierazten du.
- 4. Magnitudeak kalkulatzeko, neurketa zuzenak eta zeharkakoak eginez, benetako egoerak oinarri hartuta, tresna, teknika edo estrategia eta formula egokienak erabiliz, eta deskribatutako egoerarako egokiena den neurri-unitatea aplikatuz.**
- Tresna egokiak erabiltzen ditu gorputz eta irudi geometrikoen angeluak eta luzerak neurtzeko, neurri-eskalak interpretatuz.
  - Irudien eta gorputzen propietateak kalkulu-estrategia gisa erabiltzen ditu (simetriak, irudi ezagunetan deskonposatzea, etab.), zeharkako neurriak iritzira kalkulatzeko edo kalkulatzeko.
  - Irudi eta gorputz garrantzitsuenen (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak, prismak, piramideak, zilindroak, konoak eta esferak) azalerak eta bolumenak kalkulatzeko, dagozkion formulak azaltzen eta erabiltzen ditu, eta dagozkien unitateak esleitzen dizkie.
  - Pitagorasen teorema erabiltzen du zeharkako neurketak egiteko.
  - Trigonometriako kontzeptuak aplikatzen ditu. Triangelu angeluzuzenak ebazten ditu, neurketa-testuinguruetan.
  - Talesen teorema eta antzekotasun kontzeptuak erabiltzen ditu zeharkako neurketak egiteko.
  - Neurketarekin lotutako problemak ebazten ditu, prozedura informalak eta prozedura akademikoak erabiliz.
  - Geometria dinamikoko aplikazio informatikoak erabiltzen ditu, zenbait gorputz geometrikoen propietateak adierazteko eta egiaztatzeko.
- 5. Bi aldagairen arteko erlazio kuantitatiboak identifikatzea, eta zer funtzio motak adieraz ditzakeen zehaztea eta analizatzea.**
- Erlazio funtzional baten bidez deskriba daitezkeen eta ingurune hurbilekoak diren magnitudeen arteko erlazioak identifikatzen eta azaltzen ditu.
  - Bi magnitudeen erlazioaren modeloa azaltzen du eta grafikoki adierazten du, erlazio linealaren, koadratikoaren edo esponentzialaren kasuetarako, informazioaren teknologiak erabilita lortutako zenbait adibide erabiliz.
  - Funtzio horien parametro bereizgarriak identifikatzen, iritzira kalkulatzeko edo kalkulatzeko ditu.
  - Geometria analitikoko tresnak erabiltzen ditu, zuzenak planoan aztertzeko.
  - Funtzioen gorakortasuna edo beherakortasuna aztertzen du, batez besteko desbideratze-tasa erabiliz.
  - Fenomeno bati buruzko ondorioak arrazoituz azaltzen ditu, funtzioaren azterketatik abiatuta.

**6. Informazio jakin bat analizatzea, benetako egoerekin lotutako erlazio funtzionalak adierazten dituzten taulak eta grafikoak oinarri hartuta, eta haien portaerari, bilakaerari eta izan ditzaketen azken emaitzei buruzko informazioa lortzea.**

- Benetako zenbait egoerari buruzko tauletako eta grafikoetako datuak kritikoki interpretatzen ditu.
- Datuak taulen eta grafikoen bidez adierazten ditu, ardatz eta unitate egokiak erabiliz.
- Grafiko batetik ateratzen diren ezaugarri garrantzitsuenak deskribatzen ditu, aldagaiaren puntu-balioak edo tarteak adieraziz, arkatza, papera eta elementu teknologikoak erabiliz.
- Zenbait balio-aula eta haiei dagozkien grafikoak erlazionatzen ditu, kasu errazetan, eta zergatia azaltzen du.
- Kalkulagailu grafikoa edo software egokia abileziak erabiltzen du, grafikoak marrazteko eta zenbakizko balio bereizgarriak behar den doitasunez adierazteko.

**7. Taula eta grafiko estatistikoak egitea eta interpretatzea, parametro estatistiko ohikoenak kalkulatzeko, bitarteko egokienak erabiliz (arkatza eta papera, kalkulagailua, kalkulu-orria), eta erabilitako laginen adierazgarritasuna kualitatiboki balioestea.**

- Terminologia eta lexiko egokiak erabiltzen ditu, egoerak estatistikaren bidez deskribatzeko.
- Taula eta grafiko estatistikoetako datuak kritikoki interpretatzen ditu.
- Maiztasun-eta taulak egiten ditu, azterketa estatistiko baten lortutako datuak abiapuntu hartuta.
- Datuak taula eta grafiko estatistikoaren bidez adierazten ditu, bitarteko teknologiko egokienak erabiliz.
- Datu-banaketa baten batez bestekoa eta desbideratze tipikoa kalkulatu eta interpretatu ditu, kalkulagailua edo software egokia erabiliz.
- Ausazko lagin bat aukeratzen du eta haren adierazgarritasuna balioesten du.
- Sakabanatze-diagramak adierazten ditu, korrelazioa kalkulatu eta aldagaien arteko erlazioa interpretatu du.

**8. Zoriarekin eta probabilitatearekin lotutako egoerak eta fenomenoak bereiztea, probabilitate sinpleak eta konposatuak kalkulatzeko, eta probabilitateen kalkuluko kontzeptuak eta teknikak aplikatzeko, eguneroko bizitzako egoerak eta problemak ebazteko.**

- Ausazko egoerak eta fenomenoak identifikatu eta deskribatu ditu.
- Terminologia egokia erabiltzen du ausazko egoerak deskribatzeko.
- Ausazko gertaerei probabilitateak esleitzen dizkie, esperimendu sinpleetan.
- Laplaceren erregela aplikatu du, zenbaketa-estrategia sinpleak erabiliz.
- Gertaera konposatu errazen probabilitatea kalkulatu du, zuhaitz-diagramak eta kontingentzia-eta taulak erabiliz batik bat.
- Ausazko esperimendu eta simulazioen emaitzei buruzko aieruak egiten eta egiaztatzen ditu.
- Probabilitate baldintzatuarekin lotutako problema errazak ebazten ditu.

- 9. Problema ebaztea modelo heuristiko bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (zenbaketa exhaustiboa, indukzioa, antzeko problema bilatzea, amaieratik hasia, absurdora eramatea, problema ebazita imajinatzea, kontraadibideak, etab.) beharrezko kalkuluak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.**
- Problema irakurtzen eta ulertzen du, eta proposatutako problemen datuak eta ezezagunak identifikatzen ditu.
  - Zenbait estrategia heuristiko dakizki eta aplikatzen ditu, problema ebazteko.
  - Problema ebazteko zenbait alternatiba aztertzen ditu, eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten du.
  - Soluzioa egiaztatzen du, jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak izan daitezkeen ondorioak ateratzen ditu.
  - Lortutako emaitzak jakinarazten ditu, garatutako ideiak eta arrazoiketaz hizkuntza argi batez azaltzen ditu, eta txosten edo dokumentu digitalak egiten ditu, beharrezkoa bada.
  - Arrazoi bide induktiboak eta deduktiboak aplikatzen ditu, problema ebazteko.
  - Problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematiko sinpleak erabiltzen eta egiten ditu.
- 10. Jarduera matematikoarekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina, pertseberantzia eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritziak ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.**
- Badaki Matematikako eragiketaz eta prozedurak menderatzea garrantzitsua dela, eguneroko bizitzako eta eskolako problema ebazten laguntzen duen tresna delako.
  - Lanean interesa agertzen du eta etengabe saiatzen da.
  - Emaitzak ordenan, argi eta garbi, eta txukun aurkezten ditu.
  - Prozesuak eta emaitzak bere mailari dagokion zorroztasunez arrazoitzen eta azaltzen ditu.
  - Talde-lanerako zereginak banatzen laguntzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu.
  - Alternatibak planteatzen ditu eta taldeko eztabaida-prozesua eta iritzi-trukea balioesten du, hobetzeko aukera bat den aldetik.



## 3. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA

### 3.1. BIOLOGIA ETA GEOLOGIA

#### 3.1.1. Etapako helburuak

Hauek dira Biologia eta Geologia ikasgaiari dagozkion etapako helburuak:

1. Gizakiaren organismoari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, norberaren gorputzaren funtzionamendua nahiz osasuntsu egotea ahalbidetzen duten baldintzak azalduz, horren bidez osasuna zaintzeko ohiturak garatzeko eta norberaren nahiz komunitatearen ongizatea hobetzeko.
2. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, haietan gertatzen diren interakzioak azalduz, eta ekosistemen oreka eta hura aldatzen duten faktoreak deskribatuz, horren bidez natura balioesteko eta kudeatzeko nahiz hartaz gozatzeko, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzeke, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeke.
3. Problema ebaztea eta ikerketa soil batzuk egitea, banaka nahiz lankidetzan zientziaren prozedurekiko koherenteak diren estrategiak aplikatuz, hala nola azalpen-hipotesiak formulatzea, eta datuak lortzea eta haietatik judizioak egitea ahalbidetzen duten emaitzak eta ondorioak ateratzea, iritzi hutsa eta froga zehatzetan oinarritutako ebidentzia bereiziz, norberaren nahiz gizartearen intereseko benetako egoerei testuingurua aintzat hartuta heltzeko eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.
4. Gai zientifikoei buruzko informazioa lortzea zenbait iturritatik, barnean hartuta informazioaren teknologiak, kontuan hartuta gai zientifikoei buruzko lanak funtsatzeko eta bideratzeko baliagarritasuna, eta gai horiei buruz nork bere jarrerak hartzea, funtsatuta eta ikuspegi kritikoz.
5. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak modu aktiboan eta kritikoa interpretatzea, eta mezu zientifikoak sortzea, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza zuzen erabiliz, bai eta beste notazio- eta adierazpen-sistema batzuk ere, zehaztasunez komunikatu ahal izateko eta zientziaren esparruan azalpenak eta argudioak eman ahal izateko.
6. Errealitatea azaltzeko eskemak egitea, kontzeptu, printzipio, estrategia, balio eta jarrera zientifikoak baliatuz, naturako fenomeno nagusiak interpretatzeko, eta gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko eta teknologiko garrantzitsuenak ikuspegi kritikoz aztertzeke.
7. Zientziaren nolakotasuna, saiakera-izaera eta izaera sortzailea baliatzea, dogmatismoak gainditzeko bide eman duten eztabaida nagusiak aintzat hartuz, bai eta historian zehar izandako iraultza zientifikoak ere, gizadiaren kultura-bilakaeran ezagutza zientifikoak izan duen garrantzia ulertzeko eta balioesteko, gizakiaren beharrak asetzeko eta haren bizi-baldintzak hobetzeko bitarteko den aldetik.

### 3.1.2. EDUKIAK

#### 3.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Aurreko etapan Naturaren Zientziak ikasgaiari jorratutako ezagutza zientifikoaren tratamendu integratua abiapuntu hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bi mailatan banatuta antolatuta dira, eta hala, lehen mailan Biologia eta Geologiako ezagutza zientifikoak landuko dira, eta bigarren mailan, Fisika eta Kimikakoak, azken horietan sakontasun-maila handiagoa baita, bai ideiei dagokienez, bai agerian jartzen diren erlazioei dagokienez.

Nolanahi ere, banaketa horrek ez du oztopo izan behar zientzien ikaskuntzan komuna eta globala dena nabarmentzeko; hain zuzen ere, natura-inguruneari buruz dugun esperientzia globala izan ohi da, eta askotariko alderdiak integratzen ditu; bestalde, ingurunean eragiten duen jarduketan ez da zientzien arteko bereizketarik egiten; eta azkenik, ezagutza eraikitzeo prozedurak komunak dira funtsean. Horrez gain, kontuan izan behar da diziplina zientifikoek errealitatea aztertzean konpartimentutan banatzen dutela, eta ezarritako muga horiek fenomenoaren sistematikotasuna eta multidimentsionalitatea eteten dutela, modu arbitrarioan. Izan ere, osotasun baten ezagutza ez da haren zatien ezagutzaren batura. Hori dela eta, gizarte- eta ingurumen-arazoei heltzeko, ezinbestekoa da curriculumeko beste ikasgai batzuetako ikaskuntzekin batera lankidetzan joratzeko bitarteko egokiak ezartzea; batez ere, Fisika eta Kimika ikasgaiarekin lotuz, bai eta Gizarte Zientziak eta Teknologia ikasgaiekin ere. Hala, jakintza horien multzoa lagungarria izango da problema konplexuak ulertzeko eta tratatzeko.

Laugarren mailan ikasgai hau derrigorrezkoa ez denez, hirugarren mailaren amaieran ziurtatu behar da ikasleek lortu dutela zientziaren esparruko alfabetizazioa, ikasgai honekin lotutako oinarriko alderdi guztietan. Hori dela-eta, lehen eta hirugarren mailatan kontzeptuen trataera kualitatiboa eta esperimentalak izango da, eta DBHko 4. mailan eta Batxilergoan, berriz, alderdi kuantitatiboak eta akademikoagoak landuko dira.

Ikasturte bakoitzean, eduki multzoak elkarrekin erlazionatutako jakintza multzo gisa ulertzen dira, eta haiek antolatzeo, problema egituratzaileak hartzen dira abiapuntu, ildo horiei jarraituz eduki multzo horiek sekuentziatzeko eta elkarrekin erlazionatzeko, eta hala, ikaskuntza integratzailea bideratzeko.

Hasieran, materiaren dibertsitatearen kontzeptua izango da ikaskuntza bideratzeko haria. Geroago landuko dira egitura-unitatearen eta materiaren antolaketaren gaiak, konplexuagoak baitira, eta laugarren mailan materiaren aldaketei helduko zaie, interakzio mota eta teoria zientifiko nagusiak azalduz.

Lehen mailan, Biologia eta Geologia ikasgaiari, Lur planetako dibertsitatea izango da ikaskuntza bideratzeko haria. Hasteko, unibertsoaren ikuspegi orokor bat emango da, eta haren barruan Lurraren kokapena zehaztuko da. Horren ostean, planetako biodibertsitatea joratzeko da, bai eta horrekin lotutako arazoak ere. Izaki bizidunen dibertsitate handia hobeto ulertze aldera, erregulartasunetan jarriko da arreta, haien arabera sailkatzeko.

Edukiak sekuentziatzean, kontuan izan da bigarren mailan ez dela ikasgai hau lantzen, Fisika eta Kimika baizik, eta laugarren mailan ez dela derrigorrezkoa. Hori dela-eta, hirugarren mailan lehen mailan aztertutako dibertsitatearen erroan dagoen materia-unitatea aztertuko da. Hasteko, izaki bizidunen egitura-unitatea eta antolaketa azalduko dira, zelulatik —biziaren oinarriko unitateak— hasi, eta organismo konplexuetaraino —gizakia, esaterako—. Giza gorputzaren azterketa osasunerako hezkuntzarekin lotuta bideratuko da, ohitura osasungarrien garrantzia nabarmenduz, eta azpimarratuz sistema organiko bakoitzaren funtzionamendu egokia lotuta dagoela higieinarekin eta gaixotasunen prebentzioarekin. Ikasturtearen bukaeran, organismoen eta ingurunearen arteko erlazioak landuko dira,

ekosistemen azterketaren bidez; gizakiaren jarduerak ekosistemetan eragiten dituen inpaktuak azalduko dira; eta ekosistemak kontserbatzeko eta zaintzeko beharra azpimarratuko da.

Azken mailako Biologia eta Geologia ikasgaien, teoria biologiko eta geologiko nagusien berri izaten hasiko dira ikasleak, gaur egun bi diziplina horietan dauden ikuspegi oinarri diren aldetik. Lurraren eta haren jardueraren historia abiapuntu hartuta, plaka-tektonikaren paradigmen ildotik fenomeno geologikoen interpretazioan izan diren aldaketa handiak azalduko dira. Biologian, berriz, hauek izango dira ardatzak: zelula-teoria, diziplina osoaren elementu bateratzailea den aldetik; herentzia biologikoa eta informazio genetikokoaren transmisioa, eta alderdi horiekin lotutako aplikazioak eta gizarte-eraginak; eta eboluzioaren teoria, biologiari oro har zentzua ematen diona. Bukaeran, ekosistemak aztertuko dira berriro, ikuspegi dinamiko batetik: izaki bizidunen energia-beharrak, eta organismoen eta ingurune fisiko-kimikoaren arteko interdependentzia; alderdi horiek lantzearekin batera, ingurumen-arazoei buruzko gogoeta sustatuko da.

Maila guztietan, multzo komun batean sartu dira —edota, kasuren batean, erlazioa duten gainerako eduki multzoekin batera— alderdi hauekin lotutako edukiak: zientzia eraikitze moduak; lan esperimentalak; zientziaren berezko hizkuntza; eta zientzialarien jarrerak, zientziari eta haren ikaskuntzari begira. Hala, eduki horien izaera komuna nabarmentzen da, lotuta baitaude eduki multzo guztiekin; eta, beraz, ikasturteko eduki guztiekin ahalik hobekien integratuta garatu beharko dira.

Eduki komun horiek eduki multzo bakoitzean garatu beharrekoak dira, baina horrez gain, sakonago jorratze aldera, ikasturte bakoitzean gutxienez ikerketa-proiektu bat egingo da, landutako eduki multzoetako batekin lotua. Multzo hori landuta, ikerketa-lana egoki egiteko baliagarriak diren edukiak finkatuko dira.

### 3.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak: Aniztasuna Lur planetan

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarriko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburtu), buruz ikasi eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...).
- Ideiak sortu, aukeratu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa gauzatzea, eta beharrezkoa izanez gero, egokitzea.
- Planifikatutakoa eta egindakoa ebaluatzea, eta hobekuntza-proposamenak garatzea.
- Lortutako emaitza jakinaraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan elkarlanean eta lankidetzan aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.

- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

### **B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimendazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorroztasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, sexuen arabera estereotipoak gaindituz, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzeko gainditzekoak.
- Biologiako eta geologiako laborategian erabiliko den oinarriko materiala erabiltzeko prozedura.
- Behatzeko tresnak, haien atalak eta erabilera: mikroskopio estereoskopikoa, mikroskopio optikoa eta mikroskopio digitala.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.

## **2. MULTZOA. Lurra unibertsoan**

- Unibertsoaren egitura: planetak, izarrak eta galaxiak. Esne-bidea eta eguzki-sistema.
- Lurraren eta eguzki-sistemaren beste osagaien ezaugarri fisikoak.
- Lurraren higidurak: urtaroak, gaua eta eguna, eklipseak eta Ilargiaren faseak. Higidura horien eta izaki bizidunak izatearen arteko lotura.
- Lurrak unibertsoan duen lekuari buruzko ideien bilakaera historikoa.
- Unibertsoaren jatorriari buruzko eredu nagusiak.
- Unibertsoa aztertzeko gaur egun dauden baliabide teknologiko nagusiak.

### 3. MULTZOA. Lurra planeta

#### Atmosfera.

- Atmosferaren osaera eta propietateak.
- Airearen propietateak esperimentu bidez aztertzea.
- Aintzat hartzea atmosferaren babes-eginkizuna eta berotegi-efektua, bai eta aireak zenbateko garrantzia duen izaki bizidunentzat eta giza osasunarentzat ere, eta ohartzea beharrezkoa dela atmosfera zaintzea.
- Atmosferaren kutsadura eta biziaren garapenean duen eragina.

#### Hidrosfera.

- Ura Lurrean, likido-, solido- eta gas-egoeran: ugaritasuna eta propietateak.
- Uraren propietateak esperimentu bidez aztertzea.
- Uraren zikloa Lurrean, eta Eguzkiarekin duen lotura, energia-iturri moduan.
- Ur geza eta ur gazia: izaki bizidunen garrantzia.
- Ur geza, baliabide mugatua: ur gezaren erreserbak Lurrean, oro har, eta Euskal Herrian, bereziki, eta hura kontserbatzearen eta iraunkortasun-irizpidez kudeatzearen garrantzia.
- Ur gezaren eta ur gaziaren kutsadura.
- Ura araztea eta ura zaintzea. Ura eta osasuna.

#### Geosfera.

- Geosfera. Egitura eta osaera: lurrazala, mantua eta nukleoa.
- Arroka eta mineralak: aniztasuna eta identifikatzeko eta sailkatzeko aukera ematen duten ezaugarriak. Mineralen garrantzia eta erabilgarritasuna.
- Arroka ohikoenak behatzeko eta deskribatzeko irizpideak.
- Mineralak eta arroka identifikatzeko gako errazak erabiltzeko jarraibideak.
- Arroken garrantzia eta erabilgarritasuna. Arroken erabilera arrazionala.
- Ingurunean eta Euskal Herrian ugarienak diren arroka eta mineralak.

### 4. MULTZOA. Biodibertsitatea Lur planetan

#### Biosfera.

- Izaki bizidunen ezaugarriak. Bizi-funtzioak: nutrizioa, erlazioa eta ugalketa. Nutrizio autotrofoa eta heterotrofoa. Fotosintesia.
- Zelularen aurkikuntza. Organismo zelulabakarrak eta zelulanitzak.
- Zelula prokariotoak eta eukariotoak.
- Lupa eta mikroskopia optikoaren eta digitalaren erabilera-arauak.

#### Izaki bizidunen sailkapena.

- Izaki bizidunen sailkapena: bost erreinuak. Antolakuntza-eredu handiak: landareak eta animaliak. Izaki bizidunak identifikatzeko gako errazak erabiltzeko jarraibideak.

- Organismo zelulabakarrak, landareak eta animaliak lupa edo mikroskopia bidez behatzeko eta deskribatzeko irizpideak.
- Bakterioak, onddoak, protistoak. Likenak.
- Animalia ornogabeak: poriferoak, zelenteratuak, anelidoak, moluskuak, ekinodermatuak eta artropodoak. Ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak. Adibideak.
- Animalia ornodunak: arrainak, anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak. Ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak. Adibideak.
- Landareak: goroldioak, iratzeak, angiospermoak eta gimnospermoak. Ezaugarri nagusiak, nutrizioa, erlazioa eta ugalketa.
- Izaki bizidunek natura-baliabideen iturri moduan duten garrantzia aintzat hartzeko irizpideak.

#### **Biodibertsitatea**

- Lurra bizitzeko planeta egokia bihurtu zuten ezaugarriak.
- Izaki bizidunen aniztasuna eta ingurumenera egokitzea: ingurumenak, neurriak, formak, elikadura.
- Biodibertsitatea: sarrera. Euskal Herriko espezie bereziak. Biodibertsitatearen galera. Euskal Herriko naturaguneen balioespena.
- Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak. Biodibertsitatearen galerarekin lotutako arazoak.

### **5. MULTZOA. Ikerketa-proiektua**

- Curriculumeko eduki bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### **3.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. Mailako edukiak: Materiaren egitura-unitatea eta antolaketa**

#### **1. MULTZOA. Eduki komunak**

##### **A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarriko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburtu), buruz ikasi eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...).
- Ideiak sortu, aukeratu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa gauzatzea, eta beharrezkoa izanez gero, egokitzea.
- Planifikatutakoa eta egindakoa ebaluatzea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.

- Lortutako emaitza jakinaraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

### **B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimentazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorroztasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, sexuen arabera estereotipoak gaindituz, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzeko gainditzekoak.
- Biologiako eta geologiako laborategian erabiliko den oinarriko materiala erabiltzeko prozedura.
- Behatzeko tresnak, haien atalak eta erabilera: mikroskopia estereoskopikoa, mikroskopia optikoa eta mikroskopia digitala.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.

### **2. MULTZOA. Zelula, izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitate den aldetik**

- Zelula, izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitate den aldetik. Zelularen teoria eta biologian duen garrantzia.
- Animalia- eta landare-zelula prokariotikoen eta eukariotikoen oinarriko ezaugarriak.
- Materia bizidunaren antolaketa-mailak.
- Mikroorganismoak, animalia-zelulak eta landare-zelulak mikroskopia optikoarekin eta digitalarekin aztertzea. Zenbait zelula motaren maketak egitea.

### 3. MULTZOA. Pertsonak eta osasuna

#### Osasuna

- Giza gorputzaren antolaketa orokorra: aparatuak eta sistemak, organoak, ehunak eta zelulak.
- Osasuna eta gaixotasuna. Osasuna baldintzatzen duten faktoreak. Gaixotasunak eta gaixotasun motak. Gaixotasun infekziosoak eta ez-infekziosoak.
- Higienea eta gaixotasunen prebentzioa. Ohitura osasungarrien garrantzia aintzat hartzea.
- Immunitate-sistema. Txertoak. Zelulak, odola eta organoak ematea. Zelula-, odol- eta organo-emaile elkarrekin Euskal Herrian.

#### Nutrizioa

- Giza nutrizioa: elikagaiak eta mantenugaiak.
- Osasun-ohitura osasungarriak: dieta orekatuak eta elikagaien segurtasuna. Elikadura-portaeren asaldurak. Komunikabideen eragina osasunaren, gorputz-irudiaren eta modaren kontzeptuen gain.
- Nutrizio-prozesuan parte hartzen duten sistemen eta aparatuen anatomia eta fisiologia: digestioa, arnasketa, zirkulazioa eta irazketa.
- Nutrizio-prozesuan parte hartzen duten sistemen eta aparatuen asaldura eta gaixotasun ohikoenak. Higienea, prebentzioa, bizimodu osasungarriak.

#### Erlazioa eta koordinazioa

- Koordinazioa eta nerbio-sistema: antolaketa eta funtzioa.
- Sistema endokrinoa: guruin endokrinoak eta haien funtzionamendua. Asaldura nagusiak.
- Pertzepzioa; zentzumen-organok; zentzumen-organoen zaintza eta higiena.
- Mendekotasuna sortzen duten substantziak: tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk. Haiei lotutako arazoak.
- Osasuna kalte dezaketen portaerekiko jarrera arduratsua. Gizarte-ingurunearen eragina jarreretan eta emakumezkoen eta gizonezkoen artean eraginak duen aldea
- Lokomozio-aparatua. Ohiko lesioak eta haien prebentzioa.

#### Ugalketa eta sexualitatea

- Giza ugalketa. Gizonaren eta emakumearen ugaltze-aparatuak.
- Hilekoa, ziklo menstrualak. Ernalketa, haurdunaldia eta erditzea. Giza ugalketako teknika berriak.
- Sexu-osasuna eta -higienea. Metodo antikonzeptiboak azterketa. Sexu-transmisioko gaixotasunak.
- Gizakiaren sexu-erantzuna: afektibitatea, sentsibilitatea eta komunikazioa.
- Gizakiaren sexu eta sentimenduen bereizketak eragiten dituen desirak eta interesak kontuan hartzen dituen harremanen eta sexu-jokabidearen garapena.



#### 4. MULTZOA. Lurraren erliebea eta haren bilakaera

##### Kanpoko aldaketa geologikoak

- Lurraren erliebearen modelatzea baldintzatzen duten faktoreak. Kanpoko eragileak eta prozesuak: meteorizazioa, higadura, garraioa eta sedimentazioa. Lurraren kanpo-energiarekin duten lotura.
- Azaleko urak eta erliebea modelatzea. Forma bereizgarriak. Itsasoaren ekintza geologikoa.
- Glaziarren ekintza geologikoa. Higadura motak eta metaketa.
- Modelatu karstikoa. Lurpeko urak, haren zirkulazioa eta ustiaketa.
- Haizea eta haren ekintza geologikoa.
- Izaki bizidunen ekintza geologikoa. Giza espeziea eragile geologiko moduan.
- Euskal Herriko paisaia bereizgarriak, erliebea modelatzearen ondoriozkoak.

##### Barneko aldaketa geologikoak

- Lurraren barne-egitura.
- Lur-erliebearen barne-geodinamikaren agerpenak: sumendietako erupzioak eta lurrikarak.
- Arrisku bolkanikoa eta arrisku sismikoa. Aurreikustearen eta prebentzioaren garrantzia.
- Lurreko jarduera sismikoaren eta jarduera bolkanikoaren banaketaren eta barne-dinamikaren arteko lotura.

#### 5. MULTZOA. Gizakia eta ingurunea. Ekosistemak

- Ekosistemak. Ekosistema baten osagaiak. Faktore abiotikoen eta biotikoen eragina ekosistemetan, eta haien arteko elkarrekintzak.
- Kate eta sare trofikoak.
- Ur gezako eta itsasoko ur-ekosistemak. Lehorreko ekosistemak. Euskal Herriko ekosistema bereizgarriak.
- Ekosistemen desoreka eragiten duten faktoreak. Ekosistemen gaineko mehatxuak. Ingurumena kontserbatzen laguntzen duten ekintzak.
- Lurzorua eta haren osagaiak. Lurzoruaren garrantzia.
- Giza ekintzak ekosistemetan duen eraginen balioespena: autonomia-erkidegoko naturagune babestuak.

#### 6. MULTZOA. ikerketa-proiektua

- Curriculumeko eduki bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### 3.1.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak: Sintesi teoriko handiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarriko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburtu), buruz ikasi eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...).
- Ideiak sortu, aukeratu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa gauzatea, eta beharrezkoa izanez gero, egokitzea.
- Planifikatutakoa eta egindakoa ebaluatzea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitza jakinaraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide moralak erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

##### B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimendazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrotasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak.

- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzekoa gainditzekoak.
- Biologiako eta geologiako laborategian erabiliko den oinarrizko materiala erabiltzeko prozedura.
- Behatzeko tresnak, haien atalak eta erabilera: mikroskopia estereoskopikoa, mikroskopia optikoa eta mikroskopia digitala.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.

## 2. MULTZOA. Bizitzaren eboluzioa

### Herentzia eta karaktereen transmisioa

- Zelula.
- Ziklo zelularra. Zatiketa zelularren prozesuak: mitosia eta meiosis, ezaugarri bereizgarriak eta horietako bakoitzaren garrantzi biologikoa.
- DNA eta genetika molekularra.
- Azido nukleikoak. Osaketa, egitura eta propietateak.
- DNA erreplikatzeko prozesua.
- Gen kontzeptua: sarrera.
- Informazio genetikoaren adierazpena. Kode genetikoa.
- Mutazioak. Eboluzioarekin dituen loturak.
- Herentzia eta karaktereen transmisioa. Mendelen legeak. Sarrera eta garapena.
- Mendelen legearen oinarri kromosomikoa.
- Mendelen legeen aplikazioak: Mendelen legeekin lotutako ariketa errazak.
- Giza genetika. Sexuari lotutako herentzia. Gaixotasun hereditario batzuen azterketa.

### Biologia eta gizartea

- Ingeniaritza genetikoa.
- Teknikak eta aplikazioak: elikagai transgenikoak.
- Klonazioa.
- Bioteknologia.
- Bioetika.

### Izaki bizidunen jatorria eta eboluzioa

- Izaki bizidunen jatorria eta eboluzioa. Lurreko bizitzaren sorrerari buruzko hipotesiak.
- Eboluzioa, eboluzioaren historia eta mekanismoak: teoria fixistak eta eboluzionistak. Kreationismotik eboluzionismora: Darwin.
- Gizakiaren eboluzioa, hominizazio-prozesua: *Homo sapiens sapiens*.

### 3. MULTZOA. Lurra, etengabe aldatzen ari den planeta

#### Lurraren historia

- Lurraren historia.
- Denbora geologikoa: Lurraren adinari buruzko ideia historikoak.
- Lurraren historia berreraikitzeke aukera ematen duten printzipioak eta prozedurak. Aktualismoaren erabilera, interpretazio-metodo moduan.
- Eonak, aro geologikoak eta periodo geologikoak: gertaera geologiko eta biologiko garrantzitsuen kokapena.
- Fosilak: fosilen garrantzia iraganaren testigantza direlako. Lehen izaki bizidunak eta planetan duten eragina.
- Fosil bereizgarri batzuk identifikatzeko teknikak.
- Topografia-profilak eta geologia-mozketa errazak interpretatzeko prozedurak, zona bat edo lur bat aztertzeke.

#### Plaken tektonika eta haren adierazpenak.

- Bilakaera historikoa: kontinenteen jitozik plaken tektonikara.
- Lurraren egitura eta osaera. Eredu geodinamikoaren eta geokimikoaren interpretazioa.
- Kontinenteen desplazamenduaren probak. Sumendien eta lurrikaren banaketa. Dorsalak eta ozeanoaren hondoaren espantsioa.
- Plaka litosferikoak eta haien mugak. Barne-prozesu geologikoen eta kanpo-prozesu geologikoen arteko elkarrekintzak. Mendikateen sorrera: motak eta sorrarazten dituzten prozesu geologikoak. Arroken zikloa.

### 4. MULTZOA. Ekologia eta ingurumena

#### Ekosistemaren egitura

- Ekosistemaren osagaiak: komunitatea eta biotopoa. Biodibertsitatea.
- Erlazio trofikoak: kateak eta sareak ekosistema lehortarretan eta urtarretan.
- Habitata eta nitxo ekologikoa.
- Faktore mugatzaileak eta egokitzapenak. Tolerantzia-muga.
- Ekosistemaren, populazioaren eta komunitatearen autorregulazioa.

#### Ekosistemaren dinamika

- Materiaren zikloa eta energia-fluxua.
- Ziklo biogeokimikoak.
- Piramide ekologikoak.
- Aldaketa naturalak ekosistemetan: segida ekologikoak.

#### Gizakiaren jardueren inpaktuak ekosistemetan

- Garapen iraunkorra.

- Giza jarduera eta ingurumena. Inpaktuak.
- Natura-baliabideak. Motak. Gizakiaren energia-kontsumoak ingurumenean duen eragina.
- Superpopulazioa eta haren ondorioak: baso-soiltzea, gehiegizko ustiapena, suteak eta abar.
- Hondakinak eta hondakinen kudeaketa. Ingurumenaren kutsaduraren maila eta arazte-maila zenbatekoa den jakiteko teknika errazen ezagutza.
- Aztarna ekologikoak. Garapen iraunkorrari laguntzen dieten erantzunak, ingurumen-krisiari aurre egiteko.
- Ingurumena zaintzeko beharraz jabetzea eta hura errespetatzeko elkertasuneko jarrerak.
- Babes-estrategiak. Espazio eta espezie babestuak Euskal Herrian.

## 5. MULTZOA. Ikerketa-proiektua

Curriculumeko eduki bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### 3.1.2.5. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

## 2. MULTZOA. Bizitzaren eboluzioa

### Biologia eta gizarte

- Ingenieria genetikoaren abantailak osasun arloan. CIC Biogune ikerketa-zentroa.
- Ingenieria genetikoaren elikagaietan. Nekazaritza eta elikagai transgenikoak Euskal Herrian. Horren aldeko eta kontrako iritziak eta kanpainak.
- Ingenieria genetikoaren abeltzaintzan. "Euskal arraza" babesteko eta hobetzeko bidea.
- EAEko Ikerketa Klinikoko Etika Batzordea
- EAEko bioteknologia enpresak: Biobide, Genetadi, BTI Biothecnology institute,...

### Izaki bizidunen jatorria

- Darwinen ideiak gure herriaren pentsakeran izan zuen eragina : Armand David Altsuet, Jean Etxepare, Jose Migel Barandiaran.

## 3. MULTZOA. Lurra, etengabe aldatzen ari den planeta

### Lurra

- Euskal Herriko harkaitz eta mineral ugariak: Harkaitzak: sedimentuak, granitozko mendilerroa, ...; Mineralak: Ustiatutako esplotazioak: Arditurri (beruna eta zilarra), Karrantza (beruna), Arrazola eta Aralar (kobrea), Bizkaiko ezkerrekoa (burdina), Iruñeko inguruetan (potasa); Indarrean daudenak: Eugi (magnesioa), Legorreta (zink eta burdina).
- Meatzaritzaren museoa.

### Lurraren historia eta dinamika

- Euskal Herriko geologiaren historia.

- Euskal Herriko mapa geologikoak: arroak eta egitura tektonikoak.
- Euskal Herriko arroka bolkanikoen azaleratzeak: Barrika, Fruiz, Soraluze, Bergara eta Zumarraga- Azkoitia inguruak.
- Euskal Herriko fosil guneak eta lekuak: Otsondoko mendatea, Gernikako itsasadarra, Ereño, Aralar mendizerra, Urbasa eta Entzia mendizerrak, Karrantza, Zumaiako “flysch”a,...
- Erliebeak moldatutako Euskal Herriko paisaia bereizgarriak: Pirinioak, iparraldeko mendi-lerroak eta Ebroko depresioa.
- Ondare naturala eta paleontologikoa babestu eta ikertzeaz arduratzen diren hainbat erakunde: Arabako Natur Zientzien museoa, Donostiako Arantzadi Natur Zientzien Elkarte, Algorriko Geoparkea, Oiartzungo Geologia Interpretazio Zentro Tematikoa, ...

#### 4. MULTZOA. Biodibertsitatea. Ekologia eta ingurumena

- Biodibertsitatea. Euskal Herriko espezie bereizgarriak.
- Euskal Herriko naturagune babestuak: Iratiko basoa, Txingudiko badia, Bertizko jaurerria, Bardeak, Izki, Gorbeia, Aia, Urkiola,...
- Naturaguneak eta espezieak babesteko legeak eta erakundeak, EAEn eta EBean.
- IHOBE : Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika garatzeko eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura hedatzeko.
- Eskolako Agenda 21.
- Lurreko ekosistemak: basoak (pinudia, artadia, pagadia, ariztia,..), larrak, mendialdea, basamortua (Bardeak), ...
- Itsasoko ur-ekosistemak: itsasadarrak, padurak. Euskal Herriko bereizgarrienak: Urdaibai, Txingudi, Oria, Plentzia, Bilbokoa, Barbadun,...
- Ur gezako ekosistemak. Ur geza, baliabide mugatua: ur gezaren erreserbak Euskal Herrian: Ordunte, Ulibarri-Ganboa, Eugi, Senpere, Urkulu, Itoitz,...
- Eusko Jaurlaritzak egindako unitate hidrogeologikoen mapa eta Euskal Herriko lur azpiko ur-putzuak.
- Ura kudeatzeko legeak eta erakundeak: Uraren Euskal Agentzia.

### 3.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 3.1.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

1. **Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.**
  - Zientziaren aldetik ikertu daitezkeen problemak hautematen ditu.
  - Problemen aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
  - Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, mapak.
  - Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.

- Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimenduetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.
  - Ikerketaren emaitzak zenbait bitartekotan (idatzizkoak zein ahozkoak) eta euskarritan jakinarazten ditu, izan digitalak, izan analogikoak.
  - Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
  - Talde-lanaren aldeko jarrera du, dela presentziala dela birtuala, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziak.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, gainerakoen txandak eta iritziak errespetatzen ditu, eta sareko eztabaidetan netiketa-arauak errespetatzen ditu.
  - Sormena erabiltzen du planteatutako galderei erantzuna ematean, eta, beharrezkoa bada, tresna digital egokienak erabiltzen ditu, produktu berritzaileak eta sormenezkoak egiteko.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoaren aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
- 2. Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.**
- Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da, bai ahoz, bai idatziz.
  - Ikasitako gaiei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
- 3. Bere iritzia eratzea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.**
- Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.
  - Informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du.
  - Argudioak emanez arrazoitzen du, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
- 4. Laborategiko oinarritzko materiala hautatu eta sailkatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala eta mikroskopia optiko eta digitala.
  - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokietan adierazten ditu.
  - Autonomiaz planifikatzen ditu lanak.
  - Laborategian zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.

**5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta ohartzea bizi-kalitatearen hobekuntza dakartela.**

- Zientziak zenbait testuinguru pertsonaletan eta sozialetan (medikuntzan, norberaren osasunean eta ingurumenean, besteak beste) egindako ekarpenak kritikoki aztertzen ditu.
- Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarriko kulturaren atal dela.

**6. Eguzki-sistemaren egitura aztertzea eta hartan Lurrak duen kokapena zehaztea.**

- Eguzki-sistemaren antolaketa azaltzen du, bai eta haren ezaugarri nagusiak ere.
- Lurrak eguzki-sisteman duen kokapena adierazten du.
- Eguzki-sistemako planetek dituzten ezaugarri batzuk alderatzen ditu, eta eguzki-sisteman duten kokapenarekin zer lotura duten bilatzen du.
- Lur planetaren ezaugarriak adierazten ditu, beste planeta batzuek ez dituztenak eta bizia egoteko aukera ematen dutenak, hain zuzen ere.
- Historian zehar indarrean egon diren bi teoria astronomiko nagusiek (teoria heliozentrikoa eta teoria geozentrikoa) emandako azalpenak alderatzen ditu.
- Unibertsoaren jatorriari buruzko azalpen zientifikoak eta ez-zientifikoak bereizten ditu.

**7. Lurraren, Ilargiaren eta Eguzkiaren higiduren ezaugarriak deskribatzea, eta urtaroekin, egunarekin eta gauarekin, eklipseekin eta mareekin lotzea.**

- Zenbait fenomeno natural deskribatzen ditu, argi eta txukun: urteen iraupena, eguna eta gaua, eklipseak, mareak eta urtaroak, besteak beste.
- Ondorioztatzen du fenomeno horiek bizia izateko duten garrantzia, eta izaki bizidunen banaketarekin lotzen ditu.
- Eskema eta eredu grafiko errazak erabiltzen ditu (adibidez, adierazpen eskematikoak, eskalan), Ilargiaren, Lurraren eta Eguzkiaren arteko higidura erlatiboak azaltzeko.
- Gaur egungo zenbait aplikazio teknologikoren funtzionamendua deskribatzen du eta azaltzen du zein erabilgarriak diren gure planetaren eta unibertsoaren ezagutzarako.

**8. Atmosferako arazoei buruz ikertzea, hala nola kutsadurari eta haren ondorioei buruz, informazioa bilduz, eta irtenbidea bilatzeko neurriak proposatzea.**

- Atmosferaren ezaugarriak deskribatzen ditu.
- Badaki zer osaera duen aireak, badaki zein diren airearen kutsatzaile nagusiak eta haien jatorriarekin lotzen ditu.
- Airearen propietateak aztertzeko esperimendu errazak egiten ditu.
- Airearen kutsadurari dagokionez, gaur egungo problema globalak zein diren adierazi eta deskribatzen ditu, berotze globala eta ozono-geruzaren zuloa, adibidez. Eta zer ondorio dituzten azaltzen du.
- Atmosferaren kutsadura ingurumena hondatzearekin lotzen du.
- Atmosferaren kutsadurari irtenbidea ematen laguntzeko neurriak proposatu eta hartarako jarrerak ditu.
- Atmosferak izaki bizidunak babesteko duen eginkizuna zertan oinarritzen duen badaki eta argudio errazekin arrazoitzen du.



**9. Urarekin lotutako arazoei eta uraren erabilera jasangarriari buruz ikertzea, informazioa bilduz, eta irtenbidea bilatzeko neurriak proposatzea.**

- Uraren propietateak deskribatzen ditu, bai eta bizia izateko duen garrantzia ere.
- Uraren propietateak aztertzeko esperimentu errazak egiten ditu.
- Uraren zikloa deskribatzen du eta uraren egoera-aldaketekin lotzen du.
- Lurrean, oro har, eta Euskal Herrian, eskuarki, baliabide hidrikoak nola banatzen diren adierazten duten diagramak eta eskemak egiten eta interpretatzen ditu, eta adierazten du zer garrantzia duen bizia izateko eta gizakiarentzat.
- Ur gezaren iraunkortasunari begirako kudeaketa zer den azaltzen du, eta kudeaketa horretan laguntzen duten neurri zehatzak adierazten ditu.
- Giza jarduerak ur gezan eta ur gazian sortzen dituzten kutsadura-arazoak adierazten ditu.

**10. Lurrean eta inguruan ohikoenak diren mineralen eta arroken propietateak eta ezaugarriak bereiztea eta sailkatzea, identifikatzeko gako soil batzuk erabiliz, eta zer aplikazio nagusi dituzten jakitea.**

- Lurraren azaleko, mantuko eta nukleoko material arruntenen ezaugarri orokorrak azaltzen ditu, eta haien kokapenarekin lotzen ditu.
- Mineralak eta arroak identifikatzeko gako errazak erabiltzen ditu, eta bereizteko aukera ematen duten irizpideak erabiltzen ditu.
- Mineralek eta arroek eguneroko bizitzan dituzten erabilera nagusiak bereizten ditu, eta badaki zer garrantzia duten Euskal Herriko historian.
- Badaki beharrezkoa dela baliabide mineralen iraunkortasunari begirako kudeaketa.

**11. Izaki bizidun guztien funtzio komunak deskribatzea, eta jakitea izaki bizidunak zelulez osatuta daudela eta egiten dituzten bizi-funtzioek materia bizigabetik bereizten dituztela.**

- Materia biziduna eta materia bizigabea bereizten ditu, haien ezaugarrietan oinarrituta.
- Zelula prokariotikoa eta eukariotikoa alderatzen ditu, eta analogiak eta desberdintasunak adierazten ditu.
- Ugalketa, erlazio eta nutrizio mota bakoitzaren ezaugarriak deskribatzen ditu, eta bizi-funtzio bakoitzak biziak irauteko duen eginkizuna adierazten du.
- Badaki zer alde dagoen izaki autotrofoen eta izaki heterotrofoen nutrizioaren artean, eta haien arteko erlazioa ezartzen du.
- Nutrizio autotrofoaren prozesua xehetasunez azaltzen du, eta izaki bizidun guztientzat duen garrantziarekin lotzen du.
- Funtzio horietan zenbait aldagaik duten eragina azaltzeko esperimentu errazak egiten ditu.

**12. Izaki bizidunak sailkatzeko irizpideak aplikatzea, gako dikotomikoak edo beste bitarteko batzuk erabiliz, eta organismo ezagunenak dagokien talde taxonomikoarekin lotzea.**

- Izaki bizidunak sailkatzeko erabiltzen diren irizpideak kategorizatzen ditu.
- Gako errazak eta behaketa-teknikak erabiltzen ditu (mikroskopia estereoskopikoa eta mikroskopia) izaki bizidunak identifikatzeko.

- Organismo ohikoenen eredu taxonomiko nagusiak identifikatzen ditu, eta badaki zein diren talde taxonomikoen ezaugarri morfologiko nagusiak.
  - Talde bakoitzaren ezaugarri orokorrak eta bereziak identifikatu eta deskribatzen ditu, eta zer garrantzia biologiko duten nabarmentzen du.
  - Ornogabeen eta ornodunen talde nagusien ezaugarriak adierazten ditu, eta natura-baliabideen iturri moduan duten garrantzia azaltzen du.
  - Euskal Herriko edo interes bereziko ekosistema batzuetako landareak eta animaliak kokatu eta esperimentuak egiten ditu haiekin.
- 13. Biodibertsitatearen garrantziaz jabetzea, bere hurbileko ingurunean ikerketa soilak eginez, eta aintzat hartzea desagertzeko arriskuan dauden espezieak babesteko beharra.**
- Euskal Herriko espezie berezi eta naturagune nagusiak zein diren badaki eta balioetsi egiten ditu.
  - Badaki zein garrantzitsua den diobibertsitatea eta desagertzeko arriskuan dauden espezieak babesteko beharra arrazoitzen du.
  - Euskal Herrian desagertzeko arriskuan dauden espezie nagusiak ikertzen ditu eta haiek desagertzeak dakartzan arazoak aztertzen ditu.

### 3.1.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

- 1. Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.**
- Zientziaren aldetik ikertu daitezkeen problemak hautematen ditu.
  - Problemen aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
  - Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, mapak.
  - Azalpen arrazoiak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
  - Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimentuetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.
  - Ikerketaren emaitzak zenbait bitartekotan (idatzizkoak zein ahozkoak) eta euskarritan jakinarazten ditu, izan digitalak, izan analogikoak.
  - Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
  - Talde-lanaren aldeko jarrera du, dela presentziala dela birtuala, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziaz.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, gainerakoen txandak eta iritzia errespetatzen ditu, eta sareko eztabaidetan netiketa-arauak errespetatzen ditu.

- Sormena erabiltzen du planteatutako galderei erantzuna ematean, eta, beharrezkoa bada, tresna digital egokienak erabiltzen ditu, produktu berritzaileak eta sormenezkoak egiteko.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoen aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
- 2. Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.**
- Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da, bai ahoz, bai idatziz.
  - Ikasitako gaiei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
- 3. Bere iritzia eratzea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.**
- Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.
  - Informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du.
  - Argudioak emanez arrazoitzen du, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
- 4. Laborategiko oinarrizko materiala hautatzea eta sailkatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala eta mikroskopia optiko eta digitala.
  - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokietan adierazten ditu.
  - Autonomiaz planifikatzen ditu lanak.
  - Laborategian zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
- 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta bizikalitatearen hobekuntza dakartela ohartzea.**
- Zientziak zenbait testuinguru pertsonaletan eta sozialetan (medikuntzan, norberaren osasunean eta ingurumenean, besteak beste) egindako ekarpenak kritikoki aztertzen ditu.
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.
- 6. Izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitatea bereiztea, eta zelula-teoria oinarri hartuta zelula prokariotikoak nahiz landare- eta animalia-zelula eukariotikoak identifikatzea.**
- Animalien eta landareen zelula prokariotikoa eta zelula eukariotikoa alderatzen ditu, mikroargazkietan eta maketetan, haien antzekotasunak eta desberdintasunak ondorioztatzen ditu, eta organulu nagusien eginkizuna deskribatzen du.
  - Gizakiaren zelula motak eta ehun garrantzitsuenak bereizten ditu eta haien funtzioa adierazten du.
  - Zelulak eta ehunak aztertzeke eta behatzeko teknika egokiak erabiltzen ditu.
  - Gizakiaren baitako antolaketa-mailak interpretatzen ditu eta haien arteko erlazioa bilatzen du.

**7. Osasun eta gaixotasun kontzeptuen esanahiak oinarri hartuta, haiek baldintzatzen dituzten faktoreak identifikatzea.**

- Osasuna eta gaixotasuna zentzu dinamikoan bereizten ditu, kontrajartze soila egin gabe, eta badaki osasunean alderdi fisikoek, psikologikoek eta sozialek eragiten dutela.
- Badaki zein diren gaixotasun infekzioso eta ez-infekzioso ohikoenak, kutsatze-mekanismoak bereizten ditu, eta prebentzio- eta tratamendu-neurriak adierazten ditu.
- Immunitate-sistemaren oinarrizko funtzionamendua azaltzen du, eta txertoak gaixotasunen prebentziorako ekarpen biomedikoa direla aintzat hartzen du.
- Bizi-ohiturek eta bizi-estiloek gaixotasunen prebentzian eta bizi-kalitatean dituzten eraginak arrazoen bidez azaltzen ditu, eta adibideak emanez azaltzen du norberaren edo taldearen osasuna sustatzeko egiten dituen edo egin ditzakeen hautuak.
- Euskal Herrian organo- eta odol-emaile izateko zer prozedurari jarraitu behar zaion ikertzen du, eta ekintza solidario horiek gizarteari eta gizakiari dakartzkion onurak azaltzen ditu.
- Pertsonen ongizatean eta osasunean eragiten duten gizarte- eta ekonomia-faktoreak identifikatzen ditu, eta azaltzen du zer lotura dagoen aldagai makroekonomikoen eta gizarte-aldagaien eta osasun publikoaren artean.
- Biztanleriaren talde eta maila sozioekonomikoak eta gaixotasunen bat edo batzuk nagusiak izatea lotzen ditu, bai eta droga-kontsumoko ohiturak izatea ere.
- Gizarteak eta populazioak alderatzen ditu; hain zuzen, giza garapen eta ongizate-maila desberdina eta osasun publikoko maila desberdina dituzten gizarte eta populazioak.

**8. Ohitura eta bizi-estilo osasungarriak izatearen garrantzia balioestea, nutrizioan parte hartzen duten organoek, aparatuek eta sistemek behar bezala funtziona dezaten, eta adibideen eta egoera praktikoen bidez azaltzea.**

- Mantenuagai nagusiak eta haien oinarrizko funtzioak organismoan duten eginkizunarekin lotzen ditu, eta nutrizioa eta elikadura bereizten ditu.
- Elikagai batek nutrizio-prozesuan izaten dituen oinarrizko prozesuak deskribatzen ditu, eta hartan parte hartzen duten aparatuen eta organoen funtzioekin lotzen ditu.
- Grafikoetan eta eskemetan oinarrituta, nutrizio-funtzioan parte hartzen duten organoak, aparatuek eta sistemak adierazten eta zehazten ditu, eta prozesuan duten ekarpenarekin lotzen ditu.
- Nutrizioan parte hartzen duten organoen, aparatuen eta sistemen gaixotasun ohikoenak haien arrazoiekin lotzen ditu, eta ondorioak ateratzen ditu bere ongizatea hobetzeko eta nutrizio-ohitura egokiak hartzeko.
- Dieta orekatuak egiten ditu zenbait elikagai talderekin, haietan dauden mantenuagai nagusiak eta kaloriak adierazten dituela.
- Azaltzen du gaixotasunen prebentzioa eta pertsonen ongizatea ohitura osasungarriak izatearekin lotuta daudela eta mendekotasunek eragin kaltegarriak dituztela gure osasunean eta jarreran. (OS)

**9. Ohartzea zer ohitura eta bizi-estilo osasungarri dauden lotuta gizakiaren erlazio- eta lokomozio-funtzioekin, hurbileko inguruneko testuinguruan sortutako egoeren azterketa abiapuntu hartuta.**

- Nerbio-sistemaren eta sistema endokrinoaren ezaugarriak eta antolaketa deskribatzen ditu, eta haien prozesuak eta lotura ezartzen ditu.

- Zentzumen-hartzaileak sailkatzen ditu eta zentzumen-organoekin lotzen ditu.
  - Guruin endokrino nagusiak haiek ekoizten dituzten hormonekin eta egiten duten funtzioarekin lotzen ditu.
  - Eguneroko bizitzan, integrazio eta koordinazio neuro-endokrinoa argi erakusten duen prozesuren bat adierazten du.
  - Giza gorputzeko hezur eta gihar nagusiak kokatzen ditu lokomozio-aparatuaren eskemetan, eta giharren uzkuertze mota hura kontrolatzen duen nerbio-sistemarekin lotzen du.
  - Lokomozio-aparatuaren eragin dezaketeko arrisku-faktore ohikoak adierazten ditu eta sortzen dituzten lesioekin lotzen ditu.
  - Nerbio-sisteman eta sistema endokrinoan eragiten duten gaixotasunak eta bizi-ohiturak zein diren adierazi eta haien arrazoiekin, arrisku-faktoreekin eta prebentzioarekin lotzen ditu.
  - Osasunerako arriskutsuak diren egoerak ikertzen ditu, bai eta jarrera batzuekin eta mendekotasuna eragiten duten substantzia batzuekin lotutako asaldurak ere.
  - Badaki zer ondorio dituen norberarentzat eta gizartearentzat arriskutsuak diren portaerak izateak eta prebentzio- eta kontrol-neurriak proposatzen ditu.
  - Badaki drogen kontsumoa osasunerako portaera arriskutsua dela. Eta, bereziki, tabakoaren, alkoholaren eta kanabisaren kontsumoa.
  - Mendekotasunaren prebentziorako proposamenak eta planak egiten ditu.
  - Ulertzen du informazioaren teknologia kontrolik gabe erabiltzea kaltegarria izan daitekeela pertsonaren garapenerako eta ongizaterako, eta portaera aldarazi eta mendekotasuna sorraraz dezakeela.
- 10. Erabaki arduratsuak hartzea bere eta inguruko pertsonen sexualitatearekin lotutako alderdiei buruz, gizakiaren sexualitatearen eta ugalketaren alderdi nagusien berri jakitea, eta jakitea zer higie-ohitura izan behar diren eta zer prebentzio-neurri hartu behar diren sexu-transmisioko gaixotasunei aurrea hartzeko.**
- Giza ugalketarekin lotutako alderdi nagusiak deskribatzen ditu, sexualitatea eta ugalketa bereizten ditu.
  - Gizonaren eta emakumearen ugaltze-aparatuaren organoak bereizten ditu eskemetan, bai eta giza ugalketan parte hartzen duten sistemen eginkizuna ere, eta zer guruinek eta hormonak erregulatzen dituzten adierazten du.
  - Hilerokoaren etapa nagusiak deskribatzen ditu, eta ernalketaren, haurdunaldiaren eta erditzearen gertaera nagusiak azaltzen ditu.
  - Lagundutako ugalketa-teknikei eta in vitro ernalketari buruzko informazioa biltzen du, eta aurrerapen horrek gizarteari ekarri zion onura azaltzen du, arrazoiak emanez.
  - Badaki zein diren sexu-transmisioko gaixotasun nagusien aurrean izan behar diren higie-ohitura eta prebentzio-neurri nagusiak, eta ondorioak ateratzen ditu bere ongizatea eta taldearen osasuna hobetzeko.
  - Metodo antikonzeptiboak alderatzen ditu, eraginkortasunaren arabera sailkatzen ditu, eta haietako batzuek sexu-transmisioko gaixotasunen prebentzian duten garrantzia adierazten du.

- Bere sexualitatea eta inguratzen duten pertsonena onartzen du, eta sexu-nortasun guztiak errespetatzen ditu.

**11. Erliebe formak sortzen dituzten kausak aztertzea, forma horiek modelatzen dituzten kanpoko prozesu geologikoekin lotuz.**

- Klimaren eta arroken ezaugarrien eragina eta erliebe moten modelatua lotzen du.
- Eguzki-energia kanpo-prozesuak aktibatzearekin lotzen du, eta meteorizazioa, higadura, garraioa eta sedimentazioa prozesuak bereizten ditu.
- Azaleko uren, lurpeko uren eta glaziarren ekintza geologikoa aztertzen du, eta higadura mota eta metaketa mota bereizgarrienak eta erliebean dituzten ondorioak identifikatzen ditu.
- Haizearen ekintza hura ahalbidetzen duten baldintzekin lotzen du, hark sorrarazitako forma batzuk identifikatzen ditu eta ekintza geologiko hori garrantzitsua izan daitekeen inguruneekin lotzen du.
- Itsas dinamika eta itsasertzaren modelatuan duen eragina aztertzen ditu, eta hark sorrarazitako forma bereizgarri batzuk identifikatzen ditu.
- Gizakiak meteorizazio-, higadura- eta sedimentazio-prozesuetan nola parte hartzen duen adierazten du.
- Eragile geologikoek Euskal Herriko erliebean zer ekintza egiten dituzten adierazten du, landako irteerak eginez eta/edo zenbait informazio-iturri erabiliz.

**12. Erliebe forma bereizgarri batzuk aztertzea, Lurreko barne-dinamikaren agerpenekin lotuz.**

- Lurraren barne-egitura azaleko prozesu geologiko bereizgarrienetako batzuekin lotzen du.
- Lurraren barne-energia barne-prozesuak aktibatzearekin lotzen du.
- Bereizten du kanpo-prozesu geologiko batek eta barne-prozesu geologiko batek zer aldaketa eragiten dituen lurrazalean.
- Jarduera sismikoa eta bolkanikoa nola sortzen diren azaltzen du, bai eta zer ezaugarri dituzten eta zer eragin sortzen dituzten ere.
- Jarduera sismikoa eta bolkanikoa Lurraren barneko dinamikarekin lotzen du, eta arrazoi bidez azaltzen du nola dagoen banatuta planetan eta zergatik diren lurrikarak eta sumendiak ohikoagoak eta handiagoak.
- Barne-dinamikak erliebean dituen agerpen batzuk bereizten eta interpretatzen ditu landa-irteeretan, irudietan edo mapetan.
- Badaki zein garrantzitsua den arrisku sismikoa eta bolkanikoa zenbatekoa den jakitea, eta zer neurri eta modu dauden haien ondorioak prebenitzeko.

**13. Gizakiaren esku-hartzeak paisaiaren eta erliebearen modelaketan eta eraldaketan izan duen garrantziaz ohartzea, eta horren ondorioei buruz ikertzea.**

- Lurpeko uren garrantzia arrazoi bidez adierazten du, bai eta zer arrisku dakartzan gehiegi ustiatzeak ere.
- Badaki zer garrantzia duten giza jardueren ondorioek eta baliabide geologikoen ustiapenak lurrazalaren eraldaketan.

- Euskal Herriko eta ingurune hurbileneko paisaia bereizgarriari buruzko ikerketa egiten du eta haren modelaketan eragin duten giza faktore batzuk adierazten ditu.
- 14. Inguruko ekosistema bati buruzko ikerketa soilak egitea, osagaiak eta desorekak eragiten dituzten faktoreak identifikatuz, eta aintzat hartzea ekosistemak babestearen eta kontserbatzearen garrantzia.**
- Ekosistema baten osagai biotikoak eta abiotikoak adierazten ditu.
  - Ekosistema bateko maila trofikoak bereizi eta grafikoki adierazten ditu.
  - Ekosistema batean desorekak dakartzan faktoreak zein diren adierazten du.
  - Badaki lurzorua osagai biotikoen eta abiotikoen elkarrekintzaren ondorio dela, elkarrekintza horietako batzuk adierazten ditu, bai eta babestu behar diren garrantzia ere.
  - Ekosistema jakin bateko elementuak ikertu eta aztertzen ditu, eta osagai abiotiko batzuei (argia, hezetasuna, tenperatura, topografia, arroak, etab.) eta osagai biotiko batzuei (animalia eta landare ugariak) buruzko datuak lortzen ditu.
  - Arrazoi bidez adierazten du zein garrantzitsua den ekosistemaren dibertsitatea eta dibertsitate hori zaintzea, eta Euskal Herriko ekosistema eta espazio babestu bereizgarrienak zein diren ikertzen du.
  - Badaki zein garrantzitsuak diren Euskal Herriko espazio babestuak eta aintzat hartzen ditu.
  - Ingurumena ez hondatzeko eta kontserbatzeko prebentzio-neurriak aukeratu eta hedatzen ditu, eta modu aktiboan jarduten du ikastetxeko Agenda 21eko proiektuetan.

### 3.1.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

- 1. Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.**
- Zientziaren aldetik ikertu daitezkeen problemak hautematen ditu.
  - Problemen aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
  - Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, mapak.
  - Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
  - Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimentuetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.
  - Ikerketaren emaitzak zenbait bitartekotan (idatzizkoak zein ahozkoak) eta euskarritan jakinarazten ditu, izan digitalak, izan analogikoak.
  - Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.

- Talde-lanaren aldeko jarrera du, dela presentziala dela birtuala, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziaz.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, gainerakoen txandak eta iritziak errespetatzen ditu, eta sareko eztabaidetan netiketa-arauak errespetatzen ditu.
  - Sormena erabiltzen du planteatutako galderari erantzuna ematean, eta, beharrezkoa bada, tresna digital egokienak erabiltzen ditu, produktu berritzaileak eta sormenezkoak egiteko.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoaren aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
- 2. Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.**
- Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da, bai ahoz, bai idatziz.
  - Ikasitako gaiei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
  - Lanaren emaitzak egituratzen dituzten txostenak egiten ditu, eta diagrama, eskema edo eredu egokiak erabiltzen ditu kontzeptuak eta prozesuak azaltzeko, bai euskarri digitalean, bai euskarri analogikoan.
- 3. Bere iritzia eratzea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.**
- Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.
  - Informazioa irizpide kritikoaz aukeratzen eta interpretatzen du.
  - Argudioak emanez arrazoitzen du, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
- 4. Laborategiko oinarrizko materiala hautatzea eta sailkatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala eta mikroskopia optiko eta digitala.
  - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokietan adierazten ditu.
  - Autonomiaz planifikatzen ditu lanak.
  - Laborategian zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
- 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta bizikalitatearen hobekuntza dakartela ohartzea.**
- Zientziak zenbait testuinguru pertsonaletan eta sozialetan (medikuntzan, norberaren osasunean eta ingurumenean, besteak beste) egindako ekarpenak kritikoki aztertzen ditu.
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.
  - Badaki zer lan kolektibo egiten duen zientziak, badaki etengabe aldatzen eta berrikusten ari dela, une historiko bakoitzaren ezaugarrien eta beharren arabera, eta mugak dituela ezin baitie gizakiaren arazo guztiei konponbidea eman.



- Ezagutza zientifikoa eta giza pentsamenduaren beste modu batzuk bereizten ditu, eta badaki ezagutza zientifikoaren ezaugarrietako bat dela enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egin dituela.
  - Bere irizpideak ezartzen ditu garapen zientifiko-teknologikoak dakartzan arazoan aurrean erabakiak hartzeko.
- 6. Zelula prokariotikoen eta eukariotikoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak zehaztea, haien arteko erlazio ebolutiboak interpretatuz.**
- Zelula prokariotikoa eta eukariotikoa alderatzen ditu, animaliena eta landareena, eta badaki zein den zelula-organuluaren eginkizuna eta morfologiaren eta funtzioaren arteko lotura.
  - Zelularen nukleoa eta haren antolaketa identifikatzen du zelula-zikloaren faseen arabera, zuzenean behatuz edo zeharka behatuz.
  - Nukleoaren osagaiak eta haien funtzioak bereizten ditu, zelula-zikloaren etapan arabera.
  - Kromosomen eta kromatinaren egitura alderatzen du.
  - Badaki zein diren kromosoma baten zatiak eta kariotipo bat egiteko erabiltzen du.
- 7. Zelula-zikloaren ezaugarriak bereiztea, eta mitosian eta meiosian gertatzen diren prozesu nagusiak deskribatzea, haien arteko desberdintasun nagusiak zehaztuz eta haien esanahi biologikoa azalduz.**
- Zelula-zikloaren eta zelula-ugalketaren ezaugarriak deskribatzen ditu.
  - Mitosiaren eta meiosiaren faseak ulertzen ditu, bi prozesuak bereizten ditu eta baten eta bestearen esanahi biologikoa adierazten du.
  - Marrazki eskematikoak, zelula-zikloen ereduak eta kariotipoen argazkiak erabili eta interpretatzen ditu.
  - Badaki mitosia zelula-zatiketa asexuala dela, beharrezkoa dela organismo zelulabakarren ugalketarako, bai eta organismo zelulanizetan gorputza hazteko eta konpontzeko ere.
  - Gametoek eta meiosiak ugalketa sexualean duten eginkizuna azaltzen du.
- 8. Azido nukleiko motak eta haien osaera alderatzea, eta beren funtzioekin lotzea.**
- Azido nukleiko motak bereizi eta zer osagai dituen adierazten du.
  - DNAREN erreplikazioa informazio genetikoaren kontserbazioarekin lotzen du.
  - Badaki DNAREN eginkizuna informazio genetikoaren eramatea dela, gene kontzeptuarekin lotzen du eta kromosoman kokatzen du.
  - Ulertzen du nola adierazten den informazio genetikoaren, eta haren adierazpen-mekanismoak kode genetikoaren bidez argitzen ditu.
  - Mutazioak zer diren azaltzen du eta izaki bizidunen aniztasun genetikoan duen eginkizuna balioesten du.

**9. Mendelen genetikaren printzipio nagusiak azaltzea, genetikari buruzko problema praktikoak ebaztea, zenbait motatako gurutzaketak aztertuz, eta karaktere jakin batzuen transmisioa gure espeziean ikertzea, Mendelen legeak aplikatuz.**

- Badaki zein diren Mendelen genetikaren printzipio nagusiak, eta karaktere bateko edo bi karaktereko gurutzaketen problema praktikoak ebazten ditu.
- Giza herentziako problema jakin batzuk aztertzen ditu: Rh faktorea, begien eta ilearen kolorea eta abar.
- Sexuaren herentzia eta sexuari lotutako herentzia bereizten ditu, eta haien arteko lotura ezartzen du.
- Sexuaren herentziari eta sexuari lotutako herentziari buruzko problema praktikoak ebazten ditu: hemofilia, daltonismoa eta abar.
- Zenbait gaixotasun hereditario, haien prebentzioa eta gizarte-eragina deskribatzen ditu.

**10. Ingeniaritza genetikoaren zenbait teknika ezagutzea eta deskribatzea, jakitea zer aplikazio dituzten, eta haien ekarpenen eraginak balioestea.**

- Ingeniaritza genetikoaren zenbait lan-teknika bereizten ditu (ADN errekonbinantea, PCR eta klonazioa), bai eta haien emaitzak ere.
- Animalien klonazioko teknikak deskribatzen ditu eta klonazio terapeutikoa eta ugalketa-klonazioa bereizten ditu.
- Ingeniaritza genetikoak zer aplikazio dituen badaki: GEO (genetikoki eraldatutako organismoa).
- Ingeniaritza genetikoaren ondorio etikoak, gizarte-ondorioak eta ingurumen-ondorioak aztertzen ditu.
- Kritikoki balioesten ditu DNA errekonbinantearen eta bioteknologiako beste aurrerapen batzuen aplikazioak nekazaritzan, abeltzaintzan, ingurumenean eta osasunean.

**11. Eboluzioaren frogak identifikatzea, lamarckismoa, darwinismoa eta neodarwinismoa alderatuz, eta nabarmentzea hark eragindako eztabaida zientifikoak eta sozialak eta erlijio-eztabaidak.**

- Lamarckismoa, darwinismoa eta neodarwinismoa bereizten dituzten ezaugarriak adierazten ditu.
- Eboluzioaren teoriaren funtsezko oinarriak deskribatzen ditu, eta mutazioak eta hautaketak eboluzioaren prozesuetan duen garrantzia azpimarratzen du.
- Arrazoituz aztertzen du gradualismoaren, saltazionismoaren eta neutralismoaren arteko eztabaida.
- Aldakortasun genetikoaren, egokitzapenaren eta hautespen naturalaren arteko lotura ezartzen du.
- Informazio garrantzitsua aurkitzen eta aukeratzen du zenbait iturri inprimatu zein informatikotan, eta gai hauei buruzko monografiak egiten ditu: Lurrean bizia sortzea eta haren eboluzioa, espezieak desagertzea, giza eboluzioa...
- Zuhaitz filogenetikoak ulertzen eta interpretatzen ditu.

- Hominizazio-prozesua deskribatzen du, bai eta hura gertatzeko aukera eman zuten baldintzak ere.

**12. Litosferaren higidurarekin lotutako fenomeno eta egitura geologiko batzuk interpretatzea, Lurreko kontinenteen jitoaren teoria eta plaka-tektonikaren teoria oinarri hartuta.**

- Lurraren historian izan diren aldaketa geologiko, klimatiko eta biologiko garrantzitsuak adierazten ditu eskalako denbora-ereduetan, eta historia geologikoko denbora-unitateak bereizten ditu.
- Fosil gidari bereizgarrietako batzuk dagokien aro geologikoarekin lotzen ditu.
- Euskal Herriko hondar fosilak bereizten ditu, bildumak erabiliz, museoetara bisitak eginez edo landa-irteerak eginez.
- Mapa topografiko bat eta profil topografiko errazak interpretatzen ditu.
- Datazio erlatiboko problema errazak ebazten ditu, estratuen gainjartzearen, prozesuen gainjartzearen eta korrelazioaren printzipioak aplikatuz.
- Kontinenteen jitoaren eta ozeanoen hondoaren espantsioaren egungo zenbait ebidentzia arrazoitzen ditu.
- Lurraren egitura eta osaera adierazten duten modeloak aztertu eta alderatzen ditu, eta eredu dinamikoa plaken tektonikaren teoriarekin uztartzen du.
- Plaka litosferikoen higidura erlatiboak eta erliebean dituzten ondorioak azaltzen ditu.
- Erliebea, haren jatorria eta bilakaera barne-prozesu eta kanpo-prozesu geologikoen elkarreaginaren ondorioa dela azaltzen du.
- Mendilerroen, arku-irlen eta orogeno termikoen jatorria azaltzen du.
- Lurrikaren eta sumendien kokapena plaka litosferikoekin, haien higidurarekin eta mugekin lotzen ditu eskalako mapetan.
- Arroken zikloa deskribatzen du eta plaka-dinamikarekin lotzen du.
- Badaki gizakiarengan zer ondorio dituen Lurraren barne-dinamikak.

**13. Ekosistema bateko osagaien eta ingurumen-faktoreen arteko erlazioak aztertzea, eta ingurumen-faktoreek ekosistemen orekari eta erregulazioari eusteko duten garrantzia balioestea.**

- Biotopoa, populazioa, komunitatea, ekotonoa, kate eta sare trofikoak, habitat ekologikoa eta nitxo ekologikoa zer diren deskribatzen du.
- Badaki zer ingurune-faktorek baldintzatzen duten izaki bizidunen garapena ingurune jakin batean, eta ekosistemen orekarekin eta erregulazioarekin lotzen ditu.
- Badaki zenbait erlazio intraespezifikoko eta interespezifikoko ekosistemak erregulatzeko faktoreak direla.
- Adibideen bidez interpretatzen du izaki bizidunak nola egokitzen diren ingurune jakin batera, eta hori eragiten duten ingurune-faktore mugatzailearekin edo mugatzaileekin lotzen du.
- Badaki zein garrantzitsua den biodibertsitatea ekosistemak orekatuta egoteko eta badaki ekosisteman zer ondorio dituen hartako elementuak aldatzeak.

**14. Ekosistemen eboluzio naturala interpretatzea, haietan gertatzen diren prozesu dinamikoak oinarri hartuta.**

- Maila trofikoak eta ekosistemetan dituzten erlazioak bereizten ditu, eta ekosistemak kontserbatzeak bizirako oro har duen garrantzia balioesten du.
- Materia eta energia kate edo sare trofikoan nola lekualdatzen den deskribatzen du, eta haien eta energia-eraginkortasunaren artean zer lotura dagoen azaltzen du.
- Ziklo biogeokimiko handietan gertatzen diren zenbait prozesu global bereizten ditu.
- Segida ekologikoaren prozesua eta ekosistemen denbora-bilakaera lotzen ditu.

**15. Gizakiaren jardueraren ondorioz sortutako ingurumen-arazo nagusiak deskribatzea, garapen iraunkorraren ikuspegitik aztertzea, eta banakako eta taldeko ekintza batzuen egokitasuna aintzat hartzea, ingurumena andeatzea eragozte aldera.**

- Ingurumenean eragin kaltegarri globala zein tokikoa duten giza jarduerak haien kausekin eta ondorioekin lotzen ditu (kutsadura, basamortutzea, baliabideak agortzea, biodibertsitatea galtzea eta abar).
- Maila trofiko bakoitzean sortutako energia-galera planetako elikagai-baliabideak iraunkortasunari begira erabiltzearekin lotzen du.
- Baliabide materialak birziklatzearen eta berrerabiltzearen alde onak eta txarrak adierazten ditu argudioak emanez.
- Energia berriztagarriak erabiltzea garapen iraunkorrerako zein garrantzitsua den ulertzen du.
- Hondakinak tratatzeko prozesuak deskribatzen ditu, haien gaikako bilketarako arazoak ematen ditu eta familian eta gizartean dituzten ondorioak adierazten ditu.
- Aztarna ekologikoaren kontzeptua erabiltzen du azaltzeko munduko herrialdeek ez dutela natura modu berean erabiltzen eta batzuek abusuak egiten dituztela.
- Iraunkortasunari begirako garapena ingurumen-arazoak konpontzeko ezinbestekoa dela arrazoitzen du, eta badaki ingurumena zaintzeko eta hobetzeko zer neurri eta estrategia dauden, etorkizun iraunkorra lortzeko.
- Euskal Herriko espazio natural eta espezie babestuak identifikatzen ditu.
- Badaki Euskal Herrian ingurumena babesteko ekimenen eta estrategien helburu eta ezaugarri nagusiak zein diren, eta lagundu egiten du ikastetxeak ingurumenarekin lotuta parte hartzen duen jardueretan, kudeaketa iraunkorrerakoak izan, zein Agenda 21en barrukoak izan.

## 3.2. FISIKA ETA KIMIKA

### 3.2.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira Fisika eta Kimika ikasgaiari dagozkion etapako helburuak:

1. Ezagutza zientifikoa baliatzea, naturako fenomenoak nahiz gizakiaren jarduerak eragindakoak interpretatzeko, eta zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzeke, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea.
2. Problema identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, eta ikerketa soil batzuk egitea, banaka nahiz lankidetzan zientziaren prozedurekiko koherenteak diren estrategiak aplikatuz, hala nola azalpen-hipotesiak formulatzea, eta datuak lortzea eta haietatik judizioak egitea ahalbidetzen duten emaitzak eta ondorioak ateratzea, iritzi hutsa eta froga zehaztuz oinarritutako ebidentzia bereiziz, norberaren nahiz gizartearen intereseko benetako egoerei testuingurua aintzat hartuta heltzeko eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.
3. Gai zientifikoei buruzko informazioa lortzea zenbait iturritatik —analogikoak nahiz digitalak—, eta informazio hori erabiltzea, edukia balioetsiz eta kontuan hartuta gai zientifikoei buruzko lanak funtsatzeko, bideratzeko eta lantzeko baliagarritasuna, eta gai horiei buruz nork bere jarrerak hartzea, funtsatuta eta ikuspegi kritikoz.
4. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak modu aktiboan eta kritikoan interpretatzea, eta mezu zientifikoak sortzea, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza zuzen erabiliz, bai eta beste notazio- eta adierazpen-sistema batzuk ere, zehaztasunez komunikatu ahal izateko eta zientziaren esparruan azalpenak eta argudioak eman ahal izateko.
5. Errealitatea azaltzeko eskemak egitea, kontzeptu, printzipio, estrategia, balio eta jarrera zientifikoak baliatuz, naturako fenomeno nagusiak interpretatzeko, eta gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko eta teknologiko garrantzitsuenak ikuspegi kritikoz aztertzeke.
6. Zientziaren nolakotasuna, saiakera-izaera eta izaera sortzailea baliatzea, dogmatismoak gainditzeko bide eman duten eztabaida nagusiak aintzat hartuz, bai eta historian zehar izandako iraultza zientifikoak ere, gizadiaren kultura-bilakaeran ezagutza zientifikoak izan duen garrantzia ulertzeko eta balioesteko, gizakiaren beharrak asetzeko eta haren bizi-baldintzak hobetzeko bitarteko den aldetik.

### 3.2.2. EDUKIAK

#### 3.2.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Aurreko etapan Naturaren Zientziak ikasgai jorratutako ezagutza zientifikoaren tratamendu integratua abiapuntu hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen mailatik jada banatu egin dira, eta hala, lehen mailan Biologia eta Geologiako ezagutza zientifikoak landuko dira, eta bigarren mailan, Fisika eta Kimikakoak, azken horietan sakontasun-maila handiagoa baita, bai ideiei dagokienez, bai agerian jartzen diren erlazioei dagokienez. Nolanahi ere, banaketa

horrek ez du oztopo izan behar zientzien ikaskuntzan komuna eta globala dena nabarmentzeko; hain zuzen ere, natura-inguruneari buruz dugun esperientzia globala izan ohi da, eta askotariko alderdiak integratzen ditu; bestalde, ingurunean eragiten duen jarduketan ez da zientzien arteko bereizketarik egiten; eta azkenik, ezagutza eraikitzekeo prozedurak komunak dira funtsean. Horrez gain, kontuan izan behar da diziplina zientifikoek errealitatea aztertzean konpartimentutan banatzen dutela, eta ezarritako muga horiek fenomenoaren sistematikotasuna eta multidimentsionalitatea eteten dutela, modu arbitrarioan. Izan ere, osotasun baten ezagutza ez da haren zatien ezagutzaren batura. Hori dela eta, gizarte- eta ingurumen-arazoei heltzeko, ezinbestekoa da curriculumeko beste ikasgai batzuetako ikaskuntzeekin batera lankidetzan jorratzeko bitarteko egokiak ezartzea; batez ere, Biologia eta Geologia ikasgaiarekin lotuz, bai eta Gizarte Zientziak eta Teknologia ikasgaiarekin ere.

Hala, jakintza horien multzoa lagungarria izango da problema konplexuak ulertzeko eta tratatzeko. Hortaz, hirugarren mailaren amaieran ziurtatu behar da ikasleek lortu dutela zientziaren esparruko alfabetizazioa, ikasgai honekin lotutako oinarritzko alderdi guztietan. Hori dela-eta, bigarren eta hirugarren mailatan kontzeptuen trataera kualitatiboa eta esperimentalak izango da, eta DBHko 4. mailan eta Batxilergoan, berriz, alderdi kuantitatiboak eta akademikoagoak landuko dira.

Ikasturte bakoitzean, eduki multzoak elkarrekin erlazionatutako jakintza multzo gisa ulertzen dira, eta haiek antolatzekeo, problema egituratzaileak hartzen dira abiapuntu, ildo horiei jarraituz eduki multzo horiek sekuentziatzeko eta elkarrekin erlazionatzeko, eta hala, ikaskuntza integratzailea bideratzeko.

Hasieran, materia eta dibertsitate kontzeptuak nahiz aldaketa eta energia kontzeptuak izango dira ikaskuntza bideratzeko haria, eta eduki horien trataera batik bat makroskopikoa eta deskribatzailea izango da, natura-errealitatearen ezagutzara esperimentazioaren bidez hurbilduz. Geroago landuko dira egitura-unitatearen eta materiaren antolaketaren gaiak, konplexuagoak baitira, eta materiaren aldaketei helduko zaie, interakzio mota eta teoria zientifiko nagusiak azalduz.

Bigarren mailan, materiaren propietateak eta haren aldaketak izango dira ikaskuntza bideratzeko haria. Hasieran, materiaren propietateak eta dibertsitatea aztertuko dira, eta gero, erregulartasunak bilatuko dira, haiek oinarri hartuta dibertsitate horren barnean hasierako sailkapen bat egiteko. Horren ostean, materiaren aldaketak aztertuko dira, eta energia kontzeptua azalduko da, aldaketen eragile den aldetik; horrela, aldaketa horien azalpen kualitatibo bat egingo da, ikuspegi globalizatzaile batetik. Era berean, indar kontzeptua azalduko da, eta indar motak eta haien aplikazio batzuk deskribatuko dira.

Kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak hautatzean eta sekuentziatzean, zenbait irizpide hartu dira oinarri: ikasgai hau derrigorrezkoa izatea bigarren eta hirugarren mailan; ikasleek garapen kognitiboaren hainbat maila; eta ikasleek pixkanaka kultura zientifiko ezagutzeko eta zientziarekiko nahiz lan zientifikoarekiko jarrera positiboak garatzeko helburua. Hori dela-eta, hirugarren mailan aurreko ikasturteetan azaldutako dibertsitatearen erroan dagoen materia-unitatea aztertuko da, eta ikasle batzuen zientziaren esparruko alfabetizazioarekin jarraituko da, eredu eta teoria zientifikoek emandako aldaketa nagusien azalpenaren bidez: zehazki, teoria atomiko-molekularrak aldaketa fisiko-kimikoei buruz emandako azalpenak. Hala, Fisikan eta Kimikan, materiaren egiturari buruzko hasierako interpretazio-ereduen azalpenetik hasi eta eredu atomiko soilenak jorratuko dira; horren bidez, materiaren propietate makroskopikoak azalduko dira, bai eta materiaren aldaketa fisikoak eta kimikoak ere. Ikasturte amaieran, eduki horien osagarri, zientziaren eta teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko erlazioak landuko dira: korrante elektrikoa, eta haren ekoizpena eta erabilera, garapen zientifikoarekin eta teknologikoarekin lotuz; eta ingurumen-arazoak, ikuspegi fisiko-kimikotik.

Laugarren mailan, Fisika eta Kimika ikasgaietan, higadura, indarrak eta energia jorratuko dira, ikuspegi mekanikotik; horren harira, zientzia modernoaren sorreran izandako zailtasunak eta senean oinarritutako aurreko ikuspegi sinplistikotik ekarri zuen haustura azalduko dira. Bestalde, kimika organikoaren azterketa abiatuko da, materiaren antolaketa-mailaren eta bizi-prozesuen oinarri den aldetik. Azkenik, atomoaren egitura eta atomoen elkarketak sakonago azalduko dira, bai eta erreakzio kimikoak ere, aldi berean kimikak garapen iraunkorra sustatze aldera egin ditzakeen ekarpenak nabarmenduz.

Maila guztietan, multzo komun batean sartu dira —edota, kasuren batean, erlazioa duten gainerako eduki multzoekin batera— alderdi hauekin lotutako edukiak: zientzia eraikitze moduak; lan esperimentalak; zientziaren berezko hizkuntza; eta zientzialarien jarrerak, zientziari eta haren ikaskuntzari begira. Hala, eduki horien izaera komuna nabarmentzen da, lotuta baitaude eduki multzo guztiekin; eta, beraz, ikasturteko eduki guztiekin ahalik hobekien integratuta garatu beharko dira.

Eduki komun horiek eduki multzo bakoitzean garatu beharrekoak dira, baina horrez gain, sakonago jorratze aldera, ikasturte bakoitzean gutxienez ikerketa-proiektu bat egingo da, landutako eduki multzoetako batekin lotua. Multzo hori landuta, ikerketa-lana egoki egiteko baliagarriak diren edukiak finkatuko dira.

### 3.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak: Aldaketak materialen eta energian

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburtu), buruz ikasi eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...).
- Ideiak sortu, aukeratu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa gauzatea, eta beharrezkoa izanez gero, egokitzea.
- Planifikatutakoa eta egindakoa ebaluatzea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitza jakinaraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).

- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

### B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimendazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrotasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzeko gainditzekoak.
- Fisikako eta kimikako laborategian erabiliko den oinarriko materiala erabiltzeko prozedura.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.

## 2. MULTZOA. Materia eta haren propietateak

- Materiaren propietate orokorrak. Ezaugarri bereizgarriak. Magnitude fisikoak eta haien neurketa. Unitateen nazioarteko sistema.
- Materiaren agregazio-egoerak: solidoa, likidoa eta gasa. Egoera-aldaketak. Eredu zinetiko-molekularra.
- Solidoen, likidoen eta gasen propietate orokorrak agerian jartzen dituzten egoerak identifikatzeko jarraibideak eta esperimendu errazak egiteko teknikak.
- Sistema homogeenak eta sistema heterogeenak. Substantzia puruak. Interes bereziko sistema batzuk: disoluzio akuosoak, aleazioak eta koloideak.
- Substantziak banatzeko teknikak.
- Eguneroko bizitzarako interesgarriak diren materialak: erabilerak eta propietateak. Material berriak. Materialen segurtasuna, iraunkortasuna, berritzeko aukera eta birziklatzeko aukera.

## 3. MULTZOA. Aldaketak materialen

- Aldaketa motak: aldaketa fisikoak eta aldaketa kimikoak.

### *Posizio-aldaketak:*

- Higidura: erreferentzia-sistemak, ibilbidea, posizioa, ibilitako distantzia. Higidura zuzen uniforme. Batez besteko abiadura, aldiuneko abiadura.



- Higidura errazen grafikoak.

*Aldaketa termikoak:*

- Beroa aldaketen eragile. Beroa eta tenperatura bereiztea. Egoera-aldaketak. Beroa eroaten duten eta beroa isolatzen duten materialak.
- Beroak gorputzetan duen eragina agerian jartzen duten egoerak identifikatzeko jarraibideak eta esperimendu errazak egiteko teknikak.
- Beroaren erabilera praktikoaren aplikazioen garrantzia balioestea.

*Aldaketa optikoak eta soinu-aldaketak:*

- Argia eta ikusmena: objektuak argiaren bigarren mailako iturri moduan.
- Argiaren hedapen zuzena norabide guztietan. Fenomeno hori agerian jartzen duten egoerak identifikatzeko jarraibideak eta esperimendu errazak egiteko teknikak.
- Itzalak eta eklipseak.
- Islapenaren eta errefrakzioaren azterketa kualitatiboa. Ispiluak eta leiarrak erabiltzeko jarraibideak. Argiaren deskonposizioa: koloreen interpretazioa.
- Soinua eta entzumena. Igorpena eta harrera. Soinuaren hedapena eta islapena.
- Kutsadura akustikoaren eta luminikoaren arazoaren balioespena.

#### **4. MULTZOA. Indarrak eta aldaketak**

- Indarra kontzeptua. Indar motak: grabitate-indarra, elektrikoa...
- Indarren eraginak: deformazioa eta higidura-egoera aldatzea. Azelerazioa.
- Grabitazioa. Gorputzen pisua.
- Makina sinpleak.

#### **5. MULTZOA. Energia eta aldaketak**

- Energia. Unitateak.
- Energia motak.
- Aldaketak materian eta hari lotutako energia-eraldaketak.
- Energiaren kontserbazioa eta degradazioa. Energia-kontsumoa eta energia-iturriak, orokorrean, eta bereziki, Euskal Herrian
- Energia-iturriak, berriztagarriak eta berriztaezinak, aztertu eta baloratzea. Ondorio ekonomikoak.
- Energia lortu, garraiatu eta erabiltzearekin lotutako arazoak eta horiek konpontzeko estrategiak identifikatzea.
- Energia aurreztearen garrantzia eta energiak gure bizitzan duen eginkizuna aintzat hartzea.

## 6. MULTZOA. Ikerketa-proiektua

- Aurreko eduki multzo bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### 3.2.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak: Materiaren egitura-unitatea eta antolaketa

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburtu), buruz ikasi eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...).
- Ideiak sortu, aukeratu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa gauzatzea, eta beharrezkoa izanez gero, egokitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitza jakinaraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

##### B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimendazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorroztasuna, sormena,

entsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.

- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzeko gainditzekoak.
- Fisikako eta kimikako laborategian erabiliko den oinarrizko materiala erabiltzeko prozedura.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.

## 2. MULTZOA. Materiaren egitura-unitatea

### Materiaren gorputz-izaera

- Gasen azterketa: materialaren egituraren ezagutzan egiten duen ekarpena. Gasen legea.
- Eredu zinetiko-molekularra: gasen propietateak interpretatzeko eta azaltzeko egiten duen ekarpena.
- Gasen legeei buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Gasen eredu zinetiko-molekularra materiaren beste egoera batzuetara estrapolatzea.
- Materiaren teoria atomiko-molekularra alkimiatik kimikara: Dalton. Hipotesi atomiko-molekularra: nola erabiltzen den substantzien aniztasuna azaltzeko.
- Nahastea eta substantzia purua: kontzeptu horiek berrikustea, hipotesi atomiko-molekularra ikusita. Eguneroko bizitzan duen garrantzia.
- Material bat substantzia purua den edo nahaste bat den jakiteko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak, eta nahaste batean substantzia puruak banatzekoak egitekoak.
- Substantzia puruak: sinpleak eta konposatuak. Nahastea eta substantzia konposatua bereiztea.
- Nahaste homogeneoen konposizioa neurtzeko kontzeptuak (g/L, masaren % eta bolumenaren %).

### Materiaren egitura

- Elektrizitatearen azterketak materiaren egituraren ezagutzan egiten duen ekarpenaren garrantzia. Thomsonen eta Rutherforden eredu atomikoak.
- Elementu kimikoa: sarrera. Elementu berekin osatutako unibertsoa. Zenbaki atomikoa eta masa-zenbakia. Elementu kimikoen sistema periodikoa: sarrera.
- Isotopoak: karakterizazioa. Masa atomiko erlatiboa. Substantzia erradioaktiboaren aplikazioen garrantzia eta haien erabilerak izaki bizidunengan eta ingurumenean dituen ondorioak balioestea.
- Lotura kimikoa: sarrera. Atomoen arteko loturak: molekulak eta kristalak.
- Substantzia ohikoenen formulazioa eta nomenklatura, IUPACen arauari jarraituz.

- Elementu eta konposatu bereziki interesgarriak, industrian, teknologian eta biomedikuntzan erabiltzen direnak.

### 3. MULTZOA. Aldaketa kimikoak

- Erreakzio kimikoaren interpretazio makroskopikoa, substantzia bat beste bat bihurtzeko prozesu moduan. Zenbait aldaketa kimikori buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Daltonen teoria atomiko-molekularra, erreakzio kimikoen azalpenean. Masaren kontserbazioa: Lavoisierren legea. Erreakzio kimiko bat sinbolo bidez adieraztea. Masa atomikoa eta masa molekularra. Kalkulu estekiometriko errazak.
- Substantzia bereziki interesgarriak, industrian, teknologian eta biomedikuntzan erabiltzen direnak.
- Prozesu kimiko garrantzitsu-garrantzitsuak. Errekuntza-erreakzioa. Uraren elektrolisia: H<sub>2</sub>-a energia-etorkizunerako.
- Prozesu kimikoekin lotutako giza jardueren ingurumen-inpaktuak.
- Ingurumena zaintzeko beharraz jabetzea eta hura errespetatzeko elkertasuneko jarrerak.

### 4. MULTZOA. Elektrizitatea eta gizartea

- Elektrizazio-fenomenoak. Karga elektrikoak. Material eroaleak eta material isolatzaileak. Korrante elektrikoak.
- Interakzio elektrikoak aztertzeko tresna errazak diseinatzeko eta eraikitze tekniken.
- Korrante elektrikoak: zirkuitu elektriko baten funtsezko elementuak. Ohmen legea. Elektrizitatea etxean: zirkuituak, potentzia, segurtasuna eta kontsumoa. Sarri erabiltzen diren gailu elektronikoak.
- Korrante elektrikoaren eraginak. Elektromagnetismoa. Zentral elektrikoak.
- Elektrizitatea sortzeak eta erregai fosilak erabiltzeak dakartzen ingurumen-arazoak. Baliabide fosilak agortzea. Baliabide horiei lotutako desorekak eta gatazkak. Nazioarteko tratatuak betetzea.
- Euskal Herriko egitura energetikoa eta politika energetikoa: energia tradizionalak eta energia alternatiboak. Energia aurrezteak, eta zuhurtasun-printzipioa aplikatzea.
- Elektrizitateak garapen zientifikoan eta teknologikoan eta bizi-baldintzetan dituen ondorioak.

### 5. MULTZOA. Ikerketa-proiektua

- Aurreko eduki multzo bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### 3.2.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. Mailako edukiak: Sintesi teoriko handiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarriko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburtu), buruz ikasi eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...).
- Ideiak sortu, aukeratu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa gauzatzea, eta beharrezkoa izanez gero, egokitzea.
- Planifikatutakoa eta egindakoa ebaluatzea, eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitza jakinaraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

##### B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimendazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrozatasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak.

- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzekoa gainditzekoak.
- Fisikako eta kimikako laborategian erabiliko den oinarrizko materiala erabiltzeko prozedura.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.

## 2. MULTZOA. Higidurak eta horren kausak

### Zinematika

- Oinarrizko magnitudeak eta magnitude deribatuak: dimentsio-ekuazioak.
- Higidura. Higiduraren izaera erlatiboa. Deskribapen bektoriala.
- Higidura zuzenen eta higidura kurbatuen azterketa kualitatiboa.
- Higidura zuzen eta uniformearen azterketa kuantitatiboa. Azelerazioa. Galileo eta gorputzen erorketa askea.
- Erosketa askeari buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Higidura zirkular eta uniformearen azterketa kuantitatiboa.

### Dinamika

- Interakzioa eta indarra. Indarren izaera bektoriala. Indar motak.
- Dinamikaren printzipioak: “sen onaren” fisika gainditzea. Egunerokotasuneko egoeretan esku hartzen duten indarrak: interakzio motak. Indarren oreka.
- Presioa. Fluidoaren estatikaren oinarrizko printzipioa. Presio atmosferikoa: hura agerian jartzen duten diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Atmosferaren fisika.

### Astronomia eta grabitazio unibertsala

- Astronomia: ondorio praktikoak eta unibertsoari buruzko ideietan duten rola.
- Sistema geozentrikoa. Zalantzan jartzea eta eredu heliozentrikoa sortzea.
- Koperniko eta lehen iraultza zientifiko handia. Dogmatismoaren eta ikerketa-askatasunaren arteko borroka aintzat hartzea eta haren ondorioak. Galileoren teleskopioaren garrantzia eta haren aplikazioak. Zientziaren ezaugarriak: zientziaren, ez-zientziaren eta sasizientziaren arteko bereizketa.
- Grabitazio unibertsala. Gorputzen pisua.
- Unibertsoaren egungo ikuskera. Aurrerapen zientifikoaren eta teknologikoaren balioespena. Sateliteen aplikazioak.

## 3. MULTZOA. Aldaketen azterketan sakontzea

### Energia-transferentzia: lana, beroa eta uhinak

- Lana eta energia kontzeptuak. Energia moten azterketa: energia zinetikoa eta energia potentzial grabitatorioa. Lana egitean izaten den eraginkortasunaren azterketa: potentzia kontzeptua.

- Energiaren kontserbazioaren eta transformazioaren legea eta haren ondorioak.
- Beroa energia-transferentziatzat jotzen duen egungo ikuskeraren interpretazioa. Makina termikoak eta horien ondorioak.
- Uhinak: energia-transferitzeko beste modu bat. Soinua: uhin mota bat. Uhin elektromagnetikoak: espektro elektromagnetikoa eta argi ikusgaia.

#### 4. MULTZOA. Erreakzio kimikoak eta haien garrantzia

##### Atomoaren egitura eta lotura kimikoak

- Atomoaren egitura. Eredu atomikoak.
- Sistema periodikoa eta konfigurazio elektronikoa.
- Substantzien sailkapena, propietateak kontuan hartuta. Substantzien propietateei buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Lotura kimikoa: lotura ionikoa, lotura kobalentea eta lotura metalikoa. Substantzien propietateen interpretazioa.
- Masa molekularra. Substantzia konposatuen konposizioa ehunekotan.
- Konposatu inorganiko hirutarren formulazioa eta nomenklatura, IUPACen arauetara jarraituz.
- Karbonoaren atomoaren ezaugarriak: hidrogenoarekin eta beste atomo batzuekin konbinatzeko aukerak. Karbono-kateak.
- Hidrokarburoak eta energia-baliabide moduan duten garrantzia.
- Talde funtzionalak. Konposatu organiko ohikoenen formulazioa eta nomenklatura: sarrera.
- Makromolekulak: izaki bizidunak sortzean duten garrantzia. Kimikak biziaren sorrera eta garapena ulertzeko duen garrantzia aintzat hartzea.

##### Erreakzio kimikoak

- Substantzia kopurua: mola. Kontzentrazio molarra.
- Erreakzio kimikoak. Estekiometria.
- Erreakzio baten abiadura eta hartan eragiten duten faktoreak. Erreakzio-abiaduran eragiten duten faktoreei buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Azidoak eta baseak: neutralizazioa.
- Energia erreakzio kimikoetan: erreakzio endotermikoak eta exotermikoak.

##### Kimika eta gizartea.

- Kimika eta bizi-kalitatea: substantzia interesgarriak ekoiztea; adibidez, botikak, ongarriak, plastikoak eta material berriak, elikagai-gehigarriak...Industria kimikoaren garrantzia Euskal Herrian
- Kimika, ingurumena eta osasuna: uraren, airearen, lurzoruen eta elikagaien kutsadura. Eguneroko bizitzan ohikoak diren materialak eta substantziak egitearen eta erabiltzearen ondorioak aztertzea. Kutsadura kimikoaren ondorioak munduan eta Euskal Herrian

## 5. MULTZOA. Ikerketa-proiektua

- Aurreko eduki multzo bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### 3.2.2.5. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 4. MULTZOA. Elektrizitatea eta gizartea (3.DBH)

- Euskal Herriko egitura energetikoa: energia tradizionalak: ikatza, gasa, ... ; energia berriztagarriak: eguzki-energia, olatuen bidezko energia, energia eolikoa, biomasa, ...
- Energiaren Euskal Erakundea (EVE). EAEko energiarako plana
- Energia elektrikoaren garrantzia Euskal Herriko industriaren garapenean: siderurgia, metalurgia,...
- Euskal Herriko energia elektrikoaren enpresa garrantzitsuenak. Ormazabal, Arteche, Alkargo y Tecnalia, Iberdrola, Velatia,...
- Energia sortzeko eredu berriak: kooperatiba energetiko berriztagarriak (Goiener, Rescoop,...).
- Euskal Herriko energia-kontsumoaren datu orokorrak. Energia-kontsumoan aurrezteko neurriak.
- Zientziaren inguruan egiten ari diren ikerketa-proiektuak eta zentroak : Donostia International Physics *Center*, EHUko ikerketak,...
- Zientziaren dibulgaziorako aldizkariak, programak, blogak: Elhuyar, Teknopolis, Norteko Ferrokarrila, EHUko Kultura Zientifikoko Katedra, ...
- Euskara gaur eguneko zientziagintzan eta haren esparrutik zientziagintza unibertsalera egindako ekarpenak.

#### 4. MULTZOA. Kimika eta Gizartea (4.DBH)

- Wolframioaren aurkikuntza. Elhuyar anaiak. Bergarako Errege-mintegia.
- Industria kimikoaren bilakaera eta garrantzia Euskal Herrian: XX. mendearen hasieratik gaur egun arte.
- Industria kimikoak eragindako kutsaduraren ondorioak inguruko ekosisteman.
- Elikadura arloan ematen diren zenbait prozesuen oinarri kimikoa: txakolina, sagardoa, ardoa, gaztaren fabrikazioa.



### 3.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 3.2.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

1. **Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioetsi eta emaitzak interpretatzea.**
  - Zientziaren aldetik ikertu daitezkeen problemak hautematen ditu.
  - Problemen aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
  - Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, mapak.
  - Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
  - Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimentuetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.
  - Ikerketaren emaitzak zenbait bitartekotan (idatzizkoak zein ahozkoak) eta euskarritan jakinarazten ditu, izan digitalak, izan analogikoak.
  - Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
  - Talde-lanaren aldeko jarrera du, dela presentziala dela birtuala, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziaz.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, gainerakoek txandak eta iritzia errespetatzen ditu, eta sareko eztabaidetan netiketa-arauak errespetatzen ditu.
  - Sormena erabiltzen du planteatutako galderei erantzuna ematean, eta, beharrezkoa bada, tresna digital egokienak erabiltzen ditu, produktu berritzaileak eta sormenezkoak egiteko.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoaren aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
2. **Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.**
  - Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da, bai ahoz, bai idatziz.
  - Ikasitako gaiei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
3. **Bere iritzia eratzea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.**
  - Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.

- Informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du.
  - Argudioak emanez arrazoitzen du, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
- 4. Laborategiko oinarrizko materiala hautatzea eta sailkatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala.
  - Produktu kimikoen etiketetan eta instalazioetako oharretan erabiltzen diren ikur ohikoenak zein diren badaki eta haien esanahia interpretatzen du.
  - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokietan adierazten ditu.
  - Autonomiaz planifikatzen ditu lanak.
  - Laborategian zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
- 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta bizikalitatearen hobekuntza dakartela ohartzea.**
- Zientziak zenbait testuinguru pertsonaletan eta sozialetan (medikuntzan, norberaren osasunean eta ingurumenean, besteak beste) egindako ekarpenak kritikoki aztertzen ditu.
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.
- 6. Materiaren propietate orokorrak eta espezifikoak identifikatzea eta deskribatzea, haren nolokotasunarekin eta aplikazioekin lotuz, materiaren propietateei buruzko esperimendu soilak abiapuntu hartuta.**
- Materiaren propietate orokorrak eta espezifikoak bereizten ditu, eta azken horiek erabiltzen ditu substantzien ezaugarriak adierazteko.
  - Egindako neurketak unitateen nazioarteko sistematan adierazten ditu.
  - Inguruneko baliabideen propietateak eta haien erabilera lotzen ditu.
  - Esperimendu bidez zehazten du solido baten bolumena eta masa, eta haren dentsitatea lortzen du.
  - Berotze-grafikoak interpretatzen ditu, eta agregazio-egoerei eta egoera-aldaketei buruzko informazioa ateratzen du.
  - Substantzia baten berotze-grafikoetatik abiatuta, substantzia horren fusio-puntua eta irakite-puntua ondorioztatzen du.
  - Substantziak identifikatzen ditu dentsitate-datuen, fusio-puntuaren eta irakite-puntuaren tauletatik.
- 7. Materiaren agregazio-egoeren propietateak eta materiaren egoera-aldaketak bereiztea eta azaltzea, arrazoiak emanez, eredu zinetiko-molekularra oinarri hartuta.**
- Eredu zinetiko-molekularra erabiltzen du gasen, likidoen eta solidoen propietateak azaltzeko.
  - Substantzia baten agregazio-egoerak argudioak emanez adierazten ditu, presio- eta tenperatura-baldintza kontuan hartuta.
  - Egoera-aldaketak deskribatzen ditu eredu zinetiko-molekularraren bidez.
  - Eredu zinetiko-molekularra erabiltzen du materiak ohiko egoeretan izaten duen portaera interpretatzeko.

**8. Sistema materialak aztertzea, eta substantzia eta nahaste motak zehaztea.**

- Erabilera arrunteko sistema materialak substantzia purutan eta nahastetan sailkatzen ditu.
- Nahasteak sailkatu eta nahaste homogeenak, heterogeenak edo koloideak diren adierazten du.
- Interes bereziko nahaste homogeneoen osiera aztertzean, disolbatzailea eta solutua zein diren adierazten du.
- Interes eta garrantzi bereziko zenbait materialen propietateak haien eguneroko bizitzako ohiko erabilerarekin lotzen ditu.
- Substantziak banatzeko metodoak deskribatzen ditu: iragaztea, kristalizazioa, distilazioa, dekantazioa, kromatografia eta abar.
- Nahasteetan substantziak bereizteko metodo errazak proposatu, diseinatu eta erabiltzen ditu, nahastea osatzen duten substantzien ezaugarriak kontuan hartuta.
- Disoluzioak prestatzeko esperimentuak diseinatu eta egiten ditu, haien kontzentrazioa zehazten du, eta emaitza litroko gramotan eta ehunekotan adierazten du.

**9. Aldaketa fisikoak eta kimikoak bereiztea, esperimentu soil batzuk eginez, substantzia berriak eratzen diren edo ez ikusteko.**

- Aldaketa fisikoak eta kimikoak bereizten ditu eguneroko bizitzako jardueretan, substantzia berriak sortzen diren ala ez kontuan hartuta.
- Substantzia berriak sortzen direla agerian geratzen den esperimentu errazak egiten ditu, eta badaki aldaketa kimikoak direla.

**10. Gorputzen posizio-aldaketak interpretatzea eguneroko bizitzan, kontzeptu zientifiko egokiak erabiliz.**

- Badaki erreferentzia-sistemak behar direla higidura aztertzeko.
- Bizitza errealeko higidurak interpretatzen ditu, eta bereizi egiten ditu ibilbidea, egindako distantzia eta lekualdatzea.
- Kalkuluak egiten ditu abiadura kontzeptuarekin, eguneroko bizitzako problemak ebazteko.
- Gorputz baten batez besteko abiadura zehazten du esperimentu bidez, egindako distantzia eta denbora kontuan hartuta, eta nazioarteko sistemako unitateetan adierazten du.
- Batez besteko abiadura eta aldiuneko abiadura bereizten ditu, espazioa/denbora eta abiadura/denbora grafikoetan oinarrituta, eta haien balioak kalkulatzeko, ohiko higidura errazetan.
- Aplikazio birtual interaktiboak erabiltzen ditu gorputz baten batez besteko abiadura eta aldiuneko abiadura kalkulatzeko, eta emaitzak interpretatzen ditu.

**11. Problema ebaztea, temperaturari eta haren neurketari, oreka termikoari eta beroak gorputzetan eragiten dituen efektuei buruzko ezagutzak erabiliz.**

- Temperatura kontzeptua azaltzen du eredu zinetiko-molekularra erabiliz, eta temperatura eta beroa bereizten ditu.
- Badaki tenperaturen eskala absolutu bat dagoela, eta Celsius eta Kelvin eskalak lotzen ditu.

- Badaki zein diren beroa transferitzeko mekanismoak, eta eguneroko egoeretan eta fenomeno atmosferikoetan hautematen ditu. Eraikinetan eta berotze-sistemen diseinuan material batzuk zergatik aukeratzen diren arrazoitzen du.
- Dilatazio-fenomenoan oinarritutako aplikazio praktikoak bereizten ditu; adibidez, likidoa erabiltzen duten termometroak eta egituretako dilatazio-junturak.
- Urak egoera solidoan eta egoera likidoan duen dentsitate desberdinaz ohartzen da, eta arrunta ez den ezaugarri horrek Lurrean bizia izateko duen garrantzia adierazten du.
- Esperimentu errazak egiten ditu termometroarekin eta haren oinarriarekin lotuta, eta fenomeno termikoaren azterketarekin eta beroak gorputzetan dituen ondorioekin lotuta (oreka termikoa, beroaren transmisioa, bero espezifikoa, beroaren eroaleak eta isolatzaileak...).

**12. Argiaren eta soinuaren transmisioarekin lotutako naturako fenomenoak azaltzea, horri buruzko esperimenduak eginez eta haien propietateak kontuan hartuta.**

- Fenomeno naturalak azaltzen ditu, argiaren eta soinuaren propietatez dituen ezagutzak erabiliz, islapena eta errefrakzioa, adibidez.
- Argiarekin eta soinuarekin lotutako behaketa eta esperimendu errazak egiten ditu taldean.
- Kuantitaboki lotzen ditu argiaren abiadura eta argiak zeruko urrutiko gorputzetatik Lurrera iristeko behar duen denbora eta gorputz horietarako distantzia, eta lortutako balioak interpretatzen ditu.
- Tresna optiko soilen oinarri fisikoa eta aplikazioak arrazoitzen ditu (ikusmen-akatsak zuzentzea, ganbera iluna, argazki-kamera...).
- Badaki zer ondorio dituen soinu- eta argi-kutsadurak eta zenbait irtenbide proposatzen ditu.

**13. Jakitea indarrek aldaketak eragiten dituztela gorputzen higiduran eta deformatu egiten dituztela, eta horren adibideak aurkitzea naturako egoeretan edo eguneroko bizitzakoetan.**

- Eguneroko bizitzako egoeretan parte hartzen duten indarrak bereizten ditu, eta sortzen dituzten eraginekin lotzen ditu.
- Egoera jakin batzuetan, indar bat eta haren ondorioa lotzen ditu: gorputzaren deformazioa edo higidura-egoera aldatzea.
- Modu esperimentalean egiaztatzen du zenbait masak malguki batean sortutako luzapena.
- Dinamometroa erabiltzen du indarrak neurtzeko, eta emaitza nazioarteko sistemako unitateetan adierazten du.
- Higidura bat azeleratua den ala ez adierazten du, espazioaren eta abiaduraren denboraren arabera adierazpen grafikoetatik abiatuta.
- Azelerazioaren balioa ondorioztatzen du abiadura-denbora grafikoak erabiliz.
- Badaki makina sinpleak zertarako erabiltzen diren, haien funtzionamendua interpretatzen du eta haien eraginei buruzko kalkulu errazak egiten ditu.
- Marruskadura-indarren eraginak aztertzen ditu eguneroko bizitzako egoeretan.
- Gorputzen pisua interpretatzen du, eta badaki grabitate-indarra dela horien eragilea.

- Lurraren grabitatea objektuak Lurraren zentrorantz erakartzen dituen indarra dela azaltzen du.
- 14. Energia kontzeptua ikuspegi kualitatibotik erabiltzea, inguruan gertatzen diren eraldaketetan duen funtzioa azalduz.**
- Energia aldaketak sorrarazteko ahalmenarekin lotzen du.
  - Argudioak erabiliz adierazten du energia transferitu, bildu edo disipatu egin daitekeela, baina ez sortu edo suntsitu, eta adibideak erabiltzen ditu.
  - Energia magnitude bat dela adierazten du eta badaki zer unitatetan neurtzen den.
  - Badaki zer energia mota jartzen diren agerian ohiko fenomenoetan eta laborategian egindako esperimendu errazetan.
  - Eguneroko bizitzako egoeretan agerian jartzen diren energia-erlaldaketak azaltzen ditu.
- 15. Energia-iturri berriztagarriek nahiz berriztaezinek gizartean eta ingurumenean zer-nolako garrantzia eta ondorioak dituzten ohartzea, eta, arrazoiak emanez, garapen iraunkorrekarekin bateragarriak diren jokabideak izateko beharra azaltzea.**
- Zenbait energia berriztagarri eta berriztaezin mota bereizi eta definitzen ditu, eta haien abantailak eta desabantailak adierazten ditu.
  - Euskal Herriko energia-iturriak aztertzen ditu, eta berriztagarriak direnak eta ez direnak adierazten ditu.
  - Munduan eta Euskal Herrian energiaren kontsumoaren bilakaerari buruzko datu konparatiboak interpretatzen ditu, eta energia aurrezteko neurriak proposatzen ditu, bai banakoak bai kolektiboak.
  - Gizakiak kontsumitzen dituen energia-iturri nagusiak alderatzen ditu, energia-kuotak, ekoizpen-kostuak, ingurumen-eraginak, baliabideen banaketa geografikoa eta nazioarteko geopolitikan duen eragina kontuan hartuta.
  - Bere etxeko eta/edo ikastetxeko energia-balantze edo -diagnosi errazak egiten ditu, eta energia aurrezteko ekintzak proposatzen ditu.
  - Energia aurreztea eta energia garbiak erabiltzea etorkizuneko iraunkortasuna bermatzeko garrantzitsuak direla arrazoitzen du.

### 3.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

- 1. Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.**
- Zientziaren aldetik ikertu daitezkeen problemak hautematen ditu.
  - Problemen aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
  - Esperimentuetako datuak bildu, antolatu eta interpretatzen ditu, zenbait baliabide erabiliz (euskarri digital zein analogikoak): taulak, grafikoak, mapak.
  - Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
  - Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimentuetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.

- Ikerketaren emaitzak zenbait bitartekotan (idatzizkoak zein ahozkoak) eta euskarritan jakinarazten ditu, izan digitalak, izan analogikoak.
  - Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
  - Talde-lanaren aldeko jarrera du, dela presentziala dela birtuala, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziak.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, gainerakoen txandak eta iritziak errespetatzen ditu, eta sareko eztabaidetan netiketa-arauak errespetatzen ditu.
  - Sormena erabiltzen du planteatutako galderei erantzuna ematean, eta, beharrezkoa bada, tresna digital egokienak erabiltzen ditu, produktu berritzaileak eta sormenezkoak egiteko.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoaren aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
- 2. Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.**
- Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da, bai ahoz, bai idatziz.
  - Ikasitako gaiei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
- 3. Bere iritzia eratzea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.**
- Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.
  - Informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du.
  - Argudioak emanez arrazoitzen du, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
- 4. Laborategiko oinarrizko materiala hautatu eta sailkatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala.
  - Produktu kimikoen etiketan eta instalazioetako oharretan erabiltzen diren ikur ohikoenak zein diren badaki eta haien esanahia interpretatzen du.
  - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokietan adierazten ditu.
  - Autonomiaz planifikatzen ditu lanak.
  - Laborategian zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
- 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta bizikalitatearen hobekuntza dakartela ohartzea.**
- Zientziak zenbait testuinguru pertsonaletan eta sozialetan (medikuntzan, norberaren osasunean eta ingurumenean, besteak beste) egindako ekarpenak kritikoki aztertzen ditu.
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.

**6. Materiak hainbat agregazio-egoeratan dituen propietateak deskribatzea, eta interpretatzea, eredu zinetiko-molekularra oinarri hartuta, eta deskribapen makroskopikoa eta eredu bidezko interpretazioa bereiziz.**

- Gasen propietateak azaltzen ditu, bai eta gas baten presioaren kontzeptua ere.
- Eredu zinetiko-molekularra eta gasen legeak erabiliz, hipotesiak egiten ditu eta problemak azaltzen ditu.
- Eredu zinetiko-molekularra eta gasen legeak erabiliz gas baten presioa, bolumena eta temperatura lotzen duten grafikoak, datu-etaulak eta esperimenduak interpretatzen ditu.
- Gas baten egoeran eragiten duten aldagaien arteko erlazioak ezartzen ditu, laborategiko esperimenduak, ordenagailu bidezko simulazioak, grafikoak, datu-etaulak eta abar erabiliz.
- Eguneroko bizitzan gasek duten portaera azaltzen du, gasen legeekin eta eredu zinetiko-molekularrarekin lotuz.

**7. Arrazoiak emanez, azaltzea naturako substantziak askotarikoak direla baina denak elementu gutxi batzuek osatuta daudela, hipotesi atomiko-molekularra eta lehenengo eredu atomikoak oinarri hartuta, eta substantzia batzuek bizirako duten garrantzia balioestea.**

- Substantzia puruen propietate bereizgarrietan oinarritutako esperimenduak diseinatzen eta egiten ditu, eta material bat nahaste bat, substantzia bakun bat edo substantzia konposatu bat den adierazten du (destilazioa, elektrolisia...).
- Eredu atomiko-molekularrean oinarrituta, bereizi egiten ditu substantzia bakunak, substantzia konposatuak eta nahasteak.
- Eguneroko bizitzako ohiko disoluzioetan (itsasoko ura, iturriko ura, serum fisiologikoa...) solutua eta disolbatzailea bereizten ditu.
- Nahasteen osaerarekin lotutako ariketak eta problemak ebazten ditu, disoluzioen azterketan, bereziki.
- Eskema eta marrazki sinpleen bidez adierazten du materiak maila mikroskopikoan duen aniztasuna.
- Lehen eredu atomikoak bereizten ditu, eta adierazten du zergatik ezarri ziren eta nola bilakatu ziren.
- Elementu kimikoaren kontzeptua erabiltzen du, eta bizitzarako oinarritzko elementu kimikoak eta haien ugaritasuna azaltzen ditu.

**8. Atomo-egitura deskribatzea, Rutherforden planeta-eredua baliatuta.**

- Atomoa adierazten du, zenbaki atomikoa eta masa-atomikoa erabiliz, planeta-eredua baliatuta.
- Oinarritzko partikula azpiatomikoen ezaugarriak bereizten ditu eta atomoan non dauden adierazten du.
- ${}^A_Z X$  notazioa zenbaki atomikoarekin lotzen du, eta masa-zenbakia adierazten du, partikula azpiatomiko mota bakoitzaren kopurua zehaztuz.
- Ereduak materiaren egitura ulertzeko beharrezkoak direla ulertzen du.
- Isotopo bat zer den adierazten du, eta isotopo erradioaktiboen aplikazioa, sortutako hondakinek dakarten arazoa eta haiek kudeatzeko konponbideak aztertzen ditu.

**9. Elementu kimiko garrantzitsuenek taula periodikoan zer kokapen duten jakitea, eta kokapen hori elementu bakoitzaren propietateekin eta beste elementu batzuekin elkarketak eratzeko joerarekin lotzea.**

- Gaur egun elementuak taula periodikoan taldetan eta periodotan horrela zergatik antolatuta dauden arrazoitzen du.
- Taula periodikoan metalen, ez-metalen eta gas nobleen kokapena adierazten du.
- Zenbait elementu kimikoren propietateak agerian jartzen dituen laborategiko esperimenduak diseinatu eta egiten ditu, eta elementu horiek taula periodikoan duten kokapenarekin lotzen ditu.
- Badaki atomoek biltzeko joera dutela, eta beste propietate batzuk dituzten substantzia batzuk sortzen direla atomoak bilduta.
- Badaki zer atomo eta molekulaz osatuta dauden egunerokotasunean erabiltzen diren substantziak, eta substantzia bakunak edo konposatuak diren adierazten du.
- Interes bereziko elementu edo konposatu baten propietateei eta erabilerei buruzko informazioa bilatzen du, txosten batean jasotzen du eta aurkeztu egiten du.
- Konposatu kimiko bitarrak izendatu eta formulatzen ditu, IUPACen arauari jarraituz

**10. Erreakzio kimikoak deskribatzea, substantzia batzuk beste substantzia mota batzuk bihurtzeko aldaketa makroskopikoak diren aldetik; ekuazio kimikoen bidez adieraztea; arrazoiak emanez, teoria atomiko-molekularra oinarri hartuta azaltzea; substantzia berriak lortzeko aukera aintzat hartzea; eta ingurumena babesteko beharraz jabetzea.**

- Maila mikroskopikoan deskribatzen du zer prozesuren bidez eraldatzen diren errektiboak beste produktu batzuetan, atomoen berrantolaketaren ondorioz.
- Erreakzio kimiko errazetako errektiboak eta produktuak identifikatzen ditu, eta erreakzio horiek eskematikoki adierazi eta interpretatu egiten ditu.
- Lavoisierren masaren kontserbazioaren legea ondorioztatzen du, laborategiko esperimendu errazen eta ordenagailu bidezko simulazioen bidez.
- Aztertutako erreakzio kimikoetan, Lavoisierren legearekin lotutako ariketak eta problemak ebazten ditu.
- Laborategian egindako erreakzioei dagozkien ekuazio kimikoak idatzi eta doitzen ditu.
- Laborategiko esperimendu errazen bidez, erreakzioen kontzentrazioak eta tenperaturak erreakzio kimikoen abiadura nola eragiten duen egiaztatzen du.
- Badaki zein garrantzitsuak diren erreakzio kimikoak, bizi-kalitatearen hobekuntzan.
- Zenbait substantziaren (karbono dioxidoa, sufre oxidoak, nitrogeno oxidoak eta CFCak) eta prozesu kimikoren ingurumen-inpaktua deskribatzen du, eta neurriak proposatzen ditu, banakakoak zein taldekoak, haien eraginak arintzeko.

**11. Ohiko fenomeno elektrikoak sortzea eta interpretatzea, esperimendu soil batzuk eginez, karga elektrikoaren eredia oinarri hartuta, eta balioestea zer garrantzia duen elektrizitateak garapen zientifikoan eta teknologikoan eta pertsonen bizi-baldintzetan.**

- Fenomeno elektrostatisak agerian jartzen dituzten egunerokotasuneko egoeretan, materiaren izaera elektrikoa azaltzen du.
- Bi gorputzen artean dagoen indar elektrikoa kargarekin eta elkarren artean dagoen distantziarekin lotzen du kualitatiboki, eta grabitate-indarraren eta indar elektrikoaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzen ditu.



- Tresna soilak diseinatzen eta eraikitzen ditu, pendulu elektrostatikoa eta elektroskopioa, esaterako.
- Korrante elektrikoa eroale batean higitzen ari diren kargak direla azaltzen du, eroaleak eta isolatzaileak bereizten ditu, eta eroale eta isolatzaile moduan erabiltzen diren material nagusiak aipatzen ditu.
- Korrante elektrikoaren fenomeno fisikoa azaltzen du, eta magnitude hauen esanahia interpretatu eta haien arteko erlazioa azaltzen du: korrontearen intentsitatea, tentsioa eta potentzial-diferentzia.
- Zirkuitu elektriko errazak eta haien elementuak identifikatu eta adierazten ditu, eta haien oinarriko funtzioak deskribatzen ditu.
- Elektrizitatearen eraginak (argia, beroa, soinua, higidura eta abar) eta magnitude elektrikoaren arteko erlazioak egiaztatzen ditu, zirkuitu elektriko errazak diseinatuz eta eginez, laborategian edo aplikazio birtual interaktiboaren bidez.
- Oinarriko osagai elektronikoak eta haien aplikazioak deskribatzen ditu, eta badaki zer ondorio izan dituen mikrotxipak gero eta txikiagoak izateak gailuen neurrian eta prezioan.
- Zentral elektriko mota guztietan elektrizitatea nola sortzen den deskribatzen du, bai eta oinarriko zer prozesu eta mekanismo behar diren gure etxeetaraino iristeko ere.
- Euskal Herriko energia-egitura aztertzen du, eta korrante elektrikoa sortzeko erabiltzen diren lehen mailako energia-iturriak adierazten ditu.
- Badaki zer ekarpen egin dion elektrizitateak garapen zientifiko-teknologikoari eta nola hobetu dituen Euskal Herriko bizi-baldintzak, eta badaki zein diren arriskuak.
- Monografiak egiten ditu gai hauei buruz: elektrizitatearen ekoizpena eta kontsumoa Euskal Herrian, klima-aldaketa eta haren ondorioak.
- Badaki zer ekarpen egin dion elektrizitateak garapen zientifiko-teknologikoari eta nola hobetu dituen bizi-baldintzak, eta badaki zein diren arriskuak.
- Fenomeno magnetikoak identifikatzen ditu eta iman motak alderatzen ditu.
- Esperimentuen bidez, fenomeno magnetikoen ezaugarriak ondorioztatzen ditu, bai eta zer lotura duten ere korrante elektrikoarekin, eta aintzat hartzen du elektromagnetismoak garapen zientifikoan egin duen ekarpena.

### 3.2.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

#### 1. Gidoi bat oinarri hartuta, ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.

- Zientziaren aldetik ikertu daitezkeen problemak hautematen ditu.
- Problemen aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.
- Esperimentuak diseinatzen ditu ikerketa txikiak egiteko.
- Esperimentuetako datuak tauletan, grafikoetan eta mapetan bildu, antolatu eta interpretatzen ditu.
- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.

- Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimenduetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.
  - Ikerketaren emaitzak zenbait bitartekotan (idatzizkoak zein ahozkoak) eta euskarritan jakinarazten ditu, izan digitalak, izan analogikoak.
  - Neurketa baten errore absolutua eta errore erlatiboa kalkulatu eta interpretatzen du.
  - Magnitude bat beraren neurketatik lortutako balio batzuetatik, neurketaren balioa kalkulatzeko eta adierazten du, zifra esanguratsu egokiak erabiliz.
  - Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.
  - Talde-lanaren aldeko jarrera du, dela presentziala dela birtuala, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziak.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, gainerakoek txandak eta iritzia errespetatzen ditu, eta sareko eztabaidetan netiketa-arauak errespetatzen ditu.
  - Sormena erabiltzen du planteatutako galderei erantzuna ematean, eta, beharrezkoa bada, tresna digital egokiak erabiltzen ditu, produktu berritzaileak eta sormenezkoak egiteko.
  - Simulazio-programak egoki erabiltzen ditu eta fenomenoaren aurreikuspena egiteko erabiltzen du.
- 2. Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitea.**
- Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da, bai ahoz, bai idatziz.
  - Ikasitako gaiei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
  - Lanaren emaitza egituratzen duten txostenak egiten ditu, eta diagrama, eskema edo eredu egokiak erabiltzen ditu kontzeptuak eta prozesuak azaltzeko, dela euskarri digitalean, dela euskarri analogikoan.
- 3. Bere iritzia eratzeko, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.**
- Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.
  - Informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du.
  - Argudioak emanez arrazoitzen du, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
- 4. Laborategiko oinarrizko materiala hautatzea eta sailkatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala.
  - Produktu kimikoen etiketatik eta laborategietako seinaleetan erabiltzen diren piktograma ohikoenak zein diren badaki eta haien esanahia interpretatzen du.
  - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokietan adierazten ditu.

- Autonomiaz planifikatzen ditu lanak.
  - Laborategian zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
- 5. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin lotzea, eta bizi-kalitatearen hobekuntza dakartela ohartzea.**
- Kritikoki aztertzen ditu zientziaren ekarpenak, eta haiek ahalbidetzen dituzten ezagutza zientifikoekin lotzen ditu.
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.
  - Badaki zer lan kolektibo egiten duen zientziak, badaki etengabe aldatzen eta berrikusten ari dela, une historiko bakoitzaren ezaugarrien eta beharren arabera, eta mugak dituela ezin baitie gizakiaren arazo guztiei konponbidea eman.
  - Ezagutza zientifikoa eta giza pentsamenduaren beste modu batzuk bereizten ditu, eta badaki ezagutza zientifikoaren ezaugarrietako bat dela enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egin dituela.
  - Bere irizpideak ezartzen ditu garapen zientifiko-teknologikoak dakartzan arazoen aurrean erabakiak hartzeko.
- 6. Eguneroko bizitzan behagarriak diren higidurekin lotutako problema-egoerak ebaztea, haiek adierazteko magnitudeak, unitateak eta funtzio matematikoak erabiliz.**
- Higidura deskribatzeko erabiltzen diren magnitudeak eta haien unitate bereizgarriak zein diren adierazten du.
  - Magnitude bat eskalarra edo bektoriala den bereizten du eta magnitude bektorialaren ezaugarriak deskribatzen ditu.
  - Arrazoiak emanez, adierazten du higidura erlatiboa dela, eta erreferentzia-sistema bat eta bektoreak behar direla egoki deskribatzeko.
  - Higidura motak bereizten eta deskribatzen ditu.
  - Zenbait higidura motatan, ibilbidea eta posizio-bektoreak, desplazamendua eta abiadura adierazten ditu grafikoki, erreferentzia-sistema bat erabiliz.
  - Batez besteko abiadura eta aldiuneko abiadura bereizten ditu.
  - Higidura azeleratuetan, azelerazioa zer den azaltzen du.
  - Higidura kurbatu guztietan azelerazio-bektore bat dagoela arrazoitzen du, eta haren balioa kalkulatu du higidura zirkular uniformeetan.
  - Tauletan eta grafikoetan, higidurak deskribatzen dituzten funtzio matematikoak adierazten eta interpretatzen ditu.
  - Higidura zuzenak eta higidura zirkularrak zehazten dituzten magnitudeen arteko erlazio matematikoak ondorioztatu eta ongi adierazten ditu.
  - Oinarrizko magnitudeak eta magnitude deribatuak lotzen ditu, eta formula baten homogeneotasuna egiaztatzen du dimentsio-ekuazioen bidez.
  - Ibilgailuen balaztatze-denborak eta -distantziak zehazten ditu, eta emaitzetan oinarrituta, errepidean segurtasun-tarteari eustea zein garrantzitsua den arrazoitzen du.
  - Badaki zein garrantzitsua den zinematika, zientzia modernoaren sorreran lagundu baitzuen.

**7. Indarrek higidura-aldaketak eragiten dituztela azaltzea, eta eguneroko bizitzan agerian jartzen diren indar nagusiak bereiztea.**

- Indarra magnitudea gorputzen elkarrekintza dela eta gorputzen azelerazioaren eragile dela adierazten du.
- Senari jarraituz indarra eta higidura lotuta daudelako ustezko ebidentziak zalantzan jartzen ditu, eta eguneroko problema-egoerak azaltzen ditu Newtonen printzipioei jarraituz.
- Eguneroko bizitzan jarduten duten indarrak identifikatzen ditu, bai eta grabitate-indarra, indar elektrikoa, indar elastikoa, marruskadura-indarra eta fluidoek eragindako indarra.
- Eguneroko bizitzarekin lotutako egoeretan parte hartzen duten indarrei buruzko eskemak eta ariketak egiten ditu.
- Simulazio informatikoak erabiltzen ditu indarrak eta haien oreka aztertzeko.
- Plano horizontalean zein inklinatuan higitzen ari den gorputz bati eragiten dioten indarrak identifikatu eta adierazten ditu, eta indar erresultantea eta azelerazioa kalkulatzeko.
- Newtonen lehen legea ondorioztatzen du bigarren legearen enuntziatutik.
- Gorputzen arteko elkarrekintza gertatzen den egoeretan, akzio-indarrak eta erreakzio-indarrak adierazi eta interpretatzen ditu.

**8. Fluidoekin lotutako naturako fenomenoak eta aplikazio teknologikoak interpretatzea, esperimendu soil batzuk eginez eta hidrostatikaren printzipioak oinarri hartuta.**

- Indar baten aplikazio-azaleraren eta horren ondoriozko eraginaren arteko erlazioa agerian jartzen duten fenomenoak eta aplikazio praktikoak ikusi eta interpretatzen ditu.
- Objektu erregular baten pisuak zenbait egoeretan egiten duen presioa kalkulatzeko, eragiten duen azalera aldatzen den egoeretan, hain zuzen, eta emaitzak alderatu eta ondorioak ateratzen ditu.
- Fluidoaren zenbat propietate (esaterako, presio atmosferikoaren eraginak) agerian jartzen duten laborategiko esperimentuak diseinatzen eta egiten ditu taldean.
- Fluidoaren ezaugarrien aplikazio garrantzitsuak gizarteari oso erabilgarri zaizkion teknologietan nola garatu diren aztertzen du. Esate baterako, barometroa eta itsasontziak.
- Itxura guztien eta "hutsarekiko izuaren" aurka, atmosfera egon bazela ondorioztatzea ekarri zuen eztabaida historikoari buruzko txostenak egiten ditu.
- Pascalaren printzipioan oinarritutako aplikazio praktikoak aztertzen ditu; esaterako, prentsa hidraulikoa, jasogailua, eta direkzio eta balazta hidraulikoak.
- Objektuen flotagarritasuna aurreratzen du, Arkimedesen printzipioaren adierazpen matematikoa erabiliz.
- Esperimendu bidez edo aplikazio birtual interaktiboak erabiliz egiaztatzen du presio hidrostatiakoaren eta sakoneraren arteko erlazioa, zenbait fenomenotan: paradoxa hidrostatiakoa, Arkimedesen upela, eta ontzi komunikatuen printzipioa.
- Presio atmosferikoari buruz dituen ezagutzak aplikatzen ditu fenomeno meteorologikoak deskribatzeko eta eguraldi-mapak interpretatzeko, eta badakizki meteorologiako termino eta ikur berezi batzuk.

**9. Unibertsoko osagai diren objektuen arteko erakarpena, pisuaren erakarpen-indarra eta satelite artifizialen higidura interpretatzea, grabitazio unibertsalaren legea oinarri hartuta.**

- Grabitazio unibertsalaren legearen ezarpenari eta haren protagonistei buruzko informazio historikoa bilatu, hautatu eta antolatzen du.
- Txostenak egiten ditu grabitate unibertsala zela adierazten zuen legea ezartzeari buruz (zeruaren eta Lurraren arteko hesia hautsi eta unibertsoa unitate bakartzat hartzea eragin zuen).
- Gorputzen pisua, eta planetek eta sateliteek eguzki-sisteman duten higidura azaltzen du, grabitazio unibertsalaren barnean sartuta, eta ondorioak ateratzen ditu kausa-ondorioa erlazioak erabiliz.
- Grabitate-erakarpenaren indarra masa handi-handiko objektuekin soilik zergatik jartzen den agerian azaltzen du.
- Grabitatearen azelerazioaren adierazpena lortzen du grabitazio unibertsalaren legean oinarrituta.
- Azaltzen du grabitate-indarrek zergatik sorrarazten dituzten batzuetan erorketa askeko higidurak eta beste batzuetan higidura orbitalak.
- Badaki satelite artifizialak oso erabilgarriak direla, haiek egitea ahalbidetzen duten ezagutza zientifikoekin lotzen ditu, eta sortzen duten espazio-zaborraren arazoa ere aipatzen du.

**10. Eguneroko bizitzan gertatzen diren energia-erlaketak azaltzea, energiaren kontserbazioaren printzipioa aplikatuz, eta jakitea lana, beroa eta uhinak energia-transferentzia motak direla.**

- Lana, energia eta potentzia kontzeptuak definitzen ditu, eta haien arteko loturak azaltzen ditu.
- Energia motak erlazionatzen ditu (eta, bereziki, zinetikoa eta energia potentzial grabitatorioa).
- Energiaren kontserbazioaren legea aplikatzen du adibide erraz batzuetan, eta bero moduan zer energia disipatzen den zehazten du, marruskadura dela-eta energia mekanikoa murrizten den egoeretan.
- Lana eta potentzia kontzeptuak erlazionatzen ditu problemak ebazteko, eta emaitzak nazioarteko sistemako unitateetan adierazten ditu, bai eta asko erabiltzen diren beste batzuetan ere: kaloriatan, KWh-tan, ZP-tan...
- Beroa energia-transferentzia moduan interpretatzen du, haren eraginak adierazten ditu eta badaki sistema batek zer baldintzatan trukatzeko duen energia bero moduan edo lan moduan.
- Beroa gorputzean sortzen dituen ondorioekin lotzen du modu kualitatiboan zein kuantitatiboan: temperatura-aldaketa, egoera-aldaketak eta dilatazioa.
- Esperimentu bidez, kalorimetro bat erabiliz, substantzien bero espezifikoak eta bero sorrak zehazten ditu, lortutako datu enpirikoetatik abiatuta beharrezkoak diren kalkuluak eginez.
- Makina termikoen garrantzia historikoa aintzat hartzen du, industria-iraultza ekarri baitzuten, eta gaur egun industrian eta garraioan duen garrantziaz ere jabetzen da.
- Eztanda-motorraren funtzionamenduaren oinarria azaltzen edo interpretatzen du.

- Badaki energiaren degradazioaren fenomenoak zer muga dakarren makina termikoetan energia erabilgarria lortzeko prozesuak optimizatzeko, eta zer erronka teknologiko dakarren makina termikoen errendimendua hobetzeak ikerketarako, berrikuntzarako eta enpresarako.
- Uhin-fenomenoak energia-transferentzia moduan interpretatzen ditu, bibrazio bat ingurune material jakin batean hedatuz.
- Badaki zer garrantzia duten uhin-fenomenoek komunikaziorako gaur egungo gizartean.

#### **11. Atomo-egitura deskribatzea, eredu atomiko nagusiak baliatuz.**

- Ereduak materiaren egitura interpretatzeko beharrezkoak direla ulertzen du.
- Eskema grafiko sinpleak eta aplikazio birtual interaktiboak erabiltzen ditu, zenbait eredutan atomoak irudikatzeko.
- Historian zehar materiaren barne-barneko izaera interpretatzeko proposatutako eredu atomikoak alderatzen ditu, bai eta eredu horiek ezinbestean eboluzionatzea eragin zuten ebidentziak ere.
- Elementu baten konfigurazio elektronikoa idazten du, haren zenbaki atomikotik abiatuta.

#### **12. Taula periodikoko elementu kimiko garrantzitsuenen ezaugarriak identifikatzea, eta elementu bakoitzak beste elementu batzuekin elkarketak eratzean duen portaera kimikoarekin lotzea.**

- Elementu batek taula periodikoan duen kokapena arrazoitzen du, haren konfigurazio elektronikotik abiatuta.
- Elementu kimiko baten egitura idazten du, haren balentziako elektroiak ondorioztatzen ditu eta haren portaera kimikoarekin lotzen ditu.
- Familiak biltzen ditu elementu adierazgarriak eta trantsizioko elementuak, IUPACen arabera.
- Metalak, ez-metalak, erdimetalak eta gas nobleak bereizten ditu, konfigurazio elektronikoen arabera.
- Badaki zer ekarpen egin zuten Elhuyar anaiek Wolframioaren aurkikuntzan.
- Taula periodikoko talde nagusiak elementuen egitura elektronikorekin eta sor dezaketen lotura motarekin lotzen ditu.
- Zortzikotearen araua eta Lewisen diagrama erabiltzen ditu.
- Konposatu baten formula baten azpiindizeek ematen duten informazioa interpretatzen du, molekulak diren edo kristal-sareak diren kontuan hartuta.
- Substantzia baten propietateak modu teorikoan eta esperimentalean arrazoitzen ditu, lotura kimikoa nolakoa den kontuan hartuta.
- Badaki zer eragin duten molekula arteko indarrek substantzia interesgarrien agregazio-egoeran eta propietateetan.
- Substantzia puruen masa molekularra zehazten du, bai eta substantzia konposatuen konposizio ehundarra ere.
- Konposatu kimiko hirutarrak formulatu eta izendatzen ditu, IUPACen arauari jarraituz.

**13. Arrazoiak emanez, konposatu organikoen ugaritasuna eta makromolekulek izaki bizidunetan duten garrantzia azaltzea, karbonoaren ezaugarriak oinarri hartuta.**

- Konposatu organikoak identifikatzen ditu eguneroko bizitzan eta laborategian.
- Hidrokarbuero errazak identifikatzen eta adierazten ditu formulen bidez, eredu molekular fisikoekin edo ordenagailuz sortutakoekin lotzen ditu, eta badakizki haien aplikazio interesgarri batzuk.
- Talde funtzionala eta familia organikoa identifikatzen ditu, alkoholen, aldehidoen, zetonen, azido karboxilikoaren, esterren eta aminen formulatik abiatuta, eta molekula interesgarrietan dauden zenbait talde funtzional bereizten ditu.
- Badaki zer eginkizun duten makromolekulek izaki bizidunen eraketan.
- XIX. mendearen lehen erdian, bitalismoa atzean utzita, lehen konposatu organikoen sintesia zein lorpen handia izan zen adierazten duten txostenak egiten ditu.

**14. Erreakzio kimikoak eta energiarekin duten lotura azaltzea, eta zehaztea zer faktoreen arabera den prozesu kimikoen abiadura, aldaketa kimikoei buruzko lege batzuk aplikatuz eta kalkulu estekiometriko batzuk eginez.**

- Erreakzio kimikoen mekanismoa ulertzen du eta masaren kontserbazioaren legea ondorioztatzen du, erreakzioan sortzen den berrantolaketa atomikoaren kontzeptutik abiatuta (talken teoria).
- Badaki substantzia kantitatea funtsezko magnitudea dela eta mola dela haren unitatea nazioarteko unitate-sisteman, eta substantzia kantitatea, masa atomikoa edo molekularra eta Avogradoren zenbakia edo konstantea lotzen dituzten kalkuluak egiten ditu.
- Kalkulu estekiometrikoak egiten ditu, dagokion ekuazio kimikoa doituta.
- Erreakzio kimiko baten abiaduran eragiten duten faktoreak azaltzen ditu, eredu zinetiko-molekularrari eta talken teoriari jarraituz.
- Zenbait faktorek erreakzio kimiko baten abiaduran duten eragina egiaztatzeko esperimentuak diseinatu eta egiten ditu taldean.
- Prozesu kimikoetan energiarekin lotuta dauden alderdiak deskribatzen ditu eta eguneroko bizitzako egoerekin edo industriarako edo biologiarako garrantzitsuak diren egoerekin lotzen ditu.
- Ekuazio termokimikoak interpretatzen ditu eta erreakzio endotermikoak eta exotermikoak bereizten ditu.
- Azidoak eta baseak identifikatzen ditu, haien indarra neurtzen du adierazleen eta/edo pH-metroaren bidez, eta Arrheniusen teoria erabiltzen du substantzia horien portaera kimikoa deskribatzeko.
- Sintesi-, errekuntza- eta neutralizazio-erreakzioak gertatzen diren laborategiko esperimentuak egiten ditu, eta ikusitako fenomenoak interpretatzen ditu.
- Azido sendo eta base sendo baten neutralizazio-bolumetria bat egiteko prozedura diseinatzen eta deskribatzen du, esperimentua egiten du, eta lortutako emaitzak interpretatzen ditu.
- Errekuntza-erreakzioetan karbono dioxidoa sortzen dela gas hori hautemanda frogatzen duen esperimentu bat diseinatzen du, eta laborategian horretarako zer prozedurari jarraitu behar zaion deskribatzen du.

**15. Kimika-industriak gizartearen ongizaterako duen garrantzia azaltzea, eta industria batzuek gizarte modernoaren garapenari egindako ekarpena aztertzea, ingurumen-arazoekin ere lotuz.**

- Gizarte-intereseko prozesu industrial batzuen oinarriko ezaugarriak deskribatzen ditu; ongarriak eta botikak egiteko modua, esate baterako.
- Amoniakoaren eta azido sulfurikoaren industria-sintesiaren erreakzioak deskribatzen ditu, bai eta substantzia horiek zertarako erabiltzen diren industria kimikoan.
- Euskal Herrian industria kimikoak duen garrantzia aztertzen du.
- Arrazoiak emanez adierazten du zein garrantzitsuak diren errekuntza-erreakzioak zentral termikoetan elektrizitatea sortzeko, eta automobilgintzan eta zelula-arnasketan.
- Garrantzia biologikoa eta industrialak duten neutralizazio-erreakzioen kasu konkrituak interpretatzen ditu.
- Munduko eta Euskal Herriko kutsadura kimikoaren arazoa deskribatzen du, zergatiak azaltzen ditu eta zenbait konponbide proposatzen ditu.
- Badaki garapen zientifiko-teknologikoak zer erantzukizun duen ingurumen-arazoan eta ezinbestean lagundu behar duela konponbideak ematen, zuhertasun-printzipioa aintzat hartuta, betiere.



### 3.3. KULTURA ZIENTIFIKOA

#### 3.3.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira Kultura Zientifikoa ikasgaiari dagozkion etapako helburuak:

1. Ezagutza zientifikoa baliatzea, zientziak eta teknologiak pertsonen bizitzan eta osasunean duten eragina ikuspegi kritikoaz aztertzeke, bai eta zientziaren eta gizartearen nahiz ingurumenaren arteko interakzioak ere, eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutako iritziak eratzeko nahiz interes zientifiko-sozialeko gaietan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeke.
2. Problema identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, eta ikerketa soil batzuk egitea, banaka nahiz lankidetzan zientziaren prozedurekiko koherenteak diren estrategiak aplikatuz, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten erlazioak aztertzeke, eta norberaren nahiz gizartearen intereseko benetako egoerei testuingurua aintzat hartuta heltzeke eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateke.
3. Gai zientifikoetarako buruzko informazioa lortzea zenbait iturritatik —analogikoak nahiz digitalak—, eta informazio hori erabiltzea, edukia balioetsiz eta kontuan hartuta gai zientifikoetarako lanak funtsatzeko, bideratzeko eta lantzeko baliagarritasuna, eta gai horiei buruz nor bere jarrerak hartzea, funtsatuta eta ikuspegi kritikoaz.
4. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak modu aktiboan eta kritikoan interpretatzea, eta mezu zientifikoak sortzea, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza zuzen erabiliz, bai eta beste notazio- eta adierazpen-sistema batzuk ere, zehaztasunez komunikatu ahal izateke eta zientziaren esparruan azalpenak eta argudioak eman ahal izateke.
5. Errealitatea azaltzeko eskemak egitea, kontzeptu, printzipio, estrategia, balio eta jarrera zientifikoak baliatuz, eguneroko ingurunea interpretatzeko, eta gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko eta teknologiko garrantzitsuenak ikuspegi kritikoaz aztertzeke.
6. Zientziaren nolakotasuna, saiakera-izaera eta izaera sortzailea baliatzea, dogmatismoak gainditzeko bide eman duten eztabaida nagusiak aintzat hartuz, bai eta historian zehar izandako iraultza zientifikoak ere, gizadiaren kultura-bilakaeran ezagutza zientifikoak izan duen garrantzia ulertzeko eta balioesteko, gizakiaren beharrak asetzeko eta haren bizi-baldintzak hobetzeko bitarteko den aldetik.

#### 3.3.2. EDUKIAK

##### 3.3.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Zientzia gizadiaren eraikuntza teoriko nagusietako bat da. Zientziaren ezagutzak banakoa eratzen du, analisi-gaitasuna ematen dio, bai eta egia bilatzeko gaitasuna ere. Zientzia gizadiaren kultura-ondarearen parte da; hain zuzen ere, iraganeko kulturen aurrerapenen eta lorpenen jatorrian gizakiaren ahaleginaren eta sormenaren bidez garatutako ezagutza zientifikoak egon dira.

Bai zientzia bai teknologia nazioen ongizatearen zutabeak dira, eta beharrezkoak dira herrialdeek erronka berriei aurre egiteko eta irtenbideak bilatzeko. Horrenbestez, zientziaren

arloko heziketa ezinbestekoa da gizarteak oro har erronka horiei erantzuteko konpromisoa har dezan.

XXI. mendeko informazioaren eta ezagutzaren gizarte honetan, pertsonen prestakuntza intelektualaren eta kultura zientifikoaren mende daude herrialdeen garapen soziala, ekonomikoa eta teknologikoa, gero eta lehiakorragoa eta globalizatuagoa den mundu honetan duten kokapena, eta herritarren ongizatea.

Gure eguneroko bizitzan, etengabe ditugu inguruan zientziaren esparruarekin zerikusia duten egoerak eta hitzak, zuzenean eragiten digutenak: dieta orekatua, gaixotasunak, elikagaien ekoizpena eta manipulazioa (behi eroen sindromea, arrainen parasitoak, oiloen dioxinak...). Komunikabideetan ere etengabe ageri dira horrelako gaiak: elikagai transgenikoak, klonazioak, in vitro ernalketa, terapia genikoa, transplanteak, enbrioi izoztuekin egindako ikerketak, lurrikarak, sumendi-erupzioak, lehorteak, uholdeak, Plan Hidrologiko Nazionala, desagertzeko arriskuan dauden animaliak, eta abar. Beraz, egungo mundua ulertzeko, herritarrek oinarrizko kultura zientifikoa izan behar dute; hau da, alfabetizazio zientifikoa lortu behar dute.

Ezinbesteko kultura zientifiko hori herritar guztien esku jarri behar da, jakintza horren elementu komunak bilatuz. Gizarte demokratiko ororen erronka da herritarrek nahikoa ezagutza izatea, gai izan daitezen gizartean berebiziko eragina duten gai zientifiko eta teknikoetara buruzko erabakiak gogoetan oinarrituz eta funtsatuta hartzeko, gizadiaren bilakaera iraunkortasunean oinarritutako etorkizunerantz bideratze aldera.

Ikasgai honetan, ikasleei problemei heltzeko, aztertze eta ondorioak ateratzeko modu jakin bat azalduko zaie, eta irizpide zehatz batzuk emango zaizkie, gai izan daitezen iritzi pertsonalak eta ikerketa baten ondorioak bereizteko, deskribatzea eta interpretatzea bereizteko, eta zientzia eta pseudozientzia bereizteko. Horrez gain, ikasleek argudiatze sendoak eraikitze eta hizkuntza zehatza erabiliz azaltzeko gaitasuna garatuko dute, aurkeztutako ideien eta amaierako ondorioen arteko erlazioak ezarri, bai eta grafikoak irakurtzeko eta interpretatzeko gaitasuna ere, aldagaien arteko erlazioak ezartzeko, edota erregulartasunak bilatzeko eta haiei buruzko galderak egiteko. Gainera, ezagutza zientifikoak gizarteari begira duen erabilgarritasuna hobeto ulertuko dute ikasleek, gizarte-kontrol jakin batzuk ezartzearen egokitasunaz jabetuko dira, eta, azken finean, zientziekiko interesa piztuko zaie eta informazio zientifikoa hobeto erabiltzeko gaitasuna lortuko dute.

Hortaz, ikasgai hau lagungarria izango da ikasle batzuen zientziarekiko zaletasun eza eta horrek sortzen dien blokeoa gainditzeko. Helburua da zientzia gizarte-testuinguruarekin lotuta aztertzea, ikasgelan landutako edukiak gizarte-intereseko gai zientifikoekin lotzea. Horretarako, zientziarako hurbilketa funtzional bat egin behar da, gizartean eragin nabarmena duten gai zientifikoetara eta teknologikoetara buruzko galderei erantzunez. Hortaz, ez da nahikoa ikasleei erantzunak ematea. Batez ere bitarteko egokiak eman behar zaizkie, informazioa bilatzeko eta hautatzeko, informazio esanguratsua eta esanguratsua ez dena bereizteko, ebidentzia zientifikorik dagoen edo ez zehazteko, eta abarretarako. Hortaz, ikasten ikasteko kompetentzia garatzeko aukera eman behar zaie, etorkizunari begira baliagarria izango baitzaie, iraultza zientifikoaren eta teknologikoaren ondorioz etengabe aldatzen ari den gizarte honetan.

Hori dela-eta, ikasgai hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nahiz Batxilergoan landuko da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan, Kultura Zientifikoa ikasgai, ezagutza zientifikoarekin lotutako gai hauek jorratuko dira: unibertsoa, aurrerapen teknologikoak, osasuna, bizi-kalitatea eta material berriak. Batxilergoko 1. mailan, gai konplexuagoak landuko dira: Lurraren eraketa eta biziaren jatorria; genetika; biomedikuntzako aurrerapenak; eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei buruzko eduki multzo bat.

### 3.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

##### A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

##### B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimendazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrotasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.
- Aukeratutako gai zientifikoei buruzko txostenak eta monografiak egiteko jarraibideak, izan formatu inprimatuan izan digitalean.
- Talde-lanak modu kooperatiboan egiteko jarraibideak, eztabaidak antolatzeak eta aukeratutako gaien inguruan sortzen diren eztabaidetan parte hartzeak.

- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak, ingurumen-arazoa eta baliabideak agortu egiten direla aintzat hartzekoak, eta ingurumen-balioak bere egiteko jarraibideak. Horrez gain, garapen iraunkorraren alde jarduteko jarrera izatea eta horretan lehentasunez jardutea.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzekoak gainditzekoak.
- Zientziak eta teknologiak kultura unibertsalari, giza pentsamenduen garapenari eta gizartearen ongizateari egiten dioten ekarpena aintzat hartzea, bere mugekin eta akatsekin.
- Zientziaren eginkizun kolektiboa aintzat hartzea, bai eta haren mugak ere. Zuhurtasun-printzipioa.
- Laborategiko oinarriko material eta behaketa-tresnak erabiltzeko prozedurak.
- Portaera-, lan-, eta segurtasun-arauak laborategian eta landa-lanetan.

## 2. MULTZOA. Unibertsoa

- Unibertsoaren jatorria. Unibertsoari buruzko teoriak historian zehar, eta, bereziki Big Banga.
- Unibertsoaren antolaketa: galaxiak, izarrak eta planetak. Beste osagai batzuk: zulo beltzak, materia iluna, energia iluna.
- Izarren bilakaeraren faseak. Elementuen genesisia: izarren hautsa.
- Eguzki-sistema: eraketa eta ezaugarri nagusiak. Lurra, planeta biziduna.
- Unibertsoaz gaur egun dugun ezagutza ahalbidetu duten aurrerapen teknologiko nagusiak.

## 3. MULTZOA. Bizi-kalitatea

- Osasuna: faktore genetikoaren, ingurumen-faktoreen eta faktore pertsonalen emaitza. Bizi-ohitura osasungarriak.
- Generoak duen eragina bizitzaren kalitatean eta pertsonen osasun egoeran eta gaixotasunetan.
- Gaixotasun motak: infekziosoak eta ez-infekziosoak. Gaixotasun garrantzitsuenen adierazle, kausa eta tratamendu ohikoenak.
- Drogak: droga motak. Organismoan dituzten ondorio nagusiak eta drogen kontsumoak dakarren arriskua.
- Zientzia eta teknologia gaixotasunak hauteman eta tratatzeko: haren garrantzia.
- Osasuna Euskal Herrian: egoera eta osasun-maila.
- Laguntza behar dutenekin eta osasunaren mantenuan, familian bereziki, emakumezkoen ekarpena.

#### 4. MULTZOA. Aurrerapen teknologikoak eta ingurumenean eragiten duten inpaktuak

- Mugatuak diren baliabideak gehiegi ustiatzea: airea, ura, lurzorua, izaki bizidunak eta energia-iturriak.
- Hidrogeno-pila: etorkizuneko energia-iturria.
- Inpaktuak: kutsadura, basamortutzea, hondakinak ugaritzea eta biodibertsitatea galtzea. Klima-aldaketa. Pobrezia eta gosea.
- Arrisku naturalak. Hondamendi ohikoenak. Arriskuak ugaritzen dituzten faktoreak.
- Planeta mugatu batean hazkunde mugagabea izatearen arazoa. Iraunkortasun ekonomikoko, ekologikoko eta sozialeko printzipio nagusiak. Nazioarteko konpromisoak eta konpainia multinazional handien eta herritarren erantzukizuna.
- Euskal Herriko ingurumen-arazo nagusiak. Ingurumena: prebentzioa, kontserbazioa, leheneratzea eta hobetzea. Kontsumo eta garapen iraunkorra, aztarna ekologikoa.

#### 5. MULTZOA. Berrikuntza. Material berriak

- Gizateria eta materialen erabilera. Kontrola eta kontsumo iraunkorra.
- Zenbait material natural. Metalak; arriskuak, korrosioa dela eta. Papera eta deforestazioaren arazoa. Bioerregaiak eta gosearen arazoa.
- Garapen zientifiko-teknologikoa eta kontsumoaren gizartea: materialak agortzea eta behar berriak agortzea, medikuntzatik hasi eta aeronautikan buka.
- Zientziaren eta teknologiaren erantzuna. Material berriak. Teknologia berriak: nanoteknologia.
- Materialen erabileraren ingurumen-azterketa eta energia-azterketa: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Hondakinak.
- Euskal Herriko berrikuntza-zentro nagusiak.

#### 6. MULTZOA. Ikerketa-proiektua

- Curriculumeko eduki bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### 3.3.2.3. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 3.MULTZOA. Bizi-kalitatea

- Osasuna Euskal Herrian. Egoera eta osasun maila: bizi-itzaropena, hilkortasuna, heriotza-arrazoiak.
- Euskal Herriko osasun-zerbitzuak eta horien prestazioak.
- Euskal Herriko organo-, zelula-eta odol emaileen elkarrean garrantzia eta funtzioa euskal gizartean.
- Alkoholari eta drogei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzatik bultzatutako sentsibilizazio kanpainak eta erakundeak.

- Osasun inguruko ikerketak egiten duten zentroak. Biogune,...

#### 4. MULTZOA. Aurrerapen teknologikoak eta ingurumenean eragiten duten inpaktua

- Euskal Herriko ingurumen-arazo nagusiak: ibaien kutsadura, itsasoaren kutsadura, airearen kutsadura, berotegi efektua.
- Hondakinen kudeaketa: erraustegiak, atez atekoa, bosgarren edukiontzia, ...
- 2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategia.
- EAEko ingurumena babesteko legearen nondik-norakoak.
- Ingurumen-inpaktua aztertzekeo egitasmoak.
- Ingurumena babesteko planak. Naturaguneen izendapena egitea babesteko bidea: Txingudi, Urdaibai; Gorbeia, Bardeak, ...
- Euskal Herriko Unibertsitateetan eta beste erakundeetan ingurumenaren jasangarritasunari buruz egiten diren ikerketa lanak.
- Kiotoko akordioaren aplikazioa Euskal Herrian.

#### 5. MULTZOA. Berrikuntza. Material berriak

- Gaindegia: Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia.
- Euskal Herriko berrikuntza-maila Europako antzeko lurralde batzuekin erkatu.
- Euskal Herriko berrikuntza-zentro nagusiak: Innobasque, , AZTI- Tecnalia, NEIKER- Tecnalia, Basque Center for Materials Applications & Nanostructures (BCM), Biobasque, ZTBP Euskadi 2020, ...
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea
- Berrikuntzan nabarmentzen diren euskal enpresak eta erakundeak : Tecnalia, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), IK4-Tekniker, Mondragón Taldea,...

### 3.3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1. Ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.

- Problema identifikatzen ditu, kontuan hartzen du interesgarriak diren, bai eta haiek aztertzeak zer ondorio izan ditzakeen ere.
- Problemen aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu, esparru teoriko batetik abiatuta.
- Laborategian edo landan gauzatu daitezkeen jarduerak diseinatzen du, aldagaiak identifikatzen ditu, haien arteko loturak ezarri, eta nola kontrola daitezkeen adierazten du.
- Esperimentuetako datuak tauletan, grafikoetan eta mapetan bildu, antolatu eta interpretatzen ditu.
- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.

- Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimenduetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.
  - Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu zenbait bitarteko erabiliz: idatzizkoak, ahozkoak edo digitalak.
  - Fenomeno naturalen berri izateko jakin-mina eta interesa adierazten du.
  - Ahalegina eginez eta autonomiaz jarduten du lanean, atazetan jarduera aktiboa eta arduratsua izanda, eta lana zientifikotzat jotzeko beharrezkoa den zorrotasunez eta zehaztasunez jarduten du.
  - Talde-lanaren aldeko jarrera du, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziaz.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, eta gainerakoen txandak eta iritziak errespetatzen ditu.
  - Sormena erabiltzen du eta pentsamendu kritikoa aplikatzen du egindako galderei erantzuna bilatzerakoan.
- 2. Hiztegi zientifikoa zuzen erabiltzea, bere mailarako egokia den testuinguru zehatz batean adierazpenak egitean.**
- Badakizki hiztegi zientifikoko termino ohikoenak eta zuzen adierazteko gai da, bai ahoz, bai idatziz.
  - Ikasitako gaiei buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
- 3. Bere iritzia eratzea, adierazpenak zehaztasunez egitea, eta problema-egoerei buruzko argudioak ematea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz.**
- Ikasten ari denari buruzko informazioa bilatzen eta aurkitzen du eta ideiak topatzen ditu, zenbait formatu eta iturritan, izan idatzizkoak, ahozkoak zein digitalak.
  - Informazioa irizpide kritikoz aukeratzen eta interpretatzen du.
  - Txostenetan, gidoi koherenteak egiten ditu.
  - Argudioak emanez arrazoitzen du, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
  - IKTak erabiltzen ditu ahozko eta idatzizko aurkezpenetan.
  - Lanen aurkezpenean, eskemak, grafikoak, kontzeptuzko mapak eta abar erabiltzen ditu.
- 4. Laborategiko oinarrizko materiala hautatzea eta sailkatzea, eta behar bezala erabiltzea.**
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala.
  - Magnitudeak zuzen neurtzen ditu eta unitate egokietan adierazten ditu.
  - Autonomiaz planifikatzen ditu lanak.
  - Laborategian zer segurtasun-arau dauden badaki eta bete egiten ditu, eta erabilitako tresnak eta materialak zaindu egiten ditu.
  - Badaki zein diren laborategian sortutako hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak eta teknikak.

- 5. Zientziak zenbait arlotan egindako ekarpenei buruzko azterlan bat egitea, eta jabetzea ekarpen horiek bizi-kalitatea hobetzea eta ingurumen-arazoak arintzea dakartela.**
- Ideia zientifikoak zenbait arlotan izandako teknologia-aurrerapenekin lotzen ditu; adibidez, industrian, medikuntzan, osasun pertsonalean, ingurumenean, gizartearen bilakaeran eta planetaren etorkizunean.
  - Badaki zein garrantzitsua den gizarte-testuingurua ekarpen batzuk gauzatzeko: Hirugarren Munduan botikak eskura izateko, energia-iturri konbentzionalek irauteko dauden interes ekonomikoak eta abar.
  - Ikerketa zientifikoak gizartearen eragile moduan duen eginkizuna eta historian zehar izan duen garrantzia aintzat hartzen du.
  - Argi adierazten ditu ideiak, eta beharrezkoa denean, grafikoak, diagramak, ikurrak eta ekuazioak erabiltzen ditu.
  - Txosten egituratua eta koherentea egiten du, lexiko zientifiko eta tekniko egokia eta IKTak erabiliz.
  - Badaki hezkuntza zientifikoa herritarren oinarrizko kulturaren atal dela.
  - Badaki zer muga eta ziurgabetasun dituen ezagutza zientifikoak eta haren ondoriozko aplikazio teknologikoak.
- 6. Unibertsoaren eta eguzki-sistemaren jatorria eta antolaketa deskribatzea eta azaltzea, eta azalpen zientifikoak eta iritzietan edo usteetan oinarritutako azalpenak bereiztea.**
- Unibertsoaren sorrerari, bilakaerari eta amaierari buruzko teoriak deskribatzen ditu eta haien oinarri diren argudioak adierazten ditu.
  - Badaki azalpen zientifikoak frogetan eta ebidentzietan oinarritzen direla eta ez iritzietan eta usteetan.
  - Unibertso ezagunaren antolaketa deskribatzen du, eta hartan kokatzen ditu Esne Bidea, eguzki-sistema eta Lur planeta.
  - Adibideak erabiliz, Esne Bidearen alderdi garrantzitsuenak adierazten ditu.
  - Badaki zer fase dituen izar baten bilakaerak eta Eguzkia haietako zeinetan dagoen deskribatzen du.
  - Eguzki-sistemaren eraketa azaltzen du, eta haren egitura eta ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.
  - Planetak hartan bizia izateko izan behar dituen baldintzak zein diren adierazten du.
  - Gaur egun unibertsoaz dugun ezagutzarako funtsezkoak izan diren gertaera zientifikoak aipatzen ditu.
- 7. Osasun kontzeptua oro har ulertzea, gaixotasun mota ohikoenen berri jakitea, historian zehar gaixotasunari buruz eman diren azalpenen eta gai horri eman zaion trataeraren berri jakitea, eta zientziak banakoaren eta gizartearen osasunari egindako ekarpenak balioestea.**
- Badaki *Osasunaren Mundu Erakundeak* (OME) nola definitzen duen osasuna.
  - Gaixotasun ohikoenen artean, infekziosoak eta ez-infekziosoak bereizten ditu.
  - Badaki gaixotasun bat infekzioso den ala ez kausak eta ondorioak ikusita.
  - Gaixotasun infekto-kutsakorrek sortzen dituzten mikroorganismoen ezaugarriak deskribatzen ditu.



- Badaki zein diren bakterioek, birusek, protozoek eta onddoek eragiten dituzten gaixotasun infekzioso nagusiak, kutsatzeko bideak zein diren adierazten du eta gaixotasun horien bilakaeraren etapa nagusiak deskribatzen ditu.
  - Gaixotasun horien aurkako tratamendu orokor batzuk deskribatzen ditu (botikak, kirurgia, psikoterapia).
  - Aintzat hartzen du Euskal Herriko tradiziozko medikuntza eta gaixotasunen aurkako betiko sendabideren bat badaki.
  - Badaki zer babes-mekanismo dituen giza organismoak, eta haien eginkizunak arrazoituta adierazten ditu.
  - Gaixotasunen detekzioaren eta tratamenduaren aurrerapenean izan diren gertaera historiko nagusiak adierazten ditu.
  - Badaki zer garrantzia izan zuen penizilinarekin aurkikuntzak bakterioek eragindako infekzioei aurka egiteko, zer ondorio izan zuen gizartean, eta zein arriskutsua den botikei erresistenteak diren gaixotasunak sortzea.
  - Txertoek nola jarduten duten adierazten du, eta badaki txertaketa oso garrantzitsua dela jende asko aldi berean gaixotasun batzuetatik immunizatzeke.
  - Badaki nola hobetu duten medikuntza aurrerapen teknologikoek eta fisiko-kimikoek.
- 8. Gaixotasun ohikoenen —minbizia, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, buruko gaixotasunak, drogen kontsumoa, etab.— ezaugarriak eta tratamendua deskribatzea, haien kausak zehaztuz, eta ohartzea zeinen garrantzitsua den prebentzio-neurriak hartzea, kutsadurarik ez gertatzeko, aldizka osasun-azterketak egitea, eta norberarentzat nahiz gizartearentzat osasungarriak diren bizi-estiloak izatea.**
- Minbiziaren, diabetesaren, gaixotasun kardiobaskularren eta buruko gaixotasunen kausak, ondorioak eta tratamenduak aztertzen ditu.
  - Badaki zein garrantzitsua den minbiziaren aurkako borroka, eta gaixotasun hori desagerrarazteko dauden jarduera-ildo nagusiak adierazten ditu.
  - Badaki zer ondorio eragiten dituzten drogek organismoan eta zer arrisku dakarren drogen kontsumoak.
  - Badaki zer bizi-ohiturak laguntzen duten zenbait gaixotasun zabaltzen (minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak, buruko gaixotasunak eta abar).
  - Elikaduraren eta osasunaren arteko lotura ezartzen du, eta dieta osasuntsu bat zer den deskribatzen du.
  - Badaki zer eragin duten osasunean inguruko ingurune-faktoreak.
  - Bizi-ohitura osasungarriak izatea eta prebentzioa beharrezkoak direla azaltzen du.
  - Euskal Herriko biztanleriaren osasun-maila eta ematen diren osasun-zerbitzuak aztertzen ditu.
- 9. Ingurumen-arazo nagusiak zein diren jakitea, arazo horien kausak eta areagotzen dituzten faktoreak aztertzea, jabetzea zer ondorio izan ditzaketen, eta azaltzea, argudioak emanez, Lurreko baliabideen kudeaketa jasangarriaren beharra eta herritarrek horri buruzko sentsibilizazioa eta konpromisoa hartzearen garrantzia.**
- Badaki zein diren munduko zein Euskal Herriko ingurumen-arazo nagusiak: baliabideak agortzea, kutsadura handitzea, klima-aldaketa, basamortutzea, hondakinak eta hondamendiak ugaritzea.

- Ingurumen-arazo nagusiak haiek eragiten dituzten kausekin lotzen ditu, eta haien ondorioak ezartzen ditu.
- Ingurumen-arazo nagusiak konpontzeko bideak bilatu eta proposamenak egiten ditu.
- Ikastetxean ingurumena hobetzeko egiten diren jardueretan parte hartzen du.
- Badaki baliabideak gehiegi ustiatzeak dituzten inpaktuak: kutsadura, basamortutzea, hondakinak tratatu beharra, biodibertsitatea. Eta haiek arintzeko neurriak proposatzen ditu.
- Badaki nola funtzionatzen duen hidrogeno-pilak eta zer aplikazio izan ditzakeen, bai eta beste energia-baliabide batzuen aldean dituen abantailak ere.
- Energia-iturri berriztagarrien zein berriztaezinen abantailak eta desabantailak adierazten ditu.
- Lurrak ematen dizkigun baliabideak iraunkortasunari begira kudeatu behar direla adierazten du, argudioak emanez.
- Badaki nazioarteko zenbait tratatuk dituzten ingurumen-konpromisoak, Kyotokoak, esate baterako.
- Euskal Herrian garapen iraunkorrerako abian jarritako ingurumen-estrategiaren bat identifikatzen du.
- Zientziak eta teknologiak ingurumen-arazoak arintzeko egiten dituzten ekarpenak balioesten ditu.
- Ingurumena hondatzen ez jarraitzeko norik berak egin beharrekoen zerrenda bat egiten du.

**10. Material tradizionalekin eta berrieekin lotutako alderdiei buruzko ikerketa txikiak egitea, zer aplikazio dituzten zehaztu eta gizadiaren garapenean duten eragina azaltzea, bai eta material horiek fabrikatzeak, erabiltzeak eta hondatzeak sortzen dituen ingurumen-arazoak ere; eta horri guztiari buruzko ondorioak aurkeztea.**

- Gizakia zenbait materialen ezaugarriak aurkitu zituelako eta material horiek eraldatzeko gaitasuna izan zuelako garatu dela azaltzen du.
- Materialak ustiatzeko nahiak herrien artean eragin dituzten gatazkak aztertzen ditu.
- Zenbait material lortzeko prozesua deskribatzen du (altzairua eta papera, esate baterako), kostu ekonomikoa eta ingurumen-kostua baloratzen ditu, eta birziklatu egin beharko lirakeela azaltzen du.
- Aintzat hartzen du isurpen toxikoek dakarten ingurumen-arazoa eta gizarte-arazoa.
- Badaki zer eragin duen korrosioak metaletan, zer kostu ekonomikoa dakarren eta zer metodo dauden metalak korrosiotik babesteko.
- Materialak aurreztu, berrerabili eta birziklatzearen beharra arrazoitzen du, alderdi ekonomikotik eta ingurumen-alderditik.
- Badaki zer ekarpen egin duten zientziak eta teknologiak material berriak lortzeko, plastikoak, esate baterako.
- Nanoteknologia kontzeptua definitzen du, eta zenbait arlotan gaur egun dituen aplikazioak eta etorkizunean izango dituenak deskribatzen ditu.
- Material jakin bati buruzko informazioa bilatzen du, haren ezaugarriak azaltzen ditu, bai eta zer aplikazio izan ditzakeen ere.
- Badaki zein diren, berrikuntzaren eta material berrien arloan, Euskal Herriko erakunde zientifiko-teknologiko nagusietako batzuk.

## 3.4. LAN-JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK

### 3.4.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira Lan Jarduerari Aplikatutako Zientziak ikasgaiari dagozkion etapako helburuak:

1. Zientziak eta teknologiak egindako ekarpenak baliatzea, natura-baliabideen kontserbazioa, zaintza eta babesa sustatze aldera, baliabideen erabilera jasangarria bideratzeko prebentzio-neurriak aintzat hartuz, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea.
2. Industrian, nekazaritzan eta energia-ekoizpenean sortzen diren eragile kutsatzaile moten ezagutza erabiltzea, ingurumenean eragiten duten inpaktua aztertzeke, eta ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko ekimenak proposatzeko.
3. Laborategian egoki lan egitea, antolaketa eta lan-teknikak ezagutzuz, lan-teknika bakoitzerako material espezifiko egokiena hautatuz eta erabiliz, segurtasun- eta higiene-arauak jakinez eta arauk horiek betez, eta kasu bakoitzean beharrezko babes-ekipoak erabiliz, horren bidez benetako kasu praktikoei testuingurua aintzat hartuta heltzeko eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.
4. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, modu egokian, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta aurkezteko, eta ordenagailu bidezko esperimendazio-programak eta esperimenduak erabiltzeko.
5. Errealitatea azaltzeko eskemak egitea, lortutako ezagutzak eta landutako prozedurak hautatzeko eta integratzeko estrategiak baliatuz, eguneroko ingurunea ikuspegi zientifikotik interpretatzeko, eta gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko eta teknologiko garrantzitsuenak ikuspegi kritikoz aztertzeke.
6. I+G+b kontzeptuari, haren bilakaerari eta sustatzen duten erakundeei buruzko ezagutzak baliatzea, material edo produktu berriak fabrikatzeko, prozesu edo ekoizpen-sistema berriak diseinatzeke eta hobekuntza teknologikoak lortzeko zeinen garrantzitsua den azalduz, eta ekoizpen-sektoreetan —batez ere, Euskal Herrikoetan— lehiakortasuna hobetzeko duen eragina balioetsiz.
7. Zenbait lan-jardueratan baliatzen diren aplikazio zientifiko nagusien ezagutza erabiltzea, hainbat zientzia-diziplinak egindako ekarpenak aztertuz, zientzia gizarte-jarduera konplexua dela ulertzea, eta ezagutza zientifikoak gizadiaren kultura-bilakaeran duen garrantzia balioestea, bai eta gizakiaren beharrak asetzeko eta bizi-baldintzak hobetzeko egiten duen ekarpena ere.

### 3.4.2. EDUKIAK

#### 3.4.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Ezagutza zientifikoak pertsonak gaitzen ditu, beren osasuna hobeto kontrolatzeko eta hobetzeko, eta zientziak eta haren prozedurek gizarte-ongizateari egiten dioten ekarpena ulertzeko.

Ezagutza zientifikoa jakintza integratua da, eta zenbait diziplinatan antolatuta dago. Horrek guztiak berekin dakar metodo zientifikoak ezagutzeko eta erabiltzeko beharra, ezagutzaren eta esperientziaren esparru guztietako problemak identifikatzeko eta zenbait alorretako gizarte-

ohiturak ikuspegi kritikoz balioesteko. Alde horretatik, Lan-jarduerari Aplikatutako Zientziak ikasgaiak aukera emango die ikasleei eguneroko bizitzako eta inguruneke kasu praktikoetan aurreko ikasturteetan lortutako ezagutzak aplikatzeko; esaterako, Fisikakoak, Kimikakoak, Biologiakoak edo Geologiakoak.

Bestalde, garrantzitsua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaieran ikasleek zientziaren arloko prozedurazko ezagutzak barneratuta izatea; batik bat, teknika esperimentalei dagozkienak. Ikasgai honen bidez, oinarrizko prestakuntza esperimentala lortuko dute ikasleek, eta hori lagungarria izango zaie laborategiko lan-diziplina barneratzeko, aintzat hartuz segurtasun- nahiz higiene-arauak eta kasu bakoitzean babes-ekipo egokiak erabiltzearen garrantzia.

Horrez gain, ikasgai honetan zientziaren zenbait alderdiri buruzko orientabidea emango zaie ikasleei: zientziaren metodo praktikoa, lan-jardueran dituzten aplikazioak, sortzen dituzten ingurumen-inpaktuak eta laborategiko oinarrizko eragiketak. Prestakuntza hori oinarri sendoa izango da lanbide-heziketako ikasketak arloka bereizteko: nekazaritza, elikagai-industria, kimika, osasuna, beira eta zeramika, etab.

Ikasgai osoaren trataera batik bat praktikoa izango da, eta talde-lanaren garrantzia azpimarratuko eta balioetsiko da, bai eta egindako lanetan lortutako emaitzak ahoz aurkeztea eta defendatzea ere. Bestalde, ITak baliatuko dira, ikerketa-lanak egiteko eta emaitzak aurkezteko, informazioa zabaltzeko eta edukietan sakontzeko, eta simulazio- eta esperimentazio-programak egoki erabiltzeko.

Edukiak 5 multzotan sailkatu dira. 1. multzoan, oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak jaso dira, arlo eta ikasgai guztietarako komunak direnak, bai eta ikasgai honetako multzo guztietarako komunak direnak ere.

2. multzoa laborategiko lanari buruzkoa da. Garrantzitsua da ikasleek jakitea nola dagoen antolatuta laborategia, zer material eta substantzia erabiliko diren praktiketan, eta nola erabili behar diren. Horrez gain, azpimarratu behar da ezinbestekoa dela segurtasun -eta higiene-arauak ezagutzea eta betetzea. Ikasleek laborategi-saiakuntzak egingo dituzte, oinarrizko teknika instrumentalak ezagutzen hasteko. Oso garrantzitsua da materialak eta erreaktiboak segurtasun osoz erabiltzea.

Ahal dela, saiatu behar da ikasleek industriarako erabilgarriak diren substantziak lor ditzaten, horrela laborategiko ikerketaren eta industria-erabileraren arteko erlazioaz jabetzeko. Horren ostean, garrantzitsua da ikasleek ulertzea zer-nolako inpaktua eragiten duen industriak ingurumenean produktu horiek lortzeko prozesuan, eta aldi berean ohartzea zientziak inpaktu hori arintzeko ekarpenak ere egiten dituela, prebentzio-tresnak baliatuz baliabideen erabilera eta kudeaketa jasagarria izan dadin lortze aldera.

3. multzoa zientziari eta ingurumenarekin duen erlazioari buruzkoa da. Helburua da ikasleek ingurumena kutsatzen duten eragile moten berri jakitea, zer jatorri duten eta ingurumenean zer efektu eragiten dituzten zehaztea, eta sortutako kutsatzaileak eta hondakinak nola tratatzen diren jakitea. Alderdi teorikoak lantzeaz gain, laborategiko praktikak egingo dira, ikasleek ikus dezaten nola trata daitezkeen kutsatzaileak eta nola erabili behar diren ikasitako teknikak.

4. multzoan, ikasleentzat nahiko berriak diren edukiak landuko dira, alderdi teorikoak eta ikerketa uztartuz, eta ITak erabiliz; hori tresna eraginkorra izango da ikasleek jakin dezaten zer aurrerapen egin diren arlo horretan munduan, estatuan eta, batez ere, norberaren erkidegoan.

Herrialde guztiak saiatzen dira, ahal duten heinean, I+G+b-rekin lotutako jarduerak sustatzen, laguntza-politiken bidez (diru-laguntzak, kenkariak, hobaridun maileguak, etab.). Izan ere, ikerketaren eta garapenaren zikloan maila altua izateak enpresak sendoagoak izatea dakar,

haien produktuek edo prozesuek desberdintze positiboa lortzen baitute lehiakideen produktu eta prozesuekiko. Horrez gain, jarduera horietako askok gizarte-aurrerapenak ekar ditzakete, hala nola hobekuntzak bizi-kalitatean, ingurumenean, osasunean eta abarretan. Horregatik guztiagatik, ikasleei jakinarazi behar zaie zer aukera izan ditzaketen etorkizun hurbilean, eta gaitasuna izan behar dute prozedurazko eta jarrerazko tresnak nahiz tresna kognitiboak baliatzeko, horrela aukeran dituzten lan-ibilbideei arrakastaz ekiteko.

Ikasleak, ekoizpen-sarean I+G+b-k duen garrantziaz jabetuta, politika horien sustatzaile izan daitezke etorkizunean, balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak sortuz. Izan ere, gaur egun ezinezkoa zaigu gorabidean dauden herrialdeen fabrikazioaren prezioekin lehiatzea, baina berrikuntzari esker lehiakortasuna lor dezakegu produktuaren diseinuaren eta kalitatearen bidez.

Azkenik, 5. multzoan, ikasleek curriculumeko edukiren bati buruzko ikerketa-proiektu bat egitea proposatzen da, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikaren bidez finkatzeko.

### 3.4.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan elkarlanean eta lankidetzan aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

**B. Ikasgai honetako multzo guztien eduki komunak**

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertzeko, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa, eztabaida, hipotesiak egitea, egiaztatzea, esperimendazioa, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.
- Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lagungarriak direnak alderdi hauekin lotutako jarrerak garatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta zorrotasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia norberaren lanean, eta jarrera aktiboa eta arduratsua lanean.
- Aukeratutako gai zientifikoei buruzko txostenak eta monografiak egiteko jarraibideak, izan formatu inprimatuan izan digitalean.
- Talde-lanak modu kooperatiboan egiteko jarraibideak, eztabaidak antolatzeak eta aukeratutako gaien inguruan sortzen diren eztabaidetan parte hartzeak.
- Eguneroko bizitzan baliabideekiko jarrera arduratsua izateko eta ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak.
- Gizakiak, bizi ahal izateko, naturarekiko duen mendekotasuna aintzat hartzeko baliabideak, ingurumen-arazoa eta baliabideak agortu egiten direla aintzat hartzeak, eta ingurumen-balioak bere egiteko jarraibideak. Horrez gain, garapen iraunkorraren alde jarduteko jarrera izatea eta horretan lehentasunez jardutea.
- Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak, eta ezagutza zientifikoak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzeko gainditzekoak.
- Zientziak eta teknologiak kultura unibertsalari, giza pentsamenduen garapenari eta gizartearen ongizateari egiten dioten ekarpena aintzat hartzea, bere mugekin eta akatsekin.
- Laborategiko oinarriko materiala erabiltzeko prozedurak.

**2. MULTZOA. Oinarriko teknika instrumentalak**

- Laborategia. Antolaketa. Oinarriko materialak eta tresnak. Ohiko produktu kimikoak. Etiketen interpretazioa. Erreaktiboen maneia eta garraioa.
- Laborategiko segurtasun- eta higiene-arauak. Babes-ekipamendu ohikoenak. Lehen laguntzako teknikak.
- Esperimendazioa. Datu-bilketa. Emaitzen analisia. Neurrien zehaztasuna. Zifra esanguratsuak. Erroreak.
- Magnitudeak (bolumena, masa eta tenperatura adibidez) neurtzeko entsegu fisikoak eta kimikoak, edo/eta substantziak identifikatzekoak.
- Nahasteak eta substantzia puruak. Disoluzioak. Kontzentrazioa. Disoluzioak prestatzeko metodoak.
- Substantziak banantzeko eta arazteko teknikak: iragazketa, distilazioa, kristalizazioa, zentrifugazioa, dekantazioa, erauzketa eta kromatografia.
- Elikagaitan biomolekulak identifikatzeko teknikak.
- Erreakzio kimiko ohikoenak. Azido-base erreakzioak: adierazleak, pH-aren neurketa. Erredox-erreakzioak: elektrolisia eta korrosioa. Erreakzio kimikoen aplikazioak.

- IKTKo tresnak erabiltzean laborategian, informazioa bilatu, aztertu eta tratatzeko, bai eta ordenagailuz lagundutako simulazioak eta esperimenduak egiteko ere.

### 3. MULTZOA. Zientziaren aplikazioak, ingurumenaren kontserbaziorako

- Kutsadura: kontzeptua eta motak.
- Atmosferaren kutsadura: eragile kutsatzaileak, jatorria eta ingurumenean dituzten ondorioak (euri azidoa, negutegi-efektua, ozono-geruza haustea, klima-aldaketa).
- Lurzoruaren kutsadura industria- eta nekazaritza-jardueraren ondorioz. Eragile kutsatzaile nagusiak eta haien jatorria. Ingurumen-eragina.
- Uraren kutsadura: eragile kutsatzaileak, jatorria, azterketa eta tratamendua. Uren tratamendua egiteko teknikaren bat erabiltzea laborategian.
- Kutsadura nuklearra, hondakinen kudeaketa eta biltegitratzea. Kutsadura erradioaktiboaren iturriak. Kutsadura erradioaktiboaren eraginak.
- Hondakinen tratamendua. Baliabide materialak birziklatzea eta berrerabiltzea.
- Ingurumenarekin lotutako erreakzio kimikoekin esperimenduak egitea. pH-a ingurumen-egoeraren adierazle moduan.
- Garapen iraunkorra. Ingurumen-arazoari eman dakizkioken irtenbideak: energia aurrezteko teknikak, dibertsifikazio energetikoa, industrian teknologia berriak garatzea energia-eraginkortasuna handitzeko eta kutsadura murrizteko.
- Euskal Herrian garapen iraunkorrerako abian jarritako ingurumen-estrategiak.

### 4. MULTZOA. Ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b)

- Ikerketa, garapena eta berrikuntza kontzeptuak.
- I+G+b-ren zikloa: Hiru etapen arteko lotura. ikerketa, garapena eta berrikuntza.
- Produktuen berrikuntza motak, material berriak erabiliz, teknologia berriak aplikatuz, eta egon badauden produktuak edo zerbitzuak egokituz behar berriei erantzuteko.
- Prozesuen berrikuntza motak: industria-fabrikazioko metodo berriak, ekoizpena optimizatzeko informazioaren teknologia eta giza baliabideen kudeaketa uztartuz.
- Estatuan eta Euskal Herrian I+G+b sustatzen duten erakundeak eta administrazioak. Gure inguruko ikerketa-zentroak eta ikerketa-lerroak ezagutzea, bai eta aplikazio zientifikoekin lotutako enpresen jarduera profesionala ere.
- I+G+b lerroak industria kimikoetan, farmazeutikoetan, elikagaigintzakoetan eta energia ekoizten dutenetan; eta, bereziki, Euskal Herriko enpresetan.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garrantzia I+G+b-an.

### 5. MULTZOA. Ikerketa-proiektua

- Ezagutza zientifikoa jarduera profesionalean aplikatzeari buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoari buruz ikasitakoa praktikan jartzeko.

### 3.4.2.3. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 3. MULTZOA. Zientziaren aplikazioak, ingurumenaren kontserbaziorako

- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020)
- Garapena Europan eta Hiri eta Herri jasangarrien “Euskal Adierazpena”
- Kutsadura mota guztiek eragindako kalteak Euskal Herrian eta horiei aurre egiteko hartutako neurriak eta legeak.
- Hondakinen tratamendua.

#### 4. MULTZOA. Ikerketa, garapena eta berrikuntza(I+G+b)

- Estatuan eta Euskal herrian I+G+b sustatzen duten erakundeak eta administrazioak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, Ikerbasque, Innobasque, EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, ...
- Gure inguruko ikerketa-zentroak eta ikerketa-lerroak, bai industria kimikoetan, farmazeutikoetan, elikagaigintzakoetan eta energia ekoizten dutenetan.

### 3.4.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1. Laborategiko materialak eta produktuak bereizi eta behar bezala erabiltzea, ikasitako segurtasun- eta higiene-arauak betez.

- Laborategian ohikoenak diren materialak eta produktuak zein diren adierazten du.
- Laborategian erabiltzen diren oinarrizko muntaiak deskribatzen ditu.
- Laborategietan ohikoak diren materialak eta produktuak egoki erabiltzen ditu.
- Laborategian zer segurtasun- eta higiene-arau dauden badaki eta bete egiten ditu.
- Badaki zein diren lehen laguntzako oinarrizko teknikak.
- Badaki zein garrantzitsua den ordena eta garbitasuna laborategian lan egitean eta esperimenterako behar dituzten gailuekin, tresnekin, substantziekin eta energia-iturriekin lan egitean.
- Badaki zein diren laborategian sortutako hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak eta teknikak.

#### 2. Magnitudeen balioak zehazteko neurketa-tresna egokiak aukeratzea eta erabiltzea, eta kasu bakoitzean teknika egokiak erabiltzea, kontuan hartuta neurketa-tresnaren doitasuna, egokitasuna eta zehaztasuna, eta neurketan egindako errorea kalkulatzeko.

- Egin beharreko esperimenterako behar den tresna mota zein den erabakitzen du.
- Egoki erabiltzen du laborategiko materiala.
- Magnitudeak neurtzen ditu, unitate egokietan adierazten ditu eta neurketan egindako errorea kalkulatu du.
- Bolumen-, masa- eta tenperatura-neurriak zehazten eta bereizten ditu, entsegu fisiko-kimikoak erabiliz.



- Kontzentrazio jakin bateko disoluzio bat prestatzen du.
  - Kasu jakin batean substantziak banatzeko eta arazteko teknikarik egokiena zein den adierazten du.
  - Biomolekula batzuk zer elikagaitan dauden adierazten du.
  - Disoluzio bateko kontzentrazioa zehazteko, bolumetriak egiteko teknika egokienak erabiltzen ditu.
  - Praktiketara erabiliko diren erreaktiboak prestatzen ditu.
  - Industriadako oso interesgarriak diren erreakzio kimiko batzuk egiten ditu.
  - pH-a neurtzen du, adierazleak eta pH-metroa erabiliz.
- 3. Eredu zientifikoak oinarri dituzten behaketa-teknikak, datuak biltzekoak, informazioa aztertzekoak eta ondorioak ateratzekoak aplikatzea, eta azalpenak zehaztasunez ematea, ebidentzia zientifikoak oinarri hartuta eta arrazoiak edo argudioak emanez.**
- Informazioa zenbait iturritan, inprimatu zein informatikotan, zorrotasunez eta zehaztasunez bilatu, hautatu, alderatu, eta uztartu egiten du ondorioak ateratzeko.
  - Behaketa esperimentaleko teknikak aplikatzen ditu (mikroskopia, lupa...)
  - Neurketen datuak adierazpen grafikoen, zenbakizko kalkuluen edo tratamendu informatikoen bidez interpretatzen ditu, eta emaitza teorikoekin alderatzen ditu.
  - Laneko emaitzetatik ondorioak ateratzen ditu, eta kontzeptuak eta prozesuak azaltzeko, diagrama, eskema edo eredu egokiak erabiltzen ditu.
  - Zenbait hipotesi egiaztatzen ditu, esperimentatuz, datuak bilduz eta emaitzak aztertuz.
  - Ikasitako gai buruzko deskribapen, azalpen eta argudiatzeak egiten ditu, hizkuntza zientifikoa zuzen erabiliz, eta adierazpenak zuzen eta txukun egiteko ahalegina egiten du.
- 4. Ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak egitea, lan zientifikoaren berezko metodologia eta estrategiak aplikatuz, eta haien garapena balioestea eta emaitzak interpretatzea.**
- Problema identifikatzen ditu, kontuan hartzen du interesgarriak diren, bai eta haiek aztertzeak zer ondorio izan ditzakeen ere.
  - Problema aurrean, aieru edo hipotesi egiaztagarriak egiten ditu, esparru teoriko batetik abiatuta.
  - Laborategian edo landan gauzatu daitezkeen jarduerak diseinatzen ditu, aldagaiak identifikatzen ditu, haien arteko loturak ezarri, eta nola kontrola daitezkeen adierazten du.
  - Esperimentuetako datuak tauletan, grafikoetan eta mapetan bildu, antolatu eta interpretatzen ditu.
  - Azalpen arrazoiak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.
  - Laburpen moduan, txostenak egiten ditu, deskripziozkoak zein argudiozkoak, behaketetatik edo esperimentuetatik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta errealitate hurbilenarekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko.
  - Ikerketaren emaitzak jakinarazten ditu zenbait bitarteko erabiliz: idatzizkoak, ahozkoak edo digitalak.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu tresna moduan, ikerketarako, simulazioak ikusteko edo datu-tratamendua egiteko, eta eskemak, planoak eta txostenak egiteko ere erabiltzen ditu.
  - Ahalegina eginez eta autonomiaz jarduten du lanean, atazetan jarduera aktiboa eta arduratsua izanda, eta lana zientifikotzat jotzeko beharrezkoa den zorrotasunez eta zehaztasunez jarduten du.
  - Talde-lanaren aldeko jarrera du, lankidetzako eta parte hartzeko jarrera du lanetan, eta desberdintasunak onartzen ditu, pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziaz.
  - Parte-hartze aktiboa du eztabaidetan, arrazoiak ematen ditu, eta gainerakoen txandak eta iritziak errespetatzen ditu.
  - Sormena erabiltzen du eta pentsamendu kritikoa aplikatzen du egindako galderei erantzuna bilatzerakoan.
- 5. Zientziak zenbait lan-jardueratan dituen aplikazio nagusiak bereiztea, eta jabetzea zer erlazio dagoen gaur egun zientziaren eta produktuak nahiz zerbitzuak sortzeko askotariko lan-jardueren artean.**
- Zenbait industriatan erabiltzen diren prozedura instrumentalak aztertzen ditu; esate baterako, elikagaigintzan, nekazaritza-industrian, farmazeutikoan, osasun-industrian eta irudi pertsonalaren industrian.
  - Zenbait prozedura instrumental industrian edo zerbitzuetan duten aplikazioarekin lotzen ditu.
  - Ingurune hurbil-hurbileko lan-arloetako zenbait aplikazio aipatzen ditu.
  - Ongi bereizten du zein diren aplikazio zientifikoek giza ongizateari dakarzkieten onurak eta zein osasunari edo ingurumenari sortzen dizkieten kalteak.
  - Badaki zer lan kolektibo egiten duen zientziak, badaki etengabe aldatzen eta berrikusten ari dela, une historiko bakoitzaren ezaugarrien eta beharren arabera, eta mugak dituela ezin baitie gizakiaren arazo guztiei konponbidea eman.
  - Badaki kultura zientifikoa herritarren oinarritzko kulturaren atal dela.
- 6. Lan- edo ekoizpen-jarduera jakin batek sortzen duen ingurumen-inpaktua eta kutsadura aztertzea, eragile kutsatzaileek atmosferan, lurzoruan eta uretan eragiten dituzten efektuak baloratzea, eta zehaztea zer ekintza egin beharko liratekeen eragin horiek arintzeko.**
- Kutsadura kontzeptua kasu jakin batean erabiltzen du.
  - Kutsatzaile motak bereizten ditu, bai eta haien jatorria eta ondorioak ere.
  - Jarduera horrek airean, uretan eta lurzoruan sortzen duen kutsadura aztertzen du.
  - Lan-jarduera edo ekoizpen-jarduera horrek sortzen duen ingurumen-inpaktua ahalik gehien txikitzeko edo desagerrarazteko hartu beharreko neurriak adierazten ditu.
  - Baliabide materialak birziklatzearen eta berrerabiltzearen alde onak eta txarrak adierazten ditu argudioak emanez.
  - Badaki zer den garapen jasangarria, deskribatu egiten du, eta kasu jakin batean ingurumena hondatzearen arazoari eman dakizkiokeen irtenbideekin lotzen du.
  - Euskal Herrian garapen iraunkorrerako abian jarritako ingurumen-estrategiaren bat identifikatzen du.

**7. Jarduera jakin batean zer hondakin mota sortzen diren jakitea, eta irtenbideak proposatzea, hondakin horiek kudeatzeko, biltegitratzeko, birziklatzeko edo desagerrarazteko, kontuan hartuta zer produktu mota diren.**

- Hondakinak sortzeak dakarren problema azaltzen du kasu jakin batean.
- Hondakinak tratatzeko prozesua adierazten du, eta hondakinak gaika jasotzearen azterketa kritikoa egiten du.
- Baliabide materialak birziklatzearen eta berrerabiltzearen alde onak eta txarrak adierazten ditu argudioak emanez.
- Hondakinen arazoari eman dakizkiokeen irtenbideak proposatzen ditu.
- Laborategian sortutako hondakinak egoki eta ingurumena errespetatuz tratatzen ditu.

**8. Azaltzea I+G+b-k produktibitatean zer-nolako eragina duen, merkatu globaleko lehiakortasunean eta garapen iraunkorraren sustapenean, proiektu berritzaile baten adibidea abiapuntu hartuta.**

- Ikerketa, garapena eta berrikuntza kontzeptuak lotzen ditu.
- Produktibitatean eta prozesuetan izaten diren hobekuntzak berrikuntzarekin lotzen ditu, dela ekoizpen-bitartekoetan, dela diseinuak, fabrikazioak, kudeaketak eta merkaturatzeak osatzen duten kateko prozesuetan.
- I+G+b-aren hiru etapak egiaztatzen ditu kasu jakin batean.
- I+G+b-ak gaur egungo esparru globalizatzailean produktibitatea hobetzen eta lehiakortasuna handitzen nola eragiten duen azaltzen du.
- Berrikuntza herrialde baten ekonomia berreskuratzeko faktore bat dela edo izan daitekeela adierazten du.

**9. Produktuen eta prozesuen berrikuntza motei buruz ikertzea, berrikuntzan aitzindari diren enpresen adibideak aztertuz, eta erakundeek eta administrazioek I+G+b garatzeko planei egiten dizkieten ekarpenak balioestea.**

- Enpresa berritzaileei buruzko informazioa bilatu, aukeratu, aztertu eta interpretatzen du.
- Berrikuntza mota bakoitzeko faktoreak aztertu, interpretatu eta ebaluatzen ditu.
- Badaki zer erakundeek eta administrazioek sustatzen duten I+G+b Estatuan eta Euskal Herrian.
- Gaur egun Euskal Herriko industrian abian dauden I+G+b-ko zenbait lerro adierazten ditu.
- Badaki zein garrantzitsuak diren informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikerketaren eta garapenaren zikloan.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu tresna moduan, produktuen eta prozesuen berrikuntza motak ikertzeko.

**10. Ezagutza zientifikoa lan-jarduerari aplikatzeari buruzko azterlan bat egitea, IKTak behar bezala erabiliz informazioa bilatzeko, hautatzeko eta tratatzeko.**

- Zientziako metodoen berezko trebetasunak bereganatzen eta aplikatzen ditu.
- Eskura dituen informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu, behar duen informazioa bilatu, aukeratu eta tratatzeko.
- Testuinguruan jarritako problema zientifiko batzuk egoera profesionalekin lotzen

dituzten faktoreak aztertzen, interpretatzen eta ebaluatzen ditu.

- Argi adierazten ditu ideiak, eta beharrezkoa denean, grafikoak, diagramak, ikurrak eta ekuazioak erabiltzen ditu.
- Txosten egituratua eta koherentea egiten du, lexiko zientifiko eta tekniko egokia eta IKTak erabiliz.

## 4. TEKNOLOGIARAKO KONPETENTZIA

### 4.1. TEKNOLOGIA

#### 4.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira etapako helburuak Teknologiarako:

1. **Teknologiako problema bat hautematea eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea.** Horretarako, zenbait iturritan bilatuko du informazioa, eta egokia deritzona aukeratuko du, jakintza zientifiko eta teknologikoak aplikatuz, inguruko egoerak konpondu edo hobetzeko. Horrela, testuingurua abiapuntu hartuta, ekintzailatza sustatuko da.
2. **Teknologiaren arloko objektuak eta sistemak modu metodikoan aztertzea, eta haien funtzionatzeko modua eta erabiltzeko eta kontrolatzeko modurik egokiena ulertzea, jakiteko zertarako egin diren eta erabiltzen diren, batetik, eta beste arlo batzuetan ere erabil daitekeen informazioa biltzeko, bestetik.**
3. **Bide eta tresna egokien bidez, aurreikusitako edo emandako konponbide teknikoak irudikatzea eta simulatzea.** Horretarako, egokiak diren ikurrak eta lexikoa erabiliko dira, bai eta baliabide grafiko egokiak ere. Horren guztiaren bidez, konponbidearen bideragarritasuna eta gauzatzeko aukera aztertuko dira, eta haren buruzko informazioa trukatu.
4. **Inguruko elementu teknologikoak aise eta arduraz erabiltzea eta hobetzeko aukerak edo beste erabilera batzuk proposatzea, eta zenbait iturritan kontrastatzea, beharrezkoa balitz.** Horren helburua da irtenbidea ematea bizitzako ohiko jarduneko zenbait egoerari.
5. **Problema teknologiko bati konponbidea ematea, fisikoa zein birtuala, eta, beharrezkoa bada, kontrol-programa egitea, segurtasun- eta ergonomia-arauak kontuan hartuta.** Atzeraeragina izango du, etengabe, egindakoa planteatutako baldintzetara egokitze.
6. **Lan-prozesua eta lortutako produktua ebaluatzea, eta eskuratutako ezaguera aintzat hartzea.** Produktuaren kalitatea aztertzea eta proposatutako baldintzetarako ongi funtzionatzen duen begiratzea, eta jarduerak natura ingurunean eta gizartean dituen ondorioak aztertzea. Horren guztiaren helburua da problema teknologikoa konpondu den egiaztatzea eta hobekuntza-ziklo baten proiektua egin ahal izatea.

#### 4.1.2. EDUKIAK

##### 4.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

"Informazioaren eta komunikazioaren teknologia" multzoak ikasleak bere ikaskuntzan erabiltzen duen teknologia biltzen du. Ekipo informatikoa (tableta, ordenagailu eramangarria, telefonoa, tabletofonoa eta abar) baino gehiago da, multzo honetako edukietan sartzen baitira, halaber, ikastetxeko espazio birtual osoa (intraneta eta LMS) eta ikasleak irakaslearekin

eta ikaskidearekin elkarreragiteko kudeatu beharreko kontuak, profilak eta abar. Orobat, barne hartzen ditu informatikako oinarritzko ezagutzak eta ekipoen oinarritzko mantentze-lanak, babes-neurriak, sarean izan beharreko jarrera eta abar.

Metodologia moduan zein eduki multzo moduan tratatuta, problema teknologikoen ebazpena hainbat motatako fasez osatutako segida moduan ulertu behar da. Fase bakoitzean zenbait ekintza egingo dira, baina guztien xedea lortu nahi den helburua lortzea izango da. Ikasleek ohartu egin behar dute fase guztien atzean batasun bat dagoela, ekintzak zertarako diren ulertu behar dute, modu naturalean aplikatu ditzaten gerora egiten dituzten garapen teknologikoetan. DBHko lehen hiru mailetan, multzo honetan konponbide teknologikoen maila buruzko galderak planteatzen dira, gauzen erabilera pertsonalari eta kolektiboari buruzkoak, haien kostuari buruzkoak, haiek ekoizteak eta erabiltzeak dakartzan eraginei buruzkoak eta abar.

Esplorazio eta komunikazio teknikoari buruzko multzoa oso garrantzitsua da. Hartako edukiek arlo teknologikoari buruzko ideiak transmititu, trukatu eta jakinarazteak duten garrantzia azpimarratzen dute. Batzuetan, konponbide egokiena topatzeko bidean izandako eztabaidaren atal izango da, beste batzuetan, planoak eta informazio teknikoa beharko dira, beste batzuek gauzatu dezaten zirriborro moduan adierazitakoa. Egoera batzuetarako, nahikoak izango dira eskuz egindako marrazkiak eta eskemak, gutxi gorabeherako kalkuluak; beste batzuetan, beharrezkoa izango da delineatzea eta normalizatzea, egoki interpretatzen dela bermatzeko. Ordenagailua erabiltzeko aukera egongo da marrazkiak egiteko, zirkuituen edo sistemen portaeraren simulazioak egiteko, eta aukera egongo da, halaber, gauzak domeinu fisikoan (3Dn) gauzatzeko, testatu ahal izan daitezen, behin betiko diseinua fintzeko.

Zientziaren eta teknologiaren arteko lotura gero eta estuagoa da, eta, horregatik, eduki multzo batean baliabide zientifikoak eta teknikoak sartzen dira. Hartan, ikasleak kasuan-kasuan egiten ari den garapenarekin jarraitzeko abian jarri beharreko ezagutzak aurkezten dira. Ezaguera teknikoa aberastu egiten da egindako esperientzia bakoitzarekin, izan lantegia izan ordenagailua, eta gero eta konponbide egokiagoak eta sofistikatuagoak izaten laguntzen du.

Ekoizpen-teknikak, problema teknologiko bakoitzerako konponbidea gauzatzeko ezinbestekoak, berariazko eduki multzo batean lantzen dira. Produktua ageriko egitea da ikasleek gehien atsegin duten fasea, izan proposatutako portaera duen programa bat, izan gauza bat, izan sistema fisiko bat. Tresnak erabiltzeko, arretaz eta autodiziplinaz jokatzeko eskatzen du, segurtasuna bermatzeko. Konponbideak aurkitzeko material egokiak eta eskuragarriak aukeratu beharko dira, eta kasuan-kasuan egokiak diren tresnak erabiliko dira haiekin. Askotariko teknikak erabiltzen dira, bai tradizionalak, bai eta pixkanaka orokortzen ari direnak ere, gehikuntza bidezko fabrikazioa (AM), esaterako.

Kontrolako, robotikako eta programazioko teknologiaren eduki multzoak —ezinbestekoa kontrolaren garai honetan— kontrolaren bilakaera erakusten du, hasieratik kontrol programatua bihurtu artekoa. Ikasleek (zenbait Lehen Hezkuntzan hasiko ziren programazioa lantzen) lehen mailatik sakonduko dute programazioan, eta ikusiko dute testuinguru bat haiek diseinatutako programa baten bidez kontrola daitekeela. Robotikak, haren esanahi zabalenean, aberastasun teknologikoa du oinarri, eta hartan mekanika, elektronika eta programazioa elkartzen dira.

Elektronika baliabide zientifikoaren eta teknikoaren multzoan sartzen da, DBHko 1. mailatik 3.era bitartean. 4. mailan, ordea, modu formalagoan planteatzen da: elektronikako problemak lantzen dira, elektronika analogiko zein digitaleko problemak.

Komunikazioaren teknologiak. Aurreko atalean bezala, baliabide zientifikoaren barruan landu daiteke, DBHko 1. mailatik 3.era bitartean, eta berariazko multzoa du 4. mailan. Gauzen Internet lantzen da (IoT), aplikazio praktiko baten bidez. Hartan, garapen horiek zertarako egiten diren eta egungo bizimoduan zer eragin duten aztertzen da.

Etxebizitzetako instalazioak DBHko 4. mailako multzo batean lantzen dira: ikasleek oro har etxean erabiltzen dituzten instalazioak lantzen dira. Atal analitiko bat du, eta beste batean. instalazio horiek osatzen dituzten elementuen eskemak eta ezaugarriak aztertzen dira. Aurreko mailetan ere planteatu daiteke horrelako problemaren bat, herritar ororentzat oinarritzkoa den ikaskuntza da eta.

Programazioa eta kontrola. Garapen teknologiko batean kontrol-plaka bat sartzen bada, asko aldatzen da garapen horren maila. Eta horixe planteatzen du DBHko 4. mailako eduki multzo honek. Plaka-aukera handia dago merkatuan, eta bat aukeratzean kontuan hartu beharko lirateke haren prestazioak, sarreren eta irteeren kopurua, testuingurua aldatzeko aukera, programazio-eremua, grafikoa edo kodigo bidezkoa, sistema eragileekin bateragarria edo bateragarritasun txikikoa eta abar.

Pneumatika eta hidraulika, DBHko 4. mailako eduki multzoa. Elektronikaz bestelako kontrol-metodoak, fluido bidezkoak, gehiago erabiltzen dira industrian etxeetan baino, baina etxeetan ere erabiltzen dira. Sarrera gisa adierazi beharko da zer portaera fisiko duten fluido horiek, zer aldagai elkartzaren diren eta zein diren zirkuitu pneumatikoen ohiko operadoreak. Zirkuituak erabiltzeko baliabiderik ez badago, simulazio-programak erabil daitezke, edota teknologia horiek erabiltzen dituzten enpresetara bisitak egin.

Teknologia eta gizartea eduki multzoa da bai DBHko 1. mailatik 3. maila bitartean, bai eta 4. mailan ere. Azken mailan, sakonago aztertzen da garapen teknologikoen erabilgarritasuna, asetzen dituzten edo ez dituzten beharrak, eta ikasleen pentsamendu kritikoa bultzatzen da, merkatuari eta produktuen bizi-zikloari buruz eta jarduera teknologikoak ingurumenean eta gizartean dituen ondorioei buruz hausnar dezaten.

#### 4.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik 3. mailara bitarteko edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea, berreskuratzea eta konpartitzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.), baliabide eta tresna analogikoak zein digitalak erabiliz.
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideien, lanen eta proiektuen bideragarritasuna planifikatzea eta aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Ikasitakoaren transferentzia egitea, eta ikaskuntzak estrategikoki erabiltzea.
- Lortutako emaitzak modu eraginkorrean jakinaraztea, bitarteko analogikoak zein digitalak erabiliz.

- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia, entzute aktiboa eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea, bai benetako inguruneetan bai ingurune birtualetan. Erantzukizunak hartzea eta aniztasunaren balioa aintzat hartzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea. Elkarrizketaren eta negoziazioaren balioa.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

- Sistema informatiko baten elementu funtzionalak. Hardwarea eta softwarea.
- Informazioa, neurria eta antolaketa: fitxategiak, luzapenak, pisua, biltegitratzea eta berreskuratzea. Hardware eta software libreak. Software jabeduna, lizentziak.
- Sistema eragileak; funtzioak eta desberdintasun orokorrak.
- Komunikazio telematiko sinkronoa eta asinkronoa.
- Zenbait jarduera-ingurune: ikastetxeko intraneta, webeko zerbitzuak, LMS ikaskuntza-plataformak eta abar.
- Nabigatzaileak, ezaugarriak, mantentze-lanak.
- Portaera, segurtasuna, pribatutasuna eta jabetza intelektuala.
- Sare sozialak, aukerak, konfigurazioa, babesa, kudeaketa egokia.
- Webguneen edizioa: blogak, wikiak, siteak.
- PLE eta PLN ikaskuntzako ingurune eta sare birtualak. Norberaren informazioa kudeatzeko sistemak.

## 3. MULTZOA. Problema teknologikoak ebaztea

- Objektuen analisisian kontuan hartu beharreko alderdiak.
- Objektu teknikoen bilakaera.
- Objektuen erabilgarritasun pertsonala eta kolektiboa.
- Produktu baten eta haren osagaien kostua.
- Problema teknologikoak ebazteko prozesuaren faseak.
- Ideien esplorazioa. Ideia-jasa. Ideia onena aukeratzea.
- Prozesuen dokumentazioa: eragiketen diagrama.
- Hobetzeko egoerak aurkitzea eta irtenbideak proposatzea.



- Zenbait iturritan (Interneten barne) lortutako informazioa baloratzea.
- Planteatutako konponbideen abantailak, arriskuak, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-kostuak ebaluatzea, eta konponbideak alderatzea.

#### 4. MULTZOA. Esplorazio eta komunikazio teknikoak

- Marrazketako tresnak eta materialak, haien erabilera.
- Adierazpen grafikoko moduak: bozetoak, krokisak, eskemak, diagramak, marrazki delineatua.
- Objektuen perspektibak eta bistak egitea. Normalizazioa.
- Fluxugramak, algoritmoen, segiden eta prozesuen adierazpena.
- CAD. Ordenagailuz lagundutako marrazkia. 3D-ko inprimaketak egiteko formatuak.
- Behar diren baliabideak aurreikustea: tresnak, materialak, denbora eta abar.
- Dokumentazio teknikoak interpretatzea.
- Memoria teknikoak egitea, memoria ekonomikoak barne.
- Kudeaketako oinarrizko dokumentuak: aurrekontua, albarana, faktura, nomina eta abar.
- Terminologia egokia.

#### 5. MULTZOA. Baliabide zientifikoak eta teknikoak

- Egitura mekanikoak: oinarrizko esfortzuak, erresistentziako elementuak, euskarriak, lotze-elementuak eta abar.
- Higidura transmititzeko eta eraldatzeko mekanismoak, parametroak eta oinarrizko algoritmoak.
- Erabile elektrikoak eta elektronikoak, eginkizunak, konexioak, oinarrizko zirkuituak, muntaketak. Ohmen legea.
- Oinarrizko magnitude elektrikoak balioa zehaztea, neurketa-tresnen bidez.
- Etxebizitzetako instalazioak. Segurtasun-arauak. Osagaiak.
- Sistema elektronikoak: sarrerako, prozesuko eta irteerako elementuak.
- Energia, energia motak, eraldaketa, errendimendua.
- Zenbait teknologiaren simulagailuak erabiltzea.

#### 6. MULTZOA. Ekoizpen-teknikak. Materialak eta tresnak

- Eskuzko erremintak eta erreminta elektrikoak. Motak. Erabilera egokia.
- Segurtasun- eta higiene-arauak.
- Ohiko materialen propietate teknikoak.
- Ekoizpen-teknikak: neurtzea, trazatzea, lotzea, moztea, banatzea, konformatzea, gehikuntza bidezko fabrikazioa (AM), 3D-ko inprimaketa, akabera.
- Materialak eta tresnak erabiltzean sortzen diren arriskuak identifikatzea.

- Lanak lan sinpleagotan deskonposatzea.

### 7. MULTZOA. Kontrol-teknologia. Robotika. Programazioa

- Sarrera. Sistema automatikoen bilakaera: mekanizazioa, automatizazioa eta robotizazioa.
- Automatizazio-egoerak eguneroko bizitzan. Eragile elektronikoak, sentsoreak eta eragingailuak.
- Ordenagailu bidezko kontrola. Kontrol-plakak. Konexioak.
- Fluxugramak. Programazioa ingurune grafikoan. Oinarrizko menuak eta tresnak. Programazio-blokeak. Kontrol-egiturak.

### 8. MULTZOA. Teknologia eta gizartea

- Teknologia gizakiaren beharren erantzun moduan. Objektuen eta tekniken bilakaera, zientziaren, teknologiaren eta gizartearen garapenarekin lotuta.
- Ekoizpen teknikoek adibideak ingurunean. Euskal Autonomia Erkidegoko teknologia-zentroak. Maker eta DIY mugimenduak (Do it Yourself).
- Teknologiak ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen garapenari egindako ekarpenak.
- Teknologia eta ingurumena. Garapen iraunkorreko ohiturak hartzea. Energia-eraginkortasuna. Zaharkitze programatua.
- Euskal etxe tradizionalen eta egungo etxebizitzaren azterketa, natura-ingurunean txertatzeko moduaren ikuspegitik: garai bakoitzean zeuden beharrei erantzuteko, eskura zituzten baliabideak erabiliz.

## 4.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea, berreskuratzea eta konpartitzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.), baliabide eta tresna analogikoak zein digitalak erabiliz.
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.

- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Ikasitakoaren transferentzia egitea, eta ikaskuntzak estrategikoki erabiltzea.
- Lortutako emaitzak modu eraginkorrean jakinaraztea, bitarteko analogikoak zein digitalak erabiliz.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia, entzute aktiboa eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea, bai benetako inguruneetan bai ingurune birtualetan. Erantzukizunak hartzea eta aniztasunaren balioa aintzat hartzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea. Elkarriketaren eta negoziazioaren balioa.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Elektronika

- Elektronika analogikoa. Osagaiak, sinboloak eta ezaugarri teknikoak.
- Elektronika digitala. Booleren aljebra. Ate logikoak dituzten zirkuituak.
- Oinarrizko muntaiak. Zirkuitu inprimatuak.
- Simulagailuak zirkuitu analogikoetarako eta digitalerako.

## 3. MULTZOA. Komunikazioaren teknologia

- Hari bidezko komunikazioaren eta haririk gabeko komunikazioaren deskribapena. Espazio erradioelektrikoa. Satelite bidezko komunikazioa, telefonia mugikorra.
- Ordenagailuen eta periferikoen arteko komunikazioa: Internet, wifi, bluetooth, infragorriak, beste batzuk.
- Gauzen internet (IoT). Objektuak Internetera konektatzea, urrutitik kontrolatzeko. Eremuak: etxea, hiriak, arropa, osasuna. IoT-ren jatorria eta bilakaera.
- Komunikazioaren teknologiaren modu arrazionalen erabiltzea eguneroko jardunean.

## 4. MULTZOA. Etxebizitzetako instalazioak

- Etxebizitza bateko instalazioak: elektrizitatea, ura, saneamendua, berokuntza, gasa, aire girotua, domotika, telekomunikazioak, beste batzuk.
- Instalazio horien modelo errazak muntatzea. Araudia, ikurrak.

- Energia aurreztea. Arkitektura bioklimatikoak. Energia-konsumoen fakturen azterketa.

### 5. MULTZOA. Esplorazio eta komunikazio teknikoak

- Marrazketa normalizatua. Plano, eskema eta abar egin eta interpretatzea.
- Ordenagailuz lagundutako diseinua, CAD.
- Fluxugramak, kronogramak, algoritmoen, segiden eta prozesuen adierazpena.
- Infografiak eta ideiak adierazteko beste teknika batzuk.
- 3D-ko inprimaketa. Aplikazio-eremuak. Piezen diseinua trukatzeko komunitatea.
- Kudeaketako oinarrizko dokumentuak.
- Memoria teknikoak. Terminologia egokia.

### 6. MULTZOA. Programazioa eta kontrola. Robotika.

- Prozesuen automatizazioa: automatismoak.
- Kontrol-sistemak. Sarrerako eta irteerako osagaiak: sentsoareak eta eragingailuak. Atzeraelikadura. Inguruneko adibideak.
- Robotak, arkitektura. Sistema automatiko bat diseinatu, eraiki eta programatzea.
- Ordenagailua programatzeko eta kontrolatzeko gailu moduan: interfazeak eta kontrol-txartelak. Programak.
- Programazioa, programazio motak, iturburu-programa eta programa exekutagarria, metodologia, algoritmoak edo fluxugramak, aldagaiak. Lengoia libreak eta lengoia jabedunak.

### 7. MULTZOA. Pneumatika eta hidraulika

- Sistema pneumatikoak eta hidraulikoak. Osagaiak, funtzionamendu-oinarriak. Aplikazioak.
- Oinarrizko zirkuituak diseinatzea, simulagailuekin, ikur egokiak erabiliz.
- Aplikazio jakin baterako sistema pneumatiko egokiak muntatzea.

### 8. MULTZOA. Teknologia eta gizarteak

- Teknologia gizakiaren beharren erantzun moduan. Objektuen eta tekniken bilakaera, zientziaren, teknologiaren eta gizartearen garapenarekin lotuta.
- Ekoizpen teknikoaren adibideak ingurunean. Euskal Autonomia Erkidegoko teknologia-zentroak. Maker eta DIY mugimenduak (Do it Yourself).
- Teknologia ekonomia, kulturaren eta gizartearen garapenari egindako ekarpenak.
- Lanbideak eta haietarako beharrezko teknologia-konpetentziak.
- Merkatua garapen teknologikoen erregulatzailer moduan. Produktuen bizi-zikloa.

- Teknologia eta ingurumena. Garapen iraunkorreko ohiturak hartzea.

#### 4.1.2.4. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 4. MULTZOA. Etxebizitzetako instalazioak

- Energia (elektrikoa, gasa...) sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko modua Euskal Herrian.
- Energia iturriak Euskal Herrian: berriztagarriak eta ez-berriztagarriak.
- Energiaren euskal erakundea (EEE/EVE).

#### 8. MULTZOA. Teknologia eta gizartea

- Euskal Herrian egindako zientziako eta teknologiako ikerketak eta aurkikuntzak: Elhuyar anaiak, wolframioa...
- Teknologiaren paisaia Euskal Herrian: Portugaleteko zubi esekia, Ormaiztegioko zubia, Guggenheim, Kursaal, Elgoibarreko Makina-erremintaren museoa, Mirandaola...

### 4.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 4.1.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik 3. mailara

##### 1. Prozesu teknologiko baten etapak bereiztea eta deskribatzea, eta haietako bakoitzean egokiak diren lanak egitea.

- Produktu bat bideragarria den ala ez ezartzen du, eta hori egiteko gai da.
- Deskribatzen du zergatik den beharrezkoa objektu edo sistema tekniko bat.
- Definitutako problema ebazteko beharrezkoa den informazioa biltzen du.
- Taldean erabakitzen du egin beharreko konponbide egokiena.
- Besteen ideiak aintzat hartzen ditu proiektu batean eman beharreko konponbidea aukeratzean.
- Taldeak adierazitako konponbidea diseinatzen du, beharrezkoa den dokumentazioa erantsiz.
- Konponbidea emateko prozesuaren plangintza egin eta dokumentatu egiten du.
- Zer baliabide behar diren ikusten du, bai eta nola banatu behar diren lanak taldeko kideen artean.
- Produktu bat saltzeko sistema bat ezartzen du, eta hura sustatzeko estrategiak testatzen ditu.

##### 2. Zehaztutako problema batentzako konponbide egokia diseinatzea, ezagutza teknikoak eta zientifikoak egoki aplikatuz.

- Egitura bat eskalan egiten du, IKTko baliabideak erabiliz, eta haren egonkortasuna hobetzen du konponbide tekniko bidez.

- Egitura osatzen duten elementuen esfortzuak deskribatzen ditu, bai eta nola transmititzen diren ere.
- Sistema mekanikoetan higiduren transmisioaren algoritmoak zuzen aplikatzen ditu, eta abiadurak edo lekualdatzeak kalkulatzeko sistema horietan.
- Mekanismoek higidura nola eraldatzen edo transmititzen duten deskribatzen du, informazio idatzia eta grafikoa erabiliz.
- Makina termiko ohikoenen funtzionamendua azaltzen du.
- Berariazko softwarearen eta ikur normalizatuaren bidez zirkuitu mekanikoen simulazioa egiten du, eta espero den soluzioarekin lotzen ditu.
- Zuzen egiten ditu eragile soileko zirkuitu elektrikoak eta elektronikoak, eta eskakizunak ongi betetzen dituztela egiaztatzen du.
- Problema baten ebazpenean erabiltzen ari diren magnitudeak neurtzen ditu neurketa-tresna egokiak erabiliz edo simulazio-programa egokian.
- Energia elektrikoa eta haren eraldaketak lotzen ditu beste energia-adierazpen batzuetan.
- Ohikoenak diren teknologien oinarriko algoritmoak aplikatzen ditu.
- Planteatutako problema bati dagokion sasikodea sortzen du.
- Problema jakin baten enuntziatutik sortutako sasikodea programa bihurtzen du.

### **3. Ingurumenean eta gizakiarengan objektuak eta sistemak erabili eta botatzeak zer ondorio dituen aztertzea, eta ingurumenaren iraunkortasunaren aldeko jarrera izatea.**

- Objektu edo sistema tekniko bat ekoizteak, erabiltzeak eta botatzeak ingurumenean eta pertsonen ongizatean dakartzan eragin onak eta txarrak aztertzen ditu.
- Sortu diren edo sortzen ari diren aldaketa teknologiko garrantzitsuenak identifikatzen ditu.
- Teknologia bizi-kalitatean, lanaren bilakaera sozialean eta teknikoan, osasunean eta aisialdiko jardueretan izan duen eragina aztertzen du.
- Badaki beharrezkoa dela energia aurrezte eta hondakinak tratatzea.
- Gaur egungo ingurumen-egoerak dakartzan iraunkortasun-aukerei buruz hausnartzen du, bai eta zer ondorio dituen ere teknologia-jardueran.
- Baserria zenbait garaitan ingurunera nola egokitu den azaltzen du, eta haietan erabiltzen diren tresnak eta egiten diren lanak deskribatzen ditu.

### **4. Eraginkortasunez eta disfuncziorik gabe moldatzea ikaskuntzarako erabiltzen duen ingurune birtualean.**

- Ordenagailu baten atal funtzionalak bereizten ditu, eta periferikoak zuzen konektatzen ditu.
- Ordenagailuaren sistema eragilea egunean eduki eta optimizatu egiten du.
- Nabigatzailearen mantentze-lanak eta garbiketa egiten ditu, eta pribatutasunari eta segurtasunari eusteko konfiguratuak ditu.
- Netiketa erabiltzen du sarean parte hartzen duenean.
- Oinarriko softwarea modu seguruan instalatzen eta desinstalatuak ditu.

- Gailu elektronikoak egoki erabiltzen ditu informazio-iturri moduan eta edukiak sortzeko.
- Ikastetxeko jarduera didaktikoko ingurune birtualetan elkarreragiten du eta bere profila eta datuak babesten ditu.
- Fitxategi komunei dagokien informazio mota bereizten du eta haren neurria kalkulatu du.
- PLNa grafikoki adierazten du eta bere informazioaren kudeaketa antolatzen du.

**5. Sistema, objektu edo programa bat osatzen duten elementuak identifikatzea, eta haien arteko lotura eta funtzionamendu globala azaltzea.**

- Ongi aplikatzen du objektuen eta sistemen analisisa egiteko metodoa.
- Sistema teknologiko bat osatzen duten elementuak bereizten ditu eta haren ezaugarriak justifikatzen ditu.
- Sistema baten funtzionamendua ondorioztatzen du, bai eta haren portaera erregulatzeko aukerak ere.
- Zirkuitu elektriko edo elektroniko baten osagaiak eta haien oinarrizko funtzioa lotzen ditu.
- Programa bat osatzen duten atalak banakatzen ditu eta haren helburuarekin lotzen ditu.
- Programa bat arazten du, funtzionaltasunari kalte egin gabe.

**6. Ikur eta lexiko egokiz dokumentatzea laneko etapak, eta prozesu osoa aztertzea eta ebaluatzea aukera ematen duten komunikazio- eta adierazpen-tresnak erabiltzea.**

- Lan-taldeko kideek emandako informazioa sintetizatzen du.
- Teknologien marrazkiak, krokisak, bozetoak eta eskemak erabiltzen ditu.
- Lantegian lan-plan bat egiten du, segurtasun-arauei erreparatu, bereziki.
- Zenbait formatutako testu teknikoaren esanahia azaltzen du, bai eta haien lexiko espezifikoak ere.
- Objektuak eskalan adierazten ditu, bista eta perspektiba normalizatuen bidez.
- Fluxugrama bidez edo sasikode bidez adierazten du kontrol-problema baten ebazpena.
- Egoki erabiltzen ditu tresna ofimatikoak, simulaziokoak eta ordenagailuz lagundutakoak.
- Software egokia erabiltzen du pieza eta objektu soilak diseinatzeke.
- Ahoz adierazten ditu bere lanaren emaitzak eta erabakiak asertibitatez adierazten ditu.
- Programa bateko lineak dokumentatzen ditu, haien funtzionalitatea adieraziz.

**7. Lanerako plan batean ezarrita dauden eragiketa teknikoak egitea, eta baliabide materialak eta antolakuntzakoak irizpide egokiz erabiltzea (ekonomia, segurtasuna eta ingurumena errespetatzea) eta lan-inguruko baldintzak aintzat hartuz.**

- Konponbidea eraikitzen du eta hark egoki erantzuteko beharrezko doikuntzak egiten ditu.
- Segurtasun- eta higiene-neurriak ezartzen ditu lan guzti-guztiak egitean.

- Objektu bat ekoizteko prozesuari lotutako dokumentazio teknikoa interpretatzen du.
- Egoki erabiltzen ditu erremintak, makinak eta tresnak (ordenagailua barne) dagokien eragiketan.
- Baliabideak probetxuari eta ingurumenarekiko errespetuari begiratuta erabiltzen ditu.
- Kontrol-sistema baten edo robot baten elementuak txertatzen ditu, operatibo bihurtzeko.
- Lantzen ari den egoeraren antzekoetan lortutako ezagutza aplikatzen du.
- Emaidza partzial desegokien aurrean ez du etsitzen, eta egin beharreko eragiketak aldatzen ditu, beharrezkoa bada.
- Bere jarduera erregulatzen du eta lortu beharreko helburura bideratzen du.

#### **8. Multzo bat eraikitzean zenbait material erabiltzea, eta zergatik aukeratu duen arrazoitzea.**

- Produktuak egiteko erabiltzen diren ohiko materialak eta haien propietate mekanikoak lotzen ditu.
- Materialen propietateak eta egin beharreko objektuen funtzionaltasuna lotzen ditu.
- Egiturak osatzen dituzten elementuak erabiltzen ditu.
- Erresistentzia-egituren elementuek jasaten dituzten esfortzu mota bakoitzak eragiten duen deformazioa ondorioztatzen du.
- Materialak ongi aprobatzen ditu.
- Material egokiak erabiliz lortzen den akabera eta aurkezpena balioesten du.
- Dagokion programan, inprimagailuko elementuen tenperaturari buruzko atala aurkitzen du.

#### **9. Muntaiak egitea, zenbait teknologiatan oinarrituta.**

- Objektu edo sistema bat egoki dimentsionatzen du.
- Makina edo sistema baten egituren txertatutako eragile mekanikoak maneiatzen ditu.
- Oinarritzko zirkuitu elektrikoak eta elektronikoak muntatzen ditu.
- Kontrol-sistema batean, sarrera-, prozesu- eta irteera-elementuak bereizten ditu.
- Kontrol-ingurunearen edo robotaren portaera aurrezarrira egokitzen ditu programak.
- Segurtasun- eta higiene-arauak ezartzen ditu muntaia-prozesuetan.
- Egiten ari denaren erantzuna aurreratzen du.
- Kontrol-txartelak eta sarrerako eta irteerako elementuak konektatzen ditu.

#### **10. Egindako lana ebaluatzea, prozesuan zehar eta prozesuaren amaieran, eta jatorrizko diseinuarekiko desbideratzeak hauteman eta dagozkion zuzenketak egitea.**

- Prozesua eta emaitza aztertzen ditu, eta zer hobetu daitekeen jasotzen du.
- Taldean, jatorrizko diseinuak behar dituen zuzenketak egiten ditu eta egindako ekintzetatik ateratako informazio garrantzitsua formulatzen du.
- Objektu edo sistema tekniko bat ekoizteak, erabiltzeak eta botatzeak ingurumenean



eta pertsonen ongizatean dakartzan eragin onak eta txarrak aztertzen ditu.

- Egindako konponbideak egoki funtzionatzen duela egiaztatzen du.
- Zer hobetu daitekeen ikusten du, geroragoko proposamenetan aplikatzeko.
- Bere jarduera eta taldearena ebaluatzen du.
- Beste talde batzuen lanaren jendaurreko aurkezpenak ebaluatzen ditu.
- Dokumentu batean jasotzen du, laburbilduta, esperientzian egindakoa eta hartan ikasitakoa.
- Egindako lana txukun eta garbi aurkezten die gainerako ikaskideei.
- Aintzat hartzen du nork bere kasa edo taldean problema teknologiko bati prozesuan sortutako zailtasunak gainditu ondoren konponbidea emateak dakarren gogobetetasuna.

#### 4.1.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

##### 1. Hautemandako problema bati konponbidea emateko planifikazioa egitea eta lan-talde batean arduraz jokatzea.

- Gelan ebazteko moduko problema teknologiko bat hautematen du edo bere egiten du.
- Kalkuluak egiten ditu, aurretik jakiteko zer baliabide beharko diren.
- Eman beharreko konponbidearen aurrekontua kalkulatzeko.
- Hautemandako problemari dagokion algoritmoa edo fluxugrama diseinatzen du.
- Badaki erabiltzen dituen osagaiak zer ezaugarri edo funtzio dituzten.
- Baliabide egokiak aukeratu eta horiek eskuratzeko gestioak egiten ditu.
- Taldean lan egiteak dakartzan arazoak gainditzeko laguntzen du, gainerakoek iritziak eta sentimenduak onartuz.
- Problema ebazteko ideiak eman eta besteenak onartzen ditu.
- Adostutako konponbidea egiteko lan orokorretik dagokion lana onartzen du.

##### 2. Ingurumenean eta gizakiarengan objektuak eta sistemak erabili eta botatzeak zer ondorio dituen aztertzea, eta ingurumenaren iraunkortasunaren aldeko jarrera izatea.

- Objektu edo sistema tekniko bat ekoizteak, erabiltzeak eta botatzeak ingurumenean eta pertsonen ongizatean dakartzan eragin onak eta txarrak aztertzen ditu.
- Sortu diren edo sortzen ari diren aldaketa teknologiko garrantzitsuenak identifikatzen ditu.
- Teknologia bizi-kalitatean, lanaren bilakaera sozialean eta teknikoan, osasunean eta aisialdiko jardueretan izan duen eragina aztertzen du.
- Badaki beharrezkoa dela energia aurrezte eta hondakinak tratatzea.
- Gaur egungo ingurumen-egoerak dakartzan iraunkortasun-aukerei buruz hausnartzen du, bai eta zer ondorio dituen ere teknologia-jardueran.
- Iraunkortasunarekin bateragarriak diren jarrerak azaltzen ditu familian.

**3. Objektu eta sistema teknologikoak aztertzea eta haien buruzko informazio garrantzitsua jasotzea.**

- Objektu teknikoak eta ingurunearekin duten lotura aztertzen du, eta haien eginkizun historikoa eta garapen teknologikoa interpretatzen du.
- Badaki zein diren etxebizitzetako instalazioen eta muntaia elektroniko, pneumatiko eta hidraulikoen elementuak, eta haietan duten eginkizuna ondorioztatzen du.
- Kontrol-sistema bati dagozkion sarrera-, prozesu- eta irteera-elementuak bereizten ditu.
- Komunikazio-sistema baten funtzionamendua ondorioztatzen du, dagozkion gailuetan oinarrituta, bloke-diagrametan oinarrituta, edo antzeko deskripzio-prozesuetan oinarrituta.
- Energia hidraulikoaren eta pneumatikoaren inguruneko aplikazioak deskribatzen ditu.
- IKTak erabiltzen ditu objektu eta sistema teknologikoei buruzko informazioa egiaztatzeko.

**4. Objektu edo sistema teknologiko batek nola funtzionatzen duen azaltzea, eta hari buruzko informazio teknikoa, prozedurak eta ikur normalizatuak interpretatzea.**

- Egoki interpretatzen ditu etxebizitzetako planoak, instalazioak ere adierazita dituztenak.
- Sistema elektronikoaren, hidraulikoaren eta pneumatikoaren funtzionamendua azaltzen du, haien eskemak erreparatuz.
- Egoki interpretatzen ditu instalazioekin, osagaiekin, eragileekin eta sistemekin lotutako katalogoak.
- Kontrol-sistema bat gobernatzen duen programa irakurri haren erantzuna ondorioztatzen du.
- Sistema automatiko baten edo robot baten muntaia-prozesua sekuentziatzen du, hari buruzko informaziotik abiatuta.

**5. Lan-etapekin lotutako informazioa transmititzea, lexiko egokiz dokumentatuta.**

- Egoki erabiltzen ditu adierazpen grafikoko tresnak.
- Ordenagailuz lagunduta, osagai mekanikoak, elektrikoak, elektronikoak, hidraulikoak eta pneumatikoak dituzten marrazkiak, eskemak eta objektuak egiten ditu.
- Kasuan-kasuan egokiak diren ikurrak erabiltzen ditu.
- Ordenagailua letrazko informazioa edo informazio grafikoa tratatzeko tresna moduan erabiltzen du.
- Aurkezpenak egiten ditu zenbait formatutan, eta argitaratu egiten ditu bere lanaren berri emateko.

**6. Baliabide teknologikoak erabiltzea bere inguruko egoerei konponbidea ematen laguntzeko.**

- Lantzen ari den problemari egokitzen zaion objektu teknologikoa bereizten du.
- Baliabide teknologikoa maneiatzeko egokia den informazioa aukeratzen du.
- Informazio teknikoa egoki interpretatzen du.
- Baliabide teknologikoaren erabileraren probak egiten ditu, segurtasunez.

- Egoera jakin bat ebazteko programak diseinatzen ditu.
- 3D-ko inprimagailua erabiltzen du elementu berezi batzuk berreraikitzeke.
- Esperimentuen emaitza sintetizatu eta informazioa antzeko egoeretarako erabiltzen du.

**7. Zirkuituak implementatzea, material, erreminta, operadore eta neurketa-tresna egokiak erabiliz.**

- Simulazio-programak erabiltzen ditu: instalazio, barne-arkitektura, elektronika eta pneumatikako simulazio-programak.
- Zirkuitu elektronikoen, hidraulikoen, mekanikoen eta pneumatikoen muntaia egiten du, laguntzarekin dagokionean, akabera on samarrarekin.
- Zirkuitu jakin baten funtzionamendua eta aplikazioak deskribatzen ditu.
- Teknologiako problema errazak ebazten ditu ate logikoen bidez.
- Aurretik ezarritako emaitza lortzeko beharrezkoak diren operadoreak konbinatzen ditu.
- Egoki erabiltzen ditu behar dituen tresnak, ordenagailua barne, eta segurtasun- eta higiene-irizpideak jarraituz egiten du.
- Ongi erabiltzen ditu kasuan-kasuan egokienak diren tresnak, zehaztasunez eta segurtasunez egiteko beharrezkoak diren neurketak.
- Mikrokontrolagailuek gobernatutako sistemak kontrolatzeko programak egiten ditu.

**8. Egindako lana ebaluatzea, prozesuan zehar eta prozesuaren amaieran, eta jatorrizko diseinuarekiko desbideratzeak hauteman eta dagozkion zuzenketak egitea.**

- Taldean, jatorrizko diseinuak behar dituen zuzenketak egiten ditu eta egindako ekintzetatik ateratako informazio garrantzitsua formulatzen du.
- Egindako konponbideak egoki funtzionatzen duela egiaztatzen du.
- Zer hobetu daitekeen ikusten du, geroragoko proposamenetan aplikatzeko.
- Aintzat hartzen du nork bere kasa edo taldean problema teknologiko bati prozesuan sortutako zailtasunak gainditu ondoren konponbidea emateak dakarren gogobetetasuna.
- Bere jarduera eta taldearena ebaluatzen du.
- Egindako lanean ezar daitezkeen hobekuntzak planteatzen ditu.

## 4.2. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

### 4.2.1. HELBURUAK

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak arloko helburuak hauek dira:

1. Eduki digitalak argitaratzeko web inguruneak garatu eta diseinatzea, informazioa argitaratzean eskuragarritasun-estandarrak aplikatuz, elkarrekintzarako aukera ematen duten bitartekoak erabiliz eta multimedia-elementuak sartzea errazten duten formatuak erabiliz, produktuak edo zerbitzuak komunikatzeko.
2. Multimedia-elementuak edo webarenak berak sortu eta aldatzea, emandako espezifikazioak betez, planteatutako problemari konponbidea emateko. Horretarako, mota bakoitzerako egokienak diren teknikak baliatuko ditu eta erabiltzen dituen iturrien jabetza intelektuala errespetatuko du.
3. Programak diseinatu eta konponbideak garatzea, programazio-inguruneak erabiliz, garrantzia izan baduten problemei irtenbidea emateko.
4. Aplikazioak instalatu eta konfiguratzeko. Lan horretan segurtasun aktiboa eta pasiboa zainduko du, elkarrekin konektatuta eta Internetera zabaldua dauden sistema informatikoei segurtasuna emateko, batetik, eta datu pertsonalak egoki babestu ahal izateko, bestetik.
5. Baliabide digitalen erabilerari dagokionez, zer behar dituen aztertzea, lortu nahi duen helbururako tresnarik egokiena aukeratzeko. Horretarako, irizpide kritikoz aztertuko ditu eskura dauden konponbideak eta tresna digitalak.
6. Parte aktiboa izatea, eta lankidetzako aplikazioak erabiltzea Interneten, sare sozial birtualetan, informazio-igortzaile eta -hartzaile moduan, ekimen komunak sustatzeko. Lan horretan, errespetuz eta elkarlanean jardungo du, produktu kolektiboak sortu ahal izan daitezen.

### 4.2.2. EDUKIAK

#### 4.2.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

DBHko 4. mailan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) ikasgaiak, komunikazio digitalerako oinarrizko zehar-kompetentzia sendotzeaz gain, lotura zuzena du teknologiarako kompetentziarekin, helburu nagusia guztion interesekoak diren arazoak hauteman eta konponbide teknologiko digitalak diseinatzea baita, egoera horiei konponbidea ematen dioten produktu edo zerbitzu berriak planifikatuz eta diseinatuz, eta emaitzak jakinaraziz. Azken helburua da gero eta hobeto erabiltzea teknologia digitalak ikaskuntzarako.

Honela definitzen da kompetentzia digitala Europako DIGCOMP<sup>3</sup> esparruak: *“teknologia digitala sormenez, zuhurtziaz, eraginkortasunez eta segurtasunez erabiltzea, ikasteko, aisiarako, eta gizarteratzeko eta gizarlean parte hartzeko. Eta kompetentzia-arlo hauetako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu: informazioa, komunikazioa, edukiak sortzea, segurtasuna eta problemak ebaztea”*

<sup>3</sup> DIGCOMP esparru europarra eta [Mapa de competencias digitales perfil de salida](#) Heziberri

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiako curriculum-eduki espezifikoek multzoak Teknologia ikasgai komunean landuko dira, DBHko 1. mailatik 3. mailara bitartean. Beste alde batetik, oro har kompetentzia digitalari dagozkion prozedurak eta jarrerak, curriculum-arloetan eta -ikasgaietan txertatutako zehar-kompetentzia moduan landu eta ebaluatu behar dira, bai Lehen Hezkuntzan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Aurrekoa kontuan hartuta, DBHko 4. mailako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia ikasgaiaren helburua da "edukiak sortzea, segurtasuna eta problemak ebaztea" kompetentzia-arloetako edukiak finkatzea. Horretarako, nabarmentzen da ikasleek baliabide-sortzaile moduan jardun behar dutela gehiago baliabide-erabiltzaile moduan baino. Horrela bada, batetik, mugikorren aplikazioen bat diseinatzea proposatzen da, ikasleen eguneroko bizitzako interes edo egoera bati erantzungo diona, eta, bestetik, web ingurune bat egitea, sortutako edukiak argitaratzeko.

Ikasgaiako edukiak multzo hauetan egituratuta daude:

Lehen multzoan, curriculumeko ikasgai guztietan komunak diren edukiak jasotzen dira, oinarriko zehar-kompetentzia guztiak garatzeko funtsezkoak direnak.

Bigarren multzoak sareko segurtasunarekin, nortasun digitalaren garapenarekin eta ingurune birtualetan pribatutasuna babestearekin lotutako guntia hartzen du bere barnean.

Hirugarren multzoan, sistema eragileen kudeaketa, gailuen konfigurazioa eta konexioa, segurtasun informatikoa eta arazo tekniko errazak konpontzea sartzen da.

Laugarren multzoak programazioaren printzipioak biltzen ditu, bai eta mugikorren APPak diseinatzeko hasierako oinarriak ere.

Azken blokean, web plataformen bidez edukiak sortu, argitaratu eta zabaltzea lantzen da.

#### 4.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarriko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea, berreskuratzea eta konpartitzea, bai ingurune analogikoetan, bai ingurune digitaletan.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.), baliabide eta tresna analogikoak zein digitalak erabiliz.
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, aukeratu eta adieraztea, tresna analogikoak eta digitalak erabiliz.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Ikasitakoaren transferentzia egitea, eta ikaskuntzak estrategikoki erabiltzea.

- Lortutako emaitzak modu eraginkorrean jakinaraztea, bitarteko analogikoak zein digitalak erabiliz.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia, entzute aktiboa eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea, bai benetako inguruneetan bai ingurune birtualetan. Erantzukizunak hartzea eta aniztasunaren balioa aintzat hartzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea. Elkarrizketaren eta negoziazioaren balioa.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Segurtasuna sarean jardutean

- Ingurune birtual seguruak. On-line zerbitzuen erabilera-baldintzak.
- Arriskuak eta iruzurra sarean. Pribatutasuna babesteko estrategiak.
- Etika eta legezotasuna sareko baliabideen erabileran.
- Jarrera kritikoa, segurua eta proaktiboa sare sozialetan baliabideak, edukiak eta ezagutza trukatzean.
- Netiketa: portaera-arau egokiak sarean.
- Nortasun digitala. Arrasto digitala.
- Herritarren autonomia eta parte-hartzea on-line. Prestakuntzako eta aisiako baliabide eta plataformetan sartzea.
- Teknologiaren erabilerarekin lotutako osasun-arazoak. Ongizate fisikoa eta psikologikoa. Mendekotasunak, arreta galtzeak eta oreka emozionala.

## 3. MULTZOA. Sistema eragileak eta segurtasun informatikoa

- Sistema eragilearen oinarriko elementuak. Sistema eragilea aukeratu, instalatu, optimizatu eta eguneratzea. Kasuan-kasuan egokiena den gailua.
- Ekipamenduen eta gailuen konfigurazioa. Haririk gabeko konexioak. Gailuen arteko konexioak.
- Segurtasun-arriskuak eta babes-sistemak. Ingeniaritza soziala. Suebakia. Posta masiboaren zaintza. Segurtasun aktiboko eta pasiboko neurriak.
- Arazo tekniko errazak konpontzea: laguntza-iturria, ikuspegi aktiboa eta lankidetzakoa.

#### 4. MULTZOA. Programazioa

- Programazioaren printzipioak. Programazio-lengoaiak. Oinarrizko egiturak. Oinarrizko doikuntzak eta aldaketak.
- APPak. Gailu mugikorretako aplikazioak. APP bat egitea.
- Sormenez, komunikazioz eta lankidetzaz jardutea ezagutza sortzean.

#### 5. MULTZOA. Edukiak argitaratu eta zabaltzea

- Eduki digitalak eta multimediak sortzea.
- Web inguruneak sortzea, eta haietan estekak, irudiak, grafikoak, soinua, bideoa eta abar txertatzea. Web 2.0 aplikazioak.
- Argitaratze-estandarrak eta irisgarritasuna aintzat hartzen duten web-inguruneak sortzea.
- Dagozkion lizentziak eta egile-eskubideak erabiltzea, edukiak berregiteko eta trukatzeko.
- Eduki digitalak eta multimediak argitara eramaterakoan, hizkuntzaren eta komunikaziorako baliabideen erabilpen inklusiboa.
- Bitarteko digitalen balio erantsia prozesu kognitiboetan eta sortze-prozesuetan.
- Produktuak sortzeko formatu berriak ikertzeko jarrera irekia.
- Media-baliabideen ezagutza-ekoizpenari eta -kontsumoari buruzko jarrera kritikoa.
- Lankidetzaren sarean: lankidetzarako sare sozialak.
- Jarrera kritikoa, segurua eta proaktiboa sare sozialetan baliabideak, edukiak eta ezagutza trukatzeko.

### 4.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1. Segurtasunez, pribatutasunari eutsiz eta arduraz sartzea informazio digitala trukatzeko eta argitaratzeko den zerbitzuetan.

- Badaki zer segurtasun-arrisku dauden eta babes-ohitura egokiak ditu.
- Ohitura egokiekin jarduten du ingurune birtualetan.
- Pasahitz seguruak izateko jarraibideak erabiltzen ditu, informazio pertsonala babesteko.
- Zenbait iturri kontsultatzen ditu eta badaki zein garrantzitsua den nortasun digitala eta nolako iruzurrak egiten diren webean.
- Trukeak egiten ditu, erantzukizunez eta jabetza intelektuala errespetatuz.
- Hirugarrenekiko errespetuz jokatzeko du softwarearen bidez norberak edo besteak egindako edukien erabilera eta trukean.

**2. Segurtasun aktiboko eta pasiboko neurriak hartzea informazioa trukatzean eta datuak babesteko.**

- Zenbait gailu aztertu eta ezagutzen ditu, bai eta haien arteko konexioak eta informazio-trukeak egiteko ezaugarri teknikoak.
- Gailu fisikoen segurtasun-arriskuak aztertzen ditu eta badakizki, eta badaki zein diren arriskuetatik babesteko babes-ohitura egokiak.
- Badaki zein garrantzitsua den softwarea eguneratzea, eta antibirusa eta suebakia aktibatzea, gailuen segurtasuna bermatzeko.
- Instalatzen ditu / badazki instalatzen eguneratzeak, birusen kontrako softwarea, suebakiak eta segurtasun informatikoarekin lotutako beste iragazki batzuk.

**3. Aplikazio-programa txikiak egitea (mugikorrenzako APPak) programazio-lengoaia jakin batean, benetako problema bati konponbidea emateko.**

- Programa baten bidez konpontzeko moduko benetako problema bat identifikatzen du.
- Problema konplexu samarrak bereizita programa daitezkeen problema errazagotan deskonposatzen ditu.
- Planteamendu jakin bati erantzuten dien algoritmoak garatzen ditu.
- Algoritmo bat aztertzen du, jakiteko problemari kasu batean ematen dion konponbidea, edo kasu guztietan ematen dion.
- Programa errazak egiten ditu, mugikorrenzako APPen modukoak, programazio-ingurune orokorrak erabiliz eta erabilgarritasuna kontuan izanik.

**4. Edukiak sortu eta webean argitaratzea, testua, zenbakizko informazioa, soinua eta informazio grafikoa egoki txertatuta.**

- Web orri baten proiektua aztertu eta deskribatzen du, edukiak zabaldu eta konpartitzeko behar jakin bati erantzuten dion bat, hain zuzen ere.
- Beharrezkoa den web ingurunea diseinatzeko eta ezartzeko software egokia aukeratzen du.
- Helbururako egokiak diren diseinu grafikoko elementuak aukeratzen ditu.
- Web orriak diseinatzean, argitalpen-protokoloei jarraitzen die, estandar egokiak erabiltzen ditu eta jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzen ditu.
- Testuak, grafikoak eta multimedia txertatzen eta antolatzen du egitura hipertestualetan.
- Web orrialdeetako hizkuntza eta komunikaziorako baliabideak era inklusiboan erabiltzen ditu.



## 5. KOMPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA

### 5.1. GEOGRAFIA ETA HISTORIA

#### 5.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira etapako helburuak Geografia eta Historia ikasgairako:

1. Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea. Orobat, ohartzea zer kultura-ezaugarri direla-eta diren euskal gizarteko kide, beste talde batzuetako kide izateko aukera eragotzi gabe. Horren helburua da nork bere nortasun zehaztua eta onartua izatea, gizartea hobetzeko ahaleginean modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko.
2. Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarrizko elementuak identifikatzea eta kokatzea zenbait eskalatan (Euskal Herria, Iberiar penintsula, Europa, mundua), eta elementu horien interakzioei erreparatzea, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen. Horren helburua da gizakiaren ekintzak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituen ikustea eta horretaz kontziente izatea.
3. Jakitea zein izan diren Euskal Herriarentzat gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak, direla tokikoak, direla mundu-mailakoak, eta denboran eta espazioan kokatzea. Horren helburua da gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa eta globala izatea eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izatea.
4. Datu historikoak biltzea, zenbait irizpide erabiliz: denboran orientatzekoak (iragana, oraina eta etorkizuna); denbora-posizio erlatiboak (segidakoak, aldiberekoak, diakronia, sinkronia); iraupena (faktikoa; egoeraren arabera; egiturazkoa; iraupen laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa); denbora-neurriak (denbora-unitatea, denbora eta kronologia historikoa). Horren helburua da gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea.
5. Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena, aintzat hartu eta errespetatzea, eta norbanakoek zein herriek beren identitatea izateko duten eskubidetzat eta gozamen-iturritzat jotzea. Eta hura babestu, kontserbatu eta hobetzeak dakarren erantzukizuna onartzea, nork bere esparrutik gizateriaren garapen indibidual zein kolektiboan laguntzeko.
6. Gizarte demokratikoez zer antolaketa eta funtzionamendu duten jakitea, eta haien oinarri diren oinarrizko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Eta giza eskubideak erreferentzia unibertsal moduan erabiltzea norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritziak sortzeko. Orobat, eskubideak urratuta dituzten edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez dituzten herriekin, gizarte-taldeekin eta pertsonekin solidarioak izatea eta jarrera eta egoera baztertzailak eta bidegabeak salatzea. Horren helburua da gizarte demokratikoetan modu kontziente, arduratsu eta kritikoa parte hartzea.

7. Europar Batasunaren antolakuntza politikoaren eta erakundeen funtzionamenduaren berri izatea, jakitea funtsezko zer balio eta printzipio dituzten oinarri, eta haren gabeziekiko jarrera kritiko eta arrazoitua hartzea. Helburua da ulertzea Europar Batasuna Europako herrien, estatuen eta eskualdeen harremanetarako eta parte-hartzerako eremua dela, eta beharrezkoa dela hobeto funtzionatzea.
8. Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertuz, eta errealitateak eta egoerak ebaluatuz. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskalatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldearen arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko.
9. Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, gertaera sozialen, politikoaren, ekonomikoaren eta kulturalen arteko loturak aztertuz. Jakintza hori gaur egungo gizartearen bilakaera azaltzen duten kausak ugariak direla ulertzeko oinarria izango da, baita Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko ere, eta horri esker herritarrok gizartea hobetzeko moduan egongo gara.
10. Gizarte-zientzien bereizgarri diren kontzeptuzko baliabideak, teknikak eta lan-prozedurak aplikatzea, eta arloko lexikoa erabiltzea zehatz eta zorrotz. Horrenbestez, lan monografiko txikiak eta ikerketak egingo dira, bakarka zein taldeka, Euskal Herriaren, hurbileko eremuen eta munduaren jatorriaz eta bilakaera historikoaz ikertzeko.
11. Talde-lanak egitea eta eztabaida eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantea izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta. Orobat, desadostasunak eta elkarrizketa gizakien ateko gatazkak eta gatazka sozialak konpontzeko bidea dela ikusi beharko dute, eta taldeko lan-teknikak landuko dira, bai sormenezko lorpen komun bat izateko, baita pertsonaren eta taldearen interakzio nagusi den gizartean egoki txertatzeko ere.
12. Informazio geografikoa eta historikoa lortzea. Horretarako, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa planifikatu, aukeratu eta erlazionatu behar dute (informazioa hainbat iturritatik lortuko dute, komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne). Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzen jakin beharko dute.

## 5.1.2. EDUKIAK

### 5.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Ikas-maila guztietan, Geografiako eta Historiako ikasgai hau eduki komunak izeneko eduki multzo batekin hasten da. Hartan jasota daude oinarrizko zehar-konpetentziekin eta konpetentzia sozial eta zibikoarekin (oinarrizko konpetentzia espezifikoa) lotutako prozedurak eta jarrerak.

Hasierako eduki multzo hau eduki horiek guztiak nabarmentzeko sartzen da curriculumean, gainerako guztiak garatzeko esparrua baita.

Izan alderdi geografikoak, izan alderdi historikoak eta/edo soziokulturalak, erreferentziako lurralde-eremua ikaslearengandik hurbilenekotik urrunenekora doa. Horrenbestez, espazio-ibilbideak Euskal Herria, Espainia, Europa eta mundua hartzen ditu.

Horrez gain, gizarteen denboran zeharreko azterketak irizpide kronologikoari jarraitzen dio etapa guzti-guztian.

Lehen mailan, paisaia naturalak aztertzen dira, oro har, eta hartan, paisaia osatzen duten elementuen arteko erlazioak aztertzen dira, baita lurraldea eratzean elementu horien eta gizakien artean sortzen diren erlazioak ere. Espazioari dagokionez, mundua hartzen da aztergai, eta, sakonago, Euskal Herria, Espainia eta Europa. Horrez gain, planetaren biodibertsitatearen garrantzia azpimarratzen da, planeta kontserbatzeko ezinbestekoa den neurrian.

Maila honetan, gizarteek historiaren hasieratik Erdi Arora bitarte izandako bilakaera aztertzen da. Denbora-eremu horretan, gizarteen bilakaera argien erakusten duten alderdiak nabarmentzen dira, baita denboraren ikuspegitik egungo gizartearen eraketan garrantzitsuenak jotzen diren alderdiak ere.

Bigarren mailan, biztanleria aztertzen da, biztanleriaren portaera eta joera demografikoak eta haien ondorioak.

Egungo gizartearen egitura eta kultura-ezaugarriak, bereziki Euskal Herriko, Espainiako eta Europako gizartei dagokienez. Hirietako eta landako bizimodua, eta landa- eta hiri-eremuetako ezaugarriak.

Maila honetan bilakaera historikoa aztertzen jarraitzen da, Erdi Aroko gizartetik Estatu modernoa eratu artekoa. Bereziki azpimarratzen dira Erdi Aroan penintsula lurralde asko osatzen zutela, monarkia hispaniarra eta Amerikaren konkista eta kolonizazioa, baita Euskal Herriak garai historiko hartan zuen egoera ere.

Hirugarren mailan, jarduera ekonomikoak eta haiek osatzen dituzten espazio- eta paisaia-konfigurazioak aztertzen dira. Eremu geopolitiko eta ekonomiko handien antolaketa politikoa eta espazio geografikoa aztertzen da, baita mundu interdependente eta globalizatu honetan gertatzen ari diren transformazioak eta sortzen hasi diren arazoak ere.

Alderdi historikoari dagokionez, ikasturte honetan zenbait eremu espazialeetan (Euskal Herriko lurraldeak, Espainia eta Europa, batez ere) Estatu modernoak eta monarkia autoritarioak arlo guztietan (politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala) nola garatu diren eta nola guztiz finkatu diren aztertzen da. Nabarmentzen da aldaketa handiak izan zituen garaia izan zela eta modu guztietako gatazkak eta liskarrak izan zirela, erlijioarekin lotutakoak, batez ere.

Laugarren mailan, egungo gizartearen bilakaera eta ezaugarriak lantzen dira, batez ere. Egungo gizartearen oinarri historikoak eta XVIII. mendetik XXI. mendeko lehenengo hamarkadara arte gertatutako aldaketa ekonomikoak, politikoak eta sozialak aztertzen dira.

Honako hauen jakintza eta interpretazioa nabarmentzen da: munduko egungo ordena politikoa eta ekonomikoa, integrazio-prozesuak, gizarte-aldaketak, botereguneak eta tentsioguneak, joera artistiko berriak eta abar.

Horrez gain, Espainian Estatu demokratikoa nola eratu zen aztertzen da, baita Euskal Herrian nola zertu den ere. Europar Batasuneko kide dela ere aztertzen da.

### 5.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozedura eta jarrerren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

**B. Ikasgai honen eduki multzo guztietarako komunak diren edukiak**

#### Prozedurak

- Ikasgaia ikasi eta menderatzeko hizkuntza-trebetasunak aplikatzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea, hiztegi espezifikoak interpretatu eta erabiltzea, ahoz eta idatziz ongi moldatzea, eta abar.
- Alderdi geografiko, historiko eta kulturekin zerikusia duten hipotesiak planteatu eta formulatzea eta arrazoibideak ondorioztatzea.
- Eskala grafikoa eta zenbakizkoa erabiltzea.
- Eskala grafikoa eta zenbakizkoa erabiltzea.
- Hainbat eskala, ezaugarri eta euskarritako (konbentzionalak eta digitalak) irudi, plano eta mapak irakurri eta interpretatzeko jarraibideak.
- Orientazio eta lokalizazio geografikoko teknikak.

- Errealitate geografikoari buruzko informazioa lortu eta prozesatzea, paisaiak eta paisaietan ikus daitezkeen aldaketak zuzenean edo zeharka behatzeko teknikak aplikatuz.
- Paisaien konfigurazioan, gertaera geografiko jakin batzuen lokalizazio eta banaketan, ingurumenaren degradazioan eta beste alor batzuetan ingurunearen eta giza ekintzaren artean gertatzen diren interakzioak aztertzeke jarraibideak.
- Mapa tematikoak irakurri eta interpretatzeko jarraibideak.
- Hainbat iturritatik eratorritako garrantzizko informazioa lortu, interpretatu eta erregistratzeko jarraibideak.
- Lortutako informazioarekin bakarka zein taldeka idazmena lantzeko jarraibideak: laburpen, sintesi, lan monografiko, konparazio-koadro, txosten eta ikerlan txikiak planifikatu eta egitea, eta abar.
- Hainbat euskarri erabiliz, hala nola digitala, bakarka edo taldeka egindako hainbat lanen (monografikoak, konparazioak, ikerlanak eta abar) emaitzak ahoz edo idatziz komunikatzeko jarraibideak.
- Aldi, kultura eta zibilizazioak, gertaera historikoak, datuak eta tokiak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.
- Koadro kronologikoak, denbora-lerroak eta friso historikoak egiteko teknikak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizartearen arteko desberdintasun eta antzekotasunak identifikatu, aztertu eta konparatzeko teknikak.
- Gertaera historikoen kausa-aniztasuna aztertzeke jarraibideak: gertaera historikoen eta bilakaera- eta aldaketa-prozesuen kausa eta ondorioak identifikatzea, eta gertaera horien eragile izan ziren faktoreekin lotzea.
- Hainbat artelan mota beren testuinguruetan irakurri eta interpretatzeko jarraibideak.
- Garai eta kultura desberdinetako zenbait artelanen konparazio-azterketarako jarraibideak, analogia eta desberdintasunak bilatuz.
- Euskal Herriko eta Espainiako hondar arkeologikoei eta ondare-elementuei buruzko informazioa lortzeko jarraibideak.

#### Jarrerak eta balioak

- Hainbat lurralde eta paisaia aurkitu eta ezagutzeko jakin-mina, eta aniztasun hori babestu beharreko aberastasuntzat jotzea.
- Espazioa aurkitu eta aztertzeke sentsibilitatea eta interesa, elementu fisikoen eta giza ekintzaren arteko harremanen adierazpena den heinean.
- Feminismoak historian zehar emakumeen eskubideak eskuratzeko egindako ekarpena ezagutzea.
- Inguruneak eskaintzen dituen aukerez kontzientzia hartzea, eta biodibertsitateari eta garapen jasangarriari eusteko ekarpen aktiboak egiteko prest azaltzea.
- Gizarte historikoen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Iraganeko gizarte-errealitatearen berri izateko interesa eta jakin-mina, eta gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa hartzea.
- Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena Euskal Herrikoa zein beste herrialdeetakoak, aintzat hartu eta errespetatzea, eta

norbanakoek zein herriek beren identitatea izateko duten eskubidetzat eta gozamen iturritzat jotzea. Eta hura babestu, kontserbatu eta hobetzeak dakarren erantzunkizuna onartzea, nork bere esparrutik gizateriaren garapen indibidual zein kolektiboan laguntzeko.

- Gizon eta emakumeek Historiaren subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea.

## 2. MULTZOA. Lurra eta ingurune naturalak: giza ekintza ingurune naturaletan

- Lurra eguzki-sisteman.
- Lurraren irudikapena. Latitudea eta longitudea. Proiekzioak.
- Kartografia. Irudikapen motak. Espazio geografikoaren irudikapen digitalak. Informazio geografikoko sistemak.
- Orientazio eta lokalizazio geografikoa. Paraleloak eta meridianoak. Hemisferioak. Ordu-eremuak.
- Lurraren eraketa eta egitura: atmosfera, hidrosfera eta litosfera.
- Erliebearen, uren, klimaren eta landarediaren oinarritzko osagaiak eta formak.
- Eguraldia eta klima. Klimaren elementuak. Klimaren oinarritzko faktoreak. Klima-aniztasuna. Klima-zonak. Giza jarduerak kliman duen eragina.
- Euskal Herriko ezaugarri naturalak:
  - Kokapen geografikoa. Arku Atlantikoaren gurutzebidean kokatua.
  - Paisaia-aniztasuna: erliebearen formak, hidrografia, klima, landaredia. Giza ekintza paisaietan.
  - Euskal Herriko ekosistemak.
- Iberiar Penintsulako, Europako eta munduko ezaugarri naturalak:
  - Lurraldearen azterketa.
  - Paisaia-aniztasuna: paisaia naturalak, erliebearen formak, hidrografia, klima, landaredia.
  - Eskualde kontinentalak.
- Arrisku naturalak.
- Ingurune naturala. Giza ekintza ingurune naturalean: eremuak eta ingurumen-arazoak.
- Ingurumena babesteko politikak.
- Klima-aldaketa.
- Gatazka ekologikoak.
- Baliabide naturalak.
- Baliabide eta ingurune naturalen kudeaketa jasangarria.
- Euskal Herrian, Espainian eta Europan babestutako naturguneak.

### 3. MULTZOA. Iragan historikoa: historiaurreko gizarteak, lehen zibilizazioak eta Antzinaroa

- Kontzeptu orokorrak:
  - Kausa-aniztasuna: gertaera eta prozesu historikoen kausa eta ondorioak.
  - Iturriak: materialak, ikonografikoak, idatzizkoak, ahozkoak, kartografikoak, digitalak.
  - Denbora historikoa: kronologia, aldaketa eta iraupena.
  - Periodizazio konbentzionala erabiltzea: Historiako etapa eta aldi kronologikoak.
  - Denbora historikoaren irudikapen grafikoa.
  - Zenbait kulturatan denbora antolatzeke moduak.
- Espezieen bilakaeraren teoria.
- Hominizazio-prozesua.
- Historiaurrea Iberiar Penintsulan eta Euskal Herrian:
  - Historiaurrearen periodizazioa.
  - Paleolitikoaren bizimoduak: ehiztariak eta biltzaileak (gizarte-antolaketa, ekonomia, sinesmenak, arte-adierazpenak eta abar).
  - Arku Atlantikoa Historiaurrean.
  - Euskal lurraldeetako lehen biztanleak.
  - Paleolitiko gizartetik Neolitikoko gizartera.
  - Iraultza neolitikoa. Ezaugarriak.
  - Iraultza neolitikoaren ondorioak: Sedentarismoa. Artisautza eta merkataritza. Gizarte-antolaketa berria.
  - Errituen agerpena.
  - Metalen aroa. Adierazpen megalitikoak.
  - Iberiar Penintsulako eta Euskal Herriko hondar prehistoriko garrantzitsuenak.
  - Kultura- eta arte-adierazpen nagusiak Iberiar penintsulan eta Euskal Herrian.
  - Euskara: jatorria eta bilakaera . Euskara eta hizkuntza indoeuropearrak.
- Lehen zibilizazioak:
  - Hiri-kulturak. Mesopotamia eta Egipto. Lokalizazio geografikoa eta kronologikoa.
  - Testuinguru geografikoaren garrantzia.
  - Ezaugarri orokorrak eta antolaketa politikoa.
  - Erlijioa eta heriotza Egipto zaharrean.
  - Adierazpen artistikoak. Piramide eta tenpluak. Eskultura eta pintura.
  - Haiek aztertzeke iturriak.

- Grezia. Atenasko demokrazia.
  - Kronologia eta testuinguru geografikoa.
  - Bilakaera historikoa eta etapak.
  - "Polis" kontzeptua.
  - Greziako "Polisen" geografia: haien hedapen komertziala eta politikoa.
  - Bi "polis"-eredu: Atenas eta Esparta (demokrazia eta aristokrazia).
  - Gizarte-antolaketa.
  - Greziako erlijioaren alderdiak.
  - Adierazpen artistikoak. Tenplua. Greziako kanona eta ordenak.
  - Greziako eskulturaren bilakaera.
  - Alexandro Handiaren eta haren ondorengo inperioa: helenismoa.
  - Ekarpen kultural nagusiak: artea, filosofia, zientzia, antzerkia eta abar.
- Erroma.
  - Erromako historiaren jatorria eta etapak.
  - Erromako historiaren etapa bakoitzaren ezaugarriak. Errepublika. Inperioa.
  - Antolaketa politikoa eta hedapen koloniala Mediterraneoan barrena. "Limes" kontzeptua.
  - Erromatar Inperioa finkatzeko faktoreak eta ondorengo krisia.
  - Hiria eta hiri-bizimodua.
  - Erromatarren aurreko herriak Euskal Herrian. Erromanizazioa Euskal Herrian. "Saltus" eta "ager" vasconum. Lurraldeari buruzko lehen aipamenak erromatar historialarien eskutik.
  - Iberiar Penintsula: erromatarren aurreko herriak.
  - Hispania erromatarren garaian: erromanizazio-prozesua.
  - Hiria eta landa.
  - Erromatarren arte klasikoa. Ezaugarriak.
  - Mundu klasikoaren kultura-ondarea eta Mendebaldeko Zibilizazioari egindako ekarpenak.
  - Kristautasunaren jatorria eta hedapena. Kristautasunaren agerpena Euskal Herrian.
  - Erromatar Inperioaren amaiera mendebaldean, eta Mediterraneoako batasunaren zatiketa. Ondorioak: herri germaniarren hedapena eta espazioaren okupazioa.

#### 4. MULTZOA. Kultura-adierazpenak

- Arte- eta kultura-ondarearen kontserbazioa.
- Artea eta edertasuna denboran zehar. Historiaurreko kulturen lehen adierazpenak Euskal Herrian.



- Latinak euskarari izandako eragina.

### 5.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerak honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

**B. Ikasgai honen eduki multzo guztietarako komunak diren edukiak**

#### Prozedurak

- Ikasgaia ikasi eta menderatzeko hizkuntza-trebetasunak aplikatzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea; hiztegi espezifikoak interpretatu eta erabiltzea; ahoz eta idatziz ongi moldatzea; eta abar.
- Alderdi geografiko, historiko eta kulturekin zerikusia duten arrazoibideak planteatu, formulatu eta egiaztatzea.
- Grafikoki irudikatutako datu geografikoak irakurri eta interpretatzeko jarraibideak.
- Lehen eta bigarren iturrietatik, informazio-teknologiak eskainitakoak barne, garrantzizko informazioa lortzeko, erregistratzeko eta tratatzeko jarraibideak.

- Datu demografikoak lortzeko, estatistika-iturrietan (erroladak, erregistroak eta estatuko estatistika-erakundeak) informazioa bilatzeko jarraibideak.
- Informazioa erregistratzeko eta tratatzeko teknikak.
- Lortutako informazioa idatziz komunikatzeko jarraibideak; laburpenak, sintesiak, konparazio-koadroak, kontzeptuzko mapak, txostenak, ikerlan txikiak egiteko eta abar.
- Gertaera historikoak, kulturak eta zibilizazioak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.
- Mapa tematikoak egin eta interpretatzeko jarraibideak.
- Aldaketa-prozesuak behatzeko jarraibideak.
- Denbora-sekuentziak, denbora-lerroak eta friso historikoak grafikoki irudikatzeko teknikak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizartearen arteko desberdintasun eta antzekotasunak identifikatu, aztertu eta konparatzeko teknikak.
- Gertaera historikoak kausa-aniztasunetik aztertzeke jarraibideak: kausak eta ondorioak identifikatzea.
- Hainbat artelan mota beren testuinguruetan irakurri eta interpretatzeko jarraibideak.
- Estilo artistikoen ezaugarri nagusiak identifikatzeko jarraibideak.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako hainbat artelan esanguratsu interpretatzea beren testuinguru kulturaletan, artelan horiek zuzenean eta zeharka behatuz.
- Garai eta kultura askotako zenbait artelanen konparazio-azterketarako jarraibideak, analogia eta desberdintasunak bilatuz.
- Zuzeneko edo zeharkako behaketaren bitartez landa- eta hiri-populaztearen ezaugarriak aztertzeke jarraibideak.
- Egungo portaera demografikoak eta haien ondorioak aztertzeke jarraibideak.
- Ezaugarri eta joera demografikoei buruzko ikerketa xumeak planifikatu eta egiteke jarraibideak, estatistika-informazioa erabiliz eta grafikoen bitartez komunikatuz.
- Gaur egungo egoera garrantzitsu baten sustrai historikoak ondorioztatzeko jarraibideak.

### Jarrerak eta balioak

- Espazioa aurkitu eta aztertzeke sentsibilitatea eta interesa, elementu fisikoen eta giza ekintzaren arteko harremanen adierazpena den heinean.
- Egungo portaera demografikoak eta haien ondorioak balioestea.
- Iraganeko gizarte-errealitatearen berri izateke interesa eta jakin-mina, eta gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa hartzea.
- Jarrera kritikoa gertaera historikoei buruzko interpretazioen aurrean.
- Historian izan diren gizartearen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Euskal ondare historiko-artistikoaren eta naturalaren aberastasuna eta aniztasuna balioetsi eta errespetatzea eta hartaz gozatzea, eta ondare hori kontserbatu, babestu eta zabaltzearen alde jarduteke prest azaltzea.
- Gizon eta emakumeek Historiaren subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea.

- Enpatia historikoa azaltzea, eta iraganaren eta orainaren arteko harremanak ezartzea.
- Kultura-adierazpenen aniztasuna eta aberastasuna balioetsi eta errespetatzea.
- Euskal Herriko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna onartzea. guztiontzat aberasgarria den heinean.
- Euskal gizartearen txertatzen diren beste kultura batzuetako pertsona eta taldeak onartzea, haienganako errespetua, enpatia eta elkartasuna azalduz, aniztasuna aberasgarritzat jota.
- Talde-lanetan edo bestelako zeregin kolektiboetan parte hartzea, modu aktibo eta eraikitzailean.
- Norberaren errakuntzak naturaltasunez onartzea, eta haietatik ikasteko prest azaltzea.

## 2. MULTZOA. Giza espazioa. Biztanleria eta gizarte

- Biztanleria: demografiari buruzko oinarritzko kontzeptuak.
  - Eredu demografikoak.
  - Mugimendu demografikoak.
- Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko biztanleria:
  - Biztanleriaren banaketan eragina duten giza faktoreak eta faktore naturalak.
  - Ezaugarri orokorrak: oro har eta lurraldez lurralde.
  - Desorekak eta dinamikak.
  - Banaketa desorekatua eta hura azaltzen duten faktoreak.
  - Biztanleriaren egitura ea banaketa, eta egungo portaera demografikoak, tokian-tokian eta munduan.
  - Migrazio-joerak, eta biztanle-mugimenduek egungo munduan izan ditzaketen ondorioak.
  - Migrazio-mugimenduak: bilakaera eta joerak.
  - Biztanleriaren etorkizuneko bilakaera. Etorkizun demografikoak. Proiekzio demografikoak eta aurreikus daitezkeen ondorioak.
  - Kultura anitzeko gizarteak erreferentziako herrialdeetan eta beste eremu eta garapen-maila batzuetako beste herrialde batzuetan.
  - Kultura desberdinen arteko harremana. Mugimendu sozial eta kultural berriak.
  - Desberdintasun sozial eta gatazken eragileak: gutxiengoak, etorkinak, baztertutako taldeak, sexismoa, arrazakeria, etnia- eta erlijio-gatazkak eta abar, eskala desberdinetan, tokian tokiko egoerarekin hasi eta mundukoarekin buka.
  - Gizarte- eta kultura-mugimendu berriak.
- Landaguneak eta hiriguneak Euskal Herrian, Espainian, European eta munduan.
  - - Giza ekintza lurraldearen gainean.
  - Zenbait populatze mota. Gizatiartutako paisaiak.
  - Urbanizazio-prozesua.
  - Hiriaren egitura eta funtzioak. Hiri-hierarkia

- Hiria eta hiriaren bilakaera.
- Hiriak. Hiria ekosistema gisa.
- Bizitza hirigunean.
- Tokiko eta munduko hiri-kontzentrazio nagusien kokapena.
- Komunikazio- eta garraio-egiturak eta hirigunea eta hiri ingurukoa antolatzen duten eragina.
- Urbanizazio-prozesuak bizkortzea eta haien eragin-eremuak zabaltzea. Landaguneak berrantolatzea.
- Hiri-arazoak.
- Ingurumen-arazoak. Kutsadura.
- Garapen jasangarria.
- Euskal gizartearen ezaugarriak: mendebaldeko gizarte modernoa identifikazio nazional eta gizarte-sentsibiltate anitzekin.
- Herritarren mugimendu eta erakundeak.
- Euskal emigrazioa eta immigrazioa. Gizarteratzea eta kultura-integrazioa. Inplikazio ekonomikoa eta sozialak. Hezkuntza- eta kultura-eskakizunak.

### 3. MULTZOA. Iragan historikoa. Erdi Aroko gizartea

- Erromatar Inperioaren "gainbehera" Mendebaldean: zatiketa politikoa eta inbasio germaniarrak (Erdi Aro Goiztiarra, V.-XI. mendeak).
- Erresuma germaniarrak eta Bizantziar Inperioa (Ekialdea).
- Erromatar Inperioa desagitetik islamiar mundua hedatzera. Iberiar Penintsulara iristea.
- Erdi Aroaren kontzeptua eta periodizazioa: Erdi Aro Goiztiarra, Betea eta Berantiarra.
- Euskal testuinguru historikoa: Baskonia-Akitania: bisigodoak, frankoak eta Islama. Bake eta gatazka harremanak herrien artean.
- Erdi Aroko monarkien jatorria eta bilakaera.
- Bizimodu berrien garapena: feudalismoa. Erdi Aroko gizartea: ekonomia eta botere politikoa Europa feudalean. Gizarte-estamentuen funtzioak eta haien legeko desberdintasuna.
- Islama eta herri musulmanak bateratzeko prozesua.
- Iberiar Penintsula: musulmanen migrazioa (Al Ándalus) eta kristau erresumak.
- Bizimodua eta bizikidetzak kristauen, musulmanen eta judutarren kultura eta erlijioen artean. bereziki Euskal Herrian
- Erdi Aro Betea Europan (XII. eta XIII. mendeak).
- Nafarroako erresuma eta euskal lurraldeak Pirinioen hegoaldean eta iparraldean: lurralde-antolaketa bilakaera europar estatuak eratzeko prozesuen barruan.
- Mendetasun politikoan oinarritutako harremanak euskal lurraldeen artean.
- Foruak: sorrera eta bilakaera lurralde bakoitzean. Ezaugarriak.
- 100 urteko gerraren ondorioak Zuberoan eta Lapurdin.

- Europako merkataritza hedatzea eta hiriak suspertzea.
- Erdi Aro Berantiarra Europan (XIV. eta XV. mendeak). Aldaketa ekonomiko eta politikoak Erdi Aro Berantiarrean.
- Erdi Aro Berantiarren krisia. Landa-munduaren gatazkak. Gerra, gosea eta izurria. "Izurri beltza" eta haren ondorioak. Euskal Herriko adibidea
- Borroka bandokideak Euskal Herrian.
- Aragoiko eta Gaztelako erresumak eta Araba, Bizkaia eta Gupuzkoa azken honetara inkorporatzea.
- Erdi Aroko kultura eta artea. Kultura eta arte anitzeko aberastasuna Erdi Aroko Europan.
- Elizaren zeregina kulturaren eta pentsamoldean. Arte erromanikoa eta gotikoa. Elizak, monasterioak, katedralak eta unibertsitateak.
- Islamiar artea. Mesquita.
- Donu Jakue bidea. Bi bide naturalak. Kultura eta artea Done Jakue bidean. Done Jakue bidea Euskal Herrian. Gune nagusiak euskal lurraldean.

#### 5.1.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerak honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.

- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## B. Ikasgai honen eduki multzo guztietarako komunak diren edukiak

### Prozedurak

- Ikasgaia ikasteko hizkuntza-trebetasunak aplikatzea: idatziko eta ahozko testuak ulertzea, hiztegi espezifikoak interpretatu eta erabiltzea, ahoz eta idatziz ongi moldatzea, eta abar.
- Alderdi geografiko, ekonomiko, sozial, historiko eta kulturei buruzko hipotesiak planteatu, formulatu eta egiaztatzea.
- Hainbat eskala, ezaugarri eta euskarritako (konbentzionalak eta digitalak) irudi, plano eta mapak irakurri eta interpretatzeko jarraibideak.
- Grafikoak irakurri eta interpretatzeko jarraibideak.
- Grafikoak egitea lortutako datuetatik abiatuta.
- Lortutako informazio ekonomikoa, geografikoa, soziala eta kulturala bilatu, aztertu eta egiaztatzeko jarraibideak.
- Informazio geografikoko sistemen bidez informazioa lortzeko jarraibideak.
- Hainbat xedetarako informazioa erregistratzeko eta tratatzeko teknikak.
- Mota askotako dokumentu ofizialak irakurri, interpretatu eta betetzeko jarraibideak.
- Sarean hainbat herrialderi buruzko informazio garrantzitsua bilatzeko jarraibideak.
- Lortutako informazioa ahoz edo idatziz komunikatzea, zuzentasunez eta argudioak emanez.
- Hainbat iturritako informazioa erabiliz ikertzeko eta/edo laburtzeko lan monografikoak egiteko eta lan horiek ongi aurkezteko jarraibideak, hainbat espresio modu erabiliz, IKTek emandakoak barne.
- Gizarteari buruzko jakintza lortu eta komunikatzeko prozesuaren berezko testu-generoak ongi erabiltzeko jarraibideak.
- Produkzio-paisaien konfigurazioan ingurunearen eta giza ekintzaren artean gertatzen diren interakzioak aztertzeko jarraibideak.
- Gaur egungo ingurumen-arazo, arazo ekonomiko, **politiko** edo beste alor bateko arazoak konpontzeko, kasuak aztertzeko edo eztabaidak egiteko jarraibideak.
- Gertaera bati buruzko informazioak kritikoki aztertzeta.

### Jarrerak eta balioak

- Baliabide naturalak oraingo eta etorkizuneko gizateria osoaren ondare naturaltzat jotzea.
- Jarrera kritikoa munduko aberastasunaren banaketa desorekatuaren aurrean, eta pertsona eta herrien arteko desberdintasunak gaitzestea.
- Herritarren eskubide indibidual eta kolektiboak onartzea.

- Giza duintasunaren eta giza eskubideen printzipioak onartzea elkarbizitzarako oinarritzat.
- Herritarrek erakunde publikoetan duten parte-hartzea balioestea.
- Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimekiko elkartasuna.
- Herrialde behartsuenekiko elkartasuna.
- Gaur egun munduko hainbat pertsona eta kolektibori eragiten dieten desberdintasun-, bidegabekeria- eta diskriminazio-egoerak identifikatu eta salatzea.
- Jarrera kritikoa emakumeen aurkako diskriminazio- eta indarkeria-egoeren aurrean.
- Baliabideak agortu egiten direnez haien kontsumoa arrazionalizatu beharra dagoela ohartzea, eta jarduera ekonomikoak lurraldean duen inpaktuaz jabetzea.
- Elkarrizketa eta lankidetzatza balioestea, gatazkak konpontzeko modurik eraginkorrenak diren heinean.
- Bakarka eta taldeka, kontsumo-arrazionalizazioa eta giza garapena berdintasunez eta modu jasangarrian bultzatzeko prest azaltzea.
- Talde-lanetan edo bestelako zeregin kolektiboetan parte hartzea, modu aktibo eta eraikitzailean
- Norberaren errakuntzak naturaltasunez onartzea, eta haietatik ikasteko prest azaltzea.

## 2. MULTZOA. Giza espazioa. Antolaketa ekonomikoa, soziala eta politikoa

- Giza ekintza lurraldearen gainean. Gizatiartutako paisaiak.
- Ingurumen-arazoak. Kutsadura. Garapen jasangarria.
- Jarduera eta politika ekonomikoak. Desberdintasunak eta desorekak.
- Euskal Herriko sektore ekonomikoetako ezaugarri nagusiak:
  - Lehen eta bigarren sektoreei lotutako jarduera tradizionalak.
  - Nekazaritzako, arrantzako, basoko eta industriako eremu eta jarduerak. Egungo egoera, eraldaketa berriak eta etorkizuneko itxaropenak.
  - Industria-jarduera.
  - Euskal kooperatibismoa: jatorria eta garapena.
  - Zerbitzu-sektorea: aniztasuna eta hirugarren mailako jardueren garapena. - Garraioak eta komunikazioak. Arku Atlantikoko eremu ekonomikoan nola xertatzen diren.
- Giza jarduerak Euskal Herrian, Espainian, Europan eta munduan:
  - Giza premiak, baliabide ekonomikoak eta haien aprobetxamendua.
  - Prozesu ekonomikoa: zerbitzu-ondasunen produkzioa, banaketa, trukea eta kontsumoa.
  - Euskal Herriko, Espainiako eta Europako jarduera ekonomikoaren eremu eta gune nagusien kokapena eta ezaugarriak. Eskualde-desorekak.
  - Jarduera ekonomikoa. Sistema ekonomikoak.
  - Produkzio-eremuak lurralde-eremu bakoitzean.

- Baliabide naturalen aprobetxamendua eta etorkizuna.
- Eremu geografikoak jarduera ekonomikoaren arabera.
- Desberdintasun sozioekonomikoak munduan.
- Sektore ekonomikoak.
- Nekazaritzako, abeltzaintzako eta itsasoko sektorea.
  - Nekazaritza-paisaia motak. Nekazaritza-paisaia eta eratorritako jarduera ekonomikoa. Eraldaketak lan-munduan.
  - Baso-ustiapena eta haren ingurumen-ondorioak.
  - Arrantza-jarduera eta itsasoaren erabilera.
- Industria-jarduera.
  - Industria lokalizatzeko eta deslokalizatzeko faktoreak.
  - Industria motak.
  - Energia-iturriak.
  - Lehengaiak, energia eta industria-ondasunak ekoizten dituzten eremuak.
  - Munduko industria-eremu handiak.
- Zerbitzu-sektorea.
  - Zerbitzu-sektorearen garrantzia.
  - Garraioaren azpiegitura, sistemak eta bilakaera.
  - Turismoa: Turismoa: garapena, bilakaera eta eremu turistikoak.
- Merkatu-ekonomian esku hartzen duten oinarrizko kontzeptu, agente eta erakundeak, eta familia-unitateekin duten harremana.
- Eguneroko bizitzatik hurbil dauden arazo eta gestio ekonomikoak identifikatu eta konpontzea.
- Aldaketak lan-munduan. Antolaketa eta erregulazio ekonomikoa:
  - Merkatua eta finantza-erakundeak.
  - Lan-munduaren antolaketa. Sindikatuak, enpresa-erakundeak.
  - Munduko hainbat sistema ekonomiko eta haien arteko interakzioa.
  - Esku-hartze publikoa ekonomian. Multinazionalen boterea.
- Politika eta lurraldea antolatzeko moduak:
  - Estatu Espainolaren antolaketa politiko eta administratiboaren oinarrizko elementuak.
  - Espainiako Gobernuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko konpetentzien banaketa. Euskal Autonomia Erkidegoko adibidea.
  - Gernikako Estatutua: eskumenak eta orain arteko garapena. Lurralde historikoen antolaketa administratiboa.
  - Europar Batasunaren antolaketa politiko eta administratiboaren oinarrizko elementuak. Erakundeen helburuak eta funtzionamendua.



### 3. MULTZOA. Iragan historikoa. Estatu modernoa

- Europako Estatu Modernoaren ezaugarriak. Monarkia modernoak sendotzea.
- Monarkia autoritarioak, parlamentarioak eta absolutuak.
- Errenazimenduko ikusmolde humanista Europan. Ondorioak.
- Amerika aurkitzea, ikertzea eta konkistatzea. Euskaldunen presentzia bertan. Europarrek ezagututako mundua zabaltzea. Horren kausak.
- Munduko lehen sistema koloniala eratzea. Ondorio sozioekonomikoak Iberiar Penintsulan.
- Gaztelaren eta Aragoiren arteko batasun dinastikoa.
- Austriarrak eta haien politikak: Karlos V.a eta Felipe II.a.
- Erlijio-gatazkak. Kristau erreforma eta Kontrarreforma katolikoa. Haien eragina Euskal Herrian. Lehen biblia euskaraz. Jesusen Lagundiaren sorrera.
- Monarkia hispanikoa eta Amerikaren kolonizazioa Europako testuinguruaren barruan.
- Aldaketak munduko hegemonian: Espainiatik Frantziara, eta jarraian, Holandara eta Ingalaterrara.
- Monarkia autoritarioak, parlamentarioak eta absolutuak.
- Austriarrak eta haien politikak: Felipe III.a, Felipe IV.a eta Karlos II.a.
- Euskal lurraldeetan foru-sistema eratu eta finkatzea.
- Aldaketak Nafarroako erresumaren historian. Gerra eta Gaztelaren konkista.
- Errenazimenduko eta Barrokoko arte-adierazpenak. Errenazimenduko eta Barrokoko adierazpenak Euskal herrian.

#### 5.1.2.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerek honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.

- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## B. Gai honen eduki multzo guztietarako komunak diren edukiak

### Prozedurak

- Ikasgaia ikasteko hizkuntza-trebetasunak aplikatzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea eta egitea, hiztegi espezifikoak interpretatu eta erabiltzea.
- Alderdi historiko, kultural eta sozialekin zerikusia duten hipotesiak planteatu, formulatu eta egiaztatzea.
- Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak denboran eta espazioan kokatzea.
- Aldaketa-prozesuak behatzeko jarraibideak.
- Denbora-sekuentziak (denbora-lerroak eta friso historikoak) grafikoki irudikatzen diren teknikak.
- Iraganeko gizartearen eta egungo gizartearen arteko desberdintasun eta antzekotasunak identifikatu, aztertu eta konparatzea.
- Irudiak dokumentu historiko gisa aztertzen diren jarraibideak.
- Dokumentalak iturri historikotzat jotzea.
- Aldaketa historikoko prozesuetan esku hartzen duten faktoreak identifikatzeko jarraibideak; kausak eta ondorioak bereiztea.
- Azalpen historikoaren kausa-aniztasuna aztertzea.
- Prozesu historikoetan esku hartzen duten osagai ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak identifikatzea, eta haien arteko harremanak ulertzea.
- Dokumentu-iturrietan informazioa bilatu, hautatu eta lortzeko jarraibideak, informazio hori objektibotasun- eta egokitasun-irizpideen arabera jasota, eta gertaera eta iritziak bereiztea, baita lehen eta bigarren mailako iturriak ere.
- Informazio kontrajarri eta/edo osagarriak egiaztatzea, gertaera edo egoera historiko baten harira.
- Garrantzi berezia duten testu historikoak aztertu eta lantzea.
- Hainbat iturritako informazioa erabiliz ikertzeko eta/edo laburtzeko lanak egiteko eta ongi aurkezteko jarraibideak, hainbat espresio modu erabiliz, informazio-teknologiak eta ikus-entzunezko baliabideek eskaintzen dituzten aukerak barne.

- Gaurkotasuneko gertaera edo egoera garrantzitsuak aztertzea, haien aurrekari historikoak ikertuz eta komunikazio-baliabideak, elkarrizketak eta/edo inkestak erabiliz.
- Gaur egungo estilo artistiko edo artista garrantzitsu nagusien oinarriko elementuak aztertzeke jarraibideak.
- Artelan garrantzitsu eta esanguratsuak testuinguruan jarri eta interpretatzea.
- Garai eta kultura askotako zenbait artelanen konparazio-azterketarako jarraibideak, analogia eta desberdintasunak bilatuz.

#### Jarrerak eta balioak

- Historian izan diren gizarteen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Egoera bidegabekiko, eta gerra, terrorismo eta indarkeriarekiko ikuspegi kritikoa hartzea, eta elkarrizketa gatazkak konpontzeko bidetzat jotzea.
- Memoria historikoak etorkizuna eraikitzeke betetzen duen funtzioa balioestea.
- Kultura-ondarearen eta gure ondare historiko-artistikoaren aberastasuna eta aniztasuna balioetsi eta errespetatzea, eta haietaz gozatzea. Haren kontserbazio eta defentsaren alde jarduteke prest azaltzea.
- Iraganari buruz eta iragan horrek egungo gizartearekin duen harremanari buruz jakiteke interesa eta jakin-mina.
- Jarrera kritikoa gertaera historikoen aurrean.
- Giza eskubideak balioetsi eta errespetatzea, eta edozein bidegabekeria modu baztertzea.
- Gizon eta emakumeek Historiaren subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea.
- Talde-lanetan edo bestelako zeregin kolektiboetan parte hartzea, modu aktibo, eraikitzaile, arduratsu eta solidarioan.
- Norberaren errakuntzak naturaltasunez onartzea, eta haietatik ikasteko prest azaltzea.

## 2. MULTZOA. Egungo gizartearen oinarri historikoak

- Estatu absolutua Frantzian eta Borboien Espainian.
- Borboien erreformismoa Espainian eta Euskal Herrian.
- Foralismoaren krisia. Ondorioak euskal lurraldeetan.
- Artea eta zientzia Europan, XVII. eta XVIII. mendeetan.
- Ilustrazioa. Ilustrazioaren eragina Euskal Herrian.
- Antzinako Erregimenaren krisia: Aurrekariak:
- Erreformismo ilustratua. AEBen independentzia eta Frantziako iraultza. Ondorioak Europan, Espainian eta Euskal Herrian.
- Iraultza liberalak XIX. mendean Europan eta Amerikan: prozesu bateratzaileak eta independentistak. Nazionalismoak.
- Espainiako eta Euskal Herriko bilakaera historikoa XIX. mendean, eta balioespena nazioarteko testuinguruaren barruan.

- XIX. mendeko Espainian Estatu liberala eraikitzea. Tradizionalismoa liberalismoaren aurka.
- Karlismoaren eta liberalismoaren arteko konfrontazioa euskal lurraldeetan.
- Foruen auzia Euskal Herrian: liberalen garaipena eta foruen abolizioa.
- Euskal nazionalismoaren sorrera.
- Industria-iraultza. Kausak eta ezarpena Europan.
- Industria-iraultzaren aurrekari eta ezaugarriak Euskal Herrian eta Espainian. Ondorio politiko, sozial eta kulturalak: migrazio-fluxuak.
- Langile-mugimenduaren sorrera. Sozialismoa. Bizimoduak industria-hirian. Euskal Herriko adibidea.
- Inperialismoa XIX. mendean: kausak eta ondorioak.
- Aldaketa eta gatazka handiak XIX. mendeko lehen erdian. Gerra eta gizarte-iraultza. Lehen Mundu Gerra eta haren ondorioak en Europa y en el Pais Vasco
- Errusiako iraultza.
- Totalitarismoen gorakada Europan. Italiar faxismoa. 29ko depresio handia eta alemaniar nazismoa.
- XX. mendeko lehen herena. Eraldaketak Euskal Herrian eta Espainian: Estatu liberalaren krisia.
- Espainiako II. Errepublika. Euskal Herriko egoera: Zailtasunak euskal estatutuaren garapenean.
- Gerra zibila Espainian, eta haren ondorioak Euskal Herrian. Lehen Jaurlaritza. Jose Antonio Agirre Lehendakaria. Erbesteratzea
- Bigarren mundu-gerra eta haren ondorioak. Bigarren mundu-gerra eta haren ondorioak Europan eta Euskal Herrian.
- Frankismoa. Diktadura frankista eta haren ondorioak Euskal Herrian.
- Blokeen politika munduan.
- Petrolioaren krisia 1973an.
- Frankismoaren amaiera eta trantsizio politikoa Espainian eta Euskal Herrian.
- Sobietar blokearen hondamendia eta haren ondorioak nazioartean.
- Espainiako 1978ko Konstituzioa, Estatuko erakunde orokorren sorkuntza, eta Autonomien Estatua.
- Gernikako Estatutua eta euskal erakundeen gaurdainoko garapena ETAREN sortzea eta bere terrorismo historia, behin-betiko uztea adierazi zuen arte. Nacimiento de ETA y su historia de terrorismo, hasta su declaración del cese definitivo.
- GAL eta antzeko taldeen terrorismoa eta giza eskubideen urratzea, jatorri politikoko indarkeriaren testuinguruan. Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimen ikuspegia.
- Feminismoaren eta emakumeen borrokaren historia, historian zehar, eta gaur egungo gizartearengan duen eragina.

### 3. MULTZOA.- XX. eta XXI. mendeetako gatazka handiak

- Mundu gatazkatsu bat: askotariko gatazkak:
  - Europako potentzien kolonialismoa eta prozesu deskolonizatzailea.
  - Arrazakeria: gatazka etniko eta tribalak gaur egungo munduan.
  - Zenbait kasu Afrikan.
  - Adierazpen arrazistak Europako herrialdeetan.
  - Nazioarteko gatazkak baliabideak ustiatzeko edo baliabideez jabetzeko lehian: ura, lehengaiak, energia-iturriak. Interes ekonomikoak eta jabetze-gerrak.
  - Kultura- edo erlijio-ñabardurak dauzkaten gatazkak.
  - Islamismo integristaren indarkeriazko adierazpenak.
  - Zenbait gatazka Europako herrialdeetan.
  - ⊖ Lurralde eta identitate gaiekin zerikusia duten gatazken indarkeriazko norabidea: euskal eta irlandar kasuak.
  - Lurralde bat eskuratzeko borrokak: Palestina-Israel.
  - Lurralde-banantze eta -anexioen ondorioak: lehengo SESB eta Balkanak.
  - Gaur egungo gerren analisia: errefuxiatuen krisi humanitarioa.
- Gatazka-iturria eta bizikidetzak:
  - Gatazka eta bizikidetzak: motak eta eskalak.
  - Ideia- edo interes-gatazkak eremu sozialean, ideologikoan, politikoan, ekonomikoan, kulturean, erlijiosoan eta abar.
  - Historian zehar gatazkei heltzeko erabili diren moduak.
  - Indarkeriazko modu ez-demokratikoak: inposizioa, inbasioak, gerrak, terrorismoa.
  - Indarkeriarik gabeko modu demokratikoak: elkarrizketa eta akordioak, arbitrajea, arauetara lotzea. Indarkeriarik gabeko bideak eta bide demokratikoak: giza eskubideei eta sistema demokratikoari begirunea, elkarrizketa, adostasunak eta bitartekaritza.
- Demokrazia zuzenbide-estatu gisa: betekizunak.
  - Demokrazia jatorrian eta gauzatzean.
  - Botere-banaketa.
  - Legeen errespetua.
  - Eskubide indibidual eta kolektiboen errespetua.
- Oinarriko eskubideak arauen oinarri gisa.
  - Bizitzeko eskubidea.
  - berdintasun-printzipioa.
  - Arbitrarioratasunaren aurrean segurtasuna izateko eskubidea.
  - Funtsezko uneak eskubideak konkistatu eta onartzean.

- Ekarpen berrienak: bakerako eta ingurumen garbirako eskubidea eta abar.
- Eskubideen adierazpen handiak.
- Giza eskubideak, arauen oinarritzat: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren oinarriak.
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren artikuluen analisi zehatza.
- Giza eskubideak garatzen dituzten Nazioarteko Itunak.
- Ekarpentik berrienak: bakean bizi eta ingurumen garbia izateko eskubidea.

#### 4. MULTZOA. - Gaur egungo mundua

- Merkatuen mundializazioa.
  - Globalizazio ekonomikoa eta garapen jasangarria. Interdependentzia eta globalizazioa.
  - Industria-deslokalizazioa eta merkataritza modu berriak. Antolaketa moduen ondorioak.
  - Garapen ekonomikoa eta truke desorekatua.
  - Giza garapen desorekatua. Munduko herrialdeen arteko desberdintasunak. Adierazle sozioekonomikoetan oinarritutako konparazioak. Gizonen eta emakumeen arteko bereizketa.
  - Lankidetzeta-politikak.
  - Ingurumen-arrisku eta -arazoak. Neurri zuzentzaileak eta jasangarritasun-politikak. Baliabide naturalen prekarietatea. Energia berriztagarrien aukera eta eragileak. Ingurumena babesteko nazioarteko akordioak. Kyotoko protokoloa.
  - Herri, nazio, estatu eta mugen egitura politiko aldakorra XX. eta XXI. mendeetan.
  - Europaren eta munduan estatu berriak agertzea.
  - Bakerako arazo eta aukerak.
- Potentzia ekonomiko handiak, garapen bidean dauden herrialdeak eta azpigarapenaren mundua: egoera erlatiboa eta interakzioak.
  - AEBk hartutako zeregina.
  - Europaren zeregina eta Ekialdeko herrialdeen integrazioa.
  - Errusia eta SESBko kide zaharrak.
  - Japonia.
  - Garapen ekonomikoaren bidean dauden herrialdeak.
  - Txina: trantsizioan dagoen herrialde bat.
  - Azpigarapenaren mundua: mendetasun-harremana.
  - Teknologiaren iraultza eta globalizazioa XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran.

## 5. MULTZOA. Antolaketa politikoa eta espazio geografikoa

- Estatu espainolaren antolaketa: 1978ko Konstituzioa. Autonomien Estatua. Lehenengo xedapen gehigarria eta Lurralde Historikoen eskubideen Lurralde—Historikoen aipamena.
- Gernikako Estatutua. Erakunde politikoak eta lurralde-antolaketa Euskal Herrian.
- Euskal lurraldeak: eraikitzen ari diren ente dinamikoak. Euskal lurraldeetako alderdi kultural eta soziopolitikoak.
- Eskualde-mailako lankidetzak-erakunde eta -instituzioak.
- Europar Batasuna, haren erakundeak eta funtzionamendua.
- Nazio Batuen Erakundea: aurrekariak, jatorria, helburuak, erakundea eta bereizgarriak: kide iraunkorrak eta beto-eskubidea. NBERen mendeko erakunde espezializatuak.
- Nazioarteko beste erakunde batzuk: Amerikako Estatuaren Erakundea, Arabiar Liga, Munduko Bankua, NDF. ELGE.
- Nazioarteko lankidetzak-erakunde eta -instituzioak. GKEak

## 6. MULTZOA. Arteak, kultura eta zientzia gaur egun. Komunikabideak

- Gaur egungo gizarteetako kultura-aniztasuna.
- Gaur egungo arteak eta kultura Euskal Herrian eta Espainian.
- XIX. mendeko zientzia eta arteak Europan.
- Gaur egungo arte-korronteak: arte plastikoak XX. mendean eta XXI. mendearen hasieran.
- Arteak eta kultura Euskal Herrian XX mendean eta XXI. mendearen hasieran.
- Komunikabideak eta haien eragina. Egungo gizartearen komunikabideen ezaugarriak: multimedia-mundu baterantz.
- Teknologia berrien inpaktua: bat-bateko komunikazioa.
- Garapen teknikoak XX. mendean eta aurrerapen-ideia. Teknologia-zientziaren eragina XX. eta XXI. mendeetako gizartearen.
- Informazioaren eta komunikazioaren globalizazioa. Komunikazioaren iraultza.
- Emakumezkoen presentzia arteak, kultura eta zientzia esparruetan.

### 5.1.2.6. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

## 2. MULTZOA. Egungo gizartearen oinarri historikoak

### Historiaurrea

- Lehen biztanleak. Paleolitoa.
  - Ustekabeko aurkikuntzak: horien kokapena.
  - Euskal lurraldeetako lehen biztanleak.

- Bizimoldeak haitzuloetatik kostaldera.
- Aztarnategi nagusiak Euskal Herrian: Benta Laperra, Santimamiñe, Ekain, Altxerri, Isturitze...
- Neolitoa
  - Neolitoaren ezaugarriak euskal lurraldetan.
  - Lehen herrixkak.
- Metalen aroa. Kobrearen eta brontzearen sarrera.
  - Iparraldeko eta hegoaldeko eraginak.
  - Tresneria berrien aztarnak.

### Antzinaroa

- Erromatarren aurreko herriak Euskal Herrian. Zibilizazio zelto-iberikoaren azalpenak Araban eta Nafarroan.
- Erromanizazioa euskal espazioan. “Saltus” eta “ager” vasconum. Lurraldeari buruzko lehen aipamenak erromatar historialarien eskutik. Erromatarkuntzaren ondorioak gizartea eta antolamendu politikoan. Bagaudak. Latinaren eragina euskararengan. Mundu klasikoaren kultura ondareak gure egungo zibilizazioari egindako ekarpenak.

### Erdi Aroa

- Baskonia-Akitania: bisigodoak, frankoak eta Islama. Bake- eta etsaitasun-harremanak herrien artean. Al Andalus/Tutera.
- Orreagako gudua.
- Iruñeko eta Nafarroako Erresuma eta euskal lurraldeak Pirinioen hegoaldean eta iparraldean: lurralde-antolaketaren bilakaera europar estatuak eratzeko prozesuen barruan.
- Euskal lurraldeen kanpo eta barne-harremanak. Kultur aniztasunaren eta harreman konplexuen adibide da Oneka Ortitz edo Oneka Durr, Kordobako kalifa musulmanen eta Iruñeko errege kristauen arteko lotura genealogikoa sortu zuena (Abderraman III.aren amona) eta Iruñeko lehendabiziko bi errege-leinuak ere lotu zituen.
- Mairuak, kristauak, juduak. Hiru erlijio eta kulturen elkarbizitza gurean.
- Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren konkista edo eranstea Gaztelara.
- Ingalaterrako koroa Lapurdin eta Zuberoan.
- Donejakue bidea Euskal Herrian. Gune nagusiak.
- Erdi Aroko Ekonomiaren ezaugarriak:
  - Itsas nabigazioa, arrantza eta merkataritza. Bilboko portua eta Kontsulatua. Bale-arrantza.
  - Burdinolak eta ontziolak Euskal Herrian.
  - Nekazarien oldarpenak eta emantzipazioak.
  - Gerra, gosete eta izurriteak. Izurri beltzaren eragina euskal populazioan.
  - Gremioen altxaketak.
- Ahaide nagusien arteko borrokak: ganboatarrak, oinaztarrak, agaramontarrak eta beaumontarrak. Lope Garzia Salazar bandokide eta historiagilea. Emakumearen rola bandoen arteko borroketan: Urturiko Marie.



### Aro Modernoa

- Europako Estatu Modernoaren ezaugarriak. Monarkia modernoak sendotzea.
- Monarkia autoritarioak, parlamentarioak eta absolutuak.
- Errenazimenduko ikusmolde humanista Europan. Ondorioak.
- Euskal intelektualak XVI. mendean: Martin Azpilikueta , Frantzisko Vitoria
- Eta Joanes Uharte Donibanekoa.
- Amerika aurkitzea, ikertzea eta konkistatzea. Europarrek ezagututako mundua zabaltzea. Horren kausak. Juan Sebastian Elkano eta munduari bira, Lopez Legazpi, Urdaneta ... Euskaldunak Amerikako konkista eta kolonizazioan( Urtsua, Lope Agirre, Katalina Erauso, Frai Juan Zumarraga...) . Munduko lehen sistema koloniala eratzea. Ondorio sozioekonomikoak Iberiar Penintsulan.
- Aldaketak Nafarroako Erresumaren historian. Gerra, Gaztelaren konkista, eta erresuma independentea desagertzea. Nafarroa Beherera mugatua erresuma.
- Erlijio-gatazkak. Kristau erreforma eta Kontrarreforma katolikoa. EnrikeIII.a Nafarroakoa Frantziako errege. Joana Albretakoa eta Joannes Leizarragaren Biblia. Jesusen Lagundia: Ignazio Loiolakoa, Frantzisko Xabierkoa
- Inkisizioa Euskal Herrian. Zugarramurdiko epaiaketak. Horren lekuko emakume ugariren artean: Jurdana Irissarry garaztarra 1330ean errea eta Inesa Gaxen baxenabartarra XVII. mendean auzipetutakoa.
- Frantziako Borbon etxearen gorakadaren ondorioak Ipar Euskal Herrian. Luis XIII.a (Frantziakoa) edo Luis II.a (Nafarroakoa). Oihenarte historiagilea
- Monarkia hispanikoa eta Amerikaren kolonizazioa Europako testuinguruaren barruan. Aldaketak munduko hegemonian: Espainiatik Frantziara, eta jarraian, Holandara eta Ingalaterrara. Monarkia autoritarioak, parlamentarioak eta absolutuak.
- Euskal lurraldeetan foru-sistema eratu eta finkatzea. Euskal Herriko lurraldeen legedi eta erakundeen bilakaera. Esteban Garibai historiagilea.
- Aldaketak euskal herriko gizartean eta ekonomian:
  - Demografia-gorabeherak.
  - Artoaren ekarpena eta nekazari krisiak.
  - Itsas merkataritza: artilea, burdina. Mundu kolonialaren eragina. Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra.
  - Ternuko arrantza, balearen ehizatzea.
- Luis XIV.a eta Utrecht-eko hitzarmenaren ondorioak.
- Borboien erreformismoa Espainian eta Euskal Herrian. Oin Berriko dekretuak eta Probintzi Exentoak.
- Foralismoaren krisia. Ondorioak euskal lurraldeetan. XVIII. Mendeko matxinadak. Larramendi eta foruzaletasuna.
- Ilustrazioa. Ilustrazioaren eragina Euskal Herrian: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte. Munibe eta Bergarako Errege Mintegia, Elhuyar anaiak.
- Erreformismo ilustratua. AEBen independentzia eta Frantziako iraultza. Ondorioak Europan, Espainian eta Euskal Herrian.

- Foruen deuseztapena eta departamentuen sorrera. Garat anaiak. Konbentzio gerra Euskal Herrian. Jose Mazarredo itsasgizon eta politikaria. Konbentzioko tropek Maddalen Larralde martiri bihurtu zuten eta Lore Jokoetan maiz aipatua izan zen, gillotinatuen ikur bilakatu baitzen.
- Napoleonen Inperioa. Independentzia gerra Espainian eta bere ondorioak Euskal Herrian. Gasteizen, frantsesen porrotaren gudaldi nagusienetakoan, Martina Ibaibarriaga koronelak hartu zuen parte, besteak beste.
- Espainiako eta Euskal Herriko bilakaera historikoa XIX. mendean, eta balioespena nazioarteko testuinguruaren barruan. Konstituzio espainiarrak /foru-konstituzioa: Baionako konstituzioa abiapuntua.
- Karlismoaren eta liberalismoaren arteko konfrontazioa euskal lurraldeetan. Bizenta Mogel alegiagilea liberalismoaren aurkako ideologiaren suspertzaile. Aduanen auzia. Zumalakarregi anaiak, Muñagorri, Espoz y Mina, Santa Kruz apaiza, Aviraneta...
- Foruen auzia Euskal Herrian: liberalen garaipena eta foruen abolizioa. 1839ko /1841eko eta 1976ko Legeak. Kontzertu ekonomikoa.
- Euskaldunen emigrazioa Ameriketara: artzain eta ostalari urrutiko lurretan.
- Euskal nazionalismoaren sorrera. Agosti Xaho, Arturo Kanpion eta Sabino Arana. EAJren bilakaera eta zabalkundea.
- Industria-iraultzaren aurrekari eta ezaugarriak Euskal Herrian eta Espainian. Ondorio politiko, sozial eta kulturalak: migrazio-fluxuak, askotariko ideologia, urbanizazio azkarra, euskararen galera...
- Langile mugimendua. Facundo Perezagua eta sozialistak. Dolores Ibarruri eta komunistak. Anarkistak. Sindikatuak: UGT, ELA-SOV...
- Kulturaren susperraldia eta Pizkundea: euskal kazetaritza, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Hermes aldizkaria, RIEV aldizkaria, ikerketa etnografikoak (Aranzadi, Barandiaran, Eguren), Arte Ederren museoa, Unamuno eta Baroja, Azkue eta Txomin Agirre...
- XIX. Mendeko arte-mugimenduak (Erromantizismoa, Errealismoa eta Eklektizismoa...) eta haien agerraldiak Euskal Herrian
- XX. mendeko lehen herena. Eraldaketak Euskal Herrian eta Espainian: Estatu liberalaren krisia.
- Lehen Mundu Gerra eta haren ondorioak Euskal Herrian. Testigantzak Eskualdunan. Euskal industriaren hazkundea.
- Espainiako II. Errepublika. Euskal Herriko egoera: Zailtasunak euskal estatutuaren garapenean. Gerra zibila Espainian, eta haren ondorioak Euskal Herrian. Lehen Jaurlaritza. Jose Antonio Agirre Lehendakari. Irujo, Prieto eta Julian Zugazagoitia ministro.
- Bigarren Errepublikan emakumeak eremu publikoan:
  - Hezkuntzan proposamen pedagogiko berritzaileen aitzindari izan zen Maria Maeztu feminista, Bilboko “Escuela de señoritasen” eta Madrilgo Residencia Internacional de Señoritasen.
  - Elbira Zipitria Irastortza, berriz, ikastolen sortzaileetako bat izan zen.

- Emakume politikariak: Polixene Trabudua eta Aidee Agirre (EAJko Emakume Batzakoak), Julia Alvarez Resano (PSOEkoa), Dolores Ibarruri (PCEkoa) eta Kaxilda Arnaez anarkista. Benita Asas Manterola sufragistak, berriz, emakumeen boto-eskubidearen gaineko txostena aurkeztu zuen Errepublikako Gorteetako Konstituzio Batzordearen aurrean.
- Gerra zibila Espainian, eta haren ondorioak Euskal Herrian. Molaren altxamendua eta errepresioa. Gehiegikerien adibide mingarrienetakoa Maravillas Lamberto Iarragatar gaztearena izan zen. Bonbardaketak (Gernika...), Erbestea, Gerrako umeak, Errepresioa, frankismoaren esklaboak, Gurs...
- Euskaldunen parte hartzea Bigarren Mundu Gerran eta gerra honen ondorioak Euskal Herrian. Erresistentziako euskaldun batzuk Comète sarea sortu zuten pilotu aliatuei ihesean laguntzeko. *Kattalin Agirre* lapurtarra sarearen zutabeetako bat izan zen.
- Frankismoa. Diktadura frankista eta haren ondorioak Euskal Herrian. Bigarren industrializazioa eta immigrazioa. Frankismoaren aurkako oposizioa: errepresioa, klandestinitatea, ETA ren indarkeria ...
- Euskal kulturaren sekularizazioa. Ez dok Amairu (Laoa, Lete, Lertxundi eta Lourdes Iriondoren kantariekin), GAUR taldea, Ikastolak (haien sorreran andereñoek sekulako protagonismoa izan zuten, Karmele Altzueta kasu), Euskara batua, Alfabetatze kanpainak, euskara irakasteko metodoak (Iparraldean Maddalen Jauregiberri euskaltzain ohorezkoaren eskutik)...
- Trantsizioa Euskal Herrian. Urte tirabiratsuak. 1978ko konstituzioa. Autonomien estatua. Nafarroa/ Euskadi bi erkidego: Eskubide Historikoen aipamena eta Laugarren xedapen iragankorra.
- Gernikako Estatutura EAeko 1979ko Autonomi Estatutua. Euskal Legebiltzarra eta Eusko Jurlarritza. Orain arteko garapena.
- 1980. hamarkadako krisi ekonomikoaren eragina Euskal Herrian.
- Espainia Europar Batasunean integratzeak Hego Euskal Herrian izandako ondorioak. Orain arteko ekonomiaren garapena.

#### 4. MULTZOA. Gaur egungo mundua

##### 1. Euskal Herriko ezaugarri naturalak:

- Kokapen geografikoa eremu epelean.
- Arku Atlantikoaren bidegurutzean kokatua Europa kontinentalaren eta Iberiar penintsularen artean eta Europa mediterraneoaren eta atlantikoaren artean.
- Paisaia-aniztasuna: erliebearen formak, hidrografia, klima, landaredia. Giza ekintza paisaietan.
- Kostaldea: hondartzak eta itsas labarrak.
- Mendi eremuak – lurralde irekiak.
- Egoera klimatikoen aniztasuna.
- Sare hidrografikoa: bi isurialde desberdin.
- Paisaia anitzak. Elementu natural eta giza elementu bereizgarriak.
- Euskal Herriko ekosistemak. Babestutako naturguneak.

**2. Euskal Herriko biztanleria:**

- Biztanleriaren banaketan eragina duten giza faktoreak eta faktore naturalak.
- Ezaugarri orokorrak: oro har, lurraldez lurralde eta sektoreka.
- Biztanleriaren egitura ea banaketa, eta egungo portaera demografikoak.
- Euskal emigrazioa eta immigrazioa.

**3. Giza ekintza lurraldearen gainean Kantauri ertzetik Ebroko korridorera.**

- Komunikazio sarea: Autobide, autobia eta errepide-sarea; Trenbideak, aireportuak, merkantzi portuak; Egungo egoera eta proiekturik garrantzitsuenak.
- Hiri eta landa-espazioak: hiri espazioen aldaketak eta eragin eremuen hedapena:
  - Landa eremua eta hiri eremua. Baserrien esparrua; hiriguneak eta industrialdeak.
  - Tarteko unitateak (eskualdeak, eskualde-egiturak) indartzea, lurraldearen oreka handiagoa lortzeko.
  - Komunikazio eta garraio egituren eragina nekazari munduan eta hiri-inguruan.
  - Hiri-espazioen sorrera, bilakaera historikoa eta hazkundera: Hirien egitura, funtzioak eta espazioa; - Euskal hiri-sistema polinuklearra eta hiri-eremuaren zenbait eredu.
  - Hiritartze prozesuen azelerazioen ondorioz landa-eremuen berrantolaketa.
  - Bizimodua landa eta hiri-eremuan.
- Gizakiak eragindako ingurumen arazoren azterketa ( landaredian, uraren arazoa, klima-aldaketa ) .Ingurunea babesteko abian jarritako politikak.

**4. Euskal Herriko ekonomia**

- **Euskal Herriko sektore ekonomikoetako ezaugarri nagusiak:**
  - Lehen eta bigarren sektoreei lotutako jarduera tradizionalak.
  - Nekazaritzako, arrantzako, basoko eta industriako eremu eta jarduerak. Egungo egoera, eraldaketa berriak eta etorkizuneko itxaropenak.
  - Industria-jarduera. 70eko hamarkadako industria krisia eta birmoldaketa 80ko hamarkadan
  - Multinazionalak Euskal Herrian eta Euskal Herriko lantegiak munduan zehar.
  - Euskal kooperatibismoa: jatorria eta garapena.
  - Zerbitzu-sektorea: aniztasuna eta hirugarren mailako jardueren garapena. Garraioak eta komunikazioak Arku Atlantikoko eremu ekonomikoan nola txertatzen diren.
- **Giza jarduerak Euskal Herrian.**
  - Giza premiak, baliabide ekonomikoak eta haien aprobetxamendua.
  - Prozesu ekonomikoa: zerbitzu-ondasunen produkzioa, banaketa, trukea eta kontsumoa.
  - Euskal Herriko jarduera ekonomikoaren eremu eta gune nagusien kokapena eta ezaugarriak. Eskualde-desorekak.

- Eremu geografikoak jarduera ekonomikoaren arabera.
- Europar Batasunean integratzeak eragindako ondorioak.
- Euskal Herriko ekonomia-jardueren joera orokorrak globalizazioaren barruan.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko bereizketa jarduera ekonomikoaren eremu bakoitzaren arabera.
- **Lehenengo sektorea. Nekazaritzako, artzaintzako, abeltzaintzako eta itsasoko sektorea.**
  - Nekazaritza-paisaia motak. Nekazaritza-paisaia eta eratorritako jarduera ekonomikoa. Landutako laboreak. Nekazaritza tresnak. Nekazaritzari lotutako usteak eta babes erritoak. Eraldaketak lan-munduan. Nekazarien etxe motak.
  - Artzaintza motak eremu nagusiak. Tresneria eta produktuak
  - Abeltzaintza ukuiluratua
  - Baso-ustiapena eta haren ingurumen-ondorioak.
  - Arrantza-jarduera eta itsasoaren erabilera.
  - Arrantzaren historia. Balearen harrapaketa Ternuan.
  - Altura eta baxurako arrantzak. Gune nagusiak. Harrapatzen diren espezieak.
  - Arrainaren salmenta lonjetan. Kontserba metodoak.
  - Arrantzaleen kofradiak. Jatorria, funtzioak eta arauak.
- **Bigarren sektorea. Industria-jarduera.**
  - Industria lokalizatzeko eta deslokalizatzeko faktoreak. Multinazionalak Euskal Herrian eta Euskal Herriko lantegiak munduan zehar.
  - Industria motak.
  - Energia-iturriak.
  - Lehengaiak, energia eta industria-ondasunak ekoizten dituzten eremuak.
- **Hirugarren sektorea. Zerbitzu-sektorea.**
  - Zerbitzu-sektorearen garrantzia. Merkataritza eta merkataritza guneak.
  - Finantza guneak, bankuak eta kutxak. Euskal Herriko finantza egituren sorrera eta bilakaera.
  - Garraioaren azpiegitura, sistemak eta bilakaera. Portuak, merkataritza-portuen garrantzia ekonomian. Bilbo eta Pasaia. Aireportuak.
  - Turismoa: garapena, bilakaera eta eremu turistikoak. Ondorio ekologikoak.

## 5. Politika eta lurraldea antolatzeko moduak

- Estatu Espainolaren antolaketa politiko eta administratiboaren oinarriko elementuak.
- Espainiako eta Autonomia Erkidegoetako Gobernuen arteko eskumenen banaketa. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Aldundiaren adibideak.
- Pirinio Atlantikoak eta Ipar Euskal herria.
- Euskal lurraldeak Europar Batasunaren esparruan. Harreman-eredu berria: Akitania, Euskadi, Nafarroa euro-eskualdea.

- Europar Batasuna eta estatu gabeko nazioak: Euskal Herriaren kasua.

## 6. MULTZOA. Artea, kultura eta zientzia gaur egun. Komunikabideak

- Kultura eta arte adierazpen nagusiak Historiaurrean:
  - Labar-arteak.
  - Megalitismoaren garapena: trikuharriak eta tumuluak.
  - Harrespilak edo cromlechak eta Iruinarriak edo menhirrak.
- Erromanikoaren eta Gotikoaren arte-adierazpenak. Euskal Herriko adibide nagusiak.
- Errenazimenduko eta Barrokoko arte-adierazpenak. Euskal Herriko adibide nagusiak.
- Neoklasizismoaren adibide nagusiak Euskal Herrian.
- XIX. mendeko arte-mugimenduak (Erromantizismoa, Errealismoa eta Eklektizismoa...) eta haien agerraldiak Euskal Herrian.
- XX. mendeko euskal artista nagusiak, eskolak eta abangoardiak: Arteta, Lekuona, Oteiza, Txillida...
- XXI. mendeko euskal artea: Badiola, Irazu, Ibon Aranbarri ...

### 5.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 5.1.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

- 1. Gizartea hobetzeko eta natura babesteko proiektuetan konpromiso arduratsua hartzea, interes pertsonaleko edo/eta talde-intereseko arrazoien gainean hausnartuz, kritikoki hartutako erabakietatik abiatuta.**
  - Gizarte-egoera bidegabeekiko sentsibilitatea azaltzen du.
  - Oinarritutako balio-judizioak egiten ditu.
  - Kritikaturako egoerei aurre egiteko eta egoera horiek hobetzen laguntzeko moduak imajinatzen ditu.
  - Beste ikaskide batzuekin konprometitzen da ekintza-proiektu txikitan.
  - Gizartean norabide horretan diharduten taldeak ezagutu nahi ditu: alderdi politikoak, sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak eta abar.
  - Euskal Herrian naturaren kontserbazioan eragina duten arazo espezifiko batzuk azaltzeko gai da.
  - Ikaskideekin batera, ingurumen-erasoak mugatzeko jardun-proposamenak egiten ditu.
  - Gizarte-errealitatea hobetzeko eta natura defendatzeko esku-hartze proiektu txikitan konprometitzen da.
- 2. Gizateriaren historiako etapak eta hominizazio-prozesua ulertzea.**
  - Hainbat iturritatik informazioa jasotzen du hominidoen eta homo generoko espezieen inguruan.

- Giza espezierainoko bilakaeraren aldaketak identifikatu eta bereizten ditu.
  - Hominizazio-prozesuari buruzko laburpen-eskema bat egiten du, genero bakoitzaren bilakaeraren ezaugarriak nabarmenduz.
  - Historiaurrea datatzen du, eta aldi bakoitzeko giza bizitzaren ezaugarriak zein diren badaki.
  - Historiaurreko bi aldi handien (paleolitikoa eta neolitikoa) arteko aldea azaltzen du, eta aldi bakoitzeko bizitzaren oinarriko ezaugarriak deskribatzen ditu.
  - Historiaurreko bi etapan pintura eta eskulturaren adibideak ematen ditu.
  - Lehen erlijio-errituen funtzioak zein ziren badaki.
- 3. Iraultzek gizateriaren eboluzio-prozesuan bat-bateko zer aldaketa sozial, ekonomiko, politiko eta, besteak beste, teknologiko eragin dituzten jakitea.**
- Gizarte harrapakarietako eta gizarte produktoreetako izaki bizidunen bizitzaren ezaugarriak konparatzen ditu.
  - Gizateriak gizarte harrapakaria izatetik gizarte produktorea izatera bilakatu izanari esker lortutako aurrerapenak balioesten ditu eta ondorioak ateratzen ditu.
  - Iraultza Neolitikoaren kausa eta ondorioak identifikatzen ditu.
  - Gizarte paleolitiko eta neolitikoen arteko aldeak identifikatzen ditu.
  - Gizarte harrapakari eta sedentarioetako bizitzaren hainbat alderdiri buruzko galderak egiten ditu.
  - Euskal Herriko, Iberiar Penintsulako, Europako eta munduko mapetan aztarna prehistoriko nagusiak kokatzen ditu.
- 4. Historiako lehen zibilizazioek gizateriaren eboluzioari eta mendebaldeko zibilizazioari zer ekarpen egin zizkioten deskribatzea.**
- Neolitikoaren ostean hainbat hiri-kultura nola ezarri eta hedatu ziren badaki.
  - Egungo Europako hizkuntza gehienen jatorri indoeuroparra eta euskararen haiekiko berezitasuna azaltzen du.
  - Lehen zibilizazioek, bereziki greziarrek eta erromatarrek, mendebaldeko zibilizazioari egin dizkioten ekarpenak identifikatzen ditu.
  - Ekarken horien adibide zehatzak deskribatzen ditu: artistikoak, kulturalak, filosofikoak, linguistikoak eta abar.
  - Greziako ordenen arteko aldeak deskribatzen ditu.
  - Irudien gainean, Greziako eskulturaren eta haren bilakaeraren ezaugarri nagusiak identifikatzen eta azaltzen ditu.
  - Greziako tenplu bat deskribatzen du, haren atal, funtzio eta guzti.
  - Euskal Herriko eta Iberiar Penintsulako erromatar zibilizazioaren hondar material batzuen adibide zehatzak deskribatzen ditu.
  - Euskal lexikoan latinetik mailegaturiko zenbait hitz identifikatzen ditu eta horien jatorria azaltzen du.

- 5. Arte-adierazpen garrantzitsuenak zein diren jakitea eta bere ingurune hurbileko eta urrunagoko arte-adierazpenak balioestea, ulertzeko kultura guztiek lagundu dutela gizateriaren garapen artistikoan.**
- Arte-estilo nagusietako artelanak oinarrizko modu batean identifikatzen ditu.
  - Arte-lanen balio estetikoak aintzat hartzen ditu.
  - Hainbat garai eta tokitako zenbait artelan konparatzen ditu.
  - Analogia eta desberdintasunak hautematen ditu, eta batzuek besteen gainean dituzten eraginak detektatzen.
- 6. Zenbait unitate kronologiko erabiltzea denbora historikoa grafikoki irudikatzeko eta "aldaketa" eta "iraupen" nozioak adierazteko, zenbait garaitan eta lurralde-eremutan aplikatuta.**
- Gertaera eta prozesuak denboran elkarren segidan eta aldi berean gertatzen direla ulertzen du (diakronia eta sinkronia).
  - Zenbait kultura aldi berean zenbait enklabe geografikotan elkarrekin bizi zirela ulertzen du.
  - Historiako etapa eta aldi kronologiko nagusiak bereizten ditu.
  - Gertaera eta prozesu historikoak kronologikoki ordenatzen eta grafikoki irudikatzen ditu.
  - Ardatz kronologiko bat egiten du gidoian adierazitako urratsei jarraiki, ardatz horretan zenbait denbora-unitate jartzen ditu (milurtekoak, mendeak, hamarkadak...), 0. urtea adierazten du, eta Kristo aurreko denbora eta Kristo ondokoa bereizten ditu.
  - Unitate kronologikoak erabiltzen ditu, eta gertaera, prozesu eta aldi historikoei buruzko kalkulu zuzenak egiten ditu.
  - Friso kronologiko batean, antzinako bi zibilizaziotan edo gehiagotan aldi berean gertatutako gertaera eta prozesuak irudikatzen ditu, eta haien artean harremanak ezartzen ditu.
  - Friso kronologiko batean, elkarren segidan gertatutako gertaera eta prozesu historikoak irudikatzen ditu, erlazionatzen ditu eta aldaketa- eta iraupen-kontzeptua identifikatzen du.
- 7. Lehenengo zibilizazio historikoen bereizgarri diren ezaugarriak zein diren jakitea eta zibilizazio horiek egungo gizartearen eraketan zer eragin izan zuten ulertzea.**
- Lehen hiri-zibilizazioetako baten ezaugarri garrantzitsuenak zein diren badaki.
  - Ardatz kronologiko eta aldi historikoetan antolatu eta seinalatzen ditu lehen hiri-zibilizazioei dagozkien gertaera historiko garrantzitsu batzuk.
  - Mapetan kokatzen ditu lehen hiri-zibilizazioak garatu ziren eremuak.
  - Hainbat iturritatik informazioa lortzen du lehen hiri-zibilizazioetako ezaugarri nagusien inguruan: eguneroko bizitza, erlijioa, gizartea, ekonomia, politika eta abar.
  - Lehen hiri-zibilizazioetako artelanak identifikatzen ditu, haien ezaugarriak deskribatzen ditu eta gizateriaren ondarearen zatitzat jotzen ditu.
  - Gure zibilizazioak oraindik ere lehen zibilizazioetatik gorde ditzakeen ezaugarriak identifikatzen ditu.
  - Izandako aldaketak aintzat hartzen ditu, giza garapenaren balio positiboa diren heinean.



- 8. Ondare historiko, artistiko, kultural eta naturala estimatzea eta balioestea, bai berea, bai beste kultura batzuetakoa, haiek errespetatzeko eta babesteko bidea den aldetik.**
- Ondare motak bereizten ditu.
  - Euskal ondare naturala, historikoa, kulturala eta artistikoa balioesten eta errespetatzen du eta era berean bestena.
  - Ondare hori kontserbatu eta hobetzeko ekintzak sustatzen ditu, bakarka zein taldeka.
- 9. Zenbait motatako eta eskalatako adierazpen kartografikoak zehaztasunez interpretatzea, haietan adierazitako espazioari buruzko informazioa lortzeko.**
- Irudikapen kartografikoak eta haien eskalak identifikatzen eta bereizten ditu.
  - Gure planetan irudikatzeko moduak aztertzen eta identifikatzen ditu: mapa.
  - Irudikapen kartografikoak eta haien eskalak identifikatzen eta bereizten ditu.
  - Esfera, planisferio eta mapetan meridiano eta paraleloak identifikatzen ditu.
  - Mapa batean gune geografikoak eta tokiak kokatzen ditu, koordinatu geografikoak erabiliz.
  - Mapa batetik informazioa lortzen du haren idazkUNETIK abiatuta.
  - Irudikatutako gune bati buruzko informazio ikonografikoa deskodetzen du.
  - Puntuen arteko tarteak kalkulatzeko emandako eskalari jarraiki.
  - Mapa eta planoak erabiliz orientatzen da.
  - Zenbait mapa tematikotan jasotako informazioa konparatzen du.
- 10. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako eta munduko espazio eta paisaia naturalak eratzten dituzten oinarritzko elementuak mapa batean aurkitzeko gauza izatea, eta haietako bakoitzak, oro har, zer ezaugarri geografiko nagusi dituzten adieraztea.**
- Zenbait eskalatako mapetan (mapa topografikoarekin hasi eta planisferioarekin buka) irudikatutako espazioaren oinarritzko ezaugarri fisikoak deskribatzen ditu.
  - Mapa tematikoak konparatuz hauteman daitezkeen erlazioetako batzuk ezarri eta deskribatzen ditu.
  - Mapa topografiko batetik abiatuta erliebearen oinarritzko ezaugarriak deskribatzen ditu, mapan irudikatutako espazioan.
  - Iberiar Penintsulako mapan, haren inguruko ozeano eta itsasoak identifikatzen eta aurkitzen ditu, baita haren erliebe-, ibai- eta klima-unitate nagusiak ere.
  - Mapa batean, Euskal Herriko eta inguruko paisaia natural nagusiak identifikatu eta aurkitzen ditu.
  - Irudiak erabiliz, Euskal Herrian, Iberiar Penintsulan, Europan eta munduan dauden paisaia-unitateen inguruko behaketak egiten ditu.
  - Klima mota bakoitza zehazten duten elementuak identifikatzen eta deskribatzen ditu, eta Euskal Herriko, Iberiar Penintsulako, Europako eta munduko klimak bereizteko erabiltzen ditu.
  - Klimogramak erabiliz, gune jakin baten klima-ezaugarriak interpretatzen ditu.
  - Klima eta paisaia naturalen oinarritzko ezaugarriak laburbiltzen ditu, eskemak, kontzeptuzko mapak, irudiak erabiliz eta abar.

**11. Gizakiaren ekintzak natura-ingurunean zer eragin dituen jakitea, eragin horiek deskribatzea eta aintzat hartzea, eta haien zergatiak eta ondorioak aztertzeke eztabaidak egitea, haiek mugatzeko beharrezkoak diren neurriak eta jarrerak adieraziz, direla tokikoak, direla globalak, natura babesteko jarduerak sustatzen inplikazio aktiboa eta arduratsua izateko.**

- Ingurumen-arazo nagusiei buruzko informazioa biltzen du.
- Giza portaera indibidual eta kolektibo jakin batzuen kausak aipatzen ditu, eta portaera horiek naturan eragin ditzaketen efektuak aurreikusten ditu.
- Bere inguruko naturaren kontserbazioan eragina duten arazo espezifiko batzuk azaltzeko gai da.
- Zuzeneko behaketatik abiatuta, bere ingurune ingurumen-arazoei, haien kausei, eta biztanleei eta naturari eragiten dizkieten efektu zehatzei buruzko informazioa biltzen du, eta, ikaskideekin batera, efektu horiek arintzen laguntzeko ekintzak proposatzen ditu.
- Bere eta bere ingurune pertsonaleko ohituretan ingurumenerako efektu negatiboak bereizten ditu, eta efektu horiek zuzentzeko proposamen batzuk aipatzen ditu.
- Zenbait iturritatik (bibliografia, prentsa, Internet eta abar) informazioa biltzen du atzemandako ingurumen-arazoetarako alternatiben inguruan.
- Horretarako prestatutako informazio-dosierretatik abiatuta, txosten kritikoak egiten ditu naturaren zenbait alderdiren hondamen progresiboaren inguruan.
- Euskal Herrian naturaren kontserbazioan eragina duten arazo espezifiko batzuk azaltzeko gai da.
- Ikaskideekin batera, erasoak mugatzeko jardun-proposamenak egiten ditu.
- Esku-hartze proiektu txikitik konprometitzen da.
- Saretik informazioa biltzen du instituzioek eta talde ekologistek (instituzio ofizialen barruan egon edo ez) natura kontserbatzeko abian jarritako mota guztietako ekimen instituzionalen inguruan.
- Irudiak erabiliz, paisaia natural jakin batzuetan gertatzen diren aldaketa-prozesuak behatzen ditu, eta haien atzean egon daitezkeen giza ekintzekin lotzen ditu.
- Fidagarritasunez eta autonomiaz, hainbat paisaia eta haietan gertatzen diren aldaketa-prozesuak behatzen ditu, eta haien atzean egon daitezkeen giza faktoreekin lotzen ditu.

**12. Taldeko lanetan eta jardueretan modu konstruktiboan, arduratsuan eta solidarioan parte hartzea, direla taldean ikasteko jarduerak egiteko eta jolas-jarduerak egiteko, direla esku-hartze sozialeko proiektuak egiteko, kide den taldeetan.**

- Ekimena hartzen du eta ekarpen arrazoituak egiten ditu lanen fase guztietan.
- Ikaskideen ekarpenak arazorik gabe onartzen ditu, eta bereekin kontrastatzen ditu adostasun batera iristeko asmoarekin.
- Lan-planeari agintzen zaizkion zereginak zorrotz eta atzerapenik gabe betetzen ditu, eta bere lanaren emaitza besteekin partekatzen du.
- Lanaren fase bakoitzean lanaren ikuspegi globalari eusten dio

- Elkartasunez, bere ikaskideekin erantzukizuna hartzen du lanaren zati guztien eta bakoitzaren gainean.
  - Taldearen mesedetan esleitzen zaizkion eginkizunen erantzukizuna hartzen du bere gain.
  - Hobetzeko ekimenak proposatzen ditu eta beste ikaskide batzuenak onartzen.
  - Bere errakuntzak onartzen ditu eta zuzendu beharra onartzen du.
  - Emaidza onak taldearenak direla hartzen du aintzat, bere ekarpen pertsonalei aparteko baliorik eman gabe.
  - Ikastetxeak hainbat gizarte-arazori erantzuteko hartutako ekimenetan parte hartzen du eta konprometitzen da, desgaituei laguntzen, beste kultura batzuetako ikaskideak integratzen eta abar.
- 13. Hainbat motatako gizarte-informazioak (historikoak eta ekonomikoak) modu egokian bilatzea, erregistratzea eta tratatzea, eta horretarako egokienak diren iturriak erabiltzea (bibliografia, dokumentazioa, materiala eta beste asko), informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak barne.**
- Gai jakin baten gainean lan egiteko baliatu beharreko informazio-iturriak ongi hautatzen ditu.
  - Bildutako informazioak erregistratzeko euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu.
  - Oinarrizko bibliografia ongi erabiltzen du informazioa bilatzeko.
  - Dokumentu historikoak kritikoki aztertzen ditu ezarritako jarraibide batzuei jarraiki.
  - Sarean informazioa bilatzeko tresnak (bilatzaile orokorrak eta espezializatuak) erabiltzen trebea da.
  - Informazioa hautatzen du lantzen ari diren gaira ondoen egokitzen diren iturrietan.
  - Informazioa berrantolatzen du esanahia emateko, eskemak, koadroak, grafikoak erabiliz eta abar.
- 14. Banaka zein taldeka planifikatzea lan monografiko txikiak, gizarte-garrantzia duten gai batzuei buruzkoak, gutxienezko zorrotasunez eta sistematizazioz eta zenbait informazio-iturri erabiliz.**
- Landu beharreko gaia ongi definitzen eta mugatzen du.
  - Aurkezpen-eskema bat aurkezten du
  - Bere lana idazten du ongi eratutako eskema bati jarraiki.
  - Lanaren oinarrizko puntuak argitasunez formulatzen ditu.
  - Egindako lanetik ondorioak ateratzen ditu eta aurkeztu egiten ditu.
  - Bildutako Informazioak ongi hautatzen eta tratatzen ditu.
  - Ondorioak ateratzen ditu lan bat egiterakoan sor daitezkeen gaien inguruan.
  - Hainbat aurkezpen modu aintzat hartzen ditu eta aurkezpena ongi lantzen du.

### 15. Zenbait informazio-iturritatik datu geografikoak eta historikoak lortzea, eta lortutako informazioa gainerako pertsonei egoki jakinaraztea, ahoz eta idatziz.

- Informazio-iturriak sailkatzen ditu jatorriaren eta tipologiaren arabera.
- Bildutako informazioak erregistratzeko euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu.
- Informazio-iturriek historia eta geografia ikertzeko duten garrantzia balioesten du, haien zorrozatasuna eta ikuspegia kontuan hartuta, eta ondorioen behin-behinekotasunaz jabetuta.
- Gai jakin baten gainean informazioa lortzeko baliatu beharreko informazio-iturriak ongi hautatzen ditu.
- Informazio egokia hautatzen du eta ideia nagusiak ateratzen ditu.
- Ahoz eta idatziz, lortutako informaziotik ateratako ondorioak komunikatzen ditu, deskribapenak, laburpenak, eskemak, koadroak, grafikoak erabiliz eta abar.

### 5.1.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Maila

#### 1. Oinarrizko demografia-kontzeptuak erabiltzea biztanleriaren portaerak ulertzeko.

- Demografiari buruzko oinarrizko kontzeptuak ulertzen ditu eta bere adierazpenetan erabiltzen ditu.
- Portaera demografikoak baldintzatzen dituzten faktoreak zein diren badaki.
- Biztanleria baten oinarrizko adierazle demografikoari buruzko datuak lortzen ditu (biztanleria-dentsitatea, jaiotze- eta heriotza-tasak, hazkunde begetatiboaren indizea, biztanleria-mugimenduak eta abar), eta haiekin kalkuluak egiten ditu.
- Hainbat lurralde-eremuren egungo portaera demografikoaren ezaugarriak identifikatzen ditu.
- Biztanleriari buruzko estatistika-informazioa bilatu eta hautatzen du, zenbait iturritatik abiatuta: datu-baseak, estatistika-koadroak, komunikabideak, Internet eta abar.
- Eredu demografiko nagusiak identifikatzen ditu, grafikoetan, estatistika-tauletan eta beste iturri batzuetan jasotako informaziotik abiatuta.
- Mapa eta irudikapen geografikoak interpretatu eta egiten ditu datu demografikoetan oinarrituta: biztanleria-piramideak, grafiko linealak, barra-grafikoak eta abar.
- Arazo demografikoak konpontzeko proposamenak balioesten ditu: jaiotze-tasaren kontrola, hezkuntza-programak, justizia soziala eta ekonomikoa eta abar.
- Datu-taulekin eta grafikoekin egindako lanetik abiatuta, Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko biztanleriak izan duen bilakaeraren etapak bereizten ditu.
- Hainbat lurralde-eremutan dauden arazo demografikoak identifikatu eta deskribatzen ditu, eta haien inplikazio sozial, ekonomiko, erlijioso, politiko, ingurumeneko eta kulturekin lotzen ditu.

## 2. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako egungo gizartearen ezaugarri bereizgarriak aztertzea, gizarte talde askok osatzen dituztela ohartzea, eta irizpide kritikoz aztertzea immigrazioak dakarren aniztasun-handitzea.

- Egungo gizarteetako giza taldeen ezaugarri espezifikoak (familia, gizarte-taldeak, gizarte-mugikortasuna, biztanleen jatorria, balioak, eguneroko bizitza eta abar) buruzko datuak bildu eta ordenatzen ditu.
- Biztanlerietan gertatutako aldaketak deskribatu eta konparatzen ditu, emigrazioari dagokionez batez ere, kontzeptu demografikoak behar bezala erabiliz.
- Migrazio-gertaerarekin zerikusia duten kontzeptuak bereizten ditu: emigrazioa, immigrazioa.
- Immigrazioaren kausak zein diren badaki, eta deskribatu egiten ditu.
- Mendebaldeko gizarteetako bizikidetzara-erazoak identifikatu eta deskribatzen ditu (desberdintasuna, diskriminazioa, indarkeria, arrazakeria eta abar), baita haien ardura hartzen duten proiektu etiko eta erakundeak ere.
- Gizarte-egoera bidegabeekiko sentsibilitatea azaltzen du, eta egoera horiei aurre egiteko eta haiek hobetzen laguntzeko moduak imajinatzen ditu.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen artean daude bereizketa nagusiak eta horien kausak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
- Bere ingurunean beste eskala batzuetan dauden gatazka motak identifikatu eta deskribatzen ditu, immigrazioetik eratortzen direnak adibidez.
- Emigrazioaren eta immigrazioaren fenomenoak Europako gizarteetan poliki-poliki egoeraren arabera gertaera izatetik egiturazkoa izatera igarotzen ari dela ohartzen da.
- Kultura-aniztasuna aintzat hartzen du, herriek eta norbanakoek beren identitatea izateko duten eskubidea onartzen duen neurrian, beste kultura batzuekiko tolerantziarako eta errespetuzko jarrerak hartuz.
- Zenbait ekimenetan laguntzen du hizkuntza eta kultura desberdin eta propio bat duten ikasle immigranteen integrazioa errazteko, eta ikasle horiek euskal hizkuntza eta kultura jaso eta errespetatu dezaten ahalbidetzeko.
- Hainbat kulturatako taldeekin elkarlanean dihardu gero eta kulturartekoagoak diren gizarte-eremuetan, bere ezaugarriak aintzat hartuz eta mantenduz, eta bere gizarte- eta kultura-komunitateetako aniztasuna errespetatuz eta balioetsiz.
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanleriaren ezaugarriak, banaketa, dinamika eta bilakaera aztertzen ditu, baita migrazio-mugimenduak ere.
- Europako biztanleria aztertzen du, haren banaketari, bilakaerari, dinamikari, migrazioei eta biztanleria-politikei dagokienez.
- Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria-piramidea azaltzen du.
- Zenbait iturritan, azken hiru hamarkadako migrazio-mugimenduak aztertzen ditu.
- Europako biztanleriaren ezaugarriak aztertzen ditu.

**3. Korrelazio egokiak ezartzea zenbait herrialdetako adierazle ekonomikoen eta adierazle demografiko eta kulturalen artean, haien ezaugarri bereizgarri zenbait adieraztea eta hipotesiak egiten ahalegintzea.**

- Munduko hainbat tokitako adierazleak konparatzen ditu haietatik ondorioak ateratzeko.
- Aldez aurretik adierazitako herrialdeetako biztanleko errentari, haurren heriotza-tasari eta analfabetismo-indizeari buruzko datuak sarean bilatzeko gai da.
- Herrialde bakoitzeko datuekin konparazio-koadro bat egiten badaki.
- Aipatutako adierazle bakoitzari ematen dion balioa azaltzen du arrazoibide egokiak erabiliz, herrialde baten garapenaren adierazgarri den heinean.
- Herrialdeen datuak konparatzen ditu, desberdintasunak azpimarratuz, eta itxura batean behintzat harrigarriak izan daitezkeen datuen berri emanez.
- Adierazle bakoitzerako azalpen onargarria dakar, eta, kasu bakoitzean, haren esanahiaren berri ematen du.

**4. Gizarteari buruzko informazioa (historikoa, demografikoa eta ekonomikoa) bilatzea, erregistratzea eta egoki tratatzea, eta lortu nahi den helbururako iturri egokiak erabiltzea (bibliografia, estatistikak, dokumentazioa, etab.), informazioaren teknologia berriak barne.**

- Gai jakin baten gainean lan egiteko baliatu beharreko informazio-iturriak ongi hautatzen ditu.
- Bildutako informazioak erregistratzeko euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu.
- Fitxategi bibliografikoak ongi erabiltzen ditu informazioa bilatzeko.
- Erabilitako bibliografian hautatzen du aztergairako behar-beharrezkoa duen informazioa.
- Dokumentu historikoak kritikoki aztertzen ditu ezarritako jarraibide batzuei jarraiki.
- Sarean estatistika-informazioa (datu-baseak) bilatzeko tresnak (bilatzaile orokorrak eta espezializatuak) erabiltzen trebea da.
- Informazioa hautatzen du lantzen ari diren gaira ondoen egokitzen diren estatistika-iturrietan.
- Informazioa berrantolatzen du esanahia emateko, eskemak, koadroak eta grafikoak erabiliz.

**5. Landa-eremuen eta hiri-eremuen hazkundera, hiri- eta landa-espazioaren funtzio-desberdintasuna eta haietan gertatzen diren arazo batzuk aztertzea, eta jakintza hori zenbait eremutako adibideetan erabiltzea, tokikoetan zein mundukoetan.**

- Landa-populatzearen ezaugarri nagusiak identifikatzen eta deskribatzen ditu eta hiriko populatzearen ezaugarriekin erkatzen ditu, dagozkien ingurune fisikoaren ezaugarriekin lotuz.
- Azken urteetan herrialde garatu eta azpigaratuetan gertatu diren eraldaketako batzuk deskribatzen ditu.
- Landa- eta- hiri-populatzean sortzen diren arazoak zein diren badaki, eta arazo horiek konpontzeko ematen diren alternatiba eta konponbideak identifikatzen ditu.

- Bere inguruneko eta munduko hirietako ezaugarriak identifikatzen eta deskribatzen ditu.
  - Hirietako bilakaera historikoa deskribatzen du hainbat garaitako planoak erabiliz.
  - Hiriek betetzen dituzten eginkizunak zein diren badaki eta deskribatu egiten ditu, eta eginkizun horiek hirien egiturarekin eta hirietan biztanleria igotzeko kausekin lotzen ditu.
  - Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko hiri-sareak deskribatzen ditu, grafiko eta mapen bitartez.
  - Euskal Herriko eta Espainiako gizatiartutako paisaia nagusiak identifikatzen ditu.
  - Euskal Herriko eta Espainiako hirietako ezaugarri nagusiak zein diren badaki, baita hiri-espazioa okupatzeko moduak ere.
  - Europako urbanizazio-prozesuaren alde onak eta txarrak ulertzen ditu.
  - Gure kontinenteko hiri motak bereizten ditu, eta bertan hirikoa eta landakoa bereizten duten elementuak laburbiltzen ditu.
  - Zenbait grafiko mota egiten ditu (linealak, barra-grafikoak eta sektore-grafikoak) euskarri birtual edo analogikotan, herrialde edo eremu geografikoen informazio ekonomiko eta demografikoa islatzeko hautatutako datuetatik abiatuta.
- 6. Deskribapen-lan errazak egitea, banaka edo taldean, irakaslearen laguntzarekin, zenbait iturri erabiliz eta egokia den informazioa aukeratuz eta eskema edo gidoi batean sartuz, eta azterketaren emaitzak zuzen eta lexiko egokia erabiliz adieraztea.**
- Aztergaia definitzen du, egin beharreko galderak edo heldu beharreko azpigaiak gidoi batean jasotzen ditu, eta, bakarka edo taldeka, lan-plan bat ezartzen du.
  - Taldeko zereginak antolatzen eta garatzen parte hartzen du, ekimenak hartzen ditu eta ikaskideen ekarpenak onartzen ditu.
  - Gai jakin baten gainean lan egiteko baliatu beharreko informazio-iturriak ongi hautatzen ditu.
  - Bildutako informazioak erregistratzeko euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu.
  - Informazioa laburpen, eskema, koadro eta grafikoetan ordenatzen du, hiztegi egokia erabiltzen du eta egindako galderen erantzunak lortzen ditu.
- 7. Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak identifikatzea, haien artean loturak egitea, eta gizarte-gertaerek hainbat arrazoi izan ditzaketela ohartzea.**
- Gertaera eta prozesu historiko eta sozialen eragile diren kausak identifikatu eta sailkatzen ditu.
  - Gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragina duten faktoreetako batzuk identifikatzen ditu, haien izaera zehaztuz eta haien artean harremanen bat ezarriz.
  - Gertaera edo prozesu historiko baten ondorioetako batzuk aipatzen ditu, eta epe laburrean, ertainean eta luzean gertatzen direnak bereizten ditu.
  - Kausa-efektua erlazio-kateak ezartzen ditu segidako gertaera edo egoera historikoen artean.
  - Europako Erdi Aro Goiztiarreko ezaugarrien berri badu, aldi horretako iturri historikoen gabezia gorabehera.

- Iberiar Penintsulako kristau konkista- eta birpopulatze-prozesuak deskribatzen dituzten mapak interpretatzen ditu.
  - Krisi-kontzeptua eta haren ondorio ekonomiko eta sozialak ulertzen ditu.
  - Krisi demografiko eta ekonomiko batek Europako Erdi Aroko gizarteetan eragin zuen inpaktua ulertzen du.
  - Done Jakue Bidearen garrantzia azaltzen du eta bereizten ditu bertako euskal gune garrantzitsuenak.
  - Periodizazio historikoa adierazteko zenbait modu bereizten ditu: Aro Modernoa, Errenazimendua, Barrokoa, Absolutismoa.
  - Feminismoaren eta emakumezkoen borrokaren historia eta horrek gizartean duen eragina ezagutzen du.
- 8. Euskal lurraldeen bilakaera historikoa lurralde haientzat bereziki garrantzitsuak diren une historikoetan kokatzea, Espainiako, Europako eta munduko historiaren testuinguruan, eta une horien esanahi politikoa, ekonomikoa eta kulturala adieraztea.**
- Friso historiko batean, euskal lurraldeetan eragina duten gertaera garrantzitsu batzuk irudikatzen ditu, (besteak beste, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren inkorporazioa Kastillara edo konkista) Espainiako, Europako eta munduko historiaren bilakaerarekin batera.
  - Gertaera horien inguruan inguruan interpretazio eta balioespen desberdinak edo kontrajarriak jasotzen dituzten dokumentu historikoak kritikoki aztertzen ditu.
  - Euskal Herriko bilakaera historikoaren segidako gertaerak azaltzeko arrazoizko konexioak ezartzen ditu, argudio egokiak emanez.
  - Euskal lurraldeetako bizitza politikoaren gertaera edo egoeren artean erlazioak ezarri eta azaltzen ditu, baita ekar ditzaketen efektu ekonomiko eta demografikoak ere.
  - Erlazio esanguratsuak ezartzen ditu euskal gizarteko gizarte-taldeen bilakaeraren eta kultura-aniztasuna finkatzearen artean.
- 9. Arte-adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea, bai bere ingurune hurbilekoak, bai eta urrunagokoak ere, ulertzeko kultura guztiek lagundu dutela gizateriaren garapen artistikoan.**
- Arte-estilo nagusietako artelanak oinarrizko modu batean identifikatzen ditu.
  - Arte-estilo horien adierazgarri diren adibideak hautematen ditu Euskal Herriko obra jaki batzuetan.
  - Arte-lanen balio estetikoak aintzat hartzen ditu.
  - Gidoien laguntzarekin, Euskal Herriko, Espainiako eta Europako artelan nagusietako batzuk aztertzen ditu (arkitektura, pintura, eskultura).
  - Hainbat garai eta tokitako zenbait artelan konparatzen ditu.
  - Hainbat arte-estilotako artelanak konparatzen ditu eta analogia eta desberdintasunak hautematen ditu.
  - Analogia eta desberdintasunak hautematen ditu, eta batzuek besteen gainean dituzten eraginak detektatzen.
  - Garai desberdinetan emakumeek egindako arte lanak ezagutzen ditu.



**10. Ondare historiko, artistiko, kultural eta naturala estimatu eta balioestea, bai berea, bai beste kultura batzuetakoa, haiek errespetatzeko eta babesteko bidea den aldetik.**

- Euskal ondare naturala, historikoa, kulturala eta artistikoa balioesten eta errespetatzen du eta era berean besteena.
- Ondare hori kontserbatu eta hobetzeko ekintzak sustatzen ditu, bakarka zein taldeka.
- Dokumentu-ondarea aintzat hartzen du, iraganeko garaien berri izateko iturria den heinean.
- Ondarea zaindu eta kontserbatzearen aldeko jarrera azaltzen du.

### 5.1.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

**1. Ekonomia-eragile eta -erakunde nagusiak ezagutzea eta gero eta mendekotasun handiagoko ekonomian elkarrekiko zer eginkizun duten jakitea, eta jakintza hori hurbileko zenbait egoera ekonomiko aztertze eta balioesteko erabiltzea.**

- Ekonomiari buruzko oinarrizko kontzeptuak identifikatzen ditu, eta, horri esker, nazioarteko ekonomiaren oinarrizko alderdiak interpretatzeko gai da.
- Ekonomiaren oinarrizko funtzionamendua deskribatzen du, agente eta instituzio ekonomikoek betetzen duten zereginaren bitartez.
- Haiei edo haien familiei zuzenean eragiten dieten gertaera eta arazo ekonomikoetako batzuk (inflazioa, bizitzaren kostua, lan-merkatua, langabezia, enplegu-prekarietatea, enplegu femeninoa, kontsumismoa eta abar) aztertze ezinbesteko gakoen berri badu.
- Ohiko dokumentu ekonomikoak ulertzen ditu: ordainagiriak, fakturak, aurrekontuak eta abar.
- Herrialde batean jarduera ekonomiko nagusiak deskribatzen ditu, mapa, grafiko eta estatistika ekonomikoetan bildutako datuen bitartez.
- Sektore ekonomikoen banaketan dauden lurralde-desorekak irudikatzen ditu, grafiko eta mapa tematikoen laguntzarekin.
- Egungo ekonomia globalizatuaren funtsezko elementuak eta alde on eta txarrak zein diren badaki.
- Askotariko dokumentuetatik abiatuta, lurralde-eremuen arteko harreman ekonomikoetan eragina duten faktoreak identifikatu eta aztertzen ditu.
- Jarduera ekonomiko jakin batzuen kokapen egokienaren inguruko egiazko edo fikzioso proposamen bat aztertu eta ebaluatzen du.

**2. Munduko nekazaritza-ustiapeneko sistema nagusien ezaugarriak adieraztea eta haien adibide adierazgarriak ematea.**

- Nekazaritza-sistema nagusien ezaugarriak eta nekazaritzari aplikatutako teknika mekaniko berriak identifikatzen ditu.
- Landaguneen banaketa irudikatzen du mapa tematikoen laguntzarekin.
- Lehen sektorearekin lotutako jardueren kokapenari buruzko egiazko edo fikzioso proposamen bat aztertu eta balioesten du.

- Lehen sektorean mundu-mailan dauden arazo nagusien erakusgarri diren egoera jakin batzuk aztertzen ditu.
  - Munduko mapan nekazaritza-baliabide naturalak non dauden adierazten du.
  - Mapa batean munduko zereal-eremu nagusiak eta baso-masa garrantzitsuenak kokatzen ditu.
  - Mapa batean, munduan mineral gehien ekoizten dituzten eremuak non dauden adierazten du.
  - Mapa batean, munduan energia gehien sortzen eta kontsumitzen duten eremuak non dauden adierazten du.
  - Energia alternatibo batzuk identifikatu eta izendatzen ditu.
- 3. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako nekazaritzaren ezaugarri batzuk identifikatzea eta gaur egungo arazo batzuk adieraztea.**
- Landaguneen banaketa irudikatzen du mapa tematikoen laguntzarekin.
  - Euskal Herriko, Espainiako eta Europako hainbat nekazaritzagune mota bereizten ditu, eta non dauden adierazten du.
  - Europar Batasuneko nekazaritza-politikek eskualde-ekonomien lehen sektoreetarako dituzten ondorioak ondorioztatzen ditu.
  - Egungo nekazaritzaren, eta, bereziki, Europar Batasunaren esparruan, Euskal Herriko eta Espainiako nekazaritzaren arazo nagusien erakusgarri diren egoera jakin batzuk aztertzen ditu.
  - Nekazaritza-jardueren ingurumen-ondorioak zein diren badaki.
  - Lehen sektorearekin lotutako jarduera ekonomikoen kokapenari buruzko egiazko edo fikziozko proposamen bat aztertu eta balioesten du.
- 4. Industria-jardueretan, -espazioetan eta -paisaietan izaten ari diren aldaketak deskribatzea, eta Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko ekoizpengune nagusiak non dauden jakitea.**
- Industria mota nagusiak eta haien ezaugarriak bereizten ditu.
  - Gaur egun sektorea industria-deslokalizazioan eta globalizazio ekonomikoan oinarrituta dagoela badaki.
  - Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko industriagune, lehengaien ekoizpengune eta energia-iturri nagusiak non dauden badaki.
  - Egungo ekoizpen modu eta industria-paisaia berriak zein diren badaki, baita Euskal Herriko industriaren etorkizuneko aukerak ere.
  - Energia eta industria-ondasun garrantzitsuenak ekoizten dituzten eremuak non dauden badaki.
  - Prozesu ekonomikoei buruzko hausnarketa egiten du, produktuak lortu, ekoizti eta banatzearekin hasi eta kontsumoarekin buka, ekoizpenaren eta kontsumoaren artean sortzen diren truke-korronteak zein diren adierazita.
  - Bigarren sektorearekin lotutako jarduera ekonomikoen kokapenari buruzko egiazko edo fikziozko proposamen bat aztertu eta ebaluatzen du.

**5. Hirugarren sektoreko jarduerak azken urteetan, oro har eta Euskal Herrian, zer garapen eta aldaketa izan dituen jakitea, eta hirugarren sektorearen garapenak zer aldaketa dakartzan aztertzea, bai harreman ekonomikoetan, bai gizarte-harremanetan.**

- Mota guztietako baliabideak erabiltzen ditu jarduera ekonomikoekin lotutako informazioa eskuratzeko.
- Grafikoetan, diagrametan eta beste iturri batzuetan adierazitako informazio ekonomikoa ebaluatzen du, eta zuzena eta objektiboa dela egiaztatzen du.
- Zerbitzu-sektoreko jarduerak herrialde garatuetako ekonomian pixkana-pixkana garatzen eta nagusitzen ari direla badaki.
- Merkataritzagune eta turismoguneak non dauden eta nola banatzen diren badaki.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako garraio- eta komunikazio-ardatz nagusiak non dauden badaki.
- Hirugarren sektorearen garapena hiri-biztanleriaren gorakadarekin eta hirien hazkundearekin lotzen du.
- Hirugarren sektorearekin lotutako jarduera ekonomikoen kokapenari buruzko egiazko edo fikziozko proposamen bat aztertu eta ebaluatzen du.
- Euskal Herriko bide- eta garraio-sareak garapen ekonomikoarekin lotzen ditu, eta ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak aplikatu beharra ikusten du.

**6. Gizarte demokratikoen sorrera, antolakuntza, funtzionamendua eta haien oinarri eta bereizgarri diren oinarritzko printzipioak ezagutzea eta ulertzea, eta jakitea horiek guztiek nola laguntzen duten pertsonen arteko bizikidetzaren hobetzen.**

- Bere inguruneko herritarren parte-hartzerako erakunde nagusiak zein diren badaki.
- Kide den gizarte-erakundeetan eta hainbat eremutan (eskola, auzoa, udalerria eta abar) balio demokratikoak non dauden badaki.
- Erakundeen ordezkari-tuntzioak bereizten ditu, eta bizikidetzaren demokratikoa aurrera eramateko moduzat jotzen ditu, baita desadostasun politikoak konpontzeko tresna egokitzat ere.
- Bere eguneroko bizitzatik hurbilen dauden instituzioen osaera eta funtzionamendua identifikatzen du.
- Bere eguneroko bizitzatik hurbil dauden talde eta instituzioen funtzionamenduaren alderdi jakin batzuk kritikatzeko, eta haiek hobetzeko proposamen eta ekimenak sortzen ditu.
- Euskal Herrian, Espainian eta Europan herritarren parte-hartzerako indarreak dauden instituzioak errespetatzen ditu.
- Herritarren bizikidetzarako arauak onartzen ditu, eta zuzenbide-estatuaren funtsezko gidalerroak zein diren badaki.
- Herritarren eskubide eta betebeharrak nagusiak identifikatu eta onartzen ditu, eta jakintza hori eta ordezkari-tuntzio-sistemaren printzipioak bere eguneroko bizitzan aplikatzen ditu.
- Bizikidetzaren arauetara jotzen du hainbat gizarte-gatazka prebenitzeko edo haiei aurre egiteko.
- Bere inguruneko instituzio demokratikoetan parte-hartze handiagoa izaten ahalegintzen da.

**7. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako muga politiko-administratibo nagusiak identifikatu eta mapan kokatzeko gai izatea.**

- Aipatutako multzoak osatzen dituzten herrialde eta lurraldeak mapan bereiztea.
- Euskal Herriko lurralde-antolaketa zein den badaki, Espainiako eta Frantziako antolaketa politiko-administratiboaren barruan kokatua.
- Euskal Herria, Espainiako autonomia-erkidegoak eta Europako estatuak osatzen dituzten lurraldeak zein diren badaki, eta mapa batean kokatzen ditu.
- Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko lurraldeen antolaketa politiko-administratiboa osatzen duten oinarritzko ezaugarriak zein diren badaki.
- Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko lurraldeen antolamendua arautzen duten instituzioen funtzioak identifikatu eta deskribatzen ditu, baita Europar Batasuneko instituzioetan duten parte-hartzea ere.
- Europar Batasunaren funtzionamendu eta antolaketaren alderdi batzuk kritikoki aztertzen ditu.

**8. Munduko eremu geoekonomiko eta kultural nagusiak zenbait mapa motatan identifikatu eta kokatzea.**

- Munduko eremu geoekonomiko eta kultural nagusiak deskribatzen dituzten mapak interpretatu eta egiten ditu.
- Faktore fisiko, ekonomiko, demografiko, kultural eta politikoen konbinazioaren ondorioz hainbat lurralde-eskualde eta -eremu sortzen direla azaltzen du.
- Hainbat sistema ekonomikoren ezaugarrien berri badu.
- Hainbat sistema ekonomikoren ezaugarrien berri badu, eta munduan nola banatzen diren badaki.
- Hainbat sistema ekonomikoren ezaugarrien berri badu, eta munduan nola banatzen diren eta poliki-poliki globalizatzen ari direla badaki.
- Alderdi zehatzak bereizten ditu, eta sistema ekonomikoaren barruan elkarri lotuta daudela badaki.

**9. Euskal Herriko eta Espainiako jarduera ekonomikoko zentro eta eremu nagusien bereizgarriak deskribatzea.**

- Euskal Herriko eta Espainiako eremu geoekonomiko eta kultural nagusiak deskribatzen dituzten mapak interpretatu eta egiten ditu.
- Komunikazio-ardatz nagusiek espazio ekonomikoak antolatzen dituztela badaki.
- Euskal Herriko, Akitaniako eta Espainiako zentro ekonomiko garrantzitsuenak non dauden badaki, eta komunikazio-sare nagusiekin lotzen ditu.
- Faktore fisiko, ekonomiko, demografiko, kultural eta politikoen konbinazioaren ondorioz hainbat lurralde-eskualde eta -eremu sortzen direla azaltzen du.
- Lurraldeen arteko alde ekonomiko eta harreman nagusiak aintzat hartzen ditu.
- Hainbat iturritan, Euskal Herriko eta Espainiako lurraldeei dagozkien datuak bilatzen ditu, eta lortutako datuak koadrotan antolatzen ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ikusteko.

**10. Herrialde eta lurralde batzuen ezaugarriak adierazle sozioekonomikoen bidez adieraztea, eta haien artean zer lurralde-desoreka dauden jakitea.**

- Baliabideen banaketa desorekatua dela badaki, horren ondorioetako batzuk azaltzen ditu, eta desberdintasunen aurrean sentsibilitatea azaltzen du.
- Hainbat lurralde-eremutako estatistika-institutuek (Eustat, EIN, Eurostat, Nazio Batuen Erakundea) jasotako estatistika-informazioak kontsultatzen ditu: Giza Garapeneko Indizea, biztanleko errenta, langabezia eta abar.
- Taula, grafiko, estatistika eta beste iturri batzuetatik informazio sozioekonomikoa ateratzen du eta ulertzen du, eremuen arteko desberdintasun ekonomikoak deskribatzeko.
- Emakumeek gizartearen eremu guztietan eta ekoizpen-prozesuan duten parte-hartze ekonomiko eta soziala aintzat hartzen du, eta mota guztietako diskriminazioak gaitzesten ditu.
- Lortutako datuak interpretatzen ditu eta koherentziaz eta argudio egokiak emanez azaltzen ditu.
- Lortutako informazioa erabiltzen du eremu eta lurraldeen arteko garapen sozioekonomikoaren mailan dauden aldeak identifikatzeko.
- Euskal Herriko, Espainiako eta Europako lurraldeen artean dauden desoreka eta desberdintasunen adibide esanguratsuak aurkitu, identifikatu eta aztertzen ditu
- "Garapen jasangarriaren" ideia eta haren inplikazioak ulertzen ditu.

**11. Herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen datu sozioekonomikoak talde-lanean deskribatu eta alderatzea.**

- Herrialde garatuen eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko aldean kausetako bat azaltzen du.
- Herrialde garatuen eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko aldean kausak globalizazioko eta integrazio ekonomikoko prozesuekin lotzen ditu.
- Adierazle ekonomiko, demografiko eta kulturalak erlazionatzen ditu.
- Txosten, konparazio-koadro, taula edo mapak egiten ditu herrialde garatuen, azpigaratuen eta garapen-bidean dauden herrialdeen artean sortzen diren mendetasun-aldeak erakusteko.
- Egungo gatazka sozioekonomikoetako bat identifikatzen du, eta atzean egon litezkeen kausei buruzko hipotesiak egiten ditu.
- Ondorioak ongi antolatuta eta ulertzeko moduan adierazten ditu, baliabide digitalak erabiliz.
- Hainbat herrialdetan egiaztatutako kontsumo-mailaren berri ematen duten testuak aztertzen ditu, eta ondorioak ateratzen ditu.
- Herrialdeen araberako barra-grafikoak aztertzen ditu, garapen-bidean dauden herrialdeen eta herrialde garatuen arteko kanpo-zorraz eta merkataritza desorekatuaz jabetzeko.

**12. Jarduera ekonomikoen eta norbanakoen eta taldeen portaeren ingurumen-eraginak ingurune hurbileko kasu baten bidez deskribatzea, ongi bereiztea zer jarduera diren garapen jasangarriaren aldekoak eta zer jarduerak eragozten duten hura, eta natura babesteko jarduerak sustatzeko jarrera aktiboa eta arduratsua hartzea.**

- Ingurumena defendatu eta errespetatzen du, eta taldekideekin hausnarketa egiten du jarduera ekonomikoek sorrarazten dituzten ingurumen-arazoen inguruan.
- Bere inguruneko erakunde eta kolektiboek ingurumenaren alde ezarritako planteamendu eta politikak zein diren badaki.
- Ikaskideekin batera, ingurumen-erasoak mugatzeko jardun-proposamenak egiten ditu.
- Baliabide naturalen garrantzi ekonomikoa aintzat hartzen du, eta modu arrazionalen ustiatu behar direla ulertzen du.
- Ikasleak bizi diren inguruko ingurumen-degradazioko arazoak aztertzen ditu, eta ingurumena kontserbatu eta defendatzearen aldeko jarrera hartzen du.
- Euskal Herriko ko naturaren kontserbazioan eragina duten arazo espezifiko batzuk azaltzeko gai da.
- Munduko ingurumen-arazo nagusiak deskribatzen ditu, eta haiei buruzko informazioa biltzen du.
- Bakarkako eta taldeko giza portaera batzuek natura hondatzea ekar dezaketela badaki.

**13. Gizarte-zientziekin lotutako lan errazak eta ahozko aurkezpenak planifikatu eta gauzatzea, bakarka edo taldean, eta informazio egokia modu antolatuan, zehatzean eta ulergarrian jakinaraztea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ematen dituzten aukerak baliatuz.**

- Mota guztietako informazioak ongi erabiltzen, irakurtzen eta interpretatzen ditu, edozein euskarritan daudela ere.
- Aztertu beharreko gaiei buruzko hipotesi eta galderak egiten ditu.
- Garrantzizko informazioa lortu eta erregistratzen du, hainbat baliabide edo informazio-iturri eta hainbat landa-lan baliatuz.
- Gai jakin baten gainean lan egiteko baliatu beharreko informazio-iturriak ongi hautatzen ditu.
- Bildutako informazioak erregistratzeko euskarri egokiak hautatzen edo sortzen ditu.
- Sarean informazioa bilatzeko tresnak (bilatzaile orokorrak eta espezializatuak) erabiltzen trebea da.
- Ondorioak aurkeztean, informatikak eskainitako aukerak baliatzen ditu.
- Lortutako informazioa ongi komunikatzeko testu genero egokiena hautatzen du.

**14. Egunoroko bizitzako gizarte-arazoei buruzko txostenak egitea, horiei buruzko eztabaidetan parte hartzea, eta haien jatorri historiko-soziala aztertzea. Komunikabideetatik edo beste iturri batzuetatik jasotako informazioa zorrotzaz erabiltzea, eta bere adierazpenetan tolerantziaz, errespetuz eta elkertasunez jokatzeko.**

- Marjinazioarekin, desoreka sozioekonomikoekin, indarkeria-kasuekin, emakumeen aurkako indarkeriarekin eta gazteen arazoekin zerikusia duten egoerak identifikatzen ditu.

- Aztertutako desoreketako batzuk arintzeko konponbideak azaltzen ditu, modu kritiko eta tolerantean.
- Gizarte-egoera ahuleko taldeen eta diskriminazio- eta indarkeria-egoeren aurrean sentsibilitatea azaltzen du, eta egoera horiei jarrera solidario batekin heltzen die.
- Eztabaidetan, taldeko elkarrizketa eta esku-hartzeak gidatzen dituzten arauak onartzen ditu, ahozko hizkuntza eta argudiaketa ongi erabiliz.
- Berearekin bat ez datozen beste ikuspegi batzuen balioaz kontziente da, besteren iritziekiko enpatia-jarrerak garatzen ditu, eta eztabaidak ideia eta interesak adierazteko modu naturalizat jotzen ditu.
- Proposatutako egoeren aldeko edo kontrako iritzia argudiatzen ditu, egoera horiek egiazkoak edo itxurazkoak izan.
- Bere ikuspegiak defendatzen ditu, besteen arrazoiei adi-adi entzuten die, eta transakzioak egiteko eta adostasunetara iristeko gai da.
- Galderak argi eta garbi formulatzen ditu, erantzuna aurkitzen ahalegintzen da, eta planteatutako gaiei buruzko ondorioak ateratzen ditu.
- Bere lana idazten du, lortutako datuak baliatuz eta ongi eraturako eskema bati jarraiki.
- Testu genero egokiena hautatzen du lortutako informazioa ongi komunikatzeko.

**15. Estatu modernoaren sorreran izandako une garrantzitsuenak bereiztea, monarkia hispanikoaren eta Espainiako inperio kolonialaren ezaugarri nagusiak adieraztea, eta Euskal Herriarekin zituen erlazioak eta euskal lurraldeen bilakaera azaltzea, aldi horretako testuinguru europarraren barruan.**

- Aro Modernoan Euskal Herrian izan diren gertaera historiko nagusiak zein diren badaki eta deskribatu egiten ditu, baita haren antolaketa politikoaren eta foruen ezaugarri nagusiak ere.
- Ardatz eta friso kronologikoak egiten ditu, lurralde-eremu horien bilakaera historikoaren berri emateko, eta, haiei loturik, ezarritako denboraldiari buruzko mapa historikoak interpretatzen ditu.
- Nafarroako erresumaren konkistaren ondorioak azaltzen ditu.
- Amerikako lurren konkistan parte hartutako euskaldun ospetsuren bati buruz azalpena egiten du.
- Ardatz eta friso kronologikoak egiten ditu, Aro Modernoko monarkia hispanikoari buruzko gertaera eta aldi historikoak irudikatzeko (Errege Katolikoak, Karlos V.aren europar Inperioa, Felipe II.aren Inperio hispanikoa eta abar), eta aldi bereko europar Historiako beste batzuekin lotzen ditu.
- Aro Modernoaren ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu: bilakaera ekonomikoa, gizarte-antolaketa eta ideologia- eta erlijio-krisia.
- Aro Modernoaren ideia eta pentsamolde nagusiak zein diren badaki.
- Amerikaren eta Aro Modernoko munduko beste eremu batzuen aurkikuntza eta kolonizazioarekin lotutako mapa historikoak interpretatzen ditu.
- Aro Modernoan europar ikuspegitik mundua zabaldu izanaren kausa eta ondorio ekonomiko eta politikoak aztertzen ditu, eta egungo egoerekin lotzen ditu.

### 5.1.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

#### 1. Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko aro garaikideko gertakari eta prozesu historikoak denboran eta espazioan kokatzea, eta historia aztertzeo tresna egokiak erabiltzea.

- Hainbat iraupen eta erritmotako bilakaera eta aldaketa historikoko prozesuak identifikatu, aztertu eta konparatzen ditu.
- Euskal lurraldeetako bilakaera historikoaren mugarri nagusiak deskribatzen ditu, Europako eta munduko testuinguruaren barruan.
- Friso historiko batean, XVIII. mendetik XXI. mendera bitarte euskal lurraldeetan eragina izan zuten gertaera garrantzitsu batzuk irudikatzen ditu, Espainiako eta Europako bilakaerarekin batera.
- Gertaera edo prozesu historiko jakin batean eragina izan duten aldaketak, bilakaera edo iraupena hautemateko gai da.
- Aldiberekotasun- eta aldaketa-nozioak bereizten ditu, baita etapa batzuetatik beste etapa batzuetara igarotzean izaten diren uneak eta prozesuak ere, eta nozio horiek XVIII. mendetik gaur egun arteko bilakaera historikoari aplikatzen dizkio.
- Zenbait lurralde-eremutan XVIII. mendetik XXI. mendera bitarte izandako gertaera edo prozesu historiko garrantzitsuren bat aztertzen du, diakronikoki eta sinkronikoki.
- Kausa-hierarkiak ezartzen ditu (aspektua, denbora-eskala).
- Kolonialismoaren, inperialismoaren eta 1914ko Gerra Handiaren artean kate eta interkonexio kausalak ikusteko gai da.
- Gerra arteko garaian, hau da, 1919-1939 hamarkadetan, izan ziren gertaera, mugarri eta prozesu garrantzitsuenak zein diren badaki eta ulertu egiten ditu, bereziki Europari dagokionez.
- Garai hari buruzko azalpen historikoetan hierarkia kausala azaltzen duten kate kausalak aztertzen ditu, baita orainarekin duten lotura ere.
- Jatorri desberdineko iturri historiko eta historiografikoen hainbat interpretazio aztertzen ditu.
- 1936ko Gerra Zibiletik orain arte, transizio eta demokrazia garaiak barne, Euskal Herrian gertatutako une eta prozesu garrantzitsuenak ezagutzen eta ulertzen ditu.
- Iraganeko gai jakin batzuk orainarekin eta etorkizuneko aukerekin lotzen ditu, hala nola 1929ko eta 2008ko finantza-krisien norainokoa.

#### 2. Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak identifikatzea, haien artean loturak egitea, eta gizarte-gertaerek hainbat arrazoi izan ditzaketela ohartzea.

- Gertaera eta prozesu historikoen kausa-aniztasuna identifikatzen du.
- Gertaera edo prozesu historiko esanguratsu baten eragileak zein diren badaki.
- Gertaera historiko eta sozialak eragiten dituzten kausak sailkatzen ditu eta elkarren artean lotzen ditu.
- Gertaera historiko batean esku hartzen duten hainbat kausaren epe ertainerako eta luzerako ondorioak zehazten ditu.



- Hainbat gertaera historiko interpretatzen ditu eta elkarren artean lotzen ditu.
- Iraganeko edo egungo gertaera historiko baten kausa-efektua erlazioa identifikatzen du.
- Gertaera historikoek egungo euskal errealitatean duten ondorioak hautematen ditu.
- Zenbait lurralde-eremutan XVIII. mendetik XXI. mendera bitarte izandako gertaera edo prozesu historiko garrantzitsuren baten kausa eta ondorioak deskribatzen ditu, diakronikoki eta sinkronikoki.
- Frantziako Iraultzak euskal lurretan eragin zituen ondorio sakonak ezagutzen ditu. Erreferentziazko lurralde-eremuetan Antzinako Erregimenean izandako gertaera, fenomeno edo prozesu historiko bat deskribatzen du, diakronikoki eta sinkronikoki.
- Industria-iraultzaren garrantziko gertaerak deskribatzen ditu, eta haien kausak kateatzen badaki.
- Europako, Amerikako eta Asiako hainbat herrialderen (Britainia Handia, Alemania, Japonia, Espainia) industrializazioa aztertu eta konparatzen du, hainbat denbora- eta geografia-eskalatan.

**3. Azaltzea Europak zergatik izan zuen protagonismoa XIX. mendeko bigarren zatian, eta urte horietako gatazka eta arazo nabarmenak bereiztea; batez ere, hedapen kolonialarekin eta tentsio sozial eta politikoekin lotutakoak.**

- Inperialismoaren garaian Europak protagonismoa izan zuen munduan, eta horren adierazgarri diren gertaera garrantzitsuenak bereizten ditu.
- Kolonialismoaren hedapenak nazioarteko harremanetan eta herrialdeetan izan zituen ondorioak identifikatzen ditu.
- Zenbait lurralde-eremutan XIX. mendeko bigarren aldirian izan zen gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsuren bat deskribatzen du, diakronikoki eta sinkronikoki.
- XIX. mendeko bigarren erdian izandako gertaera politiko eta ekonomikoak Europako herrialdeetako eta kolonizatutako herrialdeetako gaur egungo hainbat alderdi azaltzeko baliagarri direla badaki.
- Indarkeriaren inplikazioei buruz eztabaidatzen du.
- Kontakizun labur bat idazten du XIX. mendeko lehen erdialdeko iraultza burgesetako baten gertaera nagusiak jasota, azalpen kausalak erabiliz.
- XX. mendeko gerra ondoko deskolonizazioaren gertaera garrantzitsuenak antolatzen ditu.
- Kontakizun batean, prozesu historikoek hainbat denbora- eta geografia-mailatan izandako kausa eta ondorioak azaltzen ditu.
- Hierarkia kausala hautemateko gai da (kontakizunaren arabera, kausa batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa dute).

**4. Europako testuinguruan, XIX. mendearen bukaeratik aurrera, Euskal Herriko eta Espainiako bilakaera historiko, politiko eta ekonomikoaren etapak zein izan ziren eta zer ezaugarri dituzten jakitea, eta sistema demokratikoa finkatu izana eta Europar Batasuneko kide izatea balioestea.**

- Europako eta munduko Historiaren funtsezko une eta gertaera garrantzitsuenak zein diren badaki, eta Euskal Herrian eta Espainian izan duten eragina ulertzen du.
- Industrializazioak Euskal Herrian sortutako eraldaketa sakona ezagutzen du.
- XIX. mendearen amaieratik gaur egun arte Euskal Herriko eta Espainiako gizarteak izandako eraldaketa demografiko, ekonomiko, sozial, politiko eta ideologiko nagusiak deskribatzen ditu, eta elkarren artean izan dituzten eraginetako batzuk aipatzen ditu.
- XX. mendearen hasieratik orain arte Euskal Herrian eta Espainian izandako aldi politikoen kausa eta ezaugarri nagusiak zein diren badaki.
- Espainiako aldaketa politikoak Euskal Herriko bilakaera historikoarekin, askatasunen eta bakearen bila aurrera eta atzera egindako urratsekin lotzen ditu.
- Foruak kendu aurretik eta ondotik euskal lurraldeek izan duten antolaketa politikoa konparatzen du.
- Frankismoaren eta Euskal Herriko eta Espainiako trantsizio demokratikoaren alderdi jakin batzuk bereizten ditu, eta, horri esker, indibidualtasunek aldaketen protagonista gisa betetzen duten zeregina zein den badaki, eta memoria historikoa babesteko premia ikusten du.
- 1978ko Konstituzioa iritsi eta Espainian, Europar Batasunaren esparruan, estatu demokratikoa finkatu arte trantsizio politikak izan zituen elementu esanguratsuenak zein diren badaki.
- Egungo euskal estatutuaren artikuluren batean, foru-iraganera daraman alderdiren bat eta Nafarroari dagokion aipamen bat hautematen eta aztertzen du.
- Europa eraikitzeke prozesua aztertzen du, jatorria, etapak eta helburuak identifikatuz.
- Demokrazia eraikuntza-prozesutzat jotzen du, desberdintasunaren eta bazterketaren aurkako konpromiso pertsonala eta kolektiboa eskatzen duena.

**5. XX. mendean munduan izan diren eraldaketak eta gatatzak denboran eta espazioan kokatzea, eta historiaren jakintza hori gaur egungo nazioarteko arazo nagusietako batzuk ulertzeko erabiltzea.**

- XX. mendean nazioartean izan diren gertaera nagusiak zein diren badaki, esaterako, iraultza sozialistak, mundu-gerrak edo kolonien independentzia.
- Nazioarteko arazo batzuk aztertzen ditu munduaren ikuspegi global batetik, eurozentrismotik urruti.
- XX. mendean munduko gatatzaren batean gertatutako aldaketa-prozesuak irudikatzen edo azaltzen ditu paperean edo euskarri digitalean, diagramak, denbora-ardatzak, koadro kronologikoak, kontzeptuzko mapak eta horma-irudiak erabiliz.
- XX.-XXI. mendean munduan izan den eraldaketa sozial, ekonomiko edo politiko bat deskribatzen du, diakronikoki eta sinkronikoki.

- Hainbat iturri historiko bilatu eta konparatzen ditu, eta haien arteko kontraesanak adierazten ditu.
  - Bigarren Mundu Gerraren amaieran sortu zen bloke-sistemaren ondorioak zein diren badaki, baita blokeak desagertu izanaren eta esparru sozialistaren herrialdeetan egindako aldaketan ondoriozko mundu-ordena berriaren ondorioak ere.
  - Nazioarteko hainbat erakunderen zeregin historikoa aintzat hartzen du, NBERena batez ere, baita egun indarrean egotea ere.
  - Nazioarteko krisi edo gatazka baten kausa eta ondorioak deskribatzen ditu, eta haiek gaur egun eduki ditzaketen ondorioak aztertzen ditu.
  - Egungo gatazken alderdi guztiak aztertzen ditu, eta gatazkan inplikaturako alderdi guztien ikuspegia ulertzen ahalegintzen da.
  - Europar Batasunaren eraikuntza nola bilakatu den ulertzen du.
  - Europar Batasunaren eraikuntzari eta haren etorkizunari buruz eztabaidatzen du.
- 6. Munduan gaur egun tentsio politikoa edo soziala bizi duen guneren bati buruzko lan bat planifikatu eta egitea, bakarka edo taldean, eta haren aurrekari historikoak eta zergatiak aztertzea eta zer gerta daitekeen iragartzea. Hori guztia informazio-iturri egokiak baliatuz, eta besteak beste, bestelako interpretazioak edo interpretazio osagarriak ematen dituzten iturriak erabiliz egitea.**
- Gaur egun esanahi berezia duen hurbileko edo urruneko gertaera baten bilakaera deskribatzen du.
  - Jardun pertsonal batzuen kausak, testuinguru orokorra eta arrazoiak aurkitzeko eta horien berri izateko gogoia erakusten du, aldaketa historikoak ongi ulertzeko.
  - Bere munduko egoera bat aztertu eta ikertzen du, haren jatorrian dauden aurrekari eta kausak bilatuz eta ikasitakoa etor litezkeen ondorioak aurreikusteko baliatuz.
  - Lana planifikatzeko eta zenbait informazio-iturri bere kasa erabiltzeko ekimena erakusten du.
  - Lortutako informazioa aztertu eta antolatzen du, eta ondorioak argitasunez aurkezten ditu, ahal dela IKTek eskaintzen dizkieten aukerak erabiliz.
  - Hainbat iturritara (ahozkoak, idatzizkoak, materialak) jotzen du informazioa lortzeko, komunikabideetako (prentsa, telebista, zinema, Internet eta abar) iturriak barne, eta gertaera historiko edo sozial bati buruzko zenbait interpretazio bereizten ditu.
  - Zorroztasunez eta objektibotasunez, eduki historikoa duten egungo iturri historikoak eta informazio-iturriak interpretatzen ditu.
  - Hainbat iturrik eta egilek gertaera jakin baten aurrean duten zeregina eta ikuspegia interpretatzen du.
  - Informazioa argi eta txukun aurkezten du, arloko hiztegi espezifikoak eta baliabide ez-linguistikoak erabiliz, hala nola mapak, grafikoak eta abar, eta zenbait euskarriren bitartez (ahozkoa, idatzizkoa, digitala).
  - Testu historiko erraz bat komentatzen du eta ideia nagusiak ondorioztatzen ditu, baita egileak testua idazterakoan izan duen helburua ere.
  - Ongi informatuta egoteko jakin-mina garatzen du, komunikabideetako eta sareko informazioaren eta mezuen aurrean jarrera kritikoa hartuz.

- 7. Kritikoki aztertzea kide den eta erreferentzia dituen talde eta erakundeen (familia, eskola, herri, autonomia-erkidego, estatu eta gainerakoen) antolaketa-egitura eta ohiko funtzionamendu modua, eta behar bezala aplikatzea demokraziaren funtzionamendua arautzen duten oinarrizko irizpideak.**
- Kide den hainbat eskalatako erakundeetan (eskola, udalerrria, lurralde historikoa eta abar) haien presentzia edo gabezia bereizten du.
  - Printzipio demokratikorik gabeko funtzionamenduaren alderdi jakin batzuk kritikatzeko ditu.
  - Proposamenak egiten ditu, eta haiek hobetzeko ekimenak hartzen.
  - Mota, jatorri eta eskala desberdinetako gizarte gatazken presentzia aitortzen du, kidea den taldeetan.
  - Giza eskubideak elkarbizitzarako oinarrizko markotzat aitortzen ditu eta gatazka konpontzeko bide demokratikoak eta baketsuak balioesten ditu.
- 8. Pertsonen arteko, taldeen arteko eta herrialdeen arteko gatazka sozialak zorrotasunez eta enpatiarako gaitasunez aztertzea, haiek aurrerapenerako aukera moduan ikustea, eta gatazka konpontzeko bide baketsuak proposatzea.**
- Gatazka naturaltasunez hartzen ditu, aukeratzat hartuz mehatxutzat baino gehiago.
  - Gatazken alderdi guztiak aztertzen ditu, eta gatazkan inplikaturako alderdi guztien ikuspegia ulertzen ahalegintzen da.
  - Gatazka talde eta herrietako kideen ideia eta interesen adierazpen naturaltzat jotzen ditu.
  - Gatazka batean alderdi gisa inplikaturako dagoenean, abiapuntu gisa onartzen du beste alderdiak neurri batean arrazoia eduki dezakeela.
  - Bere ikuspegiak defendatzen ditu, besteen arrazoiei adi-adi entzuten die, eta transakzioak egiteko eta adostasunetara iristeko gai da.
  - Arauetara jotzen du gatazka bati heltzeko edo gatazka bat prebenitzeko.
- 9. Arte-adierazpen garrantzitsuak ezagutzeko eta balioesteko, bai bere ingurune hurbilekoak, bai eta urrunagokoak ere, ulertzeko kultura guztiek lagundu dutela gizateriaren garapen artistikoan.**
- Estilo eta mugimendu artistiko nagusietako artelanak identifikatzen ditu.
  - Artelanen balio estetikoak aintzat hartzen ditu.
  - Artelanak interpretatzen ditu haien garaiko testuinguru orokorra, egilearen egoera partikularra eta beste zenbait faktore aintzat hartuz.
  - Artelanen artean analogia eta desberdintasunak hautematen ditu, eta batzuek besteen gainean dituzten eraginak detektatzen.
  - Kultura eta etapa historiko nagusietako artelan esanguratsuak konparatzen ditu eta kronologian kokatzen.
  - Hainbat gizarteren kultura- eta arte-adierazpenak aintzat hartzen eta errespetatzen ditu, norbere prestakuntzan garrantzitsuak direla iritzita.
  - Bere ingurunean gorde diren aztarna jakin batzuen iraganari eta jatorriari buruzko galderak egiten ditu.

- Ondarea kontserbatu eta hobetzeko ekintzak identifikatzen ditu.
  - Bere inguruneko edo urrunagoko beste eremu batzuetako ondare-elementuak aintzat hartzen eta errespetatzen ditu.
- 10. Gaur egungo auzi batzuei buruzko eztabaidetan parte hartzea, haietan gizarte-zientzietan oinarritutako iritzi arrazoituak ematea, eta gainerako pertsonen iritziak errespetatzea.**
- Bereziki bere ingurunean ageri diren hainbat jardun politiko egokiak irudikatzen zaizkion edo ez azaltzen du, eta iritzi hori arrazoitzen du.
  - Iritzi-desadostasunaren eta egoera gatazkatsuen aurrean, abiapuntu gisa onartzen du besteak neurri batean arrazoia eduki dezakeela.
  - Elkarrizketa eta prozedura baketsuak defendatzen ditu pertsona, gizarte-talde eta herrialdeen arteko gatazkak konpontzeko.
  - Eztabaidetatik parte-hartzaile guztiek adostutako ondorioak ateratzen ahalegintzen da.
  - Gertaera historiko jakin batzuei buruzko hipotesiak planteatzen ditu.
  - Harreman globalizatuak dituen sektore bati buruzko berriak bilatzen ditu prentsan, eta aldeko eta kontrako argudioak prestatzen ditu.
- 11. Kultura-aniztasuna herriek eta norbanakoek beren identitaterako duten eskubide moduan ikustea, kide den gizarte- eta kultura-komunitateen aniztasuna balioestea eta haietan parte aktiboa izatea, jarrera tolerantia eta errespetuzkoa duela.**
- Zenbait gizartetako kideen oinarritzko kultura-ezaugarriak bereizten ditu.
  - Bere herriaren identitatearen eta bere herrian eta Europan dauden beste identitate batzuen oinarritzko ezaugarriak identifikatzen ditu.
  - Beste kultura batzuekiko errespetua adierazten du.
  - Kultura-desberdintasunak onartzen ditu.

## 5.2. BALIO ETIKOAK

### 5.2.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira etapako helburuak Balio Etikoak ikasgairako:

1. Giza izaera onartzea dimentsio indibidualean zein sozialean, eta norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, dimentsio morala barne, norbanakoen arteko desberdintasunak eta pribatutasuna errespetatzeko, eta bere buruaren eta ikaskideen ikuspegi zuzena edukitzeko.
2. Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak erabiltzea, eta sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, berdinen arteko jardueretan, eta elkarriketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.
3. Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsalak aitortutako eskubideak zein diren jakitea, bere egitea eta aintzat hartzea; unibertsalak, zatiezinak eta elkarri lotuak direla ikusi eta onartzea, eta irizpide moduan hartzea gizarte-gertaerei eta egoerei zein norbanakoen eta taldeen jarrerei buruzko iritziak emateko.
4. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna babestea eta bidegabekeria eta diskriminazio oro arbuiatzea, batez ere generoarekin eta hark dakarren indarkeriarekin lotutakoak, bai eta etnia, sinesmenak, desberdintasun pertsonalak eta sozialak, orientazio afektibo-sexuala oinarri dutenak eta beste edozein motatakoak ere.
5. Bitzita demokratikoa, politikan eta gizartean parte hartzea eta beste antolaketa modu batzuetan parte hartzea (lankidetzak, elkarteak, boluntarioak...) zer den jakitea eta aintzat hartzea, erreferentzia gaur egungo EAE eta haren egoera historikoa izanda, herritarrok guztion ondasunak eta gure gizarte-ongizateko sistema mantendu eta hobetzeko ditugun betebeharrak gure gain hartuz, zerbitzu publikoen finantziazioan parte-hartze indibiduala eta kolektiboa, elkartasuna eta birbanaketa aintzat hartuz, zerga-betebehar indibidual eta partikularren bitartez gure gizarte kohesionatzeko elementuak diren heinean, bidezko garapen jasangarriarekin konprometitutako bizi-proiektu bat eraikitze bidean.
6. Giza eskubideak urratzea dakarten egoerak identifikatu eta aztertzea, direla indarkeria estrukturalak eragindakoak (gerrak, pobrezia, muturreko desberdintasunak...), dela terrorismoak eragindakoak, genero-indarkeriak eragindakoak, berdinen arteko indarkeriak eragindakoak... Bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna helburu duten ekintzak aintzat hartzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko bidea dira eta.
7. Teoria etikoen berri izan eta haiek aztertzea, eta jakitea zein diren gaur egungo gizarte-gatazka eta gatazka moral nagusiak, jarrera kritikoa izateko komunikabideen bidez, Internet bidez eta beste gizarte-erakunde batzuen bidez (eskola, esaterako) helarazten diren modelo eta estereotipoekiko.
8. Nork bere diskurtso etikoa eratzea, hari dagokion irizpide moralarekin, eta etikaren eta moralaren berezko ezaugarriak eta elkarren arteko harremanak aztertzea, bizitzako egoerei inpartzialtasunez eta ikuspegi konstruktiboz heltzeko.
9. Justiziaren eta politikaren artean zer lotura dagoen jakitea, elkarren mendekoak direla aztertzea eta batak besteari informazioa nola ematen dioten jakitea, justizia

bizitza demokratikoko funtsezko elementutzat aldarrikatzen duen herritar izan gaitzen sustatzeko.

10. Etika, zuzenbidea eta giza eskubideak lotuta daudela jabetzea, eta balio etikoek zer zeregin duten eta historian zehar zuzenbidean eta giza eskubideetan nola gauzatzen diren aztertzea, gure gizartean balio horiek zein mailatan betetzen diren ikusteko.
11. Etika eta zientzia eta teknologia lotuta daudela ohartzea, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak sortutako egoera gatazkatsuak planteatuz eta kritika eginez, haiei buruzko iritzi moralak egiteko aukera ematen duten irizpide etikoak proposatzeko.

## 5.2.2. EDUKIAK

### 5.2.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Oro har, edukiak hurbilekotik urrunekora doan irizpidez biltzen saiatu gara. Horrenbestez, lehen mailan pertsonari eta beste pertsona batzuekiko harremanei heltzen zaie, bigarren eta hirugarren mailan irizpide kritikoz eratu nahi den etika baten ezinbesteko oinarria baita. Jakina, ikuspegiak bizitza pertsonalaren, sozialaren eta publikoaren hainbat eta hainbat alderdi biltzen ditu, ulertzen baita hausnarketa etikoa indibidualtasun ororen ingurune osora zabaltzen dela, haren dimentsio guztietan: berdinen arteko harreman pertsonaletatik hasi eta berdintasun unibertsaleraino; familiarik hasi, ikastetxetik, auzotik, herritik eta abarretik pasa eta munduko gizarteraino; gure ikaskidearen zaintzatik hasi eta elkartasun globaleraino; gure eskubide indibidualak eskatzetik hasi eta guztien eskubideak babesteko konpromisoa hartzeraino...

Ikuspegi horren barnean, zenbait planteamendu etiko proposatzen dira, eta baliabide moduan hartu behar dira ikasleek ebaluazio-irizpideak edo lorpen-helburuak garatu ahal izan ditzaten. Horren haritik, edukiak modu zabalean planteatzen saiatu gara, askotariko egoeretara egokitzeke, ikasleen arteko elkarlana errazteko, eta hainbat esperientzia trukatzeko errazteko.

Laugarren ikasturteko edukiek gure gizarte-ongizateko sistemarekin (egitura eta zerbitzu nagusiak) eta haren finantziarioarekin (zergei eta haien birbanaketaren efektua, elkartasuna eta zerga-betebeharrak betetzea barne) zerikusia duten edukiak ekartzeaz gain, aurreko hiruen laburpen moduko bat izan nahi dute, sakonagotik helduta. Horregatik sartu dira hausnarketa-maila sakonagoak; esate baterako, "nahitaezko indibiduazioa" eta "kosmopolitismoa". Asmoa da "bigarren modernitatea" deritzon garaian unibertsalismoa-erlatibismoa dikotomia gaindituko duen etika bat planteatzea, eta unitatearen eta diferentziaren ikuspegi inklusiboa proposatzea ,edo, beste hitz batzuetan adierazita, "hau eta bestea ere bai" (Ulrich Beck).

### 5.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerek honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).

- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Pertsonaren duintasuna

- Zer esan nahi du pertsona izateak? Gizakiaren aldagai soziokulturalak.
- Bilakaera psikosozialaren etapak eta oinarriko ezaugarriak. Gazteak informazioaren aroan.
- Autonomia eta heteronomia.
- Nortasuna. Bizi-proiektu pertsonala.
- Ohiturak sortzea eta eguneroko bizitzan duten zeregina.
- Bertuteari buruzko interpretazio historiko batzuk. Bertutearen eta nortasunaren arteko harremanak.
- Adimen emozionala. Golemanen proposamena. Zertan lagun diezagukeen adimen emozionalaren ikuspegiak.
- Nork bere nortasuna eraiki al dezake?
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Introspektzioa erabiltzea emozio eta sentimenduak hauteman eta kontrolatzeko.
- Benetako egoerak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea.
- Bizi-proiektuarekiko interesa azaltzea.
- Arrazoimenaren eta askatasunaren erabilera estimatzea.



### 3. MULTZOA. Elkar ulertzea, errespetua eta berdintasuna pertsonen arteko harremanetan

- Natura-Kultura dialektika.
- Judizio moralak. Ba la du tokirik moral autonomo batek eragin handiko gizarte batean?
- Etika, morala eta zuzenbidea. Dimentsioak eta elkarguneak.
- Asertibitatea. Asertzio-estrategiak. Gaitasun sozialak.
- Emakumeak gure gizartean duen irudia: estereotipoak eta aurreiritziak. Genero-indarkeria.
- Orientazio afektibo-sexualaren aukerarekiko errespetua. LGBT kolektiboa. Orientazio afektibo-sexuala hautatzeari begirunea izatea. Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen kolektiboa (LGTB).
- Proposamen eta judizioak emateko argudioak erabiltzea.
- Errespetuzko komunikazio-teknikak erabiltzea.
- Benetako egoerak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea.
- Egoera gatazkatsuetan elkarrizketa baliatzea, eta, beharrezkoa bada, bitartekotza.
- Ekimena azaltzea.
- Asertibitatea eta beste gaitasun sozial batzuk azaltzea.
- Indarkeriazko eta giza eskubideen aurkako jokabideak esanbidez gaitzestea.
- Indarkeria eta genero-diskriminazioko egoerak esanbidez gaitzestea.

#### 5.2.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerek honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).

- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Hausnarketa etikoa

- Etika eta morala.
- Garapen morala.
- Morala, askatasuna eta arrazionaltasuna.
- Balioak. Motak eta hierarkia. Posible al da baliorik gabeko bizitza? Balio-proposamen historikoak.
- Arau etikoak zer diren.
- Proposamen etikoak historian zehar.
- Gatazka morala euskal gizartean. Euskal Herrian, azkeneko hamarkadetan, terrorismoaren eta indarkeriaren inguruan gertatutakoaren adibidea .
- Garrantzizko informazioa bilatu eta hautatzea.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Benetako egoerak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea.
- Ekimen pertsonala proposamenak egin eta abian jartzean.

## 3. MULTZOA. Justizia eta politika

- Etika, politika eta justizia.
- Justizia-kontzeptuak. Aristoteles eta John Rawls.
- Giza Eskubideak eta Zuzenbide Estatua.
- Printzipio demokratikoak, Giza Eskubideak eta legeetan nola zehazten diren. Konstituzioa eta Autonomia Estatutua. Pertsonen eskubideei buruzko EAEko araudia.
- Berdintasunari buruzko nazioarteko adierazpenak eta arauak, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian.
- Europar Batasuna eta haren erakundeak. Ideal europazalea.
- Ekimen pertsonala proposamenak egin eta abian jartzean.
- Garrantzizko informazioa bilatu eta hautatzea.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Irizpide moralak eranstea.
- Demokrazia eta haren printzipioak estimatzea.

- Jarrera komunak sustatzea eta haietan parte hartzea.
- Zuzenbide-estatuaren legerian jasota dauden balio etikoak hautematea.
- Herritarren betebeharrak eranstea.
- Printzipio demokratikoak eranstea.

#### 5.2.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerak honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

##### 2. MULTZOA. Balio etikoak, zuzenbidea eta Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsala

- Legezketasuna eta legitimitatea. Arau juridikoen oinarria. Etabaida historikoa.
- Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsala. Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsalaren ikuspegi historikoa.
- Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKEek) Giza Eskubideen defentsan egiten duten lana, EAEn eta mundu zabalean
- Ekimen pertsonala proposamenak egin eta abian jartzea.

- Garrantziko informazioa bilatu eta hautatzea.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Giza Eskubideen errespetuaren berdintasunaren aldeko jarrera argiak adieraztea.
- Politika, erlijioa edo bestelako jatorria duen indarkeria espreski gaitzestea eta giza-duintasuna balio gorentzat jotzea.
- Genero-indarkeria eta -diskriminazioa esanbidez gaitzestea.
- Genero-berdintasunari jarraiki jardutea.

### 3. MULTZOA. Balio etikoak eta zientziarekin eta teknologiarekin duten lotura

- Ikerketa zientifikoak ba al du mugarik? Ikerketa zientifikoaren emaitzen aplikazioak, hau da, teknologiak, ba al du mugarik?
- Bizitza pribatuan teknologia kontrolik gabe erabiltzearen arriskuak.
- Zientzia eta interes ez-zientifikoak.
- Pribatutasunerako eskubidea. Interneten erabilera segurua.
- Hainbat iturritako informazioa erabiltzea, genero ikuspegia zainduz.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Hainbat iturritako informazioa maneiatzea.
- Garrantziko informazioa bilatu eta hautatzea.
- Ikaskideen informazio pribatua tratatzean datu pertsonalen eskubidea bete beharra dagoela aintzat hartzea.
- Iritzi desberdinak errespetatzea.
- Ekimena azaltzea.

#### 5.2.2.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerek honako hauek dituzte xede:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.

- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Etika aro globalean

- Giza duintasuna.
- Herritartasuna, Estatu demokratikoaren funtsezko faktorea.
- Bigarren modernitatea. Ezaugarriak.
- Etika aro globalean. Komunikabideak eta informatzeko eskubidea.
- Hainbat iturritako informazioa erabiltzea.
- Ahozko edo idatzizko azalpen batetik ondorioak ateratzea.
- Laburtzea.

## 3. MULTZOA. Hausnarketa etikoa

- Giza eskubideekiko begirunea, gure testuinguruan.
- Gatazka etiko eta politikoak gaurko gizartean: balioen krisia, globalizazioa, arrazionaltasun kulturalaren boterea, kulturantzatasuna, erlijio pluraltasuna,... Gatazka horien aurrean euskal gizarteak erakusten duen jarrera.
- Etikaren erronkak aro globalean (bigarren modernitatea). Hedabideak eta informazio-iturri orokorrak. Euskal Herriko hedabideen jokabidea.
- 70. hamarkadako kontrakultura mendebaldeko gizartean eta Euskal Herriko gizartean izan duen eragina.
- Zaintzaren etika. Habermas eta Apel.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Garrantzizko informazioa bilatu eta hautatzea.

## 4. MULTZOA. Justizia eta politika

- Gure munduko kontraesanak: pobrezia, erlijio-fanatismoa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna, ustelkeria, tirania, gerra, terrorismoa, indarkeria, bakea eta segurtasuna...
- Balio etikoak, Giza Eskubideak eta gure munduko kontraesanak.

- Oinarri demokratikoak, Giza Eskubide Unibertsalak eta legeetan jasotzeko modua. Konstituzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua. Pertsonen eskubideei buruzko legeak Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Arartekoaren egitekoak.
- Munduko gizarte-arazoen kausak eta efektuak lotzea.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.

## 5. MULTZOA. Balio etikoak, zuzenbidea, indarkeria politikoa

- Legeak gizarte-betebeharrak eta printzipio etikoak. Kontraesanak eta bateratzea.
- Legitimitatea eta legezotasuna.
- Indarkeriaz jokatzean legitimitatea, mugak, kontrola eta gehiegikeriak, demokrazian erakundeek arautu beharrekoa.
- Indarkeriazko erantzunak versus indarkeriarik gabeko disidentziak. Indarkeria terrorista eta giza eskubideen urratzea euskal kasuan.
- Terrorismoaren biktimez, indarkeriaz eta giza eskubideen urratzeaz datuak eta errealitatea. Biktimak aitortu eta kalteak konpontzeko legeak.
- ETaren terrorismoari buruz eta edozein terrorismo motari buruz, gerrari buruz eta giza eskubideen urratzei buruz memoria kritikoa izan beharra. "Gogora" Memoriaren, Elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen Institutua.
- Indarkeriari buruzko hausnarketa kritikoa Adi-adian programaren bidez, dokumentalen bidez, literaturaren bidez eta biktimengandik eta herritarrengandik Gogora-n jasotako testigantzen bidez.
- ETaren indarkeriaren amaiera. Elkarbizitzarako aro berria.
- Bakearen aldeko mugimenduak euskal gizartean eta euskal erakundeek eginiko lana.
- Nazioarteko erakundeak eta bakea.
- Goraka doan nazioarteko terrorismo berriaren ondorioak.

## 6. MULTZOA. Giza Eskubideak eta ongizate-estatua

- Giza eskubideen alde Gobernu kanpoko erakundeen (GKE) lana, Euskal Autonomia Erkidegoan: arrazakeria, homofobia, gizarte bazterketa, ekonomi bazterketa,... Genero indarkeriaren kontra Euskal Autonomia Erkidegoan ari diren erakundeak eta burutzen ari diren ekintzak. Berdintasun politikak taxutzen: EMAKUNDE.
- Ongizate-estatua. Euskal Herriko Administrazio Publikoek eskainitako zerbitzuak.
- Ongizate-estatua eta Giza Eskubideak.
- Zerbitzu publikoak finantzatzea. Euskal zerga-sistema.
- Zergak: elkartasuna, birbanaketa, betebeharrak zibiko-moral indibidual eta kolektiboak.
- Hitz egiteko arauak.
- Eztatutzeko arauak.
- Garrantzizko informazioa bilatu eta hautatzea
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.

- Ekimena azaltzea.
- Herritarren konpromiso demokratikoak eranstea.

## 7. MULTZOA. Balio etikoak eta zientziarekin eta teknologiarekin duten lotura

- Etika eta zientzia. Deontologia profesionala.
- Proiektu zientifiko eta teknologikoak ebaluatzeko irizpideak prestatzea.

### 5.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 5.2.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

##### 1. Pertsonaren kontzeptua eraikitzea eta norbanakoen aniztasuna eta pribatutasuna ezaugarri bat dela eta positiboa dela ulertzea.

- Pertsona-kontzeptua azaltzen du, haren esanahi etimologikoa eta Filosofiak ekarritako definizio batzuk aztertuz.
- Gizakiaren ezaugarri biologiko eta soziokulturalak zerrendatzen ditu, eta indibidualtasunaren ezaugarri espezifikoaren sorrera eta bilakaerarekin lotzen ditu.
- Pertsonaren duintasuna balioesten du, izaki autonomoa den heinean, "izaki morala" bihurtuta.
- Ikaskideekin komunikatzeko errespetuzko trebetasunak baliatzen ditu.
- Pribatutasuna zer den badaki eta onartu egiten du, duintasun pertsonalaren adierazpena den heinean.

##### 2. Norbanakoaren nortasunaren bilakaera faseak eta nerabezaroa etapa bereziak direla ulertzea, eta kide den taldeen ezaugarriak eta haiek kideekiko duten eragina deskribatzea, ohartzeko autonomia pertsonala eta bere jarreraren kontrola ezinbestekoa direla moralki hazten jarraitzeko eta helduen bizitzara igarotzeko.

- Hainbat iturritatik informazioa jaso du nerabe taldeen inguruan, baita talde horien ezaugarrien eta taldekideen jokabidea eratzean duten eraginaren inguruan, eta jasotako informazioarekin laburpen bat egiteko gai da.
- Castellsek gazteen nortasuna eraikitzeari buruz emandako interpretazioa (Informazioaren aroa) laburbiltzen du.
- Nerabearentzat autonomia pertsonala garatzeak eta bere jokabidea askatasunez hautatutako balio etikoei jarraiki kontrolatzeak duen garrantziari buruzko ondorioak ateratzen ditu.
- Nerabe izan arte nortasuna bilakatzeko prozesuari buruzko teoria psikologikoren bat azaltzen du.
- Nerabezaroaren ezaugarriak identifikatzen ditu bere inguruneke kasu jakin batzuetan.
- Nerabezaroan gertatzen diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzen ditu eta kontzientzia dauka.

- 3. Heteronomia eta autonomia zer diren jakitea, pertsonaren ikuspegi kantiarraren bidez, zer garrantzi duen ohartzeko eta bizitza moralean aplikatzeko.**
- "Pertsona"-kontzeptuaren ikuspegi kantiarra azaltzen du: subjektu autonomoa, bere arau moralak emateko gai dena.
  - Kanten honako ideia hau komentatzen eta balioesten du: pertsona, berez, helburu bat da, eta beraz, beste inork ezin dezake inola ere erabili harekin zerikusirik ez duten helburuak lortzeko.
  - Heteronomia- eta autonomia-kontzeptuak behar bezala maneiatzen ditu.
  - Moral autonomoa eta heteronomoa bereizten ditu.
  - Taldean, bataren eta bestearen adibideak hautatzen ditu.
  - Taldean parte hartzen du, autonomiaz eta asertibitatez.
- 4. Nortasunaren oinarrizko dimentsioak eta ezaugarriak deskribatzea, bai eta ohiturak sortzeko mekanismoa eta haien zeregina ere.**
- Nortasuna zertan datzan badaki, eta nortasuna eraikitzean eragina duten faktore genetiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak bereizten ditu.
  - Gizakiaren autodeterminazio-gaitasuna aintzat hartzen du.
  - Ohituraz jabetzeko prozesua eta haren funtzionaltasuna azaltzen du.
  - Ohiturak eguneroko bizitzan betetzen duen zereginari buruz eztabaidatzen du.
  - Jokabide zibikoa eta morala erregulatzeko mekanismoak proposatzen ditu.
  - Nortasunak, ohiturak eta morala lotzen ditu.
- 5. Gizakiak arrazoiz eta askatasunez jarduteak zer-nolako garrantzia duen justifikatzea, funtsezkoa den aldetik "nolakoa izan nahi duen" erabakitzeke eta bere nortasunean sartu nahi dituen balioak aukeratzeko.**
- Norbere egintzekin nortasunaren egitura eratzeko arrazoimenak eta askatasunak duten zeregin garrantzitsua deskribatzen du.
  - Zeregin hori bizitza pertsonalaren ardatz nagusietako bat dela hartzen du aintzat.
  - Proiektu txiki bat planifikatu eta gauzatzen du, norbanakoek zein gizarte-erakunde edo -instituzioek balio etikoen inguruan egindako hainbat proposamen detektatzeko.
  - Bere nortasunean sartu nahi duten balio etikoen zerrenda egiten du, eta hautaketaren arrazoiak azaltzen ditu.
  - Ikaskideekin eztabaidatzen du, egindako hautaketak argudiatuz.
- 6. Golemanen ekarpenetan oinarrituta aztertzea zer den adimen emozionala, gizakiaren morala garatzeko oso garrantzitsua dela aintzat hartzea, eta introspektzioa erabiltzeko gai izatea, bere barnean emozioak eta sentimenduak ikusteko, eta horrela, bere trebetasun emozionalak hobetzeko.**
- Adimen emozionala eta haren ezaugarri eta gaitasun emozionalak deskribatzen ditu, eta gizakiaren eraikuntza moralean duten garrantzia balioesten.
  - Adimen emozionalaren proposamen zehatz batzuk hautatzen ditu, praktikan jartzeko.
  - Emozioak eta sentimenduak zer diren azaltzen du, baita bizitza moralarekin nola lotzen diren azaltzen ere.



- Zenbait balio etikoren eta bere emozioak kontrolatzeko eta bere burua motibatzen gaitasunen (zintzotasuna, errespetua, zuhurtasuna, inpartzialtasuna, justizia eta jarraitutasuna) garapeneraren artean dagoen lotura ikusten du eta hari buruzko gogoeta egiten du, taldean.
  - Bere emozio, sentimendu eta gogo-aldarteei buruz hitz egiten du, bere burua hobeto kontrolatzeko eta bere burua motibatzen gauza izateko, bere jokabidearen jabe bihurtuta.
- 7. Gizakiaren gaitasunak ulertzeko eta balioesteko gai izatea, modu kontzientean eta nahita eragiteko bere identitatearen eraikuntzan, balio etikoei jarraituz.**
- Bere identitatea modelatzeko daukan gaitasunaz jabetzen da eta gaitasun hori estimatzen du, balio positiboetan oinarrituta, hala nola justizia, zintzotasuna, eskuzabaltasuna, errespetua, elkartasuna eta abar.
  - Bizi-proiektu bat irudikatzen du, izan nahi duen pertsona-ereduan eta jaso nahi dituen balio etikoetan oinarrituta.
  - Irudikapen hori idazki batean jasotzen du, eta beste ikaskideen irudikapenekin konparatzen du.
  - Taldekideekin eztabaidatzen du ea bizi-proiektu orok oinarrizko balio jakin batzuk bildu beharko lituzkeen.
  - Plan txiki bat proiektatzen du, bere gelaz aparteko foroetan eta beste pertsona batzuei eztabaida honen ondorioak planteatzeko.
  - Plan honen emaitza ebaluatzen du.
- 8. Gizakiaren dimentsio sozialaren eta moralaren oinarriak ezagutzea, gizakiaren eta gizartearen artean zer harreman dialektiko sortzen den jakitea, eta balio etikoak ardatz dituen bizitza soziala izatearen garrantzia aintzat hartzea.**
- Gizakia berez soziala izatearen **arrazoia** azaltzen du, eta horrek bere bizitza pertsonal eta moralean dituen ondorioak balioesten ditu.
  - Talde txikitan, norbanakoaren eta gizartearen arteko elkarrekiko eragina bereizten eta adierazten du.
  - Arrazoiak ematen ditu pertsonen arteko harremanak gidatzeko balio etiko batzuk ezarri beharra justifikatzeko, eta bere ekimen pertsonala erabiltzen du gai horri buruz atera dituen ondorioen aurkezpen grafikoa egiteko, euskarri informatikoak erabiliz.
  - Gizarte- eta kultura-inguruneak pertsonaren garapen moralean duen eragina deskribatu eta balioesten du, gizarte-eragileek betetzen duten zeregina aztertuz.
  - Sozializazio-prozesua, generoari dagokion sozializazioa barne, deskribatzen du, eta bizi den gizartearen jokabidea arautzen duten balio eta arau moralen barneratze indibidualean duen garrantzia balioesten du.
  - Taldekideekin elkarlanean, gizarte-eragileek (besteak beste, familia, eskola, lagunak eta komunikabide nagusiak) giza nortasunaren konfigurazioan nola eragiten duten aztertzen du, adibideak emanez, eskema bat eginez eta ondorioak atereaz, euskarri informatikoen laguntzarekin.

**9. Bizitza pribatuko eta bizitza publikoko eremuak (lehenengoa etikak arautzen du, eta bigarrena, zuzenbideak) bereiztea, norberaren askatasunaren eta askatasun sozialaren mugak zein diren jakiteko.**

- Bizitza pribatuaren eta publikoaren eremuak zehazten ditu, baita batean eta bestean giza askatasunak dauzkan mugak ere.
- Etikari eta Zuzenbideari dagozkion ekintza-eremuak bereizten ditu, eta ondorioak ateratzen ditu baliabide informatikoak erabiliz egindako aurkezpen baten bitartez.
- Gogoeta egiten du eremu pribatuaren eta publikoaren arteko harremanak sortzen duen arazoaren inguruan, eta bien artean balio-gatazka bat izateko aukeraren inguruan.
- Kasu horien adibideak ematen ditu, eta izan litezkeen konponbideak ematen ditu, etikan oinarrituta.
- Etikaren eta zuzenbidearen arteko lotura azaltzen du, bakoitzaren mendeko eremuak ezarriz.

**10. Jarrera asertiboa eta trebetasun sozialak erabiltzea, bere nortasunean bizitza sozial bidezkoagoa izateko beharrezkoak diren balio etikoak txertatzeko.**

- Jarrera asertiboa zertan datzan azaltzen du, portaera agresibo edo inhibituarekiko konparazioa eginez.
- Pertsonen arteko harremanetan, pertsonen duintasuna errespetatzea funtsezko printzipio morala dela onartzen du.
- Pertsonen arteko harremanetan, gizaki ororen eskubideak errespetatzen ditu: beste era batera sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko eskubidea, oker egiteko eskubidea, atsedenaldua edukitzeko, bizitza pribatua edukitzeko, bere erabakiak hartzeko etab., eta, bereziki, pertsona izateagatik soilik modu berezian balioetsia izateko eskubidea.
- Egiatzko edo asmatutako elkarrizketa laburretan zenbait gizarte-abilezia erabiltzen ditu, hala nola enpatia, entzute aktiboa, galdera asertiboa eta abar, besteekiko harremanetan gaitasun horiek naturaltasunez nola erabili ikas dezan.
- Pertsonen arteko komunikazioa errazteko teknika jakin batzuk lantzen ditu, hala nola ezetz esateko modu egokia, disko akastuna, lainogunea eta abar, teknika horiek menderatzeko, eta, behar denean, ongi erabiltzeko.
- Balio etikoek pertsonen arteko bidezko eta errespetuzko harremanak lortzeko duten garrantzia justifikatzen du.
- Zerrenda bat egiten du norbanakoaren eta gizartearen arteko harremanak gidatu behar dituzten balio etiko jakin batzuekin, hala nola erantzukizuna, konpromisoa, bakezaletasuna, leialtasuna, elkartasuna, zuhertasuna, elkarrekiko errespetua eta justizia, besteak beste.
- Pertsona orok bizitza, askatasuna eta segurtasuna arriskuan daukaten pertsona guztiei berehala laguntza eta sorospena emateko betebeharrak morala eta zibikoa duela nabarmentzen du, larrialdi egoeretan lehen laguntza emateko prest egonik, ahal duen neurrian.

**11. Eguneroko bizitzan (eskolan, etxean, lanean, kultura-jardueretan...) emakumeen eskubideak defendatzea eta gizonek dituztenekin parekatzea, emakumeak gutxiesten eta baztertzen dituzten jarrerak arbuizatzea eta genero-indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa hartzea.**

- Feminismoaren historia, izandako olatuak eta historian zehar eskuratutako lorpenak ezagutzen ditu.
- Emakunde zerbitzuaren eta koordinazioa eta berdintasuna eragiteko beste erakundeen ezaugarriak, funtzioak eta programak ezagutzen ditu.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna eragiteko eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan jarduten duten ekimenen arauak, planak eta programak laburbiltzen ditu.
- Autonomia-erkidegoak oro har, eta Hezkuntza Sailak bereziki, emakumea defendatzearen alde eta diskriminazioaren eta genero-indarkeriaren aurka bultzatutako programen lerro nagusiak laburtzen ditu.
- Emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasunaren aldeko jarrera argiak adierazten ditu.
- Hainbat eremutan (publizitatea, informazioa, txisteak, eskola eta abar) emakumeari buruz ageri diren gizarte-estereotipoak biltzen eta aztertzen ditu.
- Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzen ditu.
- Kultura-elementuen (estereotipoak, rolak eta abar) eta emakumeen diskriminazioaren arteko lotura azaltzen du.
- Genero-diskriminazioaren eta -indarkeriaren aurkako jardunak proposatzen ditu.

**12. Orientazio afektibo-sexual guztiak onartzea eta errespetatzea, pertsonak aukeratzen duten orientazioa gauzatzeko eskubidea defendatzea eguneroko bizitzan (eskolan, etxean, lanean, kultura-jardueretan, etab.), hura gutxiesten eta baztertzen duten jarrerak arbuizatzea, eta haien aurka gauzatzen den indarkeriarekiko aurkako jarrera aktiboa izatea.**

- Lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kolektiboei (LGBT kolektiboa) buruzko informazioa biltzen du.
- Haien aldarrikapenak laburbiltzen ditu.
- Ikaskideekiko eztabaida baten bitartez gogoeta egiten du LGBT kolektiboaren egoeraren inguruan eta eskolan zein gizartean duen ikusgaitasunaren inguruan.
- Emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasunaren aldeko jarrera argiak adierazten ditu, haien orientazio afektibo-sexuala edozein izanik ere.
- Hainbat eremutan (publizitatea, informazioa, txisteak, eskola eta abar) kolektibo horri lotutako gizarte-estereotipoak eta haren aurkako jokabide agresibo eta biolentoak bildu eta aztertzen ditu.
- LGBT kolektiboa gutxiestea, diskriminatzea eta/edo haren aurkako indarkeria sustatu eta justifikatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak gaitzesten ditu.
- Kultura-elementuen (estereotipoak, rolak eta abar) eta LGBT kolektiboaren diskriminazioaren arteko lotura azaltzen du.
- BERDINDU zerbitzuaren ezaugarri, eginkizun eta helburuak deskribatzen ditu.
- LGBT kolektiboaren aurkako diskriminazioaren eta indarkeriaren aurkako jardunak proposatzen ditu.

**13. Jarrerren eta hautuen arrazoiak ematea pertsonen arteko harremanetan, egoki komunikatzea, errespetuz, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazka-egoeratan.**

- Bere jokabidea eragingo luketen arrazoiak azaltzen ditu, ikaskideen arteko gatazka interpersonalei buruzko kasuak aztertuz.
- Sentimendu eta iritziak errespetuz komunikatzen ditu.
- Bitartekotza-teknikak eta gatazka eraldatzeko teknikak deskribatzen ditu.
- Ustezko gatazka-kasu bat lantzen du, eta bitartekotzarako eta eraldaketarako esku-hartze neurriak proposatzen ditu.
- Benetako gatazka-kasu bat bilatzen du, eta nola kudeatu den kritikatzten du.
- Gatazka-egoeretan elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzen du.

### 5.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

**1. Etika eta morala bereiztea, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak deskribatzea, eta hausnarketa etikoaren garrantzia balioestea, ezinbesteko jakintza praktikoa den aldetik gizakiaren jarrera modu arrazionalan gidatzeko, garapen osoranzko bidean.**

- Etikaren eta moralen arteko aldeak zein diren badaki, haien jatorriari eta xedeei dagokienez.
- Gogoeta etikoaren garrantzia justifikatzeko arrazoiak ematen ditu, gizakiaren bizitzan beharrezko jokabidea erakusteko gida arrazionala den heinean, eta arrazoi horien oinarrian dauden argudioak modu egokian adierazten ditu.
- Historian garrantzitsuak izan diren zenbait proposamen etiko azaltzen ditu.
- Haien artean egokiena iruditzen zaiona hautatzen du, eta egindako aukera argudiatzen du.
- Hautatutako etikatik jarraibide moralak ondorioztatzen ditu, bizitza pertsonalaren eta sozialaren hainbat eremutan aplikatzeko modukoak.
- Talde-elkarlanaren bitartez, euskal gizartearen printzipio moralak bereizten ditu, ahal baldin bada teoria etikoren batekin lotuz.

**2. Gizakiaren izaera morala zer den eta zer garrantzi duen nabarmentzea, haren garapenaren etapak aztertzea eta ohartzea beharrezkoa dela arau etikoak izatea, askatasunez eta arrazionaltasunez onartutakoak, bere jarrera gidatzeko.**

- Arrazionaltasunaren eta borondatearen garapenean eragina duten faktore biologiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak aztertzen ditu, bereziki hezkuntzaren zeregina, eta ondorioak argi eta garbi azaltzen ditu, euskarri informatiko eta ikus-entzunezkoen bidez egindako aurkezpen baten bitartez.
- Pertsonaren egitura morala zertan datzan azaltzen du: izaki arrazionala da, eta, beraz, bere jokabidearen eta jokabide horren ondorioen arduraduna.
- Garapen moralaren etapak azaltzen ditu Piageten eta Kolbergen teoriaren arabera, etapa bakoitzaren ezaugarriak azpimarratuz eta heteronomiatik autonomiara nola igarotzen den nabarmenduz.
- Kasu zehatzak proposatzen ditu bi teoria horiei buruzko adibideak emateko.

- Balioek bizitza pertsonalean eta sozialean betetzen duten zeregina aintzat hartzen du.
  - Balioak zer diren azaltzen du, haien ezaugarri nagusiak zein diren badaki, eta pertsonen bakarkako eta taldeko bizitzan duten garrantzia aintzat hartzen du.
  - Mota askotako balioen inguruko informazioa bilatu eta hautatzen du (erlijio-, afektibitate- eta bizi-balioak; balio intelektualak etab.).
  - Talde-lanean, balioen hierarkia egiten du, horren oinarri arrazionala azalduz, azalpen bat eginez baliabide informatiko zein ikus-entzunezkoak erabiliz, bizitza pertsonal zein sozialean balio etikoak errespetatzea funtsezkoa dela zabaltzeko helburuarekin.
- 3. Arau etikoaren kontzeptua ezagutzea, arau etikoen garrantziaz ohartzea eta zer ezaugarri dituzten, nondik datozen eta zer balio duten jakitea.**
- Arauaren eta arau etikoaren kontzeptuak definitzen du, arau moral, juridiko eta erlijiosoetatik eta beste arau mota batzuetatik bereiziz.
  - Erlatibismo / unibertsalismo morala dikotomia azaltzen du.
  - Dikotomia hori deskribatzen du Sokratesen eta sofistek arteko eztabaidaren bitartez.
  - Sofistika zer izan zen eta moralaren teoria erlatibista zer gertaera eta arazoitan oinarritzen zuen azaltzen du, eta teoria horrek pertsonen bizitzan eragiten dituen ondorioak aipatzen ditu.
  - Sokratesek horren inguruan zer iritzi zuen azaltzen du.
  - Erlatibismo eta unibertsalismo morala konparatzen ditu, teoria horiek gaur egun indarrean daudela aintzat hartuz eta bere iritziak emanez, iritzi horiek ongi argudiatuta.
  - Norbanakoarentzat zein komunitatearentzat balio eta arau etikorik ez izateak dakartzan ondorio negatiboetako batzuk nabarmentzen ditu, hala nola ustelkeria, agintekeria, zorrozkeria, elkartasunik eza, giza eskubideen urraketa eta abar.
- 4. Teoria etikoak helburuen etika eta prozedurazko etika deritzenetan banatzen direla jakitea eta haien ezaugarriak azaltzea.**
- Prozedurazko etiken bereizgarri batzuk aipatzen ditu, eta haietako batzuen (Apel edo Rawls) funtsezko elementuak azaltzen ditu.
  - Epikuroren teoria hedonistaren eta hark defendatzen dituen balio etikoen funtsezko alderdiak aipatzen ditu, xede-etika bat dela egiaztatzen duten ezaugarriak nabarmenduz.
  - Bi moralei dagozkien arau moralen zerrenda egiten du.
  - Ikaskideekin zerrenda bakarra adosten du.
  - Taldean, epikureismoaren eta prozedurazko etikaren aldeko eta kontrako argudioak prestatzen ditu, eta ondorioak azaltzen ditu dagozkien argudio arrazional eta guzti.
  - Eudemonismo aristotelikoaren alderdi nagusiak deskribatzen ditu, xede-etikatzat jotzen du eta gaur egun indarrean dagoela aintzat hartzen du.
  - Eudemenismoa hitzaren esanahia azaltzen du, baita Aristotelesen ustez zoriona zer den azaldu ere, goreneko ongia alegia; jarraian, ondorioak ateratzen eta adierazten ditu.
  - Aristotelesen proposamenari buruzko iritzia ematen du, egungo gizartean balioa ote duen adierazita.

- Aristotelesen eudemonismoa xede-etikaren kategoriaren barruan sailkatzeko arrazoiak ematen ditu.
  - Etika utilistaren elementu esanguratsuenetako batzuk deskribatzen ditu, xede-etika den heinean, eta Epikuroren hedonismoarekin lotzen du.
  - Planeamendu etiko horren inguruan duen balioespen pertsonala babesteko argudioak lantzen ditu.
  - Etika utilitaristaren funtsezko ideiak azpimarratzen ditu: baliagarritasun-printzipioa, plazer-kontzeptua, berekoikeria indibidualaren eta altruismo unibertsalaren arteko bateragarritasuna, eta balio morala ekintzaren ondorioetan kokatzea, besteak beste.
  - Utilitarismoa eta epikureismoa xede-etikak izatea eragiten duten ezaugarriak aipatzen ditu.
  - Argudio arrazionalak ematen ditu etika utilitaristaren inguruan duen iritzia babesteko.
- 5. Egungo gizarteetan gatazka moralak identifikatzea, haiei proposamen etikoetatik heltzeko.**
- Egun komunikabideetan gatazka moralei lotuta nabari diren egoerak identifikatzen ditu.
  - Egoerak taldean aztertzen ditu, eta teoria etikoetan oinarritutako eraldaketa-proposamenak egiten ditu.
  - Gatazka eraldatzeko kudeaketa-prozesua deskribatzen du, haren elementuak argi eta garbi adierazita: subjektua, biktima, jatorria, ikuslea etab.
- 6. Etika, politika eta justizia kontzeptuen arteko erlazioak ezagutzea, eta termino horiek aztertzea eta definitzea, John Rawlsen proposamena aintzat hartuta.**
- Rawlsek Etikaren, Politikaren eta Justiziaren arteko lotura ezartzeko ematen dituen arrazoiak azaltzen, konparatzen eta aintzat hartzen ditu.
  - Balio etiko eta zibikoen inguruko informazioa erabiltzen eta hautatzen du, eta haien artean dauden antzekotasun, desberdintasun eta loturak identifikatu eta aintzat hartzen ditu.
  - Bere ekimen pertsonala baliatuz, aurkezpen bat lantzen du euskarri informatikoaren laguntzarekin, historian zehar esanguratsua izan den teoria etiko baten inguruan.
  - Zenbait justizia-kontzeptu azaltzen ditu.
  - Haien arteko aldeak konparatu eta zerrendatzen ditu.
  - Taldean lan txiki bat egiten du Rawlsen ekarpenen eta beste teoria batzuekiko aldean inguruan.
- 7. Modu arrazionalen justifikatzea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak biltzen dituen balio eta printzipio etikoen beharra, XX. eta XXI. mendeetako demokrazien oinarri unibertsal moduan, eta haien ezaugarriak eta Zuzenbide Estatuarekin eta botere-banaketarekin dituen loturak adieraztea.**
- Argudio arrazional eta etikoak ematen ditu demokrazia hautatzeko bestelako gobernu moduen gainean dagoen sistema den heinean, demokraziak, bere printzipioen artean, Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsalean jasotako balio etikoak biltzen dituelako.
  - "Zuzenbide Estatuaren" kontzeptua definitzen du, eta gizarte demokratikoaren balio etiko eta zibikoen defentsarekin lotuta dagoela ezartzen du.

- Honako kontzeptu hauen esanahia deskribatzen du, baita haien arteko lotura ere: demokrazia, herritartasuna, subiranotasuna, autonomia pertsonala, berdintasuna, justizia, ordezkagaitasuna eta abar.
  - Montesquieuk proposatutako botere-banaketa eta botere legegileak, betearazleak eta judizialak Estatu demokratikoan betetzen duten funtzioa azaltzen du, botere politikoaren monopolioa saihesteko eta herritarrei Estatu kontrolatzeko aukera ematen dien bitartekoa den heinean.
  - Giza Eskubideak esanbidez aintzat hartzen eta onartzen ditu, boterearen eta herritarren arteko harreman-esparrua ezartzen duen lorpen historikoak diren heinean.
- 8. Herritarrek bizitza politikoan parte-hartze aktiboa izan behar dutela aitortzea, baldin eta demokraziak ez baditu giza eskubideak urratuko.**
- Euskal Autonomia Erkidegoan parte-hartzeko mekanismoei buruzko informazioa biltzen du (instituzioak, elkarteak boluntarioak).
  - Demokrazian parte hartzeko mekanismo guztiak bereizten ditu.
  - Politikan parte hartzeko mekanismoak kritikoki aztertzen ditu, eta haiek hobetzeko neurriak proposatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez batik bat.
  - Herritarrek demokrazia baliatzeko parte-hartze aktiboa izateko duten betebeharrak zibila onartzen eta azaltzen du, gizartearen barruan balio eta etikoak errespetatu daitezkeen.
  - Taldean gogoeta egiten du Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren balio etikoak errespetatzen ez direnean gobernu demokratikoetan ager daitezkeen arriskuen inguruan, hala nola populismo demagogikoa, gehiengo zapalketa eta herritarren parte-hartze urria, besteak beste, eta arrisku horiek saihesteko neurri batzuk ere proposatzen ditu.
- 9. Legeak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko printzipio etikoei egokitzen zaizkiela adieraztea eta horren garrantziaz ohartzea.**
- Proposatutako lege batzuk Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalera nola egokitzen diren badaki eta egokitzapen hori aintzat hartzen du.
  - Herritarrek legeetatik eratorritako dauzkaten betebeharrak azaltzen eta onartzen ditu.
  - Arrazoiak ematen ditu herritarren beren eskubideez ez ezik, beren betebeharrak zibiko, juridiko eta etikoez ere jabetzeak demokraziaren funtzionamendu egokirako daukan garrantzia justifikatzeko.
  - Herritarren zerga-erantzukizuna zer den badaki eta aurrekontu orokorrekin lotzen du, guztion ongiaren garapenerako mesedegarria den betebeharrak etikoa den heinean.
- 10. EBren funtsezko osagai-elementuak ezagutzea, EBk estatu kideei eta haietako herritarrei zer onura ekarri dizkien eta haiek zer erantzukizun hartu dituzten aztertzea, ikaslea ohartzeko EB onuragarria dela eta hainbat gauza lortzen ari dela.**
- EBri dagokionez, integrazio ekonomiko eta politikoa, 1951tik izan duen garapen historikoa, eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren arabera oinarritat dituen balio etikoak deskribatzen ditu.
  - EBk lortutakoaren garrantzia eta lorpen horiek herritarren bizitzarako ekarri dituzten onurak zein diren badaki eta aintzat hartzen ditu, hala nola mugak eta aduanamurrizketak ezabatzea, pertsona eta kapitalen zirkulazio askea eta abar, eta alor guztietan (ekonomia, politika, segurtasuna eta bakea, etab.) hartutako betebeharrak bereizteko gai ere bada.

**11. Diskurtso sozial eta politiko bat lantzea, ongi oinarritua, kritikoa eta gizarte demokratikoaren balioekin konprometitua.**

- Idatziz, moralaren, demokraziaren eta legeen arteko loturari buruzko proposamen bat azaltzen du.
- Bere diskurtsoa eragiten duten arrazoi eta oinarriak azaltzen ditu.
- Bere diskurtsoan sartzen ditu balio demokratikoak arautzen dituzten printzipioak.

### 5.2.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

**1. Etikaren, politikaren eta justiziaren arteko loturak azaltzea, haien arteko antzekotasunak, desberdintasunak eta erlazioak adierazita, eta legalitatea eta legitimitatea terminoen esanahia jakitea.**

- Web orrietan informazioa bilatzen eta hautatzen du, Etikaren eta Zuzenbidearen artean dauden aldeak, antzekotasunak eta loturak identifikatzeko.
- Legalitatea eta legitimitatea bereizten ditu.
- Etika, legalitatea eta legitimitatea erlazionatzen ditu.
- Taldean dilema moral bati buruz eztabaidatzen du, etikoki onargarria bada ere legez kontrakoa den ekintza bat eta alderantzizko beste kasu bat barne.
- Dilema horretan zer jarrera hartuko lukeen adierazten du, eta zergatik azaltzen du.

**2. Arau juridikoen justifikazioaren arazoa azaltzea, zuzenbide naturalaren edo iusnaturalismoaren, konbentzionalismoaren eta positibismo juridikoen teoriak aztertuz, eta zenbait filosoforen pentsamendu juridikoan nola aplikatu den jakitea, legeen oinarri etikoari buruzko iritzi arrazoitua eratzen joateko.**

- Bere ekimenari jarraiki, taldean aurkezpen bat lantzen du, euskarri digitalean, "Zuzenbidearen teoria iusnaturalistaren" inguruan.
- Pentsamolde sofistak physisaren eta nomosaren artean egiten duen bereizketa nabarmentzen eta balioesten du, horrek konbentzionalismo juridikoari egindako ekarpena deskribatuz eta gai horri buruzko ondorio arrazoituak atarez.
- Kelsenen positibismo juridikoari buruzko informazioa aztertzen du, nagusiki horrek darabiltzan arau eta irizpideen balioari dagokionez, eta bereziki efikaziaren irizpideari eta Etikaren eta Zuzenbidearen arteko loturari dagokionez.
- Bere espiritu ekintzailea eta ekimen pertsonala baliatzen du aurkezpen bat egiteko baliabide informatikoen eta taldekideen laguntzarekin, Zuzenbidearen hiru teoriak konparatuz eta ondorioak azalduz.
- Hiruetatik bat aukeratzen du, eta aukera hori egiteko arrazoiak azaltzen ditu.
- Gizarte-bizikidetzarako hiru teorietatik mesedegarriena zein izango litzatekeen ebaluatzen du, adibide zehatzak jarritz.

**3. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta NBE eratzea sustatu zuen une historikoa eta politikoa aztertzea, ulertzeko bere garaian beharrezkoa izan zela eta gaur egun ere balio baduela, zuzenbidearen eta estatuen legitimitatearen oinarri den aldetik.**

- Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsalaren eginkizuna azaltzen du: "kode etiko" bat da, NBEko kide diren herrialdeek onetsi dutena mundu osoan justizia, berdintasuna eta bakea sustatzeko helburuarekin.



- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren sorrera eragin zuten gertaera historiko eta politikoei buruzko informazioa kontrastatzen du, besteak beste, ideologia arrazisten erabilera, talde nazionalen etnia- eta arraza-nagusitasuna aldarrikatzen zutenak judutarren Holokaustoa ekartzera, eta etnia, eredu fisiko, erlijio edo ideia politiko jakin batzuk ez zeuzkaten guztiak diskriminatu eta suntsitzera.
  - NBERen sorrerak izan zituen helburuak eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala sinatu zen eguna adierazten du, eta gertaera horrek gizateriaren historian izan duen garrantzia aintzat hartzen du.
  - Giza Eskubideak portaeraren erreferentzia pertsonal eta sozialtzat eta ekintza politiko eta legegilearen erreferentziatzat jotzen ditu.
  - Euskal Autonomia Erkidegoan izandako giza eskubideen urraketen erregistro moduko bat egiten du, taldean.
  - Urraketa horiek saihesteko eta giza eskubideak bete daitezela ahalbidetzeko mekanismoak proposatzen ditu.
- 4. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak zer eduki eta egitura dituen jakitea eta haiek ongi interpretatzea, balioetsi eta errespetatu egin behar dela ulertzeko.**
- Eskema bat egiten du Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren egitura azaltzeko. aldarrikapenak sarrera bat eta 30 artikulua ditu, honela sailka daitezkeenak:
    - 1. eta 2. artikulua pertsona orori dagozkion eskubideei buruzkoak dira, hau da, askatasunari, berdintasunari, senidetasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoak.
    - 3.-11. artikulua norbanakoaren eskubideei buruzkoak dira.
    - 12.-17. artikuluetan norbanakoak komunitatearekiko dauzkan eskubideak ezartzen dira.
    - 18.-21. artikuluetan eskubide eta askatasun politikoak jasotzen dira.
    - 22.-27. artikuluetan eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak jasotzen dira.
    - Azkenik, 28.-30. artikuluetan aurreko eskubide guztiak interpretatzen dira, eta haiek baliatzeko beharrezko baldintzak eta dauzkaten mugak azaltzen dira.
  - Bere ekimena baliatuz, kanpaina bat egiten du, taldekideekin elkarlanean, bere eskola-, familia- eta gizarte-ingurunean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala Zuzenbidearen eta demokraziaren oinarria dela hedatzeko.
- 5. Giza eskubideen bilakaera historikoa gizateriaren lorpenetako bat dela ulertzea, munduaren leku askotan emakumeen eta haurren eskubideak ezin direla gauzatu ulertzea, eta egoera horiek aintzat hartzea eta zergatik gertatzen diren jakitea, haiei konponbidea eman dakien sustatzeko.**
- Giza eskubideen garapen historikoan eragin handiena izan duten gertaerak deskribatzen ditu. Lehenik eta behin, lehen belaunaldikoak: eskubide zibil eta politikoak; jarraian, bigarren belaunaldikoak, hau da, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak; eta, azkenik, hirugarren belaunaldikoak, edo herrien elkartasunerako, garapenerako eta bakerako eskubideak.
  - Feminismoaren historia eta egindako borrokari esker historian zehar eskuratutako lorpenak ezagutzen ditu.

- Arrazoiak ematen ditu emakumeen eskubideen arazoaren jatorri historikoaren inguruan, eta genero-indarkeria eta -desberdintasuna eragin duten eredu ekonomiko eta soziokulturalak bereizten ditu.
  - Sexu diskriminazioa esanbidez gaitzesten du.
  - Haurren eskubideen defentsan jardun beharra justifikatzen du, eta, beraz, XXI. mendean jasaten duten indarkeria eta abusuaren aurka borrokatu beharra, hau da, sexu-abusuen, haurren lanaren, haur soldaduen aurka etab.
  - Taldekideekin elkarlanean, kanpaina bat lantzen du bere familia-, eskola- eta gizarte-ingurunean emakumeen ~~aren~~ diskriminazioaren eta emakumeei buruzko genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko, eta lortutako emaitzak ebaluatzen ditu.
- 6. Gaur egun Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala aplikatzeak zer arazo dakartzan jakitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideak babesten eta haiek gauzatzeko aukerarik ez dutenei laguntzen diharduten erakundeen eta GKEen lana balioestea.**
- Hainbat iturritatik lortutako informazioa erabiliz, eskubide politikoak baliatzeari dagokionez Giza Eskubideen aldarrikapen Unibertsalaren aplikazioak aurre egin beharreko arazo eta erronkak ikertzen ditu: gerrak, terrorismoa, diktadurak, genozidioa, errefuxiatu politikoak eta abar.
  - Halaber, eskubide zibilak baliatzeari dagokionez, arlo horretan Estatuaren autoritarismoarekin zerikusia duten arazoak nabarmentzen direlarik.
  - Orobat, gizarte-bazterketari dagokionez: ekonomikoa, kulturala, hizkuntza-arloan, klasekoa.
  - Baita emakumearen diskriminazioari eta genero-indarkeriari dagokionez ere.
  - Era berean, homofobiari, transfobiari eta sexu-diskriminazioko beste jarrera eta jokabide batzuei dagokienez.
  - Edota arrazakeriari eta xenofobiari dagokienez.
  - Informazioa biltzen du Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek zein elkarte, GKE eta beste erakunde batzuek berdintasunaren alde eta aipatutako diskriminazioen aurka abian jarritako ekimenen inguruan.
  - Eusko Jaurlaritzak oro har eta Hezkuntza Sailak bereziki diskriminazio horiei aurre egiteko sortutako programak aztertzen ditu: bizikidetza-programak, baterako hezkuntzako programak, bakearen aldeko eta indarkeria politikoaren aurkako programak, berdintasunaren aldeko eta homofobia eta transfobiaren aurkako programak, genero-indarkeriaren aurkakoak, gutxiengo etnikoen aldekoak etab.
  - Eskubide eta betebeharren berdintasunaren aldeko jarrera argiak adierazten ditu, diskriminazioa edo giza eskubideen urraketa dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak gaitzetsiz.
  - Elkarlanean, mundu osoan Giza Eskubideen alde diharduten erakunde, GKE eta boluntarioen (besteak beste, Amnesty International, Manos Unidas, Mugarik gabeko Medikuek eta Caritas) lanari buruz ikertzen du, eta jarraian ondorioak ateratzen eta adierazten ditu.
  - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz eta emakumeen aurkako indarkeriari buruz jarduten duten erakundeen eta nazioarteko arauari eta adierazpenei buruzko informazioa biltzen du.

**7. Dimentsio moralak zientzian eta teknologian zer zeregin eta eragin dituen jakitea, eta muga etikoak eta juridikoak ezartzeko beharraz hausnartzea, haien jarduera Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak sustatzen dituen balioekin bat etor dadin.**

- Hainbat iturritatik informazioa bildu eta erabiltzen du zientziaren eta teknologiaren dimentsio morala aztertzeko, haiek giza bizitzaren eremu guztietan (adibidez, gizartean, ekonomian, politikan, etika eta erlijioan, besteak beste) eduki dezaketen inpaktu positiboa eta negatiboa ebaluatuz.
- Ikerketa eta praktika zientifiko eta teknologikoari muga etiko eta juridikoak ezarri behararen inguruan hartu duen jarrera oinarritzeko argudioak ematen ditu, giza duintasuna eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotako balio etikoak irizpide arauemaile gisa hartuz.
- Bere ekimenez, aztertutako gaiari buruz atera dituen ondorioak azaltzen ditu, baliabide informatiko eta ikus-entzunezkoak erabiliz, argudio egokiak emanez eta argudio horiek ongi antolatuz, arrazoibideari jarraiki.
- Berekin zalantza etikoak ekar litzakeen ikerketa zientifiko jakin bati buruz eztabaidatzen du.
- Teknodedependentziak gizakiarentzat dakarren arazoa eta arriskua zein diren badaki, haren sintoma eta kausak adierazten ditu, eta haren ondorio negatiboak aintzat hartzen ditu, batez ere gailu elektriko, bideojoko eta sare sozialen kontrolik gabeko adikzioa, pertsonen pixkana-pixkana gizatasuna kentzen dien neurrian.

**8. Zientziaren eta teknologiaren arloan erabiltzea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean bildutako balio etikoak, desegoki aplikatu ez daitezkeen, eta zenbaitetan, medikuntzaren eta bioteknologiaren arloan bereziki, sortzen diren dilema moralak ebaz daitezkeen.**

- Hainbat iturritatik hautatutako informazioa aztertzen du, dilema moralak ekar ditzaketen medikuntza- eta bioteknologia-aurrerapen batzuen berri izateko.
- Gai horiek giza eskubideen muga zenbateraino gaindi dezaketen balioesten du.
- Ideiak eztabaidatzean eman daitezkeen iritziak errespetatzen ditu.
- Aurrerapen mediko edo bioteknologiko baten aplikazioak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak onetsitako eskubide baten urraketa ekar lezakeela aintzat hartuta, anbiguotasun horretan oinarritutako kasu zehatz bati buruzko eztabaidan parte hartzen du.

**9. Onartzea ikerketa zientifikoa ez dela neutrala eta interes politikoek, ekonomikoek eta bestelakoek hari eragiten diotela, eta ondorio horretara iristea aurrerapenaren ideia eta haren interpretazio teknokratikoa aztertu ondoren, ikerketa zientifikoaren helburuak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean oinarritutako kode etikoarekin bat ez datozen egoeretan.**

- Hainbat ikerketa zientifiko eta teknologiko ez datoz bat Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren kode etikoekin, edota ez dira kode horiei jarraiki egiten, eta horrenbestez, inpaktu negatiboak dituzte gizakiontzat eta ingurumenarentzat. Elkarlanean, horrelako kasu batzuei buruzko informazioa lortzen eta hautatzen du ikasleak, eta haien kausak adierazten ditu.
- Elkarlanean, zientziaren “aurrerapenaren” ideiarekin inguruan hitz egiten du, baita ideia horren eta balio etikoekiko, giza duintasunarekiko eta ingurunearekiko errespetuaren arteko loturaren inguruan ere, eta horren haritik ondorioak ateratzen eta azaltzen ditu.

- Taldekideekin elkarlanean, informazioa hautatzen eta egiaztatzen du zientzia eta teknologiaren aplikazio neurrigabea ingurumenean eta bizitzan eragiten ari den mehatxuetako batzuen inguruan, hala nola baliabide naturalen kontrolik gabeko ustiapena, habitaten suntsiketa, kutsadura kimiko eta industrialak, euri azidoa, klima-aldaketa, basamortutzea etab.
- 10. Interneten bidez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eremu pribatuan sartuz erabiltzeak dakartzan arriskuak azaltzea; esaterako, hirugarrenek datu pertsonalen erabilera okerra egitea, cibervillekinga, sextinga, pederastia eta abar.**
- Datu pribatuen babesari buruzko protokoloak zein diren badaki.
  - Nortasun-ordezte elektronikoarekin zerikusia duten kasuak aztertzen eta balioesten ditu.
  - Sarearen bidezko jazarpen eta eraso modu batzuk deskribatzen ditu.
  - Cibervillekingaren arrisku eta ondorioak aztertzen eta balioesten ditu.
  - Bere buruari eta hirugarren pertsonari buruzko informazioa tratatzen du datu pertsonalak babesteko eskubideari lotuz eta zuhur jokatzuz Internetek eta baliabide elektronikoaren bidezko komunikazioak ekar ditzaketen arriskuei dagokienez.

#### 5.2.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

- 1. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean oinarrituta, herritarren eta estatuaren arteko harremanak arautu behar dituzten printzipioak azaltzea, gizartean haien gauzapena sustatzeko.**
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Pertsonalaren 12.-17. artikuluetan ezarritakoaren arabera, norbanakoaren eskubideak azaltzen ditu, hain zuzen ere Estatuak norbanakoarekiko harremanetan errespetatu eta sustatu behar dituen eskubideak.
  - Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak Estatuari 18.-21. artikuluetan ezartzen dizkion mugak azaltzen ditu. Zehazkiago, Estatuak herritarrei babestu eta errespetatu beharreko askatasunak jaso dira artikuluko horietan.
  - Bere ekimenez, aurkezpen bat lantzen du euskarri informatikoa eta ikus-entzunezkoa erabiliz, gaian landutako eduki bikainenak nabarmenduz eta ondorioak emateko argudio egokiak baliatuz.
  - Herritarrek beren eskubide eta betebeharren (besteak beste, balio etiko eta zibikoaren defentsa, ondasun eta zerbitzu publiko guztien zaintza eta kontserbazioa, ordezkari politikoaren hautaketan parte hartzea, ideia eta sinesmenen errespetua eta aniztasuna, legeak eta auzitegien epaiak bete beharra, eta ezarritako zergak ordaindu beharra, besteak beste) berri izateak eta haiek betetzeak demokraziarako eta justiziarako duen garrantzia aintzat hartzen du.
- 2. Garaiko fase historikoari, bigarren modernitateari, buruz egiten diren interpretazioak eta hark bizitza-proiektua eraikitzean duen eragina ezagutzea.**
- Zenbait interpretazio- proposamenari buruzko informazioa bilatzen du.
  - "Nahitaezko indibiduoari" buruzko testuak irakurri eta aztertzen ditu, eta haietatik ondorioak ateratzen ditu.
  - Interpretazioak laburtzen ditu.

- Laburpen bat egiten du proposamen horietako bakoitzaren alderdi esanguratsuen inguruan, eta egokiena zein iruditzen zaion argudiatzen du.
  - Eztabaida egiten du garapen historikoaren egungo zirkunstantzietan bizi-proiektu bat eraiki beharraz.
- 3. Sozializazio globala zer den eta komunikabide globalekin zer lotura duen azaltzea, aintzat hartzea zer eragin dituen pertsonen eta gizartearen bizitzan eta garapen moralean, eta hausnartzea etikak zer zeregin izan behar duen globalizazioaren garaian.**
- Hainbat balio, arau, ohitura eta abar barneratzea dakarren sozializazio globaleko prozesua deskribatzen eta ebaluatzen du.
  - Sozializazio globaleko fenomenoak balio etiko kosmopolitetatik aparte garatzeak dakartzan arriskuak aipatzen ditu, gai horretan muga etiko eta juridikoak ezarri behar diren inguruan eztabaidatuz.
  - Komunikabide globalek pertsonen eta gizartearen bizitza moralean duten inpaktuaren inguruan hitz egiten du, bere iritziak zorrotasun intelektualez emanez.
  - Komunikabide handien erabilerari dagokionez erregulazio etiko eta juridiko bat ezarri beharra hartzen du aintzat, herritarren informaziorako eta adierazpen-askatasunerako eskubidea errespetatuz.
  - Taldean, erregulazio etiko eta politiko bat ezarri ezean globalizazioaren fenomenoak gizakiarentzat ekar ditzakeen ondorioei (bizitzaren kontrola galtzea, egozentrismo soziala, desberdintasunak, interdependentzia, gatazka armatuak nazioartekotzea, eta kontsumismoa eta giza askatasunaren galera sustatzen duten interes ekonomikoek baldintzatutako kultura-ereduen inposizioa, besteak beste) buruz hitz egiten du eta gogoeta egiten du.
- 4. Giza eskubideak betetzen direla bermatzeko, munduan giza ekintzaren arlo berriak etikoki arautzea ezinbestekoa dela debatitzea.**
- Arrazionaltasunez justifikatzen eta aintzat hartzen du hausnarketa etikoa garrantzitsua dela XXI. mendean, giza eskubideak babesteko interes politiko eta ekonomiko handiek eta Estatu eta talde biolentoei ekar dezaketen arriskuaren aurrean, kontuan hartuta maila zientifiko eta teknologiko handiko armak dauzkatala eskura, eta, horrenbestez, pertsonen funtsezko eskubideak benetan kolokan jar ditzaketela.
  - Proposamen “kosmopolitaren” (U. Beck) inguruko testuak irakurtzen eta interpretatzen ditu.
  - Kosmopolitismoaren berezko ikuspegi kritikoari buruz hitz egiten du, bigarren modernotasunaren testuinguru historikoan unibertsalismoa-erlatibismoa dikotomiaren alternatiba den heinean.
  - Bazterketa-kasu zehatzak aztertzen ditu, ikuspegi kosmopolitatik helduta.
  - Ikuspegi politiko horrek bere jarrera moralerako dauzkan ondorioak azaltzen ditu.
  - Etika zer arlo berritan aplikatzen den adierazten du, besteak beste, profesionalean, bioetikan, ingurumenean, ekonomian, enpresan, zientzian eta teknologian, besteak beste.

**5. Diskurtsoaren etika, Habermas eta Apel filosofoena, etika formala dela jakitea, komunitatean elkarriketaren eta adostasunaren balioa nabarmentzen duena, arau etiko justuak eratu ahal izateko.**

- Etika formalen bereizgarriak definitzen ditu, eta etika materialekin zerikusia dutenekin konparatzen ditu.
- Diskurtsoaren Etika etika formal gisa sailkatzea justifikatzen du, eta formulatzen duen agindu kategorikoa zertan datzan azaltzen du.
- Agindu horren eta Kanten etikaren araberrako aginduaren arteko antzekotasun eta desberdintasunak zein diren badaki.
- Elkarriketa eta adostasuna aplikatzen ditu dilema moralen deliiberazioan.
- Bere ekimenez eta ekintzaile-senez, etika formalen inguruko aurkezpena egiten du euskarri informatikoaren laguntzarekin, oinarritutako ondorioak landuz eta adieraziz.

**6. Gaur egungo munduko gizarte-arazo nagusiak (pobrezia, herrialde aberatsen eta pobreen arteko harremanak, gerrak, demografia, degradazio ekologikoa, espezieak desagertzea, etab.) zerk eragiten dituen aztertzea, komunikabideek ematen duten informazioa modu kritikoa erabiltzea, eta bizimodu justuagoa lortzeko zer irtenbide dauden jakitea.**

- Munduko gizarte-arazoei buruzko informazioa, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei eta emakumeen aurkako indarkeriak sortzen dituen arazoei buruzkoak barne, biltzen du.
- Informazio horretatik abiatuta, gizarte-arazoen kausetako batzuk identifikatzen ditu.
- Begirada kosmopolita aplikatzen du kausak aztertu eta konponbideak proposatzeko.
- Garapen jasagarriaren ideia (norbanakoaren bizitzan eta gizartean oro har) gizarte-arazo horien konponbidearekin lotzen du.
- Munduko gizarte-arazoen konponbidean gobernuek eta gizarte-eragileek betetzen duten zeregina etikoki balioesten du.
- Euskal Autonomia Erkidegoko herritar jakin batzuek arazo horietan eta egoera hobetzeko esku-hartzeetan eduki dezaketzen erantzukizunari buruz eztabaidatzen du.

**7. Legeak giza eskubideen erabilera bermatzeko ezinbestekoak direla ohartzea, dilema moral batzuek mintzatzea, betebeharraren artean gatazka sortzen den dilema moralez, eta bereziki, desobedientzia zibilaz eta kontzientzia-eragozpenaz, eta iritziak arrazionaltasunez argudiatzea.**

- Legeen xedea, ezaugarriak eta justifikazio etikoa azaltzen du, haien legitimitatearen eta obedientziaren oinarria den heinean.
- Norbanakoaren balio eta printzipio etikoen eta ordena zibilaren balio eta printzipioen arteko gatazken konponbideari buruz eztabaidatzen du, arrazoitutako konponbideak planteatuz desobedientzia zibileko eta kontzientzia-eragozpeneko kasuetan adibidez, herritar guztiek bete beharreko Estatuko legeei men ez egitea dakarten neurrian.
- Entsegu pertsonal bat egiten du eztabaida horretan duen jarreraren inguruan.

**8. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala uko egin ezin diren ideia multzo moduan ikustea, haren aplikazioan zer gabezia dauden kontuan izatea, arlo ekonomikoan eta sozialean, batez ere, eta munduan giza eskubideen alde egiten duten erakundeak eta boluntarioak oso garrantzitsuak direla adieraztea, giza eskubideak gauzatzeko aukerarik ez dutenei laguntzen baitiete.**

- Arrazionalki justifikatzen du giza eskubideak oso garrantzitsuak direla gizarte eta Estatuek lortu beharreko idealak diren neurrian..
- Oraindik ere gaingitzeke dauden erronkak deskribatzen ditu.
- Eskubide ekonomikoak baliatzean indarrean dauden gabezieta batzuk aipatzen ditu, esate baterako pobrezia; hezkuntza, osasuna, enplegua, etxebizitza eskuratzeko ezintasuna etab.
- Giza Eskubideekin bat datozen zenbait neurri proposatzen ditu gabezia horiek arintzeko.
- Aurkezpen bat egiten du, euskarri informatiko eta ikus-entzunezkoaren laguntzarekin, mundu osoan Giza Eskubideen defentsaren eta errespetuaren alde lanean diharduten erakunde eta boluntarioen inguruan, hala nola NBE eta haren mendeko erakundeak, besteak beste, FAO, EANA (Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia), OME (Osasunaren Mundu Erakundea), UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea), eta hainbat GKE, hala nola Greenpeace, UNICEF, Ilargi Gorria eta abar, baita Nazioarteko Auzitegia eta Europar Batasuneko Auzitegia, besteak beste.

**9. Terrorismoaren, bortizkeriaren eta giza eskubideen urraketaren biktimekiko sentikorra izatea, eta haiekiko elkertasuna, enpatia eta hurbiltasuna adieraztea.**

- Hainbat biktimaren adierazpenen berri izan du komunikabideen eta Interneten bitartez.
- Adi-adian programa zer den badaki, eta, hala badagokio, programa hori egitea proposatzen du.
- Injustizia eta biktimen eta biktimen familien sufrimendua zer den badaki.
- Biktimaren tokian jartzen da, eta jasandako erasoak haren bizitzan duen inpaktu suntsitzailea irudika dezake.
- Biktimekiko elkertasuna sentitzen du, haien artean diskriminaziorik egin gabe eta biktima batzuk beste biktima batzuekin justifikatu gabe.
- Ondorioak ateratzen ditu biktima guztiei dagokien egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidearen inguruan.
- Giza Eskubideen nazioarteko erakundeetara jotzen du biktimei buruzko informazioa bilatu eta biltzeko.
- Ondorioak ateratzen ditu biktimei jasandako mina erreparatzeko moduaren inguruan.

**10. Ongizate-estatuko euskal eredia aintzat hartzea, balio etikoekin eta Giza Eskubideekin erlazionatuz.**

- Administrazio Publikoek euskal gizarteari eskaintzen dizkieten zerbitzuak eta haien finantziazioa (gastu eta diru-sarrera publikoak) deskribatzen du.
- Gizartearen ongizate-eredua mantentzeko eta pertsonak zaintzeko, emakumeek gehien batean, familiaren eremu pribatuan betetzen duten funtzioaren garrantzia ezagutzen du.

- Zerbitzu horiek Giza Eskubideen eskakizun etikoekin lotzen ditu, korrespondentziak ezarriz.
  - Norbanakoak eta kolektiboak zergen bitartez ongizateari eusteko duten erantzukizunari buruz eztabaidatzen du.
  - Euskal ongizate-ereduari eusten dioten printzipioak azaltzen ditu; elkartasuna, birbanaketa, berdintasuna (baldintza pertsonalen arabera) etab.
- 11. Jakitea zer irizpide balia ditzakeen proiektu zientifikoak eta teknologikoak modu kritikoan eta hausnartuz ebaluatzeko, eta giza eskubideak eta gizateriaren balio etikoak errespetatzen dituzten jakiteko.**
- Informazioa hautatu eta erabiltzen du proiektu zientifiko eta teknologikoen bideragarritasuna aintzat hartzeko kontuan hartu beharreko irizpide batzuk aurkitzeko, lortu beharreko helburuen egokitasun etikoa eta haien aplikazioak izan ditzakeen arrisku eta ondorio pertsonal, sozial eta ingurumenekoak ebaluatu beharra kontuan hartuz.
  - Ikaskideekin oinarrizko hainbat irizpide adosten ditu.
  - Zientifiko, teknologo eta beste hainbat profesionali etika deontologiko bat betearazi beharraren inguruan eztabaidatzen du.
  - Lan-, finantza- eta enpresa-munduan balio etikoen aplikazioa positiboa dela uste du.



## 5.3. EKONOMIA

### 5.3.1. HELBURUAK

Hauek dira etapako helburuak Ekonomia ikasgairako:

1. **Zientzia ekonomikoaren oinarriak eta oinarrizko terminologia jakitea, eta ekonomiak enpresen eta pertsona fisikoen eguneroko bizitzan dituen ondorioak aintzat hartzea. Horren helburua da etxeko ekonomiako eta enpresako ekonomiako ohiko egoerei ongi eta irizpide egokiez aurre egitea.**
2. **Enpresa baten egituraren ezaugarri nagusiak aztertu eta interpretatu, bereizi eta balioestea, enpresaren berezko alderdi teknikoak eta sozialak zein diren jakiteko.**
3. **Norberaren alternatiba ekonomikoak planteatu, aurrekontuak diseinatzea eta kontsumitu edo aurreztu aukeratzea, norberaren antolaketa ekonomikoak balioesteko, eta finantza-merkatuak horretarako eskura jartzen dituen tresnak ere bai.**
4. **Administrazio publikoek pertsonen eta enpresen bizitza ekonomikoan zer eragin duten jakitea, eta haren zerga-sistema eta gizarte-ongizatean duen eragina jakitea. Horren helburua da errentaren birbanatze-eginkizunaz jabetzea eta ohartzea zer zerga-betebehar ditugun herritar garenez.**
5. **Magnitude ekonomiko nagusiak interpretatzen jakitea, dagozkion kalkulu matematikoak eginez, eta grafiko bidez identifikatzea, jakiteko zer alternatiba dauden aukeran arazo ekonomikoak eta sozialei konponbidea emateko eta garapen iraunkorra lortzeko.**
6. **Globalizazio ekonomikoak zer ondorio dituen aintzat hartzea, eta haren abantailak eta desabantailak irizpide kritikoz azaltzea, egungo gertaera ekonomikoak globalizazioaren ingurune horretan aztertzeko.**

### 5.3.2. EDUKIAK

#### 5.3.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Ekonomia ikastea eta ekonomiako prestakuntza izatea behar beharrezkoa da gure hezkuntza-sistemako etapa honetan, harreman ekonomikoak gero eta konplexuagoak baitira, baina,aldi berean, ekonomia gero eta gehiago agertzen baita eguneroko bizitzan, gero eta lehenago gainera. Hori dela eta, herritar orok gertaera ekonomikoak azaltzen dituzten oinarrizko arauak jakin behar ditu, bai eta ekonomian erabiltzen den lexiko espezifikoa ere. Errealitatea ezin da ulertu kontuan hartu gabe pertsonok gure premiak asetzeko ahaleginean izaten dugun portaera ekonomikoak, berau oso oinarrizkoa izan arren ikasgai honen xede diren ikasleetan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa honetan, ekonomia ikasteak inguratzen duen mundua hautematen eta ezagutzen laguntzen dio ikasleari, ekonomian eta enpresa-munduan erabiltzen diren kontzeptuak ulertzen laguntzen dio, arrazoitzeko, abstrakzioa egiteko eta erlazioak topatzeko gaitasunak eta trebetasunak sustatzen ditu, eta hainbat tresna ematen dizkio bizi den gizartea modu kritikoz aztertzeko. Horrez gain, ikaslearen jakin-mina, analisirako gaitasuna garatzen laguntzen du; zenbait aldagai ekonomiko ikasten ditu (hazkundera, garapena, pobrezia, prestakuntza, aberastasuna, merkataritza, fiskalitatea, ingurumena, eta abar); arrazoiak eta ebidentzia empirikoak emanez ideiak eta ondorioak ahoz eta idatziz

adierazteko trebetasuna handitzen du; etika eta gizakiarekiko errespetua sustatzen ditu; eta lanerako gaitasuna handitzen du, bai lan indibiduala bai talde-lana egitekoa.

Hori guztia zenbait edukitan gauzatzen ahalegindu gara. Haietan bildu dira arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutakoak (1. eduki multzoa), bai eta Ekonomia ikasgaiko berezkoak ere: "Oinarrizko ideia ekonomikoak" (2. eduki multzoa), "Ekonomia eta enpresa" (3. eduki multzoa), "Etxeko ekonomia" (4. eduki multzoa), "Administrazio publikoen ekonomia eta diru-sarrerak eta gastuak" (5. eduki multzoa), "Ekonomia eta magnitude ekonomikoak" (6. eduki multzoa) eta "Nazioarteko ekonomia" (7. eduki-multzoa).

### 5.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerak honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea)
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### 2. MULTZOA. Oinarrizko ideia ekonomikoak

- Zer da ekonomia? Zergatik eragiten digu guztioi?

- Funtsezko eragile ekonomikoak.
- Baliabideen urritasuna, hautaketa eta esleipena. Aukera-kostua.
- Etxeko ekonomia. Ingurunearekiko harremanak.

### 3. MULTZOA. Ekonomia eta enpresa

- Enpresa eta enpresaburua.
- Enpresa motak. Funtzioak eta helburuak.
- Enpresaren gizarte-erantzukizun korporatiboa.
- Ekoizpen-prozesua eta ekoizpen-faktoreak.
- Enpresaren finantziario-iturriak.
- Diru-sarrerak, kostuak eta etekinak.

### 4. MULTZOA. Etxeko ekonomia

- Diru-sarrerak eta gastuak. Identifikazioa eta kontrola.
- Aurrekontuaren kudeaketa. Helburuak eta lehentasunak.
- Aurreztea eta zorpetzea.
- Arriskua eta dibertsifikazioa.
- Etorkizuna planifikatzea. Bizitzaren etapa bakoitzeko premia ekonomikoak.
- Dirua.
- Banku-entitateekiko harremanak. Bankuko kontua. Finantza-entitateek eskainitako informazioa. Kontsumitzaileen eskubide eta erantzukizunak finantza-merkatuan.
- Zordunketa- eta kreditu-txartelak.
- Interneten erostea.

### 5. MULTZOA. Administrazio publikoen ekonomia eta diru-sarrera eta gastuak

- Administrazio publikoen diru-sarrera eta gastuak.
- Zor publikoa eta defizit publikoa.
- Desberdintasun ekonomikoak eta errentaren banaketa. Administrazio Publikoen erantzukizuna pertsonen errenta birbanatzean.
- Enpresa eta pertsona fisikoen zerga-betebeharrak. Zerga-iruzurra.
- EAEko zerga-sistema. Kontzertu ekonomikoa. Kupoak.

### 6. MULTZOA. Ekonomia eta magnitude ekonomikoak

- Interes-tasak. Kalkulua.
- Inflazioa.
- Interes-tasen eta inflazioaren aldaketen ondorioak.

- Langabezia.
- Magnitude ekonomikoen irudikapen grafikoa.
- Garapena versus hazkundera.
- Prestakuntza eta enplegua.

## 7. MULTZOA. Nazioarteko ekonomia

- Globalizazio ekonomikoa.
- Nazioarteko merkataritza.
- Europako merkatu batua eta Europako ekonomia- eta moneta-batasuna.
- Ingurumenari ikuspegi ekonomiko batetik heltzea: jasangarritasuna.

### 5.3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1. Ekonomiaren oinarrizko printzipioak ezagutzea, printzipio horiek baliabideei eta premiei dagokienez zer ondorio dakartzaten jakitea, eta erabaki ekonomikoek une oro herritarren bizitzan eragiten dutela ohartzea.

- Urritasuna eta erabakiak hartu eta hautatu beharra zer diren badaki, eta, ildo horretan, ondo daki edozein hautaketak beste alternatiba batzuei uko egitea dakarrela, eta beraz, ekonomia-alorrean nahitaez hartu beharreko erabakiek ondorio positibo eta negatiboak dakartzatela, norberaren era gainerako herritarren bizitzan duen eragina dela medio.
- Etxeko ekonomien eta ingurunearen (enpresak, administrazio publikoak eta etxeko beste ekonomia batzuk) artean sortzen diren harremanak ulertzen eta interpretatzen ditu.

#### 2. Terminologia ekonomikoa ezagutzea eta terminologia horrekin ohituta egotea.

- Ekonomiaren alorreko hainbat hitz ulertzen eta ongi erabiltzen ditu, bereziki etxeko ekonomiaren esparruari dagozkion ohikoenak.
- Ekonomiaren kontzeptua generoaren ikuspegiarekin ulertzen du.

#### 3. Enpresek izan ditzaketen forma juridikoak deskribatzea.

- Enpresen forma juridikoak bereizten ditu, eta kasuan-kasuan balioesten ditu bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera: sozietate anonimoak, erantzukizun mugatukoak, kooperatibak eta enpresaburu indibidualak, sozietate-forma juridikorik hartzen ez dutenak.
- Enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboaz jabetzen da, bereziki Euskal Herriko enpresei dagokienez.

#### 4. Ekoizpen-prozesuko ezaugarri nagusiak aztertzeke gai izatea.

- Ekoizpen-faktore eta sektore ekonomiko motak adierazten ditu.

#### 5. Enpresek zer finantziazio-iturri dituzten jakitea.

- Enpresak finantzatzeko iturri motak eta bakoitzaren kostua aztertzen ditu (kanpokoak eta barnekoak, epe laburrerakoak zein luzerakoak), eta haien garrantzia balioesten du.

- 6. Kasu errazetan, enpresen diru-sarreraren eta kostuen egitura zehazteko eta haien irabaziaz kalkulatzeko gai izatea.**
  - Enpresa baten diru-sarrera eta kostuak kalkulatu, eta emaitza lortu eta interpretatu.
  - Diru-sarrera eta kobratzea bereizten du, baita gastua eta ordainketa ere.
- 7. Aurrekontu pertsonal bat egiten eta zer diru-sarrera eta gastu mota dauden bereizten jakitea.**
  - Aurrekontu pertsonal edo familiar bat egiten du, eta diru-sarrera eta gastu bakoitza identifikatu. Gainera, haren jarraipena eta kontrola egiteko sistema bat ezartzen du.
  - Informatika-tresnak erabiltzen ditu aurrekontua garatzeko, grafikoki irudikatzeko eta aurreikuspenak ondorengo errealitatearekin konparatzeko.
- 8. Modu arrazionalen erabakitzeko bere alternatiba ekonomikoen artean, haiek norberaren eta gizartearen ongizatearekin lotzea, eta aurreztearekiko jarrera positiboa izatea.**
  - Bere ekonomia planifikatu beharra ulertzen du, eta horren haritik, zehaztasunarekin aurreikuspenak egiteko moduak erabakitzen ditu.
  - Aurreztearen kulturari eta gastuaren kontrolari garrantzia ematen dio; zorpetzearen alde onak eta txarrak aztertzen ditu, arriskua aintzat hartuz eta unean-unean komentatu den erabakia hartuz.
- 9. Diruaren oinarriko funtzionamendua jakitea eta banku-kontuen motak eta ordainketa-baliabide moduan ematen diren txartelak bereiztea.**
  - Banku-kontuekiko eragiketen termino nagusiak eta funtzionamendua ulertzen du, eta bankuek ematen duten informazioa ulertu beharra aintzat hartzen du, baita segurtasunaren garrantzia ere, harremana interneten bidez egiten denean, eta finantza-entitateei erreklamatzeko prozedura aztertzen du.
  - Dauden txartel modalitate guztiak bereizten ditu, eta txartel horiekin eragiketak egiteko oinarriko segurtasunaren berri ere badu.
- 10. Administrazio publikoen oinarriko diru-sarreraren iturriak eta gastuak aztertzea, egoki interpretatzea banaketa hori adierazten duten grafikoak, eta ongi ulertzea zor publikoaren eta defizit publikoaren kontzeptuak.**
  - Diru-sarrera publikoak nondik datozen badaki, eta gastu publikoaren jomuga nagusiak zein diren ere bai. Diru-sarrera eta gastu publikoaren arteko harremanak komentatzen ditu, haiekin lotutako datu eta grafikoaren azterketan oinarrituta.
  - Ziklo ekonomiko bakoitzean, diru-sarrera eta gastu publikoaren aurreikuspena bereizten du, eta gogoeta egiten du haiek ezartzerakoan erabaki politikoek dakartzaten ondorioen inguruan.
  - Zor publikoaren eta defizit publikoaren arteko aldeak ulertzen ditu, baita bi kontzeptu horien arteko harremana ere.
  - Aurrekontu publikoak generoaren ikuspegitik aztertzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako esperientziak kontuan hartuz.

**11. Zerga-sistemak errenta birbanatzeko duen garrantzia onartzea eta horretarako zer tresna erabiltzen diren jakitea.**

- Errentaren desberdintasunaren efektuak interpretatzen ditu, errenta birbanatzeko tresnei buruz hausnartzen du, eta administrazio publikoek zerga- eta birbanaketa-alorretan dituzten funtzioak aztertzen ditu.

**12. Enpresei eta pertsona fisikoei ezartzen zaizkien zergak bereiztea eta zerga-betebeharrak betetzeak zer-nolako garrantzia duen ulertzea.**

- Enpresa eta pertsona fisikoen zerga-betebehar nagusiak zein diren badaki, baita zergen oinarritzko funtzionamendua nolakoa den eta zergen arteko alde nagusiak zein diren ere.
- Zerga-kargak ongizate-estatuari eta errentaren birbanaketari dakarkion ekarpena balioesten du, eta kontzientzia hartzen du subjektu pasibo bakoitzak legean ezarritakoaren arabera zerga ordaindu beharraz eta zerga-iruzurraren gizarte-efektu negatiboez.

**13. Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-sistemaren eta lurralde komunekoaren arteko desberdintasunak ezagutzea.**

- Euskal kontzertu ekonomikoaren berri badu, baita haren jatorri historikoaren berri ere.
- Kupoa zer den ulertzen du.
- Euskal zerga-sarea eta hari lotutako administrazio publikoak zein diren badaki, eta Foru Aldundien zeregina balioesten du bereziki, baita hainbat zerga arautzeko duten ahalmena ere.

**14. Interes-tasak, inflazioak, langabeziak eta antzeko magnitudeek zer adierazten duten jakitea eta kontzeptu horiekin lotutako grafikoak interpretatzea.**

- Inflazioaren eta langabeziaren kausak deskribatzen ditu, eta haien ondorio ekonomiko eta sozial nagusiak balioesten ditu.
- Interes-tasen funtzionamendua azaltzen du, baita tasa horiek aldatzeak ekonomiaren bilakaeran eragiten dituen ondorioak ere, eta arrazoibide matematikoak aplikatzen ditu hainbat egoeratan interesak kalkulatzearekin zerikusia duten arazoak konpontzeko.
- Interes-tasekin, inflazioarekin eta langabeziarekin lotutako eduki ekonomikoa duten datu eta grafikoak balioesten eta interpretatzen ditu.

**15. Garapenerako politika makroekonomikoko zenbait aukera balioesteko gai izatea, dela garapen ekonomikoa, dela gizarte-garapena.**

- Europar Batasuneko, Espainiako eta EAeko langabezia-datuak aztertzen ditu, baita aurrera eramaten diren garapen-politikak ere, langabeziaren aurkako borrokari dagokionez batik bat.
- Prestakuntza ekonomia garatzeko eta langabezia murrizteko tresnatzat jotzen du.
- Unean-unean, bere aukera-eremuak eta enplegu-joerak ikertzen ditu.

**16. Globalizazio ekonomikoak, nazioarteko merkataritzak eta integrazio ekonomikoko prozesuek pertsonen bizitza-kalitatean eta ingurumenean zer eragin duten ulertzeko gai izatea.**

- Munduko herrialde guztietako ekonomien interkonexio-maila balioesten du, eta ikuspegi globala aplikatzen du iritzi kritikoak emateko.
- Herrialdeen arteko truke ekonomian eragiten duten eta truke hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzen ditu.
- Gaur egungo gertaera ekonomikoak aztertzen eta eztabaidatzen ditu, globalizazioaren eta nazioarteko merkataritzaren testuinguruan.
- Europar Batasuneko ekonomia- eta moneta-batasuneko prozesua deskribatzen eta komentatzen du.
- Ingurumen-arazoan eta nazioarteko inpaktu ekonomikoarekin duten harremanaren inguruan hausnarketa egiten du, garapen jasangarria ezartzeko aukerak aztertuz.

## 5.4. EKINTZAILETZA- ETA ENPRESA-JARDUERETARAKO HASTAPENA

### 5.4.1. HELBURUAK

Hauek dira etapako helburuak Ekintzailletza eta Enpresa Jardueretarako Hastapena ikasgairako:

1. Jarrera ekintzailea sustatzea eremu pertsonalean, gizarte-eremuan eta, bereziki, lan-eremuan, eta edozein pertsonak bere garapenean eta bilakaeran izan beharrezko funtsezko printzipioa dela ohartzea. Orobat, haren ondorioak aztertzea, eta, funtsean, ohartu eta bere egitea pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea/problemei konponbidea ematea eta lidergoa jarrera ekintzailea izateko ezinbesteko ekintzak direla.
2. Jakitea zer informazio behar den zenbait egoeratan (eta, bereziki, lan-jardueran, dela besteren konturakoa, dela norberaren konturakoa), baliabideak erabiltzea informazio hori lortzeko, eta jarduera ekintzaile bat gauzatzeko beharrezkoak diren prozesuak eta aukera-azterketak egitea.
3. Enpresa bat sortzeko oinarrizko faseak eta ekintzak deskribatzea, eta, bereziki, autonomo gisa hastekoak edo ETE bat eratzeak, eta kasu bati buruzko proiektu edo azterketa bat aurkeztea (kasuak bideragarritasunari buruz eztabaidatzeko aukera eman behar du).
4. Enpresa bateko sail nagusiak edo enpresan egiten diren oinarrizko funtzioak zein diren adieraztea, haietako bakoitzeko helburuak eta eginkizunak deskribatzea, eta azaltzea zer harreman eta betebeharrak dituzten egiten duten jardueran parte hartzen duten eragile, entitate eta erakunde publikoekiko.

### 5.4.2. EDUKIAK

#### 5.4.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Ezbairik gabe, esan daiteke ekimenerako konpetentzia edo, gaur egungo terminoa erabiliz, *ekintzailletza* azken urteetan arreta handienaz aztertu den konpetentzietako bat dela. Europar Batasunak edozein herritarrentzat beharrezkoak ziren funtsezko konpetentzien zerrenda argitaratu zenean egin zen oso ageriko, eta ordutik aurrera protagonismo handia izan du.

Baina konpetentzia hau beti egon da, eta orain ere badago, zeharka edo berariaz adierazita hezkuntza-sistemako etapa guztietako ikasgaien curriculum gehienetan, Lehen Hezkuntzatik hasita goi-mailako hezkuntzara arte. Izan ere, kontuan izan behar da pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzeko eta problemak ebazteko beharra, eta ekimena izatea gaur egungo irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren hiru ardatz direla.

Horrenbestez, ikasgai honek eta adierazitako helburuek elkarrekin lotuta dauden bi xede dituzte: batetik, lortu nahi da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek ekintzailletza beren bizitzan jarraitu beharreko arautzat izatea, hau da, ekintzaile izatea beren garapen pertsonalean, gizarteko zenbait arlotan, eta, ikasgai honi dagokionez, lan-arloan, bereziki; eta, bestetik, enpresa bat sortzeko ezagutzak eta eginbeharrak jakitera ematea, eta, horren haritik, enpresa baten oinarrizko proiektu bat aurkeztu beharko dute. Dena den,



enpresa proiektu bat tresna bat besterik ez da, ikasleak ohar daitezene zer potentzial eta aukera dakartzkien enpresa bat sortzeko aukera aztertzeak.

Jakina, curriculuma zehaztean kontuan izan da helburuak eta ebaluazio-irizpideak nolabait bat etortzea beste etapa batzuetarako eta EAEko Lanbide Heziketako beste ikasketa batzuetarako ezarritakoekin.

Dena den, ikasgai honek ekintzaitzari heltzeko modu jakin bat erakusten dio ikasleari: enpresa bat sortzeko ezagutzak ematen dizkio, baina kontuan izan behar du, eta irakatsi egin behar zaio, besteren kontura jardunda ere izan daitekeela *intraekintzaile*, eta ekintzaitzak, kompetentzia moduan, bizitzan hartuko dituen erabaki nagusi guzti-guztietan parte hartuko duela, izan erabakiak norberaren eremukoak, izan lan-arlokoak.

### 5.4.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerak honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea..
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea)
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Lana eta ekintzailtza

- Ekimen ekintzailea eta enpresaburua gizartean.
- Ekintzailtzari lotutako kontzeptuak: Berrikuntza, aukerak eta arriskua.
- Karrera profesionalerako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak.
- Prestakuntza-ibilbideak eta karrera profesionalak. Sektoreko enpresetan enplegua bilatzeko prozesua. Currículuma. Autoenplegua. Erabakiak hartzeko prozesua.
- Lanerako eskubidea.
- Lan-harremanetik eratorritako eskubideak eta betebeharrak.
- Lan-kontratua eta negoziazio-kolektiboa.
- Gizarte Segurantzak. Estaldurak eta babes-sistema. Enplegua eta langabezia.
- Langilearen babesa eta gizarte-onurak.
- Laneko arriskuak. Arauak. Babesa planifikatzea enpresan.
- Bizitza pertsonalaren eta lanaren uztarketa eta ardurak banatzeko neurriak.

## 3. MULTZOA. Enpresa, aukerak eta martxan jartzea

- Enpresa-proiektuaren ideia. Ideiaren ebaluazioa. Ingurunea, indarrak eta ahuleziak, enpresaren gizarte-rola.
- Enpresa berritzaileak sortzeko balioak, emakumeen eta gizonen gaitasunak berdintasunez hartzeko neurriak ziurtatuz.
- Enpresa-kontzeptua eta enpresa motak, haien forma juridikoaren arabera.
- Administrazio publikoaren eta enpresaren arteko harremana.
- Forma juridikoa hautatzea.
- Enpresa bat abian jartzeko izapideak.
- Enpresaren elementuak eta oinarrizko egitura.
- Enpresak sortzeko laguntzak eta babesa.
- Enpresen lege-betebeharrak (zerga-arlokoak, lanekoak eta merkataritzakoak).
- Enpresa-plana.

## 4. MULTZOA. Enpresa, enpresaren eginkizun edo sail nagusiak

- Merkataritza- eta marketin-eginkizuna. Teknikak eta baliabideak: Zabalkundeko eta publizitateko materialak. Bezeroekiko harremana.
- Enpresak finantzatzeko iturriak, kanpokoak (bankuak, laguntzak eta diru-laguntzak, *crowdfunding*) eta barnekoak (akziodunak, inbertitzaileak, mozkinen aplikazioa), besteak beste.
- ETE-etarako finantza- eta banku-produktuak eta iturriak. Konparazioa.
- Kontabilitate-kontzeptua eta oinarrizko nozioak.
- Informazioa enpresan: kontabilitate-informazioa, giza baliabideen informazioa, kobratzeko eta ordaintzeko merkataritza-dokumentuak. Artxiboa eta abar.
- Zerga-betebeharrak. Zergak: deskribapena eta egutegia.

## 5. MULTZOA. Enpresa-proiektua

- Enpresa-proiektu baten bideragarritasun ekonomiko-finantziarioari buruzko azterlana.

### 5.4.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1. Ekintzaitzari lotutako gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak ezagutzea eta aintzat hartzea, eta lanpostuek eta enpresa-jarduerak zer eskakizun dituzten aztertzea.

- "Kultura ekintzailearen" kontzeptua aztertzen du, eta norberak aurrera egiteko, gizarte-ongizaterako, eta aintzat hartzen du, beharrezkoa baldin bada, enplegua sortzeko duen garrantzia.
- Pertsona ekintzaileen berezko gaitasun pertsonalak, jarrerak, asmoak eta prestakuntza zein diren badaki.
- Enpresa berritzaileak sortzeko balioak, emakumeen eta gizonen gaitasunak berdintasunez hartzeko neurriak zein diren badaki.
- Iniziatiba eta ekintzaitza gaitasuna eragiten eta uzkuertzen duten estereotipoak eta sexuen araberako rola aztertzen ditu.
- Berrikuntza-kontzeptua identifikatzen du, eta gizartearen aurrerapenarekin eta pertsonen ongizatea handitzearekin lotzen du.
- "Aukerak" eta "arriskua" kontzeptuak aztertzen ditu, ekimen eta jarduera ekintzaile ooren funtsezko elementuak diren heinean.
- Enpresaburuen jarduera eta enpresaburuek enplegua eta gizarte-ongizatea sortzeko duten rola deskribatzen ditu, enpresa-jarduera garatzeko behar diren betebeharrak eta jarrerak aztertuz.

#### 2. Bere bizitzari buruzko erabakiak hartzea, eta ulertzea, bere trebetasunak kontuan hartuta, zer enplegu, autoenplegu edota karrera profesional aukera ditzakeen, eta bizitzan zeharreko zer prestakuntza- eta ikaskuntza-alternatiba dituen.

- Baliabide telematikoak erabiliz, ingurunekeo jarduera profesionaleko arloak ikertzen ditu, baita haiek garatzen dituzten enpresa motak eta bakoitzaren lanpostuak ere, haietako bakoitzean lanean aritzeko eskakizunak arrazoituz.
- Bere curriculum egiten du, prestakuntza-alorrean dauzkan ahalmenak deskribatuz, ikasketa informalak eta gizarte-testuinguruetan eduki dezakeen esperientzia erantsiz (elkarte eta kirol-taldeetan parte hartzea, etab.), dagokionak interpretatzeko aukera izan dezan.
- Karrera profesionaleko proiektu propio bat diseinatzen du, ingurunearen aukerak gaitasun eta asmo pertsonalekin lotuz, autoenpleguaren aukera eta bizitza osoan prestatzen jarraitu beharra aintzat hartuz.

#### 3. Etorkizuneko langile arduratsu moduan jokatzeko eta langile moduan zer eskubide eta betebeharrak izango dituen jakitea, Estatuak eta Gizarte Segurantzak langilea babesteko egiten duten lana aintzat hartzea, eta laneko arriskuetatik babesteko beharrezkoak ulertzea.

- Langile eta enpresaburuen arteko harremanetan esku hartzen duten arau eta instituzioak identifikatzen ditu, lan-merkatuaren funtzionamenduari lotuz.
- Lan-harremanetatik eratorritako diren eskubide eta betebeharrak bereizten ditu, lan-kontratuaren eta negoziazio kolektiboko dokumentuetan egiaztatuta.

- Gizarte Segurantzako sistemaren oinarriak deskribatzen ditu, baita enpresaburuak eta langileak sistema horretan dituen betebeharrak ere, estalitako kontingentziak babesteko duen ekintza balioetsiz eta prestazioak deskribatuz, webgune instituzionaletan bilaketak eginez.
  - Inguruneko jarduera ekonomikoko sektore garrantzitsuetan ohikoenak diren lan-arriskuko egoerak zein diren badaki, eta legez ezarritako prebentzio metodoak adierazten ditu, baita istripu- edo kalte-kasuetan aplikatzekoak diren lehen laguntzetako teknikak ere.
- 4. Ikasgelan enpresa-proiektu bat sortzea, eta arrazoitzea zergatik aukeratu duten ideia jakin bat ideien multzo batetik. Orobat, oinarritzko merkatu-azterketak egitea, jardueraren emuen gaineko eraginak aztertzea, eta proiektuetan balio etikoak txertatzea.**
- Negozio-ideiak sortzeko prozesuak garatzen ditu.
  - Negozio-ideiak hautatzen ditu argudio egokiak erabiliz, enpresa-proiektu baten egokitasuna zehaztuz.
  - Oinarritzko merkatu-azterlan bat egiten du hautatutako negozio-ideiaren inguruan, eta ondorioak ateratzen ditu eta justifikatzen.
  - Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoaz aztertzen du, eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aintzat hartzen du.
  - Enpresen forma juridikoak deskribatzen ditu, haien jabe eta kudeatzaileen kapital-eskakizunekin eta lege-erantzukizunekin lotuz.
  - Enpresak abian jartzearekin zerikusia duten administrazio publikoak zerrendatzen ditu, eta abian jartzetik eratorzen diren dokumentu nagusiak biltzen ditu, bide telematikoen bitartez.
  - Enpresa-proiektuaren barneko eta kanpoko ezaugarriak zein diren badaki, baita enpresaren sarea osatzen duten elementuak ere: merkatua, hornitzaileak, bezeroak, ekoizpen- eta/edo merkaturatze-sistemak, biltegiatzea etab.
  - Enpresa-proiektuaren eta haren sektorearen arteko harremana deskribatzen du, baita haren antolaketa-egitura eta sail bakoitzaren eginkizunak ere, eta produkzio- edo merkataritza-prozesua garatzeko lan-prozedurak zein diren badaki.
  - Agintariek hainbat inguruetan (erkidegoa, estatua edo Europa) egiten dituzten laguntza-, erregistro-, kontrol- eta ikuskatze-zereginak aintzat hartzen ditu, proiektura egokitzeko aukerak identifikatuz eta egin beharreko izapideak deskribatuz.
  - Gizon eta emakumeen arteko enpresaren berdintasunerako estrategiak eta neurriak, enpresa-proiektuaren babes soziala eta iraunkortasuna bermatzen duten balioak direla jabetzen da.
  - Enpresa-plan bat aurkezten du, honako hauek deskribatuta: forma juridikoa, garatu beharreko xedea, eratzeko izapideak eta eman litezkeen laguntza edo diru-laguntzak.
- 5. Enpresa-proiektuko enpresaren berezko ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak egitea, komunikazio-teknikak erabiltzea, talde-lanean aritzea eta informazioa egoki kudeatzea.**
- Ererduko ekoizpen-prozesua ezartzen du, enpresa-ideiarekin edo -planarekin bat datorrena, eta hornitzaile-premiak ezarrita.
  - Bezeroen, hornitzaileen eta beste batzuen kontrola eta jarraipena egiteko aplikazio informatiko bat erabiltzen du, merkataritzako eta langileen administrazioko oinarritzko teknikak aplikatuz enpresa-proiektuaren informazioa antolatzeko.

- Enpresa-proiektuaren produktu eta/edo zerbitzuak hedatzeko eta haien publizitatea egiteko materialak sortzen ditu, interneten eta sare sozialetan komunikatzeko plan bat barne, hizkuntzaren eta irudien erabilpen inklusiboa marketin-printzipioetan aplikatuz. Enpresa-proiektuaren barruan ekoizpen- eta/edo merkaturatze-zereginak betetzen ditu, erabakiak hartuz, taldean lan eginez, epe eta helburuak betez, eta hobekuntzak proposatuz, alde aurretik ezarritako kontrol-planari jarraiki.
- 6. Enpresa baten (zehazki, ETE baten) oinarrizko administrazio- eta finantza-kudeaketako jarduerak egitea, kontabilitateko eta zerga-arloko zer betebeharrak nagusi dituzten jakitea, eta dokumentazioa behar bezala betetzea.**
- Enpresa forma juridiko bakoitzaren finantziario-iturriak zein diren badaki, kanpokoak eta barnekoak barne, eta egokiena hautatzen du, forma juridikoaren arabera eta enpresaren bizi-zikloaren unearan arabera.
  - Enpresa bat abian jartzeko behar diren inbertsioak zehazten ditu, eta egoera-balantze batean jasotako partida nagusiak bereizten ditu.
  - Inguruko finantza-entitateetako finantza-produktuak aztertzen ditu, enpresa mota bakoitzerako egokienak hautatu ondoren, bakoitzaren kostua eta arriskua aintzat hartuta, eta enpresa proiekturako egokienak aukeratzen ditu jarraian.
  - Enpresen eguneroko finantziario-aukeren oinarrizko ezaugarriak adierazten ditu, kanpoko eta barneko finantziarioa, epe laburrerakoa eta luzerakoa, bakoitzaren kostua, eta enpresaren ibilbidean duten inplikazioak aintzat hartuta.
  - Oinarrizko kontabilitate-konzeptuak aztertzen ditu, baita kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak ere.
  - Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko prozedura edo teknikak deskribatzen ditu, bereziki enpresa baten kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
  - Jardueraren arabera enpresek bete beharreko zerga-betebeharrak zein diren badaki: ekonomia-jardueren gaineko zerga, BEZa, PFEZa eta sozietateen gaineko zerga; haien arteko alde nagusiak adierazten ditu, eta zerga-kargak estatuko aberastasunari egiten dion ekarpena aintzat hartzen du.
  - Oinarrizko kontabilitate- eta zerga-dokumentazioa betetzen du, eta dokumentazio horrek enpresan egiten dituen zirkuituak deskribatzen ditu.
  - Enpresa-proiektuaren epe ertainerako bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlanak aurkezten du, aztertutako finantza-produktuen benetako baldintzak aplikatuz eta salmenta-aurreikuspenak eginez inguruneari buruzko azterlan baten arabera, horretarako aplikazio informatiko bat erabiliz, kalkulu-orri bat adibidez, eta oinarrizko finantza-ratioak maneiatuz.

## 5.5. KULTURA KLASIKOA

### 5.5.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira etapako helburuak Kultura Klasikoa ikasgaiari:

1. Zibilizazio klasikoko gertaera geografiko, historiko, sozial, politiko eta artistiko nagusien berri jakitea, identifikatzea eta aztertzea, eta gertaerok gurean (Euskal Herrian, Espainian eta Europan) izandako eragin itzela balioestea, nor bere burua eta norbanako gisa bizi garen gizarte plurala hobeto ulertzeko.
2. Gaur egungo gizartean eta kulturaren bizirik dirauten Erromako eta Greziako elementu historiko, sozial, politiko, linguistiko eta kulturalak identifikatzea (tartean kultura greko-latindarrean erroturik zeuden sinesmen eta ohiturak ere bai), eta horiek guztiak modu kritikoan aztertzea, mundu klasikoaz norberak duen iritzi pertsonala aberasteko.
3. Zibilizazio klasikoak utzitako kultura-ondarea balioestea eta errespetatzea, eta ondare hori gozamen-iturri eta garapen indibidual nahiz kolektiboan aurrera egiteko bide dela aintzat hartzea, horrela hura zaindu eta hobetu beharaz jabetzeko.
4. Norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza kondizioa nolakoak diren ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko, latinezko nahiz grekozko testuak irakurri, iruzkindu eta interpretatu, eta literatura-ondare klasikoaz gozatzea eta ondare horrek informazio-iturri gisa duen garrantzia balioestea.
5. Mundu klasikoko erlijioaren eta mitologia greko-latindarraren ezaugarriak ezagutzea, eta horiek gaur egungo artean izandako eragina balioestea, mundua sinbolikoki interpretatzeko balioa duten aldetik.
6. Hizkuntza erromanikoen jatorri eta bilakaera zein den jakitea, eta hori dela eta, hizkuntza horien ezaugarri komun eta bereizgarriez gogoeta egitea, hizkuntza-aniztasunak den-denon kultura-ondarea aberasten duela aintzat hartuz.
7. Termino berriak sortzeko eta objektu nahiz aurkikuntza berriak izendatzeko hizkuntza klasikoak zein baliagarriak diren ohartzeko, eta termino horiek norberaren lexikoan txertatu eta zenbait komunikazio-egoeratan behar bezala erabiltzea, ikasleen ahozko nahiz idatzizko ulermena eta espresioa hobetzeko.
8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta modu kritikoan erabiltzea, informazioa bilatzeko eta hautatzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.

### 5.5.2. EDUKIAK

#### 5.5.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den 1. eduki multzoak oinarriko zehar-konpetentziak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak jasotzen ditu. Arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu behar dira edukiak.

1. eduki multzoak, ikasgai honetako eduki multzo guztietan komunak diren edukiak lantzen ditu. Horretan, prozedurazkoak diren edukiak jarrerazkoak direnetatik bereizten dira.

2., 3. eta 4. eduki multzoetan, zibilizazio klasikoko alderdi guztiak lantzen dira: alde batetik, sarrera moduko batean, kultura greko-latindarra sakon ezagutzeko zenbait gako ematen dira; eta, beste alde batetik, hizkuntza klasikoen alderdi nagusiak azaltzeaz batera, mundu klasikoak gaur egungo munduari egindako ekarpenen berri ematen da.

2. eduki multzoak ("Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma") antzinako mundua ulertzeko gako ugari emango dizkigu, eta horrek berebiziko garrantzia du, Euskal Herriko eta Europako errealitate historiko, sozial eta kulturala zertan den ganoraz ulertuko badugu.

Greziarren eta erromatarren bizimodua ulertzeko, bestalde, ezinbestekoa da mundu klasikoko errealitate historiko, geografiko, sozial, politiko eta kulturala ganoraz aztertzea. Alderdi horiek guztiak gertatu zireneko garai historikoan aztertzeak eta gaur egungo Mendebaldeko gizarteko gertaerekin alderatzeak aukera paregabea ematen digu orain-oraingo gertaera eta fenomenoak askoz hobeto ezagutu eta ulertzeko. Izan ere, gure sustraiak non errotzen diren jakin ezean, ezinezkoa da geure burua ondo ezagutzea.

Gu europarrak gara, eta gure ondarearen sakonenean latina eta grekoa daude, bi hizkuntza horiek sekulako eragina izan baitute gaur egun Europa osoan hitz egiten diren hizkuntza guztietan: grekoak, jakintzaren alor guzti-guztietan erabiltzen den lexiko zientifiko-teknikoa greziar jatorrikoa delako; eta latinak, hizkuntza erromanikoak latinetik datozelako, hizkuntza horien bitartez European hitz egiten diren gainerako hizkuntzetan berebiziko eragina izan duelako, eta mendez mende kultura-hizkuntza nagusia izan delako.

3. eduki multzoan ("Hizkuntza klasikoak, kultura transmititzeko bide diren aldetik") eduki linguistikoak jorratzen dira batik bat, eta horrek grekoa eta latina ikasten hasteko aukera emango die ikasleei; bi hizkuntza horien sistema lexikoak, batez ere. Horrenbestez, hauek dira eduki multzo honetako eduki nagusiak: gaztelaniazko hitzen etimologia greko-latindarra; greziar jatorriko hitzak oinarri dituzten termino zientifiko eta teknikoaren osaera; eta hizkuntza jasoan erabili ohi diren latinismo eta helenismoak. Horren guztiaren bitartez, gure neska-mutilek beren ahozko nahiz idatzizko ulermena eta espresioa nabarmen hobetuko dute, eta horrek beren lexikoa aberasten lagunduko die.

Asko eta asko dira gaur egungo gizartean eta politikan sustraiak zibilizazio klasikoan errotuak dituzten elementuak: demokrazia, eskubide eta betebeharrak indibidualen aitortza, eta denek babesten eta lotzen gaituzten legeak, besteak beste.

Mundu klasikoak gaur egungo munduari utzi dion ondare oparo hori sakon aztertzea, horixe da Ikasgai honetako curriculumaren gakoetako bat. 4. eduki multzoko ("Zibilizazio greko-latindarrak gaur egungo munduari egindako ekarpenak") edukiek zibilizazio klasikoko ondare oparo eta zabalarekin lotutako ezaguera ugari emango dizkie gure ikasleei; Erromako eta Greziako elementu sozial, politiko, artistiko eta kulturalarekin lotutakoak, batik bat. Horrela, gure neska-mutilek sakon eta zabal jakin ahal izango dute beren munduaren berri, eta horrek beren kontzientzia historikoa eta gaitasun kritikoa sendotuko du, inolako dudarik gabe.

### 5.5.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA Eduki komunak

**A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerek honako hauek dituzte xede:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.

- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzekoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## B. Eduki komun espezifikoak

### Prozedurak:

- Ikasgaia ikasteko hizkuntza-trebetasunak aplikatzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea, hiztegi espezifikoak interpretatu eta erabiltzea, ahoz eta idatziz ongi moldatzea, eta abar.
- Mapa geografiko eta politikoak interpretatzea.
- Koadro, ardatz eta friso kronologikoak egiteko teknikak.
- Aldi, kultura eta zibilizazioak, gertaera historikoak, tokiak eta hizkuntzak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.
- Gertaera historikoen kausa-aniztasuna aztertzeko jarraibideak: gertaera historikoen eta bilakaera- eta aldaketa-prozesuen kausa eta ondorioak identifikatzea, eta gertaera horien eragile izan ziren faktoreekin lotzea.
- Gizarte klasikoaren eta gure egungo gizartearen arteko desberdintasun eta antzekotasunak identifikatu, aztertu eta konparatzeko teknikak.
- Euskal Herriko eta Europako kulturaren elementuak aurkitzeko jarraibideak.



- Euskal Herrian eta Espainian jatorri greko-latindarreko ondare historikoari buruzko informazioa lortzeko jarraibideak.
- Literatura klasiko greko-latindarraren obra esanguratsuenetako batzuen pasarteak irakurri eta komentatzea.
- Jatorri greko-latindarreko aurrizki eta atzizki nagusiak erabiltzea hitz berriak sortzeko.
- Latinismo eta helenismoak ongi erabiltzea ahozko eta idatzizko testuak sortzeko.
- Hainbat iturritatik eratorritako garrantzizko informazioa lortu, interpretatu eta erregistratzeko jarraibideak.
- Taldean, ikerlan txikiak egitea ezarritako jarraibideei jarraiki.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz eta kritikoki erabiltzea, ikerlanak landu eta aurkezteko.

#### Jarrerak:

- Iraganeko gizarte-errealitatearen berri izateko interesa eta jakin-mina, eta gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa hartzea.
- Historian izan diren gizarte-arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Mundu klasikoaren Euskal Herriko ondare historiko-artistikoaren aberastasuna eta aniztasuna errespetatzea eta hartaz gozatzea, eta hura kontserbatu, babestu eta zabaltzearen alde jarduteko prest azaltzea.
- Gure egungo gizartean dauzkagun hizkuntza-, erlijio- eta kultura-desberdintasunak onartu eta errespetatzea.
- Hitzen esanahi etimologikoa ezagutzeko jakin-mina eta hiztegia ongi erabiltzeko interesa.
- Munduko eta egungo euskal gizarteko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna errespetatu eta balioestea.
- Jarrera kritikoa hartzea egungo mendebaldeko gizartean mundu klasikoaren ohitura eta elementu soziokultural batzuek bizirik irauten dutela ikustean.
- Edozein diskriminazio dakarren mota guztietako hizkuntza-adierazpen, portaera eta jarrerak gaitzestea.

## 2. MULTZOA. Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma

- Greziaren jatorriak.
  - Grezia klasikoa bere esparru geografiko eta historikoan. Polis, eskualde eta enklabe nagusiak.
  - Greziako historiaren bilakaera: etapak eta gertaera historiko nagusiak.
- Romaren jatorriak.
  - Erroma bere esparru geografiko eta historikoan. Enklabe eta probintzia nagusiak.
  - Monarkia, errepublika eta inperioa.
- Mundu klasikoaren gizarte-antolaketa: gizarte-klaseak.
- Erromanizazio-prozesua: Erromatar Hispania.

- Erromatarren aurreko herriak.
- Eragile kolonizatzaileak.
- Erromanizazioaren etapak.
- Hispaniako antolaketa politiko eta administratiboa:
- Erromanizazioa Euskal Herrian. “Saltus” eta “ager” vasconum.
- Erromanizazioaren aztarnak eta hondar arkeologikoak Euskal Herrian eta Espainian.

### 3. MULTZOA. Hizkuntza klasikoak, kultura transmititzeko bide diren aldetik

- Hizkuntza indoeuoparren kontzeptua eta sailkapena. Grekoa eta latina hizkuntza indoeuopar gisa.
- Idazkeraren jatorria. Motak eta euskarriak.
- Alfabeto motak. Alfabeto grekoa eta alfabeto latindarra.
- Transkripzio fonetikoaren arauak.
- Latina eta hizkuntza erromanikoak.
- Latinetik gaztelaniarako bilakaera fonetikoaren arauak.
- Ondare-terminoak eta kultismoak.
- Latinaren eta grekoaren eragina euskarari eta beste hizkuntza moderno batzuetan.
- Erro greko-latindar nagusiak egungo hizkuntzen lexikoan.
- Helenismoak eta latinismoak.
- Hiztegi zientifiko eta teknikoaren etimologia.

### 4. MULTZOA. Zibilizazio greko-latindarrak gaur egungo munduari egindako ekarpenak

- Literatura greko-latindarra.
  - Literatura-generoen (epika, lirika, antzerkia eta prosa) ezaugarri nagusiak.
  - Egile eta obra nagusiak.
  - Literatura-gai eta -topiko greko-latindarren ekarpenak.
- Greziako eta Erromako artea.
  - Arkitektura: ordena arkitektonikoak.
  - Obra publikoak eta hirigintza.
  - Eskultura.
  - Hondar arkeologiko greko-erromatarrak Euskal Herrian, Espainian eta Europan.
- Erlijio greko-latindarra.
  - Jainko eta heroi, mito eta kondaira nagusiak.
  - Mitoaren interpretazioa.

- Kultura, erritu, jai eta kirol-adierazpen nagusiak.
- Erlijio ofiziala eta erlijio pribatua.
- Mitologia klasikoa egungo arte eta literaturaren inspirazio-iturri gisa.
- Kultura klasikoaren presentzia egungo arteetan, zientzietan eta egitura politiko eta sozialetan.

### 5.5.2.3. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 2. EDUKI MULTZOA. Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma

- Erromanizazioa Euskal Herrian: Datazioa K.a. III – K.o. V
- Erromanizazioaren aztarnak eta hondar arkeologikoak Euskal Herrian:
  - Kosta aldean: Foru, Cetaria, Menosca, Oiarso...
  - Via XXXII, XXXIV Asturica-Burdigala-Tarraco: Iruña-Veleia, Pompaelo...
  - Fundiak eta Villak: -anus >-ano, -ain, -in Arellano, Andoain, Andoin...
  - Zubiak, monumentoak...: Mantible, Transponte, Urkulu, Andelos...

#### 3. EDUKI MULTZOA. Hizkuntza klasikoak, kultura transmititzeko bide diren aldetik

- Latinaren eta grekoaren eragina euskarari:
  - Hitz teknikoetan
  - Kultismoak
  - Esparru semantikoak: erlijioa, nekazaritza, egutegia, merkataritza...
  - Lexikoa eta atzizkigintza
  - Toponimia

### 5.5.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 5.5.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila.

##### 1. Zibilizazio greko-latindarraren bilakaera gertatu zeneko marko geografikoa deskribatzea eta mapa batean enklabe nagusiak kokatzea.

- Mapa batean, zibilizazio grekoaren eta erromatarraren hedadura eta eragin-eremua mugatzen ditu, haien bilakaeraren etapa bakoitzean.
- Konexioak eta harremanak ezartzen ditu kultura klasiko greko-latindarraren eta espazioan eta denbora haien hurbil zeuden beste kultura batzuen artean.
- Grezia eta Erroma klasikoetako mapetan zehaztasunez kokatzen ditu garrantzi historiko handiena duten puntu geografiko, polis, hiri eta hondar arkeologikoak.
- Mundu greko-latindarraren esparru geografikoaren eta egungo errealitate geopolitikoaren arteko korrespondentzia ezartzen du.

- Esparru geografikoan, zibilizazio grekoaren eta erromatarraren garapenean funtsezkotzat jotzen diren alderdiak aurkitzen ditu, eta planteamendu horiek irudikatu eta justifikatzeko adibideak ematen ditu.
- 2. Greziaren eta Erromaren sorrera eta bilakaera gertatu zireneko marko historikoa identifikatzen eta deskribatzen jakitea.**
- Greziaren eta Erromaren etapak zehaztasunez bereizten ditu eta ardatz kronologiko batean kokatzen ditu, eta etapa bakoitzean identifikatzen ditu beste zibilizazio batzuekiko konexio nagusiak.
  - Ardatz kronologikoak egiten ditu, garrantzizko beste gertaera historiko batzuk bertan kokatzen ditu, eta gaur egungo beste zirkunstantzia batzuekin lotzen ditu.
  - Greziako eta Erromako historiako etapen artean gertatu zen trantsizio-prozesua azaltzen du, etapa batetik besterako bilakaera horretan izan ziren gertaera nagusiak deskribatuz.
- 3. Greziako eta Erromako gizarte-klaseek zer ezaugarri eta bilakaera izan zituzten jakitea, eta gizarte-klase haiek gaur egungoekin lotzeko gai izatea.**
- Greziako eta Erromako gizarte-klaseak identifikatzen ditu, bakoitzaren ezaugarri eta rol nagusiak azaltzen ditu eta haien bilakaera deskribatzen du.
  - Gizarte-klaseen eginkizunak garai hartako balio zibikoekin lotzen ditu, eginkizun horiek kritikatzeko ditu eta gaur egungoekin konparatzen ditu.
  - Gaur egungo gizarte-desberdintasun ugariak eta jaiotzaren, arrazaren, sexuaren eta beste hainbat faktoreren araberrako aurreiritzi klasista askotarikoak aztertzen ditu.
- 4. Europa modernoan kultura klasikoaren zantzu eta eraginei igartzeko eta bereizteko gai izatea.**
- Kultura greko-latindarrak arteei, zientziei, gobernu moduei eta gizarte-antolaketari egindako oinarritzko ekarpenak adierazten eta deskribatzen ditu, eta adibideak ematen ditu gaur egun indarrean jarraitzen dutela frogatzeko.
  - Gaur egungo arte-adierazpenen adibideak ematen ditu literaturaren, mitologiaren eta kondairen genero, gai eta topikoen ekarpena erakusteko, eta haiek era batera eta bestera nola erabili diren aztertzen du.
  - Antzekotasunak hautematen ditu egungo Europako instituzio politiko, sozial eta kultural nagusien eta haien aurrekari klasikoaren artean.
  - Antzinatasun klasikoaren eredu politiko, sozial eta filosofikoek egungo gizartean izan duten eragina aztertzen eta kritikoki balioesten du.
- 5. Hispaniaren erromanizazio-prozesuaren ezaugarri nagusiak ezagutzea.**
- Hispaniako erromanizazioaren faseak mugatzen ditu eta haien kausak azaltzen.
  - Mapa batean, erromatar Hispaniako probintzia, kolonia eta kokaleku nagusiak aurkitzen ditu.
  - Hispaniako erromanizazio-prozesuaren funtsezko ezaugarriak zerrendatzen eta azaltzen ditu, eta haien adibideak ematen ditu.
  - Hizkuntza eta ohitura latindarrak Euskal Herrian neurri txikiagoan barneratu izanaren kausak aztertzen ditu eta haiei buruz eztabaidatzen du.
  - Erromanizazioak gure ondoko historian izan duen eragina aztertzen du.

- Erromanizazioak gure eguneroko bizitzan, ohituretan eta gizartea eta politika antolatzeke moduetan eragin dituen eraldaketa nagusiak zerrendatzen ditu, eta haietako bat deskribatzen du.
- 6. Arte greko-latindarrak zer ezaugarri nagusi izan zituen jakitea, eta gaur egungo arte-adierazpenak eredu klasikoekin lotzeko gai izatea.**
- Arkitektura grekoaren eta erromatarraren ezaugarri nagusiak zein diren badaki, eta monumentu esanguratsuenak dagokien ordena arkitektonikoarekin lotzen ditu, arrazoi egokiak emanez.
  - Eskultura greko eta erromatar ospetsuenak zein diren badaki, sortu zireneko aldi historikoan kokatzen ditu, eta motibo mitologikoak eta erreferentzia historiko eta kulturalak ikusten ditu haietan.
  - Arte greko-latindarrarekin lotutako hainbat alderdi ardatz kronologikoetan kokatzen ditu, eta beste kultura-adierazpen edo mugarri historiko batzuekin lotzen ditu.
  - Obra publiko erromatar nagusiak zein diren badaki, eta haien ezaugarri eta elementu nagusiak deskribatzen ditu.
  - Haien funtzioa, Inperioaren garapenean eta Erromaren hedapenean izan zuten garrantzia eta ondorengo hirigintza-ereduetan izan duten eragina azaltzen du.
- 7. Espainiako nahiz Europako monumentu klasiko nagusiak ezagutu eta balioestea.**
- Mapa batean, Espainiako eta Europako ondare historikoaren monumentu klasiko nagusiak aurkitzen ditu, eta haien estiloa eta kronologia identifikatzen du.
  - Euskal Herriko hondar material edo aztarnategi arkeologiko erromatar batzuk identifikatzen ditu.
  - Arte-ondarearekiko errespetuzko jarrerak eta hura kontserbatzeko interesa azaltzen du.
- 8. Literatura klasikoko generoek zer ezaugarri nagusi dituzten jakitea eta literatura klasikoak gure literatura-tradizioari egindako ekarpenak ezagutzea.**
- Literatura greko-latindarraren generoak identifikatzen ditu, haien ezaugarri nagusiak azaltzen ditu, eta bakoitzaren egile eta obra garrantzitsuenak zerrendatzen ditu.
  - Literatura greko-latindarraren obra esanguratsuenetako pasarte hautatuen edukia komentatzen du, eta dagokien literatura-generoa eta garaia zein den badaki
  - Literatura-tradizio greko-latindarraren hainbat motibo, gai eta pertsonaia gaur egungo literaturan aurkitzen ditu.
  - Elementu horiek erabiltzen ditu kultura greko-latindarraren genero eta gaiak egungo literaturari egindako ekarpena azaltzeko eta ulertzeko, haien oinarriko elementuak eta jasotzen dituzten tratamenduak deskribatuz.
  - Irakurtzeko jarrera positiboa erakusten du.
- 9. Erlijio greko-latindarrak zer ezaugarri nagusi zituen jakitea, eta erlijio-adierazpen horiek gaur egungoekin lotzeko gai izatea.**
- Grezian ospatzen ziren erlijio-jai, erritual eta sakrifizioen ezaugarri nagusiak azaltzen ditu, kultura helenikoaren oinarriko beste alderdi batzuekin lotuz.
  - Greziako eta beste kultura batzuetako erlijio-adierazpenen artean antzekotasunak eta aldeak ezartzen ditu.

- Erromako kultu ofizialak eta pribatuak bereizten ditu, eta batzuen eta besteen ezaugarriak azaltzen ditu.
- 10. Grezia klasikoko kirol-jarduerak eta gaur egungoak lotzea, eta horien arteko antzekotasun eta desberdintasunen berri emateko gai izatea.**
- Erlijio grekoan erritu-kultuei lotutako kirol-adierazpenak zein diren adierazten du eta deskribatzen ditu, eta mundu modernoari zer ekarpen egin dioten azaltzen du.
  - Antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzen ditu kirol-adierazpen horiei lotzen zaizkien kultura-balioen artean.
  - Zibilizazio grekoaren erlijio-jai eta kirol-ikuskizunak zerrendatzen ditu, eta gaur egungoekin konparatzen ditu.
- 11. Greko-latindar mitologiako jainko-jainkosa, mito eta heroi nagusiak ezagutzea, eta antzinako mito nahiz heroien eta gaur egungoen arteko antzekotasun eta desberdintasunei igartzeko gai izatea.**
- Mitologia klasikoaren jainko eta heroi nagusien greko-latindar izendapena zein den badaki.
  - Greko-latindar jainko-jainkosa eta heroi nagusien ezaugarriak eta eragin-eremua zein diren badaki.
  - Greko-latindar jainko-jainkosa nagusien koadro genealogikoa egiten du, eta haien arteko antzekotasunak edo harremanak ezartzen ditu.
  - Jainko-jainkosak, erdi-jainko/erdi-jainkosak eta heroiak bereizten ditu, eta batzuen eta besteen arteko desberdintasun nagusiak azaltzen ditu.
  - Mito klasiko nagusiak zein diren badaki, beste kultura batzuetakoen aldean dauzkaten antzekotasun eta desberdintasunak adierazten ditu, eta literaturan edo erlijio-tradizioan izan duten tratamendua ere alderatzen du.
  - Mitikoak eta heroi klasikoaren irudiak gure kulturari egin dioten ekarpena zein den badaki, eta adibideak ematen ditu horren erakusgarri. Gainera, tradizio klasikoak fenomeno horretan izan duen eragina aztertzen du.
  - Desberdintasunak eta antzekotasunak ezartzen ditu mito eta heroi klasikoaren tratamenduaren eta gaur egungoen tratamenduaren artean.
- 12. Gaur egun erabiltzen diren idazketa eta alfabeto motak ezagutzea eta bereiztea.**
- Historian zehar izan diren hainbat idazketa mota bereizten eta sailkatzen ditu, izaeraren eta eginkizunaren arabera, eta bakoitzaren bereizgarriak azaltzen ditu.
  - Mendebaldeko kulturaren gehien erabili diren alfabetoak zerrendatzen ditu, haien arrisku nagusiak aipatzen ditu, eta beste idazketa mota batzuetatik bereizten ditu.
  - Alfabeto grekoa eta latindarra eta haien transkripzio-arauak zein diren badaki.
  - Alfabeto grekoak eta latindarrak egungo alfabetoen sorreran izan duten eragina azaltzen du.
  - Egungo alfabetoetan, alfabeto greko eta latindarretik eratorritako elementuak aurkitzen ditu.

**13. Europan gaur egun hitz egiten diren zenbait hizkuntzak jatorri bera dutela jakitea, eta Europako hizkuntza erromanikoak eta ez-erromanikoak mapan kokatzeko gai izatea.**

- Europan bizi diren hizkuntza indoeuroparren familiako adarrak zerrendatzen ditu, eta mapa batean aurkitzen ditu.
- Hizkuntza moderno nagusiak sailkatzen ditu bere jatorri indoeuroparraren arabera, eta ahaidetasun hori frogatzen duten hizkuntza-elementuak aipatzen ditu.
- Espainian eta Europan mintzatutako hizkuntza erromaniko eta ez-erromaniko nagusiak zein diren badaki, eta mapa batean bakoitzaren erabilera-eremuak mugatzen ditu.
- Hizkuntza erromanikoen elkarren arteko ahaidetasuna agerian jartzen duten elementuak hautematen eta azaltzen ditu, hizkuntza horiek jatorri bera dutela erabat ziurtatzeko.
- Bere inguruneko hizkuntza guztiak errespetatzen ditu, kultura-aberastasunaren adierazgarri diren heinean.

**14. Latinetik hizkuntza erromanikoetarainoko prozesuko urratsak deskribatzeko eta aztertzekeo gai izatea.**

- Latinetik hizkuntza erromanikoetarainoko bilakaera fonetikoaren oinarritzko arau batzuk deskribatzen ditu, eta horien adibideak ematen ditu.
- Zenbait terminoren bilakaera fonetikoa azaltzen du, latindar etimotik zenbait hizkuntza erromanikotaraino egin duten bidea azalduz.
- Arau fonetiko nagusiak aplikatzen ditu latindar terminoetatik gaztelaniarainoko bilakaera egiteko.

**15. Espainiako hizkuntzetan eta beste hizkuntza moderno batzuetan jatorri greko-latindarreko lexikoa identifikatzeko eta lexiko zientifiko-teknikoa behar bezala erabiltzeko gai izatea.**

- Espainian mintzatutako hizkuntzen eta beste hizkuntza moderno batzuen lexikoan gehien erabiltzen diren helenismo eta latinismo batzuk ezagutzen ditu, eta haien esanahia azaltzen du haien etimotik abiatuta.
- Hitzak zatikatzen ditu, zati bakoitzaren etimologia aztertzen du, eta, hortik abiatuta, haren esanahia azaltzen du.
- Ondare-hitzak eta kultismoak identifikatzen eta bereizten ditu, eta bakoitza bere etimoarekin lotzen du, hiztegi edo beste informazio-iturri batera jo beharrik gabe.
- Lexiko zientifiko eta teknologikoan gehien erabilitako erro greko-latindarrak zein diren badaki, eta definizio etimologikoak sortzeko erabiltzen ditu.
- Jatorri greko-latindarraren lexiko zientifiko-teknikoaren terminoen esanahia azaltzen du etimoetatik abiatuta.
- Jatorri greko-latindarreko helenismo, latinismo eta termino zientifiko-teknikoak ongi erabiltzen ditu ahozko eta idatzizko lanak egitean.
- Hiztegia aberasteko eta jatorri greko-latindarreko lexikoa ongi erabiltzeko interesa erakusten du.

**16. Hizkuntza klasikoek ez grekotik eta ez latinetik ez datozen hizkuntzetan azterna ugari utzi dituztela ohartzeko gai izatea.**

- Euskarak eta beste hizkuntza moderno batzuek hizkuntza klasikoetatik jasotako elementu lexiko, morfologiko eta sintaktikoen adibideak ematen ditu.
- Latineko zenbait terminok euskarari izan duten bilakaera azaltzen du.

**17. Kultura greko-latindarrarekin lotutako alderdiren bati buruzko ikerketa-lanak taldean egiteko gai izatea, eta horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea, informazioa bilatzeko eta hautatzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.**

- Informazioa bilatzen eta lortzen du informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz, eta informazio hori egiaztatzen eta hautatzen du.
- Hautatutako informazioa modu ordenatu eta koherente batean antolatzen du.
- Informazioa laburtzen eta birlantzen du, eta ondorioak ateratzen ditu.
- Bere lana aurkezten du, ordenaz eta argitasunez, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzeari lehentasuna emanez.
- Zereginen banaketan laguntzen du, eta lanean duen erantzukizuna bere gain hartzen du.
- Iritzi pertsonalak ematen ditu eta argudiatu egiten ditu.
- Besteen iritziak entzuten eta errespetatzen ditu.
- Errakuntzak identifikatzen eta zuzentzen ditu, eta bere burua gainditzeko jarrera positiboa erakusten du.



## 5.6. FILOSOFIA

### 5.6.1. HELBURUAK

Honako hauek dira Filosofia ikasgaiako etapako helburuak:

1. **Indibidualtasuna munduan beste indibidualtasun batzuekin batera izateko eta egoteko modutzat hartzea, eta horretan, indibidualtasunaren osaera-prozesua, ezaugarriak eta elkarrekiko erlazioak aztertzea, nork bere burua eta besteak gizartearen eta norbanakoaren arteko tentsioaren emaitza gisa hautemateko.**
2. **Gaur egungo errealitate soziala aztertzea, indarrean diren interpretazio adierazgarrienak oinarri hartuta.**
3. **Filosofiaren baliabide intelektual eta epistemologikoak erabiltzea, eguneroko bizitzako egoerei gogoetaren eta espiritu kritikoaren bitartez aurre egiteko.**
4. **Norberaren ingurua transformatzeko prozesuak proposatzea, eta horretan, sormena eta konpromiso pertsonala oinarri hartzea, gutako bakoitza aldaketa sozialaren alde urratsak egin ditzakeen eragile potentziala dela ulertzeko.**
5. **Filosofiaren oinarrizko auziak ezagutzea, eta Filosofiak historian zehar proposatutako galde-erantzunak erabiltzea, Filosofiak berak historian zehar eta gaur egun duen eginkizuna balioesteko.**

### 5.6.2. EDUKIAK

#### 5.6.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Oro har, Filosofia ikasgaiaren egitura klasikoari eutsi nahi izan diogu, gure ustez horixe baita jakintza modu horren prozesu logiko espezifikokoaren berri ondoen emateko modua: sarrera moduan, gizarte-arloko eduki espezifikoei helduko diegu (1. EDUKI MULTZOA: Eduki komunak); jarraian, jakintza filosofikoa deskribatuko dugu (2. MULTZOA. Filosofia). Hortik abiatuta, analitika filosofikokoaren ibilbidea hasiko da, niarenganako hurbilketarekin (3. MULTZOA. Ezagut ezazu zeure burua), eta, ondoren, kanporako bidea hartuko dugu, alteritatearen bitartez (4. MULTZOA. Nia eta alteritate), errealitatera eta errealitatera iristeko modura iristeraino (5. MULTZOA. Zer jakin dezaket?). Azkenik, errealitate hori eraldatzeko aukera planteatuko da (6. MULTZOA. Zer egin dezaket? Errealitatea aldatzea), Filosofia kontenplazio soiletik haratago doala ulertuz eta eraldaketarako bide eta alternatibak proposatuz.

Tradizio filosofikoarekin koherentea izan arren, hala ere, egitura horrek arazo bat du: ez dator bat munduaz dugun irudi intuitiboarekin. Beraz, beste ezertan hasi aurretik, 2. EDUKI MULTZOAN bertan, filosofiaren berariazko ezaugarriei buruz hitz egiten hastean, atariko azalpen gutxi batzuk eman litezke. Nolanahi den ere, kontuan izanik eduki multzoak ez direla kompetentziak lantzeko baliabideak baizik, irakasleek guk hemen proposatutako ordena alda dezakete, eta beren ikasleen beharretara hobeto egokitzen dien ulerkuntza-eskema bat proposatu.

## 5.6.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztietarako komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetan bildutako prozedura eta jarrerek honako hauek dituzte xede:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

### 2. MULTZOA. Filosofia

- Jakintzaren gizarte-funtzioa. Jakintzaren jatorria. Mitoa, filosofia eta zientzia.
- Filosofiaren biraketa antropologikoa.
- Testu filosofiko bati buruzko komentarioa.
- Jakintza gizarte-balioztat jotzea.

### 3. MULTZOA. Ezagut ezazu zeure burua

- Niaren analitika.
- Nia eta nortasuna. Psikologiaren ikuspegia.
- Afektibitatea.

- Indibiduazio-prozesua. Zenbait proposamen historiko. Indibiduazioa bigarren modernitatean.
- Garrantzizko informazioa bilatzea eta aukeratzea.
- Entsegu bat egitea.

#### 4. MULTZOA. Nia eta alteritatea

- Nia, bestea, intersubjektibitatea.
- Indibidualtasuna, kultura eta gizartea.
- Erlatibismo eta unibertsalismo kulturala.
- Gizartearen jatorria.
- Sozializazio-prozesua.
- Garrantzizko informazioa bilatzea eta aukeratzea.
- Entsegu bat egitea.
- Kultura positiboki balioestea.

#### 5. MULTZOA. Zer jakin dezaket?

- Zer da arrazionaltasuna? Arrazoimena eta emozioa.
- Gure ezaguerak ba al du mugarik? Zer jakin dezakegu? Egiaren arazoa.
- Arrazoimenaren interpretazioa.
- Garrantzizko informazioa bilatzea eta aukeratzea.
- Entsegu edo mintzaldi bat egitea.
- Errakuntza positibotzat jotzea, jakintza-prozesuaren osagaia den heinean.

#### 6. MULTZOA. Zer egin dezaket? Errealitatea eraldatzea

- Zer da errealitatea? Erantzun historiko batzuk.
- Gizonaren eta emakumearen tokia kosmosean.
- Gizarte-aldaketaren eragileak.
- Ingurunea alda al dezakegu?
- Askatasuna, baldintzapena, determinismoa.
- Garrantzizko informazioa bilatzea eta aukeratzea.
- Testuak aztertzea.

### 5.6.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1. Jakintzak gizarte-eraketetan izan duen jatorria eta betetzen dituen funtzioak azaltzea.

- Hainbat kontzeptu zehazten eta erabiltzen ditu: filosofia, mitoa, logosa, jakintza, iritzia, abstraktua, zehatza, arrazoimena, zentzuak, arkhea, kausa, monismoa, dualismoa, pluralismoa, substantzia eta aurreiritzia; eta glosategi bat egiten du hitz horiekin guztiekin
- Honako aditz hauek bereizten ditu: jakitea, iritzia ematea, argudiatzea, interpretatzea, arrazoitzea, aztertzea, kritikatzeta, aurkitzea, sortzea.
- Zenbait kulturatan Kosmosa eta gizakia nola sortu ziren interpretatu eta deskribatzeko idatzitako testuak irakurri eta komentatzen ditu, testu mitologikoak eta testu arrazionalak, eta antzekotasun eta desberdintasunak ondorioztatzen ditu planteamenduen artean.
- Testu horietako ideia nagusiak komunikatzen ditu, argitasunez eta xumetasunez.
- Testu filosofikoak eta ez-filosofikoak bereizten ditu.
- Jakintza aintzat hartzen du, gizarte-produkzioa den heinean.

#### 2. Gai izatea, bai ahoz eta bai idatziz, K.a. V. mendean gertatu zen iraultza antropologikoaz, bereziki, eta, oro har, gizakiak bere burua eta inguruan duen guztia ulertzeko interesaz gogoeta egin eta bere ideiak ganoraz argudiatzeko.

- Sokratesek eta Protagorasek gizakiari eta gizarteari buruz egindako interpretazioak konparatzen ditu, eta bere jarrera adierazten du, ongi argudiatuta.
- Bere taldekideekin elkarlanean entsegu txikiak egiten ditu, eta bere ikuspegiak argudiatzen ditu arrazionalki.
- Ikuspegi horiek beste talde batzuen ikuspegiekin erkatzen ditu, hobekuntza egokiak egiteko.
- Entsegu bat egiteko estrategia kognitiboren bat azaltzen du.
- Bere iritzia asertibitatez eta errespetuz defendatzen ditu.

#### 3. Nor naiz ni? galderari eman izan zaizkion erantzun ugarietara bere-bereak diren ekarpenak egiteko gai izatea.

- Garrantzizko informazioa biltzen du nor naiz ni? galderari historian zehar eman zaizkion erantzunei buruzko erregistro xume bat egiteko.
- Erantzun horiek guztiak komentatzen ditu, bere ikuspegia argudiatuz.
- Erantzunak jarrera filosofiko historikoekin lotzen ditu.
- Jarrera horien gaurkotasuna eta balioa ebaluatzen du.
- Taldekideekin elkarlanean, gai hori aztertzen duen testu bat hautatzen du komunikabideetan, eta komentatu egiten du ados dagoen edo ez adierazita.
- Bere izatasun indibiduala onartzen du izaera ukalezina den heinean, beste izaera batzuen ondoan.

#### 4. Gaingiroki ezagutzea nortasunari buruzko zenbait teoria (G. W. Allport psikologoarena, Freud-en teoria psikoanalitikoak, teoria konduktista, teoria humanistikoa, Erik H. Erikson psikologoarena...).

- Nortasunari buruzko hainbat ikuspegi azaltzen eta deskribatzen ditu.

- Teoria psikologiko batzuek nortasunari buruz emandako funtsezko tesiak azaltzen ditu.
  - Pertsonaien nortasuna aztergai duten literatura-testuak irakurtzen ditu, eta nortasunaren ezaugarriak eta nortasun motak identifikatzen ditu.
  - Zenbait teoriarekin bat etorriz, jokabidea erregulatzeko mekanismo errazak proposatzen ditu.
  - Nortasunaren eta moralaren arteko harremanaz hausnarketa egiten du.
- 5. Gizakiok izaki afektiboak garela jakitea, eta horretan, gai izatea bulkadak, emozioak eta sentimenduak bereizteko, batetik, eta gorputzak afektuak azaleratzeko duen garrantziaz jabetzeko, bestetik.**
- E. Fromm, Ortega y Gasset, Marta Nussbaum, Eva Illouz eta beste egile batzuen testu labur eta esanguratsuetan emozioei buruzko oinarritzko ideiak identifikatzen ditu, eta haiei buruz dituen iritziak argudiatzen ditu, idatziz.
  - Testu horietatik ondorioak ateratzen ditu, emozioen erregulazioari eta jokabide moralaren erregulazioari buruz.
  - Ikus-entzunezko produkzio bat hautatzen eta proiektatzen du, afektibitateak existentzian duen zereginari buruz eztabaidatzeko.
  - Entsegu txiki bat egiten du afektibitateak existentzian betetzen duen zereginari buruz.
  - Emoziodun makinak programatzeko aukerari buruzko informazioa ikertzen, balioesten eta hautatzen du sarean.
  - Hausnarketa egiten du aukera horren inplikazio moralen inguruan.
- 6. Mendebaldeko gizarteetan eta, bereziki, Euskal Herrikoan indibiduazio-prozesuek gizon-emakumeon bizi-aukeren garapenean izandako funtzio eta eragina identifikatzeko gai izatea.**
- Sarean eta beste iturri batzuetan informazioa bilatzen du gaur egungo indibiduazioaren inguruan (Ulrich Beck, Scott Lash, Z. Bauman, M. Castells, etab.).
  - Informazio hori kritikoki komentatzen du.
  - Komentatutako indibiduazio-ereduak bere ingurunean aurkitzen ditu.
  - Indibiduazio-ereduak euskal gizartearen ezaugarri batekin lotzen ditu.
  - Gizakiari buruzko teoria filosofikoak azaltzen ditu, eta indibiduazioarekin lotzen ditu (esaterako, Sokrates, Platon, Aristoteles, kristautasuna, kartesiar arrazionalismoa, XVIII. mendeko materialismo frantsesaren mekanizismoa, enpirismoa, Ortega y Gasset, Sartre etab.).
  - Taldean, gidatutako entsegu labur bat egiten du indibiduazioaren eta gizakiari buruzko aurreko proposamen baten erlazioaren inguruan.
- 7. Gai izatea bestea norberarekin espazio eta inguru-abar komunak konpartitzen dituen *alter ego* gisa identifikatzeko, eta horrexek intersubjektibitatea sortzen duela jakitea.**
- Indibidualtasuna, alteritatea, sozializazioa, intersubjektibitatea eta beste zenbait kontzeptu definitzen eta erabiltzen ditu.
  - Intersubjektibitatea indibidualtasunen elkargunetzat jotzen du.
  - Alteritatea onartzea eta etika lotzen ditu.
  - Gatazka bizikidetzaren intersubjektiboaren berezko egoeratzat jotzen du.

- Gatazka elkarrizketaren bidez eraldatzeko moduak ezagutzen ditu.
  - Positiboki balioesten du alteritatearen onartze hori pertsonen arteko harremanak arautu behar dituzten eskubide eta betebeharren multzo batean (Giza Eskubideak) gauzatzea.
  - Aniztasuna (kulturala, erlijiosoa, hezkuntza-arlokoa, ekonomikoa, politikoa eta abar) nagusi den mundu batean Giza Eskubideek duten unibertsaltasunari buruz eztabaidatzen du.
- 8. Gizakion alderdi soziala eta alderdi kulturala lotzeko gai izatea, kultura- eta gizarte-kontzeptuek zer esan nahi duten jakitea, eta kontzeptu horiek indibidualtasunean duten eraginaz jabetzeko gai izatea.**
- Kultura eta gizartea kontzeptuen esanahia definitzen eta azaltzen du, gizakiaren osagai soziokulturaleri erreferentzia eginez.
  - Hurbileko ingurunean, eragin soziokulturala nabaria den kasu zehatzak biltzen eta azaltzen ditu.
  - Idatzizko hausnarketak egiten ditu eta taldean hitz egiten du herentzia genetikoak eta eskuratuak nortasunaren eraketan izan dezaketen eraginaren inguruan.
  - Horiei buruzko hausnarketak idazten ditu, bere iritziak argudiatuta.
  - Rousseauk, Hobbesek eta Lockek gizartearen eta Estatuaren jatorriari buruz idatzitako teoriak laburtzen eta tesiak azaltzen ditu.
- 9. Kulturen eraikuntza-prozesua eta elementuak identifikatzen jakitea, batez ere euskal kulturarekin lotutakoak, eta euskal kultura ingurunera egokitzeko modutzat eta transformazio-bidetzat hartzea.**
- Kultura eraikitzerakoan norberak eta besteek eduki dezaketen zeregin aktiboa argudiatzen du.
  - Bere burua izaki sortzaile eta berritzailetzat dauka, kultura-elementuak sortzeko gauzatzen du.
  - Kultura baten funtsezko elementuak zerrendatzen ditu, eta euskal kulturaren non dauden azaltzen du.
  - Kulturak egungo gizartearen eraketa historikoan duen zeregina zein den badaki, eta Euskal Herriko kasu zehatza aztertzen du bereziki.
  - Erlatibismo/unibertsalismo kulturala dikotomiaren inguruan eztabaidatzen du, Ulrich Becken kosmopolitismo-kontzeptutik abiatuta.
  - Globalizazioaren kulturaren elementu komunak zein diren badaki, eta Euskal Herriko kulturaren non dauden azaltzen du.
- 10. Sozializazio-prozesuaren elementuak ezagutzea eta elementuok indibiduazioarekin eta norberaren bizi-estilo pertsonalarekin lotzea.**
- Lehen mailako eta bigarren mailako sozializazioaren ezaugarriak deskribatzen ditu
  - Hurbileko esperientzian bildutako kasu zehatzak hautatzen eta komentatzen ditu.
  - Indibiduazioa eta bizi-estiloa bereizten ditu.
  - Taldean aurkezpen bat egiten du bere inguruneko gazteen bizi-estiloaren inguruan.
  - Indibiduazioa, sozializazioa eta bizi-estiloaren arteko harremanaren inguruan eztabaidatzen du.

**11. Arrazoimenaren aukerei eta mugei buruz zenbait teoria filosofikok proposatutako tesiak esplikatzeari (gizakia animalia arrazionaltzat hartzen duen ikuskera aristotelikoa; optimismo arrazionalista; Humeren filosofia enpirista; Kanten filosofia kritikoa; zientzia modernoak proposatutako ziurgabetasun-printzipioa...).**

- Arrazoimen-kontzeptua beste kontzeptu batzuetatik bereizten ditu: zentzumenak, esperientzia, emozioa, iritzia, adimena, egia, ziurtasuna, errakuntza.
- Zenbait teoria filosofikok arrazoimenari buruz duten ikuskera azaltzen du, koherentziaz.
- Teoria horiek kritikoki balioesten ditu.
- Bakoitzaren bereizgarriak zein diren badaki.
- Arrazionaltasun teorikoa arrazionaltasun praktikotik, teoriatik eta esperientziatik bereizten du.

**12. Arrazionaltasuna eta egia lotu eta egia absolutua jakitera iristeko aukerez gogoeta egiteko gai izatea, eta horretan, gaurdaino proposatu diren ikuskera nagusien berri izatea: egia hizkuntzaren eta errealitatearen arteko bat-etortzea dela dioen teoria; pragmatista amerikarrek defendatutako egiari buruzko ikuskera; perspektibistek eta kontsentsuaren aldekoek proposatutako egiari buruzko teoria; eta egia zientifikoarekin lotutako ikuskera ugariak.**

- Egia mota batzuk definitzen ditu: egia zientifikoa, egia hizkuntzaren eta errealitatearen arteko bat-etortzea dela dioen teoria, egia pragmatismoaren arabera, egia perspektibistotik, egia "gehiengoari" lotuta, "fanatismoaren" egia etab.
- Komunikabideetan bilatzen ditu egia motak ageri diren kasu zehatzak.
- Hausnarketa egiten du estrategia eta konponbide berriak bilatzean egiaren eta errakuntzaren artean dagoen harremanaren inguruan.
- Errakuntza onartzen du errealitatea ezagutzeko prozesuan egon daitekeen une bat den heinean.
- Inguruko errealitatea ezagutzeko darabilen prozesua deskribatzen du (iturriak, mekanismoak, sinesmenak, aurreiritziak, datuak, probak etab.).
- Hausnarketa egiten du errakuntza kudeatzeko duen moduaren inguruan.

**13. Gizakiak errealitatean duen lekuaz zenbait ideia emateko gai izatea bai bakarka eta bai taldean, eta horretan, kontuan hartzea historian zehar zenbait filosofok (estoikoek, epikuroarrek, Nietzschek eta Sartrek, besteak beste) auzi horri buruz proposatutako teoriak.**

- Errealitateari buruzko hainbat planteamendu historikoren tesi nagusiak laburbiltzen ditu.
- Hainbat proposamen filosofikori buruz duen ikuspegia azaltzen du.
- Proposamen filosofikoak bere inguruneke portaera-estereotipoekin lotzen ditu.
- Proposamen horietatik abiatuta, interpretazioak proposatzen ditu gizakiak bere ingurunea aldatzeko duen gaitasunaren inguruan.
- Euskal Herrian hainbat adibide biltzen ditu gizakiak ingurune pertsonala (bizi-estiloa goitik behera aldatzea), politiko-soziala (alderdiak, GKEak, gizarte-mugimenduak eta abar) edo naturala (ekologismoa) aldatzeko asmoarekin egindako esku-hartzei buruzkoak.

## 6. ARTERAKO KOMPETENTZIA

### 6.1. PLASTIKAKO, IKUSIZKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO HEZKUNTZA

#### 6.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza ikasgaiko etapako helburuak:

1. Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ondo samar ezagutzea eta erabiltzen jakitea, teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea, teknologia horiek artelan konplexuak diseinatzeke eta garatzeko erabiltzea, eta kultura bisualean nagusi diren lan eta adierazpenetan identifikatzea eta balioestea.
2. Gure kulturen diseinuarekin, ikus-entzunezko euskarria duten hedabideekin, eta objektu nahiz formen adierazpen-sistema teknikoekin lotutako ekoizpen artistiko-estetikoko gune eta esparruen berri jakitea, eta horien kode espezifikoak ondo ulertzea, mota horretako arte-adierazpenak kritikoki aztertzeke eta espresio- eta komunikazio-baliabideak erabiltzeke.
3. Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak, eta natura nahiz kultura-inguruneke espazio, objektu eta elementuak adierazteke balio duten obra artistiko-estetikoak sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza aurrera egitea.
4. Bilaketa, irudimena, baliabide bisualen sormenezko manipulazioa eta antzeke beste trebetasun batzuetan oinarrituta, eta ikuspuntu estetiko bati eutsiz, inguruko objektuak transformatzea, egoerak problematizatzea eta konponbide ugari proposatzea.
5. Bakarka nahiz modu kolektiboan proiektu artistiko baten gaineko plangintza egitea, eta, gero, prozesu horri buruz gogoeta egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziak ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziak eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea.
6. Produktu estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan izan dituzten eta dituzten funtzio eta erabilerak ulertzea, eta korrante estetikoaren, moden eta gustuen bilakaerak eta oparotasunak jabetzea, horiek guztiek gure balioetan eta munduari nahiz gizakiari buruzko ikuskeretan zer-nolako eragina duten ulertzeke.
7. Artearen herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorbertzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunak jabetuta, kulturen arteko elkarrizketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoek egindako ekarpen ugarietako interesa izatea.
8. Norberarenak eta gure inguruan nagusi direnez bestelako espresio bide estetikoak errespetatzea eta aintzat hartzea, eta horretan, prozesu erreflexibo eta kritikoak martxan jartzea, estereotipo eta konbentzionalismoak gainditu, proposamenak



egitean erregistroak zabaldu, eta malgutasunez, solidaritatez, interesez eta tolerantziaz jokatzeko ikasteko.

## 6.1.2. EDUKIAK

### 6.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den *"Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak"* izeneko atariko eduki multzoak oinarrizko zehar-konpetentziak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak jasotzen ditu. Arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu behar dira edukiok.

Beste lau eduki multzoek bat egiten dute konpetentzien gaineko ikuskera azaltzean egindako proposamen eta oharrekin, eta alde horretatik, proposamen eta ideioek xehatuta ageri dira eduki multzootan.

*"Arte-hizkuntzen baliabide eta konbentzioak"* izeneko eduki multzoak hainbat eduki hartzen ditu hizpide: mundu fisikoa irudikatze arazoak; kolorea, argia, irudiaren eta hondoaren arteko erlazioak; irudiak antolatze baliabideak; hizkuntza plastiko eta bisualeko elementuek arteari ematen dizkioten espresio- eta komunikazio-aukerak; arte-irudikapenen arteko esanahi-loturak...

*"Sormen-prozesu, -teknika eta -formak"* eduki multzoak, berriz, honako eduki hauek lantzen ditu: artelan baten ekoizpen-prozesua; espresio bide grafiko-plastikoen lotutako teknikak; material, baliabide eta euskarriak; eta, horiez gain, lanerako espazioekin eta arte-adierazpenen aplikazioarekin lotutako edukiak ere hartzen ditu hizpide.

Azkenik, *"Artean eta kultura bisualean erreferente estetikoak diren lanak ulertzea eta interpretatzea"* izeneko eduki multzoak eduki hauek hartzen ditu ardatz: irudien funtzio politikoa, informatiboa, pertsuasiboa...; artea eta irudiak baldintzatzen dituzten faktore sozial eta kulturalak; produktu estetikoaren arteko interakzioa...

Eduki multzo hauek elkarrekin estu lotuta daude, eta, unean-unean diseinatutako curriculum-proiektuak eta ikasgelako programazioak nolakoak diren, mota askotako konbinazioak egin daitezke haietan oinarrituta.

Zer dira, baina, eduki multzoak? Hauxe: irakasleei zikloan zehar landu beharrekoei buruzko informazioa ematen dieten blokeak. Aurrez ezarritako konpetentziak lortzeko egokientzat jotzen diren edukien berri ematen dute blokeok. Bigarren Hezkuntzan, gure neska-mutilekin batera egin beharreko lanek helburu garbia dute, oso: ikasleek beren begirada kritikoa zorrotz dezaten lortzea; beren ingurune bisualari dagokionez, batik bat.

Erne ibili beharra dago, blokeok ez baitute, zehatz esateko, gai-zerrendarik osatzen; ez dira konpartimenduetan banatutako unitateak, eta ez dira, beraz, bereiz landu behar.

Azkenik, esan dezagun edukiotako bakar batek ere, hurrenkerak hurrenkera, ez duela besteen aldean inolako lehentasunik.

## 6.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak

### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

### 2. MULTZOA. Arte-hizkuntzen baliabide eta konbentzioak

- Mundu fisikoaren pertzepzioa: argia, kolorea, forma, egiturak, hirugarren dimentsioa, figuren eta hondoen arteko erlazioak, mugimendua...
- Arte plastiko eta bisualek mundu fisikoa adierazteko erabiltzen dituzten eta erabili izan dituzten moduetarako hurbilketa: kolorea, argia, distantzia, mugimendua, figura eta hondoa...
- Adierazpen-asmorik gabeko forma estetikoak, forma geometrikoak eta horien adibideak eguneroko bizitzan.
- Elementu formal oinarrizkoek arte bisualetan eta irudietan dituzten adierazpen-ahalmenak: lerroa, kolorea, bolumena, testurak...
- Irudien antolamendua: egituraren eta oinarrizko elementuen arteko erlazioak.

- Hizkuntza bisualaren baliabideek betetzen dituzten funtzioetara hurbiltzea: publizitatea, logotipoak...
- Esanahi-aldaketak: testuingurutik ateratzea eta besterenaz jabetzea.
- Baliabide jakinen kode berariazkoetara hurbiltzea: komikia, zinema...
- Modu espontaneoan erabiltzea hizkuntza plastiko eta bisualaren elementu formal oinarrizkoak eta haiek antolatzeke irizpideak ikertzea.
- Errealitatea hautematea eta zentzumenen bidez arakatzeta.
- Modu sistematikoan aldatzea erabilitako elementuak eta baliabideak, norberaren asmoari hobekien egokitzen zaizkion eraginak lortzeko.
- Hizkuntza plastiko eta bisualaren elementu formalak ezagutu eta interpretatzea.
- Irudiak aldaketa grafiko eta plastikoen bidez berregitea.
- Faktore naturalen eta eguneroko bizitzan espazioarekin eta denborarekin lotzen diren gertakarien interpretazio plastikoa egitea.
- Inguruko egiturak, koloreak eta formak aldatzeko propietateak, funtzioak eta aukerak behatzea eta komentatzea.
- Geometria-trazadura oinarrizkoak erabiltzea formak sortzeko.
- Hiru dimentsioko adierazpenak egitea azalera lauetatik abiatuta.
- Norberak ekoizpen plastiko eta bisual sortzaileak egitea.
- Inguruneke aukera estetikoak ikertzeko sentikortasuna.
- Kulturek mundu fisikoa adierazteko landu dituzten soluzioetara hurbiltzeko interesa adieraztea.
- Hizkuntza plastiko eta bisuala erabiltzeko jarrera izatea, sentimenduak, bizipenak eta ideiak irudimenez, berezkotasunez eta autonomiaz adierazteko.
- Hizkuntza plastiko eta bisualaren elementuak antolatu eta haiek erabiltzeko modu berriak ikertzeko gogoia izatea.
- Ikasleak egindako proposamen artistikoen eta ikasleak inguruan dituen irudien esanahiak aldatzeko aukerak arakatzeko jakin-mina izatea.
- Egiten dituen lanak hobetzeko jarrera izatea.

### 3. MULTZOA. Sormen-prozesu, -teknika eta -formak

- Egiteko prozesuaren faseak: plangintza, egitea eta balioestea.
- Talde-lanaren garrantzia arte-proiektuetan informazioa bilatu eta ikertzeko.
- Arte- eta kultura-garai guztietako ekoizpen artistikoetan, bereziki Euskal Herrikoetan, landu diren forma eta espazioetara hurbiltzea.
- Bi dimentsioko adierazpen grafiko eta plastikoko teknika oinarrizkoak. Adierazpen-ezaugarriak.
- Bi dimentsiotan sortzeko teknika oinarrizkoak. Adierazpen-ezaugarriak.
- Material, tresna eta euskarrien garrantzia.
- Materialak birziklatzea ingurumena zaintzen laguntzeko.

- Teknologia-euskarria duten adierazpen-tekniketarako sarrera: argazkigintza, bideogintza, ordenagailua...
- Teknika eta baliabide materialak identifikatzea askotariko obra eta irudietan.
- Materialak, teknikak eta tresnak hautatu eta erabiltzea arte-produktu jakinak egiteko.
- Materialak eta teknikak erabiltzeko ekimen espontaneoak baliatzea, ideia originalak eta sortzaileak sustatzeko.
- Adierazteko eta komunikatzeko asmoen arabera ikertzea eta erabiltzea bi eta hiru dimentsioko teknika oinarrikoak.
- Teknologia berriak ikertu eta erabiltzea komunikaziorako eta adierazpenerako.
- Paper-zorroa erabiltzea banako eta taldeko sorrera-prozesuetan.
- Proiektu kolektiboak lantzea askotariko ekoizpen irudidunak egiteko.
- Taldeko lana balioestea, arauak betetzea eta talde-lanean eman zaion egitekoa onartzea.
- Tresnak, materialak eta espazioak erabili eta zaintzeko arauak eta jarraibideak betetzea eta lana ondo egiteko gogoia erakustea.
- Balioestea zer lan handia aurrez daitekeen obra bakoitzerako teknika egokiena aukeratuta.
- Tradizionalak ez diren materialak ezagutzea eta erabiltzea, adierazpen-elementu izan daitezkeen aldetik.

#### **4. MULTZOA. Artean eta kultura bisualean erreferente estetikoak diren lanak ulertzea eta interpretatzea**

- Gizakiek artearen bidez eta beste adierazpen estetiko batzuen bidez ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazi eta komunikatzeko duten beharrezana.
- Gure kulturak irudiak zehaztean ageri dituen arazoak: espazioaren irudikatzea edo adierazpena, giza irudiarena, denborarena eta bestelako elementuena.
- Irudien funtzioak: komunikatzea, informatzea, laguntzea, adieraztea, funtzio didaktikoa edo estetikoa izatea, etab.
- Historian aztertzea, testuinguru-faktoreen arabera, zer erabilera, funtzio eta forma izan dituen arte-ekoizpenak munduko kulturetan.
- Eguneroko bizitzan inguruan ditugun irudien funtzioak.
- Ingurune hurbileko arte-ekoizpenak.
- Aztertzea, ekoizle diren aldetik duten esperientzian oinarrituta, zer arazo eta galderari egin behar dioten aurre irudi bat egitean.
- Ikertzea zer lotura dauden ikaslearen esperientziaren eta kultura- eta denbora-testuinguru askotariko artelanen artean, adierazpenerako soluzioak eta estrategiak ezagutzeko.
- Artelanak eta adierazpen bisualak aztertzea, haien testuinguru historikoa aintzat hartuta.
- Taldeko lan-proiektuak egitea, produktu mediatiko jakinak irizpide kritikoz aztertu eta analizatzeko.

- Euskal Herriko museoak bisitatzea.
- Euskal artistak eta haien lanak ikertzea.
- Irudiek egungo Euskal Herriko gizartean betetzen duten egitekoa ezagutzea eta horren balioespen kritikoa egitea.
- Kulturek historian baliatu dituzten adierazpen estetiko eta artistikoen aberastasuna ezagutzeko jakin-mina izatea.
- Inguruneko arte-jarduerak ezagutu eta horietan parte hartzeko interesa izatea.
- Jarrera irekia eta malgua izatea beste pertsona eta talde batzuek egindako arte-adierazpenak aztertu eta balioestean.

### 6.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Arte-hizkuntzen baliabide eta konbentzioak

- Mundu fisikoaren pertzepzioa: argia, kolorea, forma, egiturak, hirugarren dimentsioa, figuren eta hondoen arteko erlazioak, mugimendua, eskalak, ilusio optikoak...
- Arte plastiko eta bisualek dituzten arazoak mundu fisikoa irudikatu edo adierazteko: historian unean-unean izan diren irudikatze-mailak eta horien erabilera-testuingurua.
- Adierazpen- edo irudikatze-asmorik gabeko forma estetiko bisualak, forma geometrikoak eta horien adibideak artean eta eguneroko bizitzan.
- Objektuak eta espazioa geometria-trazaduren bidez adieraztea.
- Irudiak antolatze baliabideak: konposizioa eta oinarrizko elementuen arteko erlazioak (erritmoa, mugimendua, proportzioa, eskalak, etab.).
- Arteetako eta kultura bisualeko oinarrizko elementu formalek adierazpenerako eta komunikaziorako dituzten erabilerak eta aukerak: lerroa, kolorea, testurak, bolumena, argi-ilunak, etab.
- Esperientziak eta jakintzak duten egitekoa obra edo irudi bat interpretatzean.
- Irudiaren ezaugarriak: ikonoa/abstrakzioa, anbigua/agerikoa, xumea/konplexua, denotazioa/konnotazioa, etab.
- Eguneroko bizitzako irudiek nola erabiltzen dituzten hizkuntza bisualeko baliabideak: publizitatea, logotipoak, sinboloak, etab.
- Esanahi-aldaketak: testuingurutik ateratzea eta besterenaz jabetzea.
- Metaforak eta irudietan erabiltzen diren beste hizkuntza-baliabide batzuk.
- Baliabide jakinen kode berariazkoetara hurbiltzea: komikia, zinema...
- Garai askotako artelanak eta Euskal Herriko eta beste hainbat tokitako kultura bisualeko produktuak behatzea eta haien azterketa formala egitea.
- Bi dimentsiotatik hiru dimentsiotara igarotzeko premia dakarten jarduerak egitea.
- Kolorea eta argia erabiltzea bolumenak osatu eta formak sortzeko.
- Hiru dimentsioak simulatzea bi dimentsioko espazioetan.
- Forma baten zatien arteko erlazioen (eskalen, elkarrekiko loturen eta bestelako erlazioen) gaineko esperientziak.
- Formak eta irudiak deskribatzea, haiek norberarenak egin eta irudiak sortzeko.
- Hizkuntza bisualeko baliabide formalak erabiltzea konposizioak egiteko.
- Arte-ikerikuntzak egitea espazio errealean.
- Denbora eta espazioa hainbat bitartekotan adierazteko soluzioak ikertzea eta aztertzea.
- Esanahiak aldatu edo esanahiarekin jolasteko, testuingurutik ateratako elementuak, jabetzeak, metafora bisualak eta antzeko baliabideak erabiltzen dituzten artelanak eta irudiak bilatzea eta ikertzea norberaren inguruan.
- Jarrera ireki eta malgua izatea irudiak eta arte-adierazpenak aztertu eta balioestean.
- Leku eta garai askotako irudiak eta arte-objektuak ezagutzeko eta ulertzeko interesa izatea.

- Estereotipoak gainditzea ikaslearen adierazpen grafikoetan, ingurune fisikoa behatu eta aztertu ostean eta beste pertsona batzuen proposamenak entzun ondoren.
- Ikaslearen proposamen artistikoen eta ikasleak inguruan dituen irudien esanahiak aldatzeko aukerak ikertzeko jakin-mina.

### 3. MULTZOA. Sormen-prozesu, -teknika eta -formak

- Artelanak egin eta sortzeko prozesuaren faseak: plangintza, egitea eta emaitzak balioestea.
- Arte-proposamenak lantzeko talde-lana.
- Informazioa bilatu eta ikerketak egitea arte-proiektuetan.
- Arte tradizionalak (marrazketa, pintura, eskultura, grabatua...) eta artea egiteko beste espazio eta modu batzuk (argazkigintza, bideo-arte, performanceak, instalazioak, ekintzak eta interbentzioak, net-art...).
- Bi dimentsioko adierazpen grafiko eta plastikoko teknika oinarrizkoak. Adierazpen-ezaugarriak eta -aukerak.
- Bi dimentsiotan sortzeko teknika oinarrizkoak. Adierazpen-ezaugarriak eta -aukerak.
- Euskarriak, materialak eta tresnak. Ezaugarriak, berezitasunak eta erabilera moduak.
- Teknologia-euskarria duten adierazpen-teknikak: argazkigintza, bideogintza, ordenagailua...
- Arteak landu eta gauzatzeko espazioak: diseinua, ikus-entzunezko bitartekoak (telebistako produktuak, animazioa, etab.), arte grafikoak, dekorazioa, moda...
- Teknika eta baliabide materialak identifikatzea askotariko obra eta irudietan.
- Material ohikoak eta ezohikoak bilatzea, ikertzea eta eskuz erabiltzea, eta haien adierazpen-ahalmenak arakatzea bi eta hiru dimentsiotan.
- Teknikak, prozesuak eta emaitzak konparatzea.
- Lan-proiektu jakinetarako egokienak diren materialak aztertzea.
- Teknika bakoitzerako behar diren tresnak erabiltzea, haiek nola erabiltzen diren jakiteko, eta haien ezaugarriak eta erabilera-aukerak ikertzea.
- Argazkigintzako eta bideogintzako prozesu, teknika eta prozedurak aztertzea eta probatzea.
- Baliabide informatikoak eta teknologia berriak ikertu eta erabiltzea irudiak bilatu eta sortzeko.
- Paper-zorro bat egitea banako edo taldeko sorkuntza-prozesua bildu eta hausnarketak eta ebaluazioak errazteko.
- Irudiak eta arte-proiektuak egiteko talde-plangintza eta -lanketa.
- Proiektu kolektiboak lantzea publizitate-produktuak, logotipoak, film xumeak eta antzekoak egiteko.
- Arteak aplikatzeko espazioak ikertzea, haiei buruzko informazioa bilatzea, eta espazio horien garrantziaren eta eguneroko bizitzan duten presentziaren gainean debatitzea.
- Arte-adierazpen gehienetan talde-lana behar dela eta hura funtsezkoa dela aitortzea.

- Teknika egokiena aukeratzeak lan-prozesuan eta emaitzan duen zeregin berebizikoa aitortzea.
- Artearen historian teknika eta material berrien sorrerak izan duen eragina jakiteko jakina-mina.

#### **4. MULTZOA. Artean eta kultura bisualean erreferente estetikoak diren lanak ulertzea eta interpretatzea**

- Artearen, irudien eta beste adierazpen estetiko batzuen bidez ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazi eta komunikatzeko beharrezana, askotariko testuingurutan.
- Artearen eta irudien funtzioak eta erabilera baldintzatzen dituzten faktore sozialak eta kulturalak.
- Artearen eta artistaren ideiak garai historiko eta kultural bakoitzean.
- Arte-objektuak eta irudiak, balio sozialen eta ideien adierazpen diren aldetik: gizarte- eta genero-rolak.
- Adierazpen artistiko eta estetikoaren esanahi kulturala.
- Erabiltzaileen eta testuinguruaren egitekoa esanahien eraikuntzan.
- Jatorri eta kultura askotako produktu estetikoaren arteko interakzioak eta influentziak.
- Irudien irakurketa, elementu bisualen, kontzeptuen eta haien arteko harremanen bidez.
- Irudiek izan ditzaketen esanahien ikerketa, haien testuinguru espresibo eta erreferentzialari erreparatuta.
- Obra batzuen eskemak eta laburpenak egitea, haien balio nabarmenak azpimarratzeko.
- Une historiko jakinetan izan diren adierazpen- edo irudikatze-arazoaren gaineko ikerketa.
- Irudiek une historiko eta kultura askotarikoetan izan dituzten erabilera eta esanahien arteko kontrastea, bereziki Euskal Herrian.
- Irudiak egitea, prozedura askotarikoak erabilia eta lehendik dauden irudiak proiektatu eta trukatu.
- Narrazio bisualak, norberaren nortasunaren eta ingurunearen arazoaren gainekoak, eraikitzea askotariko euskarriak erabilia.
- Arteari eta kultura bisualari buruzko albisteak irakurtzea eta eztabaidatzea.
- Talde-lanak egitea, jatorri eta kultura askotariko adierazpen artistikoen eta estetikoaren arteko interakzioak aztertzea.
- Ikerketak dakarren ahalegina eta aberastasuna balioestea eta irtenbide berriak lantzea artea ekoizteko prozesuetan.
- Publizitatean, interneten, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen bestelako produktuetan erabiltzen diren irudien balioespen kritikoa egitea.
- Begirunea eta tolerantzia adieraztea norberaren eta besteren bizipen estetikoaren adierazpenekiko.



- Arte-adierazpenen historiaren gaineko sentikortasuna izatea, kultura-adierazpen eta -identifikazioko elementuak diren aldetik.
- Artera gerturatzeko bide gisa ulertzea Euskal Herriko eta beste hainbat tokitako museoetara, erakusketetara, errepresentazioetara eta antzekoetara joatea.

#### 6.1.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

##### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioetsi eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

##### 2. MULTZOA. Arte-hizkuntzen baliabide eta konbentzioak

- Mundu fisikoaren pertzepzioa eta haren adierazpena, fenomeno konplexua, testuinguru-faktoretara baldintzatua, den aldetik.
- Obra irekiaren ideia: ikusleen egitekoa obraz jabetu eta hura interpretatzean (bizipenak, ezagutza artistikoak, kokapena, une historikoa, etab.).

- Irudiak antolatzeko elementu formalak: konposizioa eta oinarrizko elementuen arteko erlazioak, erritmoa, mugimendua, proportzioa, eskalak, etab.
- Geometriaren azterketa eta kulturen forma estetikoetan duen aplikazioa.
- Objektuak eta espazioa geometria-trazaduren eta sistema normalizatuen bidez irudikatu edo adieraztea.
- Adierazpen- edo irudikatze-sistemen aplikazio-inguruneak.
- Bolumenak eta formek espazioan duten harremana: forma ireki eta itxiak, tentsioak, hustasuna, mugimendua, etab.
- Erretorika bisuala: metaforak, alegoriak...
- Irudiak, komunikaziorako eta adierazpenerako tresna konplexuak diren aldetik.
- Testuinguruak duen egitekoa irudiak ulertu eta dekodetzeko.
- Testuingurutik ateratzea, besterenaz jabetzea eta irudien eta arte-produkzioen esanahia aldatzeko beste modu batzuk.
- Adierazteko eta komunikatzeko baliabideak, eguneroko bizitzako irudiei aplikatuta: publizitatea, arte grafikoak, logotipoak, seinaleak, sinboloak, etab.
- Narrazio bisuala eta audiobisuala: berariazko adierazpen- eta komunikazio-baliabideak.
- Geometria-trazaduren erabilera formak eraikitzeke.
- Hiru dimentsioko formak bi dimentsioko espazioetan irudikatzea, geometria-trazadurak eta irudikatze-sistemak erabilia.
- Interbentzio plastikoak egitea ingurunean, eta argiak, soinuak eta antzeko elementuak erabiltzea esanahiak osatzeko.
- Irudiek izan ditzaketen esanahiak ikertzea, haien testuinguru espresibo eta erreferentzialari erreparatuta.
- Bideo, multimedia, publizitate eta diseinuko irudiak irakurtzea, antolamendua eta esanahiak osatzeko elementu formal oinarrizkoak ezagutzeko.
- Jolas erretorikoak eta testuingurutik atera eta besterenaz jabetzeko jarduerak probatzea, objektuen eta egoera erreal eta asmatuen irakurketa edo ikuspegi berriak osatzeko.
- Adierazpen grafikoko arazoei aurre egitean, irtenbide originalak bilatzeko jarrera izatea.
- Inguruko artelan eta irudietan elementu formalak deskubritzeko interesa izatea, esanahiak osatzeko egiten duten lana aintzat hartuta.
- Beste pertsona batzuen iritziak, lanak, gustu estetikoak eta pertsona horiek darabiltzaten adierazpen-baliabideak errespetatzea eta haiekiko interesa adieraztea.

### 3. MULTZOA. Sormen-prozesu, -teknika eta -formak

- Arte landu eta sortzeko prozesuak: proiektutik objektura.
- Proiektu kolektiboen eta talde-lanaren garrantzia artean eta kultura bisualean.
- Arte-produkzioa, ikerketa-prozesua den aldetik.

- Adierazpen grafiko eta plastikoko teknikak. Ezaugarriak, ahalmenak eta erabilerak.
- Hiru dimentsiotan lan egiteko teknikak. Eskultura eta haren egungo dimentsioak.
- Teknologia-euskarrien bidez adierazteko teknika oinarrizkoak: argazkigintza, bideogintza, ordenagailua...
- Euskarriak, materialak eta tresnak. Haien ezaugarriak, berezitasunak eta erabilera moduak.
- Ekoizpen modu berriak arte-jardueretan: performanceak, instalazioak, ekintzak eta interbentzioak, net-art...
- Diseinua: eguneroko bizitzan arteak aplikatzeko eremua.
- Teknologia-euskarriak ikertzea, arakatzea eta haien ahalmen eta ezaugarrien gainean hausnartzea.
- Material ohikoak eta ezohikoak bilatzea, ikertzea eta eskuz erabiltzea, eta haien adierazpen-ahalmenak arakatzea bi eta hiru dimentsiotan.
- Teknika eta material ugari erabiltzea artelanetan, ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazi eta komunikatzeko.
- Teknika bakoitzean behar diren tresnak erabiltzea, haiek ezagutu, haien erabilera menderatzeko eta haien ezaugarriak eta erabilera-aukerak ikertzeko.
- Teknikak eta haien prozesu eta emaitzak aztertzea eta konparatzea, beren erabilerei eta esanahiei erreparatuta.
- Garaiko arte-jardueretan testuinguru sozial eta kulturalarekiko izan diren aldaketen gaineko elkarrizketak lantzea, dokumentazio anitzean oinarrituta.
- Proiektu kolektiboak lantzea, ikertzeko zer-nolako adierazpen-aukerak ematen dituzten performanceek, instalazioek eta askotariko interbentzioek, ideia artistikoak garatze aldera.
- Sortze-prozesuari buruzko dossier indibidualak eta kolektiboak egitea, ideiak sortu eta informazioa bilatzeko urratsetik hasi eta amaierako aurkezpenaren eta autoebaluazioaren urratsera arte.
- Mota askotako diseinu-produktuak behatu eta aztertzea.
- Kultura-testuinguru berriekiko eta arteak haien baitan bizi dituen aldaketekiko sentikortasuna.
- Eguneroko bizitzan artearen zenbait proiektuak –hala nola dekorazioak– eguneroko bizitzan duten egitekoaz jabetzea eta egiteko hori balioestea.
- Arte-adierazpen gehienetan lankidetzaren behar dela eta hura funtsezkoa dela aitortzea.
- Lan artistikoaren plangintzak eta jarraipenak duen erabilgarritasuna aitortzea.

#### **4. MULTZOA. Artean eta kultura bisuarekin erreferente estetikoak diren lanak ulertzea eta interpretatzea**

- Euskal Herriko kulturen eta beste kulturen batzuetan sortzen diren galderak eta arazoak, irudi eta objektu artistikoetan gauzatu nahi direnean komunikaziorako, narratiborako eta adierazpenerako asmoak.

- Irudiei ematen zaizkien funtzioak: gizarte- eta botere-rolak baieztatzea, funtzio ideologikoa, informazioa ematekoa, komunikazio teknikoaren euskarri izatea, pertsuasio-funtzioa, pedagogikoa...
- Irudiak, errealitatearen gaineko diskurtsoen eta munduarekiko begiraden oinarri diren aldetik.
- Forma artistikoen bidez erantzunak eta kritika soziala bideratzeko aukerak.
- Eguneroko bizitzako produktu estetikoak –moda, gorputzaren apaingarriak, etab.–, adierazpen eta komunikazio sozialaren euskarri diren aldetik.
- Arteek eguneroko bizitzan dituzten balio funtzional eta estetikoak: diseinuaren oinarriak eta eremuak.
- Artearen, artisten eta lan artistikoaren gaineko ikuskerak historian eta kultura askotarikoetan.
- Artea eta irudiak, nortasun indibidual eta euskal nortasun kolektiboaren egituratzaile diren aldetik.
- Testuinguruak eta erabiltzaileek duten zeregina artearen eta irudien esanahia eraikitzeke.
- Irudiek une historiko eta kultura-testuinguru askotarikoetan izan dituzten erabilera eta esanahien arteko kontrastea.
- Publizitatean, interneten, bideo jolasetan, errebistetan eta komunikabideetan agertzen diren beste ekoizpenetan, erabiltzen diren irudien balorazio kritikoa generoaren ikuspegitik.
- Arteari eta kultura bisualari buruzko albisteak irakurtzea eta eztabaidatzea.
- Ikertzea eta ikuspegi kritikoz aztertzea nola lortzen duten arteko eta beste bitarteko batzuetako irudiek munduari eta norberari buruzko ikuspegiak ematea, diskurtsoak eraikitzea eta errealitatearen gaineko jarrera jakinak finkatzea.
- Arteaz eta artisten lanaz historian zehar izan diren ikuspegiaren gaineko debate arrazoituak egitea.
- Arte-adierazpenak gero eta hobeto ulertzeko museo, erakusketa, emanaldi eta bestelako ekitaldietara joatea erabiltzea.
- Proiektu kolektiboak lantzea, prozedura estetikoaren bidez irudiak sortzeko eta, horien bitartez, gizarte-arazoei erantzun edo lehendik dauden irudiekiko elkarrizketak sortzeko.
- Leku eta garai askotako irudiak eta arte-objektuak ezagutzeko eta ulertzeko interesa, eta horiek guztiak faktore anitzeko produktu konplexuak direla balioestea.
- Arte-adierazpenak ezagutu eta ulertzeko interesa eta jakin-mina izatea, norberaren nortasuna eta euskal nortasun kolektiboa ezagutzeko bidea erakusten duten aldetik.
- Pertsonen eta gizarteek erregistro eta kontzepzio estetikoak erlazionatzen dituztenean sortzen den aberastasuna aitortzea.
- Norberaren gustukoak ez diren artelanak onartzea eta haiek ulertzeko jakin-mina izatea.
- Ondare artistiko eta kulturala balioetsi, errespetatu eta gozatzea, adierazpenari dakarzkion baliabide formalen aberastasuna aintzat hartuta.

### 6.1.2.5. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 3. MULTZOA. Artean eta kultura bisualean erreferente estetikoak diren lanak ulertzea eta interpretatzea.

- Paleolitoko artea: haitzuloetako artea (labar-pinturak eta lanabes dekoratuak). Ekain, Altxerri, Isturitz, Santimamiñe, Benta Laperra...
- Neolitoko eta Metalen aroko megalitoak (eraikin megalitikoak: dolmenak, harrespilak...). Egilaz, Sorginetxe, Okabeko harrespilak...; Burdin Aroko kastroak eta gotorturiko herrixkak. Mikeldi, Arabako La Hoya...
- Erromatarren aztarnak: Veleia, Andelos, Oiasso, Banka, Baigorri eta Beskoitzeko meategiak...
- Bisigodoen, frankoen, musulmanen aztarnak (Leireko kutxatila, Tuterako meskita...)
- Arte Erromanikoa; gotorlekuak, dorreak...; Donejakue bidea (Eunate, Leire, Aralar, Estibalitz, Armentia...)
- Gotikoa
  - Arte erlijiosoa (Orreagako kolejiata, Baionako, Gasteizko eta Iruñeko katedralak...).
  - Arkitektura zibila (Euskal Herriko Erdi Aroko gazteluak eta dorretxeak, hiribilduak...)
- Errenazimentua
  - Arte erlijiosoa. Euskal Gotikoa
  - Arkitektura zibila (Oñatiko Unibertsitatea, baserriak...)
  - Joanes Antxeta eskultorea, Francisco Mendieta margolaria...
- Barrokoa
  - Arte erlijiosoa (Loiolako Basilika, Donostiako Koruko Andre Maria...)
  - Arkitektura zibila (Iruñeko Udaletxea, hainbat herritako udaletxeak...)
  - Luis Salvador de Carmonaren eta Juan Pascual de Menaren artelanak Euskal Herrian; Joan Bazkardo eskultorea, Ignacio Iriarte eta Martin Amigo margolariak...
- Neoklasizismoa eta XVIII. mendeko artea
  - Luis Paret margolaria Euskal Herrian. Iruñeko katedrala eta Noaingo urbidea...
  - Euskalherriaren Adiskideen Elkarte (EAE)
  - Bilboko, Gasteizko eta Bergarako Arte eta Lanbide eskolak, Justo Antonio Olagibel, Pedro Manuel Ugartemendia, Santos Angel Otxandategi, Frantzisko Ibero, Bilboko eta Gasteizko plaza berriak, Donostiako Konstituzio plaza, Erdoiztako basiliza, Gernikako juntetxea...
- Erromantizismoa eta XIX. mendeko artea
  - Arkitektura erlijiosoa. Neoklasikoa (Mutrikuko Andre Mariaren Jasokundearen eliza...) eta neogotikoa (Donostiako Artzain Onaren katedrala...)
  - Arkitektura zibila. Modernismoa eta arkitektura eklektikoa. Hirigintza: hirien zabalgunek, parkeak... (Abadia jauregia, Bizkaiko Zubia, Florida parkea...)

- Artista aipagarriak: Alberto Palazio, Leon Bonnat, Anselmo Guinea, Antonio Maria Lekuona, Eduardo Zamacois, Ignacio Diaz Olano, Ignacio Ugarte, Etxena ...
- XX. mendeko arte plastikoak
  - Tradizioa eta modernitatea. Abangoardiak. Euskal pintura
  - Arkitektura: euskal estiloa, art decó eta arrazionalismoa gerra aurretik (Ajuria-enea, Biarritzeko Udal Kasinoa, Donostiako Klub Nautikoa...). Arkitektoak: Manuel Maria Smith, Jose Manuel Aizpurua, Joakin Labaien, Ricardo Bastida, Secundino Zuazo...
  - Gerra osteko arte frankista (hildako frankisten omenezko monumentuak, Iruñeko Eroritako Monumentua, Donostiako Jesusen Bihotza, Pedro Muguruza arkitektoaren lanak...)
  - Artea eta diktadura. Arantzazu eta Oteiza
  - Euskal Eskultura eta artista progresistak. Gaur, Orain, Denok, Hemen... Iruñeko Topaketak.
  - Franco hil ondorengo artea. Picassoren Gernika Espainiara. Euskal Eskultura Berria eta arte garaikidea
  - Gerra osteko arkitektura. Saenz de Oiza, Peña Gantxegi, Rafael Moneo...
  - Arte Ederren Fakultatea, Euskal Herriko Arkitektura Eskolak.
  - Gaur egungo arkitektura Euskal Herrian. Bilboko Guggenheim Museoa, Osakidetzaaren eraikina...
  - Zenbait artista plastiko aipagarri:
  - Fernando Amarika, Adolfo Guiard, Dario de Regoyos, Francisco Durrio, Zubiaurre anaiak, Francisco Iturrino, Ignazio Zuloaga, Arrue anaiak, Eulalia Abaitua, Gustavo de Maeztu, Txiki, Aurelio Arteta, Nicolas Lekuona, Elias Salaberria, Mentxu Gal, Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Ruiz Balerdi, Amable Arias, Bixente Amezttoy, Zumeta, Esther Ferrer, Txomin Badiola, Cristina Iglesias...
- Euskal zinema
  - Zenbait film aipagarri: Ramuntcho (1918); La Capitana Alegría (1921); Eburne, modista bilbaína (1924); El Mayorazgo de Basterreche (1928); Le Pays des Basques (1930); Euzkadi (1933); Gernika (1937); The Land of Basques (1955); El próximo otoño (1963); Los hijos de Gernika (1967); Amalur (1968); Axut (1976); El proceso de Burgos (1979); Ikuska dokumental-saila (70eko eta 80ko hamarkadak); Sabino Arana (1980); La fuga de Segovia (1981); Agur Everest (1981); La Conquista de Albania (1983); La muerte de Mikel (1983); Tasio (1984); Kalabatza Tripontzia (1985); 27 horas (1986); Lauaxeta (1987); Kareletik (1987); Crónica de la Guerra Carlista (1988); Ke arteko egunak (1989); Alas de mariposa (1991); Vacas (1992); La madre muerta (1993); La ardilla roja (1993); El día de la bestia (1995); Euskal Pilota (2003); Aupa Etxebeste! (2005); Bertsolari (2011); Emak Bakia Baita (2012); Loreak (2014); Lasa eta Zabala (2014); Amama (2015)...
  - Euskadiko Filmatagia; euskal zuzendariak, aktoreak, gidoilariak...; zinemaldiak...
- XXI. mendeko artea
  - Zenbait artista plastiko aipagarri: Itziar Okariz, Juan Luis Moraza, Pello Irazu, Jon Mikel Euba, Manu Muniategiandikoetxea, Ibon Aranberri, Jose Ramon Amondarain, Mainer Lopez, Asier Mendizabal, Carlos Irijalba, Sergio Prego, Ana Laura Alaez, Juan Perez Agirregoikoa...
- Museoak

- Bilboko Arte Ederretako Museoa eta Guggenheim Museoa
- Gasteizko Artium eta Arabako Arte Ederretako Museoa
- Donostiako San Telmo Museoa
- Nafarroako Museoa
- Altzuzako Oteizaren Museoa
- Baionako Euskal Museoa
- Beste zenbait museo eta arte-zentro (Txillida-Leku, Cristobal Balenziaga Museoa, Tabakalera, Huarteko Zentroa, Lizarrako Gustavo Maeztu Museoa, Ekainberri, Untzi Museoa, Montehermoso Kulturunea, Baionako Leon Bonnat Museoa, Irungo Oiasso Erromatar Museoa...)

### 6.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 6.1.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

1. **Zenbait motatako mezuak sortzeko gai izatea, eta horretan, modu kontzientean erabiltzea bere interes espresibo eta komunikatiboekin bat datozen euskarri eta prozedura artistikoak.**
  - Bere asmoari egoki zaizkion euskarri eta prozedurak hautatzen ditu.
  - Erantzun propioak lantzean, teknologiek ematen dituzten aukerak baliatzen ditu.
  - Materialen birziklapenaren garrantzia eta jarduera horrek dakartzan adierazpen-aukerak nabarmentzen ditu bere lanetan.
  - Modu kontzientean eta intentziaz erabiltzen ditu baliabide eta teknika plastiko eta bisualak, mezu propioak osatzeko.
  - Azterketa tonalak baliatzen ditu errealitatearen interpretazioak egiteko.
  - Lan-proiektuak modu argian eta duen helburuari atxikita amaitzen ditu.
2. **Zenbait hizkuntza-erregistrok (komikiak, publizitateak...) erabiltzen dituzten euskarri estetikoekin lotutako kode espezifikoak ezagutzea eta bere arte-ekoizpenetan erabiltzea.**
  - Ahoz edo idatziz arrazoitzen du zergatik erabili diren baliabide plastiko eta bisual jakinak askotariko arte-adierazpenetan.
  - Inguruan dituen irudietan erabili diren baliabide teknikoak eta prozedurak bereizten ditu.
  - Hizkuntza erabiliaren (komikiaren, argazkigintzaren, multimediararen, zinemaren eta gainerako hizkuntzen) ezaugarri propioak bereizten ditu.
  - Loturak egiten ditu kultura bisualeko komunikazio-eremuen artean: komikia, zinema...
  - Hizkuntzen arteko antzekotasunak eta diferentziak hautematen ditu.
  - Gizakien pertzepzioa zabaltzeko moduak igartzen ditu ikus-entzunezko baliabideen erabileran.
  - Egiten dituen lanetan, argiarekin, itzalekin, tonu-balioekin eta gainerako alderdiekin esperimentatzen du.

- 3. Artelanetan eta berarengandik gertueneko inguruneetan geometriarekin lotutako prozedurak eta baliabideak identifikatzeko gai izatea eta bere arte-ekoizpenetan erabiltzea.**
  - Loturak egiten ditu inguruan dituen arte-formen eta geometriaren artean.
  - Geometria-trazadura oinarrizkoak egiten ditu, prozedura eta metodo arrazoituak erabilia.
  - Geometriaren baliabideak erabiltzen ditu espazioaren adierazpen edo irudikapenak dakartzan arazoei irtenbidea emateko.
  - Eraldaketa geometriko oinarrizko batzuk erabiltzen ditu bere artelanetan.
- 4. Ekoizpen estetiko-artistikoaren munduan nagusi diren esparru askotarikoak ezagutzea eta balioestea, esparru horiek aldakorrak direla aintzat hartzea, eta kontuan izatea haietan berebiziko eragina dutela unean uneko faktoreek (gizarte-aldaketek, garapen teknologikoak, faktore ekonomikoek...).**
  - Historian baliatu izan diren eta gaur egun lan artistikoak egiteko baliatzen diren espazioen antolamenduari buruzko informazioa bilatzen du eta arrazoizko modu batean antolatzen du informazio hori.
  - Lan-eremu artistiko eta estetikoaren eta gizartearen eskakizunen arteko loturak identifikatzen ditu.
- 5. Bere mezuak sortzean, elementu eta baliabide plastiko eta bisualen bidez espresatzeko eta komunikatzeko gai izatea.**
  - Adierazpen original eta irudimentsuak egiten ditu, eta gero eta lan hobetoak egiten saiatzen da.
  - Mezuak sortzen eta manipulatzeko, lan-prozesuen barnean.
  - Modu kontzientean eta intentzios erabiltzen ditu baliabide plastikoak –formak, koloreak, egiturak, etab.–, mezu propioak osatzeko.
- 6. Pentsamendu sortzaile eta originala lantzeko prozesuan aurrera egitea, eta horretan, eskura dituen baliabideak erabiltzea bere ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko.**
  - Ekarpent pertsonalak egiten ditu adierazpen-prozesu jakinetan.
  - Aldaketak egiten ditu elementu eta baliabideetan, bestelako esanahiak lortzeko.
  - Irudimena du bere bizipenak eta egin dituen aurkikuntzak adierazteko.
  - Beste pertsona batzuen ideiak bilatzen eta berrerabiltzen ditu, bere sormen-premietara egokituta.
  - Objektuak eta materialak erabiltzeko moduak ikertzen ditu.
  - Ingurune fisikoko materialen, objektuen eta egoeren aukera plastikoak eta esanahiak arakatzeko.
- 7. Bere lanetan material eta tresnak manipulatzeko eta unean-unean sortzen zaizkion arazo estetikoak konponbide egokia aurkitzeko gai izatea.**
  - Materialak, tresnak, euskarriak eta bestelako elementuak baliatzen ditu adierazteko eta komunikatzeko.
  - Ekimenez erabiltzen ditu materialak eta teknikak.
  - Lanak egiteko, irudiak eta objektuak bilatzen eta berrerabiltzen ditu.



- 8. Proiektu artistiko bat egiteko prozesuko urratsak planifikatzeko eta garatzeko gai izatea, eta horretan, zenbait proposamen egin eta fase bakoitzaren komenigarritasunaren aldeko arrazoiak emateko gai izatea.**
- Era logikoan antolatzen eta betetzen ditu egiten dituen artelanetako etapak.
  - Onartu egiten ditu egiten dituen akatsak eta hobetzeko modua direla ulertzen du.
  - Bere lan-prozesuaren gaineko hausnarketa ahozkoak eta idatziak egiten ditu.
- 9. Irudi eta artelanetan zenbait esanahi identifikatzeko gai izatea, eta horretan, irudi horiek egin dituenaren intentzioa eta testuingurua kontuan hartzea.**
- Balio funtzional eta estetikoak zehazten dituzten ezaugarriak identifikatzen ditu objektuetan eta errealitatearen hainbat alderditan.
  - Produkzio artistiko eta bisual jakinen faktore historikoak eta sozialak antzematen ditu.
  - Adierazpeneko soluzioak eta estrategiak hautematen ditu garai eta kultura askotako obretan.
  - Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruaren gaineko alderdiei buruzko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
  - Inguruan dituen komunikabideetako mezu bisualen helburuak identifikatzen ditu, eta mezuari zentzua ematen dioten elementu formalak aztertzen ditu.
  - Proiektu arrazoituak antolatzen eta lantzen ditu, produktu mediatiko jakinak aztertzeko.
- 10. Artearen munduan izandako proposamen estetiko ugariak identifikatzen eta elkarrekin lotzen jakitea, eta artea historian zehar eta hemen nahiz beste kultura batzuetan aldatuz doan prozesutzat interpretatzen jakitea.**
- Artelan askotarikoen ezaugarriak ezagutzen ditu, eta une eta ikuspegi estetiko zehatzen barnean interpretatzen ditu.
  - Egoki bereizten ditu irudien adierazpen moduak eta mugimendu artistiko jakinek adierazpen modu horiei ematen dieten erabilera.
  - Analisi-eskemak erabiltzen ditu arte-adierazpenak interpretatzeko.
  - Ikuspegi estetikoek historian zehar eta kultura askotarikoetan izan dituzten aldaketak ezagutzeko eta aldaketa horien arrazoiak ulertzeko interesa adierazten du.
  - Ingurune eta Euskal Herriko jarduera artistiko eta kulturalak ezagutu eta horietan parte hartzeko interesa ageri du.
- 11. Espresibide eta adierazpen estetiko ugariak identifikatzeko gai izatea, eta den-denak aberastasun-faktoretzat hartzea.**
- Onartu egiten ditu bere gustuekin bat ez datozen adierazpenak.
  - Taldean egindako lan artistikoetan parte hartzen du, eta errespetatu egiten ditu besteren ekarpenak.
  - Adierazpen original eta irudimentsuak egiten ditu, eta gero eta lan hobeagoak egiten saiatzen da.

### 6.1.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

1. **Bilaketarako jarrera izatea, eta horretan, pertzepzioa, jakin-mina eta sentsibiltatea artikulatzea, erantzun tekniko eta formal egokiak emateko.**
  - Loturak egiten ditu arte-ekoizpenen eta beren adierazpenerako eta/edo komunikaziorako xedeen artean.
  - Irudien pertzepzio-prozesuko elementuak eta faktoreak identifikatzen ditu (Geltast legeak, ilusio optikoak, etab.).
  - Prozeduretan egoki diren euskarriak, materialak eta tresnak identifikatzen eta konbinatzen ditu arte-produkzioetan.
  - Proiektuaren komunikazio- edo adierazpen-xederako egokiak diren euskarriak, prozedurak eta materialak erabiltzen ditu.
  - Prozesuak eta materialak probatzen ditu, teknologia baliatu gabe edo teknologia baliatuta, bere artelanak egokitasunez osatzeko.
2. **Arte-ekoizpen berean zenbait hizkuntzaren artean jazotzen diren interakzioei igartzeko gai izatea, eta aintzat hartzea hizkuntza horietako bakoitzak komunikazioari egiten dion ekarpena.**
  - Hizkuntzen konbinazioak dakartzan aukerak ikertzen ditu bere artelanetan.
  - Artelanetan eta kultura bisualeko produktuetan hizkuntza askotarikoen baliabideak erabiltzeak sortzen dituen eraginak aztertzen ditu.
  - Gaiak edo proiektuak aurkezteko, dokumentu multimedialak sortzen ditu, baliabide digitalak egoki erabilia.
  - Gailu informatikoen erabilerak dakartzan azkartasuna eta eraginkortasuna aitortzen du.
3. **Geometriari arteari eta errealtatearen irudikapenari ematen dizkion aukerak ulertzea eta arakatzea, eta bere arte-ekoizpenetan geometria erabiltzea.**
  - Kulturek beren produkzioetan geometria nola erabili duten ikertzen du.
  - Formak eratzeko arazoaren irtenbide grafikoa topatzen du, geometria-eraikuntza oinarritzkoak erabilia.
  - Bere lanetan, transformazio geometriko oinarritzkoak –translazioak, simetriak, errotazioak, etab.– erabiltzen ditu, modu arrazoituan.
  - Egoki erabiltzen ditu geometria-trazaduren berezko tresnak eta prozedurak.
4. **Arte-adierazpenen lan- eta aplikazio-eremuen bereizgarri eta desberdintasunak ulertzeko gai izatea, eta gaur egungo testuinguru ekonomiko eta teknologikoa aintzat hartuz interpretatzea horiek guztiak.**
  - Garaiko artearen kultura-testuinguruko eremu profesionalak bereizten ditu.
  - Badaki zer-nolako garrantzia eta protagonismoa duten euskarri teknologikoen egungo kultura-produkzioaren esparruetan.

**5. Bere komunikazio-asmoekin bat datozen baliabide plastiko eta bisualak erabiltzeko eta zenbait mezu sortzeko gai izatea.**

- Erantzun artistiko arrazoituak ematen dizkie eguneroko bizitzako gai eta arazoei.
- Bere mezu propioak igortzeko, arrazoiz erabiltzen ditu elementu, prozedura eta baliabide plastiko eta bisualak.
- Baliabide plastiko eta bisualen aukerak ikertzen ditu, estereotipoak gaindituz.
- Komunikazio-xedera doitzen ditu sortzen dituen irudiak –bozetoak, apunteak, azterketak, etab.–.
- Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta bisualen erabilera arrazoitzen du.
- Baliabide plastiko eta bisualak planoan eta espazioan antolatzeak dakartzan arazoak ebazten ditu.
- Eskemen edo bozetoen bidez ikusarazten ditu bere proposamenen emaitzak.
- Hainbat kontzeptu darabilki bere artelanetan: argi-itzalak, tonu-balioak, egiturak...

**6. Bere proiektu artistikoak egiten ari dela, zenbait soluzio eta estrategia bilatzeko gai izatea, eta horretan, aintzat hartzea kultura bisualak bere-bereak dituen arazo eta elementuak.**

- Material eta teknika askotarikoak erabilia lor daitezkeen esanahi bisual ugariak bereizten ditu.
- Alternatibak bilatzen ditu bere adierazpeneko eta komunikazioko prozesuetan.
- Mezu bisualen elementuak aldatzen ditu eta, horien bidez, baita haien esanahiak ere.
- Arte bisualen baliabideak ikertzen ditu, behar bezala justifikatuta.
- Arazoei aurre egitean, haiek ebazteko aukera asko hartzen ditu kontuan.
- Baliabideak manipulatzuz lor daitezkeen esanahi ugarietaz jabetzen da.
- Bere lanetara eramaten ditu beste pertsona batzuek beren lanetan erabili dituzten soluzioak.
- Ingurumena zaintzeko interesa adierazten du, eta adierazpen-ezaugarriak bilatzen ditu ohikoak ez diren materialetan.
- Birziklatutako materialen adierazpen-aukerak ezagutzen ditu.

**7. Egiten ari den proiektuaz gogoeta egiteko gai izatea, eta horretan, modu kontzientean parte hartzea taldean, bai lana antolatzen eta bai prozesuko urrats guztiak egiten.**

- Taldean parte hartzen du, besteren adierazpenak eta ekarpenak errespetatuta.
- Bere gain hartzen du dagokion lana.
- Antolamendu-estrategia egokiak erabiltzen ditu bere lan-prozesuetan eta aintzat hartzen du prozesuaren ebaluazioa.
- Taldeko jardueretan eta lanetan laguntzen du, eta adostutako erabakiak iristen ahalegintzen da.
- Badaki zer-nolako garrantzia duen eta izan duen talde-lanak historian zehar proposamen artistikoak lantzeko.

- 8. Artelan eta irudien ekoizpenean faktore sozialek duten garrantziaz jabetzeko gai izatea, eta horretan, kritikoki aztertzea botereak, generoak, ideologiak eta bestelakoek artean duten eragina.**
- Auzi ideologiko eta sozialei lotutako asmoak ikusten eta identifikatzen ditu ingurune mediatikoko irudietan.
  - Obrak zer gizarte motatan sortu diren jakiteko eta obrek gizarte horietan duten egitekoaren berri izateko interesa ageri du.
  - Proiektuak antolatzen eta lantzen ditu obra jakin baten sorburuan dauden edo obra horretan adierazten diren gizarte-harreman askotarikoak ezagutu eta aztertzeko.
  - Artelanak egiten ditu ingurunearekiko ageri dituen kezka sozialei erantzuteko.
  - Ikuspegi kritikoz egiten die aurre zenbait irudi eta ekoizpen artistikok sustatzen dituzten manipulazio eta diskriminazioei.
  - Balio funtzional eta estetikoak zehazten dituzten ezaugarriak identifikatzen ditu objektuetan eta errealitateko hainbat alderditan.
- 9. Historian zehar arteari eta artistari buruzko ikuskeretan izandako aldaketak identifikatzea, eta aldaketa horietan eragina duten faktore sozial eta kulturalen gaineko kontzientzia izatea.**
- Gure kulturen artearen eta artisten gaineko ikuskerek bizi izan duten aldaketa handiak identifikatzen ditu.
  - Artistek garai eta kultura askotarikoetan landu dituzten formen gaineko talde lanak osatzen ditu.
  - Ingurunean dituen artisten lan egiteko moduak ezagutzeko interesa erakusten du.
- 10. Arte- eta kultura-adierazpenak hango eta hemengo kulturen ondarearen eta identitatearen parte direla ohartzea eta hargatik balioestea.**
- Loturak ezartzen ditu arte-adierazpenen eta haiek egiten dituzten talde kulturalen artean.
  - Euskal artistak eta haien lanak ezagutzen ditu eta dagozkien une historikoekin lotzen ditu.
  - Inguruko jarduera artistiko eta kulturalak ezagutu eta horietan parte hartzeko interesa ageri du.
  - Beste kultura batzuen eraginak hautematen ditu inguruan dituen Euskal Herriko produktu estetikoetan.
- 11. Gurean ohikoak ez diren arte-adierazpenak ezagutzeko interesa izatea eta arte-adierazpen horien ezaugarriak ulertzeko gai izatea.**
- Jakin-mina eta errespetua adierazten ditu gainerako pertsonak adierazteko eta jarduteko moduekiko eta haien jokamolde estetikoekiko.
  - Irtenbide bat baino gehiago proposatzen ditu arazo batentzat, beste pertsona batzuek egindako lanak aztertu ondoren.

### 6.1.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

1. **Proposatutako arazo artistikoarekin bat datozen euskarri, material, baliabide, prozesu eta prozedurak erabiltzeko gai izatea, eta horiekin guztiekin ondo samar moldatzea bere arte-ekoizpenetan.**
  - Behar bezala erabiltzen ditu irudiak sortzeko bitartekoak eta teknikak, akabera egokiak baliatuta.
  - Egoki erabiltzen ditu teknologia-oinarriko bitarteko askotarikoak, adierazpenerako eta komunikaziorako.
  - Egokitasunez arrazoitzen du zergatik hautatu dituen teknika eta material zehatz batzuk lan plastiko eta bisual jakinak egiteko.
2. **Kritikoki aztertzea mezuetan esku hartzen duten baliabide plastiko eta bisualak, eta horretan, mezuon intentzioari eta mezuok iritzi publikoan, bizi-estiloetan eta osasun indibidual nahiz kolektiboan duten eraginari igartzea.**
  - Irudietan ageri diren adierazpen-elementuen irakurketa ugari egiten eta hautematen ditu.
  - Ikuspegi pertsonal eta arrazoituak hartzen ditu mezuak ikertu eta aztertzean.
  - Artelanak aztertzen ditu, eta, besteak beste, artelanetako euskarriak, teknikak, baliabideak eta konbentzioak balioesten ditu.
3. **Espresio- eta komunikazio premietara ondoen egokitzen diren bitartekoak hautatu, erabili eta identifikatzeko arazoak modu arrazoituan konpontzeko gai izatea, eta, hala behar izanez gero, bere arte-ekoizpenetan hizkuntza bat baino gehiago uztartzeko gai izatea.**
  - Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta bisualen (argi-ilunen, tonu-balioen, testuren eta bestelako baliabideen) erabilera arrazoitzen du.
  - Zentzua dakarten baliabideen (hizkuntzaren, soinuen, mugimenduaren eta bestelako baliabideen) erabilera ulertzen du eta bere lanetan erabiltzen ditu.
  - Askotariko adierazpen moduak darabiltzaten artelanak ezagutzen ditu, hala nola performanceak eta instalazioak.
  - Baliabide teknikoak erabiltzen ditu giza pertzepzioa zabaldu eta testuinguru berriak sortzeko.
  - Ikus-entzunezkoak eta hizkuntza multimedia baliatzen ditu mezu propioak osatzeko.
  - Badaki nola errazten duten teknologiek arte-ekoizpeneko prozesua.
4. **Objektuak eta ingurunea irudikatze konbentzioen oinarriko arauak ezagutzeko eta erabiltzeko gai izatea, eta errealitateari buruzko informazioa ulertzeko eta erabiltzeko bidetzat hartzea horiek guztiak.**
  - Baliabide geometrikoak erabiltzen ditu objektuak eta espazioak irudikatze arazoak ebazteko.
  - Ulertzen du kodetutako adierazpen- edo irudikatze-sistemak eta beste baliabide geometriko batzuk erabiltzearen beharizan soziala.
  - Badaki gure kulturak nola erabiltzen dituen irudikatze-sistemak.

5. **Espazioa irudikatzeko sistemak desberdintzea eta erabiltzea, eta marraketak artean, arkitekturan, diseinuan, ingeniartzan, eszenografian eta beste hainbat alorretan balio komunikatibo unibertsala duela aintzat hartzea.**
  - Irudikatze-sistemen komunikazio-aukeren arteko konparazioak egiten ditu.
  - Objektuak eta espazioak irudikatzeko arazoak ebazten ditu, formen posizioaren eta neurrien arteko harreman egokiak ezarrita.
  - Komunikaziorako egokiena den irudikatze-sistema egokiena hautatzen du formak eta objektuak irudikatzeko.
  - Egoki interpretatzen ditu posizioak, neurriak, ikuspegiak eta bestelako alderdiak, baldin eta horrelakoak ematen bazaizkio objektu eta forma askotarikoak irudikatzeko.
6. **Diseinua eta diseinuaren aplikazio-eremuak balioestea, horiek aintzat hartzea, gure eguneroko bizitzako ekoizpen estetikoekin lotutako esparrutzat hartzea, eta haiekin lotutako sormen-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.**
  - Egunero inguruan dituen objektuen diseinua aztertzen du.
  - Objektuak diseinatzen ditu, proiektu arrazoituak eginda.
  - Diseinuaren sormen-eremuak ezagutzen ditu.
7. **Ikus-entzunezko edukiei eta multimedia-edukiei buruz gogoeta egitea, horiekin esperimendatzea, eta ikus-entzunezko mundua komunikazio-bidetzat hartzeko gai izatea.**
  - Euskarri bisuala eta audiobisuala duten komunikabideen aukerak eta berezitasunak identifikatzen ditu.
  - Narrazio audiobisual eta multimediak aztertzen ditu, haien komunikazio-elementuei erreparatuta.
  - Lan bisual eta audiobisualak egiten ditu, baliabide horiek ematen dituzten aukerak baliatuta.
8. **Artelan konplexuak ekoiztea, eta horretan, mota askotako baliabide espresiboak modu arrazoituan erabiltzea.**
  - Adierazteko eta komunikatzeko asmoekin bat datozkion erreferenteak eta ideiak bilatzen ditu ingurunean eta arte-ekoizpenetan.
  - Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta bisualen erabilera arrazoitzen du.
  - Lan artistiko eta bisualen bidez komunikatzeko jarrera adierazten du.
  - Erantzun artistiko arrazoituak ematen dizkie eguneroko bizitzako gai eta arazoei.
  - Komunikazio-xedea betetzen duten irudiak egiten ditu –bozetoak, apunteak, azterketak, etab.–.
9. **Bilaketa, irudimena, sormenezko manipulazioa eta antzeko beste trebetasun batzuetan oinarrituta, gai izatea beste pertsona batzuek proposatutako ideiak, irudikapena eta beste alderdi batzuk transformatzeko.**
  - Loturak ezartzen ditu bere esperientziaren eta kultura eta garai askotako artelaren artean.
  - Adierazteko eta irudiak sortzeko modu berrien gaineko argudioak ematen ditu.
  - Arrazoitu egiten ditu bere interpretazioak eta analisiak.

- Inguruko arazo plastikoei eman zaizkien soluzio askotarikoak balioesten ditu.
  - Objektuak eta egoerak ikuspegi estetiko edo formaletatik begiratzeko bestelako moduak planteatzen ditu.
  - Adierazteko eta komunikatzeko asmoekin bat datozkion erreferenteak eta ideiak bilatzen ditu ingurunean eta arte-ekoizpenetan.
  - Sormen eta hausnarketa artistikoaren bidez, bere alternatiba propioak planteatzen ditu inguruan dituen arazoei erantzuteko.
- 10. Proposamen konplexu bat egin behar duela eta, lan-prozesu bateko urratsak irudikatu eta planifikatzeko gai izatea, eta horretan, bere komunikazio-premiak aintzat hartzea, eta lan-plangintza horren zergatia arrazoitzeko gai izatea.**
- Koherentziaz lantzen eta zuzentzen ditu proiektu artistikoak, hasierako ideiatik amaieraraino.
  - Bere lan-plangintzak berrikusten ditu, haiek betetzeko prozesuak ebaluatzen ditu eta aldaketak egiten ditu emaitza hobekitzeko.
  - Taldean sortzen eta planifikatzen ditu obra konplexuak, adierazpen artistikorako modu askotarikoak darabiltzatenak.
- 11. Zenbait jarduera taldean egin eta fase bakoitzaren antolaketan parte hartzeko gai izatea, eta horretan, bere nahiz besteen ekarpenak balioestea, lortu beharreko emaitzak zein diren kontuan hartuta.**
- Ideia pertsonalen ekarpena egiten du, taldeko arazoak konpontzeko.
  - Taldekideen interbentzioak eta ekarpenak errespetatzen eta balioesten ditu.
  - Badaki lanak hausnartzea garrantzitsua eta premiazkoa dela.
  - Taldean parte hartzean, arrazoitu egiten du egiten duena, lanaren xedeari begiratuta.
  - Lan molde kolektiboen adibideak identifikatzen ditu iraganeko eta gaur eguneko artegintzaren eremu askotarikoetan.
  - Proiektu artistiko kolektiboak egiten eta garatzen ditu eta, horietan, gai komunei heltzeko modu askotarikoak lantzen dira, norberak egiten dituen planteamenduak arrazoituta.
- 12. Sasoi historiko eta kultura desberdinetako artelan eta irudiak kritikoki aztertzekeo gai izatea, eta mundua ulertzeko ikuskera desberdinekin nahiz gizarteak naturaz eta gizon-emakumez proposatzen dituen diskurtsoekin lotzea artelan eta irudiok.**
- Hainbat une eta talderi dagozkien alderdiak hautematen ditu irudietan eta artelanetan.
  - Debateetan parte hartzeko eta moden, gustuen eta joera estetikoaren aldaketen atzean dauden arrazoiak ezagutzeko interesa ageri du.
  - Hitzak eta lengoia bisuala erabiltzen ditu kultura askotarikoek historian egin dituzten artelanak aztertzekeo, bai haien alderdi estetikoan, bai haien funtzio eta erabilerako alderdietan.
  - Kultura askotarikoek historian zehar egindako artelanetan bereizten ditu ideiak –hala nola paisaia, giza gorputza edo haurtzaroa– ulertzeko moduen irudikapen edo adierazpenak.

- Ikuspegi kritikoz aztertzen du nola lantzen dituzten gai konkrituak inguruan dituen produktu estetikoek –hala nola publizitateak, aldizkariak, telebistako serieak, zinemak, modak–.
  - Informazioa bilatzen du eta arrazoizko modu batean antolatzen du, artista batek haren obraren bidez azaldu dituen asmoei eta ikuspuntuei erreparatuta.
  - Bere nortasunaren alderdiak adierazten ditu egiten dituen obretan.
  - Bere kulturako eta beste kultura batzuetako adierazpenekin erlazionatzen du bere mundu estetikoak.
- 13. Artea bizi garen errealitatea interpretatzeko eta ulertzeko bideetako bat dela jakitea, eta hura errealitateari buruzko beste ikuskera batzuekin (zientziarekin, esate baterako) lotzeko gai izatea.**
- Artearen historian pentsamendu zientifikoaren eta artistikoaren artean izan diren harremanak aztertzen ditu.
  - Egoera konkritu bati aurre egiteko moduak aztertzean, bereizi egiten ditu arteak eman ditzakeen erantzunak eta jakintzaren beste alor batzuek eman ditzaketenak.
- 14. Arte-adierazpenak etengabe aldatzen ari direla jakitea, eta ohartzea artean beti daudela presente kulturen arteko erlazioak eta pertsonen nahiz gizarteek elkarrengan dituzten eraginak.**
- Euskal Herriko zein beste herrietako kultura eta gizarteen arteko mestizaje eta harremanen adibideak identifikatzen ditu artearen historian.
  - Elkarrekiko eraginak ikertzen ditu hainbat artistaren lanetan.
  - Beste pertsona batzuen ideiak eta proposamenak bereganatzen ditu modu arrazoituan, proposamen plastiko berriak lantzeko.
  - Beste herri eta kultura batzuen artelanekiko interesa eta errespetua adierazten du, eta artelan horiek jatorriko kulturaren duten esanahia jakiteko ahalegina egiten du.
  - Gogoz parte hartzen du garaiko arte-produktuen gaineko harreman-proposamenetan, proposamen propioak osatzeko.
- 15. Arte- eta kultura-adierazpenak hango eta hemengo kulturen ondarearen eta identitatearen parte direla ohartzea, eta zenbait motatako arte-adierazpenen ezaugarriak identifikatzeko eta konparatzeko gai izatea.**
- Arte-estiloen oinarriko ezaugarriak bereizten ditu.
  - Euskal kultura-ondarearen eta besteren kultura-ondarearen obrak ezagutzeko interesa eta jakin-mina ageri ditu.
  - Arte-adierazpenen ezaugarrien arteko loturak egiten ditu.
  - Irudiak aztertu eta konparatzean, aintzat hartzen ditu faktore kulturalak, sozialak eta pertsonalak.
- 16. Gurean ohikoak ez diren espresibide estetikoak kritikoki aztertzeko eta interpretatzeko gai izatea, eta espresibideok beste pertsona batzuen adierazpen legitimoak hartzea.**
- Aldez aurretik dituen ideiak gainditzen ditu eta proposamen berriak ikertzen ditu bere eta besteren artelanetan.
  - Pertsonen erantzun estetikoaren atzean dauden arrazoi sozial eta kultural inplizituak ezagutzeko interesa ageri du.



## 6.2. MUSIKA

### 6.2.1. ETAPAKO HELBURUAK

Honako hauek dira Musika ikasgaiko etapako helburuak:

1. Musikak norberaren ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko dituen aukera ugarietz jabetzea, eta hainbat motatako musika-adierazpenak errespetatzea eta balioestea, artea eta kultura ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen duten aldetik.
2. Musikaren eta beste arte-hizkuntza, ezaguera, ikus-entzunezko baliabide eta hedabide batzuen arteko loturak zein diren jakitea, eta horiek guztiak artelan konplexuak ekoizteko beharrezkoak diren sormen-, espresio- eta komunikazio-bidetzat erabiltzea.
3. Estilo, genero eta hainbat joeratako musika-lanetan erabiltzen diren elementu tekniko eta espresiboak aztertzea eta identifikatzea, eta hori guztia ezaguera-bide eta gozamen-iturritzat hartzea, musika ondo ulertzeko, erreferente estetiko berriak eskuratzeko eta mota askotako errealitate eta ekoizpen artistikoen bidez nork bere burua aberasteko.
4. Musikaren oinarritzko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea, musika-lanak autonomiaz eta trebetasunez aztertzea, interpretatzea eta ekoiztea, eta horretan, norberaren trebetasun intelektualez, ekimenaz eta irudimenaz baliatzea, sormen eta espresio-bide individual nahiz kolektiboak lantzeko eta aberasteko.
5. Norberak zenbait musika-lan sortzea, horretan emandako denboran gozatzea eta musika pertsona gisa hazteko, emozio, sentimendu, bizipen eta ideien berri emateko eta komunikazio-gaitasuna, pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza garatzeko bidetzat hartzea.
6. Zenbait testuingurutan egitekoak diren musika-proiektu musikaletan parte hartzea, eta talde barruan zenbait funtzio betetzea, horrela plangintzak egitearekin, koordinazioarekin eta talde-lana ebaluatzearekin lotutako trebetasunak lantzeko.
7. Musikaren eta soinuaren erabilerak eta funtzioak kritikoki aztertzea, eta horiek norberaren nahiz besteen esperientzietan identifikatzea, musikak gure inguruko gizartean eta kulturaren zer-nolako funtzioa duen ulertzeko.
8. Musika herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarrizketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoek egindako ekarpen ugarietako interesa izatea.

## 6.2.2. EDUKIAK

### 6.2.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Etapako ikasgai guztietan komuna den lehen eduki multzoak oinarrizko zehar-konpetentziak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak jasotzen ditu. Arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu behar dira edukiok.

Beste hiru eduki multzoek bat egiten dute konpetentzien gaineko ikuskera azaltzean egindako proposamen eta oharrekin, eta alde horretatik, proposamen eta ideiak xehatuta ageri dira eduki multzootan:

2. multzoa. Musika entzutea eta ulertzea.
3. multzoa. Musika interpretatzea eta sortzea.
4. multzoa. Testuinguru eta erreferente musikalak.

Bigarren eduki multzoak hainbat eduki hartzen ditu hizpide: batetik, pertzepzio-gaitasunarekin, eta soinuak eta musika entzutearekin lotutakoak; eta, bestetik, musika-hizkuntzaren oinarrizko baliabideak eskuratzearekin lotutakoak, horiek behar-beharrezkoak baitira musika-espresio eta -ulermenarekin lotutako erreferente teknikoak lantzeko.

Hirugarren eduki multzoak, berriz, ikasleen espresio-gaitasunak garatzea helburu duten edukiak lantzen ditu, eta alde horretatik, espresio eta interpretazio instrumentala, bokala eta korporala estu uztartzen ditu, bai eta inprobisazio eta konposizio musikala ere, horrela gure ikasleek musikaren munduan aktiboki parte har dezaten.

Azkenik, laugarren eduki multzoak estu lotzen ditu musika eta unean uneko testuinguru historiko, sozial eta kulturala. Eta, beste alde batetik, eduki multzo honetan, elementu estilistikoak hartzen dira hizpide, eta musikaren erabilera eta funtzio ugariak aztertzen dira: hainbat kultura eta sasotako musika-lanak, eguneroko bizitzarekin lotutako musika-espresioak, eta jaso esaten dioten musika mota, besteak beste.

Teknologia berriei ez zaie hemen eduki multzo berezirik eskaintzen, baina, hala eta guztiz ere, gai hori, zeharka bada ere, lau eduki multzoetan ageri da, ikus-entzunezko teknologiak oso sarri erabiltzen baitira ikaskuntza-irakaskuntza jardueretan, bai musika entzuteko, interpretatzeko eta zabaltzeko, eta baita ezein motatako musika-lanak ulertzeko ere.

Zer dira, baina, eduki multzoak? Hauxe: irakasleei zikloan zehar landu beharrekoei buruzko informazioa ematen dieten blokeak. Aurrez ezarritako konpetentziak lortzeko egokientzat jotzen diren edukien berri ematen dute blokeok. Bigarren Hezkuntzan, gure neska-mutilekin batera egin beharreko lanek helburu garbia dute, oso: ikasleek beren begirada kritikoa zorroztu dezaten lortzea; beren ingurune bisualari dagokionez, batik bat.

Erne ibili beharra dago, blokeok ez baitute, zehatz esateko, gai-zerrendarik osatzen; ez dira konpartimenduetan banatutako unitateak, eta ez dira, beraz, bereiz landu behar.

Azkenik, esan dezagun edukiotako bakar batek ere, hurrenkerak hurrenkera, ez duela besteen aldean inolako lehentasunik.

## 6.2.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. edo 2. mailako edukiak

### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

### 2. MULTZOA. Musika entzutea eta ulertzea

- Askotariko soinuak behatu eta ikertzea, haien ezaugarri fisikoei erreparatuta eta inguruko soinuen adierazpenez jabetuta.
- Arretaz eta adi entzutea musika-adibide eta -konposizioak.
- Musika entzuteko jardueren aurreko elementu gisa balioestea isiltasuna.
- Soinuaren parametroak bereiztea: altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea.
- Musikaren elementuak ulertzea: erritmoa, melodia, harmonia, testura, forma, tempoak, dinamika eta instrumentazioa.
- Musika irakurri eta idazteko baliabideak erabiltzea musika interpretatu eta sortzeko: notak, figurak eta pausak, azentua, konpasak, klabeak, eskalak, bitarteak, alterazioak, errepikapen-zeinuak, dinamika-adierazleak, agogika, fraseatzea, kadentziak, etab.

- Testuak eta grafiak erabiltzea musika entzuteko jarduerari laguntzeko.
- Teknologia berriak erabiltzea estiloen, ikonografiaren, musika moten, obren eta autoreen gaineko ikerketak egin eta haiek ezagutzeko. Jabetza intelektuala balioestea.
- Musika entzutea eta hura komunikazio modua, jakintza-iturria eta aberastasun pertsonalerako bidea dela balioestea.
- Musikaren kontsumo neurrigabearekiko eta soinu-kontaminazioarekiko sentikorra izatea. Ekologia akustikoaren gaineko gogoeta egitea.
- Besteri entzuteko eta errespetatzeko ohiturak eskuratzeko interesa izatea.
- Zentzu kritikoa lantzea musika-adierazpen askotarikoen gainean.

### 3. MULTZOA. Musika interpretatzea eta sortzea

- Ahots mintzatua eta kantatua: ezaugarriak, trebetasun teknikoak eta interpretazioa. Ahotsen sailkapena eta ahotsen taldekatzeak.
- Ahotsaren soinu-aukerak ikertzea, adierazpen-baliabidea den aldetik, eta hura zuzen erabiltzea.
- Abestiak zuzentasun teknikoaz interpretatzea eta buruz ikastea, bai banaka, bai taldean.
- Estilo eta garai askotako ahozko obren eta obra instrumentalaren errepertorioa ezagutzea, bai euskal musika-ondarekoa, bai beste kultura batzuetakoa.
- Abestea, bai a capella, bai akonpainamenduarekin.
- Organologiarako sarrera: musika-tresnek eta soinu-elementuek egiten eta amplifikatzen duten soinuaren oinarri fisikoak.
- Musika-tresnak, adierazpenerako bitarteko diren aldetik. Musika-tresnen sailkapena eta taldeak.
- Teknika eta adierazpen egokiz interpretatzea musika, eta musika inprobisatzea ikasgelako musika-tresnekin, bai banaka, bai taldeka.
- Akonpainamendu xumeak sortzea abestiak eta pieza instrumentalak moldatzeko.
- Besteren adierazpen moduak eta gaitasunak errespetatzea eta talde-interpretazioaren arauak onartzea, elkartasuneko eta lankidetzako jarreraren bidez.
- Pausuak eta mugimenduak inprobisatzea aurrez emandako erritmoak eta melodiak baliatuta, eta koreografia xumeak sortzea abesti eta musika-piezentzat.
- Estilo eta mota askotako euskal dantza tradizionalak eta beste kultura batzuetakoak ezagutzea.
- Talde-interpretazioaren oinarriko arauak betetzea: isiltasuna, zuzendariari arretaz jarraitzea, taldera egokitzea, afinatzea, memoria eta barne-entzuketa.
- Grafia askotarikoak erabiltzea interpretatutako obrak erregistratu eta komunikatzeko.
- Teknologia baliatzea musika sortzeko eta interpretatzeko jarduerari laguntzeko, eta ikasgelan egiten diren jarduerak grabatzea.
- Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzeko interesa izatea.
- Alor teknikoan eta interpretazioan aritzeko gaitasunak (ahozkoak, instrumentalak eta gorputzari dagozkionak) hobetzeko eta interpretazioarekin gozatzeko jarrera izatea.

#### 4. MULTZOA. Testuinguru eta erreferente musikalak

- Proposatutako musika-obren alderdiak ikertzea eta testuinguruan aztertzea.
- Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako musika-ondarearen adierazpen nabarmenak.
- Musikaren funtzioak eta erabilerak eta garaiko musikaren estilo askotarikoak.
- Ikus-entzunezko bitartekoak eta teknologiak erabiltzea musika entzun eta hautemateko.
- Zuzeneko kontzertuetara joatea eta ikasitakoan oinarritutako iritzi-trukeak izatea.
- Hizkuntza tekniko egokia erabiltzea ulertzeko moduan azaltzeko entzun diren musika-obretako zenbait alderdi.
- Inguruan egiten diren kontzertu eta musika-emanaldien gaineko albisteak, komentarioak eta kritikak bilatzea informazio-iturri ugarian (fonoteketan, egunkarietan, aldizkarietan, Interneten eta bestelako iturrietan).
- Irizpide eta gustu musikalak errespetatzea eta argudio logiko eta arrazoituak azaldu eta onartzea.
- Musika balioestea, hezkuntza osoaren eta pertsonen garapenaren alderdi garrantzitsua den aldetik.

### 6.2.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.

- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Musika entzutea eta ulertzea

- Adibide eta konposizio musikalak entzutean, arretako, barne-entzuketako, memoria ulerkorreko eta aurrerapenerako estrategiak baliatzea.
- Musika entzuteko jardueren aurreko elementu gisa balioestea isiltasuna.
- Musikaren elementuak erabiltzea: erritmoa, melodia, harmonia, testura, forma, tempo, dinamika eta instrumentazioa musika entzun eta sortzean.
- Forma musikal sinpleak eta konposatuak identifikatzea.
- Musika irakurri eta idazteko baliabideak erabiltzea musika interpretatu eta sortzeko.
- Obra osoak edo haien zatiak arretaz entzutea eta haien testuingurua ezartzea.
- Testuak, partiturak eta bestelako baliabide grafikoak erabiltzea entzute-lanari laguntzeko.
- Hizkuntza tekniko egokia erabiltzea, ulertzeko moduan azaltzeko landu diren musika-obretako zenbait alderdi.
- Musika entzutea, eta jarduera hori jakintza-iturria eta aberastasun pertsonalerako bidea dela balioestea.
- Soinu-paisaiak. Musikaren kontsumo neurrigabearekiko eta soinu-kontaminazioarekiko jarrera kritikoa izatea.
- Arretaz eta modu kontzientean entzutea, gogoeta eta ikerkuntza sustatzeko.

## 3. MULTZOA. Musika interpretatzea eta sortzea

- Ahotsaren soinu-aukerak ikertzea, adierazpen-bitartekoa den aldetik, eta hura zuzentasunez erabiltzea, erlaxatzeko, arnasteko, artikulatzeko, inpostatzeko, erresonantzia lantzeko eta intonatzeko ariketen bidez.
- Abestiak banaka eta taldean interpretatzea, buruz ikastea eta konposatzea, musika-eta literatura-alderdiei erreparatuta.
- Estilo eta garai askotako obren errepertorioa eskuratzea, bai euskal musika-ondarekoa, bai beste kultura batzuetakoa.
- Abestea, bai a capella, bai musika-tresnen akonpainamendua edukita, eta mugimenduak egitea aurretik grabatutako akonpainamenduaren gainean.
- Musika-tresnak, adierazpenerako bitarteko diren aldetik. Musika-tresnen sailkapena eta taldeak.
- Musika-tresnekin interpretatzea eta inprobisatzea, bai banaka, bai taldean, teknika eta adierazpen zuzenak erabilia eta aurrez adostutako jarraibideak beteta.

- Interpretazioa eta inprobisazioa lantzea harmonia-eskema, melodia eta erritmo xumeekin eskala bat baino gehiagotan, eta abesti eta pieza instrumentaletako akonpainamenduak konposatzea.
- Pausuak eta mugimenduak inprobisatzea aurrez emandako erritmoak eta melodiak baliatuta, eta koreografiak sortzea estilo eta garai askotako abesti eta musika-piezentzat.
- Talde-interpretazioaren oinarriko arauak jakitea eta betetzea: isiltasuna, zuzendariari arretaz jarraitzea, taldera egokitzea, afinatzea, memoria eta barne-entzuketa.
- Musika irakurri eta entzuteko interesa izatea eta musika-hizkuntza balioestea, adierazpenak eta komunikazioak erregistratzeko baliabidea den aldetik.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta teknologiak baliatzea musika interpretatu eta sortzeko eta jarduera horiek erregistratzeko.
- Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzearen garrantzia balioestea.
- Alor teknikoan eta interpretazioan aritzeko gaitasunak (ahozkoak, instrumentalak eta gorputzari dagozkionak) hobetzeko eta interpretazioarekin gozatzeko jarrera izatea.

#### 4. MULTZOA. Testuinguru eta erreferente musikalak

- Proposatutako musika-obrak ikertzea eta haiekin lotutako alderdiak aztertzea: kultura-testuingurua, egilea, generoa, forma eta konposizio-elementuak.
- Testuak, partiturak eta bestelako baliabide grafikoak erabiltzea entzute-lanari laguntzeko, eta entzundako obrak beren testuinguruan kokatzea.
- Mendebaldeko musikaren garaiak, estiloak eta autoreak haien testuinguru soziokulturalean.
- Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako musika-ondarearen obra nabarmenak.
- Musikaren presentzia beste arte-adierazpen batzuetan; hala nola dantzan, antzerkian, arte plastiko eta bisualetan eta zineman.
- Musika eta komunikabideak: komunikabideek duten erabina musika sortu, zabaldu eta kontsumitzeko.
- Zuzeneko kontzertuetara joatea eta ikasitakoan oinarritutako iritzi-trukeak izatea.
- Inguruan egiten diren kontzertu eta musika-emanaldien gaineko albisteak, komentarioak eta kritikak bilatzea informazio-iturri ugartan (fonoteketan, egunkarietan, aldizkarietan, Interneten eta bestelako iturrietan).
- Hizkuntza tekniko egokia erabiltzea, ulertzeko moduan azaltzeko entzun diren musika-obretako zenbait alderdi.
- Irizpide eta gustu musikalak errespetatzea eta argudio logiko eta arrazoituak azaldu eta onartzea.

## 6.2.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

### 2. MULTZOA. Musika entzutea eta ulertzea

- Adierazpen-kodeak: musika-notazio jatorrizko edo tradizionala, konbentzio grafikoak, adierazpen bisuala eta errealtatean entzuten dena. Musika-adierazpenak baliatzea ulertzeko bitarteko moduan.
- Musika entzun eta ulertzeko bitarteko gisa erabiltzea gorputza, ahotsa eta musika-tresnak, ikus-entzunezko baliabideak eta teknologia, testuak, partiturak, musikogramak eta bestelako adierazpen grafikoak.
- Musika entzunez, haren elementuak identifikatzeko.
- Musika-obren barne-antolamendua aztertzea: musika-osagaien formak eta egiturak. Sarrerako, azalpeneko, trantsizioko, laburbiltzeko eta amaitzeko funtzioak. Batasuna eta barietatea.



- Musika-obren tinbre-alderdiak. Soinuaren kalitatea: harmonikoak. Soinuaren trataera. Ahotsaren eta tresnen tinbrea eta kolorea. Tinbrearen mailak. Obrak parametro horien arabera aztertzea.
- Musika-testurak: soinuaren parteak edo planoak. Monodia, polifonia, homofonia, kontrapuntu librea, imitazio-kontrapuntua, melodia akonpainamenduarekin eta melodikoak ez diren testurak. Soinuen testurak eta planoak aztertzea musika-obretan, partituren, entzunaldien eta testuen bidez.
- Musikaren eta testuaren arteko harremana ahots-musikan: forma, izaera eta funtzioa.
- Musika instrumentala eta ahots-musikako obrak, genero, estilo, garai eta kultura askotarikoak, entzutea, ezagutzea eta aztertzea.
- Hiztegi zehatza eta egokia erabiltzea musika deskribatzeko.
- Musika zuzenean: kontzertuak eta beste kultura-adierazpen batzuk. Kritika, musikari buruzko informazioa eman eta hura balioesteko bitartekoa den aldetik. Emanaldi eta grabaketan gaineko kritikak aztertzea. Entzundako musikaren gaineko kritikak egitea ahoz eta idatziz.
- Entzuteko jardura komunikazio modua, jakintza-iturria eta kulturak elkar aberasteko bidea dela balioestea.
- Besteri entzuteko eta errespetatzeko ohitura osasungarriak eskuratzeko interesa izatea.
- Musika entzuteko jardueren aurreko elementu gisa balioestea isiltasuna.
- Musikari buruzko dokumentu-baliabideak interneten: musika estilo eta motei, obrei, egileei eta musika-ikonografiari buruzko entziklopediak eta monografiak erabiltzea. Sarean eskuragarri dauden musika-artxiboen eta partituren aplikazioak.
- Web interaktiboak erabiltzea sarearen bidez musika-edukiak lortu, konpartitu, sortu eta argitaratzeko. Jabetza intelektuala balioestea.
- Entzumena landu eta partiturak editatzeko programa informatikoen erabilera oinarritzkoa.

### 3. MULTZOA. Musika interpretatzea eta sortzea

- Ahots-musikako eta musika instrumentaleko piezen erreperitorio oinarritzko eta askotarikoa aztertzea, ikastea eta interpretatzea, eta horixe bera egitea entzun eta aztertzeke proposatu diren obretako zati batzuekin.
- Musika-jardun baterakoa: gero eta konplexutasun eta bateratasun handiagoz gauzatzea aldeztetik eskuratu diren jakintzak, teknikak eta trebetasunak.
- Etengabe lantzea trebetasun teknikoak, banako eta taldeko interpretazioak hobetzeko eta musika sortzeko.
- Koordinazio motorra eta propiozepzioa lantzea musika-obrak ikasi eta interpretatzean.
- Musika-grafiak irakurtzea eta idaztea, musika-jardunean erabiltzeko baliabide diren aldetik. Interpretazio- eta sorkuntza-jardueretan erabiltzea.
- Konposatzeko teknikak, baliabideak eta prozedurak erabiltzea, inprobisazioak eta moldaketak egiteko eta musika-piezak sortzeko.

- Mugitzeko eta dantza egiteko teknikak ikertu eta lantzea, musika-edukiak gorputzaren eta mugimenduaren bidez adieraztea eta dantzen erreperitorio askotarikoa interpretatzea.
- Teknologiak erabiltzea musika sortu eta interpretatzeko.
- Partiturak editatzeko eta sekuentziak egiteko programak erabiltzea musika sortzen eta interpretatzen laguntzeko.
- Soinua kapturatzea hainbat iturritatik. Soinua teknologiaren bidez editatzea, manipulatzeko, haren adierazpen grafikoa egitea eta hedatzea.
- Eduki multimedialak sortzea. Soinua jartzea irudi finkoei eta mugitzen ari diren irudiei, aurrez existitzen diren musikak hautatuz edo jatorrizko soinu-bandak eginez.
- Musika interpretatzeko proiektuak antolatu eta kudeatzea: ikasgelan edo bestelako testuinguru eta egoera batzuetan egingo diren musika-emanaldien plangintza, programazioa, entseguak, burutza, interpretazioa, zuzendaritza eta ebaluazioa.
- Musika interpretatzeko proiektuak eszenaratzea. Zuzendariak emandako jarraibideei erreparatzea, entseatutako moduan interpretatzea, ezustekoei aurre egiteko gaitasuna, inprobisatzea, ikus-entzuleekin komunikatzea eta emozioak kudeatzea eszenatokian.
- Egingako musika-interpretazioak grabatu, editatu eta zabaltzeko jarduerak.

#### 4. MULTZOA. Testuinguru eta erreferente musikalak

- Musika-obra eta bere testuingurua. Musikaren funtzioak eta erabilerak. Musika, hura egiten den garaiaren erreferentea, gizarte-taldeen adierazpena eta kontsumorako produktua den aldetik. Musika-obra aztertzea, beren testuinguru historikori erreparatuta eta haien ingurune artistikoa, kulturala, soziala eta politikoa aintzat hartuta.
- Soinua gure inguruan. Musikak eta soinuek dituzten erabilerak eta ingurumenarekin duten harremana aztertzea. Soinu-paisaia askotarikoen gaineko gogoeta. Soinu-kontaminazioa ikertzea eta harekiko sentikorra izatea.
- Musika beste hizkuntza batzuen laguntzaile; hala nola gorputz-hizkuntzarena, antzerkiarena, zinemagintzarena, irratiarena eta publizitatearena. Ikus-entzunezko ikuskizun eta produkzio mota askotarikoetan erabiltzen den musika aztertzea.
- Musika-lanbideak. Musikaren alorreko profesionalek interpretazioaren eta konposizioaren alorretan eta soinuaren, kultura-gestioaren, merkatuaren eta diskogintza-industriaren, dokumentazioaren, komunikazioaren eta ikerketaren esparruetan dituzten eginkizunak eta jardun-eremuak aztertu eta deskribatzea.
- Musikaren inguruko balioak, ohiturak, kontsumoak eta gustuek izan duten bilakaera, azken hamarkadetan izan diren aurrerapen teknologikoen ondorioz.
- Ikus-entzunezko baliabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien gaineko hausnarketa eta balioespena egitea, kultura musikala aberasteko, musika sortzeko, interpretatzeko eta soinuazko eta ikus-entzunezko produkzioak erregistratzeko eta zabaltzeko baliabideak diren aldetik.
- Musika editatu, merkaturatu eta zabaltzea. Jabetza intelektuala. Musika banatzeko modalitate berriak.

- Entzunaldi, partitura eta testuen bidez aztertzea mendebaldeko musika-ondarearen musika-adierazpen nabarmenak.
- Musika-obra, konpositore eta interpreteen bidez ezagutzea Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika tradizionala eta jasoa.
- Garaiko musikaren estilo askotarikoak ezagutzea.
- Kultura askotako musika ezagutzea eta balioestea, beste gizarte-errealitate batzuk adierazi eta komunikatzeko bitartekoa den aldetik.

### 6.2.2.5. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

### 3.MULTZOA. Musika interpretatzea eta sortzea

- Kantak:
  - Aspaldiko kantu klasikoak: "*Alostorrea*", "*Bereteretxeren khantoria*", "*Urtsuak zazpi leiho*", "*Une mousse de Biscaye*", "*Goizean goizik*", "*Eibarko koplak zaharrak*", "*Santa Agatako koplak*", "*Olentzero kantak*", "*Gernikako Arbola*", Iparragirreraren kantak, pastoral, maskarada, tobera eta antzeko ekitaldietako kantak...
  - XX. mendeko abeslarien kantak: Mixel Labéguerie, Mikel Laboa, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Amaia Zubiria, Pantxo eta Pello, Etxamendi eta Larralde, Benito Lertxundi, Maite Idirin, Txomin Artola, Gontzal Mendibil., Anje Duhalde, Niko Etxart, Ruper Ordorika, Mikel Markez, Fermin Muguruza, Xabier Muguruza...
  - XX. mendeko musika-taldeen lanak: Haizea, Oskarbi, Oskorri, Hertzainak, Ganbara, Zarama, Negu Gorriak, Minxoriak, Zazpi eskale, Bide ertzean, Hemendik at, Euritan blai...
  - Abesbatza, otxote eta ahots-taldeetako musika.
  - Bertso-txapelketetako doinuak eta kantak.
- Dantzarako obra instrumental batzuk: Segura (kalejira matutina); Gora (pasacalle); Elizondo (pasacalle); Ultzama (fandango); Itxaropena (fandango); Andre Madalen (fandango); Ai, Joxe! (arin-arin); Ai, mutilak! (arin-arin); Lantzeko zortzikoa (zortziko txikia); Ai, Ixabel (zortziko txikia); Zinta-dantza/Gorulari-dantzak (a la manera de Gipuzkoa o Bizkaia); Banangoa, binangoa, etcétera; Gabota/Godaleta (a elección, con txirula); Urdiain (jota); Erreberentzia o kontrapasa; Zurrume-dantza; Luzaideko lehen Bolant dantza y Ostalerra muxikoa (a elección, con txirula); Zazpi jauzi (a elección, con txirula); Txulalai
- Musika-tresna tradizionalak:
  - Perkusio-instrumentuak: txalaparta, tobera, atabala, danbolina, panderoa, musugitarra.
  - Haize-instrumentuak: txistua, txirula, trikitia, akordeoia, alboka, dultzaina, txanbela...
  - Hari-instrumentuak: ttunttuna...

#### 4. MULTZOA. Testuinguru eta erreferente musikalak

- Euskal musikaren lehenengo aztarnak: Isturitze eta Atxetako aztarna musikalak. Antzinako Erroma garaiko lekuko idatziak (Estrabon).
- Erdi Aroko musika adibideak Euskal Herrian: Tibalt I.a, Nafarroako errege kantorea (1201-1253). Nafarroako Karlos erregeari Guillaume de Machaut-ek eskainitako "*Jugement du roi de Navarre*" konposizioa (1349). Euskal abesti zaharrak: "*Altabiskarko kantua*", "*Beotibarko pelea*" (1321-IX-19), "*Alostorra*", "*Bereteretxan khantoria*", "*Urtsuak zazpi leiho*", "*Lelo il Lelo*" kanta, Lasturko Milia anderearen hiletakantak (1429), Abendañoko Pedroren auhena (1443), Arrasate erreketaren kantuak (1448)...
- Errenazimentu-garaiko musika-teorikoak:
  - Gonzalo Martinez de Bizkargi: "*Arte de Canto llano...*", (1509); Martin de Azpilcueta (1493-1586): "*De música et canto figurato...*", "*Comentarios de silencio oratione horis canonicis*".
  - Errenazimentuko musika-adibideak Euskal Herrian: Diego López de Haro jaunaren hileta-kanta (1497-1511), "*Une mousse de Bisquaye*" (bertsio ezberdinetan), "*Perutxo*" kanta (1536), Olasoren kantua (1450), "*Ahetzeko anderea*" kanta, "*Oñetako larrau*" (1464), "*Salinas Kontea*"ren kantua (1471), Lazkaoko Joanen kantua (1474), Nafarroako kondestablearen kantua (1494), Chanfarron jaunaren kanta (1545), Amenduxeko Joanen hileta-kanta (1564), "*Ozaze Jaurgañian*" (XVI. mendea)... "*Cancionero de Palacio*" delakoan agertzen diren eta euskal hitzak gaztelera nahastuta agertzen dituzten kantak: "*Çut egon, eçin geldiriqu egon*", "*Jançu Janto*"...
  - Joanes Antxieta; Bernart Etxepare (bere bitzta, garaia, olerkiak eta horien izaera musikala)
- Barrokoaren eta neoklasizismoaren musika-adibideak Euskal Herrian:
  - "*Eibarko koplak zaharrak*" (1685)
  - XVII. eta XVIII. mendean zehar atzerrian lana egin duten euskal musikariak. Euskal Herriko kapera musikalak eta kapera-maisuak (Arantzazuko monasterioa, Iruñeko katedrala...)
  - XVII. eta XVIII. mendeko pastoralak.
  - Pedro Ignazio Barrutiaren "*Gabonetako ikuskizuna*", (Arrasaten taularatua 1750?).
  - Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eta musika; Xabier Muniberen "*Gabon sariak*" (1762) eta "*El borracho burlado*" (1764)
  - XVIII. mendeko bilantzikoak euskaraz
- XIX. mendeko musika eta musikariak Euskal Herrian:
  - Juan Crisostomo Arriaga (1806-1826), Joan Ignazio Iztueta eta bere lanak, bereziki, "*Gipuzkoako Dantza goangarren kondaira*".
  - XIX. mendeko musikariak: Hilarión Eslaba (1807-1878), Adrien Barthe (1828-1898), Mateo Pérez Albeniz (1765-1831), Pedro Albeniz Basanta (1795-1855), Sebastian Iradier (1809-1865), Felipe Gorriti (1839-1896), Emilio Arrieta (1923-1894), Pablo Sarasate (1844-1908), Julian Gayarre (1844-1890), Raimundo Sarriegi (1840-1913)...

- XX. mendeko musikariak Euskal Herrian (konpositoreak, interpreteak, e.a.):
  - Jose Maria Usandizaga (1887-1915), Maurice Ravel (1875-1937), Jesus Guridi (1886-1961), Jose Gonzalo Zulaika Arregi "Aita Donostia" (1886-1956), Jesus Aranbarri (1902-1960), Pablo Sorozabal (1897-1988), Isidro Ansorena (1892-1975), Tomas Garbizu (1901-1989), Francisco Escudero (1913-2002), Fernando Remacha (1898-1984), Tomas Aragües (1935), Mixel Labeguerie, Mikel Laboa, Juan Mari Beltran, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Nicanor Zabaleta, Joaquin Atxukarro, Antton Larrauri, Koldo Pastor, Ramon Lazkano, Jaime Berradre, Angel Illarramendi, , Jose Ignazio Ansorena, Alberto Iglesias, Ainhoa Arteta, Juanjo Mena, Maria Bayo, Garikoitz Mendizabal...
  - XX. mendeko mugimenduak eta musika-taldeak: "Ez dok hamahiru"(Joxean Artze, Jexux Artze, Jose Angel Irigarai, Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Julen Lekuona, Benito Lertxundi, Xabier Lete); "Euskal Rock Erradikala-RRV" (Kortatu, Eskorbuto, La Polla Records, Zarama, RIP...), trikitixa berria (Joseba Tapia, Kepa Junkera...), euskal pop taldeak, euskaraz eta gaztelaniaz (Duncan Dhu...), jazz eta egungo korrante musikal herrikoiak (Oskorri, Antton Valverde, Hertzainak, Barrikada, Itoitz, Haizea, Berri Txarrak, Gatibu, Ken Zazpi, Orexa TX...); bandak, orkestrak eta musika akademiko eta ofizialaren inguruan sorturiko taldeak; abesbatzak, e.a.
- XXI. mendeko musika:
  - Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Udal Txistulari Taldeak, Iruñeko Orfeoia, Donostiako Orfeoia...
  - Skalariak, Kalakan, Belako, Mursego, Anari, Gose, Kokein, Zea mays, Sorkun, Emarock... ..

### 6.2.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 6.2.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila edo 2. maila

##### 1. Musika-lan edo -pasarte laburrak entzun eta musikaren oinarrizko elementuak identifikatzeko gai izatea, eta musika pertsona gisa hazteko eta gozatzeko bidetzat hartzea.

- Soinu-parametroen diferentziak eta kontrasteak bereizten ditu proposatzen zaizkion entzunaldietan.
- Obren musika-alderdiak azaltzen ditu bere iritzien argudioetan.
- Partiturak eta beste baliabide grafiko batzuk erabiltzen ditu entzute-jardunari laguntzeko.
- Teknologia berriak erabiltzen ditu entzuteko proposatu diren obren zenbait alderdi ikertzeko.
- Arretaz eta modu kontzientean entzuten ditu musika-adibideak.
- Musika entzutea balioesten du, jakintzarako eta gozamenerako iturria den aldetik.

- 2. Musika sortu eta interpretatzeko erabiltzea arte-hizkuntzek eta teknologia berriek ematen dituzten aukera eta baliabideak.**
  - Teknlogiek ematen dituzten aukerak baliatzen ditu bere musika-adierazpena aberasteko.
  - Musika sortu eta interpretatzean, probak egiten ditu beste arte-hizkuntza batzuekin.
  - Soinu-efektuak sortzen ditu eta bere musika-ekoizpenetan erabiltzen.
  - Interpretazio-teknika askotarikoak probatzen ditu.
- 3. Musikan erabili ohi diren teknika eta baliabide ugariak identifikatzeko gai izatea, eta komunikazio-bide eta espresio-bide artistikotzat hartzea teknika eta baliabideok.**
  - Musika-adierazpen jakinetako teknika eta baliabide berezkoak identifikatzen ditu.
  - Musika-jardueretik interesa ageri du eta gozatu egiten du jarduera horiekin.
  - Hitzek eta idatziz adierazten ditu musika-lanek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.
  - Musika balioesten du, ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko modua den aldetik.
- 4. Musika-lanak aztertze eta interpretatzeko erabiltzea musika-hizkuntzaz eta -baliabideez ikasitakoa, eta horretan, zenbait egoeratan sortutako arazoei sormenez erantzuteko gai izatea.**
  - Hizkuntza musikalaren oinarriko ezaugarriak ezagutzen ditu eta badaki nola erabili kantatzeko eta musika-tresnak jotzeko.
  - Egoki erabiltzen du musika-kodea.
  - Behar bezala antolatzen ditu musika-laneko urratsak.
  - Autonomiaz eta irudimenez jokatzen du musika-hizkuntzako baliabideak erabiltzean.
  - Musika-lanak egitean, soinuak ikertzen ditu ahotsarekin eta musika-tresnekin.
- 5. Bere kabuz musika-lan propioak sortzea.**
  - Askatasunez erabiltzen ditu soinu-elementuak, bere sentimenduak adierazteko.
  - Lanak azaltzean, helburuaren arabera antolatzen du azalpena.
  - Bere lan artistikoak aztertzen ditu eta haiek hobetzen saiatzen da.
  - Hazkunde pertsonalerako tresna moduan erabiltzen du adierazpen artistikoa.
  - Adierazkortasuna erabiltzen die bere interpretazioei.
  - Gogoko du kalitatezko lanak egitea.
- 6. Modu kooperatiboan parte hartzea musika-jardueretan, eta egindako lana ebaluatzeko gai izatea.**
  - Taldeko musika-lanen plangintza egiten laguntzen du.
  - Ardurak onartzen ditu eta taldearekin koordinatzen du bere lan-eritmoa.
  - Aldaketetara egokitzeko gaitasuna duela ageri du.
  - Jarduera artistikoko gainerako kideei laguntzen die, haiekin elkartzarekin jokatuz.
  - Ekarpak sortzaileak egiten ditu, talde-lana hobetzen dutenak.
  - Talde-lanaren garrantzia balioesten du.

7. **Musikaren funtzio eta erabileren eta testuinguru tenporal eta kulturalen artean zernolako loturak dauden modu intuitibo eta kritikoan azaltzeko gai izatea.**
  - Musikaren funtzio sozialak ezagutzen ditu.
  - Jasotzen dituen mezu musikalen zentzua interpretatzen du.
  - Sorrerako testuinguruan bilatzen du musika-lanen esanahia.
  - Soinu-kontaminazioa duten giroak hautematen ditu eta kontaminazio hori arintzeko ideiak proposatzen ditu.
  - Adi entzuten ditu musika askotarikoak.
8. **Zenbait motatako musika-adierazpenen berri izatea, eta Euskal Herriko eta beste herri batzuetako ondarearen partetzat hartzea adierazpenok.**
  - Euskal kultura-ondarea eta beste kultura batzuetakoa ezagutzeko interesa ageri du.
  - Adi entzuten ditu musika-adierazpenak, eta haien testuinguruan kokatzen ditu.
  - Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika-lanak interpretatzen ditu.
  - Euskal Herriko eta beste herri batzuetako dantza- eta abesti-errepertorio oinarrizko bat ezagutzen du.
  - Musikaren garrantzia balioesten du, herrien ondarea eratzen duen osagaia den aldetik.

### 6.2.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

1. **Ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko bidetzat hartzea eta balioestea musika-lanak.**
  - Musikaren baliabideak eta konbentzioak aztertzen eta erlazionatzen ditu musika-obretan.
  - Musika erabiltzen eta barneratzen du egiten dituen jardueretan.
  - Jarduera artistiko eta kulturalak ezagutzeko eta haiekin gozatzeko interesa ageri du.
  - Gaur egun musikaren inguruan sortzen den informazioaren erabilera kritikoa eta eragilea egiten du.
2. **Musikaren eta beste arte-hizkuntza, ikus-entzunezko baliabide eta teknologia batzuen arteko loturak zein diren jakiteko gai izatea, eta horiek guztiak artelan konplexuak ekoizteko erabiltzea.**
  - Bestelako arte-hizkuntzak barneratzen ditu bere arte-ekoizpen eta -lanetan.
  - Sormenez erabiltzen ditu teknologia bere lan eta interpretazioetan.
  - Irizpide estetikoak erabiltzen ditu bere musika-lanetan.
  - Soinu askotarikoak ikertzen ditu eta bere musika-lanetan erabiltzen ditu.
3. **Zenbait musika-lanetan ageri diren elementu tekniko eta espresiboak ulertzea, eta musika-lan horiek erreferente estetikotzat hartzea.**
  - Soinuaren parametroak eta musika-hizkuntzaren oinarrizko elementuak bereizten ditu.
  - Hizkuntza tekniko egokia erabiltzen du proposatutako obren gaineko iruzkinak egiteko.
  - Partiturak eta baliabide grafikoak erabiltzen ditu proposatutako obrak aztertzeko.

- Teknologia berriak erabiltzen ditu entzuteko proposatu diren obren zenbait alderdi aztertu eta ulertzeko.
  - Erreferentzia estetiko berriak lantzen ditu musika-obra askotarikoak entzunez.
  - Musika entzutea balioesten du, norbera aberasteko eta gozamenerako iturria den aldetik.
- 4. Autonomiaz eta sormenez erabiltzea bere musika-lanak aztertzeke eta interpretatzeko teknikak eta baliabideak.**
- Ekimena eta irudimena baliatzen ditu bere musika-lanetan.
  - Musika-hizkuntzako elementu oinarrikoak antolatzen ditu eta musika sortu eta interpretatzeko erabiltzen ditu.
  - Printzipio estetiko egokiak erabiltzen ditu partiturak interpretatzeko.
  - Teknika egokiak erabiltzen ditu ahozko interpretazioak eta interpretazio instrumentalak egiteko.
  - Askotariko baliabideak erabiltzen ditu musika-obrak interpretatu eta berregiteko.
- 5. Bere komunikazio-gaitasuna, pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza lantzea, horrela bere musika-lanak sortzeko.**
- Musika-hizkuntzaren gaineko ezagutzak erabiltzen ditu berak sortutako musika-ideiak edo besterenak gauzatzeko.
  - Musikaren bidez adierazten denean, segurtasuna eta sormena erakusten ditu.
  - Modu arrazoituan komunikatzen ditu bere musika-lanak.
  - Hazkuntza pertsonalerako baliatzen du musika.
  - Adierazpen-baliabide propioak eta jakintza teknikoak uztartzen ditu.
  - Pozik ageri da kalitatezko lanak egitean.
- 6. Taldean egitekoak diren musika-proiektuetan parte hartzea, eta egindako lana ebaluatzeko gai izatea.**
- Gogoz parte hartzen du musika-lanen plangintzak egitean.
  - Arduraz laguntzen du eta lan-erritmo egoki bat izaten ahalegintzen da.
  - Sormenez eta ekimenez saiatzen da lanak egitean behar diren soluzioak bilatzen.
  - Begirunetsua eta ulerkorra da taldekideek egindako lanarekin.
  - Gogoz parte hartzen du taldearen ebaluazioan eta ahaleginak egiten ditu bere ekarpenak arte-produktu egokietan gauza daitezen.
  - Musika-jarduerak eraikuntza pertsonalerako faktore eta talderako ekarpen izan daitezen ahalegintzen da.
- 7. Musikaren eta soinuaren erabilerak eta funtzioak ulertzeko gai izatea, eta bere inguruko gizarte eta kulturarekin lotzea hori guztia.**
- Musika-ekoizpenen eta haien testuinguruen arteko erlazioak ezartzen ditu.
  - Obrek duten asmoari buruzko iruzkin arrazoituak egiten ditu.
  - Musika batek, erabilera-testuinguruaren arabera, izan ditzakeen erabilerak aztertzen ditu.
  - Soinu-ingurune osasungarriak sortzen ahalegintzen da.
  - Musikaren erabilerak eta funtzioak ulertzeko interesa adierazten du.



**8. Lan egitea Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika babestearen eta sorbertzearen alde, eta horretan, pertsona eta gizarte gisa hazteko bidetzat hartzea musika.**

- Kultura-ondare propioa eta beste kultura batzuetakoa ezagutzeko interesa ageri du.
- Euskal Herriko musika eta beste herri batzuetakoa onura pertsonal eta sozialeko elementua dela balioesten du.
- Euskal Herriko eta beste herri batzuetako erreperorioa baliatu ohi du bere interpretazioetan.
- Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika-obrak eta abestiak ditu, besteak beste, bere erreperorioan.
- Musika-ondare propioa eta beste herri batzuetakoa zaindu eta berritzearen garrantzia balioesten du.

### 6.2.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

**1. Ikuspegi kritikoz ematea musikak hedabide eta ikuskizunetan duen presentziari buruzko iritzia, eta horretan, hainbat argudio mota emateko gai izatea.**

- Obren balioa bereizten du, topikoetatik urrunduz.
- Ikus-entzunezko jardueretan erabiltzen den musikak duen egitekoari erreparatzen dio.
- Euskal kultura-inguruko musika-jardueretikiko interesa ageri du.
- Musika-taldeek musika-munduan duten eragina aztertzen du.
- Informazio-iturri bat baino gehiagotara jotzen du kritikak osatzeko.
- Musika-emanaldietara joatean, haien gaineko iritzia ematen du.
- Hitz eta kontzeptu musikalak erabiltzen ditu iritzietan.
- Bere iritzia taldean azaltzen duenean, elkarrizketarako jarrera izaten du.

**2. Gai izatea musika-lan bat entzun eta, aldez aurretik emandako irizpideak aintzat hartuta, entzun duen horretan ageri diren ideia nagusiak identifikatzeko.**

- Adi entzuten ditu soinu-mezuak, haiek entzuteko ezarri diren jarraibideak beteta.
- Soinu-mezuaren funtsezko alderdiei erreparatzen die, topikoak alde batera utzita.
- Zer obra mota entzuten duen bereizten du.
- Entzundako obren azalpen-eskemak egiten ditu.
- Entzundako obren gaineko iritzia ematen du, argumentu koherenteak erabiliz.
- Besteren iritzia entzutean, elkarrizketarako jarrera irekia izaten du.

**3. Ikus-entzunezko baliabideak eta teknologia berriak erabiltzea eta espresibide horiekiko interesa izatea.**

- Informazioa biltzeko, autonomiaz erabiltzen ditu ikus-entzunezko baliabideak.
- Teknologia ematen dituen aukerak baliatzen ditu bere musika-lanak aberasteko.
- Teknologiaz baliatuta, komunikazio musikalerako modu berriak arakatzen ditu.
- Irizpide estetikoak erabiltzen du teknologia berriekin egiten dituen lan musikaletan.

- Soinu-efektuak sortzen ditu eta bere musika-lanetan txertatzen.
  - Informatika musikalaren aplikazio batzuk erabiltzen ditu: partiturak editatzekoak, konposizioan laguntzekoak, entzumena lantzeko programak, etab.
- 4. Irudi-sekuentzia bati soinua eranstea, eta horretan, zenbait baliabide informatiko erabiltzea.**
- Musika askotarikoak hautatzen ditu irudiei laguntzeko.
  - Material eta bitarteko errealei erreparatzen die lan-plangintzak egiteko.
  - Ondo koordinatuta antolatzen ditu material soinuduna eta bisuala.
  - Arreta jartzen du lanen akaberan.
  - irtenbide originalak ematen dizkie problemei.
  - Egokitasunez azaltzen du egindako lana.
- 5. Zenbait iturri dokumental oinarri hartuta, proposatzen zaizkion musika-lanak aztertzeo eta azaltzeo gai izatea.**
- Musika-obra ulertzeko behar den informazioa hautatzen du.
  - Obraren oinarritzko ideiak antolatzen ditu.
  - Musika-obraren gaineko komentarioak egiten ditu.
  - Beste arte-adierazpen batzuekin lotzen du musika-obra.
  - Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen ditu aurkezpenetan.
  - Lexiko egokia eta kontzeptu musikalak erabiltzen ditu argudioak osatzean.
  - Informazioaren jatorriko iturriak aipatzen ditu.
  - Aurkeztutako obra entzuten du eta haren gaineko elkarrizketetan parte hartzen du.
- 6. Garai, estilo, genero eta joeretako musika-lanen ezaugarriak identifikatzeko gai izatea, eta horretan, musika-lan horiek ulertzeko, ea entzuketa-teknikak eta -metodoak erabiltzea.**
- Entzuteko eman zaizkion jarraibideak bete eta musika-obren bereizgarriak ezagutzen ditu.
  - Obraren egiturari begiratuta bereizten ditu forma musikalak.
  - Estiloen arabera elkartzen ditu obrak.
  - Konposizio moduen eta garaien arteko loturak egiten ditu.
  - Lexiko egokia eta kontzeptu musikalak erabiltzen ditu argudioak osatzean.
- 7. Egiturarekin eta musika-tresnen nahiz ahotsen erabilerarekin lotutako irizpideak aintzat hartuta, musika-lan bat zer estilo eta garaikoa den jakiteko gai izatea.**
- Lotu egiten ditu entzundako obra eta obraren garaiko ezaugarriak.
  - Konposizio-elementuei erreparatuta ezagutzen du obren estiloa.
  - Egitura harmonikoaren instrumentuak eta ahotsak ezagutzen ditu.
  - Interpretazio moduak bereizten ditu, garaiaren arabera.
  - Obren ideia musikalak adierazten eta azaltzen ditu, lexiko musikala baliatuta.

**8. Musika-lanak ikuspegi kritikoz entzutea eta haien egitura eta edukia aztertzea.**

- Loturak egiten ditu entzuten duenaren eta entzunaldiaren aurretik eman zaizkion entzute-jarraibideen artean.
- Entzunaldian azaldu diren ideia musikalak identifikatzen ditu.
- Entzundako obrak dituen soinu-blokeak konparatzen ditu.
- Obrari nortasuna ematen dioten erritmo-jokoak hautematen ditu.
- Obraren aldaketa harmonikoak aztertzen ditu.
- Entzundako obraren antolamendu formalean ageri diren errepikapenak, bariazioak, imitazioak, oihartzunak eta kontrasteak zehazten ditu.
- Obraren oinarrizko konposizio-elementuak ondorioztatzen ditu eta entzunaldiaren osteko elkarrizketetan azaltzen.

**9. Musika-lan baten zentzua interpretatzea eta haren alderdi estetiko eta teknikoei buruzko iritzia emateko gai izatea.**

- Obraren antolamendua aztertzen du.
- Haren oinarrizko ideiak identifikatzen ditu.
- Tonalitatearen, tempoaren eta karakterraren aldaketak igartzen ditu.
- Musikaren erritmoan mugitzen du gorputza.
- Irizpide estetikoak baliatzen ditu interpretazioaren kalitatea zehazteko.
- Musikan oinarritzen du bere iritzia eta ez topikoetan.

**10. Entzuketa-jardueretan soinu-ekoizpenaren iturria identifikatzeko gai izatea, eta horretan, bere mailarekin bat datorren soinu- eta tinbre-mapa erabiltzea.**

- Obraren soinu-mapa egiten du, entzundako tinbre-ezaugarriei erreparatuta.
- Ahots kantatuaren tesiturak bereizten ditu.
- Musika-tresnen familietako musika-tresnak bereizten ditu.
- Soinuaren iturria identifikatzen du.
- Tinbre-aldaketak ikertzen ditu objektu soinudunetan, aurretik ikasitakoak erabilia.

**11. Musika-lan koherente eta aberatsak sortzeko gai izatea, bere musika-ezagueren maila aintzat hartuta.**

- Musika-hizkuntzari buruz duen jakintza antolatzen du musika sortzeko.
- Egokitasunez erabiltzen ditu soinu-baliabideak obrak sortzeko.
- Originaltasuna lantzen du obretan.
- Ideia musikalen plangintza koherentea eta orekatua egiten du.
- Bere obrak aztertzen ditu eta iritziak eskatzen ditu kontrasteak egiteko.

**12. Musika-lanak bakarka nahiz taldean interpretatzeko gai izatea, eta unean-unean musika-lan horren interpretazioaren ezaugarrietara egokitzen jakitea.**

- Musika-hizkuntzaren jakintzak batzen ditu interpretazioak egiteko.
- Interpretazioaren giltzarriak identifikatzen ditu eta horietara egokitzen da.
- Soinuak entzun eta egiteko ekintzak uztartzen ditu.

- Taldeko soinuarekiko harmonian erabiltzen ditu ahotsa eta musika-tresnak.
  - Lan-dinamika zuzenari eusten laguntzen du.
  - Ondo betetzen ditu batutaren jarraibideak.
- 13. Musika-jardueretan parte hartzea, eta hori gozamen-iturritzat eta bizikidetzaz sustatzeko bidetzat hartzea.**
- Harmoniaz parte hartzen du musikaren interpretazioan.
  - Interpretazioan sor daitezkeen arazoak konpontzeko interesa adierazten du.
  - Obrak prestatzen ditu, onena emateko hura interpretatzean.
  - Talde-dinamikari eusten dio.
  - Apaltasunez laguntzen die gainerako pertsonari, elkartzasunez.
  - Jarduerak harmoniaz egiten laguntzen du.
- 14. Ikastetxean musika-jarduerak egiteko beharrezkoak diren lanetan parte hartzea, eta horretan, gogoz laguntzea jarduerok planifikatzen, entseguak egiten, musika-lanak interpretatzen eta ikuskizuna zabaltzeko lanak antolatzen.**
- Musika-jarduerak proposatzen ditu ikastetxean.
  - Ordenan azaltzen ditu lan-plangintzak.
  - Jarduerekin lortu nahi diren helburuei buruzko ideiak ematen ditu.
  - Jardueren alderdi integratzaileak zaintzen ditu.
  - Entseguetara joaten da.
  - Kalitatezko jarduerak egiteko interesa ageri du.
  - Azken emaitzaren erantzule sentitzen da.
  - Obrak zabaltzen laguntzen du.
- 15. Eguneroko bizitzan eta musikaren esparruan musikaren eta soinuaren erabilera ugariak identifikatzeko gai izatea, eta horretan, soinu-ingurunearen aldeko jarrera aktibo eta kritikoa izatea.**
- Badaki zer erabilera dituzten material soinudunek.
  - Soinu edo zarata handiegien ondorioak aztertzen ditu.
  - Inguruan soinu-giro atseginak sortzen laguntzen du.
  - Isiltasuna hobesten du kontzentrazio-giroak sortzeko.
  - Soinuaren ezaugarriak aztertzen ditu.
  - Kalitate akustikoa probatzen du.
- 16. Interpretazio-material askotarikoa hautatzeko gai izatea, eta beste errealitate kultural batzuk ezagutzeko erabiltzea material hori.**
- Interpretatu behar den obraren ezaugarriak ikertzen ditu.
  - Interpretatuko den partitura prestatzen du, behar diren jarraibideak beteta.
  - Obraren zailtasunak gainditzeko ariketa teknikoak egiten ditu.
  - Isilik dirau interpretazioaren aurretik, kontzentratzeko.
  - Interpretazio-teknika zuzena erabiltzen du.
  - Espresio-nabardurak erantzen dizkio interpretazioari.
  - Euskal Herriko eta beste kultura-jatorri askotariko partituren bilduma egiten du.

## 6.3. ARTE ESZENIKOAK ETA DANTZA

### 6.3.1. HELBURUAK

Honako hauek dira Arte Eszenikoak eta Dantza ikasgaiko etapako helburuak:

1. Antzezlanak nahiz koreografiak ikusi, irakurri, aztertu eta birsortu, eta espresibide eszeniko ugariak ulertzea, eta, hala, enpatia eta jarrera erreflexibo eta kritikoa landu, eta ikusle aktibo, tolerante eta solidarioa izaten ikastea.
2. Ikasleek beren potentzialtasun estrategiko, ekintzaile, espresibo eta irudimenezkoa eta denbora kudeatzeko duten gaitasuna garatzeko moduko dantzaldi eta ikuskizunak sortzea, idaztea eta planifikatzea, eta, hala, sormen-prozesu batean tartean dauden fase guztien berri jakin eta norbera antzezlan nahiz dantzaldien antolaketarekin lotutako elementuen gaineko arduradun bihurtzea.
3. Dantzaldi eta ikuskizunetan parte hartzea, eta horretan, kontzentrazioa, memoria, inprobisazioa eta talde-lana lantzea, norberak sortutako antzezlan bat antzezteko edo testu dramatiko bat egokitzeke.
4. Antzezlanak nahiz koreografiak ezagutzeko, bisualizatzeko, biltegitratzeko, idazteko, grabatzeko, muntatzeko eta zabaltzeko beharrezkoak diren oinarrizko baliabide teknologiko eta online-baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea, eta, horren bidez, ezaugarri unibertsalak dituen prozesu kultural peto-petoa sortzea.
5. Arte Eszenikoekin lotutako beste arte-hizkuntza batzuen berri jakitea (argazkigintza, bideo-arte, musika eta arte plastikoak, besteak beste), eta arte-hizkuntza horiek antzerkigintzan eta dantzan aplikatzea, diziplinarteko ikuskizun erakargarri eta askotarikoak sortu eta, hala, gaur egungo kulturaz eta arte-jarduerez norberak duen iritzia hobetzeko.
6. Euskal Herrian nahiz beste herri batzuetan historian zehar Arte Eszenikoek izandako etapa artistiko ugarien oinarrizko hizkuntza teknikoaren berri jakitea, eta, hala, etapa horietan egindakoa norberaren ondare artistikoari eranstea, eta antzerkigintzaren eta koreografiaren ondare kultural, historiko eta teknikoaz gogoeta egitea, horrek guztiak kultura artistiko sendoa eman diezaien ikasleei.

### 6.3.2. EDUKIAK

#### 6.3.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Arte Eszenikoek eta Dantzak artea esploratzeko bide berritzaileak urratzen dituzte, prozesu korporal eta gestual apartak martxan jarri eta, hala, ikasleei beren prestakuntza integrala aberasteko moduko baliabide espresiboak ematen dietenez gero. Horien bitartez, gure neska-mutilek bizitza errealarekin estu lotutako prozesu komunikatibo eta konduktualak esperimendatzeko aukera izango dute.

Eduki multzo bakoitzeko edukien helburua garbia da, oso: ikasleek bi diziplina horiekin lotutako lexiko espezifikoa eta tradizio dramatiko nahiz koreografikoarekin lotutako alderdi garrantzitsu batzuk ikas ditzaten lortzea, horrek beren prestakuntza humanistiko eta artistikoa osatzen lagunduko dielakoan. Ez da ahaztu behar, hala ere, ikasgai honetako helburu eta eduki nagusien xedea zein den: gure ikasleak, dela interprete modura edo dela ikusle modura,

bizipenen bitartez hurbiltzea Arte Eszenikoetara eta Dantzara, bietan ala bietan nagusi baitira bai sormena, bai talde-lana, bai tolerantzia, bai adierazkortasuna eta bai partaidetza.

Etapako ikasgai guztietan komuna den lehen eduki multzoak oinarrizko zehar-kompetentziak garatzeko beharrezkoak diren eduki guztiak jasotzen ditu. Arlo eta ikasturte guzti-guztietan landu eta ebaluatu behar dira edukiok.

Beste hiru eduki multzoek bat egiten dute kompetentzien gaineko ikuskera azaltzean egindako proposamen eta oharrekin, eta alde horretatik, proposamen eta ideiak xehatuta ageri dira eduki multzootan.

Bigarren eduki multzoak, "*Arte Eszenikoen baliabide eta espresibideak*", bi eduki nagusi hartzen ditu hizpide: batetik, interpretazioaren eta baliabide eszenikoen esplorazioarekin lotutako alderdiak; eta, bestetik, interpretazio- eta dantza-teknika nagusien ezagutzarekin lotutakoak.

Hirugarren eduki multzoak, "*Muntaketa- eta eszenifikazio-lana*," muntaketa eszenikoak taularatzeko prozesua lantzen du, eta ikasleek prozesu horretako fase guztietan eta antzezpen-lanean bertan parte hartzera bultzatzen ditu.

Azkenik, laugarren eduki multzoa, "*Ikuskizun eszenikoaren harrera*", arte-espresibideei, dantza- eta antzerki-genero eta -estiloiei, eta ikuskizun eszenikoen azterketari buruzko gogoetan ardatzen da, eta ikasleek jarrera kritikoa eta errespetua landu dezaten hartzen du helburu.

### 6.3.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.

- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Baliabide eta espresiobide eszenikoak

- Interpretatzeko eta dantzatzeko teknikak ikertzea: jolas dramatikoak, inprobisazioak, dramatizazioak, koreografia-eritmo eta mugimenduak, etab.
- Interpretearen baliabideak ikertzea: ahotsa eta gorputzaren, keinuen eta eritmoaren eta musikaren bidezko adierazpena.
- Pieza dramatiko eta koreografia xumeak egitea: bideoklipak, iragarkiak, laburmetraiak, moldaketak edo parodiak, besteak beste.
- Pieza dramatikoak eta koreografia laburrak grabatzea eta muntatzea: iragarkiak, laburmetraiak, moldaketak, etab.
- Taldean lan egiteko jarrera baikorra izatea.
- Besteren ekoizpenak errespetatzea eta haiekiko jarrera aktiboa izatea.

## 3. MULTZOA. Muntaketa- eta eszenifikazio-lana

- Eszena-lan bat muntatzeko prozesuaren fase guztiak ezagutzea: lanaren plangintza eta banaketa egitea, gidoia egitea, testua egokitzea, entseguak egitea, errepresentazioa eta amaierako balioespena.
- Eszena-lan bat muntatzeko prozesuaren fase guztietan parte hartzea: lanaren plangintza eta banaketa egitean, gidoia egitean, testua egokitzean, entseguak egitean, errepresentazioa egitean eta amaierako balioespena egitean.
- Atrezzoak, eszenografia, argiak eta gainerako alderdiak osatzen parte hartzea.
- Ikaskideen produkzioak eta egungo eszena-eskaintzako obraren bat aztertzea.
- Bideokamerak erabiltzea grabazioak egiteko, eta ordenagailua grabazio horien muntaketak egin eta sare sozialetan zabaltzeko.

## 4. MULTZOA. Ikuskizun eszenikoaren harrera

- Arte eszenikoaren teknizismo oinarrikoak aztertzea: eszenatokiaren parteak, interpretazio- eta koreografia-teknikak, rolak, etab.
- Dantza eta antzerkiko genero eta estiloen ezagutza oinarrikoak.
- Garaiko eszenaratze moduak ezagutzea: performancea, bideo-antzerkia, antzerki-dantza, instalazioak, contact...
- Euskal Herriko eta beste herri batzuetako dramaturgiaren garaiak eta dantzako genero eta estilo oinarrikoak aztertzea.
- Eszena-ikuskizunak aztertzea: interpretazioa, gidoia, eszenografia, argiak...

- Eszenako eta dantzako ikuskizunen kritika.
- Eszenaren eta dantzaren esparruetan oinordetzan hartu den euskal kultura-ondarea errespetatzea.

### 6.3.2.3. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkeztu diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 4.MULTZOA. Ikuskizun eszenikoaren harrera

##### Arte eszenikoak

- Antzerkiaren sorrera
- Erdi Aroa: Garapena; Erlijio-drama. Mirariak. Misterioak ; Antzerki profanoa; *Obanosko Misterioa*
- Erdi Aroko antzerkiaren aztarnak Euskal Herriko antzerkian: Pastoralak; Toberak, Xaribariak. Inauteriak.
- Ilustrazioa Euskal Herrian: Frantzisko Xabier Munibe, Peñafloredako kondea; Azkoitiko Zalduntxoak eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak; *“El borracho burlado”*
- XIX. Mendea: Herri-tradiziozko antzertia, bereziki Zuberoakoa, hau da, asto-lasterrak eta pastoralak; Antzerti konbentzionala, Pizkunde giroan eta Lore Jokoen eta Euskal Festen babesean Donostian sortu zena; Marzelino Soroa (1848-1902), Toribio Alzaga (1861-1941), Serafín Baroja (1840-1912)...
- XX. mendea Euskal Herrian: Euskal Pizkundera. Abelino Barriola (1885-1944). Euskal Izkindea eta Iztunde Ikastola; Gabriel Aresti; Iparraldeko adierazpenak: Lartzabal, Landart...

##### Dantzak

- Dantza batzuk: Biribilketa; Jolas-dantzak: Zapatain, Xan Petrike (Ipurdi-dantza), Eskudantza, Mahai-gaineko, Katadera-dantza, Almute-dantza...; Txulalari; Zazpi jauzi; Arku-dantza, Makila-dantza, Sagar-dantza, Zinta-dantza, Zahagi-dantza; Dantza askatuak: fandango, arin arina, jota (trikitrixa),...; Lantzeko inauteria (Baztango zortzikoa); Muxikoak: Hegi, Ostalerrak...; Baltsa, habanera, kontradantza, polka (herri-dantzak diren heinean); Pasodoblea (herri-dantza den heinean); Soka-dantza (Ingurutxoak, Giza dantza, Larrain-dantza, nahi diren aldaerak aukeran): Ohorezko Kontrapasa.
- Dantzako erreferenteak: Dantzaren historia, Iztueta, Biarritzeko baleta, Eresoinka, Elai-alai, Kukai, Urbeltz, Jon Maia, Luzia Lakarra...

### 6.3.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 1. Ikuspegi kritikoz eta errespetuz hausnartzea arte-espresioaren ugarien gainean.

- Ezarritako epeetan irakurtzen edo ikusten dituen obrak.
- Irakurri eta ikusi dituen obraren iruzkin kritikoa egiten ditu.
- Iruzkinetan, loturak ezartzen dituen garai, genero eta estiloen artean.
- Dramaturgia eta koreografia laburrak sortzen edo moldatzen ditu, eta horiek lagungarri dira ikusitako obraren mezuak ulertzeko.



- Besteren lanak errespetatzen ditu, ikusle aktiboa izanda.
  - Ikuskizunetan parte hartzen duten artisten ahalegina balioesten du.
- 2. Ikuskizun bat antolatu eta, horretan, sormen-prozesuko urrats guzti-guztiak kontuan hartzeko gai izatea, hala nola irudimenaren erabilera, parte-hartzea, planifikazioa, gatazken konponketa, konpromisoa eta emaitzen ebaluazioa.**
- Antzerki- eta dantza-ikuskizunen plangintzako etapak ezagutzen ditu.
  - Bete egiten ditu ikuskizunak egiteko ezartzen diren epeak.
  - Gaur eguneko gaiak aukeratzen ditu, jendearentzat interesgarriak direnak.
  - Gidoi sortaileak eta egokiak egiten ditu.
  - Estrategia egokiak erabiltzen ditu sortze-prozesuak gertatzen diren gatazkek eta ezustekoak onbideratzeko.
  - Entseguetan ematen dituen ideiek hobetu egiten dute ikuskizuna.
  - Amaierako produkzioa berrikusten eta hobetzen du.
- 3. Taldean ikuskizunak eta egokitzapenak antzezteak, eta horretan, memoria ondo erabiltzea eta partaidetza eta esfortzua sustatzea.**
- Gogoz parte hartzen du entseguetan.
  - Bete egiten ditu taldeak ezarritako epeak.
  - Bere pertsonaiari dagozkion testuak eta koreografiako urratsak buruz ikasten eta interpretatzen ditu.
  - Oinarriko ezaugarrien bidez karakterizatzen ditu pertsonaiak.
  - Egoki erabiltzen du eszena-eremua.
  - Ikuskizunen produkzioko elementu guztiak zaintzen ditu: atrezzoak, gidoiak, jantziak...
- 4. Bere arte-ekoizpenen berri ematea gainerako pertsonen, eta horretan, grabazio-, muntaketa- eta hedatze-lan guztiak egiteko baliabideak erabiltzea.**
- Badaki zer online baliabide dauden ikuskizunak ikusi eta testuak bilatzeko.
  - Irizpide egokiz bilatzen eta hautatzen ditu ikuskizunaren premietara egokitutako materialak.
  - Gidoi artistikoak taldean sortzeko teknologia-gailuak erabiltzen ditu.
  - Grabatzeko eta ikus-entzunezkoak muntatzeko materialaren erabilera eraginkorra eta arduratsua egiten du.
  - Egokitasunez erabiltzen ditu sare sozialak ikuskizuna iragarri eta zabaltzeko.
  - Badaki jarduera artistikoak zer onura dakartzkien gorputzari eta buruari.
- 5. Beste arte-hizkuntza batzuk ezagutzea eta bere ekoizpenetan erabiltzea.**
- Beste diziplina batzuen –besteak beste, argazkigintzaren, bideogintzaren eta musikaren– oinarriak ezagutzen ditu.
  - Arte plastikoaren oinarriak ezagutzen ditu, eta atrezzoak, jantziak, kartelak eta bestelakoak egiteko baliatzen ditu.
  - Ikuskizunean beste hizkuntza batzuk erabiltzeko behar diren online teknologiak eta zerbitzuak kontrolatzen ditu.

- Ikuskizunean egoki erabiltzen ditu beste hizkuntza batzuk; hala nola musika eta arte plastikoak.
  - Badaki antzerkiak eta dantzak zer adierazpen ugari dituzten gaur egun.
  - Garaiko arte-adierazpenak errespetatzen ditu.
- 6. Arte Eszenikoen etapa historiko garrantzitsuenetako elementuak ezagutzea eta bere ekoizpenetan erabiltzea baliabide horiek.**
- Arte eszenikoak eta dantza-estiloak ezagutzen ditu.
  - Idatzitako antzerki-testuen teknizismoak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
  - Eszena-muntaian identifikatzen eta erabiltzen ditu antzerkiaren eta dantzaren oinarritzko termino espezifikoak.
  - Arte eszenikoen, dantzaren eta haien estiloen historia eta garai gorenak ezagutzen eta kokatzen ditu.
  - Euskal antzerkigintzaren eta dantza tradizional batzuen gaur egungo eta historiako berezitasunak ezagutzen ditu.
  - Bere ikuskizunetara ekartzen ditu ondare eszenikoaren zenbait alderdi.

## 7. KOMPETENTZIA MOTORRA

### 7.1. GORPUTZ-HEZKUNTZA

#### 7.1.1. ETAPAKO HELBURUAK

Hauek dira etapako helburuak Gorputz Hezkuntza ikasgaiari:

1. Jarduera fisiko eta kirol-jarduera osasungarria zehazten duten alderdi guztiak identifikatzea eta aztertzea, modu kontzientean balioesteko ongizatea lortzeko dakartzan onurak, alderdi guztietan, eta gizarteak osasunari, jarduera fisikoari, kirol-jarduerari, gorputzaren tratamenduari eta gorputz-irudiari buruz duen ikuspegia jarrera kritikoz aztertzea.
2. Gaitasun eta trebetasun fisikoak nahiz hautemate-mekanismoak, erabakiak hartzekoak eta gauzatzekoak identifikatzea eta aztertzea, bai eta haiek ebaluatzeko eta garatzeko bitartekoak ere, jokabide motor autonomoa lortzeko, besteak beste IKTen baliabide hezitzaileak erabiliz.
3. Euskal Herriko inguruneak, bai erakundeen aldetik bai geografiaren aldetik, jarduera fisikoak, adierazpen-jarduerak eta kirol-jarduerak bai banaka bai taldean aztertzeko, esperimintatzeko, diseinatzeko, antolatzeko eta garatzeko eskaintzen dituen aukerak identifikatzea, baliatzea eta balioestea, eta aldi berean, jarduera fisikoaren beste adierazpen batzuetara hurbiltzea.
4. Euskal Herriko jolas- eta kirol-tradizioak ezagutzea, interpretatzea eta haietan parte hartzea, eta beste kultura batzuetakoak ere aztertzea eta haien berri jakitea, bai eta haiekin lotutako askotariko jarduera fisikoak, adierazpen-jarduerak eta kirol-jarduerak praktikatzeko ere, herrialde bakoitzeko identitatea eta kultura-balioak ulertzeko eta baieztatzeko, eta aldi berean aberastasuna eta inklusioa dakartela ulertzea eta balioestea.
5. Gorputza ezagutzea eta ulertzea, alderdi biologikoan, sortzailean, komunikatiboan eta emozionalean, banaka nahiz taldean banakako eta taldeko jolas-jarduerak aztertuz eta esperimintatuz, musika-euskarria erabiliz zein ez, pertsonaren kompetentzia sozioemozionala eta garapen integrala bideratze aldera.
6. Norberaren sentimenduak eta emozioak identifikatzea, interpretatzea, erregulatzea eta komunikatzea, modu kontzientean, aldi berean besteen sentimenduak eta emozioak bereiziz, interpretatuz eta ulertuz, harremanetarako gaitasunak, komunikatzeko trebetasunak eta gaitasun afektiboak ahalik hobekien garatzeko, eta horrela bizikidetzarako jarraibide jakin batzuk nork bere egiteko.
7. Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak egitean lesioak edo larrialdi-egoerak gertatuz gero eman beharreko lehen laguntzak identifikatzea eta baliatzea, teknika egokiak erabiliz zaurituaren nahiz egoeraren hasierako balioespina egiteko, eta ezarritako protokoloak betez lehen esku-hartzerako oinarritzko teknikak eta bizi-euskarrikoak aplikatzeko, gerora laguntza emateko egin beharreko esku-hartzeak bideratzeko eta errazteko.
8. Jolas-jarduera fisikoak, adierazpen-jarduerak eta kirol-jarduerak modu autonomoan eta sistematikoan planifikatzea, antolatzea eta praktikatzeko, kontuan hartuta banakoen

nahiz taldearen ezaugarriak, interesak eta beharrak, bizi-kalitatea areagotzeko, oreka emozionala lortzeko eta komunikazio- eta adierazpen-trebetasunak hobetzeko helburuarekin.

9. Jakintza eguneratzeko eta kompetentziak etengabe hobetzeko premia ulertzea eta premia hori adieraztea, eta, horrekin batera, teknologia berriek lan hori egiteko eskaintzen dizkiguten baliabideak jartzea ikasleen eskura.
1. Jolas-jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egitean balio pertsonal eta sozial jakin batzuk erakustea, oinarri dutenak errespetua, pentsamendu autonomoa, sortzailea eta ulerkorra, erantzukizuna, ahalegina, parte-hartzea, eta ingurune fisikoarekiko eta kulturalarekiko sentsibilitatea, agerian jarriz herrialdeko balioekin bat datorren mugimenduaren kultura bat.

## 7.1.2. EDUKIAK

### 7.1.2.1. Eduki multzoen ezaugarriak

Kompetentzia motorraren bidez ikasleek gaitasun, trebetasun eta jarrera jakin batzuk lantzen eta ezagutza berariazkoak ikasten dituzte, beharrezkoak direnak, guztiak ere, jokabide motor autonomoa, osasungarria eta sortzailea izateko. Ikasleek kompetentzia hori izan behar dute bizitzan zehar beren ideiak, balioak, sentimenduak eta emozioak adierazteko, eta gorputzaren ongizatea eta ongizate emozionala erdiesteko.

Lau eduki multzo handi zehaztu dira, eta haiek garatuta bermatuko da ikasleek jarduera fisikoa eta kirol-jarduera integratuko dituztela beren eguneroko bizitzan:

- 1. multzoa. Diziiplina-arlo guztietan komunak diren prozedurazko eta jarrerazko edukiak.
- 2. multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.
- 3. multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.
- 4. multzoa. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza.

Lehen multzoa diziiplina-arlo guztietan komunak diren prozedurazko eta jarrerazko edukiei dagokie. Oinarrizko zehar-kompetentziak garatzeko modu bakarra da zehar-kompetentzia horiekin lotutako prozedurak eta jarrerak diziiplina-arloetako irakaskuntza- eta ikaskuntza-egoeretan erabiltzea.

Bigarren multzoa Jarduera Fisikoa eta Osasuna esparruari dagokio. Kompetentzia motorra lantzeko ardatz oinarrizkoak dira gorputza, bere dimentsio guztietan, eta jokabide motor autonomo eta zehatza. Hezkuntza-dukien bitartez, oinarrizko zenbait ezagutza, gaitasun eta trebetasun eskuratu, erabili eta landu behar dituzte ikasleek, mugimenduaren kulturaren parte-hartze emantzipatua eta gogobetegarria izateko, estereotipo eta bereizkerietatik aldentutako bizitza aktiboa eta osasungarria izateko, ongizate psikosoziala iristeko, eta pertsonetikiko eta ingurunearekiko hartu-emanak eta interakzioa hobetzeko bizitzaren esparru guztietan.

Hirugarren multzoa Gorputz Adierazpena eta Komunikazioa esparruari dagokio. Kompetentzia sozioemozionalak lotuta daude egoera emozionalak ezagutzearekin, hautematearekin eta erregulatzearekin, nork bere burua motibatze gaitasunarekin, bestearen emozioak onartzearekin eta harremanak kontrolatzearekin. Bestela esanda, zerikusia dute nork bere buruaren kontzientzia izatearekin eta nork bere burua erregulatzearekin, motibazioarekin, enpatiarekin eta trebetasun sozialarekin. Kompetentzia horiek garatzeak eragin handia du eguneroko bizitzako hainbat alderditan.

Laugarren multzoa Mugimenduaren kulturari dagokio, Aisia eta Denbora Librea esparruen barnean. Gorputz Hezkuntza oso bide egokia da aisiaren eta denbora librearen kulturarekin lotutako konpetentziak lantzeko eta garatzeko; batetik, jolas- eta bizipen-izaera duelako, eta bestetik, talde heterogeneo baten barruan sortzen diren giro, testuinguru eta ingurune askotariko eta aldakorretako etengabeko ikaskuntza-egoerak baliatzen dituelako.

Hortaz, ikasleak bizitza aktiboa, aberasgarria eta osasungarria izateko hezteka da eskolak ikasgai honetan egingo duen lan hezitzailearen oinarritzko helburua, eta lan horren oinarritzko ardatzak gorputza eta jokabide motorra izango dira, haien alderdi eta esanahi guztiak aintzat hartuta.

Konpetentzia motorraren osagaiei behatuta, ikusten da haxe dela ikasgai honetako curriculum a egin eta lantzeko funtsezko erreferentzia: mugimenduaren kultura inklusibo baten ezarpen soziala bermatzea bizitza osorako. Zertan datza mugimenduaren kultura inklusiboa? Gizartean jarduera fisikoa barneratzeko eta indartzeko aukera izatea eta bizi-estilo aktibo eta osasungarriaren balioaz jabetzea da; izan ere, bizi-estilo hori da pertsona guztien ongizaterako bermearen adierazle eta herrialde baten identitatearen eta balioen erakusle.

### 7.1.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.

- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Lokomozio-aparatuaren oinarrizko ezagutza.
- Bihotz-biriketako sistemaren ezaugarriak eta oinarrizko funtzioak.
- Beroketaren eta atzera lasaitzearen helburuak eta oinarrizko ezaugarriak. Beroketa orokorra egiteko eta atzera lasaitasunera bueltatzeko ariketa egokiak bildu eta egitea.
- Egoera fisikoa ezagutu eta lantzea, eta egoera fisikoak osasunaren alderdi guztiekin duen harremana zaintzea.
- Gorputzaren jarrera egokiak zein diren jakitea eta jarrera horiek lantzea, bai ariketa fisikoa egitean, bai eguneroko bizitzan.
- Garbitasun, higie, ordena, instalazio eta materialen gaineko arauak onartzea, betetzea eta arduraz erabiltzea.
- Egoera fisikoaren gaineko jarrera kritikoa eta hura hobetzeko jarrera izatea.
- Errespetua eta enpatia jardun motorraren aukerekiko, eta aniztasunaren integrazioak dakarren aberastasuna balioestea.
- Egoneko bizitzak, elikatze desorekatuak, hidratazio desegokiak eta antzeko ohiturek osasunari dakarzkieten ondorioak.
- Ariketa fisikoak osasunean dituen eragin onuragarriak, eta drogek eta substantziarik gabeko mendetasunek pertsonaren garapen integralean dituzten eraginak baztertzea.

## 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutu eta adieraztea: kategoriak, horiekin lotutako mekanismo fisiologikoak, eta hitzeko eta hitzik gabeko adierazpen moduak.
- Gorputza, komunikaziorako eta sormen-adierazpenerako tresna den aldetik: gorputza bera eta gorputzaren bidez keinuak egiteko, jarrerak hartzeko, sentitzeko, adierazteko eta mugitzeko ahalmenak ezagutu eta menderatzea.
- Erritmoz, keinuen bidezko adierazpenaz eta mugimenduaren dimentsioez jabetzea, desioak, sentimenduak, gogo-jarrerak, emozioak eta eguneroko bizitzako egoerak eta ekintzak komunikatu eta adierazteko bideak diren aldetik.
- Jolasen eta jardueren bidez, adierazpen dramatikoak eta gorputzaren bidezko adierazpena lantzea, eta horietan konbinatzea erritmo askotarikoak eta espazio eta objektu ugariren erabilera, taldearen barruan sustatzeko, bai konfiantza eta integrazioko dinamikak, bai enpatia, bai mugen errespetua, bai eta pertsona bakoitzaren adierazpen-beharrizanak ere.
- Taldeko euskal dantza ohikoenak, haien bidez euskal tradizio ludikoa ezagutu, ulertu, gozatu eta lantzeko
- Desinhibiziorako, parte hartzeko, elkarlanean aritzeko, ikertzeko, gozatzeko eta sormena lantzeko jarrera izatea gorputz-adierazpeneko jolas eta jardueretan.

#### 4. MULTZOA. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako jolas, dantza eta kirolak ezagutzea eta horietan laguntzeko eta lankidetzan aritzeko jarreraz parte hartzea, elementu kultural eta sozialak diren aldetik.
- Norberak egindako jolas eta kirol banakako eta taldekoek berezko dituzten ekintzak eta kiroltasunezko keinuak ikastea, lantzea eta horiek lotutako trebetasun motorrak hobetzea, eta jardun horietan, jolas eta kirolen barne- eta kanpo-logika interpretatzea eta errespetatzea, eta jolas arautu eta egokituak proposatzea, talde-kirolen oinarri tekniko eta taktikoak eta kirol horiek dituzten eraso eta defentsako estrategia komunak ikasteko.
- Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, eta horiek egitean, ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasun-arauak betetzea, orientazioko teknika oinarrizkoak lantzea eta logistika-baldintza oinarrizkoak zaintzea.
- Ariketa fisikoa eta kirolak egitea hiri-ingurunean, ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasun-arauak betez.

### 7.1.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.

- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Beroketa egitea, ohitura osasungarria eta lesioak prebenitzeko bitartekoa den aldetik.
- Prozesu energetikoak eta ariketa fisikoa: sistema aerobikoa eta anaerobikoa. Ahaleginaren intentsitatea eta iraupena kontrolatzea.
- Gihar-sistemaren ezaugarriak eta oinarrizko funtzioak.
- Oinarrizko ezaugarri fisikoak eta egoera fisikoarekin eta osasunarekin duten lotura.
- Arnasa hartzeak eta lasaitzeak osasun-egoera orokorrarekin eta emozioen erregulazioarekin duen lotura.
- Autonomia emozionala, norberaren emozioak kudeatzea eta jarduera horiek ariketa fisikoarekin eta osasunarekin duten lotura.
- Drogen, alkoholaren eta tabakoaren kontsumoak eta ildo horretako ohiturek osasunari dakarzkieten ondorioak.

## 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Banakako eta taldeko mezuak zabaltzea eta emozioak adieraztea dramatizazioko edo dantzako baliabideak erabiliz (itzal-antzerkia, txotxongiloak, ipuinak, istorioak, txotxongilo bizidunak, mimoa, bikoizketako tailerrak, dantzak, etab.), eta beste irudikatze-jarduera aurreratuago batzuk egitea.
- Keinuak eta jarrerak: gorputza menderatu, kontrolatu eta ingurunearekin komunikatzeko talde-jarduerak lantzea, enpatia, laguntzeko jarrera eta lankidetzako jarrerak erakutsiz.
- Erritmo-oinarri bat edo musika erabilita, gorputz osoaren eta gorputzaren atalen mugimendu adierazkorrek egitea banaka eta taldean, espazioarekin, denborarekin eta intentsitatearekin jokatuta.
- Inprobisazioak eta sorkuntza-lan banakakoak eta kolektiboak egitea bat-batean komunikatzeko.
- Adierazpenak egitean, arnasa hartu eta lasaitzeko ariketak lantzea.
- Euskal dantzak eta beste kultura batzuetako eta nazioarteko dantza tradizional taldekakoak egitea, euskal tradizio ludikoa eta beste herrialde batzuetakoak ezagutu, ulertu, gozatu eta lantzeko, eta kultura-dibertsitatearen balioa ulertzeko.

## 4. MULTZOA. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- Norberak dakienetik abiatuta, aurrera egitea euskal dantza, joko eta kiroletan, lankidetzakulturala eta soziala bultzatuz.



- Jolas eta kirol banakako eta taldekoei (lehen mailan egindakoez bestekoei) dagozkien kirol-izaerako ekintzen eta keinuen trebetasun motorrak, gimnastikoak eta akrobatikoak ikastea, lantzea eta hobetzea, eta jarduera horiek egitean, arauak betetzea, norberaren buruaren kontrola indartzea, eta helburu komunak, tolerantzia eta kiroltasuna sustatzea, emaitzak lortzeko oinarri izan behar duten aldetik.
- Ibilbideak egitea ingurune naturalean eta hiri-ingurunean, eta bide-ibiliak baliatzea jarduera horiek egiteko, segurtasun-arauak beteta, naturaren eta hiri-ingurunearen erabilera egokia egin beharraren garrantziaz jabetuta, ingurune horiek errespetatuta eta aisia-jarduerak egiteko dakarkiguten aberastasuna balioetsita.

### 7.1.2.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

## 2. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Beroketa, lesioak prebenitu eta errendimendua handitzeko bitartekoa den aldetik.
- Oinarrizko ezaugarri fisikoak entrenatzeko sistemak eta metodoak: gure gorputzaren egokitzapenak eta osasunari egiten dioten mesedea.
- Jarduera fisikoetan eta kirolean gertatzen diren lesioetan zer egin jakitea eta lan horietan trebatzea, ezarrita dauden protokoloen arabera.
- Elikadura eta jarduera fisikoa: jaten denaren eta kaloria-gastuaren arteko oreka. Elikadura orekatuak osasunarentzat duen garrantzia.
- Ariketa fisiko ezegokiek osasunean duten eragina.
- Emakumeek eta gizonek kirola egiteko dituzten motibazioak.
- Genero-estereotipoekiko jarrera kritikoa.

## 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Sorkuntza pertsonal eta kolektibo aurreratuak irudikatzea, dramatizazioaren bidez.
- Banakako, bikotekako edo taldekako dantzak aurkeztea eta egitea, eta horien bidez, dantza egiten duten kideen arteko harreman zuzen eta aldakorak sustatzea eta taldearen barruko integrazioa eta onarpena erraztea.
- Dantza, genero-estereotipoei aurre egiteko bitartekoa den aldetik.
- Harremanen kontrola: asertibitatea eta prebentzioa lantzea eta arazoak lankidetzaren bidez konpontzea.
- Arnasa hartzeak eta lasaitzeak duten garrantzia, bai eguneroko bizitzan, bai gatazkak konpontzeko.

## 4. MULTZOA. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- Taldekako euskal dantza tradizionalak egitea, euskal tradizio ludikoa urte sasoiaren arabera ezagutu, ulertu, gozatu eta lantzeko.
- Euskal Herriko jolas, joko eta kirol herrikoi banakakoak egitea tailer sortaileen bidez, eta ikasleak berak izatea jolasak eta dantzak moldatu, asmatu eta sortuko dituztenak, irakasleak emandako jarraibideak aintzat hartuta.
- Eskola-eremuan jarduera ludikoak antolatu eta planifikatzeko jarraibide oinarrizkoak.
- Kirol kolektiboaren (bigarren ikasturteko kirolen) faseak lantzean, joko murriztuko egoeretan lantzea, erabaki-mekanismoak errazten dituzten aldetik, eraso eta defentsako ekintzak, ikasleen parte-hartzea sustatzea, eta gatazken konponbidea lantzea, lankidetzaren eta joko garbiko egoerak bultzatuz.
- Kirol-jarduera askotarikoak lantzea, materialez hornituta eta materialik gabe, genero-estereotipoak gainditzen laguntzeko.
- Orientaziorako ibilbideak diseinatzea eta ibiltzea, naturan orientatzeko elementu oinarrizkoak baliatuta, mapak erabilia eta segurtasun-arauak beteta, orientazio-ibilbideak egiteko landa- eta hiru-inguruneetan.

### 7.1.2.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako edukiak

#### 1. MULTZOA. Eduki komunak

**Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak. Eduki multzo honetako prozesu eta jarreraren xede dira:**

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

#### 2. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Egoera fisikoa lantzeko plan osasungarri bat egiteko oinarrizko jarraibideak, ikaslearen ezaugarri, interes eta beharrianetara egokitua.
- Beroketak egiteko jarraibideak betetzea eta ezaugarri fisikoak entrenatzeko sistema eta metodo oinarrizkoak erabiltzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren inguruko tresna oinarrizkoak erabiltzea ariketa fisikoa planifikatu, ebaluatu, erregistratu eta kontrolatzeko.
- Hasierako balorazioa, lehen esku-hartzeak eta oinarrizko bizi-euskarria emateko teknika oinarrizkoak erabiltzea, ezarritako protokoloen arabera.
- Arnasa hartu eta lasaitzeko teknikak eta metodoak lantzea, eta horiek balioestea, eguneroko bizitzan erabiltzeko.

- Ohitura jakin batzuen eragin kaltegarriak balioestea, haiekiko jarrera kritikoa izatea eta, inguruari erreparatuta, ohitura horiei aurre egiteko jarduerak bilatzea.
- Jarrera kritikoa izatea komunikabideek ariketa fisiko jakinen gainean ematen duten irudiarekin.
- Emakumeek eta gizonak kirola egiteko duten motibazio desberdinaren ezagutza.

### 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Koreografia-konposizio kolektibo eta originalak sortzea, musika-egitura batez lagunduta.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia erabiltzea euskarri, koreografiak egiteko.
- Koreografia-konposizioak diseinatzeko jarraibideak eskuratzea.
- Ingurune gertukoan adierazpen dramatikorako eta gorputz-adierazpenerako dauden aukerak ezagutzea.
- Taldekako euskal dantza tradizionalak egitea, euskal tradizio ludikoa urte sasoiaren arabera ezagutu, ulertu, gozatu eta lantzeko.
- Euskal errepertorioko dantza ohikoenak dantzatzea eta zer jatorri duten eta zer egoeratan dauden jakitea.

### 4. MULTZOA. Mugimenduaren kultura: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- Aisia eta denbora libre antolatu eta planifikatzeko oinarrizko jarraibideak, ikasleek ezaugarri, interes eta beharrezkoak egokituz, aintzat hartuta horietan berebiziko garrantzia dutela jarduerak fisikoak, adierazpenerako jarduerak eta kirolak.
- Euskal tradizioan indar handia duten joko, kirol-jarduerak eta herri-kirol batzuk, euskal errepertorioan itzal handia dutenak, egitea eta horien jatorria eta gaur egungo egoera aztertzea.
- Jolaserako eta aisiarako izaera duten joko eta kirol indibidualak, aurkaria edo inplementazioaren behar dutenak, eta joko eta kirol kolektiboak egitea, eta berariaz, txapelketak antolatzea, jarrerak, balioak eta arauetako errespetua sustatzeko kirol profesionaletik aparte, eta kirolaren balioak ikuspegi kritikoz aztertzea eta balio horien gaineko hausnarketa egitea.
- Ingurune askotarikoetara egokitzen laguntzen duten jarduerak motorrak egitea.
- Jolas eta jarduerak fisiko arautuak eta arautu gabek egitea naturan.
- Ingurune gertukoan eta baliabide askotarikoetan ariketa fisikoak eta kirolak egiteko dauden aukerak ezagutzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea jarduerak fisikoak, ludikoak eta kirolak egiteko aukerak bilatu eta zehazteko, norberaren ezaugarriak, interesak eta beharrezkoak erreparatuta.

### 7.1.2.6. Euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena

Atal honetan, era orientagarrian eta irekian, etapa osorako aurkezten diren edukiak, aurreko atalean aurkeztutako euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena dira.

#### 3. MULTZOA. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- **Euskal dantzak:**Euskal tradizioko dantza ezagunenak: biribilketa, txulalai, esku dantza, San Petrike, zazpi jauzi, Zuberoako makil dantza, Axuri beltza...

#### 5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza

- **Berezko euskal jolasak:** Ez da bakoitzak nahi duena egitea; proposamen batetik edo gehiagotik sortzen da, harremanak eta giroa egokiak diren lekuan. Arauarenganako errespetuak orekatzen du harreman hori; hori ez baldin bada horrela gertatzen, jolasa erasokorra, pultsionala bilakatuko da. Ezagutu eta burutzekoak, esaterako: Kooperatiboak: eltzea, sagar jalea,..; Ezkutaketakoak: ezkutaketan, kukua, altxor bila,..; Erritmikoak: soka-saltoak...; Harrapaketakoak: zaldia eta zalduna, marron...; Eskuzkoak: hatzak, esku kolpeak, txalopintxalo; Apunteriakoak: plotten, makila botatzea, kanikak, tiragoma...; Orekazkoak: txingotan, oilar borroka...; Jolas libreak: xiba, tortoloxetan...
- **Berezko euskal jokoak:** Aberastasun psikomotorra, zein soziomotorra eta kulturala duten jokoak dira eta gizarteratze prozesuak bideratzeko aproposak dira: Espazioaren antolaketa inguruan: ikurrinaren defentsa jokoak, orientazio lasterketa, artzain jokoak...; Dimentsio kognitiboa: musa...
- **Lanbide batean sorleku duten euskal jolas-joko arautuak:** Nekazal-itsas giroan sortutakoak dira gehienak, eraikuntza lanetatik datozenak ere egon arren (palankariak); Euskal nortasunezko kirolak berrindartu eta batzuk berpiztu, gure herriaren berezko ohitura eta gizarte eredu baten bila abiatzeko; Garapena zein hedapena honako ezaugarri hauek dituztenen artean egingo da bereiziki: Tira: sokatira, arrauna..; Korrika: zaku proba, orientazio lasterketa, lokotxak...; Jauzi: zaku lasterketa, saltari makila...; Altxa: txingak...; Jaurti: palanka, boloak, toka...
- **Euskal pilota:** Euskal pilotaren barne sartzen diren joko motak ugariak izanik ere, bi multzotan sailka daitezke: Joko zuzenak (aurrez aurrekoak): bote luzea, laxoa eta errebotea; Zeharkako jokoak (horma bitarteko dela jokatzeko direnak): frontoi motzeko, luzeko eta trinketeko modalitateak. Multzo bakoitzeko joko mota bakoitzak erabiltzen dituen tresnen izenak, espazioa antolatzeko erak eta jokatzeko arauak.

### 7.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

#### 7.1.3.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

##### 1. Beroketa orokorra egiteko eta berriro atsedenera itzultzeko ariketak, jolasak eta jarduerak biltzea eta praktikatzea.

- Badaki autonomiaz egiten ariketen katalogo oinarrizko bat, egiten dituen jarduera fisikoetarako beroketa egokiak landu eta berriro atsedenera itzultzeko.
- Beroketak egin eta atzera lasaitasunera itzultzeko printzipio orokorrak ezagutzen ditu eta saio praktikoetan erabiltzen ditu.
- Lokomozio-aparatuko oinarrizko osagaiak eta bihotz-biriketako sistemaren funtzio oinarrizkoak ezagutzen ditu.

- 2. Higiene-ohitura eta jarrera osasungarriak identifikatzea jarduera fisikoa egitean eta eguneroko bizitzan.**
  - Ariketa fisikoa egitean, zenbait ohitura identifikatzen eta betetzen ditu; hala nola jantzi egokiak (arropa eta oinetakoak) erabiltzea, ariketa egin bitartean hidratatzea eta saioen ondoren higie pertsonala zaintzea.
  - Jarduera fisikoetan eta eguneroko bizitzan hartu behar diren gorputz-jarrera egokiak ezagutzen ditu; hala nola eserita egoteko, zamak jasotzeko edo motxilak garraiatzeko hartu beharrekoak.
- 3. Osasuna hobetzeko helburua duten jarduera fisikoetan parte hartzea, hasierako maila hobetzen saiatuz.**
  - Ohitura osasungarriak eta osasungarri ez direnak bereizten ditu.
  - Indarreko lanek osasunari eta giharren erresistentziari dakarzkieten onurak aztertzen ditu.
  - Ahalegin zorrotza egiten du bere ezaugarri fisikoak eta, haiekin lotuta, osasuna hobetzeko.
  - Ezagutu eta ulertu egiten ditu egoneko bizitzak osasunari dakarzkion ondorioak.
  - Elikaduraren desoreka nabarmenenak eta horien arrazoiak identifikatzen ditu.
  - Jarrera kritikoa du inguruan ikusten dituen elikadura-joera ezegokiekiko.
- 4. Taldekako aurkezpen bat prestatzea, oinarrizko adierazpen-teknikak erabiliz, hala nola mimoa, keinua, antzezpena eta dantza, eta gainerako taldeen aurrean aurkeztea.**
  - Egoki erabiltzen ditu gorputz-adierazpeneko teknikak, aurrez landutakoak.
  - Sormena baliatzen du eta gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu bere sentimenduak eta emozioak komunikatzeko.
  - Hautatutako adierazpen-teknikaren erabilera egokitzen du.
  - Taldean lan egiten du amaierako jarduera edo ariketa prestatzeko.
  - Gorputzaren hizkuntza transmititzen du eta modu ulergarrian komunikatzen da ikaskideekin, keinuen eta mugimenduen bidez adierazita bere sentimendu, emozio eta mezuak.
- 5. Norberaren kultura-balioak nahiz kulturen artekoak eraikitzea eta komunikatzea antzeppenaren eta dantzaren bidez.**
  - Euskal kulturako talde jolas, dantza eta kirol ohikoenak egiten ditu.
  - Jarrera onez eta errespetuz begiratzen ditu euskal tradizioko jolasak eta kirolak eta beste kultura batzuetako tradizioak.
  - Euskal Kulturaren balioak eta beste kultura batzuetakoak ikasteko jarrera harkorra du.
- 6. Ekintza eraginkortasunez hautatzea, proposatu zaion banakako nahiz taldeko jolasa edo kirola kontuan hartuta.**
  - Erasoko egoeretan, baloia zaintzen du, aurrera egiten du eta markatzea lortzen du, ekintza tekniko egokiak hautatuta.
  - Defentsako egoeretan, egoki kokatzen du bere burua baloia berreskuratu, arerioaren aurrerabidea gerarazi eta puntuak galarazteko.

- Taldekideei laguntzen die eta elkarlanean aritzen da, tolerantzia eta kiroltasuna erakusten ditu eta ikaste-prozesuaren garrantzia balioesten du, emaitzen gainetik.
- Gogoz parte hartzen du jarduera fisiko eta kirolean, arauak betetzen ditu eta egoki erabiltzen ditu materialak eta instalazioak.

#### **7. Orientazio-seinaleak bilatzea aurrez zehaztutako ibilbide batean.**

- Egoki identifikatzen ditu ibilbidea osatzeko seinaleak.
- Ahalik eta azkar eta seguruaren osatzen du ibilbidea.
- Bete egiten ditu proposatutako jardueraren arauak.
- Jarduerari dagozkion ingurune fisiko eta sozialak errespetatzen ditu.
- Jarduera segurtasunez egiteko material egokia identifikatzen eta hautatzen du.

#### **8. Ariketa fisikoak osasunean dituen eragin onuragarriak aintzat hartzea, eta drogek eta substantziarik gabeko mendetasunek pertsonaren garapen integralean dituzten eraginak baztertzea.**

- Ariketa fisikoak organismoari dakarzkion onurak deskribatzen ditu.
- Mendekotasunek gorputzean eta portaeran eragiten dituzten ondorioak deskribatzen ditu.
- Gaitzetsi egiten ditu drogak eta substantziarik gabeko mendekotasunak.

### **7.1.3.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila**

#### **1. Landutako dohain fisikoak indartzeko interesa izatea, hasieran zuen maila hobetuz.**

- Egoera fisikoa hobetzeko ahalegina egiten du, saioetan gogoz parte hartuta.
- Saiatua eta zorrotza da ahaleginean, eta tolerantzia adierazten du, emaitzen bila joateko bulkadaren gainetik.

#### **2. Osasunerako jarduera jakin batzuek zer onura dakartzaten ohartzea praktikaren bidez.**

- Ariketa fisikoa egitean, badaki bere ahalegina kontrolatzen.
- Intentsitateari eta iraupenari erreparatuta, jarduera motak identifikatzen ditu, eskura dituen informazio eta komunikazioko teknologien laguntzarekin.
- Badaki kontzeptu-mapa baten bidez azaltzen osasunaren kontzeptua.

#### **3. Hautatutako erritmo bat oinarri hartuta, gorputz-mugimenduen sekuentzia harmoniko bat sortzea eta praktikatzea.**

- Erritmora moldatzen du sekuentzia, baita sormena eta desinhibizioa ere, jarduerak prestatu eta betetzean.
- Gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu ideiak eta sentimenduak komunikatzeko.
- Arnasketa kontrolatzen du eta gorputzaren tonu egokia erabiltzen, egitekoa duen adierazpen-jarduerari erreparatuta.

**4. Euskal Herriko eta beste herri batzuetako jolas eta dantza tradizionalak eta herrikoiak ezagutzea, balioestea eta praktikatzea.**

- Ezagutzen ditu euskal kulturako jolas, dantza eta kirol tradizionalak.
- Euskal Herriko jolas, dantza eta kirol herrikoiak egiten ditu.
- Jarrera ireki eta tolerantzia du euskal tradizioko jolas eta kirolekiko eta beste herrialde batzuetako jolas eta kirolekiko.

**5. Lankidetzarako jarrerak eta tolerantziarako eta kiroltasunezko jarrerak izatea taldeko kirolak egitean edo haien ikusle izatean.**

- Parte hartzaile denean, gutxienez behar den trebetasunez egiten ditu oinarrizko mugimenduak, eta bere taldean ematen zaizkion lanak betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Oinarrizko arauak ezagutzen ditu, epailea, taldekideak eta aurkariak errespetatzen ditu eta emaitza onartzen du.
- Ikusle denean, parte hartzeko jarrera du, lehiak motibatzen du eta errespetuz hartzen ditu jokalaria, epaileak eta haien erabakiak.

**6. Mendi-ibilbideak egitea, autonomiaz, oinarrizko segurtasun arauak betez eta ingurunea zainduz.**

- Bere kabuz egiten ditu ibilaldiak.
- Bete egiten ditu oinarrizko segurtasun-neurriak.
- Ibilbide bat egin aurretik, jantzi egokiak aukeratzen ditu, eta irizpide argiak erabiltzen ditu janaria, edaria eta materiala hautatzeko.
- Bidean aurrera egitean, ez die kalterik egiten ingurunekeko landare eta animaliei, eta jaso egiten ditu ibilbidean sortzen dituen hondakinak.

**7. Bizi-ohitura osasungarriak hartzea, jarduera fisikoa egitea, eta drogek eta substantziarik gabeko mendetasunek pertsonaren garapen osoan sortzen dituzten eraginez ohartzea.**

- Badaki maiztasunez ariketa fisiko egiteak organismoari zer onura dakarzkion deskribatzen.
- Mendekotasunek gorputzean eta portaeran eragiten dituzten ondorioez jabetzen da.
- Gaitzetsi egiten ditu drogak eta substantziarik gabeko mendekotasunak.

### 7.1.3.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila

**1. Giza gorputzeko aparatuetan eta sistemetan sortzen dituzten efektuekin lotzea jarduera fisikoak.**

- Badaki zer egokitzearen dakarzkion ariketa fisikoak giza gorputzari.
- Badaki ariketa fisikoak zer onura dakarzkien gure gorputzeko sistema eta aparatuei. Bereziki lokomozio-aparatuari eta aparatu kardiobaskularrari.
- Osasungarriak ez diren jarrerak identifikatzen ditu, eta gai da gure gizartean eta gure kulturatan osasuna modu orekatuan zaintzeko behar diren bitartekoak zerrendatzeko.



- 2. Egoera fisikoa hobetzea eta egoera hori hobetzeko metodoak eta jarduerak hautatzen parte hartzea.**
  - Ezarritako entrenamendu-metodoetan konbina daitezkeen jarduera era ariketen sorta bat ezagutzen du, norberaren ezaugarri fisikoak hobetzeko onuragarri direnak.
  - Badaki lan jarraitu, autonomo eta arduratsua egin behar dela osasunari atxikitako ezaugarri fisikoak hobetzeko, eta hori norberaren aukeren arabera egin behar dela, egunero saiatuz
- 3. Egokitzapen fisikorako ariketak egitea, gorputz-jarrera egokiak kontuan hartuta, lesioei aurrea hartzeko estrategia gisa.**
  - Mugimendurako jarraibideak betetzen ditu eta badaki haiek gorputzaren jarreretan erabiltzen eguneroko bizitzako egitekoetan.
- 4. Lehen laguntzak erabiltzeko egoera praktikoak lantzea, eguneroko bizitzarekin nahiz jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutakoak.**
  - Hasierako balorazioaren eta jardunaren oinarrizko jarraibideak betetzen ditu, ingurune seguruan.
- 5. Elikadura orekatuak osasunerako duen garrantziaz hausnartzea: egunero hartu beharreko elikagai-kantitatea, multzo bakoitzeko kaloria-gastua eta egunero egin beharreko jarduera fisikoa kalkulatzeko.**
  - Badaki jatean hartzen dituen kaloriak eta gastatzen dituenak kalkulatzeko, eta gogoeta egiten du egunero bi alderdi horien orekari eusteak duen garrantziaren gainean. Badaki zer-nolako garrantzia duen hidratazioak jarduera fisikoa egin bitartean.
  - Badaki hartu eta gastatutako kalorien arteko balizko desorekek zer arrisku eta gaixotasun dakarzkieten osasunari.
- 6. Binaka edo taldean dantzatzea, edozein taldekiderekin, errespetua eta desinhibitzea erakutsiz.**
  - Harreman zuzenak eta errespetuzkoak ditu ikaskideekin eta haietako bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen da.
  - Dantza xumeak egiten ditu talde txikietan, nabardura espresiboak eginda, eta gainerako ikaskideen egiteko modura moldatzen du bere dantza.
- 7. Euskal Herriko eta nazioarteko jolas-tradizioak (dantzak, inauteriak, kirolak) ezagutzea eta lantzea.**
  - Badaki zer euskal jolas-tradizio lantzen den urte-sasoi bakoitzean eta badaki nola parte hartu jolas horietan.
  - Euskal Herrian eta beste herrialde batzuetan errotuta dauden jolas, dantza eta kirolak egiten ditu.
  - Informazioa eskuratzen eta biltzen du, Euskal Herrian egiten diren jolasak eta kirolak ezagutarazteko.

- 8. Praktikatutako talde-kiroletako joko murriztuko egoerak ebaztea, lortutako ezagutza teknikoak eta taktikoak nahiz araei buruzkoak aplikatuz.**
- Erabaki egokiak hartzen ditu jolas mugatuetan, erabaki horiek betetzeko maila teknikoa alde batera utzita.
  - Erabaki doituak hartzen ditu jolas eta kiroleko egoerek dakartzaten auzi estrategikoetan (laguntzea, babesa ematea, objektu mugikorra geraraztea, espazioak okupatzea, etab.).
  - Alde batera uzten du indarkeria eta, jokatzeko ari denean, kiroltasunez aritzeaz gain, haren balio nagusi dira satisfazioa, hobetzeko gaitasuna eta ahalegina, emaitzen ginetik.
  - Bere gain hartzen du talde-jardunean duen erantzukizun indibiduala, ezinbesteko irizten baitio helburu komuna iristeko.
  - Euskal herri-kirolak egiten ditu (sokatira, txingak, arrauna, harri-jasotzea, sega, lokotxak, zaku-karrerak, boloak, euskal pilota, etab.). Ikus itzulpena
- 9. Oinarrizko orientazio-jarduerak prestatzea eta egitea, ahal dela natura-ingurunean, mapa bat erabiliz eta segurtasun-arauak betez.**
- Orientaziorako ibilbideak proposatzen ditu, bere jakintza eta konpetentzietara moldatuta.
  - Mapa baten laguntzarekin orientatzeko jarduerak osatzen ditu, eta, beharrezkoa baderitzo, beste orientazio-metodo batzuk erabiltzen ditu.
  - Aintzat hartzen ditu segurtasun-neurriak (arropa eta oinetako egokiak erabiltzea, hidratatzea, mapak erabiltzea, etab.), batik bat jarduera naturan egiten baldin bada.
- 10. Eskola-ingurunean edo eskolaz kanpo egiteko jolas-jarduerak planifikatzea eta antolatzea.**
- Eskolaren egoerara egokitutako jolasak proposatzen ditu, jarduera horiek antolatu, planifikatu eta ebaluatzen irizpide oinarrizkoak beteta.

#### 7.1.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila

- 1. Beroketak eta egoera fisikoa hobetzeko planak prestatzea eta betetzea, osasun-egoera eta hasierako egoera fisikoa hobetzeko.**
- Badaki egingo duen jarduerari egokiak zaizkion berotze-eraketak prestatzen eta egiten. Eskura dituen informazio eta komunikazioko teknologiak erabiltzen ditu ariketa fisikoak hobetzeko.
  - Badaki osasunari lotutako ezaugarri fisikoak etengabe lantzeak zer ondorio eta egokitzapen orokor dakartzkion, eta badaki zer arrisku dakartzkion osasunari eta bizikaltateari ariketa gutxi egiteak eta ariketak behar bezala ez egiteak.
  - Ulertzen ditu karga eta intentsitate kontzeptuak eta badaki zer-nolako garrantzia duten egoera fisikoa landu eta hobetzeko.
  - Jarduera fisikoaren gaineko erabakiak hartzean, bere osasunarentzat egokienak direnak erabakitzen ditu, bere gaitasun, beharrezko eta asmoei erreparatuta.

- 2. Lehen laguntzak erabiltzeko egoera praktikoak lantzea, eguneroko bizitzarekin nahiz jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutakoak, eta lehen laguntzak ematea.**
  - Oinarrizko ezagutza teoriko eta praktikoak ditu, ariketa fisikoa egitean gertatu ohi diren lesio arruntenetan nola jokatu behar duen jakiteko.
  - Badaki biziari eusteko teknika oinarrizkoak egoki erabiltzen (zauriak garbitzen, hotza jartzen, bihotz-birikak berpizteko tekniken erabilera oinarrizko eta instrumentalak gauzatzen manikiekin, desfibriladore automatikoak erabiltzen, airebideak garbitzeko teknika eta masaje-teknika oinarrizkoak aplikatzen, etab.).
- 3. Jarrera kritikoa izatea, bai osasungarriak ez diren jarduera fisikoen praktikarekiko, bai komunikabideetan gorputzari nahiz kirolari ematen zaien trataerarekiko.**
  - Komunikabideetako informazioa erabiltzen du ariketa fisikoari eta gorputzari buruzko gai egungoak landu eta hausnartzeko.
  - Irizpide kritikoz aztertzen ditu ariketa fisikoarekin eta egungo gizartearekin lotutako hainbat gai; hala nola egungo bizi-estiloak, kirolaren balioak, profesionalismoa, lehiakortasuna, lan boluntarioa eta indarkeria.
  - Jarrera kritikoz behatzen ditu aztertutako gaiak, egungo gizartearen jarduera fisikoen eta bizi-estiloen gainekoak.
- 4. Taldeko adierazpen-jarduerak sortzen eta egiten parte hartzea, musika-euskarri batekin, modu desinhibituan eta eraikitzailean.**
  - Gogoz parte hartzen du talde txikietan, musikaz lagundutako koreografia xumeak prestatzen eta dantzatzen.
  - Musikaren erritmoari jarraitzen dio, gorputz-adierazpena landuz.
  - Koreografia indibidualak egiten ditu, eta haiek sortzeko prozesuan, talde-lanaren jarraipenean inplikatzeko da.
- 5. Euskal kulturarekin lotutako jolas eta gorputz-jarduerari buruzko jakintza teorikoak izatea, jolas eta jarduera horiek egitea, euskal dantza eta nazioarteko dantza batzuk dantzatzea, eta haien jatorriaren eta egungo praktikaren berri jakitea.**
  - Euskal herri-kirolak egiten ditu (sokatira, txinga-eroatea, arrauna, harri-jasotzea, sega, lokotx-biltzea, zaku-eramate lasterketak, boloak, euskal pilota, etab.).
  - Kirol horietako kirolari eta talde nabarmenenak ezagutzen ditu eta haien jatorria, oinarriak eta arauak azaltzen ditu.
  - Euskal erreperatorioko dantza ezagunenak (kalejira, fandangoa, arin-arina...) eta nazioarteko dantzak dantzatzen ditu, musika, mugimendua eta adierazpena egoki uztartuta.
  - Euskal dantzen modalitateak (ludikoak eta irekiak, formalak eta itxiak, urte-sasoien arabera dantzatzen direnak) eta nazioarteko dantzen modalitateak sailkatzen ditu, eta bereizi egiten ditu dantza mota nagusiak.
  - Euskal eta nazioarteko dantzak egiten dituzten dantzari eta talde nabarmenak ezagutzen ditu.

**6. Etapa honetan zehar landutako kirolak eta jarduera fisikoak egiteko txapelketak antolatzen parte hartzea eta txapelketa horietan jokatzea.**

- Kirol-txapelketak antolatzeko prozesuetan parte hartzen du, gerta daitezkeen akatsak aurreikusten ditu eta ekimenez jokatzeko du.
- Ikasleek antolatutako topaketetan parte hartzen du.
- Gogoz parte hartzen du, taldean lan egiten du eta errespetuz jokatzeko du arauekin eta aurkariekin.

**7. Askotariko jarduerak egitea natura-ingurunean.**

- Natura-ingurunean jarduerak antolatzen laguntzen du eta jarduera horiek inpaktu apala izaten dute lurrun eta uretan.
- Natura-ingurunean antolatu diren jardueretan parte hartzen du.
- Badaki zer eragin duten jarduera fisiko eta kirol batzuek natura-ingurunean.
- Natura-ingurunean jardueretan erabiltzen diren teknikak erabiltzen ditu eta bete egiten ditu natura-ingurunean antolatzen diren jardueretan bete behar diren oinarrizko segurtasun-printzipioak.

**8. Askotariko jarduerak egitea hiri-ingurunean.**

- Natura-ingurunean inpaktu apala duten jarduerak antolatzen laguntzen du.
- Taldeko eta banakako jarduerak egiten ditu hiri-ingurunean.
- Badaki zer onura dakarten hiri-ingurunean egiten diren jarduera fisiko eta kirol batzuek.
- Hiri-ingurunean jardueretan erabiltzen diren teknikak erabiltzen ditu eta bete egiten ditu hiri-ingurunean antolatzen diren jardueretan bete behar diren oinarrizko segurtasun-printzipioak.

**9. Aisia eta denbora librean antolatzea eta planifikatzea, inguruneak ematen dituen aukerak eta bere ezaugarriak, interesak eta beharrak kontuan hartuta.**

- Badaki ingurune gertukoak zer aukera ematen dizkion ariketa fisikoak eta kirolak egiteko.
- Informazioaren eta informazioaren teknologiak erabiltzen ditu jarduera fisiko eta kirolen gaineko informazioa bildu eta berarentzat egokienak diren aukerak topatzeko.